

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Euskarazko bat-bateko bertsoen erritmoa

Silabatzea, erritmo-ereduak eta taldekatzea

Ainhoa Aizpurua-Insausti

Zuzendariak:

Oroitz Jauregi Nazabal

Miren Lourdes Oñederra Olaizola

Euskal Herriko Unibertsitatea
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

2024

Ikerketa hau Mintzola Fundazioaren eta Mikel Laboa Katedraren (EHU) doktorego-aurreko bekaren finantzazio bidez egin da 2016/12/16-2017/01/22 tartean, eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko diru-laguntzari esker 2017/01/23-2020/01/15 bitarte.

*Ama,
Atta,
Maddi:
Zuei*

Eskerrak

Eskerrak bideari.

Bizitakoei, ikasitakoei eta, bereziki, bidaide izan zaituztedan izaki ederrei, bide hau egingarri eta gozagarri egiteagatik.

Eskerrak Oroitz Jauregiri eta Lourdes Oñederrari. Zuen eskutik murgildu nintzen duela hamarkada bat baino gehiago fonetika eta fonologiaren ur abisaletan, gaur arte. Eskerrik asko zuen eskolengatik, emandako gidaritzagatik, inspirazioagatik. Egindako eta hartutako lanagatik. Argiagatik.

Urte hauetan inguruan izandako irakasle, ikertzaile eta administrariei, mila esker: askok utzi duzue arrastoa nigan. Bereziki aipatu nahiko nuke Xabier Artiagoitia, irakasle eredugarria izateaz gain, Doktorego Programako zuzendari gisa egindako lanagatik eta aldiro emaniko laguntza guztiagatik. Ibon Manterolari eta Izaskun Sagastiri ere eskerrak, azken hilabeteotako laguntza eta erraztasunengatik. Ezin ahaztu Almudena Oribe, beti egin baitu bere esku dagoena (eta gehiago) niri laguntzeko, bulegora eginiko bisitetan unean-uneko bertsolari txapelketez aritzeko aprobetxatu bitartean.

IKEReko ikertzaile eta administrariei esker mila, Baionako egonaldian horren ongi zaintzeagatik. Gogoan ditut Errobi ertzeko ibilaldiak.

Eskerrak Varun deCastro-Arazolari, eskuzabaltasunagatik, gauzak bestela egin daitezkeela agerian uzteagatik. Miren Artetxeri eta Harkaitz Zubiriri, beti agertutako prestutasunagatik. Maite Aseginolazari, musikaz galdetutakoak argitzeagatik. Martin Aramendiri, epai-irizpideekin laguntzeagatik. Itziar Navarrori, Agustin Mendizabali eta Maddi Soroari, egindako lana partekatzeagatik.

Karlos Aizpuruari, hasieratik emandako animoengatik eta laguntzagatik. Bertsozale Elkarteko kideei, Mintzola Fundazioari eta Mikel Laboa Katedrari ikerketa hasi, sakondu eta eginikoa zabaltzeko eskainitako aukerengatik. Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza Batzordeko kideei; zuen ondoan, zuekin eta zuengandik ikasitakoagatik, bertsogintza horrelako talaiatik bizitzeko aukeragatik. Xenpelar Dokumentazio Zentroko langileei; bereziki Itsaso Noyari eta Oihana Aranbururi, beti, mezuz zein Billabonako ganbarara eginiko bisitetan, horren ongi hartzeagatik.

Xabier Amurizari, Sebastian Lizasori, Jon Lopategiri, Andoni Egañari, Maialen Lujanbiori eta Amets Arzallusi. Bertsoengatik. Ikerketan laguntzeko prest agertzeagatik (azkenean corpus azterketara mugatu behar izan dut lana, baina...). Horiekin batera, urte hauetan zehar bertsoen

prosodia ukitzen duten gaiez gogoetak, bertsoak, ikerketak, iritziak zein bizipenak plazaratu dituzuen bertsolari eta bertsozaleei.

Hizkimilikiliklik elkarteko kideei, behinola doktoregaiok sartzeko mezu hura bidaltzeagatik. Antolatutako ekimen akademiko eta *ez-horren-akademiko*engatik. Eskerrak, besteak beste, Sergio Monforteri, Alex Artzelusi, Laura Vela-Plori, Aitor Lizardiri eta Beñat Garaiori.

Alazne Arriortuari: inor *tesikide* izan badut zu izan zaitudalako. Partikula partikular berriengatik, elkarrizketa amaigabeengatik, *na zdrowie!*

Arroilei, emandako arnasagatik. Baretasunagatik. Indarragatik. Harkaitz gainean salto egin-ez egin zalantzan dantzan ibili izan naizen guztietan ondoan, atzean, putzuan zain egon zaretenoi, barrez, lasaitasuna emanaz, kontu-kontari. Egin dut salto azkenean!

Bertso-eskolako kide absurdoki zoragarriei: zuekin Inkonstantinkoplaraino joan nahi dut, potoz potoz.

Nire erruz *prosodia* hitza ikasi duzuen guztioi. Interesagatik, maitasunagatik, umoreagatik.

Hala bedi tabernako leiho ondoko txokoari.

Eskerrik asko, Bea, por ayudarme a entender la fuerza de la fragilidad.

A Mari Cruz, Jesús y Mikel: por acogerme y mimarme como lo habéis hecho. Eskerrak, bihotzez.

Eskerrak, era berean, begi-ertzetako zimur-marraskilari eroei. Angostoko kanpinean, Agurain gaineko muino hartan, San Martin plazan, rock kontzertuetan zein asteazkeneroko afarietan askotariko formak hartuta ondoan izateagatik.

Etxekoei. Zentzurik zabalenean.

Amona Euxebiri eta attona Joxeri, *lengo egunak gogoan*: gustoa zelebratuko nuke okasiyua zuekin!

Maddiri, orri zuri bat lakuan murgiltzen denean sortzen denagatik.

Atta, ama, zer esan... Eskerrik asko. Eskerrik asko.

Ipurtargiei, armiarme, medusei, pinguinoei.

Josuri.

Eskerrak.

Aurkibidea

Lanean zehar erabilitako laburdurak eta bestelako zeinuak.....	xvii
Corpuseko adibideak aurkeztu eta izendatzeko modua.....	xvii
Bestelako zeinu, ikur eta laburdurak.....	xviii
Taulen zerrenda.....	xxi
Irudien zerrenda.....	xxiii
1. Sarrera.....	1
1.1. Ikergaia kokatuz.....	1
1.1.1. Prosodia.....	1
1.1.2. Bertsoen prosodia.....	6
1.1.3. Ikergaiari ezarritako mugak: bertsoen erritmoa ardatz.....	8
1.2. Helburuak.....	9
1.3. Tesiaren aztergaiak.....	9
1.4. Ohar teoriko-metodologiko zenbait.....	11
1.4.1. Marko teoriko eta interpretatiboaren eraikuntzaz.....	11
1.4.1.1. Molde teorikoa.....	11
1.4.1.2. Hizkuntzaren analisi-mailak.....	15
1.4.1.2.1. Hizkuntza egituratzen duten hatsarre orokorrak.....	15
1.4.1.2.2. Hizkuntzen hautu tipologikoak.....	16
1.4.1.2.3. Hizkuntza jakin baten baitako zehaztapenak.....	16
1.4.1.2.4. Norma.....	17
1.4.1.2.5. Performance-a edo ekoizpena.....	17
1.4.1.3. Landutako bibliografia eta lehen mailako iturriak.....	18
1.4.2. Corpusaz: aztertutako bertsoak eta eginiko ohar linguistiko eta musikalak.....	19
1.5. Tesiaren egitura.....	23
2. Txertatze prosodikoa.....	25
2.1. Sarrera.....	25
2.2. Bilakabide prosodikoak.....	26
2.3. Silabatzea.....	29
2.4. Prosodiaren eta hizketaren alderdi segmentalaren arteko harremana.....	31
2.4.1. Bilakabide fonologiko segmentalak.....	33
2.4.2. Bilakabide segmentalak eremu prosodikoetan.....	40
2.4.3. Erregela morfonologikoak.....	42
2.5. Hondarreko gogoetak.....	45

3. Hizkuntzen erritmoa.....	47
3.1. Sarrera.....	47
3.2. Nabarmentasun harremanak. Azentuak eta azentu-ereduak.....	48
3.3. Taldekatzea: hierarkia prosodikoa.....	49
3.4. Erritmoaren araberako hizkuntza-tipologia(k).....	52
3.4.1. Isokroniaz.....	54
3.4.2. Isokronia, ekoizpen-asmo eta oharmenean.....	56
3.4.3. Erritmo(ar)en oinarria, fonologia.....	58
3.4.3.1. Silaba azentudun eta azentugabeen arteko bereizkuntza.....	61
3.4.3.2. Bokalen nolakotasuna eta kantitatea.....	61
3.4.3.3. <i>Tempoa</i> azkartzeko modua (<i>allegrostyle</i>).....	62
3.4.3.4. Silaba-egitura.....	62
3.4.3.5. Silaba-kontaketa.....	64
3.4.3.6. Silaba astunak azentudun?.....	64
3.4.3.7. Azentuak segmentuak erakartzen ditu?.....	64
3.4.3.8. Bilakabide segmentalen, silabatzearen eta taldekatze prosodikoaren joerak.....	64
3.4.3.9. Azentua gauzatzeko moduak.....	65
3.4.3.10. Ohar eta gogoeta zenbait fonologian oinarritutako tipo erritmikoez.....	65
3.4.4. Euskara fonologian oinarritutako erritmoaren araberako tipologian.....	71
3.4.4.1. Silaba azentudun eta azentugabeen arteko kontrastea eta bokalen nolakotasuna eta kantitatea.....	71
3.4.4.2. Azentuak silaba eta segmentuekin duen harremana eta <i>tempoa</i> azkartzeko modua.....	72
3.4.4.3. Silaba-egitura eta silaben arteko mugak.....	73
3.4.4.4. Silaba kontaketa.....	76
3.4.4.5. Bilakabide segmentalak, silabatzea eta taldekatzea.....	76
3.4.4.6. Azentua eta kantitatea. Azentua gauzatzeko moduak.....	77
3.4.5. Erritmoa tipologia holistikoa.....	78
3.4.5.1. Hitz ordena eta esaldi mailako azentua.....	80
3.4.5.2. Esaldi mailako azentua eta hitz mailakoa.....	81
3.4.5.3. Hitz mailako azentua eta afixuak.....	82
3.4.5.4. Azentua eta erritmoa.....	82
3.4.5.5. Hizkuntza, bertsogintza eta musika.....	84
3.4.6. Euskara tipologia holistikoa.....	85
3.4.7. Oharmenera eta neurketetara itzulua.....	86
3.4.8. “Euskararen erritmoa neurtzen”.....	89
3.5. Hondarreko gogoetak.....	90
4. Aldakortasun prosodikoa: eragileak eta egitekoak.....	93
4.1. Sarrera.....	93
4.2. Morfo-sintaxiaren, semantikaren eta pragmatikaren sareetan.....	94
4.2.1. Morfologiak prosodia kudeatzen duenean.....	94
4.2.2. Zama semantikoaren eta informazioaren berritasunaren eragina.....	95
4.2.3. Fokua.....	96
4.2.4. Prosodia eta sintaxiaren arteko harremana.....	97

4.2.5. Informazio-egitura, diskurso-antolakuntza, testu-mota.....	101
4.3. Hizketa-mailak eta testuinguruko baldintzen eragina.....	102
4.4. Hizketa <i>tempoaren</i> eta antolakuntza erritmikoaren eragina.....	105
4.5. Egiteko paralinguistikoak, ez-linguistikoak eta kode komunikatiboak.....	107
4.6. Hondarreko gogoetak.....	110
5. Testu-uztartzea.....	111
5.1. Sarrera.....	111
5.2. Testu-uztartzea hizkuntzaren txertatze prosodikotik ulertuz.....	113
5.3. Hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren arteko lotura eta alde prosodiko batzuk.....	115
5.3.1. Periodikotasuna.....	115
5.3.2. Nabarmentasun harremanak.....	116
5.3.3. Taldekatzea.....	119
5.4. Zein hizkuntza-ezaugarri gauzatzen dira kantuan?.....	120
5.5. Zein puntutara arte islatzen dira hizkuntza-ezaugarriak kantuan?.....	123
5.5.1. Hizketatik kantura doan bidean.....	123
5.5.2. Egituren eta horien gauzatzearen arteko tentsioak.....	124
5.5.3. Prosodiaren egitekoak testu-uztartzean. Osagaien arteko harremanetatik harago.....	125
5.6. Hondarreko gogoetak.....	127
6. Bertsolaritza.....	129
6.1. Sarrera.....	129
6.2. Oinarrizko osagai batzuen aurkezpena.....	130
6.3. Bertsoetara erretorikatik hurreratuz: testuinguruaren garrantzia.....	133
6.4. “Tradizio modernoa”: itxuraz aurkako diren joerak uztartuz.....	136
6.5. Gizartearekiko lotura gehiago.....	137
6.5.1. Bertsolaritza harreman gisa.....	138
6.5.2. Bertsolaritzaren gizarte-mugimendua.....	139
6.5.2.1. Bertsolaritza gizarte-mugimendu gisa egituratuz.....	139
6.5.2.2. Garaian garaira egokitzeko gaitasuna: bertsolaritzaren artikulazioak.....	143
6.6. Prosodia ukitzen duten —edo prosodiak ukitzen dituen— eremu batzuk bertsoetan.....	143
6.6.1. Bertsoen metrika edo neurria.....	144
6.6.1.1. Atariko ulerkera eta terminologia auzi batzuk.....	146
6.6.2. Bertso-doinuak.....	148
6.6.2.1. Doinuen egitura.....	149
6.6.2.2. Neurriekiko loturak.....	153
6.6.2.3. Doinuen hautuaz eta hautemateaz.....	154
6.6.3. Bertsolarien kantaera.....	156
6.6.3.1. Kantaerak hautemateko moduez.....	156
6.6.3.2. Heziketa musikalaren, testuinguru komunikatiboen eta baliabide teknikoaren eraginaz.....	157
6.6.3.3. Doinuaren ezaugarriek baldintzatutakoaz.....	158
6.7. Hondarreko gogoetak.....	159

7. Ikerketan aztertu den corpusa: kokapena eta testuingurua	161
7.1. Sarrera.....	161
7.2. Corpusaren hautuaz.....	161
7.2.1. Aldia: 1980 - 2017.....	163
7.2.2. Saio-mota: Bertsolari Txapelketa Nagusietako finalak.....	163
7.2.2.1. Txapelketen testuingurua(k).....	164
7.2.2.2. Txapelketetan bertsolariek eginiko lanak (azterturiko bertsoaldiak).....	166
7.2.2.3. Epai-irizpideak.....	172
7.2.3. Bertsolariak: txapeldunak.....	173
7.3. Azterturiko bertsoak, txapelketak eta bertsolariak bertsolaritzaren bilakaera historikoan labur kokatuz.....	176
7.3.1. 60ko hamarkadako “bertsogintza soziala” eta bertara heltzeko bidea.....	176
7.3.2. Bertsolari eta bertsozaleen (auto-)antolakuntza: kultur proiektuaren sorrera garaiak. .	178
7.3.3. Telebistara, teorizaziora, nazioartera eta rockera jauzia.....	180
7.3.4. Multipolartasunerantz.....	182
7.4. Hondarreko gogoetak.....	183
8. Bertsoen silabatzea: silaba-egiturak, gertakari segmentalak, silabatze-aukerak eta baliabide metriko nagusiak	185
8.1. Sarrera.....	185
8.2. Aurrekariak eta marko teoriko-analitikoa.....	189
8.2.1. Silaba: definizioa eta egitura.....	189
8.2.2. Euskararen silaba-egitura eta silabatzean onartzen diren hots bilkurak.....	191
8.2.3. Bilakabide fonologiko segmentalak eta horien emankortasuna.....	194
8.2.4. Euskarazko bilakabide segmental sintagmatiko nagusiak eta zenbait erregela.....	195
8.2.4.1. Fortitioak.....	196
8.2.4.2. Lenitioak.....	198
8.2.4.3. Euskaraz gauzatzen diren bilakabideen joerez.....	201
8.2.5. Erritmoaren araberako tipologia(k), silabatzea eta euskararen silaba-aldikotasuna....	202
8.2.5.1. Silaba-egituraren konplexutasuna eta silaba-moten maiztasunak.....	202
8.2.5.2. Joera segmentalak.....	204
8.2.5.3. Silaben arteko mugak eta silaben zenbaketa.....	205
8.2.6. Silabatzea testu-uztartzean.....	206
8.2.6.1. Erritmoaren araberako tipologiatik testu-uztartzeko silabatzeari begira.....	206
8.2.6.2. Hizketa mailaren araberako aldakortasuna kantuan?.....	207
8.2.7. Silabatzea euskarazko bertsogintzan.....	208
8.2.7.1. Neurria nola bete: “lizentzia metrikoak” (euskaraz).....	208
8.2.7.2. Bertsogile batzuen silabatze-irizpideez.....	210
8.2.7.3. Corpuseko bertsoak kokatuz: bilakabide fonologikoak, bertso-neurria eta beste epai-irizpideen argitan (1980-2017).....	213
8.3. Ikerketa galderak eta auzi metodologikoak.....	220
8.3.1. Bertsolariek ekoizitako silaben egiturak eta horien maiztasunak.....	221
8.3.1.1. Ikerketa-galderak.....	222
8.3.1.2. Datuen trataera.....	222

8.3.2. Silabatzea baldintzatzen duten silabatze-aukera eta gertakari foniko nagusiak.....	223
8.3.2.1. Ikerketa-galderak.....	225
8.3.2.2. Datuen trataera.....	225
8.3.3. Neurria betetzeko baliabide foniko nagusiak.....	228
8.3.3.1. Ikerketa-galderak.....	228
8.3.3.2. Datuen trataera.....	229
8.4. Datuen aurkezpena eta irakurketa proposamena.....	229
8.4.1. Bertsolariak ekoiztako silaben egiturak eta horien maiztasunak txapelketaz txapelketa	229
8.4.2. Gertakari sintagmatikoak: bilakabide fonologikoak eta silabatze-aukerak.....	236
8.4.2.1. Silaba egituratzen duten hatsarreak indartzen dituzten bilakabide segmentalak. .	237
8.4.2.1.1. Hots epentetikoak txertatzea silaba-ekina indartuz.....	237
8.4.2.1.2. Silaba-ekineko segmentuen izaera indartzea (edo ez ahultzea).....	247
8.4.2.1.3. Silaba-kodako kontsonanteak ahuldu edo kentzea.....	256
8.4.2.2. Bertsolarien silabatze-aukerak hitz mugetan.....	264
8.4.2.2.1. Bokal bilkura heterosilabikoen trataera hitz artean.....	264
8.4.2.2.2. Kontsonante-bokal (C# #V) elkarketan silabatzea hitz artean.....	270
8.4.3. Bertsolarien silabatze-estrategiak, neurriari lotuta.....	274
8.4.3.1. Txertatze prosodikoan joera nagusi: hiatoa.....	275
8.4.3.2. Dieresia eta gehiketa: baliabide mugatu.....	275
8.4.3.3. Lenitio aipagarriak, eskakizun metrikoak betetzeko: sinalefak, sineresiak eta kenketak.....	281
8.4.4. Bertsolarien silabatze-joerak erritmoaren arabeko tipologiaren argi-ilunetan.....	292
8.4.4.1. Silaba-egituraren konplexutasuna eta silaba-moten maiztasunak.....	293
8.4.4.2. Joera segmentalak.....	293
8.4.4.3. Hitz arteko muga trataera.....	296
8.4.5. Bertsoetako txertatze prosodikoa.....	297
8.4.5.1. Abiapuntua: hots katearen ezaugarriak.....	297
8.4.5.2. Maila sintagmatikoa: aldakortasun ardatz batzuk.....	298
8.4.5.3. Neurri-eskakizunak nola bete: sinalefaren auzia.....	298
8.4.5.4. Silabaren izaeraz.....	300
8.5. Laburbilduz.....	300

9. Bertsoetako erritmo-ereduak: ezaugarri nagusiak, aldaerak eta aldakortasun-eragile posible batzuk.....	303
9.1. Sarrera.....	303
9.2. Aurrekariak eta marko teoriko-analitikoa.....	304
9.2.1. Erritmo-ereduak (azentuerak) txertatze prosodikoan.....	304
9.2.1.1. Bilakabide prosodikoak eta erritmo-ereduak.....	305
9.2.1.2. Erritmo-ereduak egituratzen dituzten hobespen prosodikoak.....	308
9.2.1.3. Morfoprosodia.....	311
9.2.1.4. Euskaraz baliatzen diren azentuen izaeraz eta azentu-eredu orokorrez.....	313
9.2.1.4.1. Azentu-eredua antolatze eremu prosodikoak.....	314
9.2.1.4.2. Azentu-eredu orokorrak.....	315

9.2.1.4.3. Azentu-ereduak zein alorrek kudeatzen dituen.....	317
9.2.1.4.4. Azentuen aldagai akustikoak.....	319
9.2.1.4.5. Azentuak eragindako bilakabide segmentalak.....	320
9.2.2. Azentu-ereduak eta euskara erritmoaren araberako tipologia.....	322
9.2.2.1. Silaba azentudun eta azentugabeen arteko bereizkuntza.....	322
9.2.2.2. <i>Tempoa</i> azkartzeko modua (allegrostyle deiturikoa).....	322
9.2.2.3. Silaba astunak azentudun?.....	323
9.2.2.4. Azentuaren aldagai akustikoak, erritmo-ereduen gauzatze-eremuak eta azentuen kokapena.....	323
9.2.3. Erritmo-ereduak eta bertsoen oinarri metrikoa.....	324
9.2.3.1. Hizkuntzen fonologiaren eta sistema metrikoen arteko loturak.....	325
9.2.3.2. Euskararen fonologia eta sistema metrikoa.....	327
9.2.3.2.1. Oin metrikoetan oinarritutako sistema: Lekuonaren ikuspegia.....	328
9.2.3.2.2. Silaba zenbaketan oinarritutako sistema: gaur egungo ulerkerak.....	331
9.2.4. Erritmo-ereduak eta testu-uztartzea kantuan.....	332
9.2.4.1. Hizkuntzaren fonologiaren eragina kantuan gauzatutako erritmo-ereduetan.....	332
9.2.4.1.1. Nabarmentasunak bat etortzea.....	332
9.2.4.1.2. Euskararen azentuerak testu-uztartzean.....	336
9.2.4.1.3. Erritmo-ereduen ezaugarriak kantuan eta musika instrumentalean.....	341
9.2.4.1.4. Kantuen oinarrian dagoen konpasa.....	344
9.2.4.2. Alor adierazkorra.....	345
9.2.5. Euskarazko bat-bateko bertsogintzan erabiltzen diren bertso-doinuen egitura erritmikoa.....	346
9.2.5.1. Musikaren ekarpen erritmikoa kantatzen den hizketaren ezaugarriak.....	346
9.2.5.1.1. Periodikotasunak eragindako azentuak.....	346
9.2.5.1.2. Egitura: erritmo-ereduak eta taldekatzea.....	347
9.2.5.2. Bat-bateko eta euskarazko bertsogintzan baliatzen diren doinuen eredu-erritmikoa.....	348
9.2.5.2.1. Bertso-doinuen egituratze erritmikoa.....	348
9.2.5.2.2. Motibo erritmikoa egitura metrikoarekin duen harremana.....	350
9.2.5.2.3. Doinuetako erritmo-ereduen aldakortasuna.....	350
9.3. Ikerketa-galderak eta auzi metodologikoak.....	350
9.3.1. Azentu linguistikoen eragina aztertzeko zailtasunak corpus analisisian.....	351
9.3.2. Eredu-erritmikoen ezaugarriak eta aldakortasuna.....	352
9.3.2.1. Ikerketa-galderak.....	352
9.3.2.2. Datuen trataera.....	353
9.4. Datuen aurkezpena eta kasuan kasuko interpretazio proposamena.....	355
9.4.1. Motibo erritmiko orokorren ezaugarriak.....	355
9.4.2. Motibo erritmikoen aldaera nagusiak.....	359
9.4.2.1. Eredu hasiera edo bukaerako silaba(k) luzatzea.....	360
9.4.2.2. Egiturazko etenak ez egitea, modu jarraituan kantatzea.....	363
9.4.2.3. Eredua trinkotzea, lauago gauzatzea edo eremuak elkarrengana hurbiltzea.....	364
9.4.2.4. Silaben balio erritmikoa parekatzea.....	367

9.4.2.5. Hizkako edo sintagmakako multzokatzea motibo erritmiko barnean, eredu hitzen neurrira moldatuz edota eten bidez bereiziz.....	369
9.4.2.6. Silaba(ren) bat(zuk) nabarmentzea motibo erritmikoaren baitan.....	372
9.4.2.7. Motibo erritmikoan musika nota bat (silaba bat) gehitzea.....	373
9.4.3. Erritmo-ereduen aldakortasuna bertsolariz bertsolari.....	375
9.4.3.1. Xabier Amuriza (1980, 1982).....	376
9.4.3.2. Sebastian Lizaso (1986).....	378
9.4.3.3. Jon Lopategi (1989).....	379
9.4.3.4. Andoni Egaña (1993, 1997, 2001, 2005).....	380
9.4.3.5. Maialen Lujanbio (2009, 2017).....	382
9.4.3.6. Amets Arzallus (2013).....	384
9.4.3.7. Joera bertsuak, modu eta neurri desberdinetan.....	386
9.4.4. Aldaeren eragile posibleak.....	387
9.4.4.1. Bertso-egitura: mugak indartu edota osagaiak trinkotzea.....	387
9.4.4.2. Hizkuntzaren mugetara moldatzea kantua.....	388
9.4.4.3. Kontrastea, adierazkortasun baliabide.....	388
9.4.4.4. Epai-irizpideek argi lezaketena.....	388
9.4.4.5. Estilo eta kanon kontuak.....	389
9.4.4.6. Euskararen azentu-ereduek zein toki dute bat-bateko bertso kantatuetan?.....	390
9.4.5. Aldaeren izaeraz.....	391
9.5. Laburbilduz.....	392
10. Bertsoetako unitate prosodikoak: taldekatzea.....	395
10.1. Sarrera.....	395
10.2. Aurrekariak eta marko teoriko-analitikoa.....	396
10.2.1. Hizkuntzaren egiturak.....	396
10.2.1.1. Hizkuntzaren hierarkia prosodikoa.....	396
10.2.1.1.1. Silaba, mora. Segmentuen egituratze erritmikoa denboran zehar.....	397
10.2.1.1.2. Oina, beat-a, hitz prosodikoa eta beste. Azentuen inguruan antolatutako egiturak.....	399
10.2.1.1.3. Esaldi fonologikoa eta hierarkian “goragoko” osagaiak.....	405
10.2.1.1.4. Euskararen fonologia ulertzeko proposatutako unitate prosodiko batzuk...407	407
10.2.1.2. Unitate prosodikoei tipologiaren ikuspegitik begira.....	409
10.2.2. Bertso-neurrien osagaiak.....	410
10.2.2.1. Taldekatze metrikoak eta hizkuntzekiko lotura posibleak.....	410
10.2.2.2. Euskaraz sortutako (bat-bateko) bertsoen egitura metrikoa.....	412
10.2.3. Bertso-doinuen egitura.....	416
10.2.4. Osagaien arteko harremanak testu-uztartzeko taldekatzean.....	419
10.2.4.1. Oinarri prosodikoak ezartzen dituen baldintzak.....	419
10.2.4.2. Koherentzia prosodikoaren bilaketa.....	421
10.2.4.3. Egituren arteko bat ez etortzeak (“tentsioak”).....	422
10.2.4.4. Ahozko ekoizpenak neurtuz.....	424
10.2.5. Euskal aurrekari batzuk bertsoegintzako taldekatzeen azterketan.....	424
10.2.5.1. Silaben eta musika-noten arteko harremana kantuan.....	425

10.2.5.2. Koherentzia prosodikoaz eta egituren arteko tentsioez.....	427
10.2.5.3. Neurketak.....	432
10.2.6. Taldekatze arrastoak.....	436
10.2.6.1. Hitz lauко taldekatze arrastoak.....	437
10.2.6.1.1. Eremu prosodikoen ertzak.....	438
10.2.6.1.2. Eremu prosodikoen barrenak.....	445
10.2.6.1.3. Hitz lauко taldekatze-arrastoez azken hitzak.....	447
10.2.6.2. Taldekatze arrastoak kantatutako bertsoetan.....	448
10.2.6.2.1. Paralelismoa.....	449
10.2.6.2.2. Kontrastea.....	451
10.2.6.2.3. Osagaien mugak adieraztea.....	452
10.2.6.2.4. Osagaien barne-kohesioa areagotzea.....	453
10.2.6.2.5. Bertso kantatuetako taldekatze arrastoez azken hitzak.....	454
10.3. Ikerketa-galderak eta auzi metodologikoak.....	454
10.3.1. Bertsoetako unitate prosodiko nagusiak.....	455
10.3.1.1. Ikerketa-galderak.....	456
10.3.1.2. Datuen trataera.....	456
10.3.2. Bertso-neurriaren oinarriak.....	456
10.3.2.1. Ikerketa-galderak.....	457
10.3.2.2. Datuen trataera.....	457
10.4. Datuen aurkezpena eta interpretazio proposamena.....	458
10.4.1. Bat-bateko bertsoetako unitate prosodikoak.....	458
10.4.1.1. Puntua.....	458
10.4.1.1.1. Puntuaren eremua lausotzea.....	458
10.4.1.2. Hemistikioa.....	466
10.4.1.2.1. Hemistikioaren eremua lausotzea.....	467
10.4.1.2.2. Hemistikioaren eremua gainditzea.....	473
10.4.1.3. Hemistikio barreneko taldekatzeak.....	475
10.4.1.4. Hitz eta sintagmak.....	479
10.4.1.4.1. Oinak mugatzea.....	479
10.4.1.4.2. Hizkuntzaren segmentatzea bertsoetan: hitz lauко baliabide prosodiko zenbait.....	481
10.4.1.5. Silaba (eta doinuaren arteko harremanak).....	489
10.4.2. Bertsoetako txertatze prosodikoa taldekatzetik.....	494
10.4.3. Doinuen garrantzia bertsoak egituratzean.....	496
10.4.4. Neurriaren eta bertsoa eraikitzeको moduaren garrantzia erritmoa egituratzean.....	497
10.4.5. Bertsoetako osagai prosodikoen interpretazioa erritmoaren araberako tipologiatik..	497
10.5. Laburbilduz.....	499
11. Ondorioak.....	501
11.1. Euskararen tipo erritmikoaren eragina bat-bateko bertsoen erritmo-antolakuntzan.....	502
11.2. Hizkuntzaren, bertso-neurrien eta doinuen arteko elkarreragina(k).....	503
11.3. Bat-bateko bertsoetan prosodiaren askotariko egitekoak eta prosodia eralda dezaketan askotariko eragileak.....	505

11.4. Etorkizunerako ikerlerroak.....	506
Erreferentziak.....	509
Terminologia hiztegia (euskara - ingelesa).....	543
Eranskinak.....	545
I. Eranskina: Bertsoetako silabatze gertakariak txapelketaz txapelketa.....	547
II. Eranskina: Bertsoetako aldaera erritmikoak. Corpusean jasotako adibideak.....	787

Lanean zehar erabilitako laburdurak eta bestelako zeinuak

Corpuseko adibideak aurkeztu eta izendatzeko modua

Lanean zehar honela aurkeztu ditut adibideak:

e.gin.di.tu.ta ‘egin ditu eta’ (JL-1989-GS-8H-2)

Letrakera etzanez jaso ditut bertsolariek kantatutakoak, silabaka. Ondoren, beharrezko iruditu zaidan kasuetan, komatxo artean euskara batura ekarri dut adierazpena. Azkenik, parentesi artean, jasotako adibidea nork eta noiz-non kantatua den zehaztu dut, laburdura bidez adieraziz:

- Bertsolariaren izen-abizenak.
 - XA = Xabier Amuriza
 - SL = Sebastian Lizaso
 - JL = Jon Lopategi
 - AE = Andoni Egaña
 - ML = Maialen Lujanbio
 - AA = Amets Arzallus
- Zein Bertsolari Txapelketa Nagusi den, urtea adierazita: 1980, 1982, 1986, 1989, 1993, 1997, 2001, 2005, 2009, 2013 edo 2017.
- Aztertutako bertso guztiak txapelketetako finalerakoak direnez, finaleko zein unetan kokatzen den adibidea:
 - goizeko saioan (GS),
 - arratsaldeko saioan (AS) edo
 - buruz-burukoan (BB).
- Zein bertsoalditan kokatzen den, egin beharreko zein lanetan¹:
 - ha = hasierako agurra
 - 8H = zortziko handia
 - 8tx = zortziko txikia
 - 10H = hamarreko handia
 - 10tx = hamarreko txikia

¹ Bertsoaldiari erreferentzia egitean, ez dut jaso *kartzelakoa* (egun, *ganbarakoa*) den ala ez bertsolariak eginiko lana (izan gaia emanda, bederatzi puntukoa kantatzean hitzari, etab.). Alegia, saio berean bertsolari bati baino gehiagori jartzen zaien gai bera ariketa egiteko (eta horretarako lehenengo kantatzen duen bertsolaria ez, gainerakoak kartzelara edo ganbarara doazen, gaia ez entzuteko euren txanda baino lehen). Era berean, ez dut jaso beste bertsolari batekin kantatzen den bertsoaldia edo ez.

6mtz = seiko motza
9phtz = bederatzi puntukoa (hitzari kantatutako bertsoa)
4oin = lau oinak emanda
htz = hitzari bertso bat
ge = gaia emanda
be = bukaera emanda
pe= puntu erantzuna
ptk = puntuka
Ip = *Iparragirre abila dela* doinuan (eta neurrian)
ES = *Esne saltzailearena* doinuan (eta neurrian)
ba = bukaerako agurra

- Beharrezko den kasuetan, bertsoaldian zenbatgarren bertsoa den (1-9, gehienez ere).

Horrela, goiko adibidean aurkeztutako *JL-1989-GS-8H-2* erreferentziak esan nahi du Jon Lopategik (JL) 1989ko txapelketako (1989) goizeko saioan (GS) kantatutako zortziko handiko (8H) bigarren (2) bertsoan dagoela jasotako adibidea.

Bestelako zeinu, ikur eta laburdurak

§ = atala

C = kontsonantea

V = bokala

. = silaba muga (*es.ne*)

‘ = etena

= hitz muga

// = transkripzio fonemikoa (/eśne/)

[] = transkripzio fonetikoa ([eźne])

() = taldekatze prosodikoa

/ = muga metrikoa

// = muga metriko nabarmenagoa

X = transkripzio linguistiko eta musikaletan, egiturazko etenik ez egitea

' = transkripzio musikaletan, 0,2s baino laburragoa den etena

√ = transkripzio musikaletan, 0,2s baino luzeagoa den etena

‡ = transkripzio musikaletan, isilune edo etena

BTN = Bertsolari Txapelketa Nagusia

FN = Fonologia Naturala

H1 = Lehen hizkuntza

P = puntua (metrika-unitatea)

al. = alemanez

eusk. = euskaraz

fr. = frantsesez

gazt. = gaztelaniaz

hg = hegoalde (Hego Euskal Herria)

ing. = ingelesez

ipar = iparralde (Ipar Euskal Herria)

it. = italieraz

lat. = latinez

mg. = mugagabe

pl. = plural

sg. = singular

Taulen zerrenda

- 1. taula:** Tesian aztertutako Bertsolari Txapelketa Nagusiak (BTN) eta bakoitzeko txapelduna.
- 2. taula:** Silaba-egituren maiztasunak ingelesez, gaztelaniaz eta frantsesez (Dauer 1983).
- 3. taula:** Silaba-egitura maiztasunak euskaraz.
- 4. taula:** Munda eta mon-khmer hizkuntza-familien ezaugarriak (Donegan eta Stampe 1983: 337; 2002: 111; 2004: 3; Donegan 1993a: 2)
- 5. taula:** Azentu-aldiranzko eta silaba-aldiranzko joeren ezaugarri nagusiak.
- 6. taula:** Aztertutako corpora. Txapelketetako finalean bertsolariek eginiko lanak.
- 7. taula:** Corpusaren prestaketa silaba-egituren maiztasunak ateratzeko (AA-2013-GS-ha, lehen puntua)
- 8. taula:** 1980ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Xabier Amurizak ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.
- 9. taula:** 1982ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Xabier Amurizak ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.
- 10. taula:** 1986ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Sebastian Lizasok ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.
- 11. taula:** 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Jon Lopategik ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.
- 12. taula:** 1993ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Andoni Egañak ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.
- 13. taula:** 1997ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Andoni Egañak ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.
- 14. taula:** 2001eko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Andoni Egañak ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.
- 15. taula:** 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Andoni Egañak ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.

16. **taula:** 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Maialen Lujanbiok ekoizitako silaba-egituren maiztasunak.
17. **taula:** 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Amets Arzallusek ekoizitako silaba-egituren maiztasunak.
18. **taula:** 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Maialen Lujanbiok ekoizitako silaba-egituren maiztasunak.
19. **taula:** Bertsolarien silabatze-aukerak eta horiei lotutako gertakari segmentalak
20. **taula:** *ardi* izenaren deklinabide paradigma, Zegamako hizkeran (Amundarain Arana 1990 *apud* Hurch 1996).
21. **taula:** Hitz prosodikoa ezaugarritzeko modu posible batzuk (Hyman 2008: 335-336)
22. **taula:** Taldekatze-arrastoak hitz lauz.
23. **taula:** Bertso kantatuetako taldekatze arrasto nagusiak.

Irudien zerrenda

- 1. irudia:** Esaldi baten hierarkia prosodikoa (Mol et alii 2017)
- 2. irudia:** *Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia* sintagmaren taldekatze prosodiko posible bat
- 3. irudia:** AE-1993-GS-8H-4.
- 4. irudia:** Hierarkia prosodiko unibertsala.
- 5. irudia:** Hainbat hizkuntza erritmo-tipologiaren araberako continuumean (Dauer 1983: 60).
- 6. irudia:** Ramus et aliiren (1999: 273) azterketaren emaitzen grafikoa
- 7. irudia:** ΔC , kontsonante tarteen desbideratze estandarra eta %V, bokalek hartutako denbora tartearen erranaldi bakoitzean, 14 hizkuntzatan (Nespor et al 2011: 1153).
- 8. irudia:** AA-2013-BB-8tx-1, *Nere senarrarekin I* doinuaren kantatuta.
- 9. irudia:** Zortziko handiaren eskema metrikoa (Garzia et al. 2001: 84).
- 10. irudia:** Zortziko txikiko bertso bat eta haren egitura metrikoa (ML-2017-BB-8tx-1)
- 11. irudia:** ML-2017-BB-8tx-1 Iparraldeko erara jasoa
- 12. irudia:** *Lurraren pean sar nindaiteke* doinuaren egitura (XA-1982-AS-ba)
- 13. irudia:** Silaba-egitura (Jauregi 2007: 15).
- 14. irudia:** Espektrograma. *jo.[h]an.go* ‘joango’ (XA-1980-GS-10tx-3).
- 15. irudia:** Espektrograma. *na.go.[h]es.tu* (SL-1986-GS-ge-2).
- 16. irudia:** Espektrograma. *a[h].mes.ti.ja* ‘amestia’ (JL-1989-GS-ge-2).
- 17. irudia:** Espektrograma. *e.san.go.de[θ].[kh]an.tuan* ‘esango dut kantuan’ (AE-1993-AS-10H-Ip-2).
- 18. irudia:** Espektrograma. *aun.di.[j]e.gi.[j]ak* ‘handiegiak’ (XA-1982-AS-10H-1).
- 19. irudia:** Espektrograma. *je.ni.[j]o* ‘jenio’ (SL-1986-GS-8H-1).
- 20. irudia:** Espektrograma. *bi.on.bi.[j]o.tzak* ‘bion bihotzak’ (JL-1989-GS-ge-2).
- 21. irudia:** Espektrograma. *on.do.[β]a.ne.gon* ‘ondoan egon’ (JL-1989-AS-10H-3).

22. **irudia:** Espektrograma. *o(i).[j]ek* ‘ho(r)iek’ (XA-1982-GS-8H-3).
23. **irudia:** Espektrograma. *le.[j]a.le.ta* ‘leial eta’ (JL-1989-GS-ha).
24. **irudia:** Espektrograma. *ba.du.gu.gaur* ‘badugu gaur’ (XA-1980-GS-ha).
25. **irudia:** Espektrograma. *dau.ka.[γ]u.[b]e.ne.tan* (JL-1989-AS-8tx-1).
26. **irudia:** Espektrograma. *es.pue.la.bat.zen.ba.ño* ‘espuela bat zen baina’ (ML-2009-AS-ptk-2).
27. **irudia:** Espektrograma. *ta.gu.be.re.bi.mai.ta.le* ‘(e)ta gu bere bi maitale’ (AA-2013-GS-8H-1).
28. **irudia:** Espektrograma. *an.ka.ti.go.ra.goe.re* ‘hankatik gorago ere’ (XA-1982-GS-10tx-1).
29. **irudia:** Espektrograma. *nor.bai.te.gaur* ‘norbaitek gaur’ (SL-1986-GS-8H-1).
30. **irudia:** Espektrograma. *e.ro.ti.[γ]e.ro.ra* ‘erotik erora’ (SL-1986-GS-10tx-2)
31. **irudia:** Espektrograma. *fru.tu.ri.ga.be* ‘fruiturik gabe’ (JL-1989-GS-8H-3).
32. **irudia:** Espektrograma. *zu.en.tx.a.lo.a[γ].be.re.tza.di.ra* ‘zuen txaloak beretzat dira’ (AE-1993-AS-ba).
33. **irudia:** Espektrograma. *go.go.ra.tze.naiz* ‘gogoratzen naiz’ (x2)(ML-2009-AS-ba).
34. **irudia:** Espektrograma. *bo.rro.ka.neur.tu.ba.da* ‘borroka neurtu bat da’ (ML-2017-GS-ha)
35. **irudia:** Espektrograma. *ba.te.pos.tre.ri.[γ]a.be* ‘bate(re) postrerik gabe’ (AA-2013-GS-8tx-3).
36. **irudia:** Sistema metrikoen oinarri prosodikoak (Aroui 2009: 11).
37. **irudia:** zortziko handiko neurriaren eskema metrikoa (Garzia et al. 2001: 84).
38. **irudia:** Ingelesezkotestu-uztartzeara (Halle eta Lerdahl 1993).
39. **irudia:** Ingeles eta frantses konpositoreen lanen iraupen aldakortasuna (Patel eta Daniele 2003: B41).
40. **irudia:** JL-1989-GS-ge-1, motibo erritmiko nagusia, etenak eta eredu erritmiko nagusitik aldentzen diren gauzatze erritmikoak nabarmenduta.
41. **irudia:** *Oraindik hango oihartzun hots bat* doinua, Lujanbiok kantatu bezala (ML-2017-BB-8H-1).
42. **irudia:** *Orioko balearena* doinua, Arzallusek kantatu bezala (AA-2013-GS-8tx-1).
43. **irudia:** Balio erritmiko eta aldaera posible batzuk.
44. **irudia:** *Iparragirre abila dela* doinuko puntu motzen erritmo-eredu orokorra
45. **irudia:** JL-1989-AS-8tx, motibo erritmiko nagusia.
46. **irudia:** *Itsaso hori dago zatarra* doinuaren motibo erritmiko nagusia eta haren aldaera bat (AE-1997-GS-ge-1).
47. **irudia:** XA-1980-BB-8tx-4, erritmo-eredu nagusia eta haren aldaera bat.
48. **irudia:** *Maritxu nora zoaz I* doinuan Lizasok kantatutako bertsoa, hemistikioaren eremua mugatzeko aldaera erritmiko eta etenekin (SL-1986-AS-ha).
49. **irudia:** AA-2013-AS-ptk-7.

50. **irudia:** JL-1989-GS-10tx-1.
51. **irudia:** *Aita izena kanta beharrak* doinuaren motibo erritmiko nagusia eta azken aurreko musika-nota (silaba) laburtuta duen aldaera (AE-2005-BB-10H-3).
52. **irudia:** XA-1982-AS-ba.
53. **irudia:** AA-2013-GS-8tx-3
54. **irudia:** AE-2001-GS-8tx-2.
55. **irudia:** ML-2009-GS-8H-2.
56. **irudia:** AE-2001-BB-1p-2, lehen bi puntuak.
57. **irudia:** *Aranora joan ziran I* doinua erabilia Amurizak 1980ko puntu erantzunetan gauzatutako aldaera erritmiko nagusiak.
58. **irudia:** SL-1986-AS-ha.
59. **irudia:** Aldaera erritmikoen erabilera bertsolariz bertsolari.
60. **irudia:** Azken puntua eta haren errepika Arzallusen (AA-2013-GS-8tx-3) bertsoan.
61. **irudia:** Azentuzko osagaiak eta haien intonazio-eredua (Elordieta 2007b: 4).
62. **irudia:** Zortziko handiaren eskema metrikoa (Garzia et al. 2001: 84) eta Amets Arzallusen zortziko handiko bertsoa (AA-2013-GS-8H-1).
63. **irudia:** *Iparragirre abila dela* doinuaren transkripzio musikala (Iturria: Doinutegia, sarean).
64. **irudia:** Morgan eta Jandaren (1989) esperimuntuan parte-hartzaileek baliatu beharreko eredu erritmikoa.
65. **irudia:** *Gernikako arbola* bertso erreztatuko silaben eta etenen iraupenak (Navarro-Tomás 1925: 636-637).
66. **irudia:** *Habanera / Baserrian jaio nintzan* doinuaren transkripzio musikala (iturria: Doinutegia, sarean).
67. **irudia:** *Pello Josepe I-A* doinuaren egitura (iturria: Doinutegia, sarean)
68. **irudia:** Sebastian Lizasok puntuaren eremuan gauzatutako etenak (SL-1986-GS-8H-1).
69. **irudia:** Jon Lopategik puntuaren eremuan gauzatutako etenak (JL-1989-AS-ge-1).
70. **irudia:** Andoni Egañak puntuaren eremuan gauzatutako etenak (AE-1993-GS-8H-4).
71. **irudia:** *Zuek horrela ikusi eta / Dona dona* doinuaren pasartea. Puntu motzak dituen esaldi musikala; pentagrama bakoitzeko puntu bat dago irudikatuta (iturria: Doinutegia).
72. **irudia:** ML-2009-BB-9phtz; azken aurreko bi puntu motzak.
73. **irudia:** ML-2017-BB-9phtz; azken aurreko lau puntu motzak.
74. **irudia:** ML-2017-BB-ge-2, bertsoa lehen bi puntuak.
75. **irudia:** AA-2013-BB-9phtz.

- 76. irudia:** SL-1986-GS-10tx-1
- 77. irudia:** *Gai horrek badu mamia* doinua, Xabier Amurizak kantatu bezala (XA-1980-AS-ge-3).
- 78. irudia:** Hemistikio mailako taldekatzea lausotzea, hitzen arteko loturak gauzatuz (AA-2013-AS-ptk-7).
- 79. irudia:** XA-1982-GS-ge-2, bertsoko azken puntua eta errepika.
- 80. irudia:** XA-1982-AS-ge-3, azken puntua.
- 81. irudia:** *Maitasuna da bizi izateko* doinuak motibo erritmikoaz markatzen duen 5 + 5 taldekatzea, Egañak gauzatutako bertso baten hasieran (AE-1993-AS-ge-1).
- 82. irudia:** *Kantore berri xarmant batzuek* doinuaren hasiera, Amurizak kantatu bezala (XA-1982-GS-8H-1).
- 83. irudia:** SL-1986-GS-ge-3, azken puntua.
- 84. irudia:** SL-1986-AS-10H-3.
- 85. irudia:** ML-2009-GS-6mtz-2.
- 86. irudia:** ML-2009-AS-ba.
- 87. irudia:** AE-2005-GS-10tx-1.
- 88. irudia:** ML-2017-BB-8H-2.
- 89. irudia:** ML-2009-BB-ge-2.
- 90. irudia:** ML-2009-AS-ge-1 (azken puntuaren errepika gabe).
- 91. irudia:** AA-2013-GS-8tx-3.
- 92. irudia:** XA-1980-AS-8tx-1.
- 93. irudia:** XA-1980-AS-8tx-3.
- 94. irudia:** Espektrograma. *goi.ze.[h]an* ‘goizean’ (XA-1980-GS-ha).
- 95. irudia:** Espektrograma. *jo.[h]an.go* ‘joango’ (XA-1980-GS-10tx-3).
- 96. irudia:** Espektrograma. *di.[j]e.gu* ‘diegu’ (XA-1980-GS-10tx-3).
- 97. irudia:** Espektrograma. *o.gi.[j]a.kin* (XA-1980-AS-ge-1).
- 98. irudia:** Espektrograma. *o.gi.az* (XA-1980-AS-ge-1).
- 99. irudia:** Espektrograma. *gei.[j]o* ‘gehio’ (XA-1980-GS-8H-3).
- 100. irudia:** Espektrograma. ‘badugu gaur’ [ba.du.gu.ga^hawr] (XA-1980-GS-ha).
- 101. irudia:** Espektrograma. *bil.tze.ko*. ‘e.men’ ‘biltzeko hemen’ (XA-1980-GS-ha).
- 102. irudia:** Espektrograma. *ba.ke.a.ren*. ‘u.su.a’ ‘bakearen usoa’ (XA-1980-GS-8H-1).
- 103. irudia:** Espektrograma. *naiz.zu.re* ‘naiz zure’ (XA-1980-GS-8H-1).
- 104. irudia:** Espektrograma. *nik.kan.ta.tzen* ‘nik kantatzen’ (XA-1980-GS-8H-3).
- 105. irudia:** Espektrograma. *amets.txar* [a.metʃ.tʃar] (XA-1980-GS-8H-2).
- 106. irudia:** Espektrograma. *o^ho.be* (XA-1980-GS-ha).

107. **irudia:** Espektrograma. *za.[h]a.rra* (XA-1982-AS-ba).
108. **irudia:** Espektrograma. *aun.di.[j]e.gi.[j]ak* ‘handiegiak’ (XA-1982-AS-10H-1).
109. **irudia:** Espektrograma. *fe.ri.[j]a* ‘feria’ (XA-1982-GS-10tx-1).
110. **irudia:** Espektrograma. *a.be.ri.a* (XA-1982-GS-10tx-1).
111. **irudia:** Espektrograma. *o(i).[j]ek* ‘ho(r)iek’ (XA-1982-GS-8H-3).
112. **irudia:** Espektrograma. *ka.rre.ra. ‘e.re. ‘e.gi.ña* (1982-GS-8H-2).
113. **irudia:** Espektrograma. (*zu jaio*) *zi.ñan. ‘e.gun. ‘a.re.tan* ‘zu jaio zinen egun hartan’ (XA-1982-GS-8H-2).
114. **irudia:** Espektrograma. *kan.ta.zak.li.bre* ‘kanta (e)zak libre’ (XA-1982-GS-ge-3).
115. **irudia:** Espektrograma. *kan.ta.za.li.bre* ‘kanta (e)zak libre’ (XA-1982-GS-ge-3).
116. **irudia:** Espektrograma. *la.gu.n[h]na* ‘laguna’ (XA-1982-GS-8H-1).
117. **irudia:** Espektrograma. *na.go.[h]es.tu* (SL-1986-GS-ge-2).
118. **irudia:** Espektrograma. *ten.ta.zi.o* (SL-1986-AS-ptk-1)
119. **irudia:** Espektrograma. *me.se.dez. ‘a.tze.ra* ‘mesedez atzera’ (SL-1986-GS-10tx-3)
120. **irudia:** Espektrograma. *sal.tsa.au.bu.ka.tu.ar.te* ‘saltsa hau bukatu arte’ (SL-1986-GS-8H-2).
121. **irudia:** Espektrograma. *pa.zi.en.tzi.ri.[γ]e.zo.te.di.o* ‘pazientzi(a)rik ez ote dio’ (SL-1986-GS-8H-1).
122. **irudia:** Espektrograma. *e.ro.ti.[γ]e.ro.ra* ‘erotik erora’ (SL-1986-GS-10tx-2).
123. **irudia:** Espektrograma. *ni.kes.ke.ñi* ‘nik eskaini’ (SL-1986-GS-10tx-3).
124. **irudia:** Espektrograma. *as.ko.ri.[γ]e.tza.zu* (SL-1986-GS-ge-2).
125. **irudia:** Espektrograma. *be.gi.jak.go.rri.tu.a* (SL-1986-GS-ge-2).
126. **irudia:** Espektrograma. *[i^hi].ru.k[u^hu].a* (SL-1986-GS-8H-4).
127. **irudia:** Espektrograma. *txa.rre.an.z[a^hw].de* ‘txarrean zaude’ (SL-1986-8H-1).
128. **irudia:** Espektrograma. *a[h].mes.ti.ja* ‘amestia’ (JL-1989-GS-ge-2).
129. **irudia:** *pun.ta[h]. ‘ge.nun* ‘punta genuen’ (JL-1989-GS-ge-2).
130. **irudia:** Espektrograma. *on.do.an. ‘e.gon* (JL-1989-AS-10H-3) (lehen aldiz kantatzean).
131. **irudia:** Espektrograma. *on.do.[β]a.ne.gon* ‘ondoan egon’ (JL-1989-AS-10H-3).
132. **irudia:** Espektrograma. *lei.al* (JL-1989-AS-10H-2).
133. **irudia:** Espektrograma. *ni.zu.re. ‘e.rruz* (JL-1989-GS-8H-3).
134. **irudia:** Espektrograma. *e.be.res.te.ne.ga.rri.ja* ‘Everesten egarria’ (JL-1989-GS-ge-1).
135. **irudia:** Espektrograma. *go.go.za.ja.tze.ko* ‘gogoz saiatzeko’ (JL-1989-GS-ha).
136. **irudia:** Espektrograma. *i.ñu.la.rre.ko. ‘or.du.ra* ‘inularreko ordura’ (AE-1993-GS-ha).
137. **irudia:** Espektrograma. *os.pi.ta.lon.tan* ‘ospitale honetan’ (AE-1993-GS-ge-3).

138. **irudia:** Espektrograma. *zu.en.txa.lo.a[ɣ].be.re.tza.di.ra* ‘zuen txaloak beretzat dira’ (AE-1993-AS-ba).
139. **irudia:** Espektrograma. *za.rran.mai.ta.su.na* ‘zaharraren maitasuna’ (AE-1993-GS-ge-3)
140. **irudia:** Espektrograma. *[a^ha].tse.gin* ‘atsegin’ (AE-1993-GS-pe).
141. **irudia:** Espektrograma. *au.‘o.ri.e.ta.‘a.la.ko* ‘hau, hori eta halako’ (AE-1997-GS-6mtz-3).
142. **irudia:** Espektrograma. *a.rran.tza.ne.ra.kus.te.a* ‘arrantzan erakustea’ (AE-1997-GS-8H-4).
143. **irudia:** Espektrograma. *o.rre.xe.ga.ti[ɣ].dau.kat* (AE-1997-AS-10H-2).
144. **irudia:** Espektrograma. *ba.dau.kat.ti.tu.loa* ‘badaukat titulua’ (AE-1997-AS-8tx-1).
145. **irudia:** Espektrograma. *e.gi.nai.nu.ke* ‘egin nahi nuke’ (AE-2001-AS-ge-1)
146. **irudia:** Espektrograma. *e.gin.nai.nu.ke* ‘egin nahi nuke’ (AE-2001-AS-ge-2).
147. **irudia:** Espektrograma. *do.nos.ti[ɣ].de.ne.ti[ɣ].[ð]u* ‘Donostiak denetik du’ (AE-2001-GS-pe2).
148. **irudia:** Espektrograma. *u.ler.tzen.du.[tə].de.na* ‘ulertzen dut dena’ (AE-2001-GS-8tx-1).
149. **irudia:** Espektrograma. *[k^ha].ra.ko.la(k).pa.rrez.ka* ‘karakolak barrezka’ (AE-2001-GS-8tx-2).
150. **irudia:** Espektrograma. *ei.te.ko.a.‘e.gi.ña* ‘egitekoa egina’ (AE-2005-GS-8tx-3).
151. **irudia:** Espektrograma. *ni.ko.rai.ñau* ‘nik orain hau’ (AE-2005-GS-8tx-3).
152. **irudia:** Espektrograma. *ai.ta.ba.ka.rri[ɣ].da.go* ‘aita bakarrik dago’ (AE-2005-GS-8tx-3).
153. **irudia:** Espektrograma. *ba.ka.rri.ge.ra.be.di* ‘bakarrik gera bedi’ (AE-2005-AS-ptk-8).
154. **irudia:** Espektrograma. *ba.ñao.rain.dik.ka.paz.naiz* ‘baina oraindik kapaz naiz’ (AE-2005-BB-8tx-1).
155. **irudia:** Espektrograma. *e.gi.nai.ba.du.gu* ‘egin nahi badugu’ (AE-2005-GS-10tx-1).
156. **irudia:** Espektrograma. *la.ne.an.nai.dut* ‘lanean nahi dut’ (AE-2001-GS-ha).
157. **irudia:** Espektrograma. *tar.t[e^he].ko* ‘bera tarteko’ (AE-2005-BB-9phtz).
158. **irudia:** Espektrograma. *ne.rea.fi.zi.o.ta.‘o.fi.zi.o* ‘nire afizio eta ofizio’ (ML-2009-GS-ge-1).
159. **irudia:** Espektrograma. *zen.bat.[b]er.so.la.ri* ‘zenbat bertsolari’ (ML-2009-GS-ha).
160. **irudia:** Espektrograma. *o.e.ti.kos.ta.ta* ‘ohetik kostata’ (ML-2009-GS-8H-1).
161. **irudia:** Espektrograma. *e.zi.ni.ra.ka.tsi* ‘ezin irakatsi’ (ML-2009-GS-pe-1).
162. **irudia:** Espektrograma. *go.go.ra.tze.naiz* ‘gogoratzen naiz’ (x2)(ML-2009-AS-ba).
163. **irudia:** Espektrograma. *eu.re.nau.rre.an.ne.gar* ‘euren aurrezan negar’ (ML-2009-AS-ge-3).
164. **irudia:** Espektrograma. *as.ki.‘ar.gi.ta.‘as.ki.sen* (AA-2013-GS-ge-1).
165. **irudia:** Espektrograma. *o.rai.ne.re.li.bu.ru.ak* ‘orain nire liburuak’ (AA-2013-BB-ge-1).
166. **irudia:** Espektrograma. *ain.nu.en* ‘hain nuen’ (AA-2013-GS-8tx-3).
167. **irudia:** Espektrograma. *tar.te.bat.ta* ‘tarte bat (e)ta’ (AA-2013-AS-ge-3).
168. **irudia:** Espektrograma. *nai.[b]e.ze.la.ko.[b]e.ze.ro* ‘nahi bezalako bezero’ (ML-2017-BB-ge-2).

- 169. irudia:** Espektrograma. *e.ta.‘e.zi.‘e.ziñ* ‘eta hezi ezin’ (ML-2017-GS-10tx-3).
- 170. irudia:** Espektrograma. *aul.ki.ri.ke.tze.go.nu.tsik* ‘aulkirik ez zegoen hutsik’ (ML-2017-GS-ge-1).
- 171. irudia:** Espektrograma. *tao.rra.zal.tze.naiz* ‘ta hor azaltzen naiz’ (ML-2017-GS-8H-3).
- 172. irudia:** Espektrograma. *e.man.ni.zu.en* ‘eman nizuen’ (ML-2017-GS-ge-1).
- 173. irudia:** Espektrograma. *min.go.tso.nek.da.ka.rre.na* ‘mingots honek dakarrena’ (ML-2017-GS-ge-1).
- 174. irudia:** Espektrograma. *bo.rro.ka.neur.tu.ba.da* ‘borroka neurtu bat da’ (ML-2017-GS-ha).

1. Sarrera

1.1. Ikergaia kokatuz

Euskarazko bat-bateko bertsoen erritmoa dut tesi honetan aztergai. Euskaraz sorturiko kantu inprobisatuan alor musikalaria erreparatu diot hizkuntzaren fonologiarekiko loturetatik. Zehatzago, hizkuntzen erritmoa egituratzen duten silabatzea, erritmo-ereduak eta taldekatzea (*grouping*) aztertu ditut 1980-2017 bitarteko Bertsolari Txapelketa Nagusietako txapelaldunen finaleko bertsoetan. Horretarako, kontuan hartu ditut erritmoaren araberrako hizkuntza-tipologia; hizkuntza, metrika eta musikaren denboran zeharreko antolakuntza; kantuan osagaiok dituzten harremanak; eta prosodiaren (ikus jarraian §1.1.1) aldakortasun-eragileak eta egitekoak.

Askotariko eremuen elkargune izanik bat-bateko bertsoen erritmoa, jarraian tesiaren ikergaia kokatzeko lagungarri izango diren ideia orokorrak aurkeztu ditut (§1.1.1 eta §1.1.2), ondoren, eginiko lanari halaberrez ezarritako mugak zein izan diren azalduz (§1.1.3). Gaia kokatuta, ikerketaren helburu orokorrak (§1.2), tesiaren aztergaiak (§1.3), ohar teoriko-metodologikoak (§1.4) eta tesiaren egituraren nondik norakoak (§1.5) jaso ditut.

1.1.1. Prosodia

Lan honetan *prosodia* aipatzen dudanean *ahozko hizketaren prosodiari* egiten diot erreferentzia, terminoa, era berean, *hizkuntzan* (hizketan) ardaztuz². Ahozko hizketaren prosodia

² Izan ere, *musikaren* prosodia gisakoei erreferentzia egiteko ere erabiltzen da terminoa.

definitzeko abiapuntutzat hartuko dut *hizkuntzaren musika* dela dioen ideia (Oñederra 2004: 128). Jatorrizko greziar hitza (προσῳδία, *prosodía*) aztertuta *kantura* eramango gaitu, hitzen “kantuzko akonpainamendua”, “kantuarekiko paraleloa den hori” adieraziz (Lotz 1972: 1; Fox 2000: 1; Rodríguez-Vázquez 2010: 27). “[E]rritmo-ereduak, doinu-ereduak, azentu-egiturak eta, oro har, kontsonante eta bokalekin batera ahoskera osatzen duen guztia” (Oñederra 2004: 128-129) litzateke prosodia. *Kontsonante eta bokalekin batera ahoskera osatzen duen guztia*. Adierazpena zabal bezain konplexua da, prosodia den eremu zabal bezain konplexurako. Izan ere, prosodiaren parte dira hizketaren erritmoa eta intonazioa bezala, hizketan ari garela esaldiak edo norbere ahotsa —zein besterena— bereizgarri egin dezaketen tinbrea eta estiloaren zenbait alderdi ere.

Hainbat jakintza-alorretatik aztertu eta landu izan da prosodia, lotuta egon arren desberdinak diren esanahiak emanez hitzari eta, ondorioz, ikergaiari. Lan honetan prosodiari heltzen diodan ikuspegitik gertu bi hurbilpen aipa daitezke: literatura eta metrikatik eginikoa, batetik, eta hizkuntzalaritza eginikoa, bestetik. Ikerketa metriko eta literarioetatik aztertu izan denean, hizketa moldeen artean bertsogintza (*versification*) izan da ardatz, zentzu zabalean: neurtitzetako egitura metrikoak, errima-ereduak, erritmo-ereduak (*rhythmic pattern*) edota silabatzea (*syllabification*) bezalako alderdiak izan dira arreta-gune nagusiak (Lotz 1972: 1; Fox 2000: 1). Euskaraz, Altunak (1979a) Etxepareren bertsoez edo Manuel Lekuonak ([1918] 1978) eta Juan Mari Lekuonak (1982) bat-bateko bertsolaritzaz eginiko azterketak izan litezke adibide egokia (gaikako berrikuspenetarako, ikus §8.2.8 silabatzeaz, §9.2.3.2 sistema metrikoaz, §9.2.4.1.2 azentuerez eta §10.2.5 taldekatzeaz). Hizkuntzalaritzan, berriz, hitz laua izan da nagusiki aztergai fonetika eta fonologiaren esparruan prosodiari heldu zaionean, azentua eta intonazioa bezalako alderdiei erreparatuz. Euskararen azterketan azentuerei buruzko Txillardeggi (1984) edo Hualderen (1994, 1995, 1997, etab.) lanak aipa litezke, edo Elordietaren (2007a, 2007b, etab.) intonazioari buruzkoak, beste hainbaten artean (ikus §9.2.1.4).

Azken hamarkadetan, edonola ere, ugaritu egin dira aipaturiko bi ulerkerak uztartzen ahalegindu diren lanak eta ikusmoldeak, kantuen, bertsoen eta hitz lauaren arteko loturak azpimarratuz prosodiari dagokionean (hainbat hizkuntzatan eginiko lanen berrikuspen baterako, ikus Proto 2015). Mitxelena (Michelena [1977] 2011) eta Etxeberria (1998), edo lehenago Azkue ([1921, 1925] 1990), Haritschelhar (1969) eta Arana-Martija ([1976] 1987) izan litezke euskara aztergai hartuta musika, bertsogintza eta hitz lauaren arteko hariak inoiz nabarmendu izan dituzten ikerlarietarik batzuk (ikus §9.2.4.1.2 eta §10.2.5). Ikerketa hau ere eremuen bidegurutze edo elkargune horretan kokatzen da.

Prosodiaren aldagai akustikoak iraupena (dimentsio tenporala), garaiera (f_0 edo oinarrizko maiztasuna) eta intentsitatea (anplitudea) direla esan liteke. Fonetikari askorentzat ezaugarri prosodiko edo *suprasegmentalak*³ parametro horien aldaerak dira eta konbinatuta azentua, luzera, erritmoa, *tempoa*, tonua eta intonazioa bezalako alderdiak ekoitzi eta hautematen dira. Prosodiaren ulerkera horri lotuta, sarri aipatu ohi da ezaugarri prosodikoak segmentu —hizketako hots— bat baino gehiago hartzen duten tasun horiek direla, ezaugarri segmentalekiko aurrez aurre: “it refers to those phonetic and phonological aspects of spoken language that cannot necessarily be reduced to individual consonants and vowels but generally extend across several segments or syllables” (Fletcher 2010: 523).

Ezaugarri prosodikoak segmentu bakar batetik harago doazen ezaugarriak direla dioen definizio hori auzitan jarri izan da (Lehiste 1970: 2-3; Donegan eta Stampe 1978: 29; Fox 2000: 2-3, besteak beste). Izan ere, ezaugarri prosodikoak hala definituta, uler daiteke sudurkaritasuna bezalako tasun artikulatorioak edo fonazioari loturikoak ezaugarri prosodikoak direla⁴ —egungo ikusmoldeetan ezaugarri segmentaltzat hartzen direnean—. Kontua da sudurkaritasuna, asimilazioz, segmentu batetik harago eta kasu batzuetan esaldi oso batean zehar zabal daitekeela baldintza prosodiko egokietan (Donegan eta Stampe 1978: 28-29), hizketa azkar eta arduragabeen ingeles amerikarrean, adibidez (Stampe [1973] 1979).

Lehistek (1970: 2-3) zehazten du ezaugarri prosodikoek denboran zehar antolatzen diren eredu kontrastiboak osatzen dituztela, ezaugarri segmentalek ez bezala. Izan ere, ezaugarri segmentalen aldean ezaugarri prosodikoen bereizgarri bat da horien hautemate erlatiboa eta graduala, hizketa kateko inguruko osagaiekin kontrastean (konparazio sintagmatikoan), ezaugarri segmentalen hautemate absolutuarekiko (konparazio paradigmaticoarekiko) parez pare (Lehiste 1970: 2; Ladefoged eta Johnson [1975] 2011: 14; Donegan eta Stampe 1978: 29). Silaba bakar bat entzunda —demagun, *ba*— hiztunak printzipioz ezin du hauteman azentuduna den ala ez, ez bada inguruko silabekiko harremanetan: *bá.da.kit!*⁵.

3 Ezaugarri prosodikoei *ezaugarri suprasegmental* ere deitu izan zaie; lan honetan prosodia terminoa hobetsi eta erabili dut, suprasegmental terminoak aditzera eman lezakeen “oinarrizko denari gainjartzen zaion zerbait” (Oñederra 2004: 129) adiera saihestu nahian. Ulertzen da prosodia ez zaiela segmentuei gehitzen; hizkuntza ahoskatzean (hizketa bilakatzean) ezinbestean prosodikoki (eredu prosodikoetan txertatuta, ezaugarri prosodikoen jabe) gauzatzen dela baizik (Oñederra 2004: 129, besteak beste). Komunikatiboki mezuaren beraren funtsezko osagaia da sarri, gainera (Clark et al. [1990] 2007: 327). *Suprasegmental* terminoa sinpleegia izan daitekeela ulertzen da konplexutasun prosodikoaz aritzeko, zentzurik hertsienean hartuz gero: “a simple dichotomy ‘segmental’ vs. ‘suprasegmental’ does not do justice to the richness of phonological structure ‘above’ the segment; [...] this structure is complex, involving a variety of different dimensions, and prosodic features cannot simply be seen as features which are superimposed on segments” (Fox 2000: 2).

4 Fonologiaren historian hainbatek ezaugarri prosodikotzat hartu zituzten aipaturiko sudurkaritasuna bezalako ezaugarriak; hala nola Firth-ek (1948).

5 Izan ere, indar-azentua baliatuta, esate baterako, dezibelioen (dB) neurri zehatzak ez digu bere horretan balio silaba bat azentudun gauzatu den zehazteko, hizketan azentuak gauzatzen baititugu leun hizketan edo oihuka ari garela,

Segmentu bat —demagun /a/—, ordea, berdin identifikatuko du hasiera batean bakarrik ahoskaturik —[a]—, edo beste segmentu batzuekin hots-katean: [baðakit]. Edonola ere, Clark et alii ([1990] 2007: 326) nabarmentzen dutenez, bereizkuntza lausoa da aipaturikoa ere, kasu batzuetan segmentuak ezin baitira identifikatu —edo ez dira gauza bera bezala identifikatzen— gauzatutako testuingurutik at⁶.

Erritmoa izan liteke segmentuen —hizkuntzaren hotsen— eta prosodiaren arteko bereizkuntza nagusia ezartzeko gakoetako bat:

But the primary distinction of the prosodic features is in their relationship with the rhythmic organization of speech, and for that matter, of verse and music. The more prominent values of intensity, duration, and pitch may serve as the nuclei of syllables and measures which are spoken at regular time intervals, usually in a rhythmic alternation with less prominent elements. None of the nonprosodic features ever have nuclear, temporal, or rhythmic value.

(Donegan eta Stampe 1978: 29)


Intentsitateak, iraupenak eta garaierak, eredu-prosodikotan egituratuta eta denboran zehar, hizketa erritmikoki antolatzen dute, beraz, nabarmentasun-harremanetan (azentu-ereduetan) eta taldekatzean oinarriturik (hizkuntzaren erritmoaz, ikus §3). Segmentuak, bere horretan balio erritmikorik gabeak, silabatan antolatu eta intonazio- eta erritmo-ereduetan txertatzen dira (txertatze prosodikoaz, ikus §2), denboran zehar unitate prosodikoen hierarkia osatuz —silabak, hitz prosodikoak eta esaldi fonologikoak hartu ditut hitz lau unitate prosodikotzat lan honetan, osagai handiagoak badirela jakitun izanik, jarraian 1. irudian eta 2. irudian jaso bezala— (ikus §10.2.1 hierarkia prosodikoaz sakontzeko). Ondokoak izan daiteke aipaturiko ezaugarri batzuk islatzen dituen adibideak⁷:

intentsitate oso desberdinez. Era berean, intonazio eredu antzekoak —esanahi berberaz; galdera adieraz, kasu— gauzatzen ditugu oso ahots desberdinak izanda ere garaierari dagokionean (Ladefoged eta Johnson [1975] 2010: 24).


6 Euskarazko bokalen adibide bat ekarrita, /o/ eta /u/ bokalen gauzatze fonetikoak sarri gainjarri ohi dira, testuinguru desberdinetan (ikus, adibidez, Aizpurua 2017). Hala, dagokion testuinguruan seguruena hiztunak ahoskatu asmo zuen bokala entzuleak ulertuko duen arren, bokal bera testuingurutik at entzunda ez litzateke hala beharbada.

7 1. eta 2. irudia alderatuz gero, ikus daiteke proposatutako osagaiak ez direla berberak eta ez daudela modu berean irudikatuta. Hierarkia prosodikoari buruz dauden eztabaiden isla da hori. Lan honen helburua ez da arlo horretan ekarpen teorikorik egitea, unitate prosodikoekin lan egin eta horien antolakuntzaz ulerkera jakina hartu arren (xehetasun gehiagorako, ikus §3.3 atala).

1. irudia: Esaldi baten hierarkia prosodikoa (Mol et alii 2017)



2. Irudia: *Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia* sintagmaren taldekatze prosodiko posible bat⁸.



Hizkuntzatik hizkuntzara aldatu egiten da antolakuntza prosodikoa, eta hori ulertzeko gakoetako bat da hizkuntzaren erritmoa, hari loturiko osagaiekin batera (ikus §3.4 erritmoaren araberako tipologietan sakontzeko). Prosodiaren aldakortasuna hizkeraren edo erregistroaren

8 Irudiak gida izan nahiko luke osagai desberdinak aurkezteko, ez da proposamen teoriko jakin batean oinarritutako analisi zehatza, ezta tresnabidezko analisitik aterea ere. Kategoriak kokatzeko adibide gisa ematen dut eta baliteke, besteak beste, *txapelketa* hitzaren lehen azentua ere bigarrenkari izatea edo hitzen arteko taldekatzea bestelakoa izatea sintagma gauzatzeko moduaren arabera. Bestalde, irudian ez ditut oinak irudikatu, silaben eta hitz prosodikoaren artean leudekeenak, azentuen inguruan antolaturik. *Erranaldi* terminoa Artzelus-i (2021) jarraiki baliatu dut, ingelesezko *utterance*-n ordainetan, *esanaldi-esaldi* nahastea saihestearen mesedetan.

araberakoa ere izan daiteke, eta baita hizketa *tempoak* edo kode komunikatiboak bezalako baldintzek eragindakoa ere (ikus §4).

Hizketa denboran zehar erritmo- eta intonazio-ereduetan antolatzeaz gain, ekoizitakoa hautemateko behar den segmentaziorako informazio gakoa ematen du prosodiak, hotsen segida jarraituari zentzua emanez: “the durational, amplitude, and f^0 patterns of speech also encode structural information in the process of recognizing words [...], parsing prosodic structure [...], and segmenting the continuous speech stream” (McQueen eta Cutler [1997] 2010: 503). Esan liteke prosodia segmentuak baino zuzenago lotzen zaiola gehienetan informazio-egiturari — fonosinbolismo eta bustidura adierazkorra bezalako kasuetan salbu, beharbada— (Oñederra 2004: 129). Egiteko linguistiko zehatzak bete ohi ditu prosodiak hizkuntza bakoitzaren sistema linguistikoan: galdera adieraz dezake intonazio-ereduen bitartez, edo osagai bat fokalizatu azentua baliatuta, adibidez. Komunikazioari loturiko bestelako funtzioak ere bete ditzake eta baita hiztunari buruzko informazioa eman ere. Emozioak, (aurre)iritziak eta jarrerak adierazi zein sor ditzake, etab.⁹ Hizkuntza eta prosodia uztartzeko modua bera esanguratsua da, beraz, hizkuntzaren beraren fonologiatik hasi eta komunikazio ekintzaraino.

1.1.2. Bertsoen prosodia

Esan daiteke euskarazko bat-bateko bertsoen prosodia euskaraz sorturiko kantu neurtu eta inprobisatuaren musika eta, halaber, musika horren azterketa dela, lehenago aurreratu bezala. Oñederrak (2004: 128-129) prosodiaz eginiko definizioa bertsoen eremura ekarrita, hizketa neurtu eta kantatuan kontsonante eta bokalekin batera fonikoki ekoizten eta hautematen den hori guztia dela ere esan genezake. Bestela esanda, bertsoetako hizkuntzaren (hizketaren) egituratze eta gauzatze musikala zein haren azterketa da bertsoen prosodia. Bertsolaritzan *kantaera* deitu ohi zaio maiz lan honetan prosodiatzat hartzen dudanari (ikus §6.6.3). Eremu zabal horren parte dira, beste batzuen artean, ahotsaren ezaugarriak kantuan, inprobisazioan baliatutako doinua, ahoskatutako silabak, horien iraupen eta intentsitatea (gauzatutako erritmo-ereduak), eginiko etenak (hitzen taldekatzea) edo bertsoa kantatzeko baliatutako *tempoa*.

Bertsoen prosodia ulertzeko kontzeptu gakoa da testu-uztartzearena (*textsetting*). Finean, material linguistikoa (testua) egitura musikaletan txertatzean hizkuntzaren ezaugarri fonologikoak eta haren euskarri den doinuarenak lotzeko moduei erreparatzen die. Euskarazko bat-bateko bertsogintza kantatuaren kasua bezalakoetan, alde zuzenetik zehaztuta dagoen eta bertso-neurri

⁹ Lan honetan ez dut alderdi horietan sakondu, baina aipatu nahi izan ditut, prosodiaren alderdi eta eragin sozialagoa ere buruan izateko; alor hori esangura handikoa da bat-bateko bertsogintzarena bezalako jardunean. Ikus, esaterako, Alberdiren (2019: 23-27) *Kontrako eztarritik* lanean ahotsari eskainitako atala.

jakinean oinarrizten den doinu batean txertatzen da inprobisatutako hizketa, bestelako eskakizun metrikoei ere jarraiki: silaba kopuruari, taldekatzeari eta errimadun hitzen kokapenari, nagusiki, aztergai dugun bertso-moldean. Hitz lauarekin alderatuta, non esan nahi den horren baldintzen arabera —luzera, eskakizun morfosintaktikoak, semantikoak, etab.— hautatzen diren hizkuntzan eskuragarri dauden eredu prosodikoak (Hurch 1994; 1996), kantua bezalako testu-uztartze gertakarietan alderdi prosodikoak nagusitasun handiagoa duela esan daiteke. Hala da, bederen, lan honetan aztergai dudan bertsolaritzaren kasuan: esan nahi den hori, hizketa, alde aurretik hein handian zehaztutako eredu prosodikoan txertatzen da: doinuan (ikus §6.6.2 xehetasun gehiagorako). Horrek dakar bertsoetan, hizkuntza denboran antolatzean, doinuak eta neurriak emaniko baldintzek beste hizketa molde batzuetan baino pisu handiagoa izatea.

Gertakarian elkarreraginean parte hartzen dute hizkuntzak, metrikak eta musikak. Denboran zehar antolatzen diren hotsezko hiru egitura izanik —bakoitza bereiz aztertuz gero—, antzekotasunak partekatzen dituzte elkarrekiko, desberdintasunekin batera, oinarrizko pulsu erregularrari, azentuerei eta taldekatzeari dagokienez, besteak beste. Lotura eta alde horiek dira gerora (bat-bateko bertsoetako) testu-uztartzeko gertakari prosodiko zenbait ulertzeko funtsa edo funtsetako bat, behintzat (ikus §5.3).

Testu-uztartzean hizkuntzatik, metrikatik eta musikatik datozen ezaugarrien fusioarekin gertatzen dena aldakorra da hizkuntzatik hizkuntzara, baita testu genero batetik bestera ere, hizkuntza beraren baitan. Maila teoriko eta idealenean hizkuntzaren eta musikaren azentu-eredu zein taldekatzea bat etorri beharko liritekeen arren, orain artean eginiko azterketek agerian uzten dute hizkuntzen tipo erritmikoak eta, zehatzago, hizkuntza bakoitzaren fonologiak hein handian baldintzatzen dituela testu-uztartzearen ezaugarriak (ikus §5.4). Horrekin batera, funtsezkoa da kontuan hartzea prosodiak askotariko funtzioak betetzen dituela hitz lauz bezala kantuan ere, ekoizpenaren askotariko alorrak baldintzatuz. Halaber, lotzen diren hiru sistemen artean sortzen den harremanaren arabera, zein sortzailearen asmo artistiko eta ezaugarri estilistikoaren arabera ere, ekoizpena hizkuntzaren fonologiatik gertuago edo urrunago egongo da (ikus §5.5).

Euskarazko bat-bateko bertsoen prosodia ikergai mamitsua bezain ezezaguna da¹⁰ eta aipatutako arloen azterketak aukera emango luke, batetik, euskararen antolakuntza fonologikoaren ezagutzan sakontzeko eta, bestetik, euskarazko bat-bateko bertso kantatuen egituratzearen ulerkeran eta ezaugarritzean aurrera egiteko. Gainera, testu-uztartzeaz beste hizkuntza batzuetan eginiko

10 Orain artean aipatutako arloetako batzuei buruzko lanak egin dira, edonola ere, gorago aurreratu bezala. Tesian zehar jaso ditut, dagokion gaiari lotuta.

ikerketekin loturak zein ñabardurak egiteko bidea zabalduko luke bertsoen prosodiari buruzko ezagutzak.

1.1.3. Ikergaiari ezarritako mugak: bertsoen erritmoa ardatz

Oso eremu zabala hartzen du, ikus daitekeenez, bertsoen prosodia gisa definitutako eremuak. Hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren alorrak batetik eta prosodia osatzen duten askotariko osagaiak (erritmoa eta intonazioa, besteak beste) bestetik, elkarri lotuta, elkarreraginean, aztertzea beharrezkoa litzatekeen arren, egiteko zabalegia da. Horregatik, mugak ezarri behar izan dizkiot ikergairi: erritmoa —antolakuntza erritmikoa— hartu dut ikerketaren ardatz nagusitzat, kanpoan utziz melodia (intonazioa) edo kantaerari lotutako bestelako alorrak (*tempoa*, kasu).

Hasteko, erritmoa funtsezkoa da hizkuntzen antolakuntza prosodikoan. Fonologiaz hartzen dudana ikuskeran (Fonologia Naturalaren iker-moldean), erritmoa da hizkuntza-antolakuntzaren eta eraldaketaren funtsetako bat. Ikuspegi horretatik erator daitezke erritmoaren araberako tipologiak, hizkuntza baten baitako bilakabide segmentalak, silabatze-joerak, azentuerak zein taldekatzea, elkarrekintzan ulertuz sistema fonologikoaren baitan (ikus §1.3.1.1 Fonologia Naturalaren aurkezpenerako eta §3 erritmoaren antolakuntzan sakontzeko). Hala, erritmo deritzodanaren azterketak alor fonologikoaren baitako hainbat osagai eta haien arteko lotura eta elkarreragina aztertzea eskatu eta ahalbidetzen du.

Bestalde, aurrekoari loturik, testu-uztartzeaz orain artean eginiko hainbat lan berrikusita, badirudi tonu hizkuntza ez direnen kasuan alor erritmikoan aurkitzen direla nagusiki hizkuntza eta musika lotzen dituzten osagaiak (ikus Proto 2015 berrikuspen baterako; lan honetan §5, §8.2.6, §9.2.4 eta §10.2.4). Euskara tonu hizkuntzatzat hartu ez den heinean, pentsatzekoa da erritmoa eremu emankorra izango dela, intonazioak testu-uztartzean izan lezakeen papera baztertu gabe, betiere (ikus deCastro-Arrazola 2015 azterketa proposamen baterako). Azkenik, euskararen sistema metrikoa nozio erritmikoetan oinarritzen da batez ere, silaba kopuru eta taldekatzean —errimarekin batera— (ikus §9.2.3.2.2) eta, hala, hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren arteko loturak aztertzeko bide irisgarri gisa ikusten dut erritmoarena, beste lotura-bide batzuk ere posible diren arren¹¹.

11 Lanean aztertutako corpusari ere mugak ezarri behar izan dizkiot garaiari, saio-motari eta bertsolariei dagokienez, besteak beste (ikus §1.4 eta §7).

1.2. Helburuak

Hizkuntzaren erritmo-antolakuntzaren fonologiatik hurbiltzen naiz euskarazko bat-bateko bertso kantatuetara. Ikerketaren helburu orokorra bertsoetan hizkuntzak duen eragina aztertzea da, beraz, alor erritmikoan jarriz arreta. Hiru dira, zehatzago, lanaren helburuak:

a) Euskararen tipo erritmikoak eta, zehatzago, euskararen fonologiak bertso-jarduna nola baldintzatzen duen aztertzea. Testu-uztartzearen ikuspegitik gaur egun nahiko argi dago hizkuntza bakoitzaren ezaugarriek, eta zehatzago, fonologiak, baldintza dezaketela hizkuntza jakin horretan gauzatzen den kantua. Euskara, ordea, ez da hainbeste aztertu izan ikuspegi horretatik, nahiz eta badiren gaiari buruzko aurrekari eta aipu franko. Ikuspegi tipologikotik euskararen bertsoetako testu-uztartzea aztertu nahi dut, euskararen ezagutzan sakondu eta, era berean, euskararen azterketak ekarpena egin dezan testu-uztartzearen ezagutzan. Bertsolaritzak horretarako paregabeko aztergaia eskaintzen du, bertsoa sortzen den bat-bateko baldintzek eta helburu nagusiki komunikatiboak hizkuntzari, hizketari, hertsiki lotutako ahozko ekoizpena baitute ondorio.

b) Hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren arteko harremanak bertsoetan zer-nolakoak diren ulertzea. Beste hainbat hizkuntzatan eginiko ikerketek (ikus § 5, §8.2.6, §9.2.4 eta §10.2.4) agerian uzten dute aipatutako hiru sistemak uztartzeko modu asko daudela. Beste hainbat hizkuntzatan aztertuak euskarara ekarrita euskarak zer agertzen duen aztertzeak lagun lezake bat-bateko bertsoen antolakuntza erritmikoa sakonago ulertzen, hausnarketarako baliabide eta tresnak emanaz bai euskarari bai bertsogintzari dagokionez.

c) Bertsoetako aldakortasun prosodikoaren nondik-norakoak aztertzea, ikuspegia konplexuagotuz. Testu-uztartzearen edo metrikaren azterketan sarri hartu izan da hizkuntzaren fonologia aldakortasun ezaugarrien baldintzatzaile nagusi edo bakartzat. Eragile funtsezkoa dela ukatu gabe, testuinguruak, zentzurik zabalenean, unean uneko ereduek, estilismoak edo adierazkortasunak, are hizkuntzaren baitako egiteko desberdinek, ezaugarri prosodikoen gauzatzean duten eragina aztertzeak testu-uztartzearen konplexutasuna egokiago kokatzen lagunduko luke, beste hainbat hizkuntza eta ikerketatan egin bezala, edo beste hainbat ikerketatan eginiko irakurketen osagarri.

1.3. Tesiaren aztergaiak

Helburu horiek betetzeko lan honetan marko teoriko eta interpretatibo baten lehen ardatzak proposatu ditut, batetik, bat-bateko bertsoen erritmo-antolakuntzaren funtsa ulertzeko heldulekuak

eman asmoz. Gero, osatutako marko teorikoaren bidez interpretatu ditut corpus azterketatik ateratako datuak. Gorago aurreratu bezala, ondokoak dira landutako ildo teoriko nagusiak:

- Erritmoaren araberako hizkuntza-tipologiak eta, zabalago, hizkuntzen erritmoa
- Prosodiaren aldakortasuna eta askotariko egitekoak.
- Testu-uztartzea: hizkuntza, metrika eta musikaren antolakuntza-erritmikoa eta egituren arteko harremanak kontuan.

Aipatutakoez gain, txertatze prosodikoaren (*prosodic mapping*, Donegan eta Stampe 1978) kontzeptuari zentraltasuna eman diot lanean, osagaien uztartzea eta elkarreragina kokatzeko baliagarri delakoan. Bertsolaritzaren izaera, ezaugarriak eta bilakaera ere hartu ditut kontuan, aztertutako gertakariak testuinguratu eta ulertzen laguntzen duelakoan. Askotariko eremuetako ekarpenak jaso eta horien arteko loturak egiten ahalegindu naiz.

Eraikitako marko teoriko eta interpretatiboa ez da ezer itxia eta ezta amaitua ere, bertsoetako erritmoaren azterketarako abiapuntua baizik. Ikergaiaren izaera poliedrikoak diziplinarteko ikerketa eskatzen du derrigor eta, lan honetan hainbat arlo uztartzen ahalegindu arren, beharrezkoa da beste eremu batzuetako ikerketek lan honetan egindakoa osatu, sakondu, ñabartu edo ezeztatzea.

Bestetik, lanketa teorikoarekin batera, corpus azterketan oinarritu dut lanaren alderdi enpiriko-analitikoa, lanketa teorikotik ondorioztatutako osagai zehatzen azterketa eta interpretaziorako proposamena eginez. Corpus azterketak berak ere ekarri ditu gogoetagai eta behar teorikoak, atzera marko teoriko-interpretatiboa elikatuz. §1.1. atalean aurreratu bezala, 1980-2017 bitarteko Bertsolari Txapelketa Nagusietako irabazleen finalerako bertsoak aztertu ditut, hiru ardatz nagusi kontuan hartuta: silabatzea, erritmo-ereduak eta taldekatzea. Erritmoaren antolakuntzan funtsezko diren osagaiok, esangura tipologikoa ere badute. Horregatik ardaztu dut analisisa alor horietan.

Silabatzeari dagokionez, bertsolariek ekoiztutako silaben egiturak eta horien maiztasunak aztertu ditut, hasteko. Horren osagarri, bertsolariek silaba-egiturari lotuta gauzatutako bilakabide fonologiko segmental nagusiei erreparatu diet, baita hitz mugetan bertsolariek dituzten silabatze-joerei ere. Azkenik, bertsolariek neurria betetzeko darabiltzaten baliabide foniko nagusien erabilera jaso dut.

Erritmo-ereduen kasuan, bat-bateko bertsoetan gauzatzen diren erritmo-eredu nagusiek zein ezaugarri dituzten proposatu dut, abiapuntu gisa. Hori finkatuta, bertsolarien aldaera erritmikoa zer-nolakoak diren aztertu dut, horien eragile posibleak proposatuz.

Bertsoetako taldekatzea aztertzeo hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren osagai prosodikoak hartu ditut kontuan eta, taldekatze-arrastoei jarraiki (ikus §10.2.6) bertsolariek kontuan gauzatzen dituzten eremu prosodiko nagusiak identifikatu ditut. Hizkuntza-metrika-musika

hirukoaren harremanetik abiatuta berrikusi ditut, era berean, euskarazko bat-bateko bertsogintzan baliatzen diren neurrien oinarriak ere, erritmo-ereduak aztertzean jasotako irregulartasun metriko batzuetatik abiatuta.

Azkenik, aipatutako eremuak elkarri lotuta atera ditut lanaren ondorio orokorrak.

1.4. Ohar teoriko-metodologiko zenbait

Beraz, orain artean hainbatetan esan bezala, tesiak bi zutabe nagusi ditu: teorikoa eta enpiriko-analitikoa. Jarraian horietako bakoitzari buruzko ohar orokorrak egingo ditut, eginiko ikerketaren ulermena errazteko.

1.4.1. Marko teoriko eta interpretatiboaren eraikuntzaz

1.4.1.1. Molde teorikoa

Bertsoen prosodiara hurbiltzeko modu, bide eta eremu asko egon litezke, helburuak bezainbeste gutxienez. Ikerketa honetan hizkuntzalaritzatik eta, zehatzago, fonologiaren alorretik hurbiltzen naiz, asmo ulertzailez, bat-bateko bertsoen erritmo-antolakuntzara. Horrela, fonetika eta fonologiazko gai eta gertakariak ulertzeko oinarri teoriko nagusia 60ko hamarkadan David Stampek sortu eta gerora hainbatek —horien artean Patricia Donegan-ek eta Bernhard Hurch-ek¹²— garaturiko Fonologia Naturalaren iker-moldea izango da. Teoria honek hizkuntzen fonologia azaltzea, ulertzea, du helburu nagusi: hizkuntzek¹³ hotsezko, hizketa, izateari zor diotena du aztergai, hotsez ahoskatu eta hautemateari dagokion hori. XIX. eta XX. mendeetan fonologiaz landutako teoria azaltzaileen¹⁴ garapen modernotzat aurkezten du bere burua (Donegan eta Stampe 1979).

12 Lan honetan autore horiek izango dira bereziki garrantzitsu gogoeta teorikoei dagokienean, horregatik haien aipamena.

13 Lan honetan *hizkuntzari* erreferentzia egiten diodanean *ahozko hizkuntzetan* ardaztutako adierazpenez ari naiz.

14 Abiapuntutik bertatik geratzen da agerian teoria honek hizkuntz gertakari anitzen azterketatik edaten duela, oinarrian baititu aldaketa fonetikoa (Sweet eta Sievers-en lanak), hizkeren arteko aldakortasuna (Winteler), haur hizkera (Passy, Jespersen), txandakatze sinkronikoa (Kruszewski, Baudouin) edo hautemate fonologikoa (Sapir, Jakobson) gisako eremuak (Donegan eta Stampe 1979: 126).

Natural terminoa tentuz hartu eta azaldu beharrekoa da¹⁵. Fonologiaren esparruan eta eskuartean dudan teorian, “[t]he term natural refers to the view that the forces governing phonological systems, alternations, phonological change, and phonological behavior in general are inherent to the limitations of human capacities of speech production and auditory perception” (Hurch 2006a: 541). Hizkuntzen sistema fonologikoen nolakotasuna eta, oro har, gertakari fonologikoak —sinkroniko zein diakronikoak— ulertzeko oinarriak ahoskeraren —ekoizpenaren— eta oharmenaren mugen eta aukeren baitan daudela argudiatzen da teoria honetan. Motibazio fonetikoa funtsezkoa izango da, beraz, fonologiazko gertakariak aztertu eta azaltzean. Horrek txanponaren bestaldean du ezinbestean alderdi mentala, gertakari fonetikoak hauteman eta kudeatzeko gaitasuna.

Fonetika ahozko hizkuntzaren gauzatze fisikoaz arduratzen dela esan genezake labur; hitz egitean hotsak ahoskatu eta entzuteari dagokion eremua da. Ahozko hizkuntza bat ulertu ahal izateko, ordea, hautemandako hots-uhin hori “behar bezala” deskodetzen jakin beharko dugu eta, hizkuntza hori hitz egiteko, hizkuntza horretan baliatzen diren hotsak ekoizten asmatu beharko dugu —besteak beste—, pareko solaskideak gure mezua ulertzeko moduan. Lan horretarako baliatu ohi dugu fonologia —ezagutza fonologikoa—, hizketaren alderdi mentala litzatekeena. Fonologiaren baitan sartzen dira, esate baterako, hizkuntza baten fonemak¹⁶, hizkuntza batean “berariaz ahoska, berez hauteman eta oroitu daite[z]keen hotsa[k] [...] asmo, oharmen eta memoria unitatea[k]” (Oñederra 2004: 80). Har dezagun euskarazko *esne* hitzaren ahoskera: [eźne] ahoskatuko genuke, /s/ txistukari apikari ahoskabea ahostun gauzatuz ([ś] → [ź]) ingurune ahostunean¹⁷, asimilazioz¹⁸. Guk [eźne] ahoskatuta, entzulea euskaraduna bada, *esne* esan nahi dugula ulertuko du. Euskaraz [ź]

15 Ezin ekidin dezaket deseroso sentitzea *natural* terminoarekin. Historian zehar eta gaur egun arte askotariko testuinguruetan eta askotariko gizarte-prozesuak izendatu eta justifikatzeko baliatu izan da, eta gertakariak *naturalizat* jotzeak dituen arriskuez jabetzen naiz, hori ez izan arren Fonologia Naturalaren ez egiteko ez ulerkerak. Doneganek eta Stampek (2009) aipagai dute *natural* izendapena bera, terminoa zein modutan darabilten azalduz: “Some writers object to the name “natural”, saying that it suggests that other phonology is “unnatural” or “artificial”. The term “natural” was applied to natural classes by Halle (1962) and to natural rules and representations by Postal (1968: Ch. 2) and by Chomsky and Halle (1968: Ch. 9), before it was first adopted by Stampe (1969) to distinguish the natural and universal (“process”) component as distinct from the conventional and language-specific (“rule”) part of the overly inclusive version of phonology that had developed in generative grammar. It was perhaps a bad choice. Because of the generative view that language acquisition involved an “evaluation measure”, the term “natural” was interpreted as an evaluation measure [hala ez denean]” (Donegan eta Stampe 2009: 6).

16 Fonema oso eztabaidatua izan den unitatea da fonologian, bere izatea zalantzan jarri izan duten teoriarriak baitaude, batetik, eta unitatea ezaugarritzean ere ez baitago adostasunik (historian zeharreko berrikuspen baterako, ikus Fischer-Jørgensen 1975). Lan honetan fonologia naturalaren ulerkerak aurkeztu dit.

17 [ś] txistukariaren ondorengo [n] kontsonante ozena har genezake kasu honetan ahostuntzearen eragile. [ś] hots ahoskabea [ź] ahostunagatik txandakaturaz, ahots korden dardara mantentzen da hotsen artean —hitz osoan zehar, kasu honetan—, mugimendu artikulatorio gutxiago eginez eta, beraz, ahoskera erraztuz.

18 Ez bedi irakurlea nahas <z> eta <s> grafemen eta forma bera duten hotsen artean. <z> grafemak hotsezko ordain ahoskabeak [s] edo ahostunak [z] izan ditzake fonetikoki euskaraz, ingurunearen arabera: *aza* [asa] eta *hizlari* [izlari]. Berdin <s> grafemak ere: *esan* [eśan], ahoskabea, eta *esne* [eźne], ahostuna. <z> eta <s> grafemei dagokien fonema (asmo, oharmen eta memoria unitatea) ahoskabea da, edonola ere: /s/ eta /ś/ (Oñederra 2004: 40-41).

txistukari ahostuna ez da fonema bat hizkera gehienetan, ez dago hiztunaren hots-memorian; aipaturiko hotsa /s/ fonemaren alofonia da goian emaniko *esne* adibidean, aldaera “hautemanezina” (hasiera batean)¹⁹ —zubereraz badira fonema balioa duten txistukari ahostunak (Michelena [1961] 1990: 280)—²⁰.

Hiztunak fonemak ahoskatzeko intentzioa du —/ešne/ esan nahi du, kasu—, eta fonemak hautematen ditu eztabaida-kideak ekoizpenean —/ešne/ ulertzen du—. Besterik da ahots-bideko artikulazio modu eta guneeetan fisikoki ekoitzi diren hotsak, hots-uhin seinalean jaso diren hotsak, guztiz bat ote datozen ahoskatzeko asmoa zegoen hots horien ezaugarriekin —[ežne], txistukaria ahostunduta—. Kontua da entzuleak ere, hizkuntza edo hizkera horretako hiztun den heinean, hizlariaren hots-asmoa zein den ulertzen duela. Alderantziz, berriz, hizkuntza ezagutzen ez badugu, ez gara gai izango hizkuntza horretako hotsak (fonemak) zehazki zein diren asmatzeko; are gutxiago mezua asmatzeko, hotsezko ekoizpenean oinarrিতa behintzat. Oñederrak (2004: 84) kantuetako letrak oker ulertzearen adibideak gogora ekarrita azaltzen duen bezala²¹, hizkuntza ezagututa ere, entzute okerrak gerta daitezke askotariko arrazoiengatik: “Guztion noizbaiteko anekdota horiek erakusten dute gure hizketako gaitasun fisiko horren kudeaketan eragin handia duela antolaketa linguistikoak. Antolaketa linguistiko hori hizkuntza bakoitzaren fonologian, gramatikan eta hiztegian datza” (Oñederra 2004: 84).

Aipaturiko kasuetatik ondoriozta daitekeen bezala, fonetika eta fonologia txanpon beraren bi alde dira, hizkuntzaren hotsezko alderdia ulertzeko beharrezkoak, biak ala biak. Fonologia Naturalaren iker-moldean, fonetika azalpen bide oparoa izango da fonologiarentzat, eta alderantziz²². Bestelako azalpen iturri batzuk ere funtsezko izango dira noski:

19 Frantsesez, ordea, /s/ eta /z/, txistukari lepokarietan ordain ahostuna eta ahoskabea dira fonemak, arrainaren (fr. *poisson* [pwasõ]) eta pozoinaren (fr. *poison*, [pwazõ]) arteko bereizkuntzak agerian uzten duenez —euskaraz ez bezala, *aza* [asa] eta *hizlari* [(h)izlari] hitzetako txistukariak ([s], [z]) fonema bakartzat baititugu: /s/—. Frantses hiztunak bi hotsak berariaz bereizteko gai izango dira, ekoizpenean eta oharmenean. Errealitate edo ezaugarri fisiko (fonetiko) berak —txistukariaren ahostuntasunak, kasu honetan— interpretazio linguistiko (fonologiko) desberdina izan dezake, euskara eta frantsesaren adibideok aztertuta ondoriozta genezakeenez.

20 Lan honetan zehar, txistukariaren transkripzio fonemiko eta fonetiko egitean, ez ditut Nazioarteko Alfabeto Fonetikoak (NAFek) zehaztutako ikurrak erabili, euskal fonologian ohiko direnak baizik (ikus Oñederra 2004: 162, esaterako). Txistukari lepokari ahoskabea (NAFen arabera [s̺]) horrela adierazi dut: [s]. Txistukari lepokari ahostuna (NAFen arabera [z̺]): [z]. Txistukaria apikaria dela adierazteko, tileta erabili dut hotsaren gainean. Txistukari apikari ahoskabea (NAFen arabera [s̺]), beraz, [š], eta ahostuna (NAFen arabera [z̺]): [ž]. Txistukari afrikatueta ere modu berean erabili ditut zeinuak.

21 Inguruan gertaturiko gaizki-ulertuen artean aipa nitzake eskolan abesten genuen ‘Alaken’ gabon-kantaren bertzio laikoan, amaieran “Olentzero ikazkina zen” beharrean “Olentzero hegazkina zen” kantatzen zuen ikaskidearen adibidea, *ikazkin* hitza ezagutzen ez zuelako, agian, edota Olentzero hegan irudikatzen zuelako, beharbada. Edo Negu Gorriak taldearen ‘Zu atrapatu arte’ kantari “hi, burges madarikatua”-ren lekuan “ipurbeltz” edo “izurde” madarikatuak irudikatu izan dituen jendearena.

22 Ez da hala, ordea, fonologiazko teoria guztien kasuan. Hainbatek muzin egiten dio hizketaren errealitate fonetikoari —iker-molde sortailearen fonologiazko lan klasikoek (Chomsky eta Halle 1968 eta ondorengo hainbat lan), esate baterako—. Beste teoria batzuek, ordea, hizketaren osagai fisikoa soilik aldarrikatuz, alderdi mentala, antolakuntza fonologikoa eta gramatikala, ukatzen dute —fonologia esperimentalaren baitako zenbait korrontek, adibidez. Ikus Ohala 1979, beste batzuen artean— (Hurch 1988a). XX. mendean nagusi izan da fonetika eta fonologia bereiz

Our assumption, that phonetics is nothing more than materialised phonology, that phonological processing shows exactly this process of materialisation, does not mean either that phonetics is the only moving principle of sound patterns, or that phonetics is more concrete than phonology. Phonology is as accessible as phonetics, and phonological (and other grammatical) argumentation is necessary to understand the processing and therefore the shape of phonological and phonetic representations. Other argumentation types [...] come from the internal organisation of phonology, from variation (stylistic, dialectological, sociolinguistics, etc.), from context (in the broad sense), from other components of the grammar, from rhythm, typology, etc.

(Hurch 1988a: 350).

Hizketa egituratzen duten hatsarre eta hobespen orokorrekin batera —motibazio fonetikoak duten gertakariekin batera—, bestelako eragileei begiratzea beharrezko da, beraz, hizkuntzaren antolakuntza ulertuko badugu. Lan honetan segmentuak —hizkuntzaren hotsak— neurri batean aztertuko ditudan arren, prosodia da aztergai nagusia; hizkuntzaren erritmoak bertsoetan hartzen duen forma, hain zuzen. “Fonetikaz bestelako” azalpen-bideek funtsezko garrantzia izango dute, beraz.

Hizkuntza eredu prosodikoetan txertatzea *bilakabide edo prozesu*²³ *prosodiko*en bitartez gauzatzen dela proposatzen da Fonologia Naturalaren iker-moldean:

Prosodic processes map words, phrases, and sentences onto prosodic structures, rudimentary patterns of rhythm and intonation. Insofar as syllabicity, stress, length, tone, and phrasing are not given in the linguistic matter, they are determined by the prosodic mapping, which may most easily be described as an operation in real-time speech processing of which setting sentences to verse or music are special cases.

(Donegan eta Stampe 1979: 142)

Aipuan irakur daitekeen bezala, bilakabide prosodikoaren egitekoa da hitzak, sintagmak eta perpausak egitura prosodikoetan txertatzea. Egitura prosodiko horiek erritmo eta intonaziozko oinarriko ereduak (*rudimentary patterns*) dira. Oinarrikoak direla esan liteke, hizketako ereduak musikan aurki daitezkeen eredu askorekin alderatuz gero, ikusiko baitugu azken horiek beste ezaugarri batzuk eta beste maila bateko konplexutasuna izan ohi dituztela sarri, edo izan ditzaketela, behintzat (hizkuntza eta musikaren arteko antzekotasun eta aldeez, ikus §5.3). Hizkuntza, hala, hein batean finkaturik dauden eredu prosodikoetan txertatzen da eta uztartze horretan zehazten dira silabikotasuna, azentua, iraupena, garaiera eta *taldekatzea (fraseoa edo esaldikatzea; ing. phrasing)* bezalako alderdi prosodikoak, horiek ez badaude gramatikaren edo lexikoaren alderdiren batek zehaztuta edo baldintzatuta — morfologiak, kasu—.

ulertzeko joera (berrikuspen baterako, ikus Fischer-Jørgensen 1975, besteren artean), baina lan honetan bi eremuen —eta beste alderdi batzuen— arteko elkarreragina aldarrikatu eta baliatuko dut hizketa —eta zehatzago, bertsoen prosodia— ulertzeko ahaleginean.

23 Lan honetan *bilakabide* aukeraren alde egin dut, Oñederrari (2004: 50) jarraiki.

Hitz lauko gertakariak kokatzeko lagungarri izateaz gain, txertatze prosodikoaren baitan kasu berezi gisa aurkezten da perpausak bertso edo musikazko ereduakin uztartzea. Ideia iradokitzailea da, horixe baita bat-bateko bertso kantatuetan gertatzen dena, modu argiagoan: bertso-doinu batean txertatzen ditu bertsolariak silabak, hitzak eta esaldiak, doinuak eskaintzen dizkion ezaugarriak hartzen dituelarik, hein handi batean, hizkuntzak (harremana aldebikoa da, edonola ere, ikerketa honetan ondorioztatu ahal izan dudanez). Bertso eta kantuetan berezitasuna zertan datzan agerikoagoa da horrela: hitz lauz baliatzen diren oinarrizko eredu prosodikoez landa, bestelako ezaugarri eta egiturak dituzten eredu prosodikoak ere eskaintzen dituzte hizkuntzarentzat bertso eta kantuek.

1.4.1.2. Hizkuntzaren analisi-mailak

Marko teoriko-interpretatiboaren eraikuntzan eta corpus azterketan presente izan ditut —batzuetan oso modu agerikoan ez dauden arren beharbada— Dressler-ek (1996), Hjelmslev eta Coseriu-ren (1968, 1980) lanetatik abiatuta, berezitako hizkuntz analisirako bost mailak: 1) unibertsalen maila, 2) tipologiarena, 3) hizkuntza jakin bati dagokiona, 4) hizkuntza baten baitan normak eragindakoa eta 5) *performance*-aren menpekoa. Maila horiek bereizteak lagun dezake hizkuntza batean gertatzen diren askotariko ezaugarriak —batzuetan elkarren aurkako diruditenak— ulertzen. Ohar gisa esango dut jarraian maila bereizi eta ordenatuan aurkeztutakoak gero hizketan aldi berean eta bat-batean gertatzen dela, baina baliagarria iruditzen zait tresna analitiko gisa.

1.4.1.2.1. Hizkuntza egituratzen duten hatsarre orokorrak

Mailarik orokorrena izaki, hemen kokatzen dira printzipioz hizkuntzak egituratzen dituzten oinarrizko joera orokorrak. Ikerlan honi gagozkiola, maila hau osatuko lukete, besteak beste, silaba-egituratzeko hatsarreek (Vennemann 1988; ikus §8.2.1), azentu-ereduak osatzeko hobespeneak (Hurch 1994, 1996; ikus §9.2.1), taldekatzeari dagozkion hatsarreek (Dressler 1996; ikus §10.2.6), hizkuntzen fonema inbentarioa zein eredu-prosodiko paradigmaticoak eta txertatze sintagmatikoa egituratzen eta bideratzen duten bilakabide fonologikoeak (Donegan eta Stampe 1979, 2009; ikus §2), etab.

Hatsarre orokorretako batzuk bakarrik egongo dira hizkuntza guztietan indarrean, unibertsalak izanik zentzu hertsian. Esaterako, hatsarre orokorrei jarraiki osatutako silaba egitura oinarrizkoena, CV, hizkuntza guztietan aurkituko dugu, gehiago edo gutxiago. Beste hatsarre batzuk ezaugarri edo joera parametrikokoak izango dira, eta hatsarre baten aldeko hautuak askotariko gertakari eta joerak

inplikaturako ditu, tipu linguistikoei bide emanaz. Unibertsalak izanagatik gainditu ahal izango dira beste hainbat; bilakabide fonologikoak (ikus §2.4.1) dira horren adibide argiena (Dressler 1985: 292-293). Aukera horiek hurrengo mailalara garamatzate.

1.4.1.2.2. Hizkuntzen hautu tipologikoak

Hatsarre orokorren artean hizkuntza bakoitzaren hautuen arabera hizkuntza-antolakuntza joera batzuk edo beste batzuk nagusituko dira hizkuntzen artean, tipu linguistikoak osatuz. Joera orokorrei erreparatuz gero, ikusiko dugu alderdi bati dagokion hobespena betetzeak ekar dezakeela beste alderdi bati dagokion hobespena bete ezina (Dressler 1987: 11).

Esaterako, azentua sistema fonologikoaren erdigunean badago, hitza izango du ziurrenik erritmoaren antolakuntzarako unitate esanguratsu nagusietako bat, eta azentuaren indarraren eraginez, silaba-egitura konplexuak egituratuko dira (silaba egituratzen duten hatsarreei “aurka” eginez, batzuetan), besteak beste. Azentu-aldiko hizkuntza deitu ohi zaie tipu horretako hizkuntzei (ingeleza, adibidez). Ordea, sistema fonologikoa antolatzean hatsarre silabikoak badira nagusi, azentuak ez du fonologikoki horrenbesteko indarririk izango maila erlatiboan —garaiera-azentua baliatuko da sarri tipu honetako hizkuntzetan, indar-azentua beharrean—, eta silaba izango da erritmoa antolatzeko oinarritzko unitatea. Silaba-aldiko hizkuntzak izango dira hauek (gaztelania edo frantsesa, kasu) —eta horien baitan, baita mora-aldikoak (japoniera, esate baterako) ere—. Hatsarre silabikoek indar handia izango dute hizkuntza tipu honetan, CV egituraranzko joera nabarmena utziz agerian, adibidez. Hierarkia prosodikoa gora eginda, hitzak ez du beharbada hainbesteko nagusitasunik izango eta esaldi fonologikoa gisako unitateek hartuko dute garrantzi handiagoa, erritmoa goragoko mailetan antolatzeko. Hori ulergarria da kontuan hartuz gero silaba-aldiko hizkuntzek sarri morfologia eranslea izan ohi dutela, luze-labur oso aldakorreko hitzak osatuz (erritmoaren araberrako tipologiez, ikus §3.4).

Gaur egungo euskara azken tipu honetan kokatu da orain arteko lanetan (Hurch 1988a, Etxeberria 1998, Jauregi 2007, Oñederra 2015, Jauregi 2021; ikus §3.4.4 eta 3.4.6).

1.4.1.2.3. Hizkuntza jakin baten baitako zehaztapenak

Joera unibertsal eta tipologikoak hizkuntza bakoitzaren sistemako hautu konkretuek mugatu edo iragaziko dituzte (Dressler 1985: 293). Euskararen sistema fonologikoa egituratzen duten bilakabide fonologikoak eta bestelako joera eta ezaugarriak hartu behar dira kontuan maila honetan, joera orokor edo tipologikoekin bat etorri ala ez, hizkuntzan ohikoak diren ereduak osatzen baitira: fonema inbentarioa, onartutako silaba-egiturak eta hots bilkurak edo azentu-eredu orokorrak,

adibidez (ikus §8.2.2, §8.2.4, §9.2.1.4 eta §10.21.1.4). Dresslerrek (1985: 294) sistema linguistiko jakin bat ulertu ahal izateko hizkuntzaren bilakaera diakronikoa (ere) kontuan hartzearen garrantzia nabarmentzen du maila honetan.

1.4.1.2.4. Norma

Hizkuntzaren baitan egon litezkeen aukerak unean unean ingurune jakin batean indarrean den normak mugatzen ditu (Dressler 1985: 294). Hizkuntza instituzio sozial gisa ulerturik, hautu linguistikoek esangura soziala hartzen dutela ulertu behar da, hizkuntza-gertakariak inguruneari loturik ulertuz kasuan kasuan (ikus, adibidez, Coseriuren lanak). Hizkuntza-ezaugarri eta hizkuntza-erabilera jakinei loturik eratzten eta ezartzen dira kode komunikatiboak hiztun-entzuleen artean, horrek ere hizkuntza-ekoizpenean eragiten duelarik (Clark et al. [1990] 2007: 327-329; ikus §4).

Maila hau soziolinguistikari, hizketa-estiloari eta, bertsogintzaz ari garela, bertsoa eraiki, kanporatu, hauteman eta ulertzeko moduei lotzen zaiela esan liteke, besteak beste. Ikerlan honi dagokionean, bertsolaritzaren baitan dauden hizkuntza ideologiak (Artetxe 2018) eta hizkuntzaren normalkuntza prozesuaren eraginak (euskara batuaren sarrera eta erabilera gero eta zabalagoa bertsotan egitean, etab. Ikus Garzia 2007) aipa litezke bertsoetako hizkuntza-erabileraren aldakortasunari loturik, besteak beste. Horiakin batera unean uneko bertsogintza kanonak (Garzia 2007; Zubiri et al 2019) zein testuinguru bakoitzeko entzuleriak bertsogintzaz duen hautematea eta ulerkera aipa daitezke, gorago aipatutako kode komunikatiboari eta kanonei loturik, besteak beste (ikus Hernández 2016, Alberdi 2019 edo Labaka 2019, esaterako, normari lotutako egoera batzuen azterketetarako, genero ikuspegitik). Txapelketetako saioretako bertsoak epaitzeko irizpideak ere maila honetan koka genitzake (ikus §7.2 eta §7.3).

Ikerlan honetan ez dut normaren alorrean nahi bezainbeste sakonduko, orain artean egindako lan batzuen berri jaso eta analisisian kasuan kasuan modu puntualean aipatzeaz harago, lanketa sakona eskatzen duen alorra baita. Edonola ere, ezinbestekoa iruditzen zait kontuan hartzea, funtsezko eragina baitu bertsolaritzaren (prosodiaren) egungo (eta denboran zeharreko) errealitatean.

1.4.1.2.5. *Performance*-a edo ekoizpena

Aurrez aipaturiko maila guztiek eragingo dute azken buruan ekoitziko den hizketan. Maila honetan ekoizpen indibiduala hartzen da kontuan, eta Dresslerrek (1985: 294) hemen kokatzen ditu hizkuntzari loturiko baldintza psikolinguistikoak ere. *Performance* edo ekoizpenaren “azken” maila

honek —hizkuntzaren alderdi sintagmatikoak— hizkuntzaren hatsarre orokorre —paradigmari— eragiten die azken buruan, hizkuntza-mailen pentagonoa itxiz:

[P]erformance is based on norms, norms are based on language-specific competence, competence is based on type, and types are based on universals. But what are universals based on? Our model flatly states that they are based on (general properties of) performance, or more precisely, on the needs of linguistic performance serving functions of language and having to meet extralinguistic conditions.

(Dressler 1985: 294)

Bertsoak genero-ikuspegitik aztertzean Hernándezek (2017) zehazten duenez, hainbat gertakari bertsoen arkitektura eta izaeratik ulertu behar dira. Ideia bertsoen prosodia eta, zehatzago, erritmoa aztertzeko ere baliagarria delakoan nago. Euskarazko bat-bateko bertsoegintza eta prosodia ulertuko baditugu, ezinbesteko osagaiak izango dira aurrez aipaturiko alderdi guztiekin batera, bertsoak sortzeko testuinguruak —testuinguru errealetik hasi eta katurako jarritako gaiak planteaturikoraino— eta bertso-moldeak —neurriak, doinuak— emaniko baldintzak, bertsolari bakoitzaren ezaugarriekin —kantaera, diskurtso-antolakuntza, etab.— batera.

1.4.1.3. Landutako bibliografia eta lehen mailako iturriak

Bertsoen erritmoaren azterketak beharrezko du diziplinartekotasuna, eta hizkuntzaren analisi-maila posibleei erreparatzeak ere askotariko alorrak kontuan hartzea eskatzen du. Horrek zaildu egiten du ikerketa, gertakariak merezi duen konplexutasuna ematearekin batera. Ezinezkoa da ikergaia ukitzen duten gai guztiei heltzea, ez eta ikerketa honetan landutako hainbat gai nahi bezainbeste sakontzea ere.

Lan hau lehen hurbilpena izanik, landutako bibliografian gai bakoitzari buruzko berrikuspen-lanak izan dira gehienetan abiapuntu eta, batzuetan, oinarri nagusi²⁴: hizkuntzaren erritmoan (Bertinetto 1989, Fletcher 2010), hizkuntzaren, musikaren eta garunaren arteko loturetan (Patel 2008), testu-uztartzearen joera nagusietan (Proto 2015), taldekatze-arrastoen lanketan (Deutsch [1982] 2013, DeCastro-Arrazola 2018, Fletcher 2010), etab.

Alor bakoitzean ikerketa-lan zehatzagoak landu ditut, eta bereziki sakondu dut euskararekin eta bertsoekin lot daitezkeen ikerketetan. Horrek, noski, irregulartasuna dakar gaiei eta lanei emaniko pisan, baina nahita eginiko hautua da, helburu azaltzailez. Hizkuntza gutxi batzuk hartu ditut gehienetan erreferentzia gisa: ingelesa, gaztelania, italiara, frantsesa, alemana, etab. Ikerketan landutako alorretan sakon aztertutakoak izaki, horien ekarpenak jaso nahi izan ditut, hizkuntza akaso gertuko eta ezagun egiteak ere landutako gaiak hobeto ulertzen laguntzen duela jakitun. Horrek mugak dakartza berekin, halere. Hizkuntza (gutxi) batzuen errealitatetik soilik abiatuta

24 Horrek dakartzan arriskuekin.

nekez atera daiteke ondorio orokorrik. Lan honen helburua loturak egitea da, bat-bateko bertsoen antolakuntza erritmikoa baldintzatzen duten alor posibleak kokatuz. Aurrera begira osatu, ñabartu, ezeztatu eta sakondu beharreko proposamena da marko teoriko-interpretatiboaren beraren eraikuntza.

Analisi tresna osagarri gisa, aztertutako corpora osatzen duten txapelketetako bertsoak epaitzeko baliatutako epai-irizpideak aztertu ditut, lehen mailako iturri gisa (Euskaltzaindia 1979; Euskal Herriko Bertsolari Elkarte 1985, 1990; Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 1997, 2001, 2005, 2009, 2013, 2017)²⁵.

1.4.2. Corpusaz: aztertutako bertsoak eta eginiko ohar linguistiko eta musikalak

§1.1 atalean aurreratu bezala, aztertutako corpora 1980-2017 bitarteko Bertsolari Txapelketa Nagusietako txapeldunen finaleko bertsoek osatzen dute. Ondokoak dira aztertutako txapelketak eta bertsolariak:

1. taula: Tesian aztertutako Bertsolari Txapelketa Nagusiak (BTN) eta bakoitzeko txapelduna

BTN (urtea)	Txapelduna
1980	Xabier Amuriza
1982	Xabier Amuriza
1986	Sebastian Lizaso
1989	Jon Lopategi
1993	Andoni Egaña
1997	Andoni Egaña
2001	Andoni Egaña
2005	Andoni Egaña
2009	Maialen Lujabio
2013	Amets Arzallus
2017	Maialen Lujanbio

Taulan jasotako txapelketetako irabazleen finaleko bertso guztiak aztertu ditut (xehetasun gehiagorako, ikus §7). Horretarako, bertso horien transkripzio musikal eta linguistikoak egin ditut, (nire) hautematean oinarrituta²⁶. Transkripzio musikal eta linguistikoak jasotzeko tresna nagusi gisa

25 Era berean, une puntualetan, bertsolari zein bertso-munduko hainbaten esanak edo nire bizipenak eta hautematea ere baliatu ditut, auziren bat hobeto ulertu edo kokatzeko argigarri izan daitezkeelakoan.

26 Euskal hiztun eta bertsozale gisa, nire hautemate eta intuizioak baliagarri dira bertsoen transkripzioak egin eta horiek aztertzeko. Hala ere, garrantzitsua litzateke etorkizuneko ikerketetan beste hiztun zein sortzaile batzuen hautemateak jaso eta testatzea, baita tresnabidezko analisi osoagoa egitea ere, lan honetan proposatutako analisisa kontrastatuz.

partiturak baliatu ditut, azterketarako gida gisa erabiliz. Gida gisa diot, bat-batean bertsolariek kantatutakoa notazio musikalaren bidez eta konpasaren erregularitasunean adieraztea ez delako guztiz zehatza. Hala, transkripzio musikalak bertsoetako hainbat alorren azterketa egin ahal izateko ikerlariaren tresna gisa ulertu behar dira²⁷, ez bertsolariek gauzatutako ekoizpena zehatz-mehatz islatzen duten irudi moduan. Transkripzio linguistiko-musikalen osagarri izan dira gertakari eta pasarte jakinetan *Praat* (Boersma eta Weenik 2021) programa informatiko bidezko azterketa akustikoak, hautemate bidez jasotakoak berretsiz edo ezeztatuz: gertakari segmentalen eta silabatzearen ulerkeran sakontzeko erabili dut batetik eta etenen neurketa sistematikoa egiteko bestetik, erritmo-eredu eta taldekatzearen azterketan osagarri.

Tesi honen helburu eta aztergaiei jarraiki, arreta berezia jarri dut transkripzioak eta azterketa akustikoak egitean ondoko arloetan:

- Bertsoen silabatzean eta silaba-egitura baldintzatzen duten gertakari segmentaletan: bertsolariek ahoskatutako silaben-egiturak, horiei lotutako bilakabide fonologiko segmentalak eta eskakizun metrikoak betetzeko baliabide fonikoak zein diren jaso dut transkripzio linguistikoaren bitartez. Analisi akustikoa gertakari segmentalak aztertzeko baliatu dut kasu zehatzetan, eginiko transkripzioen osagarri.
- Bertsoetako erritmo-ereduetan: joera nagusiak eta horien aldaerak identifikatu ditut transkripzio musikalen bidez. Gauzatze musikalak hizkuntzarekin dituen elkarreraginetan sakondu dut transkripzio linguistikoa musikalarekin batera aztertuta.
- Bertsoetan presente dauden unitate prosodikoetan: taldekatze arrastoak baliatuz (silabatze-joerak, erritmo ereduak zein hautemate bidez identifikatu eta ondoren *Praat* bidez neurtutako etenak, beste batzuen artean), transkripzio musikala eta linguistikoetan identifikatu ditut bertsoen erritmoa egituratzen duten unitate prosodikoak. Era berean, hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren arteko harremanak zer-nolakoak diren aztertu dut transkripzio musikala-linguistikoak baliatuta.

Gorago aipatutako alorrak kontuan hartuta, ondokoak izan dira bertsoen transkripzio musikala egiteko irizpide orokorrak, lanean zehar aipatutako adibideak ere uler daitezten:

- Partituretan jasotako tonalitateari eta musika-noten garaierari dagokionez, modu erlatiboan transkribatu ditut, partituran eroso irakurtzeko moduan. Ez dute, beraz, modu absolutuan

27 Rodríguez-Vázquezek (2010) herri kantuen transkribapenez azaltzen duen bezala: “In spite of all the alleged unfaithfulness of folk song transcription, it is important to bear in mind that the ultimate goal of transcribing popular music is to make it possible to the researcher to extract conclusions about its basic elements, namely, its melodic system, its intervals, rhythmic organisation and melodic structure” (Rodríguez-Vázquez 2010: 234).

islatzen bertsolariak kantatutako noten garaiera; bai, ordea, kantatutako doinuaren nondik norakoak.

- Bertsolarien ekoizpenaren oinarrian dagoen konpasa jasotzean, erreferentzia nagusitzat hartu ditut *beat* indartsuak eta oinarri bitarra, hirutarra edo konposatua den²⁸. Era berean, sortzaileek ekoiztutako erritmo-ereduak transkribatzeko, beltza eta kortxearen balio erritmikoak hartu ditut bertsoaldi erreferentzia nagusitzat, transkripzio erritmikoa ahal bezain erosoan irakurri ahal izateko. Aldaera erritmiko nagusiak jaso ditut partituretan, baina zalantzazko aldaera sotilen kasuan eredu nagusiaren alde egin dut (ikus §9 xehetasun gehiagorako).
- Etenak isilune gisa (∫ ikur hau erabiliz gehienetan) jaso ditut partituretan konpasaren metrikak ahalbidetzen duen heinean. Edonola ere, musikan maiz arnasketa adierazteko baliatu ohi den zeinuaz (√) adierazi ditut bertsolariak gauzatutako eten guztiak (partituran isilune gisa adierazita daudenen kasuan isilunearen gainean kokatuz etena adierazteko √ zeinua. Gainerakoetan, musika noten artean kokatu dut zeinua, bertsolariak gauzatutako tokian).

Ikus Andoni Egañak 1993ko txapelketan kantatutako ondoko adibidea, esaterako:

28 Pasarte irregularagoetan ere hori islatzen ahalegindu naiz, kasuan kasuan; ezohiko konpasak jasotzea ekarri du batzuetan.

3. irudia: AE-1993-GS-8H-4

0,631s / 0,433s

Gau - rre - gu - ne - an lo - ti - a naiz ni lo - ti - a nin - tzen txi - ki - tan _____

5 0,277s / 0,433s / 0,516s

ta E - us - ki - tze e - men dau - ka - gu be - re , er - ne - ga - tu pin - tan

9 0,435s / 0,41s

a - tzo re ze - gon , E - ga - ñak dau - kan pa - txa - da - re - nin - bi - ri - tan _____

13 0,305s / 0,429s

te - le - fo - no - tik , ez dei - tu ne - ri goi - ze - ko zaz - pi ter - di - tan _____

17 0,354s

te - le - fo - no - tik , ez dei - tu ne - ri goi - ze - ko zaz - pi ter - di - tan

Transkripzio linguistikoak lanean zehar jasotzeko irizpideak, berriz, ondokoak dira:

- Partituretan bertsolarien silabatzea jaso dut, musika-nota bakoitzaren azpian txertatuz garaiera eta balio erritmiko horrekin edo horiekin kantatutako silabak. Zeinu ortografikoak baliatu ditut silabak transkribatzeko, irakurketa errazteko asmoz²⁹.
- Adibideak testuan zehar aurkeztean ere zeinu ortografikoak baliatu ditut gehienetan, silabatuta jasoz bertsolariak ekoizitakoa. Beharrezko iritzi diedan kasuetan hotsen transkripzio fonemiko edo fonetikoak aurkeztu ditut: maila segmentaleko auziez aritzean, nagusiki.
- Espektrogramak aztertzean hotsen transkripzio fonikoa jaso dut azpian, transkripzio fonetiko erlatiboki laxoaren bidez gehienbat. Lan-tresna osagarri gisa ulertu behar dira lan honetan eta espektrogrametan islatutako hotsen identifikazio eta deskribapen xeheagoa egitea beharrezko litzateke aurrera begira. Bestalde, espektrogramen azterketa bidez jasotako etenen iraupenak transkripzio musikaletan jaso ditut, goiko 3. irudian ikus daitekeen bezala.

29 <j> grafemak bi fonema irudika ditzake lan honetan, euskararen ortografia estandarrean ohi bezala: igurzkarri belar ahoskabea /χ/ edo palatal ahostuna /j/.

Corpus azterketan bildutako datuen trataera kualitatiboa izan da nagusiki, lanaren helburuari jarraiki: bat-bateko bertsoen erritmo-antolakuntzaren oinarrietara lehen hurbilpen bat egitea fonologiatik, asmo azaltzailez. Edonola ere, kasuan-kasuan zenbakizko trataera ere baliatu dut joera orokorren berri emateko (silaba-egituren maiztasunekin, esaterako). Atal analitiko bakoitzean zehaztu dut ikerketa-galdera zehatzak zein diren eta jasotako datuen trataera zer-nolakoa izan den.

1.5. Tesiaren egitura

§1.3 atalean azaldutakoari jarraiki, tesiak elkarri lotutako bi zati nagusi ditu. Lehenengo, marko teoriko-interpretatiboa aurkezten da bost kapitulutan, modu orokorrean kokatuz ondoren sakonago aztertu diren auzi eta ezaugarriak. Horrela, txertatze prosodikoa (§2), hizkuntzaren erritmoa (§3), prosodiaren askotariko egitekoak (§4), testu-uztartzea (§5) eta bertsolaritza (§6) izan ditut hizpide. Ideia teoriko nagusiak zein diren azalduta, aztertutako corpusaren kokapena (§7) egin dut, tesiko bigarren zatiarekiko zubi gisa.

Idea teoriko nagusiak eta corpusaren ezaugarri orokorrak finkatuta, corpus azterketa aurkezten dute ondoren datozen hiru kapitulu analitikoek: bertsoetako silabatzeari lotutako auziak landu ditut lehenik (§8), eredu erritmikoak eta horien aldakortasuna segidan, (§9) eta bertsoen taldekatzea, azkenik (§10). Egitura bera dute hirurek: lehenengo, dagokion arloko lanketa teorikoan sakontzen dute eta, ondoren, corpus azterketaren nondik norakoak azaldu eta eginiko analisisia aurkezten da.

Bukatzeko, lanaren ondorio orokorrak jaso ditut etorkizunean emankorrak izan daitezkeen zenbait iker-ildo posiblerekin batera (§11). Lanean zehar baliatutako erreferentziek, termino garrantzitsuenak biltzen dituen euskara-ingelesa terminologia hiztegiak eta corpus azterketari buruzko xehetasunak jasotzen dituzten eranskinek ixten dute ikerketa: silabatzea eta hari lotutako gertakari segmentalak eta baliabide metrikoak, txapelketaz txapelketa (I. Eranskina) eta bertsolariek gauzatutako erritmo-ereduen aldaerak (II. Eranskina).

2. Txertatze prosodikoa

2.1. Sarrera

Ondo nago. Ondo nago? Ondo nago! /ondo nago/ segmentu katea ahoskatzeko modu asko egon daitezke. Hautatzen dugun intonazio-ereduaren arabera, besteak beste, baieztapena, galdera edo adierazpen enfatikoa izan daiteke³⁰. Kantuan ere esan genezake. Jende askoren aurrean ari bagara, hots eta silaba guztiak motel eta argi ahoskatuko ditugu beharbada, edo kontrara, urduritasunaren eraginez, azkar amaitu nahi dugulako edo denbora gutxi geratzen zaigulako, ziztu bizian ekoitziko dugu hots katea. Nekatuta edo mozkor bagaude ere aldatuko da seguruena perpaus hori hotsez gauzatzeko modua. Hitz egiten dugun hizkeraren eta hizkuntzaren arabera ere aldatuko da gauzatzea ziur aski.

Txertatze prosodikoa hizkuntzaren osagai linguistikoak (gramatika eta hiztegia, alegia) erritmo- eta doinu-ereduekin uztartzea dela esan liteke, *hitzak musikan txertatzea* (Donegan eta Stampe 1978: 30). Denbora errealean gertatzen den hizketa prozesamenduko eragiketa da (Donegan eta Stampe 1979: 142), eta silabatzearen bitartez gauzatzen da oinarrian. Euskarazko bat-bateko bertso-gintza ulertzeko kontzeptu baliagarria dela deritzot, bertsoetan hizkuntza aurrez zehaztutako doinu batean txertatzen baita, eredu metriko baten arabera (ere) antolaturik.

30 Intonazio-ereduarekin batera kontuan hartu behar dira silaben arteko indar edo intentsitate-harreman erlatiboak, eginiko luzatzeak, etab.

2.2. Bilakabide prosodikoak

Sarreran (§1.4.1.1) aurkeztu dudanez, hizkuntza eredu prosodikoetan txertatzea *bilakabide prosodikoen* bitartez gauzatzen dela ulertzen dut lan honetan, FNren proposamenari jarriki (Donegan eta Stampe 1979: 142). Hizkuntza, ahoskatzean, hein batean finkaturik dauden intonazio- eta erritmo-ereduekin uztartzen da, eta hainbat alderdi prosodiko zehazten dira horrela (silabikotasuna, azentua edo taldekatzea, kasu), horiek ez badaude alde aurretik gramatikak baldintzatuta.

Aipagarria da Donegan eta Stamperen (1979) proposamenetik abiatuta Hurchek (1994, 1996) eginiko garapena bilakabide prosodikoen teorizazioan. Bere esanetan, bilakabide prosodikoen egitekoa da hizkuntza —bokal eta kontsonante kateak— txertatzeko eredu prosodikoak egituratu eta hizketa zatikatzea (Hurch 1996: 88). Donegan eta Stampek fonologia segmentalerako aurkeztu bezala (hizketaren alderdi segmentalaz, ikus §2.4.1), maila paradigmaticoa eta sintagmaticoa bereizten ditu Hurchek prosodia ulertzeko ere. Hizkuntza baten paradigma fonologikoa litzateke hiztun batek, hizkuntza jakin hori gogoan hartu eta hizketa bilakatu ahal izateko, buruan dituen hots unitate, hots-bilkura aukerak eta eredu prosodikoak. Hala, *bilakabide paradigmaticoak* izango dira hizkuntza jakin bateko hots unitateak eta eredu prosodiko orokorrak zehazten dituzten aukerak (Oñederra 2004: 126-127). Hizkuntzaren alderdi sintagmaticoa, berriz, paradigma jakin batetik abiatuta, hizkuntza ahoskatzean, hizketa bilakatzeko, gauzatzen diren gertakariak eta ezaugarriak osatzen dute. Hizketa bere testuinguruan, hotsak hots-katean, prosodikoki antolatuz, etab. gauzatzeko modua da maila sintagmaticoa. *Bilakabide sintagmaticoak* inguruneak, bere alor anitzetan, hizketa-unitateei eragiten dizkien aukerak zehaztuko dituzte, beraz.

Bi plano horien bereizkuntzaren bitartez hizketaren prosodiaren konplexutasuna geratzen da agerian, gertakari prosodikoen jatorriak bat baino gehiago izan daitezkeela mahai-gaineratuz. Prosodia gramatikaren askotariko alderdiek —morfologiak, esate baterako— beren funtzioak adierazteko ere balia dezaketela gehitzen du Hurchek, eredu eta joera prosodiko orokorrei aurka eginez sarri³¹:

[...] in analogy to segmental phonology we postulate a paradigmatic prosody which sketches language specific prosodic preferences following mainly context-free prosodic processes. Moreover, all parts of grammar may exploit the resources prosody offers for the expression of grammatical meaning and form. The functionality of this latter use of, e.g., accent is best when in overt contradiction to (i.e., a negation of) the paradigmatic tendencies, e.g., when we can find final stress in a language which is otherwise penult. But as all accentuations result in naturally perceivable and pronounceable patterns, those instances of grammaticalized accent which are in a conflicting relation to paradigmatic processes are also syntagmatically natural. The interaction with syntag-

31 Hurchen (1994, 1996) planteamenduak aurka egiten die iker-molde sortzailearen baitan eredu-erritmikoak ulertzeko ikusmolde zenbaiti (ikus §3.3).

matic prosodic processes may still alter them, but not necessarily. The same as other prosodic or segmental processes following accentuation in the derivation may still contribute to opacity and, eventually, may lead to the reapplication of accent processes.

(Hurch 1994: 210)

Eredu prosodikoaren egituratzean bilakabide prosodiko paradigmatico ingurunez landakoak bereizten ditu Hurchek, batetik. Haien egitekoa inguruneak baldintzatu gabeko hizkuntza baten baitako hobespen prosodiko nagusiak zehaztea izango da. Esate baterako, bada ere erritmikoak egituratzean hobespen bat eredu prosodikoak *trokaiko* [óo] egitearen aldekoa (hobespen erritmikoez, ikus §9.2.1.2). Joera hori gaztelaniaz gauzatzen diren azentu-eredu orokorretan islatzen da, esate baterako. Hizkuntza horretan ohikoa da hitzetan azentu nagusia azken aurreko silaban kokatzea³²: *allegre, marcha, canto, mediante*, etab. Euskal hizkeren artean, Zuberoa ingurukoa litzateke joera trokaikoa agertzen duenetako bat.

Joera paradigmatico ingurunez landakoez gain, Hurchek ulertzen du osagai gramatikalek prosodia balia dezaketela forma eta esanahi gramatikalak adierazteko, eta egiteko horiek hobeto beteko dira —hautemangarriagoak izango direlako— hizkuntza horretan indarrean dauden joera paradigmaticoen ezeztapena badira; joera prosodiko orokorrei aurka egiten badie, gaztelaniaz *canto* eta *cantó* aurrez-aurre jarrita ikus daitekeen bezala, esaterako.

Azkenik, aiparekin jarraituz, kontuan hartu beharrekoa da ekoizten den eredu prosodiko oro —hatsarre prosodikoaren arabera egituratua zein gramatikak gobernatua izan— maila sintagmatikoan erritmikotzat eta ontzat jotzen dugula hiztunok. Izan ere, aipaturiko eredu prosodikook bilakabide prosodiko sintagmatikoen galbahetik igarotzen dira. Horrek aldaketak ekar ditzake eredu-erritmi-koetan, baina ez derrigor. Horrez gain, kontuan hartu beharrekoa da maila sintagmatikoan bestelako baldintza prosodikoaren zein bilakabide segmentalen eragina jasango duela hizketak, eredu prosodikoetan opakotasuna eraginez edo bilakabide prosodikoak berriro gertaraziz³³.

Azentu-eredu orokorrak, beraz, hitz jakinen azentuatzea baino lehenago badirela ulertzen da. Eredu horiek gorago aipaturiko ingurunez landako (*context-free*) eta eremuz landako (*domain-free*)

32 Tiletaren erabilera arauak lehenetsun hori islatzen dute gaztelaniaz, hain zuzen ere.

33 Bilakabide prosodikoaren artean eremudun eta eremuz landako zein ingurunedun eta ingurunez landako bilakabideak bereizten ditu Hurchek. Bilakabide orokorrenak inolako baldintza prosodiko eta fonologikorik gabe eredu-erritmikoak sortzen dituzten horiek dira; eremuz landako (*domain-free*) eta ingurunez landako (*context-free*) bilakabide prosodikoak, hain zuzen ere: “The role of prosodic processes is to compose and decompose patterns. They may relate to different levels of an overall pattern. They have to be divided into domain-dependent and domain-free processes and within both groups there are context-dependent and context-free variants. The most general processes are those which create rhythmic patterns without reference to specific prosodic or phonological restrictions, i.e., the domain-free and context free processes” (Hurch 1996: 88).

bilakabide prosodiko paradigmaticoen emaitza dira. Bilakabide horiek, haien arteko elkarreraginak, gauzatzeak edo ez gauzatzeak elkarren artean desberdinak diren eredu-erritmikoak sortzen dituzte, hizkuntzen artean zein hizkeren artean aurki ditzakegun eredu orokorren arteko desberdintasun batzuk azaltzea ahalbidetuz. Joera prosodiko gisa aurkezten ditu Hurchek (1994, 1996) ondorengo hobespenak. Bere esanetan, behean aurkezten diren puntuetako bakoitzak bilakabide prosodiko bat edo gehiago biltzen ditu bere baitan, eta denek betetzen dute eredu-erritmikoak eraiki eta hizkuntza egituratzeko egitekoa (Hurch 1994: 216)³⁴:

- Egitura bitarrak nahiago dira hirutarrak baino; hirutarrak lauhoak baino nahiago, etab.
- Beheranzko egiturak [óó] nahiago dira goranzkoak [oó] baino.
- Azentuatze bereizkuntza sinpleagoa nahiago da (azentudun-azentugabe kontrastea, kasu) bereizkuntza konplexuagoak baino (azentu nagusi-azentu bigarrenkari-azentugabe, esate baterako; eta konplexuagoen baitan ere, bereizkuntza hirutarra —sinpleagoa— nahiago da bereizkuntza konplexuagoak baino).
- Azentua eredu prosodikoen ertz edo bazterretan nahiago da (*peripherality*).
- Silaba batek luzera (kantitatea) edo tonu jakina badu (tonu hizkuntzen kasuan), errazago izango du azentua, eta alderantziz: azentuduna izanez gero, luzeago edo tonudun izango da (tonu hizkuntzen kasuan) errazago.

§9.2.1.2 atalean sakondu dut azentu-eredu orokorren eta hobespenetako bakoitzaren azalpean. Ideia nagusi gisa esango dut, Hurchen arabera, hautemateari dagokionean nahiago diren askotariko neurrietako eredu-erritmiko posibleak aipaturiko hobespen horiek mugatzen dituztela. Era berean, hizkuntzen artean maiztasun handiagoz aurkitu ohi diren zenbait joera erritmiko azaltzeko aukera ematen dute; eredu prosodikoetan azken aurreko silaba gauzatzea azentudun (azken silabarekiko aurrez aurre), esate baterako. Ez du horrek esan nahi, halere, hobespen horietatik kanpoko azentu-eredurik gauzatzen ez denik.

Askotariko neurrietako erritmo-ereduak daude, eta hizkuntza bakoitzak hitzen luzeraren, hobespen tipologiko eta morfologikoen nahiz bestelako murriztapen lexikoen arabera hautatuko ditu bere sisteman indarrean egongo diren bilakabide eta azentu-ereduak. Hala, hitz jakinak eredu prosodiko zehatzekin uztartzean, ekoitzi nahi den hitz edo hitz multzoaren arabera eredu prosodikoa hautatuko da, hizkuntza bakoitzean indarrean dauden murriztapenak jarraituz. Murriztapen horiek prosodikoak soilik izan daitezke. Txekiera bezalako hizkuntza batean, adibidez, hitz hasierako silaba gauzatu ohi da azentu nagusidun. Prosodikoak soilik ez badira, azentu-ereduaren hautuak zehaz-

³⁴ Jarraian aurkeztutako hobespenak Hurch (1994, 1996) lanetatik laburtuta daude. Ikus §9.2.1.2 hobespenen garapen zabalagorako.

tapen morfologiko, lexiko edota idiosinkratikoak ere jarrai ditzake, italiararena bezalako azentuera-sistema baten kasuan bezala (Hurch 1994: 217). Ondoko aipuak ederki azaltzen du maila sintagmatikoan gauzatzen den txertatze prosodikoa:

The syntagmatic process of accentuation is essentially just the mapping of accent units [hitzak edo hitz taldeak, uler liteke] onto the language specific patterns established paradigmatically. This mapping may be governed by different strategies. In a language with fixed primary accent, the mapping follows only prosodic principles which again are reflections of the (context-free and context-sensitive) preferences. [...] Thus, in Czech a trisyllabic is necessarily mapped onto [óoo], a pentasyllabic onto [óooòò], a hexasyllabic onto [óòòòòò], etc. In systems like that of Latin, interaction with quantity defines patterns available for the mapping of a given word. A word like Lat. *natura* ‘birth, essence’ is mapped onto [oóo] by quantity preference. In systems with free accent, lexical, morphological, and syntagmatic prosodic factors govern the mapping processes.

(Hurch 1996: 88)

Orain arte bilakabide prosodikoez esandakoa uztartuz eta laburbilduz, esan genezake bilakabide prosodiko paradigmaticoen egitekoa hizkuntza jakin bateko eredu prosodiko nagusiak egitura-tzea dela. Eredu prosodiko horiek Donegan eta Stampek (1979) euren bilakabide prosodikoen definizioan *oinarrizko erritmo- eta intonazio-eredu* deiturikoak direla uler genezake; hitz, sintagma eta perpausak txertatzen diren egitura prosodikoak. Hizkuntza batean indarrean dauden bilakabide prosodiko paradigmaticoak zehazturik, horien ondorioz egituraturiko eredu prosodiko horiekin uztartzen dira hitzak eta hitz multzoak, txertatze prosodikoa gauzatuz. Txertatze prosodikoaz arduratuko liriteke Hurchek (1994, 1996) bilakabide prosodiko sintagmatiko deiturikoak. Horiek Donegan eta Stamperen *bilakabide prosodikoen* jatorrizko definizioarekin pareka genitzake. Hala, maila sintagmatikoan eredu prosodikoetan txertatzea hizkuntza bilakabide prosodiko sintagmatikoei gobernatzeko dute, hizkuntza edo hizkera jakin horretan ez badago bestelako “esku-hartze” edo eskakizun lexiko edo gramatikalik, gramatikaren alderdiren batek prosodia baliatuz egiteko gramatikaletarako. Maila sintagmatikoan gertatuko da hizketaren alderdi prosodiko eta segmentalaren elkarreragina. Horrek silabatzeaz aritzera narama.

2.3. Silabatzea

Txertatze prosodikoan hizkuntza —segmentu katea— *eredu musikalekin* —prosodikoekin— uztartzen denean, silaben bitartez gauzatzen da. Silabak josten ditu hizkuntzako hotsak eta unitate musikalak (prosodikoak). Lan honetan ulertzen dut silaba oinarrizko unitate prosodikoa dela hizketaren erritmoan eta, segmentuak denboran antolatuz, hizketaren alderdi segmental eta prosodikoaren

arteko zubi-lana egiten duen osagaia dela (Donegan eta Stampe 1978; Donegan 1993a; Hurch 2006a). Segmentuak antolatzen ditu bere baitan eta, era berean, azentu-ereduen baitan antolatzen da (ikus Hurch 2006a, besteak beste). Aurrerago unitate prosodiko gisa §8.2.1 eta §10.2.1.1.1 atalak eskainiko dizkiodan arren, euskarazko bat-bateko bertsoetan duen garrantzia dela eta, atal berezia eskaini nahi izan diot txertatze prosodikoaren atal honen baitan *silabatzeari*, silabak —edo, hobe esanda, segmentuak— denboran zehar —silabatan— antolatzeari, alegia.

Donegan eta Stampek (1978) zehazten dute silabatzea, silaba, ez dagoela hitzen sakoneko aurkezpenean, memorian, zehazturik. Silaba *hizketaren eratorpenean* —hizkuntzaren sakoneko edo oinarrizko aurkezpena errealitate fisiko, azaleko, egiteko bidean— zehazten dela argudiatzen dute, silaba, hots-katearen silabatzea, txertatze prosodikoan sortzen eta antolatzen dela. Esanikoa azaltzeko ingelesezko *freedom* hitzaren silabatze posibleak hartzen dituzte abiapuntu:

We say this is a two-syllable word, [ˈfrɪr.ə̃m], but in fact it can be spoken, given some lenitive processing, as one syllable, [ˈfr̩̃ə̃m]; or with fortitive processing, as three [fr̩ˈrɪr.ə̃m]. It can be put into Pig Latin as [ˈɪr.ə̃m .frɛɪ] or into Idig as [ˈfrɪr.ə̃.gɪ.dɪr.ə̃.gə̃m]. It can be sung to the tune of “Yankee Doodle Came to Town” as [ˈfri.i .i.iˈi.i.də̃m]. What does all this mean? Obviously, no *particular* syllabication is in the segmental representation of the word. Nor is any in (for example) the tune of Yankee Doodle. The tune gives us a certain number of syllables (notes) with a certain accent pattern, but not the segments of the word *freedom* or even, given that word, precisely the syllabication above. We *could* sing [ˈfr̩ˌr̩ˌr̩ˌ ˈi.i.də̃m], or even [ˈf̩ˌr̩ˌr̩ˌ ˈi.i.də̃m]. What is syllabication, then? Clearly, it is the mapping of a segmental representation onto a prosodic pattern.

(Donegan eta Stampe 1978: 29)

Beraz, aipuan azaldu bezala, *freedom* hitza harturik, lehen kolpean esango dugu bi silaba dituen hitza dela: [ˈfrɪr.ə̃m]. Baina silababakar [ˈfr̩̃ə̃m] edo hiru silabako hitz gisa [fr̩ˈrɪr.ə̃m] ere ahoska daiteke, hiztunaren eta haren testuinguruko baldintzen zein asmoen arabera. Horrez gain, hizkuntza jokoetan bestelako silabatzeak hartuko ditu hitzak, eta kantu-doinu ezagun batean txertatzen badugu, aukera bat baino gehiago izango dugu aipaturiko hitza musikak eskaintzen dizkigun musika-notetan —eredu prosodikoetan— silabatzeko. Euskarazko bat-bateko bertsogintza ezagutzen dugunontzat ez da bereziki arraroa egingo ideia hau: hitzen silabatzea “komeni den gisan” baliatzen dute bertsolariek (Altuna 1979:1224) neurriak eskatzen duen silaba-kopurura egokitzeko esan nahi dena. Hala, *ihesa* hitzaren [i.e.śa] eta [je.śa] silabatzeak aurkituko ditugu bertso berean, esate baterako (ML-2017-BB-ge-3). §8 kapituluan sakondu dut bertsolarien silabatze-aukeretan.

Edonola ere, badaude hots-kateak (hitzak) silabatzeko joerak. Silaba egituratzen duten hainbat hatsarre daude (ozentasun eskala, adibidez; ikus §8.2.1), eta horien arabera silabatuko da hots katea

txertatze prosodikoan, bestelako eragileek —azentuak edo bilakabide segmentalek, nagusiki— baldintzatzen ez duten heinean. Ikuspuntu tipologikotik, hizkuntza batzuetan silaba egituratzen duten hatsarreek indar handiagoa dute —euskaraz edo japonieraz, adibidez—, eta hitzen —segmentu katearen— silabatze ohikoa asmatzea errazagoa izango da hizkuntza horretako baldintza eta gertakari prosodiko zein segmentalak kontuan hartuta (Jauregi 2008: 342). Hizkuntza horietan —silaba-aldiko edo mora-aldiko hizkuntzetan, hain zuzen ere— nagusi(ago) izango dira joera fonologiko indartzaileak silaba egituratzean; disimilazioak, polarizazioak. Joera hori duten hizkuntzekiko kontrastean, azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzak daude —ingeleza litzateke hizkuntza horietako bat—, eta horien kasuan silabatzea aurreikustea zailagoa da, nagusi(ago) izango baitira —azentua- ren eraginez— gertakari fonologiko ahultzaileak; asimilazioak, kenketak. Horregatik da silabatzea aurreikustea zailago (Hurch 2008). §3.4.3 atalean sakondu dut hizkuntzen arteko alde tipologikoetan eta horien oinarri zein ondorio fonologikoetan.

Silabatzeari loturik bi eragile garrantzitsu aipatu behar dira silaba antolatzen duten hatsarreez gain, gorago aurreratu bezala: azentua eta hizketaren alderdi segmentala. Ez dugu ahaztu behar silabak azentu-ereduetan antolatzen direla denboran zehar, eta azentuak, kanpo-nabarmentasun (ing. *external prominence*) gisa³⁵ (Donegan eta Stampe 1978), eragina duela silabetan eta horietan antolatzen dauden segmentuetan. Era berean, gertakari segmentalek, silabatzearen menpe egoteaz gain, eragina izan dezakete hitzen silabatzean (Stampe 1979), hurrengo §2.4 atalean azalduko dudana bezala.

Txertatze prosodikoan hitzak —segmentu katea— eredu prosodikoarekin uztartzeko modua esanguratsua da hizkuntza baten antolakuntza fonologikoa ulertzeko. Bertan, funtsezko osagaia izango da silabatzea, baita silabek gainerako osagai prosodiko zein segmentalekin duten harremana ere.

2.4. Prosodiaren eta hizketaren alderdi segmentalaren arteko harremana

Hizketaren alderdi segmental eta prosodikoaren arteko lotura aipatu dut gorago (§2.3). Prosodia fonologiaren parte da, hizkuntzaren hotsezko alderdiaren parte, alderdi segmentala den bezainbeste; gertakari beraren beste alderdi bati erreparatzen dio (Hurch 2006a: 542). Horregatik, ezin da ahaztu bi alderdien arteko elkarreragina. Silaba eta silabatzea aipatu ditut hizkuntzaren alderdi prosodikoaren eta segmentalaren arteko zubi gisa. Zubi horrez gain, bada lan honetan hartzen dudana

³⁵ Azentua den *kanpo nabarmentasun*arekiko (*external prominence*) aurrez aurre legoke silaba egituratzen duten hatsarreei dagokien *barne nabarmentasuna* (*internal prominence*) (Donegan eta Stampe 1978).

ikusmoldean prosodia eta hizkuntzaren hotsen arteko harremanean aipatu beharreko beste lotura bat. Prosodia, unitate prosodikoak —*grosso modo*, silabak, oinak, hitz prosodikoak eta esaldi fonologikoak (ikus §3.3 edo §10.2.1.1)—, gertakari segmentalen eremu dira, bilakabide segmentalen gerta(g)une.

Bilakabide segmentalak, hurrengo §2.4.1 azpi-atalean definituko ditudanak, *eremu prosodikoetan* (ing. *prosodic domain*) gertatzen dira: “processes [bilakabide segmentalak] can be stated entirely in terms of configurations of phonetic features and real-time rhythmic domains (e.g. syllables, feet, phonological words and phrases), and their natural subdivisions (beginning, rise, peak, fall, end)” (Donegan eta Stampe 2009: 7). Har dezagun segmentu sudurkarien aurreko ozenen sudurkari-tzea ingelesez, esate baterako. Ingelesa H1 duten hiztunek sudurkari aurreko hots ozenak sudurkari-tzen dituzte, gutxienez silabaren *errima* deritzon —silaba-gune edo nukleotik bukaerara—: [sɒŋ] *song* ‘kanta’ edo [brænd] *brand* ‘marka’, adibidez. Hizketa molde arduragabeagoetan, sudurkaritza gauzatzen den eremu prosodikoa zabaldu egin daiteke hots ozenetan zehar, batzuetan silaba osora [brænd], oinaren eremura [ɔˈraɪ̯ə̃n] *Orion* edo hitz osora: [ɔˈraɪ̯ə̃n] (Donegan eta Stampe 2009: 2-3).

Era berean, ezaugarri edo baldintza prosodiko zenbait —azentua eta hizketa *tempo* edo lastertasuna, horien artean— gertakari segmentalen baldintzatzaile izango dira. Hala, silaba jakin bat azentuduna bada, silaba hori osatzen duten segmentuek, baita inguruko silabe(takoe)k ere, aldaketak jasango dituzte beharbada: Oiartzungo hiztunek, esate baterako, *etórri* → *tórri* gauzatuko dute sarri, silaba azentudunaren aurreko silaba azentugabearen —eta, beraz, berau osatzen duen segmentuaren— kenketa gauzatuz (aferesia). Era berean, segmentu kate jakin bat, /es sait iruditsen/, kasu, desberdin ahoskatuko da ziurrenik *tempo* lasterrean eta hizketa informal edo “arduragabea” ([e.tsi.ti.rwi.tsen]³⁶ Oiartzunen edo [e.śaj.ti.ru.di.tśen] Gasteizen, adibidez) edo *tempo* motelean eta hizketa zainduagoan ([es.sajt.i.ru.di.tsen] edo [eś.śajt.i.ru.di.tśen]³⁷).

Alderdi tipologikoak ere badu eraginik prosodia eta hizkuntzaren alderdi segmentalaren arteko harremanean. Hizkuntzako hotsak *oinarri erritmikoarekin* lotzeko moduaren arabera ezaugarri eta antolakuntza modu batzuk edo beste batzuk nagusituko dira hizkuntza eta hizkeretan (ikus §3.4). Denboran zeharreko hots-aldaketak azaltzeko ezinbesteko osagai izango da lotura hori askotan. *Lu-*

36 Oiartzungo hizkeran gaur egun beharbada ohikoagoa da ‘ez nau iruditzen’ [e.na.wi.rwi.tsen] adieraztea ‘ez zait iruditzen’ baino, datiboaren lekualdatzea gauzatuz. Edonola ere, belaunaldi zaharragoek ahoskatzen zuten testu nagusian jasotako forma (Patxi Aizpurua, komunikazio pertsonala), eta horregatik jaso dut hemen, alderaketarako egokiago iritzita.

37 Adibidean islaturiko aukerak euskaraz gauza daitezkeen askotariko aukeren artean batzuk dira, noski. Nahita kokatu ditut “muturrekoen” izan daitezkeen ekoizpenak azalpenaren mesedetan, tarteko gauzatze ugari egon daitezkeela jakin arren.

zeraren gaiari helduta adibide gisa, esan behar da sarri gertakari segmentaltzat (soilik) hartu izan dela: hots unitate jakinak hartzen zirela luze edo laburtzat. Donegan eta Stampek (1978: 33-34) azaltzen dutenez, ingeles zaharrean gauzaturiko *mægden* → *māden* ing. ‘maiden’ (‘dontzeila, dama’) gisako bokal luzatzeak asimilazio bidezko segmentu luzatzetzat (*as a segmental reflex of assimilation*) hartu izan dira: [æɡ] → [ææ] = [æ:]. Azalpen hau ez da, ordea, beti baliagarri suertatzen, kasu batzuetan galdutako segmentua eta luzatutakoa ez baitaude elkarren ondoan. Kasu horietako bat da ingeles zaharreko *holhes* → *hōles* ‘hole’s’ (‘zuloarena’) txandakatzea. Aipaturiko egileen arabera, gertakariaren analisi egokia silaben bidez egin daiteke. Hitzaren silabatzea *holh.es* dela ulertuz gero, lehen silabak iraupen luzea izango luke, balio erritmiko luzea. Hala, silaba luze horren baitako *h* kentzen denean, silaba osatzen duten gainerako segmentuak luzatu egiten dira —bereziki bokala, errazen luzatzen dena baita—, silabak aurretik zuen balio erritmiko luze hori mantenduz.

Silabek eredu erritmikoarekin duten harremanaren arabera eta hizkuntzaren antolakuntzan silabek eta azentuek duten lekuaren arabera, besteak beste, molde batekoak edo bestekoak izango dira gertakari segmentalak ere (ikus §3.4).

2.4.1. Bilakabide fonologiko segmentalak

§1.4.1.1 atalean azaldu dut hizketan sarri esan nahi den eta ulertzen den hori ez datorrela guztiz bat fisikoki ekoizten den horrekin edo, hobe esanda, artikulatorki eta akustikoki ekoizten den hori deskodetu egiten dugula hizkuntza baten baitan barneratutako sistema fonologikoaren arabera. Gorago ingelesez gauzatzen den (segmentu) sudurkari aurreko ozenen sudurkaritzeaz aritu naiz ([brænd] *brand* gisakoez). Ingeles hiztunek ez dituzte intentzioetan sudurkaritzat ekoitzi (nahi) edo hautematen gerora fisikoki asimilazioz sudurkaritutako hots horiek. [brænd] hitzeko bokala zein den galdetuz gero, [æ] (bokal ahokaria) dela erantzungo dute, ez [ã] (bokal sudurkaria). Sudurkaritasuna [n] hotsari loturik entzuten dute eta sudurkaritutako bokalak ez dituzte sudurkaritzat hautematen ingelesez hiztunek. Hori agerian geratzen da, era berean, hiztun horiek hindi hizkuntza edo frantsesa ikasten dutenean, esate baterako. Hindiz zein frantsesez bokal sudurkari batzuk fonemak dira, hizkuntzako hots unitateak, “asmo, oharmen eta memoria unitatea[k]” (Oñederra 2004: 80), eta hizkuntza horietako hiztunek —haurtzaroan zein hiztun berri gisa— *ikasi* egin behar dute bokal ahokari eta sudurkariak bereizten, ekoizpen intentzio zein hautemate asmo gisa; fonema gisa, alegia (Donegan eta Stampe 2009: 3). Gauza bera gertatzen zaigu Hego Euskal Herriko euskaradun eta gaztelaniadunoi, helduaroan frantsesa edo india ikasten hasiz gero.

Aipaturikoa bezalako gertakariak *bilakabide fonologikoen* (ing. *phonological processes*) bitartez azaltzen dira lan honetan jarraitzen dudana FNren iker-moldean:

A phonological process is a mental operation that applies in speech to substitute, for a class of sounds or sound sequences presenting a specific common difficulty to the speech capacity of the individual, an alternative class identical but lacking the difficult property.

(Stampe 1979 [1973]: 1)

Hartara, bilakabide fonologikoa oinarri fonetikoaren duen ordezkatzeko mentala da³⁸. Hots mota edo hots-kate batek norbanakoaren hizketa gaitasunerako —ekoizpen zein oharmenerako— izan dezakeen zailtasun bat ezaugarri zail hori gabeko hots klase alternatibo —gainerakoan berdina— batengatik ordezkatzeko du. Zailtasun hori askotarikoa izan daiteke, ondoko aipuan irakur daitekeenez:

Whether the unpronounceability is due to the intrinsic difficulty of the intended utterance, or its tempo, or its novelty (as in foreign words, or the results or tongue-slips or Pig-Latins), or whether it is due to the speaker's condition (fatigue, nervousness, or the dentist's hands in his mouth), the phonology instantly puts the appropriate substitute at the “lip of one's tongue”.

(Donegan 1993b: 125)

Zailtasun jakin horren aurrean hiztunaren fonologiak txandakatzeko edo ordezkatzeko bat gauzatzen du zailtasun hori agertzen duen hotsean edo hots katean. Esate baterako, bada bilakabide bat bokalak ahokari *bilakatzen* dituen (*bokal* → *ahokari*), bokalen artean ahokariak baitira oharmenarentzat argiago eta ekoizpenerako —artikulaziorako— errazago. Bilakabide hori indarrean da euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez —beste askoren artean—. Hala, hizkuntza horietan bokalak ahokariak izango dira paradigmaren, hizkuntzaren hotsen memorian; fonema bokalikoak ahokariak izango dira. Ez, ordea, hindiz edo frantsesez —besteak beste—. Azken hizkuntza horien kasuan, *bokal* → *ahokari* bilakabidea *gainditurik* dago. Hiztunek *desikasi* egin behar izan dute joera hori ikasten ari ziren hizkuntzako hots unitatez “behar bezala” jabetu ahal izateko.

Bokalak ahokari egiten dituen bilakabidearen ondoan, ordea, bada —ingurune egokian— bokalak sudurkaritzen dituen beste bilakabide bat. Izan ere, hots katea ahoskatzea artikulatorki errazagoa izango da tasun bat —sudurkaritasuna, kasu honetan— partekatzen badute hotsek. Horregatik ekoizten dituzte ingeles hiztunek hots katean ozen sudurkarituak kontsonante sudurkariaren aurretik ([ɔ'raĩ̃.əñ] *Orion*), gero sudurkaritutako hots horiek fonema gisa sudurkaritzat hauteman ez arren. Bilakabide “hautemanezin” horiei *alofoniko* deitzen zaie. Bestalde,

38 Oinarri fonetiko hori hizkuntzaren errealitate fisikoan, alderdi artikulatorio-akustikoan, dagoela ulertzen da: “Although phonological substitution is a mental operation, it is clearly motivated by the physical character of speech —its neurophysiological, morphological, mechanical, temporal, and acoustic properties” (Stampe 1979: 6).

bilakabidearen emaitza hizkuntzan fonema gisa gordetzen den gauzatzearekin berdintzen baldin bada, bilakabide *fonemikoa* izango da (neutralizazio bat).

Bilakabideek “gure asmo fonologikoak gure ahalbide fonetikoetara egokitzen dituzte” (Oñederra 2004: 114) eta, era berean, besteren ekoizpenean dagoen asmoa zein den ulertzea ahalbidetzen digute (Donegan eta Stampe 1979). Ikus daitekeenez, sarri aurkituko ditugu elkarren aurkako diren bilakabideak: *bokalak* → *ahokari* eta *bokalak* → *sudurkari* (ingurune sudurkarian), esate baterako. Biak hartzen dira bilakabidetzat, biek baitute motibazio edo oinarri fonetiko sinkronikoa —halakorik ez duten *erregela morfonologikoekiko* aurrez aurre (ikus §2.4.3)—. Ingeleseztan, esate baterako, paradigmaren (hizkuntzaren fonemetan) indarrean da bokalak ahokari egiten dituen bilakabidea. Maila sintagmatikoan, ordea, kontsonante sudurkari baten inguruan, bokalak sudurkari gauzatzen dituen bilakabidea jarriko da martxan.

Bilakabideek oharmen edo ekoizpen zailtasun bati egiten diote aurre, gorago azaldu dudanez. Baina zailtasun bati aurre egiteko modu bat baino gehiago egon daiteke (ikus Stampe 1979), eta hori geratzen da agerian hizkuntzen artean —eta are hizkuntza baten baitan hizkera desberdinetan, egoera desberdinetan, ingurune desberdinetan, etab.— aurkitzen ditugun aldeak aztertzen ditugunean. Gorago aurkeztutako bokal sudurkari eta ahokariena izan daiteke adibide bat. Beste bat silaba amaierako txistukari ahoskabeak —/s/ edo /ś/— eta ondorengo silaba ekineko herskari ahostunak —besteren artean, /d/— osatzen duten kontsonante taldearen aurrean gauzatzen diren bilakabideena izan daiteke. Euskaraz eta gaztelaniaz aurkitzen ditugu halako taldeak, eusk. *ez dakit* edo gazt. *a las doce* gisako adierazpenetan. Kontua da euskaraz joera nagusia /s/ hotsak eragindako ingurune ahoskabearen ondoko herskaria ahoskabetzea izan dela, *eztakit* [estakit] gisakoak ekoiziz³⁹. Gaztelaniaz, berriz, aurkakoa gertatzen da testuinguru berean: /d/ herskari ahostunaren eraginez, /ś/ txistukaria ahostundu egiten da, *a la[ś] [ð]oce* ‘a las doce’. Azken hamarkadetan euskaraz bigarren joera ere gauzatzen da, *e[z] [ð]akit* ‘ez dakit’, euskara estandarren ortografiaren —grafia *ez dakit* izanda, hotsez hotseko ekoizpenari jarraiki—, maileguen eta, Hego Euskal Herrian behintzat, arrazoi soziolinguistikoak tarteko, gaztelaniaren eraginaren ondorioz (Hurch 1988a: 347; Oñederra 2004: 52-53).

Aipaturiko bilakabideak unibertsalak dira, gizakion ekoizpen-oharmenezko zailtasunak eta horiek gainditzeko hots-txandakatzeak irudikatzen dituzten heinean, baina hizkuntzetan ez daude bilakabide denak indarrean, edota modu eta neurri desberdinetan egon daitezke indarrean, goiko adibideetan agerian geratzen denez. Doneganek (1993b: 102) azaltzen duenez,

39 Euskaraz hitz barrenean ere aurki dezakegu bilakabide hori, zail baita txistukari+trabari ahostun taldea aurkitzea: *hizpide*, *hauskor*, etab. Hala ere, bilakabidea ahultzen ari da hitz barrenean ere: *desberdin*, *ezgauza*, *desbideratu*, etab. (ikus Oñederra 2004: 53).

What the speaker learns, in learning the phonology of a particular language, is the required set of abilities to perceive and pronounce. That is, in learning to perceive and pronounce the required segments and sequences, he acquires the abilities or 'keys' to turn off the processes which would eliminate these sounds or sequences. We can represent these learned abilities as inhibitions of phonological processes.

(Donegan 1993b: 102)

Hizkuntza bakoitzeko hiztunek bilakabide multzo bat *desikasi* egin behar izan(go) dute; zailtasun jakin bat gainditu eta ahoskatzen zein hautematen ikasi, hizkuntza horretako hotsak zein hots konbinaketak esan eta entzun ahal izateko. Hizkuntza —eta hiztun— bakoitzak bilakabide batzuk gainditu eta beste batzuk mantendu ohi ditu, beraz. Hiztun batengan indarrean diren bilakabide horiek modu inkontziente eta sistematikoan (“automatikoki”) azaleratu ohi dira hizketan, baita “mihia trabatzean”, hizkuntza-jolasetan edo hizkuntza berriak ikastean ere. Euskaratik abiatuta aipa genezake, adibidez, gaztelania hiztun ere bagarenok (baina ez frantses hiztun) ingelesa ikasten hastean *stop* hitza nola gauzatu ohi dugun *estop* [eštop], *e* epentetikoa txertatuz txistukariaren aurretik. Horrek euskaraz eta gaztelaniaz hitz hasieran indarrean d(it)ugun bilakabidea(k) uzten d(it)u agerian: *st-* gisako taldeak, frikari gehi kontsonante, ez dira hitz hasieran onartzen⁴⁰. Joera horiek gaindi daitezke, *desikas* daitezkeen joera edo bilakabideak dira, hots eta hots kate berriak ahoskatu eta entzuteko.

Hizketaren alderdi segmentalari dagokionez, bi bilakabide fonologiko mota bereizten dituzte Donegan eta Stampek (1979, 2009) bilakabideen egitekoari erreparatuta: bilakabide indartzaile edo *fortitio*ak eta bilakabide ahultzaile edo *lenitio*ak.

Batetik, bilakabide indartzaile edo *fortitio*ak ditugu, ekoitzi nahi ditugun hotsen edo hots kateek osatzen dituzten unitate prosodikoen arteko banaketak indartzen dituztenak, hautematearen mesedetan. Bilakabide indartzaileek hots unitate edo unitate prosodiko bakoitzaren izaera indartzen dute, ingurukoekiko kontraste handiagoan (Donegan eta Stampe 2009: 2). Disimilazioak (eusk. *luzea* [lusea] → *luzia* [lusia]), diptongatzeak (lat. *forte* [forte] → gazt. *fuerte* [fwerte]), silabagiletzeak (gazt. *avión* [a.βjon] → eusk. *abioi* [a.βi.oj]) eta epentesiak (*harria* [aria] → (*h*)*arrija* [arija]; *bihotza* [biotsa] → *bixotza* [bifotsa]) aipa ditzakegu bilakabide indartzaileen artean.

40 Bigarren (edo hirugarren, laugarren) hizkuntza ikastean, maileguak egokitzean, etab. azaleratzen edo agerian geratzen diren H1-eko bilakabideei *bilakabide ezkutu* (*latent process*) deitzen die Churma-k (1984: 226; Hurchek 1988b ere termino hori hartzen du). Kontzeptua Stampek ([1973] 1979) aipatzen du izenik gabe, eta Donegan eta Stampek (2009: 15) *covert* gisa izendatzen dituzte horrelako bilakabideak.

Hiztun batek bere lehen hizkuntza ez den beste bat hitz egiten duenean, “azentua” duela, “azentuarekin” hitz egiten duela esan ohi da. Baita hizkuntza jakin baten baitan, dena delako arrazoiagatik, eredu hegemonikotzat hartzen den hizkera-molde hartatik aldentzen den ezaugarriekin hitz egiten duen haren kasuan ere. “Azentu” hori hiztunak indarrean dituen bilakabide segmentalei —egiten dituen hots txandakatzei— eta gauzatzen dituen eredu prosodikoei —erritmo- eta intonazio-ereduei— loturik dago (Oñederra 2004: 44). Sozialki “azentu”, “azentu”-gabezia edo, oro har, ezaugarri linguistiko multzoak balio jakinekin lotzen dira eta aurreiritzi horiek eragina dute, beste gauza askorekin batera, komunikazio ekintzan.

Hizketaren gauzatze sintagmatikoan, esan nahi dugun horren oinarritzko aurkezpena azalean —fisikoki— eta hots katean gauzatzean, gertatzen dira *fortitioak* —ingurunedunak, ezinbestean—. Horren adibide gisa aipa genitzake euskaraz aurki daitezkeen zenbait bokal disimilazio: *etxea* [e.tʃi.a], *otsoa* [o.tʃu.a], *beharra* [bi.a.ra], *joan* [xu.an]⁴¹ (Jauregi 2007: 264-265). Kokapen prosodiko *indartsuetan* —silaben eta, oro har, eremu prosodikoen ekinean edo silaba-gunean, azentudun silabetan, etab.— gauzatu ohi dira errazago bilakabide indartzaileak, eta oharmen argia bilatzen den testuinguruetan baldintza egokiagoak izan ohi dira normalean hizketa katean bilakabide segmental indartzaileak errazteko: erregistro maila formaletan, hizketa zainduan, motelean, enfatikoan, etab. (Donegan eta Stampe 1979, 2009).

Bestalde, *fortitioek* hizkuntzaren oinarritzko aurkezpena ere baldintzatzen dute, hizkuntzaren alderdi paradigmaticoa. Hizkuntza baten fonemak, hots unitateak, zein izango diren zehazten dira bilakabide indartzaile ingurunez landakoak jarraituz. Esate baterako, gorago hizpide izan dugun *bokal* → *ahokari* bilakabidea *fortitio* paradigmatico ingurunez landakoa litzateke. *Ingurunez landako* bilakabidea da fonema eta fonema klaseen egituratzea ez delako ingurunearekin lotzen, ingurunez landako eremu batean dago hizkuntzaren osagai eta ezagutza hori.

Fortitioek aurrez aurre, bilakabide ahultzaile edo *lenitioak* ditugu. Hauek hots katearen jarraitutasuna areagotu ohi dute, sarri ekoizpen —artikulazio— erraztasunaren mesedetan. Hots kateko osagaiak elkarren artean antzekoago egin ohi ditu, elkarrengatik gertuago gauzatu, batzuetan berdintzera —eta are kentzera— zein muga prosodikoak urtzera iritsiz (Donegan eta Stampe 2009: 2). *Lenitiotzat* hartu ohi dira asimilazioak (*bidea* /bidea/ → [biðea]), monoptongazioak (*egin* [e.(ɣ)in] → [ejn] → [in]), desilabagiletzeak (*eduki* [e.(ð)u.ki] → [ew.ki]) eta kenketak (*e.sán* → [śan])⁴².

Lenitioak hizketaren eratorpenean gauzatzen dira, hizkuntzaren alderdi sintagmatikoan. Oinarritzko aurkezpena, esan asmo dena, denboran eta hots katean ahoskatzean gertatzen dira. *Ingurunedun* bilakabideak izan ohi dira, beraz, inguruneak —hots inguruneak zein ingurune prosodikoak— baldintzatuak. Bilakabide ahultzaileak kokapen prosodiko ahuletan gertatu ohi dira errazago: silaben kodan, silaba labur zein azentugabeetan, etab. Hizketa *tempo* edo lastertasun azkarrean zein ahoskera-argitasuna horren beharrezkotzat jotzen ez den testuinguruetan aurkitu ohi

41 Adibide hauen kasuan ere zaila izaten da hitz barruan bokal disimilaziorik topatzea; errazago nabarmentzen da morfema mugan, Jauregiren (2007: 265) arabera.

42 Emaniko adibideetan izendatutako bilakabideez gain beste hainbat ere gertatzen dira —batzuetan abiapuntuan kokatzen den formak dagoeneko jasan du indartze edo ahultzeren bat—. Beltzez nabarmendu ditut kasuan kasuan gertakari izendatuak, baina horien inguruan gertatutako hots txandakatzek ere islatu nahi izan ditut, maila sintagmatikoan gertatzen diren askotariko bilakabideak eta haien arteko elkarreragina agerian utziz.

dira errazago *lenitio*ak gauzatzeko baldintzak: hizketa arduragabe(ago)an, barrura begirakoan, ohikoak diren hitz, esamolde, klitiko, funtzio hitz, eta abarretan (Donegan eta Stampe 1979, 2009).

Hizketan —hizkuntza batean, hiztun-talde batean eta are hiztun batengan— aurkitzen den aldakortasun fonoestilistikoa kasuan kasuko *fortitio*en edo *lenitio*en nagusitasunetik —testuinguruko baldintzen aldakortasunetik— uler daiteke hein batean. Egoeren (in)formaltasunak, ahoskerari jarritako arretak —edo arreta faltak—, hizketa lastertasunak, ingurune fonikoak, erredundantziak, hitzen maiztasunak, estiloak, hiztunen alfabetatze mailak eta bestelakoek dute aldakortasun horretan eragina (Donegan eta Stampe 1979: 142, 2009: 11; Oñederra 2004: 67; Donegan eta Nathan 2015: 14).

Because they apply in real time and are sensitive to speech rate and other real-world circumstances (like fatigue, drunkenness, objects in the mouth, injuries, etc.), processes are variable. Optional processes represent articulations over which the speaker has less-than-perfect control, so that special conditions —such as fast tempo, or lack of attention, or care, or situations of high redundancy, or very frequent words— can affect their application. Inhibitions may be relaxed so that lenitive processes apply more freely. [...]

At very slow tempos or in especially careful or exaggerated speech, the inhibitions may be imposed more strictly, so that ordinary lenitions fail to apply. And fortitive processes that do not apply in ordinary speech may apply in exaggerated speech (see Donegan 1993). Not only may processes be optional, applying or failing to apply — they may increase or narrow their application in accordance with the implicational conditions [...].

(Donegan eta Stampe 2009: 10-11)

Horrekin batera, gardentasun morfologikoa —oinarrizko aurkezpena eta ekoizpen *sintagmatikoa* bat etor daitezen— bilatzearen ondorio ere bada hainbat bilakabide gainditzea; forma lexikoa eta azalekoa ahal den gehien etortzea bat, ahal den gertuen egotea elkarrengandik (Dressler 1996: 45-46).

Hizketa eta are hiztun baten baitan aurkitzen dugun aldakortasunak bilakabideen emankortasunaz aritzera narama. Izan ere, bilakabide bat hizkuntza batean gerta daiteke, hein batean gerta daiteke —baldintza batzuekin—, batzuetan gerta daiteke —baldintza jakinetan—. Har dezagun euskaraz Oñederrak (2004: 67) jasotako adibidea: hainbat hizkeratan lekukotzen den [i]-ren ondoko albokariaren ([l]) palatalizazioa ([ʎ]), asimilazioz. Gaztelaniaz *misi*[l] ‘misil’, *misi*[l]es ‘misiles’ edo *Gi*[l] ‘Gil’ dena, euskaraz hizkera batzuetan, hiztun batzuek, *misi*[ʎ]ak ‘misilak’, *Gi*[ʎ]ek ‘Gilek’ ahoskatzen dute —baita *i*[ʎ]e ‘ile’, *i*[ʎ]argi ‘ilargi’, *i*[ʎ]a ‘hila’, etab. ere—, esan bezala [i]-ren ondorengo albokaria palatalizatuta. Oñederrak (2004: 67) azaltzen duenez, “ahoskera horiek erabiltzen dituenak palatalizazioa bizirik du, emankorra da bere fonologian asimilaziozko palatalizazioa bokal aurrean bederen. Esaterako, [...] *misi*[ʎ] esaten badu, [...] palatalizazioaren emankortasuna zabala goa dela esan ahal izango dugu. Posible da, ordea, bokal aurrean *nahitaezkoa* eta hitz azkenean

bilakabide segmentalak gauzatzeko joera aurkitzen da; azentuari lotuak dira sarri bilakabideok eta silaba-egitura konplexuak sortzen dituzte. Joera zentripetodun bilakabide segmentalak lekukotzen dira sarri. Euskara bezalako hizkuntzetan, silaba-aldiranzko joera dutenetan, berriz, silaba da unitate erritmiko oinarritzkoa, eta hatsarre silabikoak jarraitzeko joera nagusitzen da bilakabide segmentalak gauzatzean. Hitzen arteko mugak urtuz, silaba indartzen duten bilakabide segmental zentrifugoak izango dira nagusi, *fortitioak*.

Maila paradigmaticoaren eta sintagmaticoaren zein maila bakoitzaren baitan bilakabide mota desberdinen arteko elkarreraginak ahalbidetzen du hizkuntza batean gertatzen diren hots-joerak eta gertakariak ulertzea, sistema orokor baten baitan gauzatutako ekoizpen konkretu gisa:

Processes can work in two different ways, paradigmatically and syntagmatically. For NatPhon, a given phonological system is the result of the paradigmatic functioning of processes. [...] Syntagmatic processes derive phonetic realizations from underlying representations. Paradigmatic operations are fortitive in character, and they may both be context-free and context-sensitive; syntagmatic ones may either be fortitive or lenitive and are always context-sensitive. This is the only way in which we can conceptualize a language-specific phonology as a harmonic entity comprising both the system and its concrete realization.

(Hurch 2006a: 542)

Lan honetan bat-bateko bertsoen prosodia da aztergai. §8. kapituluaren bertsoen silabatzea aztertzean, ezinbestean heldu diet bertsoen ekoizpenean gauzatutako bilakabide segmental sintagmatico batzuei ere. Horregatik, bilakabide segmentalek eremu prosodikoekin duten harremanaz jardungo dut ondorengo atalean.

2.4.2. Bilakabide segmentalak eremu prosodikoetan

Bilakabide segmentalak gertakari prosodikoek baldintzatuak direla eta eremu prosodikoetan gertatzen direla argudiatzen dut lan honetan, Donegan eta Stamperen (1979, 2009) ikuspegiari jarraiki. Orain arte esandakoarekin uler daiteke bilakabide fonologiko segmentalak baldintza prosodikoen mende daudela hein handi batean: azentuak, hizketa lastertasunak, silaben luze-laburrak, etab. eragina dute horien gauzatzean. Horrez gain, bilakabide segmentalak eremu prosodikoetan gauzatzen dira, §2.4 atal hasieran aurreratu bezala. Hizketa —hots katea— denboran zehar ahoskatzen da eta horrek ezinbestean dakar segmentuak unitate prosodikotan antolatu eta gauzatzea. Hala, bilakabide fonologiko segmentalak ulertzeko eremu prosodikoak eta eremu horien azpi-atalak (*ekina*, *gunea* eta *koda*, beste batzuen artean; Donegan eta Stampe 2009: 7) kontuan hartzea lagungarri izango da.

Esate baterako, eremu prosodikoen ekina segmentalki —eta prosodikoki; ikus §10.2.6.1.1— indartzeko joera aztertu da hainbat hizkuntzatan. Segmentuak artikulatorki indartu ohi dira eremu prosodikoen hasierako ertzean (ikus Keating et al. 2003, adibidez, frantsesez, taiwaneraz, ingelesez eta koreeraz aztertzeko gertakaria). Hala, *fortitio* edo bilakabide indartzaileak aurkituko ditugu sarri silaba, hitz edo esaldien ekinean. Euskaraz gorago aipatutako *bi(h)otza* [bi.o.tsa] → *bijotza* [bi.jo.tsa] eta *Enrike* [en.ri.ke] → *Endrike* [en.dri.ke] gisakoak aipa litezke, esaterako, silaba ekineko indartze gisa (Oñederra 2004: 26, 134).

Eremu prosodikoak modu hierarkikoan antolatzen dira⁴³, eta antolamendu horrek bilakabide segmentalen gauzatzean eta gauzatzeko modu edo neurrian eragina du. Hierarkia horrek bi erataraz eragin dezake bilakabideen ezargarritasunean: 1) *hesi* edo *muga* gisa joka dezake: eremu prosodikoa (hierarkia) handitu ahala —silabatik oinera, hitzera, esaldira joan ahala— bilakabidea gertatzea hautazko bilakatuz edo ez gauzatuz; edo 2) *baldintza* edo *baldintzatzaile* gisa joka dezake, nolabait: testuinguru eta baldintza jakin batean bilakabide bat eremu prosodiko batean gertatzen bada, eremu prosodiko hori baino zabalagoak direnetan ere bilakabide hori gertaraziz (Donegan eta Stampe 1978: 27-28).

Eragin *mugatzailearen* adibidetzat gorago ere hizpide izan den ingelesezko ozenen aurreko sudurkaritzea aipa liteke. Bilakabide hori nahitaezkoa da silabaren *erriman* —silaba-gune edo nukleotik kodara doan tartean—; beraz, *swallowing* ‘irensten’ hitzean sudurkaritzea [ŋ] kontsonante sudurkariaren aurreko bokalera helduko da, nahitaez: [ˈswal.ɔ.wɪŋ]. Sarri, hala ere, testuinguruak nahiz hizlariak baldintzaturik, silaba osoan gauzatu ohi da sudurkaritzea ([ˈswal.ɔ.wɪŋ]), eta baita, besteak beste, oinaren eremura ere ([ˈswɑː.ɔ.ɪŋ]) (Donegan eta Stampe 2009: 7). Baina azken horiek ez dira nahitaezkoak eta, eremu prosodikoek muga gisa jokatzeko dutenez bilakabide honekin, errazagoa izango da sudurkaritzea silabaren eremuan gauzatea oinean baino, etab. Euskaraz hitz barruan emankorra eta nahitaezkoa izan ohi da hizkera batzuetan ozen ondorengo txistukaria afrikatzea: gazt. *enciclopedia* [en.θi.klo.pe.ði.a] > eusk. *entziklopedia* [en.tsi.klo.pe.ði.a], kasu. Baina hitzen artean ez da nahitaezkoa, testuinguru eta baldintza aproposetan batzuetan gerta daitekeen arren: ‘hotelean zeuden’ (*h)otelean* [ts]euden ahoska daiteke, esaterako (Oñederra 2004: 69).

Hierarkiaren eragin *baldintzatzaileari* dagokionez, esan behar da ezaugarri *demarkatibo* (Trubetzkoy 1939) deritzenei, *muga-egitekoa*⁴⁴ dutenei, lotuta dagoela, muga prosodiko baten berri

43 Lan honetan jarraitzen dudana ulerkeran (Hurch 1994, 1996, 2006a) hierarkiako osagai bakoitza goitik beherako eta behetik gorako harreman bikoitzean dago behegoko edo goragoko osagaiekin. Hierarkia prosodikoaz eta haren izaeraz, ikus §3.3.

44 Oñederrari (2012) zor zaio terminoaren euskal ordaina.

ematen duten arrastoei. Esate baterako, hizkuntza batzuetan, eremu hasierako bokalen glotalizazioa gertatzen da. Hawaiierraz *esaldia* da bilakabide horren eremu prosodikoa: [ʔ]aloha. Ingelesezt, *hitz prosodikoa*: [ʔ]apples or [ʔ]oranges ‘sagarrak edo laranja’, eta beraz, baita handiagoa den esaldiaren eremua ere. Alemanieraz, *azentu-taldea* edo *oina*: ver[ʔ]einigt ‘batua’, eta beraz, baita handiagoak diren hitz prosodikoaren eta esaldiaren eremuak ere (Donegan eta Stampe 1978: 28).

Hierarkia prosodikoak hizketaren alderdi segmentalean duen eraginarekin batera, §3.2 atalean garatu dut zabalago eremu prosodikoak nola diren beste hainbat gertakari fonologikoren baldintza-tzaile, azentu- eta intonazio-ereduena, esaterako.

Bilakabide fonologikoek ez dute informazio morfologikorik ematen, ez bada gauzatzen diren eremu prosodikoak berak ematen duena. Esaterako, gorago azaldutako glotalizazioa hitzaren eremuan gertatzen bada (ingelesez, kasu), hitz baten ekina adieraziko du bilakabide segmentalak bide-nabar, eremu prosodikoaren ekina hitzaren ekinarekin datorrelako bat. Ez daude baldintza morfologikoen mende: motibazio fonetiko sinkronikoa dute oinarrian eta baldintza fonologiko segmental zein prosodikoen mende daude. Horietatik bereiz genitzake eremu morfologikoetan zein motibazio morfologikoz gauzatzen diren hots txandakatzeak: erregela morfonologikoen ondorioak.

2.4.3. Erregela morfonologikoak

Hizkuntzetan askotariko hots ordezkatzeak aurkitzen ditugu. Aurreratu bezala, ordezkatze horien oinarrian ez dago beti motibazio fonetiko sinkronikoa, bilakabideetan dagoen eran. Garai batean indarrean egondako bilakabide fonologiko(ar)en ondoriozko hots txandakatzea fosildu eta eremu edota zio morfologikoen arabera gertatzen diren hots txandakatze erregularrak aurki ditzakegu sarri hizkuntzetan. Horietan batzuetan oharmen zein ekoizpenezko eragile fonetikoak aurki daitezkeen arren, inoiz ez dira nahikoa gertakaria bere osotasunean ulertzeko eta baldintza morfologiko edo lexikoei erreferentzia egitea beharrezkoa da. Horren arabera gauzatzen diren hots ordezkatzeen atzean *erregela morfonologikoak* daude —ez bilakabide fonologikoak—, Donegan eta Stamperen (1979, 2009) arabera.

Euskaraz bada /es/ → [e] txandakatzea: *ez noa*, *ez luke*, *ez haiz* gisako adierazpenak [enóa], [eluke] eta [ehajs] ahoskatzen dira hizkera batzuetan, txistukaria ahoskatu gabe. Baina txistukariaren kenketa beti gertatzen da *ez* hitzean eta hitzaren ondoren aditza datorrenean (Oñederra 2002a: 502, Oñederra 2004: 69). Ez da txistukariaren kenketarik aurkitzen *ezleku*, *esleitu*, *esne* eta gisakoe-tan. Horrekin batera, kontuan hartu behar da *ez* hitzaren (silabaren) kodan dagoen txistukariaren

kenketa ez dela aditz (laguntzaile) guztiekin gertatzen —*eztakit, ez ezazu*—, hots jakin batzuen aurrean bakarrik gauzatzen dela, baina ezinezkoa da gertakaria alderdi fonetiko-fonologikotik soilik azaltzea. Oñederraren (2004: 69) arabera:

Ordezkatze hori adierazteko kategoria morfologikoak erabili behar dira eta ez fonikoak bakarrik. Erkatu “txistukaria ez da ahoskatzen aditz laguntzailearen aurrean” vs. “txistukaria ez da ahoskatzen kontsonante ozenaren aurrean”. Bigarrena bilakabide fonologiko baten adierazpidea izan liteke baina garbi dago ez digula balio orain esku artean darabilkigun euskal ordezkatzearentzat. Batetik, kontsonante ozenen aurreko txistukari egonkorren adibideak ditugulako [*aznahi, esnarri, asmatu, hizño, noiznahi*] [...]; bestetik, ozena ez den [h] hasperenaren aurrean ere gerta daitekeelako kenketa.

Egia da hitz sinpleetan ez dela erraza txistukari-sudurkari (edo, oro har, txistukari-albokari) bilkura aurkitzea (txistukari-hasperen bilkurarik ez dago batere). Horregatik pentsa liteke noizbait bilakabide izandako zerbaiteen aurrean gaudela.

(Oñederra 2004: 69)

Hots txandakatze bat ulertzeko baldintza morfologikoei —zentzurik zabalenean— erreferentzia egin behar zaienean *erregela morfonologikoez* ariko naiz, beraz, FNren iker-moldeak bilakabide eta erregelaren artean egiten duen bereizketari jarraiki. Askotarikoak izan daitezke erregelak, euskaraz hizkera batzuetan gertatzen den bustidura adierazgarriak agerian uzten duen gisan (Oñederra 1986, 1990, 2002a, etab.).

Euskaraz bada hizkera batzuetan [i] bokal palatalaren edota [j] irristariaren ondorengo kontsonantea —ozen, edo trabari horzkari edo hobikaria— asimilazioz palatalizatzen duen bilakabidea⁴⁵: *hila* → (*h*)*illa* [iʎa], *aita* → *atta* [aca], *bakoitzak* → *bakotxak* [bakotʃak]. Baina, gainera, euskaraz aurkitzen dugu hots palatalen eta ez palatalen arteko txandakatzea motibazio fonetikorik gabe ere, eta ondorio edo lotura semantiko txikigarriekin: *hezur/hexur* (hezur txikia), *zezen/xexen* (zezen txikia), etab. (Oñederra 1990, 2002a). Ez dago bustidura adierazgarriaren gertakaria fonologiatik azaltzerik; semantikak gobernatzen duen hots txandakatzea da:

[...] halako esanahirekin sabaikari, bestela hortz-hobikari. Horrela bada, ordezkatzeko bidez, esanahia aldatzen da edo, bestela begiratuta, semantika da ordezkatzeko kudeatzen duena eta ez fonologia. Hitzunaren hitzak osatzeko baliabide da, hitzak edo, gutxienez, hitzen azpiatal bat eraikitzeke balio digu. Alderdi horretatik, egiteko morfologiko bat betetzen duela esango dugu

(Oñederra 2002a: 505)

45 Hizkeratik hizkerara aldatu egiten da bilakabidearen indar eragilea. Xehetasun gehiagorako, ikus Oñederra (1990).

Erregela morfonologikoen fonema txandakatzek eragiten dituzte⁴⁶, eta txandakatzek horiek ingurune edo ondorio morfosintaktiko edo lexikoen loturik daude, zentzurik zabalenean —euskarazko bustidura adierazgarriak agerian uzten duen gisan—. Gorago ere nabarmendu dudanez, erregelek ez dute motibazio fonetiko sinkronikorik; ezin dira bide fonetikoetatik soilik ulertu. Gogoratu bestela bustidura adierazkorra: ez dago beti txistukaria sabaikari (sabaiaurreko) gauzaraztea ulertzen laguntzen duen hots palatalik inguruan eta fonologiak hots txandakatzek deskribatzen besterik ez du laguntzen. Alderdi edo lotura morfologikoak —zentzurik zabalenean— dira gertakariaren zenbait alderdi sakonago ulertzen lagunduko dutenak, nahiz eta sarri —oraindik— erregela morfonologiko batzuen izaera zer-nolakoa den ezin zehaztu guztiz (Donegan eta Stampe 1979). Edonola ere, morfonologiaren eremuan kokatzen dira aipaturikoak, gertakari fonetiko-fonologiko huts diren bilakabideetatik bereiziz.

Erregelak morfolojiaren eremu zabalean koka daitezkeen morfema mugen, hitz klaseen, maila lexikoen eta abarren mende daude. Bilakabideak, berriz, baldintza fonologikoen —prosodiko zein segmentalen— arabera gauzatzen dira. Ukaezina da erregelek nahiz bilakabideek sortzen dituztela hots eredu erregularrak hizkuntza edo hizkera jakin baten sisteman, baina Donegan eta Stamperen (2009: 4) hitzetan, bilakabideak *hiztunarenak* dira eta erregelak, berriz, *hizkuntzarenak*: “processes are ‘of the speaker’. Rules are ‘of the language’”. Hau da, bilakabideek hiztunok hotsa ekoitzi eta hautemateko ditugun muga eta erraztasunak islatzen dituzte; hiztunok hitz egiten ditugun hizkuntzetan gordetako baldintzak direla esan liteke. Hala, hiztun batengan indarrean den bilakabide jakin bat gaintzeak, *desikasteak*, ahalegina eskatzen du hiztunaren partetik: euskara eta gaztelaniadunok *stop* [e] epentetikorik gabe ahoskatzeko egin beharrekoa, esate baterako. Gainera, hitz hori H1 ingelesa duten hiztunen gisan ahoskatzek eskatzen ez duela iruditzen zaigun testuinguru zaindugabeagoetan forma epentetikoduna ([eʃtop]) gauzatuko dugu, seguruena, ahoskerari arreta berezirik jartzen ez diogunean —eta egoera “formalenetan” ere bai agian, hala nahi gabe ere—. Erregelak, berriz, hizkuntzak garatutako erregularutasunak direla esan liteke, baldintza edo helburu morfo-lexikoak dituztenak, eta hiztunak ikasi beharrekoak. Hauek ikasteak ez dio printzipioz hiztunari eskatzen zailtasun edo muga fonikorik gaintzerik, erregularutasun edo hots txandakatzek jakin baten erabilera barneratzea baizik. Goian aurkeztu den euskarazko *zezen/xexen* bikoia izan daitezke horren adibide egokia⁴⁷.

46 Lan honetan sakonduko ez den arren, ideia garrantzitsua da erregela morfonologikoen txandakatzek fonemikoak soilik eragiten dituztela, ez alofononikoak, bilakabide fonologikoen bezala. Hiztunentzat hautemangarri diren txandakatzek eragiten dituzte erregelek. Gerora, noski, segmentu-katea ahoskatzek, bilakabideen ondorioz gerta daitezke aldaketak erregelak zehaztutako fonemetan.

47 Euskarazko erregela morfonologiko gehiagoren berri izateko, ikus Oñederra 2002a eta 2005, besteak beste.

Bereizkuntza azalduta, erregela morfonologikoek prosodiarekin duten harremana izango dut jarraian hizpide, ikerlan honen gai orokorrean kokatzeko. Hizpide izan ditudan hots txandakatze morfonologikoetan ez du prosodiak eragin zuzenik. Gertakari fonetiko biziak ez diren heinean, erregelak berak ez du aldaketarik jasango testuinguru, *tempo* edo estiloa bezalako eragileengatik (Donegan eta Stampe 2009: 11). *Xexena* beti izango dela *xexena* hizketa lasterrean, arduragabeen edo zainduan; aipaturiko ingurune edo baldintza prosodiko aldaketek ez dute *xexena* → *zezena* (edo alderantziz, *zezena* → *xexena*) gauzaraziko, ez bada esanahi aldaketari loturik.

Prosodiak erregela morfonologikoak (aipaturiko eran) ez baldintzatzeak ez du esan nahi morfologiak —hizkuntzaren gramatikak, zentzurik zabalenean— prosodia aldarazi ezin duenik. Hizketaren alderdi segmentalerako proposatutako ideia prosodiara zabalduta, Hurchek (1994, 1996) *morfoprosodiaren* eremua aurkezten du: “Morphoprosody [...] refers to the situation where *prosodic* variation is *connected to morphological* processes” (Hurch 1994: 192).

Morfoprosodiazko adibide gisa zubereraz gertatzen den *aizkóra/aizkorá*, *alhába/alhabá* azentu-eredu txandakatzea aipa daiteke, izenen forma mugagabe/mugatua adieraziz (Hurch 1994, 1996; Oñederra 2002a: 504-505), beste askoren artean. Badira bestelako morfoprosodia modu batzuk ere, eta horiei §9.2.1.3 atalean helduko diet. Kontuan hartu beharreko ideia da, edonola ere, morfologiak, hitzaren zentzurik zabalenean, prosodia balia dezakeela bere kategoria edo bereizkuntzaren bat adierazteko.

2.5. Hondarreko gogoetak

Eskuartearen dudak ikerlanerako ideia interesgarri bezain baliagarria suertatzen da txertatze prosodikoaren kontzeptua, sarreran (§1) aurreratu bezala. Hitz lauko gertakariak kokatzeko lagungarri izateaz gain, txertatze prosodikoaren baitan kasu berezi gisa aurkezten da perpausak bertso edo musikazko ereduekin uztartzea. Ideia iradokitzailea da, horixe baita bat-bateko bertso kantatuetan gertatzen dena, modu argiagoan: bertso-doinu batean txertatzen ditu bertsolariak silabak, hitzak eta esaldiak, doinuak eskaintzen dizkion ezaugarriak hartzen dituelarik, hein handi batean, hizkuntzak (hizkuntzaren eta prosodiaren arteko harremana aldebikoa da, edonola ere, batez ere §9 eta §10 ataletan aztertu ahal izan dudanez).

Bertso eta kantuetan berezitasuna zertan datzan agerikoagoa da horrela: hitz lauz baliatzen diren oinarritzko eredu prosodikoez landa edo horiekin elkarreraginean, bestelako ezaugarri eta egituradun eredu prosodikoak eskaintzen dituzte (ikus §5). Euskarazko bat-bateko bertsoetara etorrira, neurrian aurkitzen dira silaba kopuru eta multzokatze jakina duten egiturak (*zortziko txikia*,

kasu⁴⁸) edo, halaber, bertso-doinuetan tonuen arteko hierarkian eta motibo erritmiko jakinaren edo jakinen aldaeretan oinarritutako erritmo- eta intonazio-ereduak⁴⁹.

Testu-uztartzea ondo ulertzeko beharrezkoa izango da, atal honetan landutako ideiak labur ekarriz, eredu prosodikoen ezaugarriekin batera oinarri horretan hizketa nola txertatzen den aztertzea, silabatzeari eta hari lotutako gertakari segmentalei erreparatuz (ikus §8).

48 Euskaraz gaur egun bat-bateko bertsogintzan baliatzen diren neurriez, ikus §6.6.1 eta §9.2.3.2.2.

49 Euskaraz gaur egun bat-bateko bertsogintzan baliatzen den *Lurraren pean sar nindaiteke* doinua, esate baterako; ikus §6.6.2.1.

3. Hizkuntzen erritmoa

3.1. Sarrera

Erritmoa hizkuntzaren prosodiaren funtsezko alderdia da. Hizketatik harago doan gertakaria eta kontzeptua izanik, ez dago egun definizio bateraturik, askotariko eremuetan eta askotariko helburuekin baliatu izan delako termino bera (Patel 2008: 96). Bertsoen azterketara hurbiltzeko baliagarri zaidan ikusmolde bat nire eginez, abiapuntu gisa esango dut erritmoa eraikuntza mentala dela (Rodríguez-Vázquez 2010: 22), giza hautemateari loturik dagoen gertakaria, eta hizketatik — eta musikatik— harago doana (Allen 1975: 76; Donegan 1993a: 7; Deutsch [1982] 2013: 183, etab.).

Erritmoari buruz XX. mende erdialdean eginiko lanetan, kasu, agerian geratzen da entzuleok denboran zehar egituratu gabeko materialari eredu erritmiko bat ezartzeko joera dugula (gaiari buruzko berrikuspen eta bibliografia baterako, ikus Fletcher 2010: 550-568). Nagusiki Woodrow (1951) eta Fraisse-ren (1963) lanetan oinarrituta Allenek (1975: 76-77) jasotzen duenez, azkarregia edo motelegia ez den pulsu edo taupada sekuentzia bat entzuten dugunean⁵⁰, erritmikoki hautematen dugu. Esate baterako, elkarren arteko tarte bertsuan gauzatutako *klik*-ez osatutako sekuentzia bat entzutean, taldetan hautemango dugu sekuentzia hori; bitik sei *klikera* bitarteko multzoak egingo ditugu, *kliken* arteko tartearen arabera —tarte zenbat eta txikiagoa, *klik* gehiago taldean—. Era berean, *kliken* arteko tarte berbera izanda *klik* batzuk ozenagoak badira, klik ozenak talde hasieretan

50 Pulsuen arteko tarte 0.1s baino handiagoa eta 3.0s baino txikiagoa izatea da Allenek (1975: 76) aurkezten duen neurria “azkarregia” edo “motelegia” ez den pulsu zehazteko.

kokatzeko joera izango dugu; binakako *klik* multzoak badira, bata indartsuagoa eta bestea ahulagoa, trokeoz osatutako sekuentzia bat hautemango dugu: (óó)(óó)(óó)(óó). Ordea kliken arteko tartea berbera izanda *klik*en iraupenak badira elkarrekiko desberdinak –luze-labur kontrastean–, *klik* luzeak talde amaieretan kokatzeko joera izango dugu, multzokatzea bitarra bada ianboak hautemanetz: (- -)(- -)(- -)(- -)⁵¹. Garaierak ere badu egitekorik erritmoaren antolaketan; garaiera altuagoko *klik*-ak talde hasieran kokatzeko joera izango dugu, ozentasun handiagoko *klik*en kasuan bezala. Hala, askotariko ozentasun, iraupen eta garaieren arteko konbinazioak taldekatze eta eredu erritmiko konplexuak dakartza berekin (Allen 1975: 76-77). Joera erritmiko horiek musikan nola gauzatzen diren aztertzeko, ikus Fraisse-ren (1982) berrikuspena, esate baterako, eta hizketarako proposatutako eredu erritmikoen joerez, ikus Hurch (1994, 1996), besteak beste; lan honetan §9.2.1.2 erritmo-ereduen hobespenetarako eta § 10.2.6 taldekatze arrastoetarako).

Erritmoa, hizketaren eta musikaren kasuan, hotsak sistematikoki dimentsio tenporalean azentu-eredu eta taldekatze-eredutan antolatzea⁵² dela esan liteke (Patel 2008: 96). Hizkuntza fisikoki gauzatzen dugunean, hizketa bilakatzen dugunean, denboran zehar antolatzen dugu silabatan, hitzetan, esalditan, ahoskatuz eta, intonazio-eredu jakin batzuetan gauzatuta, silaba edo silaba multzo batzuk ingurukoetatik nabarmendu ohi ditugu azentuen —azentu-ereduen— bitartez.

3.2. Nabarmentasun harremanak. Azentuak eta azentu-ereduak

Azentua denboran zehar gauzatutako nabarmentzea da, “prominence in time” (Donegan eta Stampe 1983: 8); silaba katean silaba bat(zuk) inguruan gauzatutako silaben artean bereiztea, gailentzea. Nabarmentasun horren ordain akustiko nagusiak garaiera, iraupena eta intentsitatea direla esan daiteke. Baina azentuaren alde fonetikoak ez da pentsa litekeen bezain sinple eta argia. Hasteko, osagai azentudunen ekoizpen eta hautematean hizkuntzatik hizkuntzara —eta hizkeratik hizkerara— aldeak daude. Gainera, aipaturiko aldagai akustikoak elkarreraginean azaldu ohi dira eta ez hori bakarrik: hizketaren alderdi segmentalarekin ere harremana dutenez, gertakari segmentalak ere era-

51 Trokeoan eta ianboan oinarritutako joera erritmiko orokorrok lotura zuzena dute metrika klasikoan neurtitzen oinarri posibletzat hartzen diren (lau) aukeretatik birekin.

52 Periodikotasunari –denboran zehar modu erregularrean eredu edo osagai bat errepikatzeari– buruzko oharra egiten du Patelek (2008: 96), erritmoarekiko harremanean: eredu periodiko guztiak erritmikoak diren arren, eredu erritmiko guztiak ez dira periodikoak. Periodikotasuna erritmoa antolatzeko moldeen artean bat da. Horregatik ez du periodikotasuna bere erritmoaren definizioan txertatzen, sarri “erritmiko” izatea “periodiko” izatea den arren. Hizketa lauaren erritmoaz ari garela, gaur egun arte heldu den eztabaidagaietako bat da periodikoa ote den eta, izatekotan, nola (gaiari buruzko eztabaidarako, ikus Turk eta Shattuck-Hufnagel 2013: 99-104 eta bertan aurki daitezkeen erreferentziak, baita lan honetan §3.4 eta §5.3.1 ere).

giten dituzte, bokalen nolakotasunari loturiko aldaketak, esate baterako (ikus, adibidez, Lehiste-ren [1970] edo Fox-en [2001] berrikuspenak arlo horretan).

Maila fonologikoan, hasieran emaniko definizio laburrera itzuliz, azentua denboran zehar gauzatutako nabarmentzea da. Hizkuntzen artean bi azentu mota bereizi ohi dira, gutxienez: ingelesarena bezalako indar-azentua (*stress*)⁵³ eta japonierarena gisako garaiera-azentua (*pitch accent*)⁵⁴. Nabarmentzekoa da azentu-mota bakoitzak modu desberdinean eragin ohi duela hizkuntzaren egituraketan (ikus aurrerago hizkuntza-tipologiari buruzko §3.4 atala). Horri loturik, berriz ere esango dut azentua funtsezkoa izan ohi dela hizketaren erritmoaren antolakuntzan, nabarmentasun txandakatzetan —azentudun eta azentu gabeko osagaien alternantzietan— oinarriturik. Besterik da hizkuntza bakoitzaren sistema fonologikoan azentuaren garrantzia zer-nolakoa den.

Azentuen eta azentuaren auziari heltzeko hainbat proposamen teoriko egin izan dira⁵⁵ (berrikuspen adierazgarri baterako, ikus Fox 2001). Lan honen helburuak betetzeko nagusiki Hurchek (1994, 1996) jorraturiko ildo hartu dut abiapuntutzat, bat-bateko bertsoetan aurkitzen ditugun errealitate eta gertakari erritmikoak ulertzeko eskaintzen dituen heldulekuengatik (ikus §9.2.1, azalpen sakonagorako).

3.3. Taldekatzea: hierarkia prosodikoa

Prosodia parametro fonetikoekin batera — f_0 , intentsitatea eta iraupena—, egituratzat ere hartzen da, §1.1.1 atalean aipatu bezala: hizketa denboran zehar antolatzen duen egituratzat, hain zuzen ere⁵⁶. Hala, gertakari prosodiko zein segmentalak egitura horren arabera gauzatzen dira eta, era be-

53 *Indar-azentua* terminoa erabili dut lan honetan *stress* delakoaren ordainetan; nagusiki intentsitateari (eta luzerari) loturiko azentuera da ondokoa. *Intentsitate* hitza *intensity*-ri erreferentzia egiteko baliatu dut.

54 Aipaturiko azentu-mota horiek hitz lauz bereiz daitezkeenak dira. Kantuan gauzatutako hizketan periodikotasunak eragindako azentua (Janda eta Morgan 1988; Morgan eta Janda 1989; Patel 2008: 101-106, besteak beste) eta harmoniak eragindakoa ere aurki ditzakegu, beste batzuen artean, kasuan kasuko ekoizpenaren arabera (ikus §5.3.2).

55 Lan honetan ez da, unean unean gaiaren azalpenak eskatzen duena baino gehiago, molde teoriko bakoitzaren proposamenen berri emango, ezta bakoitzaren planteamenduen inguruko eztabaidarik garatuko ere. Biziki interesgarria litzatekeen arren, horrek ikerlanaren mugak gaindituko lituzke.

56 Prosodia egitura gisa ulertzea ideia berria ez den arren, aipagarria da gaur egun modu aski zabalean onartutako ulerkera dela, teoriaren arteko aldeak alde. Esate baterako, iker-molde sortzailea hasieran prosodia segmentuen baitako ezaugarri huts gisa azaltzetik (Chomsky eta Halle 1968) hainbat mailatan antolaturiko egituratzat hartzeraino igaro da (Beckman 1996: 19) azken hamarkadetako proposamenetan (aipatzekoak dira Fonologia Metriko eta Autosegmentala edo Optimality Theory, beste batzuen artean). Hizketa prosodikoki antolatzen dela, egitura prosodiko bat badela —egitura sintaktiko batetik bereiz, nahiz elkarreraginean—, hizkuntzalaritzan oro har onartua den baieztapena dela esan liteke, baita egitura horren antolakuntza hierarkikoa dela ere. Gaur arte heldu diren eztabaidagaiak dira, ordea, egitura prosodikoa izaera bera, egituraren parte diren osagaiak eta eragileak nolakoak diren eta osagai horien arteko harremana zer-nolakoa den, besteak beste. §1.1.1 atalean aurkeztutako 1. irudiak eta 2. irudiak askotariko ulerkera horietako bi islatzen ditu.

rean, egitura horren askotariko alderdiak adierazten dituzte (Fletcher 2010: 528). Hizkuntza fisikoki ekoiztean, hizketa gauzatzean, hiztunak ez du segmentu kate jarraitu bat ahoskatuko. Hiztunak silabak ahoskatuko ditu, segmentuak silabatan antolatuta; hitz prosodikoak ekoitziko ditu silabak azentuen —azentu-ereduen— bueltan antolatuta; sintagma eta esaldiak gauzatuko ditu intonazio- eta erritmo-ereduetan txertatuta, etab. Hizketaren prosodia erritmikoki antolatuko da denboran zehar unitate prosodikoen bitartez. Aurreko §3.2 atalean hizpide izandako azentu-ereduak ere unitate edo eremu prosodikoetan, hauen arabera, gauzatzen dira.

Unitate prosodikoak giza-jokamolde tenporalaren eta unitate linguistiko zein segmentalak denboran zehar gauzatzearen emaitza dira (Hurch 2006a: 542). Nabarmentzekoa da unitate prosodikook modu hierarkikoan antolatzen direla denboran eta, lan honetan jarraitzen dudana ikuspegian (Hurch 1994, 1996, 2006a), hierarkiako osagaiak bi norabidetako harremana dutela goragoko eta behegoko osagaiekin: osagai bakoitzak bera baino osagai txikiagoak direnak antolatzen ditu bere baitan eta bera, era berean, unitate bakoitza osagai handiago baten parte da; osagai handiago baten baitan dago antolaturik. Harreman bikoitz horrek zehazten du egitura prosodikoa⁵⁷.

Errepara diezaiogun silabak segmentuekin eta oinarekin —azentu-ereduekin— duen harremanari:

Although we do not have convincing arguments to assume the syllable to be part of the lexical representation of words, it is considered to be the central unit for realizing segments in time and of grouping segments together so as to make them manageable on the level of prosodic feet. Segments thus to some extent determine the structure of syllables and at the same time are determined by it (e.g., the inherent sonority of segments determines the nucleus, hence structural aspects, which in their turn determine voicing in specific non-nuclear positions). Virtually the same holds true for accent: on the one hand, accent organizes syllables into feet, on the other, it is the result of the application of prosodic processes of accentuation which create accent patterns to which the syllables are mapped. Again, certain syllabic positions are the material basis on which accent works, and they are themselves structurally dependent from their prosodic context.

(Hurch 2006a: 542)

57 Ideia hau azentu-ereduen atalean garatutako behetik gorako eta goitik beheko hierarkiaren ideiarekin uztar genezake. Azentu-ereduen kasuan azpimarratzen dena da hierarkia eta eredu erritmikokoak ez direla behetik gora soilik antolatzen, goitik behera ere antolatzen direla, eta kontuan hartu behar dela azentu guztien jatorria eta eragilea ez dela beti berbera izango derrigor (Hurch 1994, 1996). Hizketa katea eredu-erritmiko horietan txertatu eta antolatzean, unitate prosodikoen hierarkia sortzen da, eredu horiek eremu prosodikoetan gauzatzen direlako, besteak beste. Azentu-ereduek zehazten dituzte unitate prosodikoak —oina, kasu—, eta unitate prosodikoek, haien ezaugarrien arabera, zehatz dezakete azentu-ereduen hautua. Beraz, nabarmentasun-harremanak eta taldekatzea ez dira bi gertakari edo eremu autonomo, lan honetan azalpenaren argitasunaren mesedetan bi azpi-ataletan aurkeztu arren.


Beraz, silaba segmentuak denboran zehar gauzatu eta antolatzeko oinarrizko unitatea dela esan genezake, hitzen oinarrizko aurkezpenean badela zalantzarria izan arren (Donegan eta Stampe 1978; ikus §2.3 atala). Hala, segmentuek silaba-egitura baldintzatzen dute, segmentuen tasunen arabera antolatuko baita silaba —ozentasun eskalaren arabera, esate baterako; ikus Vennemann 1988, besteak beste, silaba egitura baldintzatzen duten joeren berri izateko— eta, era berean, silaba izango da sarri —unitate gisa— segmentuen bilakabideak baldintzatuko dituen eremua —ahostuntzea edo sudurkaritzea gauzatzeko, kasu—. Azentuaren kasuan, azentua da silabak oinetan, hitzetan, eta abarretan antolatzen dituen. Zenbait gune silabiko azentuen gerta(g)une dira eta, era berean, silaba horien izatea testuinguru prosodiko zabalagoaren menpe dago.

Hierarkia prosodikoa osatzen duten unitateak aurkeztuko ditut jarraian⁵⁸. Eztabaida handia dago iker-molde eta ikerketa lanen artean hierarkia osatzen duten unitateak zehaztean, batetik, unitate bakoitzari ematen zaion izaeraren eta ezaugarrien arabera alda baitaitezke hierarkia osatzen duten unitateak eta, gainera, hizkuntzen artean ere desberdintasunak daudela baitirudi unitate bakoitzak hizkuntzaren (prosodiaren) antolakuntzan duen garrantziaren arabera (ikus §3.4.3 eta §10.2.1.2). Orokorrean esan liteke unitate edo talde prosodiko bakoitza egiturazko ezaugarri batzuei eta gertakari fonetiko-fonologiko batzuei loturik dagoela, hainbat gertakariaren eremu prosodiko dela. Arrasto horien artean daude hierarkia prosodikoaren baitako desberdintasunak adierazten laguntzen duten gertakari erritmikoak ere (Fletcher 2010: 529; taldekatze arrastoez, ikus §10.2.6.1).

Hierarkia prosodikoaz aritzeko oro har proposamen eta iker-moldeen artean nahiko onartuak dauden ondoko unitateetatik (ikus 4. irudia) abiatu dut ikerketa honetan analisisia. Besterik da proposamen bakoitzean nola definitzen den osagai bakoitza zein haien arteko harremana (berrikuspen baterako, ikus §10.2.1.1 atala).

58 Lan honetan ez dut esaldi fonologikoa baino handiagoak diren hizketako unitate prosodikoetan sakondu. Horiek, nagusiki intonazioari lotuak, prosodiaren ezinbesteko parte direla jakin arren, ikergaiari ezarritako mugak gainditzen dituzte. Gaian sakondu nahi duenarentzat, abiapuntu egoki izan daitezke Shattuck-Hufnagel eta Turk (1996), Beckman eta Venditti ([1997] 2010) eta Jun (2005, 2014). Ikus, era berean, tipologiaren alderditik Beckman eta Vendittiri eginiko kritikez, Hyman (2012), besteak beste.

4. irudia: Hierarkia prosodiko unibertsala⁵⁹



Ondokoak dira lan honetan abiapuntu gisa hartu ditudan kontzeptuak (ikus §10.2.1.1 horien definiziorako eta §10.2.1.1.4 bertsoen analisirako kontuan hartutako osagaiak zein diren jakiteko):

- Silaba⁶⁰ eta mora (4. irudian *silaba terminalak*⁶¹; ikus §10.2.1.1.1).
- Oina, *beat*-a eta hitz prosodikoa (ikus §10.2.1.1.2).
- Esaldi fonologikoa eta hierarkian “goragoko” osagaiak (ikus §10.2.1.1.3).

3.4. Erritmoaren araberako hizkuntza-tipologia(k)

Tipologia hizkuntzen arteko aldakortasuna aztertzen duen jakintza-eremua dela esan liteke, hizkuntza aniztasuna aztertzeke ikuspegia, egiturazko desberdintasun eta antzekotasunak jomugan izanik (Vellupillai 2012: 15). Baliabide metodologiko edo hizkuntza-sailkapenerako tresna izatetik harago, azken hamarkadetan gero eta gehiago bilatzen da *zer-non-zerगतik* dagoen (*What’s where why?*) (Bickel 2007: 239)⁶². Lan honetan ere tipologiaren ulerkerak horretatik heldu nahiko nioke hizkuntzari —eta euskarazko bat-bateko bertsoei— (tipologia jakintzagaiaren baitan dauden

59 Blevins-ek (1996: 210) aurkeztutako irudian oinarritua; euskarara itzulpena: Oñederra (2016).

60 Silaba oso eztabaidatua izan den osagai prosodikoa da. Oraindik orain, ez dago adostasunik silabaren izateaz; ba ote den ere zalantzan jartzen dute hainbat proposamen teorikok —ikus, esate baterako, Fonologia Naturalaren baitako korranteetako bat den *Beats-and-binding Phonology* (Dziubalska-Kolaczyk 2002)—. Silaba unitate prosodikotzat onartuta ere, ez dago definizio eta ulerkerak bateraturik (berrikuspen baterako, ikus Jauregi 2007). Lan honetan Donegan eta Stampe-k (1978) eta Hurch-ek (2006a, 2006b, 2013) proposatutako silabaren ulerkerari jarraitu diot, esan bezala, bat-bateko bertsoetan silabari loturiko gertakariak aipaturiko silabaren ulerkerara bainarama edo, alderantziz, gertakariak ulertzeko helduleku egokiak eskaintzen baitizkit aipatu ikuskerak.

61 Blevinsek eta, itzulita, Oñederrak, silaba-terminalak ere kokatzen dituzte, silaben azpian, hierarkia prosodikoan. Blevinsen (1996: 236) esanetan “unlabeled timing slots” —zehaztugabeko denbora-tarteak— dira ‘silaba-terminalak’, Levenen (1985) lanari jarraiki. Lan honetan hartzen dudak ikusmoldean morarekin —eta, zabalago, oinarri erritmikoarekin— lotzen ditut gorago aurkeztutako hierarkia prosodikoaren 4. irudian jasotako *silaba terminalak*. Horrela, hierarkia prosodikoko unitateek erritmoarekin eta denboran zehar antolatuta gauzatzearekin duten lotura azpimarratzen da.

62 Tipologiaren definizio orokorra osatzeko bereziki baliagarri izan zait Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Doktorego programaren baitan Iván Igartuak emaniko “Zer eman diezaioke tipologiak (euskal) hizkuntzalaritari?” hitzaldia (Vitoria-Gasteiz, 2021-01-20). Tipologia linguistikoaren oinarrietan sakontzeko, ikus Igartua (2023).

eztabaidagai batzuetarako, ikus Nichols 2007, besteak beste). Tipologia hizkuntzaren antolakuntzan egituratze maila bat dela ere esan liteke, joera eta ezaugarri unibertsalen eta hizkuntza bakoitzaren hautu zehatzen artean kokatzen dena (Dressler 1985; Hurch 2008; ikus §1.4.1.2). Hortik sortzen da *hizkuntza tipo* deritzon kontzeptua, aipaturiko egituratze-maila horretan ezaugarri edo joera jakin batzuk partekatzen dituzten hizkuntza multzoari erreferentzia eginez. Besteren artean Hymanek (2012, 2018) azpimarra egiten du ezaugarri edo joeretan, “hizkuntz tipoak” beste gabe sailkapen tresna gisa baliatzea bere horretan argigarri ez dela argudiatuz. Ezaugarrietatik abiatutako tipologia bat (“property-driven typology”) egitearen garrantzia eta interesa geratzen da mahai-gainean, hizkuntza-antolakuntzaren muinera hurbildu nahi izanez gero⁶³.

Tipologiaz hartzen dudan ulerkeran hizkuntza-sailkapenetik —ezaugarri multzo edo zerrenda hutsetik— harago joatea da helburua. Tipologian ezaugarrien arteko harremanak —loturak eta elkarreraginak— zehaztu beharko lirateke (Hurch 2006b). Hala, ezaugarri batzuk erdigunean egongo dira tipo linguistikoari dagokionean, *tipogile*⁶⁴ (*Typkonstituierend*) izango dira —edo tipogiletzat proposatuko ditu hizkuntzalariak—. Egiturazko ezaugarri tipogile hori(ek) izateak beste ezaugarri batzuk ere izatea inplikatu du (Hurch 2006b). Hala, ulertzen da hizkuntza tipo baten baitako ezaugarrien arteko harremana ez dela ausazkoa, kasualitatezkoa; kausalitatezkoa baizik. Ezaugarrien arteko loturak, inplikazioak, (elkarr)eraginak bilatzea du helburu lan honetan hartzen dudan tipologiaren ikuskerak. Helburu hori betetzeko modurik osoena *tipologia holistikoa* deritzona (Donegan eta Stampe 1983) egitea litzateke: hizkuntza bere osotasunean hartuta egiturazko osagaiak eta horien arteko harremanak aztertu, marraztu eta ulertzea.

Tipologia lan honen ikerketa-gaira hurbilduz, abiapuntu gisa esango dut hizkuntzak ez direla elkarren artean berdinak prosodikoki eta, zabalago, fonologiari dagokionean, besteak beste. Alde eta antzekotasun horien oinarrian hizkuntzaren erritmoa dagoela proposatu izan da eta gaiari askotariko ikuspegi eta metodologietatik heldu izan zaio azken mendean zehar, erritmoa eta hizkuntza bera ulertzeko modu asko daudenez.

Jarraian erritmoan oinarritutako tipologiaz azken hamarkadetan egin diren proposamen bartzuen bilakaera aurkeztuko dut, erritmoaren oinarrian fonologia dagoela dioten proposamenetan sakonduz, horietan oinarritu bainaiz lan honetan. Euskara tipologikoki ezaugarrituko dut orain arte egindako ikerketen arabera, gerora bat-bateko bertsoen azterketan oinarritzko izango baita ikuspegi tipologikoa. Isokroniaren ideia (§3.4.1) eta isokroniaren ulerkeran ekoizpen-asmoak eta oharmenak duten egitekoa berrikusi ditut lehenik (§3.4.2); ezaugarri fonologikoetan oinarritutako proposame-

63 Edonola ere, lan honetan “hizkuntza-tipoei” erreferentzia egingo diet, ez sailkapenezko helburu gisa, baizik eta tipo bakoitzaren atzean dauden ezaugarriez aritzeko.

64 Euskaraz *tipogile* ordaina baliatu dut lan honetan, Jauregiren (2007) proposamenari jarraiki.

nak aurkeztu ditut gero (§3.4.3), euskara ikuskera horretan kokatuz (§3.4.4); erritmoa tipologia ho-
listikoaren baitan ulertzeko gako nagusiak eman ditut jarraian (§3.4.5), proposamen horretan euska-
raren toki zein den aurkeztuz (§3.4.6); eta, bukatzeko, azken urteetan gertatu den oharmenera eta
neurketetara itzulia (§3.4.7) eta neurketetan oinarrituta euskaraz egin diren lanak jaso ditut labur
(§3.4.8).

3.4.1. Isokroniaz⁶⁵

Erritmoan oinarritutako tipologia zedarritzerako orduan, eragin handiko ideia izan zen XX.
mende erdialdetik aurrera garatutako *isokroniarena* (Classe 1939, Lloyd 1940, Pike 1945,
Abercrombie 1967, Ladefoged 1975, etab.). Ingelesaren azterketatik abiatu ziren hasierako
proposamenak —Piken (1945) lana jo ohi da mugarriztat— eta ulertzen zen hizkuntzen
antolakuntza erritmikoan badela errepikatzen den unitate bat hizketan denbora tarte bera hartzeko
joera duena, gutxi gorabehera. Osagai hori azentua (azentu-taldea edo azentutik azenturako tarte) a
litzateke ingelesa edo alemana bezalako *azentu-aldiko* hizkuntzetan eta silaba frantsesa edo
gaztelania bezalako *silaba-aldiko* hizkuntzetan. Beraz, ingelesez azentutik azenturako tarte
iraupena litzateke berbera (izateko joera duena) eta frantsesez, berriz, silaben iraupena. Kategoria
dikotomiko gisa ulertzen ziren hasiera batean, hizkuntzak bi multzo nagusitan bereiziz: silaba-
aldikoak eta azentu-aldikoak⁶⁶. Gerora *mora* proposatu zen (Ladefoged 1975) unitate isokroniko
gisa japoniera edo tamiler a gisako *mora-aldiko* hizkuntzetan⁶⁷. Azken hizkuntza horietan, beraz,
silaben baitan moren iraupena litzateke denboran zehar modu erregularrean mantentzen den
unitatea, silaba astun eta arinak bereiziz (ikus §10.2.1.1.1).

Hizketa aztertuta, ordea, azaleko ekoizpenean ez zen silaba-, mora- zein azentu-aldiko
isokroniarentzat oinarri enpiriko sendorik topatu eginiko azterketa esperimentaletan (ikus Lehist
1977; Bertinnetto 1989; Fletcher 2010: 552-554; White eta Malisz 2020: 167-168, lan horien
berrikuspen batzuetarako). Hizkuntzek oinarri erritmiko bakar eta bateratua dutela erakusten duen
frog a izan zen porrot hori zenbaitentzat (Martin 1972, Fraisse 1982, Essens 1986, etab.); hau da,
edozein hizkuntzarako hiztunek hatsarre erritmiko berberen arabera jokutzen dutela baieztatzeko

65 Azpi-atal hau eta hurrengoa (§3.4.2) idazteko ondorengo berrikuspenetan oinarritu naiz nagusiki: Lehist (1977),
Bertinnetto (1989), Patel (2008: 118-138), Fletcher (2010), Schmid (2016) eta White eta Malisz (2020). Kasuan
kasuan ikerketa zehatzetara ere jo dut ideiak sakontzeko.

66 Abercrombiek (1967), Piken (1945) proposamena aintzakotzat hartuta, bi hizkuntza tipoen oinarriak fisiologian,
silaba azentudun eta azentugabeak ahoskatzeko moduetan, bilatu zituen. Azentu-aldiko hizkuntzetan ingelesa,
errusiera eta arabiera hartu zituen eta silaba-aldiko hizkuntza gisa, berriz, frantsesa, teluguera eta yoruba.

67 Esan bezala, hasiera batean bi multzo nagusitan bereizten ziren hizkuntzak (Pike 1945, Abercrombie 1967): silaba-
aldiko eta azentu-aldiko hizkuntzetan. *Mora*-aldikotasunaren proposamena gerora heldu zen (Ladefoged 1975), eta
sarri silaba-aldikotasunaren azpi-taldetzat hartzen da.

froga. Hizkuntzen arteko zoru komun hori ukaezina bada ere (ikus §9.2.1.2 azentueren inguruan, esaterako), bada “zerbait” ikertzaileak apenas frogarik gabe erritmoaren arabera bereizkuntzari eustera daramatzana paradoxikoki, Bertinetto (1989: 100) azaltzen duen gisan: “Perhaps no other phenomenon of phonology is so widely accepted, with so little supporting evidence. A rather paradoxical situation”.

Erritmoaren arabera bereizkuntza horri eusteko arrazoi edo justifikazio nagusienetakoa hizkuntza desberdinetako bertsogintzaren oinarrietan aurki daiteke:

The fundamental justification of this dichotomy might rest on the opposition of the two main systems of versification, respectively based on ‘stress-counting’ and ‘syllable-counting’. The two problems, of course, do not completely overlap, for there exist additional types of versification beyond the just two mentioned, such as those based on tone and quantity. However, there is no doubt that both stress and syllable play a fundamental role in governing the rhythmical tendencies of natural languages, for otherwise we should not find them as bases of metrical regulation.

(Bertinetto 1989: 100)

Aipuari gehi diezaiokegu “mora-aldikotzat” hartutako hizkuntzetan —japonieraz, esate baterako— mora dela, hain zuzen, forma poetikoen oinarria —haikuetan, adibidez— (White eta Malisz 2020: 167). Bertsogintza hizkuntzaren “muturreko adierazpen” edo adierazpen “puru” gisa ulertu izan dute batzuek (ikus Lehiste 1990, kasu): hortik azaltzen da hitz lauz frogatu ezin diren alderdiak (azentu edo silaben nagusitasuna hizkuntza batean, kasu) bertsogintzari erreparatuta argiago azaltzea (hizkuntzen fonologiaren eta sistema metrikoen arteko loturez, ikus §9.2.3.1). Bertinettoen goiko aipuan bertan irakur daitekeenez, ez daude bi metrika mota bakarrik, eta horrek ere erritmoaren arabera tipologiaren ezaugarriez eta izaeraz pentsatzera —ordura arteko oinarriak birpentsatzera— garamatza ezinbestean. Isokronia bere horretan frogatu ezinak hizkuntzen erritmoa ulertzeko moduan eragin eta askotariko ikuskerak eta metodoak garatzea ekarri zuen. Jarraian horietako batzuetan sakonduko dut tipologia erritmikoaren ulerkerak izan duen garapenaren erakusgarri eta lan honetan hartzen dudak ikuspegi kokatzeko asmoz (berrikuspen osoagoetarako, jo Bertinetto 1989, Fletcher 2010 edo White eta Malisz 2020 lanetara).

Isokroniaren kontzeptuak berekin dakartza periodikotasuna eta erritmoaren ulerkera lineala (Patel 2008: 119-120; White eta Malisz 2020: 166), eta kapitulu honen sarreran (§3.1) aurkeztu dudak erritmoaren definizioari jarraiki, zalantzan jar dezakegu hizkuntzaren erritmoa halakoa ote den (hizkuntzaren erritmoaz eman izan diren definizioen berrikuspen eta eztabaidarako, ikus Shattuck-Hufnagel eta Turk 1996, besteren artean). Ondoko aipuak laburbil dezake hizkuntzaren erritmoa aztertzean hartu izan diren ikuspegi nagusiak zein diren:

Rhythm is a temporal phenomenon, but how far speech rhythm and speech timing are commensurable is a perennial debate. Distinct prosodic perspectives echo two Ancient Greek conceptions of time. First, *chronos* [...] signified time's linear flow, measured in seconds, days, years, and so on. Temporal linearity implicitly informs much prosody research, wherein phonetic events are interpreted with respect to external clocks and surface timing patterns are expressible through quantitative measures and milliseconds. Second and by contrast, *kairos* [...] was a more subjective notion of time as providing occasions for action, situating events in the context of their prompting circumstances. Kairos was invoked in Greek rhetoric: what is spoken must be appropriate to the particular moment and audience. Rhythmic approaches to speech that might be broadly classified as 'dynamical' reflect—to varying degrees—this view of timing as emerging from the intrinsic affordances occasioned by spoken interaction.

(White eta Malisz 2020: 166)

Isokronia frogatzeko egindako saiakeren porrotetik abiatuta, arrazoiak ditugu pentsatzeko hizkuntzaren erritmoaren izaera bigarren ulerkeratik dagoela gertuago lehenengotik baino, nahiz eta bi ildoek ekarri izan duten ikerketa oldea, jarraian azalduko dudanez.

3.4.2. Isokronia, ekoizpen-asmo eta oharmenean

Bide horretan, hainbatek proposatu dute *isokronia* intentzioan eta hautematean dagoela ekoizpen fisikoan bertan bainoago⁶⁸ (berrikuspen batzuetarako, ikus Bertinetto 1989 edo Fletcher 2010: 554-557). Classe-k (1939) berak hasieratik aipatzen du badirela isokronia “oztopatzen” edo irregulartzen duten askotariko faktoreak: (azentu-aldiko hizkuntzen kasuan) azentugabeko silaba kopurua, silaba-egitura eta erritmo-unitateen ezaugarri fonetikoak oro har, egitura gramatikala, etab. Hala, isokronia baldintza “egokienetan” soilik azaleratuko da: azentu-taldeek antzeko silaba-kopurua dutenean, silaben osagai fonetikoak antzekoak direnean, osagaien arteko lotura gramatikala antzekoa denean, etab. Horregatik proposatzen du hautematean seguruena tartekak isokronoago direla “benetan” akustikoki direna baino⁶⁹.

Lehistek (1973, 1979) zenbait ikerketa esperimentaletan frogatzen du egitura tenporalak —azentutik azenturako tartekak— hizketaz beterik badaude isokronoago —elkarren artean iraupenez antzekoago— hautematen direla bestelako material ez-linguistikoz beteta baino.

There exists a tendency to hear spoken English as possessing a certain degree of isochronicity. First of all, many actual differences in the duration of interstress intervals may be below the perceptual threshold. Second, listeners tend to impose [a] rhythmic structures on stretches of sounds and thus subjectively to perceive isochrony even in sequences where the durational differences should be above the perceptual threshold. There is

68 Bertinetto (1989: 101-102) “oharmen-ilusionista” (*perceptual illusionists*) izendatzen ditu arrazoibide hori harturiko ikerlariak.

69 Hizkuntzen joera erritmikoak ekoizpen- eta oharmen-asmoetan daudela argudiatzen dute, besteren artean, Donegan eta Stampek (1978) edo Roach-ek (1982) ere.

nevertheless some evidence that speakers also have a tendency to aim at isochrony in production. This emerges from the way in which they treat durational constraints in production.

(Lehiste 1977: 259)

Askotariko oharren frogak agerian utzi izan dute giza-oharmenak estimuluak erregulartzeko eta taldekatzeko duen joera, eredu-erritmikoak “inposatuz” entzundako horretan (gogoratu §3.1 atalean aurkeztutako Allenen [1975] ekarpena, esaterako). Musikaren hautematean ere, *expressive timing* edo “ekoizpen adierazkor” dei dezakegun horretan, entzulea gai da eredu erritmiko jakina hautemateko nahiz eta tenporalki bere “exekuzio zehatzetik” alden (Patel 2008: 114-117).

Hizketan hautemandako isokroniaz Patelek (2008: 143) zehazten duenez, bestelako hotsezko ekoizpenetan baino isokronia handiagoa aditzea —edo aurkezturiko oinen artean luzeago edo laburrago zein den zehaztu ezina— hizketan esanahi semantikoak edo, estimulu konplexu bat izanik, bestelako alderdi batzuek entzulearen arretan interferentzia egiten dutelako izan daiteke. Horri gehitu behar zaio ildo honetan eginiko ikerketetako askok ingelesa izan dutela aztergai; horrek asko mugatzen du adierazpenaren zabaltasuna eta gertakariaren azalpen osoa (berrikuspen batzuetarako, ikus Bertinetto 1989: 101-102 eta Patel 2008: 143-144, 149-154).

Edonola ere, prosodiaren egitekoak ulertzeko hautematean eta esan-asmoan —ekoizpen fisikoarekin kontrastean— arreta jartzea ezinbestekoa da, fonetika eta fonologiaren arteko aldea eta lotura aldarrikatuz (ikus §1.4.1.1). Hizkuntzaren erritmoak giza-oharmenaren arabera dimentsio tenporala duela ukazina da. Kronometroaren arabera iraupen bera duten osagaiak ez dira berdin aditzen esaldi baten hasieran edo amaieran, esate baterako (Lehiste 1977). Ohituak gaude eremu azkeneko luzatzeaz (*final lengthening*) hautematera esaldiak, kasu (ikus §10.2.6.1.1), taldekatzearen oinarrizko joera gisa baina horregatik luzatutako osagaia nabarmenago hauteman gabe, printzipioz. Beraz, milisegundutan iraupen bera duten hainbat tarte hautematean, azkena laburregia irudituko zaigu, esan bezala, taldekatze arrastoen artean baitago eremu-azkeneko luzatzearena. Luzera, iraupena, pertzeptuala dela uzten du gertakari horrek agerian, Lehistek (1977) azaltzen duen bezala.

Hizkuntzaren erritmoaz ari garela, beraz, ezinbestekoa izango da alderdi fonologikoari, ekoizpen-asmo eta hautemateari, arreta jartzea:

Isochrony exists, of course, in the intention and perception of speech rather than in its actuation. There is clever experimental evidence that, although inequities in the number and quality of segments in prosodically equivalent utterances introduce inequities in their timing, the intended (Kozhevnikov and Chistovich, 1965) and perceived (Lehiste, 1977d) timings are in fact equal. Grammatical structure introduces another sort of “irregularity”. Since perception is, in essence, causal analysis [...], the listener, discounting segmentally caused irregularities, can analyze others as reflecting the grammatical intent of the speaker.

(Donegan eta Stampe 1978: 32-33)

Isokronian oinarritua izan edo ez, argi dago hizketa erritmikoki antolatzen dela denboran zehar ekoiztean, eta modu erritmikoan hautematen dugula⁷⁰. Hizketaren ekoizpen-asmoa eta hautematea funtsezko bilakatzen dira hizkuntzaren erritmoaz ari garela, aldakortasun fonetiko edozein izanik ere joera orokor eta erregularrak zein horietatik *fonologikoki* —eta informazio gramatikalez, besteak beste— aldentzen diren eredu-erritmikoak ekoitzi zein hautemateko gai baikara⁷¹ (Lehiste 1977; Donegan eta Stampe 1978; Hurch 1994, 1996; besteak beste).

Hautemate *isokronoagoaz* gain, besteren artean Lehistek (1977) azaltzen duenez, hizketaren ekoizpenean ere unitate jakin batzuen baitan, unitate jakin batzuen arabera, iraupena erregula(r)tze-ko joerak lekukotzen dira. Hitz mailako erregulartzeak ditu batez ere aipagai. Argi dago isokroniaz ari garela ekoizpen-asmo eta oharmenean dagoen *joeraz* ari garela, izatekotan, eta hizpide den erregulartze edo konpentsazio gertakarioi dagokienez, Lehistek berak onartzen du akaso auzi tipologikoa baino gertakari zabalagoa dela, “azentu-isokroniarik” aitortzen ez zaien hizkuntzetan ere topatu baitute halakorik.

3.4.3. Erritmo(ar)en oinarria, fonologia

Isokronia “purua” ezin frogatuak hizkuntzaren erritmoa bestelako osagaietan bilatzera eraman ditu ikerlariak. Dauerrek (1983) ingelesa, thailandiera, gaztelania, italiara eta greziera hautatzen ditu isokroniari dagokionean azentu-aldikotzat zein silaba-aldikotzat harturiko hizkuntzen artean joera desberdinak ba ote diren aztertzeko. Azentuen arteko tarteen iraupenak aztertuta, bere ikerketaren emaitzak argiak dira: joerak antzekoak dira hizkuntza guztietan. Ez dago “isokroniari” dagokionean desberdintasun esanguratsurik ingelesa eta thailandiera bezalako “azentu-aldiko hizkuntzen” —zeintzuetan azentuen arteko tartea antzekoa izatea espero baitzen, tarteko silaba kopurua edozein

70 Hizketa denboran antolatu eta erregulatu egiten da denbora-unitate, erritmo-eredu eta taldekatze-egitura batzuen arabera. Joera erritmiko batzuk agertzen dira; galdera litzateke ea hizketaren erritmoaren funtsa isokronia den —ekoizpen-asmo eta hautematean bada ere—, edo bestelako erregulartasun batzuetan aurkitzen den hizketaren erritmoa (gogoratu, berriz ere, erritmoaz gorago emandako definizioa eta ikus ondorengo §3.4.3 atalean aurkeztu dudana fonologian oinarritutako tipologia), antzeko iraupen-joerak antolakuntza-modu baten ondorioa izanik. Erantzunak ez du alde bakar batean oinarrituta egon behar, noski.

71 Hautemate-modu hori hotsetan fonemak hautematearekin konparagarri da.

izanik ere— eta greziera, italiara eta gaztelania gisako “silaba-aldiko hizkuntzen” artean —zeintzuetan silaben iraupen joera mantentzearen ondorioz azentuen arteko tartekak irregularrago izatea espero izatekoa zen—. Antzeko joerak erakusten dituzte hizkuntza guztiek azentuen arteko tarteei dagokienean. Ondorio eta abiapuntu berri gisa dio azentu-aldiko eta silaba-aldiko hizkuntzen arteko desberdintasuna ez dagoela isokronian; bere ikerketaren emaitzek hizkuntzen antolakuntza tenporalaren joera unibertsalak agertzen dituztela, eta ez desberdintasun tipologikoak:

Consequently, we can conclude that the difference between English, a stress-timed language, and Spanish, a syllable-timed language, has nothing to do with the durations of interstress intervals. Furthermore, stresses recur no more regularly in English than they do in any other language with clearly definable stress. Rather, what these data reflect appears to be universal properties of temporal organization in language. Allen (1975) reviews the literature on the production of motor rhythms: numerous psychological studies have shown that people tend to perform rhythmic tasks, such as finger tapping, at an average rate [...]. The data [...] clearly support this: [...] The regularity in rate across languages is clearly shown by the recurrence of interstress intervals, whereas the rate in terms of syllables per second varies greatly (4.5 to 8.0syll/s). This argues for the reality of a unit at least the size of an interstress interval early in the planning stage of speech production. [...]. Allen (1973) hypothesizes the existence of a "neural clock" which controls the output of both speech and other rhythmic activity. The regularity found across languages in the data of the present study supports this kind of model.

(Dauer 1983: 54)

Hizkuntzen joera eta oinarri erritmiko orokorrak jada aipatuta daudenez, desberdintasun tipologikoen oinarriak zein diren aztertzen jarraituko dut datozen lerroetan. Erritmoaren izaera pertzeptuala, fonologikoa, aldarrikatua zuten ordurako zenbait ikerlarik —Lehistek (1977), besteren artean (ikus §3.4.2)—. Dauerrek (1983: 55), bere azterketaren emaitzen aurrean, proposatzen du ingelesa eta gaztelania bezalako hizkuntzen artean sumatzen ditugun desberdintasunen oinarrian ezaugarri fonologiko, fonetiko, lexiko eta sintaktikoak daudela, ez silaben iraupenak edo azentuen arteko tarteenak berdintzen ahalegintzeko joera. Hala, hizkuntza bakoitzaren erritmoa bere ezaugarri fonologikoak denboran zehar antolatzeko moduak zehazten duela proposatzen du. Ez da ezaugarri bakar bat izango —isokronia, kasu— hizkuntzen erritmoa zehaztuko duena, askotariko ezaugarri fonologikoen multzoa baizik: hizkuntza egituratzen duten askotariko “faktoreen konspirazio koherentea” (*coherent conspiracy of factors*) izango da, Bertinettoen (1989: 108) hitzetan. Agerian geratzen da planteamendu honetan ere fonologiak eta fonetikak duten lotura estua (Bertinetto 1989: 121).

Idea hori garatuz, hizkuntzak ez dira bi kategoria itxi eta dikotomikotan sailkatuko: *continuum* dinamiko bat osatuko dute, bakoitzak aldakorrak diren ezaugarriak izaki. Lerro imaginarioaren mutur batean kokatuko litzateke “azentu-aldiko” poloa eta aurkako muturrean

“silaba-aldiko” poloa —eta silaba-aldikoaren baitan, muturrean, “mora-aldiko” ertza—. Hizkuntzak polo horien artean kokatuko lirateke euren antolakuntza erritmikoaren (ezaugarri fonetiko-fonologikoen) arabera:

It follows that the original dichotomy has gradually lost much of its dichotomic character, and has more and more acquired the aspect of a scalar orientation. Iso-accentual and iso-syllabic languages do not contrast because of some radically different feature they are supposed to possess (or, alternatively, not to possess), but rather because of the varying degree to which they seem to exhibit the various features, phonetical and phonological, which are supposed to contribute to orient a language more towards one or towards the other pole of rhythmical behaviour.

(Bertinetto 1989: 111)

Tipologia fonologikoz ari garela, tipologia prosodikoz hitz egingo dugu ezinbestean (Hurch 2006b). Gorago tipologiaz defendatutako ikuspegiari jarraiki, ezaugarri tipogileen bila ari bagara, hizkuntza-tipoen bizkarrezurra osatzen duten ezaugarrien bila, ez da harritzekoa izango horiek fonologiaren baitan alderdi prosodikoan bilatzea. Azken finean hizkuntzaren alderdi prosodikoak —eredu edo patroi orokor nagusietan oinarrituta— antolatzen baititu denboran taldekaturik hizkuntzaren hotsak (ikus §2, txertatze prosodikoaz). Antolakuntza prosodikoa kontuan hartzeak ezaugarri zein gertakari askoren arteko loturak egitea ahalbidetzen du.

Bertinetto (1977, 1981, 1989) eta Dauer-en (1983, 1987) lanak izan dira mugari erritmoan oinarritutako tipologia birpentsatu, fonologian oinarritu eta ezaugarritzeko orduan. Horiekin batera ildoak elikatu eta garatu dute Donegan eta Stamperen (1983, 2002, 2004; Donegan 1993a) proposamen holistikoak, aipaturiko lanen harira Auerrek (1990, 1993, 2010, 2014) garatutako lanek⁷², eta baita Mayerthalerren (1996) zein Hurchen (2006b, 2008) proposamenek ere —beste hainbatekin batera; ikus Bertinetto (1989), Fletcher (2010: 557-562), Caro-Reina eta Szczepaniak (2014) edo White eta Malisz (2020) berrikuspen edota lan zehatzen bilduma batzuetarako—. Jarraian ikuskera honetan tipo-erritmiko bakoitzarentzat orokorrean onartzen diren ezaugarri nagusiak aipatuko ditut gorago aurkeztutako lanetan oinarrituta, ezaugarriok lotzen dituzten hariak azpimarratzen ahaleginduz⁷³.

72 Testu nagusian zuzenean aztertu ditudan ingelesezko lanak soilik aipatu ditut; horrez gain, Auer-en (1994, 2001 *apud* Caro-Reina eta Szczepaniak 2014) berri ere izan dut.

73 Jarraian ezaugarriak “silaba-aldiko” edo “azentu-aldiko” etiketapean elkarren aurrez aurre aurkezten dira, continuumeko bi muturretan leudekeen ezaugarriak islatuz. Kontuan hartu hizkuntza bakoitzak bere ezaugarri multzoa duela, eta ez dituela zertan mutur bateko ezaugarri guztiak zeharo bete; tartean askotariko mailak eta aukerak daude. Era berean, egileen artean xehetasunen inguruko eztabaida handia aurki daiteke, azentueren eta tipo erritmikoen arteko loturaren inguruan, esate baterako.

3.4.3.1. Silaba azentudun eta azentugabeen arteko bereizkuntza

Azentu-aldiko hizkuntzetan azentudun-azentugabe kontrastea markatu ohi da silabetan denetariko baliabide prosodikoen bitartez: kantitatea (iraupena), tonua, intonazioa, enfasia (intentsitatea), etab. Silaba-aldiko hizkuntzetan, berriz, ez da halako muturreko kontrasterik aurkitzen (Dauer 1987). Horrek oinarritzko bereizkuntza ekar dezake hizkuntza-tipo desberdinen hautematean, Bertinettoen (1989) esanetan: azentu-aldiko hizkuntzetan azentuak —eta azentudun silabek— hartuko du(te) pisuzko garrantzia eta, silaba-aldiko hizkuntzetan berriz, silabek.

The reduced perceptibility of unstressed syllables implies the increased perceptibility of the stressed ones, whereas the relatively high perceptibility of unstressed syllables implies a diminished acoustic contrast between stressed and unstressed syllables, hence a generally higher perceptibility of the syllable unit as such, disregarding stress contrasts.

(Bertinetto 1989: 125)

Azentudun eta azentugabeko silaben bereizkuntza ez da prosodikoa soilik izaten azentu-aldiko hizkuntzetan; ondorio segmentalak ere baditu (ikus §3.4.3.8): fonemek alofono gehiago izango dituzte azentuak eragindako inguruneen arabera eta, oro har, oinarritzko aurkezpenaren eta azaleko ekoizpenaren arteko aldea handiagoa izango da. Silaba-aldiko hizkuntzetan, berriz, ez dira ingurune prosodikoak eragindako hainbeste alofono izango (Dauer 1987: 449). Hizkuntza desberdinen arteko asimetriak aurki ditzakegu alderdi honi dagokionean. Esate baterako, portugesez (azentu-aldiranzko joera duen hizkuntza, Portugalen) ahoskatutako [fzer] katetik zailagoa da *fazer* /fazer/ berreskurazea, gaztelaniatzko (silaba-aldiranzko joera duena) hizkera batzuetako [a'ser]-etik *hacer* /a'ser/ baino. Bide horretan, portugesez hiztun batek, indarrean dituen bilakabideei jarraiki, errazago “berreraikiko” du gaztelaniako forma lexikoa, gaztelaniadun hiztun batek portugesekoa baino. Era berean, azentu-aldiranzko joera duen hizkuntza bateko hiztunak (azentuak eragindako) murriztapen gehiago onartuko ditu (Hurch 2006b: 3, 9).

3.4.3.2. Bokalen nolakotasuna eta kantitatea

Aurreko puntuari loturik, azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan ohikoa da azentugabeko silabetan bokal murrizketak gertatzea, bai luzeran, bai nolakotasun edo kolorean. Esate baterako, ingelesez: *him*, /hɪm/ → /ɪm/ → [ɪ̃]); *of*, /ʌv/ → /ə/). Horri loturik, esanguratsua da ingelesez silaba azentugabe murriztuek ez dutela sarri haien silabagiletasuna galtzen. *I saw him* esaldian, kasu, *saw him* [sɔ̃m] ahoskatuta ere, [m] hotsak silabagiletasunari eusten dio (Hurch 2006b: 3, 9). Silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, berriz, bokal murriztapena ez da horren ohikoa azentugabeko silabetan; bokalek euren nolakotasuna eta iraupena mantendu ohi dute hein handi batean

azentugabeko silabetan ere. Hots katean murrizketarik gertatzen bada, ingurune fonetikoa dela-eta izango da normalean, ez hainbeste(tan) azentuaren eraginez, eta halakoetan sarri murriztutako segmentu edo silaba horiek “guztiz” kendu eta hots-katea birsilabatu egiten da. Frantsesez, adibidez: *chez le garçon* → /ʃel. gar.sõ/ ahoskatuko da, murriztutako *le* silabako bokala (silabagunea) ezabatuz (Dauer 1983: 57; Dauer 1987: 448). Hizkuntza-tipoek bokal inbentarioarekin duten loturaz, ikus Donegan (1993a).

3.4.3.3. *Tempoa azkartzeko modua (allegrostyle)*

Azentu-aldiko hizkuntzetan, *tempoa* azkartzea azentugabeko silaben murriztapen eta ezabatzearen bidez lortu ohi da. Silaba-aldiko hizkuntzetan, berriz, silaba guztien —izan azentudun edo azentugabe— konpresio proportzionalaren bidez lastertzen da hizketa-abiadura (Bertinetto 1977; iraupenezko auzi zenbaiten berrikuspenerako, ikus Bertinetto 1989: 113-116). Gertakari hau kantuetako erritmoarekin lotzen du Hurchek (2006b: 7), silaba-aldiko hizkuntzat hartzen den italierazko zenbait pieza⁷⁴ azentu-aldiko den alemanera itzultzea ezinezkoa litzatekeela iradokiz adibide gisa, hizkuntza bakoitzaren ezaugarri fonetiko-fonologikoez ezaugarri eta balio erritmikoak baldintzatzearen ondorioz. Hizkuntzen arteko aldea musika instrumentala sortzean ere ageri dela proposatu izan da (Patel eta Daniele 2003; Jekiel 2014; ikus §9.2.4.1.3). Hizkuntza bakoitzaren ezaugarriek testu-uztartzea, hitzak musikan txertatzeko modua, baldintzatzen dute alderdi askotan (ikus §5, §8.2.6, §9.2.4 eta §10.2.4).

3.4.3.4. *Silaba-egitura*

Azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzek silaba egitura konplexuagoa izan ohi dute, eta horrek dakar, askotariko silaba motak gertatzea posible denez, silaben luzera (iraupena) aldakorragoa izatea hizkuntza hauetan, silabak osatzen dituzten segmentuen eraginez —besteak beste—. Hortik aurreko atalean Hurchek (2006b) adieraztea, besteak beste, italierazko kantuen efektu erritmiko zenbait alemanez imitatzeko zailtasunak. Silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzek silaba egitura sinpleagoa izan ohi dute, eta horrek ekar dezake batzuetan silaben iraupena (edo horren hautematea) antzekoagoa izatea, aldeak alde, silaba moten aniztasuna ez delako horren handia.

Ohikoen diren silaba motak aztertzen baditugu batzuetan eta besteetan, ikusiko dugu CV silaba egituraranzko eta silaba irekietarako, oro har, joera (askoz) handiagoa dutela silaba-aldiko

74 Madrigalak, kasu: Monteverdiren *Guerrieri et amorosi* aipatzen du.

hizkuntzek azentu-aldiko hizkuntzek baino. Ikus, esate baterako, Dauer-ek (1983) silaba egitura maiztasunak aztertuta eginiko alderaketa ingelesaren (azentu-aldiranzko hizkuntza), gaztelaniaren eta frantsesaren artean⁷⁵ (azken biak silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzak izanik):

2. taula: Silaba-egituren maiztasunak ingelesez, gaztelaniaz eta frantsesez (Dauer 1983)

Ohikoen diren silaba-egiturak eta haien maiztasunak		
Ingelesa (Dauer 1983)	Gaztelania (Dauer 1983)	Frantsesa (Smith 1976)
CV %34	CV %58	CV %56
CVC %30	CVC %22	CVC %19
VC %15	CCV %6	V %10
V %8	V %6	CCV %7
CVCC %6		
Silaba irekiak denetara		
%44	%70	%74
Silaba itxiak denetara		
%56	%30	%26

Silaba-egiturari loturik edo horren ondorioz, azentu-aldiko hizkuntzetan, silaben konplexutasuna dela eta, zailagoa izan ohi da silaben arteko mugak zehaztea, kontsonante taldeak ohikoak izaten baitira hots-katean. Ingelesez, adibidez, *transport* bezalako hitz batean ez da erraza zehaztea non dagoen silaben arteko muga: *tran.sport* edo *trans.port* izan baitaitezke silabatze aukerak (Hurch 2006b: 6). Silaba-aldiko hizkuntzetan, berriz, silaba-egitura erlatiboki sinpleagoa da eta, hala, silaben arteko mugak argiagoak izango dira⁷⁶. Dirudenez, silaba egitura dela eta, segundoko ekoiztako silaba kopurua altuagoa izan ohi da silaba-aldiko hizkuntzetan, baina ez hizkuntza horietako hiztunek silabak azkarrago ekoizten (artikulatzen) dituztelako, baizik eta, egitura sinpleagoa —segmentu gutxiago— dutenez, laburragoak direlako ekoizteko. Gertakari hori informazio dentsitatearekin elkarreraginean ere aztertu izan da (berrikuspen baterako, ikus White eta Malisz 2020: 170).

⁷⁵ Dauerrek (1983: 55) silaba-maiztasunak *testu kolokial* (“colloquial text”) baten azterketaren emaitza direla zehazten du, eta jasotako silaba-motak testuan %5etik gorako agerpena zutenak soilik direla.

⁷⁶ *Diezaiogun* gisakoak ahoskatzean gauzatu ohi ditugun [j] anbisilabikoak eta antzeko adibideak kenduta.

3.4.3.5. *Silaba-kontaketa*

Azentu aldiko hizkuntzetan hitz edo esaldi batek zenbat silaba dituen zehaztea zailagoa izango da, fonema kate baten ekoizpen fonetikoak askotariko aldaerak izan baititzake. Alemanez, adibidez, /haben/ ['habðn] → ['habm] → ['ha^bm] → [ham] → [ham] ahoska daiteke, eta ez da, beraz, beti erraza zehaztea zenbat silaba dituen hitzak (Hurch 2006b: 7). Silaba-aldiko hizkuntzetan ez da normalean hainbesteko aldakortasuna aurkitzen eta edozein ekoizpenetan ere hitz edo esaldi bateko silaba-kopurua zehaztea errazagoa izan ohi da (Bertinetto 1989). Ezaugarri honek, beste batzuekin batera, lotura izan lezake hizkuntza bakoitzean garatutako metrikaren oinarriekin (ikus §9.2.3.1).

3.4.3.6. *Silaba astunak azentudun?*

Silaba astunak azentudun izan ohi dira azentu-aldiko hizkuntzetan —eta silaba arinak azentugabe—, eta silaba-aldiko hizkuntzetan, berriz, ez da halako joerarik. Era berean, azentudun silabak luzeagoak izan ohi dira azentu-aldiko hizkuntzetan. Silaba-aldiko hizkuntzetan, berriz, silaben kantitatea eta azentuerak aldagai independentea(goa)k izan ohi dira (Dauer 1987: 448), gorago §3.4.3.1 atalean adierazi bezala.

3.4.3.7. *Azentuak segmentuak erakartzen ditu?*

Azentuak, azentudun silabak, (inguruko silabetako) segmentuak erakarri ohi ditu azentu-aldiko hizkuntzetan. Horren ondorioz sortzen dira —besteak beste— hizkuntza horietan egitura konplexua(goa) duten silaba astuna(goa)k, gertakari hau §3.4.3.4 atalean aipatutakoarekin lotuz. Silaba-aldiko hizkuntzetan, ordea, azentuak ez du horrenbesteko indarrik. Ez da horren joera ohikoa azentudun silabak inguruko silabetako segmentuak bereganatzea (Bertinetto 1977, 1989).

3.4.3.8. *Bilakabide segmentalen, silabatzearen eta taldekatze prosodikoaren joerak*

Silaba-aldiko hizkuntzetan silaba-egitura optimo edo oinarrizkoeneranzko (CV egituraranzko) joerak aurkitzen dira, silaba astun eta konplexuak sortzea ekiditeko silaba amaierako kontsonante taldeen sinpletzea, epentesiak eta *liaison*-a bezalako bilakabideekin (Dauer 1987: 448). Joera zentrifugo gisa deskriba ditzakegunak aurkitzen dira gehiago silaba-aldiko hizkuntzetan: polarizazioak, fortitioak, disimilazioak (Hurch 2008). Azentu-aldiko hizkuntzetan aurkakoa izango

da nagusi, azentuaren indarrez azentudun eta azentugabeko silaben artean sortzen diren bereizkuntzak direla eta. Hala, joera zentripetoak aurkituko ditugu gehiago: murriztapenak, lenitioak, ahultzeak (Hurch 2008). Gorago §3.4.3.2 atalean hizpide izandako bokalen murriztapena —edo murriztapen eza— adibide egokia izan daiteke.

Aipaturikoekin batera, bilakabide segmentalak gauzatzeko eremu prosodikoa silaba izango da sarriago silaba-aldiko hizkuntzetan eta hitza, azentu-aldiko hizkuntzetan (Auer 1990, 1993; ikus beherago azalpen gehiago). Izan da hierarkia prosodikoan gorago begiratu duenik ere: hala, silaba-aldiko hizkuntzetan, silabaz gain, esaldi fonologikoa proposatzen da unitate erritmiko esanguratsu gisa, azentu-aldiko hitzarekiko aurrez-aurre (van Oostendorp 2000; ikus De Sisto eta van Oostendorp 2018 eta De Sisto 2020 metrikarekiko loturetarako, §10.2.2 lan honetan).

3.4.3.9. *Azentua gauzatzeko moduak*

Azentu-aldiko hizkuntzek azentu lexikoa edo hitz mailako azentua izan ohi dute, luzera, garaiera, ozentasuna eta segmentu kalitatearen elkarreragin konplexu batez adierazita⁷⁷, §3.4.2.1 atalean aurreratu bezala. Silaba-aldiko hizkuntzen artean, berriz, batzuek ez dute azentu lexikorik (frantsesak, kasu) edo, izanda ere, garaiera izan ohi da adierazle nagusia (japonieraz, esate baterako) (Dauer 1983: 58). Azentuaren kokapenari dagokionez, azentu-aldiko hizkuntzek azentu-ereduak ezartzean malgutasun erlatiboa dutela esaten da eta, silaba-aldiko hizkuntzen kasuan, berriz, azentu-ereduak zurrunagoak direla (Dauer 1983; Bertinetto 1989).

Azentuen maiztasuna handiagoa izan ohi da azentu-aldiko hizkuntzetan; azentu (bigarrenkari) gehiago ekoitzi ohi dira hots kate jakinean. Silaba-aldiko hizkuntzetan azentutik azenturako tartea aldakorragoa (silaba kopuruz) eta handiagoa izan ohi da (Bertinetto 1977; Dauer 1983: 58; berrikuspen batetarako, ikus Patel 2008: 141-142).

3.4.3.10. *Ohar eta gogoeta zenbait fonologian oinarritutako tipo erritmikoez*

Bederatzi puntu aipatu ditut, nahiz eta puntu horietako batzuetan ideia bat baino gehiago garatu eta, era berean, erraza den puntuen arteko loturak eta elkarreragina dela-eta hainbat puntu izenburu bakarraren pean biltzea. Xehetasun eta alderdi zenbait aipatu gabe utzi ditut; goian emaniko erreferentziak abiapuntu egokia dira gaien sakondu nahi duenarentzat.

⁷⁷ Silaba-aldikotzat jo izan diren hainbat hizkuntzak —italierak, gaztelaniak, grezierak— ere betetzen dute ezaugarri hau, Dauer-en (1983: 58) arabera.

Atal honen hasieran aurreratu bezala, hizkuntzen erritmoaren oinarria fonologian dagoela proposatu zutenek askotariko ezaugarri multzoa proposatzeaz gain, tipo erritmikoen izaera dikotomikoa ezbaian jarri eta hizkuntzak, gradualki, *continuum* batean kokatzen direla proposatu zuten (Dauer 1983, kasu). Lerro aldakor eta jarraituaren polo batean legoke silaba-aldikotasuna eta, bere muturrean, mora-aldikotasuna. Aurkako poloan, berriz, azentu-aldikotasuna kokatuko litzateke. Ondoko 5. irudian ikus genitzake hainbat hizkuntza *continuum*aren arabera kokaturik. Geziaren ezkerreko muturrean legoke silaba-aldikotasuna (ertzean, mora-aldikotasuna) eta eskuineko muturrean azentu-aldikotasuna:

5. irudia: Hainbat hizkuntza erritmo-tipologiaren araberako *continuum*ean (Dauer 1983: 60)



Japoniera Frantsesa Gaztelania Greziera Portugesa Ingelesa

Dauerrek (1983: 59-60) *continuum*a aurkeztean azaltzen du azentuak hizkuntzaren gertakari fonologiko-fonetikoetan duen egitekoaren araberakoa dela hizkuntzen erritmoa. Azentuak zenbat eta indar handiagoa izan, hizkuntza bat orduan eta gehiago izango da azentuan oinarritua (*stress-based*). Polo bateko ezaugarri edo alderdi tipogilea azentua dela esan genezake, beraz. Aurkako muturra (silaba-aldikoa) zertan oinarritzen den ez du Dauerrek (1983, 1987) horren argi, ezaugarri zehatzak identifikatu arren.

Donegan eta Stampek (1983, 2002, 2004; Donegan 1993a) hizkuntzen arteko bereizkuntza fonologikoa —besteak beste— hots katea denboran txertatu eta antolatzean dauden joera desberdinekin lotzen dute.

Real-time rhyhtm is [...] central to phonology [...]. Beats and measures are the domains into which speech material is fitted, and they are the domains to which the effects of phonological processes are restricted. When too little or too much material is fitted into a beat or measure, the phonological processes that the language has not inhibited apply to fill out the timing or to trim the excess. These processes create the syllable types, consonant formations, tonal patterns, and vowel inventories of languages.

(Donegan eta Stampe 2004: 20)

Haien esanetan, azentu-aldiko hizkuntzek hitzak *beat* batean txertatzeko joera agertzen dute (*one word : one beat*) —*beat*-az, ikus §10.2.1.1.2— eta silaba-aldiko hizkuntzek, berriz, silaba-multzoak taldekatzen dituzte *beat*-etan, ez hitzak, tipologikoki (askoz) luzeagoak izan daitezkeen eta luzera aldakorragoa duten hitzak izan ohi baitituzte. Hala, hitza litzateke azentu-aldiko hizkuntzetan oinarritzeko erritmo-unitate, azentuari eta *beat*-ari loturik, eta silaba, berriz, silaba-

aldiko hizkuntzetan⁷⁸ (Donegan 1993a: 9-11). Donegan eta Stamperen (2004) esanetan, hiztunen joera unibertsala litzateke mora, silaba eta hitz guztiei iraupen bera ematea, baina hizkuntza bakoitzaren egiturak eta antolakuntzak hizketa osagai horietakoren baten gainean gehiago oinarritzera daramatza:

[...] as all speakers have the same phonetically motivated processes, but must inhibit them to speak different languages, so too all speakers are motivated to give moras equal time, and syllables, and words, but they are forced by the structure of their languages to yield on one or more of the principles. [...]

[T]here are two conditions on this kind of word-perfect rhythm: First, there should be hiatus at word boundaries: languages with liaison do not keep words rhythmically discrete and thus tend to time by moras (Greek, Latin) or syllables (Italian, French), not by words. Second, most words must be sufficiently short to fit into a beat: languages with front accent and multiple suffixes (Dravidian, Uralic, Altaic) have words of highly variable duration, and find it easier to time by moras or syllables.

(Donegan eta Stampe 2004: 20)

Beraz, Donegan eta Stamperen arabera, hizkuntzen erritmoaren oinarria segmentu katea denboran antolatzeko moduaren, oinarritzat hartzen den unitate prosodikoaren eta azentua gauzatzeko moduaren arteko elkarreragina dela esan liteke, labur. Oinarri horien elkarreraginetik eratorriko lirateke hizkuntza-tipo bakoitza osatzen duten ezaugarri fonologikoak. Jarraian, §3.4.5 atalean, sakondu dut Donegan eta Stamperen tipologia holistikoa; erritmoan ardaztuta, fonologiaz landa morfologia eta sintaxiko bestelako ezaugarri batzuk ere planteatzen dituzte osotasun baten baitan elkarreraginean.

Auer-ek (1990, 1993, 2014), Donegan eta Stamperen proposamenetik abiatuta, planteamendu murriztagoa egiten du, azken horiek ikuspegi holistikotik proposatutako alderdi batzuk eta hizketaren alderdi tenporala auzitan jarritz. Fonologiaren eremuan, erritmo-tipoen oinarri gisa silaba eta hitza proposatzen ditu.

As a means to mark the primary prosodic unit, initial and final consonants of a phonological word ("rhythmic group") may be strengthened in a stress-timed language phonetically by means not available in intervocalic position, e.g. by aspiration, tensing, (pre-) glottalization, etc. There is therefore a marked difference between word-final and word-initial position on the one hand, and word-medial position on the other hand. In a language with syllable-timing, no such difference will be found; resyllabification will occur across word boundaries, sandhi processes (if any) will be identical within and across words. Thus, while syllable division is difficult in stress-timed languages, word division is difficult in syllable-timed languages.

(Auer 1993: 7)

78 Horri loturik azentu-ereduak ere aipatzen dituzte ezaugarri esanguratsu gisa: silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzek beheranzko azentu-eredua izango lukete (trokeoa, adibidez), eta azentu-aldiranzko hizkuntzek, berriz, goranzkoa (ianbo, kasu), haien esanetan. Hizkuntzaren morfosintaxia ulertzeko bereizkuntza garrantzitsutzat hartzen dute honakoa (ikus §3.4.5).

Hizkuntzen arteko desberdintasun erritmikoak unitate prosodikoetan ardatzen ditu Auerrek (1993, nagusiki) denboraren, iraupenaren nozioa guztiz baztertuz. Goiko zerrendan aurkeztutako ezaugarriak —eta goiko Auerren aipuan irakur daitezkeen beste xehetasun batzuk, besteak beste— silaba edo hitza oinarritzko antolakuntza unitate gisa hartzeari egotzen dizkio. Azentuaren rola (batez ere hitz mailakoa) azentu-aldiko hizkuntzen ezaugarri (hautazko)tzat hartzen du, ez ezaugarri tipogile gisa —erdigunean kokatzen den eragilea bailitzan—. Azentu-aldiko hizkuntzen ezaugarri edo eremu, unitate, tipogilea hitza litzateke Auerren arabera; fonologia hitzaren inguruan eraikitzea. Hala, izena aldatzen die tradizioan *azentu-aldiko* (*stress-timed* edo *iso-accentual*) eta *silaba-aldiko* (*syllable-timed* edo *iso-syllabic*) gisa izendatu izan diren hizkuntzei, *hitz-hizkuntzak* (*word-languages*) eta *silaba-hizkuntzak* (*syllable-languages*) bereiziz:

Languages will either treat the syllable as their basic category, or the phonological word. Accordingly, they may be called syllable languages or word languages. A syllable language is one which dominantly refers to the syllable, a word language is one which dominantly refers to the phonological word in its phonological make-up; in the first case, a maximum number of phonological regularities or processes have as their domain the syllable, in the second case, a maximum number has as their domain the phonological word.

(Auer 1993: 91)

Erritmoaren araberako tipologian fokua unitate prosodikoetan jartzea ekarpen egokia dela esango nuke, unitate prosodikoen —edo horiek eraikitzen dituzten hatsarreen— bitartez zenbait joera tipologiko uler baitaitezke (bilakabide segmental batzuen jokaera, esaterako). Edonola ere, gorago aurkeztutako ezaugarriak berrikusita, zail suertatzen da azentuaren nagusitasunik gabe zenbait joera ulertzea. Auerrek (2014) berak onartzen du badirela ezaugarri batzuk “hitz antolakuntzatik” bere horretan eratorri ezin direnak; silaba-egitura konplexutasuna, horien artean. Hitz prosodikoaren definizioa ere problematizatzen du (Auer 2014: 3-4) esanez erritmoa “hitzean” antolatzen duten hizkuntza batzuen kasuan “hitza” azentuan oinarritzen dela, beste batzuetan bokal harmonian⁷⁹, etab. (ikus §10.2.1.1.2). Auer-en esanetan, silabari edo hitzari lotutako bilakabide eta erregulartasun zenbat eta gehiago aurkitu, orduan eta sendoagoa da tipologia. Arazo gisa planteatzen du hainbat bilakabide biei, silabari eta hitzari, lotzea edo, bete-betean bat ez etortzea joera batekin (Auer 2014: 5). Baina berak ere azaltzen du hizkuntzak etengabeko deriban daudela, aldakortasunean: beraz, ulertzekoa da ezaugarri guztiak bat ez etortzea markatutako poloetako batekin. Horrekin batera, aldakortasun prosodikoa ulertzeko beharrezko izango da sinkronian hizketa kateari eragiten dioten bestelako eragile batzuei erreparatzea, §4 atalean aurkeztuko dudanez.

⁷⁹ Bokal harmoniaren ulerkera beste eztabaidagai bat litzateke, bere horretan. FNren ikermoldean gertakari morfonologikotzat hartu izan da, hizkuntza batean egonkortzen denean bederen (ikus Dressler 1985, esaterako).

Mayerthaler-ek (1996: 206) “silaba-egitura hobetzen duten bilakabidedun” hizkeren eta “silaba-egitura okertzen duten bilakabidedun” hizkeren artean bereizten du, italiar hizkerak aztertuta. Horrekin batera, nabarmentasunak —azentuak— duen funtsezko papera azpimarratzen du, silaba-egiturarekin elkarreraginean:

(1) Connections between syllable structure and prominence:

- The more marked the syllable structure, the more segments in stressed syllables, and the shorter the unstressed syllables (the fewer segments they contain),
- the more prominent a stressed syllable is in a language.

- The less marked the syllable structure, and the more similar in length and number of segments all syllables are,
- the less prominent a stressed syllable is in a language.

(2) Connections between characteristics of nuclei and prominence:

- The more marked vowels and diphthongs contained in the nuclei of stressed vowels, and the more reduced and centralized the nuclei of unstressed syllables,
- the more prominent a stressed syllable is in a language.

- The more unmarked the inventory of the nucleus, the more similar the inventories of the nuclei of all syllables, and the more nuclei tend towards peripheralization,
- the less prominent the stressed syllable is in a language.

(Mayerthaler 1996: 217)

Mayerthalerrek (1996: 217) azaltzen duenez, silaba-aldiko hizkuntzetan —berak *Type I* deitzen dituen horietan— sortzen diren silaba-egiturak eta ekoizten diren segmentuak ez-markatuak dira ekoizpen eta hautematearen ikuspuntutik. Hala, hots kateko segmentuen arteko kontrastea hautematen da, silaben arteko nabarmentasun desberdintasun sotilak dauden arren. Ez dago *figure-ground*⁸⁰ harremanik (Dressler 1996) elkarren ondoan dauden silaben artean. Azentu-aldiko hizkuntzetan —*Type II*, Mayerthalerren arabera—, berriz, silaba-egitura eta sistema bokalikoa markatuak dira. Silaben arteko kontrastea hautematen da azentudun eta azentugabeko silaben arteko egiturazko desberdintasun eta desberdintasun segmentalen bidez. Azentugabeko silabek *background* gisa funtzionatzen dute *foreground* kokapeneko silaba azentudunentzat. Gertakariaz laburbiltzen duenez, “[i]n prosody as in other domains of language, optimization of one parameter can entail disfavoring a second” (Mayerthaler 1996: 218).

80 Terminoa ingelesez mantendu dut, euskaraz ere hala erabiltzen dela eta zenbait esparrutan.

Hurchek (2006b, 2008) azaltzen du fonologian oinarritutako tipologi(et)an proposatutako ezaugarriak bi multzotan bereiz daitezkeela: batzuk azentuak eragindako erregulartasunei loturikoak dira eta beste batzuk, berriz, silaba eraikitzen duten hatsarreei dagozkienak (silabaz, ikus §8.2.1). Beraz, hizkuntzen erritmoa antolatzen duten bi alderdi tipogile daude bere esanetan: silaba eta azentua. Hortik eratortzen dira bi hizkuntza-tipo (ideal, muturreko) nagusiak, tradizioan silaba-aldiko eta azentu-aldiko gisa izendatu izan direnak, ahaztu gabe hizkuntzak *continuumean* daudela kokaturik aipaturiko ezaugarriak askotariko mailetan betez, eta denboran zehar aldatu egiten direla, erritmoari dagokionean (ere). Gaztelania, frantsesa edo italiara bezalako hizkuntzak silaba-aldiko polotik gertuago leudeke —euskara ere silaba-aldiko polotik gertu kokatzen da ikus jarraian §3.4.4—, eta ingelesa eta alemana bezalakoak, berriz, azentu-aldiko polotik. Tartean, beste hainbat hizkuntza (ikus gorago aurkeztutako *continuuma* irudikatzen duen 5. irudia)⁸¹.

Hizkuntza jakin baten fonologia azentuaren inguruan edo silabaren inguruan antolatzen dela esanda ez da esan nahi bata edo bestea soilik dagoela hizkuntza horretan. Gaztelania bezalako silaba-aldiko hizkuntza batean azentuak badu lekua, esate baterako, eta hizkuntza silaba-aldikoa dela esanda ez da esan nahi azenturik ez duela. Esan nahi dena da silabak eta azentuak hizkuntza jakin horretan duten lekua, egitekoak, desberdinak direla eta, gaztelaniaren kasuan, adibidez, silaba antolatzen duten hatsarreek eta horrek dakartzan bestelako ondorioek —bilakabide segmentalak, silaba-egitura, *tempoa* azkartzeko modua, etab.— indar erlatiboki handiagoa dutela maila fonologikoan hizkuntzaren erritmoa antolatzeko.

Es sind selbstverständlich die gleichen Grundprinzipien [Silbenstrukturprinzipien], die den Silbenbau sowie die Syllabierung- und Resyllabierungsprozesse bestimmen, doch sind diese in silbenzählenden Sprachen einfach mit wesentlich stärkerer Radikalität durchgesetzt als in akzentzählenden Sprachen.

(Hurch 2006b: 10⁸²)

Silaba-aldiko hizkuntzetan azentua baden arren, ez du azentu-aldiko hizkuntzetan bezainbesteko indar eta eragin handirik. Argi gera bedi, beraz, silaba-aldiko hizkuntzetan azentua badela eta, kontrara, azentu-aldiko hizkuntzak ere silabetan antolatzen direla. Hierarkia prosodikoaz aritu naizenean azaldu bezala (ikus §3.3), silabak dira edozein hizkuntzatan segmentuak denboran antolatzen dituzten unitateak eta silabak eurak dira, azentu bilakabideen bidez, denboran antolatzen direnak azentu-eredutan. Hizkuntza bakoitzean fonologia antolatzeko silabak —hatsarre

81 Ohartzen naiz azalpenean zehar aurkeztutako adibideak eta hizkuntzak gehienbat Europa mendebaldekoak direla eta horrek asko muga dezakeela munduan zeharreko hizkuntzez dugun ikuskera eta ulerkera.

82 “Esan beharrik ez dago, silaba egituratze printzipio berak direla silabaren osaketa eta era berean, silabatze eta birsilabatze bilakabideak zehazten dituztenak; eta printzipio horiek silaba-aldiko hizkuntzetan oinarritzko indar gehiagoz barneratuak daude azentu-aldiko hizkuntzetan baino”. Itzulpena: Jauregi (2007: 39).

silabikoek— edo azentuak —kanpo-nabarmentasunak— izango du indar handiagoa eta horrek eragina izango du, noski, bestearen ezaugarri eta egitekoetan.

3.4.4. Euskara fonologian oinarritutako erritmoaren arabeko tipologian

Orain artean egindako fonetika eta fonologiazko lanetan silaba-aldiranzko joera duen hizkuntzat hartu izan da euskara (ikus batez ere Hurch 1988c; Oñederra 1998, 2015 eta Jauregi 2007, 2011), edota euskal fonologiaz eginiko askotariko ikerketek ideia hori indartzen dutela esan daiteke (ikus datozen ataleko erreferentziak). Aurreko §3.4.3 atalean zehaztu ditut hainbat ezaugarri, eta euskara horien arabera aztertuko dut orain. Jakin badakit ezaugarri edo alderdi gehiago ere badaudela tipo linguistikoak ezaugarritzen dituztenen artean, baina hautaturiko ezaugarri multzora mugatuko naiz, gero bertsoen analisisian lagungarri izango direlakoan. Ondoko lanak izan ditut oinarri nagusi: Hurch (1988c), Jauregi (2007, 2008, 2015) eta Oñederra (2015). Horrez gain, aurreko ataletan berrikusi eta euskara aztergai izan duten bestelako lanak ere baliatu ditut gai zehatzez aritzeko.

3.4.4.1. Silaba azentudun eta azentugabeen arteko kontrastea eta bokalen nolakotasuna eta kantitatea

Navarro Tomásen (1925) lanean jasotako garaiara (f₀) datuetan oinarrituta, Hurchek (1988: 187) ondorioztatzen du azentuaren gauzatzeaz gauza argirik esan ezin den arren, ziurta daitekeena dela bokalek ez dutela inolako murriztapen esanguratsurik jasaten, nolakotasunari dagokionean behintzat. Navarro Tomásen lanean bi eta hiru silabako hitzen silaba-iraupena aztertuta, eremu azkeneko luzatzeari loturiko iraupen desberdintasunez gain, ez dirudi alde nabarmenik dagoenik azentudun eta azentugabeko silaben artean; ez behintzat azentu-aldiko hizkuntzetan aurkitzen diren mailan. Gerora egindako azterketa akustikoek (Zaldibiako hizkeraz, ikus Etxeberria 1990, esate baterako) ondorio horiek berretsi dituztela esan liteke (xehetasun eta erreferentzia gehiagorako, ikus §9.2.1.1.4).

Argudio horri gehitzen dio Hurchek bere hautemate pertsonalean oinarritutako inpresioa, Navarro Tomásen irudipenarekin ere bat datorrena: euskaraz azentudun eta azentugabeko silaben arteko aldea ez dela beste hizkuntza batzuetan bezain nabarmena:

[...] for the judgment of which I admit for the moment a completely personal approach, the sharpness of vowel reduction in Basque has to be considered of being more of the Spanish-Italian type than of the German-English one. Also the rhythmical structure of Basque songs like «Bedeinkatua» or «Pasaiaiko herritik» by Mikel Laboa points to this direction. They are characterized by very continuous intensity structures without crescendos or decrescendos indicating little intensity changes within a metrical unit, as well as without considerable length changes on the single notes.

(Hurch 1988c: 817)

Hurchen aipua txertatu dut euskararen silaba-aldikotasunaren —edo silaba azentudun eta azentugabeen arteko alde txikiaren— aldeko argudio gisa aipatzen dituelako euskal kantuen erritmo-ereduak eta horien gauzatzea intentsitateari dagokionez. Inpresio hori frogatu beharra dagoen arren, hainbat ikerketak (Patel eta Daniele 2003, Jekiel 2014) musika konposagileen H1 hizkuntza eta beren musika-lanetako erritmo-ereduen ezaugarriak lotu dituzte erritmoaren arabeko tipologiaren ikuspuntutik, gorago ere aurreratu bezala (§3.4.3.3).

3.4.4.2. *Azentuak silaba eta segmentuekin duen harremana eta tempoa azkartzeko modua*

Hurchek (1988c: 820) aztergai du azentugabeko silaben muturreko murriztapenaren onargarritasuna, hautematearen ikuspuntutik. Bere informatzaileei galdetuta ea hizketa erregistroaren arabera posible litzatekeen hizketa-molde arduragabeenetan azentugabeko silabak murriztu edo kendu eta, ondorioz, azentudun silabak inguruko silaben material segmentala erakartzea, ezezko erantzuna argia da bere informatzaileen artean. Esan liteke nolakotasunean murriztutako silabak —bokalak— ez direla oro har onargarrizat hartzen euskaraz. *Presidente*, *solidaritate*, *polizia* eta gisako hitz silabaniztunetan [i] bokala murriztapenik gabekoa behar da, esate baterako, onargarrizat hartzeko hitzok (Hurch 1988c: 821). Horrek ez du esan nahi, noski, silaba kenketarik eta bestelako bilakabide ahultzailerik gertatzen ez denik euskaraz, baizik eta hotsen nolakotasunari eragiten dioten gertakariak ez direla ez ohiko, ez onargarriak. Euskal hizkeren artean bada alderik, edonola ere: ekialdeko hizkera batzuetan onargarriago dira sinkopa eta aferesiak eragindako hainbat kenketa (gogoratu Hualdek 1997: 114-115 jasotako *kártzko* ‘ekartzeko’, *ánktan* ‘hanketan’, *béstkua* ‘bestakoa’, *eskóptkua eta* gisakoak; ikus §9.2.1.4.5).

Horri lot geniezaioke azentu-aldiko hizkuntzek silaba eta, beraz, segmentu murriztapenatarako —eta ondorioz, fonema beraren alofono gehiagorako— duten onargarritasun handiagoa, silaba-aldiko hizkuntzekin alderatuta. Euskara bigarren multzoan koka genezake, oro har, nahiz eta hizkeren artean batzuek azentuaren eragin handiagoa agertzen duten.

Tempoa azkartzea (edo *tempo* azkarragoa) hizketa molde arduragabeen izaten da ohikoago. Jauregik (2004) euskarazko hizketa arduragabeko ekoizpena aztertzen du tresna bidez, silaba-egituraren araberako iraupenak neurtuz, besteak beste, eta egitura itxia eta irekia duten silaben arteko alde esanguratsua topatzen du (emaitzen interpretazio xeherako, ikus Jauregi 2004). Hori hala izanda ere, beharrezkoa litzateke azentudun eta azentugabeko silaben arteko aldea aztertzea, *tempoa* nola lastertzen den hobeto ulertu ahal izateko. Bestalde, Elordieta eta Hualdek (2002) Lekeitioko hizkera aztertuta ondorioztatzen dute azentua ez dela iraupen bidez adierazten (hizkera horretan). Hori silaba-aldikotasunaren aldeko argudio da eta joera hori berrets daiteke euskal hizkera gehienetan; berriz ere, azentuak nabarmentasun handiagoa duela dirudi ekialderagoko hizkeretan, nahiz eta ezin aldera daitekeen azentu-aldiko hizkuntza paradigmatikotzat hartzen diren ingelesarena bezalako joera akustikoekin —zuberera, behintzat; Salaberria (1998)— (euskal hizkeretako azentuaren aldagai akustikoez ikus §9.2.1.4.4). Puntu honetan hizpide den gai nagusira itzulita, euskaraz aztertu eta ikustekoa litzateke ea azentudun eta azentugabeko silaben arteko alde txikia — silaba guztien pareko trataera erritmikoa— mantentzen den hizketa arduragabeen lastertasuna areagotzean.

Aipaturiko lanen ondorioak ikusirik, *tempoa* azkartzeko estrategia nagusi gisa silaba guztien murriztapen proportzionala baliatzen dela pentsa genezake hipotesi gisa⁸³, silaba azentugabeen murriztapena (hizkera gehienetan) ontzat ematen ez dela eta azentua adierazteko iraupena hizkera gehienetan ez dela baliatzen ikusita, besteak beste. Ekialderago kokatzen diren hainbat hizkeraren kasuan, joera bera mantentzen dela pentsatu arren, azentugabeko silaben kenketa gerta daitekeela da aurreikustekoa. Edonola ere, gorago (§3.4.3.2) azaldu da azentu-aldiko hizkuntzetan azentuak eragindako segmentu murriztapenen kasuan sarri geratzen den segmentuak —kontsonanteak— silabagiletasunari eusten diola, ing. (*I*) *saw him* [sɔm] gisa ahoskatuta ere [m] hotsarekin gertatzen den bezala. Silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, berriz, hots kateko murriztapenak gertatzen badira azentuaren eraginez —hori horren ohikoa ez izan arren—, murriztutako segmentu edo silabak osoki kenduko dira, hots-katea birsilabatzea ekarriz. Lehen emandako adibidea ekarriko dut berriz: fr. *chez le garçon* → /ʃel.gar.sõ/ ahoskatuko da, murriztutako *le* silaba ezabatuz (Dauer 1983: 57; Dauer 1987: 448). Euskaraz ekialdeko hizkera batzuetan azentuak eraginda aurkitzen diren kenketa batzuk, beraz, azken mota honetakoak direla esan daiteke. Hala, joeretan silaba-aldikotzat har ditzakegu oraindik, azentuak indar handiagoa duela ukalezina izan arren.

83 Horrek ez du esan nahi silaben iraupenak maila absolutuan parekatzen direnik, euren arteko iraupen desberdintasunak edonolakoak izanda ere, *tempoa* azkartzea silaba guztiak laburtuta lortzen dela baizik.

3.4.4.3. Silaba-egitura eta silaben arteko mugak

Euskararen silaba-egitura erlatiboki sinplea dela esan liteke, azentu-aldiko hizkuntzek izan ohi dituzten silaben egiturekin alderatuta (Hurch 1988c: 819; Jauregi 2007, 2008, 2015). (C)(C)V(C)(C) litzateke euskararen egitura (ikus Michelena [1961] 1990: 485-494). Euskaraz, bokal bakarraz —silaba-guneaz— osatutako silabak aurki daitezke: *a.ma*, *o.ker*, *e.tx*e. Ekina eta silaba-gunea beterik duten silabak ere badira, (C)CV egituraz: *ka.le*, *tre.na*, *kra.be.li.na*. Silaba-gunea eta kodaz osaturiko silabak ere bai, VC(C): *artz*, *antz*, *as.to*, *ar.to*, *il.tze*. Bukatzeko, ekina, silaba-gunea eta koda beterik dituen silaba-egitura ere aurki daiteke, (C)CVC(C): *bart*, *bost*, *flan*, *beltz* (Jauregi 2008: 350).

Ezohikoa da goian aurkeztutako (C)(C)V(C)(C) silaba-egitura osorik beteta aurkitzea (Michelena [1961] 1990: 485-494, Jauregi 2008: 350). Aurki daitezkeen adibide bakanak onomatopeia gisakoak dira: *krausk*, esate baterako. Jauregik aipatuei, gehi geniezazkioke maileguak —*trans*—, beste batzuen artean. Azurmendi eta Olartek (1983) euskara estandarrean idatzitako testuen irakurketan ekoizitako silaba-egiturak eta horien maiztasunak aztertzen dituzte, Jauregik (2007: 302-343), berriz, Zaldibiako hizkera arduragabea ekoizitakoak eta Gaminde et alii (2013), hainbat hizketarako testu irakurketatik ateratako datuak dituzte aztergai⁸⁴ —zehazki, Alozeko, Etxebarriako, Goizuetako, Mugerreko eta Orioko datuak—. Ondoko 3. taulan daude jasota aipaturiko ikerketek bildutako datuak:

84 Hizketa mailak —hizketa jaso edo arduragabea den— eta hizkera motak —tokian tokiko hizkera den edo aldaera estandarra den aztertua— silaba-egituren gauzatzea baldintza dezakete (ikus portugesearen aldez Major-ek [1985] eginiko lana, edo erregistroaren arabera hizkuntzaren baitako aldakortasunaz Heinz-ek [2014] hizkuntza erromantzeaz egindako analisi proposamena; ikus §4). Ikerketa gehiagoren beharra agerikoa izanagatik, aipatutako ikerketen emaitzak euskara tipo erritmikoen arabera —eta beste hizkuntza batzuekiko— behin behinean kokatzeko baliagarri eta esanguratsu dela deritzot, hizkuntza baten baitan aipatutako aldagaiek eragin dezaketen aldakortasuna agerian uzteaz gain.

3. taula: Silaba-egitura maiztasunak euskaraz

Ohikoen diren silaba-egiturak eta haien maiztasunak euskaraz		
Testu irakurriak (Azurmendi eta Olarte 1983 ⁸⁵)	Testu irakurriak⁸⁶ (Gaminde et al. 2013: 9)	Hizketa arduragabea (Jauregi 2007: 389)
CV %59,52	CV %61,63	CV %47,3
CVC %20,69	CVC %21,18	CVC %20,3
V %11,29	V %9,01	V %20,3
VC %6,66	VC %6,55	VC %11,5
CCV %1,15	CCV %1,64	CCVC %0,77
CCVC %0,32		CCV %0,25
CVCC %0,17		
CCVCC %0,03		
VCC %0,01		
Silaba irekiak denetara		
%71,96	%72,28	%67,85
Silaba itxiak denetara		
%27,78	%27,73	%32,12

Bi hizketa moldeetan —hizkera estandarra edo euskal hizkerak irakurtzean zein Zaldibiako hizkera arduragabea— silaba irekiak dira nagusi, aldeak alde, euskararen silaba-aldikotasuneranzko joera berretsiz zenbakitan ere⁸⁷. Irakurritako testuetan silaba-mota gehiago lekukotzen dira, ortografiari lotutako ekoizpenaren ondorioz, ziurrenik. Jauregik (2007: 358-371), silaba-egituraren azterketan ikuspegi diakronikoa txertatuta, XVI. mendetik gaur egun arteko testuen laginak hartu eta silaba itxi eta irekien maiztasunak kalkulatzeko dituzte. Emaitza argia da:

85 Azurmendi eta Olartek (1983), euren datuen berri ematean, silaba-egiturak horrela adierazten dituzte, bikoizturik: CV-CVV, etab. Egitura bera bokalez edo diptongoz osatuta dagoela adierazi nahi dutela ulertzen dut, Jauregiri (2007) jarraiki. Taulako datuak modu bateratuan eman asmoz, adierazpidea sinpletu egin dut, baina uler bedi diptongodun silabak ere ehunekoen barnean daudela.

86 Taula honetan Gaminde et al. (2013: 9) hizkera desberdinetan egindako neurketetatik ateratako datuen batez bestekoa soilik jaso dut.

87 Silaba-egitura kontuan hartu gabe tarte bokaliko eta kontsonantikoak neurtuz eginiko azterketa kuantitatiboek ere euskararen silaba-aldikotasuna berresten dute (Nespor et al. 2011; Jauregi 2021; Robles-Puente 2021, besteak beste).

silaba irekiak dira nagusi menderik mende —ez da denboran zeharreko aldakortasunik ageri—, silaba guztien %70 inguru osatzen dutelarik testu guztietan silaba irekiek.

Silaba-egituraz gehitu behar da euskaraz ozentasun eskalaren hatsarreak betetzen direla oro har. Silaba-egiturari lotuta debeku eta baldintza segmental ugari aurki daitezke, gainera. Egituraren arloari loturik, silaben arteko mugak argiak izan ohi dira euskaraz, are hainbat kontsonanteko taldeak aurkitzen direnean ere (gaiotan sakontzeko, ikus Jauregi 2007; lan honetan §8).

3.4.4.4. *Silaba kontaketa*

Silaben arteko mugei lotuta, silaba kontaketa (silaba kopurua) argia izan ohi da euskaraz. Ez da alemana bezalako azentu-aldiko hizkuntzetan izaten den zalantzarik aurkitzen: *haben* ‘izan’ [habm] ahoskatuta, ea azken segmentua silabagilea ote den eta, beraz, aditzak bi silaba ala bakarra ote dituen, esate baterako (Hurch 1988c: 818). Euskaraz ez da zalantzarik izaten hitzen silaba kopurua zehazteko, silaba-aldiko hizkuntzen bidean. Horrek ez du esan nahi, Hurchek (1988c: 818) argitzen duenez, silaba kopurua hizkuntz eratorpenean aldatzen ez denik, baizik eta edozein bilakabide gauzatuta ere, azkenean ahoskatzen den hots kate horretan silaba kopurua argia dela. Izan ere, bokal ezabatzea (*har (e)zazu*), diptongatzea ((*h*)*a.ma(r)* + (*h*)*i.ru* > *a.maj.ru*) eta bestelako birsilabatzeak gertatu arren, bilakabide segmentalek ez dute gehienetan silaba-egitura konplexuagotzen silaba ekin edo kodan.

Gaur egungo bertsogintzaren metrika silaban oinarritzeak ere indartzen du adierazpena: silabak kontagarri izan beharko dira, bertso-neurria silaba-kopurutan oinarritzen bada; edo, alderantziz: silabak kontagarri izateak ahalbidetzen du bertso-neurria silaba kopuruan oinarritzea (ikus §9.2.3.2.2).

3.4.4.5. *Bilakabide segmentalak, silabatzea eta taldekatzea*

Euskaraz gertatzen diren bilakabide segmentalei (ikus §8.2.4) ikuspuntu tipologikotik begiratuz gero, orokorrean esan liteke euskaraz kontsonante zein bokal bilkura handiak ekiditeko joera dagoela, eta baita kontsonante taldeak elkartzean —eta bestela— hotsen arteko ozentasun-harremanak kontraste handiagoko egiteko ere, silaben arteko muga nabarmenduz. Bilakabide gehienen emaitza silaba-egitura oinarritzkoenera hurbiltzea dela esan liteke. Hitza eremu gisa duten bilakabideak lekukotzen dira baina esan liteke kasu hauetan (ere) ez zaiola kalterik egiten silaba-egiturari; ez behintzat alemana bezalako azentu-aldiko hizkuntzetan gertatzen den neurri berean (bilakabideen inguruko iruzkin zehatzagoetarako, ikus Jauregi 2007: 268-271). Beraz, laburbilduz

esan liteke euskaraz silaba egituratzen duten hatsarre horien kontra egiten ez duten bilakabide fonologiko segmentalak aurkitzen direla nagusiki, joera zentrifugoak (Hurch 2008), silaba-aldiranzko polotik gertuago kokatuz hizkuntza arlo honi dagokionean ere.

Edonola ere, azentuak eragindako bilakabide segmentalak lekukotzen dira, batez ere §9.2.1.4 atalean “ekialdeko hizkera” gisa izendatutakoetan eta erdialdeko eremuan ekialdekoen diren Nafarroa Garaiko eta Gipuzkoako zenbait hizkeratan (Bidasoa bailaran, besteak beste): sinkopak eta aferesiak zein goranzko diptongoak, batez ere. Bilakabideok indar-azentuari lotuta daudela iradokitzen du Jauregik (2011: 333). Joera nagusia silaba-egitura oinarritzorantz egitea izan arren, hizkeren arteko aldea dago, beraz, azentuaren indarrari eta haren ondorio segmental zein silabikoei dagokienez, gorago ere plazaratu bezala.

Silaba baino osagai prosodiko handiagoei dagokienean, hitzaren eremuak badu presentzia zenbait bilakabide segmentalen gauzatzean (ikus Jauregi 2007: 268-271) edo azentu-ereduak antolatzekeo hizkera batzuetan (§9.2.1.4.1), besteak beste. Hala ere, kontuan hartu behar da beste hizkera batzuetan azentu-ereduen antolakuntza ulertzeko esaldira —sintagmaren edo perpausaren zentzuan, kasuan kasuan— jo beharra dagoela (§9.2.1.4.1), eta ohikoa da hitz mugak urtzea (*liaisona* egitea) ere (ikus §10.2.1.2).

3.4.4.6. Azentua eta kantitatea. Azentua gauzatzeko moduak

§9.2.1.4.3 atalean ondorioztatu dudanez, euskal hizkera batzuetan azentuak egiteko morfologikoa bete arren, ez da gertakari orokortua gehienetan eta ez du hizkuntzaren eremu oso handia hartzen. Era berean, azentuaren aldagai akustikoak aztertuz orain artean egin diren ikerketa gehienetan garaiera izan da azentuari loturiko arrasto nagusia. Ematen du, Goizuetako hizkera bezalako kasuak eta ekialderagokoak salbu⁸⁸, euskal hizkeretan iraupena eta azentuera ez direla elkarri loturiko aldagaiak azentu-aldiko hizkuntzetan gertatzen den bezala (ikus §9.2.1.4.4 xehetasun gehiagorako). Hori bat dator silaba-aldikotzat edo mora-aldikotzat jo izan diren zenbait hizkuntzaren ezaugarriekin.

Laburbilduz, berrikusitako ezaugarri eta lanen arabera euskara silaba-aldiko poloranzko joera duen hizkuntza dela ondoriozta daiteke. Hizkeren artean dauden aldeek dakartzaten ñabardurak kontuan hartu beharrekoak dira kasuan-kasuan aztertu nahi den gertakariaren arabera, baina, edonola ere, azentuak indar handien duen hizkeretan ere silaba-aldiko izaera duela argudia daitekeelakoan nago.

88 Gogoratu Jauregik (2011) continuuma iradokitzen duela euskal hizkeren artean ikuspegi tipologikotik.

3.4.5. Erritmoa tipologia holistikoan

Antolakuntza linguistikoa osotasun baten baitan ulertuta, hizkuntza osatzen duten alderdi desberdinak, fonologiatik hasi eta morfosintaxia bezalako osagaietaraino, loturik eta elkarreraginean daudela argudiatzen da Donegan eta Stamperen proposamen holistikoan (Donegan eta Stampe 1983, 2002, 2004; Donegan 1993a). Hala, loturak ezartzen dituzte lehen begi kolpean elkarren artean harremanik ez luketen hizkuntza-ezaugarrien artean —hitz ordenaren eta silaba-egituraren artean, esate baterako—. Donegan eta Stamperena ikuspegi holistikoz proposatutako tipologiaren artean bat da (berrikuspen baterako, ikus Plank 1998). Lan honetan proposamen hori aurkeztuko dut molde teorikoan bat etortzeaz gain, tipologiaz defendatzen dudana ikuspegia jarraitu eta aurreko §3.4.3 atalean aurkeztu dudana fonologian oinarritutako tipologiaren ildo berekoa izanda, ikuspegia hainbat norabidetan zabaltzea ahalbidetzen duelako.

Donegan eta Stampek hizkuntzaren alderdi guztiak ukitzen dituen osagaitzat azentua identifikatzen dute eta, zabalago, hizkuntzaren antolakuntza erritmikoa, hizkuntza-antolakuntza sinkronikoaren eta denboran zeharreko aldaketa linguistikoen —*deribaren*, *drift* deritzonaren, Sapirren (1921) terminoetan— eragile nagusitzat aurkeztuz. §1.4.1.1 atalean esan bezala, FNren molde teorikoak hastapenetatik eman izan dio garrantzia hizkuntzaren antolakuntza prosodikoari, eremu eta baldintza prosodikoak bilakabide fonologiko segmentalen gertagune eta eragiletzat hartuz, bilakabide prosodikoen aurkezpenarekin batera (Donegan eta Stampe 1979; ikus §2). Tipologia holistikoari buruzko lanetan prosodiak —eta zehatzago, hizkuntzaren antolakuntza erritmikoak— hizkuntzaren alderdi segmentalarekin ez ezik, bestelako ezaugarri gramatikalekin duen lotura da aztergai. Proposamen honetan ere tipogilea den ezaugarria bilatzen da: erritmoa da aurkeztu den eragile nagusia. Donegan eta Stamperen proposamena lerro orokorretan behintzat uztargarria da, beraz, hizkuntzen arteko desberdintasun prosodikoak fonologian bilatzen dituztenen proposamenekin —xehetasunak eztabaidagai lirateke, noski—. Fonologiatik hizkuntzaren osotasunera garamatzate Donegan eta Stampek, ikuspegia gehiago zabaltzeko gonbita eginez.

Indian eta Asia hego-ekialdean hitz egiten diren munda eta mon-khmer hizkuntza-familia austroasiatikoen azterketa tipologikoa da haien proposamenaren abiapuntua. Izan ere, munda hizkuntzak haien artean desberdinak izan arren xehetasunei dagokienean, antzeko tipologia dutela esan liteke eta berdin mon-khmer hizkuntzen kasuan. Bi hizkuntza talde horiek jatorri bera dute; aitzin-austroasiatikoa berreraikitzen da bien guraso bezala, baina munda eta mon-khmer hizkuntza-familiak elkarren artean alderatuta, tipologikoki aurkako dira aztertutako ezaugarri guztietan (ikus 4. taula beheerago). Beraz, noizbait antzeko izatetik aurkako izatera igaro dira, arrazoiren batengatik.

4. taula: Munda eta mon-khmer hizkuntza-familien ezaugarriak⁸⁹ (Donegan eta Stampe 1983: 337; 2002: 111; 2004: 3; Donegan 1993a: 2)

	MUNDA	MON-KHMER
Gramatika	Sintetikoa	Analitikoa
Hitz ordena	Buru-azkena: osagarria-burua, postposizioduna	Buru-lehena: burua-osagarria, preposizioduna
Esaldien azentu-eredua	Beheranzkoa: azentua hasieran	Goranzkoa: azentua bukaeran
Hitzen azentu-eredua	Beheranzkoa (trokaikoa)	Goranzkoa (ianbikoa)
Hizkiak	Aurrizki/artizkiak eta atzizkiak	Aurrizki/artikizkiak edo isolatzailea
Erritmoa	Silaba-aldikoa, mora-aldikoa	Azentu-aldikoa
Fusioa	Eranslea	Fusionala
Silaba-egitura	(C)V(C)	(C(ə)) + (C)V(:/V)(C)
Kontsonanteak	Egonkorak/Asimilatzaileak	Aldakorak/Disimilatzaileak
Tonua	Maila-tonua (ezohikoa)	Inguru-tonua (ohikoa)
Bokalak	Harmonia/ Egonkorak	Murrizketak/diptongatzea

Proposamen holistikoaren egileek aitortzen dutenez, egia da munda hizkuntzen ezaugarri asko Indiako eremu linguistikoan hitz egiten diren beste hizkuntza-familia batzuetan ere aurkitzen direla: drabidieraz, indo-arietaz eta tibeto-burmaneraz, kasu. Era berean, mon-khmer hizkuntzen tasunak ohikoak dira Asia hego-ekialdean tailandieraz, txamieraz edo sinitikoz. Antzekotasun horiek direla eta, hizkuntza-ukipenari egotzi izan zaizkio gorago aipaturiko loturak. Edonola ere, badira munda eta mon-khmer hizkuntzetan ezaugarri batzuk haien inguruko hizkuntzetan aurkitzen ez direnak: egia da munda hizkuntzen inguruko hizkuntzak nagusiki atzizkidunak direla, esate baterako, baina munda hizkuntzek aurrizki eta artizkiak ere badituzte. Hizkuntz-ukipen bitartez antzekotasunak azal

89 Lehenago ere erritmoan oinarritutako tipologiaz ari ginela ohartarazi bezala, aurkeztutako ondoko taula ez da ezaugarri-zerrenda huts eta higiezina. Aurkako poloetan dauden ezaugarrien isla izan nahiko luke, betiere hizkuntzen etengabeko aldaketa kontuan hartuta eta ezaugarrien arteko elkarreraginean jarriz fokua, ezaugarri bakoitzaren aldatzeko beregaintasuna ahaztu gabe. Donegan eta Stampek (2004: 28) adierazi bezala: “Table 1 [goian euskaratuta emaniko 4. taula] is simply a table of contents, not a tabulation of invariable associations in these languages nor in languages of the world. Any theories here are in the text, not in the table”.

daitezkeen arren, ezin da azaldu munda eta mon-khmer hizkuntzak tipologikoki ez desberdin soilik, baizik eta elkarren aurkako izatea estrukturalki askotariko mailetan:

[...] when we compare the typologies of Munda languages with the typologies of Mon-Khmer languages, we see that languages of the two groups are not just different in typology: they are *opposite*. This oppositeness, at every level of the structure, could never be explained by diffusion alone. The polar opposition between Munda and Mon-Khmer typologies requires a structural explanation, not just a historical one. As Grierson put it, we are looking at “opposite laws”.

(Donegan eta Stampe 1983: 339)

Arrazoi estrukturalen bila, azentua eta, zabalago, hizkuntzaren erritmoa —erritmo-ereduan aldaketa gertatu izana— proposatzen dute aurkakotasun horren muinean dagoen eragile gisa, azentua baita hizkuntzaren maila guztiak uki ditzakeen osagaia: “we seek a linguistic opposition which might pervade and organize every level from syntax to phonetics” (Donegan eta Stampe 2004: 5); “accent is the only factor pervading all levels of language” (Donegan eta Stampe 1983: 340). Hizkuntzaren antolakuntza erritmiko jakin batek hari loturiko ezaugarri fonologiko eta morfo-sintaktikoak dakartzala argudiatzen dute. Mon-khmer hizkuntzek mantendu bide dute aitzin-austroasiatikoak zuen egituraketa tipologikoa —denboran zehar aldaketak jasan arren— eta munda hizkuntzak izan dira aldaketa tipologikoa gauzatu dutenak, erritmo-ereduan jazotako aldaketa batetik abiatuta, Donegan eta Stampek argudiatzen dutenez.

Goranzko eta beheranzko azentu-ereduak dira abiapuntu Donegan eta Stamperen (1983, 2002, 2004; Donegan 1993a) proposamenean. Gorago, §3.2 atalean azentu-ereduen hobespen prosodikoak aurkeztu ditudanean jaso dut badagoela joera azentuak eremu prosodikoen ertzetan edo ertzetatik gertu kokatzeko (xehetasun gehiagorako, ikus §9.2.1.2). Azterturiko hizkuntza taldeetan, mon-khmer hizkuntzek —eta berreraikitzen den aitzin-austroasiatikoak— goranzko azentu-eredua dute: munda hizkuntzak dira, garai bateko azentu-ereduetatik aldenduz, beheranzko azentu-eredurantz mudatu direnak. Erritmo-aldaketa hau kokatzen dute Donegan eta Stampek, jarraian aipatuko ditudan bestelako hizkuntza-ezaugarri batzuekin elkarreraginean, deriba tipologikoaren muinean.

3.4.5.1. Hitz ordena eta esaldi mailako azentua

Munda hizkuntzak buru-azkenak dira —osagarria-burua ordena izan ohi dute⁹⁰— eta beheranzko esaldi-mailako azentua dute. Mon-khmer hizkuntzak, berriz, buru-lehenak —burua-osagarria— dira eta goranzko esaldi-mailako azentua dute. Bi ezaugarri horien arteko lotura

90 Edonola ere, zenbait munda hizkuntzatan —sora hizkuntzan, adibidez— aitzin-austronesioaren hitz ordena zen buru-lehen ordena eta bestelako arrasto batzuk gordetzen dira oraindik emankor diren zenbait egitura morfologikotan (Donegan eta Stampe 1983: 341).

ulertzeko kontuan hartu beharko da informazio berria azentudun osagai gisa gauzatu ohi dela normalean, azentua berria den elementu horrek bereganatu ohi duela (ikus Kügler eta Calhoun 2020, esate baterako; §4.2.2). Informazio berri hori normalean osagarriaren kokapenean egon ohi da eta, horregatik, osagarria sarri suertatzen da azentudun. Erritmoaren —azentuaren— eta informazio berriaren arteko lotura pragmatiko hori konbentzional bihurtu eta erregulartzearen ondorio litzateke hizkuntzen hitz ordenaren —hizkuntzaren osagaien ordena nagusiaren— arabera goranzko edo beheranzko azentu-ereduak izatea joera orokor gisa, informazioa berria izan ala ez⁹¹.

Hitz ordena ez da, ordea, gertakariaren zati bat baizik. Beheranzko azentu-eredua duten eta buru-azken diren munda hizkuntzak oso aberatsak dira kasu atzizki eta inflexiozko aditz morfologia atzizkidunetan, mon-khmer hizkuntzak eta aitzin-austronesioa ez bezala, azken hauek ez baitute ez inflexiorik ez atzizkirik. Ematen duenez, munda hizkuntza bakoitzak bere kabuz garatutakoak dira aipaturiko inflexio eta atzizkiak, erlatiboki berriak, ez baitirudi aitzin-mundan halako atzizkirik zegoenik. India inguruko gainerako hizkuntzekiko ukipenetik atzizki zehatz batzuk azal daitezkeen arren, Donegan eta Stampek azaltzen dute munda hizkuntzak eremuan dauden gainerako hizkuntzak baino morfologia eransleagoa eta polisintetikoagoa dutela, oro har bestelako azalpen baten beharra utziz agerian aipaturiko ezaugarrien lotura ulertzeko:

The facts of Munda point clearly to independent parallel developments, and therefore they call for an explanation in terms of some factor within the languages. [...] It is only with a change of phrase accent pattern that a change of syntactic and morphological typology occurs. If the accent pattern stays unchanged, so does the grammatical typology. Thus in falling-accented Dravidian, OV ordering and suffixing morphology have survived millenia. And in rising accented Mon-Khmer, VO ordering and prefixing morphology have survived since proto-Austroasiatic.

(Donegan eta Stampe 1983: 342)

Erritmo-ereduak mantenduko luke, beraz, ikerlarion arabera, egonkor hizkuntza bateko tipo sintaktiko eta morfologikoa.

3.4.5.2. *Esaldi mailako azentua eta hitz mailakoa*

Elkarren aurkako diren morfologia eta fonologia ulertzeko, esaldi eta hitz tipologiei begiratu behar zaiela esaten dute Donegan eta Stampek (1983: 342-343), zeharka lotzen dituen esaldi eta hitz

91 Arrazoiketa hitz ordenatik azentu-ereduranzko norabidean eginda, zalantzan jar daiteke ea benetan azentu-eredua den hizkuntz-aldaketaren eragile, edo hitz ordena —informazio berria— kokapenez aldatzearen ondorio. Buelta eman geniezaioke segida logikoari: azentu-eredua aldatzearen ondorioz, eta erregulartasun erritmiko bila, informazio berria, osagarria, kokapenez aldatzen hasten da maila sintaktiko guztietan (Donegan 1993a: 3). Donegan eta Stampek (1983: 340) azaltzen dutenez, munda hizkuntzen aldaketa sintaktiko eta erritmikoa denboran horren atzera geratzen denez, ezin dugu gaur egun jakin zein izan zen lehenago, zerk eragin zuen zer: hitz ordenak azentu-eredua ala alderantziz. Edonola ere, garrantzitsua dena bi ezaugarrien arteko lotura dela azpimarratzen dute.

mailako azentuaren bitartez. Hitz bakarreko esaldiak lirateke gako, hitz-mailako eta esaldi-mailako azentuek bat egiten baitute halakoetan. Munda hizkuntzetan beheranzko esaldi-mailako azentuak bat egiten du hitz-mailako beheranzko azentuarekin eta, mon-khmer hizkuntzetan, berriz, goranzko azentu-eredua aurkitzen dugu hitz eta esaldietan⁹². Hemen joera prosodiko orokorrez ari direla esan daiteke; horrez gain kontuan hartu behar da sarri hitz-mailako azentua lexikoak edo morfologiak gobernatua izan daitekeela (ikus §9.2.1.3), eta esaldi mailakoa printzipio erritmikoei jarraiki gauzatu arren, informazio egiturari zein sintaxiari lotutako arloek ere irregulartasunak ekarriko dituztela joera hauetan (ikus §4.2).

3.4.5.3. Hitz mailako azentua eta afixuak

Mon-khmer hizkuntzek —eta gurasotzat berreraikitzen den aitzin-austroasiatikoak— aurrizkiak eta artizkiak dauzkate nagusiki. Munda hizkuntzek, berriz, zenbait aurrizki eta artizki zahar gordetzen dituzten arren, atzizkiak garatu dituzte. Joera hauek zuzenean lotzen dituzte Donegan eta Stampek (1983: 343) goranzko eta beheranzko azentu-ereduekin. Azentuak nabarmentze (*foregrounding*) funtzioa du, eta normalean ez da hitz baten baitako osagai gramatikal edo klitikorik gauzatzen azentudun, sarri ezta hizkirik ere. Erroa osatzen duten silabetako bat izan ohi da azentudun. Morfoprosodiaz ari dela, Hurchek (1996: 80) azaltzen digu joera hori: morfologiak gobernatutako azentu-sistemen kasuan, erroa izango da errazago azentuaren eremu morfologikoa, eta ez osagai gramatikalen bat.

Azentua hitzen erroari lotzeko joera dagoela dioen adierazpenaren ifrentzuari begiratuta, azentua da klitiko eta hizkiak izatearen arrazoi nagusia. Osagai azentugabeak osagai azentudunari lotzen zaizkio; normalean, elementu gramatikalak elementu lexikoei. Hala, beheranzko azentu-ereduak —azentua eremu prosodikoen hasieran kokatzeak— enklisia eta atzizkitzea bultzatuko ditu eta goranzko-ereduak —azentua eremu prosodikoen bukaeran kokatzeak— proklisia eta aurrizkitzea.

3.4.5.4. Azentua eta erritmoa

Elkargune honetan kokatuko litzateke §4.3 atalean landu dudana erritmoan oinarritutako tipo fonologikoen ideia. Donegan eta Stamperen ulerkeran, bi hizkuntza-tipo nagusi daude erritmoaren antolakuntzari dagokionean: erritmoaren oinarritzko unitatetzat hitza hartzen dutenena, eta silaba

92 Mon-Khmer hizkuntza batzuk monosilabikoak dira —vietnamera edo muong hizkuntza, kasu—. Hauentzat ere goranzko hitz-mailako azentu-eredua berreraikitzen da, etimologikoki galtutako silaba inoiz ez baita azkena, bertan inoiz azentua egon zela iradokiz (Donegan eta Stampe 1983: 343).

—edo mora— hartzen dutenena. Antolakuntza erritmiko horrek ondorio esanguratsuak ditu hizkuntzen fonologian, gorago ere azaldu den gisan. Donegan eta Stampek silaba egitura, kontsonanteak, bokalak eta tonua dituzte hizpide erritmoari loturik, eta esan daiteke proposatzen dituzten lotura eta ezaugarrietako batzuk bat datozela §4.3 atalean xeheago landutakoekin. Donegan eta Stampek lotura egiten dute goranzko eta beheranzko azentu-ereduen eta erritmoa antolatzen duten oinarritzko unitatearen —hitzaren edo silaba zein moraren— artean.

There are two conditions for word-rhythm: First, that there is hiatus at word boundaries; languages which allow liaison fail this condition, and are therefore syllable-timed (French, Italian). Second, that the rhymes of most words are short enough to be spoken in two moras (this may include “triplets” like English *sleepier*); most falling accented languages fail this condition. Because in such languages the whole word may be in the rhyme, including suffixes and enclitics, and therefore they are syllable-timed (for example, the Munda languages and other languages of India, as well as Uralic and Indo-European). The rest are word-timed, e.g. Mon-Khmer languages and other languages of SE Asia, Germanic languages, Portuguese, Old French, etc.

(Donegan eta Stampe 1983: 345)

One word : one beat (hitz bat : beat bat) baldintza aurkezten du Doneganek (1993a), §3.4.3.10 atalean azaldu bezala. Badira hizkuntza batzuk hitzean oinarritzen dutenak erritmoa, eta hainbat baldintza bete ohi dituzte horretarako. §4.3 atalean aurkeztu ditut zenbait eta goiko aipuan ere azaltzen dituzte horietako batzuk Donegan eta Stampek: hitzen artean *liaison*-ik ez egitea (hitzen arteko mugak ez urtzea), edo balio erritmikoa duen hitzaren zatia —errima— *beat* batean —bi moratan— antolatzeko bezain laburra izatea. Finean, antolakuntza prosodikoa hitzaren inguruan oinarritzea nagusiki, silaben eta silaba multzoen inguruan antolatzen dutenekiko aurrez aurre. Donegan eta Stamperen esanetan, aipaturiko baldintzak errazago betetzen dira goranzko azentu-eredua duten hizkuntzen kasuan, hitzen errima askoz ere laburragoa izango baita azentua eremu-prosodiko amaiera inguruan izanez gero⁹³. Beheranzko azentu-eredua duten hizkuntzetan, azentua eremu hasiera inguruan izanik, hitz (ia) osoak izan lezake balio erritmikoa eta, horri gorago esandako bestelako baldintzak gehitzen badizkiogu —beheranzko azentu-eredudunak sarri hizkuntza eransleak izan ohi direla, atzizkidunak, etab.—, ikaragarri zailtzen da hitz bat *beat* batean sartzeko baldintza betetzeko aukera.

93 Hitzetan balio erritmikoa duen atala —errima— azentudun silabatik hitz bukaerara doala ulertzen da, eta silabetan, silaba-gunetik kodara: “In mapping these units [hitz edo silaba] onto time, only the material in the “*rhyme*” of the word or syllable —from the accented syllable to the end of the word, and from the nucleus to the end of the syllable— is rhythmically relevant. The preceding material is rhythmically irrelevant (anacrustic), and can be added or lost without any compensatory changes elsewhere in the rhythmic unit” (Donegan eta Stampe 1983: 345).

3.4.5.5. *Hizkuntza, bertsogintza eta musika*

Tipologia holistikoaren baitan, hizkuntzaren erritmoaren eta hizkuntza bakoitzean garatutako bertsogintzaren eta musikaren ezaugarriak ere harremanetan jartzen dituzte Donegan eta Stampek (1983). Munda eta mon-khmer hizkuntzak aurrez aurre jartzen dituzte bertsogintzaren metrikari dagokionean, lehenengoaren fonologiari —beheranzko azentu-ereduari eta hortik eratorritako gainerako ezaugarriari, zehatzago— lotuz aliterazio bidezko hoskidetasuna eta moran oinarritutako bertso-neurria, eta bigarrenari —goranzko azentu-ereduak eta horri lotutako gainerako alderdiek eraginda— errima baliatzea azentuan oinarritutako metrikari.

Kantuei dagokienean ere aipatzen dute dirudienez munda hizkuntzetan konbinazio-konpas edo aldi desberdineko konpasa dela nagusi (*additive rhythm*), 5/8 gisakoak, kantu monofoniko modalarekin batera. Mon-khmer hizkuntzetan, berriz, ematen du “biderkagarri” diren konpasetan oinarritzen dela musika, 2/4 edo 6/8 erakoetan, eta kantuak sarri direla polifonikoak eta harmonikoak. Ez dute lotura espliziturik egiten aipaturiko ezaugarrien eta hizkuntzazkoen artean, maila orokorrean ez bada. §5, §9.2.3, §9.2.4, §10.2.2, §10.2.4, §10.2.5 sakondu dut hizkuntzaren sistema fonologikoaren eta bertsogintza zein musikaren arteko loturetan, eta egin izan diren proposamenak euskararekin kontrastatu ditut, ahal den heinean.

Ikerlan honetan fonologian oinarritutako tipologiatik abiatuta hizkuntzaren antolakuntza fonologikoak bertsogintzarekin eta testu-uztartzearekin dituen harremanetan sakondu dut, batez ere. Ikuspegi holistikoa aurkeztu eta aldarrikatzetik harago ezingo dut gainerako alderdietan ekarpenik egin. Argi dago etengabeko aldaketan dagoen hizkuntzaren gertakari konplexuari osotasunetik heldu nahi dion proposamena izanik, atalez atal lantzen jarraitu beharreko ikuspegia dela, osotasuna begi-bistatik galdu gabe. Ikerketa berrien ekarpenekin aipaturiko proposamena elikatu ahala sakonago zehaztu ahalko dira ezaugarri edo gertakari tipogileak eta horiekin elkarreraginean dauden alderdiak. Bertinettok (1989: 110) esan bezala: “the details might be wrong, but the line of research might be promising”.

3.4.6. Euskara tipologia holistikoan

Aurreko §3.4.4 atalean silaba-aldikotzat jo dut euskara, orain arte egindako lanetan oinarrituta. Tipologia holistikoaren ikuspuntutik egin diren lanek ere munda hizkuntzen tipologiatik gertu kokatzen dute gaur egungo euskara⁹⁴, arlo gehienetan baitator bat (Igartua 2002, Jauregi 2007, Oñederra 2015). Aurreko atalean garatutako puntuen artean bi nabarmenduko ditut jarraian, Oñederrari (2015) jarraiki, bat-bateko bertsoen prosodiazko gertakari zenbait ulertzeko gako izan daitezkeelakoan: euskararen morfologia eranslea eta buru-azkentasuna.

Gorago ere aipatu dut behin baino gehiagotan *hitz bat* : *beat bat* baldintza (§3.4.3.10 eta §3.4.5.4 ataletan), Donegan eta Stamperen arabera goranzko azentu-eredua duten hizkuntzek errazago betetzen dutena: izan ere, baldintza hori bete ahal izateko, hitzaren errima —azentudun silabatik bukaerarainoko tartea— nahikoa laburra eta luzera ez oso aldakorrekoa izatea da komenigarri: ingelesezko *stead*, *instead*, *steadily* da ematen duten adibidea. Gorago esan bezala, azentua hitzaren hasieran duten hizkuntzak, berriz, nekezago beteko dute baldintza hori, besteak beste, sarri morfologia eranslea izan ohi dutelako. Euskararen azentuerak gainbegiratura (ikus §9.2.1.4.2) ikus daiteke hizkera guztietan ez dagoela beheranzko azentu-eredurik —sarri lekukotzen da, halere—, baina orokorra den ezaugarria da morfologia eranslearena. Hala, *beat*-ean ez dira hitzak txertatuko, hitzen —edo sintagmen— parte diren silaba multzoak baizik. Horrek ekarriko luke erritmoa mailarik oinarritzekoenean silaban ardatzea.

Morfologia eransleari buru-azkentasuna gehitu behar zaio, osagaien ordenari erreparatuz. Alderdiok denboran zehar gauzatuta, oinarri erritmikoan txertatuta, ulertu behar dira. Dirudienez, egitura buru-lehenek informazioaren prozesamendua errazten dute. Horri lotuta Oñederrak (2015: 496) azaltzen duenez:

Egia bada buru-azkentasunak kalte egiten diola hiztunen epe-laburreko oroimenari, alegia buru-lehentasuna hobea dela esaldien informazioaren bat-bateko kudeaketarako, nola ulertu halako egiturak dituzten hizkuntzen irautea (euskara, esaterako)? Areago, nola ulertu halakoak sortzea, buru-lehentasunetik buru-azkentasunera aldatzea hizkuntzak beren historian zehar (munda hizkuntzak, esaterako)? Gabiltzan teoriarik harrigarri gertatuko ez zaigun erantzuna prosodiatik datorkigu. Egitura buru-azkenetan esaldiak, sintaktikoki hartuta, bat datoz esaldi erritmikoekin, unitate erritmikoaren hasierarekin bat baitator esaldiaren hasiera eta unitate erritmikoa bukatzean bukatzen da esaldi sintaktikoa ere. Beraz, sintaxiaren aldetik burua azkenean etortzeak aldrebesten duena, edukiaren prozesatzearen aldetik, esaldi horien ontasun prosodikoak berdintzen du nonbait. Ezin eutsi diot hemen arras aieruz adierazi behar dudana gogoeta bati: uste dut oso aintzat hartzekoa dela unitate sintaktikoen eta erritmikoen arteko lotura hori euskal azentu eta doinuaz hausnartzerako orduan.

94 Euskararen bilakaera diakronikoa ulertzeko ere baliatu izan da Donegan eta Stamperen tipologia holistikoa (ikus Lakarra 2005, 2006 eta beste).

Euskaraz oso perpaus luzeak gerta daitezke. Oso litekeena da horietan antolaketa prosodiko nagusia sintagmakakoa izatea, ez perpauskakoa, are gutxiago, noski, hizkakoa.

(Oñederra 2015: 496)

Azpimarra jarri nahi nuke aipuaren bukaeran plazaratzen den ideian, euskaraz beharbada erritmoa sintagmaka antolatzen dela dioen proposamenean. Ideia hori bera garatzen da ondoko aipuan ere: “Hizkuntza buru-azken eta komunztadura sistema konplexuak dituztenetan erritmoaren bereizgarri izan ohi da esaldi osoak edo, esaldi luzeetan, sintagmak azentu bakarraren azpian biltzea (Donegan & Stampe, 1996; Oñederra, 2015)” (Oñederra et al. 2015: 522).

Euskal hizkeretan azentu-eremu gisa sarri baliatu ohi da hitza baino handiagoa den eremua, esan bezala (ikus §9.2.1.4.1), eta erritmoa sintagmaka antolatzearen ideia modu koherentean lotzen da, beraz, gertakari horrekin. Antolakuntza horrek bertsogintzaren oinarriak baldintzatzen dituela proposatu da beste hizkuntza batzuetan, ikuspegi tipologikotik (De Sisto eta van Oostendorp 2018; De Sisto 2020; ikus §10.2.2.1) eta euskaraz ere nolabaiteko erreferentzia egin zaiola esan liteke (ikus §10.2.2.2). Ildo horri jarraiki, bat-bateko bertsoetako testu-uztartzean erritmoaren maila honetako antolakuntzak taldekatzea baldintzatzen ote duen aztertu dut (ikus, oro har, §10).

3.4.7. Oharmenera eta neurketetara itzulia⁹⁵

Bertinetto (1989: 110) eta gerora Patelek (2008: 135-136) azaltzen dute hizkuntzen tipo erritmikoen bereizkuntzak (hizkuntzalarien) oharmena (izan) duela gehienetan abiapuntu: hizkuntzak erritmo-kategoriatan bereizi dituztela ikerlariak “oharmen-inpresioen” arabera, eta hortik abiatuta bilatu izan dituztela azalpenak fonologian (ikus §3.4.3) edota fonetikan (ikus §3.4.1 atala eta atal hau beheraxeago). Hala, aipaturikoekin batera, ikerketen beste ildo bat hiztunen oharmen-inpresioak testatzea izan da. Hizkuntzak erritmoari dagokionean elkarren artean desberdinak direla frogatzeko asmoz, hiztunen oharmena jarri izan da, beraz, jomugan. Kasu hauetan ez da dagoeneko hizketako unitate jakin baten isokronia zehazki bilatzen dena, “desberdintasun erritmikoen hautematea” baizik, zabalago.

Ramus eta Mehler-ek (1999), esate baterako, japoniera eta ingelesa hautatu, hizketa sintesiaren bidez desberdintasun fonetikoak “ezabatu” eta alde erritmikoak soilik utzita, hizkuntza desberdinetako hiztunak testatzen dituzte, ikusteko gai ote diren alde erritmikoari soilik erreparatuta hizkuntzak bereizteko. Adibidez, frantses hiztunak gai ziren ingelesa eta japoniera bereizteko erritmikoki, bi hizkuntza horiek oharmenari dagokionean desberdinak direlako hipotesia indartuz.

95 Atal hau idazteko Bertinetto (1989), Patel (2008), Fletcher (2010), Caro Reina eta Szczepaniak (2014) eta White eta Malisz (2020)-en berrikuspenetatik abiatu naiz.


Hizkuntza gehiagoren hautematea aztertuta, ordea, marrazkia konplexuago bilakatzen da —polonierak dakartza zailtasunak, beste batzuen artean— (Ramus et al. 2003).

Haur jaioberriekin ere egin izan dira azterketak, hizkuntzaz jabetzeko prozesuan alderdi prosodikoak duen garrantziaz oharturik (ikus Nazzi et al. 1998, 2000, beste batzuen artean) eta, ematen duenez, haur jaioberriak gai dira “silaba-aldiko” eta “azentu-aldiko” gisa identifikatutako hizkuntzen artean bereizteko⁹⁶ (lan horien berrikuspen kritiko baterako, ikus Patel 2008: 137-138 edo White eta Malisz 2020: 174-175).

Oharmen frogekin batera, fonologian oinarritutako tipo erritmikoen proposamenek (ikus gorago §3.4.3) neurketa berrien olatuak ekarri dituzte, isokroniaren bilaketa baztertu eta ezaugarri fonologikoen ordain fonetikoetan jarriz fokua. Ramus, Nespor eta Mehler-ek (1999, Ramus 2002) eginiko azterketetan erritmo tipo desberdineko hizkuntzetan bokal tarteen batz-besteko proportzioa (%V) eta kontsonante tarteen aldakortasuna (ΔC) aztertu zituzten. Bokal tarteen batz-besteko proportzioa (%V) hizkuntza batean, hizketan, aurki daitekeen kontsonante eta bokal ratioari loturik dago. Bokal murrizketak dituzten azentu-aldiko hizkuntzetan tartea txikiagoa da (ingelesez, kasu) bokal murrizketarik ez duten silaba-aldiko hizkuntzetan baino (gaztelaniaz, adibidez). Bigarren aldagaiak, kontsonante tarteen aldakortasunak (ΔC), hizkuntza jakin batean gauzatzen diren silaba-egituren isla izan nahi luke. Ingelesa bezalako azentu-aldiko hizkuntzetan kontsonante tarteen aldakortasuna handiagoa izango da, silaba-egitura konplexuagoak onartuta, hizketan gauzatuko diren silaba-egituren aldakortasuna handiagoa izango baita. Gaztelania bezalako silaba-aldiko hizkuntza batean, berriz, onartzen den silaba-egitura sinpleagoa izanda, egitura-aldakortasuna txikiagoa izango da, kontsonante tarteen aldakortasuna ere txikiagotuz. Katalana (CA), neerlandera (DU), ingelesa (EN), frantsesa (FR), italiara (IT), japoniera (JA), poloniera (PO) eta gaztelania (SP) aztertzen dituzte, eta emaitzek aurreko §3.4.3.10 atalean proposatutako hizkuntza-tipoen continuumaren alde egiten dute.

96 Hizkuntza-tipoak oharmen bidez nolabait bereizteko gai izatea lot daiteke kantuak aditzean hizkuntzak eragindako joera prosodikoak hautematearekin. Gogora datorkit, esaterako, Hurchek (1988) aipatua (§3.4.4.2 atalean azaldu dut sakonago): bere hautemate pertsonalaren arabera, hainbat euskal kanta “silaba-aldikoak” lirateke, ez dutelako eredu erritmikoetan silaben arteko luze-labur desberdintasun handirik ageri, ezta intentsitate alde nabarmenik ere.

6. irudia: Ramus et aliiren (1999: 273) azterketaren emaitzen grafikoa




Gerora Ramus et alii (1999) proposatutako algoritmoan hobekuntzak (Dellwo 2006, esate baterako) eta bestelako neurketak egitea proposatu izan da. *Pairwise variability index* (PVI) deritzona aplikatzea, esaterako, besteak beste hizketa-tempoarena bezalako aldagaiak neutraltzeko asmoz (ikus Grabe eta Low 2002, beste batzuen artean). Askotariko hizkuntzen azterketa akustikoak egin dira aipaturiko algoritmoak eta horien aldaerak baliatuz (berrikuspen batzuetarako, ikus Patel 2008: 126-138; Fletcher 2010: 562-568; White eta Malisz 2020: 172-173; euskarazko berrikuspen baterako, ikus Jauregi 2021: 263-265). Dirudienez, baliatutako algoritmoaren arabera emaitza oso desberdinak ematen dituzte hizkuntza batzuek —thailandierak edo tamilerak, adibidez— (Grabe eta Low 2002, Keane 2006)⁹⁷.

Aipagarria da, beste askoren artean, Nespor et aliiren (2011) lana, euskara kokatzen baitute beste hainbat hizkuntzaren artean⁹⁸ (euskarari buruz sakontzeko, ikus jarraian §3.4.8):

97 Badira lan berriagoak ere, baina aipatuak dira lan honetarako aintzat hartuak.

98 Azaltzen dutenez, jarraian jasotako 7. irudian turkierari, hungarierari, euskarari, finlandierari maratierari eta tamilerari buruzko datuak ordura arte (Nespor et alii 2011-ra arte) argitaragabeak dira; gainerakoak Ramus et aliiren (1999) lanetik hartuak.

7. irudia: ΔC , kontsonante tarteen desbideratze estandarra eta %V, bokalek hartutako denbora tartea erranaldi bakoitzean, 14 hizkuntzatan (Nespor et al 2011: 1153).



Fletcherrek (2010: 566) mota honetako lanen berrikuspen zabala eginda ondorioztatzen du neurketok, zuzenean edo zeharka, hautemandako erritmoari eragiten dioten hizkuntzen ezaugarri fonetiko eta egiturazkoak (fonologikoak) ukitzen dituztela. Era berean, esan behar da molde honetako neurketek ez dutela jotzen erritmoaren oinarrian dagoela proposatu alderdi fonetiko eta fonologikoaren errora; horien nolabaiteko ondorio batzuk jasotzen dituzte. Edonola ere, molde honetako neurketek sarri pertzeptualki edo fonologiazko azterketatik ondorioztatutako zenbait ideia islatzen dituzte; besteak beste hizkuntzen sailkapen gradualarena (White eta Malisz 2020: 173). Aurrez ere esan bezala, iraupenezko neurketa hauen antzekoak baliatzen dira musikaren azterketan ere, tipologikoki esanguratsu izan daitezkeen emaitzekin (ikus §9.2.4.1.3 azalpen sakonagorako).

3.4.8. “Euskararen erritmoa neurtzen”⁹⁹

Euskararen eremuan hizkeren arteko aldeak eta horiek bestelako hizkuntza batzuekiko duten kokapena aztertu dituzte Gaminde et aliek (2013), Robles-Puentek (2021) eta Jauregik (2021), aurreko atalean aipaturiko neurketa-algoritmo zenbaiten arabera. Denek ondorioztatzen dute euskarak silaba-aldiranzko joera duela. Jauregiren hitzetan:

⁹⁹ Atalaren izenburua Jauregiren (2021) artikuluko da.

Euskarazko datuak silaba-aldiko hizkuntzen gunean agertzea zen hipotesi nagusia ikerketa egiterakoan. Ikusi dugu euskara orokorrari dagozkion datuetan hala gertatu dela grafiko guztietan, inguruan daudela silaba-aldikotzat hartu izan diren hizkuntzak, hala nola frantsesa eta italiara estandarra. Alderaketa hau Romano eta Mairano (2010, 2011) autoreek egindako azterketen emaitzei begiratuta egin dugu. Hizkerai dagokienez ere hala gertatu da, oro har, Zaldibiako, Goizuetako eta Ondarroakoarekin. Zuberoako hizkeraren datuak, zenbait grafikotan, azentu-aldiko hizkuntzek dituzten balioen parekoak izateak galderak sor ditzake duen erritmoari inguruan [...]. Aldiz, orain arte ditugun azterketa fonologikoen arabera (Zuazo, 1989) ez dago beste hizkeretatik hain urrun. Mendebalde-erdiko hizkeretatik urruntzen bada ere, hainbestearainokoa al da urruntzea? Zuberoako euskaran ez dago ingelesez eta alemanez dauden kontsonante-bilkurarik silaba kodan, azentu-aldiko hizkuntzen hain bereizgarri den ezaugarria, esaterako. Ez dago, era berean, tipikoki azentu-aldiko diren hizkuntzetako bokal murrizketa handirik, eta bokal-inbentarioa ez da ingelesezkoa edota alemanezkoa hurbiltzen ez kopuruan, ez kalitatean, ez kantitatean. Grafiko hauek islatzen dutenez, bada zer bait Zuberoakoa beste hizkeretatik urrun eramaten duena, silaba-egituratik haratago dagoena, silaba-egituretako emaitzek, emaitza fonotaktikoek ez baitute horrelako alderik islatzen.

(Jauregi 2021: 273)

Robles-Puentek (2021) euskara gaztelaniaren eta japonieraren artean kokatzen du, japonieratik —mora-aldiranzko joera duen hizkuntzatik— gertuago. Euskara eta euskal hizkerak silaba-aldiranzko joera dutela esan daiteke, beraz, oro har, eta ñabardurak ñabardura. Edonola ere, azterketa gehiagoren beharra geratzen da agerian, molde honetako neurketa bidez zein bestelako ikuspegietatik begiraturik hizkuntzen eta hizkeren erritmoari.

3.5. Hondarreko gogoetak

Euskara silaba-aldiranzko joera duen hizkuntzat har daiteke lan honetan egindako berrikuspenaren arabera, betiere hizkeren arteko aldeak kontuan hartuta. Hala, silabak euskararen erritmo-antolakuntzan duen zentraltasuna eta erlatiboki azentuak duen garrantzi txikiagoa aipa daitezke, ñabardurak ñabardura. Hierarkia prosodikoa osatzen duten unitate handiagoei erreparatuta, hitzak bere egitekoa du, baina maiz beharrezko egiten da osagai prosodiko handiagoei erreferentzia egitea (esaldiari: izan sintagma, izan perpaus zentzuan). Ikuspegi holistikoak euskararen errealitate fonologikoa hizkuntza-antolakuntzaren osotasunaren baitan ulertzen laguntzen du, besteak beste morfologia eranslea izateak erritmo-antolakuntzari dakarkiona kokatuz. Aipatutako alorrak funtsezko dira euskarazko bat-bateko bertsoen erritmo-antolakuntza ulertzeko. Corpus azterketa ardatzen duten il-do nagusiak irakurketa tipologikotik abiatutakoak dira, besteak beste:

- Bat-bateko bertso kantatuen silabatzearen azterketak (§8) euskarazko silaba-egituraren konplexutasunean, silaba-egiturari lotutako bilakabide segmentaletan zein hitz mugei ematen zaien trataeran (*liaisona* egiten den edo ez) sakontzeko aukera ematen du.
- Bertsoetako azentu-ereduen aldakortasuna aztertzeak (§9) euskarazko azentuaren izaeraz gogoeta egiteko aukera ematen du azentu linguistikoen eta musikalen arteko harremana aztertuta.
- Unitate prosodikoak kantuan zer-nola gauzatzen diren aztertzeak (§10) hitz lauz hizkuntza-ren taldekatze erritmikoaz jasotakoak kontrastatzeko parada ematen du, hizkuntzak metrikarekin eta musikarekin duen harremanean sakontzeaz gain.

4. Aldakortasun prosodikoa: eragileak eta egitekoak

4.1. Sarrera

Prosodia hizkuntzaren askotariko alderdiek balia dezakete haien egitekoetarako: “all parts of grammar may exploit the resources prosody offers for the expression of grammatical meaning and form”.(Hurch 1994: 210). Morfoprosodia izan dut hizpide aurretik ere §2.4.3 atalean: hatsarre prosodikoen arabera egituratutako azentu-ereduei aurka eginez, egiteko morfologiko bat betetzen duten edo —gertakari prosodikoa ulertzeko— morfologiari erreferentzia egitea beharrezko duten kasuak lirateke (ikus §9.2.1.3 azalpen sakonagorako). Esan daiteke kontrastea dagoela aldakortasun mota horien oinarrian, marka. Hala, joera orokorraren aurkakoa —edo desberdina— den zerbait adierazgarria izango da, markatua, edo adierazgarri izateko aukera izango du, prosodia ez den hizkuntzaren beste alderdiren batek aldakortasuna kudeatzekoa.

Prosodiak —eta zehatzago, ikerlan honen eremuari bagagozkio, hizkuntzaren alderdi erritmikoak— informazio handia eman dezake arlo askori buruz. Batzuetan, aipatu berri den bezala, joera orokorrekiko kontrastez hiztegi edo gramatikaren egitekoren bat adieraziko du. Askotariko egitekoak betetzeaz gain edo horiekin elkarreraginean, inguruneko baldintzen arabera ere aldatzen da prosodia. Hau da, helburua ezer (linguistikoa) adieraztea izan gabe inguruneko baldintzen ondorioz aldatzen dira ezaugarri prosodikoak; horrela prosodiak testuinguru edo baldintza jakinen

berri ematen du, bidenabar. Hizketa *tempo* edo lastertasuna hiztunaren egoera fisiologiko zein psikologikoaren arabera aldatzea izan daiteke hori ulertzeko adibide egokia (Clark et al. [1990] 2007: 328-329): hizlaria urduri dagoenean azkarrago hitz egitea, kasu, berak hala nahi izan gabe, eta entzuleek urduritasun gisa interpretatzea *tempo*a lastertu izana.

Jarraian hizketaren prosodiaren alderdi erritmikoan —azentu-eredu eta taldekatzean, batez ere— gauzatzen den aldakortasunaren eragile eta egitekoei erreparatuko diet, gerora bat-bateko bertsoen azterketara hurbilpena egitean kontuan hartzeko halakoak.

Erraz ikusiko denez, arlo gehienei dagokienean azalean geratu da berrikuspena, gaiaren inguruko lan edo gogoeta batzuen aipamen hutsean¹⁰⁰. Iradokizunean geratuko da gai horiei lotutako bat-bateko bertsoen analisi proposamena ere —ez bada abiapuntuan— hemen aurkeztutako ataletako bakoitzak merezi baitu sakoneko lanketa eta analisisa (ikus §10.4.1.4.2). Garrantzitsua iruditu zait, halere, jarraian aurkeztu ditudan eragileen eta aldakortasun prosodikoaren arteko loturak mahai-gaineratzea, aurrera begira euskarazko bat-bateko bertsoen prosodiaren azterketan kontuan hartu eta gara daitezten.

4.2. Morfo-sintaxiaren, semantikaren eta pragmatikaren sareetan

Jarraian morfosintaxizko, semantikazko eta pragmatikazko gaiak izango ditut hizpide. Sarri zail suertatzen da gertakari baten muinean aipaturiko hiru arloetako zein dagoen zehaztea; maiz hirurak, edo hiruretatik bi, izaten baitira —beste osagai batzuekin batera— elkarreraginean. Fokua izan daiteke horren adibide¹⁰¹ eta fokuaena bezalako gertakariak prosodian (aldakortasun prosodikoan) duten eragina azaleratu nahiko nuke datozen lerroetan.

Hala aurkeztuko ditut morfologiatik hasita semantika, pragmatika, sintaxia eta diskurtso-egiturari lotutako gaiak eta horiek prosodiarekin hizkuntza batzuetan duten harremana.

4.2.1. Morfologiak prosodia kudeatzen duenean

Morfoprosodia aipatu dut hainbatetan dagoeneko; morfologiak —zentzurik zabalenean— gobernatutako prosodia (azalpen xeheagorako, ikus §9.2.1.3). Azentu-ereduek ezaugarri

100 Atal honetan fonologiaz kanpoko gaiak aipatzean (sintaxi, semantika, pragmatika eta komunikaziozko gaiez ari naizenean, esaterako), modu orientagarrian baliatuko ditut jakintzagai bakoitzaren inguruko kontzeptuak, inongo molde teorikoren ulerkerarekin lerratu gabe, oraingoz. Horrek gaiotako bakoitza merezi bezala lantzea eskatzen du eta kasu honetan, esan bezala, azalean geratuko naiz, ikerketari ezarritako mugak direla-eta.

101 Aztertzen den arloaren, ikuspuntuaren, eta abarren arabera desberdina izango da gertakariak ematen den azalpena: sintaxian edo pragmatikan ardaztua, kasu. Lan honen helburua ez da hori konpontzea.

morfologikoak adierazteaz gain, azentu ereduak eremu morfologikoen arabera ezar daitezke hizkuntza batzuetan, ez eremu prosodikoen arabera. Maori hizkuntzan, esate baterako, joera orokor gisa azentua *erroko* lehen bokal luzean, edo diptongoan, edo lehen silaban —hurrenkera horretan— ezartzen da (Hohepa 1967, *apud* Hurch 1996: 79-80). Hobespen orokor gisa honakoa proposatzen du Hurchek: maila paradigmaticoan azentua ezartzeko eremu gisa hitzaren erroan dagoen silabaren bat nahiago da eratorpenezko morfemaren bat baino eta, era berean, eratorpenezko morfemaren bat azentudun gauzatzea nahiago da flexiozko morfemak hala gertatzea baino. Ez dirudi sistematikoki afixuak (*affixes*) azentuduntzen (*accentuate*) dituen hizkuntzarik dagoenik, baina badaude, ordea, azentua hitzen erroetan soilik ezartzen duten hizkuntzak. Hobespen horren arrazoia erroek duten pisu lexiko eta semantikoan datza, batez ere. Horrekin batera, esanguratsua izan liteke erroek afixuen aldean duten konplexutasun fonologikoa, baita murriztapen gutxiagoren mende egon ohi direla ere. Eratorpen afixuak eta afixu gramatikalak alderatuta, eratorpenezkoak izan ohi dira morfosemantikoki gardenagoak, hots-egiturei dagokienean anitzagoak eta egitura prosodiko bat errazago onartzeko modukoak (Hurch 1996: 80). Joera horri egiten diote erreferentzia Donegan eta Stampek (1983, 2002, 2004; Donegan 1993a) euren tipologiaren planteamendu holistikoa, azentu-ereduen eta hitz ordenaren arteko loturaz ari direla (ikus §3.4.5.1).

Erro eta hizkien arteko bereizkuntza kategoria gramatikaletara zabal daiteke azentua ezartzeko joerari dagokionean, funtzio eta eduki hitzen artean desberdintasun prosodikoak aurkitzen direlako. Sarri azentudun gauzatzen dira eduki hitzak, eta funtzio hitzak azentugabe(tu) (adibidez, islandieraz; ikus Árnason 2009: 285). Xeheago, azentua jasotzeko lehentasun eskalak proposatu izan dira kategoria gramatikalararen arabera. *Izena > aditza > preposizioa > pertsona izenordaina* gisako hurrenkerak proposatzen dira, esate baterako, ingeleserako, islandierarako eta beste hizkuntza batzuetarako, esaldi-mailako azentua jasotzeko lehentasun ordenan (ikus, besteak beste, Ladd 1996: 187-193; Hayes 1989 edo Árnason 2009: 285-286)¹⁰².

4.2.2. Zama semantikoaren eta informazioaren berritasunaren eragina

Hitzak kategoria berekoak izanda ere, duten zama semantikoak badu eragina egituratze prosodikoan, hizkuntza batzuetan behintzat taldekatzeari ere eraginez (koreeraz, ikus Jun 1993, esaterako). Hala, sintagma jakin baten baitako izen batek zenbat eta zehaztasun handiagoa edo aberastasun semantiko handiagoa izan (‘persona’ vs ‘bertsolaria’, esate baterako), aukera gehiago

102 Interesgarria da joerok bertsogintzan eta testu-uztartzean ere isla daitezkeela (ikus bertsogintzan Hayes 1989 eta testu-uztartzean Rodríguez-Vázquez 2010, adibidez).

izango dira izen horrek, berak bakarrik, eremu prosodiko bat —hitz prosodiko bat, demagun— osatzeko, perpauseko (esaldiko) gainerako osagaietatik bereiz¹⁰³.

Ahoskatzen diren hitzen berritasunak edo, oro har, informatibotasunak ere eragin dezake prosodian, maila pragmatikoan duen eraginagatik. Esanguratsua izan daiteke hitzak berriak, ezohikoak ote diren edo ohikoak, ezagunak, etab. Hitz berriak prosodikoki nabarmenagoak izan ohi dira sarri, hiztunak askotan ezezagunak edo ezohikoak diren hitz horiek argiago, eremu bereizian edota nabarmenago ahoskatzeko ahalegina egingo baitu —testuinguruaren eta bestelako aldagaien arabera, betiere (ikus aurrerago §4.3 atala)— (ikus, adibidez, neerlanderaz, van Donzel 1999; koreeraz, Jun 1993 edo islandieraz, Árnason 2009).

4.2.3. Fokua

Aurrekoekin batera prosodian eragina izan ohi duen gertakaria fokuarena da. Esaldiko osagaien bat nabarmentzeak prosodiaren taldekatzean, azentueretan —hitzen azentu-eredu eta luzeran— eta intonazioan izan dezake eragina, besteak beste. Hizkuntzatik hizkuntzara alda daiteke fokua gauzatzeko modua, baina kasu guztietan gertatzen da nolabaiteko nabarmentze prosodikoa (ikus, adibidez, koreeraz, Jun 1993; islandieraz, Árnason 2009; AEBetako ingelesaz, Paraguaiko guaranieraz, Marokoko arabieraz eta k'itxez, Steindel Burdin et al. 2015; berrikuspen batzuetarako, ikus Shattuck-Hufnagel eta Turk 1996 edo Fletcher 2010).

Fokua izan ohi da azentua bestela “harrapagaitza” den hizkera edo testuinguruetan azentua nabarmenago aurkitzeko gunea. Euskaraz aditz aurreko osagaia da adierazpen markatugabeetan nabarmentzen dena —foku zabala (*broad focus*) deiturikoaren kasuan— eta, hizkera askotan, intonazio bidez gauzatzen dela dirudi, nahiz eta hizkeratik hizkerara —eta are pertsonatik pertsonara— aldatu fokua adierazteko modua. Euskaraz fokuari dagokionean gehien aztertu den hizkera Bizkaiko kostaldekoa dela esan liteke (ikus Elordieta 2007a, 2007b, etab.). Hori dela eta, jarraian kasu zehatz hori izango dut hizpide, fokua prosodian eta euskaraz izan dezakeen eraginaren berri emateko. Etorkizunean sakonago ikertu beharrekoa da gainerako hizkeretan fokua nola gauzatzen den¹⁰⁴.

Bizkaiko kostaldeko hizkeretan ematen du hitz edo osagai ‘markatu’ eta ‘markatugabeek’ eragina dutela intonazio-ereduaren gauzatzean (ikus §9.2.1.4.3). Osagai markatuak —bestela ere

103 Gertakari prosodiko eta semantikoen arteko harremana sakonago lantzen du Jun-ek (1993), adibidez, koreera aztertuta.

104 Erdialdeko azentuera baliatuz gauzatutako euskara batuaz, ikus Elordieta eta Hualde (2014). Mitxelenak (Michelena [1961] 1990: 581-582), besteak beste, hainbat ohar egiten ditu Erreterriako hizkerako fokua eta bestelako enfasi eta taldekatzeaz, testuinguruaren araberrako aldakortasuna ere aipagai izanik.

garaiera-azentua dutenak— *foku hertsia* (*narrow focus*) gisa gauzatzen direnean, fokalizatutako osagaiaren intonazio-eredua garaiera (f0) handiagoarekin azal daiteke. Hala ere, ohikoa izan daiteke *foku zabala* (*broad focus*) gauzatzen duen garaiera berberetan adieraztea foku hertsia ere. Hori hala, hiztunek balia dezaketen beste estrategia bat foku aurreko osagaiaren intonazio-eredua aldatzea izan daiteke, garaiera gailurra silaba postonikora atzeratuz edo intonazioa modu jarraian igotzeaz (*continuation rise*) baliatuz. Arrasto prosodiko (*prosodic cue*) horiek informazio ezaguna edo topikoa adierazteko baliatzen diren berberak dira, eta horiekiko kontrastean adieraz daiteke, beraz, fokua (Elordieta 2007b: 6)¹⁰⁵.

Foku hertsia kontrastiboa (*narrow contrastive focus*) gauzatzean, kontrastiboa ez den fokua baino nabarmenagoa den garaiera (f0) igoera gauzatzen dute hiztunek. *Nóren alabia topa dosula? Alaznena? Es, AMÁIEN alabiá topa dot* esaldian, adibidez (Elordieta 2007b: 10). Era berean, esanguratsua da fokalizatutako osagaiak sarri intentsitate eta luzera handiagoa izan ohi duela, eta Elordietak (2007b) *Intermediate Phrase* gisa definitzen duen unitate prosodikoa mugatzen duten intonaziozko gertakariak deskribatzen ditu (ikus, besteak beste, Elordieta eta Hualde 2001, 2003b; Elordieta 2007b; hizkera honetan mendeko perpausetako fokuan sintaxiak eta prosodiak duten elkarreraginean sakontzeko, ikus Elordieta et al. 2018).

Fokuari loturik, enfasis ahoskatutako hitzak prosodikoki nabarmenagoak izan ohi dira, luzeago gauzatuz, esate baterako, AEBetako ingelesez (Cooper et al 1985, besteak beste). Euskaraz egindako ikerketak aztertuta aipa daiteke Errenteriako hizkeran, eremuko lehen silaban gauzatzen dela enfasia, eredu markatu gisa, esate baterako (ikus Irurtzun 2004: 2078, besteak beste).

4.2.4. Prosodia eta sintaxiaren arteko harremana

Gaur egun arte heldu den eztabaidagaia da prosodia eta sintaxiaren arteko harremanaren izaerarena. Oro har onartua dago hizketaren egitura sintaktikoa eta prosodikoa ez datozela guztiz bat, egitura sintaktikotik bakarrik ezin dela antolakuntza prosodikoa ondorioztatu, nahiz eta alderdi sintaktikoaren eragina prosodian ukaezina den modu batera edo bestera. Ideia horretatik abiatuta

105 Hizkera hauetan foku hertsia adierazteko osagaiak “aldez aurretik” nolabaiteko azentua behar du, izan markatutako hitza delako edo aditz aurreko “foku” posizioan dagoelako berez. Hala gertatzen ez den kasuetan —‘markatu gabeko’ osagaia ez dagoenean aditzaren aurreko posizioan— osagai markatubeak ezin du garaieraren araberako inolako nabarmentasun gehigarrik jaso. Esate baterako *Noren dirua galdu duzu?* galderaren erantzuna *NEBIEN diruá galdu dot* izanagatik, *nebien* fokalizatutako osagaiak ez luke garaiera aldetik nabarmentasun handiagorik jasoko, osagaiak aldez aurretik ez baitu inolako azenturik. Ondorengo osagaiarekin (azentu) taldean joango litzateke (Elordieta 2007b: 7-8). (*Amáien*) (*alabiá*) *topa dot* perpausean, berriz, aditzaren aurreko bi osagaiak azentudunak izanik —*Amaia* markatua delako eta *alabia* aditz aurreko osagaia—, bietariko edozein markatu ahalko litzateke foku gisa, osagai bakoitzak azentu talde bat osatzen duelako, Elordietaren (2007b: 8) arabera (xehetasun gehiagorako, ikus Elordieta 2007a eta 2007b, besteak beste).

zehaztapen estuagoak egitea irristakor suertatzen da, hizketa erregistroaren, diskurtso-egituraren, *tempoaren* edo hizkuntzaren araberako aldakortasun oparoa aurki baitaiteke hizketan, sintaxiaz gain bestelako eragile batzuek ere antolakuntza prosodikoan eragiten dutela utziz agerian (berrikuspen eta hizkuntza batzuen azterketarako, ikus Shattuck-Hufnagel eta Turk 1996; Jun 2003; ikus kapitulu honetan jasotako askotariko eragileak).

Unitate prosodiko handien mailan badirudi osagai sintaktikoen muga nagusienak eta muga prosodikoak bat etorri ohi direla (ikus Klatt 1976, adibidez; erreferentzia gehiagorako, ikus Shattuck-Hufnagel eta Turk 1996). Euskaraz ere, beste edozein hizkuntzatan bezala, perpaus sintaktikoak eredu prosodiko jakinez mugatu ohi ditugu.

Enuntziatu parentetikoak (*parentheticals*), erlatibozko ez-murriztaileak (*nonrestrictive relatives*), makulu hitzak eta makulu galderak (*tags, tag questions*) espletiboak (*expletives*), zerrendak edo bokatiboa gisako egiturak aztertuta ere badirudi badirela murriztapen sintaktikoak taldekatze prosodikoa egituratzean, aipaturikoak hizketan eremu prosodiko bereizietan ahoskatzeko joera lekukotzen baita (Selkirk 1978; Nespor eta Vogel, 1986, Shattuck-Hufnagel eta Turk 1996: 197, 211; euskaraz, ikus Elordieta eta Hualde 2014 eta Alberdi 2014, beste batzuen artean). Bizkaiko kostaldeko euskal hizkeretan, esate baterako, zerrenda bateko osagaiak zein enuntziatu parentetikoak *intonazio esaldi* gisa ahoskatzen dira (Elordieta eta Hualde 2014: 417-418).

Aipaturikoekin batera, prosodia eta sintaxiaren arteko nolabaiteko lotura badela adierazteko baliatu ohi den beste argudioetako bat desanbiguatze prosodikoarena da: sintaktikoki “azalean”, hots katean, anbiguo liratekeen perpausak argitzeko baliatu ohi da sarri prosodia. Ingelesez, adibidez, *tempoa*, azentu-eredu aldaketak, etenak edota eremu azkeneko luzatzeak baliatzen dira desanbiguotze horretarako, besteak beste (ikus adibidez Lehiste 1973, 1977; Donegan eta Stampe 2004: 30-31; gaiaren inguruko garapen handiagorako eta erreferentzietarako, ikus Jun 2003). Jarraian aurkeztutako adibideetan, kasu, azpimarratutako tartean azkartu egiten da hizketa *tempoa*, gertutasunaren printzipio topologikoari jarraiki (ikus, adibidez, Dressler 1996) elkarrengandik gertuago —azkarrago— ekoiztako hori talde beraren partetzat hautematen lagunduz:

It's one of those reply-immediately-in-five-lines-or-less memos!

Is the How to write English course on this year?

(Crystal 1969: 152-153, *apud* Clark et al. [1990] 2007: 328)

Azentu-eredu aldaketa bidezko desanbiguotzearen adibidea izan daiteke ondoko ingelesezkoa, azentuaren izaera tenporala agerian utziz¹⁰⁶, Donegan eta Stamperen esanetan:

106 Izan ere, “accentuation is not merely prominence but prominence in *time*” (Donegan eta Stampe 1983: 344).

It is this temporal character of accent that explains the familiar shift of accent of e.g. *Chi'nese* to '*Chinese* in phrases like '*Chinese 'language 'teacher* (teacher of the Chinese language), since the abutted accents in *Chi'nese 'language 'teacher* (language teacher who is Chinese) entail a “rest” between Chinese and language, corresponding to their greater semantic distance. [...] What goes together in sense goes together in time. And therefore must contrast in accent.

(Donegan eta Stampe 1983: 344)

Ematen duenez nahikoa da azentuen arteko tartea handitzea bi osagaien arteko muga zehazteko, hizketari dagokionez behintzat, azentuen arteko tartea handitzea espero izatekoa den eredutik aldentzen baita (Lehiste 1977: 262). Ideia hori Hurchek (1994, 1996) morfoprosodiaz azaldutakoarekin lotzen da: prosodiak egiteko morfologiko bat badu —edo bestelako egitekoren bat, gehi genezake— hizkuntza bateko eredu prosodiko orokorren aurka egiten duen azentu-eredu edo gertakariren batez adieraziko da bere formarik idealenean, eraginkorra —hautemangarria— izango bada (eredu markatua).

Euskaraz, Gaminde et al. (1998) silabatzea —“silabifikazioa”, haien hitzetan— aurkezten dute esaldiak desanbiguatzeko arrasto edo baliabide gisa, beste batzuen artean. Gatikako euskararen oinarrituta, *oin.ez* ‘orain ez’ eta *oi.nez* ‘oinez’ segmentu katearen bereizketa ematen dute adibidetzat, baita ((*iru txakur*) (*andik*) (*etor dire*)) ‘hiru txakur handik etorri dira’ vs ((*iru txakur andik*) (*etor dire*)) ‘hiru txakur handiak etorri dira’ (Gaminde et al. 1998: 94-95). Lehen perpausean *txakur* eta *andik* bi unitate prosodiko desberdinetan leudeke —sintaktikoki ere ez lirateke osagai beraren parte— eta silabatzea ere elkarrengandik bereiz gaiztatuko litzateke. Bigarrean, berriz, bi hitzak lirateke subjektuaren parte, eta *txaku.ran.dik* gisara silabatuta ahoskatuko litzateke ziurrenik. Silabatzeak, beraz, beste hainbat arrasto prosodikorekin batera batzuetan, taldekatze prosodikoa adieraziz hizkuntzaren egitura sintaktiko-semantikoaren berri eman diezaguke (ikus §10.2.6.1.1 atala). Gorago aurkeztutako (*ez*) (*dakienarentzat*), (*eztakienarentzat*) *baizik* (Oñederra 2004: 68) gisako multzoan uler genezake, nahiz eta bigarren honetan ez dagoen silabatze aldaketarik; eten zein bilakabide segmental bidez adierazitako lotura —edo distantzia— baizik. Bide berean aipa genitzake ‘Ane ez da etorri’ —Anek huts egin du hitzordura— eta ‘Ane, ez da etorri’ —Maddik huts egin du hitzordura, eta norbait Aneri jakinarazten ari zaio— gisako adibideak ere.

Edonola ere, prosodia ez da beti anbigutasun sintaktiko-semantikoa hausteko baliabide¹⁰⁷. Euskarara etorrita, har dezagun *Iratik Andrea ikusi du bere etxe ondoan*¹⁰⁸ esaldia, adibidez. Prosodiak ez digu lagunduko zehazten noren etxe ondoan ikusi duen Iratik Andrea. Horrek egitura prosodiko eta sintaktikoaren arteko aldeez aritzera narama, oro har. Sintaxia eta prosodia beti bat ez

107 Ingelesezko adibide batzuetarako, ikus Shattuck-Hufnagel eta Turk (1996: 197), besteak beste.

108 Alazne Arriortuari zor diot adibidea.

datozela azaltzeko bi argudio multzo darabiltzate Shattuck-Hufnagel eta Turk-ek (1996): lehenengoa, sintaxiaren ezaugarri edo alderdi guztiak ez direla prosodian islatzen, goiko adibidean ikus daitekeen bezala. Bigarrena, hizketa-ekoizpeneko hainbat alderdi prosodiko ezin direla morfosintaxiaren bidez aurreikusi, egitura sintaktiko berak hainbat gauzatze prosodiko aukera izan ditzakeelako eta bestelako eragileek (atal honetan aurkezten ari naizen gainerakoek) ere zehazten dutelako unean uneko hizketaren prosodia. Batzuetan lotura sintaktiko nahiko hertsia duten osagaiak banatzen dira ekoizpen prosodikoan: (*asfaltoaren*) (*beroa*) sintagma, demagun, errezitaldi poetiko batean, hitzez hitz ahoskatzen baititu artistak, enfasis.

Islandierako eremu eta eredu prosodikoak aztertuta, Árnasonek (2009: 286-287) ondorioztatzen du sintaxia eta prosodiaren inguruko harremana zeharkakoa dela. Bere esanetan gertakizun prosodikoak hein batean informazio egiturari lotzen zaizkio zuzenago; semantika eta pragmatikari, hain zuzen ere, morfosintaxiari baino gehiago. Nabarmentasunari dagokion aldakortasuna izen eta aditzen arteko harreman semantikoak —kategoria lexikoen baitan— edo fokua bezalako gertakariak —fokua gertakari pragmatikotzat hartzen du Árnasonek— baldintzatzen dutela dirudi bere azterketaren arabera, eta ez hainbeste egitura morfo-sintaktikoak zuzenean.

Zail egiten da kasu batzuetan morfosintaxia, semantika eta pragmatika elkarrengandik bereiztea gertakari prosodikoez ari garela, intersekzioak baitituzte. Hizketaren gauzatzea —taldekatzea, besteak beste— prosodikoa da eta, Hymanen arabera¹⁰⁹, hizketa aztertzean ezaugarri fonologikoetatik abiatzea litzateke egokiena, sintaxiaz izan genezakeen ikuspegiak ez dezan analisia hasieratik baldintzatu. Egitura sintaktiko eta prosodikoaren arteko asimetriak jaso ditu bantu hizkuntzetan (Hyman 2019), bi egituren arteko bete-beteko lotura baztertuz.

Azken hamarkadetan hainbat proposamen egin izan dira prosodia eta morfosintaxiaren arteko harremana zehaztuz, besteak beste, fonologia prosodikoaren iker-moldean (ikus, adibidez, Selkirk 1978, 1984, 1986, 2011 edo Nespor eta Vogel 1986). Gorago ere esan bezala, lan honetan ez dut hautu teorikorik egingo harreman horretaz. Onartzen dudana da sintaxiak (zuzenean edo zeharka) baduela egituratze eta ezaugarritze prosodikoan eraginik, baina, hizkuntzatik hizkuntzara eta hizkuntza beraren baitan aurkitzen den aldakortasun prosodikoari egoki erantzungo bazaio, ezin direla gertakari prosodikoak eta aldakortasuna sintaxiaren bidez bakarrik ulertu.

109 Larry M. Hyman. Prosodic phonology and morphosyntactic structure. Lingtyp foroan Natalie Weber-i emandako erantzuna (2020-06-20).

4.2.5. Informazio-egitura, diskurtso-antolakuntza, testu-mota

Hierarkia prosodikoaren beherengo mailak aipatu ditut izan ditut hizpide hainbatetan orain arte (silaba, hitza, esaldia, etab.). Kontua da hizkuntzaren informazio-egitura eta diskurtso-antolakuntza prosodian islatzen direla hein batean, edo prosodiaren bitartez ere adierazten direla aipaturikoen hainbat alderdi. Prosodia hizketaren alderdi segmentala baino zuzenago lotu ohi zaio normalean informazioaren egituratzeari (Oñederra 2004: 129).

Kapitulu honetan zehar aipatu dut dagoeneko desberdintasun prosodikoak daudela ahoskatzen den informazioa berria edo zaharra izan, fokalizatuta egon, etab. Osagai (prosodiko) bat alda daiteke ahozko testuaren edo diskurtsoaren egituran duen kokapenaren edo informazio-motaren arabera ere: osagaiaren luzera, intonazio-eredua(k), etenak edo hizketa lastertasunaren trataera ez dira berberak izango. Aldakortasun prosodikoak diskurtso-antolakuntzaren edo testu-egituraren berri (ere) emango du, edo eman lezake.

Ez dago batasunik diskurtso-egitura eta prosodiaren arteko harremana aztertu izan duten lanetan, ez diskurtso-egitura ez prosodia ulertzeko eta aztertze moduetan, eta lan honetan ez dut hizketako diskurtso-egitura aztertze proposamen zehatzik egingo edo jarraituko, ez bada maila orokorrean lotura horren berri emateko¹¹⁰.

Hizketan baliatzen diren *paragrafoek*, paragrafo idatzien ahozko baliokideek, eragina dute beren baitako esaldien iraupen zein intonazio-ereduetan, adibidez (ikus ingelesez Lehiste 1975 edo suedieraz, Bruce 1982). *Diskurtso unitateen* eta horien multzokatzearen antolakuntza hierarkikoa prosodikoki (ere) gauzatzen da, kammu hizkuntzan intonazioaren (muga-tonuen) bidez, kasu (ikus Karlsson et al. 2015). Testu-egitura orokorrari (*global*) —testuko osagai nagusien arteko harreman hierarkikoa— eta gertukoari (*local*) —esaldien baitako egitura, informazioaren garrantziaren arabera— zein esaldien arteko harreman erretorikoei erreparatuta, askotariko maila eta motatako loturak isla daitezke prosodiaren bidez. Esaldien arteko etenak eta garaiera baliatzen dira horretarako, nagusiki, nahiz eta hiztunetik hiztunerako aldakortasuna nabarmena den eta bestelako baliabide prosodikoak ere badiren (neerlanderaz, ikus Van Donzel 1999; den Ouden et al. 2009; erreferentzia gehiagorako ere, ikus aipaturikoak, besteak beste). Diskurtso-osagaien arteko mugen neurria eta aipaturiko osagaien arteko koordinaziozko edo menpekotasunezko harremana kontuan hartuta, alor prosodikoa aztertzean, hiztunek etenak, intonazio-ereduak eta nabarmentasun-ereduak baliatzen dituztela aztertu ahal izan da, baita kasu batzuetan hizketa-lastertasuna ere (ikus ingelesez, Tyler 2013).

¹¹⁰ Ikus, besteak beste, Tyler-en (2013) diskurtso-egitura aztertze teoria batzuen berrikuspena.

Bat-bateko bertsoetan aztergai esanguratsua da doinuaren egiturak bertsoaren diskurtso-egiturarekin duen harremana.

Diskurtso-egituraren eta prosodiaren arteko harremanean —eta prosodiaren aldakortasunean, oro har— kontuan hartu beharreko alderdia da aztertzen ari garen ahozko testu-mota edo testu-generoa zein den ere. Horren arabera diskurtsoaren ezaugarriak aldatu egingo dira eta, beste hainbat alderdirekin batera, prosodian ere eragina izango du (erreferentzia batzuetarako, ikus Tyler 2013: 120).

Egunkariko berrien eta bestelako testuen ahoz-gorako irakurketa aztertu dute gorago aipatu ditudan hainbat ikerketek (ikus den Ouden et al. 2009, Tyler 2013, adibidez), irakurraldi egokia egiteko prestakuntza-denbora emanaz hiltune; halako ahozko testu-mota batean espero izatekoa da diskurtsoa oso ondo antolatua eta egituratua egotea. Emaitzek ere nahiko joera argiak agertzen dituzte etenari edo intonazio-ereduei dagokienean. Badira ordea prozedurazko ahozko azalpenak (arroza gaitzat hartuta, landatzen denetik, jateko prestatu arteko bidea hizketagai izanda) edo herri-ipuinen kontakizunak aztertu dituzten ikerketak ere, bi testu-genero horien arteko gauzatze prosodikoan aldeak aurkitu dituztenak. Prozedurazko azalpenak egitekoen zerrendatzea du ahozko ekoizpenaren oinarrian eta diskurtsoaren antolakuntza prosodiko errepikakorragoa eskatzen du. Herri-ipuinen kontakizunak, berriz, egitura konplexuagoa du diskurtsiboki eta hizketa erdi bat-batekoa (*semi-spontaneous*) izanda, arrasto prosodikoak ez dira horren nabarmen eta argiak (kammu hizkuntzaz, ikus Karlsson et al. 2015 eta bertan ematen diren erreferentziak). Mitxelenak aipatzen du (Michelena [1977] 2011: 287-288) euskaraz ez dela gauza bera elkarrizketa edo kontakizuna, beste hainbat alderdien artean ekoizpen prosodikoan gauzatzen diren intonazio-ereduak —osagaien taldekatzea, azken finean— aipatuz^{111 112}.

Testu mota testuinguruaren eta hizketa erregistroaren arabera ere alda daiteke, besteak beste, eta arlo horiek garatuko ditut jarraian.

4.3. Hizketa-mailak eta testuinguruko baldintzen eragina

Fonologia segmentalean hizketa erregistroaren eta testuinguruaren arabera bilakabide fonologiko indartzaileak (*fortitioak*) edo ahultzaileak (*lenitioak*) nagusitu ohi dira erlatiboki hizkuntza beraren sistemaren baitan. Hizketa molde edo egoera horiei loturiko faktoreek eraginda aldatu ohi dira joerak, gehienbat: *tempoa*, ahoskerari jarritako arreta, testuinguruak eskaintzen duen erreferentzial-

111 “Kontu kontari ari denak, esango nuke nik, esku zabaldu du (erantzuketan ari denak baino zabalagoa, nolana ere) hitzak gogo duen segidan bata besteari eransteke. Esan beharrik ez, gramatikak zilegiztat dauzkan eremu hedatuaren mugetarik ihesi ibili gabe, noski. Guk behintzat doinuaz bereizten ditugu «orduán / etorri zén...», kontaketakoa, eta «orduan etorri zèn», «noiz etorri zen?» galderari dagokion erantzuna. Doinua doinu, eta ez naiz hemen horretan sartuko, lehenbizikoan gerta daitekeen geraldia, ezinkizun da azkenekoan” (Michelena [1977] 2011: 288).

112 Testu-motaren araberako aldakortasuna aztertzeke asmoa agertzen dute Gaminde et al. (2009: 195).

tasuna, etab. (Donegan eta Stampe 1979: 142; 2009: 10-11; ikus §2.4.1 bilakabide fonologiko segmentalei buruz). Gauzatzen diren eredu eta eremu prosodikoetan ere eragina du unean-unean baliatzen den hizketa erregistroak, eta aldakortasun prosodiko hori ere bada hain zuzen hizketaren alderdi segmentalean joera indartzaile edo ahultzaileak bultzatzen dituen eragile nagusienetako bat (Donegan eta Stampe 1979: 142).

Hizkuntza bakoitzak ditu bere eredu-erritmiko orokorrak eta joera prosodiko nagusiak. Hala ere, txekiera eta poloniera aztertuta, hizketa molde zainduago edo formalagoetan silaba azentugabeen pilaketa ekiditen dela aztertzen dute Madelska eta Dresslerrek (1996: 194), bestelako hizketa molde informalagoetan baino silaba azentudun gehiago gauzatuz. Era berean, hizketa molde zaindugabe edo arduragabeagoan eremu prosodikoak zabaldu eta azentu-ereduak lauago gauzatzen dira, beste testuinguru formalagoetan nabarmenduak edo azentudunak lirakekeen osagaiak ahulduz (Madelska eta Dressler 1996: 195). Egituratzeko prosodikoaren (aldakortasunaren) ondorioz, aipagarria da hizketaren alderdi segmentala ere nola aldatzen den¹¹³.

Hizketa erregistroen araberrako aldakortasunari irakurketa tipologikoa eman dionik ere bada. Major-ek (1985) Brasilgo portugesa aztertzen du *aipu erako* hizketa zainduan (*citation [CIT]*), *ohiko* hizketan (*normal [NOR]*) eta hizketa *arduragabe*an (*casual [CAS]*):

CIT is the careful style of speech typical of reading a list of words or sentences in a slow, deliberate manner. NOR is the natural speech used in settings which vary from slightly informal to formal —such as a lecture, a newscast, or consultation with one’s colleagues; it is the style which the layman considers good or correct pronunciation. CAS is used in very informal, casual, or intimate settings, e.g. conversation between good friends and lovers. The layman often considers this style to be incorrect or sloppy.

(Major 1985: 265)

Azentudun silaben diptongatzea, azentugabeen silaben (bokalen) murriztapen eta laburtzea, azentugabeen diptongoen monoptongatzea eta silabikotasunaren aldakortasuna aztertzen ditu Majorrek (1985) aipaturiko hiru estiloetan, azterketa fonologikoa, hiztunen ohamen-frogak eta tresna-bidezko iraupen azterketak eginez. Ondorio gisa proposatzen du Brasilgo portugesak azentu-aldiranzko joera handiagoa agertzen duela aipaturiko ezaugarrietan estiloa zenbat eta arduragabeagoa izan: “the language becomes increasingly stress-timed as style becomes more casual” (Major 1985: 280); edo, alderantziz, hizkuntza silaba-aldikoagoa dela estiloa zenbat eta formalagoa izan (erritmoaren araberrako tipologian sakontzeko eta hizkuntz tipo “ideal” bakoitzari loturiko joera eta ezaugarriak xeheago aztertzeko, ikus §3.4.3). Hizkuntzen artean aurkitzen den aldakortasun tipologikoa hizkun-

113 Euskaraz Jauregik (2004) hizketa arduragabeen silaba iraupenak neurtuz eta Urretak (2020, 2022) hizkera-mailen araberrako aldakortasuna aztertuz egindako lanak aipa daitezke.

tza beraren baitan ere gauzatzen dela proposatzen da, beraz, hizketa erregistro edo estiloak —eta horri loturiko baldintzek— eraginda.

Idea horrekin lot liteke Heinz-en (2014) proposamena. Erritmoaren arabeko tipologiaren baitan —Auerren (1993, 2001) eta ondorengo lanen ildoan— hizkuntza erromantzeak¹¹⁴ aztertzen ditu diakronian eta sinkronian, silaba-egituraren konplexutasunaren aldakortasunari erreparatuz bereziki. Izan ere, silaba-egitura eta, oro har, silabari loturiko gertakariak tipo fonologikoei lotzen zaizkie (ikus §3.4.3). Hizkuntza erromantzeak eta latinak berak CV silaba egituraranzko joera nabarmena ageri dute, eta horri loturiko askotariko bilakabide segmentalak aurki daitezke, bokal epenetsiak eta kontsonante taldeen murriztapena gisakoak. Edonola ere, aurkako joerak ere lekukotzen dira, sinkopa bezalako bilakabideen bidez silaba itxiak eta astunak eratuz, kasu (lat. *do.mi.na* > *dom.na*). Silaba-egitura konplexuagoak mantendu dira, hizkuntzetan joera nagusia CV-ranzkoa izanda ere (gazt. *abstracción, obstrucción, perspectiva*). Gertakari horri azalpena eman nahian proposatzen du Heinzek *erdigunea vs periferia* ikuspegia (*center vs. periphery view*):

[...] with regard to variation in phonetic realization two types of behaviour can be observed, each of which can be assigned to a peripheral or a central tendency of the language system. The central (or core) area of a language system is made up of a restricted set of structural principles and regularities whereas its periphery consists of (supposedly irregular) countertendencies, variants, and historical residues. It is the interplay between systemic areas that gives rise to the characteristic feature combination of a specific language.

(Heinz 2014: 89-90)

Gorago aipaturiko hizkuntza erromantze guztiak silaba-aldiko polotik gertuago kokatzen dira hizkuntz tipoen *continuumean*, baina ez dute denek berdin jokatzeko estiloen arabera, silaba-egiturari eta horiei lotutako bilakabide segmentalei dagokienean¹¹⁵. Gaztelaniaz, esate baterako, *exacto* hitza erregistro eta ahoskera zainduan [ek.'śak.to] ahoskatuko litzateke, silaba itxi eta guzti, baina hizketa-*tempo* azkarrean edota ahoskera zaindugabeagoan, [e.'śa.to] (Heinz 2014: 103). Frantses estandarrez, berriz, *qu'est-ce que tu fais?* galdera [kɛs.kə.ty.fɛ] ahoskatuko litzateke hizketa molde zainduagoan, eta testuinguru informaleagoan, [ksty.fɛ] (Heinz 2014: 105). Gaztelaniaz aurki daitekeen aurkako joeran, alegia: frantsesez CV silaba-egituraranzko joera nabarmenagoa da hizketa zainduan, eta maila informalean ohikoago dira kontsonante taldeak eta silaba konplexuak.

Heinzek (2014) aztertutako hizkuntza erromantzeak bi multzotan bereizten ditu, gorago azaldutako joeren arabera: hizkuntza batzuek silaba egitura sinpleagoa agertuko dute hizketa arduragabeen edo *tempo* azkarrean; erregistro zainduan, berriz, konplexuagoak diren silaba egiturak ekoizten

114 Zehazki gaztelania, portugesa (europarra, batez ere) eta frantsesa (estandarra) aztertzen ditu bere lanean, eta modu osagarrian katalana, italiarra eta errumaniera.

115 Leunago, baina gauza bera esan liteke euskal hizkerez; *continuum* batean kokatzen direla beharbada (Jauregi 2011).

dituzte hiztunek. Halakoak lirateke, besteak beste, aurreko adibidean aipaturiko gaztelania edo Brasilgo portugesa¹¹⁶. Beste hizkuntza batzuek, berriz, aurkako joera dute: hizketa arduragabeen edo *tempo* azkarrean silaba egitura konplexuagoak onartzen dituzte, eta hizketa zainduagoan, berriz CV-ranzko joera nagusituko da. Multzo honetan kokatzen dira goiko adibideko frantsesa edo europar portugesa.

Gertakari horien irakurketa egiten du Heinzek (2014: 106-107) zentro-periferia ikuspegitik:

It is with respect to the complex types, then, that a divergence between central vs. periferal phenomena can be perceived. The [+central] and the [-central] traits are meant to characterize the difference between complex patterns found in Standard French and EP [European Portuguese] on the one hand —complex types resulting from systematically central tendencies as the normal outcome in informal allegro speech— and Spanish [...] and BP [Brazilian Portuguese] on the other —complex types having a peripheral position in the system because they mainly occur in careful or emphatic realizations of loanwords. The former two languages display a neat contrast between (highly elaborate) stressed and (highly reduced and centralized) unstressed vowel systems resulting in frequent reduction of unstressed vowels (including, but not limited to, many instances of schwa), whereas on the opposite end of the spectrum Spanish —BP being a somewhat less clear-cut case— has a pentavocalic system of distinct uniformity and simplicity.

(Heinz 2014: 106-107)

Heinzen azterketak hizkuntza bakoitzean dagoen konplexutasuna aztertu eta kokatzeko aukera ematen du, silaba-aldiko polorantz lerratzen diren hizkuntzen artean dauden desberdintasunak ulertzeari bide emanez. Batzuek —gaztelaniak edo Brasilgo portugesak, kasu— sistema fonologikoaren erdigunean kokatuko dituzte silaba egituratzen duten hatsarreak nagusiki, eta beste batzuek —frantsesak edo Europako portugesak—, berriz, aipaturiko hatsarreak neurri eta testuinguru batzuetan gehiago bete arren, euren sistema fonologikoaren erdigunean ez dira hainbesteko indarrez egongo, eta azentu-aldiko polotik gertuago dauden hizkuntzetan ohikoago diren joerak azaleratuko dira. Hizketa erregistroen ondoriozko aldakortasuna aztertzeak ahalbidetzen du analisi hori egitea eta, beraz, kontuan hartu beharreko eragilea da.

4.4. Hizketa *tempo*aren eta antolakuntza erritmikoaren eragina

Aurreko atalean aipaturiko alderdiei —hizketa erregistroei— loturik, lastertasun edo hizketa *tempo*aren eragina aipagarria da aldakortasun prosodikoan. Hizketa *tempo*a zenbat eta motelagoa izan, taldekatze prosodikoa nabarmenagoa izango da maila txikiagoetan ere; segmentu katea talde gehiagotan edo markatuagoak diren taldeetan bereiziko da. Eta alderantziz: *tempo*a azkartu ahala,

116 Heinzek (2014) brasilgo portugezaz egindako irakurketa bat dator Major-ek (1985) egindako analisiarekin.

eremu prosodiko handiagoak eta azentu-zein intonazio-eredu lauagoak edo sinpleagoak ekoitziko dira (ikus ingelesaz, Gee eta Grosjean 1983; koreeraz, Jun 1993; frantsesaz, Fougeron eta Jun 1998, adibidez; berriuspen batzuetarako, ikus Shattuck-Hufnagel eta Turk 1996; Fletcher 2010).

Koreeraz, esate baterako, testu bera *tempo* desberdinetan ahoskatuz gero, hizketa lastertasun ohikoan lau *azentuzko osagaik*¹¹⁷ (*Accentual Phrase*) osatua dena bi izatera igaro daiteke, *tempo* lasterragoan ekoitzita (Jun 1993: 178-179). Horrela, /ikən atʃu tʃoɪn kɪlimija/ ‘oso marrazki ona da hau’ fonema katea horrela ahoskatuko da *tempo*aren arabera:

a) [igən] ‘hau’, [adʒu] ‘oso’, [tʃoɪn] ‘ona’, [kɪrimija] ‘marrazkia izan’ (ohiko *tempo*an)

b) [igən] [adʒu dʒoɪn ɡɪrimija] (ohikoa baino *tempo* lasterragoan)¹¹⁸

Hainbat ikerlarik *oreka* edo gutxi gorabeherako *simetria (erritmikoa)* (Gee eta Grosjean 1983) zein *pisu fonologikoa* —silaba kopurua, funtsean— (Jun 1993) aipatu izan dute antolakuntza prosodikoaren eragile gisa. Osagai prosodiko bat —antolakuntza morfo-sintaktikoari lotuta, esate baterako— gainerako osagaien taldekatze joerarekin alderatuta laburregia bada, osagai hori bera luzeago gauzatzeko joera aurki daiteke (Lehiste 1974), edota hurrengo osagaiekin elkartuta taldean ekoiztekoa (Klatt 1976), modu batera edo bestera nolabaiteko oreka erritmikoa bilatuz. Era berean, osagai prosodiko jakin bat ohikoa baino luzeagoa bada, *tempo*a lastertuz talde prosodiko bakarrean gauzatzeko aukera jasotzen da (Lehiste 1974), edo talde bakarrean beharrean bitan banatzea (Jun 1993). Oreka erritmikoranzko joera izan daiteke taldekatze prosodikoa baldintzatuz osagai prosodiko eta sintaktikoak beti guztiz bat ez etortzeko arrazoietako bat, eta askotariko aukeren artean eginiko hautua ulertzeko eragileetarik bat (Gee and Grosjean 1983: 446; Jun 1993:181-184; berriuspen baterako, ikus Shattuck-Hufnagel eta Turk 1996;). Adibidez, har ditzagun ingelesezko ondoko bi esaldiak (Gee eta Grosjean 1983: 442-ko adibideetatik moldatuak):

a) [Our disappointed friend] [lost her optimism]

b) [Agatha asked] [the strange young student]

Ikus genezake aditza a) adibidean osagarriarekin elkartzen dela taldekatze prosodikoan, eta b) adibidean subjektuarekin. Hori ulertzeko arrazoietako bat aipagai dugun “oreka” erritmikoa izan daiteke, kasu bakoitzean material fonologiko gutxien duen osagaiarekin elkartzen baita aditza. Horrek ez du, noski, esan nahi nolabaiteko “isokronia” lortzen denik, ahal den heinean taldekatze prosodikoa orekatzeko joera egon daitekeela baizik.

117 Euskarazko ordaina Elordietari (2011: 408) jarraiki baliatu dut.

118 Erreparatu adibideetan *tempo* lastertasunaren eta taldekatzearen ondoriozko bilakabide segmentalei ere, bide batez.

Antolakuntza erritmikoarekin lot litezke etenak ere. Isilune huts edo beteak hierarkia prosodiko osagaiak taldekatzeko duen egitekoa eta etenak diskurtso-egituraren antolakuntzan izan ohi duen papera izan ditut hizpide gorago ere (§4.2.5). Aipaturikoez gain, eten edo isiluneak ekoitzi nahi den horren plangintza egiteko denbora eman dezake; esango den hori pentsatu, antolatu edo prestatzeko (erreferentzietarako, ikus Fletcher 2010: 574). Ferreiraren (1991) arabera esan nahi dena antolatzeko baliatzen diren etenak luzeagoak izan ohi dira hizketa denboran zehar antolatu eta taldekatzeko baliatu ohi diren etenak baino.

4.5. Egiteko paralinguistikoak, ez-linguistikoak eta kode komunikatiboak

Prosodiaren egitekoak edo funtzioak *continuum* batean kokatzen dituzte Clark et aliek ([1990] 2007: 327). Lerro jarraituaren mutur batean kokatuko lirateke prosodiaren egiteko linguistiko(en)ak. Azentu lexikoa, tonua, hizkuntza jakin baten baitako azentu-eredu orokorra eta intonazioa bezalako alderdiak leudeke polo horretan, informazio gramatikalaren berri emanez eta hizkuntza denboran zehar erritmikoki antolatuz, besteak beste. Orain artean atal honetan aipatutako gertakari edo eragileetako asko egiteko linguistikoaren muturretik gertu kokatzen direla esan liteke. *Continuum* horren aurkako muturrean, funtzio ez-linguistiko(en)ak kokatuko lirateke. Norbera identifikagarri egiten duten ahots-tinbrearen ezaugarriak aipa litezke hor, esate baterako. Oso kontuan hartzekoa da, tinbretik harago ere, hiztunetik hiztunerako aldakortasun prosodikoa hizketa *tempo*, taldekatze (arrasto) eta azentu-ereduei dagokienean, besteak beste.

Egiteko linguistikoen polotik ez-linguistikoen ertzera doan tarteko “eremu gris” izendatzen duten horretan prosodiaren egiteko paralinguistikoak leudeke. Paralinguistikotzat jotzen dira pertsona (talde) baten hizketa estiloa edo egoera —alor emozionaletik hasi eta jarreraraino, kasu— ezaugarritzen duten gertakari prosodikoak, adibidez. Clark et aliek ([1990] 2007: 327) azaltzen dutenez, kasu hauetan zaila da sarri zehaztea zein puntutara arte ekoizten dituen hiztunak nahigabe edo nahita. Horren adibidetzat aurkezten dute urduritasuna (atal honen sarreran, §4.1, labur aipatu dudana):

We are all familiar with certain features of speech that tell us that the speaker is nervous, often despite the speaker’s best efforts to disguise the nervousness; but it is also possible for a speaker to adopt some of these features deliberately, whether as a long-term style of speech, or to gain sympathy on a particular occasion.

(Clark et alii [1990] 2007: 327)

Urduritasun gisa interpretatu ohi dugu sarri ahotsaren dardara (gehiegizkoa) edo hizketa *tempo* lasterra. Aipuan irakur daitekeenez, batzuetan ez gara agian hiztun gisa gai izango

urduritasunak eragindako gure gorputzaren zenbait erantzun —ahotsean (ohi baino) dardara (nabarmenagoa), (ohi baino) azkar(rago) hitz egitea, adibidez— zeharo kontrolatu edo ezkutatzeko, hala nahi izanda ere. Beste batzuetan, ordea, gai izango gara aipatutako ezaugarri horiek beraiek bestelako helburuz —edo urduritasuna bera imitatzeke, simulatzeko— modu kontzientean gauzatzeko. Errepikatzearen ohituraz geureganatu eta estilo-ezaugarri ere bilaka liteke.

Soziolinguistikaren esparruan gizarte-taldee eta, oro har, aldagai sozio-historiko eta kulturalen loturiko hizkuntza-aldakortasuna aztertzea ez da berria (ezagunak dira aspaldiko Lavob-en [1966, etab.] lanak, besteak beste). Aldakortasun horrek eragina du prosodian ere edo aldakortasun prosodikoa sozio-kulturalki ere interpretatzen da eguneroko komunikazio ekintzetan. Hitz egiteko modu batzuk, ezaugarri linguistiko —prosodiko, kasu honetan— multzo batzuk, pertsona talde edo identitate bati zein ezaugarri (pertsonal), emozio edo jarrera jakinei lotzen zaizkie. Horrek dakar komunikazio ekintzan mezuaz gain hiztun eta entzule(ar)en artean aurreiritzi, uste, estereotipo, jarrera eta emozioak ere presente egotea, besteak beste, eta horri lotuta komunikatzeko kodearen inguruko konbentzio komunak —edo horien falta¹¹⁹— ere:

[A]ll kinds of information may be encoded simultaneously in the speech signal, and listeners abstract what they judge relevant to the communication context. Note, for example, that listeners may be perceiving emphasis on certain words or phrases, and responding to the speaker's organization of the message, at the same time that they are forming a judgement about the speaker's regional background and emotional state.

(Clark et al. [1990] 2007: 328-329)

Hiztun eta entzulearen artean bada —edo egon ohi da, sortzen da— unean unean nolabaiteko konbentzioa hainbat ezaugarri prosodikori dagokionean, horiek modu jakinean interpretatzeko (ikus, besteak beste, Shattuck-Hufnagel eta Turk 1996: 233-236). §1.4.1.2 atalean aipatutako Dresslerren (1985; Dressler et al. 1987) hizkuntza-analisirako bost mailen artean azken biek lotuko lirateke batez ere komunikazioari loturiko alderdi horiek: normarekin eta *performance*arekin. Ahoskera zaintzea edo ez zaintzea aztergaitzat hartuta, Dresslerrek et al. (1987) testuinguru komunikatibo eta soziala kontuan hartzearen garrantzia azpimarratzen dute:

Social factors are constitutive for language. For instance, the well-known trade-off between optimal perceptual contrast (or processing ease for the hearer) and articulatory effort (or language production effort in general), presupposes the speaker's empathy with the hearer's receptive role. The speaker has to balance his

119 Hiztun eta entzulearen arteko kode komunikatibo bateratuaren falta ulertzeko duela urte batzuk Bulgarian oporretan nintzela gertatua adibide simple bezain argigarria izan daiteke, prosodiari loturikoa ez izan arren. Plovdiv hiri erdialdean izozkidun gofre bat eskatu nion dendariari, abuztuko beroa eta oporrak gozatu asmoz; hark buruarekin ezetz niri. Hobe esan, burua ezker-eskuin mugitzen zuen. Nik berari harrিতuta galdetzen nion, “ez?”, eta hark atzera “ezetz”, nire arabera. Segundo luze batzuetako elkarrekintza deserosoaren ondoren azkenean gogoratu nuen bertara joan aurretik nonbait irakurria: bulgariarrek burua ezker-eskuin mugituta esaten dutela baietz.

production effort with the hearer's processing ease, and this calculation depends on the speech situation, the social roles of speaker and hearer, and what the speaker thinks the hearer wants to hear.

(Dressler et al.1987: 12)

Dressler eta kideen azalpenari gehituko nioke azkenean hiztunak testuinguru jakin horretan hartzen duen erabakia ere esanguratsu izan daitekeela, entzulea “gogobetez” edo hautu kontzientez beste zerbait gauzatuz. Ukaezina da, edonola ere, entzuleak —entzuleria kolektiboa ere izan daitekeenak, jendaurreko jardunean, adibidez— hiztunarengan duen edo izan dezakeen eragina (ikus Clark et al. [1990] 2007: 329).

Prosodiaren egiteko linguistikoenetik kanpo, hizkuntza gehienetan aurki daitezke, esate baterako, autoritarismoa, irrika, lasaitasuna edo asperdura adierazteko baliabide prosodikoak —bestelako baliabide batzuekin batera—. Hizkuntzatik hizkuntzara eta kulturatik kulturara aldatu ohi dira, edo alda daitezke, horiek prosodikoki zein bestela adierazteko moduak (ikus Clark et al. [1990] 2007: 328-330 eta bertan emaniko erreferentziak). Era berean, prosodia esanguratsu izan daiteke —beste hainbat osagairekin batera— estilo jakin bat markatu zein adierazteko —modu kontziente edo inkontzientean—, identitate mailan edota artistikoki, adibidez. Lan honetan aztergai izango ditudan bertsolariak eurak adibide egokia izan daitezke: bakoitzak du bere kantaera, ahotsa baliatzeko modua, esan nahi dutena adierazteko bidea, eta horrek ere ezaugarritzen ditu.

Hiztunen arteko aldakortasun prosodikoa aurki daiteke arlo jakin batean —ahots ozenez eginiko irakurketan, demagun— hiztunak duen trebakuntzaren arabera ere. Hala, hiztunen eskarmentua esanguratsua izan daiteke baliabide prosodikoak erabiltzeko moduan —irakurtzen ari den testuaren diskurtso-egitura adierazteko, besteak beste— (ikus Tyler 2013, beste batzuen artean). Patel-ek ere (2008: 158), kantuetan hizkuntzak eta erritmoak duten harremanaz ari dela, aldagai esanguratsu posible gisa proposatzen du trebakuntza¹²⁰.

Argi dagoena da, arlo edo eragilea edozein izanik ere, prosodiaren egiteko linguistikoenetik ez-linguistikoetaraino doazen gertakari prosodikoak komunikatiboak izan daitezkeela eta izan ohi direla, bakoitza bere erara, eta betiere testuinguruari hertsiki eta modu konplexuan loturik.

Prosodiaren beste alderdi batzuk baino gutxiago aztertu izan da egiteko paralinguistiko eta ez-linguistikoei loturiko hots-eremua. Euskaraz ere urriak eta mugatuak dira gai horien inguruan orain artean eginiko lanak; hastapenetan dagoen iker-eremua da oraindik ere (Gaminde et al 2009: 190-191) eta hezkuntzara bideratuak izan dira batez ere gaur egun arte egindako lanak. Kortesia erlazioetan prosodiak duen eragina aztertu da euskaraz (Etxebarria et al. 2011), eta baita emozioak

¹²⁰ Patel bat-bateko rapa egiten duten artisten ekoizpena aztertzeaz ari da. Oinarri musikal baten gainean inprobisatuta musika eta hizkuntzaren azentuen bat etortzea rap-ablesariaren trebakuntza edo esperientziaren arabera aldatuko ote litzatekeen galdetzen du.

simulatzean garaiera, intentsitatea eta iraupenari dagozkien ondorio akustikoak ere (Gaminde et al. 2014, 2015); ahoz gorako irakurketan etenek duten garrantzian ere sakondu da (Etxebarria et al. 2016)¹²¹. Azterketa eta gogoeta teoriko gehiagoren beharra nabarmen daiteke.

4.6. Hondarreko gogoetak

Atal honetan eginiko azaleko berrikuspenak agerian uzten du prosodiaren ezaugarritze eta aldakortasuna askotariko eragileek baldintzatzen dituztela edo baldintza ditzaketela, kasuan-kasuan. Bat-bateko euskarazko bertsogintza hizkuntzari hertsiki loturik dagoela pentsa daiteke bere helburu komunikatiboa dela eta. Horregatik, kontuan hartzekoak lirateke hizkuntzaren erritmo-antolakuntzaz harago prosodia egitura dezaketen eragileak.

121 Gai hauen inguruko ideia eta bibliografia zehatzagoetarako, ikus Gaminde et al. 2009 eta testu nagusian aipatutako artikuluetako berrikuspen eta erreferentziak.

5. Testu-uztartzea

5.1. Sarrera

Material linguistikoa egitura musikaletan txertatzeari deritzo *textsetting* edo testu-uztartzea (Proto 2015: 116), §1.1.2 atalean aurreratu bezala. Zentzurik hertsienean, *musika* esanda prototipikoki ziurrenik burura etorriko zaigun ulerkeratik abiatuta —Europa mendebaldean egun nagusi den musika tonalaz ari naiz, eta egitura argi eta markatua duten musika piezez¹²²—, edozein kantu da testu-uztartzearen fruitu, baita bertso kantatuak ere, bat-bateko izan edo ez. Azter dezagun *Nere senarrarekin I*¹²³ doinuan Arzallusek kantatutako bertsoa (AA-2013-BB-8tx-1), esaterako:

122 Musikaren definizioa lan honetan emanikoa baino askoz ere konplexuagoa dela ohartzen naiz. Aztergai ditudan bertsoak (bertso-doinuak) goian aurkezturiko ulerkeraren baitan koka daitezkeenez, ez noa harago, ikerketaren nondik norakoek ez baitute eskatzen.

123 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/536-nere-senarrarekin-i-akerraren-adarrak> (azken kontsulta: 2023-11-16).

8. irudia: AA-2013-BB-8tx-1, *Nere senarrarekin I* doinuan kantatuta

Ba - ña A - me - tse - kez - tu ba - li - o ge - ia - go

eun ba - teu - ro sa - ke - lan be - raz txan - pon fran - go

nik de - na Ma - ia - le - ne - nal - de du - te - man - go

A - me - tsek fa - lla - tze - a ' neu - re es - ku da - go

A - me - tsek fa - lla - tze - a neu - re es - ku da - go

8. irudian jasotako bertsoaren kasuan, *Nere senarrarekin I* bertso-doinua litzateke abiapuntuko egitura musikala, eta bertan txertatzen da hizkuntza. Bertsolariak ahoskatutako silabek doinua osatzen duten musika-noten balio prosodikoa hartu dute: garaiera eta balio erritmikoa (iraupena eta konpaseko kokapena), batez ere. Kontuan hartu behar da doinua ez dela aldiro berdin kantatzen, bertsolariaren kantaera askotariko eragileen menpe egonik (ikus §9, aldaera erritmikoen azterketarako, adibidez). Esan daiteke testuaren eta doinuaren arteko harremana ez dela aldebakarrekoa —testua doinuaren arabera soilik moldatuz—, hizkuntzak ere oinarria den doinuan eragina baitu bertsoa kanporatzean. Osagaion arteko harremana ez da eksklusiboa edonola ere, bestelako eragile batzuek ere baldintza baitezakete testu-uztartzea.

Kapitulu honen helburua bat-bateko bertsoen testu-uztartzea maila teorikoan kokatzea da. Horretarako, testu-uztartzearen inguruan ikuspegi desberdinetatik eginiko bibliografia berrikusi eta euskarazko bat-bateko bertsoen ezaugarriekin harremanetan jarri dut. Hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren arteko harreman eta elkarreragina ditu hizpide kapitulu honek, labur, ondoren kapitulu analitikoetan sakondu baitut atal honetan aipatutako arloetan gehiago.

5.2. Testu-uztartzea hizkuntzaren txertatze prosodikotik ulertuz

Bertsoetan hizkuntza bertso-doinu egituratu batean txertatzen da aldiro. Bertso (errezitatu) eta kantuez ari garela, horiek txertatze prosodikoaren kasu bereziak direla zehazten dute Donegan eta Stampek (1979: 142). Berriro ekarri dut §1.4.1.1 atalean jasotako bilakabide prosodikoen eta txertatze prosodikoaren definizio orokorra, esan nahi dudana kokatu eta testu-uztartzearen azalpena bertatik osatzeko:

Prosodic processes map words, phrases, and sentences onto prosodic structures, rudimentary patterns of rhythm and intonation. Insofar as syllabicity, stress, length, tone, and phrasing are not given in the linguistic matter, they are determined by the prosodic mapping, which may most easily be described as an operation in real-time speech processing of which setting sentences to verse or music are special cases.

(Donegan eta Stampe 1979: 142)

Fonologiaz lan honetan hartzen dudana ikuskeran, Donegan eta Stamperi (1979, 2009) jarraiki ulertzen dut hitzak, sintagmak eta perpausak eredu prosodikoetan txertatzen direla. Hala, gramatikak silabikotasuna, azentuerak, luzera, tonua edo taldekatzea baldintzatzen ez dituen heinean txertatze prosodikoan zehaztuko dira. Jasotako aipuan hizkuntza bertso-neurrietan edo doinuetan txertatzea kasu berezi gisa aurkezten dira, txertatze prosodikoaren baitan.

Hitz lauz, bertso neurtu errezitatuetan edo kantuan, hizketa eredu prosodiko batzuetan txertatzen da, denboran zehar antolatuz eta ezaugarri prosodiko jakinen jabe eginez. Moldeen artean bada alderik, ordea¹²⁴. Hitz lauari begiratuta, esan daiteke aldiro esan nahi dugun horren arabera “hautatzen” dugula hizketa ekoizteko eredu prosodikoa, hitz egiten ari garen hizkuntzan eskuragarri ditugun ereduaren artean. Horrekin batera, delako hizkuntzan indarrean dauden bestelako baldintza prosodiko eta gramatikalen galbahetik igarotzen da hizketa (ikus §9.2.1):

The mapping of specific words with prosodic patterns select those patterns which reflect the size of a given word and then follows the language specific restrictions which may be only prosodic—in the case of a language with so-called fixed accent—, or they may follow morphological and/or lexical principles or idiosyncratic accent specifications.

(Hurch 1994: 217)

124 Eguneroko hizketatik —hitz lautik— kantura doan bidean bestelako hizketa moldeak topatuko ditugu, izan poema errezitatuak, haur-jolas kantak edo manifestazioetako aldarriak (DeCastro-Arrazola 2018: 1), denak ere hitz lauko eredu prosodikoak baino erregularrago edota egitura-maila gehigarriak. Halakoek iradokitzen dute hitz lautik kanturainoko bidea askotariko ezaugarriak gurutzatzen dituen *continuum* higikor gisa ulertu beharko litzatekeela, kasuan kasuan hizkuntza eta musikaren arteko harremanaren ezaugarriak, ekoizpenaren egitekoa edota ekoizlearen estiloa bezalako alderdiak kontuan hartuta (ikus List 1963; Seeger 1987 eta Karlsson et al. 2014, besteak beste; §5.5 atala lan honetan). Aztergai ditudan bat-bateko bertso kantatuetakoa ezaugarri prosodikoak ere ez dira, gorago hainbatetan zehaztu bezala, bakar eta aldagaitzak.

Bat-bateko bertsoetan, berriz, hizkuntzaz betetzeko tamaina zehatz eta ezaugarri konkretu batzuk dituen eredu prosodikoa dugu beste ezer baino lehen¹²⁵: (bertso-)doinuen kasuan, oinarritzko konpas bat, eredu erritmiko jakinak eta melodia bat, besteak beste, bertso-neurri batean oinarrituta, silaba kopuru eskakizun batekin¹²⁶ (ikus §6.6). Hala, baldintza prosodikoak gainjartzen dira (hasiera batean) beste baldintza gramatikalen gainetik¹²⁷. Hizkuntza —hautu morfosintaktiko eta lexikoetatik hasi eta gauzatzen diren bilakabide segmental zein prosodikoetara— moldatu egiten da oinarritzat hartzen den eredu prosodiko horretara: doinuak eskaintzen dituen silaba-kopuru, taldekatze zein eredu erritmiko-melodikoetara.

Horrek ez du esan nahi abiapuntu gisa baliatutako eredu prosodiko paradigmatico dei dezakegunak (doinuak) aldaketarik jasan ezin dezakeenik txertatze prosodikoan, maila sintagmatikoan. Besteak beste eredu erritmikoetan zein ekoiztako silaben taldekatzean aldakortasuna aurkituko dugu, lan honetan eginiko bertsoen azterketak agerian uzten duenez (ikus §9 eta §10). Aldakortasun horren adibiderik nabarmenetakoa bat-bateko bertsoetan *hankaluze* edo *hankamotz*¹²⁸ deiturikoena izan daiteke: eredu prosodikoak (bertso-doinuak) eskaintzen dituen gune-silabikoak betetzeko baino material linguistiko gehiago badu bertsolariak kantatzeko, bertsoan hankaluzea gauzatuko du, kasu. Hala, oinarritzko eredia eraldatuko du, demagun, silaba bat —musika nota bat— gehituz doinuari¹²⁹.

Edonola ere, azpimarratu nahi dudana da bertsoak kantatzean baldintza prosodikoek hitz lauz baino gehiago agintzen dutela hasiera batean txertatze prosodikoan. Hitz lauz, printzipioz, arazo gabe galdetu ahalko genioke *zergatik etorri zara horren berandu?* eskola erdian arnasestuka sartu den ikasleari. Bertsoan, ordea, egoera berean *zergatik zatoz/ horren berandu// gaurko eskola hontara?* —edo antzeko zerbait; barkatuko didate bertsolariak— kantatu beharko beharko genuke, neurri eta doinuaren eskakizunei jarraiki (horietaz, ikus §6.6, esan bezala).

125 §6.2 atalean azalduko dudana bezala, kantugintzan askotariko prozesuak aurki daitezke testua eta musikaren arteko harremanari dagokionean. Testutik abiatuta sortzen dira doinuak batzuetan. Alderantzizko bidea ere egin daiteke, musikatik abiatuta sortuz testua eta badira aldiberekotzat har daitezkeen sorkuntza prozesuak ere. Jazzarena bezalako jardunetan ahozko inprobisazio melodikoa aurkituko dugu —besteak beste— eta ezin da ahaztu, testua eta musika alde aurretik sortuak izan arren, kantatzen den bakoitzean sortzen dela berriz ere kantua, aldaerekin gauzatzen dela kasuan kasuan. Ahozko pieza batzuetan ez da argi izaten sorkuntzan zein izan den lehenago, doinua ala testua. Lan honetan ematen diren azalpenez bestelako trataera behar dute oin ohar honetan aipatutako hainbat eta hainbat kasu testu-uztartzeari dagokionean. Aztergai ditudan bat-bateko bertsoetan doinua da beti alde aurretik dagoena eta haren gainean inprobisatzen du bertsolariak; horren arabera jardungo dut nik datozen lerroetan. Edozein kasutan, txertatze prosodikoaren kontzeptua baliagarria dela esango nuke hitz lau, bertso edo kantuetako gertakari prosodikoez pentsatzerako orduan.

126 Gerora bertsoa kantatzean ezaugarriok bete daitezke edo eraldatu.

127 Lourdes Oñederrari zor diot ideia hau. Euskarazko testu-uztartzearen azterketaren aitzindari gisa, aipagarri da Oñederra 2008.

128 Bertsolaritza bertso-neurriak zehaztutakoa baino silaba gehiago kantatzeari deitzen zaio *hankaluze*, eta neurriak “eskatu” baino silaba gutxiago ekoizteari, *hankamotz*.

129 Hori horrela izango da bertso-doinuan musika-nota bakoitzari badagokio silaba bat. Xehetasun gehiagorako, ikus lan honetan §9.4.2.7, §9.4.4.4 eta §10.4.1.5.

5.3. Hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren arteko lotura eta alde prosodiko batzuk

Hitz laua, bertso errezitatua eta kantua txertatze prosodikoaren bidetik uler daitezkeela esan dut aurreko atalean, kasu bakoitzak ezaugarri berezituak izanik. Testu-uztartzean hizkuntza eta musika lotzen direnean, metrika ere tartean da, aztergai dudan hizketa-moldean behintzat. Atal honetan hiru sistemak —hizkuntza, metrika eta musika— alderatu ditut, haien arteko lotura eta alde prosodikoak zein diren zehaztuz, bat-bateko bertsoetako gertakari prosodikoak ulertzeko hiru alorrak behar baitira, besteak beste. Alderdi erritmikoak aipatu ditut nagusiki analisisia eremu horretara mugatu baitut, sarreran esan bezala. Hiru auzi nagusiren baitan bildu dut berrikuspena: periodikotasunarenean, nabarmentasun alternantzienean eta taldekatzearenean.

5.3.1. Periodikotasuna

Mendebaldeko musikan (gutxienez) iraupen-periodikotasuna oinarri erritmikoaren ezaugarri nagusietakoa da. Hau da, iraupen erregularreko *beat* edo pultsuez osatzen da oinarri erritmiko edo konpasa eta pertzeptualki pultsu isokronoa hautematea du ondorio. Musikaren ekoizpen nahiz hautematean, formarik erregularrenetan behintzat, oinarri erritmiko gisa funtzionatzen duen *beat* edo pultsua hartu ohi da erreferentziatzat. Entzule gisa gai gara kantu baten oinarrian dagoen pultsu edo taupada txalo bidez jarraitzeko, esaterako (Patel 2008: 97). Bertsolaritzan ere, saio informalean batean bertsolariak *segidilla* luzea kantatuz gero, entzuleek txaloz lagundu izan dute inoiz bertsolariaren jarduna¹³⁰. Horrek agerian uzten du kantuan sarri jarraitzen den pultsu malgu baina erregularra. Hitz lauz, berriz, ez dago horren zurruna den periodikotasunik, erritmoaren araberako tipologian azaleko isokroniaren ulerkera baztertu izanak agerian uzten duen gisan (ikus §3.4.1). Horrek ondorio esanguratsuak ditu hizketaren eta musikaren hautematean, hurrengo §5.3.2 atalean azentuerez aritzean azalduko dudan bezala.

Hitz lauz egin ohi ditugun ekoizpenetan ezin da musikan bezala oinarri musikala txalo bidez horren erraz adierazi, intentzionalitate jakineko hizketa-moldeek halakorik onartuko luketen arren neurriren batean¹³¹. Hizketa moldeen ezaugarri erritmikoak *continuum* batean kokatu behar dira,

130 *Segidilla* baten adibiderako, ikus, esaterako, Andoni Egañak eta Jon Maiak Zeanurin kantatutako ondokoa. Publikoak amaiera aldean txaloz jarraitzen du Maiaren jarduna: <https://bertsoa.eus/bertsoak/10971-segidilla-jon-maia-eta-andoni-egana> (azken kontsulta: 2023-12-05).

131 Patelek (2008: 154) Martin Luther King-en “I have a dream” hitzaldiaren erritmikotasuna aipatzen du, kasu. Euskaraz Maialen Lujanbioren “Beti bezperako koplak” sorkuntza-lana izan daiteke horren adibide bat. Ahotsaz gain oinarri erritmikoa markatzen zuen basearekin —makil soinu— deklamatu zituen Lujanbiok sortutako koplak eta kasu horretan kontuan hartu beharko litzateke, noski, pultsua zehazten zuen oinarri horren beraren eragina zein

mutur batean hizketa lau informala eta aurkakoan kantu erregularra kokatuta. Erdibidean bertso errezitatua aipa daiteke beste molde batzuekin batera¹³².

Poesia edo bertsogintzaren metrikaz ari garela —ekoizpenaz baino gehiago, ekoizpenaren oinarrian dagoen egituraz— esan liteke periodikotasuna egon badela, baina zentzu hertsian iraupenezkoa izan beharrea musikan bezala, osaketari, egituraketari, dagokiona dela (*configurational periodicity*): hizketako unitate prosodiko jakinen errepikapenak zehazten ditu formak, ez iraupenak (Patel 2008: 155; ikus §9.2.3.1). Silaba-kopuru jakinaren errepikapenak, azentu-kopuruarenak edo oin-ereduarenak, adibidez. Bertso errezitatuaren gauzatzean iraupena ez da, halere, bertsogintzaren ikerketetan baztertu. Forma poetikoetan egitura metrikoari lotuta aurkitzen diren iraupenezko gertakariak aztertuta, Lehistek (1990), esate baterako, bertso-lerroa poesia ekoizpena antolatzeko denbora-unitate gisa proposatzen du estonieraz, lerroen baitako oinen iraupen-konpentsazioak ikusita (ikus aurrerago §10.2.4.4). Euskaraz, Navarro Tomásék (1925) aztertzen ditu *Gernikako arbola* kantuaren bertsoak errezitaturik, silabak, talde bisilaboak eta etenak neurtuz, bi silabako talde horietan dagoelarik bere arabera iraupen erregularitasuna (xehetasun gehiagorako eta eztabaidarako, ikus §10.2.5.3).

5.3.2. Nabarmentasun harremanak

Oinarri erritmikoari (konpasari) loturik, musikan aurkitzen den nabarmentasun alternantzia erregularra da hizkuntza eta metrikarekin alderatu beharreko beste alderdi bat. Mendebaldeko musikan behintzat, aurreko atalean aipatutako *beat* edo pultsu erregularrak indartsu-ahul txandakatzearen arabera antolatzen dira hierarkikoki. Oinarri erritmikoaren ulerkera horretatik egin izan dira askotariko hurbilpenak hizketaren erritmora ere, ñabardurak ñabardura (ikus Donegan 1993a FNren baitako proposamen baterako edo Fonologia Metrikoaren iker-moldeko lanak, beste batzuen artean).

Musikaren oinarri erritmikoaren antolakuntza horrek dakar pultsu periodikoa —*beat* indartsuen eta ahulen txandakatzea— musikaren hautematean presente egotea:

Most notably, temporal periodicity in musical meter is much stricter than anything found in speech, and this difference has dramatic cognitive consequences. The regular periodicities of music allow meter to serve as a mental framework for sound perception, such that an event can be perceived as metrically prominent even if is

bertso-neurriarena, erregularitasun hori bultzatzen baitute biek ala biek. Edonola ere, *beat* erregularraren arabera ekoiztutako hizketa (neurtua) da aipatutako adibidekoa. Ondoko estekan entzun daiteke: <https://www.eitb.eus/eu/audioak/osoak/3807468/maialen-lujanbio-faktoria-euskadi-irratia-betibezperako-koplak/> (azken kontsulta: 2023-12-05).

¹³² Hala ere, kontuan hartu behar da aztertzen den ezaugarriaren arabera hizketa moldeek —eta horien baitan, kasu konkretu bakoitzak— kokapen desberdina har dezaketela *continuum* horretan.

physically quite weak, as in syncopated rhythms. By comparison, the prominences of language are not regular enough to allow for anything as abstract as syncopation.

(Patel 2008: 141)

§3.2 atalean aipatu dut hitz lauz azentuaren ordain fonetikoak intentsitatea, garaiera edo iraupena izan daitezkeela —gertakaria konplexuagoa izan arren, aldagai prosodikoen, hizkuntzaren alderdi segmentalaren eta sistema fonologikoaren arteko elkarreragina tarteko—. Musikan ere intentsitatea, garaiera edo iraupena azentua adierazteko arrasto prosodiko izan daitezke, baina horiekin batera ezinbestekoa da —hitz lauarekin aurrez aurre— periodikoa den oinarri erritmikoak eragindako azentuak kontuan hartzea. Izan ere, *beat*-en multzokatze eta antolaketarekin hertsiki loturik dago periodikotasunak eragindako azentuarena: musikan azentudun hautematen dira *beat* edo pultsu indartsuak, baita horietan txertatutako musika-notak edo silabak ere —horien artean lehen nota edo silaba, batez ere—. Kasu honetan azentua ez da beti eta derrigor inolako arrasto prosodikok eragindakoa, zenbait denbora-eskalatan hautemandako periodikotasunak eragina baizik (Patel 2008: 104-105).

Aipuan jasotako ideiekin jarraituz, musika “erregularraren” ekoizpenean entzuleak oinarrian dagoen pultsua hautematen du eta, hala, hurrengo pultsu edo *beat* indartsuak “non eta noiz” behar lukeen aurreikusten du. Joera kognitibo hori dela-eta hautematen ditu azentudun hainbat musika-nota edo silaba, nahiz eta intentsitate, iraupen edo garaiera nabarmenagorik ez izan, eta nahiz eta inolako arrasto prosodikorik ez agertu (Morgan eta Janda 1989: 277). Azentu mota horri lotuta aurki daiteke sinkoparena, *beat* indartsuaren efektuari aurka eginez, “kontraboterean”, iraupen luze bidez gauzatutako azentua, esaterako.

Musikan, beraz, hitz lauz aurkitzen diren azentuerekin batera, periodikotasunak eragin edo ahalbidetzen dituen beste azentu batzuk gauzatzen dira, periodikotasun hori presente dagoen kasuetan, betiere. Baita, Patelek (2008: 105) jasotzen duenez, badira bestelako azentu estruktural gehiago ere: harmoniak edo egitura musikalak —esaldi musikal baten hasierak, esaterako— eragindakoak, adibidez. Garrantzitsua da kontuan hartzea aipaturiko osagai guztiak elkarreraginean daudela musikan, azentu- eta, zabalago, erritmo-sare konplexua osatuz.

Hitz lauz musikan bezalako erregulartasuna aurkitzen ote den aztertu izan da, azentudun eta azentugabeko silaben alternantziari erreparatuta. Azentu-aldiranzko joera duten hizkuntza batzuetan —ingelesez, esate baterako— azentudun eta azentugabeko silaba-tarteak erregulartzeko joerak lekukotu izan dira, edo azentutik azentura tarte txiki(ago)ak uztekoa. Horren aurrez aurre, baina, azentu tarteen aldakortasun handia aurkitu da silaba-aldiranzko joera duten hizkuntza batzuetan —grezieraz, kasu— (ikus §3.4.3.9). Ematen du azentuen arteko tarteak erregulartzeko joera hori

neurri handiagoan betetzea edo ez betetzea hizkuntza-tipologiari lotzen zaiola, hizkuntza bakoitzaren tipo erritmikoari, baita hiztunak baliatzen duen hizketa moldeari eta intentzionalitateari ere.

Musika eta hizketa laua aztertuta, metrikaz aritzea dagokigu. Sistema metrikoek azentu-ereduekin duten harremana hein batean hizkuntza-tipologiak baldintzatua da (ikus §9.2.3.1). Bide horretan, azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzek osagai azentudun eta azentugabeen alternantzian oinarritutako eredu metrikoak izan ohi dituzte (ingelesak, kasu) eta silaba-aldiranzko joeradun hizkuntzek, berriz, mora edo silaba kontaktetan. Tarteko egoerak edo konbinazioetan oinarritutako neurriak ere badira, noski, esan bezala, eta eragin kulturalarena bezalako hizkuntzaz kanpoko faktoreak ere kontuan hartu beharrekoak dira sistema metrikoen azterketan (ikus De Sisto 2020, esaterako). Hizkuntzak hein handiago edo txikiagoan baldintzatutako sistema metrikoa izanda ere, badira azentuen alternantzian —oin metrikoetan edo azentu kopuruan— oinarritzen diren neurriak. Gorago adierazi dudan gisan, alternantzia hori ez da printzipioz iraupenean oinarritzen, osagaietan baizik. Edonola ere, neurria nabarmentasuna alternantzien arabera egituratzeko joera hori ezin da (Europa mendebaldeko) sistema metriko guztietara orokortu.

Oinari erritmiko erregular edo irregularragoari loturik, musikan, metrikan eta hizkuntzan konpara daitekeen beste alderdi erritmiko bat eredu erritmiko edo azentu-ereduena da. Bat-bateko bertsoak kantatzeko baliatzen diren doinuak musikalki pieza “sinpleak” direla esan liteke, erlatiboki oinarritzko diren erritmo-ereduz osatuta baitaude. Horietan funtsezko osagaia da motibo erritmikoa (*rhythmic motif*), eta haren (aldaeren) errepikapenez eraikitzen da bertsoetako paisaia erritmikoa (ikus §6.6.2.1 bertso-doinuaren egiturari buruzko azalpen sakonagorako).

Bertsoen eredu metrikoetan, berriz, hizkuntzaren eta neurriaren arabera zehaztu ohi da eredu-erritmikoa, batzuetan azentu edo eredu erritmikoetan oinarritua: azentu txandakatzean oinarritutako ingelesaren *ianbic pentameter* delakoa edo greziera klasikoan egiten zen kantitatean oinarritutako bertsogintza, kasu. Hala ere, azpimarratu behar da bertso-neurrietan ez dela beti eredu erritmikoa (nabarmentasun edo iraupen baliotan behintzat) zehazten, kasu batzuetan silaba kopuruan oinarritzen baita, esaterako, metrika, azentuei buruzko ezer zehaztu gabe. Horren adibide da euskara bera (ikus §6.6.1 eta §9.2.3.2.2). Euskaraz bat-batean kantatzen diren bertsoek (silabek) doinuak eta bertsolarien kantaerak zehaztutako erritmo-ereduak hartzen dituzte. Neurriak ez du halakorik zehazten, silaba kopuru jakinaz eta taldekatze-maila batzuek harago. Metrika hezurdura besterik ez da, informazio prosodiko osatugabea duena. Falta zaion mamia bestelako osagaiek betetzen dute.

Hitz lauko eredu erritmikoei erreparatuz gero, lan honetan jarraitzen dudana FNren ikusmoldetik esan daiteke hizkuntza baten baitan joera prosodiko batzuk nagusitzen direla, eta

horietatik eraikitzen direla eredu erritmiko orokorrak. Adibide dugu eremu prosodiko amaierako silaba azentudun gauzatzea, frantsesez. Hautatutako eredu erritmikoa eta azken buruan gauzatuko diren azentuak hizkuntzaren bestelako eragileek ere baldintzatuko dituzte (Hurch 1994, 1996): (bir)silabatze eta bilakabide segmentalek, silaba kopuruak, eskakizun gramatikalek, etab., ez baita gauza bera *bái* esatea, edo *eskérrikaskò*, hizkuntza eta hizkera berean eta joera prosodiko berberen baitan esan arren, edo *árdik* (ergatibo sg.) eta *ardík* (ergatibo pl.), Zegaman (ikus §9.2.1.3).

Laburbilduz, musikan eredu erritmiko markatu eta zehaztuak izan ohi dira, metrikan ez dira nahitaez zehaztuta egon behar (hizkuntza-tipologiaren eta kulturaren eragina nabarmendu behar dira hautu horretan) eta hizkuntzan eragile askoren arabera izan daiteke azentu-sistema, hizkuntza eta, are, hizkera bakoitzaren baitan aztertu beharrekoa izanik (ikus §9.2.1 eta §9.2.2).

5.3.3. Taldekatzea

Hizpide izan berri ditudan eredu erritmikoen ahozko ekoizpena antolatzen dute denboran zehar. Azentu-ereduek hizketa taldekatzen (ere laguntzen) dute bai ekoizpenean bai hautematean eta taldekatzea da, hain zuzen ere, lan honetan aztergai ditudan hiru sistemak —hizkuntza, metrika eta musika— lotzen dituen beste alderdi bat. Hizketan, bertsoen metrikan eta (bertso-)doinuetan aurki daiteke taldekatze hierarkikoa. §3.3 atalean aurkeztu da hitz lauako antolakuntza silaba, hitz prosodiko eta esaldi fonologikotan, besteak beste (xehetasun gehiagorako, ikus §10.2.1.1). Bertsoetan, berriz, egitura metrikoan silabak (edo gune silabikoak), hemistikioak, hemistikioen baitako taldekatzea —molde handiko neurrietan— eta puntuaren eremua bereizten dira euskaraz gaur egun (ikus §6.6.1). Musikan, berriz, musika-notek, motibo erritmikoen, periodoek eta esaldi musikalek osatzen dituzte bertso-doinuak, egituraren beheko mailatan (ikus §6.6.2.1).

Bat-bateko bertso kantatuena bezalako ekoizpenetan hiru egiturak ikusi ahalko dira elkarreaginean, Lehistek eta Rossek (2001) estonierazko *kalevala* neurriko (*kalevala meter*) kantuak aztertzean azpimarratu bezala. Hiru sistemetan taldekatze hierarkikoa izateak ez du esan nahi hirurak uztartzean eremu bakoitzeko osagaiak gainerakoekin (beti) bat datozenik, batzuetan osagaietako batzuk uztartu eta bat etorrarazteko joera aurkitu arren.

Taldekatzeaz ari garela ezinbesteko da taldekatze-arrastoak aipatzea, horien bitartez gauzatzen eta hautematen baita ekoizpen jakin baten antolakuntza unitate zehatzetan. Hala, joera kognitibo orokorrek —*gestalt* erakoek, esaterako— baldintzatutako arrasto orokorrak aurkituko ditugu hiru sistemetan. Gertutasun topologikoari loturiko gertakariak (ikus Dressler 1996, besteak beste) aipa daitezke horren adibide. Hitz lau, bertsoa (azken finean hizketa bidez gauzatua) eta musika

denborazko gertakariak dira, denboran zehar gauzatu eta antolatzen direnak. Hala, etena —zesura, isilunea— edo eremu azkeneko (silaba edo musika-notaren) luzatzea bezalako gertakariak taldekatze-arrasto izango dira denetan, baita eremu hasieran *tempoa* azkartzea zein eremu bukaeran *tempoa* moteltzea ere (Patel 2008: 112). §10.2.6 atalean berrikusi eta antolatu ditut hizketan eta bertso kantatuen antolakuntzan gauza daitezkeen taldekatze-arrasto nagusiak, bat-bateko bertsoen azterketan baliatzeko (ikus §10, oro har).

Kontuan hartu beharreko ideia da taldekatzea gertakari hierarkiko eta poliedrikoa dela eta askotariko osagaiek hartzen dutela parte eta, horregatik, ez dela argia eta eztabaidaezina izango. Ekoizpenean dimentsio desberdinak gurutzatzen direnez, osagai eta eremu desberdinak markatuko dira sarri. Esaterako, gerta daiteke intonazioak eremu jakina mugatzea, baina alderdi artikulatorioak bestelakoa(k) eta, etenei erreparatuz gero, are gehiago konplexuagotzea ekoizpenaren antolakuntza eta hautematea. Taldekatzea ez da beti izaten, beraz, berau “erraz” ikertzeko nahi genukeen bezain argi eta antolatua, Deutsch-ek (2013) musikaren taldekatzeaz azaltzen duen bezala. Edonola ere, ukaezina da taldekatze arrastoei norantza jakinean bideratzen dutela hotsezko ekoizpenaren antolakuntza, eta horren hautematea ere taldekatzeak baldintzatua dela, besteak beste.

5.4. Zein hizkuntza-ezaugarri gauzaten dira kantuan?

Hizkuntza doinu batean txertatzean hizkuntzaren eta musikaren hainbat ezaugarri bat etorritarazten ditu sarri kantuan ari den hiztunak. Era berean, hizkuntzaren beste ezaugarri edo joera batzuk desagertu edo neutralizatu egiten dira. Ematen duenez, txertatze prosodiko hori joera orokorrek eta hizkuntza bakoitzaren fonologiak baldintzatua da, baita bestelako eragile batzuek ere (ikus jarraian §5.5 horietako batzuen aurkezpenerako). Protok (2015) testu-uztartzeaz eginiko lanei buruzko berrikuspenean bi multzo nagusi bereizten ditu hizkuntzen artean testu-uztartzean islatzen diren hizkuntza-ezaugarrien arabera: tonu hizkuntzak eta tonu hizkuntza ez direnak. Euskara azken multzo horretan koka genezake eta, beraz, tonu hizkuntza ez direnen ildoak bakarrik garatu dut jarraian.

Tonu hizkuntza ez direnen kasuan, hizkuntzaren eta musikaren uztartze-joerek alor erritmikoa gehiago ukitzen dutela dirudi, silaben arteko garaiera alde adierazteko “beharririk” ez baitute. Ematen du erritmoaren araberrako hizkuntza-tipologia lagungarri dela, testu-uztartze estrategiei dagokienean, hizkuntzen artean aurki daitezkeen aldeak ulertzeko. Hizkuntza-tipo bakoitza osatzen duten ezaugarriak eta ezaugarri horien arteko harremana graduala eta dinamikoa dela kontuan hartu

behar da, nola hizketa lauan, hala kantuan ere. Honakoak dira aurreko §3.4.3 atalean hizkuntza-tipo erritmikoak direla eta landutako ezaugarri nagusiak:

5. taula: Azentu-aldiranzko eta silaba-aldiranzko joeren ezaugarri nagusiak

EZAUGARRIA	Azentu-aldiko poloa	Silaba-aldiko poloa
Silaba azentudun eta azentugabeak	Kontraste markatua baliabide prosodiko eta segmental bitartez.	Hainbesteko kontrasterik ez
Bokalen nolakotasuna eta kantitatea	Bokal murrizketak azentugabeko silabetan	Bokalen nolakotasuna eta kantitatea mantendu
Tempoa azkartzeko modua	Silaba azentugabeen murriztapen edo ezabatzea	Silaba guztien konpresio proportzionala
Silaba-egitura	Konplexuagoa eta aldakorragoa Silaba-mugak anbiguoagoak	Sinpleagoa Silaba-muga argiak
Silaba-kontakteta	Silaba-kopuru anbiguoagoa	Silaba-kopuru argia
Azentua eta kantitatea	Silaba astunak azentudun, eta silaba azentudunak nabarmen luzeago	Silaben kantitatea eta azentua aldagai independentea(goa)k
Azentua eta segmentuak	Azentudun silabak inguruko silabetako segmentuak erakarri	Azentudun silabak inguruko silabetako segmentuak erakartzea ezohikoa
Bilakabide segmentalak	Joera zentripetoak nagusi: murriztapenak, lenitioak, ahultzeak. Hitzaren eremuari lotutakoak, hitza indartuz (silabaren kaltetan) <i>Liaison</i> -ik ez	Joera zentrifugoak nagusi: polarizazioak, fortitioak, disimilazioak. Silabaren eremuari lotutakoak ¹³³ , silaba indartuz (hitzaren kaltetan) <i>Liaison</i> -a gauzatu
Azentua gauzatzeko moduak	Gramatikak kudeatutako azentua Adierazle nagusiak: luzera, garaiera, ozentasuna, etab. Azentuen maiztasuna handiagoa	Gramatikak kudeatutako azenturik ez. Adierazle nagusia: garaiera. Azentuen maiztasun txikiagoa, eta azentu arteko tarte aldakorragoak

¹³³ Silabarekin batera, silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan esaldi fonologikoak ere garrantzia duela proposatzen du van Oostendorpek (2000), eta De Sistok (2020; van Oostendorp eta De Sisto 2018) metrikari antolakuntza-unitate horrek lituzkeen ondorioak proposatzen ditu (ikus §10.2.2.1).

Jarraian, hizkuntzak doinuetan txertatzean, ezaugarri horietako batzuk kantuaoren zein alorretan islatzen diren aurkeztuko dut labur, hainbat hizkuntzatan testu-uztartzeaz eginiko ikerketen emaitzak jasoz (§8, §9 eta §10 kapituluetan sakondu dut, kasuan kasuan, dagokion alorrean). Horretarako abiapuntu nagusi gisa baliatu dut Protoren (2015) berrikuspen lana¹³⁴, euskaraz eginiko ikerketekin batera. Atal honen helburua da testu-uztartzean isla daitezkeen alderdi linguistiko desberdinak zein diren ezagutzea, betiere erritmoari dagozkion alderdiei lotuta. Molde teoriko desberdinetako lanak dira jasotakoak —Fonologia Metriko eta Autosegmentalekoak, *Optimality Theory*-koak, Fonologia Ez Linearrekoak, etab.—. Kontzeptuak eta formalismoak nahasteak dituen arriskuez jakitun, ikerlan bakoitzak landutako gertakariaren nondik norakoak eta hortik egiten den irakurketa jasotzen ahalegindu naiz, hizkuntzaren fonologiari eta tipo linguistikoari loturik. FNren iker-moldean ez dago propio testu-uztartzerako sortutako adarrik baina gorago erakutsi bezala, proposatzen diren kontzeptu eta mekanismoek —bilakabide fonologikoak, txertatze prosodikoa, etab.— hizkuntza ahoskatzean gertatzen diren fenomenoek —izan hitz lauz, izan kantuan— erantzuteko aukera ematen dute, osotasun baten baitan ulertuz ahozko askotariko molde eta gertakariak, bakoitzaren berezitasunekin batera.

Prosodiaren baitan hizkuntzaren erritmoaz ari garela, bi osagai nagusi bereiz daitezke: eredu-erritmikoak eta taldekatzea (ikus §3.2 eta §3.3). Horien eraikuntzan funtsezko edo oinarriko dira silabak eta azentuak. §5.3 atalean berrikusi bezala, doinuetan ere baditugu eredu-erritmikoak eta osagaien taldekatzeak, baita horien osagai diren musika notak —silaben pareko— eta azentu musikalak ere. Paralelismo horiek tarteko, testu-uztartzearen inguruko azterketetan ere ohikoa eta emankorra izan da alor horiek zer-nola lotzen diren aztertzea. Ondoko alorrak izan daitezke esanguratsu:

- Silabei eta silabatzeari lotuta, silabatze-joerak, silabek musika-notekin dituzten harremanak, silaben iraupena, azentu-ereduei loturik, eta silaba kopurua.
- Azentuei dagokienez, nabarmentasun linguistiko eta musikalen arteko bat (ez) etortzea.
- Eredu erritmikoei eta konpasari buruz, hizkuntza bakoitzean garatutako musikak dituen ezaugarriak.
- Silaba baino unitate prosodiko handiagoekin harremanetan, hizkuntza, metrika eta musikako osagaiak nola lotzen diren, batetik, eta kantuan gauzatutako osagaien neurketak, bestetik.

¹³⁴ Berrikusitako hizkuntza kopurua mugatua da, baita haien ezaugarri tipologikoak ere. Testu-uztartzearen inguruko berrikuspen sendoagorako, beharrezko litzateke hizkuntza lagina zein hizkuntza bakoitzean aztertutako alorrak zabaltzea.

5.5. Zein puntutara arte islatzen dira hizkuntza-ezaugarriak kantuan?

Aurreko ataletan hainbatetan zehaztu dut testu-uztartzean ezaugarri linguistikoen (prosodiko edo fonologikoen) artean batzuk soilik direla kantuan islatzen direnak, hizkuntza-tipoak eta hizkuntza bakoitzaren sistema fonologikoaren ezaugarriek baldintzaturik. Era berean, azpimarratzen ahalegindu naiz, hizkuntzaren ezaugarriekin batera, testu-uztartzearen ezaugarrietan eragina duten beste hainbat faktore daudela. Horietako batzuk aurkezten ahalegindu naiz atal honetan: ezaugarri prosodikoetan nagusitasuna duen arloaren eragina —ekoizpenean hizkuntzak edo musikak “agintzen” duen, alegia— (§5.5.1); egitura linguistikoen, metrikoaren eta musikalaren arteko harremanen nondik norakoak (§5.5.2) eta prosodiaren askotariko egitekoen ondorioak (§5.5.3).

5.5.1. Hizketatik kantura doan bidean

Testu-uztartzearen osagai diren hizkuntzaren eta doinuaren arteko harremana dinamikoa da. Ez dira beti berdin uztaizten hizkuntza-ezaugarriak eta ezaugarri musikalak. Hizkuntza bakar baten baitan ere, hitz lautik kantu neurtu eta erregularrera askotariko molde eta generoak aurki daitezke, aldakortasun prosodikoari erreparatuta; horregatik proposatu izan dute hainbatek *continuum*aren ideia alor honetan ere. Seeger-ek (1987), esaterako, hiru gradu bereizten ditu hizkuntza eta musikaren arteko harremanaren continuumean. Mutur batean hitz laua legoke, hizketa; bertan testuak doinuarekiko —doinuaren prosodiarekiko, uler liteke— nagusitasuna du. Aurkako muturrean kantua legoke; doinuaren ezaugarriak dira nagusi testuaren eskakizunen gainetik, eta alde zehatzetik daude finkaturik osagaiok. Hitz lau eta kantuen artean legoke erdibideko zerbait: erdi zehazturiko testua eta doinua, non erlatiboki nagusiago den hitza.

Lan honetan aztergai den bat-bateko euskarazko bertsozaintzari begiratu gero, erdibide horretan kokatuko genuke seguruenik; ez kokapen finkoan, baizik hitz lauaren eta kantuen artean. Aurrez zehazturiko doinuan zehaztugabeko testua txertatzen da, printzipioz behintzat hitza, testua, izanik garrantzi erlatiboki handiagoa duen osagaia (betiere doinuak eta kantaerak duten eragina eta garrantzia ukatu gabe; ikus §6). Erdibideko kokapen aldakor horren ondorio lirateke testuinguru eta bertsolariaren arabera aldatzen diren hainbat ezaugarri musikal: 1) bertsoa oinarrizko *beat* erregularraren arabera kantatzea edo askeago, hitz lautik gertuago, *parlando rubato* deritzon estilora hurbilduz; 2) eredu erritmiko (motibo erritmiko) jakin(ar)en errepikapenean —eta eredu horren aldaeretan, kasuan kasuan,— oinarriztea edo, eredu zurrunagoetatik aldenduz, hitz lauz bezalatsu ahoskatzea silaba-katea, balio erritmiko parekoagoekin; 3) bertsoetako taldekatzea

doinuaren —eta neurriaren— egituraren arabera gauzatzea edota hizkuntzaren taldekatzera hurbiltzea; etab.¹³⁵ (aipatutako alorretako batzuen analisirako, ikus §9 eta §10).

Hizkuntza eta musika uztartzeko moduan eragina du —edo izan dezake— sorkuntza-lanaren funtzio edo egitekoak. Athasbascar hizkuntzetako musika-ekoizpenetan, esaterako, oroitza-kantuak edo senda-kantuak hitz lauko ezaugarrietatik hurbilago gauzatzen dira; hala, kantuaren doinuak hizketako tonu eta intonazioa jarraitzen du gutxi edo gehiago. Kantu horien egitekoan hizkuntzak pisu handiagoa du, ematen duenez, musikak baino. Dantzarako kantuak, berriz, oso erritmikoak dira eta doinuak ez ditu hizkuntzaren tonu eta intonazioa islatzen (Karlsson et al. 2014: 162). Euskarazko bat-bateko bertsoen helburua komunikatzea da, entzuleengan emozioak sortzea (ikus §6). Hala, espero izatekoa da hizkuntzak pisu erlatiboki handia izatea ahozko ekoizpenean, “solfeoaren araberrako musikatik” aldenduz¹³⁶ (ikus Egaña 2007b, besteak beste). Edonola ere, bat-bateko jardun sortzailea izanik, doinua da, musika, bertsolariak inprobisaziorako duen euskarri nagusia. Horrek ekar lezake musika erregularrari oso loturiko ekoizpena egitea —baita kontrakoa ere: hizka kantatzea, esan nahi den hori bat-batean etorri ahala—. Aurkako iruditu arren elkarren osagarri diren bi alderdi aurkitzen dira, horrela, bertsoetan elkarrekintzan, sorkuntza-une bakoitzean negoziatzen delarik osagaien arteko harremana (ikus bertsolaritzari buruz §6.4 atalean aurkeztutako “tradizio modernoa”-ren definizioa).

5.5.2. Egituren eta horien gauzatzearen arteko tentsioak

Hizkuntza eta musikaren arteko harreman dinamiko horretan testu-uztartzea gertatu aurreko elkarreraginak hartu behar dira kontuan. §10.2.2.2 atalean azalduko dut sakonago nola euskaraz garatutako sistema metrikoa hizkuntzaren fonologian oinarritzen den hein batean, silabaren nagusitasuna eta taldekatzea izanik ezaugarri nagusi, errimarekin batera. Era berean, bertso-doinuak bertso-neurri jakinen arabera daude eraikiak edo moldatuak (ikus §6.6.2.2) eta aztertzea litzateke doinuaren ezaugarri musikaletan hizkuntzak zeharka zer-nolako eragina izan ote duen (Patel eta Daniele [2003] zein Jekiel-en [2014] ikerketen zentzuan, esaterako, lehenago ere aipatu bezala; ikus §9.2.4.1.3). Abiapuntua hori izanik, kontuan hartu behar da, era berean, bat-batean bertsoetan

135 Elkarren aurkako balira bezala aurkeztu ditut zerrendan hainbat ezaugarri. *Beat*-en edo eredu erritmikoen kasuan unean unean “bat edo beste” (hizkuntza ala musika) nagusituko den arren, ezaugarri horiek gradualak eta aldakorak direla uler daiteke. Azken ezaugarriari dagokionean, taldekatzean hizkuntzaren eta musikaren egiturak bat etorrita gauzatzea oso ohikoa da, baita musika eta metrikaren araberrako taldekatzeaz gain, hizkuntzarekin bat datozen taldekatze txikiagoak gauzatzea ere. Edonola ere, aipatutako sistemen arteko bat ez etortzeak aurkitzen dira eta, kasu horietan, bai, hizkuntzaren egituraketa edo musikarena nagusituko da.

136 Dorronsorok (1982: 18), esaterako, doinuaren eta hizkuntzaren arteko oreka beharra nabarmentzen du bertsoetan; Garzia et aliik (2001) edo Lujanbiok (2017), berriz, hitzaren nagusitasunaren alde egiten dute musikarekiko harremanean, doinuak eta kantaerak bertsoaren baitan duten garrantziaz jabeturik eta horiei euren lekua aitortuz, betiere.

aritzean ez dela edozein testu txertatzen doinuan. Bertsolariak esan nahi duena hautatu eta moldatu egiten du, printzipioz, doinuak (neurriak) eska(in)tzen dion eredu prosodikora (ikus §10.2.4 eta §10.2.5 azalpen xeheagorako).

Laburbilduz, hizkuntza-tipologiak oinarritzko egitura metriko-musikalaren ezaugarri batzuk baldintza ditzake: eredu erritmikoak, oinarritzko konpasa edota taldekatzea, nagusiki, lan honetan berrikusitakoaren arabera. Halaber, egitura metriko-musikalak bertan txertatzen den hizketa baldintzatzen du, hautu morfosintaktiko, lexiko zein fonologikoetan. De Sisto (2020) poesia idatzirako proposatutako alde biko harreman edo elkarreagina euskarazko bat-bateko bertso kantatuetara ekar genezake:

The metrical template sees phonological structure and reflects its functioning. At the same time, the metrical structure is filled by phonological material. I propose that the selection of the material filling the metrical template is based on a bidirectional relationship between phonology and metrics. The template is not just passively filled by phonological elements but can have a preference for some elements. It can, in other words, choose the phonological aspects which fit it better and avoid other ones. This stretching of phonology generates tension between phonological and metrical structure, which can be used to enhance the markedness of the poetic form with respect to the naturalness of language.

(De Sisto 2020: 3)

Egitura metrikoa eta fonologikoa uztartzean ez dira ezaugarri metriko eta linguistiko guztiak beti bat etorriko nahitaez; *tentsioa* deitu ohi zaio elkarrengandik aldentze horri. Kantuetan —bertso kantatuetan— ere tentsioa sor daiteke hizkuntzaren egituren, egitura metrikoaren eta doinuaren egituraren artean, loturak bezainbeste. Hizkuntzatik hizkuntzara “tentsioa” sortzeko ezaugarriak aldatu egingo dira, hizkuntzaren fonologiaren eta metrikoaren oinarriak ez baitira beti berberak. Gaztelaniaz, adibidez, azentu linguistiko eta musikalak bat ez etortzea ez dirudi tentsio eragile handia denik —hiztunek bat etortzea nahiago duten arren—; bai, ordea, ingelesez (ikus §9.2.4.1.1). Jakobsonek ([1960] 1987: 80-81) egituren arteko bat ez etortzeak eta gerora horiek gauzatzeko modua bereizten ditu ekoizpen poetikoan, osagai horien arteko harremana konplexua eta dinamikoa dela azpimarratuz (azalpen sakonagorako, ikus §10.2.4.3 eta §10.2.5.2).

5.5.3. Prosodiaren egitekoak testu-uztartzean. Osagaien arteko harremanetatik harago

Orain artean testu-uztartzearen emaitza den kantua edo bat-bateko bertso gintza kantatua osagaien arteko harremanetik aztertu dut: besteren artean, hizkuntza, metrika eta musika nola lotzen diren; oinarrian dauden egiturak eta horien ekoizpena nolakoa den; joera nagusiak eta aldaerak. Baina kantua, bertsoa, zenbait osagaien elkargune izateaz gain, zerbait da bere horretan. Testu-

uztartzearen emaitza den horrek bere ezaugarri eta kode propio bezain konplexuak ditu. Kantuei buruzko ondoko aipua bertsoetarako ere baliagarri izan daiteke:

[...] song often conveys more meanings, significances and resonances than an ordinary speech utterance, and in this respect songs resemble poetry. In songs, meanings are encoded not only in the text, but also through a complex interaction of the music, [...] visual designs and their associations with specialized knowledge, including knowledge about the context of performance. [...] The ways in which enculturated listeners derive meanings from songs involve investigating semantic and pragmatic aspects of the song text, as well as specialized cultural and real-world knowledge, including knowledge of the song performance as a speech event.

(Turpin eta Stebbins 2010: 2)

Prosodiak askotariko egitekoak betetzen ditu hitz lauz (ikus §4). Egiteko prosodiko horiei bagagozkie, ikus daiteke prosodiak kantuan ere betetzen dituela egiteko horietako batzuk, goiko aipuan aurkeztutako ulerkera konplexu horren baitan, musikari eta testuinguruari hertsiki loturik ulertu behar direlarik kantagintzaren zenbait alor. Adierazkortasunari eta kantuko kode komunikatiboari loturik, aipagarria da batzuetan hitz lauko gertakari edo arrasto berak darabiltzatela hiztunek abestean ere. Beste batzuetan, berriz, zertxobait aldentzen dira eguneroko hizketako jarduneko kodeetatik:

Obviously, singers use an acoustic code for adding expressivity to a performance. As pointed out by Juslin and Laukka (2003), the code is similar to that used in speech; in fact, it would be most surprising if different codes were applied in speech and singing in order to convey the same information. For example, the slowing of the tempo toward the end of musical phrases is similar to the final lengthening principle used in speech for marking the end of structural units such as sentences. Likewise, in both singing and speech, an important syllable or tone can be emphasized by lengthening its upbeat (Sundberg et al., 1995). However, the expressive code used in singing may not necessarily be simply imported from that used in speech.

(Sundberg 2013: 99)

Kammu edo athabaskar hizkuntzetan, adibidez, helburu enfatiko, estetiko edo narratiboekin baliatzen da aldakortasun prosodikoa kantuan, hitz lauz bestelako gertakarien bidez (Karlsson et al. 2014: 156, 161).

Musika instrumentalaren edo kantuaeren (bertsoen) ekoizpenean, erritmoaren kudeaketa adierazkorra (*expressive timing*) dei diezaiokeguna gauzatzen da. Euskarazko bat-bateko bertsoez hainbat bertsolarik adierazten dute bertsoetako erritmoa “anarkoa” dela (Jon Maia, Iraizoz Remiro 2012: 64-n jaso), bertsolariek ez dutela solfeoaren arabera kantatzen (Andoni Egaña 2007b), etab. Bertsolaritza gehienetan *a capella* —akonpainamendu instrumentalik gabe— eta aldiro bertsolari batek kantatzen duen jarduna izanik, sortzaileak askatasun handiagoa izango du erritmoa nahieran kudeatzeko, baina hori gertakizun zabala da, musika ekoizpenetan oro har aurkitzen dena. Hala,

ekoizpen guztiz erregular eta zehatzetik aldenduz, musika-notak, silabak, espero baino lehenago edo beranduago kantatzen dira, espero baino luzeago edo laburrago, *tempo* aldaketak egiten dira, etab. Horrek guztiak konnotazio jakinak ematen dizkio musikari, mendebaldean musika hautematen den moldeetan (Patel 2008: 114; Honing 2013: 372). Musikaren hautemate horretan, ekoizpen zehatz eta erregular batek ere bere kolore edo esangura du: mekaniko, martzial edo zorrotza irudi dakiguke entzuleoi, adibidez.

Sundberg-ek (2013: 100) hiru osagai edo motibazio bereizten ditu —gutxienez— kantuetako ekoizpen artistikoan, adierazkortasunari loturik: 1) musikaren osagai desberdinen azpimarra egitea: musika-notek eskalan duten kokapena edo haien balio erritmikoa, esaterako; 2) osagai estrukturalak argiago adieraztea: motiboak, periodoak, esaldiak; 3) testuaren eta musikaren giro emozionala islatzea. Azaltzen duenez, aipaturiko alderdiak hizketan eta musikan aurkitzen dira eta oso probablea da giza hautemate-sistemari loturik garatu izana osagaien azpimarra, taldekatzea zein emozioen kodetzea, besteak beste hizketatik abiatuta (ikus §9.2.4.2 atala; musika eta emozioen arteko loturaz, ikus Juslin eta Sloboda 2013, berrikuspen baterako).

5.6. Hondarreko gogoetak

Testu-uztartzeaz beste hizkuntza batzuetan eginiko lanek bat-bateko bertsoen erritmoaren azterketan kontuan hartu beharreko hainbat alor uzten dituzte agerian. Hasteko, kantuan oinarri prosodikoak duen eraginarena. Lan honetan aztergai ditudan bertsoetan eredu prosodiko orokorra zehazturik dago, doinuak —eta neurriak— emana da, eta bertan txertatzen den hizkuntzak musikak eta metrikak emaniko baldintzetara moldatu beharko du¹³⁷. Hala, hautatzen diren hitz, egitura sintaktiko, zein gauzatzen diren silabatzeak aurrez zehazturiko eredu prosodikoek baldintzatuak dira, hein batean.

Oinarri horretatik abiatuta hizkuntza eta musika lotzeko moduetan badirudi maiz esanguratsua dela hizkuntzaren tipo erritmikoa eta, zehatzago, sistema fonologikoa. Horregatik, hitz lauz bezala kantuan ere antolakuntza erritmikoa baldintza dezake hizkuntzaren tipo erritmikoak, silabatzeari dagokionean (ikus §8), eredu-erritmiko linguistiko, metriko eta musikalen arteko harremanari dagokionean (ikus §9), zein osagaien arteko taldekatzeari dagokionean (ikus §10), besteak beste.

Halaber, garrantzitsua da hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren egituren arteko harremana kontuan hartzea: testu-uztartzean alor horietakoren bat nagusituko da sarri, egituren uztartzea dinamikoa izanik testu-generoaren ezaugarrien arabera, besteak beste. Lan honetan aztergai dudan

137 Euskararen kasuan silaba-kopuru eta taldekatze jakina betetzea litzateke, batez ere (ikus §6.6.1).

bat-bateko bertsogintzaren izaera eta testuingurua ezagutzea lagungarri izan daiteke, beraz, testu-uztartzea hobeto ulertzeko (ikus §6 eta §7). Hizkuntza-metrika-musika hirukoaren artean tentsioak sor daitezke, gainera, osagaiak bat ez etortzearen ondorioz. Horrela, egituretako bakoitzaren antolakuntza eta horien elkarreragina aztertzea esanguratsu izan daiteke eskuartearen dudak ikerketan (ikus, batez ere, §10). Bestalde, kantuaaren alor musikalak askotariko egitekoak ditu hitz lauko prosodiak bezala, eta horiek gauzatzeko moduak hitz lautik gertu egongo dira batzuetan (ikus §9.4.4.3 eta §10.4.1.4.2 gai horri buruz lan honetan eginiko azterketa eta analisi proposamenerako).

6. Bertsolaritza

6.1. Sarrera

Bertsolaritzak askotariko esanahiak biltzen ditu bere baitan, euskaraz bertsoak sortzeko artea izate horren azpian eta inguruan. Garaian garai, aztertu eta definitu izan duten horien kokapenaren arabera nahiz bertsolaritzaren beraren egoerak baldintzatuta aldatu izan da bertsolaritzaren eta bere unibertsoaren ulerkerak eta ezaugarritzea. Lan honetan *bertsolaritza* esatean, euskaraz eta bat-batean bertsoak jendaurrean, ahoz eta kantuan sortzeko jardunari egiten diot erreferentzia, hori gertakariaren ulerkerak mugatua dela jakitun¹³⁸.

Kapitulu honen helburuak honakoak dira: 1) bertsolaritza definitzeko baliatu izan diren hainbat angelu azaltzea; 2) bertsolaritzako osagai eta partaide nagusietako batzuk aurkeztea¹³⁹ eta 3) bertsolaritzaren esparruan azken hamarkadetan prosodiaz eginiko ikerketa nagusiak jaso eta adierazpen eta gogoeta esanguratsu batzuk biltzea¹⁴⁰. Bertsolaritza bera sakonago ezagutzeak lan honetan aztergai dudan bertsoen prosodiaren hainbat alderdi interpretatzeko edo testuinguratzeko gakoak eman ditzake, testu-uztartzeaz (§5) eginiko berrikuspen laburrean ondorioztatu bezala. Izan

138 Bertsolaritza ez da beti jendaurreko, ahozko eta inprobisatua eta definizio hori mugatzaile izan daiteke —esaterako, bertsolaritzaren historia ulertzeko orduan eta genero ikuspegitik (Larrañaga 1997)—. Bertsolaritzak (izan) dituen dimentsioak sakon ulertzeko taberna, plaza eta areto handiez besteko sorkuntza-esparruak zein jardun idatzia bezalakoak kontuan hartu behar dira, lan honetan aztergai ez ditudan arren. Gaur egun (ere) egiten dira bertso-sorta lehiaketak edo bertso-jarri errezitaldiak, kasu.

139 Bertsoa, metrika, doinua, bertsolaria, bertsogintza, entzulea, testuingurua, etab.

140 Berrikusitako lan horiek maiz ez dira *prosodia* terminoa aipatuta egin baina prosodiaz dihardute: doinuez, kantaeraz, hitza eta musika uztartzeko moduez, etab.

ere, edozein testu edo gertakari linguistiko ulertzeko testuinguruak —zentzurik zabalenean— eta testuaren izaerak ezinbesteko garrantzia dute. Testua inguratzen duen guzti hori ezagutzeko beharra areagotu egiten da lan honetan aztergai dudan jendaurreko, ahozko eta bat-bateko jardunean, inguruneari hainbat maila eta modutan hertsiki loturik gauzatutako ekoizpena baita. Alderdi guztiei erreparatzea ezinezko izanik, ikerlan honetan aztergai diren gertakari fonologikoetan eragin handiena izan dezaketen osagaietan sakonduko dut atal honetan.

6.2. Oinarrizko osagai batzuen aurkezpena

Alderdi teknikoenei erreparatuz gero, *bertsoa* —lan honetan hartzen den bertsolaritzaren ikuspegi hertsiairen baitan— “berbaldi bat da, kantatuz, errimatuz eta neurtuz burutzen dena” (Garzia et al. 2001: 81). Aurreko atalean (§5) zehaztu bezala, hizkuntza, esan nahi den hori, silaba kopuruan oinarritutako neurri jakin batean antolatzen da bat-batean, aurrez sortutako doinu batean txertatuz, errimatzen duten hitzak doinuaren —eta neurriaren— (g)une jakinetan kokatuta.

Lan honetan aztergai izango ditudan bertsoak jendaurrean, testuinguru zehatz batean eta hari loturik, bat-batean sortutako hizketa-tarte neurtu, kantatu eta errimatuak dira: 1980-2017 bitarteko Bertsolari Txapelketa Nagusietako irabazleen finalerako bertsoak, hain zuzen ere. Bertsoa diskurtso-unitate bat ere badela esan genezake (Garzia et al. 2001: 187), ahoz gauzatutako *paragrafo* bat, ahapaldi bat, nahi bada. Bere horretan badu esanahia, baina sarri bertsoa beste hainbat bertsoarekin batera ekoitzi ohi da —bertso horiek bertsolari bakarrak edo batek baino gehiagok kantatuak izan— eta beste hainbat bertsoarekin batera ulertu behar da, gai eta testuinguru jakinean. Gai jakin bat emanik testuinguru zehatzean *bertsolariak* edo *bertsolariak* —bertso-sortzaileek— kantatutakoek osatzen dute *bertsoaldia*¹⁴¹. Ikerlan honetan bertsoak bertsoaldika aztertu ditut, besteak beste (ikus §1.4.2 eta §7 corpusaz eta haren trataeraz).

Gai edo lan beraren pean eta baldintza berberetan ekoizitako bertsoak izaki —gehienetan doinu berean¹⁴²—, elkarren arteko loturak eta aldeak aztertzeke baldintza ezin hobeak eskaintzen ditu bertsoaldiak, gertakariak osotasun baten baitan ulertzea ahalbidetzeaz gain. Bertsolaritzaz ari garela ezinbestekoa da, labur bada ere, gaiak eta horiei ematen zaien trataera aipatzea. Komunikazio-ekintza bat-batekoa den heinean, bertsolariak askotariko erreferentzia- eta ideia-mailak zein ahotsak nahastu ohi dituzte edo nahas ditzakete euren jardunean (Sarasua 2007: 39):

141 Atal honetan bertsoez eta bertsoaldiez ari naizela, aztertu ditudan txapelketako saioak ditut buruan. Horietan jarduna oso zehaztua eta antolatua dago, egin beharreko lanetatik hasi eta kantatuko den bertso-kopururaino. Ez naiz bestelako bertso-plazetako askotariko saioez arituko. Horietan jarduna askozaz ere aldakorragoa da.

142 Hala da lan honetan corpusa osatzen duten bertsoaldien kasuan.

kantatzen ari diren ingurune “errealari” lotuak, sortzen ari diren fikziozko egoerari lotuak, euren bizipen eta lanketekin zein besterenarekin harremana dutenak, beren mundu erreferentzian kokatuak, bertso-kideak esandakoari erreferentzia edo erantzunak, etab. Bertsoaldia bera *bertso-saio* baten baitan kokatu behar da, era berean, beste hainbat bertsoaldirekin batera, horrek ematen baitio benetako osotasuna bertso-jardunari.

Bertsolariak egiten duen jardun artistikoari, sorkuntza lanari, *bertsogintza* (*versification*) esaten zaio. Terminoak edozein hizkuntza eta moldetan¹⁴³ hitz neurtu edo bertsoak (*verse*) sortzeko praktika artistikoari egiten dio erreferentzia. “*Bertsolaritza*, aldiz, bertsoaren inguruan sortzen den kultur proiektua izendatzeko erabiltzen da”¹⁴⁴ (Garzia et al. 2001: 70-71). Egia esan behar bada, *bertsolaritza* terminoa *euskarazko bat-bateko bertsogintza kantatua* adierazteko ere erabili ohi da gaur egun, eta beraz, bat-batean bertsoak sortzearen jardun artistikoari (bertsogintzari) edo ekimen horren inguruan antolatutako kultur proiektu eta gizarte mugimenduari egin diezaioke erreferentzia *bertsolaritzak* (Garzia [2013] 2021: 9). Lan honetan aztertuko dudana bertsogintzari dagokio zentzu hertsian, bertsolariak sortutako bertsoak baititut aztergai, nahiz eta ukaezina den bertsolaritzaren mugimenduak, bertsogintza ulertzeko moduek eta gizarteak berak, oro har, bertsogintzan duten eragina. Arlo horiekiko lotura posibleetako batzuk aipatzen ahaleginduko naiz lanean zehar, gaiok funtsezko izan arren ikerlan honi ezarritako mugak gainditzen dituztela jakitun.

Aurkeztu ditudan bertsolaritzaren eta bertsogintzaren definizioak ikusita, beharrezkoa da euskaraz eta bat-batean sortutako bertso kantatuak bertsogintza osatzen duten bestelako sorkuntza-lanekin lotzea. Izan ere, gorago esan bezala, *bertsoa*, ingelesezko *verse* terminoarekin parekatuz —edo frantsesezko *vers*, gaztelaniazko *verso*, etab.—, ezaugarri konkretu batzuk dituzten hizketa moldeak izendatzeko erabiltzen da. Hotsezko ekoizpenari berari fonologiatik begiratuta, egituraketa (prosodiko) konplexuagoa edota erregularragoa erakutsi ohi dute sarri bertsoek hizketa lauarekin alderatuta, bertsoen eta hizketa lauaren arteko bereizketa argia arbitrarioa eta arazotsua den arren (Lotz 1972: 1). Nolabaiteko bertso-formatzat har daiteke poema idatzi bat, bertso kantatu bat, rap bat edo manifestazio bateko aldarri erritmikoa, bertsoa hitz lauarekin alderatuta egituraketa (prosodiko) maila gehigarriak dituen hizketako gertakari gisa ulertuz gero (DeCastro-Arrazola 2018: 1; §5.2 atalean aurreratu dut ideia hori). Bertsolaritza bestelako bertsogintza moldeekin lotzarekin batera, garrantzitsua da kontuan hartzea inprobisazioari bagagozkio ere, mundu osoan zehar eta hizkuntza askotan egiten den jarduna dela. Herri, kultura eta hizkuntza bakoitzean garatutako inprobisazioak ezaugarri propioak ditu, gainerakoekiko antzekotasunekin batera¹⁴⁵.

143 Ahoz zein idatziz, bat-batean edo aldeztu aurretik pentsatuta ekoiztako bertsoak izan daitezke.

144 Letrakera etzana nirea da.

145 Ikus, esaterako, *Mundu bat ahoz aho* (Mintzola Ahozko Lantegia, 2018) dokumentala. Sarean: <https://bertsoa.eus/albisteak/6803-mundu-bat-ahoz-aho> (azken kontsulta: 2023-12-05).

“Bertso neurtu” deiturikoa errazago bana liteke eguneroko hizketaren antolamendutik, arlo prosodikoari erreparatzen bazaio, behintzat. Halakoa da lan honetan aztergai dudan bertsolaritzaren ekoizpena. Egiturari dagozkion eskakizun zehatzak bete ohi ditu bertso neurtuak osagaien luzerari, silaba jakinen kokapenari edota bestelako alderdi prosodikoei dagokienean¹⁴⁶. Egituraketa horren oinarrian legoke bertsoen metrika edo neurria (*meter*), eredu metrikoa edo bertso-neurria (*metrical template*) deritzona. Euskarazko bat-bateko bertsoetan horren ohiko diren *zortziko handia* edo *hamarreko txikia* dira neurri horietako batzuk, esaterako.

9. irudia: Zortziko handiaren eskema metrikoa (Garzia et al. 2001: 84)



Euskarazko bat-bateko bertsoak euskaraz ekoizitako bestelako bertsogintza moldeetatik bereizteko, ondoko ezaugarriak aipa daitezke, abiapuntu gisa¹⁴⁷:

1) Bat-batekotasuna eta ahozko izaera. Bertsoa testuinguru jakin batean eta hari loturik sortzen du bertsolariak ahoz, inolako idatzizko euskarririk gabe, eta entzuleriak sortzen den une berean jasotzen du¹⁴⁸. Beste hizketa molde batzuen kasuan, egungo edozein sortzaileren kantuetan, adibidez, sorkuntza unea eta ekoizte nahiz jasotze unea ez dira berberak izaten, kantatzen den aldiro kantua berriz sortzen dela uler daitekeen arren.

146 Bertso neurtuekin kontrastean neurrian oinarritzen ez diren bertsoak leudeke. Azken multzo horri dagokionez, batzuetan bertsoak bestelako erregulartasunen batean oinarritzen dira; paralelismo sintaktikoan, esaterako (Testamentu zaharreko hebreera, adibidez). Neurrian oinarritzen ez den beste bertso mota bat litzateke bertso libre deiturikoena. Horiek bertso-lerrotan antolatzen dira, baina ez dute neurriari dagokion bestelako eskakizunik bete behar hasiera batean (Fabb eta Halle 2008: 1-3). Lan honetan bertso neurtuez ari(tuko) naiz, halakoak baitira aztergai ditudan euskarazko bat-bateko bertso kantatuak.

147 Lanean zehar sakonduko dut horietako batzuetan, ñabardurak eginez dagokionean.

148 Bertsoa bat-batekoa dela esateak ez du esan nahi bertsolariak alde zuzeneko gogoeta edo lanketarik egin ez duenik maila teknikoan, ideologikoan, artistikoan, musikalean, etab. Era berean, gaur egungo teknologiek eraldatu egin dute bertsoa ekoizti eta jasotzeko modua, bat-batean kantatu zein entzuteaz gain, posible baita kantatua grabatu eta gerora, testuingurutik at, bideo formatuan ikus-entzutea, esaterako. Hala ere, erdigunean dagoen jardunak aldibereko komunikazioa eta presentzialtasuna ditu ardatz.

2) Bertsoa doinu batekin kantatzen da, melodia batekin; ez da rapa bezala errezitatzen, estiloak estilo mugak lauso izan daitezkeen arren. Doinu hori aurrez sortua izan ohi da, gutxienez bertsolariarentzat —eta gehienetan baita entzuleentzat ere— ezaguna izanik. Bertsoa kantatua da eta doinua ez da inprobisatzen —aldiro berdin kantatzen ez den arren—; aurrez zehaztua izan den doinu batean oinarrituta sortzen da “hizkuntzazko atala” bat-batean. Kantuetan, berriz, testua konposa daiteke lehenago, eta ondoren sortu horri dagokion musika, edo alderantziz, edo aldi berean sortu biak. Jazza edo flamenkoa bezalako jardunetan, kasu batzuetan, testu eta harmonia jakinetatik abiatuta doinua da inprobisatzen dena, etab.

3) Lan honetan aztertzen diren bertsoetan neurria antolatzeke oinarritzko unitatea silaba da eta bertso-doinuarekin harremanetan, bertsoetako kantua silabikoa da nagusiki: normalean silaba bati musika nota bat dagokio kantatzean, salbuespenak salbuespen —silaba bakarrean musika nota bat baino gehiago kantatzeari kantu *melismatiko* deritzogu, eta horren adibide argia kantu gregorianoa izan daiteke— (ikus §10.2.5.1).

4) Bertsoen helburu nagusietako bat komunikatzea da, entzuleengan emozioak sortzea (Garzia et al. 2001: 141; Etxepare Euskal Institutua eta Mintzola Ahozko Lantegia 2019, beste batzuen artean). Bide horretan hitzaren nagusitasuna nabarmendu ohi da musikaren gainetik, nahiz eta musikak —doinuak, kantaerak, ahotsak— mezuan duen eraginaz kontzientzia eta lanketa gero eta handiagoa dagoen gaur egun (ikus Lujanbio 2017; Navarro 2018 edo Soroa 2020, 2022, besteak beste).

6.3. Bertsoetara erretorikatik hurreratuz: testuinguruaren garrantzia

Bertsolaritza herri literaturatzat, ahozko literaturatzat, hartu zen 60. hamarkadatik aurrera eginiko azterketetan (Michelena [1960] 2001; Lekuona [1965] 1978; Lekuona 1978; Lekuona 1982). Bertsolaritzaren ahozko izaera eta bat-batekotasuna aipatu eta are goretsi arren (Lekuona 1978, Lekuona 1982), literatura idatziaren moldeetan aztertzen zen nagusiki (ikus Garzia et al. 2001: 136-137). Horrek ekarri zuen zenbaitek bertsolaritza gaitzestea kultur maila kaskarra egotziz eta, are, bertsoak entzuten ari direnen zirrara antzezpentzat hartuz (Múgica-k [1998], besteak beste; ikus Garzia et aliiren [2001: 137-141] iruzkinak gaiaz).

Garzia et al. (2001: 139-141) bertsolaritza testu (idatzi) soil gisa aztertzeak dituen hutsune eta ahulguneak uzten dituzte agerian. Nabarmentzen dute bertsolariaren eta bertsoen helburu nagusia ez dela “maila estetiko-literario handiko testuak sortzea” nahiz eta “noiz edo behin horrelakoren bat ere sortzen du[en] bertsolariak” (Garzia et al. 2001: 141). §6.2 atalean esan berri

dudan bezala, bertsoen helburu nagusia komunikatzea dela esan liteke (Etxepare Euskal Institutua eta Mintzola Ahozko Lantegia 2019), “entzuleengan emozioa eragitea” (Garzia et al. 2001: 141) eta, horretarako, ez da (beti) beharrezko maila literario altuko testua (soilik). “[T]estuinguru jakin batean eta testuinguru horretarako sortzen da” (Garzia et al. 2001: 140) bertsoa, testuinguruak zeharo baldintzatua da eta, beraz, funtsezkoa da bertsoa sortu den testuinguruari erreparatzea bertsoa ulertzeko¹⁴⁹.

Testuinguruaren konplexutasunarekin batera, garrantzitsua da kontuan hartzea testu soila baino gehiago dela bertsoa, testu kantatua dela, eta “emozioa sortzerakoan, testua bezain garrantzitsu izan litezke doinua, ahotsa eta kantaera” (Garzia et al. 2001: 140). Doinua, kantaera, “mezuan integratuta” doaz (Lujanbio 2017). Hala, esan liteke bertsoaren hotsezko alderdiek funtsezko papera dutela bertso gintzan, hizkuntzaren hots eta unitate prosodikoetatik hasi (silabak, kasu) eta doinu zein kantaeraraino (gai hauetaz, ikus jarraian §6.6.2 eta §6.6.3 atalak).

Literatura idatziaren markoa eta teoria oralistak baztertuta —azken horiek egungo bertso gintzaren ezaugarriekin ez baitatoz guztiz bat, eta ahozko eta idatzizko jardunak elkarren aurkako bailiran kokatzen baitituzte —bat-bateko bertsolaritza ulertzeko erretorika klasikoan oinarritutako marko teorikoa proposatzen dute Garzia et al. (2001). Hala, bat-bateko bertsoak sortzeko prozedura aztertzen dute erretorika klasikoak eskaintzen dituen bost kanonen arabera, kontuan hartuta pausoak ez direla modu linealean gauzatzen, sarri batera, beste ordenaren batean eta elkar baldintzatuz baizik: *inventio* (“argudio egokien bilaketa eta sorrera”), *dispositio* (“argudioen antolakuntza ordena egoki baten arabera. Hitzaldiaren egituratzea”), *elocutio* (“argudioen formulazio egokia”), *memoria* (“argudioak, egokiro antolatuak eta formulatuak, gogoan edukitzea”) eta *actio/pronuntiatio* (“hitzaldia bururatzea, gauzatzea”) (Garzia et al. 2001: 179).

Inventioa (“argudio egokien bilaketa eta sorrera”) bertsoetara ekarrita, argudiaketa egokia bilatzeko bat-batekotasunak dakarren denbora muga nabarmentzen dute egileek. Zailtasun horri aurre egiteko, ordea, bertso gintzak berak eskaintzen dituen bestelako baliabideak balioesten dituzte, “komunikazio-ekintza osatzen duten testuz-kanpoko osagarri”-ak. Horien artean dira ikerlan honi dagozkion bi alderdi nagusi: bertso-doinuaren hautua eta bertsolariaren kantaera, hain zuzen ere (Garzia et al. 2001: 185).

Dispositioari (“argudioen antolakuntza ordena egoki baten arabera. Hitzaldiaren egituratzea”-ri) dagokionez, kontuan hartu behar da bertso bat, bertsoaldi bat, “diskurtso unitate bat” dela (Garzia et al. 2001: 187), eta bertsolariak bere diskurtsoa egituratzen duela muga horien baitan. Esan liteke bertsoa egituratzeko estrategia orokorretako bat —nahiz ez den bakarra— argudio edo

149 Bat-bateko bertsoetako testuinguruaz analisi eta proposamen teoriko baterako, ikus Garzia et al. (2001: 141-157).

ideia nagusia bukaeran kokatzea dela, eta horren arabera antolatu ohi dira bertsoaren aurreko puntuak (bertsoak sortzeko prozesuaz, ikus Egaña 2005, 2007a, esaterako). Bertso(aldi)en antolakuntza desberdina da haien luzeraren arabera:

Bertsoa laburra bada azken puntua ez gainerako guztia, bertsolariak inprobisazio hutsez moldatu beharreko hori, azken puntuko argudio nagusiaren atarikoa izan ohi da sarri. Atariko horren egitekoa, berriz, argudio nagusiaren eraginkortasuna ziurtatzea eta indartzea da, dela hari bidea eginez, dela harentzat kontrastean edo antitesian. [...]

Puntu gehiagoko bertsoetan, ordea, oso zaila da lehorrera onik iristea kantatzen den guztiak bukaera zuzenean prestatzea beste helbururik ez badu, gaitzeko lana baita entzulearen arretari horren luzaroan eme eustea, bertso mota hauek eskatzen duten moduan. Konplexuagoa delarik, bertso luzeak bestelako estrategiak ere behar ditu, baita barne-tentsio handiagoa ere [...].

(Garzia et al. 2001: 187-188)

Hala, luzeagoak diren bertsoak kantatzean diskurtsoa sarri “segmentu erretoriko” desberdinetan banatzen dutela azaltzen dute Garzia et al. (2001: 193), atal diskurtsibo bakoitzari egiteko erretoriko bat emanez. Edonola ere, gorago aipatuak aipatu, bertsolariaren, bertsokeraren edota kantatzen den bertsoaren neurri, gai, doinu eta abarren arabera izango da bertsoa sortzeko eta antolatzeko estrategia, kasuan kasuan aztertu beharrekoa.

Erretorikaren kanonekin jarraituz, *elocutio*aren (“argudioen formulazio egokia”-ren) baitan kokatuko lirateke —besteak beste— esan nahi den hori bertso-neurriak eskatzen duen silaba kopurutan antolatzea edo bertsolariak bere diskurtsoa plazaratzeko baliabide poetiko-erretorikoak erabiltzea. Garzia et alioren (2001: 206-209) arabera, aipatutakoez gain, badira bertsolaritzak eskaintzen dituen bestelako baliabide batzuk ere. Horietako bat litzateke “planoen gainezartzea”; hau da, “testuan sortzen ari den fikziozko planotik lanean ari den egiazko esparruaren planora” jauziak egitea. Beste baliabide batzuk lirateke doinuaren eta kantaeraren erabilera diskurtsoaren formulazioan.

Actio edo *pronuntiatio*a (“hitzaldia bururatzea, gauzatzea”) aztertuta (Garzia et al. 2001: 224), ohartuko gara ikerlan honen gaia bete-betean kokatzen dela esparru honetan. Izan ere, alderdi prosodikoa hizkuntzaren gauzatzeari dagokio nagusiki, esan nahi den hori fisikoki ahoskatzeari, nahiz eta aurrez aurkeztutako alderdiek beren eragina duten bertsoaren gauzatze prosodikoan, hizkuntzaren (kasu honetan, euskararen) ezaugarriena bezalako beste alor batzuekin batera. Bertsoa ekoizteko funtsezko osagaiak dira ahotsa eta kantaera (eta kantaeraren bitartez, doinuaren gauzatzea, doinua), entzuleek duten bertsoaren hautematean aldakorra bezain ukaezina den eragina izanik.

6.4. “Tradizio modernoa”: itxuraz aurkako diren joerak uztartuz¹⁵⁰

Bertsolaritzaren egungo izaera hobeto ulertzeko denboran atzera egitea beharrezkoa da, egin duen ibilbideari begiratuz. Bere jatorriaz eta bilakaeraz eztabaidak izan dira azken mendean, baina hainbat testigantza idatzitan oinarrituta¹⁵¹, esan daiteke XV. mendean bertsoak kantatzen zituzten *eresgileak* eta *profazadorak* har daitezkeela egungo bertsolarien aitzindaritzat (Michelena [1960] 2001: 27; Azurmendi 1980; Garzia 2007b: 78; Txakur Gorria kolektiboa 2022). Gutxi dakigu ordutik XX. mendera arte bat-bateko bertsoek zuten funtzioez, eragin-esparruez eta garrantziaz, hainbat lekukotasun badiren arren (Garzia 2007b: 78-79).

XXI. mende hasieran eginiko Bertsolaritzaren Bigarren Azterketa Soziologikoaren arabera (Aierdi et al. 2007; Retortillo eta Aierdi 2007), euskaldunen artean bertsolaritza herri kultura gisa ulertzen da, eta baita arte, ikuskizun edo adierazpide moderno gisa ere. Ulerkera horiekin batera, bada bertsoa euskal tradizioarekin lotzen duenik ere. Hasiera batean aipatutako hiru ulerkera horiek (herri kultura, arte modernoa eta tradizioa) elkarren aurkako direla pentsa daitekeen arren, “definizioa [sic.] horiek guztiak elkarren osagarri dira eta *continuum* bat osatzen dute [...]. Izan ere, bertsolaritza tradizioan oinarritzen baita, herri kultura bezala definitzen baitute nagusiki, eta gaur egun ikuskizun moderno batean gauzatzen den arte mota garaikide batek bezala funtzionatzen baitu” (Aierdi et al. 2007: 60).

Bertsolaritzaren Hirugarren Azterketa Soziologikoan (Zubiri et al. 2019) ildo bereko interpretazioa egiten da (oraindik), entzuleen ikuspuntuan sakonduz:

Publikoaren ikuspegitik, bertsolaritza tradizioan kokatzen den herri kultura da, eta, aldi berean, arte moderno bat da, zaharkitua ez dagoen ikuskizun bat, ondo pasatzeko adierazpen moderno bat. Publikoak bertsolariarengan gehien estimatzen dituen ezaugarriak umorea, hunkitzeko gaitasuna eta irudimena dira.

Kultura-adierazpide hibrido bat dela esan genezake. Bertsolaritzan gurutzatu egiten dira herri-kultura eta arte garaikidea, tradizioa eta berrikuntza, konpromiso kulturala eta entretenimendua, burutazioa eta sakonera, historiaren zama eta bat-batekotasunaren presa. Lorpen handia da tradizioari lotutako diskurtsoa eta arte ekoizpen garaikideei lotutako diskurtsoa uztartzea.

(Zubiri et al. 2019: 98)

150 Atal honen izenak, “tradizio modernoa”-k, Aierdi et aliiren (2007) lanaren izenburuari egiten dio erreferentzia: *Bertsolaritza, tradizio modernoa*.

151 Bi iturri nagusi aipatu ohi dira XV. mendean: batetik, 1452. urtean idatzitako Bizkaiko Forua, zeinetan profazadora edo eresgileei kantatzea debekatzen zaien, eta bestetik, XV. mendean “dama inprobisatzaileak” zeudela dioen Garibay-ren (1533-1599) testigantza.

Aierdi et al. (2007) eta Zubiri et al. (2019) nagusiki bertsolaritzaren diskurtsoei, mamiari, buruz ari diren arren, proposatzen duten ulerkera horrek bat-bateko bertsoen prosodia aztertzean aurki ditzakegun osagaien askotariko izaera aurreikusten laguntzen du: tradizioari jarraiki, hainbat inertzia, molde eta ezaugarritan gordetzailer izango da eta, era berean, jardun artistiko modernoa ere baden heinean, gizartean ematen diren eraldaketekin bustiko da. Horrela, proposamen artistiko berriak ere egingo dituzte bertsolariek, maiz ezaugarri eraldatzaile zein berritzaileak agertuz. Metrikari dagokionez, esate baterako, tradizioari jarraituko dio bertsolaritzak oro har, azken mendeetan bezala mantenduz bertsoan aritzeko neurriak —nahiz eta noizean behin baden proposamen metriko berririk egiten duen bertsolaririk, edo neurria betetzeko moduan aldaketak gerta daitezkeen arren—. Baina, era berean, arteari, sorkuntzari, loturik dagoen heinean, bertsoa eraikitzeke bestelako moldeak bilatuko dira. Esaterako, duela urte batzuk (2001eko Bertsolari txapelketa Nagusian) bakarkakoetara Lujanbiok bertsokera narratiboa ekarri zuela esaten da, besteak beste, eta proposamen horrek ordura arte bertsoa eraikitzeke zegoen modua aldatu zuela (Garzia [2013] 2021: 76; Zubiri et al. 2019: 121) —.

Bat-bateko jarduna izateak berak ere itxuraz aurkako diren joerak ekarriko dizkio bertsoen prosodiari: doinuari eta bere ezaugarriei lotuago egongo da bertsolaria, hasiera batean bederen, inprobisaziorako euskarri direlako. Era berean, baina, bat-bateko izaera eta helburu nagusiki komunikatiboa direla eta, hizkuntzaren prosodiatik hurbilago dauden joera erritmikoak agertuko dituzte batzuetan bertsolari batzuek, musika erregularraren moldeetatik aldenduz (ikus §10.4.1.4.2).

6.5. Gizartearekiko lotura gehiago

Bertsolaritza ez da aparteko uharte bat. Bertso-munduko eragileak —entzuleak, antolatzaileak, gai-jartzaileak, bertsolariak eta beste— askotariko gizarte esparruetan bizi dira. Bertsozale izateaz gain, surflari, dentista, bizilagun, antropologia ikasle, mekanikari, dantzari, langabe, kontsumo taldeko kide, supermerkatuko kontsumitzaile, lagun, kazetari, seme-alaben-gurasoen-whatsapp-taldeko-kide, irakasle, asanbladakide, wifi konexiorako pasahitzdun eta A8ko zein A63ko erabiltzaile ere badira. Eta bertso-munduan nola edo hala parte hartzen duten horien guztien bitartez eragiten du gizarteak bertsolaritzan. Uharte ez delako da aldi berean gizartearen isla eta irla ez delako da gizarte eraldatzaile.

Edozein praktika sozial dago, definizioz, bestelako gizarte esparruekin interakzioan [...]. Bakoitzak bere eragiteke bideak eta baliabideak ditu, eta bertsolaritzaren kasuan, bertsoa bera da funtsezko kanala.

Miren Artetxe (Zubiri et al. 2019: 9)

Bertsolaritza gaur egungo gizartearen isla da, gizarteak eragina du bertsolaritzan eta, era berean, iragazkortasun horrexegatik du bertsolaritzak gizartean eragiteke gaitasuna, Artetxeren

aiputik uler daitekeen bezala. Azpi-atal honetan bertsolaritza eta, zehatzago, aztertu den corpusa —1980-2017 bitarteko Bertsolari Txapelketa Nagusietako txapelaldunen finalerako bertsoak— kokatzen lagunduko duten hainbat alor aurkeztuko dira (gehiagorako, ikus §7), azken hamarkadetako bertsolaritzaren ulerkera batzuk definitzen dituztela esan daitekeenak. Horiek, beste alor batzuekin batera, zuzenean edota zeharka, eragina dute edo izan dezakete bertsoetan egiten den hizkuntzaren eta, zehatzago, bertsoen prosodiaren erabileran.

6.5.1. Bertsolaritza harreman gisa

Oteizak bertsolaritzarentzat proposatutako (2007: 117) iruditik abiatuta¹⁵², bertsolaritza “publiko eta bertsolarien artean sortzen den lotura likido” gisa deskribatzen du Hernándezek, “bertsolarien eta publikoen artean sortzen den emozioen itsaso mugitu” gisa, lotura sinbolikotzat (Hernández 2016: 31-32; Hernández 2017: 58–64):

First, the bertso establishes a (special) communicative field that facilitates nontypical communication practices. Second, in formal (or technical) terms the bertso has a structure or an architecture that intersects with a sociological group [...]. Third, the bertso is transformed into a symbol insofar as it creates, recreates, and expresses a social link.

(Hernández 2017: 63–64)

Horren adibidetzat jartzen du Fernando Aire “Xalbador” bertsolariak 1969ko txapelketan entzuleen txistuak txalo bilakatu zituenekoa bere bertso ezagunaz (gertakariak gehiago jakiteko, ikus Hernández 2016 edo Garzia 2007b, esaterako). Bertsolaritzan bertsolariaren ahotsak eta gorputzak (entzuleekin harremanetan, besteak beste) duten garrantzia aldarrikatzeaz gain (ikus Hernández 2016, 2019), bertso-jardunak emozio eta bizipenekin duen lotura estua nabarmentzen da ikuspegi honetan (ikus Perez Aldasoro 2011 ere), “kulturaren modu adierazgarri” gisa ulertuz bertsolaritza (Hernández 2016: 34). Entzuleek eta hauek bertsoez duten hautemateak funtsezko garrantzia dute, horrela, bertsolaritzan; bertsozaleak *performance*-aren ezinbesteko parte dira, bertsolariekin batera (Garzia et al. 2001: 54; White 2001: 12; Hernández 2016: 34-35).

Bertsolaritzaren Hirugarren Azterketa Soziologikoan azaltzen denez,

Bertsolaritzak komunikatiboki funtziona dezan, ezinbestekoa da bertsolariak eta publikoak beren arteko harreman soziokulturala negoziatzea. Ez da hitz neurtuetara ekartzen den diskurtso bat soilik. Oholtzara igotzen diren bertsolari horiek ezaugarri soziokultural, politiko eta fisiko batzuk dauzkate. Publikoarekin berdin

152 “La técnica del bertsolari es que está delante de todos y desaparece en su realidad interior de la que salen sus palabras [...]. Suelo decir que como dejándose llevar sumergido en un río (el río de su visión interior). Ahora digo también que es como si dejase a la gente (que le escucha) en la playa. Y él fuese retrocediendo de espaldas al mar y fuera sumergiéndose hasta desaparecer. Y sumergido del todo nos hablase con ese ritmo del mar que llega con las olas a la playa (y que también puede embravecer).” (Oteiza 2007: 117)

gertatzen da. Beraz, bertsotan egiten dutenean, bertsolaria ahalegindu egiten da ezaugarri horien arteko konexioak aktibatzen. Ez da zoru partekatuak baliatzea soilik. Fenomenoa askoz konplexuagoa da. Bertsolariak eta publikoak, edozein direlarik ere, gauza asko partekatzen dute, eta, beraz, gauza horietatik guztietatik zein eta nola erabiliko dituzten erabaki behar dute. Pluralean, bai: erabaki behar dute. Bertsolariak ez ezik, publikoak ere erabakitzen baitu, barre eginez, txalo hutsen bidez, epeltasuna erakutsiz, edo lilura adieraziz, aste baterako. Eta bertsolariak erabaki behar du nondik jo.

(Zubiri et al. 2019: 95)

Bertsolari eta entzuleen arteko harremanak eta komunikazioa gertatzen den testuinguruak, beraz, zentzurik zabalenean eta konplexuenean ulertuta, zeharo baldintzatzen du bertso-jarduna, modu dinamikoan.

6.5.2. Bertsolaritzaren gizarte-mugimendua

Bertsolaritzak azken hamarkadetan izandako bilakaera ulertzeko hainbat gako proposatu dira gizarte-ikuspegitik. Horien artean gizarte-mugimendu gisa egituratu izanari (§6.5.2.1) eta garaian garaira egokitzeko gaitasunari (§6.5.2.2) helduko diet jarraian, bertsolarien ekoizpenean izandako eraginari erreparatuz, ahal den heinean. Horrek bertsoen prosodian aztertutako ezaugarri eta aldakortasunaren eragile posibleetako batzuk ezagutu eta testuinguratzeko aukera emango digu.

6.5.2.1. Bertsolaritza gizarte-mugimendu gisa egituratuz

Zubiri et al. (2019: 40) azaltzen dutenez, XX. mende hasierara arte bertsolaritzaren ingurunea Euskal Herriko landa-eremu euskalduna zen. Bertan bertsolaria erreferentziatzeko pertsona zen eta bertso-jardunak ez zuen pareko kultur ekimenik. Transmisioa ere bermatua zegoen ekosistema horretan ahalegin kontzienterik egin gabe, publikoa biltzen zen espazioak baitziren bertsolaritzarenak: plaza edo taberna, esaterako. Baina bertsolaritzaren eremu nagusi izandako hura desagertzen eta gutxiengo izaten hasi zen XX. mendeko aldaketek aurrera egin ahala: industrializazioaren, tertziarizazioaren eta eremu digitalaren ondorioz, besteak beste.

Landa inguruneko baldintza gehienak desagertzeak bertsolaritza bera desagertzera zeraman arren, gaur egunera arte heldu da, ingurune aldakorrera egokituz. Bide eta bilakaera horretan gakotzat hartzen da 80ko hamarkadatik aurrera, batez ere, bertsolaritza gizarte-mugimendu gisa antolatu izana (Zubiri 2016; Zubiri et al 2017: 153-156; Zubiri et al. 2019), bertso-jarduna geroratzeko estrategia sozio-kulturala planteatuz (Sarasua 2003, 2007, 2013; Garzia et al. 2001; Aierdi et al. 2007; Retortillo eta Aierdi 2007; Zubiri 2016; besteak beste). Bertsolaritza kultur

proiektu autonomo gisa (ere) defini daiteke: globalizazioaren, *mass mediaren* eta euskaraz ez den eta komertziala den kulturaren garaian, mugimenduak bere buruari galdetzen dio nola jokatu beharko lukeen, kultur ondarearen biziberritzeari loturiko diskurtsoa bere eginez (Zubiri et al. 2017).

Eginiko azterketa eta proposamenen arabera, bertsolaritzaren gizarte-mugimendua ulertzeko elkarreraginean dauden hainbat osagai hartu behar dira kontuan, eta horietako batzuk dira ondokoak (aipatuko diren alorren bilakaera historikorako, ikus §7.3):

-Mentalitate aldaketa. Bertsolaritza gizarte-mugimendu gisa antolatzea mentalitate aldaketa baten eskutik etorri zen 80ko hamarkadan. Bertsolaritzaren transmisioa arriskuan zegoen eta hiru ei ziren garai hartako eztabaidagai nagusiak (Amuriza 2017): 1) bertsotan egiten ikas ote daitekeen edo berezko —jaiotzetiko— dohaina den; 2) euskara lehen hizkuntzat ez duten hiztunek —hiztun berriek¹⁵³— bertsotan egin ote dezaketen, eta 3) emakumeak bertsolari izan ote daitezkeen. Xabier Amuriza erreferente nagusia izanik, orduko bertsolaritzaren inguruko mugimenduak lan eskerga egin zuen mito horiek eraisteko, bertso jardunaren transmisioa bermatuko zuen ekosistema oso bat eraikitzea ahalbidetuz. Hala, 1980ko hamarkada hasieran, Xabier Amuriza bertsoak sortzeko prozesuari buruz hitz egiten eta idazten hasi zen, bertsotan egiten ikasteko metodo bat proposatuz (Amuriza 1981a, 1981b, 1982). Orduan bazen bertsolaritzaren transmisioaren inguruko kezka, eta Amurizari Euskal Herriko herri nahiz hiri askotatik deitzen zioten hitzaldiak eman eta ikastaroak antolatzeko. Lehenagotik bertsotan aritzeko elkartzen ziren askotariko (helduen) taldeak baziren arren, Amuriza eta Dorronsororen lanari esker hasi ziren talde asko eta asko bertsotan egiteko —eta egiten ikasteko— batzen metodologia bati jarraituz. Esan liteke hori izan zela bertso-eskolen loratze garaia, bertsolaritzarentzat transmisio-guneak ziurtatuz (bertso-eskolen ezaugarri eta ondorioez, ikus Agirreazaldegia eta Goikoetxea 2007 edo Artetxe 2014a, 2014b, besteak beste).

-Transmisio-guneen sorrera. Bertso-eskolak sortzen hasi ziren heldu, gazte zein haurrentzat, eta horien sorrerarekin batera, bertsolaritza hezkuntza formalean txertatzen hasi zen: Ikastolen hezkuntza proiektuan integratu zen eta, Dorronsororen (1981, 1982, 1988) lanari esker, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak bertsolaritza irakasteko materiala argitaratu zuen. Hala, 1985erako bertsolaritza Euskal Herrian zeharreko hezkuntza sistemetan integraturik zegoen, hein batean bederen (Iza 2010: 147–149; Barandiaran 2011). Ordutik lan handia egin da hezkuntza formalaren esparruan (ikus Garzia 2007a eta Aizpurua et al. 2008. bertsolaritzaren curriculumaz Lehen Hezkuntzan). Hezkuntza formaletik kanpo ere espazioak zabaldu dira bertsolaritzaren transmisio eta

153 Terminoa Artetxeri (2018) jarraiki baliatu dut. Hiztun berriek azken urteetan bertso-munduan bizi dutenaz, ikus, hain zuzen ere, Artetxe (2018).

gozamenerako, bertso-eskolez gain bertso-udalekuak eta sormen egonaldiak antolatuz, besteak beste, haur eta gazteak jomugan izanik. Zirkuitu berri horren baitan, ikastoletan euskaraz alfabetatutako eta bertso-eskoletan ikasitako bertsolari gazteen belaunaldiak sortu ziren laster (ikus Maia 2017, adibide baterako).

-Kultur Elkartearen (Bertsozale Elkartearen) sorrera eta oinarri nagusiak: 1987an sortu zen Bertsozale Elkartea, bertsolari eta bertsozale talde baten eskutik. Hainbat gogoetaren ondoren kultur proiektu autonomo gisa egituratzea erabaki zuten, bertsolarien onura propiotik harago. Bertsolaritzaren mugimenduko askotariko kideak bere baitan antolaturik sare erara, euskararen lurralde osoan eragiteko estrategia diseinatu eta elkartea egituratu zuten. Bertsolaritza geroratzeko helburuz hiru ildo nagusi finkatu ziren, gaur egun arte heldu direnak, zertxobait eraldatu bada ere planteamendua: bertsolaritzaren transmisioa, ikerkuntza eta dokumentazioa, eta sustapena eta hedapena (Barandiaran 2011: 37-39).

-Autonomia, auto-definizioa eta diskurtso propioa(k). Mugimendu gisa arte baten inguruan egituratuta, autonomiaren garrantzia aldarrikatzen da hasieratik: inguruko eragileekin harremanetan —izan gatazkan edo lankidetzan—, uneoro bertso-mugimenduak bere helburuen arabera jokatu izan du (Barandiaran 2011: 40-49; Zubiri et al. 2019: 45). Horrek ahalbidetu dio bertsolaritzari, besteak beste, bere buruari buruzko diskurtsoak eraikitzea eta bere burua definitzea barnera nahiz kanpora begira. *Framing* terminoa darabilte hori azaltzeko Zubiri et al. (2019: 56-60). Framing-a “markoen eraikuntza, ikuspegiak eraikitzea” litzateke:

Bertsolaritzaren gizarte-mugimenduak bere burua kultura-proiektu autoeratu eta autonomo gisa definitzen duenean, *framing* orokorraren zutabeak ezartzen ditu. Bertsogintza ez dela literatura esaten denean, erretorikatik gehiago duela baieztatzen denean, ekoizpen artistikoaren *framinga* zehazteko ekarpen erabakigarria egiten da. [...] Halaber, Maialen Lujanbiok bertsolaritzari buruz publikoki hitz egiten duenean, esaten duenean bertsolaritza ez dela hitzekin gimnasia egitea eta errealitateari lotutako bertsogintza atsegin duela, egin dituen ekarpenak ere *framingaren* eremuan sartzen dira, bertsolaritza eta bertsogintza ulertzeko marko bat sustatzen dutelako, eta, gainera, legitimotasun handia duen ahots batek eginak direlako. [...] Era berean, *framingaren* esparruan daude generoa ardatz hartuta bertsolaritzari buruz oro har egin dituzten ekarpenak. [...] Diskurtso horietan guztietan bertsolaritza nola ulertzen dugun iradokitzen da.

(Zubiri et al. 2019: 57)

Bertsogintza aztertzean auto-definizio hori kontuan hartzea ezinbestekoa da, jarduna bera baldintzatu eta, beraz, ulertzeko gako andana emango dizkigulako. Zubiri eta kideen aipuan irakur daitekeenez, bertso-mugimenduaren baitan eta azken hamarkadetan ez da beti bertsogintzaren inguruko ulerkerak bakar eta higiezinik izan: garaian garaiko gogoeta zein teorizazioek, nagusi diren

kanonek edo sortzaileen proposamen berriek, etab. alda dezakete bertsoa ulertzeko eta gauzatzeko era.

-Txapelketen antolakuntza. XIX eta XX. mendean zehar askotariko bertsolari txapelketak antolatu ziren eta, hainbat etenen ondoren, 80ko hamarkadan berriro hasi zitzaion Bertsolari Txapelketak antolatzeari, gaur egun arte (xehetasunetarako, ikus Etxezarreta 1993, Garzia 2007b eta Larrañaga 2013, besteak beste). Lehiatik harago, txapelketek garrantzi handia dute sozialki, bertsolaritzaren gizarte mugimendua elikatuz, eta baita bertsogintzari dagokionean ere, zentzu artistikoan (Zubiri et al. 2019; ikus §7.2.2 eta §7.2.3).

Txapelketak txapelketa, halere, bertsolaritza jendearen egunerokoan presente dagoen jarduna da, eta horrek egiten du kultur jardura esanguratsu beste ezerk baino gehiago (Foley 2007: 11). Bertsozale Elkarteak ez ezik askotariko eragileek —bertso-eskola, gazte asanblada edo kultur elkarteetatik komunikabide, udal edo bestelako erakundeetara— antolatzen dituzte bertso-saioak, eta bertsozale askorentzat bertsolaritza urte osoan zeharreko jarduna da, ingurune sozio-kultural bat izatearekin batera (datu xeheagoetarako eta irakurketa sakonagorako, ikus Zubiri et al. 2019).

-Arte baten inguruan antolatutako mugimendua: bertsoak bat-batean sortzearen inguruan ardaztutako mugimendua da hizpide duguna (Zubiri 2016). Bertsogintza da, bertsoak bat-batean eta kantuz sortzearen praktika artistikoa da, bertso-munduko askotariko eragileak —bertsolari, bertsozale, gai-jartzaile, saio-antolatzaille, etab.— biltzen eta saretzen dituen. Jardun hori izanik mugimenduko kide guztiek elkarbanatzen dutena, askotarikoa, heterogeneoa eta kohesiboa den mugimendua antolatzea ahalbidetzen du (Hernández 2008: 39–40).

Alderdi artistikoari erreparatuta, azpimarratzekoa da bertsolaritzaren mugimenduan estrategikoki sorkuntzan ez eragiteko hautua egiten dela. Esparru soziokulturalean eragiteko apustua egiten da —bertso-eskolak sustatuz, plazan saioak antolatuz, txapelketak eginez, bertsogintzaz eginiko ikerketen inguruko hitzaldiak antolatuz, etab.—horrek artea indartu eta elikatuko duelakoan, sortzaileari (bertsolariari) bere espazioa utziz artistikoki (Barandiaran 2011: 36, 50, 76; Zubiri et al 2019: 58). Ukaezina da, noski, garai bakoitzean erdigunean dagoen bertsogintza kanonikoaren edo kanonikoen eragina (ikus ikus §7.2.3 eta §7.3), baina sortzaile bakoitzak bere bertsokera lantzeko (ere) espazioa baduela esan liteke —besterik da kanonetik aldentzen diren ereduak zein harrera duten, zein bilakaera, eta kanona bera nola doan aldatzen eta anizten—.

6.5.2.2. Garaian garaira egokitze gaitasuna: bertsolaritzaren artikulazioak

Aurreko atalean aipatutako arrazoiekin batera, bertsolaritzaren gizarte mugimenduak aurrera egin eta azken hamarkadetan bertsolaritza geroratzea bermatu badu, garaian garaiko beste mugimendu batzuekin artikulatzeko gaitasuna izan duelako izan da, besteak beste. Zubiri et al. (2019: 80) azaltzen dutenez, artikulazioa fenomeno soziala da, “makrosoziala”, eta “funtsean, elkarrekiko loturarik ez duten sektore sozialak elkarlanean hasteko balio du”. Adibide gisa 1968ko maiatzean ikasle mugimenduaren eta langile mugimenduaren artean gertatutakoa aurkezten dute (Zubiri et al. 2019: 80). Artikulazioak helburu instrumental hutsa izan dezake, edo “sozializazioa inklusiboa, berdinzalea eta intentsoa” izan daiteke, eta “desberdintasunak ez dira desberdinkeria bihurtuko. Alderantziz, zailtasunetik aukerak sortuko dira, eta parte-hartzaile guztiak aberastu egingo dira” (Zubiri et al. 2019: 80-81). Esan liteke bertsolaritzak azken artikulazio molde horretatik edan izan duela, garaian garaiko beste mugimendu batzuekin uztartuz. Hala ulertzea iradokitzen da —“artikulazio edo artikuzaio-saiakera” gisa— 36ko gerra baino lehen Basarrik irudikatu zuen bertsogintza intelektualagoa edo frankismo garaian Jon Lopategik eta Jon Azpillagak orduko borroka eta aldarri politiko-sozialekin egingina (ikus ikus §7.3.1). Horiekin batera, artikulaziotzat hartzen ditu Bertsolaritzaren Hirugarren Azterketa Soziologikoak (Zubiri et al. 2019: 81) “rockaren belaunaldi” deiturikoak 90etan eginiko ekarpena (ikus §7.3.3) eta azken urteetan emakume bertsolariak feminismitik egiten ari direna (ikus §7.3.4).

1980ko hamarkadan gizarte mugimendu gisa antolatzen hasi zenetik gaur egun arte bertsolaritza etengabe eraldatu dela esan liteke, beraz, rockaren belaunaldiak eta emakume bertsolariek feminismoarekin eginiko artikulazioek agerian uzten dutenez. Gertakariok ikerlan honen funtsarekin harremanetan jarritz, oso kontuan hartzekoa da artikulazioek ekoizpen artistikoan, bertsogintzan, izan dezaketen eragina, diskurtsoetatik eta bertsoa sortzeko moduetatik hasi eta erabiltzen diren doinu, ahots edo kantaera moldeetaraino. Horrek eragina izango du, berrikuntza dakarten bertsolariengan eta ondorengoengan ez ezik, aurretik kantuan ari zirengan ere (Zubiri et al. 2019: 90).

6.6. Prosodia ukitzen duten —edo prosodiak ukitzen dituen— eremu batzuk bertsoetan

Prosodia metrikaren eta hizkuntzalaritzaren esparruan erabiltzen den terminoa da nagusiki, §1.1.1 atalean azaldu bezala. Bertsoa prosodiaren eremu horietan sartzen da bete-betean, bat-batean neurtua eta kantatua den ahozko eta hitzezko ekoizpena izaki. Bertsolaritzaz eginiko lanetan, baina,

ez da gehiegi baliatu izan “prosodia” hitza, hari lot dakizkiokeen askotariko alderdiak gogoetagai eta ikergai izan diren arren. Hori dela eta, bat-bateko bertsoen hotsezko alorrekin lotura duten hainbat osagaien berrikuspena egingo dut jarraian, arlo horien inguruan ezarritako oinarriak eta egindako ikerketa nagusiak laburbilduz. Bertsoen metrika (§6.6.1), bertso-doinuak (§6.6.2) eta bertsolarien kantaera (§6.6.3) izango ditut hizpide¹⁵⁴.

6.6.1. Bertsoen metrika edo neurria

“Nahi duzun doinu eta neurrian”. Bat-bateko bertsoez eta txapelketako saioez ari garela, gai-emailearen ahotan sarri entzuten den esaldia da, bakarka aritzeko bertsolariari gaia eman ondoren. Esamoldea erredundantea dela pentsa genezake, bat-bateko bertsoez ari garela behintzat. “Nahi duzun doinuan” esanda nahikoa litzateke, bertsoarako baliatzen diren doinuek neurri jakina baitute oinarrian (ikus §6.6.2.2). Hala ere, neurria doinutik aparte azpimarratzea esanguratsu ere bada. Ulegarri ere bai, neurri bereko hamaika doinu eta neurri desberdinen arabera kanta daitezkeen doinuak (edo doinuen aldaerak) badirela kontuan hartuz gero.

“7/6 edo 10/8” eran bertsoa kantatzen, hitza neurtzen, ikasi ohi dute bertsolariak bertso-eskolan gaur egun¹⁵⁵. Neurria presente dago doinutik aparte eta, bertsolaria kantuan ari dela, doinuarekin elkarreraginean ageri ohi da. Azalpenen abiapuntu gisa, errepara diezaiogun beste ezer baino lehen ondoko 10. irudiko bertsoaren egitura metriko edo neurriari, lan honetan hartzen dudana euskarazko bat-bateko bertsoen metrikaren ulkeran:

154 Aipatutako alor horiez gain, bada bertsoetan prosodiaren definizioaren baitan bete-betean sartzen den beste osagai bat: ahotsarena. Lan honetan ez dut ildo hori garatuko, bertsoen ekoizpen eta hautematean funtsezko elementua izan arren. Gai horretaz Alberdi (2019: 23-27) edo Hernández (2019) aipa daitezke, besteak beste, genero-ikuspegian ardaztutako irakurketak eginez.

155 Esango nuke ohikoa dela bertsolariak 7/6 edo 10/8 esanda aipatzea euren jardunak neurtu izateari zor diona, bertso-neurri ohikoenen silaba-kopuruari erreferentzia eginda. Azkenekoz Ane Labakari aditu nion Gasteizko Baratza aretoan egindako “Gorputzak Esango Luke” bertso-saio osteko tertulian (2021-05-18).

10. irudia: Zortziko txikiko bertso bat eta haren egitura metrikoa (ML-2017-BB-8tx-1)¹⁵⁶

BERTSOA	SILABA-KOPURUA (hemistikioko)	PUNTUAK (P)
<i>Adin hontara heldu</i>	σσσσσσσ (7)	
<i>ta hau da pikea!</i>	σσσσσσ (6A) [6 + errima]	P
<i>Kostatu zait nor nintzen</i>	σσσσσσσ (7)	
<i>ere jakitea!</i>	σσσσσσ (6A)	P
<i>Uste al dezu zurea</i>	σσσσσσσ (7)	
<i>dela agintea?</i>	σσσσσσ (6A)	P
<i>Orain kostako zaizu</i>	σσσσσσσ (7)	
<i>ni desegitea!</i>	σσσσσσ (6A)	P

Bertsoa (ahapaldia, estrofa) *puntu* deritzon osagaitan banatzen da (10. irudian, azken zutabean, P gisa markatutako osagaiak.). Osagaia silaba kopuruak eta errimak zehaztu eta mugatzen dute, horiek izanik egun euskarazko bertsogintzaren oinarria, hasiera batean behintzat (xehetasun eta ñabarduretarako, ikus §9.2.3.2 eta §10.4.15). Puntua *bertso-lerro* edo *hemistikiotan* banatzen da (lan honetan *hemistikio* terminoaren aldeko hautua egin dut, ikus jarraian §6.6.1.1); goiko adibidean testu-lerro bakoitzak irudikatzen duena; Erdiko zutabeko silaba-lerroak ere hemistikioen arabera daude antolatuta. Hemistikio bakoitzak silaba-kopuru bat du. Hemistikioen silaba-kopuruak ez da berbera kasu guztietan, eta horrek hemistikiook binaka ulertzea garamatza, [7 + 6] silabako taldean; puntuka (P), alegia. Hemistikioei begiratuta, emandako adibidean bikoitiek soilik izango dute errima, puntuaren amaiera osatzen baitute. 10. irudian Erdiko eta eskumako zutabeek (hemistikioka antolatutako silaba kopuruak eta puntuaren eremuak, errimaz mugaturik) azken mendean, gutxienez, euskarazko bat-bateko bertsogintzan baliatzen den hezurdura metriko

156 Bertsoaren transkripzioa Bertsolaritzaren Datu Basetik aterea da: <https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/14pklc> (azken kontsulta: 2021-05-05). Transkripzio horretan ez dira jaso sinalefa edo diptongatzea gisako hotsezko gertakariak, *us.teal.de.zu.zu.re.a* ‘uste al duzu zurea’ (ML-2017-BB-8tx-1), 5. hemistikioan gauzatutakoa bezalakoak. Horretarako, grabazioa entzutea gomendatzen da, edo analisisiko §8 atala irakurtzea, bertan emango baita aztertutako bertsolarien silabatze-aukeren berri sakonago. Bertsoarako emandako gaia: “Sei urteko umearen lagun imajinarioa zara. Gaur esan dizu dagoeneko ez duela zure beharrik”. Bertsoa (Idia) ikus-entzuteko: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14986-buruz-burukoa-zortziko-txikia-maialen-lujanbio-eta-aitor-mendiluze> (azken kontsulta: 2021-05-05).

ohikoetako bat islatzen dute: *zortziko txikiko* bertso-neurria, hain zuzen. Bertso-neurri guztiek ez dituzte adibidean islatutako ezaugarri zehatzak, baina bai osagai nagusiak: silaba kopuru jakina eta puntu (eta errima) kopurua, besteak beste¹⁵⁷ (bertso-neurri desberdinez, ikus Garzia et al. 2001, esaterako). Laburbilduz, baina, esan daiteke euskaraz bat-batean bertsoan aritzeko baliatzen diren eredu metriko guztiek silaba (kopurua), silaben taldekatzea eta errima dituztela oinarrian, printzipioz.

Gaur egun —eta azken hamarkadetan— bat-bateko bertsogintzan askotariko molde metrikoak erabiltzen dira, koplak bezalako neurri laburretatik hasi eta bederatzi puntu (errima) dituzten neurrietaraino. Neurriaren hautaketa eragile askok baldintza dezakete, gaiari eman nahi zaion dinamikotasunetik edo garapenetik hasi eta zailtasun teknikoraino. Txapelketetan, esate baterako, egin beharreko lan gehienak daude neurri aldetik aurrez zehaztuta —hasierako eta bukaerako agurrak eta gaia emanda bakarka osatu beharreko bertsoaldiak salbu, non neurria eta doinua bertsolariak hautatzen dituen—.

6.6.1.1. Atariko ulerkera eta terminologia auzi batzuk

Bertsoetako hizketa-moldea hizketa lautik bereizten duen ezaugarri nagusi gisa bertsoak ageri duen egitura metriko bereizia proposatu izan dute hainbatek¹⁵⁸ (ikus Jakobson [1960] 1987; Lotz 1972; edo Fabb eta Halle 2008, beste batzuen artean). Izan ere, bertsoek taldekatze edo osagai-egitura propioa dute, hizkuntzaren fonologiaren, sintaxiaren edo pragmatikaren eskutik soilik eta guztiz azaldu eta ulertu ezin dena (DeCastro-Arrazola 2018:1). Hala, ahapaldi edo estrofa (*stanza*) —euskaraz *bertsoa*—, *puntua* eta *hemistikioa*¹⁵⁹ bereiz daitezke sarri bertsoen gauzatzean silabekin batera, lan honetan jarraitzen dudana ikuskeran eta terminologian (ikus goragoko 10. adibidea).

Esan behar da euskal bertsogintzaz aritzean bi terminologia-tradizio nagusi bereiz daitezkeela, Ipar Euskal Herrian ardaztua bata eta Hego Euskal Herrian bestea —nazioartean ere Euskal Herrian jasotako bi joerak lekukotzen dira, gutxienez, (beste hizkuntza batzuen) eredu metrikoen aritzeko—.

157 Bertso-neurri batzuetan puntuaren eremua hemistikio bakarrekoa da batzuetan (*bederatzi puntuko txikiaren* kasuan, esaterako, puntu luze eta laburrak biltzen dira molde metriko bakarrean).

158 Badira egitura metriko bereizia baztertzen duten proposamenak (Golston 1998; Golston eta Riad 1998, 1999, etab. *apud* De Sisto 2020: 11), esaterako. Horien arabera, bertsoetan aurkitzen den antolakuntza eratorpen fonologikoan prosodia sintaxiari nagusitzen zaiolako da, ez bestelako egiturarik dagoelako.

Hitz lauarekin alderatuta bertsoetan eredu prosodikoek hizkuntzaren gainerako alorrekiko nagusitasun handiagoa dutela uste dut nik ere, baina, horrekin batera, bertsoek oinarrian eskakizun prosodiko jakinak dituen egitura metriko bereizia badela asumitzen dut lan honetan, egitura horrek hizkuntzarekin lotura hertsia izan ohi duela azpimarratzearekin batera (ikus, atal honetaz gain, §5 eta §10).

159 Hemistikioaren baitako bereizketa ere egiten da maiz molde handiko bertso-neurrietan (ikus §10.2.5.2 eta §10.4.1.3).

Goiko 10. irudiko adibidea hegoaldeko tradizioan emana da —hori da lan honetan jarraitzen dudana—. Hala aurkeztuko litzateke bertso berbera iparraldeko erara:

11. irudia: ML-2017-BB-8tx-1 Iparraldeko erara jasoa

BERTSOA	SILABA-KOPURUA (puntuko)	PUNTUAK (P) (barne-antolakuntza)
<i>Adin hontara heldu / ta hau da pikea!</i>	13A	(7 / 6A) → P
<i>Kostatu zait nor nintzen / ere jakitea!</i>	13A	(7 / 6A) → P
<i>Uste al dezu zurea / dela agintea?</i>	13A	(7 / 6A) → P
<i>Orain kostako zaizu / ni desegitea!</i>	13A	(7 / 6A) → P

Bi tradizioak alderatuz:

Iparraldean, puntua hartzen dute unitate nagusitzat, eta puntu oro lerro bakarrean emateko joera dute (puntu-lerroak erabiltzen dituzte), eta Hegoaldean, berriz, hemistikioa hartzen dute unitate nagusitzat, eta puntuak bi hemistikio dituenean, hemistikio bakoitza lerro batean idazteko joera dute; puntua, beraz, bi lerrotan emana egoten da (hemistikio-lerroak erabiltzen dituzte).

(Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Ikerketa Taldea 2009: 7-8)

Bertso-lerro terminoa maiz erabili ohi da bi tradizioetan, baina lerro terminoak dakarren idatzizkoarekiko lotura dela eta, besteak beste, *bertso-lerroa* zerk osatzen duen, zeri deitzen zaion eta, ondorioz, bertso bakoitzaren neurria —izenez— zein den beste eztabaida bat da (ikus Haritschelhar 1969: 441-444, 474-482 edo Altuna 1994 eztabaidaren nondik norako gehiagorako).

Neurriari berari deitzeko modua ere desberdina da: zortziko txikia (hg)/ lau puntuko txikia (ipar). Horrela, Iparraldeko izendatzeko moduan puntuaren arabera zehazten da idatzizko lerroa (“bertso-lerroa”), esan bezala (eta goiko 11. irudian ikus daitekeen bezala). Hegoaldeko ulerkeran, berriz, puntuaren baitako taldekatzeak, hemistikioak, zehazten du idatzizko bertso-lerroa. Aipatutakoak kontuan hartuta, *bertso-lerro* beharrean *hemistikio* terminoa hobetsi dut lan honetan, bertso-lerroak ekar dezakeen nahasmena ekidin asmoz, hemistikioak aldiro silaba kopuru jakina duen puntu barreneko osagaiari egiten baitio erreferentzia. Altunak (1994: 1227) azpimarratzen duenez, izenak izen eta idazkerak idazkera, garrantzitsua egitura metrikoak duen taldekatzea kontuan hartzea da. Esaterako, goiko 10. eta 11. irudietan modu desberdinetara aurkezturiko

bertsoan aitortzea puntuaren eremuko taldekatzea dagoela eta, gainera, 7 + 6 multzokatzea badela puntuaren baitan, lerro bakarrean ala bitan idatzi¹⁶⁰.

6.6.2. Bertso-doinuak

[...] *sorkuntza une berean han ari da airea. Bertso minetan dabilen artista popularrak kantuaren baitan uzten du bere sormena eta haren hegaletan doa bere barrera isurtzen sorkuntza une latz pozgarrian, eta horrela doinuz jaio da bertsoa mundura; kantuaren bidez, doinuarekin batera, doinu da bera oso osorik.*

Joanito Dorronsoro (1995)

Aurrez ere hainbatetan esan bezala, euskarazko bat-bateko bertsoak kantatuak dira: bertsolariak aldez aurretik hautatutako doinu batean oinarritua sortzen du bertsoa eta, hala, doinua testuaren “gidari” dela esan liteke (Arana-Martija 1980: 81). Doinu horietako askok herri tradizioan dute jatorria, beste hainbat egungo musika sorkuntzetan oinarrituta daude, batzuk munduan zeharreko beste kantu inprobisatuetan baliatzen diren aireak dira eta badira bertsolari jakin batentzat musikariren batek edo bertsolariak berak propio sortutako doinuak ere¹⁶¹ (Garzia et al. 2001: 83–84; Aramendi 2018).

Gaur egun 3.500 bertso-doinu baino gehiago daude dokumentaturik Xenpelar Dokumentazio Zentroan, sarean eskuragarri¹⁶², Joanito Dorronsorok (1995) abiatu zuen bilketa lanari esker. Egungo doinu aniztasuna azken hamarkadetakoa bilakaeraren ondorio da. Esaterako, azken urteetan Txapelketa Nagusietan erabilitako doinu kopuruak gora egin du, 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusia izanik orain arte doinu gehien erabili diren txapelketa (2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusia ere kontuan hartuta):

Atzera begira jarrita, aro zaharreko azken txapelketan (1967), 20 doinu erabili zituzten guztira; 1980an, aldiz, 38 eta 1982an 73. Erabilitako doinu kopuruak nabarmen egin zuen gora 1986ko txapelketan: 136; 1989an

160 Bertsozale Elkartean eta honek kudeatutako Xenpelar Dokumentazio Zentroan bi moduetara aurki daitezke neurriak izendatuta, bertsoen transkripzioan hegoaldeko molde nagusi dela esan daitekeen arren. Bi moldeak ontzat ematen dira, edonola ere, eta bertsoak transkribatzeko azken irizpideetan (transkribatutako) molde bat edo beste baliatzea proposatzen da bertso-saioaren kokapenaren arabera: “Lapurdin, Baxenabarren edo Zuberoan sortutako bertsoen puntuak lerro bakarrean ematea” [hobetsi da (“Iparraldeko moldean”)] (Bertsozale Elkarteko Iker Taldea 2021).

161 Herri tradizioko doinuaren adibide gisa *Nere senarrarekin I* aipa daiteke beste askoren artean. Ikus Maialen Lujanbio eta Jone Uria doinu horretan: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14885-zortziko-txikia-maialen-lujanbio-eta-jone-uria-btn17> (azken kontsulta: 2023-12-05). Egungo kantu ezagunetan oinarrituta dauden doinuen adibidetzat aipa daitezke 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian Aitor Sarriegik Calamaroren *Paloma* kantuan oinarrituta aurkeztutako *Irun badaukazu zerbait* doinua edo Oihana Iguaranek Ismael Serranoren *Papá cuéntame otra vez* kantutik aterea: *Gaur udaberri bat dabil*. Beste herri, kultura eta hizkuntza batzuetan egiten diren kantu inprobisatuetatik mailegatutako doinuen artean *segidilla* aipa genezake, adibidez, Kubako tradizioan oinarritua. Bertsolari jakin batentzat musikari batek sorturiko doinuak dira Julio Sotoren *Ze ederra ta ze polita* (Nerea Urbizuk konposatua) edo Alaia Martinek kantatutako *Doinu honen izena da* (Mikel Markezek sortua), adibidez. Bere doinu propioak sortzen dituen bertsolari gisa Xabier Amuriza aipa daiteke: *Aita izena kanta beharra* sortu zuen, kasu (ikus lan honetan XA-1980-BB-ge)

162 Bertso doinutegia sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/bilaketa> (azken kontsulta: 2023-12-05).

jo zuen goia, 156 doinurekin. Aipatu behar da 80ko eta 90eko hamarkadetako txapelketetan sari bat ematen zitzaiola doinu gehien erabiltzen zuen bertsolariari lehenbizi, eta gerora doinu berri gehien ekartzen zituenari; horrek ere izango zuen, noski, eragina gorako joera horretan. Hurrengo txapelketetan doinu gutxiago erabili ziren: 1993an 109, 1997an 105, 2001ean 110, 2009an 105, 2013an 118 eta 2017an 161.

Beraz, aurtengo txapelketan [2017koan] inoiz baino doinu gehiago erabili dituzte bertsolariek.

(Aramendi 2018: 439)

Zenbakizko bilakaeran ikus daitekeenez, arrazoi batengatik edo besteagatik, baina azken hamarkadetan doinuei eta doinu aniztasunari arreta eman zaiola esan daiteke. Doinua hizketaren euskarria da lan honetan aztergai ditudan bertsoetan. Hori dela eta, espero izatekoa da doinuaren eragina nabarmena izatea bertsoaren ekoizpenean zein hautematean.

6.6.2.1. Doinuen egitura

Bat-bateko bertsogintzan baliatzen diren doinuek hainbat ezaugarri orokor dituztela esan daiteke, oro har mendebaldeko Europako herri-kantuen doinuekin pareka daitezkeenak, aldeak alde. Herri-kantuak aztertu eta izendatzeko hezurduran duten bertso-neurria baliatu ohi da maiz, hemistikioei erreferentzia eginez, esaterako, doinuaren egituraz aritzean (ikus Dorronsoro 1995, adibidez; atal honetan aurrerago sakondu dut horretan). Neurriaren eta doinuaren arteko lotura kontuan hartzea funtsezko den arren (ikus jarraian §6.6.2.2), doinuaren egitura musikala metrikarenetik bereiz aztertu eta izendatzea emankorra izan daiteke hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren arteko elkarreaginaren ulerkeran sakontzeko, gorago ere metrikaz aritzean azpimarratu bezala (§6.6.1). Horregatik, musikan “forma txiki” (Schömberg [1967] 2004) deitzen zaien konposizio musikalen egitura aztertzeko baliatzen diren terminoak baliatu ditut lan honetan bertso-doinuen egituraz aritzeko¹⁶³. Izan ere, bertso-doinuak nahiko oinarrizkoak dira arlo batzuetan inprobisazioa ahalbidetzeko —alderatu, esaterako, *Nere senarrarekin I* doinua (3. irudian jaso) Liher musika taldearen *Orri zuri batek* kantarekin—¹⁶⁴. Edonola ere, hitz lauко eredu prosodikoak baino landuagoak eta konplexuagoak dira bertso-doinuen eredu musikalak.

Analisi musikalean baliatzen diren *sekzio*, *esaldi musikal*, *periodo* eta *motibo* unitateez baliatu naiz bertsoen azterketan (ikus jarraian emaniko azalpena horietaz). Osagai horietako batzuk

163 Ez da ahaztu behar lan honen helburua hizkuntzak bertsoen antolakuntza erritmikoan duen eragina azterzea dela, fonologiatik hurbiltzen naizela bertsoetara. Horregatik, doinuaren egituraren osagai nagusiak soilik identifikatu ditut, silabatzeari, erritmo-ereduei eta taldekatzeari loturiko gertakarien ulerkeran sakontzeko lagungarri diren heinean. Bertso-doinuen analisi musikal sakonagorako, ikus Soroa 2022, adibidez.

164 Edonola ere, banan-banan aztertu beharrekoak dira bertso-doinuen ezaugarri eta egiturak, gaur egun aniztasun handia aurki baitaiteke. Ohikoa da doinu berriak konposatzea edo jada badiren kantuak egokitzea bertsoetarako eta horrek beharbada konplexuago egiten ditu, kasu batzuetan, aipagai ditugun ezaugarriak (eta melodiarena bezalako beste batzuk).

—esaldi musikala eta periodoa, normalean— metrikaren alorreko puntuaren eta hemistikioaren baliokide izango dira maiz. Horiekin batera, baina, unitate musikal txikiago eta handiagoei ere erreparatu diet¹⁶⁵. Azken finean, bertsoen antolakuntza erritmikoa ulertzeko beharrezko da taldekatze eta eredu erritmiko maila guztiak ez bada, ahal diren guztiak hartzea kontuan.

Egile eta eskolen artean ez dago batasun eta adostasunik osagai musikalkok izendatu eta definitzeko. Hori dela eta, lan honetan Schömborg ([1967] 2004) eta, batez ere, Zamacoisen (2004) terminologia eta terminoen ulerkerak baliatu ditut, bertso-doinuen egituraren azterketarako baliagarri delakoan¹⁶⁶. Hala, ondoko osagai nagusiak bereizi ditut lan honetan (ikus aurrerago 12. irudia):

-Sekzioa: Pieza musikala osatzen duten atal nagusiak lirateke sekzioak, esaldi musikalez osatuak. Obra luzeetan dira ohikoago, esaldi edo ideia musikal osoen multzokatzea ahalbidetzen duten doinuetan. Bertso-doinuez ari garela, neurri luzekoetan bereiz genitzake sekziotzat har genitzakeen atalak argiago¹⁶⁷.

-Esaldi musikala: Ideia melodiko baten ziklo osoa da esaldi musikala, ideia melodiko partziales osatua. Hala, hainbat mailatako azpi-unitatetan bana daiteke, eta esaldiek, multzokaturik, sekzioak osa ditzakete multzokatzeko adinako esaldi kopurua dagoen formetan (Zamacois 2004: 9). Esaldien ezaugarri nagusitzat aipa daitezke tonika baten inguruan daudela eraikirik harmonikoki¹⁶⁸ eta bukaera definitua dutela (Schömborg [1967] 2004: 33). Bukaera hori kadentzia bidez gauzaten da, harmonikoki, melodikoki edota erritmikoki¹⁶⁹.

-Periodoa: Esaldiaren azpitalde nagusiak lirateke periodoak, esaldia osatzen duten ideia melodiko txikiagoak, edo partzialak¹⁷⁰ (Zamacois 2004: 10).

-Motiboa: doinuetako oinarrizko elementu sortailea litzateke, “germena” (Schömborg [1967] 2004: 19), kantu edo musika pieza jakin bateko adreilu erritmikoa —batez ere; musika noten arteko bitartek ere zehaztu ohi dute motiboaren izaera—, behin eta berriro —aldaerekin bada ere—

165 Lan honetan esaldi musikala baino handiagoak diren osagaietan sakondu ez dudan arren.

166 Jarraian aurkezten diren osagaiak eta terminoek askotariko ulerkerak izan dituzte, *esaldi musikalak* eta *periodoak*, batez ere (Zamacois 2004: 10). Horregatik zehaztu dut zein den bakoitza ulertzeko dudana modua. Ikus aurrerago 12. irudia ere, definitutako osagaien adibide baterako.

167 Zentzu hertsian, bertso-doinuak aztertzean sekzio gisa izendatuko ditudan atalak txikiak lirateke horretarako behar bada; “sekzio laburtzat” har genitzake akaso. Edonola ere, terminoa baliatu dut bertso-doinuak aztertzean esaldi musikalen multzokatzeaz osatutako atal musikal handienei erreferentzia egiteko.

168 Musika molde diatonikoan eskala baten arabera daude musika notak antolatuz, tonalitate jakinean (modalitate maior edo minorrean). Eskala horretako lehen notari deritza tonika, eta tonalitatearen erdigunea edo erreferentzia-gunea osatzen du (*Encyclopedia Britannica* sarean). DoM tonalitatean, esaterako, *do-re-mi-fa-sol-la-si-do* ziurrenik sarri kantatu izan dugun eskalan, *do* litzateke tonika.

169 Kadentziaren definizio zabala izan daiteke ondokoa: “the ending of a phrase, perceived as a rhythmic or melodic articulation or a harmonic change or all of these; in a larger sense, a cadence may be a demarcation of a half-phrase, of a section of music, or of an entire movement.” (DeVoto, *Encyclopedia Britannica* sarean).

170 Konposizio musikalaren konplexutasunaren arabera, periodoak azpi-periodotan zein azpi-periodo barneko osagitan antola daitezke (Zamacois 2004: 10).

errepikatzen dena (Zamacois 2004: 7). Bertso-doinuak sarri motibo erritmiko bakarraren aldaeretan oinarritzen dira (*Oraindik hango oihartzun hots bat*, kasu), baina badira biren arteko konbinazioz osatzen direnak ere (*Eguzkiak urtzen du han goian B*). Motibo nagusiaz —edo nagusiez— gain, gorago aipatutako kadentziak antolaketa erritmiko jakina izan ohi du esaldiaren amaiera adierazten baitu, eta esaldi amaieretako motibo erritmiko berezi gisa uler liteke, besteak beste, osagai musikal baten amaiera adierazteko egitekoa duena. Motiboa bera, edozein ezaugarri duelarik ere, osatuko lukete musika notek eurek, iraupen (balio erritmiko) jakinak jasota, eta oinarri musikala den konpasean —*beat* indartsu edo ahuletan— txertatuta.

Ikus dezagun ondorengo adibideko bertsoan *Lurraren pean sar nindaiteke* doinuak duen egitura goian emaniko definizioak hobeto ulertu eta kokatzeko. Motibo erritmikoak lauki urdinez markatuta daude eta kadentzia lauki laranja; periodoak berdez daude eta esaldi musikalak horiz. Sekzioak morez daude mugatua:

12. irudia: Lurraren pean sar nindaiteke doinuaren egitura¹⁷¹ (XA-1982-AS-ba)

The image shows a musical score for a song. The score is written on a single treble clef staff. The lyrics are in Basque. The score is divided into several measures, each with a time annotation above it. The lyrics are: "Len-go txa - pe - la nu - e - la - ri - kan il - tze ba - te - an ja - rri - ja u - ra gor - de - zun mai - te - a - re - kin ba - dau - kat kez - ka la - rri - ja bi - jak be - ra - ri es - kai - ni ' a - la bi - la - tu mai - te be - rri - ja ez ta be - rri - ja bai - zik za - ha - rra nik mai - te du - dan, e - rri - ja gaur - ko - a zu - ri es - kain - tzen di - zut pu - bli - ku ' a - gur ga - rri - ja pu - bli - ku ' a - gur - ga - rri - ja". The time annotations are: 0,657s, 0,994s, 0,425s, 1,65s, 0,302s, 0,604s, 0,278s, 1,241s, 0,657s, 0,996s, 0,486s, 0,695s, 0,747s, 0,474s, 0,523s. There are several colored boxes highlighting specific phrases: a yellow box around the first three measures, a blue box around the first two measures of the first line, a green box around the third measure of the first line, an orange box around the fourth measure of the first line, an orange box around the fourth measure of the second line, an orange box around the fourth measure of the third line, an orange box around the fourth measure of the fourth line, an orange box around the fourth measure of the fifth line, and an orange box around the fourth measure of the sixth line.

Dorronsorok (1995) puntuaren eremuaren arabera (bertso-neurriaren osagaien arabera) zehaztu zituen berak bildutako doinuen egitura musikalak, atal honen sarreran aipatutako joerari jarraituz; azken finean esan daiteke esaldi musikala eta puntuaren eremu metrikoa bat etorri ohi direla, *grosso modo*. Gaur egun arte hala daude dokumentaturik doinuak Bertsolaritzaren Datu Basean. Katz-ek (2005), azken mendeetako euskal kantu eta doinu bilketa nagusiak berrikusirik, bat-bateko bertso-doinuen analisiari heltzen dio, Dorronsororen lanean oinarrituta. Berak bertso-doinuak aztertzean puntuaz gain, puntua osatzen duten hemistikioen arabera egiturarekin lan egitea proposatzen du, doinuen egituratzean sakonduz. Hemistikioak egitura musikalean periodo deitzen zaienarekin etorri ohi dira bat maiz, §9 eta §10 ataletan zehaztuko denez. Tesi honetan, hemistikio edo periodoaren eremuaz gain, motiboarekin ere egin dut lan, batzuetan kategoriok urtu

171 Partituran lehen puntuaren egitura soilik markatu ditut osagai guztiak. Gainerakoan motibo erritmikoak soilik adierazi ditut irudia argiago ikusi ahal izateko, baina irudika bitez lehen puntuan adierazitako periodoaren eta esaldiaren eremua ere.

eta bat etorriko diren arren, beste zenbaitetan periodoaren baitako taldekatze txikiagoak aurkituko ditugulako bertso-doinuetan.

Bertso-doinuen ezaugarriekin jarraituz, oinarrian konpas bitarrak (2/4, adibidez), bitar konposatuak (6/8), hirutarrak (3/4) edo konposatuak (ing. *summative*) (5/8, *zortziko* deiturikoa) aurki daitezke, orain arte eginiko bilketa-lanen azterketatik ondorioztatu denez. Katz-ek (2005) Dorronsororen (1995) doinutegian jasotako doinuen konpasak aztertuta zehazten du aire gehienek konpas bitarra dutela¹⁷²:

[...] duple meter predominates over triple, that is, in 103 over 36 examples, representing 38.5 percent and thirteen percent, respectively, for the entire collection. Compound duple meter occurs in 48 instances, or 17.5 percent of the collection. What appear to be *zortzikos* in their traditional 5/8 meter includes 27 examples (or ten percent of the collection). The remaining tunes in 5/8 differ greatly from the *zortziko* meter.

(Katz 2005: 337)

Bertso-doinuak izenez ezagutzen baditugu ere¹⁷³ — horrek ez du esan nahi, inondik inora ere, doinu hori kantatzen den aldiro modu berean gauzatzen denik. Doinu bera konpas desberdinetan kantatua aurki daiteke bertsolari desberdinen ahotan, eta konpas beraren baitan gauzatuta ere, askotariko aldaera erritmiko-melodikoekin aurki daiteke doinu bera, sortzaile bakoitzak doinuaren “bere” bertsioa(k) d(it)uela agerian utziz. Gorago hizpide izan dudan konpas erregularrari erreparatuz gero, esan behar da pulsu edo oinarri erritmiko periodikoa ez dela beti eta uneoro hautemangarria bertsolarien ekoizpenean, bertsolari bakoitzaren kantu-estiloak (kantaerak) eta unean uneko gertakariak baldintzatuko baitute, besteak beste, doinuaren gauzatze-modua —hitz lauaren eta musikaren ezaugarrien artean mugituz, aldiro— (ikus §5.3.1 eta §5.51).

6.6.2.2. *Neurriekiko loturak*

Orain artean hainbat aldiz adierazi bezala, bertsotarako baliatzen diren doinuek oinarrian bertso-neurri bat dute (Arana-Martija 1980; Amuriza [1981] 1997: 258; Dorronsoro 1995; Garzia et al 2001: 83; Herri Musikaren Txokoa 2007). Tradizioz ezagutzen diren doinuak aztertuz gero, bertso-neurriaren oinarritzko eskakizunak betetzen dituztela ikusi ahalko dugu: neurriak eskatzen duen silaba-kopurua gutxienez gauza daitekeela bermatzen duen musika-nota kopurua eta puntuen araberako taldekatze musikala, kasu gehienetan behintzat. Bertsoekin kantatzeko moldatzen diren

172 Konpas bitarra nagusi izatea bat letorke Hurček (1994, 1996) azentu-ereduez aurkeztutako joera edo hatsarre erritmikoekin (ikus §9.2.1.2).

173 Doinua lehen aldiz kantatzen denean, doinu horrekin kantatzen den bertsoaren lehen lerroaren izena hartu ohi du aireak, azken urteetako dokumentazio irizpideen arabera bederen (Dorronsoro 1995 eta, ondoren, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte Doinutegi Batzordea). Xehetasun gehiagorako, jo Bertsolaritzaren Datu Basera (sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/orriak/get/5-ataleko-informazioa-bertso-doinutegia> [azken kontsulta: 2023-12-05]).

kantu edo melodien kasuan, bertso-neurriren baten egiturarekin —osagai nagusienekin— bat etortzeko moduan egokituak izan dira. Bertsolariarentzat gida da bertso-doinua, bat-batean sortzen ari denean, dagokion neurrian kantatzen duela ziurtatzeko¹⁷⁴:

Bertsolariak, bat-batean ari delarik, ez du sekula silaba kopurua zenbatzen. Lan eskerga litzateke, eta esker txarrekoa. Bertsolariak badaki kantuan hasi aurretik aukeraturiko doinua ze neurritakoa den. Doinua luzelaburtu gabe ari bada, badaki zenbatu gabe ere zenbat silaba sartzen ari den oin bakoitzeko.

(Garzia et al. 2001: 83)

Doinu jakina oinarritzat baliatuta bertso-neurri “egokiaren” arabera kantatzeko beharrezko izango da, hasteko, bertsolariak bertso-neurri zehatz horren nondik norakoak zein diren ezagutzea, eta ondoren, doinu jakin horrek aipatu neurriarekiko zer-nolako harremana izan ohi duen jakitea. §10 kapituluaren sakondu dut hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren egituren arteko elkarreaginaz orain artean egindako ikerketetan, ondoren sistematikoki aztertuz hautatutako corpusean doinu eta neurriaren arteko loturak bertsolarien ekoizpenetan.

6.6.2.3. Doinuen hautuaz eta hautemateaz

“Nolako gaia halako doinua” dio Dorronsorok (1982: 21); Egañak (2003), gaiari eman nahi zaion *kolorearen* arabera hautatu beharko lukeela bertsolariak doinua. Lujanbiok (2017) zehazten du bertsolariaren hautu estetiko eta ideologikoa dela doinuarena. Doinu-hautuak komunikazio ekintzan duen eraginaz jarduten dira Garzia et al. (2001), doinu bakoitza zer-nolako bertsorako den “egokia” proposatuz:

[...] doinu horietan, batzuk badira sentimendu epiko indartsuak adierazteko egokiak; beste batzuk sentimendu dramatikoak adierazteko dira pare-parekoak; kontraerako egokiak direnak badira; eta baita deskripziorako aukera ematen dutenak ere. Esan nahi den hura esan-indarrez adierazi ahal izateko doinuaren aukeraketa da alderdirik erabakigarrietakoa bertsotako komunikazio harremanean.

(Garzia et al. 2001: 82)

Labakak (2019: 219-220), “bertsolaritza garatutako umorea(k)” genero-ikuspegitik aztergai dituela, doinu hautua identifikatzen du beste batzuekin batera bertsolarien artean zein publikoarekiko harremanean eragina duen osagai gisa¹⁷⁵, umorea egiteko “erabili beharreko”

174 Horri lotuta, esanguratsua da bertso-doinuen transkripzio musikala bertso-neurriaren arabera egitea erabaki izana azken hamarkadetakoa bilketa lanetan, doinu eta neurriaren artean dagoen harremana dela medio (Dorronsoro 1995; ondoren, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte Doinutegi Batzordea. Sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/orriak/get/5-ataleko-informazioa-bertso-doinutegia> [azken kontsulta, 2023-12-05]).

175 Horretarako, 2017ko bertsolari txapelketa Nagusian, Durangoko saioan, Oihana Iguaranek eta Miren Artetxek zortziko txikian eginiko ofizioa aztertzen du (bertsoaldia ikus-entzuteko: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14837-zortziko-txikia-oihana-iguaran-eta-miren-artetxe-btn17> [azken kontsulta: 2023-12-05]). Pasarteari “Iguaranek eta Artetxek doinu pausatuegi bat aukeratu zutenekoa” deitzen dio Labakak (2019: 219). Artetxek eta Iguaranek

doinuez hausnartzeko gonbita eginez¹⁷⁶. Jasotako adierazpenek iradoki edo adierazten dute doinuak bertsoaren sorkuntza eta hautematea baldintzatzen duela. Doinua bertsoaren adierazpidearen parte da, “mezuan integratuta doa” (Egaña 2007b; Lujanbio 2017); doinuak hizketarentzat eskaintzen duen euskarri prosodikoa ez da “neutroa” eta, beraz, baliabide adierazkorra (ere ba)da kantatzen den bertsoarentzat.

Bertsoen prosodiaren eta, zehatzago, bertso-doinuen hautematea ulertzen lagun lezake musika tonala hautemateko mendebaldar gizartean dugun era ezagutzeak. Ezaugarri musikal jakinak —eredu erritmikoetatik hasi eta hautaturiko doinuaren egitura musikal edo modalitateraino— esanahi, emozio, kontzeptu edo konnotazio jakinekin lotzen ditugu sarri, modu subjektiboan, baina askotan antzeko norabidean, eta baita baliatu ere, kantuan, musikaren ezaugarriak hitzeneri uztartuz (gaiaren inguruko berrikuspen batzuetarako, ikus Patel 2008: 326-350; edo Juslin eta Sloboda 2013). Garzia et al.-ek (2001: 185), musikak bertsoetako hitzei eman edo gehi diezaiokeen esanahia edo konnotazioa aipatzen dute, bide horretan. Hitz lauко prosodiaren egiteko paralinguistikoeekin lot liteke gertakaria (ikus §4.5).

Doinuek entzuleentzat ezaguna den kantu batean dutenean jatorria, nolabaiteko testuartekotasuna ere ekar dezakete aurretik aipatutakoez gain, hasiera batean sortu ziren letra edo testuingurua musikaren bitartez ekarriz bertsolaria bat-batean sortzen ari den bertSORA¹⁷⁷.

Doinuaren egituraren eta kantatutako bertsoaren diskurtso-egituraren arteko loturak ere aipatu behar dira. Gorago azaldu bezala (§6.3), bertsoak kantatzean diskurtsoa “segmentu erretoriko”-tan bereiz daitekeela proposatzen dute Garzia et aliek (2001), segmentu bakoitzak egiteko bat duelarik bertsoaren baitan. Bertsoaren luzeraren arabera egitura horrek garrantzi handiagoa (bertso luzeagoetan) edo txikiagoa (bertso laburragoetan) hartuko du, dirudenez (Garzia et al. 2001: 193). Egitura diskurtsibo hori bertso-doinuaren egitura musikal orokorrarekin (sekzioekin, esaterako)

hegemonikotzat hartzen ez den umorea egin zuten Durangon bertsoaldi hartan, aldez aurretik bestelako giro eta saio batzuetan elkarbanatutako umore molde eta kodeen baitan, baina “ez zuen funtzionatu” (Maite Berriozabalen hitzak, Labakaren [2019: 220] lanean jasoak); publikoak ez zuen beste bertsolari batzuek duten umorea bezala —bezain ondo— hartu. Dirudenez, maila pertsonalean zein sare-sozialetan kritikatu zieten bertsolarietako doinu aukeraketa; entzuleen parte handi batek ez zuen ulertu bestelako umorea, bestelako doinu batean egiteko proposamena egiten ari zirela. “Zortziko txikiari «dagokion» doinuaren inguruan hausnartzeko parada ere ematen du aztergai dugun bertsoaldiak”, Labakaren (2019: 220) esanetan.

176 Garzia et aliek (2001) eta, batez ere, Labakaren (2019) planteamenduak agerian uzten du badirela garaian garaiko hautemate-molde eta ezarritako nolabaiteko arauak doinuekiko, doinu hautuekiko. Badela bertsolaritza doinuen erabileraren inguruan —doinuek hizkuntza-adierazpenarekin (izan behar) duen harremanaz— unean-unean bertsolari eta entzuleen artean eraikitako kode komunikatiboa, hitz lauz bezala (ikus §4.5). Hura ulertzeko modua subjektiboa eta aldakorra izanagatik, presente dago edozein bertso-saiotan —gauza bera esan liteke ahotsaren eta kantaeraren erabileraz ere (ikus, besteak beste, Alberdi: 23-27)—.

177 Testuartekotasun horren adibide gisa Amets Arzallusek *Haurtxo txikia negarrez dago I* doinuan kantatutako bertsoaldia aipa daiteke (Lezo, 2017-09-15). Ondokoa zen jarritako gaia: “Arrazoi ezberdinak direla medio haur batzuek ezin diote ikasturte berriari ekin”. Gai horri buruz haurrentzako lo-kanta baten doinuan kantatzeak sortzen du testuarteko lotura hori, doinua ezagutuz gero, betiere. Bertsoaldia ikus entzuteko, sarean: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14641-amets-arzallus-bakarka> (azken kontsulta: 2023-12-05).

kontrastatzea interesgarri suertatzen da, sarri bertsolariek bi egiturak uztartzen baitituzte bat etorraziz, izan modu kontzientean edo inkontzientean. Ematen duenez, bertsolari zenbaitek badute doinuak eskaintzen duen “estrategia diskurtsibo” edo “barne-bide”-en kontzientzia (ikus Iraizoz Remirok [2012: 64] bere ikerlanean Andoni Egaña eta Jon Maiari eginiko elkarrizketa), baita uztartze hori estrategia komunikatibo gisa baliatzeko asmoa ere batzuetan¹⁷⁸ (Lujanbio 2017; ikus Soroa [2022: 73] ere).

6.6.3. Bertsolarien kantaera

Bertsoen kantaera edo bertsoak kantatzeko modua ezinbestean aipatu beharreko alorra da bertsoetan hotsak, entzungai den hori, badugu hizpide. Kantaera bertsolariak, ahotsaren bitartez eta bertso-doinua euskarri prosodiko nagusi duela, bat-batean bertsoa ekoizteko duen era dela esan genezake. Navarrok (2018: 11-19), esaterako, ondoko parametroak barnebiltzen ditu kantaeraren baitan: azentuazioa, tinbrea, apaindurak, intonazioa, erritmoa, *tempo*a, dinamikak (intentsitatea) eta artikulazioa. Kantuaren alor musikalak hartzen dituen ezaugarriez ari gara, finean, eta horiek gauzatu eta erabiltzeko moduez. §1.1.1 atalean aurkezturiko prosodiaren definizioarekin gertatzen den bezala, askotariko elementuek osatzen dute kantaera¹⁷⁹: bertsoa botatzen duen horren ahotsaren ezaugarrietatik hasi eta xehetasun musikal txikietaraino jo genezake.

6.6.3.1. Kantaerak hautemateko moduez

Doinu hautuarekin gertatu bezala, azken urteetan eginiko lanek (Alberdi 2019: 23-27, Hernández 2019, nagusiki) agerian uzten dute badirela kantaerak hautemateko modu jakinak, kantaerei loturiko nolabaiteko kode komunikatiboak. Alberdik (2019) “emakume bertsolarien jarduna mugatzen duten” 22 mekanismo identifikatzen ditu *Kontrako eztarritik* lan analitikoan, hamabost bertsolari elkarrizketatuta eta bildutakoak genero-ikuspegitik landuta. Mekanismo horien artean dago “*Akatsa* barneratzea (ez funtzionatzearen sentipena)”, eta ildo horren azpiatal gisa kokatzen du Alberdik *ahotsa*, emakume bertsolarien ahotsaz eta kantaeraz diharduten testigantzak bildurik. Testigantzok aztertuta ondoriozta daiteke egungo bertsogintzan kantatzeko modu eta ahots

178 Aipagarria da, zentzu horretan, Lujanbiok 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusian (Bergara, 2009-11-07) gaiari kantatutako bakarkako bertsoaldia. Sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/keqp4> (azken kontsulta: 2023-12-05).

179 Ikuspegia edo kokapena beharbada desberdina izan arren, esan daiteke *prosodia* eta *kantaera* termino parekagarriak direla, bertsoetan ukitzen duten esparruari bagagozkio behintzat. Bertsolaritzaren gizarte mugimenduan eta hainbat iker-alorretan *kantaera* da bertsoaren kanporatze musikalaria eta horren inguruko ezaugarriei erreferentzia egiteko baliatzen den termino nagusia eta, hori dela eta, atal honetan hitz hori baliatu dut nagusiki. Edonola ere, ikerketa honetan hizkuntzalaritzatik —fonologiatik— hurbiltzen naizenez bertsoetara, *prosodia* izan da ‘bertsoak kantatzeko moduz’ aritzeko baliatu dudana terminoa.

jakin batzuk hartzen direla entzuleriaren parte handi baten aldetik “zuzentzat”¹⁸⁰, prestigiotsutzat¹⁸¹, grazia eragiten duten kantaeratzat¹⁸² eta abar: erdigunean daudenak, hegemonikoak direnak dira horiek, hain zuzen¹⁸³.

6.6.3.2. Heziketa musikalaren, testuinguru komunikatiboaren eta baliabide teknikoaren eraginaz

Orain arte aipatutako alorrekin loturik eta elkarreraginean, kantaeraren aldakortasuna baldintza dezaketen faktore gisa identifikatu ditu Navarrok (2018), beste batzuen artean, heziketa musikala, testuinguru komunikatiboaren ezaugarriak eta bertsolariak unean-unean dituen baliabide teknikoak, denboran zehar horiek jasandako aldaketetan ardazturik.

Navarrok XX. mende erdialdetik azken urteetako Oiartzungo bertsolarien kantaera du aztergai¹⁸⁴, ikuspegi musikologikotik testuinguru sozialak eta historikoak kantaeraren zenbait ezaugarritan duen eraginari erreparatuz. Kantaeraren parametro musikalak zehazten ditu horretarako¹⁸⁵, denboran zehar jasan dituzten aldaketak eta horien eragile posibleak aztertzeke ondoren. Intonazioari dagokionez, mendebaldeko musika sistema tenperatuaren eragina aipa

180 “Ahots zuzenak eta ahotsa erabiltzeko modu zuzenak maskulinitate hegemonikoa edo feminitate egokia errepresentatzen dutenak dira, baina, bigarren kasuan, egokia izanagatik mugatua dateke ahots femeninoa, egokitasunetik kanpo gelda daitezkeenez gero hainbat erregistro, erabilera edo funtzio” (Alberdi 2019: 23-24).

181 Miren Artetxeren ondoko testingantzak laguntzen du ideia hori ulertzen: “[...] Bi kantatzeko modu dauzkat nik bertsoan: bata, indarra adierazten duen bertsoakera, mikrorik edukiko ez banu bezala; eta bestea, erosoagoa zaidana baina oraindik performatu ezin dudana, nire iritziz, genero-perspektibatik ere gaizki irakurtzen delako, mikroa dugunez zertarako buila egin modua. Ni askoz erosoago nago suabe eta baxu kantatuz. Mikroaren bolumena igo behar bada, egin dezala teknikariak. Abeslari batek esan zidan niri bertsoa erori egiten zitzaidala eta, alde batetik, ulertzen dut bertsoak bere formatuagatik behar duela autoafirmaziotik, batez ere tonu eta erritmo aldetik eutsiko dion pertsona bat, erortzen utziko ez diona. Ados. Baina, aldi berean, iruditzen zait mila kantaera daudela esploratzeko. Mikroa daukagu, nahi dugun bezala kanta dezakegu, eta ez dugu geure burua behartu behar ahotsean ere indarra erakusteko. Horrela kantatzeko hautua egiten dudanean, jendeak gogo edo grina falta modura irakurtzen du. “Ez zenuen irabazi nahi, ezta?”, esaten zidaten Xilaban kantatu ostean; “Ez duzu sinesten bertsoan ondo egiten duzunik”. Amorrua ematen dit irakurketa horrek, uste dudalako oholtzan egoteke nire modu fisikoari eta ahotsa erabiltzeko moduari lotuta dagoela. Nire hautuak ez dauka zerikusirik gogoarekin edo anbizioarekin. Niretzat autoafirmazio ariketak bat da jendeak espero duen bezala kantatu beharrean eroso sentitzen naizen moduan kantatzea.” (Alberdi 2019: 26)

182 Oihana Iguaranena da ideia hori biltzen duen testigantzetako bat: “[...] Nire ahotsarekin, oro har, erantzun ona jaso dut plazan. [...] beti onerako nabarmentzen zait, baina batzuetan azpimarra horrek amorratzen nau badirudielako edukari kentzen ari zaiola, nire sormen lanari kentzen ari zaiola. [...] ohartzen naiz nire ahotsak errazago funtzionatzen duela tonu serioan, sakonean, gozoan... Umorean, kide batzuen —mutilak gehienak— baloratuagoa da, grazia egiten dute ahoa zabaltzerako, batez ere ahots tinbre jakin bat dutenek. Bada tinbre mota bat, gorputz mota jakin batekin lotzen dena, geografía jakin batekin eta euskalduntasunaren eraikuntza jakin batekin, bertsoan eta umorean bereziki erraz sartzen dena, tradizio batetik datorrelako, ondo deskodetzen dena.” (Alberdi 2019: 24-25).

183 Hernándezek (2019) ahotsa eraikia delako ideia nabarmentzen du, bertsolaritzara antropología feministatik hurreratuta.

184 Jose Joakin Mitxelena Agirrezabala (1924-1988), Jose Luis Lekuona Garaier “Lexoti II” (1925-), Koxme Lizaso Lekuona (1937-2013), Joanito Mitxelena Andueza (1953-2019), Arkaitz Oiartzabal Agirre “Xamoa” (1985-) eta Alaia Martin Etxebeste (1987-) dira Navarrok (2018) bere lanean aztertzen dituen bertsolariak.

185 Gorago ere aurkeztu dira Navarrok (2018: 11-19) proposatutako parametroak: azentuazioa, tinbrea, apaindurak, intonazioa, erritmoa, tenpoa, dinamikak eta artikulazioa.

daiteke, garai batean ohikoa zen intonazio neutrotik aldenduz, eta denboran zehar aurrera egin ahala —gaur egunera hurbildu ahala— doinuen aldaera gutxiago egiten direla. Gertakari horien eragiletzat gaur egun bertso-doinuak entzuteko —eta ikasteko— dauden askotariko moduak proposatzen ditu Navarrok (2018: 47), akonpainamendu musikala duten bertsioetatik, MIDI audioetatik edo partituretatik abiatuta: grabazioak eta iturri idatzien lanketak lagun lezake ulertzen egun nagusi den sistema tenperatua barneratzea eta baita bertso-doinuaren bertsio jakin bat finkatzea ere, gero eta aldaera gutxiago gauzatuz.

Etenei dagokionez, egungo bertsolariek lehengoek baino gehiago egiten dituztela zehazten du, bertsolariek kantatzeko erabili ohi duten *tempoaren* moteltze posible bati, txapelketen testuinguruko saioek hartutako garrantziari —akatsik gabeko bertsoak sortzeko denbora irabazteari— eta gaur egun kantatzeko jartzen diren gai konplexuek eskatzen duten hausnar-denborari egotziz (Navarro 2018: 47-48). Artikulazio modua aztertuta, bertsolari guztiek *legato* kantatzen dutela zehazten du, musika notak —eta silabak— elkarren artean loturik kantatuz. Mantentzen den beste ezaugarri bat da bertsoa kantatu ahala lastertasuna igotzearena, bukaera azkarrago kantatuz, Iraizoz Remioren (2012) ikerketaren emaitzen ildo berean. Bertsoa pentsatu eta kanporatzean azken puntuari, bukaerari, ematen zaion garrantzia da gertakari honen aurrean azpimarratu beharrekoa (ikus §10.2.5.3). Halaber, dirudienez, gero eta apaindura gutxiagorekin kantatzen da, arrazoi estetiko eta akustikoak direla medio —mikrofonoaren sarrera bertso-saioetan, kasu— (Navarro 2018: 48).

6.6.3.3. Doinuaren ezaugarriek baldintzatutakoaz

Soroak (2022) 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean goizeko saioan Maialen Lujanbiok gaiari kantatutako bertsoaldia (lan honetan, ML-2017-GS-ge) aztertzen du *tempo* eta intentsitate aldaketei erreparatuz, neurketen bidez. Hiru bertsoak doinu berean eta gai berari kantatuak direnez, aipatutako parametroen aldakortasuna doinuaren ezaugarriei edo doinuan txertatutako hizkuntzari ote dagokion aztertzen du. *Tempoaren* erabilerari dagokionez, Lujanbiok doinuaren (eta neurriaren) egiturak markatzen dituela dirudi lastertasuna motelduz esaldi musikalen amaieretan eta, batzuetan, molde handiko bertso-neurrietan ohiko den hemistikio barreneko 5 + 5 silabako taldekatzearen mugetan (Soroa 2022: 57; ikus lan honetan §10.2.6 taldekatze arrastoez). Era berean, beste kasu batzuetan hitzari loturiko adierazkortasun baliabide gisa interpretatzen du Soroak *tempo*a moteltzea. Doinuaren egiturari eta ezaugarriei erreparatuz, zehazten du *temporik* lasterreneko pasarteak doinuak garaiera altueneko musika-notak dituen atalean gertatzen direla hiru bertsoetan, doinuaren ezaugarriek kantaeran eragina dutela iradokiz. Izan ere, aurkako norabidean, *temporik* moteleneko tartekak doinuaren lehen atalean aurkitzen dira. Gertakariok bertsoa eraikitzen

den moduarekin ere lot daitezke beharbada, gorago aipatu bezala, doinuaren egiturarekin elkarreraginean bertso amaierak hartzen duen pisua ulertuz.

Soroak aztertutako bertsoaldian *tempo* aldakortasuna gehiago darabil bertsolariak baliabide adierazkor gisa intentsitatea baino. Intentsitate maila baxuenak beti ageri dira bertso hasieran eta maila altuenak, berriz, doinuaren bigarren atalean, tempoarekin gertatu bezala. Bigarren atal horren baitan aztertutako bertso bakoitzean intentsitate gune gorenaren kokapena desberdina izanik, doinuaren ezaugarriekin batera testuaren (hizkuntzaren) eragina kontuan haratu beharra zehazten du. Ondorio nagusi gisa plazaratzen du doinuaren egiturazko ezaugarriek hein handian baldintzatzen dutela aipatutako aldagaien aldakortasuna (Soroa 2022: 72).

6.7. Hondarreko gogoetak

Atal honetan berrikusi ahal izan dudanez, hainbat alorretatik landu dira bat-bateko bertsoen prosodia ukitzen duten zenbait gai (metrika, bertso-doinuak eta kantaera, nagusiki), oraindik orain gutxi landutako eremua den arren. Asmo komunikatiboak, testuinguruak, doinuak eta kantaerak hautemateko moduak, baliabide teknikoek (mikrofonoa erabiltzen ote den edo ez, etab.), hezkuntza musikalak (doinuak, kantuak, ikasteko bideek), bertsoa eraikitzeke moduak edo doinuak berak bertsoari ezartzen dizkion baldintzak esanguratsu izan daitezke bat-bateko bertsoen hotsezko gauzatzean. Diziplinarteko azterketen beharra geratzen da agerian, beste behin; ikergai bera askotariko ikuspegietatik aztertu eta loturak egiteko beharra. Lan hau orain arteko hurbilpenen osagarri dela esan daiteke, hizkuntzaren fonologiak eta hizkuntza-metrika-doinuen arteko harremanek bertsoen erritmoan izan dezaketen eragina baitu aztergai.

7. Ikerketan aztertu den corpora: kokapena eta testuingurua

7.1. Sarrera

Euskaraz eta bat-bateko bertsogintzaren testuinguruan testu-uztartzeaz dagoen ikerketa urritasuna dela eta, ikerketa honen alderdi enpirikoa corpus baten azterketa sistematikoan oinarritzea erabaki dut, beste hainbat hizkuntzatan testu-uztartzea aztertzeko egin gisan (ikus Rodríguez-Vázquez 2010, esaterako). Sakoneko azterketa izan da helburu, azterketa kualitatiboa kuantitatiboa baino gehiago, gertakariak kokatzeko (zenbakizko) datu orokorrak landu ditudan arren, kasu batzuetan. Asmoa abiapuntuko oinarria ezartzea da, aurrera begira beharrezko ikusten den alorretan sakondu ahal izateko.

7.2. Corpusaren hautuaz

Azterketa sistematikorako hautatutako corpora 1980-2017 bitarteko Bertsolari Txapelketa Nagusietako irabazleen (txapeldunen) finaleko bertsoek osatzen dute. Hala, ia 40 urteko bilakaeran hainbat bertsolari txapeldun aztertu dira, finaletan (ikus §1.4.2 atalean jasotako 1. taula): Xabier Amuriza 1980an eta 1982an; Sebastian Lizaso 1986an; Jon Lopategi 1989an; Andoni Egaña 1993, 1997, 2001 eta 2005ean; Maialen Lujanbio 2009an eta 2017an; eta Amets Arzallus 2013an.

Xenpelar Dokumentazio Zentroaren eskutik jaso ditut audio guztiak, kalitate altukoak, mp3 formatuan¹⁸⁶. Gerora wav formatura pasa ditut azterketa akustikoak egin ahal izateko *Praat*

¹⁸⁶ Gehienak sarean eskuragarri daude, Bertsolaritzaren Datu Basean: <https://bdb.bertsozale.eus/> (azken kontsulta: 2023-12-05).

programa informatikoaren (Boersma eta Weenink 2021) bidez. Denetara 11 txapelketa, 6 bertsolari, 161 bertsoaldi eta 388 bertso dira lagina osatzen dutenak (xehetasun gehiagorako, ikus §7.2.2.2 atala).

Corpusa osatzeko kontuan hartu dut ekoizpen guztiak direla euskarazko bat-bateko bertsoak, testu-genero berekoak, aldeak alde, eta testuinguru bertsuan sortuak: txapelketetako finaletan, txapelketa bera denboran zehar zertxobait aldatu den arren. Antzeko kokapenetik abiatuta bertsolarien arteko aldakortasuna hein batean jaso ahal izateko asmoz hautatu ditut 1980-2017 bitarteko aldia, txapelketetako bertsoak eta bertsolari txapeldunak (ikus jarraian §7.2.1, §7.2.2 eta §7.2.3 atalak).

Edozein corpus osatzean izaten den kezketako bat da bildutako laginaren ordezkarritasunarena (*representativeness*) aztertzen ari den hizkuntza edo fenomeno(ar)ekiko (Gut eta Voormann [2014] 2017: 20). Lan honen kasuan, arduretako bat da hautaturiko bertsoek zein puntutara arte emango ote duten euskarazko testu-uztartzearen eta bat-bateko bertsoen erritmoaren gakoen berri. Jarraian corpusaren ezaugarri nagusiak aztertu ditut galdera horri erantzuten ahaleginduz. Argi dago corpusak muga nabarmenak dituela bertsogintza “osoa” ordezkatzeari dagokionean, baina esan behar da helburua ere ez dela hori. Orain arteko atal teorikoetan eginiko berrikuspen eta lanketan oinarrituta bertso-lagin batera hurbildu eta hizkuntza musikarekin uztartzean bat-bateko bertsoen erritmoan eragiten duten alderdietako batzuk identifikatu eta horietan sakontzea da lan honen xedea. Corpus honen azterketatik ateratako ondorioetako asko baliagarri izango dira ziur aski bertsogintza bere osotasunean ulertzeko, euskarazko bertsoen prosodiari forma ematen dioten oinarritzko ezaugarriak eta aldakortasun ardatzak proposatzea baita lan honen egitekoetako bat. Baina corpusa zabaltzeko beharra izango da beste hainbat alor eta eragile ezagutu ahal izateko.

Txapelketetako testuinguruan ekoiztako bertsoek egoera komunikatibo “errealetan” —ez esperimentaletan, alegia— sortutako lagina osatzen dute. Bertsogintzako gertakari linguistikoen azterketarako esanguratsua da hori, egoera jakinean publiko jakinari asmo komunikatiboz kantatutako ekoizpenak baitira aztergai¹⁸⁷ (Gut eta Voormann [2014] 2017: 22). Baina bertsotan egiten den ohiko testuinguru batean ekoiztako bertsoak aztertzeak dakar kantatutako horren gaineko kontrolik eza. Hala, zail izango da ekoizpena baldintzatu duten eragile guztiak kontuan

187 Testuinguru esperimentalak ere interesgarri dira ahozko ekoizpena aztertzeari dagokionean, testuinguru esperimentala bera ere beste egoera komunikatibo bat baita. Halere, prozeduran eta ekoizpenean badaude aldeak txapelketetako bertsoak aztertu edo diseinatutako esperimentu baten emaitzak aztertu.

Esperimentu bidezko ekoizpenen azterketak bestelako angelu batzuk emango lituzke bertsoen prosodia ulertzeko, bertsoa ekoizten den ohiko testuinguruetatik erauzita gauzatuko lirakeen arren bertsoaldiak. Elkarren osagarri lirakeke bi bideak; lan honetan lehenengoaren aldeko hautua egin dut abiapuntu gisa, aztertzeako esanguratsu eta interesgarri izan daitezkeen gertakari edota alderdiak identifikatzeko asmoz.

hartu ahal izatea eta, gertakari jakinei dagokienean, jasotako adibideak besterik ez ditugu aztergai izango (Birch [2014] 2017: 28). Esaterako, azentu linguistikoaren auzia ekarrita, zail da jakitea kantuan uztartutako hizkuntzaren jatorrian leudekeen azentuak zein diren euskaraz, hitz lauz hizkera gehienetan agertzen den aldakortasuna dela eta (ikus §9.3.1 xehetasun gehiagorako).

Corpusa amaigabea eta dinamikoa den zerbait bezala ulertzen dut; etengabeko garapenean dagoen zerbaiten legez, aberasten eta osatzen joango den zerbaiten gisan (Birch [2014] 2017: 32). Tesian bertso-laginari ezarritako mugek oinarri eta abiapuntu izan nahiko lukete, aurrera begira lagin honi berari bestelako analisi-ardatzak gehitu edo ardatz berberetan oinarrituta beste testuinguru edota bertsolari batzuen bertsoak aztertzeko. Hala, lan honetan landutako corpusaren nondik norakoak aurkeztuko ditut jarraian, hizkuntza-analisirako eskaintzen dituen baldintzak kokatuz: corpusaren aldia (§7.2.1), txapelketen testuingurua (§7.2.2) eta azterturiko bertsolariak (§7.2.3).

7.2.1. Aldia: 1980 - 2017

Bertsolaritzaren historian 80ko hamarkada mugarrizat hartzen da. Xabier Amurizaren eskutik bertsoaren inguruko hainbat mito eraitsi eta bertsoan egiten ikasteko metodologiaren proposamena dator, bertsoen inguruan teorizatzen hasten da bertso-mundutik bertatik, bertso-eskolen loraldia dator, orduan hasten da bertsolaritza gizarte-mugimendu gisa antolatzen kultur proiektu autonomo baten bueltan, etab. (ikus §7.3). Hamahiru urtean (1967tik) ez zen bertsolari txapelketarik antolatu eta, eten horren ondoren, berriro antolatzen hasten dira. Xabier Amuriza da 1980an eta 1982an txapeldun, ordura arteko ereduetatik aldentzen den bertsokerarekin (Garzia 2007b: 103-104 ; Barandiaran 2011; Garzia 2013 [2021]: 58, Zubiri et al. 2019: 82-83). Euskara Batuan kantatzeko ahalegina egiten duen lehen bertsolaritzat ere hartzen da Amuriza (Garzia 2013 [2021]: 58) eta horrek ere ezartzen du mugarrria. Orduetik aurrera bestelako bertsogintza kanon batzuk azaleratuko dira bertso-mugimenduaren baitan, bertsogintza “multipolarrerantz” bidean (Garzia 2007b, Garzia 2013 [2021]: 72-78; Zubiri et al. 2019: 111-123). 1980tik gaur egun arteko bertsoak aztertzea erabaki dut, garai zabal horren baitan sortutako bertsoen eta bertsolarien arteko bilakaera ere aztertu ahal izateko, neurri batean.

7.2.2. Saio-mota: Bertsolari Txapelketa Nagusietako finalak

Aztertutako bertsoak elkarren artean alderagarri izan daitezen, saio-mota berean sorturiko bertsoak aztertzeko hautua egin dut ikerlan honetan; txapelketako finaletako bertsoak aztertzearena,

hain zuzen. Ikerlan honetan landu diren alorrak aztertzeko edozein bertso-saio mota egokia litzatekeen arren, txapelketak hautatu ditut saio-moten artean, hainbat arrazoiengatik. Jarraian horiek aurkeztu eta txapelketetako saioak ezaugarritu ditut, labur, corpusa kokatzeko.

7.2.2.1. *Txapelketen testuingurua(k)*

Azken urteetan txapelketek bertsogintzari, bertso-ereduei eta bertso-mugimenduari egiten dieten ekarpenaz eta egun betetzen dituzten funtzioez eztabaida dagoen arren (ikus horren inguruan Barandiaran 2011, esaterako), ezin da ukatu azken hamarkadetan eginiko txapelketak berrikuntzarako eta eredu berrien agerpen, garapen eta legitimaziorako gune izan direla (Zubiri 2019: 77-78). Bertsolaritza gizarte-mugimendu gisa egituratzen hasi zenetik (ikus §6.5.2.1), txapelketek artikulazioen berrespenean egiteko esanguratsua dutela dirudi: “Txapelketak funtzio garrantzitsua jokatzeko du artikulazio fenomeno horretan. [...] inflexio puntuak dira. Aurretik ere baden errealitatea errealago bihurtzen da, bertsolaritzaren baitan legitimotasuna irabazten baitu.” (Zubiri et al. 2019: 89).

Txapelketek sozialki eta bertsogintzari dagokionean duten esanguraz gain, saioetako giro formal eta neurtua ere aipatu behar da, ikerlan honi dagokionean behintzat. Bertsolari Txapelketa Nagusietako giroa ospakizun eta gozamenekoa den arren, testuinguru komunikatibo gisa aski formala izan ohi da; areago finala: oholtza handi batean zortzi bertsolari eta gai-emailea zein aurkezlea Euskal Herri osotik etorritako jendeari hizketan eta kantari; 14.000 pertsona inguru entzule (azken urteetan), bertsolariek kantatu behar dutenean errespetuz, isilik, entzunez; mediatikoki oso jarraitua, telebistan eta sarean zuzenean eman izan dena azken urteetan —finaleko saioan pantaila erraldoi eta guzti—; zentzu kolektiboan bizi den arren lehia izaeraduna, irizpide batzuei jarraiki epaimahai batek puntuatutako saioa da (2005eko txapelketako bizipenez, “kanpoko” aditu gisa ahozkoatasunean, ikus Foley 2007, esaterako). Horrek guztiak dakar —besteak beste— testuinguru oso formala izatea txapelketakoa, eta bertsolarien jarduna oso neurtua.

Hitz lauko ekoizpenetan ohikoa izaten da hizketa-maila zainduan hotsezko ekoizpenak joera indartzailea izatea: maila segmentalean fortitioak nagusi, azentu-ereduak nabarmenago edo konplexuago, etab. Horrek, zentzu praktikoa, erraztu egiten du azterketa hein batean, ezaugarriak indarturik ageri baitira gehienetan, bestelako hizketa molde batzuetan baino modu argiago edo nabarmenagoan ekoizten baita hizketa (ikus §4.3). Ideia hori bertsoetara ekarrita, espero izatekoa da txapelketarena bezalako testuinguru formalean ekoizpena geldoagoa, ahoskerari dagokionez fortitiboagoa izatea —hotsen, silaben, hitzen edo sintagmen arteko aldeak areagotuz edo

markatuz— bestelako bertso-saio batzuetakoa baino¹⁸⁸. Egoera komunikatibo formalagoak emaniko baldintza horiek erraztu egiten dute neurri batean egin beharreko azterketa fonetiko-fonologikoa, ezaugarri prosodikoak argiago eta errazago zehazteko aukera ematen duelako horrek. Hala, lan honen ekarpena litzateke testuinguru formal jakinean ekoizitako bertsoak ezaugarritzea, bidea erraztuz beharbada hizkera-maila informalagoetan sortutako bertsoak aztertzeo —*a priori* biziagoak, ahoskera arduragabeagoak, etab.; aztertzeo korapilatsuagoak, aurreikus genezake—.

Hori hala izanik ere, kontuan hartu behar da txapelketako finalean hasierako agurrak —goizeko saiokoa eta arratsaldekoa— zein bukaerakoa kenduta, gainerako bertsoak txapelketako gai-jartzaile taldeak sortutako gaietatik abiatuta osatu beharrekoak direla. Hala, Balda pilotalekuko (Donostia), Belodromoko (Donostia) edo BECeko (Barakaldo) testuinguru jendetsu eta formalaren baitan bestelako fikziozko egoerak sortzen dira —esan genezake gaiak jarrita egiten den edozein bertso-saiotan gertatzen dela joko bikoitz hori, kasuan kasuko ezaugarriekin—. Sortuko diren fikziozko egoera batzuk are formal, serio edota dramatikoagoak izango dira, edo bide horretan helduko diote bertsolariak. Beste gai edo egoera batzuk, berriz, saioaren kokapen “erreal” baino informalagoak izango dira. Bertsolariak euren ahotik hitz egiten dute uneoro, baina askotariko egoera eta pertsonaien larruan jarririk, eta ingurune hurbilean gertatzen dena ere kantagai izanik (Sarasua 2007: 39; ikus §6.2).

Barakaldoko BECen egon arren poteoan dabiltzan bi lagunen paperean arituko dira beharbada une batean bertsolariak (Lujanbio eta Colina puntuka 2009an, ML-2009-AS-ptk), baina gero tabernan dauden bi alkoholiko ohi izango dira, alkohola edateko euren gogoari eusteko borrokan (Arzallus eta Colina zortziko handian 2013an, AA-2013-GS-8H). Katurako hautaturiko doinuak, baliatutako *tempoa*, hitzen ebakera eta taldekatzea, katurako “tonua”, umore mota, hizketa estiloa, etab. ez dira berberak izango, bertsolarien ingurune hurbila bi kasuetan BEC eta Bertsolari Txapelketa Nagusiko final jendetsua izanagatik. *Matrixka* erreferentzial horrek ahozko ekoizpena baldintza dezakeela pentsatzekoa da, ezinezko eginez txapelketako ekoizpenean ezaugarri “formal” zainduetaranzko edo “informal” arduragabeetaranzko joera izango den guztiz aurreikustea —ezaugarri formalak nagusi izango direla pentsatu arren—. Beharrezko da testuinguru komunikatiboa bera modu dinamikoan ulertzea, izaera aldakor hori bera baita bertsolariarentzat adierazkortasun eta sormenerako aukera. Txapelketako testuinguru formalaren baitan sor daitezkeen bestelako egoerek hizketari dakarkioten aldakortasun eta dinamismo hori kontuan hartzekoa izango da, beraz, bertsoen prosodia aztertzen ari garela.

188 Giro informalagoan gaztetxean edo bazkalostean eginiko saioetakoa baino, adibidez; hori dena aztergai da prosodiari dagokionez, edonola ere.

7.2.2.2. Txapelketetan bertsolariek eginiko lanak (azterturiko bertsoaldiak)

Txapelketen inguruan aipatu beharreko beste alderdi bat saioen egituraketa da. 1980tik 2017ra arteko txapelketetako finalerako saioen egitura —egin beharreko lanak— aldatu diren arren, hainbat dira mantentzen diren ariketak —zortziko handikoa, zortziko txikikoa, bakarka gaia emanda, etab.— eta horrek txapelketako testuinguru antzekoan eginiko antzeko lanak alderatzeko aukera ematen du; betiere ahaztu gabe emandako gaiak eta bertsolari bakoitzak hari erantzuteko moduak kasuan kasuan desberdinak izango direla edo izan daitezkeela. Jarraian jaso ditut eskema modura aztertu diren bertsoaldiak, txapelketa eta bertsolaria (lehen zutabea), saioa (bigarren zutabea), egin beharreko lana (hirugarren zutabea) eta lan bakoitzeko bertso-kopurua zehaztuz (laugarren zutabea).

6. taula: Aztertutako corpora. Txapelketetako finalerako bertsolariek eginiko lanak

1980 Xabier Amuriza	Goizeko saioa	1. Hasierako agurra	1
		2. Zortziko handian ofiziotan (Txomin Garmendiarekin)	3
		3. Puntu erantzunak (bakarka)	2
		4. Gaia emanda (bakarka)	3
		5. Hamarreko txikian ofiziotan (Jose Luis Gorrotxategirekin)	3
		6. Lau oinak emanda (bakarka)	1
	Arratsaldeko saioa	7. Hasierako agurra	1
		8. Zortziko txikian ofiziotan (Jose Luis Gorrotxategirekin)	3
		9. <i>Esne saltzailearena</i> doinuan ofiziotan (Txomin Garmendiarekin)	2
		10. Puntu erantzunak (kartzelakoa, bakarka)	2
		11. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
	Buruz burukoa	12. Zortziko txikian ofiziotan (Jon Enbeitarekin)	4
		13. Puntu erantzunak (kartzelakoa, bakarka)	2
		14. Hamarreko handian gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
		15. Bederatzi puntukoa (kartzelakoa, bakarka)	1
	Arratsaldeko saioa	16. Bukaerako agurra (txapeldunaren agurra)	1
Denetara: 16 bertsoaldi eta 35 bertso			

1982 Xabier Amuriza	Goizeko saioa	1. Hasierako agurra	1
		2. Zortziko handian ofiziotan (Jon Azpillagarekin)	4
		3. Lau oinak emanda (bakarka)	2
		4. Hamarreko txikian ofiziotan (Txomin Garmendiarekin)	3
		5. Puntu erantzunak (bakarka)	2
		6. Gaia emanda (bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa	7. Hasierako agurra	1
		8. Zortziko txikian ofiziotan (Jon Enbeitarekin)	3
		9. Hamarreko handian ofiziotan (Imanol Lazkanorekin)	3
		10. Bukaera emanda (kartzelakoa, bakarka)	2
		11. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
	Buruz burukoa	12. Zortziko txikian ofiziotan (Jon Lopategirekin)	4
		13. Puntu erantzunak (kartzelakoa, bakarka)	2
		14. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
		15. Bertso bat Lopategiri (bederatzi puntukoa, bakarka)	1
	Arratsaldeko saioa	16. Bukaerako agurra (txapeldunaren agurra)	1
Denetara: 16 bertsoaldi eta 38 bertso			

1986 Sebastian Lizaso	Goizeko saioa	1. Hasierako agurra	1
		2. Zortziko handian ofiziotan (Xabier Amurizarekin)	4
		3. Puntu erantzunak (bakarka)	2
		4. Lau oinak emanda (bakarka)	2
		5. Hamarreko txikia ofiziotan (Iñaki Muruarekin)	3
		6. Gaia emanda (bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa	7. Hasierako agurra	1
		8. Zortziko txikian ofiziotan (Andoni Egañarekin)	4
		9. Hamarreko handian ofiziotan (Jon Enbeitarekin)	3
		10. Puntukakoa ¹⁸⁹ ofiziotan (Iñaki Muruarekin)	3
		11. Bukaera emanda (kartzelakoa, bakarka)	1
		12. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
		13. Bukaerako agurra (txapeldunaren agurra)	1
Denetara: 13 bertsoaldi eta 31 bertso			

¹⁸⁹ Puntukako ariketan bertsoak bi bertsolarien artean osatzen dira, txandaka puntu bakoitza batek botaz. Denetara 6 bertso osatu arte kantatu zuten bertsolariak. Lizasok bertsoen erdiak osatu zituenenez, 3 bertso balira bezala kontatu dira, nahiz eta berez sei bertsoak aztertu.

1989 Jon Lopategi	Goizeko saioa	1. Hasierako agurra	1
		2. Zortziko handian ofiziotan (Mikel Mendizabalekin)	4
		3. Lau oinak emanda (bakarka)	2
		4. Hamarreko txikian ofiziotan (Sebastian Lizasorekin)	3
		5. Puntu erantzunak (bakarka)	2
		6. Gaia emanda (bakarka)	3
		7. Bukaerako agurra	1
	Arratsaldeko saioa	8. Hasierako agurra	1
		9. Zortziko txikian ofiziotan (Sebastian Lizasorekin)	4
		10. Lau oinak emanda (bakarka)	1
		11. Puntu erantzuna (bakarka)	1
		12. Hamarreko handia ofiziotan (Imanol Lazkanorekin)	3
		13. Bukaera emanda (kartzelakoa, bakarka)	2
		14. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
		15. Bukaerako agurra (txapeldunaren agurra)	1
Denetara: 15 bertsoaldi eta 32 bertso			

1993 Andoni Egaña	Goizeko saioa	1. Hasierako agurra	1
		2. Zortziko handian ofiziotan (Xabier Euzkitzerekin)	4
		3. Lau oinak emanda (bakarka)	1
		4. Puntu erantzuna (bakarka)	1
		5. Hitza gaitzat emanda (bederatzi puntukoa, bakarka)	1
		6. <i>Aizak, hi, mutil mainontzi</i> doinuan (seiko motzean) ofiziotan (Jon Enbeitarekin)	3
		7. Gaia emanda (bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa	8. Hasierako agurra	1
		9. Hamarreko handian ofiziotan (Anjel Mari Peñagarikanorekin)	3
		10. Zortziko txikian ofiziotan (Xabier Euzkitzerekin)	4
		11. <i>Iparragirre abila dela</i> doinuan ofiziotan (Unai Iturriagarekin)	3
		12. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
		13. Bukaerako agurra (txapeldunaren agurra)	1
Denetara: 13 bertsoaldi eta 29 bertso			

1997 Andoni Egaña	Goizeko saioa	1. Hasierako agurra	1
		2. Zortziko handian ofiziotan (Unai Iturriagarekin)	4
		3. Hitza deskribatzea (bakarka)	1
		4. Puntu erantzuna (bakarka)	1
		5. Hitza gaitzat emanda bederatzi puntukoa (bakarka)	1
		6. Sei puntuko motzean ofiziotan (Jexux Mari Irazurekin)	3
		7. Gaia emanda (bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa	8. Hasierako agurra	1
		9. Hamarreko handian ofiziotan (Maialen Lujanbiorekin)	3
		10. Zortziko txikian ofiziotan (Jon Maiarekin)	4
		11. <i>Iparragirre abila dela</i> doinuan ofiziotan (Mikel Mendizabalekin)	3
		12. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
		13. Bukaerako agurra (txapeldunaren agurra)	1
Denetara: 13 bertsoaldi eta 29 bertso			

2001 Andoni Egaña	Goizeko saioa	1. Hasierako agurra	1
		2. Zortziko handian ofiziotan (Sustrai Colinarekin)	3
		3. Zortziko txikian ofiziotan (Igor Elortzarekin)	4
		4. Puntu erantzunak (bakarka)	4
		5. Sei puntuko motza ofiziotan (Unai Iturriagarekin)	3
		6. Gaia emanda (bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa	7. Hasierako agurra	1
		8. Hamarreko txikian ofiziotan (Jon Maiarekin)	3
		9. Puntukakoa ofiziotan (Maialen Lujanbiorekin)	4
		10. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
	Buruz burukoa	11. Zortziko txikian ofiziotan (Maialen Lujanbiorekin)	4
		12. <i>Iparragirre abila dela</i> doinuan ofiziotan (Maialen Lujabiorekin)	3
		13. Bederatzi puntukoa hitzari (kartzelakoa, bakarka)	1
		14. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa	15. Bukaerako agurra (txapeldunaren agurra)	1
Denetara: 15 bertsoaldi eta 41 bertso			

2005 Andoni Egaña	Goizeko saioa		1. Hasierako agurra	1
			2. Zortziko handian ofiziotan (Igor Elortzarekin)	3
			3. Zortziko txikian ofiziotan (Jon Maiarekin)	4
			4. Puntu erantzunak (bakarka)	2
			5. Hamarreko txikia ofiziotan (Aitor Mendiluzerekin)	3
			6. Gaia emanda (bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa		7. Hasierako agurra	1
			8. Sei puntuko motzean ofiziotan (Aitor Mendiluzerekin)	3
			9. Puntukakoa ofiziotan (Amets Arzallusekin)	5 ¹⁹⁰
			10. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
	Buruz burukoa		11. Zortziko txikian ofiziotan (Unai Iturriagarekin)	3
			12. Hamarreko handian ofiziotan (Unai Iturriagarekin)	3
			13. Bederatzi puntukoa hitzari (kartzelakoa, bakarka)	1
			14. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa		15. Bukaerako agurra (txapeldunaren agurra)	1
Denetara: 15 bertsoaldi eta 39 bertso				

2009 Maialen Lujanbio	Goizeko saioa		1. Hasierako agurra	1
			2. Zortziko handian ofiziotan (Aitor Mendiluzerekin)	3
			3. Zortziko txikian ofiziotan (Jon Maiarekin)	3
			4. Puntu erantzunak (bakarka)	2
			5. Sei puntuko motzean ofiziotan (Andoni Egañarekin)	3
			6. Gaia emanda (bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa		7. Hasierako agurra	1
			8. Hamarreko txikian ofiziotan (Amets Arzallusekin)	3
			9. Puntukakoa ofiziotan (Sustrai Colinarekin)	4
			10. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
	Buruz burukoa		11. Sei puntuko motzean ofiziotan (Amets Arzallusekin)	3
			12. Zortziko txikian ofiziotan (Amets Arzallusekin)	3
			13. Bederatzi puntukoa hitzari (kartzelakoa, bakarka)	1
			14. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa		15. Bukaerako agurra (txapeldunaren agurra)	1
Denetara: 15 bertsoaldi eta 37 bertso				

190 Puntukako ariketan zortzi bertso osatu behar zituzten bi bertsolariek (hori zen eskatutakoa), baina bederatzi osatu zituzten eta lan honetan denak aztertu dira. Horregatik 4 beharrean 5 jartzea Egañak eginiko bertso gisa, 4,5 ez jartzeagatik.

2013 Amets Arzallus	Goizeko saioa	1. Hasierako agurra	1
		2. Zortziko handian ofiziotan (Sustrai Colinarekin)	3
		3. Zortziko txikian ofiziotan (Maialen Lujabiorekin)	3
		4. Puntu erantzunak (bakarka)	3
		5. Sei puntuko motzean ofiziotan (Aitor Mediluzerekin)	3
		6. Gaia emanda (bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa	7. Hasierako agurra	1
		8. Hamarreko txikian ofiziotan (Unai Iturriagarekin)	3
		9. Puntukakoa ofiziotan (Beñat Gaztelumendirekin)	4
		10. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
	Buruz burukoa	11. Sei puntuko motzean ofiziotan (Maialen Lujanbiorekin)	3
		12. Zortziko txikian ofiziotan (Maialen Lujanbiorekin)	3
		13. Bederatzi puntukoa hitzari (kartzelakoa, bakarka)	1
		14. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa	15. Bukaerako agurra (txapeldunaren agurra)	1
Denetara: 15 bertsoaldi eta 38 bertso			

2017 Maialen Lujanbio	Goizeko saioa	1. Hasierako agurra	1
		2. Zortziko handian ofiziotan (Unai Agirrerekin)	3
		3. Zortziko txikian ofiziotan (Igor Elortzarekin)	3
		4. Puntu erantzunak (bakarka)	3
		5. Hamarreko txikian ofiziotan (Aitor Sarriegirekin)	3
		6. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa	7. Hasierako agurra	1
		8. Sei puntuko motzean ofiziotan (Amets Arzallusekin)	3
		9. Puntukakoa ofiziotan (Aitor Mendiluzerekin)	4
		10. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
	Buruz burukoa	11. Zortziko handian ofiziotan (Aitor Mendiluzerekin)	3
		12. Zortziko txikian ofiziotan (Aitor Mendiluzerekin)	4
		13. Bederatzi puntukoa hitzari (kartzelakoa, bakarka)	1
		14. Gaia emanda (kartzelakoa, bakarka)	3
	Arratsaldeko saioa	15. Bukaerako agurra (txapeldunaren agurra)	1
Denetara: 15 bertsoaldi eta 39 bertso			

Ikus daitekeenez, oso antzekoak dira txapelketak egituran eta egin beharreko lanetan —aldeak alde—, ekoizpen alderagarri direlarik, hein batean, hala. Aipagarria da egin beharreko lan gehienak neurriaren arabera zehaztu eta izendatzen direla. Hala ere, 2001era arteko txapelketetan doinuaren arabera izendatutako ariketak aurkitzen dira: *esne saltzailearena; aizak, hi, mutil mainontzi; Iparragirre abila dela*; etab. Era berean, gaia emanda doinu eta neurri librean kantatzeko ariketa ohikoa da txapelketa guztietan. Horrez gain, hasierako eta amaierako agurrak bertsolariek “baldintza formal gabe” sorturiko bertsoak dira. Corpus honek aukera ematen du testuinguru bertsuan bertsolari desberdinek —edo bertsolari berak une desberdinean— sorturiko askotariko neurrietako bertsoak aztertu eta elkarren artean hainbat aldagaien arabera alderatzeko.

7.2.2.3. Epai-irizpideak

Txapelketa lehia da nahiz eta bertso-mugimenduarentzat banakako lehia hori bera erdigunean egon ez eta, lehiaketa den heinean, epaimahai bat eta epai-irizpide batzuk daude (corpusean aztertutako 1980-2017 bitarteko txapelketei dagozkien irizpideetarako, ikus Euskaltzaindia 1979; Euskal Herriko Bertsolari Elkarte 1985, 1990; Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 1997, 2001, 2005, 2009, 2013, 2017).

Txapelketetan bertsoen kalitatea zehazten duen eragile nagusia epaimahaia dela esan liteke, aldez aurretik zehaztu eta landutako epai-irizpideetan oinarrituta bertsoak baloratzen dituen. Haien epaiak zehazten du txapelketa bakoitzean zein den txapelduna. Bertsolariek ez dituzte derrigor epai-irizpideak ezagutu edo jarraitu behar, baina esan liteke arau edo irizpide orokor batzuk ezagunak direla bertsolarien artean —batzuk eztabaidagai ere bai, akaso—. Horiei erreparatzeak bertsogintza ulertzeko modu jakina uzten du agerian, garaian garaiko eztabaida eta ikuskeren ondorio baitira.

Epai-irizpideak denboran zehar garatu egin dira unean uneko kezka eta ulerkeren arabera. Atal analitikoetako bakoitzean aztertu dut lantzen den arloari buruz txapelketa bakoitzeko irizpideetan zehazten dena, halakorik baden kasuetan (ikus §8.2.7.3, §9.2.3.2.2, §9.4.4.4 eta §10.2.2.2).

Epai-irizpideez eta epaimahaiaz harago, edonola ere, maila zabalagoan onartu behar da unean uneko bertsogintza kanonek eta entzuleek ezinbestean eragiten dutela bertso-jardunean, doinuaz eta kantaeraz aritzean zehaztu bezala (ikus §6.6.2.3 eta §6.6.2.1):

Publikoak ez du edozein bertso onartzen, eta, agian, bertso jakin batekin ameto eman dezake, baina, akaso, ez dio balio handirik aitortuko. Legitimitasuna eta prestigioa irabazi eta galdu egiten dira. Ez da kalitate kontua soilik. Eredu kontua ere bada. Kanona. Aldakorra da, jakina, garai bakoitzak berea edo bereak baitaizka. Publiko guztiek ez dituzte irizpide berdinak. Sortzaileek ere ez. Eta haien guztien arteko lehiak eta adostasunak erabakitzen dute zerk duen legitimitasuna eta prestigioa. Horrek ez du esan nahi kalitatea arbitrarioa denik. Kalitatea adostasun estetikoetan oinarritzen da. Adostasun horiek eraikuntza soziokulturalak dira. Ez dira betidanik eta betiko. Indar harremanek eragina izaten dute: ez da gauza bera publikoak eta bertsolariek nagusiki ezaugarri batzuk edo besteak izatea, eta, hor, gehiengoek eta botere sinboliko handiena metatzen dutenek bereziki baldintzatuko dute zer den legitimoa eta prestigioduna. Baina kalitatea ez da indar harremanen kontua bakarrik. Garai eta leku bakoitzean ondoen funtzionatzen duenari buruzko adostasuna ere bada kalitatea. Bertsolariak joko eremu horretan egiten du bertsoan. Eta horregatik da hain garrantzitsua publikoa nolakoa den eta publiko horrek zer gustu ekoizten duen. Zeren, kontuz, publikoaren ezaugarri soziokulturalak funtsean aldatzen ez direnean ere posible baita publiko horren gustua aldatzea.

(Zubiri et al. 2019: 95-96)

7.2.3. Bertsolariak: txapeldunak

Lan honetan aztertu diren bertsoak garaian garaiko txapeldunenak dira. Edozein bertsolariren ekoizpena aztertzea esanguratsua litzateke bertsoen prosodia ulertzeko, eta hainbat arrazoi daude txapeldunak hautatzeko, horrek ondorio gisa bertsolarien profil oso zehatza soilik aztertzea ekarri badu ere ikerketara, , bertsolarien arteko aldeak alde. Dirudienez, aldea egon daiteke bertsolari arituen eta hasiberrien artean, Patelek (2008: 158) rap inprobisatzaileez iradokitzen duen gisan. Eskarmentu aldeak bertsolarien ekoizpenean dituen ondorioak aztertzea interesgarri izan daiteke, baina horretarako, egoki iritzi diot lehenik eta behin bertsolari arituen jarduna aztertzea, aurrera begira alderatu ahal izateko. Eskarmentudunen artean txapeldunak hautatzea horiek bertsogintzan duten eragina dela eta izan da.

Bertsotan egiteko askotariko molde eta ereduak daude gaur egun eta horietako asko ez dira txapeldunek eraginak, baina txapeldunek kanonen eraikuntzan duten eragina eta erreferentzialtasuna ukazina da. Esate baterako, Bertsolaritzaren Hirugarren Azterketa Soziologikoan 2017ko Txapelketa Nagusiko saioetara entzule joandakoen artean galdetu zuten zein ziren euren bertsolari gustukoenak, eta aipagarria da lehen hiru bertsolari erreferenteak Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Andoni Egaña zirela, azken hiru txapeldunak. Txapeldunen erreferentzialtasuna geratzen da agerian (Zubiri et al. 2019: 124-127).

Egungo bertsogintza gero eta multipolarragoa da, gero eta eredu gehiago daude eta publikoa ere fragmentatuago dago, dibertsifikatuago. Halere, bada “erdigune” bat:

[...] multipolartasunak ez du esan nahi bat-batean aniztasuna erabatekoa denik, ezta hurrik eman ere. Datuek iradokitzen dutenaren arabera, prozesu hori hasi besterik ez da egin. Dibertsifikazioaren zabalkundeak biziki baldintzatuko du bertsolaritzaren etorkizuna: multipolartasunetik aniztasunera joan daitekeen bilakaeraren intentsitateak irekiko edo itxiko du etorkizuneko bertsolaritzaren eraginkortasuna eta arrakasta.

Erdigune bat badago. Ez da hegemoniaren existentzia kolokan jartzen. Ezaugarri jakin batzuk ditu gainera. Baina ez da hain homogenea, eta lehen baino porotsuagoa da. Elkarguneak badaude oraindik, oso garrantzitsuak gainera. Ekoizpen artistikoari dagokionez ere legitimotasuna eta kalitatea balioesteko adostasunak badaude, eta indar handia dute. Alta, rockaren belaunaldia erdigunea hartzen hasi zenetik, nabari da publikoa ziur aski inoiz ez bezala dibertsifikatzen ari dela. Prozesu hori sakondu egin da azken urteetan.

(Zubiri et al. 2019: 105).

Erdigune horren ezaugarriak finkatzen txapeldunek, beste hainbat bertsolarirekin batera, eragin handia izan dute. Bertsogintzako kanonek bertsoen prosodian ere beren isla izan dezakete akaso; bertsoen prosodiaren bitartez ere gauzatzen dira, bertsoa kantatzeko moduan (kantaeran), hitzak eta doinuak (zein doinu) lotzeko moduan, besteak beste, unean uneko bertsogintza ereduak. Hala, bertsolari txapeldunen bertsoak aztertuta kanon horiek prosodikoki ezaugarritzeko aukera izan daiteke beharbada.

Horregatik egin dut lan honetan 1980-2017 bitartean eginiko Bertsolari Txapelketa Nagusietako txapeldunen finaleko bertsoak aztertzeke hautua. Aztertutako bertsolariak ondokoak dira, aurrez ere esan gisan:

Xabier Amuriza (Etxano, 1941 -). 1980an eta 1982an txapeldun.

Sebastian Lizaso (Azpeitia, 1958 -). 1986an txapeldun

Jon Lopategi (Muxika, 1934 - Muxika, 2019). 1989an txapeldun

Andoni Egaña (Zarautz, 1961 -). 1993an, 1997an, 2001ean eta 2005ean txapeldun

Maialen Lujanbio (Hernani, 1976 -). 2009an eta 2017an txapeldun

Ametz Arzallus (Hendaia, 1983 -). 2013an txapeldun

Bertsolarien profila aztertzen badugu, ohartuko gara Maialen Lujanbio izan ezik gainerakoak gizonezkoak direla; adinean mailakaturik koka genitzakeela saltoak salto; jatorriari dagokionez, Gipuzkoa eta —ondoren— Bizkaiko bertsolariak direla nagusi —Ametz Arzallus lapurtarra izan ezik— eta denek dutela euskara H1 gisa. Txapeldunen bertsoez osatutako corpusa asimetrikoa bezain esanguratsua da, beraz, genero, lurraldetasun zein hiztun-profilaren ikuspegitik helduta, besteak beste. Ondorioak ateratzean kontuan hartu beharreko kokapena da hori, baita ikerketa berrien norabidea zehazten lagun lezakeena ere bestalde.

Corpusaren azterketari dagokionez, bertsolarien hizkerarena da beharbada korapilatsuen suertatzen den gaia. Bakoitzak herri hizkera desberdin bat egiten du, denek euskara batua ezagutu eta erabiltzen ohituta egon arren. Horrekin batera, batez ere Amuriza eta Lopategiren kasuan, 80ko hamarkadan nagusi zen bertso-eredu kanonikoaren eragina nabarmen daiteke: erdialdeko hizkeradun bertsolarietan ardaztutako kanonarena (Alberdi 2014: 148), hain zuzen ere¹⁹¹. Hala, kantuan ari direla, euskara batuaren edo norbere herri hizkeraren eraginaz gain, erdialdeko euskalkiaren ezaugarri zenbait gauzatzen dituzte bertsoetan, askotariko mailetan (maila fonikoan, aditz formetan, etab.).

Bertsolariak hitz lauz lituzketen ezaugarri —eta elkarren arteko alde— prosodikoak kantuan ere isla daitezkeela pentsatzekoa da. Ikerketa honetan ez diot heldu aldakortasun horren azterketari, ikergaira bestelako hurbilketa bat egitea eskatzen baitu horrek. Hala ere, aztertutako bertsolari guztien hizkerak kokatzen dira ekialdeko hizkeretatik aparte eta hala esan liteke denek partekatzen dutela nolabaiteko zoru komuna fonologiari dagokionean: azentuaren indar erlatiboki txikia silaben aldean, hitza baino handiagoa den talde prosodikoaren nagusitasuna hizketaren erritmoaren antolakuntzan, etab. (ikus §9.2.1.4.1). Era berean, aztertutako bertsoak Euskal Herri mailako txapelketan kantatuak dira, Euskal Herriko txoko desberdinetako jendeari zuzenduak. Hori dela eta, euskara baturantz hurbiltzen diren hizkeretan kantatzen dute oro har bertsolariak, ñabardurak ñabardura, euren etxeko hizkerako zein beste hizkera batzuetako baliabide linguistikoak ere erabiliz kantuan, beharren arabera. Hala, zaila egiten da bertsolari bakoitzaren abiapuntuko hizkera zein den zehaztea ezaugarri batzuei dagokienean (azentu-ereduak, gertakari segmentalak, etab.), gero testu-uztartzeko ezaugarriekin alderatzeko. Horrek ez du esan nahi, noski, bertsolari bakoitzak indarrean dituen bilakabide fonologikoek —segmental zein prosodikoek— bertsoen ekoizpenean eraginik ez dutenik eta, aurrera begira, beharrezkoa litzateke bertsolari bakoitzaren hizkuntza-ibilbidea eta hitz lauko testuinguru desberdinetako jarduna aztertu eta bertsoetako gertakariekin alderatzea. Corpus azterketa hau, esan bezala, lehen hurbilpen bat da.

191 Publikoak bertsolariaren jardunean izan dezakeen eraginaz, edo publikoaren eta bertsolariaren arteko harremanaz, hobe esan, ikus Hernándezen (2016: 31-32) irakurketa Fernando Aire *Xalbador* bertsolariari 1967ko txapelketan gertatutakoaz; nola bihurtu zituen bera finalean buruz burukora pasa zela eta haserre zeuden entzuleen txistuak txalo, bere ohiko hizkeran eta bertsoetan zerabilen “behe-nafarrera alde batera utzita, entzule gehienen euskalkian —gipuzkeraz— moldatu[ta]” (Hernández (2016: 32) bota zuenean bertsoa .

7.3. Azterturiko bertsoak, txapelketak eta bertsolariak bertsolaritza bilakaera historikoan labur kokatuz

Jarraian aztertutako bertsoak euren garai historikoan kokatzen ahaleginduko naiz modu orokorrean. Izan ere, bertsolaritza mugimendua lan honetan aztertu den garaian autonomia eta bere buruaren inguruko diskurtsoen sortzailea izanik, pentsatzekoa da gogoeta eta autodefinizio horiek eragina izan dutela —edo izan lezaketela— bertsolarien sorkuntza moldeetan^{192 193}.

Lan honetan aztergai ditudan bertso-saioak 80ko hamarkadatik aurrera kokatzen diren arren, beharrezkoa da hamarkada batzuk atzera egitea ikerketan azterturiko bertso eta bertsolariak zein testuingurutatik abiatzen diren ulertzeko. Bertsolarien artean helduena, Jon Lopategi, 60ko hamarkadan ari zen dagoeneko plazaz plaza kantari “bertsogintza soziala” izendatu izan dena eginez, eta Xabier Amuriza ere 60etan hasi zen, apaiz zela, jendaurrean kantuan (Barandiaran 2011: 19-20).

7.3.1. 60ko hamarkadako “bertsogintza soziala” eta bertara heltzeko bidea

§6.5.2 atalean azaldu da labur XX. mende hasierara arte landa-eremua zela bertsolaritza ingurunea eta 80ko hamarkadatik aurrera bertsolaritza gizarte-mugimendu gisa antolatzen hasten dela. Tarteko bilakaera ulertzea beharrezkoa da 80ko hamarkadako bertsolari eta bertsoak kokatzeko.

Euskal Pizkundearen testuinguruan, bertsolaritza euskara eta euskal kultura zein herria biziberritzeko tresna gisa ulerturik, lehen bertsolari txapelketatzat hartzen dena antolatu zen 1935ean, Jose Ariztimuño *Aitzolek* bultzaturik. *Bertsolari Guduan* bi joera eta mundu ikuskera geratu omen ziren agerian: batetik, XX. mendera arte heldutako nekazal-eremutik zetorren tradiziokoa, Jose Manuel Lujanbio *Txirritak* gorpuztua; eskolatu gabeko bertsolaria, taberna girokoa, zirikatzailea. Horren aurrean, hiriko bizimodu jantzia irudikatzen zuen Joxe Eizmendi *Basarri*; ikasketadun bertsolaria eta kazetaria. Aipagarria da, era berean, orduko txapelketa haren inguruan hasi zirela finkatzen, dirudienez, gaur egun bertsolariez gain bertso-munduaren parte diren eragileetako hainbat: gai-jartzaileak, saio antolatzzaileak, epaimahai-kideak, etab. (Barandiaran 2011: 17).

192 Lan honetan egindako analisi proposamenetan ez dut testuinguru zabal horren eta ekoiztako bertsoen ezaugarri zehatzik lotu, baina kontuan hartu eta kokatzea garrantzitsua iruditzen zait, etorkizunean beste jakintza-eremu batzuetatik egindako ikerketek lotura horiek badiren eta, baiezkoan, nolako harremana duten, zehaztu ahal izateko.

193 Egindako testuingurutzat oso partziala da, bertso-mugimenduaren baitan bertsolariak bizitako garaian eta haiek irabazitako txapelketen inguruan egituratua, batez ere. Horretarako, Garziak (2007b) bertsolaritza historiari idatzitakoetan, Bertsozale Elkarteak sorturiko liburuan (Barandiaran 2011) eta azken azterketa soziologikoan (Zubiri et al. 2019) oinarritu naiz, batez ere. Gaiaren inguruan sakontzeko, jo lan horietara.

Mundu ikuskeren eta bertsokeren arteko talka eta elkarrekintza horren garapena eten egin zen 36ko gerrarekin Hego Euskal Herrian, bertsolaritza mende hasierako guneetara —taberna-girora, lagunartera— itzularazi baitzuen, plaza eta areto formalagoak eta horrek kulturalki zekarren guztia atzean utzita. Iparraldean bertsolaritzak bere bidea egiten jarraitu zuen bertsolariei kantatzeko espazioak emanez.

Aipaturiko ikuskera desberdinen arteko marruskadura berriro azaleratu zen 60ko hamarkadan Euskal Herri osoan: baserri mundua orduan kantuan ari ziren bertsolari guztientzat hurbileko izan arren, Basarrik bertsogintza harago eramateko asmoa agertzen zuen, bertsoa zirkulu intelektualetara hurbilduz, hizkuntza jaso baliatuz. Inguruan bertsokera horrekiko askotariko jarrerak izan arren, 60ko hamarkadan bertsolari belaunaldi gazte bat hasi zen kantuan “bertsolaritza soziala” eginez, eta horrek lagundu zuen, Lazkanoren esanetan (Barandiaran 2011: 19), bertsolaritza kaletartzen. Jon Lopategi —corpusean 1989ko txapelketan aztertu den bertsolaria— eta Jon Azpillagaren eskutik, batez ere, etorri zen hori Euskal Herriaren hegoaldean, eta Fernando Aire *Xalbador* eta Mattin Trekuren bidez iparraldean. Euren esan bezala, “bertsogintza soziala” zela azaltzen da, frankismoa bizi zuen gizartean “errepresio sozialaren aurkako aldarrikapen bide” eta “kulturaren defentsarako tresna” (Bertsozale Elkarte, sarean¹⁹⁴).

Testuinguru horretan kokatu behar da, beraz, lan honetan 1989ko txapelketan kantuan aztertu dugun Jon Lopategiren bertso-ibilbidearen une garrantzitsuetako bat. Muxikako bertso-giroan hasi zen bertsotan, eta 60ko hamarkadan antolatutako hainbat txapelketatan hartu zuen parte dagoeneko, eta Euskal Herrian zehar zebilen plazaz plaza.

Garai horretan hasi zen Euskaltzaindia Bertsolari Txapelketak antolatzen: 1960koa, 1962koa, 1965ekoa eta 1967koa. Azken txapelketa horretan gertatu zen Xalbadorri txistu jo ziotenekoa (ikus gorago §7.2.3 atalean gertakaria azalduz jasotako oin oharra), eta Euskaltzaindiak txapelketak antolatzeari utzi zion 1980ra arte; ez zen Bertsolari Txapelketa gehiago izan hamarkada batean. Orduko bertsokera hegemonikoa, erdigunean zegoena eta entzuleen gehiengoarengana errazen heltzen zena, erdialdeko hizkeran oinarritzen zela esan daiteke, gorago ere esan bezala.

Eredu horren eragina igar daiteke Jon Lopategi edo Xabier Amuriza bezalako bertsolari bizkaitarren lan honetan aztertu diren txapelketetako jardunean. Bertsotan aritzean sarri euren herri hizkeratik aldendu eta euskara batutik eta erdialdeko hizkeretatik gertuago dagoen hizkera darabilte. Esan bezala, Xabier Amurizaren eskutik etorri zen, besteak beste, bertsoetako hizkera euskara batura hurbiltzeko hautua. Baturantz hurbiltzeko joera hautu ideologiko gisa uler daiteke,

194 Bertsozale Elkarteak bertsolaritzaren historia azaltzen duen ondoko helbidetik atera dira aipuak eta informazioa: https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolaritza/historia?set_language=eu (azken kontsulta: 2020-03-15).

Euskal Herri osoari begira eginiko txapelketa den heinean, entzuleria zabalari erantzuteko asmoz, baina horrekin batera ezinbestean aipatu behar da bertsozintzan kanonaren kontzeptua. *III. Azterketa Soziologikoan* (Zubiri et al. 2019) azaltzen denez,

Garai batean kanon bakarra zegoen, eta ez zen neutroa, ez sozialki, ez artistikoki. Garai batean bertsolari estilo bat baino gehiago zegoen arren, bertsolari gehienak zebiltzan kanon beraren inguruan. Jatorri soziokultural jakin bat eta maskulinitate mota bat ordezkatzeko zuten, ozen kantatu beharra zegoen, arrazoi potoloak bota, ziurtasun handiz, gai jakin batzuen inguruan, beti publikoaren alde, kolektibo horren ahots izan nahian, kolektibo horren ordezkari publiko, lider, batzuetan umoretik, besteetan epikatik. [...]

Kanon artistiko hori ez zen ezerezaren gainean sortu. Publiko jakin bat zeukan, zeina hainbat ezaugarritan bat zetorren kanon artistiko hegemonikoarekin: maskulinitate mota bat, taldeetasun homogeneousatzaile mota bat, testuinguru soziokultural jakin bat... Publiko horrek legitimatzen zuen kanon hura (dei diezaigun neoklasikoa). Eta, alderantziz, bertsozintza mota horrek legitimatu egiten zuen publikoa. [...]

(Zubiri et al. 2019: 118)

Xabier Amuriza ere 60ko hamarkadan hasi zen kantuan jendaurrean. Dirudienez, “[e]txean ikasitako eta entzundako koplak eta kanta zaharren harira bat-batean hasitako beste gazte bat zen” (Barandiaran 2011: 19) baserri giroan eta 60ko hamarkadan bertsoan hasi zena, baina horretan jarraitu zuena apaiztu ondoren eta 1976an apaizgintza utzi ondoren ere. Bertsozintzaren oinarrien azalpena —*Hitzaren kirol nazionala* (1981a), bertsoan egiten ikasteko metodologia proposamena —*Zu ere bertsolari* (Amuriza 1982)— eta tresna gisa erabiltzeko *Hiztegi Errimatua* (1981b) —Azkueren hiztegitik abiatuta sortua— izan ziren bide horren fruitu (Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, sarean¹⁹⁵; ikus §6.5.2.1).

7.3.2. Bertsolari eta bertsozaleen (auto-)antolakuntza: kultur proiektuaren sorrera garaiak

Aurrez ere azaldu bezala, 80ko hamarkadan zehar antolatzen da bertsozintza gizarte-mugimendu gisa, askotariko eragile eta osagaien parte hartuz bertan (ikus §6.5.2.1). Amurizaren lana funtsezkoa izan zen, pixkanaka mentalitate aldaketa ekartzeaz gain bertso-eskolentzat lanerako materiala eta tresnak sortu baitzituen. Hala, Euskal Herri osoan zehar ordurako baziren edo sortzen ari ziren taldeen akuilu izan zen Amurizaren lana. Bertsozintzarako gaien eta bertsozintzaren kaletartzeak, bertso-eskolen sorrerak eta Amurizaren lanak lagundu zuten, Lazkanoren arabera, bertsozintza ordurako errealiterara moldatzen (Barandiaran 2011: 23).

195 Biografiak. Xabier Amuriza. Bertsozintzaren Datu Basea: <https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/194-xabier-amuriza> (azken kontsulta: 2023-12-05).

Horrekin batera, Euskaltzaindia berriz ere Bertsolari Txapelketak antolatzen hasi zen: Euskaltzaindiaren eskutik egin ziren lan honetan aztertu ditudan 1980koa eta 1982koa. Finala Donostiako Balda pilotalekuan izan zen, bietan Xabier Amurizak jantziz txapela. 1982ko finalean izan ziren corpusean aztertutako Jon Lopategi eta Sebastian Lizaso ere. Amurizak bertsoak egiteko beste era bat ekarri zuen bertsogintzara, bestelako hizkera bat, baliabide erretorikoak erabiltzeko beste modu bat, etab. (Garzia 2007b: 103-104; Barandiaran 2011; Garzia 2013 [2021]: 58, Zubiri et al. 2019: 82-83).

1984ko txapelketa antolatzen ari zirela, hainbat desadostasun izan ziren Euskaltzaindiaren eta bertsolari parte-hartzaileen artean eta, konpondu ezinik, bertsolariek hurrengo txapelketaren antolakuntza euren esku hartzea adostu zuten azkenean (Barandiaran 2011: 30). Inguruko bertsozale, bertso-eskoletako kide zein saio-antolatzailerei laguntza eskatuta, denen artean antolatu zen 1986ko txapelketa. Belodromoan egin zen lan honetan aztertutako final hori, eta Lizasok irabazi zuen. Txapelketa hartako finalean izan ziren lan honetan aztertutako Xabier Amuriza, Jon Lopategi eta Andoni Egaña ere. Sebastian Lizaso, bertsolari familiakoa —aita ere bertsolari zuen—, etxean hasi zen bertsoan eta plazan egin izan du, nagusiki, bere ibilbidea (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Sarean¹⁹⁶).

1986ko txapelketa bertsolari eta bertsozaleek antolatu ondoren ernaldu zen gerora Bertsozale Elkarte izango zenaren hazia. Hainbat bilera eta gogoetaren ondoren, bertsolaritzaren inguruan kultur proiektu autonomo bat eratu behar zela erabaki eta martxan jarri zen Bertsolari Elkarte, gerora izena aldatuta Bertsozale Elkarte bilakatuko zena, bere filosofiari jarraiki: izan ere, bertso-munduko askotariko eragileak saretu ziren bertsoaren inguruan (§6.5.2.1 ataeen azaldu bezala) eta gaur arte berrikusi den estrategia eta antolakuntza egituratu ziren.

Horren ondoren etorri zen 1989ko txapelketa ere, Jon Lopategik irabazi zuena. Lan honetan aztertu den finala Belodromoan (Donostia) egin zen 1986ko finala bezalaxe, eta bertan izan ziren txapeldunaz gain beste txapelketa batzuetan aztertu ditudan Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso ere. 80ko hamarkadako entzuleria batutik entzuleria banaturantza egin zuen pixkanaka bidea bertsolaritzak, erregistro berriak, ertz berriak bilatu beharra ekarriz. Garziak (2007) zehazten duenez, “herriari kantatzetik, publikoari kantatzera” igaro ziren bertsolariak 1980-1999 bitartean.

196 Biografiak. Sebastian Lizaso. Bertsolaritzaren Datu Basea: <https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/1302-sebastian-lizaso> (azken kontsulta: 2023-12-05).

7.3.3. Telebistara, teorizaziora, nazioartera eta rockera jauzia

90ko hamarkada inguruan bertsolaritzak telebistara egin zuen jauzia, eta bertsolariak dagoeneko egiten ari ziren lanketarekin batera, hedapen edo bozgorailu horrek —gorabeherekin— bertsozaletasunean ikaragarritzko eragina ekarri zuen (Barandiaran 2011: 61-63). Jendea etxetik edo inguruko testuingurutik kanpo hasi zen bertsolaritzaren berri izaten, gero eta gehiago, hedabideen bitartez (bertsolaritzaren eta hedabideen arteko harremanaren bilakaera ezagutu zein azken urteetako datu batzuetarako, ikus Zubiri et al. 2019: 137-143).

1990eko eta 2000ko hamarkadez ari gara eta, beste ezer baino lehen, garai haietako txapelketak aipatu behar dira: 1993an, 1997an eta 2001ean Donostiako Belodromoan egin ziren finalak; 2005ekoan Barakaldoko BECera egin zen salto. Ikusle kopuruari dagokionez, 14.000 entzule inguru izatera iritsi da BECeko aretoa. Lau txapelketa horietan Andoni Egaña izan zen txapeldun.

Bertsolaritzaren Hirugarren Azterketa Soziologikoan azaltzen denez, Egañarena da 90eko hamarkadako eredu kanonikoa eta gaur egun arte heldu den eredu etako bat:

Egañak bertso mundu osoaren aitortza jaso du. Txapelketa Nagusia lau aldiz ira[ba]zi duen bertsolari bakarra da. Baina, gainera, Egañaren estiloa bertsolari gazteago guztien erreferentzia nagusia izan da urteetan. Makina batek imitatu nahi izan dituzte eredu horren ardatzak: epikaren aurrean ironia erabiltzea, gai politiko eta sozialen espektroa inoiz ez bezala zabaltzea, teknikaren erabilera, entzulea harritzeko dohain ikaragarria, informazioa dosifikatzeko gaitasuna, erregistroen aniztasuna, jolasaren aldeko apustua eta, hori guztia egin ahal izateko, ezagutza, irudimen eta zorroztasun oso handia. [...]

(Zubiri et al. 2019: 120)

90eko hamarkada inguruan ari da plazetara salto egiten Ikastoletan hezi eta umetatik bertso-eskoletan aritutako bertsolari gazteen belaunaldia. Bertsolaritza sozializatzeko modu horri esker, askotariko jatorri eta baldintzetako gazteek toki bat aurkitu zuten bertsolaritzan. Bestelako unibertso kulturalak, estetikak, aldarriak, hizkerak, etab. ekarri zituzten gazte bertsolari hauek bertsolaritzara, *rockaren belaunaldia* osatuz (Maia 2017; Irazu 2017; Zubiri et al. 2019). Bertan kokatzen dira lan honetan aztertutako Maialen Lujanbio eta, beranduxeago, Amets Arzallus ere, beste hainbatekin batera.

Euskal gatazkak, mugimendu politiko, sozial eta kultural indartsuak eta tradizio eta modernitatearen arteko talkak markatutako garaia izaki, orduko entzuleria iritzi politiko eta mundu ikuskera desberdinak zirela eta banatua zegoela sumatzen zen —aurreko hamarkadetan sumatzen ez zen bezala—. Partekatutako balio eta erreferentzia faltak bertsolarien komunikazio lana zailtzen zuen (Egaña eta Sarasua 1997; Garzia 2007b, Maia 2017), baina egoera horrek ekarri zuen, era

berean, gaiak eta gaien trataera askoz ere sofistikatuagoa izatea, arketipoetatik aldenduz, gorago ere aurreratu bezala (Garzia 2007b: 109). Hala, ikuspuntu eta pentsamoldeak ugaritu ziren bertsolarien artean, askotariko diskurtsoekin jantziz hizkuntza (Irazu 2017: 59). Hala azaleratu ziren bertsogintzako kanon artistiko gehiago:

Aitzitik, sormen gero eta polifonikoagoak hautsi egiten du kanon artistiko-monopolistiko hori. Halaber, publiko gero eta segmentatuagoak bideraezin bihurtzen du garai bateko sortzaile-publiko batasuna. Bertsolaritza multipolarrerantz egiteak esan nahi du kanon legitimatu bat baino gehiago egongo dela, publiko jakin batek une batzuetan nahiago izango duela bertsogintzako kanon artistiko jakin bat, beste publiko batek beste kanon artistiko bat, eta abar.

(Zubiri et al. 2019: 119)

Esan daiteke bertsolari bakoitzak ere hainbat erregistro lantzea ere ekarri zuela egoera hark, ingurunera eta gaietara edo gai jakin bati une jakinean eman nahi zitzaion tonu edo ikuspegiaren arabera egokitzuz bertsokera. Rockaren belaunaldi deiturikoak bertsogintzari eginiko ekarpen zenbait bere egin zituzten bertsolari helduagoek, gainera. Esaterako:

Artikulazioa sorkuntza mailan ere gauzatu da. Rockaren belaunaldiak moldatu egin du ondarea, eta lehengo eruedetatik hurbilago zeudenek ere hartu egin dute rockaren belaunaldikoen ekarpena eta bere egin dute, beren galbahetik pasatuta, jakina. Artikulazioa, azken batean, osmosi moduko zerbait da.

(Zubiri et al. 2019: 90)

Egañak berak ere markatu zuen, noski, estilo propiorik, eta ingurukoei eragin; ezin da beraz, lerro zuzen eta argirik marraztu, baina elkarrekintza badela agerikoa da:

“Gizonezkoa, 30-45: «Guk [rockaren belaunaldikook] atek beti zabalik izan ditugu, eta horren froga nabarmenena da beraiek [bertsolari nagusiagoek] nola egin duten gure bertso kulturarako bidea. Gero beraiek egin dute bidea gaztetxeetara, kontzertuetara, erdal eremuetara. Lehengo jende horrek integrazio prozesu bat egin behar izan du oraingo bertsolaritzara. Horretan igual Egaña da azpimarragarriena, baina Egaña jadanik ikastolako umea da, kanpoko musika entzuten du, militantzia politikoa ere egiten du gaztetan. Bera da zubia gure belaunaldirako»”.

(Zubiri et al. 2019: 90)

Garaiotako beste alor aipagarri bat da ikerkuntza eta dokumentazioarena. Bertsolaritzaz teorizatzen hasia zen Amuriza bertsolaritza “barrendik” ezagututa 80ko hamarkadarako, eta Bertsozale Elkarteak sortu zenetik (1987) bere ildo estrategikoen artean izan du elkarteak ikerkuntzarena. Hasieratik garbi zuten nolabaiteko artxibo edo dokumentazio zentroa sortu behar zela, eta 1991n ekin zioten lan horri: egun Xenpelar Dokumentazio Zentroa dena sortu zen. Dokumentazioaren eskutik etorri zen ikerketa ere: bertsolaritzaren eta bertsozaletasunaren inguruko ikerketa soziologikoa (Siadeco 1995) egin zen, askotariko udako ikastaroak antolatzen zein

nazioartean —Kuba, Georgia, Sahara— egiten diren kantu inprobisatuak ezagutu eta haiekiko hartu-emanak egiten hasi ziren elkartetik, askotariko ikerketa eta proposamenak argitaratzen (ikus *Oral tradition* 2007 aldizkaria, kasu), etab.

Ikerketaren bide horretatik dator 2001ean Joxerra Garzia, Jon Sarasua eta Andoni Egañaren eskutik bertsogintza ulertzeko proposamen berria (Garzia et al. 2001; ikus §6.3): bertsolaritza jardun erretoriko gisa ulertzearena, hain zuzen, Garziaren (2000) doktore tesian eta Egaña zein Sarasuaren bertsokeran eta bertsoen ulerkeran oinarrituta. Eragin handia izan bide zuen lan hark bertsolari eta bertsozaleen artean, ikuskera hori bertsoa ulertzeko daudenen artean bat dela azpimarratu behar den arren (Barandiaran 2011: 89-99). Bete-beteen harrapatzen du lan honetan aztergai izan dugun Andoni Egaña bertsolaria, eta bere eragina ondorengo zein aurreko bertsolariengan ere handia izanik (Zubiri et al 2019: 81-83), ezinbestean kontuan hartu beharreko ikuspegia da.

7.3.4. Multipolartasunerantz

2000ko hamarkadatik aurrera esan daiteke *Rockaren belaunaldiak* erdigunea hartzen duela. Belaunaldi honetako kideztat hartzen dira, besteak beste, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jon Maia, Sustrai Colina, Igor Elortza edo Unai Iturriaga. Bertso-plazetan zein txapelketan gero eta presenteago, bertsogintzan ekarpenak egin eta bertso-eredu bilakatzen hasten dira aipaturiko taldeko kideen estiloak. Horien artean kokatu behar dira Maialen Lujanbio —2009 eta 2017ko txapelketetako irabazlea— eta Amets Arzallus —2013ko txapelduna—. Aipaturiko txapelketa horietako finalak —lan honetan aztertu direnak— Barakaldoko BECen egindakoak dira.

Lujanbiok txapela irabazi izana mugarri gisa kokatzen da hainbat alorretan (genero-ikuspegitik eta maila sinbolikoan duen garrantziaz, ikus Hernández 2019: 149, besteren artean). Bertsogintzari bagagozkio, Maialen Lujanbiok azken bi hamarkadetako bertso-eredua eraldatu eta markatu duela azaltzen da azken azterketa soziologikoan:

2001etik aurrera nabarmendu den ereduaren aitzindaria eta egungo ordezkari nagusia Maialen Lujanbio da. Bi txapelketa Nagusi irabazi ditu jadanik [gaur egun, dagoeneko 3] (soilik bost bertsolarik irabazi dituzte bi txapel edo gehiago), eta bertso munduan aitortza oso zabala du, are handiagoa azken Txapelketaren [2017koa] ondoren. Lujanbioren estiloak eraldatu egin ditu bertsogintzaren parametroak, eta, ondorioz, bere garaiko bertsolari askorengan, zahar eta gazte, eragin oso handia izan du. Lujanbioren bertsogintzaren ekarpenek nabarmen aberastu dute bertsogintza garaikidea: kontaera narratiboaren bidez atxikitzen du entzulea jakin-minez, bertsoa lehen pausotik hornitzen du modu oso aberatsean, arrazoi potoloen bidez baino gehiago xehetasunen dirdira azaleratuz, errealitate sozialari oso lotuta, egoeraren ertzak bilatuz, bertsoak ordura arte ezagutu ez dituen

ikuspegiak erraz plazaratzen ditu, betidanik egon izan balira bezala, emozioen espektroa modu harrigarrian zabaltzen eta astintzen du, eta gai da sakonera eraginkortasun handiz lantzeko.

(Zubiri et al 2019: 121)

1999tik gaur egun arteko aldiari “bertsolaritza multipolarra” deitzen dio Garziak (2007b: 111), proposamenetan aurki daitekeen aberastasun eta aniztasunagatik, eta publikoan ere gero eta dibertsitate handiagoa dagoela esan liteke (Zubiri et al. 2019: 107). Multipolartasun hori orain arte hegemonikoa izan den bertsolari eta bertsogintza ereduak negoziatzen ari da orain(dik) ere, eta bide horretan indar eraldatzaile nagusietako bat feminismoarena da (Zubiri et al. 2019: 81). Azken hamarkadetan praktika eta teorizazio ugari egin da maila indibidual nahiz kolektiboan genero ikuspegia kontuan hartuta, emakume bertsolariak izan direlarik bide urratzaile (lanketa horren erakusgarri, ikus Hernández 2017, Alberdi 2019 eta Artetxe eta Labaka 2019, beste hainbatetan artean).

7.4. Hondarreko gogoetak

Rodríguez-Vázquezek (2010) edo De Sistok (2020) bertsogintza eta testu-uztartzea aztertzean faktore soziokulturalak kontuan hartzearen garrantzia azpimarratzen dute. Lan honetan azken hamarkadetako Bertsolari Txapelketa Nagusietako txapeldunen bertsoak aztertu ditut. Zoru komun horretatik abiatuta kontuan hartzekoa da aztertutako bertsolariak belaunaldi, hizkera, proposamen artistiko zein eragin eta erreferente desberdinetan kokatzen direla, haien arteko lotura eta elkarreraginak ukaezinak izan arren. Horrek guztiak ere isla izango du akaso bertsoen prosodiaren alor batzuetan eta, zehatzago, bertsoen erritmo-antolakuntzan. Beraz, gogoan izan beharrekoa da.

8. Bertsoen silabatzea:

silaba-egiturak, gertakari segmentalak, silabatze-aukerak eta baliabide metriko nagusiak.

8.1. Sarrera

Txertatze prosodikoa (*prosodic mapping*) hizkuntza —esan nahi den hori— erritmo- eta doinu-ereduekin uztartzea dela esan daiteke, §2 kapituluaz azaldu bezala. Silabatzearen bitartez gauzatzen da oinarrian (ikus §2.3), hizkuntzaren hotsak (segmentuak) silabaka antolatuta eredu prosodikoetan. Bestela esanda, silabatzea *hitzak musikan txertatzeko modua* da: “It is not the words or the music; to use what now should not seem merely to be a metaphor, it is the way the words are put to the music” (Donegan eta Stampe 1978: 30). Esate baterako, ‘zer moduz zara?’ galdera egin nahi badugu ahoz eta hitz lauz, /sermodussara/ segmentu katea silabatan antolatu beharko dugu, ezinbestean. Intonazio jakina emango diegu silaba horiei. Azentu-eredu bat baliatu, silaba jakinak gauzatuz azentudun, iraupen eta intentsitate batez. Txertatze hori bilakabide prosodikoen bidez egiten da, §2.2 atalean zehaztu bezala. Atal honetan corpora osatzen duten bertsoen silabatzean sakondu dut, txertatze prosodikoaren alorrik oinarritzkoena baita. Datozen kapituluetan helduko diet bertsoetako erritmo-ereduei (§9) eta taldekatzeari (§10).

Itzul gaitzen ‘zer moduz zara?’ galderara; galdera horrek (euskaraz) lituzkeen silabatze-aukeretara. Norbaitek, agian, [se.mo.ðu.sa.ra] esango du bost silabatan, lehen silaba kodako [r]

dardarkari hobikari gabe ahoskatuz eta txistukariak bakunduta, [s] bakarria ahoskatuz, azken aurreko silaba ekinean. Beste batek, berriz, [se.mo.u.se.a], aurreko bilakabideez gain, /modus/ hitzeko bokal arteko [ð] hurbilkari horzkaria kenduta eta azken hitzeko azken-aurreko silabako bokala disimilatuta, gainera. Hirugarren batek, egoera solemnea izaki, [ser.mo.ðus.sa.ra] ahoskatuko du, txistukariak bakundu gabe eta lehen silabako dardarkari eta guzti. Laugarrenak, [se.mu.sa] esango du, hiru silabatan. Hizkuntzaren hotsez jabetzen ari den haurrak, [še.mo.ru.śa.ra]. Eta horrela jarrai genezake ahoskatze aukerak zerrendatzen aspertu arte, hiztunaren egoera animiko zein fisiologikoak, testuinguruaren (in)formaltasunak, hitz egiten duen hizkerak, hitz egiten dituen hizkuntzek... baldintza baitezakete azkenean gauzatuko dituen hotsak eta horien silabatzea (Donegan eta Stampe 1979, 2009; Stampe 1979; Donegan 1993b).

Lan honetan hartzen dudana ikuskeran, txertatze prosodikoan zehazten da hots katearen silabatzea, hizketaren fase sintagmatikoan (Donegan eta Stampe 1978; zehaztasun gehiagorako, ikus §2.3). Orduan osatzen dira silabak; hizkuntzaren oinarrizko aurkezpenean ez dago hots kate baten silabatze jakina zehazturik¹⁹⁷. Silaben antolakuntza horretan, bilakabide fonologiko segmentalek (asimilazioak, monoptongatzeak, bakuntzeak, desilabagiletzeak, disimilazioak, diptongatzeak, epentesiak, silabagiletzeak) funtsezko papera betetzen dute, aurreko adibideak aztertuta ohar gaitezkeenez. §2.4 atalean zehaztu bezala, bilakabide fonologiko segmentalak eremu prosodikoetan gertatzen dira, eremu prosodiko horietan hotsek duten kokapenak baldintzatzen ditu. Silaba da eremu prosodikorik oinarrizkoena eta, horregatik, txertatze prosodikoan sarri aurkituko ditugu silabatzea baldintzatzen duten bilakabide segmentalak; baita eremu prosodiko handiagoen (hitzaren, esaldi fonologikoaren, etab.) baitan ere. Oinarrizko aurkezpenean /sermodussara/ den hots katea gutxiago edo gehiago eraldatzea dakarte gertakari segmentalek, modu batera edo bestera eraldatzea. Era berean, ondorio gisa kasu bakoitzean ahoskatutako silaba kopurua baldintzatzen dute; hirutik bost silabarako tartean, emaniko adibideetan.

Edozein hizkuntzatan hots kate jakin baten silabatze aukera desberdinak ditugu. Hizkuntza horren baitan indarrean dauden bilakabide fonologikoen eta erregela morfonologikoen eskaintzen dituzten hautabideek baldintzatzen dituzte aukerak, mailarik oinarrizkoenean. Hori horrela izanik, silabatze-aukerak eta azkenean ekoiztiko silaben ezaugarriak (silaba-egitura) ez dira berberak hizkuntza guztietan, bakoitzaren sistema fonologikoak baldintzatzen baitu txertatze prosodikoa edota, alderantziz, txertatze prosodikoa gauzatzeko moduak zehazten baitu hein handi batean hizkuntzaren antolakuntza fonologikoa (Donegan eta Stampe 1979: 142; Hurch 2006b).

197 Nahiz eta, Jauregik (2007) zehazten duen bezala, hizkuntza batzuetan erraza(goa) den sarri silabatzea aurreikustea, duten sistema fonologikoagatik. Euskara litzateke horren adibide.

Esate baterako, §2.3 atalean aipatutako adibidea berriro ekarrita, *freedom* hitza ingelesez [ˈfriː.əm (schwa nasala da, zeinua faltan)] ahoska daitekeen bezala, japonieraz [ɸu.ri.ða.mu] gisako silabatzearekin ekoitziko luke lehen hizkuntza japoniera duen hiztunak (Donegan eta Stampe 1978: 30). Euskaraz [fri.ðom] esango genuke, ziurrenik, ingelesaren ahoskerara hurbiltzeko ahaleginik egingo ez bagenu —eta ahalegina eginda ere bai, akaso—. Silabatzea aztertzean hizkuntza bakoitzak erritmoa antolatzeke baliatzen dituen unitate eta hatsarreei erreparatu behar zaie, beraz. Zentzu horretan erritmoaren araberrako tipologiak tresna baliagarria dira silabatze-joerak aztertu eta ulertzeko. Ingelesa bezalako hizkuntza batean, adibidez, azentuak erritmoa egituratzean duen pisua handiagoa izango da, besteak beste, euskaraz edo japonieraz baino. Azken bi hizkuntza horietan, berriz, silabak eta berori egituratzeko hatsarreek izango dute garrantzi handiagoa, beste gauza batzuen artean (Hurch 2006b; ikus §3.4 eta §8.2.5).

Eta zer gertatzen da hizkuntza bateko hots kate jakina bat-batean, kantuan eta bertso-neurri zehatz bat betetzeko moduan silabatzen dugunean?

Hitz lauz, esango dugunaren ezaugarrien arabera —luzera, informazio gramatikala, etab.— “hautatzen” dugu hitz lauz kasuan kasuan baliatuko dugun eredu prosodikoa, ari garen hizkuntzan “eskura” dauden erritmo- eta doinu-ereduen artean (Hurch 1994: 217, ikus §9.2.1). Kasu: ‘Lagunduko zaitut’ esaldia baieztapena edo galdera izan, intonazio-eredu bat edo beste baliatuko dugu. Gaia silabatzea ekarrita, ahoskatu nahi dugun segmentu-katearen luzeraren eta bertan gauzatzen ditugun bilakabideen arabera, silaba-kopuru bat edo beste ekoitziko dugu. Goiko ‘zer moduz zara?’ galderaren segmentatze aukera desberdinak edo ‘ez’ segmentu katea aurrez-aurre jarrita ohartuko gara bakoitzak eredu prosodikoak hautatzeko baldintza desberdinak eskaintzen dituela¹⁹⁸. Hitz lauz esan nahi dugun horren dimentsio eta ezaugarri gramatikalen arabera —eta testuinguruko baldintzen arabera, gure egoeraren arabera, etab.— baliatzen ditugu eredu prosodiko batzuk edo besteak; ekoizten dugu silaba kopuru jakin bat edo beste.

Bertso neurtuez eta kantuz ari garela, ordea, gertakarien ordena alderantzizkoa da, §5 atalean nabarmendu bezala: aldeztatik dugu (erdi-)finkatuta eredu prosodiko bat eta bertan “kabituarazi” behar dugu esan nahi dugun hori. Euskaraz, silaba kopurua eta silaba horien taldekatze jakina —hemistikio eta puntutan— zehazten ditu bertso-neurriak (§6.61). Bertsolariak esan nahi duena metrika horretara moldatu behar du, horretarako askotariko estrategiak baliatuz: sinonimia (*kantu* edo *abesti*; *txarra* edo *kaxkarra*; behar diren silaben arabera), bertsoan funtsezko ez diren hitz betegarriak erabiltzea jarriz edo kenduz neurria osatzeko (*bai*, *ez*, *hor*, *aizu*, *oso*, *hala*,

198 ‘Ez’ silaba bakarrean ahoskatuko genuke, seguruena, azentu eta guzti, bi segmentuz osatutako hots katea izaki. ‘Zer moduz zara?’ adierazpenak aldakortasun gehiagorako aukerak eskaintzen ditu silabatzeari dagokionez, gorago aurkeztu bezala, baina nekez ahoskatuko dugu silaba bakarrean; modu ulergarrian behintzat.

akaso, zeharo, etab.), atzizkiez baliatzea (*hori* edo *horixe*; *txiki* edo *txikitxo*, etab.), etab. (*bertsoikasgela.eus* atarian jasotako baliabideak eta adibideak¹⁹⁹). Esan nahi dena bertso-neurrira egokitzeko baliabide horietako bat da euskarak eskaintzen dituen silabatze-estrategiez baliatzea ere, hots kate berbera hainbat modutara —eta hainbat silabatan— ekoitz baitaiteke, /sermodussara/ hots katetik abiatuta sortutako adibideek erakusten duten bezala.

Atal analitiko honen helburua bertsoetako txertatze prosodikoaren ulerkeran lehen harria ezartzea da. Horretarako, txertatze prosodikoaren alorrik atomikoenean jarri dut arreta, gertakari oinarrikoenean: silabatzean, hain zuzen ere. Hautatutako corpora (ikus §7) osatzen duten bertsoetako 1) silaben egitura eta horien maiztasuna, 2) silaba-egiturari lotuta bertsolariek gauzatutako bilakabide fonologiko segmental nagusiak zein silabatze-joerak hitz mugekiko harremanetan, eta 3) bertsolariek neurria betetzeko egin dituzten silabatze-aukerak aztertu ditut.

Osagai horiek hizkuntzaren erritmoaren oinarria zehazten dute hein handi batean. Euskararen erritmo-antolakuntza zer-nolakoa den sakonago ulertzeko dira lagungarri, ikuspegi tipologiko batetik esanguratsuak baitira ekoitzitako silaba-motak, hitz-mugei ematen zaien trataera (*liaison* egiten den ala ez) eta horietara heltzeko gauzatutako bilakabide fonologikoak, besteak best. Bertsoetako testuinguruak hiztunek hitz lautik kanpoko baldintzetan hizkuntza nola baliatzen duten aztertzeko parada ematen du. Zentzu horretan, silabari eta hizkuntza-antolakuntzari buruzko eztabaida teorikoak osatzeko datuak eta gogoetagaiak eskaintzen dituzte bertsoetako silabatze-aukera desberdinen adibideek. Azkenik, euskarazko bat-bateko bertsogintzan sakontzeko ere lagungarri dira atal honetan ikertutakoak, bertsoa antolatzeko bertsolariek baliatutako silabatze-estrategiak ezagutzeko aukera ematen baitu.

Kapitulu honetan eginiko azterketa ulertzeko beharrezko den oinarri teorikoa eta aurrekariak kokatuko ditut lehenik (§8.2), ikerketa galderak eta auzi metodologikoak aurkeztuko ditut ondoren (§8.3), corpus azterketatik ateratako datuak aurkeztu eta horien irakurketa proposamena egingo dut gero (§8.4) eta atal honetako ideia nagusiak laburbilduko ditut azkenik (§8.5).

199 “Neurrrian sartzen: esaldiak” dokumentua. Sarean: https://bertsoikasgela.eus/media/pdf/Zozoak_beleari_78-79.pdf (Azken kontsulta: 2023-08-01).

8.2. Aurrekariak eta marko teoriko-analitikoa


8.2.1. Silaba: definizioa eta egitura

Kapituluaren sarreran definitu dut *silabatzea* txertatze prosodikoaren oinarrizko gertakari gisa. Segmentuak —hots katea— intonazio- eta erritmo-ereduetan antolatzea ahalbidetzen du eta uztartze horren ondorio dira, besteak beste, silabak. Edo, bestela esanda, uztartze hori silaben bidez egiten da, mailarik oinarrizkoenean. Silaba segmentuen (hizketako hotsen) eta prosodiaren arteko zubia da, beraz; bi alderdiak —hizketaren alor segmentala eta prosodikoa— uztartzen dituen oinarrizko egitura (unitate) erritmikoa (ikus §2.3).

Hierarkia prosodikoaren bi norabidetako izaerari jarraiki (ikus §3.3), segmentuak antolatzen ditu bere baitan, bilakabide segmentalen gauzatzea baldintzatuz hotsek silaba-egituran duten kokapenagatik. Aldi berean, segmentu horiek —segmentuen ezaugarriek— baldintzatzen dute silabaren izaera, bere egitura. Hierarkia prosodikoan gorago, silabak azentu-ereduen baitan antolatzen dira. Horrela, azentuen gertagune dira, aldi berean azentuek beren izaeran eragina izan dezaketelarik (Hurch 2006:542).

Bere izaera konplexuan, hizkuntzaren alor segmentalaren eta prosodikoaren arteko zubia baino gehiago da, halere, silaba. Unitate erritmiko oinarrizkoena da eta hizkuntza guztiak antolatzen dira silabatan. Besterik da zer-nolako silabak sortzen diren hizkuntza bakoitzean eta silabak zein pisu duen antolakuntza erritmikoan, sarreran aurreratu bezala. Auzi horiek ulertzeko beharrezkoa da, hasteko, silabaren egitura zein den —zein izan daitekeen— ezagutzea.

13. irudia: Silaba-egitura (Jauregi 2007: 15)



Silaba hasieraz eta errimaz osaturik dago, edo egon daiteke. Hasierra ekinak osatzen du eta errima, berriz, silaba-guneak eta kodak. Hiru osagaiak —ekina, gunea eta koda— bi multzotan —hasieran eta erriman— banatzearen arrazoiak erritmikoa da; hizkuntzaren erritmoa antolatzean

silaben errimek soilik baitute balioa: ekina anakrustikoa da, ez du balio erritmikorik²⁰⁰. Silaba bat osatzeko nahikoa da gunea izatea. Hizkuntza bakoitzak zehazten du hots ozenen artean zein izan daitezkeen silabagile; hizkuntza batean silaba-gunea izateko gaitasuna duen segmentu bat izanez gero, silaba bat osa daiteke.

Edonola ere, silaba-egitura oinarrizkoena eta optimoena CV deritzona da: ekina eta silaba-gunea beterik dituena. [pa] silaba, esate baterako. Hizkuntza guztietan aurkitzen da CV egitura²⁰¹, eta ez-markatutzat hartzen da. Izan ere, silaba-egituratzen duten askotariko hatsarreak (Vennemann 1988) betetzen ditu, §3.3 atalean aipatu bezala: ozentasun eskalarena²⁰², elkarren aurkako diren osagaiak erakartzearena, nabarmentasun-contraste handiena bilatzen duena²⁰³, etab. Silaba egituratzen duten hatsarreak hots katearen silabatzea baldintzatuko dute etengabe, bestelako eragileekin batera —azentua den kanpo nabarmentasuna edo prosodiak gramatikarekin duen elkarreragina izan daitezke horietako batzuk—²⁰⁴.

Silabarena kontzeptu oso eztabaidatua (izan) da fonologiaren historian (berrikuspen baterako, ikus Jauregi 2007). §2.3 atalean zehaztu eta atal honen sarreran (§8.1) gogoratu bezala, lan honetan hartzen dudak ikuskeran (Donegan eta Stampe 1978) ulertzen dut silaba ez dagoela hizkuntzaren oinarrizko aurkezpenean, hizketaren maila sintagmatikoan sortzen dela. Horregatik dira posible hots kate beraren silabatze desberdinak, ‘zer moduz zara?’ galderaren silabatzeekin azaldu bezala. Bilakabide fonologiko segmental paradigmatico ingurunedunek eta sintagmatikoek eragin handia dute hots katearen oinarrizko aurkezpena ahoskatzeko moduetan. Lehenengoen, paradigmaren

200 Bertsogintzaz ari garela ere, silabaren errima da esangura metrikoa duena. Silaba-gunetik aurrera (erriman) zaindu behar da hoskidetasuna. Silaba bakarra errimatuko bada, silaba-gunetik silaba-amaierara parekatuko dira hotsak. Azken aurreko silabatik errimatuz gero bertsolariak, azken-aurreko silaba-gunetik (azken aurreko silabaren errimatik) hitz amaierara zainduko da hoskidetasuna.

201 Vietnamera da CV egitura soilik onartzen duen hizkuntza bat, esate baterako (Hurch 2013n jasoa).

202 “Ozentasuna hotsen berezko nabarmentasuna da, Donegan-en eta Stampe-ren hitzetan ozentasuna *intrinsic prominence* (1978, 31), hau da, hotsek berezkoa duten bereizgarritasuna, berezko nabarmentasuna. Hotsek duten ozentasunaren arabera eskala bat eginda dago, ozentasun gutxienetik gehieneraino doana, edo alderantziz” (Jauregi 2007: 50). Silabak egituratzeko hatsarre multzo bat hotsen ozentasunari dagokio. Hatsarre horiei jarraituz gero, silaba-egituratzean, silaba-gunean ozentasun handiena duen hotsa kokatuko da. Ekinean eta kodan, muturretan, ozentasun txikiena duten hotsak kokatuko dira, erdigunetik kanpoaldera hotsen ozentasuna apalduz doalarik.

203 Silabak egituratzean ozentasun kontraste ahal den eta nabarmenena bilatzeko joera aurki daiteke. Hala, silaba-gunean ozentasun ahalik eta handiena bilatzen da —horregatik izan ohi dira gehienetan bokalak silabagile—, eta silaba ekinean eta kodan —halakorik baden kasuetan—, berriz, ahal den ozentasun txikiena duten segmentuak kokatzen dira. Horrekin batera, nabarmentzekoa da eremu prosodikoen ekinak indartsuago izan ohi direla artikulatorioki eta pertzeptualki amaierak baino: silaba ekinetan bilakabide indartzaileak izan ohi dira nagusi, eta kodan, berriz, ahultzaileak (Hurch 2013, besteak beste). Horrek azalduko luke silaba egitura CV egitura ohikoagoa eta oinarrizkoagoa izatea VC gisakoak baino eta, era berean, lagunduko liguke hitzen baitako —eta batzuetan hitz arteko— silabatzeak ere hobeto ulertzen.

204 Esate baterako, eremu prosodikoen ekinak artikulatorioki indartsuagoak —eta, ondorioz, hautemateko nabarmenagoak— diren heinean, kontsonantea silaba ekinean jarriko da silaba-kodan baino lehen, gorago aipatutako CV silaba erraztuz. Horrela, VCV hots katea V.CV silabatzeak aukera gehiago daude —VC.V baino—. Baina VC1C2V hots katea VC1.C2V silabatuko litzateke errazago, ozentasun eskalaren hatsarreei eta elkarren aurkako osagaiak erakartzearen printzipioei jarraituz: VC1C2V katean kontsonanteetako bakoitza ondoan duen bokalarekin antolatzea probableagoa baita aipatutako hatsarreei jarraiki (Donegan eta Stampe 1978: 30).

onartzen diren hots bilkurak zehazten dituzte eta bigarrenek, berriz, hots katea ahoskatzean gertatzen diren txandakatzeak baldintzatzen dituzte (ikus §2.4.1 bilakabide fonologiko segmentalez). Horien konbinazioak, silaba egituratzen duten hatsarreekin eta bestelako baldintza prosodikoekin batera zehazten dute, besteak beste, hizkuntza batean gauzatzen diren silabak nolakoak diren.

8.2.2. Euskararen silaba-egitura eta silabatzean onartzen diren hots bilkurak

§3.4.4.3 ataletan esan bezala, euskaraz gaur egun baliatzen diren silaba-egiturak ondoko eskematik eratorritzen dira: (C)(C)V(C)(C) (ikus Michelena [1961] 1990: 485-494). Hortik abiatuta, bokal bakarraz —silaba-guneaz— osatutako silabak aurki daitezke²⁰⁵: *a.ma*; ekina eta silaba-gunea beterik duten silabak: (C)CV; *kra.be.li.na*; silaba-gunea eta kodaz osaturikoak: VC(C); *artz, il.tze*; eta ekina, silaba-gunea eta koda beterik dituzten silabak: (C)CVC(C); *bart, beltz* (Jauregi 2008: 350)²⁰⁶.

Aurkeztutako (C)(C)V(C)(C) egitura ez da euskaraz edonola betetzen, bai baitira hots bilkura posibleak baldintzatzen dituzten bilakabide fonologiko paradigmatico ingurunedunak, bai silaba barnean bai silaba artean ere. Bilakabide horiek hizkuntzan posible diren hots-bilkurak zehazten dituzte, esan bezala. Jauregik (2007) aztertu ditu euskaraz gaur egun eta denboran zehar posible (izan) diren hots bilkurak; jarraian egungo bilkura posibleak zein diren zehaztuko dut labur, aipatutako lanean oinarrituta²⁰⁷ (xehetasun gehiagorako edo perspektiba diakronikoaren berri izateko, Jauregi 2007 lanera jo).

Jauregik (2007: 245-256) zehazten duenez, silaba-gunea edozein bokalek osa dezake. Silaba-ekina, berriz, izan hitz hasieran izan hitz barnean, euskararen fonema inbentarioko edozein hotsek bete dezake gaur egun, ttak edo tap hotsak ([r]) izan ezik.

Kodak murriztapen gehiago ditu:

- Herskari ahoskabeak hitz amaieran onartzen dira, batez ere. Horrez gain, hitz barnean gero eta ohikoago dira, maileguen ondorioz eta hiztunen elebitasuna eta alfabetizazioa dela eta (*ok.to.go.no*). Garai batean silaba-kodako herskariak ahoskabetzen dituen bilakabidea zen indarrean, nahiz eta hitz barnean herskari ahostunak ere gero eta gehiago aurki daitezkeen, ingurune

205 Euskaraz silaba-gunea bokalek —edo diptongoek— soilik osa dezakete.

206 §3.4.4.3 atalean jaso dudana bezala, ez da ohikoa (C)(C)V(C)(C) egiturako gune guztiak beteta aurkitzea euskaraz, posible den arren.

207 Aurkeztutako adibide gehienak (ere) Jauregirenak (2007) dira, nik baten bat gehitu dut.

ahostunetan, aipatutako mailegatze, elebitasun eta alfabetatze arrazoi berberak direla eta: *sub.jek.tu* edo *ob.jek.tu*, kasu.

- Afrikatuak onartzen dira hitz amaiera bada (*ekaitz, hots, apatx*); bestela, hitz barnean, igurzkari txistukariak dira gauzatzen direnak: **etz.ti* vs. *ez.ti* edo *hitz* baina *hiz.kun.tza*. Igurzkari txistukariak hitz barnean (*es.tu, a.haz.tu, jux.tu*) zein hitz amaieran gauza daitezke (*go.goz, e.rraz*).

- Kontsonante ozenak ere berdin: silaba-kodan hitz barnean (*har.tu, bil.du, han.go*) zein hitz amaieran (*bi.har, hur.bil, men.di.an*) azal daitezke, ezpainkariak izan ezik. Horiek (/m/) ez dira kodan onartzen. /enbata/ gisako adibideetan /n/ → [m] ahoskatu arren, /n/ hautematen da.

Silaba berean antola daitezkeen kontsonante-bilkurei (kontsonante bilkura *tautosilabikoei*) dagokienez, ondokoak dira ekinean edo kodan bil daitezkeen hotsak:

- Ekinean bi kontsonante elkar daitezke askoz jota, ozentasun eskalaren araberako distantzia minimoa dutenak elkarren artean.

Gaur egun *muta cum liquida* taldeak onartzen dira euskaraz, trabaria (/p, t, k, b, d, g/ herskariak) eta ozen urkaria (/r, l/) elkartuz: *lan.bro, sin.kro.ni.a, gri.sa, bo.lon.dres*. Edonola ere, dl- eta tl- hots elkarketa ez da onartzen. Bestalde, onartzen den bilkura da /f/ igurzkari ezpainhorzkari ahoskabearen eta ozen urkariaren /r, l/) artekoa: *fla.na, ba.fle.a, fro.ga, fru.ta*. Ez da bestelako hots konbinazio tautosilabikorik onartzen silaba ekinean.

- Kodan askoz jota bi kontsonante elkar daitezke, ozentasun eskala erabat errespetatuz. Hots ozenak (urkariak edo sudurkariak) trabari ez jarraituekin (horskari edo afrikatuekin) aurki daitezke euskaraz, ohikoenak ‘ozen gehi afrikatu’ elkarteak diren arren: *beltz, hartz, huntz*. Ozen-horskari elkarketak ez dira horren erraz aurkitzen (*hark, bart, galant*), eta ditugun adibideetan beti herskaria ahoskabetuta ageri da. Bestalde, badira aurkitzen ez diren konbinazioak (**lk, *rp, *lp, *np, *lt*, esaterako). Txistukari gehi herskari konbinazioa aurki daiteke, oso sarri ez izan arren: *kosk, bost*. Ez da, ordea, ozen bilkurarik aurkitzen, eta ‘ozen gehi txistukari igurzkari’ elkarketa hitz barnean topatzen da: *belz.tu, e.rans.ten, ins.pek.to.rea, ins.ti.tu.to.a*²⁰⁸.

208 Adibideak aztertuta, jarraian hiru kontsonante daudela ikus daiteke, baina har bedi kontuan silaba desberdinetan daudela antolaturik; silaba kodan bi kontsonante soilik daudela.

Silaba-muga tartean dela antola daitezkeen hots-bilkurei (hots bilkura *heterosilabikoei*) dagokienez, ideia orokor gisa esan daiteke gehienez ere lau²⁰⁹ kontsonante elkar daitezkeela katean, silaba desberdinetan, ohikoagoa den arren bi kontsonante elkartzea. Segmentu katean bi kontsonante elkartzean, ohikoena bakoitza silaba batean antolatzea izango da, lehena silaba kodan eta bigarrena hurrengo silabaren ekinean: *bil.du*, *sar.tu*. Hiru kontsonante elkartzen direnean, berriz, bi aukera nagusi daude: lehen bi kontsonanteek koda osatzea eta hirugarren kontsonanteak hurrengo silabako ekina (*ins.ti.tu.to*, esaterako), edo lehen kontsonanteak koda osatuta, bigarrena eta hirugarrena hurrengo silabako ekinean antolatzea: *sas.tra.ka*; betiere aurreko lerroetan aipatutako hots bilkura murriztapenak betez —hitz barnean eta silaba kodan txistukari afrikaturik ez gauzatzea, adibidez—.

Bi kontsonante heterosilabiko gauzatzen direnean hots katean, artikulazio modu berekoak izatea zail da: *sek.to.re* gisako maileguetan ez bada ez dira bi herskari aurkitzen, eta ezta bi frikari jarraian ere. Hots ozenen artean, urkari-sudurkari bilkurak lekukotzen dira: *ar.ma*, *er.ne.tu*, *ber.me*, etab. Bi urkariren bilkura ere aurki daiteke, ozentasun eskala errespetatzen dutela, dardarkaria eta ondoren albokaria gauzatuz: *jarleku*, *erle*. Edonola ere, ozen arteko kontsonante bilkurak oso ugariak ez direla zehazten du Jauregik (2007: 254):

Ozen urkarien ondoren dardarkaria doanean bilkura heterosilabikoa sortuz, bi kontsonanteen tartean kontsonante epentetikoa sartu izan da: gazt. *al revés* > eusk. *al.dre.bes*, gazt. *honra* > eusk. *on.dra*, gazt. *Enrique* > eusk. *en.dri.ke*. [...] Kodan dardarkaria eta ekinean sudurkaria edo albokaria duten adibide batzuk aurki daitezke, *sar.na* eta *jar.le.ku*, esaterako. Kodan sudurkaria eta ekinean albokaria duten adibideak ez dira ugariak baina badaude, *jan.le.ku* esaterako. Eta koda albokaria eta ekina sudurkaria duen adibiderik ere aurki daiteke, adibidez *sal.neu.rri*. Adibide hauetatik guztietatik *jan.le.ku* da ozentasun eskala errespetatzen ez duen bakarra.

(Jauregi 2007: 254)

Horiekin batera, aipatzekoa da txistukarien ondoren ahoskatutako kontsonantea ahoskabetu egin izan dela (*astun*, *ezten*, *ez den* → [esten]). Gaur egun hots ahostunak ere aurkitzen dira txistukari ondoren, maileguetan (*des.di.txa*, *des.bi.de.ra.tu*), eta baita orain arte ahoskabetutako testuinguruetan ere (*ez den* → [ezðen]; ikus §2.4.1 atala gertakariaren azalpen sakonagorako). Kodan txistukari apikaria dagoenean hurrengo silabako ekinean sudurkariak aurki daitezke kasu gutxi batzuetan, ozentasun eskala hautsiz: *as.mo*, *as.ma.tu*, *es.ne*. Bestalde, silaba kodan hots ozena egonik ondorengo silaba-ekinean frikaria badago, azken hori afrikatu egiten da sarri: gazt. *universidad* > eusk. *u.ni.ber.tsi.ta.te*.

209 Jauregik (2007) euskaraz gehienez ere hiru kontsonante elkar daitezkeela jasotzen du. Maileguk azken urteetan egin duten bidearen ondorioz, ordea, lau kontsonante ere elkar daitezke gaur egun, oso kasu zehatzetan; *kons.truk.to*, *kons.truk.zi.o*, *trans.gre.so.re* gisako hitzetan, adibidez.

Hiru kontsonante biltzen diren kasu urriagoetan, lehenengo silaba kodan bi kontsonante eta hurrengo silaba ekinean kontsonante bakarra dagoenean, ‘ozen-frikari-herskari ahoskabe’ hurrenkera hartu ohi du taldeak: *belz.tu*, *e.ranz.ten*, *horz.ka.da*; ozentasun eskala zeharo betez. Silaba kodan kontsonante bakarra eta ondoko silaba ekinean bi kontsonante direnean, berriz, hots ozena (dardakaria izan ezik) edo frikari txistukaria gauzatzen da lehen silabaren kodan, eta ondorengo ekinean *muta cum liquida* taldea: *kan.gre.ju.a*, *kon.gre.su.a*, *sus.trai*.

Lau kontsonante biltzen direnean, lehen silabaren kodan ‘ozen + frikari’ konbinazioa antolatu ohi da —darkarkaririk ez da onartzen—, eta ondorengo silaba ekinean *muta cum liquida* taldea: *kons.truk.zi.o*.

Euskaraz egin daitezkeen kontsonante bilkura tautosilabiko eta heterosilabikoak aztertuta agerian geratzen da badirela hainbat muga hots taldeak ekoitzi eta hautemateko. Jauregik (2007: 255) azaltzen duenez, silaba-mugen indartzea gertatu da denboran zeharreko bilakaeran, eta aipatzekoa da ozentasun eskalak silabatzean duen garrantzia euskaraz, kasu gehienetan errespetatu egiten baita.

Bokal elkarketei dagokienez, abiapuntu gisa esan daiteke euskaraz paradigmaticoki ez direla bi bokal berdin elkartzen. Halako kasuetan bi bokaletako bat kendu edo disimilatu egiten da, joera nagusi gisa: *alaba + a = a.la.ba* edo *a.la.be.a*. Bi bokal berdinen artean ttak kontsonante epentetikoa sartzten da aezkeraz, esaterako: *a.la.ba.ra*. Edonola ere, gaur egun aurki daitezke bi bokal berdin jarraian dituzten hitzak (hizkera batzuetan edo hizketa-maila zainduan), garai batean tartean zen kontsonantea galtzearen ondorioz: *zahar* [saar], *ohol* [ool], *ahate* [aate].

Bokal desberdinak elkarren ondoan aurki daitezke euskaraz, gehienetan bi (*ins.ti.tu.tu.a*) ; sarri bi bokal horien arteko kontsonante galerak eraginda, kasu hauetan ere: *beharra* [be.a.ra], *lehor* [le.or], *ahitu* [a.i.tu]. Kontsonante galera horien ondorioz hiru bokal ere aurki daitezke euskaraz hots katean jarraian, horren ohiko ez den arren: *ohea* [o.e.a]. Bi bokal desberdin elkarren ondoan gauzatzen direnean bietako bat desilabagiletu eta biak silaba berean gauza daitezke. /i/ eta /u/ bokalak izan ohi dira silabagiletasuna errazen galtzen dutenak. Horrela, *behi* [bej] gauzatzen da, *ohea* [o.ja] gisa ahoska daiteke eta, ekialdeko hizkera batzuetan, *semea* [sé.mja] esaten da (aldakortasun horretaz, ikus bilakabide segmental sintagmatikoei buruzko §8.2.3 atala jarraian).

8.2.3. Bilakabide fonologiko segmentalak eta horien emankortasuna

Txertatze prosodikoa gauzatzen denean hizketako hotsak —segmentuak— eredu prosodikoekin uztartzen dira. Eragiketa horretatik eratortzen dira azkenean hitzunak ekoizten dituen

silabak, esan bezala. Hizketaren eratorpeneko maila sintagmatiko horretan (ere) esanguratsu izan daitezke bilakabide fonologiko segmentalak, hots katearen silabatze prozesua baldintzatuz, aurreko ataleko azken adibideetan agerian geratu den bezala. Lan honen ikergaira etorrira, hizketa neurtu eta kantatua izateak ere baldintzatuko du bilakabide fonologikoen gauzatzea, aipaturiko gainerako eragileekin batera. Halaber, hiztun batek ez ditu beti bilakabide berberak gauzatzen egoera desberdinetan, zailtasun fonetiko bera izanagatik²¹⁰.

Bilakabide fonologikoen emankortasuna kontuan hartzea ere garrantzitsua da, beraz, eskuartean dugun ikergaian. Izan ere, nahitaezko ez diren bilakabideek, besteak beste, baliabide fonikoak ematen dizkiote bertsolariari silaba-kopuruan eragina duten heinean, egoeraren arabera “hautatuz” —hala nahita edo nahigabe— esan nahi den horren oinarritzko aurkezpena (hitzen forma lexiko bat) eta horren kanporatze fonetiko jakina (bilakabide batzuk gauzatuz eta beste batzuk gaindituz). Esate baterako, hiztunak hots kate batetik abiatuta — /egin/, demagun— hasiera batean ahoskatuko lituzkeen balizko silaba horiek —[e.ɣin]— alda litezke. /egin/ hots katetik abiatuta, bokal arteko igurzkari belar ahostuna ([ɣ]) kendu —[e.in]— eta goiko eta aurreko [i] bokala desilabagiletzearen ondorioz [ejn] edo, monoptongatzea gauzatuta, [in] ahoska dezake hiztunak, silaba bakarrean. Gorago esan bezala, testuinguruaren ezaugarriek modu nabarmenean baldintzatuko dute zein bilakabide, noiz eta nola gauzatu. Bertsogileek kontzientzia fonologiko hori izatea esanguratsu suerta daiteke bertsoen silabatzeari begira²¹¹.

8.2.4. Euskarazko bilakabide segmental sintagmatiko nagusiak eta zenbait erregela

Atal honetan aztergai den (euskarazko) bertsoen silabatzea ulertzeko garrantzitsua da, beraz, euskaraz gauzatzen diren bilakabide segmental paradigmaticoekin batera (ikus §8.2.2 atala hots bilkura posibleetarako), segmentu katea ahoskatzean gauzatzen diren bilakabide segmental sintagmatikoak zein diren ezagutzea, hitzak elkarren segidan, katean, ekoitzita gertatzen direnak ulertzeko. Corpusaren analisisian baliatzeko, jarraian euskaraz hizkuntzaren maila sintagmatikoan gertatzen diren bilakabide fonologiko nagusietako batzuk eta zenbait erregela zerrendatu ditut, silabatzea eta silaba-egitura baldintza dezaketen horiei erreparatuz bereziki. Zerrenda osatzeko abiapuntua Jauregiren (2007) tesiko 5. atala izan da, euskararen bilakabide mota guztiak azaltzen baititu bertan, eta lan horren osagarri baliatu ditut Oñederra, Hurch eta Jauregik berak gaiaz eginiko

210 Txistukari frikari + herskari ahostun bilkurari erreparatuta, adibidez, posible da hiztun berak batzuetan herskaria ahoskabetzea ([ni.kes.tut] ‘nik ez dut’, JL-1989-GS-4oin-2), eta beste batzuetan, berriz, txistukaria ahoskabetu beharrean ([ez.ðu.su] ‘ez duzu’, JL-1989-AS-8tx-4).

211 Silabaren izaeraz eta definitzeko zailtasunez ari dela, Oñederrak (2004: 136) aipatzen du bertsogileak hiztun bereziak direla, gainerako hiztunek baino “jakinarene gaineko” kontrol handiagoa baitute silabaz.

lanak (Hurch eta Oñederra 1987; Oñederra 1990, 2002a, 2004; Jauregi 2007; Jauregi eta Oñederra 2010, besteak beste). Denak ere fonologia naturalaren iker-moldekoak izaki, lan honetan egin dudana azterketa erraztu eta gertakarien ulermena ahalbidetzen dute.

Bilakabide fonologiko segmentalak bi multzotan banatzen dituzte Donegan eta Stampek (1979, 2009) egitekoari erreparatuta, §2.4.1 atalean aurkeztu bezala: bilakabide indartzaile edo *fortitioak*, batetik, eta bilakabide ahultzaile edo *lenitioak*²¹², bestetik. Banaketa horren arabera aurkeztu ditut euskarazko bilakabide segmental sintagmatiko nagusiak. Esan behar da datozen orrietan aurkeztutako bilakabideak ez direla euskal hizkera guztietan gauzatzen²¹³, eta hiztunek ez dituztela beti gauzatzen. Edonola ere, modu bateratuan aurkezteko hautua egin dut, euskararen hots antolamendua hobeto ulertzen laguntzen duelakoan.

8.2.4.1. *Fortitioak*

Ondokoak dira hots katea ahoskatzean —maila sintagmatikoan— euskaraz gauzatzen diren *fortitio* ingurunedun nagusiak:

- Kontsonantea eta frikaria elkartzen badira hots katean, frikaria afrikatu egiten da. Bilakabide horren baitan, hainbat azpi-talde aurki daitezke:

- Bi frikari gauzatzen direnean elkarren segidan, bat kendu eta bestea afrikatu egiten da: *ez zen* [e.tsen], *ez zegoen* [e.tse.ɣo.en] (Hurch eta Oñederra 1987: 19-20; Jauregi 2007: 263). Kontsonante talde horren emaitza sinpletzea —bi txistukarietako bat kentzea— izan daiteke gaur egun, bi frikariak berberak badira: *ez zen* [e.sen], *ez zegoen* [e.se.ɣo.en]. Horrekin batera, bi frikariak gordetzeko joera ere aurki daiteke gaur egungo mailegu berriagoetan, garai batean euskarak zuen morfema beraren baitako frikarien asimilazioa gairidituz: *eszena*, esate baterako. Hizketa maila jasoagoetan *eszena* [eʃθena] gisakoak ere aurki daitezke, hiztunaren arabera (Jauregi 2007: 264).

- Ozen ondorengo frikaria afrikatu egiten da: *subversión* > *subertsio* [ʃu.βer.tʃi.o], *verso* > *bertso* [ber.tʃo], *joan zen* [χoantsen]. Bilakabide hau hiztun eta hizkera batzuetan ez nahitaezko edo hautazkoa da, [ʃu.βer.ʃi.o], [ber.ʃo] edo [χoansen] gisakoak ere ahoskatzen baitira. Jauregiren (2007: 264) esanetan, elebitasunak eta alfabetizazioak izan dute ziurrenik eraginik bilakabideon gairiditzean.

212 Horiei loturik ezin dira ahaztu erregela morfonologikoak (ikus §2.4.3).

213 Erdialdeko eta mendebaldeko hizkera dira nagusi zerrendatutako bilakabide zein adibideetan. Baliatutako iturrietan ere hala da, eta ez dut hori zabaldu, lan honetan hautatutako corpusaren azterketarako tresna baliagarria den heinean.

➤ Herskaria eta frikaria elkartzen direnean, herskaria kendu eta frikaria afrikatu egiten da. Morfema mugan gertatu ohi da txandakatzea eta, beraz, ondokoa emaitza indartzailea —eta hots katearen ahoskatzea errazten— duen erregela dela esan genezake: *bait* + *ziren* [baj.tsi.ren], *bait* + *zeuden* [baj.tsewð.en]. Ortografikoki ere gaur egun bi osagaiak batuta idazten dira, bilakabide horren ondoriozko ahoskera islatuz²¹⁴.

➤ Txistukari ahoskabearen ondorengo herskari ahostuna ahoskabetu egiten da: *ez du* [estu], *ez dakit* [estakit]. Hots elkarketa horrek dakartzan zailtasunak gainditzeko beste bilakabide bat ere gauzatzen ari da batzuetan, txistukari ahoskabe + herskari ahostun konbinazioaren aurrean: txistukaria ahostuntzea, hain zuzen. *Ez du* [ezðu], *ez dakit* [ezðakit] gisakoak ere ahoskatzen dira, beraz, lan honetan zehar hainbatetan aipatu bezala (ikus §2.4.1), euskara estandarraren ortografiaren, maileguen zein, Hego Euskal Herrian bederen, gaztelaniaren eraginaren ondorioz (Hurch 1988a: 347; Oñederra 2004: 52-53).

• Bokal disimilazioei dagokienez, ondoko kasuak aurki daitezke euskaraz, maila sintagmatikoan:

➤ /a/ bokalaren aurretik /e/ edo /o/ erdiko bokalak gauzatzean, igo egiten dira, *e* > *i* eta *o* > *u* gauzatuz: *haizea* [aj.si.a], *eroa* [e.ru.a], *o(r)ain* [u.ajn]. Morfema mugan errazago gertatzen da aipatutako bilakabidea.

➤ Bokal disimilazioei loturiko (beste) erregela bat ere lekukotzen da euskaraz, hainbat hizkeratan: artikulu singularraren morfema mugari lotuta, beheko bi bokal elkartzen direnean segmentu katean, lehenengoa igo egiten da, -a + -a > -ea, *alaba* [alaβea] edo *autopista* [awtopištea] gisakoak gauzatuz (Oñederra 2002a: 501; azalpen sakonagorako, ikus Oñederra 2005).

➤ Hizkera batzuetan irristariak ([w], [j]) kontsonantetu egiten dira /a/ beheko bokalaren aurretik: *gaua* [ga.βa], *kamioia* [ka.mi.o.ʝa].

• Kontsonante eta bokal epentesiak ere gauzatzen dira euskaraz, hizketaren maila sintagmatikoan²¹⁵:

214 Ikus *Euskaltzaindiaren arauak*, 2. “Baitu, baikara, bainaiz”.

215 Aurkezpen honetan ez ditut sartu gaur egun erregela diren hitz elkartuetan zein deklinabide atzizkien inguruan fosilduta geratu diren bilakabideen ondoriozko hots txandakatzeak: *ogi* > *otarteko*, *gizon* > *gizarte*, *eguna-r-en*, *egun-e-n*, etab. Horien berri izateko, ikus Oñederra 2002a, besteak beste.

➤ Goiko bokalaren (/i/ edo /u/) ondoren goikoa ez den bokala dagoenean, tartean kontsonante epentetikoa sar daiteke. /i/ goiko bokal sabaikariarekin, kontsonante palatala: *ia-ia* [i.ʝa.i.ʝa], *bihotzekoa* [bi.ʝo.tse.ku.a]. /u/ goiko bokal biribilduarekin, kontsonante ezpainkaria: *burua* [bu.ru.βa], *sua* [su.βa]. Aipagarria da txandakatze hau areagotu egiten dela morfema mugaren inguruan.

➤ ‘Frikaria + herskaria’ biltzen dituen kontsonante taldeaz hasten diren maileguetan, /e/ bokal protetikoa sartzen da frikariaren aurretik, kontsonante taldea bi silabatan ahoskatzea erraztuz: *stop* [eś.top], *ski* [eś.ki] (Jauregi 2007: 266).

➤ Historikoki, euskaraz hitz hasierako silaba ekinean ez zen dardarkaririk onartzen, eta bokal epentetikoak txertatzen ziren hori ekiditeko: lat. *regem* > eusk. *errege*. Gaur egun gainditurik dago bilakabidea; arazorik gabe ahoska genitzake *radar* [ra.ðar] edo *rotulazio* [ro.tu.la.si.o] gisakoak. Edonola ere, hitz barnean, silaba ekinean dardarkaria bada eta aurretik kontsonante ozena, elkarketa hori ekiditeko txandakatzea aurki daiteke hizkera eta hitzun batzuetan, /d/ herskari epentetikoa txertatuta: gazt. *honra* > eusk. *on.dra*, *on.dra.tu*; gazt. *al revés* > eusk. *al.dre.bes*. Halako kasuak ez dira oso ugariak eta bilakabidea ez da beti gertatzen. Aurkako norantzan ere gauza daiteke txandakatzea: *Andresek* [an.re.śek], kasu (Jauregi 2007: 266-267).

8.2.4.2. *Lenitioak*

Euskaraz gauzatzen diren lenitioak aurkezteko, emaitza alofonikoa dutenak zerrendatuko ditut lehenik; hitzunok hauteman ezin dugun aldakortasuna dakarten bilakabideak. Ondoren, emaitza fonemikoa dutenak zehaztuko ditut: emaitza gisa hizkuntzan baden beste hots edo fonema bat dakartenak.

Emaitza alofonikoa duten *lenitio* nagusiak ondokoak dira:

- Herskari ahostunak frikaritzea edo hurbilkaritzea, segmentu jarraitu artean. /b/ → /β/ bilakatzea, adibidez: *arbola* [arβola], *egi* [eγi], *aldakor* [alðakor].

- Kontsonante ahostunen aurreko txistukariak ahostuntzea ([ś] → [ź], esate baterako): *asmo* [aźmo], *esnatu* [eźnatu], *lazgarri* [lazγari].

- Sudurkariaren ahoskunea asimilatzea, ondorengo trabariaren ahoskunearen arabera: *hango* [(h)ango], *anfora* [amfora] (Oñederra 2004: 162), *enbata* [embata] (Jauregi 2007: 261). Bilakabide horren emaitza ez da beti alofonikoa; batzuetan euskararen fonema inbentarioan dagoen [m] hotsa

gauza daiteke alofono gisa, goiko *enbata* adibidearekin gertatzen den bezala. /n/ sudurkari hobikariaren alofono gisa gauzatzen da [m], eta nabarmentzekoa da —bilakabideen alde mentala agerian utziz— entzule euskaradunak /n/ entzuten duela, hiztunak ahoskatu asmo zuena, fonetikoki [m] ezpainkaria gauzatu arren.

- Sudurkari aurrean dauden bokalak sudurkaritzea, bereziki silaba berean badaude —sudurkaria silaba kodan badago, beraz—: *enbata* [ẽmbata] (Jauregi 2007: 261).

- Txistukari ahoskabearen ondorengo herskari ahostuna ahoskabetzea: *ez dakit* [estakit] gisakoak, lan honetan hainbatetan aipatutako bilakabidea. Bilakabide hau asimilaziotzat ere har daiteke, emaitza fortitiboa duen arren. Herskaria ahoskabetzen ez bada, txistukaria da ahostuntzen dena: *ez dakit* [ezðakit], hizpide [(h)izβiðe], desberdin [deźβerðin] (Hurch 1988a: 347; Oñederra 2004: 52-53; Jauregi 2007: 261)²¹⁶.

Emaitza alofonikoa duten lenitio nagusiak aipatuta, emaitza fonemikoa duten lenitioak aipatuko ditut jarraian, baita bilakabideen gauzatzearen ondorioa kenketa dutenak ere:

- Silaba-kodan dagoen herskaria kentzea hitz barrenean, ondorengo silaba ekinean beste kontsonante bat badago: hexagono [ek.śa.ɣo.no] beharrean [e.śa.ɣo.no] ahoskatzea, adibidez. Jauregi (2007: 261) ohartarazten du bilakabide hau gainditzen ari dela euskaraz, gero eta hitz gehiago baitaude hitzaren eremu barnean koda herskaridun silabak dituztenak: *sub.jek.tu* edo *ob.jek.tu*, esaterako. Hala ere, ezaugarriok betetzen dituzten hitz gehienak maileguak dira, eta hizkera maila jasoan gauzatu ohi dira sarri koda herskaridunekin. Aipatutako *subjektu*-ren ondoan posible da hiztun berak, hizketa maila arduragabeagoan, edo hiztunaren arabera, [śu.ɣe.to] edo [śu.ɣe.tu] gisakoak ahoskatzea ere.

- Hitz amaieran, silaba kodan dauden ezpainkariak erlaxatu egiten dira: *pub* [paf], *LAB* [laf] (Jauregi 2007). Bilakabide horren aurrez aurre legoke silaba-kodan gauzatzen diren herskari ahostunen ahoskabetzea. Hala, gerta daiteke *LAB* [lap] eta *kebab* [kebap] ahoskatzea ere. Hots bilkura posibleak aurkeztean §8.2.2 atalean esan bezala, ahultzen ari den arren —*ob.jek.tu* gisako hitzak posible baitira gaur egun euskaraz— oraindik indarrean dela dirudien bilakabidea da. Herskari ahostunaren ahoskabetzea *fortitioa* litzateke. Bestalde, silaba kodan dauden ezpainkariak

216 Bilakabide horri lotuta, gaur egun erregelaren ondoriotzat har daitekeen beste txandakatze bat aipa daiteke: *ba*, *bait*- partikulen edo ergatiboaren inguruan gauzatzen diren trabariak ahoskabetu egiten dira beste trabari ahoskabe baten ondoren: *bait + da* [bajta], *nik daukat* [ni(k)ta(w)kat], *zuk dakizu* [su(k)takis], etab. (Hurch eta Oñederra 1987). Bilakabide hau (ere) asmilazioa litzateke, lenitioa, baina oharmentzat fortitioa. Gaur egun elkarte horiek ahostuntzeko —eta bakuntzeko— joera ere aurkitzen da: *bait + da* [bajða], *nik daukat* [ni(ɣ)ðawkat] edo *zuk dakizu* [su(ɣ)ðakis], etab.

hitz barrenean desagertu egiten dira, ondorengo silaba ekinean beste kontsonante bat badago: *amnistia* [a.ni.ʃ.tie], *gimnasia* [ɣi.na.ʃi.e] (Etxeberria 1988).

- Hitz amaierako afrikatuak hitz barrenean gauzatuz gero, igurzkari egiten dira beste kontsonante baten aurrean, hots bilkura posibleak zehaztean §8.2.2 atalean aipatu bezala: *beltz* → *be(l)ztu*, *hitz* → *hizpide*, *hotz dago* [ostayo], etab. (Hurch eta Oñederra 1987: 22-23).

- Bokal artean gauzatzen den hurbilkari ahostun hortzetakoa ([ð]) ahultzea, ttak ([r]) gisa gauzatuz edo desagertuz: *edo* [e.ðo], [e.ro], [e.o], [o]; *mediku* [me.ði.ku], [me.ri.ku], [me.i.ku], [mej.ku]. Jauregi (2007: 262) ohartarazten duenez, aurkako norabidean ere gerta daiteke bilakabidea hizkera batzuetan, [r] → [ð] gauzatuz: *ura* [u.ðe]. Azken kasu honetan indartzailea litzateke bilakabidea, fortitioa.

- Aurreko lenitioari lotuta, bokal arteko ttaka ([r]) edo hurbilkari ahostun belarra ([ɣ]) desagertzea gerta daiteke, bokal artean. *Zera* [se.a], *egarria* [i.a.ri.ɣa], adibidez.

- Aurreko bilakabideekin katean, silabagiletasuna gal dezake bokalak, inguruan silaba berean biltzeko beste bokal bat badu: *egin* [e.ɣin], [e.in], [ejn]. Hizketa azkar edota arduragabeen hitz mugen artean ere gerta daiteke desilabagiletze edo diptongatzea: *ho(rre)[laj]kusi*; *alkandor[awr]dina* (Hurch eta Oñederra 1987: 24-26). Bistakoa da bertsozintzan (ere) bilakabide honek duen egitekoa: hitz barnean gauzatzen denean *sineresi* deitzen zaio gertakariari, eta hitz artean bada, *sinalefa* (ikus aurrerago §8.2.7.1).

- Palatalizazioa, asimilazioz. Kontsonante horzkari edo hobikaria palataldu egiten da aurreko bokal palatalaren eraginez: *hila* [(h)i.ʎa], *osina* [o.ʃi.ɲa].

- Beheko bokala (/a/) igotzea aurretik duen goiko bokalak (/i/ edo /u/) asimilatuta: *burua* [bu.ru.e], *laguna* [law.ne], *biharra* [bi.e.ra], *ziria* [si.ri.e] (Jauregi 2007: 262). Emandako adibideetatik ondoriozta daitekeenez, hots txandakatzea neurri handiagoan gauzatzen da morfema mugaren inguruan.

- Bokal berdinen bilkura dagoenean taldea sinpletu eta bat kendu egiten da: *alaba* + *a* > *alaba* (Jauregi 2007: 263). Gogoratu bokal bilkura honetatik atera daitezkeen bestelako emaitza fortitiboak, erregela forman (*alabea* eta gisakoak; ikus §8.2.2.).

- Gaur egun erregelatzat har daitezkeen arren, noizbait bilakabide izana da txistukaria ozen aurretik kentzen duen txandakatzea. Gaur egun *ez* partikularen ondotik ozenez hasten den aditz laguntzailea datorrenean gauzatzen da, besteak beste: *ez luke* [e.lu.ke]. Txistukaridun ekoizpena ere

aurki daiteke, edonola ere: [ez.lu.ke] (Jauregi 2007: 263; erregela honi buruz ikus §2.4.3 ataletan azaldutakoak).

8.2.4.3. Euskaraz gauzatzen diren bilakabideen joerez

Euskarazko silaba-egitura, posible diren hots-bilkurak eta maila sintagmatikoan gauza daitezkeen bilakabide segmental nagusiak aztertuta, elkarri loturik dauden bi joera nagusi aipa daitezke hotsen antolamenduaz, salbuespenak salbuespen: 1) kontsonante eta bokal elkarketak soiltzeko joera, eta 2) silaba unitate prosodiko gisa indartzeko joera; silaba-egitura sendotzekoa (Jauregi 2007: 268-271; Jauregi eta Oñederra 2010: 86, Oñederra 2020a, 2020b).

Batetik, beraz, kontsonante- eta bokal-bilkura handiak ekiditeko bilakabideak gauzatzen dira euskaraz. Horren adibide, bi bokal berdin elkartzean gauzatzen den erregela —erregela izan arren aipatutako bokal-bilkurak soiltzeko joera islatzen duena—. Bi bokal berdin elkarren ondoan daudenean —bigarrena artikulu singularra izanda—, hainbat aukera topa daitezke euskal hizkeretan: asimilatu eta bakuntzea (*alaba + a = alaba*); disimilatzea (*alabea*) elkarteko bi hotsak elkarrengandik nolabait bereizteko; edo kontsonante epentetikoak txertatzea (*alabara*) hots katea CV egiturara hurbilduz. Edozein kasutan, bi bokal berdinen bilkura ekiditea da txandakatze horien ondorio²¹⁷.

Kontsonante taldeei dagokienez, euskaraz lau kontsonantera arteko bilkurak heterosilabikoak lekukotzen dira, esan bezala, baina bilakabideen ondorioa ez da, oro har, kontsonante pilaketak sortzea —alemana bezalako hizkuntza batean gerta daitekeen bezala: *Herbst* ‘udazkena’, adibidez—; aurkakoa baizik. Hori agerian uzten dute, esaterako, elkarren jarraian bi frikari daudenean gauza daitezken bilakabideek: a) bat kendu eta bestea afrikatu egiten da, *ez zen* [e.tsen], *ez zegoen* [e.tse.ɣo.en] gisa ahoskatuta; edo b) bi txistukarietako bat kendu egiten da, bi frikariak berberak izanez gero: *ez zen* [e.sen], *ez zegoen* [e.se.ɣo.en]. Edozein kasutan ere, bi kontsonante heterosilabiko izatetik kontsonante bakarra izatera igarotzen da hots katea, CV silaba egiturara gehiago gerturatuz.

Bestetik, zehazten da silaba-egitura sendotzeko joera ageri dutela bilakabideek, hots katea ahoskatzean silaba-mugak finkatuz eta silabak indartuz. Horren erakusgarri silaba-ekina indartzen duten zenbait bilakabide: ozen ondoko txistukari frikarien afrikatzea (gazt. *verso* → eusk. *bertso*; *joan zen* [χoantsen]); txistukari ahoskabeen ondorengo herskarien ahoskabetzea (*ez dakit* [estakit]); hitz barnean, silaba ekinean dardarkaria bada eta haren aurretik kontsonante ozena, /d/ herskari

²¹⁷ Horrekin ez da esan nahi euskaraz bi bokal berdin gauzatu ezin direnik, gorago zehaztu denez, kontsonante galeraren ondorioz, adibidez, posible baita *zahar* [sa.ar] gisakoak ahoskatzea.

epentetikoa txertatzea bigarren silaba ekinean: gazt. *honra* > eusk. *on.dra, on.dra.tu*; gazt. *al revés* > eusk. *al.dre.bes, etab.* (Jauregi eta Oñederra 2010: 86; ikus Oñederra 2020a, 2020b ere).

Hizketaren alderdi segmentalaren eta antolakuntza prosodikoaren arteko elkarrekintza agerikoa da, euskararen kasuan silaba egituratzen duten hatsarreek gauzatzen diren bilakabide segmentalak nabarmen baldintzatuz —eta azken horiek gauzatzean atzera elikatuz silaba egituratzen duten hatsarreak—. Gertakariok erritmoaren araberako tipologi(ar)en argitan kokatuta, euskararen sistema fonologikoa sakonago ulertzeko aukera izango dugu. Euskara silaba-aldiko hizkuntzat hartu da orain arte eta hala berresten du lan honetan egindako berrikuspenak ere; kasu honetan silabatzeari lotutako ezaugarriek uzten dute joera hori agerian. Euskaraz gauzatzen diren gertakariak beste hizkuntza batzuen ezaugarriekin lotuz —zein alderatuz—, erritmoaren antolakuntzan funtsezko diren gertakariez (*ezaugarri tipogileez*) eta horiek hizkuntzaren askotariko alorrekin duten harremanez zabalago hausnartu ahalko dugu.

8.2.5. Erritmoaren araberako tipologia(k), silabatzea eta euskararen silaba-aldikotasuna

§3 atalean aurkeztu ditut hizkuntz(ar)en erritmoa eta hizkuntzen arteko erritmo-aldeak ulertzeko proposamen teoriko-metodologikoetan izandako bilakaera (§3.4), fonologian oinarritutako proposamenen alde argudiatuz. Silaba eta hari lotutako gertakariak funtsezko direla dirudi hizkuntza baten tipo erritmikoa egituratzean. Horregatik, ezaugarri tipogile gisa silaba egituratzen duten hatsarreak eta azentua zehaztuta (Hurch 2006b), jarraian ardatz horiekin harremanetan silabatzea ukitzen duten ezaugarriak aurkeztu ditut, euskararen ezaugarriak ere atalez atal kokatuz (§3.4.3 eta §3.4.4 ataletara jo aurkeztutako proposamenak sakonago ezagutu eta erritmoaren araberako tipologia baldintzatzen duten ezaugarri gehiagoren berri izateko).

8.2.5.1. Silaba-egituraren konplexutasuna eta silaba-moten maiztasunak

Azentua sistema fonologikoaren erdigunean duten hizkuntzetan —silaba-aldiranzko joera dutenetan, alegia— azentuek, azentudun silabek, inguruko silabetako segmentuak erakartzeko gaitasuna dute. Horren ondorioz sortzen dira hizkuntza horietan egitura konplexuagoa duten silaba astun(ago)ak²¹⁸, besteak beste. Gorago aipatutako lat. *mercatum* → alem. *Markt* ‘merkatu’, adibidez.

218 Ohikoa izaten da azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan ozentasun eskala bezalako hatsarreak, silaba egituratzen dutenak, ez betetzea edo haustea. Ingeleseaz, adibidez, ‘txistukari + herskari’ konbinazioa ohikoa da silaba ekinean, *stop, sky, Spain, space, special, etab.*, ozentasun eskala hautsiz.

Silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, berriz, azentuak ez du horrenbesteko indar aglutinatzailearik eta ez da horren joera ohikoa azentudun silabek inguruko segmentuak bereganatzea —azentuari lotutako gertakariak jazo arren, kasu batzuetan²¹⁹—. Horregatik, silaba-egitura erlatiboki sinple(ago)a izan ohi dute, hatsarre silabikoak bete ohi dituenak. Lat. *mercatum* → eusk. *merkatu*. Euskara bigarren multzo honetan kokatzen da, §3.4.4.3 atalean berrikusitakoari jarraiki.

Egiturari loturik, azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan ohikoago dira CVC gisako silaba itxiak, gorago aipatutako azentuaren indarrak baldintzatuta, besteak beste. Silaba-aldiko hizkuntzetan, berriz, silaba irekiak izan ohi dira nagusi, CV silaba-egitura oinarrizkoranzko joera argia erakutsiz (ikus §3.4.3.4 atalean jasotako 2. taula Dauerrek [1983] jasotako silaba-moten maiztasunekin). Euskaraz ekoizitako silabak gertuago daude silaba-aldiko hizkuntzen joeretatik azentu-aldikotasunetik baino, orain arte egindako ikerketen arabera (ikus §3.4.4.3 eta 3. taula). Berriro ekarri dut 3. taula, corpus azterketatik ateratako datuekin errazago alderatzeko gero:

3. taula: silaba-moten maiztasunak euskaraz

Ohikoen diren silaba-egiturak eta haien maiztasunak euskaraz		
Testu irakurriak (Azurmendi eta Olarte 1983)	Testu irakurriak (Gaminde et al. 2013: 9)	Hizketa arduragabea (Jauregi 2007: 389)
CV %59,52	CV %61,63	CV %47,3
CVC %20,69	CVC %21,18	CVC %20,3
V %11,29	V %9,01	V %20,3
VC %6,66	VC %6,55	VC %11,5
CCV %1,15	CCV %1,64	CCVC %0,77
CCVC %0,32		CCV %0,25
CVCC %0,17		
CCVCC %0,03		
VCC %0,01		
Silaba irekiak denetara		
%71,96	%72,28	%67,85
Silaba itxiak denetara		
%27,78	%27,73	%32,12

219 Aferesia da gertakari horietako bat: *etorri* ['to.ri]. Edonola ere, hots katearen silaba-egiturari erreparatuz gero ez dela inolaz ere konplexuagotzen. Euskaraz, hizkera batzuetan, gerta daitezke sinkopak, emaitza gisa *eskoptkua* bezalako formak emanez (Hualde 1997: 114-115).

8.2.5.2. Joera segmentalak

Hizkuntza baten silaba-egituraren konplexutasuna eta hiztunak gauzatzen dituen silaba-moten maiztasuna baldintzatzeaz gain, tipo erritmikoak hizkuntzaren alor segmentalean ere eragiten du. Adierazpena atzekoz aurrera jarrita, tipo erritmikoak alor segmentalean (ere) eragiten duelako gauzatzen dira aurreko puntuan aurkeztutako silaba-egiturak eta silaba-moten maiztasun jakinak.

Azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan azentuak —azentudun silabak— inguruko silaba azentugabeak murriztu eta segmentuak erakartzeko gaitasuna du. Ondorioz, fonemek ingurune prosodikoen araberrako alofono gehiago dituzte, azentudun eta azentugabeko inguruneek eraginda. Oinarrizko aurkezpenaren eta azalekoaren arteko aldea handiagoa izango da usu hori dela eta, silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan baino. Azken horietan azentuaren indarra ez da horrenbestekoa izango ez silaba ez segmentuekiko, eta gauzatzen diren alofonoak ez dira normalean baldintza prosodikoez baldintzatutakoak izango (Dauer 1987: 449), hots katearen baldintza fonetikoek baizik (ikus §3.4.3.1, §3.4.3.2 eta §3.4.3.7). Gaia euskarara ekarrita, hizkuntza silaba-aldiranzko polotik gertuago kokatzen dela esan daiteke. §8.2.4 atalean zerrendatutako bilakabideak aztertuz gero, zehatz genezake maila sintagmatikoan sortutako alofonoek ez dutela azentua indar-eragile nagusi, hots katearen jarraitutasuna mantentzea —hotsak elkarren artean antzekoago eginez— edo silaba-egitura nolabait indartzea izanik alofonoen agerpenaren arrazoia.

Tipo erritmikoez baldintzatutako gertakari segmentalekin jarraituz, azentu-aldiranzko joera duen hizkuntza bateko hiztunak (azentuak eragindako) murriztapen segmental eta silabiko gehiago onartzen ditu. Silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, berriz, murriztapen segmentalak ez dira horren onargarriak hiztunentzat (Hurch 2006b: 3, 9; ikus §3.4.3.1, §3.4.3.2 eta §3.4.3.8). Euskara bigarren multzo horretan koka daiteke, hizkeratik hizkerara aldea dagoen arren (xehetasun gehiagorako, ikus §3.4.4.1, §3.4.4.2).

Tipo erritmikoei lotuta, bilakabide segmentalen joera orokorrak ere aipatu behar dira atal honetan (ikus 3.4.3.8). Orain arte esandakoez gain, edo orain arte esandakoa orokortuz, silaba-aldiko hizkuntzetan hots katea CV silaba egitura oinarrizkorantz eramango duten bilakabideak dira nagusi (Dauer 1987: 448), hatsarre silabikoez hots antolamenduan duten zentraltasuna dela eta: silaba astun eta konplexuak sortzea ekiditeko silaba-kodako kontsonante taldeen sinpletzea edo *liaison*-a bezalako birsilabatzeak²²⁰ —hitz bat kodadun silaban amaitzen bada eta ondorengo hitza bokalez hasi, hots katea modu jarraituan ahoskatzea hitz arteko mugak urtuz, hitzeko azken kontsonantea hurrengo hitzeko silaba ekinean gauzatuta—. Hurchek (2008) joera zentrifugo gisa

220 Erritmoaren araberrako tipologian tipo erritmikoak definitzeko ezaugarri esanguratsutzat hartzen da *liaison*-a egiten den ala ez, hitzen arteko mugak urtzen diren ala ez.

deskribatzen dituenak gauzatzen dira gehiago silaba-aldiko hizkuntzetan: polarizazioak, fortitioak, disimilazioak. Azentu-aldiko hizkuntzetan, berriz, aurkako joerak nagusituko dira, azentuaren indarrak eragindako gertakari segmentalak izango baitira gehiengoa: murriztapenak, lenitioak, ahultzeak (Hurch 2008). Euskara lehen talde honetan kokatzen da, §3.2.4.3 atalean ondorioztatu gisa, bilakabide segmentalen joera nagusiak kontsonante zein bokal bilkura handiak saihestu eta silaben arteko mugak nabarmentzea baitira —salbuespenak albuespen eta hizkeren arteko aldeak alde— (xehetasun gehiagorako, ikus §3.4.4.5). Ondorio gisa askotan hurbiltzen da euskarazko ekoizpena CV egitura oinarrizkoenera.

8.2.5.3. Silaben arteko mugak eta silaben zenbaketa

Hizkuntza batean posible diren silaba-egiturei, hots bilkurei eta gertakari segmentalei lotuta, silaben arteko muga zehazteko erraztasuna edo zailtasuna aipatu behar da (ikus §3.4.3.5). Izan ere, azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, silaba-egitura konplexuen eta azentuak baldintzatutako alofonoen eta murrizketen ondorioz, lausoagoak dira silaba-mugak eta batzuetan ez da erraza ahoskatutakoak zenbat silaba dituen zehaztea (Hurch 2006b: 6-7). Silaba-aldiko hizkuntzetan, berriz, silaba-egitura eta hots-bilkura posibleak erlatiboki sinpleagoak izanik eta azentuak ez duenez horrenbesteko eraginik alofonoetan edo murriztapenetan, ez da halako zalantzarik aurkitzen²²¹. Euskaraz silaben arteko mugak argiak izan ohi dira hainbat kontsonanteko bilkurak daudenean ere (ikus §3.4.4.4)

Hizkuntzaren fonologiak silaba kontaketa erraztea —edo zailteza— hizkuntza jakin horretan garatutako metrikarekin lot daiteke neurri batean (ikus §9.2.3.1 atala xehetasun gehiagorako). Ez da kasualitatea silaba-aldiranzko joera argia duten hizkuntzek, silaba kopurua zehaztea “erraz” dutenek, sarri silabak kontaktzen dituzten metrikak garatu izana —frantsesak edo euskarak, kasu— eta azentu-aldiranzko joera dutenek, berriz, silaba kopurua zehazteko zailtasunak izaki, azentu edo oin metrikoak zenbatzea, silaba-kopuru zehatza alboratuta —ingelesak edo alemanak, besteak beste—. Edonola ere, sistema metrikoaren eta fonologikoaren arteko harremana ez da beti egin berri dudan adierazpenean dirudien bezain sinple eta zuzena kasu guztietan; ulertu behar da bertsogintza, hizkuntzaren fonologiak eragiteaz gain, bestelako eragin sozio-kultural eta estilistikoek baldintzatua dela (De Sisto 2020).

221 Ez bada gaua [gaw.a]/ [ga.wa] bezalako hitzetan aurki daitezkeen irristari anbisilabikoek edo §3.4.4.2 atalean jasotako *eskoptkua* bezalako ekialdeko hizkeretako ekoizpenek, hori hala ahoskatzea posible bada, silaba-muga zehaztean eragin dezaketen duda.

Euskaraz gaur egun eta bat-bateko bertsoetan baliatzen den metrika aztertuta, silaba-aldiranzko joera duen fonologiarekiko koherentea dela esan daiteke, silaba-zenbaketan oinarritutako sistema baita baliatzen dena (ikus §9.2.3.2 atala azalpen sakonagorako. Auziaren interpretazio proposamen konplexuagorako, §10.4.1.5 atala). Jarraian bertsoen silabatzea baldintzatzen duten testu-uztartzeko ezaugarri nagusiei erreparatu diet, hizkuntzaren fonologiarekin batera, bertsolarien ekoizpenean eragin nabarmena izan baitezakete.

8.2.6. Silabatzea testu-uztartzean

8.2.6.1. *Erritmoaren arabera tipologiatik testu-uztartzeko silabatzeari begira*

Hitz lauz hots katearen antolamendua —silabatzea— desberdina da hizkuntzaren tipo erritmikoaren arabera, aurreko atalean aurkeztu bezala. Hizkuntza kantuan kanporatzen denean ere islatzen da —modu batean edo bestean eta neurri handiagoan edo txikiagoan (ikus §5)— antolakuntza erritmiko hori, askotariko mailatan. Baita silabatzean ere²²².

Rodríguez-Vázquezek (2010: 246-265) azentu-aldiranzko joera duen ingelesa eta silaba-aldiranzko erritmoa duen gaztelania hartuta, herri-kantu banaren kasu-azterketa egiten du. Kantuen oinarrian dagoen eredu-metrikoa eta hori betetzeko gauzatutako silabatzea aztertzen ditu, sinalefei erreparatuz, bereziki: neurria betetzeko hitzen arteko mugetan bokalak elkartzean muga horiek urtu eta, mugako bokalen bat desilabagiletuta, birsilabatzen ote diren edo ez begiratuz, alegia. Aztertutako kantuetan, gaztelaniaz sinalefa gehiago gertatzen dira ingelesez baino, bai oinarrian dagoen bertsoan —zentzu metrikoan neurria betetzeko aurreikusten diren horietan— bai azkenean kantuan bertsoa gauzatzean. Egileak zehazten du gaztelaniaz kantuan gauzatutako silabatze baliabide horiek hitz lauz gertatzen diren bilakabideak direla —ingelesez ez bezala— (Rodríguez-Vázquez 2010: 159-160).

Ingelesez abestutako herri kantuan, berriz, apenas dagoen bertso idatzian aurreikusitako sinalefarik baldintza metrikoak betetzeko. Bertsoa kantatzean, ordea, ez da inongo sinalefarik egiten: hots kateak “eskatu” adina silaba kantatzen dira. Rodríguez-Vázquezek (2010: 265-266) azaltzen duenez, gertakariok zerikusia dute hizkuntza bakoitzean baliatzen den bertso-neurriarekin: gaztelaniarena silaba-kopuruan oinarritua denez, ezinbestean gauzatu beharko dira batzuetan sinalefa bezalako birsilabatzeak; ingelesez, berriz, azterturiko kasuan behintzat, neurriak ez duenez silaba-kopuru finkoa eskatzen —azentuen gauzatze finkoa baizik—, kantariari askatasuna ematen

222 Ez dira asko testu-uztartzeko silabatzearen alor zehatza landu duten ikerlanak eta gehiagoren beharra dago lotura eta ondorio sendoak izango baditugu gaiaz. Orain arte esandakoarekiko koherenteak diren ideiak izaki lan horietan jasotakoak, testura ekarri nahi izan ditut, bertsoen azterketarako abiapuntu egokia eskaintzen dutelakoan.

dio ekoizpenean nahi edo behar beste silaba ekoizteko, ingelesaren joera fonologikoei jarraiki moldatuz doinua (ikus §9.2.4.1). Hizkuntzaren sistema fonologikoa eta eskakizun metrikoak ezagutzea funtsezkoa da, beraz, testu-uztartzeko silabatzea konprenitzeko.

8.2.6.2. *Hizketa mailaren araberako aldakortasuna kantuan?*

Rodríguez-Vázquezek (2010) aztertutako herri kantuetan hizkuntzaren tipo erritmikoaren eta testu-uztartzeko silabatze-ezaugarrien arteko harremana argia eta zuzena dela esan daiteke, hitz lauz gauzatzen diren bilakabideak gertatzen direlako kantuan ere; edo hitz lauz ekoizten ez denik ez delako kantuan ekoizten. Hizkuntzaren fonologiaren eta kantuko gauzatzearen arteko harremana konplexuagoa izan daiteke, ordea. Australiako iwaidja hizkuntzako²²³ *Jurtbirrk* kantuetan²²⁴, esaterako, CV silaba-egitura oinarrizkoeneranzko joera lekukotzen dute hitz lauz gertatzen dena baino modu indartsuagoan (Barwick et al. 2007). Iwajdja hizkuntzan kontsonante taldeak eta ekinik gabeko silabak gauzatzen dira, baina hizketa-mailaren araberako aldakortasuna ageri da silaba-egiturari dagokionez: hizketa maila arduragabeagoan, hitzak katean ahoskatzean, gehiago gerturatzen dira hiztunak oinarrizko CV egiturara (hizketa mailaren araberako aldakortasunaz, ikus Madelska eta Dressler 1996 edo Heinz 2014; §4.3). Aztertutako *Jurtbirrk* kantuetan hizketa maila arduragabeko joera hori muturrerago eramanda gauzatzen dela ikusten dute, hitz lauz gauzatzen ez diren bilakabideen bitartez eta hitz lauz gertatzen diren bilakabideen gauzatze eremua zabalduz. Abeslariak erranaldi (*utterance*) hasierako bokalak eta hitz bukaerako kontsonanteak ezabatzen dituzte (*bu-ma-ngung* ‘bildu ohi zuten’ → [bumaŋu]), bokal elkarketak bakundu (*a.a* → *a*), kontsonante taldeak sinpletu (*warrkbi* ‘gizon’ → [warəg^wi]) eta ttak epentetikoa txertatzen dute bokal elkarketak banatzeko (*a.a* → *a.ra*), besteak beste.

De Sistok (2020) proposatzen du hizkuntza baten fonologian posible diren ezaugarriak izan behar dituela hizkuntza horretan gauzatuko den metrikak, baina ez dutela zertan *sistema fonologikoaren erdigunean* dauden ezaugarriak osatu sistema metrikoaren ardatza. Ideia *Jurtbirrk* kantuetara ekarrita, iwaidja hizkuntzan posible diren eta gauzatzen diren bilakabideek hartzen dute beharbada nagusitasuna abestean, joera eta bilakabide horiek hitz lauz eginiko ekoizpenaren erdigunean egon ohi ez diren arren, akaso.

223 Iwaidja indar-azentudun hizkuntza dela zehazten dute Barwick eta kideek (2007), garaiera azentudun hizkuntzekiko aurrez aurre kokatuta.

224 Maitasun kantuak dira, dirudienez. Kantuaren metrika silabikoa dela dirudi, nahiz eta hitzaren eremuarekin bat datorren unitate metriko bat baduten eta kantuan azentu linguistikoak musikaren gune indartsuekin bat etorrarazteko joera agertzen duten.

Hizketa mailaren araberako aldakortasuna aipatzen dute Barwick eta kideek (2007), kantuetakoa hizketa maila arduragabeen gertatzen diren muturreko joerekin lotuz. Hitz lauz gauzatzen den aldakortasuna kantuan ere gauza daitekeela espero izatekoa da, kantu-genero bakoitzaren ezaugarrien arabera —(in)formaltasuna, testuingurua, *performance*-aren helburua, abeslariaren ezaugarri eta estiloa, etab.—²²⁵.

8.2.7. Silabatzea euskarazko bertsogintzan

Rodríguez-Vázquez (2010) azterketak agerian uzten duenez, kantuko testu-uztartzearen silabatzea metrikak baldintzatua da hein batean. Euskaraz ondoko bi ezaugarriak dira kontuan hartu beharrekoak, hedatuena dauden bertso-neurriez ari garela: 1) silaba-kopurua eta silaba horien taldekatzea²²⁶ eta 2) hoskidetasun eskakizunak (errima) (xehetasun gehiagorako eta gaiari buruzko eztabaidaz, ikus §9.2.3.2 atala). Lan honetan hoskidetasunaren gaia albo batera utzi dut, interesgarri bezain esanguratsua izanagatik, lanari ezarritako mugak gaindituko lituzkeelako. Silaba-kopuruari eta silaben taldeakatzeari erreparatuta, beraz, nola lortu aldiro sortutako bertsoek neurriak zehaztutako silaba-kopurua eta horien multzokatze egokia izatea?

Pentsatzekoa da erritmoaren araberako tipologian silaba-aldiko polotik gertu kokatzen denez euskara orain arte egindako ikerketen arabera, gaztelaniaren antz handiagoa izango duela bertso-neurria betetzeko estrategia fonikoetan. Areago, euskararen metrika ere silaba-zenbaketan oinarritzen bada, gaztelaniarena bezala. Erantzun azkarra baiezkoa izan daitekeen arren, panorama ez da homoginoa, eta euskal bertsogintzan neurria betetzeko erabili (izan) diren baliabideak aztertu ditut lehenik, corpusa horien arabera ere begiratzeko.

8.2.7.1. Neurria nola bete: “lizentzia metrikoak” (euskaraz)

§8.2.4 atalean aurkeztutako bilakabide fonologikoek hizkuntza zertxobait luze-laburtzeko baliabideak ematen dizkiote hiztunari; kasu honetan, bertsogileari. Metrikan bestelako izenez ezagutzen dira baliabide foniko horietako batzuk eta esan behar da guztiak ez direla bilakabide fonologikoak, morfologiarekin ere badute batzuek lotura, baina hots katearen luzera —silabatzea— aldatzeko baliatzen dira guztiak. Jarraian euskal bertsogintzan neurria betetzeko erabiltzen diren

225 Bestalde, §5 atalean azaldu bezala, musikak eta hizkuntzak duten harremanaren arabera ere —ekoizpenean alor bakoitzak duen pisuaren arabera eta bi alderdiak uztartzeko moduen arabera— hizkuntzaren fonologiatik gertuago edo urrunago egongo da ekoizpena (ikus Seeger 1987; Karlsson et al. 2014, besteak beste).

226 Silabek —edo, hobe esanda, neurriak— bertso-doinuarekin duten harremana ere esanguratsua da silabatzeari dagokionean. Gai hori §10.4.1.5 atalean landu dut.

—edo erabili izan diren— baliabide foniko nagusiak aurkeztu ditut, ahal den kasuetan gorago zerrendatutako bilakabide fonologikoen arabera (ere) izendatuz. Ondokoak dira:

- Sineresia. Hitz barneko bokalen diptongatzea (silabagiletasuna galtzea), neurrian silaba bat gutxiago lortuz: *Elurrez beteak dituzu* → *e.lu.rrez.be.t[**ja**]k.di.tu.zu* (Lekuona 2008a).
- Dieresia. Hitz barneko bokalen hiatotzea (irristariari silabagiletasuna ematea), neurrian silaba bat gehiago lortuz. *Pri.sio.ne.ro* → *pri.**si.o**.ne.ro* (Lekuona 2008a).
- Sinalefa. Hitz artean, bi bokal edo gehiago elkartzen direnean, lehen hitzaren amaieran dagoen bokala eta hurrengo hitzaren hasieran dagoenarekin edo daudenekin ahoskatzea, silaba bakarrean: *Zure etxe* → *zu.re.txe* (Lekuona 2008b), *daukana ikusten* → *dau.ka.n[**aj**].kus.ten* (Amuriza [1981] 1997: 306).

Ondokoa zehazten du sinalefaren euskarazko gauzatzeaz Lekuonak (2008b):

Euskal poesia idatziaren metrikan, sinalefa lotura horiek guztiak erabiltzeko askatasuna izan da, eta, gisa berean, sinalefarik ez egiteko askatasuna ere bai. Sistema irekia izan da. Arau zorrotzik gabea. Nolanahi ere, euskal idazleen metrika praktikoaren azterketek adierazten dutenez, goranzko diptongoak osatzen dituzten sinalefak ere egin izan dira eta inolako diptongorik osatzen ez duten bokal elkarketak ere bai, enklitiko edo azentu gabeak diren zenbait hitzekin bereziki; esate baterako, “eta”, “ere” juntagailuen lehen silabarekin elkartuz aurreko hitzaren amaierako bokala.

(Lekuona 2008b)

- Hiatotzea/ hiatoa. Hitz artean, bi bokal edo gehiago elkartzen direnean, lehen hitzaren amaieran dagoen bokala eta hurrengo hitzaren hasieran dagoena edo daudenak bereiz ahoskatzea, bakoitza silaba banatan: *daukate ogia* → *dau.ka.te.o.gi.a* (Amuriza [1981] 1997: 306).
- Gehiketak (epentesia, protesia, paragogea). Hots epentetikoak gehitzea hitzei (*Inglaterra* → *Ingalaterra*, *fusilatu* → *afusilatu*) (Lekuona 2008c, 2008d) edota morfemen aldakortasunak ematen dituen aukerak baliatzea (*gerade*, *inondikan*) (Lekuona 2008e), silaba-kopurua handitzeko.
- Kenketak (aferesia, sinkopa, apokopea). Hitz hasieran (*eta* → *ta*, *ere* → *re*, *egin dezagun* → *egin zagun*) (Altzibar 2008a), hitz barnean (*eskumutur* → *eskutur*) edo hitz amaieran (Hiriart-Urrutiren *Eskualdunako ur* ‘urde’) (Altzibar 2008b) segmentu edota silabak kentzea, batzuetan deklinabide edo aditz denbora markak bezalako morfemak —edo morfema zatiak— ezabatuz silaba-kopurua txikitzeko (Lizardiren “Izotz ondoko eguzki” poemako *berpizkun-berria*, ‘berpizkunde berria’, adibidez) (Altzibar 2008b).

8.2.7.2. Bertsogile batzuen silabatze-irizpideez

Aurreko atalean aurkeztutako baliabide foniko horien artean zeintzuk, noiz eta nola gauzatu sortzaile bakoitzaren esku dago, hizkuntzak eskaintzen dizkion baliabide eta mugek eremuan. Hasteko, hiztunarengan indarrean dauden bilakabideen eta erregelen arabera silabatzea gauzatuko du, aldakortasun aukerak sistema fonologiko horren baitakoak izanik (ikus §8.2.4 atalean aurkeztutako bilakabideak). Sortzaile bakoitzaren hizkera(k) kontuan hartzea garrantzitsua da, euskaraz goranzko diptongoen gauzatzea bezalako gertakariak agerian uzten dutenez. Ekialdeko hizkeretatik abiatuta bertsoak sortzen dituztenek bokal elkarketak modu batera silabatuko dituzte (ikus Altuna 1994: 1223); erdialde edo mendebaldeko hizkeretan jarduten direnek, berriz, bestela, beharbada²²⁷.

Hizkuntzak metrikarekin izan behar lukeen harremanari buruzko ulerkerak desberdinek ere askotariko emaitzetara eramaten gaitzake. Ematen duenez, sinalefa da aurreko mendeetan bertsogintzan aritu izan direnen artean eztabaida eragin duen baliabide metriko nagusia, hari lotutako bestelako bilakabideekin batera. Gaiari buruz plazaratutako iritziak eta testuetako joerak laburbilduz, “elisio-sinalefa” egiteko aukeraren aurrean lau jarrera bereizten ditu Altunak (1994: 1224) azken mendeetako bertsogileen artean:

- Oihenarten arabera, sinalefa beti egin beharrekoa da, aukera bada (Altuna 1979b: 270).
- Arana Goiriren ustez, “ia beti” egin behar da, bi arau orokor emanik horretarako (Altuna 1994: 1224)²²⁸. Derrigorrez egin behar da sinalefa 1) bokal berberen elkarketetan²²⁹ eta 2) diptongoa osa dezaketen bokalen konbinazioak aurkitzen direnean hitz artean²³⁰.

227 Edonola ere, azken urteetan bat-bateko bertsogintzan, behintzat, zabalduago dago ekialdeko hizkeren jabe ez direnek ere batzuetan kantuan goranzko diptongoak gauzatzea, hitz barnean.

228 *La fonética en el metro del verso* atalean Arana Goirik aurkezten dituen azalpen eta adibideak aztertuta uler daitekeenez, hitz arteko bokal elkarketa beti da egin beharrekoa, bere arauen arabera: “La *sinalefa* sólo puede ocurrir entre vocales y tiene el carácter de *forzosa*, esto es, de obligar al versificador a tenerla en cuenta en todos los casos, porque el fenómeno fonético en que consiste se efectúa también siempre en el habla corriente” (Arana Goiri [1896] 1963: 926).

229 “Cuando un vocablo termina en el mismo sonido vocal con que empieza el que le sigue”(Arana Goiri [1896] 1963: 927)

230 “Cuando un vocablo termina en vocal simple capaz, por naturaleza y colocación, de formar diptongo con la inicial del vocablo siguiente” (Arana Goiri [1896] 1963: 927-928)

Zerrendatzen dituen kasu posible guztiak beheanzko diptongoak dira (*au, eu, ai*, etab.), eta ematen duen adibide bakarrean ere beheanzko diptongoa ageri da: *zintzoena ixanik* (Arana Goiri 1896: 192). Gaitzesten dituenak goranzko diptongoak direla pentsa daiteke, beraz, “Vicios usuales” gisa aurkezten baitu “behar ez denean” sinalefa egitea. Horren argigarri eskaintzen duen adibide bakarra sineresi bat da: *joan* hitza bi silabatan ahoskatzea (sineresia egitea, alegia), euskaraz o eta a bokalek diptongorik osatzen ez dutela zehaztuta (Arana Goiri [1896] 1963: 928).

- Jose Ignazio Aranak, berriz, uste du ahal den gutxien egin behar dela²³¹ (Arana 1872, *apud* Altuna 1992: 138-139). Hiribarrenek molde hori jarraitzen du bere *Euskaldunak* poeman, sinalefa bakarra gauzatuta, Altunak (1994: 1224) zehazten duenez.
- Tradiziotik datorren modua. “[M]odu zaharrena, betikoa, bertsolariena” den horretan sinalefa behar metrikoen arabera egiten da, “komeni denean, aisiara, batere araurik gabe” (Altuna 1994: 1224). Molde honen arabera silabatzen duten bertsogileen artean, bat-bateko bertsolariez aparte, Etxepare, Etxeberri Ziburukoa eta Aresti²³² sartzen ditu Altunak.

Bertsoa osatzeko ulerkera bakoitzak abiapuntu eta emaitza desberdina dakar. Altunak (1994: 1224) azaltzen duenez, “[b]ertso honek, esate baterako, *ia negua etorri da eta elurra ere bai*, Oihenartentzat hamabi silaba baizik ezin izan ditzake, ez gehiago eta ez gutxiago; Etxepareentzat, berriz, hamabost ere bai”. Ulertzekoa da bat-bateko bertsogintzan “komeni denean” egitea sinalefa, esan nahi den hori unean bertan ekarri behar baita silaba kopuru jakinera. Idatzizko bertsogintza landuagoak, sorkuntza prozesua pausatuagoa den heinean, bestelako arau zorrotzagoak jarraitzea ahalbidetzen du, bertsogileak hala nahi izanez gero.

Lan honetan aztertu dudana corpusean eragin zuzena izan dezaketen sortzaileen esanak, besteak beste, aztertzea intereseko izan daiteke auzi honetan, txapelketetako epai-irizpideetan jasotakoa begiratzeaz gain (ikus jarraian §8.2.7.3 atala), silabatze-aukeren atzean dagoen pentsamoldea hobeto ulertzeko. Jarraian bertsolaritzaren ulerkeran mugarriztat hartzen den Amurizaren (1981a) ikuskera jaso dut²³³.

Neurria egoki betetzeko baliabideei buruz ari dela, Amurizak ([1981] 1997) “laburdurak” (eta luzadurak) eta “diptongoak eta diptongo hautsiak” (sineresia, dieresia, sinalefa eta hiatoa) aipatzen ditu (mor)fonologiari lotuta. Laburdurei dagokienez, “euskara osoarenak edo inguru handikoak” (Amuriza [1981] 1997: 294) direnak gauzatzea hobesten du komunikazioa ziurtatzeko,

231 Sinalefa, beste baliabide metriko batzuekin batera, euskaraz sortutako bertsoetan egitea libre dela zehazten du Jose Ignazio Aranak, halere: “La sinalefa, la sinéresis, la diéresis y la diálisis, que son las licencias más comunes en la métrica, son libres en el verso bascongado o están al arbitrio del poeta, con tal que su uso avenga bien con la música y fluidez que al verso corresponda” (Arana 1872, *apud* Altuna 1992: 131).

232 Mitxelenak (Michelena [1978] 2011: 320) kokatzen du Aresti azken talde honetan: “Todas las líneas, eso sí, tienen siempre trece sílabas porque Aresti, de acuerdo con la métrica tradicional (más que con la de Oihenart o la de los ‘olerkaris’), no se consideraba obligado a elidir vocales o a hacer sinalefas. En otras palabras, no evita el hiato, aunque no medie cesura o pausa: *arbol(a) adar-gabeen*, pero *nire arima dago*, en grupos de 7 sílabas cada uno”.

233 Garzia eta kideek (2001) bertsogintza ikuspegi komunikatibo batean kokatu eta erretorikaren kanonen bidez ulertzeko proposamena egiten dute, eta lan hori ere aztertu dut silabatzeaz esaten dena jasotzeko asmoz. Ez dute, ordea, bertsoaren alderdi formaletan horrenbeste sakontzen doinuari, neurriari eta erimari buruzko nozio orokorrak kokatu eta horiek bertsoaren alor komunikatiboa nola baldintza dezaketen azaleratzeaz harago. Bertsoa betetzean onargarri iruditzen zaizkien silabatze-aukerak edo neurria egoki betetzeko estrategiak ez dira aipagai, lanaren fokua bertsoaren eremu zabalagoan kokatzen baita.

Auziaren ulerkera sakon eta osorako, beharrezkoa litzateke Amurizaren lanean esandakoak jasotzeaz gain, bertsolari guztien adierazpenak lantzea —artxiboko azterketa eginda, adibidez—, eta, ahal den kasuetan, sakoneko elkarrizketak egitea, besteak beste. Etorkizunerako geratzen da lan hori.

“lokalismoak” alde batera utzita. Hori esanik, laburdura aukerak zerrendatzen ditu²³⁴: 1) aditz jokatuetakoa eta deklinabide formetako bokal elkarketak sinpletzea (aditzean: *genuen* → *genun*, *gaituen* → *gaitun*, *nukéen* → *nuken*, *legokeen* → *legoken*, *duela* → *dula*, *zaituela* → *zaitula*, etab.; deklinabidean: *etxean* → *etxen/ etxin*, *osoena* → *osona*, *maiteena* → *maitena*, etab.); 2) aditz eta deklinabide (morfemen) forma murriztuak edo luzatuak erabiltzea (aditzean: *nintzateke* → *nintzake*, *zaizkio* → *zaizko*, *ezazu* → *zazu*, *dezaket* → *zaket*, *diren* → *direan/ dirian*, *dira* → *dirade*, etab.; deklinabidean: *amaren* → *aman*, *handiago* → *handigo* → *handio*, etab.) (Amuriza [1981] 1997: 294-296). 3) Bokal arteko kontsonanteen galera du jarraian hizpide Amurizak ([1981] 1996: 296-299), luze jardunez testuinguru desberdinek ematen dituzten aukerez (*pagatu* → *patu*, *eraman* → *eaman*, *mugitu* → *muitu*, *erremediorik* → *erremeiorik* → *erremeioik*, *ezagutu* → *ezautu*, *herenegun* → *hereneun*,). Nabarmentzekoa da muturrera eramaten dituela laburtze-aukera batzuk, euskaraz agian hizkera askotan horren ohiko ez diren murriztapenak zerrendatuz: *gero* → *geo* edo *balego* → *baleo* ohikoak izan daitezke, adibidez, baina *espero* → *espeo*, edo *trago* → *trao* ez horrenbeste. Laburdurek hitzean duten kokapenez egiten du gogoeta ondoren, hitz barnean egindakoak gutxiago nabari direla adieraziz. *Euskal Herrian bazen / hamaika erromei* eta *Oso emanak gaude / erromeietara* adibideak alderatuta, bigarrena hobesten du, laburdura “gutxiago nabari” dela esanez (Amuriza [1981] 1997: 298). Hitzen luzera ere kontuan hartzeko aldagaitzat aurkezten du, hitza zenbat eta luzeagoa izan, laburdurak orduan eta gutxiago eragingo diola sinetsirik, deklinabidea eta bestelako atzizkiak ere jokoan sartzen baitira, gainera (bere arabera ez da gauza bera *patu* ‘pagatu’ esan edo *patuko* ‘pagatuko’, bigarren forman hitza aditza dela errazago ondoriozta daiteke eta, *-ko* markari esker). Laburduren emaitzek ekar dezaketen anbiguotasunaz ere ohartarazten du:

Esate baterako, *gari* hitza kantatzean, *gai* esaten bada, beste hitz oso ezagun bat bilakatzen da. *Segi* laburturik sei. Zenbakia. *Pagatu* laburturik *patu*. Hitz hau berdin izan daiteke *paratu*-ren laburdura. Badago beste hitz bat, *patu*, destinoa edo fatalitatea esan nahi duena.

Kontestuak, jakina, nahastea ken lezake. Baina hitz batean ez ezik, hitz askotan gauza bere [sic.] egiten bada, zailago da argitasunari eustea, batez ere laburduren egikeran lekutik lekura alde handiak baitaude.

(Amuriza [1981] 1997: 299)

Laburdurekin batera, bertsoetan bokal-bilkuren trataera nolakoa izan beharko litzatekeen zehazten du Amurizak ([1981] 1997: 305-307), “diptongoak eta diptongo hautsiak” zein diren zehaztuta. Laburbilduz, hitz barnean beheranzko diptongoak soilik ematen ditu ontzat (*hau.tsi*, *gai.tu*, *sa.soi.a*, *geu.re*, *bei.ra*, *Gas.teiz*, *Za.rautz*, etab.), gainerako bokal-bilkurak silaba banatan ahoskatu behar direla zehaztuz: *a.te.a*, *be.gi.a*, *ba.li.a.tu*, *ge.ni.en*, *da.ri.o*, etab. Ez ditu sineresiaren

234 Amurizak ez ditu jarraian aurkeztutako puntuak bere horretan aurkezten, bestela antolatzen ditu gertakari eta adibide sortak. Lan honetan hartzen dudana ikuskeraren arabera antolatu ditut gertakariak.

ondorio lirarekeen goranzko diptongoak ontzat ematen, ez eta beheranzko diptongoen hiatotzea (dieresia) ere. Silabatze okertzat ditu *o.ka.sio.rik*, *mai.tea.ren*, *kan.bio.a*, *be.gie.ta.tik*, *ga.ur edo o.ra.in* gisakoak.

Hitz artean gertatzen denean bokal elkartzea, hiatoa onargarria da Amurizaren ustez ([1981] 1996: 306), bokal bakoitza silaba banatan ahoskatzea (*daukate ogia* → *dau.ka.te.o.gi.a*). Sinalefa egitea ere ondo dago bere arabera, bi bokalak silaba bakarrean ahoskatuta, bokal konbinazioa edozein izanik ere. Dena den, beheranzko diptongoa emaitza luketen konbinazioak hobesten ditu Amurizak hitz artean (*daukana ikusten* → [daw.ka.naj.kuś.ten]). Bokal berbera elkartzen denean, hitz artean bakuntzea ere egoki ikusten du (*hori izaten* → [o.ri.sa.ten]), suerta daitezkeen anbiguotasunekin kontu izan behar dela ohartarazten duen arren kasu honetan ere²³⁵. “Gogorren” hitz arteko bokal elkarketaren emaitza gisa goranzko diptongoa suertatzen denean egiten zaio, azken kasu hau ere ontzat eman arren: *badaki orduan* → [ba.ða.kjor.du.an].

8.2.7.3. Corpuseko bertsoak kokatuz: bilakabide fonologikoak, bertso-neurria eta beste epai-irizpideen argitan (1980-2017)²³⁶

Kapitulu honetan aztertutako corpusa (xehetasunez, ikus §7) 1980-2017 bitarteko Bertsolari Txapelketa Nagusietako bertsoek osatzen dute. Txapelketa bakoitza epai-irizpide batzuk jarraituz ebatzi da, horien arabera izendatuz txapelduna. Bertsogintzaren ikuspuntu bat islatzen dute irizpideok²³⁷ eta, txapelketa bat den heinean, saritu eta zigortzen dena zehazten dute xehetasun gehiagoz edo gutxiagoz. Bertsolarien jarduna ulertzeko tresna izan daitezke, neurriari, hoskidetasunari edo silabatze-aukerei buruzko oharrak jasotzen baitira.

Irizpideek bilakaera izan dute 1980tik 2017ra arteko ia lau hamarkada horietan. 1980 eta 1982ko txapelketak²³⁸ —Xabier Amurizak irabazi zituenak— Euskaltzaindiak antolatu zituen, eta

235 “Bokal berdinez silaba bakarra egitean, hitz batek zati bat galtzen du: *i-ku-si-noiz*. Hemen *inoiz* hitzak zati bat galdu du, *noiz* bilakaturik. Orduan, batez ere hitz laburrak direnean, hitzaren zati handia galtzea gerta daiteke. Adibidez *bi hil*, -hatxerik ahozkatzen ez duenaren ahoan-, bat egin eta *bil* kantatzen bada, *hil* hitzaren gehiena galdu da. Gainera gertatzen den hitza beste hitz oso ezagun bat bilakatu da: *bil*. Bi silabako hitzak jarririk ere, arriskugarri da. *Dauka ate* = *dau-ka-te*. Hemen *ate* hitzak erdia galdu du eta entzuten den hitzategina daukate da, beste hitz oso ezagun bat.

Beraz, bi gauza eduki behar dira kontuan. Alde batetik hitzak bere izatetik zer proportzio galtzen duen eta bestetik sortzen den emaitzak ea nahaspiderik dakarren, oso hitz ezberdina eta ezaguna den aldetik” (Amuriza [1981] 1997: 307).

236 Jarraian eginiko berrikuspenean ez ditut neurriari dagozkion gaiak ia ukitu, silabatzea ezinbestean baldintzatzen duten arren. Horietaz §9.4.4.4, §10.2.2.2 eta §10.4.1.5 ataletan aritu naiz.

237 Garaian garaiko ikuskera nagusia izan daitekeena edo ez guztiz. Aztergai da hori ere.

238 Ondokoak dira 1980an epaimahaia osatu zutenak: Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu, Fernando Artola “Bordari”, Jesus Mari Etxezarreta “Izazpi”, Alfonso Irigoien, Mixel Itzaina, Juan Mari Lekuona, Abel Muniategi, Juan San Martin eta Antonio Zavala (Euskaltzaindia 1979b: 795; Bertsolaritzaren Datu Basea, sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/625-bertsolari-txapelketa-nagusia-7-1980> [azken kontsulta: 2023-08-14]).

lau puntu nagusi zituzten irizpideetan: a) Gaia, b) Hizkuntza, c) Egitura eta d) Neurria eta puntuak. Azkenak egiten die erreferentzia kapitulu honetan aztergai dugunari, zehaztuz neurria “musikaren arabera” (Euskaltzaindia 1979: 790) zehaztu behar dela, xehetasun gehiagorik eman gabe (ikus §9.4.4.4 eta §10.4.1.5 gai horretan sakontzeko).

Bertsolari Elkarteak —gerora Bertsozale Elkarteak izango zena— 1986an hasi zen Bertsolari Txapelketa Nagusia antolatzen (ikus §7.3.2). Sebastian Lizasok irabazi zuen 1986ko txapelketan epaimahaiak²³⁹ baliatu zituen irizpideak 1985ean zehaztu ziren (xehetasun gehiagorako, ikus Aramendi 2016). 1986ko irizpideek 1980ko eta 1982ko txapelketetan zehaztutako lau atalak mantentzen dituzte —gaia, hizkerabidea, metrika eta saioaren egitura—, baina gehiago sakontzen dute horietako bakoitzean. Metrika baloratzeko irizpideen baitan, “doinuarekin eta silabaka, etenak ondo zainduz” neurria betetzea da eskakizun nagusia (Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak 1985). Doinuak markatzen duen silaba-kopurua eta silaba horien taldekatzea kontrolatzea eskatzen zaio bertsolariari. Horrek nabarmen baldintza dezake bertsolariaren silabatzea, hautu lexiko eta perpausen formulaziotik hasi eta segmentu katearen kanporatze moduraino, bilakabide jakinak gauzatu edo gaindituz silaba-kopuru eta taldekatze egokia lortu ahal izateko (gogoratu kapitulu honen sarreran aipatutako neurria betetzeko estrategiak; *bertsoikasgela.eus* atariko “Neurrian sartzen: esaldiak” dokumentuan jasoak, adibidez).

Hurrengo txapelketarako, Jon Lopategik irabazitako 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusirako, berrikusi egin zituzten epai-irizpideak²⁴⁰ (xehetasunetarako, ikus Aramendi 2016), eta horiek 1993ko txapelketetan ere baliatu ziren²⁴¹. Aurreko txapelketetako ardatz nagusiak gutxi gorabehera mantendu arren —gaia, hizkerabidea, metrika eta “beste”— (Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak 1990: 17-21), bertsoaren sortze eta hautemate zein epaitze prozesuez hausnartu eta arau zehatzagoak ezartzen dira bertsogintza ukitzen duten zenbait alorren gainean. Molde txikiko

1982ko epaimahaia osatu zutenak: Jose Antonio Arana Martija, Joxe Mari Aranalde, Antton Aranburu, Jesus Mari Etxezarreta "Izazpi", Alfonso Irigoien, Mixel Itzaina, Emile Larre, Abel Muniategi eta Antonio Zavala (Bertsolaritzaren Datu Basea, sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/1276-bertsolari-txapelketa-nagusia-8-1982> [azken kontsulta: 2023-08-14]).

239 1986ko txapelketan ondokoak izan ziren epaile-taldea osatu zutenak: Anttonmari Aldekoa-Otalora, Joxe Ramon Arbe "Arbe", Joxe Mari Arrieta, Trino Azkoitia, Joxerra Garzia, Patxi Goikolea, Karlos Ibarzabal, Rufino Iraola, Andoni Iriondo, Jesus Mari Mendizabal "Bizargorri", Fermin Mihura, Eusebio Osa, Iñaki Sarriugarte eta Nikolas Segurola (Bertsolaritzaren Datu Basea, sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/1308-bertsolari-txapelketa-nagusia-9-1986> [azken kontsulta: 2023-08-14]).

240 Epaimahaikideak ondokoak izan ziren 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusian: Anttonmari Aldekoa-Otalora, Joxe Mari Arrieta, Trino Azkoitia, Jesus Mari Etxezarreta "Izazpi", Joxerra Garzia, Rufino Iraola, Mixel Itzaina, Abel Muniategi eta Iñaki Sarriugarte (Bertsolaritzaren Datu Basea, sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/1357-bertsolari-txapelketa-nagusia-10-1989> [azken kontsulta: 2023-08-14]).

241 1993ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko epaimahaikideak: Anttonmari Aldekoa-Otalora, Markel Arizmendi, Luis Baraiazarra, Felix Irazustabarrena, Mixel Itzaina, Antton Kazabon eta Joseba Santxo (Bertsolaritzaren Datu Basea, sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/763-bertsolari-txapelketa-nagusia-11-1993> [azken kontsulta: 2023-08-14]).

neurriko silaba kopuru zehatza jasotzen da, adibidez (xehetasun gehiagorako, ikus §10.2.2.2). Ematen du orduko bertsogintzaz zeuden zenbait eztabaidaren harira jasoak direla irizpideetako batzuk.

1989ko txapelketako epai-irizpideetan²⁴² (Euskal Herriko Bertsolari Elkarte 1990: 19-21) bertsoa ahozko jarduna delako aipua ageri da, adierazpide idatziarekiko aldeak markatuz. Era berean, txapelketako testuinguru komunikatiboaren formaltasuna azpimarratzen dute irizpideek, “jendaurreko jarduna” den heinean “hizkera publikoari dagokion maila” eskatzen duela zehazten baita. Horri lotuta, hizkera estandarren eta tokian tokiko hizkeren erabileraz ari direla uler daiteke akaso esaten denean “euskalki guztiak onartzen direla” entzuleak ulertzeko moduko hizketa egitea komeni dela adieraziz, “jendaurreko gutxieneko maila”-n. Euskal Herriko txapelketa den heinean, lurralde desberdinetako bertsolari eta bertsozaleak elkartzen dira saioetan eta entzule guztientzat ulergarri den hizkera eta erregistroa baliatzeko eskatzen zaio bertsolariari, ematen duenez.

Kokapen horretan, eta adibide zehatzak baliatuz, hots katearen silabatze-aukera onargarriez jarduten dira irizpideak, bai *hizkerabideari* dagokion atalean, bai *metrikarenean*. Erregistroak zein baldintzatutako “hitz eraldaketa” eta “laburdurak” zaintzeko deia egiten da, “tradizio bat dutenak” onartu arren, “forma osoa hobetsiz”. Irizpideek oinarritzko aurkezpenarekiko gardentasunaren alde egiten dutela dirudi.

“Forma osoa” hobetsi arren, bilakabide fonologiko sintagmatiko orokortuenak —testuan “tradizio bat” duten “hitz eraldaketa” eta “laburdurak”— onargarritzat hartzen dira, irizpideetan bertan jasotako adibideetatik ondoriozta daitekeenez: txistukari ondoko herskari ahostunaren ahoskabetzea eta bokal arteko ttak-aren kenketa (*ez dira* → *eztia*), bi txistukari frikari elkartzean silaba kodakoa kendu kendu eta ondoko silaba ekinekoa afrikatzea (*ez ziren* → *etzian*), hots katearen birsilabatzea, bokal elkarketaren bakuntzearekin batera (*gero ere* → *gero re*), bokal arteko igurzariaren kenketa, goiko bokalek silabagiletasuna galtzea eta are diptongoa monoptongatzea —irristaria kentzea— (*egin* → *ein* → *iñ*), etab. (ikus gorago §8.2.4 atalean euskaraz gauzatzen diren bilakabide fonologiko sintagmatikoen zerrenda). Hori bai, lenitio ohikoenen gauzatzea onartu arren, bertsolariari *koherentzia* eskatzen zaio hautatutako forma lexikoetan eta horien silabatzean, *bertso osoan* zehar: behin forma bat hautatuta (*gerade*, adibidez) eta modu batean gauzatuta, ez da onargarritzat hartzen hautu hori aldatzea (*gara* edo *gera* erabiltzea, kasu).

Bestalde, neurriari lotuta irizpideetan bereziki aipatzen da “diptongoak puskatzeko” bertsolari batzuek omen duten joera, metrikan *dieresi* gisa ezagutzen den fenomeno, *gaur* → *ga.ur* edo *zait* → *za.it* gisakoak gauzatuz, horrela neurriaren silaba-eskakizunak betez. Baliabide hori gaitzetsi

242 Irizpide berberak baliatu ziren 1993ko txapelketan ere.

egiten da irizpideetan. *Gaur* edo *zait* bezalako “hitz guzti horiek” —ez da gehiago zehazten— silaba bakarrean gauzatu behar liratekeela esaten da.

1997ko Txapelketa Nagusirako²⁴³ 1989ko irizpideak berrikusi eta, ideia batzuk moldatzeaz gain, xehetasun eta adibide-sorta oparoa gehitu zitzairen irizpideei. 2001eko Bertsolari Txapelketa Nagusirako irizpideetan²⁴⁴ Garziaren (2000) tesiaren harira mahai-gaineratutako komunikazio-ikuspegia txertatzen hasteko ahalegina egin zen, horri lotuta testuinguruari gehiago erreparatuz (xehetasun gehiagorako, ikus Aramendi 2016, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 2001: 2-3, Garzia et al. 2001). Hona hemen aurreko txapelketetako irizpideetan dagoeneko aipatutako auziak nola osatu ziren agertzen duen lagina, silabatzea ukitzen duten gaiak jasota (2001eko irizpideetan jasota dauden eran²⁴⁵):

3. HIZKERARI DAGOZKION IRIZPIDEAK

3.1. Bertsolaritza ahozko jarduna da; beraz, ahozkoaren arau fonetikoak errespetatzea gomendatzen da:

<u>idatzizkoa</u>	<u>ahozkoa</u>
<i>ez da</i>	<i>ezta</i>
<i>ez zen</i>	<i>etzen</i>
<i>ez nuke</i>	<i>enuke</i>

3.2. Ahozko tradizioaren arabera *oa/ua* eta *ea/ia* lizentzia moduan onar daitezke, baina bakoitza bere sailean errendiaraztea hobesten da: *gaztea/ emaztea, guztia/ eztia, osoa/ gurasoa, sua/ musua...*

3.3. Bokal arteko kontsonante jateak ez dira hain gaitzesgarriak errima ez direnean: *eaman, kalea, etxea...*

3.4. Baina bertsolaritza jendaurreko jarduna denez, jendaurreko hizkera-maila erabili behar du bertsolariak. Beraz, txokokeriak baztertzea komeni da. Bestalde, gutxieneko koherentzia eskatzen da, hau da, bertso batean forma beraren barianteak ez erabiltzea.

[...]

3.10. Edozein euskalkitan kanta dezake bertsolariak, jendaurreko gutxieneko mailara iritsiz gero

3.11. Tradizioa duten laburdurak onartu egingo dira, nahiz eta, beti ere, forma osoa hobetsi

<u>osoa</u>	<u>laburtua</u>
<i>ez dira</i>	<i>eztia</i>
<i>ez ziran</i>	<i>etzian</i>
<i>gero ere</i>	<i>gerore</i>
<i>egin</i>	<i>ein / in</i>
<i>amaren</i>	<i>aman</i>

3.12. Badira, bestalde, Euskal Herriko parte handi batean ohikoak diren formak: *zun, nun, genun, nekin, zula, nula, zenula, handina, dagola...* Hauek ere ontzat emango dira.

243 1997ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko epaimahaikideak: Anttonmari Aldekoa-Otalora, Luis Baraiazarra, Felix Irazustabarrena, Antton Kazabon, Patxi Larretxea, Arantzazu Loidi eta Joseba Santxo (Bertsolaritzaren Datu Basea, sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/1358-bertsolari-txapelketa-nagusia-12-1997> [azken kontsulta: 2023-08-14]).

244 2001eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko epaimahaikideak: Jon Abril, Mikel Aizpurua, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Patxi Larretxea eta Joseba Santxo (Bertsolaritzaren Datu Basea, sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/764-bertsolari-txapelketa-nagusia-13-2001> [azken kontsulta: 2023-08-14]).

245 Jasotako aipuan —silabatzea ukitzen duten auzietan— 1997ko eta 2001eko irizpideen arteko alde gehienak formulazioari dagozkionak dira, horregatik jaso dut irizpideen “azken bertsoia”. Landutako testu zatian bi bertsoien artean aipagarriak diren desberdintasunak bi dira: 2001eko irizpideen bertsoian 4.5. puntua azaltzeko adibidea eskaintzen da (1997an ez zen adibiderik), eta 1997an errimaren atalean 5.5.3 puntua zegoen, 2001ean jasotzen ez dena. 5.5.3. puntu hori 2001eko aipua amaitzean dagoen oin oharrean jaso dut.

3.13. Hemen, ordea, beste puntu batean aipatu dugun bezalaxe, koherentzia ezinbestekoa, alegia, bertso berean forma berbera erabiltzea eskatzen da.

3.14. Luzadurak baliabide itsusiak dira: *sufritutzen, etorritzen...* Hala ere, tradiziozko formak ontzat emango dira: *oraindikan, lanikan, zurekilan...*

3.15. "A" itsatsia duten hitzetan (gauza-rik, bultzada-rik, arrosa-rik, gazta-rik...), hitza bere osoan errespetatzea hobesten da. Nolanahi ere, aski onargarri da forma hori, "A" itsatsia kendu arren hitz-erroa bokalez amaitzen denean: *anai(a)rik, grazi(a)rik, handikeri(a)rik, egi(a)rik, Kontzientzi(a)rik, filosofi(a)rik*. Alabaina, ez da hain onargarria, "A" kendu ostean, hitz-erroa kontsonantez amaitzen bada: *gau-ik, bultzad-ik, arros-ik, gazt-ik, dud-ik, falt-ik, junt-ik, ardur-ik*. Beraz, batez ere neurriagatik baino areago errimatzeagatik sartzen denean, errima pobretzat joko da
[...]

4.- NEURRIARI DAGOKION IRIZPIDEAK

[...]

4.7. Dieresiak, diptongo hausketak (ga-ur, se-i, na-u...), ez dira ontzat emango.

4.8. Sineresiak, hiato desegitea (ba-goaz, zu-ek,...) ez dira ontzat emango. Hala ere, tradizio handia dutenak onar litezke, lizentzia moduan: joan, behar...

4.9. Sinalefa beti libre izango da: *gure izakera...*

[...]

(Euskal Herriko Bertsozale Elkartea 2001: 5-12)

Aurreko irizpideetan jasotako ideietan sakonduz, 1997ko irizpideetan bertsolaritza ahozko jarduna dela azpimarratu eta “ahozkoaren arau fonetikoak” erabiltzea hobesten da (*ez da* → *ezta*, *ez zen* → *etzen*, *ez nuke* → *enuke*), berrikuntza gisa, euskaraz indarrean diren hainbat bilakabide eta erregelari bide emanez. Horiekin jarraituz, hainbat euskal hizkeratan determinatzaile singularraren morfema mugan gertatzen diren bokal disimilazioak (*e.a* → *i.a*; *o.a* → *u.a*) onartzen dira “lizentzia” gisa —ez da zehazten lizentzia hori errimatzeko den ala ez, hala uler daitekeen arren beharbada—, “jatorrizko” formak (disimilatu gabeak) hobesten diren arren. Alegia, *gaztea* eta *emaztea* nahiago direla *gaztia* eta *emaztia* baino, etab. Bokal arteko kontsonanteen kenketa ere onartzen da (*kalera* → *kalea*, *eraman* → *eaman*), betiere bertsolariak errimatik kanpo ere erabiltzen badu. Azken finean koherentzia da formen erabilerarekin eskatzen dena, bertso berean beti berdin erabiltzea —silabatzea— hitz horiek. Halere, ematen du oinarritzko aurkezpenetik gertu(en) dauden formak hobesten direla bai bertsoaren formulazioan, oro har, bai errima-hitzak (oinak) hautatzean ere.

Luzatzeak ere hizpide dira: *sufritutzen* gisako formak ez dira ontzat ematen, “tradizioa” dutenak onartzen diren arren: *oraindikan, lanikan* edo *zurekilan*, adibidez. *A itsatsiaren* trataera ere aipagai dute irizpideek, neurria nahieran betetzeko baliabidea izateaz gain errimatzeko baliabide gisa ere gauza baitaiteke a itsatsia (ez) ahoskatzea.

Neurriari dagokion atalean, aurreko irizpideetan jasotakoa ekartzeaz gainera, silabatzeari zuzenean lotutako oharrak egiten dira. Aurreko irizpideetan ere esan bezala, dieresia, hitz barnean silaba berean ahoskatutako bi bokal (diptongoa) banatu eta bi silabatan ahoskatzeko joera ez da

onartzen: *ga.ur, se.i, na.u* ez dira ontzat hartzen. Sineresiak ere ez: hitz barnean silaba desberdinetan gauzatzekoak ziren bokalak silaba bakarrean ahoskatzea akastzat hartzen da. *Bagoaz* [ba.goas], *zuek* [zwek] eta gisakoak ez dira onartzen, zabaldua dauden sineresi kasu zehatzak ez badira; silaba bakarrean ahoskatutako *joan* edo *behar* gisakoak. Sinalefak, ordea, nahieran erabil daitezke: *gure izakera* ([gu.rej.sa.ke.ra] ahoskatuta, ulertzen dut).

Laburdurei dagokienez, forma osoak hobesten dira, beste behin, “tradizioa dutenak” onartu arren. Adibide gehiago gehitzen dira 1997ko irizpideetan, horien artean aditzetako bokal bilkuren desegitea, /e/ bokalaren kenketa: *zun, nun, genun, nekin, zula, nula, zenula*, etab. Horrelako laburdurak onartzeak baliabideak ematen dizkio bertsolariari neurriak eskatzen duen silaba-kopurua bete ahal izateko. Laburdurak erabiltzean koherentzia da, beste behin, irizpideetan eskatzen dena.

2005eko Txapelketa Nagusirako epai-irizpideak berrikusten jarraitu zuen epaile-taldeak²⁴⁶, Garziak (2000) komunikazio-ikuspegitik egindako ekarpenetan sakonduz (ikus §6.3). Bertsolaritza ekintza komunikatibo gisa ulertu eta testuinguruari ematen zaion garrantzia dela eta, irizpideek alor gehiago hartzen dituzte kontuan, eta gehiago sakontzen dute ordura arte landutako osagaietan. Gaia, hizkera, neurria, errima eta oinak, doinua, testua, baliabide paratestualak eta denbora dira 2005etik aurrerako irizpideetan jasotako puntuen izenburuak.

Mamiari dagokionez, ez da ideia berririk gehitzen 2009ko²⁴⁷, 2013ko²⁴⁸ eta 2017ko²⁴⁹ epai-irizpideetan. Punturen batzuk moldatzen dira azaldu nahi den ideia argiago gera dadin eta atal bakoitzaren amaieran sarituko diren alderdiak eta zigortuko direnak zehazten dira.

Jarraian datorren aipuan silabatzea zuzenean edo zeharka aipatu eta, ondorioz, baldintza dezaketen pasarteak ekarri ditut 2017ko irizpideetatik:

246 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko epaimahaikideak: Jon Abril, Mikel Aizpurua, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Saioa Mitxelena eta Joseba Santxo (Bertsolaritzaren Datu Basea, sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoak/view/1233-bertsolari-txapelketa-nagusia-14-2005> [azken kontsulta: 2023-08-14]).

247 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko epaimahaikideak: Jon Abril, Aitzol Astigarraga Pagoaga, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Ekaitz Elorriaga, Asier Ibaibarriaga, Zigor Leunda, Joseba Santxo, Josu Telleria Uriarte eta Bakarne Urreaga (Bertsolaritzaren Datu Basea, sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoak/view/1396-bertsolari-txapelketa-nagusia-15.-2009> [azken kontsulta: 2023-08-14]).

248 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko epaimahaikideak: Jon Abril, Martin Aramendi, Iñaki Aurrekoetxea, Eneritz Azkue, Mirari Azula, Mikel Beaumont, Eneko Bidegain, Nerea Bruño, Ekaitz Elorriaga, Mikel Fernandez de Arroiabe, Jurgi Fuentes, Karlos Ibarguren, Gorka Intxaurbe, Aitor Jimenez, Mikel Lersundi eta Josu Telleria Uriarte (Bertsolaritzaren Datu Basea, sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoak/view/1925-bertsolari-txapelketa-nagusia-16.-2013> [azken kontsulta: 2023-08-14]).

249 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko epaimahaikideak: Jon Abril, Ainhoa Aizpurua Insausti, Martin Aramendi, Joakin Arregi "Txe", Iñaki Aurrekoetxea, Eneritz Azkue, Mirari Azula, Mikel Beaumont, Eneko Bidegain, Nerea Bruño, Ekaitz Elorriaga, Mikel Fernandez de Arroiabe, Jurgi Fuentes, Asier Ibaibarriaga, Karlos Ibarguren, Aitor Jimenez, Mikel Lersundi, Zigor Leunda, Joseba Santxo eta Maite Sukia Olano (Bertsolaritzaren Datu Basea, sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoak/view/2485-bertsolari-txapelketa-nagusia-17.-2017> [azken kontsulta: 2023-08-14]).

2. HIZKERA

EZAUGARRI OROKORRAK

AHOZKOTASUNA

2.1. Bat-bateko bertsoa ahozko jarduna da, ahozkoa eta jende aurrekoa. Beraz, guztiz normala da bat-bateko bertsogintzan ahozko mintzairaren ezaugarri diren zenbait fenomeno agertzea:

- Bokal aldaketak: *oa* → *ua* eta *ea* → *ia*, adibidez, oso hedatua dago zenbait euskalkitan; errima direnean, bakoitza bere sailean errendiaraztea hobesten da: *gaztia/ emazia, guztia/eztia, osoa/gurasoa, sua/musua...*

- Kontsonante aldaketak: *ez gea / ezkea, ez da / ezta, ezdia / eztia, ez dabe / eztabe...*

- Bokal galerak: bokal galera batzuk oso ohiko bihurtu dira bat-bateko bertsogintzan: *zun, nun, genun, nekin, zula, nula, zenula, handina, dagola...* “a” itsatsia duten hitzetan, galdu egiten da “a” hori askotan: *gauzik, grazi egin, egi bihurtu, dud-ik, falt-ik...*

- Kontsonante galerak: *eaman, kalea, gastau, beden...*

- Laburdurak: *eztia, etzian, gerore, ein/in, aman*

2.2. Ahozko mintzaira askotarikoa da gaur egun Euskal Herrian. Hainbat euskalki, azpieuskalki eta hizkera daude, eta bakoitzak ditu bere arau fonetikoak, ahoskera moduak, joskerak, lexikoa... Halaber, berezko euskalkirik ez duten euskaldunak ere badira. Aniztasun hori aurki daiteke nola bertsolariengan hala entzuleengan ere.

2.3. Bertsolaritza jendaurreko jarduna denez, jendaurreko hizkera erabili behar du bertsolariak. Txapelketa izanik, bertsolariak oso txokoko diren erabileretara jotzen badu, arriskua du komunikazioa eteteko.

AHOZKOA ETA IDATZIA

2.4. Gaur egun, gizarte modernoetan, ahozko eta idatzizko moldeek hurbileko harremana dute. Ahozkoa eta idatzizkoa elkarri etengabe eraginez bizi dira. Bat-bateko bertsogintzan, beraz, elkarren ondoan ager daitezke ahozko mintzairako formak eta egiturak, eta hizkuntza idatzikoak. Bestela esan, euskalkietakoak eta euskara batukoak. Bitasun hori hizkuntzaren alor guztietan ager daiteke: fonetikan, morfologian, sintaxian, lexikoa...

KOHERENTZIA

2.5. Zilegi da bertsolariak euskara batuan, beren euskalkian edo mintzairako forman aritzea gutxieneko koherentzia baten barruan betiere.

2.6. Bertsolariari gutxieneko koherentzia ere eskatu behar zaio, bere jardunak ez dezan eduki anabasa itxurarik. Koherentzia neurtzeko orduan, bertsoaldia izango da muga. Neurtzeak edo errimatzeak lekarketen koherentzia falta ez litzateke egokia. [...]

[...]

3. NEURRIA

EZAUGARRI OROKORRAK

BERTSO-LERROEN NEURRIA

3.1. Handikoen saileko estrofeak 10/8 dute molde metrikoa, eta txikikoen sailekoek 7/6.

[...]

3.4. Etena doinuaren arabera egin behar da. Batzuetan nahitaezko izango den bezala, zenbait doinutan ez da beharrezkoa izango.

3.5. Aspirazioak ere (h) sor ditzake neurrian gorabehera batzuk, eta ‘h’-dun hitza modu batean ahoskatzen bada, koherentzia eskatuko da bertsoaldi berean.

3.6. Sinalefa lizentzia onargarria da baina bere neurrian.

[...]

ONTZAT HARTUKO EZ DIRENAK

[...]

3.10. Diptongo haustea (ga-ur, se-i, na-u) ez da ontzat emango, eta hiatoak desagitea ere ez (ba-goaz, zuek...). Kontuan hartu behar da, ordea, zenbait euskalkitan badirela goranzko diptongoak (nafarreraren barruko zenbait mintzairatan eta ekialdeko zenbait euskalkitan), eta horiek ezin dira juzgatu akats moduan. Horrez gainera, erdaretatik datozkigun mailegu askok goranzko diptongoak dituzte.

(Euskal Herriko Bertsozale Elkartea 2017)

Azken txapelketetan baliatutako irizpideetan ahozko hizkeraren ezaugarritzat hartzen dira euskarazko bilakabide fonologiko sintagmatikoak eta erregelak (bokal disimilazioak, txistukari ondoko herskari ahostunen ahoskabetzeak, bokal eta kontsonante kenketak, etab.), ontzat emanaz. Euskal Herrian zehar aurki daitezkeen askotariko errealtate linguistikoei erreparatzen zaie, baita ahozko hizkuntzarekin batera idatzizkoak bertsoetan izan dezakeen eraginari ere. Hizkera estandarra eta tokian tokiko hizkerak baliabide gisa ulertzen dira, hizkera idatzia eta ahozkoa bezala, bertsoaldi mailako koherentzia eskatuz bertsolariari, edozein formaren erabileran. Zehazten dutenez, “neurtzeak edo errimatzeak lekarkeen koherentzia falta ez litzateke egokia”.

Orain arteko irizpideetan ematen du beharren arabera zehaztu direla neurriari buruzko xehetasunak. 2005etik aurrerakoetan, berriz, eskakizun metriko nagusiak orokortu egiten dira, ohikoen diren moldeen silaba kopurua zehaztuz: molde handikoen silaba kopurua 10/8-koa eta molde txikikoena 7/6-koa dela jasoz. Neurria betetzeko “diptongoak haustea” (dieresia) zein “hiatoak desegitea” (sineresia) ez da onartzen, aurreko irizpideen bidean. Halere, euskal hizkeren arteko aldakortasuna kontuan hartzen da auzi honetan berrikuntza gisa, ekialdeko hizkera batzuetan eta erdal mailegu zenbaitetan goranzko diptongoak gauzatzen direnez, kasu horiek onartu behar direla jasoz. Hasperenaren (*aspirazioa*, testuan) aipamena ere egiten da neurriari lotuta: hasperendun hitzak ahoskatzeko moduak silabatzean eragina izan dezakeela eta, hitzen ebakerari “eusteko” eskatzen zaio bertsolariari: beti modu berean silabatzeko hasperendun hitza.

Sinalefa —hitz arteko birsilabatzea— da eskakizun metrikoak betetzeko onartzen den baliabide fonologiko nagusia, 2009tik aurrera “bere neurrian” onartzen den arren. Ez da zehazten zenbat sinalefa kasu lirartekeen onargarri.

8.3. Ikerketa galderak eta auzi metodologikoak

Euskararen fonologia, erritmoan oinarritutako tipologiak, testu-uztartzea eta euskarazko bertsogintza arakatu ondoren bertsoetako silabatzea kokatu eta ulertzeko baliabide bila, corpusaren azterketa egiteko abiapuntu izan diren galderak eta hipotesiak aurkeztu ditut atal honetan, beharrezko xehetasun metodologikoak ematearekin batera.

Sarreran azaldu bezala, kapitulu honen helburua bertsoen silabatzea aztertzea da, txertatze prosodikoan funtsezkoa den gertakari horrek alor asko ukitzen baititu: 1) euskararen sistema fonologikoa eta, zehatzago, erritmo-antolakuntzaren oinarria; 2) hizkuntza baten baitako aldakortasun prosodikoa (hizkeraren edo erregistroaren arabera, estilistikoa, etab.); 3)

bertsogintzaren oinarriak eta, zehatzago, eskakizun metrikoak betetzeko estrategia fonikoak; 4) silabaren eta silabatzearen inguruko auzi teorikoak, besteak beste.

Aipatutako ildoetan ekarpena egiteko asmoz, §7 atalean aurkeztutako corpusean ondoko alor zehatzak aztertu ditut, silabatzea ezaugarritu eta sakonago ulertu ahal izateko:

- Bertsolariek ekoizitako silaben egiturak.
- Bertsolariek gauzatu dituzten txandakatze fonikoak (bilakabide segmentalen, erregela morfonologikoen eta bestelako gertakarien ondorio direnak), kantatutako silabatzea eman dutenak emaitza gisa.
- Silabatze-aukera desberdinak, hitz mugei eta neurriari lotuta.

Ildo horietako bakoitzari dagozkion datuak sortu ahal izateko, bertsoen transkripzioa egin dut abiapuntu gisa. Transkripzioan silaba-mugak ere zehaztu ditut puntu (.) bidez²⁵⁰.

Silabatzea eta hots bakoitzaren izaera zehazteko oinarri nagusia nire hautematea izan da (ikus §1.4.2). Hautemate hutsarekin zalantzarri egin zaizkidan hots(-elkarketa) zein gertakariak hobeto aztertu eta deigarriak iruditu zaizkidan fenomenoak egokiago ulertu eta jasotzeko analisi akustikoaz ere baliatu naiz, espektrogramen azterketaz²⁵¹. Horretarako, *Praat* (Boersma eta Weenik 2021) analisi akustikorako programa informatikoa erabili dut, esan bezala.

Jarraian silabatzeari lotutako hiru alorrak sakonago kokatu eta ildo horietako bakoitzarekin planteatutako ikerketa-galderak aurkeztu ditut, kasu bakoitzean corpuseko datuen trataera nola egin dudan ere azalduz. Lehenengo, bertsolariek ekoizitako silaben egiturak eta horien maiztasunak izan ditut hizpide (§8.3.1), ondoren, silabatzea baldintzatu duten bilakabide fonologiko segmental nagusiak kokatu ditut (§8.3.2) eta, bukatzeko, silabatze-aukeren aldakortasunari heldu diot (§8.3.3).

8.3.1. Bertsolariek ekoizitako silaben egiturak eta horien maiztasunak

Bertsoetako silabatzea aztertzen hasteko, bertsolariek ekoizitako silaba-egiturak nolakoak diren zehaztu dut, baita silaba-mota bakoitza zenbateko maiztasunez gauzatzen duten ere. §8.2.5 atalean berrikusi dudanez, hizkuntzaren tipo erritmikoak nabarmen baldintza dezake hizketan gauzatzen diren silaben izatea: silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan silaba irekiak izan ohi dira nagusi; azentu-aldiranzko hizkuntzetan, berriz, silaba itxi gehiago sortu ohi dira segmentu-

250 Bertsoetan taldekatzea aztertzeko silaben artean bertsolariek gauzatutako etenak ere markatu ditut transkripzioan, besteak beste.

251 Etorkizunean sakon aztertu beharrekoa litzateke jasotako gertakarien alor akustikoa; lan honetan lagin bat jasotzera mugatu naiz.

katea denboran antolatzean (Dauer 1983, 1987, besteak beste). Euskara silaba-aldiko hizkuntzat hartu izan da (Hurch 1988c, Jauregi 2007, Oñederra 2015, besteak beste) eta orain arte silaba-egituraz eta hizketan ekoizitako silaba-moten maiztasunez egindako ikerketek joera tipologiko orokorra berresten dute (ikus §3.4.4.3).

Bertso-molde (kantatu) batzuetan hitz lauко joera berak gauzatzen dira silabatzeari dagokionez —ingelesez eta gaztelaniaz, herri kantuetan, adibidez (Rodríguez-Vázquez 2010)—. Beste hizkuntza eta kantu-genero batzuetan eginiko ikerketen arabera, ordea, ematen du hitz lauz hizketa-mailaren arabera gauzatzen den aldakortasuna (ikus Madelska eta Dressler 1996 edo Heinz 2014, besteak beste) bertso eta kantuetara heltzen dela, molde neurtuotan hitz lauz lekukotutako joera ez horren ohikoak areagotuz —iwaidja hizkuntzako *Jurtbirrk* kantuetan, esaterako (Barwick et al. 2007)—. Halaber, berrikusitako baliabide fonikoak eta bertsogileen askotariko hautuak kontuan hartuta, bertsogintza ulertzeko moduak eta bertsolari bakoitzaren estiloak ere baldintza dezakete silabatzea eta, ondorioz, ekoizitako silaben egitura, beharbada.

8.3.1.1. Ikerketa-galderak

Berrikusitakoei jarraiki, corpora osatzen duten bat-bateko bertsoen silabatzea aztertuta ondoko galdera zehatzei eman nahi diet erantzuna:

- Zein silaba-egitura dira nagusi bertsoetan? Datu horiek nola lotzen dira hitz lauz orain arte euskaraz ditugunekin? Eta beste hizkuntza batzuetan egindako azterketekin?
- Aldakortasunik bada bertsolarien artean?

8.3.1.2. Datuen trataera

Silaba-egiturak eta haien maiztasunak aztertu ahal izateko, gorago aipatutako silabakako transkripzioa izan da abiapuntu. Abstrakzio maila bat gehituta, bertsolariek ekoizitako silaben osagaiak (segmentuak) kontsonanteak (C) edo bokalak (V) diren zehaztu dut, silaba mugak puntu (.) bidez markatuz²⁵².

252 Diptongoak bokal bakar gisa irudikatu ditut, hori baino konplexuagoak direla jakinda, lan honen helburua silabatzearen hurbilpen orokor bat egitea baita. Kontsonante bakoitzeko <C> bat adierazi dut, afrikatuak kontsonante bakartzat hartuta, Jauregi eta Oñederrari (2010) jarraiki. [j] eta [w] irristari anbisilabikoek ondoko silaba-ekina betetzen dutela ulertzen dut.

7. **taula:** Corpusaren prestaketa silaba-egituren maiztasunak ateratzeko (AA-2013-GS-ha, lehen puntua²⁵³)

Bertsoaren transkripzioa	Silaba-egituren abstrakzioa
[ni.ke.ʎi.a.rik.es.tu.ta.meś.ten]	.CV.CV.CV.V.CVC.VC.CV.CV.CVC.CVC.
[a.me.tśay.ði.tut.e.ʎi.tsat]	.V.CV.CVC.CV.CVC.V.CV.CVC.

Corpusa aipatutako gisara zehaztuta, bertsolariek baliatutako silaba-motak eta mota bakoitza zenbat aldiz gauzatu den kontatu da, bertsoaldika gordez datuak. Ondoren, silaba-moten ehunekoak atera ditut *LibreOffice Writer* eta *LibreOffice Calc* (Kalkulu-orria) baliatuta²⁵⁴, datuak interpretatu ahal izateko. Azterketa egin ahal izateko datuak bertsoaldika jaso ditut eta ondoren bertsolarika antolatu, silaba guztiak gehituta. Kapituluaren bertsolarikako datu orokor horiek soilik aurkeztu ditut, modu kuantitatiboan (kasuan kasuan jasotako silaba kopurua eta bakoitzaren ehunekoak adieraziz), helburua joera orokorren berri izatea baita²⁵⁵.

8.3.2. Silabatzea baldintzatzen duten silabatze-aukera eta gertakari foniko nagusiak

Bertsoetan ekoiztutako silaba-egitura nagusiak zein diren zehaztuta, maiztasunek ematen dituzten datu “estatiko” eta zenbakizkoen atzean dauden joera foniko nagusiak aztertu ditut, bertsolariak silaba-egitura horietara, silabatze horietara, nola heldu diren, zein bilakabide, erregela eta silabatze-aukeraren bitartez, jakin nahian. Horretarako, §8.2.4 atalean berrikusi ditudan euskarazko bilakabide fonologiko segmental sintagmatiko eta erregela morfonologiko nagusiak hartu ditut abiapuntu nagusizat, silaba-egitura baldintzatu duten gertakarietan jarriz, bereziki, arreta. Horrekin batera, hitzen arteko mugen trataera zer-nolakoa den ere aztertu dut, *liaisona* bezalako gertakariak —hitz arteko mugak urtu eta hots katea birsilabatzea— tipologikoki esanguratsuak baitira (ikus §3.4.3.8).

Bertsoak silabatzean bertsolariek gauzatutako joera fonologikoak zein diren aztertzea esanguratsua da hizkuntzaren sistema fonologikoa sakonago ulertzeko. §8.2.5.2 atalean laburbildu bezala, erritmoaren araberrako tipologiaren baitan eginiko proposamen zenbaitek joera segmental desberdinak aipatzen dituzte hizkuntzaren oinarri erritmikoa silaba edo azentua izan: silaba-aldiranzko hizkuntzetan, silaba egituratzen duten hatsarreei jarraiki, ohikoagoa izango da

253 *Nik egirik ez dut amesten / ametsak ditut egizat* (AA-2013-GS-ha).

254 Silabakako transkripzioa eskuz —norbere hautematea baliatuta— egitea beharrezkoa den arren, etorkizuneko ikerketetarako interesgarria litzateke datuak bildu eta tratatzeko askotariko *script*-ek edo *R* bezalako analisi estadistikorako *software*-ek ematen dituzten aukerak esploratzea.

255 Aurrera begira interesgarria litzateke datuotan —zein beste batzuetan— oinarritutako analisi estatistikoak burutzea.

bilakabideek joera zentrifugoak izatea (bilakabide indartzaileak izatea nagusi). Horrela, baldintza prosodikoen ondoriozko murriztapen eta alofono gutxiago sortzen dira hots katea ahoskatzean eta, halakorik gertatzen den kasuetan ere, silaba egitura oinarrikoenerantz egiten du hots antolaketak (Dauer 1983, 1987; Hurch 2006b). Azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, ordea, azentuak duen indar egituratzailea dela eta, joera zentripetua agertuko dute bilakabideek askotan (bilakabide ahultzaileak izango dira nagusi), silaba-egituratzen duten hatsarreak gaindituz sarri. Hala, baldintza prosodikoek —azentudun eta azentugabeko silabek— eragindako murriztapenak eta alofonoak ohiko izango dira (Dauer 1983, 1987; Hurch 2006b). Ikuspegi tipologikotik euskara silaba-aldiko hizkuntza izaki (Hurch 1988, Jauregi 2007, Oñederra 2015, besteak beste), orain arte egindako bilakabideen azterketan bokal eta kontsonante bilkurak soildu eta silaba indartzeko joerak nabarmentzen dira, batez ere (ikus §8.2.4.3).

Ezin da ahaztu bilakabide fonologikoak eremu prosodikoetan gertatzen direla. Silabatze-aukerek eremu prosodikoekin duten harremana ere esanguratsua izan daiteke, gorago aurreratu bezala: zein eremu prosodiko indartzen den segmentalki eta prosodikoki (silabatzearen bitartez, eten laburrak eginda, etab.) eta zein eremu urtzen (bilakabide segmental ahultzaileen bidez, birsilabatzeak gauzatuta, etab.). Silaba eta esaldi fonologikoa lirarteke silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan zentraltasuna hartzen duten unitate prosodikoak, *liaisona* eginda hitz mugak urtuz maiz. Azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, berriz, hitzaren inguruan antolatzen dira sarri gertakari segmental eta silabikoak, *liaisonik* ez egiteko joera agertuz (ikus §3.4.3.8). Taldekatzearen gaian §10 kapituluan sakondu arren, kapitulu honetan hitz arteko silabatzeari eta segmentuen arteko harremanari erreparatu diot, aipatutako kapituluko azterketa eta analisisia elikatzeke.

Hiztun batek indarrean dituen bilakabideak hizketa moldearen (erregistroaren) arabera gauzatu, neurri batean gauzatu edo gainditu egin daitezke (Donegan eta Stampe 1979, 2009) eta eremu prosodikoen izaera eta tamaina ere alda daiteke hizketa moldeen arabera —horiei lotutako baldintza prosodiko eta pragmatikoen ondorioz, besteak beste— (Maldeska eta Dressler 1996). Horrek hizkuntzen arteko aldakortasunari hizkuntzaren baitako aldakortasuna gehitzen dio. Corpusa osatzen duten bertsoak formaltzat har daitekeen komunikazio-testuinguruan sortutakoak dira. Alta, testuinguru horren baitan bertsoak kantatzeko jarritako gaiak —eta bertsolariek horiei buruz aritzeko hartutako jarrera eta “tonuak”— askotarikoak izan daitezke (umoretsuak, narratiboak, arinak, sakonak, serioak, etab.; ikus §7.2.2). Horregatik, zail da guztiz aurreikusten zein bilakabide nagusituko diren bat-bateko bertsoen ekoizpenean, joera fortitiboak edo lenitiboak izango diren nagusi. Bertsolarien arteko aldakortasuna ere kontuan hartu beharreko auzia da, sortzaile bakoitzaren ezaugarriak eta estiloa (ikus §7.2.3). Gainera, bertso-neurriaren oinarrian silaba-

kopurua egoteak ere bilakabide horien gauzatzea baldintza dezake, “modu interesatuan” antolatuz hots katea neurria betetzeko, hizketa maila edo erregistroa edozein izanik ere.

8.3.2.1. Ikerketa-galderak

Hori dela eta, ondokoak dira modu kualitatiboan bertsoen silabatzea gertakari segmentaletatik ulertzeko galdera nagusiak:

- Silaba-egitura baldintzatzen duten zein bilakabide fonologiko segmental eta erregela gauzatzen dituzte bertsolariak hitz barnean eta hitz artean? Nola baldintzatzen dute horiek silaba-egitura?
- Nolako trataera ematen diete bertsolariak hitz arteko mugari, silabatzeari dagokionez? Nola baldintzatzen dute horiek silaba-egitura?
- Zein dira lekukotutako gertakarien joera nagusiak, segmentuak denboran antolatzeari dagokionez? Aldakortasunik bada? Nola uler daitezke joera nagusiak eta aldakortasun ardatzak, izatekotan?

8.3.2.2. Datuen trataera

Aipatutako galderei erantzuteko, bilakabide fonologiko sintagmatikoetan eta silabatze-joeretan jarri dut arreta. Beste ezer baino lehen, bertsoen transkripzioa aztertu dut, silaba-egituran eragina duten hotsezko gertakari bila. Bereziki erreparatu diet:

- Hitz barnean bokal bilkurekin zein kontsonante bilkurekin gertatzen diren bilakabide, erregela eta bestelako gertakari fonikoei.
- Hitz artean bokal bilkurei, C# #V testuinguruari eta kontsonante taldeei ematen zaien trataerari.

Hasierako hurbilpenean markatutako gertakariak banan-banan aztertuta, Donegan eta Stamperen (1979, 2009) bilakabide fonologikoen sailkapenez baliatu naiz identifikatutako gertakari segmentalak multzokatzeko: gertakari indartzaileak (*fortitioak*) eta kohesiogile edo ahultzaileak (*lenitioak*) bereizi ditut, hasteko. Ondoren, gertakari bakoitzaz corpusean dauden adibide guztiak bildu ditut, gertakariaren hedapena zer-nolakoa den behatuz eta haren ulerkeran sakonduz adibide guztien laguntzaz. Gertakari hedatuenak edo deigarri iruditu zaizkidanak jaso ditut, azkenik, lehen

hurbilpen gisa²⁵⁶ corpusean aztertutako bertsolarien silabatzea aztertzeko. Honakoak dira azkenean txapelketaz txapelketa corpusean aztertutako gertakariak:

- Hasperena, hitz barnean eta hitz artean, bokal artean zein bestelako testuinguruetan. Esate baterako, *ahaztu* → *a.[h]az.tu*.

- /i/ goiko eta aurreko bokalaren ondoren beste bokal heterosilabiko bat dagoenean, kontsonante palatala ([j]) txertatzea azken bokalaren aurretik, silaba-ekinean. Adibidez, *e.gi.a* → *e.gi.[j]a*.

- /u/ beheko eta atzeko bokalaren ondoren beste bokal heterosilabiko bat dagoenean, kontsonante ezpainkaria ([β]) txertatzea azken bokalaren aurretik, silaba-ekinean. *Bu.ru.a* → *bu.ru.[β]a*, kasu.

- Hiru bokal elkartzen direnean hitz barnean, erdikoa goikoa eta aurrekoa izanik (/i/), hots katean /i/ bokala kontsonante palatal gisa gauzatzen da azken bokalarekin batera, silaba ekinean (ViV → V.jV), edo irristari gisa gauzatzearekin batera kontsonante palatala ere ahoskatzen da (ViV → Vj.jV)²⁵⁷. Esaterako, ‘ho(r)iek’ → [o(j).jek].

- Silaba ekineko herskari ahostunak ez igurzkaritzea (edo hautematearentzat ohi baino nabarmenago gauzatzea) bokal artean, hitz artean: *es.pue.la.[b]at.zen.ba.ña* ‘espuela bat zen baina’²⁵⁸ (ML-2009-AS-ptk-2).

- Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea eta etenaz banatzea [V# #V → V.‘V’]²⁵⁹: *len.da.bi.zi.ko.‘u.rra.tsa* ‘lehendabiziko urratsa’ (AE-1997-GS-8H-1).

- Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-ik ez egitea, hitzen arteko muga ez urtzea (lehen hitzeko kodako kontsonantea(k) ez silabatzea hurrengo

256 Lan honen helburua silabatze-joera orokorrak ulertzea izanik, hainbat dira landutako gertakariak eta horrek horietako batzuetan merezi baino gutxiago sakontzea ekarri du, ikerketari ezarritako mugak direla eta. Lehen hurbilpen bat da ondokoa, esan bezala; bilakabideen nondik norako xeheagoak ezagutzeko beharrezkoa da azterketa sakonagoa egitea horietako bakoitzari buruz. Era berean, gertakari asko aztertu gabe geratu dira. Horietako batzuk oin oharretan jaso ditut eta beste asko aipatu gabe geratu dira.

257 Txandakatze honetan bilakabide bat baino gehiago dago ziurrenik: lehenengo, /i/ bokala irristari gisa gauzatzen da (/anaia/ → [a.naj.a]). Irristari palatalaren ondorioz, kontsonante palatala txertatzen da hurrengo bokalaren aurrean ([a.naj.ja]). Azkenik, kasu batzuetan, irristari palatala kentzen da ([a.na.ja]).

258 Bokal arteko herskari kasuan, ez dut corpus osoaren azterketa sistematikorik egin. Hautematean herskari iruditutako adibide batzuk akustikoki aztertu ditut, gertakariaren lehen hurbilpen gisa jasota gera daitezten. Etorkizuneko lana litzateke bokal arteko herskari (edo herskari usteko) guztien tresnabidezko azterketa sakona egitea, gertakariaren berri hobeto eman ahal izateko.

259 Hitz arteko mugen trataerari lotutako gertakari guztien kasuan, gertakariaren berri egoki eman ahal izateko beharrezko diren adibideak jaso ditut paperean (corpuseko bertso guztiak daude aztertuta zentzu honetan; horren berri ez da, ordea, kasu guztietan eman): batzuetan saio osokoak izan dira eta, beste batzuetan, berriz, Goizeko Saioko bertsoak hartu dira erreferentziatzat, bertsolariaren silabatze joeretara hurbiltzeko nahikoa esanguratsu direlakoan.

silabako ekin hutsean). Hitz artean hots katea ez birsilabatzea CV egiturarantz: *es.pe.ran.tza.ren*. ‘iz.pi.ja ‘esperantzaren izpia’ (JL-1989-GS-ge-2).

- Hitz arteko kontsonante bilkura heterosilabikoetan (VC(C)# #C)CV) kontsonante horien ahultze, asimilazio edo kenketarik ez gertatzea, hots bakoitzak bere izaerari eutsiz: *nik.kan.ta.tzen* (XA-1980-GS-8H-3).

- Hitz barneko desilabagiltzeak (sineresia) eta askotariko segmentu kenketak: *e.g[wa].rri.par.te.an* ‘eguberri partean’ (ML-2009-GS-pe-2).

- Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea baina modu jarraituan ahoskatzea [V# #V → V.V]: *ba.tak.bes.te.ai.as.ko.e.zi.ñi.ra.ka.tsi* ‘batak besteari asko ezin irakatsi’ (ML-2009-GS-pe1).

- Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak birsilabatzea, silaba bakarrean ahoskatuta [V# #V → VV] (sinalefa): *tun.tu.n[aj].za.te.a* ‘tuntuna izatea’ (AE-1997-GS-6mtz-2).

- Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean, silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-a egitea hitzen arteko muga urtuz; hots katea birsilabatzea CV egiturarantz: [a.pur.ðu.ri] ‘hain urduri’ (SL-1986-GS-4oin-2).

- Kontsonanteen eta kontsonante bilkura heterosilabikoen asimilazio eta kenketa batzuk, hitz artean (sudurkari eta herskari bilkuren ahultze eta soiltze bilakabideak eta ‘ez’ + herskari ahostun ahoskabetzen duen erregela, batez ere): *o.e.ti.kos.ta.ta* ‘ohetik kostata’ (ML-2009-GS-8H-1), *e.gi.naiz* ‘egin naiz’ (AE-1997-AS-ha), *ni.ke[s].[t]ut* ‘nik ez dut’ (JL-1989-GS-4oin-2).

- “Makulu-silaba” enfatikoak ekoiztea kantuan, hasperen bat txertatuz silaba-gunea osatzen duen bokalaren erdian (edo une batez bokala ahoskabetuz), aire-etorriari bultzada bat emanez. *l[a^ha].gun* ‘lagun’ (XA-1982-GS-ha)²⁶⁰.

Txapelketaz txapelketa egin dut gertakari horien bilaketa, eta ondoren txapelketa bakoitzean gertatzen direnak soilik jaso eta aztertu ditut (ikus I. Eranskina txapelketaka bakoitzean jasotako gertakari eta adibideetarako). Gertakari bakoitzak bertsolarien silabatzean nola eragiten duen aztertu dut, joera orokorrak eta nagusi ez direnak zehaztuz. Aipatutakoez gain, bertsoen transkripzioan deigarri bezain esanguratsu egin zaizkidan bestelako gertakari fonikoak ere jaso ditut, kasuan kasuan, txapelketa bakoitzari dagokion azterketan zehar, oin oharretan.

260 Gertakari honi buruzko xehetasunak I. Eranskinean jaso ditut, adibideak eta espektrograma batzuk, etorkizunean azterketa sakonagoa egin ahal izateko abiapuntu gisa jasota gera daitezten. Analisisian kasuan-kasuan aipatu ditut “makulu silaba” deiturikoak, baina ez dut horien azterketa eta ulerkeran sakondu.

8.3.3. Neurria betetzeko baliabide foniko nagusiak

Azkenik, aurreko puntuari hertsiki loturik, neurria betetzeko bertsolariek erabilitako baliabide foniko nagusiak zein diren zehaztu dut, horien artean silabatzeari lotutako gertakariak duten tokia aztertuz²⁶¹. Aztertutako corpusean bertan jasotako bertsolarien silabatze-hautuek eta horien aldakortasunak ekarpena egin dezakete maila teorikoan silaba eta silabatzearen ulerkeran, batetik, eta bertsogintzan, bestetik, neurriak ezarritako baldintzak agerian utziz, bertsolariek dituzten baliabideetako batzuk saio baten osotasunean ezagut baititzakegu. Neurria betetzeko moduak —bertsoetan txertatze prosodikoa aztertzeak— euskararen fonologian sakontzeko aukera ematen du, gainera.

Aurretik ere esan dut (ikus §8.2.1 atala, besteak beste) silaba oso kontzeptu eztabaidatua izan dela fonologiaren historian, bere izatea zalantzan jartzetik silabaren definizio bateratu bat osatzea ezinezko izateraino. Lan honetan silabaren ikuskera zehatza hartzen dut (Donegan eta Stampe 1978), hainbatetan esan bezala, horren aldeko argudio sendoak daudela uste baitut. Bertsogintzaren azterketak ere eztabaidarako eta gogoetarako gertakariak eta datuak ekar ditzake alor horretan.

Bestalde, bertsogintzari gagozkiola, askotarikoak dira hizkuntzetan neurria betetzeko sortzaileek darabiltzaten estrategiak. “Lizentzia metriko” deritzonetan hots katea luze-laburtzeko baliabideak biltzen dira (§8.2.7.1 atalean berrikusi ditut nagusienak), baina bertsogile denek ez dituzte (berdin) erabili izan (ikus §8.2.7.2). Horregatik, neurria betetzeko bertsolariek baliatzen dituzten estrategia fonikoak zein diren aztertzeak bat-bateko bertsogintzari buruzko ezagutzan sakontzen lagunduko luke, bertsolaritzaren baitan egon daitekeen aldakortasun-lagin bat izateaz gain. Halaber, tipo erritmikoen ikuspegitik sinalefaren erabilera esanguratsua dela dirudenez gero (Rodríguez-Vázquez 2010; ikus §8.2.6.1), euskararen fonologiaren ezagutzan sakontzeko aukera eman dezake halakorik gertatzen den edo ez aztertzeak.

8.3.3.1. Ikerketa-galderak

Ondokoak dira silabatze-aukera desberdinei lotuta, lanerako abiapuntu izan diren galderak:

261 Neurria egoki betetzeko baliabideak dira oinarritzko aurkezpena bera baldintzatzen duten hautu lexiko-morfologikoak (*sarri* edo *askotan* erabiltzea, adibidez, behar diren silaben arabera) edo esanahia zertxobait eraldatzen duten edo aldatzen ez duten hitz edo atzizkien erabilera ere (*gaur*, *hor*, *-txo*, *-ño*). Halako hautuek nahikoa material linguistiko izatea berma dezakete gero neurria egoki beteta silabatu ahal izateko. Lan honetan ez ditut baliabide horiek aztertu, presente izan behar diren arren, txertatze prosodikoa bera baino lehen. Ikus Amuriza ([1981] 1996) edo *bertsoikasgela.eus* ataria, aurrez ere aipatu bezala, halako baliabide batzuen berri izateko.

- Lizentzia metrikorako baliabide nagusiak (sineresia, dieresia, sinalefa, hiatoa, gehiketak eta kenketak) kontuan hartuta, zein dira nagusi bertsolarien ekoizpenean? Bada alderdik bertsolarien artean?
- Zein silabatze-aukera desberdin aurki daitezke bertsoetan? Zertan datza aldeak? Zein dira bildutako adibideen eta egindako azterketaren inplikazio teorikoak (silabari eta euskarari dagokienez)?

8.3.3.2. *Datuen trataera*

Puntu honetan aurreko §8.3.2 ataleko galderen harira jasotako gertakarien artean silabakopurua baldintzatzen dutenak aztertu dira, bertsolari bakoitzak neurria betetzeko zein baliabide metriko (foniko) baliatu dituen zehaztuz. Baliabide metrikoak osatzeko, morfologiaren eragin zuzenagoa duten gertakari eta adibide batzuk ere jaso dira, “material fonetikoa” gehitu edo kentzen dutenak, aldakortasun morfonologikoa baliatuz.

8.4. Datuen aurkezpena eta irakurketa proposamena

8.4.1. Bertsolariak ekoizitako silaben egiturak eta horien maiztasunak txapelketaz txapelketa

Bertsolariak silabatzean darabiltzaten silaba-egiturak zein diren eta horietako bakoitzaren maiztasuna zenbatekoa den aztertu dut corpusean, batez ere erritmoaren araberako tipologiaren ikuspegitik datu esanguratsuak izan baitaitezke. Izan ere, §3.4.3.4 atalean azaldu bezala, silabaldiranzko hizkuntzetan CV silaba-egitura oinarritzakoa da nagusi, eta horrekin batera silaba irekiak. Azentu-aldiranzko hizkuntzek, berriz, silaba itxi gehiago izateko joera dute, CVC silaba-egitura bezalakoak ohikoago izanik.

Ondokoak dira bertsolari guztien zenbakizko datuak (silaba-egiturak eta horien maiztasunak):

8. taula: 1980ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Xabier Amurizak ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	1504	%59,64
CVC	536	%21,25
V	274	%10,86
VC	176	%6,98
CCV	27	%1,07
CCVC	2	%0,08
CVCC	2	%0,08
VCC	1	%0,04
	Guztira: 2522	
Silaba irekiak denetara:		%71,57
Silaba itxiak denetara:		%28,43

9. taula: 1982ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Xabier Amurizak ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	1752	%61,32
CVC	540	%18,90
V	345	%12,08
VC	180	%6,30
CCV	29	%1,02
CCVC	6	%0,21
CVCC	4	%0,14
VCC	1	%0,04
	Guztira: 2857	
Silaba irekiak denetara:		%74,42
Silaba itxiak denetara:		%25,58

10. taula: 1986ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Sebastian Lizasok ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	1289	%63,28
CVC	383	%18,80
V	222	%10,90
VC	127	%6,23
CCV	13	%0,64
CCVC	2	%0,10
CVCC	1	%0,05
VCC	0	%0
	Guztira: 2037	
Silaba irekiak denetara:		%74,82
Silaba itxiak denetara:		%25,18

11. taula: 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Jon Lopategik ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	2555	%62,27
CVC	533	%21,35
V	237	%9,49
VC	150	%6,01
CCV	19	%0,76
CVCC	2	%0,08
CCVC	1	%0,04
VCC	0	%0
	Guztira: 2497	
Silaba irekiak denetara:		%72,52
Silaba itxiak denetara:		%27,48

12. taula: 1993ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Andoni Egañak ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	1735	%64,43
CVC	441	%16,38
V	340	%12,63
VC	159	%5,90
CCV	17	%0,63
CCVC	1	%0,04
CVCC	0	%0
VCC	0	%0
	Guztira: 2693	
Silaba irekiak denetara:		%77,69
Silaba itxiak denetara:		%22,31

13. taula: 1997ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Andoni Egañak ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	1509	%60,72
CVC	434	%17,46
V	347	%13,96
VC	169	%6,80
CCV	17	%0,68
CCVC	5	%0,20
CVCC	4	%0,16
VCC	0	%0
	Guztira: 2485	
Silaba irekiak denetara:		%75,36
Silaba itxiak denetara:		%24,64

14. taula: 2001eko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Andoni Egañak ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	2028	%60,04
CVC	643	%19,03
V	452	%13,38
VC	221	%6,54
CCV	26	%0,77
CCVC	6	%0,18
CVCC	2	%0,06
VCC	0	%0
	Guztira: 3378	
Silaba irekiak denetara:		%74,19
Silaba itxiak denetara:		%25,81

15. taula: 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Andoni Egañak ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	2072	%60,71
CVC	643	%18,84
V	443	%12,98
VC	222	%6,50
CCV	21	%0,62
CCVC	6	%0,18
CVCC	5	%0,15
VCC	1	%0,03
	Guztira: 3413	
Silaba irekiak denetara:		%74,31
Silaba itxiak denetara:		%25,69

16. taula: 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Maialen Lujanbiok ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	2099	%63,26
CVC	636	%19,17
V	365	%11
VC	187	%5,64
CCV	25	%0,75
CCVC	3	%0,09
VCC	2	%0,06
CVCC	1	%0,03
	Guztira: 3318	
Silaba irekiak denetara:		%75,01
Silaba itxiak denetara:		%24,99

17. taula: 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Amets Arzallusek ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	1996	%62,91
CVC	621	%19,57
V	344	%10,84
VC	179	%5,64
CCV	27	%0,85
CVCC	4	%0,13
CCVC	2	%0,06
VCC	0	%0
	Guztira: 3173	
Silaba irekiak denetara:		%74,60
Silaba itxiak denetara:		%25,40

18. taula: 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Maialen Lujanbiok ekoitzitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	2214	%63,66
CVC	624	%17,94
V	392	%11,27
VC	194	%5,58
CCV	33	%0,95
CCVC	13	%0,37
CVCC	8	%0,23
VCC	0	%0
	Guztira: 3478	
Silaba irekiak denetara:		%75,88
Silaba itxiak denetara:		%24,12

Bertsolarien datuei begiratuta, esan daiteke antzeko maiztasunak agertzen dituztela, bakoitzak silabatzean gauzatzen dituzten bilakabide edo hautuetan aldeak izan arren (ikus jarraian §8.4.2 atala). Denetan nagusi da silaba irekien aldeko joera (%70etik gora), CV oinarrizko egituraren maiztasuna %60tik gorakoa izanik kasu ia guztietan —salbuespen bakarra Amurizaren 1980ko silabena litzateke, %59,64ko maiztasunarekin; hori ere %60tik oso gertu, beraz—. Horrek euskara eta, zehatzago, aztertutako bertsolarien bertsogintza silaba-aldiranzko polotik gertu kokatzen dute, silaba-egiturei dagokienean bederen. Hitz lauz orain arte jasotako datuen antzekoak edo altuagoak dira bertsoetan CV oinarrizko egituraren maiztasunak (ikus 3. taula). Bertsoen silabatzearen azterketan egin bezala, gainerako moldeetan ere zein bilakabide segmental eta silabatze-aukera nagusitzen diren ezagutzeak lagunduko luke beharbada alde hori ulertzen.

Euskaraz (C)(C)V(C)(C) egitura da gauza daitezkeen silabak islatzen dituen, hortik abiatuta gauza daitezkeen silabarik konplexuenak ezohikoak diren arren (Jauregi 2007). Bertsoetako erabilerari erreparatuz gero, (C)V(C) hezurdurak bertsolariek (guztiek) gauzatutako silaben %98ri erantzuten dio.

Bestalde, Jauregik eta Oñederrak (Jauregi 2007; Jauregi eta Oñederra 2010, Oñederra 2020a, 2020b, besteak beste) hainbatetan aipatu dute euskararen joera segmentalen artean silaba-ekina

indartzeko joera dagoela, silaba egituratzen duten hatsarreei jarraiki. Ideia horri loturik aipatzekoa da silaba-ekina indartzen duten egiturak %80ren ingurukoak direla bertsolari guztien kasuan²⁶².

8.4.2. Gertakari sintagmatikoak: bilakabide fonologikoak eta silabatze-aukerak

Atal honen funtsa aurreko atalean ateratako egitura eta maiztasunen (zenbakien) atzean zernolako silabatze joerak dauden aztertzea da. Ondoko taulan laburbildu dut txapelketaz txapelketa aztertutako ezaugarrien agerpena zein den —ezaugarria baden edo ez den jasotzera mugatu naiz—. Bertsolari eta txapelketa bakoitzean ezaugarrien agerpen-maila edo neurria desberdina da, eta analisisian zehar aletu ditut kasu horietako batzuk. Ez ditut, ordea, datuak modu estatistikoan landu, analisiaren helburua gertakarien presentzia eta atzean egon daitezkeen eragileak ulertzea baita²⁶³. Gorago ere esan bezala, I. eranskinean jaso ditut zerrendatuta corpus azterketatik ateratako adibideak, analisiaren oinarrian daudenak.

19. taula: Bertsolarien silabatze-aukerak eta horiei lotutako gertakari segmentalak²⁶⁴

	[h]	V. [j] i.	V. [β] u.	ViV→ V.[j]V	[+hersh]/ V_V	V#.#V	Liaison ez	C taldea mantendu	Hitz barneko kenketak	V#.#V jarraian	Sinalefa	Liaison bai	C taldea bakundu	Makulu silabak
Amuriza 1980	+	+		+	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+
Amuriza 1982	+	+	+	+		+	+	+	+	+	+	+	+	+
Lizaso 1986	+	+				+	+	+	+	+	+	+	+	+
Lopategi 1989	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+	
Egaña 1993	+	+				+	+	+	+	+	+	+	+	+
Egaña 1997	+	+				+	+	+	+	+	+	+	+	
Egaña 2001	+					+	+	+	+	+	+	+	+	
Egaña 2005						+	+	+	+	+	+	+	+	+
Lujanbio 2009					+	+	+	+	+	+	+	+	+	
Arzallus 2013	+				+	+	+	+	+	+	+	+	+	
Lujanbio 2017					+	+	+	+	+	+	+	+	+	

Jarraian gertakarien agerpena eta erabilera azertu dut banan-banan.

262 Datu hori bere horretan ez da, beharbada, esanguratsua, lan honetan bereizitako bi tipo erritmikoetako hizkuntzetan ere ekina beterik duten egituren ehunekoak altuak baitira, oro har (ikus 2. taula). Edonola ere, ez dio kontra egiten aipatutako ideari.

263 Gertakari bakoitzari emaniko trataera desberdinak zaildu egiten du, gainera, ezaugarri guztiak modu berean lantzea. Etorkizunerako geratzen da jasotako datuen —zein bestelako datu osagarrien— azterketa kuantitatiboa zein azterketa kualitatiboa sakonagoak egitea.

264 Hasperenen zutabearen ([h]), hasperentzat hartu ditut Egañaren herskari hasperendun litezkeenak ere (1997an eta 2001ean herskari hasperendunen adibideak soilik jaso ditut corpus azterketan, hasperen “hutsik” ez). Bestalde, bokal artean herskari hautemandako kontsonanteen kasuan, azterketa ez da sistematikoa izan, esan bezala. Hori dela eta, ez du esan nahi + gabe dauden bertsolari eta txapelketetan halakorik ez dagoenik.

8.4.2.1. Silaba egituratzen duten hatsarreak indartzen dituzten bilakabide segmentalak


Aztertutako corpusean, bertsolari guztien ekoizpenetan jaso ditut, neurri handiago edo txikiagoan, silaba-ekina edo, zabalago, eremu prosodikoren baten ekina indartzen duten bilakabide segmentalak; bost fortitio, guztira²⁶⁵. Horietako hiruk hots epentetiko bat txertatzea dute ondorio: hasperena, [j] kontsonante palatala edo [β] kontsonante ezpainkaria dira, nagusiki bokal artean, gehitzen diren segmentuak. Beste bi gertakarik silaba ekineko hotsaren izaera indartzen dute (edo ez dute ahultzen, espero bezala): /i/ bokalaren kontsonantetzeak ([j]) eta bokal arteko herskari ahostunak ez igurzkaritzeak —hitz barnean zein hitz artean—, hain zuzen.

8.4.2.1.1. Hots epentetikoak txertatzea silaba-ekina indartuz

- Hasperena²⁶⁶

Silaba ekinean hasperen epentetikoa txertatzen dute bertsolariak adibide gutxi batzuetan, hitz barnean zein hitz artean bi bokal heterosilabikoren elkarketa dagoenean, normalean, baita ozen ondoren, eremu prosodiko hasieran edo silaba kodan ere, bertsolariaren arabera.

14. irudia: Espektrograma. *jo.[h]an.go* ‘joango’ (XA-1980-GS-10tx-3)




265 §8.3 atalean azaldu bezala, bost *fortitio* jaso izanak ez du esan nahi bertsolarien ekoizpenean bost bilakabide segmental indartzaile “soilik” gertatzen direnik. Silaba-egitura baldintzatzen duten eta hedapen minimoa duten gertakariak hautatu ditut, ikerketaren helburuei jarraiki. Horrekin batera, hedapen txikia edo agerpen puntuala izan arren esanguratsu iritzi diegan bilakabideak ere jaso ditut.

266 Lan honetan [h] gisa jaso ditut adibideetan hasperenarekin identifikatutako hots guztiak, xehetasun fonetikoetan sakondu gabe. Etorkizunean sakondu beharreko alorra da hori.

Hasperena hainbat bertsoerik gauzatzen dute maila sintagmatikoan, testuinguru desberdinetan eta erabilera mugatuaz. Xabier Amurizak, 1980ko txapelketako bertsoetan, darabil hasperena gehien, hainbat testuingurutan. Hitz barnean eta bokal artean darabil, batez ere: *goi.ze.[h]an* ‘goizean’ (XA-1980-GS-ha), *ar.te.[h]an* ‘artean’ (XA-1980-GS-8H-3), *be.[h]ar.ba.da* ‘beharbada’ (XA-1980-GS-ge-1), *ai.re.[h]a* ‘airea’ (XA-1980-GS-ge-3), *ka.le.[h]an* ‘kalean’ (XA-1980-GS-10tx-1), *be.[h]ar* ‘behar’ (XA-1980-GS-10tx-2, 3), etab. Hitz artean, hitz mugan bokal elkarteka heterosilabikoa suertatuz gero ere, bi kasutan hasperena gauzatzen du bigarren hitzaren ekinean, bokal bilkura deseginez: *ba.ña.[h]au.ez.ta* ‘baina hau ez da’ (XA-1980-GS-ge-3), *ba.[h]al.da*. ‘*e.men.i.ñor* ‘ba al da hemen inor?’ (XA-1980-AS-kge-1). Hitz artean, ozen ondoren ere txertatzen du hasperena silaba (eta hitz) ekinean, adibide bakarrean: *ko.tx.e.ae.ra.man.[h]e.ta* ‘kotxea eraman eta’(XA-1980-GS-10tx-2). Azkenik, silaba baino handiagoak diren eremu prosodikoen ekinean gauzatzen du hasperena: *[h]ai.zi* ‘haiz hi’ (XA-1980-GS-10tx-3), *[h]ez.li.te.ke* ‘ez liteke’ (XA-1980-AS-pe-1), *[h]on.da.tze.ko* ‘hondatzeko’ (XA-1980-GS-10tx-1), *[h]o.be* ‘hobe’ (XA-1980-BB-8tx-2). 1982ko txapelketan hasperen gutxi batzuk besterik ez ditu txertatzen Amurizak, gehienak hitz barnean: *o.len.tze.ro.[h]a.noa* ‘olentzeroan noa’ (XA-1982-GS-pe-1), *zo.ri.jo.ne.[h]an* ‘zorionean’ (XA-1982-AS-10H-1), *e.tx.e.[h]an* (x2) ‘etxean’ (XA-1982-AS-be-1; XA-1982-AS-be-2), *be.[h]a.rra* ‘beharra’ (XA-1982-BB-ge-1), *za.[h]a.rra* ‘zaharra’ (XA-1982-AS-ba). Bokal artean, hitz artean eta eremu prosodikoaren ekinean ere bai, adibide gutxi batzuetan: *o.ni.[h]i.lar.te* ‘honi hil arte’ (XA-1982-GS-4oin-1), *ne.re.[h]al.da.ri.ja* ‘nire aldarria’ (XA-1982-GS-ge-1), *[h]or.bal.din.ba.da* ‘hor baldin bada’ (XA-1982-BB-ge-2).


Sebastian Lizasok, 1986ko finalean, kasu gutxi batzuetan darabil hasperen epentetikoa. Bokal artean beti, adibide gehienak hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoa banatu eta hitz (silaba) ekina indartzen duten hasperenenak dira: *bes.te.la.[h]ez.nin.tza.ke* ‘bestela ez nintzateke’ (SL-1986-GS-pe-2), *au.to.bu.sa.[h]ar.tu.ta* ‘autobusa hartuta’ (SL-1986-GS-10tx-2), *na.go.[h]es.tu* ‘nago estu’ (SL-1986-GS-ge-2), *ne.gu.[h]i.lu.nan* ‘negu ilunaren’ (SL-1986-AS-10H-1), *ta.[h]eus.kal.du.na* ‘(e)ta euskalduna’ (SL-1986-AS-10H-1), *al.dre.be.sa.[h]o.te.dan* ‘aldrebesa ote den’ (SL-1986-AS-ptk-5). Adibide bakarra gauzatzen du hitz barnean: *e.rri.a.re.nau.rre.[h]an* ‘herriaren aurrean’ (SL-1986-GS-pe-2).

15. irudia: Espektrograma. *na.go.[h]es.tu* (SL-1986-GS-ge-2)




Jon Lopategik 1989an adibide gutxi batzuetan darabil hasperena, baina eremu prosodikoen kodan, nagusiki, aurrekoengandik bereiziz. Hitz barnean: *or.dan.tze.a[h].‘ga.tik* ‘ordaintzeagatik’ (JL-1989-GS-ha), *a[h].mes.ti.ja* ‘amestia’ (JL-1989-GS-ge-2); eta eremu prosodikoen koda edo amaierako ertzean, eten aurretik edo askotariko segmentuen aurretik: *e.be.res.pun.ta[h].ge.nun.a.me.sa* ‘Everest punta genuen ametsa’ (JL-1989-GS-ge-2), *ba.ña.la.gu.na[h].‘e.ro.ri.tze.an* ‘baina laguna erortzean’ (JL-1989-GS-ge-2), *pun.ta.or.ta.ra[h]* ‘punta hortara’ (JL-1989-GS-ge-3), *la.gu.na.ren.ta[h]* ‘lagunaren ta’ (JL-1989-GS-ge-3). Kasu bakarrean eremu prosodiko ekinean ere bai: *[h]aun.di.je.na* ‘handiena’ (JL-1989-AS-8tx-3).

16. irudia: Espektrograma. *a[h].mes.ti.ja* ‘amestia’ (JL-1989-GS-ge-2)



Andoni Egañak adibide bakarrean gauzatzen du hasperen epentetikoa 1993ko txapelketako finalean —aztertutako gainerako txapelketetan (1997, 2001, 2005) ez—, hitz barnean eta bokal artean: *le.po.ga.ñe.[h]an* ‘lepo gainean’ (AE-1993-GS-ge-1). Horri loturik, maila alofonikoan, eremu prosodikoen ekinean herskari hasperendunak gauzatzen dituela da aipagarri, kasu bakanetan, 1993an, 1997an era 2001ean: *e.san.go.de[θ].[k^h]an.tuan* ‘esango dut kantuan’ (AE-1993-AS-10H-Ip-2), *zeu.re.tzat.[k^h]al.te.a* ‘zeuretzat kaltea’ (AE-1997-GS-6mtz-2), *ne.re.bi.otz.[t^h]a.[t^h]e.lla.tu* ‘nire bihotz (e)ta teilatu’ (AE-2001-GS-ge-3), *[k^h]a.ra.ko.la(k).pa.rrez.ka* ‘karakolak barrezka’ (AE-2001-GS-8tx-2).

17. irudia: Espektrograma. *e.san.go.de[θ].[k^h]an.tuan*²⁶⁷ ‘esango dut kantuan’ (AE-1993-AS-10H-Ip-2)



Ametz Arzallusek adibide argi bakarrean gauzatzen du hitz barnean bokal arteko hasperena, 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean²⁶⁸: *a.[h]a.la* (AA-2013-BB-9phtz).

Maialen Lujanbioren 2009ko eta 2017ko aztertutako bertsoetan ez dut hasperen epentetikoaren erabilerarik jaso.

267 Aipagarria da espektrograman herskaritzat hartutako hotsek ez dutela hersketa itxurarik horren argi. Gorago ere esan bezala, modu sistematikoan eta sakonago aztertu beharreko gertakaria da.

268 Horrez gain, aipagarria da zahar [.sa^har.] (AA-2013-BB-ge-2) silaba bakarrean ahoskatzen duela, bokala une batez ahoskabetuz-edo, “makulu silaba” gertakariarekin gertatu bezala (ikus I. eranskina). Horrelako adibide bat du Amurizak ere, 1982an: nahi [.na^hj.] (XA-1982-BB-8tx-3). Etorkizunean sakonago aztertu beharreko gertakaria da hau.

Hasperena txertatzean, bertsolari gehienek kasuan —Lopategirenean izan ezik— silaba ekina (hitz barnean denean) edo hitz zein esaldi ekina (hitz artean gauzatzen denean) indartzen da; eremu prosodikoaren ekina hutsik dagoenean gauzatzen dute bertsolariek, bokal bilkura heterosilabikoak duen jarraitutasuna nolabait hautsiz, eremu prosodikoen (izan silaba, izan hitza) arteko muga nabarmenago eginez. Beste kasu batzuetan eten ondoren bokalez hasten diren hitzetan txertatzen da hasperena; kasu horietan (ere) hutsik dagoen silaba ekina betez. Egañak ahoskatutako herskari hasperendunei dagokienez ere, eremu prosodiko ekinean gauzatutakoak dira. Azkenik, Lopategik silaba eta hitz zein sintagma kodan gauzatzen ditu bere hasperen gehienak, eremu prosodikoaren amaiera adieraziz.

Aztertutako bertsolarien ekoizpenean hasperenak duen izaera gogoetagai hartuta, pentsatzekoa da bertsolariek ez dutela /h/ fonemarik beren inbentarioetan, [h] hotsa —edo herskari hasperendunak— hautemangarri diren arren. Hasperenaren gauzatzea oso mugatua da bertsolari guztietan (Amurizaren 1980ko bertsoetan jaso ditut adibide gehien, ikus I. eranskina), eta ez da sistematikoa inorengan, gauzatzeen kokapena ausazkoa ez den arren. Sarri hasperenak edo herskari hasperendunak bat egiten du ekialdeko hizkeretan hasperena gauzatzen den kokaguneekin (eta hortik abiatuta zehaztutako hitzen idatzizko grafiarekin): *be.[h]ar.ba.da* ‘beharbada’ (XA-1980-GS-ge-1), *[h]on.da.tze.ko* (XA-1980-GS-10tx-1), *[h]aun.di.je.na* ‘handiena’ (JL-1989-AS-8tx-3), *e.san.go.de[θ].[kh]an.tuan* ‘esango dut kantuan’ (AE-1993-AS-10H-Ip-2), *a.[h]a.la* (AA-2013-BB-9phtz), etab. Baina beste askotan ez: *ai.re.[h]a* ‘airea’ (XA-1980-GS-ge-3), *[h]ez.li.te.ke* ‘ez liteke’ (XA-1980-AS-pe-1), *al.dre.be.sa.[h]o.te.dan* (SL-1986-AS-ptk-5), *le.po.ga.ñe.[h]an* ‘lepo gainean’ (AE-1993-GS-ge-1), etab. Esan bezala, aztertutako kasuetan hasperena maila sintagmatikoan gertatutako bilakabidea dela esan daiteke: eremu prosodikoen ekinean eta bokal artean gauzatzen da nagusiki, bokal bilkurak ekidin eta hots katea CV egiturarantz hurbilduz, kasu askotan. Beste batzuetan eremu ekina indartzen da eta, Lopategiren kasuan, eremu amaiera, koda²⁶⁹.

Donegan eta Stampek (1979: 142) azaltzen dutenez, fortitioak ohikoago dira hizketa maila jasoetan, enfatikoan, ahoskerari arreta jartzen zaionetan. Txapelketa Nagusiko finalak izanik aztertutakoak, testuinguru formala eta kantatutakoa argi ulertarazteko bertsolarien asmoa badirela pentsa daiteke, horretarako bide fonikoak asko izan daitezkeen arren (horietako bat, hasperena gauzatzea). Horri gehitu behar zaizkio bertsolari bakoitzaren kantaeraren ezaugarriak, bilakabide indartzaileak gauzatzea erraztu edo zailduko baitute: Amurizak edo Lopategik, adibidez, indar/tentsio handiz ahoskatzen dute silaba eta hitz bakoitza kantuan, *tempo* lasaian, eta horrek ondorio segmentalak izatea ulertzekoa da. Musika ere kontuan hartu beharrekoa da: hizketa


269 Gertakari indartzailea izateaz gain, taldekatze arrastotzat har daiteke hasperenaren agerpena, eremu prosodikoak nabarmenago mugatzen laguntzen baitu (ikus §10 kapitulua bertsoetako taldekatze prosodikoaz).

kantatua izanik, hizketa lauhoak baino intonazio-eredu konplexuagoak darabiltzate sortzaileek. Horregatik, pasarte musikalen ekinetan edo musika-noten goraldietan, adibidez, ahalegin artikulatorioa egin behar dela eta, aire-etorria hasperen forman askatzen dute batzuek, batzuetan²⁷⁰. Bertsolariz bertsolari jasotako adibide guztien zerrenda eta espektrograma gehiagorako, ikus I. eranskina.

- Kontsonante palatala²⁷¹

Kontsonante palatal epentetikoa ([j]) ere txertatzen dute bertsolari batzuek aurreko eta goiko bokalaren (/i/) eta beste bokal heterosilabiko baten artean, azken honen silaba-ekinean (i.V →i.jV), hitz barnean, nagusiki.

18. irudia: Espektrograma. *aun.di.[j]e.gi.[j]ak* ‘handiegiak’ (XA-1982-AS-10H-1)



Xabier Amurizak hitz barnean gehienetan gauzatzen du /i/ ondorengo kontsonante epentetikoa bokal aurretik 1980an, bai morfema muga —izenaren eta artikulatu markaren artean, besteak beste— bai bestelako testuinguru batzuetan: *bi.[j]otz.bi.[j]o.tzez* ‘bihotz-bihotzez’ (XA-1980-GS-8H-1), *di.fe.ren.tzi.[j]ak* ‘diferentziak’ (XA-1980-GS-8H-2), *bi.[j]ok.ba.te.ra* (XA-1980-


270 Kantuari lotua daudela proposatzen dut, hain zuzen ere, Amuriza, Lizaso eta Egañaren (1993, 2005) identifikatutako “makulu silaba” deitu ditudanak (ere): silaba bakarreko nukleoa osatzen duen bokalen tarte bateko ahoskabetzea, kantaerak ekarritako ahaleginaren ondorioz. Xehetasun gehiagorako, ikus I. eranskina.

271 Atal honetan zehar [j] igurzari gisa adierazi dut kontsonante palatala, aldiro hotsaren tasun fonetikoak aldatzen direla jakin arren. Ez naiz xehetasun horietan sartu (etorkizunerako gelditzen da hori); uler bedi jasotako zeinuak kontsonante palatalaren askotariko gauzatze posibleak ordezkatu nahi litzuzkeela, irristaririk hasi ([j]) eta herskarira arte ([j]).

GS-8H-2), *bi.[j]ur.be.kiz.kit* ‘bihur bekizkit’ (XA-1980-GS-ge-2), *di.[j]e.gu* ‘diegu’ (XA-1980-GS-10tx-3), *aun.di.[j]e.nak* ‘handienak’ (XA-1980-AS-ES-1), *i.[j]es* ‘ihes’ (XA-1980-AS-ES-2), etab. 1982an ere gehienetan gauzatzen du bilakabidea Amurizak hitz barnean, kontsonante epentetiko argirik gabeko adibide kopurua handiagoa den arren: *txan.txan.go.rri.[j]a* ‘txantxangorria’ (XA-1982-GS-ge-3), *zo.ri.[j]o.ne.[h]an* ‘zorionean’ (XA-1982-AS-10H-1), *gaz.te.bi.[j]ak* (XA-1982-AS-10H-1), *aun.di.[j]e.gi.[j]ak* ‘handiegiak’ (XA-1982-AS-10H-1), *be.gi.[j]ak* ‘begiak’ (XA-1982-AS-10H-1), *be.ar.ko.di.[j]at* ‘beharko diat’ (XA-1982-AS-10H-1), *ba.ze.ki.[j]at* ‘bazekiat’ (XA-1982-AS-10H-1), *eus.ka.le.rri.[j]a* ‘Euskal Herria’ (XA-1982-AS-10H-2), *di.[j]o* ‘dio’ (XA-1982-AS-10H-3), etab. Morfema mugan gauzatutako adibideak asko dira, baina badira bestelakoak ere. Horrez gain, 1980ko txapelketako finaleko bertsoetan gauzatu gabeko testuinguru batean ekoizten du Amurizak /i/ ondorengo kontsonante epentetikoa: hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoa bananduz. Lau kasu jaso ditut: *e.gu.naun.di.[j]au* ‘egun handi hau’ (XA-1982-AS-ha), *bi.[j]al.de.ta.ra* ‘bi aldetara’ (XA-1982-AS-ha), *e.to.rri.[j]a.di* ‘etorri hadi’ (x2) (XA-1982-GS-ge-1; XA-1982-AS-10H-3).


Sebastian Lizasok 1986ko finalean oso kasu gutxitan gauzatzen du kontsonante palatala, beti hitz barnean eta gehienetan morfema mugan: *je.ni.[j]o* ‘jenio’ (SL-1986-GS-8H-1), *be.gi.[j]ak* ‘begiak’ (SL-1986-GS-ge-2), *bi.[j]ak* ‘biak’ (SL-1986-AS-8tx-2), *e.rri.[j]an* ‘herrian’ (SL-1986-AS-ge-2).

19. irudia: Espektrograma. *je.ni.[j]o* ‘jenio’ (SL-1986-GS-8H-1)



Jon Lopategik 1989an sarritan gauzatzen du bilakabidea hitz barnean —eta beste hainbatetan ez—; adibide asko izen+artikulu mugan gauzatutakoak dira, baina badira bestelakoak ere: *se.si.[j]o.a* ‘sesioa’ (JL-1989-GS-8H-2), *de.si.[j]o.a* ‘desioa’ (JL-1989-GS-8H-2), *le.zi.[j]o.a* ‘lezioa’ (JL-1989-GS-8H-2), *be.dein.ka.zi.[j]o.a* ‘bedeinkazioa’ (JL-1989-GS-8H-2), *xen.pe.la.rrek.zi.[j]o.nez* ‘Xenpelarrek zionez’ (JL-1989-GS-4oin-1), *bi.zi.[j]o* ‘bizio’ (JL-1989-GS-4oin-2), *aun.di.[j]an* ‘handian’ (JL-1989-GS-ge-1), *i.lu.si.[j]o.en* ‘ilusioen’ (JL-1989-GS-ge-1), *bi.[j]ok* ‘biok’ (JL-1989-GS-ge-1), *ne.gar.ga.rri.[j]a* (JL-1989-GS-ge-1), *sas.ki.[j]a* ‘saskia’ (JL-1989-GS-ge-2), etab. Lopategirengan bilakabidearen ez-nahitaezko izaera agerian geratzen da ondoko adibidearen bitartez:

20. irudia: Espektrograma. *bi.on.bi.[j]o.tzak* ‘bion bihotzak’ (JL-1989-GS-ge-2)



Egañak, Lujanbiok eta Arzallusek ez dute bilakabidea gauzatzen aztertutako bertsoetan; bokal bilkura bere horretan ahoskatzen dute. Horrek ez du esan nahi txapelketako aztertu gabeko beste bertsoaldi batzuetan, beste saio mota batzuetan kantatutako bertsoetan, hitz lauz, etab. kontsonante palatala /i/ ondoren eta beste bokal baten aurrean, silaba ekinean, txertatzen ez dutenik. Aldakortasun hori aztertzekoa litzateke.

Bokal artean kontsonante palatala txertatzeak —hitz barnean, batez ere, eta hitz artean ere bai, 1982ko Amurizaren ekoizpenean— bokal bilkura heterosilabikoa desegin eta hots katea CV oinarrizko egiturarantz hurbiltzen du, bigarren bokalak osatzen duen silaba (guneaz hasten dena) ekinarekin indartuz. Bilakabidea aztertutako kasu guztietan ez-nahitaezkoa da²⁷². Bere gauzatzea

272 Kasu batzuetan ez da erraza bokaletik irristarira, igurzkarira edo herskarira dagoen bilakaera zehaztea, bokala noiz amaitu eta kontsonantea noiz hasten den finkatzea.

ulertu ahal izateko, txapelketako testuinguru formalak ekar dezakeen ahoskera fortitiboa hartu behar da kontuan, bertsolari bakoitzaren estiloari loturiko kantaeraren ezaugarriekin batera (*tempoa*, musika-nota eta silabak ahoskatzeko modua, etab.). Horrekin batera, azpimarratzekoa da kontsonante palatal epentetikoa, aztertutako bertsolari eta bertsoen artean, 1980ko hamarkadako txapelketetan ageri dela batez ere, Amurizaren (1980, 1982), Lizasoren (1986) eta Lopategiren (1989) bertsoetan; ondoren jada ez da (aztertutako bertsolari eta saiuetan) ageri Egañaren (1993, 1997, 2001, 2005), Lujanbioren (2009, 2017) eta Arzallusen (2013) bertsoetan²⁷³.

Bilakabidearen presentziak txapelketako irabazleengan denboran zehar duen bilakaera ulertzeko, bertso gintzako kanonek eman diezagukete helduleku bat. Kontuan hartzekoa da 60ko hamarkada inguruan erdialdeko hizkeradun bertsolari gizonezkoen eredia zela nagusi eta kanoniko (Garzia 2007, Zubiri et al. 2019: 118), eta erdialdeko eremukoak ez ziren bertsolari askok baliatu ohi zutela sarri erdialdeko hizkeratik gertu dagoen bertsoakera, besteak beste, bertsoetan egitean. Aztertutako bertsolarien artean Xabier Amuriza eta Jon Lopategi aipatu behar dira, Euskal Herriaren mendebaldekoak izanik —bertako hizkeretan hitz eginagatik, besteak beste— erdialdeko hizkeretako zenbait ezaugarri baitarabiltzate batzuetan kantuan (aztergai dudan kontsonante palatal epentetikoa txertatzea; -e- erroa baliatzea **edun* aditzaren orainaldian: *det*, *dezu*, etab.). Hiztun bakoitzaren ibilbidea aztertu beharko litzateke gertakaria sakonago ulertu eta bilakabidea gauzatzeko arrazoi posible gehiagoren bila. Era berean, bertso larion ekoizpena aztertu beharko litzateke beste testuinguru batzuetan bertsoetan eta hitz lauz, gertakariak kontrastatu ahal izateko²⁷⁴.

1990eko hamarkadatik aurrera txapelketako finaletan aztertutako bertsolariak ez dute aipatutako bilakabiderik gauzatzen, aztertutako bertsoetan. Horietako bik behintzat erdialdeko hizkerak hitz egiten dituzte²⁷⁵ (Andoni Egañak eta Maialen Lujanbiok), eta kontsonante epentetikoa

273 Horrekin ez dut esan nahi gaur egun eta aztertutako bertsolariak bilakabidea gauzatzen ez dutenik; txapelketa nagusietako txapeldunek, aztertutako bertsoetan, 1980-1989ko tartean soilik gauzatzen dutela baizik.

274 Azterketa sistematikoen faltan, aipagarria da testuinguru berean hitz lauz kontsonante palatala beharrean [3] hotsa txertatzen dutela Amurizak eta Lopategik inoiz. Ikus, esaterako, ondoko bideoetan jasotako adibideak:

-Lopategiren *semie ta bi[3]ok* ‘semea eta biok’, kasu, 40’ 35”-etik aurrera: <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/kultura/hitzetik-hortzera/1986ko-finala-gogoan/osoan/6235/17087/> (Azken kontsulta: 2023-12-05).

Aipagarria da bertsolaria une horretan Xabier Amurizarekin ari dela hizketan, 1986ko txapelketa gogoratzen, eta bere hizkeratik gertu dagoen moldean egiten duela esan daiteke. Bideoko beste pasarte batzuetan bertsolaria kamera aurrean bakarrik ari da eta euskara batuan edo hizkera estandarretik askoz gertuago dagoen moldean egiten du, inolako kontsonante palatalik gabe.

-Amurizaren *orrekina segurantz bi[3]ekin* ‘bi segurantz horiekin’, adibidez, 12’32”-tik aurrera: <https://www.youtube.com/watch?v=EXrBKmLiXOY> (Azken kontsulta: 2023-12-05). Bertsolari honengan ere aldakortasuna azpimarra daiteke solasaldi berean.

Beraz, akaso pentsa liteke /i/ bokalaren ondoren eta hurrengo bokalaren aurretik silaba ekina betetzeko bilakabidea gauzatu ohi dutela bi bertsolariak maiz, eta bertsoetan ari direnean edo euskara baturantz gerturatzen den hizkeran, txapelketa nagusian edo telebistarako elkarrizketa formalean, behintzat, erdialdeko eruditik gertuago dagoen hotsa gauzatzen dutela: [j]. Beste batzuetan [3] hotsa, eta hainbatetan, hutsik utziko dute /i/ bokal palatal ondorengo bokalak osatzen duen silaba-ekina.

275 Ondo aztertu beharko lirateke Amets Arzallusen hizkeraren ezaugarriak. Edozein bertsolariak hizkera aldetik darabilen aldakortasuna, testuinguruaren arabera, iker-ildo emankorra litzateke ziurrenik.

gauzatzen dute batzuetan hitz lauz edo bestelako testuinguru batzuetan, bertsotan aritzean²⁷⁶. Euren hizkeretatik gertuago ari direnean hizketan edo bertsotan errazago txertatuko dute, seguru asko, bertsolari horiek kontsonante palatala, txapelketako testuinguru formal eta zabalean baino. Izan ere, kontuan hartu beharrekoa da Bertsolari Txapelketa Nagusia Euskal Herri mailakoa dela eta askotariko tokietako jendea izaten dela bai kantuan bai entzule. Horrek euskara batuan —edo euskara batutik gertu(ago)— kantatzera darama bertsolari asko.

Amuriza hartzen da bertsolaritza modernoaren aitzindari, euskara estandarrean kantatzeko ahalegina egin zuen lehenengotzat. Euskara batuan ardaztuta, orduko (1980-1982ko) bertsokera eredu kanonikoaren eta kantaera fortitiboaren eraginetatik uler daiteke akaso bere kontsonante palatalen ekoizpen ia-nahitaezkoa, baita Lopategirena ere (1989an), azken horren kasuan kontsonante palatalaren agerpena horren zabala ez izan arren. Lizasok adibide zehatz batzuetan gauzatzen du aztertutako bertsoetan; aztergai da hitz lauz edo beste testuinguru batzuetan gehiagotan egiten ote duen (bilakabidea gauzatu, gauzatzen baitu) ondorio sakonagoak atera ahal izateko. Euskara Batuaren ahoskera zainduan ez da bilakabide hau gauzatzen; hortik uler daiteke euren hizkeretan bilakabidea gauzatu baina txapelketa nagusian gainditu eta (ia) egiten ez duten bertsolarien ekoizpena (Lizaso 1986; Egaña 1993, 1997, 2001, 2005; Lujanbio 2009, 2017). Arzallusen (2013) kasuan pentsatzekoa da bere hizkeran gauzatzen ez duenez, ez duela kantuan ere egiten baina, esan bezala, beharrezkoa da bertsolariak hitz lauz eta bertsotan askotariko testuinguruetan egiten duen ekoizpena aztertzea ondorio sendoak atera ahal izateko. Oinarrizko aurkezpenarekiko gardentasuna bilatzea ere izan daiteke, hasperenaren kasuan bezala, bilakabidea gainditzeko beste arrazoi posible bat. Txapelketaz txapelketa jasotako adibideen zerrenda, azalpen eta espektrograma gehiagorako, ikus I. eranskina.

- Kontsonante ezpainkaria

/i/ bokalaren ondorengo kontsonante palatala txertatzearekiko paralelo, /u/ atzeko eta goiko bokalaren ondoren kontsonante ezpainkaria ([β]) txertatzen dute bi bertsolarik hitz barnean eta bokal artean, oso adibide bakanetan. Bilakabide honen gauzatze eremua eta neurria askoz ere mugatuagoa da, kide palatalarekin alderatuta. Xabier Amurizak 1982ko txapelketako finalean *mun.du.[β]a* ‘mundua’ (XA-1982-GS-10tx-1) ahoskatzen du, eta Jon Lopategik 1989an ondoko


276 Ikus, esate baterako:

-Egañak Errenteriako saio batean (2023-10-21) kantatutako hasierako agurreko *egualdi[j]a* ‘eguraldia’: <https://bertsoa.eus/bertsoak/23166-hasierako-agurra-andoni-egana-makazaga> (Azken kontsulta: 2023-12-05).

-Lujanbioren *nerbi[j]uagatik* ‘nerbioagatik’ (1’32” inguruan) gisakoak: <https://www.youtube.com/watch?v=3HMXZcNx5gE> (Azken kontsulta: 2023-12-05).

adibideak gauzaten ditu: *bi.[j]ok.gen.du.[β]en* ‘biok genuen’ (JL-1989-GS-ge-1), *ja.rri.ge.nu.[β]en* ‘jarri genuen’ (JL-1989-GS-ge-2), *su.[β]er.te.a* ‘suertea’ (JL-1989-AS-ha) *za.bal.du.[β]a* ‘zabaldua’ (JL-1989-AS-pe), *on.do.[β]a.ne.gon* ‘ondoan egon’²⁷⁷ (JL-1989-AS-10H-3).

21. irudia: Espektrograma. *on.do.[β]a.ne.gon* ‘ondoan egon’ (JL-1989-AS-10H-3)



Gainerako bertsolariek (eta Amurizak 1980ko txapelketan) ez dute fortitio hori gauzaten.

Aipagarria da Amuriza eta Lopategi direla kantaera fortitiboena dutenak, segmentalki gehien indartzen dutenak hots katea kantuan. Horregatik, euren ahoskerak izango du seguruena egitekorik bilakabide ez nahitaezko mugatu honen gauzatzean. Euren hizkerekin edo bestelako eragileekin (orduko bertsolarien kanonarekin, erdialdeko hizkerekin, etab.) izan litezkeen loturetan sakontzea etorkizunerako geratzen da. Txapelketaz txapelketa jasotako adibideen zerrenda eta espektrograma gehiagorako, ikus I. Eranskina.

8.4.2.1.2. Silaba-ekineko segmentuen izaera indartzea (edo ez ahultzea)


Gertakari segmental indartzaileetan, hots epentetikoak txertatzearekin batera, silaba ekineko segmentuen izaera indartzeko bilakabidea jaso dut, batetik: /i/ aurreko eta goiko bokala kontsonante gisa gauzatzea bokal artean. Bestetik, bokal arteko herskaria ez igurzkaritzea ere jaso dut, bokal arteko herskaria igurzkaritzeko bilakabidea gainditzea, hain zuzen.

²⁷⁷ Lopategik errepikan kantatzen du ‘ondoan egon’ hots katea /o/ bokalaren ondoren bokal arteko kontsonante ezpainkari eta guzti. Lehen aldiz kantatzean hitzen arteko mugak birsilabatu gabe eta bokal arteko kontsonante epentetikorik gabe egiten du: *on.do.an.‘e.gon*. Ikus espektrograma I. Eranskinean.

- /i/ aurreko eta goiko bokala kontsonante gisa gauzatzea, bokal artean

Hiru bokal elkartzen direnean hitz barnean, erdikoa goikoa eta aurrekoa izanik (/i/), hots katean /i/ bokala kontsonante palatal gisa gauzatzen da azken bokalarekin batera, silaba ekinean (ViV → V.jV), edo irristari gisa gauzatzearekin batera kontsonante palatala ere ahoskatzen da (ViV → Vj.jV). Txandakatze honetan bilakabide bat baino gehiago dago ziurrenik, gorago aurreratu bezala: lehenengo, /i/ bokala irristari gisa gauzatzen da (/anaia/ → [a.naj.a]). Irristari palatalaren ondorioz, kontsonante palatala txertatzen da hurrengo bokalaren aurrean ([a.naj.ja]). Azkenik, kasu batzuetan, irristari palatala kentzen da ([a.na.ja]). Gertakari hau aurreko kontsonante palatal epentetikoarekin lot genezake hein batean, /i/ bokalari lotua baitago eta kontsonante palatala baitu emaitza gisa. Hala ere, ez da hotsik gehitzen, /i/ bokala indartu eta kontsonante bilakatzen da.

22. irudia: Espektrograma. *o(i).[j]ek* ‘ho(r)iek’ (XA-1982-GS-8H-3)




Bilakabide hau presente dago Amurizarengan 1980ko zein 1982ko txapelketetan: bertsolari honengan nahitaezkoa dela dirudi, hiru bokaleko ViV bilkura guztietan kontsonantetzen baita /i/ aurreko eta goiko bokala, batzuetan irristariaren arrastoa ere mantenduz: *a.nai.[j]a* ‘anaia’ (XA-1980-GS-8H-1), *kai.[j]o.lan* ‘kaiolan’ (XA-1980-GS-8H-1), *gei.[j]o* ‘gehio’ (XA-1980-GS-8H-3), *ka.[j]o.la* ‘kaiola’ (XA-1980-GS-8H-2, 3), *a.na.[j]ak* ‘anaiak’ (XA-1980-GS-ge-1), *e.tsa.[j]a* ‘etsaia’ (XA-1980-GS-ge-1), *ge.[j]e.gi* ‘gehiegi’ (XA-1980-AS-ha), *o.[j]ar.tzu.na* ‘oihartzuna’ (XA-1980-AS-8tx), *sa.[j]ets* ‘saihets’ (XA-1980-AS-ge-2), *ba.[j]etz* ‘baietz’ (XA-1980-AS-ge-2), *o.[j]e.ri* ‘ho(r)ieri’ (XA-1982-GS-8H-1), *ja(i).[j]o* ‘jaio’ (x2) (XA-1982-GS-8H-2; XA-1980-GS-

4oin-1), *o(i).[j]ek* ‘ho(r)iek’ (XA-1982-GS-8H-3), *go.[j]e.tan* ‘goietan’ (XA-1982-GS-8H-4), *e.tsai.[j]en* ‘etsaien’ (XA-1982-GS-4oin-1), *a.rrai.[j]o* ‘arraio’ (XA-1982-GS-4oin-1), etab.

Jon Lopategik ere gauzatzen du 1989an, ez-nahitaezko bilakabide gisa: *sa.[j]a.tze.ko* ‘saiatzeko’ (JL-1989-GS-ha), *na.[j]an.be.ti* ‘nahian beti’ (JL-1989-GS-ha), *le.[j]a.le.ta* ‘leial eta’ (JL-1989-GS-ha), *o.[j]ar.tzu.na* ‘oihartzuna’ (JL-1989-GS-8H-4), *dei.[j]a* ‘deia’ (JL-1989-GS-10tx-3), *ga.ra.[j]an* (JL-1989-GS-ge-1), etab.

23. irudia: Espektrograma. *le.[j]a.le.ta* ‘leial eta’ (JL-1989-GS-ha).



Andoni Egañak adibide bakarrean gauzatzen du /i/ bokala kontsonante palatal argi gisa, aztertutako lau txapelketetan; 1997koan: *na.[j]o.al.tzen.dun* ‘nahiago al zenuen’ (AE-1997-GS-6mtz-2)²⁷⁸.

Gainerako bertsolariek (Sebastian Lizasok, Maialen Lujanbiok eta Amets Arzallusek) ez dute aztertutako Txapelketa Nagusiko finaletako bertsoetan gauzatzen. Horrek, aurretik kontsonante epentetiko palatalarekin azaldu bezala, ez du esan nahi bertsolari horiek /i/ bokala inoiz kontsonantetzen ez dutenik. Bestelako testuinguruetan ekoiztutako hizketa eta bertsoak aztertzea beharrezkoa da bilakabide honen inguruko ulerkera sakonagorako.

Berrero ere, Xabier Amuriza eta Jon Lopategi dira bilakabide indartzaile hau gauzatzen duten bertsolariak, nagusiki; gainera, aztertutako bertsoetan nahitaez Amurizaren kasuan. Ahoskera enfatikoena duten bertsolariak izaki, hasperenarekin eta kontsonante palatal eta ezpänkari epentetikoekin batera silaba ekina indartzen duten gertakarien multzoan koka daiteke hau ere.

²⁷⁸ Zalantzaszko beste adibide bat ere jaso dut: *ar.tza.[j]ek.no.lae.do* ‘artzaiek nola edo’ (AE-1997-AS-10H-2).


Aurreko puntuan esan bezala, bilakabide honek euren hizkerekin edo bestelako eragileekin (orduko bertsolarien kanonarekin, erdialdeko hizkerekin, etab.) izan litzakeen loturetan sakontzea etorkizunerako geratzen da. Txapelketaz txapelketa jasotako adibideen zerrenda, azalpen eta espektrograma gehiagorako, ikus I. Eranskina.

- Bokal arteko herskariak ez igurzkaritzea (igurzkaritze bilakabidea gainditzea)

Gertakari segmental indartzaileekin amaitzeko, batzuetan, bertsolariek ez dituzte bokal arteko herskariak igurzkaritzen, herskari gauzatuz testuinguru ahostun horretan, edo ohi baino herskariago hautematen direlarik aipatutako hotsak. Hainbatetan azaldu bezala, gertakari hau ez dut sistematikoki aztertu, bertsolariek ekoizitako herskari guztien gauzatze fonetikoa nolakoa izan den jasota; hautematek abiatuta, deigarri egin zaizkidan adibide zehatzak bakarrik jaso ditut, lehen hurbilpena egiteko.

Amurizak, 1980an jasotako adibideetan, hitz arteko zein hitz barneko herskariak mantentzen dituelako inpresioa ematen du batzuetan, bokal artean: [b]a.[d]u.[g]u.[g]aur ‘badugu gaur’ (XA-1980-GS-ha), *i.zan.go.da.[g]u.re.la.na* ‘izango da gure lana’ (XA-1980-GS-ha), *li.[b]re.na.go.[b]a.ña* ‘libre nago baina’ (XA-1980-GS-8H-1), *e.do.[g]u.su.a* ‘edo (lehen)gusua’ (XA-1980-GS-8H-1), [b]a.[d]a.[g]o.la ‘badagoela’ (XA-1980-GS-8H-3), [b]e.har.[b]a.[d]a.[d]a.to.rre.la ‘beharbada datorrela’ (XA-1980-GS-ge-2), etab²⁷⁹. Espektrogramak aztertuta, ordea, gertakaria konplexuagotu egiten da, ustez herskari direnak ez baitira horren argi azaltzen²⁸⁰:

24. irudia: Espektrograma. *ba.du.gu.gaur* ‘badugu gaur’ (XA-1980-GS-ha)




279 1982an ez dut adibiderik jaso hautematek abiatuta, baina ez du esan nahi ez dagoenik.

280 Herskari gisa jaso ditut espektrogramako transkripzioan, edonola ere. Hainbatetan esan bezala, aurrera begira sakonago aztertu beharreko alorra da ondokoa.

Lopategik, 1989an, hitzen ekinetako herskariak mantentzen ditu herskari, jasotako adibideetan hautemandakoaren arabera: *dau.ka.gu.[b]e.ne.tan* (JL-1989-AS-8tx-1), *las.ter.[d]e.nok* (JL-1989-AS-be2), etab. Ikus jarraian, 25. irudiko adibidean kontsonante belarraren eta herskari gisa hautemandako hitz hasierako ezpainkariaren arteko alde akustikoa²⁸¹.

25. irudia: Espektrograma. *dau.ka.gu.be.ne.tan* (JL-1989-AS-8tx-1).




Egañaren 1997ko bertsoak transkribatzean, bokal arteko eta hitz hasierako herskari ahostunak igurzkaritzen ez zituelako hautematea izan dut arratsaldeko saioko *Iparragirre abila dela* doinuan kantatutako bere bigarren bertsoan, herskari gisa gauzatzen dituela jarraian nabarmendutako kontsonante ezpainkariak: *bi.zi.a.nai.ta.bi.zi.a.gal.du/ a.la.da.bi.zi.ber.be.ra* ‘bizia nahi eta bizia galdu, hala da bizi berbera’ (AE-1997-AS-ip-2), gutxienez. Azterketa akustikoa eginda, ordea, ematen du eten laburrak egiten dituela hitz artean kontsonanteak ahoskatu aurretik. Etena ere segmentatze baliabidea da, eremu prosodiko ekineko segmentuak indartzea izan daitekeen bezalaxe (ikus §10 atala).

Lujanbiok hainbat adibide gauzatzen ditu bai 2009an bai 2017an, hitz artean, bokal artean, hitz ekineko herskari batzuk halaxe (herskari) mantentzen dituelako hautematea eraginez: *a.ze.le.rau.zaiz.ki.zu.[b]i.o.tze.ta.pul.tsu* ‘azeleratu zaizkizu bihotz eta pulsu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *es.pue.la.[b]at.zen.ba.ño* ‘espuela bat zen baina’ (ML-2009-AS-ptk-2), *ba.ñau.tsiez.ke.ro.[b]e.lau.na.e.do* ‘baina hautsiz gero belauna edo’ (ML-2017-GS-8H-2), *ne.ga.rre.gi.ten.du*.

²⁸¹ Hotsen arteko iraupen aldeaz gain, aztertu beharrekoa litzateke ea baden ezpainkaria herskari hautemateko moduko bestelako alorrik.

[g]ar.tsu ‘negar egiten du gartsu’ (ML-2017-AS-ge-3), ta.gu.[b]e.gi.ra ‘(e)ta gu begira’ (ML-2017-BB-ge-2), nai.[b]e.ze.la.ko.[b]e.ze.ro ‘nahi bezalako bezero’ (ML-2017-BB-ge-2). Ikus ondoko 26. irudian /b/ kontsonante ezpainkariaren bi gauzatze posible (irudian [b] eta [β]²⁸²), adibidez:


26. irudia: Espektrograma. *es.pue.la.[b]at.zen.[β]a.ño* ‘espuela bat zen baina’ (ML-2009-AS-ptk-2).



Arzallusek 2013an ondoko adibideak gauzatzen ditu, gutxienez, hitzen ekinetako herskari ahostunak mantenduta herskari (edo hautemate hori eraginez): ta.gu.[b]e.re.[b]i.maj.ta.le ‘(e)ta gu bere bi maitale’ (AA-2013-GS-8H-1), a.rre.ba.[b]i (AA-2013-AS-ba).

²⁸² Ematen du iraupenak bereizten dituela, nagusiki, bi hotsak; iraupena dela batez ere hotsen hautemate desberdina baldintzatzen duena.

27. irudia: Espektrograma. *ta.gu.be.re.bi.mai.ta.le* '(e)ta gu bere bi maitale' (AA-2013-GS-8H-1).



Lizasoren 1986ko aztertutako bertsoetan ez dut halako gertakaririk jaso (horrek ez du esan nahi ez dagoenik). Bokal arteko herskariak herskari mantentzeko gertakariarekiko aurrez aurre, aipagarria da bertsolariak hitz artean eta bokal arteko testuinguruan hasiera batean lehen hitzeko kodan —gero birsilabatuta, silaba ekinean— dauden herskariekin batzuetan duen joera ahultzailea, *pa.zi.en.tzi.ri.[ɣ]e.zo.te.di.o* 'pazientzi(a)rik ez ote dio' (SL-1986-GS-8H-1) gisakoak ahoskatuz (ikus §8.4.2.1.3 atala).

Lagin txikiegia da ondorio sendoak ateratzeko, baina pentsatzekoa da bi joera desberdin aurkitzen direla bertsolariengan gertakari honi dagokionez: batetik, Amurizak, duen (ia) silabakako ahoskera fortititiboari jarraiki, silaba ekinetako herskariak nabarmentzen dituela dirudi, hitz ekinean zein hitz barnean. Gainerako bertsolarien kasuan, hitz barnean dauden herskariekin gertatzen dena azertu beharko litzateke sistematikoki, baina jasotako adibideek iradokitzen dute hitz ekinak nabarmentzeko baliabide segmentala dela, hots katean hitzok segmentatzeko baliabide (ikus §10.2.6 atala taldekatze arrastoez). Txapelketaz txapelketa jasotako adibideen zerrenda, azalpen eta espektrograma gehiagorako, ikus I. Eranskina.

- Txistukari ondorengo herskari ahostuna ahoskabetzea, eta beste

Ezeztapenari lotutako erregela izaki, bertsolari guztiek gauzatzen dute silaba ekina indartzea ondorio duen *lenitioa*: *ez + da* → [es.ta]. Izan ere, txistukari ahoskabeak herskariaren ahostuntasuna asimilatzen du, ahoskabe bilakatuz, baina txandakatzearen ondorioz gertatzen den herskari ahoskabea ozentasun txikiena duten segmentuen artean dago ozentasun eskalan, silaba osatzen duten segmentuen arteko kontrastea areagotuz (hatsarre silabikoak hobeto betez).

Xabier Amurizak 1980an aukera duen kasu gehienetan gauzatzen du ahoskabetzea; beti aditza /d/ kontsonante horzkariarekin hasten bada [es.ta.kit] ‘ez dakit’ (XA-1980-GS-ha; XA-1980-GS-4oin; XA-1980-AS-ge-2), [es.tu] ‘ez du’ (XA-1980-GS-10tx-1), [es.ta.ɣo.la] ‘ez dagoela’ (XA-1980-GS-10tx-2), [es.ta] ‘ez da’ (XA-1980-GS-3; XA-1980-GS-4oin), etab. Batzuetan ahoskabetzen du txistukari ondorengo /b/ ezpainkaria: [es.pa.na.ɣo] ‘ez banago’ (XA-1980-AS-ge-1) baina [ez.βa.da] (XA-1980-GS-ge-2). /g/ kontsonante belarrarekin jasotako adibide bakarrean ez du ahoskabetzen: [ez.ɣai.te.sen] (XA-1980-AS-ge-1). 1982ko adibideetan, beti gauzatzen du ahoskabetzea Amurizak: [es.pa.lits] ‘ez balitz’ (XA-1982-AS-8tx-1), [es.ti.ra] ‘ez dira’ (XA-1982-AS-10H-1), [es.ta.kit] (XA-1982-AS-10H-2), [es.tau.kak] ‘ez daukak’ (XA-1982-AS-10H-3), [es.tun] ‘ez duen’ (XA-1982-AS-10H-3), [es.ti.gu] ‘ez digu’ (XA-1982-AS-be2), [es.tu.gu] (XA-1982-BB-8tx-2), [es.pa.da] ‘ez bada’ (XA-1982-BB-8tx-3), [es.ta.goj.nojs] ‘ez dago inoiz’ (XA-1982-BB-pe2), etab.

Sebastian Lizasori dagokionez, 1986ko Txapelketa Nagusiko finaleko bertsoetan batzuetan gauzatzen du /d/ kontsonante horzkariaren ahoskabetzea, jasotako adibideetan: [es.ta] ‘ez da’ (SL-1986-GS-8H-1), [es.ta.ðu.ka.su] ‘ez daukazu’ (SL-1986-GS-8H-2), [aw.es.ta] ‘hau ez da’ (SL-1986-GS-10tx-1), [a.pe.ti.to.ri.yes.tau.ka.te.ta] ‘apetitorik ez daukat eta’ (SL-1986-GS-ge-2), etab. Beste hainbatetan ez du herskaria ahoskabetzen, horren ordean txistukaria ahostunduz (ikus Hurch 1988a: 347; Oñederra 2004: 52-53; Jauregi 2007: 261 bilakabide honen emankortasunaz): [ez.ðu.te] (SL-1986-GS-ha), [ez.ði.at] (SL-1986-AS-ptk-1), [ez.ða.ki.e.nik] (SL-1986-AS-ge-2), etab.

Jon Lopategik 1989an ere ahoskabetzen ditu herskari ahostunak (jasotako adibideak /d/ horzkariarekin dira), gehienetan: [ni.kes.tut] ‘nik ez dut’ (JL-1989-GS-4oin-2), [es.ta.ki.ser.ða.βi.λen] ‘ez dakit zer dabilen’ (JL-1989-GS-10tx-2), [es.tu.ɣu.mer.ke.a] ‘ez dugu merkea’ (JL-1989-AS-ha), [es.ta.la.pu.re.taor.tan] ‘ez da lapurreta horretan’ (JL-1989-AS-8tx-3), [es.tu.su.eś.ti.ma.tsen] ‘ez duzu estimatzen’ (JL-1989-AS-8tx-4), [es.ta.ðu.kat.gi.ro] ‘ez daukat giro’ (JL-1989-AS-4oin), [o.ri.es.ta] ‘hori ez da’ (JL-1989-AS-10H-2), etab.

Andoni Egañak ere bai, aztertutako final guztietan, gehienetan. 1993an kontsonante horzkaria (/d/) ahoskabetzen du: [taw.rak.ton.to.a.kes.ti.ra] ‘(e)ta haurrak tontoak ez dira’ (AE-

1993-GS-8H-2), [o.re.kes.tu] ‘horrek ez du’ (AE-1993-GS-6mtz-2), [es.ta.ðe.ta.λe.tfu.ku.na] ‘ez da detaile txukuna’ (AE-1993-GS-ge-3), [ser.ðe.nes.ta.ki] ‘zer den ez daki’ (AE-1993-AS-8tx-1), [es.tu] ‘ez du’ (AE-1993-AS-1p-1), etab. Ez, ordea, kontsonante belarra (/g/): [es.γo.a.si.no.ra] ‘ez goaz inora’ (AE-1993-AS-8tx-3). 1997an nahitaez gauzatzen du ahoskabetzea jasotako adibideetan (ez dago herskari belardun adibiderik): [es.ta.βa.ka.rik] ‘ez da bakarrik’ (AE-1997-GS-ha), [es.taw.kat] ‘ez daukat’ (AE-1997-GS-ha), [u.re.ti.kes.ta] ‘urretik ez da’ (AE-1997-AS-ge-1), [es.taw.kat.swer.te] ‘ez daukat suerte’ (AE-1997-AS-10H-2), [es.tek] ‘ez duk’ (AE-1997-AS-ge-2), etab. 2001ean gehienetan ahoskabetzen du /d/ kontsonante horzkaria: [es.tet.χa.śaŋ.go] ‘ez dut jasango’ (AE-2001-GS-8H-2), [es.ta.kit.ber.ðin] ‘ez dakit berdin’ (AE-2001-GS-6mtz-1), [es.tu.me.re.si] ‘ez du merezi’ (AE-2001-GS-6mtz-3), [es.ta.kal.te.ra.ko] ‘ez da kalterako’ (AE-2001-AS-ptk-4), [ka.βa.λe.ro.βa.tes.ta] ‘caballero bat ez da’ (AE-2001-AS-ptk-6), etab. 2005ean nahitaez ahoskabetzen du /d/ herskari horzkaria jasotako adibideetan: [es.ta.i.saŋ.go] ‘ez da izango’ (AE-2005-GS-8H-1), [naj.se.ta.‘es.te.γum.be.te] ‘nahiz eta ez dugun bete’ (AE-2005-GS-8H-2), [es.tu.gwe.tsi.de.re.pen.te] ‘ez dugu etsi derrepente’ (AE-2005-GS-8H-2), [es.ta.su.re.kal.te] ‘ez da zure kalte’ (AE-2005-GS-8tx-3), etab.

Maialen Lujanbiok 2009an gehienetan ahoskabetzen du /d/ kontsonantea: [no.la.saw.ri.a.kes.ti.re.ni.tfi] ‘nola zauriak ez diren itxi’ (ML-2009-GS-8H-1), [es.ti.su.tu.ler.tu] ‘ez dizut ulertu’ (ML-2009-GS-6mtz-3), [es.ta.o.pes.joa.ten] ‘ez da oinez joaten’ (ML-2009-AS-10tx-2), (*gu bioi jaten eman*) [si.γu.na.kes.tu.e.la.χa.naj] ‘(gu bioi jaten eman) zigunak ez duela jan nahi’ (ML-2009-BB-6mtz-3), etab. Ondokoak dira, besteak beste, jasotako salbuespenak: [ez.ða.kit] (ML-2009-GS-ge-3), [ez.ði.su.te.ran.tzuŋ.go] ‘ez dizut erantzungo’ (ML-2009-BB-8tx-3). 2017ko txapelketako finalean /d/ beti ahoskabetzen duela dirudi: [es.ta.lu.fu] ‘ez da luxu(a)’ (ML-2017-GS-8tx-1), [es.taw.ka.su.e] ‘ez daukazue’ (ML-2017-GS-ge-3), [aŋ.ge.ra.ri.kes.tut.naj.βa.ɲa] ‘han gerrarik ez dut nahi baina’ (ML-2017-AS-6mtz-2), [es.te.su] ‘ez duzu’ (ML-2017-AS-ge-3), [es.ta.mu.γi.tu.ko] ‘ez da mugituko’ (ML-2017-AS-ptk-2), [beś.te.e.kes.tu.te.βa.li.o] ‘besteek ez dute balio’ (ML-2017-AS-ptk-5), [es.tu.te.śaŋ.go] ‘ez dut esango’ (ML-2017-AS-ge-3), etab. Ez, ordea, /b/ herskari ezpainkaria: [ez.βal.dim.ba.naw.su.naj] ‘ez baldin banauzu nahi’ (ML-2017-BB-8tx-3).

Amets Arzallusek gehienetan ahoskabetzen du /d/ herskari horzkaria: [es.tu.ta.meś.ten] ‘ez dut amesten’ (AA-2013-GS-ha), [es.tae.re.ɟa] ‘ez da erraza’ (AA-2013-GS-8tx-2), [es.ta.kit.sem.bat.fa.mi.lik] ‘ez dakit zenbat familiak’ (AA-2013-GS-ge-2), [es.ta.‘i.saŋ.go] ‘ez da izango’ (AA-2013-GS-ge-2), [ni.kes.ti.o.te.maŋ.go] ‘nik ez diot emango’ (AA-2013-AS-ptk-3), etab. Ondokoa da salbuespen bat: [e.γi.pez.ðu.te.na] ‘egin ez dutena’ (AA-2013-GS-6mtz-3).

Puntu honetan aipagai dudan txandakatzea oso zabaldua dago bertsolari guztien ekoizpenetan. Herskari horzkariaren (/d/) ahoskabetzea da nagusi, salbuespenak salbuespen; herskari ezpainkariarekin (/b/) eta belarrarekin (/g/) adibideak askoz urriagoak dira, eta ahoskabetzeak, are gutxiago. Bertsolarien silabatzeetan, ahoskabetzearen alde egindakoan, herskariak hasten duen silaba ekina indartu egiten da, hots kateko osagaien arteko lotura (asimilazioz) badela agerian geratzeaz gain²⁸³ ²⁸⁴. Bertsolariz bertsolari jasotako adibideen zerrendarako, ikus I. Eranskina.

8.4.2.1.3. Silaba-kodako kontsonanteak ahuldu edo kentzea²⁸⁵

Bertsolariengan neurri handiago edo txikiagoan jaso dudan beste joera segmental bat izan da hitz arteko kontsonante bilkura heterosilabikoetan, silaba kodako kontsonanteak ahuldu edo kentzea. Kontsonante bilkura guztiak aztertu ezin, eta klase bereko hotsekin gertatzen dena aztertu dut, herskari bilkurei eta sudurkari bilkurei erreparatuta, bertsolari guztiengan aurkitzen baitira oparo testuinguru horiek²⁸⁶.

Xabier Amurizak kontsonante bilkurako osagai guztiak ahoskatzeko ahalegina egiten du sarri aztertutako 1980ko eta 1982ko finaletako bertsoetan, baina batzuetan ahuldu eta kendu ere egiten ditu kontsonante bilkuradun hots kateak. Herskari taldeen ahultze adibidetzat har daitezke ondokoak, kasu, bi txapelketetako adibideak jasoz: *kai.jo.la.ba.da* ‘kaiola bat da’ (XA-1980-GS-8H-2), *bi.jo[ɣ].ba.te.ra* ‘biok batera’ (XA-1980-GS-8H-2), *ba.so.ri[ɣ].ba.so* ‘basorik baso’ (XA-1980-GS-8H-2), *zer.bai[δ].ge.jo* ‘zerbait gehio’ (XA-1980-GS-8H-3), *es.ku.zi.ki.ña[ɣ].di.tu.da.la* ‘esku zikinak ditudala’ (XA-1982-GS-8H-2), *nai.ze.ni.ge.ro* ‘naizenik gero’ (XA-1982-GS-8H-4), *an.ka.ti.go.ra.goe.re* ‘hankatik gorago ere’ (XA-1982-GS-10tx-1), *or.ti.kal.ku.la* ‘hortik kalkula’ (XA-1982-AS-ha), etab. Sudurkari taldeak bakundu egiten ditu batzuetan bai 1980an bai 1982an: *e.sa.nai* ‘esan nahi’ (XA-1980-GS-pe-1), *au.rre.ha.na.go* ‘aurean nago’ (XA-1980-BB-8tx-1),

283 Ahoskabetzea gertatzen ez denean txistukaria da asimilatzen dena, ahostunduz; horrek ere adierazten du hotsen arteko lotura katean, baina ez du silaba-ekina gehiago indartzen.

284 Ezeztapenari lotutako bestelako txandakatzeak ere aurki daitezke bertsolariengan, kasuan kasuan, emaitza gisa CV oinarritzko silaba-egiturara hurbiltzea dutenak: txistukari bilkura heterosilabikoa sortzen denean, soildu eta afrikatzea (*ez.zuten* → *e.tzuten*); txistukari ondoren ozena badago silaba kodako txistukaria kentzea (*ez nengoen* → *enengoen*), etab. Bertsolari bakoitzari dagokion atalean jaso ditut gertakari hauek oin oharretan, azterketa sakonagoaren faltan.


Era berean, silaba ekina indartzen duten txandakatze gehiago aurki daitezke: ozen ondoko txistukarien afrikatzeak, esate baterako: *de.na.lo.re.a.be.ar.tzu.e.na* ‘dena lorea behar zuena’ (ML-2017-GS-ge-3), etab. Horrelakoak ere bertsolari bakoitzaren azterketa xehean jaso ditut, azterketa sistematikorik egin gabe.

285 Aurrez ere hainbatetan esan bezala, kontsonante bilkura bakoitza ahultzean gertatzen diren xehetasun fonetikoak aztergai dira. Jarraian bildutako adibideek abiapuntu izan nahi lukete aurrera begirako azterketa sakonagorako.

286 Bokal arteko kontsonanteak ahuldu, kendu eta bokal bilkurako hotsetako bat desilabagiletuta silaba bakarrean gauzatzea (metrikan sineresi deiturikoa, desilabagiletzea hitz barnean bada, eta sinalefa deiturikoa, hitz artean bada) ohikoa da bertsolariengan (sortzaile batetik bestera alde nabarmenak dauden arren desilabagiletzeen gauzatzean). Gertakari horiek §8.4.3 atalean aurkeztu ditut, eskakizun metrikoei lotuta.


ar.tze.nau. ‘hartzen nau’ (bi aldiz, XA-1980-BB-pe2), *jo.a.nin.tzen* ‘joan nintzen’ (XA-1980-BB-ge-1), *e.gi.nai.ta* ‘egin nahi ta’ (XA-1982-GS-10tx-3), *o.len.tze.ro.ha.no.a* ‘olentzeroan noa’ (XA-1982-GS-pe-1), *o.rai.na.go* ‘orain nago’ (XA-1982-BB-8tx-4), etab.

28. irudia: Espektrograma. *an.ka.ti.go.ra.goe.re* ‘hankatik gorago ere’ (XA-1982-GS-10tx-1)



Sebastian Lizasok kontsonante bilkurak ahuldu eta soiltzen ditu sarri 1986ko bertsoetan —hitz artean bezala, hitz barnean ere—, beste batzuetan kontsonanteak bere horretan (lenitiorik gabe) ahoskatu arren. Sudurkari bilkurak, esaterako: *pa.rran.da.nin.tzan* ‘parrandan nintzen’ (SL-1986-GS-ge-1), *mai.ta.tze.na.zu* ‘maitatzen nauzu’ (SL-1986-GS-ge-1), *ju.a.na.[j]ez.ba.de.zu* ‘joan nahi ez baduzu’ (SL-1986-AS-8tx-2), *ju.a.te.nai.ze.ne.an* ‘joaten naizenean’ (SL-1986-AS-10H-3), etab. Herskari taldeak: [nor.βaj.te.gawr] ‘norbaitek gaur’ (SL-1986-GS-8H-1), *ni.de.dan.pues.tu.a* ‘nik dudan postua’ (SL-1986-GS-10tx-1), etab.


29. irudia: Espeketrograma. [nor.βaj.te.gawr] ‘norbaitek gaur’ (SL-1986-GS-8H-1)



Kontsonante taldeez harago, Lizasoren silabatzean nabarmendu beharreko gertakaria da hitz amaieran, kodan dagoen herskari ahoskabea ahostundu egiten dela batzuetan, bokal artean dagoenean, gorago aurreratu bezala (‘bertsoak entzutera’ → *ber.so.a.[ɣ]en,tzu.te.ra*, SL-1986-GS-10tx-1). Hots katea birsilabatuta, hurrengo hitzeko bokalarekin batera antolatzen da herskaria silaba ekinean, ahostundurik maiz: *e.ro.ti.[ɣ]e.ro.ra* ‘erotik erora’ (SL-1986-GS-10tx-2), *a.pe.ti.to.ri.[ɣ]ez.tau.ka.te.ta* ‘apetitorik ez daukat eta’ (SL-1986-GS-ge-2), *as.ko.ri.[ɣ]e.tza.zu.ja.rri* ‘askorik ez (e)zazu jarri’ (SL-1986-GS-ge-2), *po.zi.[ɣ]ar.tu.ko.du* ‘pozik hartuko du’ (SL-1986-AS-8tx-4), *i.si.li.[ɣ]e.go.na.di* ‘isilik egon hadi’ (SL-1986-AS-ptk-2), etab. Eremu prosodikoaren baitako kohesioa uzten du agerian bilakabideak, hitzen mugak gainditzen baititu gertakariak, eta hots katearen ahoskagarritasuna areagotzen da herskaria asimilatu eta ahostunduz²⁸⁷.


287 Ematen duenez, Azpeitiko hizkeran ohikoa den bilakabidea da bokal arteko herskari ahoskabea ahostuntzea (Hualde 2019): bertsolaria bertakoa izanik, ulertzekoa litzateke kantuan ere hizketako bilakabideak islatzea. Edonola ere, Lizasoren hitz lauko hizketa aztertu eta bertsoetako gauzatzeekin alderatzea litzateke beharrezko, lotura sendoak egin ahal izateko.

30. irudia: Espektrograma. *e.ro.ti.[ɣ]e.ro.ra* ‘erotik erora’ (SL-1986-GS-10tx-2)




Jon Lopategiren 1989ko kasuan, hitz amaieran, koda posizioan, dagoen herskariak igurzkaritu edo kendu egiten ditu beste kontsonante baten aurrean (ez soilik beste herskari baten aurrean): *a.pai.za[ɣ].be.rak* ‘apaizak berak’ (JL-1989-GS-8H-1), *ba.te.re.fru.tu.ri.ga.be* ‘batere fruiturik gabe’ (JL-1989-GS-8H-3), *zu([ɣ]).gal.ga.re.kin* ‘zuk galgarekin’ (JL-1989-GS-8H-2), *guz.ti.e[ɣ].de.si.jo* ‘guztiek desio’ (JL-1989-GS-4oin-2), *e.be.res.ga.ña* ‘Everest gaina’ (JL-1989-GS-ge-2), etab. Hitz arteko sudurkari elkarketak ere bakuntzen ditu: *e.me.nau.zu.e* ‘hemen nauzue’ (JL-1989-GS-8H-1), *pen.tsa.tze.na.go* ‘pentsatzen nago’ (JL-1989-GS-8H-3), *e.gi.ni.zun.da* ‘egin nizun eta’ (JL-1989-GS-8H-3), *ba.te.ki.nen.bi.le.ni* ‘batekin nenbilen ni’ (JL-1989-GS-10tx-1), etab.

31. irudia: Espektrograma. *fru.tu.ri.ga.be* ‘fruiturik gabe’ (JL-1989-GS-8H-3)




Andoni Egañak, aztertutako lau txapelketetako finaletan (1993, 1997, 2001, 2005), kontsonante bilkuretan segmentu guztiak ahoskatzeko joera du, baina sarri katean hotsak asimilazioz ahultzen dira (gehiagotan silaba kodako kokapena duen segmentua), baita kodako kontsonanteak kendu ere, batzuetan. Herskari bilkurek jasandako lenitio adibideak ondokoak dira, beste batzuen artean: *a.me.tsa[ɣ].ba.du* ‘ametsak badu’ (AE-1993-GS-8H-2), *e.ga.ña[ɣ].dau.kan* ‘Egañak daukan’ (AE-1993-GS-8H-4), *de.no[ɣ].ber.di.nak* ‘denok berdinak’ (AE-1993-AS-10H-3), *e.san.go.de[θ].[kʰ]an.tuan* ‘esango dut kantuan’ (AE-1993-AS-Ip-2), *ne.re.tza[ð].be.rriz* ‘niretzat berriz’ (AE-1997-AS-ge-3), *do.nos.ti[ɣ].de.ne.ti[ɣ].du* ‘Donostiak denetik du’ (AE-2001-GS-pe2), etab. Sudurkari bilkuren bakuntze kasuak, berriz, ondokoak: *mur.gil.tze.naiz.ni* ‘murgiltzen naiz ni’ (AE-1993-GS-8H-2), *e.sa.te.nun.bai* ‘esaten nuen, bai’ (AE-1997-GS-ge-1), *e.gi.naiz* ‘egin naiz’ (AE-1997-AS-ha), *on.do.a.neu.o.re.ka.tu* ‘ondoan neu orekatu’ (AE-2001-GS-ge-3), etab.

32. **irudia:** Espeketrograma. *zu.en.txa.lo.a[ɣ].be.re.tza.di.ra* ‘zuen txaloak beretzat dira’ (AE-1993-AS-ba),




Maialen Lujanbiok 2009ko finaleko bertsoetan herskari bilkurak bere horretan ahoskatzen ditu joera nagusi gisa, elkarketaren bakuntze adibide gutxi batzuk badauden arren: *o.e.ti.kos.ta.ta* ‘ohetik kostata’ (ML-2009-GS-8H-1), *zu.e.guz.ti.on.tzat.la.gaz* ‘zuek guztiontzat lagaz’ (ML-2009-AS-ba). Sudurkari bilkurak, berriz, sarriago bakuntzen ditu (kenketa gabeko adibideak ere badiren arren): *ni.ke.ma.ni.zun* ‘nik eman nizun’ (ML-2009-GS-6mtz-1), (*gu bioi jaten eman*) *zi.gu.na.kez.tu.e.la.ja.nai* ‘(gu bioi jaten eman) zigunak ez duela jan nahi’ (ML-2009-BB-6mtz-3), *i.pin.tze.naiz* ‘ipintzen naiz’ (ML-2009-BB-8tx-1), etab. 2017ko txapelketan herskari bilkura gehiago ahultzen ditu —bilkurak bakunduz edo herskariak asimilatuz eta igurzkarituz—, oraindik ere kontsonante taldeak bere horretan ahoskatzea joera indartsua den arren: *bo.rro.ka.neur.tu.ba.da* ‘borroka neurtu bat da’ (ML-2017-GS-ha), *i.si.li.ge.ra.tu.na.din* ‘isilik geratu nadin’ (ML-2017-GS-ge-3), *naiz.gu.ge.ra.‘a.ra.zi.nai* ‘nahiz guk gera arazi nahi’ (ML-2017-AS-6mtz-1), *je.su.se[ɣ].bi.mi.llaur.te* ‘Jesusek bi mila urte’ (ML-2017-AS-ptk-1), *ba.ka.rri[ɣ].bai.zen* ‘bakarrik baitzen’ (ML-2017-BB-8H-1), *gi.zon.ba.di.jo.a* ‘gizon bat dihoa’ (ML-2017-BB-ge-1), *gu[ɣ].be.ti[ɣ].go.ra.i.ka.si.du.gu* ‘guk behetik gora ikasi dugu’ (ML-2017-AS-ba), etab. Sudurkari taldeak bakuntzen ditu batzuetan, 2009an egin bezala: *e.gi.naiz* ‘egin nahiz’ (ML-2017-GS-ha), *tao.rra.zal.tze.naiz* ‘ta hor azaltzen naiz’ (ML-2017-GS-8H-3), *al.de.gi.nu.en* ‘alde egin nuen’ (ML-2017-GS-ge-1), *e.ro.tze.nau.bai* ‘erotzen nau bai’ (ML-2017-AS-ge-3), etab.

33. **irudia:** Espektrograma. *go.go.ra.tze.naiz* ‘gogoratzen naiz’ (x2)(ML-2009-AS-ba).



34. **irudia:** Espektrograma. *bo.rro.ka.neur.tu.ba.da* ‘borroka neurtu bat da’ (ML-2017-GS-ha)




Amets Arzallusek 2013ko finalean kontsonante bilkurak ahultzeko joera ageri du, batzuetan hots guztiak bere horretan ahoskatzen dituen arren. Hitz arteko herskari bilkuretan, kodan dagoen hotsa ahostundu eta igurzkaritzen du sarri (herskari ahostunaren aurretik, normalean) edo guztiz kendu (herskari ahoskabea duenean ondoren, maiz): *a.me.tsa[ɣ].di.tut* ‘ametsak ditut’ (AA-2013-GS-ha), *ba.te.pos.tre.ri.[ɣ]a.be* ‘bate(re) postrerik gabe’ (AA-2013-GS-8tx-3), *ma.ki.ña.ba.tal.de*

‘makina bat talde’ (AA-2013-GS-pe-2), *zer.dau.ka.txa.rra.des.ku.bri.tze.a[ɣ].bes.te.en.gor.pu.tza* ‘zer dauka txarra deskubritzeak besteen gorputza’ (AA-2013-GS-6mtz-1), *ta.gor.pu.tza.goi.ti[ɣ].be.ra* ‘(e)ta gorputza goitik behera’ (AA-2013-GS-6mtz-3), *ba.tzu.ka.te.ri.ña* ‘batzuk katerina’ (AA-2013-AS-ha), etab. Sudurkariei dagokienez, elkarketa bakundu egiten du normalean: *ni.sen.ti.tze.naiz* ‘ni sentitzen naiz’ (AA-2013-GS-8H-2), *ba.o.rai.ni.a.ri.nai.zi.za.rra.ki.kus.ten* ‘ba orain ni ari naiz izarrak ikusten’ (AA-2013-GS-8tx-1), *i.ra.kur.tzeu.tsa.re.ki.ni.ga.xo.tu.nin.tzen* ‘irakurtze hutsarekin ni gaixotu nintzen’ (AA-2013-GS-8tx-2), *gal.de.tze.ni.en* ‘galdetzen nien’ (AA-2013-GS-ge-2), etab.

Bertsolari honek, Lizasok egin bezala, hitz artean —eta kasuren batean, hitz barnean— bokal arteko /k/ herskari belar ahoskabeak ahostuntzen ditu batzuetan, hots katearen jarraitutasuna areagotuz: *ba.ña.a.me.tse.[ɣ]ez.tu* ‘baina Ametsek ez du’ (AA-2013-BB-8tx-1), *ni.[ɣ]a.pus.tu* ‘nik apustu’ (AA-2013-BB-8tx-2), *a.me.tse.[ɣ]i.su.ri.du* ‘Ametsek isuri du’ (AA-2013-BB-8tx-2), *ni.[ɣ]az.ken.txa.pel.[ɣ]e.tan* ‘nik azken txapelketan’ (AA-2013-BB-8tx-3).

35. irudia: Espektrograma. *ba.te.pos.tre.ri.[ɣ]a.be* ‘bate(re) postrerik gabe’ (AA-2013-GS-8tx-3).



Bertsolari guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, ahultzen dituzte hitz arteko kontsonante bilkurak —batzuek baita bokal arteko kontsonanteak ere—, hots katearen ahoskagarritasuna areagotuz, batetik, eta kontsonante taldeak soiltzean, silabatzea CV egiturara hurbilduz. Normalean silaba kodako (hitz amaierako) kontsonantea baita kentzen edo ahultzen dena. Txapelketaz txapelketa jasotako adibideen zerrendarako, azalpenetarako eta espektrograma

gehiagorako, ikus I. Eranskina.

8.4.2.2. *Bertsolarien silabatze-aukerak hitz mugetan*

Bertsoetako txertatze prosodikoan hots katea silabatan antolatzean gauzatzen diren bilakabide segmental nagusiak aipatuta, hotsen antolakuntzan eragina duen beste alor bati erreparatu diot atal honetan: hitzak erreferentziatza hartuta, bertsolariek egindako silabatze-aukerari, hain zuzen. Taldekatze prosodikoaren gaian §10 kapituluan sakondu dut, baina oinarrizko mailan bertsolariek zer-nolako silabatze-aukerak egiten dituzten ezagutzera tipologikoki esanguratsua izan daiteke, §8.3.2 atalean zehaztu bezala: hitz arteko mugak adierazi eta bereiz silabatzen ote dituzten, edo modu jarraian eta birsilabatuta ahoskatzen ote dituzten, nagusiki. Corpusean hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak eta hitz bat kontsonantez amaitu eta hurrengo bokalez hasten deneko (C# #V) bilkurak aztertu dira, hitza banatuta edo modu jarraituan ahoskatzen den jaso. Era berean, C# #V testuinguruan, hitz arteko mugak urtu eta hotsak birsilabatzen diren (VC#.#V. → V.CV) (*liaison* delakoa eginez) edo hitzak bereiz, eten labur batez mugatuz eremu bakoitza, ahoskatzen ote diren ere aztertu da. Erritmoaren araberako tipologiaren ikuspuntutik, silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan ohikoa(goa) da *liaisona* egitea eta hitza baino eremu prosodiko handiagoetan antolatzea hotsak; azentu-aldiranzko hizkuntzetan, berriz, *liaisona* egitea ez da joera nagusia eta hitzak garrantzi handia du eremu prosodiko gisa (Dauer 1983, 1987; Bertinetto 1989; Auer 1990, 1993; Donegan eta Stampe 1984, 2002, 2004; Donegan 1993; Caro-Reina eta Szczepaniak 2014).

Azter-ildo honetan albo batera utzi ditut hemistikioaren eta puntuaren eremua mugatzen duten egiturazko etenak, joera nagusia baita bertsolari guztiengan taldekatze metriko horiek sistematikoki gauzatzea (salbuespenen azterketa §10 kapituluan egin dut). Edonola ere, kasu zehatzetan erreferentzia egingo diet eremu horiei, besteak beste. Corpusaren azterketak agerian uzten du askotariko eragileak kontuan hartzeko beharra hitz arteko mugei bertsolariek emaniko trataera ulertzeko.

8.4.2.2.1. Bokal bilkura heterosilabikoen trataera hitz artean

Hitz lauz zein bertsotan, euskararen fonologiak ahalbidetzen duenez, ohikoa da hitz artean bokal bilkura heterosilabikoak sortzea. Bertsolariek kantuan nola ahoskatzen dituzten esanguratsua izan daiteke, hots katean zein eremu prosodiko mugatzen dituzten ezagutzeko, batetik, eta hizketa maila edo erregistro formalaren eragin posibleak ezagutzeko (ahoskera argia bilatzeak hizkako segmentatzea ekar baitezake beste testuinguru batzuetan baino errazago). Aztertutako bertsoetan

hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoa tratatzeko hiru aukera jaso ditut: eten labur bidez banatzea, modu jarraian baina silaba banatan ahoskatzea, edo bi bokaletako bati silabagiletasuna kenduta (desilabagiletuta), silaba bakarrean ahoskatzea (sinalefa eginez). Sinalefen gauzatzea hurrengo atalerako utzita, bertsolarien silabatze hautuak aztertu ditut, hitz arteko bokal bilkurak eten labur bidez banatu edo modu jarraituan ahoskatzen ote dituzten begiratuta.

Esan behar da bertsolari guztiek banatzen dituztela eten laburraz bokalez amaitu eta hurrengo hitza bokalez hasten duten elkarketak, neurri handiago edo txikiagoan, baina bakoitzak segmentatze bereiziari (eta jarraituari) ematen dion trataera desberdina da.

Amurizak, 1980ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, ahoskera fortitiboa du (gogoratu gorago aurkeztutako indartze segmentalak), eta joera hori hots katearen hizkako segmentatzean ere islatzen da pasarte batzuetan, joera nagusi gisa eten laburrez banatuz hitzak, bokal bilkura suertatzen denean: *bil.tze.ko.‘e.men* ‘biltzeko hemen’ (XA-1980-GS-ha), *o.be.‘i.zan.go* ‘hobe izango’ (XA-1980-GS-ha), *on.do.‘ez.ta.kit* ‘ondo ez dakit’ (XA-1980-GS-ha), etab. Hizketa maila formalaren eta bertsolariaren kantaera pausatu eta enfatikoaren ondorioztat har daiteke gauzatze hau, (kasik) hizkako segmentatzea duena ondorio gisa hainbatetan: *di.fe.ren.tzi.ja.‘o.ri.‘i.za.nak* ‘diferentzia hori izanak’ (XA-1980-GS-8H-1), *zer.ko.lo.rez.ko.‘ai.re.ha.‘o.te* ‘zer kolorezko airea ote’ (XA-1980-GS-ge-3), *ne.re.‘au.to.a.‘ar.tu* ‘nire autoa hartu’ (XA-1980-GS-10tx-1), etab. Modu jarraituan ahoskatzen dituen hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak lotura morfo-sintaktiko estuko osagaiak dira, hitz lauz ere prosodikoki talde berean ahoskatuko lirakeenak ziurrenik: *ba.ña.hau.ez.ta* ‘baina hau ez da’ (XA-1980-GS-ge-3), *a.la.e.re* ‘hala ere’ (XA-1980-AS-8tx-3), *gu.e.re* ‘gu ere’ (XA-1980-AS-ES-1), *mun.du.au* ‘mundu hau’ (XA-1980-AS-pe-1), *o.ri.e.re* ‘hori ere’ (XA-1980-AS-pe-2). Edonla ere, etenaz banatutako adibideetako askotan ere ikus daiteke banatutako osagaiak lotura estua dutela morfosintaktikoki. Amurizak bereizteko arrazoia, gorago aipatu bezala, testuinguru formalak eragindako hitzak argi ahoskatzeko “intentzioa” eta ahoskera enfatikoa izan daitezke.

1982ko txapelketan 1980ko joera mantentzen du Amurizak; hitzak etenaz banatzen ditu bokal bilkurak sortzen direnean, gehienetan: *ain.bes.te.‘eus.kal.dun* ‘hainbeste euskaldun’ (XA-1982-GS-ha), *ber.tso.la.ri.tza.‘ez.ta.‘a.lar.gun* ‘bertsolaritza ez da alargun’ (XA-1982-GS-ha), *no.la.‘ez.jardun* (XA-1982-GS-ha), *len.go.‘a.pai.za* ‘lehengo apaiza’ (1982-GS-8H-1), *es.ku.‘o.je.ri* ‘esku ho(r)ieri’ (1982-GS-8H-1), *a.rra.zoi.‘o.jek* ‘arrazoi ho(r)iek’ (1982-GS-8H-2), *ka.rre.ra.‘e.re.‘e.gi.ña* (1982-GS-8H-2), etab. Berriz ere, modu jarraituan ahoskatutako adibide apurrak lotura morfosintaktiko eta prosodiko estukoak dira: *sar.tu.aiz* ‘sartu haiz’ (XA-1982-AS-10H-1), *ta.e.maz.te.a* (XA-1982-AS-ge-3).

Lizasok, 1986ko txapelketako finalean, jarraian ahoskatzen ditu hitz arteko bokal bilkurak sarri, eta etenaz banatutako adibideak ere hainbat dira. Jarraitutasunaren aldeko joera indartsuagoa ageri du bertsolariak, eta segidan ahoskatzen ditu batzuetan bokal beraren bilkurak ere: *e.to.rrri.a.rren* ‘etorri arren’ (SL-1986-GS-ha), *ez.du.te.us.te.ko* ‘ez dute usteko’ (SL-1986-GS-ha), *se.na.rra.o.rren* ‘senarra horren’ (SL-1986-GS-8H-1), *ba.de.zu.e.re* ‘baduzu ere’ (SL-1986-GS-8H-1), *mun.du.a.ez.ta* ‘mundua ez da’ (SL-1986-GS-8H-1), *ez.ge.ra.e.ta* ‘ez gara eta’ (SL-1986-GS-8H-2), *sal.tsa.au.bu.ka.tu.ar.te* ‘saltsa hau bukatu arte’ (SL-1986-GS-8H-2), *des.pe.di.da.ko.e.man.go.di.zut* ‘despedida(ra)ko emango dizut’ (SL-1986-GS-8H-3), *e.man.zai.da.zu.a.bi.su* ‘eman iezadazu abisu’ (SL-1986-GS-8H-3), *di.tu.zu.e.ta* (SL-1986-GS-8H-4), *gor.de.e.za.zu* (SL-1986-GS-8H-4), etab. Etenaz banatzen dituen hitzen artean, hainbat bertsoen egituratik uler daitezke. Oinak dira batzuk, esate baterako; errima daramaten hitzak: *e.man.zai.da.zu.a.bi.su* ‘eman iezadazu abisu’ (SL-1986-GS-8H-3), *o.sa.tu.nai.i.ru.ku.a* ‘osatu nahi hirukoa’ (SL-1986-GS-8H-4), *e.zo.te.da.a.ri* ‘ez ote da ari’ (SL-1986-GS-pe-2), *la.gu.na.au.ke.ra* (SL-1986-GS-10tx-3), etab. Beste kasu batzuetan hemistikio barneko banaketa adierazten du bertsolariak etenaz, eta badira hizketaren egitura sintaktiko, diskurtsibo edo prosodikoari lotuta uler daitezkeen adibideak ere (ikus §10 kapitulua). Etenaz eginiko segmentatzeak bestelako egiteko batzuk dituela ikus daiteke Lizasoren silabatzean, Amurizarekin alderatuta (non kasu gehienetan bereizten dituen hitzak, bokal elkarketa sortuz gero).

Lopategik 1989an askotan banatzen ditu hitzak etenaz bokal bilkurak sortzean: *be.rrri.ze.re.e.men.ga.goz* ‘berriz ere hemen gaude’ (JL-1989-GS-ha), *i.ren.tsi.be.ar.de.na.i.ren.tsiz* ‘irentsi behar dena irentsiz’ (JL-1989-GS-ha), *go.go.za.ja.tze.ko.as.moz* ‘gogoz saiatzeko asmoz’ (JL-1989-GS-ha), *le.ja.le.ta.e.rres.pe.toz* ‘leial eta errespetuz’ (JL-1989-GS-ha), *le.na.go.gaz.te.i.za.na* ‘lehenago gazte izana’ (JL-1989-GS-8H-1), *no.la.al.da.tu.den.pla.na* (JL-1989-GS-8H-1), *pen.tsa.tze.na.go.e.zo.te.ze.ran* ‘pentsatzen nago ez ote zaren’ (JL-1989-GS-8H-3), etab. Eten horietako hainbat bertso-egituratik uler daitezke, Lizasoren kasuan bezala: oinak mugatzen ditu sarri, edo hemistikio barneko zesura, molde handiko bertsoetan (5+5 silaba egitura). Esate baterako: *on.gi.e.to.rrri.a.nai.a.rre.bak* (JL-1989-GS-ha), *pen.tsa.tze.na.go.e.zo.te.ze.ran* ‘pentsatzen nago ez ote zaren’ (JL-1989-GS-8H-3), *sa.so.jan.ka.su.e.gi.ni.zun.da* ‘sasoian kasu egin nizun eta’ (JL-1989-GS-8H-3), etab. Beste kasu asko Lopategiren kantaera fortitibotik, dikzio argia bilatzetik edo hitzen bat nabarmendu nahi izateagatik uler daitezke. Aipagarria da bokal bera elkartzan denean etenaz banatzen dituela sarri hitzak bertsolariak: *ni.zu.re.e.rruz* (JL-1989-GS-8H-3), *or.du.an.txe.e.gin.go* (JL-1989-GS-4oin-1), *ba.ña.ajn.bes.te.ra.ko* (JL-1989-GS-4oin-2), *ma.le.zi.ga.be.e.gin* (JL-1989-GS-10tx-3), etab.

Modu jarraituan ahoskatzen dituen adibideei dagokienez, ematen du lotura sintaktiko estua duten osagaiak, hitz lauz ere talde prosodiko berean gauzatuko lirakeenak maiz, ahoskatzen dituela Lopategik modu jarraituan: *e.gin.du.o.rain* (JL-1989-GS-8H-1), *zu.e.re* (JL-1989-GS-8H-3), *a.rra.zoi.or.tan* ‘arrazoi hortan’ (JL-1989-GS-8H-4), *pre.so.e.ra.man.di.tu* (JL-1989-GS-4oin-1), *jo.e.ta.su* (JL-1989-GS-10tx-1), *e.te.nau.i.zan.g[wa]l.da* ‘eten hau izango al da’ (JL-1989-GS-10tx-3), *be.ra.kur.te.as.ko.tan* ‘berak urte askotan’ (JL-1989-GS-pe2), etab.

Egañak Lopategiren antzeko joerak agertzen ditu hitz arteko bokal bilkuren silabatzeari dagokionez, aztertutako lau txapelketetan (1993, 1997, 2001, 2005): sarri eten laburraz banatuta ahoskatzen ditu hitzak, eta batzuetan jarraian. Bertso-egituratik uler daitezke etenetako asko. Oina (errima daraman hitza) ere mugatu ohi du Egañak maiz, esaterako (jarraian emaniko adibide bakoitzean, azken hitza da oina): *i.ñu.la.rre.ko.‘or.du.ra* ‘ilunabarreko ordura’ (AE-1993-GS-ha), *ni.pos.tu.ra.‘e.tza.ne.an* (AE-1993-GS-8H-1), *ne.re.‘us.te.‘o.tza.ne.an* ‘nire uste otzanean’ (AE-1993-GS-8H-1), *main.di.re.tar.te.‘ez.ti.ra* ‘maindire arte eztira’ (AE-1993-GS-8H-1), *len.da.bi.zi.ko.‘u.rra.tsa* ‘lehendabiziko urratsa’ (AE-1997-GS-8H-1), *gu.re.‘a.ni.me.tan* ‘gure arimetan’ (AE-1997-GS-pe), *pro.jek.tu.ta.‘e.gi.ta.mu* ‘proiektu eta egitamu’ (AE-2001-GS-8H-3), *ze.‘i.ru.di.me.na* ‘zer irudimena’ (AE-2001-GS-8tx-1), *e.zal.da.nai.ko.‘a.zer.tu* ‘ez al da nahiko(a) azertu’ (AE-2005-GS-ha), *as.to.a.re.na.‘e.gi.ñez* ‘astoarena eginez’ (AE-2005-GS-8H-1), etab.

Azkenik, badira arrazoi metriko-musikaletatik ulertzen zail diren kasuak. Horietan bestelako arrazoiak bilatu behar dira: bertsolariaren dikzio argia oharmen ontasuna helburu, hitzen bat nabarmentzea bertsoan duen esanahiagatik, perpausaren egitura kantuan ere islatzea, etab. (gai horietan §10 kapituluak sakondu dut). Adibidez: *an.dre.a.‘an* ‘andrea han’ (AE-1993-GS-9phtz), *o.ri.xe.da.‘in.por.ta* ‘horixe da inporta’ (AE-1993-GS-9phtz), *gu.re.‘u.me.sa.gra.tu.a* ‘gure ume sakratua’ (AE-1993-GS-6mtz-1), *a.la.re.‘o.rre.kez.tu.es.tal.tzen* ‘hala ere horrek ez du estaltzen’ (AE-1993-GS-6mtz-2), *a.la.re.‘a.ma.txo.‘ai.zu* ‘halere, amatxo, aizu’ (AE-1997-GS-6mtz-1), *au.‘o.ri.e.ta.‘a.la.ko* ‘hau, hori eta halako’ (AE-1997-GS-6mtz-3), *gu.re.‘e.rri.ko* ‘gure herriko’ (AE-2001-GS-8H-2), *zuk.pe.na.‘e.ta.nik.da.mu* ‘zuk pena eta nik damu’ (AE-2001-GS-8H-3), *ez.jo.an.da.‘o.be.da* ‘ez joanda hobe da’ (AE-2001-GS-8tx-2), *o.nun.tza.e.tortze.‘u.tsa* ‘honuntza etortze hutsa’ (AE-2005-GS-ha), *bi.ar.ko.‘eus.ka.le.rri.a* ‘biharko Euskal Herria’ (AE-2005-GS-ha), *ba.ña.‘i.ño.zo.a.‘e.naiz* ‘baina inozoa ez naiz’ (AE-2005-GS-ha), etab.

Modu jarraituan ahoskatutako adibideek lotura morfosintaktiko eta maiz prosodiko estuak agertzen dituzte gehienetan: *gu.ri.es.ke.rrak* ‘guri eskerrak’ (AE-1993-GS-ha), *e.ta.ez.gu.re.kon.tu.ra* ‘eta ez gure kontura’ (AE-1993-GS-ha), *a.ma.bi.or.duz* ‘hamabi orduz’ (AE-1993-GS-8H-2), *ta.es.na.tze.an* ‘(e)ta esnatzean’ (AE-1993-GS-8H-3), *sa.rri.as.ko.tan* ‘sarri

askotan' (AE-1993-GS-8H-3), *jen.de.tza.o.nen* 'jendetza honen' (AE-1997-GS-ha), *ta.o.rain* '(e)ta orain' (AE-1997-GS-ha), *bi.ar.ko.as.te.le.na* 'biharko astelehena' (AE-1997-GS-9phtz), *e.ne.a.ma.txo* 'ene amatxo' (AE-1997-GS-6mtz-2), *ta.e.rru.ti.na* '(e)ta errutina' (AE-2001-GS-8H-1), *gu.re.e.txeko* 'gure etxeko' (AE-2001-GS-8H-1), *bes.te.a.tso.en* 'beste atsoen' (AE-2001-GS-8H-1), *ai.ai.tona* 'ai, aitona' (AE-2001-GS-8tx-2), *kul.tur.fes.ta.o.ne.ta.ra* 'kultur festa honetara' (AE-2005-GS-ha), *de.na.e.ma.te.ra.nator* 'dena ematera nator' (AE-2005-GS-ha), *ta.au.ez.gaiz.ki.u.ler.tu* '(e)ta hau ez gaizki ulertu' (AE-2005-GS-ha), *bi.ur.te.lu.ze* 'bi urte luze' (AE-2005-GS-8H-2), *bu.ru.er.di.a* 'buru erdia' (AE-2005-GS-8H-2), etab.

Lujanbiok 2009an neurri paretsuan gauzatzen ditu etendun adibideak eta modu jarraituan ahoskatutakoak. Etenaz banatutako kasuetako asko, aurreko bertsolarietan bezala, bertso-egituran esanguratsu diren osagaiak nabarmentzetik uler daitezke. Oina mugatzen du sarri, adibidez: *es.ku.zes.ku.es.ku.us.ka* 'eskuz esku, esku huska' (ML-2009-GS-ha), *bis.taz.gal.du.ko.du.aur.ki* 'bistaz galduko du aurki' (ML-2009-GS-8H-1), *tri.pa.e.re.on.du* 'tripa ere ondu' (ML-2009-GS-8tx-1), *el.du.ta.on.do.tik* 'helduta ondotik' (ML-2009-GS-8tx-2), *i.a.be.ti.ko.e.ra.ra* 'ia betiko erara' (ML-2009-GS-ge-1), etab. Beste hainbat kasu dikzio argia bilatzetik, hitzen bat perpausean nabarmentzetik, perpausaren egitura kantuan ere islatzetik, eta abar uler daitezke: *naiz.ta.guk.ja.so.zue.ke.re.e.rein* 'nahiz (e)ta guk jaso zuek ere erein' (ML-2009-GS-ha), *no.la.il.ko.zai.tut.ba* 'nola hilko zaitut ba' (ML-2009-GS-8tx-2), *pe.so.e.e.te.be.kin* 'PSOE etb-ekin' (ML-2009-GS-pe-2), *ne.re.i.ri.tziz* 'nire iritziz' (ML-2009-GS-ge-1), *ne.rea.fi.zi.o.ta.o.fi.zi.o* 'nire afizio eta ofizio' (ML-2009-GS-ge-1), etab.

Askotariko adibideak ahoskatzen ditu modu jarraituan Lujanbiok 2009an, *liaisonarekin* batera hots kate luze jarraituak ahoskatzea dakarrena ondorio gisa: *i.ru.ña.ko.au.to.bus.ka* 'Iruñeko autobuska(da)' (ML-2009-GS-ha), *ga.rai.o.tzo.tan.da.bi.lle.no.ro* 'garai hotzotan dabilen oro' (ML-2009-GS-ha), *ar.tu.be.so.ta.ne.ta.e.man.ne.ri.mu.xu* 'hartu besoetan eta eman niri musu' (ML-2009-GS-8tx-3), *e.ta.or.du.an.gus.to.zi.to.ko.zai.tut.zu* 'eta orduan gustoz itoko zaitut zu' (ML-2009-GS-8tx-3), *ba.tak.bes.te.ai.as.ko.e.zi.ni.ra.ka.tsi* 'batak besteari asko ezin irakatsi' (ML-2009-GS-pe1), etab.

2017an zertxobait apaltzen da Lujanbiok modu jarraituan ahoskatutako adibide kopurua 2009koarekin alderatuta, bereiz ahoskatutako kasuak izanik nagusi. Horrela, beste behin ere bertso-egituratik uler daitezkeen kasuak daude; oina mugatzen du maiz, besteak beste: *ain.mu.ker.ta.er.kin* 'hain muker (e)ta erkin' (ML-2017-GS-8tx-2), *de.gu.ja.e.rre.kin* 'dugu ja(da) errekin' (ML-2017-GS-10tx-1), *forma.ain.za.rre.kin* 'forma hain zaharrekin' (ML-2017-GS-10tx-1), *pen.tsa.ze.i.tu.te* 'pentsa zer itogin' (ML-2017-GS-10tx-2), *e.ta.e.zi.e.ziñ* 'eta hezi ezin' (ML-

2017-GS-10tx-3), etab. Ahoskera argiak, hitzak nabarmendu nahiak edo hitz lauко egitura prosodikoa kantuan ere islatzeak azal ditzakeen adibideak ere gauzatzen ditu, 2009an bezalaxe: *gei.e.gi.‘i.zan.nai.ga.be* ‘gehiegi izan nahi gabe’ (ML-2017-GS-ha), *gu.re.i.dei.a.ta.‘a.ots* ‘gure ideia (e)ta ahots’ (ML-2017-GS-ha), *e.me.niz.kun.tza.‘ain.sen.do* ‘hemen hizkuntza hain sendo’ (ML-2017-GS-ha), *e.rrri.a.trin.ko.‘e.gi.naiz* ‘herria trinko egin nahiz’ (ML-2017-GS-ha), *gu.e.re.‘a.la.bai.ga.ra* ‘gu ere hala baikara’ (ML-2017-GS-ha), etab.

Jarraian ere askotan ahoskatzen ditu hitz arteko bokal bilkurak Lujanbiok: *gu.re.i.dei.a.ta* ‘gure ideia (e)ta’ (ML-2017-GS-ha), *gu.e.re* ‘gu ere’ (ML-2017-GS-ha), *bar.ka.tu.a.pus.tu.za.le* ‘barkatu, apustuzale’ (ML-2017-GS-ha), *i.zer.di.e.ta* ‘izerdi eta’ (ML-2017-GS-8H-1), *ta.o.nez.ke.ro* ‘(e)ta honezkero’ (ML-2017-GS-8H-1), *pro.me.sa.e.ta* ‘promesa eta’ (ML-2017-GS-8H-2), etab.

Arzallusek 2013an askotan ahoskatzen ditu eten laburraz bereizirik hitzak —bokal bilkura banatuta—. Bertsolari honen kasuan ere bertso-egitura izan daiteke bereiz segmentatutako hitz eta sintagmetako batzuen adibideak ulertzeko arrazoia; hemistikioa bitan banatzen duen etena adierazten du hainbatetan, esaterako: *ba.rra.‘o.ri.da.‘a.mil.de.gi.bat* ‘barra hori da amildegi bat’ (AA-2013-GS-8H-1), *a.rra.zoi.du.zu.‘a.rris.ku.tsu.a* ‘arrazoi duzu arriskutsua’ (AA-2013-GS-8H-2), *guk.bi.‘e.ba.ki‘i.za.na.ga.tik* ‘guk bi ebaki izanagatik’ (AA-2013-GS-8H-2), *nai.zor.ta.ra.ko.‘e.go.ki.a.go* ‘nahiz hortarako egokiago’ (AA-2013-GS-8H-3), etab. Beste kasu asko ahoskera argia bilatzetik, hizketaren egitura prosodikoa kantuan ere islatzetik, etab. konpreni daiteke beharbada: *e.ta.gu.re.‘itz.kan.ta.tu.‘o.nek* ‘eta gure hitz kantatu honek’ (AA-2013-GS-ha), *ba.rra.‘o.ri.da* ‘barra hori da’ (AA-2013-GS-8H-1), *ba.ña.‘a.lae.re* ‘baina hala ere’ (AA-2013-GS-8H-2), *ba.ña.‘a.ren.‘o.re.rik* ‘baina haren ohorerik’ (AA-2013-GS-pe-2), *ai.ba.ña.‘ai.tor* ‘ai, baina Aitor’ (AA-2013-GS-6mtz-1), etab.

Jarraian ahoskatutako kasuetan lotura morfosintaktiko eta prosodiko estua duten osagaiak dira nagusi: *e.ta.i.zen.bat.bi.zi.tzak* ‘eta izen bat bizitzak’ (AA-2013-GS-ha), *zau.ri.a.o.sa.tzen.do.a* ‘zauria osatzen doa’ (AA-2013-GS-8H-2), *es.ku.a.e.ta* ‘eskua eta’ (AA-2013-GS-8H-3), *ta.e.gin.de.za.gun.to.pa* ‘(e)ta egin dezagun topa’ (AA-2013-GS-8H-3), etab.

Hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoen aurrean, beraz, testuinguru formalak bultzatutako ahoskera enfatikoak edo dikzio argiak eragindako eten laburrak gauzatzen dituzte bertsolariek aztertutako bertsoetan. Amurizak darama muturrera joera hau, aukera duen kasu gehienetan gauzatuz eten laburra hitz artean, bokal elkarketa ekidinez. Gogoratzekoa da hitz barnean ere askotariko *fortitio*ak gauzatzen dituela bertsolariak silaba ekina betetzeko: hasperena, kontsonante palatala, etab.

Gainerakoen kasuan, hizketa maila jasoak eragindako hizkako segmentatzea eragile posible bat den arren, bertso-egituran garrantzizkoak diren egiturazko osagaiak mugatzen dira maiz eten laburraren bidez: hemistikio barneko 5 + 5 silaba taldekatzea edo oina, batez ere —baita gainerako osagai metriko handiagoak ere, noski—. Era berean, ekoizpen eta ulermen argitasunari lotuta, hitz lauко antolakuntza prosodikoa islatzen dute bertsolariek batzuetan (bokatiboa, zerrendatzea, fokua, etab.), edo anbiguoak suerta daitezkeen adierazpenak argitzeko banatzen dituzte hitz edo sintagmak. Horrela, prosodiaren askotariko egitekoak geratzen dira agerian bertsoetan ere. Txapelketaz txapelketa jasotako adibideen zerrendarako, azalpenetarako eta espektrograma batzuetarako, ikus I. Eranskina.

8.4.2.2.2. Kontsonante-bokal (C# #V) elkarketan silabatzea hitz artean

Aurretik ere azaldu bezala, hitz arteko C# #V testuinguruan hots katea birsilabatu eta *liaisona* eginez hitz arteko mugak urtzea silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzen ezaugarritzat hartu ohi da. Aztertutako bertsoetan bertsolari guztiek gauzatzen dute batzuetan *liaisona*, baina ez beti joera nagusi gisa.

Xabier Amurizak, bai 1980an bai 1982an, hitz arteko bokal bilkurekin egin bezala, joera nagusi gisa eten laburraz bereizita ahoskatzen ditu hitzak C# #V testuingurua sortzen denean, ahoskera argiak eta kantaera enfatikoak eraginda, nagusiki, pentsatzekoa denez: *zer.bai.ten.‘a.fa.na* ‘zerbaiten afana’ (XA-1980-GS-ha), *goi.ze.han.‘a.si* ‘goizean hasi’ (XA-1980-GS-ha), *zer.‘e.ma.na* ‘zer emana’ (XA-1980-GS-ha), *e.zal.zen.‘o.be* ‘ez al zen hobe’ (XA-1980-GS-ha), *pre.so.kai.jo.lan.‘e.ta* ‘preso kaiolan eta’ (XA-1980-GS-8H-1), *ba.ke.a.ren.‘u.su.a* ‘bakearen usoa’ (XA-1980-GS-8H-1), *zu.ek.‘en.tzun* ‘zuek entzun’ (XA-1982-GS-ha), *e.gu.naun.di.bat.‘or.‘u.tzi* ‘egun handi bat hor utzi’ (XA-1982-GS-ha), *pa.pe.rak.‘o.rain.‘al.da.tu* ‘paperak orain aldatu’ (XA-1982-GS-8H-1), *jain.ku.ak.‘e.re* ‘jainkoak ere’ (XA-1982-GS-8H-3), *o.jek.‘ar.tu.ta* ‘ho(r)iek hartuta’ (XA-1982-GS-8H-3), *e.zin.‘or.go.je.tan* ‘ezin hor goietan’ (XA-1982-GS-8H-3), *zer.‘a.rra.jo* ‘zer arraio’ (XA-1982-GS-4oin-1), *jaun.‘o.ne.kin* ‘jaun honekin’ (XA-1982-GS-4oin-2), *sen.ti.tzen.du.dan.‘i.tza* ‘sentitzen dudana hitza’ (XA-1982-GS-4oin-2), etab.

Aukera nagusia hitzak etenaz banatzea izanagatik, badira birsilabatze adibide andana ere: *e.zal.zen* ‘ez al zen’ (XA-1980-GS-ha), *la.no.ri* ‘lan hori’ (XA-1980-GS-8H-3), *bi.jo.nar.te.an* ‘bion artean’ (XA-1980-GS-8H-3), *e.zo.te* ‘ez ote’ (XA-1980-GS-pe-2), *to.ki.ri.kez* ‘tokirik ez’ (XA-1980-GS-10tx-1), *hai.zi* ‘haiz hi’ (XA-1980-GS-10tx-3), *len.di.ke.re* ‘lehendik ere’ (XA-1980-AS-8tx-1), *hi.lar.te* ‘hil arte’ (XA-1982-GS-4oin-1), *gau.rre.zin* ‘gaur ezin’ (XA-1982-GS-10tx-2),

lu.ma.ka.rro.a.ke.ta ‘lumak harroak eta’ (XA-1982-GS-ge-1), *tae.za.di* ‘(e)ta ez hadi’ (XA-1982-GS-ge-2), *ne.gu.a.ne* ‘neguan e(re)’ (XA-1982-GS-ge-3), etab.

Sebastian Lizasok, 1986an, *liaisona* gauzatzen du aukera nagusi gisa C# #V testuinguruan: *e.zi.ka.ra.tu* ‘ez ikaratu’ (SL-1986-GS-8H-3), *ni.kon.do.da.kit* ‘nik ondo dakit’ (SL-1986-GS-8H-4), *ze.rre.gin.go.da* ‘zer egingo da’ (SL-1986-GS-8H-4), *le.ne.re* ‘lehen ere’ (SL-1986-GS-pe-2), *e.zo.te* ‘ez ote’ (SL-1986-GS-pe-2), *e.rri.a.re.nau.rre.han* ‘herriaren aurrean’ (SL-1986-GS-pe-2), *i.tze.ma.ten.det* ‘hitz ematen dut’ (SL-1986-GS-4oin-1), *ni.kus.tez* ‘nik ustez’ (SL-1986-GS-4oin-2), *a.ñur.du.ri* ‘hain urduri’ (SL-1986-GS-4oin-2), *e.zes.ka.tu* ‘ez eskatu’ (SL-1986-GS-4oin-2), etab.

Edonola ere, modu bereizian ahoskatzen ditu hitzak batzuetan. Eten labur horietako batzuk, hitz arteko bokal elkarketetan gertatu bezala, bertso-egituratik uler daitezke. Asko oinak mugatzen dituzten etenak dira: *gaiz.ki.za.nik.‘a.zal.du.ko* ‘gaizki zenik azalduko’ (SL-1986-GS-8H-1), *mu.til.‘a.mes.ti.a* (SL-1986-GS-pe-1), *me.se.dez.‘a.tze.ra* ‘mesedez atzera’ (SL-1986-GS-10tx-3), *lo.tsa.rik.‘ez.du.ta* ‘lotsarik ez du (e)ta’ (SL-1986-AS-8tx-2), *o.rra.nik.‘au.ke.ra* ‘horra nik aukera’ (SL-1986-AS-8tx-3), etab. Beste batzuk, berriz, dikzio argiak edo hizketaren egiturak eragindakoak direla pentsa daiteke: *i.tze.ma.ten.det.‘e.giz* ‘hitz ematen dut egiaz’ (SL-1986-GS-4oin-1), *a.gu.rre.an.‘e.san.det* ‘agurrean esan dut’ (SL-1986-GS-4oin-2), *gaur.‘e.gun.sen.ti.ti.kan* ‘gaur egunsentitik’ (SL-1986-GS-4oin-2), *al.ko.la.ren.‘in.da.rrez* ‘alkoholaren indarrez’ (SL-1986-AS-8tx-2), etab.

Jon Lopategik ere maiz gauzatzen du liasona 1989ko finalean: *be.rri.ze.re* ‘berriz ere’ (JL-1989-GS-ha), *zu.e.na.gin.du.ba.ti* ‘zuen agindu bati’ (JL-1989-GS-ha), *le.ja.le.ta* ‘leial eta’ (JL-1989-GS-ha), *go.go.a.nar.tu* ‘gogoan hartu’ (JL-1989-GS-8H-1), *len.di.ko.ne.ra* ‘lehendik hona’ (JL-1989-GS-8H-1), *zuk.gal.ga.re.ki.nar.tzen.zen.du.en* ‘zuk galgarekin hartzen zenuen’ (JL-1989-GS-8H-2), *e.gu.non.tan* ‘egun hontan’ (JL-1989-GS-8H-2), etab. Hala ere, hitzak etenaz mugatzen ditu hainbatetan, bertso egiturako osagaiak adieraziz, besteak beste. Oinak, esaterako: *man.da.lu.ni.zen.‘e.sa.na* ‘Mandalunizen esana’ (JL-1989-GS-ha), *e.to.rri.zait.‘o.jar.tzu.na* ‘etorri zait oihartzuna’ (JL-1989-GS-8H-4), *es.pe.ran.tza.ren.‘iz.pi.ja* ‘esperantzaren izpia’ (JL-1989-GS-ge-2), etab. Hizkuntzaren ahoskera argia bilatzearen, esandako zerbait nabarmentzearen ondorioz, ere gauzatzen ditu beste eten batzuk, ziurrenik: *gu.da.ri.ek.‘au.tsi.nai* ‘gudariak hautsi nahi’ (JL-1989-GS-4oin-1), *ain.bat.‘a.mets* ‘hainbat amets’ (JL-1989-GS-ge-3), etab.

Andoni Egañak, 1993an eta 2005ean, nahiko modu paretsuan gauzatzen ditu etendun adibideak eta *liaison*dunak. 1997an eta 2001ean, berriz, etendun kasu gehiago gauzatzen ditu birsilabatutako adibideak baino. Hitz arteko etenak ahoskera argitik uler daitezke, batetik, eta horri loturik, bertso-egitura funtsezko diren osagaiak argi adieraztetik ere bai. Hemistikioaren baitako

taldekatzea mugatzen dute ondoko adibideetako etenek, esaterako: *lo.a.ren.bi.dez.‘u.xa.tzen.de.gu* ‘loaren bidez uxatzen dugu’ (AE-1993-GS-8H-3), *a.tzo.re.ze.gon.‘e.ga.ñak.dau.kan* ‘atzo ere zegoen Egañak daukan’ (AE-1993-GS-8H-4), *te.le.fo.no.tik.‘ez.dei.tu.ne.ri* ‘telefonotik ez deitu niri’ (AE-1993-GS-8H-4), *e.tx.e.ra.la.gun.‘or.‘i.zan.di.tut* ‘etxera lagun hor izan ditut’ (AE-1997-GS-6mtz-2), *ni.ke.zin.go.dut.‘u.rrun.dua.ra.zi* ‘nik ezingo dut urrunduarazi’ (AE-2001-GS-8H-1), *nai.zas.pal.di.an.‘ar.tu.e.ma.na* ‘nahiz aspaldian hartu-emana’ (AE-2001-GS-8H-1), etab. Bestelako azalpena eskatzen dute jarraian aurkeztutakoek, berriz: *au.zu.tik.‘oso* ‘hau zutik oso’ (AE-1993-GS-8H-1), *jan.nai.du.en.‘a.ri* ‘jan nahi duen hari’ (AE-1993-GS-pe), *e.tzen.‘aun.di.a* ‘ez zen handia’ (AE-1993-GS-6mtz-1), *ez.‘i.za.na.rren* ‘ez izan arren’ (AE-1997-GS-8H-2), *e.men.‘e.rre.ten* ‘hemen erreten’ (AE-1997-GS-8H-4) *kan.po.tik.‘i.lle.a.du* ‘kanpotik ilea du’ (AE-1997-GS-htz), *e.me.ne.tzen.‘o.nar.tzen* ‘hemen ez zen onartzen’ (AE-2001-GS-pe-3), *ba.nu.en.‘ain.bes.te* ‘banuen hainbeste’ (AE-2001-GS-ge-1), *o.rain.goz.‘as.ki.da* ‘oraingoz aski da’ (AE-2005-GS-8H-1), *ni.ko.rain.‘i.rens.te.ko* ‘nik orain irensteko’ (AE-2005-GS-8tx-4), *ez.kon.tze.a.ren.‘al.de* ‘ezkontzearen alde’ (AE-2005-GS-10tx-1), etab.

Liaisonarekin lotutako askotariko adibideetako batzuk hauek dira: *e.san.go.de.taz.ke.ne.an* ‘esango dut azkenean’ (AE-1993-GS-8H-1), *e.gi.a.kez.tun* ‘egiak ez duen’ (AE-1993-GS-8H-2), *tau.rrak.ton.to.a.kez.ti.ra* ‘(e)ta haurrak tontoak ez dira’ (AE-1993-GS-8H-2), *gau.rre.gu.ne.an* ‘gaur egunean’ (AE-1993-GS-8H-4), *pa.tx.a.da.re.nin.bi.ri.tan* ‘patxadaren inbidiatan’ (AE-1993-GS-8H-4), *zi.ri.ños.ki.re.no.ri* ‘Zhirinovskiren hori’ (AE-1993-GS-4oin), *i.za.na.rren* ‘izan arren’ (AE-1997-GS-2), *ni.kus.te.nu.en* ‘nik uste nuen’ (AE-1997-GS-8H-3), *kon.tu.so.llau.ek* ‘kontu soil hauek’ (AE-1997-GS-8H-3), *ni.ke.zin.go.dut* ‘nik ezingo dut’ (AE-2001-GS-8H-1), *nai.zas.pal.di.an* ‘nahiz aspaldian’ (AE-2001-GS-8H-1), *o.rain.di.ke.re.ba.de.tain.bes.te* ‘oraindik ere badut hainbeste’ (AE-2001-GS-8H-3), *e.zal.da.nai.ko* ‘ez al da nahiko(a)’ (AE-2005-GS-ha), *nai.ze.ta.ez.te.gun.be.te* ‘nahiz eta ez dugun bete’ (AE-2005-GS-8H-2), *be.ña.si.gen.dun* ‘behin hasi genuen’ (AE-2005-GS-8H-3), *ta.ia.len.baj.le.ni.ris.ten.zai.gun* ‘(e)ta ia lehenbailehen iristen zaigun’ (AE-2005-GS-8H-3), etab.

Lujanbioren 2009ko eta 2017ko silabatzeetan nagusi da *liaisona*: *o.rain.goz.dau.ka.tu.tsu.ne.txo.bat* ‘oraingoz daukat hutsunetxo bat’ (ML-2009-GS-6mtz-3, errepikan), *ain.ba.tur.te.ko.pa.sa.da* ‘hainbat urteko pasada’ (ML-2009-GS-ge-1), *e.gin.du.te.ta* ‘egin dut eta’ (ML-2009-GS-ge-1), *i.rri.ba.rre.ba.te.gi.zu.me.se.dez* ‘irribarre bat egizu mesedez’ (ML-2017-GS-8tx-3), *ni.sai.a.tzen.nai.zi.rri.zir.te.ten.pla.za.ra* ‘ni saiatzen naiz irriz irteten plazara’ (ML-2017-GS-pe-1), *mi.ñe.ke.ta.tris.tu.re.ka.mai.ka.pa.sa.ra* ‘minek eta tristurek hamaika pasada’ (ML-2017-GS-pe-1), *de.non.tza.ta.me.tsa* ‘denontzat ametsa’ (ML-2017-GS-pe-2), etab. Aipagarria

da askotariko muga prosodikoak urtzen dituela Lujanbiok *liaison*aren bidez: hitz mugetatik hasi eta esaldi edo hemistikioaren eremuetaraino.

Halaber, askotariko etenak ere gauzatzen ditu C# #V testuinguruan, maiz bertso-egiturari lotutako osagaiak mugatuz. Oinak, esaterako: *gaur.ko.sa.si.en.* ‘a.zi.a ‘gaurko sasien hazia’ (ML-2009-GS-8H-2), *or.kan.po.an.* ‘ajn.’a.al.ge ‘hor kanpoan hain ahalke’ (ML-2017-GS-ha), *e.tor.ki.zun.* ‘e.za ‘etorkizun eza’ (ML-2017-GS-pe-2), *gaur.bil.du.rik.* ‘el.ka.rre.na ‘gaur bildurik elkarrengana’ (ML-2017-GS-ge-1), *ber.din.tsu.zein.* ‘e.ra.ta.ra ‘berdintsu zein eratar’ (ML-2017-GS-ge-2), etab. Beste kasu batzuetan pentsatzekoa da ahoskera argia bilatzearen, esandako zerbait nabarmentzearen ondorioz, hots katea desanbiguotzeko, etab. baliatzen dituela Lujanbiok etenak: *o.o.re.aun.diz.gaur.* ‘en.tzu.le.den ‘ohore handiz gaur entzule den’ (ML-2009-GS-ha), *or.du.ko.be.run.* ‘a.le.ak.di.ra ‘orduko berun aleak dira’ (ML-2009-GS-8H-2), *ni.ke.ma.ni.zun.* ‘o.rre.la ‘nik eman nizun horrela’ (ML-2009-GS-6mtz-1), *du.zun.* ‘in.bi.ri.o.rrek ‘duzun inbidia horrek’ (ML-2017-GS-8tx-1), *e.gin.* ‘i.gua.lein.tzen.dun ‘egin igual egin zenuen’ (ML-2017-GS-8tx-3), *ba.tzu.e.tan.* ‘a.rro.sa ‘batzuetan arrosa’ (ML-2017-GS-pe-2), *e.men.* ‘e.zer.be.rri.rik ‘hemen ezer berririk’ (ML-2017-GS-10tx-1, lehen aldiz kantatzean), etab.

Amets Arzallusek pareko neurrian gauzatzen ditu etendun adibideak eta *liaison*dunak. Etendun adibideetako asko, beste behin, bertso-egituretatik eratortzen dira. Oinaren eremua mugatzen dute sarri: *da.gu.re.tzat.* ‘e.men.go.a ‘da guretzat hemengoa’ (AA-2013-GS-8H-2), *be.gi.bis.tan.* ‘al.dez.’al.de ‘begibistan aldez alde’ (AA-2013-GS-8H-1), *o.sa.sun.be.rri.bat.* ‘o.pa ‘osasan berri bat opa’ (AA-2013-GS-8H-3), *atzez.* ‘e.ra.kus.ten ‘hatzez erakusten’ (AA-2013-GS-8tx-1), etab. Beste batzuetan ematen du ahoskera argia bilatzearen, esandako zerbait nabarmentzearen ondorioz, hots katea desanbiguotzeko, etab. baliatzen dituela Arzallusek etenak: *e.men.* ‘o.re.kan ‘hemen orekan’ (AA-2013-GS-8H-1), *den.* ‘as.ko.zaz.’ardo.ko.pa ‘den askozaz ardo kopa’ (AA-2013-GS-8H-3), *bi.gor.putz.* ‘oi.ei ‘bi gorputz ho(r)iei’ (AA-2013-GS-6mtz-1), *e.ta.* ‘il.ba.duk ‘eta hil baduk’ (AA-2013-GS-ge-2), etab.

*Liaison*dun adibideak askotarikoak dira, eta bertsoetako eremu prosodiko asko urtzen dituzte; hitz mugatik hasi eta esaldi edo hemistikioaren eremuraino, Lujanbioren kasuan bezalaxe: *ta.o.rre.ni.ze.ne.an* ‘(e)ta horren izenean’ (AA-2013-GS-pe-3), *bi.de.zu.ze.na.de.ni.ke.na.go.se.gu.ru* ‘bide zuzena denik ez nago seguru’ (AA-2013-GS-pe-3), *e.gi.ne.za.zu* ‘egin ezazu’ (AA-2013-GS-6mtz-2), *e.tza.zu.zuk.zeu.ki.ma.ji.na.tu* ‘ez (e)zazu zuk zeuk imajinatu’ (AA-2013-GS-6mtz-2), *e.gi.ñez.du.te.na* ‘egin ez dutena’ (AA-2013-GS-6mtz-2), etab.

Bertsolari guztiek neurri handiago edo txikiagoan *liaison*ak egitea tipologikoki esanguratsua da, silaba-aldikotasunaren aldeko ezaugarritzat har daiteke eta. Hatsarre silabikoetan oinarritutako

hots antolakuntzak hitzaren eremua gaindituta, CV oinarrizko egiturarantz hurbiltzen dira silabak, birsilabatzeen bitartez hitz arteko mugak urtuta. Hala ere, aztertutako corpusean sortzaile batzuek neurri handiagoan gauzatzen dituzte birsilabatzeak beste batzuek baino, bai adibide kopuruan, bai urtutako muga prosodikoetan. Nola azaldu aldakortasun hori? Bertsolari bakoitzaren kantaerak eta estiloak bertsoen antolakuntza prosodikoan duen eragina hartu behar da kontuan, hasteko (ikus De Sisto 2020, besteak beste, bertso-neurrien oinarrietan eragile horiek izan dezaketen eraginaz, esaterako). *Tempo* motelak edo ahoskera enfatikoak hots katea eremu prosodiko txikiagotan antolatzea ekar dezake; hizka, esaterako (ikus §4). Horri loturik, txapelketako testuinguru formalak bakoitzaren ekoizpenean duen eragina desberdina izan daitekeela uler daiteke. Batzuen kasuan hitzak gehiagotan bereiz segmentatzera eramango ditu ahoskera argia bilatzeak eta, beste batzuen kasuan, berriz, ez dute hizkako ahoskera modu horren orokortuan baliatzen eta, hala, eten laburrak egiteko zehatz(ago)ak bete ditzake azken horien silabatzean (oinak mugatzetik hasi eta hots katearen desanbiguoitze edo fokua bezalakoak adieraztera, adibidez). Txapelketaz txapelketa jasotako adibideen zerrendarako eta espektrograma batzuetarako, ikus I. Eranskina.

8.4.3. Bertsolarien silabatze-estrategiak, neurriari lotuta

Orain arte aipatutako bilakabide fonologiko segmentalek eta silabatze-aukerek bertsolariek ekoiztutako silabak baldintzatzen dituzte; ahoskatzen diren silaben nolakotasunean eragiten dute (egituran, hotsen izaeran, etab.). Ez ordea, kantatutako silaba kopuruan. Atal honetan hotsen silabagiletasuna baldintzatzen duten txandakatzeak aurkeztu ditut, bertso-neurria betetzeari lotuta. Izan ere, §5 atalean zehaztu bezala, bertsoetako silabatzea aztertzean gogoan izan behar da alde zehaztutako eredu prosodiko bat eskaintzen zaiola sortzaileari. Bertsolariak esan nahi duena moldatu behar du neurriari (printzipioz), eta ez, hizketa lauan gertatu ohi den bezala, alderantziz —esan nahi duen horren arabera hautatu horretarako eredu prosodikorik egokiena—.

Corpus azterketan lizentzia metrikoei loturik ondokoak aztertu ditut, §8.3.3 atalean zehaztu bezala:

-Hitz arteko bokal bilkuren trataeran **hiatoa** (silaba bereizietan ahoskatzea) eta **sinalefa** (silaba bakarrean ahoskatzea, bokaletako bat desilabagiletuz).

-Hitz barneko bokal bilkuren trataeran **dieresia** (silaba bakarrean behar zuten bokal eta irrastariak bi silabatan ahoskatzea; silabagiletzea) eta **sineresia** (hitz barneko hiatoan, bokaletako bati silabagiletasuna kendu eta silaba bakarrean ahoskatzea bokal bilkura).

-Hitzen gauzatzean askotariko silaba **gehiketak** eta **kenketak**.

Bertsolariek baliabide horietako bakoitza nola darabilen aztertuta, bertsoetako txertatze prosodikoaren nondik norakoak sakonago ezagut daitezke. Gainera, Rodríguez-Vázquez (2010) ikerketak iradokitzen du sinalefaren erabilera tipo erritmikoei loturik egon daitekeela: silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan (gaztelaniak, bere azterketan) ohikoa izanik, hizkuntzaren joera fonologikoei jarraiki, hitz arteko bokal bilkurak silaba barrenean gauzatzea, horietako bat desilabagiletuz. Ez, ordea, azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan (ingelesan, berak egindako ikerketan, kasu horretan ere hizkuntzaren joera fonologikoei jarraituz).

Ondorengo ataletan, beraz, baliabide horietako bakoitza aurkeztu eta bertsolarien erabilera aztertu dut.

8.4.3.1. Txertatze prosodikoan joera nagusi: hiatoa

Bertsolarien arteko aldeak alde, sortzaile guztiengan da joera nagusi hots kateko osagaiak, “etorri ahala” antolatzea silabatan, desilabagiletze (sinalefa, sineresi) edo silabagiletze (dieresi) bilakabiderik gauzatu gabe, neurriak hala behartzen ez badu behintzat. Hortik aurrera, bertsolari batzuek erraztasun handiagoa erakusten dute batez ere desilabagiletze prozesuak gauzatzeko bertsoak sortzean, euren silabatzean bizirik dauden baliabideak direla erakutsiz. Lujanbiorena da adibiderik nabarmenena. Beste batzuek mugatuago darabiltzate halakoak (Egañak, kasu), eta Lizaso bezalako bertsolarien kasuan, ahal bada ekidin egingo dute hotsei silabagiletasuna eman edo kentzea. Gehiketa eta kenketa, aldakortasun morfonologikoari loturik maiz, baliabide emankorragoak suertatzen dira bertsolari batzuen kasuan.

8.4.3.2. Dieresia eta gehiketa: baliabide mugatu

Aztertutako corpusean silabagiletzea eta gehiketa ez dira baliabide orokorrak. Dieresiaren —hitz barneko diptongoen hiatotzearen— erabilera oso mugatua da bertsolari guztien kasuan, eta gehiketa ere ez da bereziki emankorra. Bertsolariek gehiketan oinarritutako forma batzuk badarabiltzaten arren, ez da kasu gehienetan nagusitzen den baliabidea (kenketan oinarritzen dute gehiago euren silabatzea; ikus §8.4.3.3 atala). Jarraian bi baliabide hauen erabileraren berrikuspena egin dut, txapelketaz txapelketa.

- Dieresia

Xabier Amurizaren 1980ko bertsoetan, zalantzazko adibide gisa jaso ditut *ju.e.zi* ‘juezi’ (XA-1980-GS-10tx-3) eta *di.os.ka* (XA-1980-BB-pe-1), gaztelaniako mailegu gisa, [w] eta [j] irristarien silabagiletzetat har baitaitezke biak: $j[we].zi \rightarrow ju.e.zi$ ‘juezi’ eta $d[jo]s.ka \rightarrow di.os.ka$ ‘dios-ka’. 1982ko txapelketako finalean argigarri suerta daitezkeen bi adibide jaso ditut: *su.ertez* ‘suertez’ (XA-1982-GS-8H-3) baina $p[we]s.tu.an$ ‘postuan’ (XA-1982-GS-ha). Pentsatzekoa da, beraz, bi silabatan ahoskatutako adibide horiek dieresi kasuak direla. Aurrez ere azaldu bezala, zail egiten da, edonola ere, abiapuntuan zein silabatze legokeen zehaztea, hizketa mailaren (erregistroaren) edo hitz egiten den abiaduraren araberrako aldakortasuna aurki baitaiteke sarri halako kasuetan. Aztergai ditugun hitzekin (*juez*, *dios*, *suerte*, *puesto*), gainera, mailegu izatearen faktorea gehitzen da: gaztelaniaz diptongaturik ahoskatu ohi dira eta, euskaraz, gaur egun, bietara (garai batean goranzko diptongoak hausteko bilakabidea indarrean zen; gaur egun batzuetan gainditu egiten dela esan daiteke). Horregatik, zaila da asmatzea 1) ea bokal elkarketa euskararen fonologiara ekarrita bereiz silabagiletu eta bi silabatan ahoskatzea litzatekeen ‘oinarria’, eta hortik abiatuta desilabagiletzea gertatu den kasuren batean (sineresia), 2) zuzenean gaztelaniako diptongodun ahoskera ekarri den euskarara eta, beharren arabera, bokal elkarketako irristariaren silabagiletzea gertatu den (dieresia), edo, 3) silaba hitzen oinarritzko aurkezpenean ez dagoenez, bokal elkarketa horiek aukera ematen dioten bertsolariari silaba bakarrean edo bitan ahoskatzeko beharren arabera, entzulearentzat onargarri izanik bi aukerak. Gertakaria hobeto ulertu ahal izateko Amurizak bertsoetan eta hitz lauz halako bokal elkarketekin nola jokutzen duen aztertu beharko litzateke, besteak beste.

Sebastian Lizasoren 1986ko bertsoetan agian dieresizat har daitekeen adibide aipagarri bakarra jaso dut. ‘Daukat’ aditzaren ahoskera ohikoa *dau.kat* dela onartzen badugu (*ba.rru.a.dau.kat.su.tan* ‘barruan daukat sutan’, SL-1986-GS-3), irristari gisa gauzatu ohi den /u/ bokalari silabagiletasuna emanda (dieresia gauzatuta) kantatzen du Lizasok kasu batean, silaba ekinean kontsonante epentetikoa txertatuta, gainera: *ez.ta.du.ka.zu* ‘ez daukazu’ (SL-1986-GS-8H-2). Adibide honen beste azalpen posiblea litzateke Lizasok hizkera desberdinetan ‘eduki’ aditza nola gauzatzen den ezagutzen duenez —*daukat edo dadukat*, besteak beste—, hizkeren arteko aldakortasun morfonologiko hori darabilela “komeni gisan” neurria betetzeko.

Jon Lopategik 1989an bi adibide esanguratsu gauzatzen ditu. Lehenengoa, Lizasoren adibide berbera: *ez.ta.du.kat.gi.ro* ‘ez daukat giro’ (JL-1989-AS-4oin-1). Gauzatze horrekiko aurrez aurre jaso dut *dau.kat.nik* ‘daukat nik’ (JL-1989-AS-4oin-1); horrek agerian uzten du bertsolariak txandakatzea baliabide metriko gisa darabilela, silabagiletze bilakabidea (dieresia) beharrean formen arteko aldakortasuna den arren, seguruena, bertsolariak baliatzen duena (berdin Lizasoren

kasuan). Jasotako bigarren adibidea ere hizkeren arteko aldakortasunetik uler daiteke, baina baita silabagiletze gisa ere: *na.[je].an* ‘nahian’ (x2) (JL-1989-GS-ge-1; JL-1989-AS-ge-1) —baina *e.ran.tzun.na[ja]n.be.ti* ‘erantzun nahian beti’ (JL-1989-GS-ha)—. Irristaria kontsonantetzat harturik, lotura egiteko bokal epentetikoa txertatuta silaba bat gehiago gauzatzen du Lopategik. Bi formak erabiltzeak (*na.je.an* eta *na.jan*) agerian uzten du txandakatze hau ere neurriaren eskakizunak betetzeko erabiltzen duela, hau ere akaso fosildutako gertakaria izan arren.

Andoni Egañaren 1993ko, 1997ko eta 2001eko bertsoetan ez dut dieresi posible gisa adibiderik jaso. 2005eko finalean dieresizat har daitezkeen bi kasuok gauzatzen ditu bertsolariak: *er.di.‘i.pur.di* ‘erdipurdi’ (AE-2005-GS-8H-3), *da.du.ka.min.ga.ña* ‘dauka mingaina’ (AE-2005-AS-ptk-7). Lehen adibidean, hitz elkartua (erdi + ipurdi → *erdipurdi*) berriro atzera deskonposatu egiten du bertsolariak, bakundutako bokal bilkura berreskuratuz silaba bat gehiago ahoskatzeko. Bigarrena Lizaso eta Lopategiren kasu bera da; ‘daukat’ aditzaren *dadukat* forma erabiltzea.

Maialen Lujanbiok 2009an silabagiletze (dieresi) kasutzat har daitezkeen ondoko adibide hauek gauzatzen ditu: *es.pu.e.la* (ML-2009-AS-ptk-3) —baina *es.p[we].la* ‘espuela’ (ML-2009-AS-ptk-2)— eta *ma.je.an* ‘mahaian’ (ML-2009-AS-ptk-1). Lehen kasua, *es.pu.e.la* (ML-2009-AS-ptk-3), Amurizaren maileguen (*juez, dios, suerte, puesto*) gauzatzearekin lot daiteke: zail da zehazten zein den abiapuntuko forma bertsolariarengan, diptongoduna (*es.p[we].la* ‘espuela’, ML-2009-AS-ptk-2) edo hiatoduna (*es.pu.e.la*, ML-2009-AS-ptk-3), biak baitarabiltza. Kontua da bokalen (de)silabagiletzea erabiltzen duela bertsolariak kasuan-kasuan —Lujanbioren adibidean, bertsoaldi berean, gainera— neurriaren eskakizunak bete ahal izateko. Bigarren adibidea, *ma.je.an* ‘mahaian’ (ML-2009-AS-ptk-1), Lopategiren *na.je.an* ‘nahian’ (JL-1989-GS-ge-1; JL-1989-AS-ge-1) kasuarekin lot genezake, irristaria kontsonantetzat hartu (kontsonantetu) eta bokal epentetikoa gehitzen baitzaio, silaba bat gehiago ahoskatuz²⁸⁸.

2017an, Lujanbioren ekoizpenean, *ge.ra.a.ra.zi* ‘gerarazi’ (ML-2017-AS-6mtz-2) aipatu behar da, Egañaren *er.di.‘i.pur.di* ‘erdipurdi’ (AE-2005-GS-8H-3) adibidearen pareko. Horrekin batera, 2009an gertatu bezala, gaztelaniako mailegu diren hitzetan bokal bilkurak ahoskatzeko diptongodun eta hiatodun aukerak dira aipagai: *se.ri.o.a* (ML-2017-GS-8tx-1) edo *es.pe.zi.a.le.kin* (ML-2017-GS-8tx-2), baina *s[we]r.te.a* ‘suerte’ (ML-2017-GS-8tx-1), *fun.tz[jo].na.ri.e.kin* ‘funtzionarioekin’ (ML-2017-GS-10tx-3), *in.ko.e.ren.tz[ja]k* ‘inkoherentziak’ (ML-2017-AS-6mtz-2).

Ametz Arzallusen 2013ko finaleko bertsoetan ez dut dieresi adibide posibleirik jaso. Egañaren *er.di.‘i.pur.di* ‘erdipurdi’ (AE-2005-GS-8H-3) edo Lujanbioren *ge.ra.a.ra.zi* ‘gerarazi’ (ML-2017-

288 Teknikoki ez lirake dieresiak zentzu hertsian, [j] irristaria ez baita silaba-gune bilakatzen, baina bokal elkarketatik abiatzen direnez, atal honetan jaso nahi izan ditut Lopategi eta Lujanbioren adibideok.

AS-6mtz-2) hitz elkartuen deskonposatzearen pareko aipa daiteke akaso *an.ka.tar.te.e.tan* ‘hankarteetan’ (AA-2013-GS-6mtz-1), *hankarte* → *hanka* + *tarte* gisa banatuz, baina jasotako azken adibide hau ere silabagiletze bilakabidetik harago doan gertakaria dela esan daiteke.

Txapelketaz txapelketa dieresi bila egindako berrikuspenaren ondoren, baieztatu daiteke hitz barneko silabagiletzea ez dela bertsolariengan baliabide emankorra: jasotako adibide gehienak zalantzazkoak dira dieresi gisa eta hainbatek fosildutako formak dirudite. Baliabide emankor gisa gaztelaniako mailegu diren hitzen ahoskera aipa daiteke: diptongo edo hiato gisa gauzatzeko aukera ematen baitute (*juez, dioska, suerte, funtzionario, serio, espezial*, etab.).

Bertsolari Txapelketa Nagusietako bertsoak epaitzeko irizpideetan dieresiaren erabilera gaitzetsi egiten da modu esplizituan 1989tik aurrera (*ga.ur, za.it* gisakoak egitea) (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 1990). Edonola ere, ez da alderik sumatzen lehenagoko edo ondorengo txapelketetan, baliabidea oso modu mugatuan baliatzen baitute aztertutako bertsolari guztiek finalerako bertsoetan.

- Gehiketa

Gehiketa baliabide metriko gisa aztertzean, dieresiari lotuta aipatutako adibideez gain (*na.je.an* eta *ma.je.an* gisakoak, adibidez), erregelen ondoriozko txandakatzeak eta hizkeren arteko aldakortasun morfonologikoa baliatuz bertsolariak egindako txandakatzeak dira aipatu beharrekoak, aztertutako corpusean. Ez dira, beraz, egun bertsolariengan bizirik dauden bilakabide fonologikoen ondorioz gertatutako txandakatzeak. Edonola ere, kontuan hartu beharreko baliabide fonikoa da gehiketarena, eskakizun metrikoak betetzeko bertsolari (gutxi) batzuek oparo erabiltzen baitute.

Amurizak, 1980an, ablatiboaren (NONDIK) erabileran, adibidez, *-tik/-(r)ik* eta *-tikan/-(r)ikan* formen arteko txandakatzea baliatzen du behar metrikoen arabera: *min.ga.ñe.ti.kan* ‘mingainetik’ (XA-1980-GS-ge-2), *baz.te.rri.kan.baz.ter* ‘bazterrik bazter’ (XA-1980-AS-pe2), baina *ba.so.rik.ba.so* (XA-1980-GS-8H-2). Absolutiboko marka beharrean ergatiboarena ere baliatzen du silaba bat gehiago ekoitzi ahal izateko, kasuren batean: *ba.tzu.ek* (daude kontra) ‘batzuk’ (XA-1980-AS-ES-1), baina *bes.te.ba.tzuk* (alde) (XA-1980-AS-ES-1). Aditz laguntzaileen hizkera arteko aldakortasuna ere erabiltzen du, beharren arabera: *li.bre.ge.ra.de* ‘libre gara’ (XA-1980-GS-4oin), *di.jos.ta* ‘diost(a)’ (XA-1980-BB-pe1) baina *ze.ra* ‘zara’ (XA-1980-GS-pe2), *ga.re.la.ko* (XA-1980-AS-8tx-2).

1982ko finaleko bertsoetan ere antzeko baliabideak darabiltza Amurizak. Emankorrena da ablatiboa (NONDIK) eta partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/-(r)ik* eta *-tikan/-(r)ikan* formen arteko

txandakatzea: *bes.te.ri.kan* ‘besterik’ (XA-1982-GS-10tx-3), *al.pe.rri.kan* ‘alferrik’ (XA-1982-GS-8tx-1), *lo.ri.kan* ‘lorik’ (XA-1982-AS-8tx-2), *e.txe.ti.kan* ‘etxetik’ (XA-1982-AS-be1), *bal.da.ti.kan* ‘Baldatik’ (XA-1982-AS-ge-1), *a.te.ri.kan.a.te* ‘aterik ate’ (XA-1982-AS-ge-2), *bi.e.ta.ti.kan* ‘bietatik’ (XA-1982-BB-8tx-2), *nu.e.la.ri.kan* ‘nuelarik’ (XA-1982-AS-ba) baina *bil.du.de.la.rik* ‘bildu delarik’ (ez *bildu delarikan*) (XA-1982-GS-ha), *be.gi.ra.tu.rik* ‘begiraturik’ (ez *begiraturikan*) (XA-1982-GS-8H-1), *pa.per.’ar.te.tik* ‘paper artetik’ (ez *paper artetikan*) (XA-1982-GS-8H-2), *o.rain.dik* ‘oraindik’ (ez *oraindikan*) (XA-1982-GS-4oin-1), *ar.tu.rik* ‘harturik’ (ez *harturikan*) (XA-1982-GS-pe1), etab. Aditz oinaren gainean beharrean partizipioarekin osatutako formak ere badarabiltza, hainbat hizkeratan (eta hainbat bertsozariarengan) ohiko (izan) direnak: *sal.du.tzen* ‘saltzen’ (XA-1982-GS-8H-3), *on.da.tu.tze.ko* ‘hondatzeko’ (XA-1982-AS-10H-2), *sar.tu.tze.ko* ‘sartzeko’ (XA-1982-BB-8tx-4), *piz.tu.tze.ko* ‘pizteko’ (XA-1982-BB-ge-1), baina *ku.pi.tzen* ‘gupidatzen’ (ez *kupidatutzen* edo antzeko zer bait) (XA-1982-GS-10tx-3), *ze.ar.ka.tzen* ‘zeharkatzen’ (ez *zeharkatutzen*) (XA-1982-GS-ge-2), etab.

Sebastian Lizasok 1986an ere ablatiboa (NONDIK) eta partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/-(r)ik* eta *-tikan/-(r)ikan* formen arteko txandakatzea gauzatzen du: *me.se.de.ri.kan* ‘mesederik’ (SL-1986-GS-8H-2) edo *as.mo.ri.kan* ‘asmorik’ (SL-1986-AS-10H-3) baina *lo.tsa.rik* (SL-1986-AS-8tx-1); *bi.o.tze.ti.kan* ‘bihotzetik’ (SL-1986-GS-8H-3), *e.gun.sen.ti.ti.kan* ‘egunsentitik’ (SL-1986-GS-4oin-2) baina *e.men.dik* ‘hemendik’ (SL-1986-AS-8tx-4) edo *go.go.rre.tik* ‘gogorretik’ (SL-1986-AS-10H-2); *ga.to.ze.ni.kan* ‘gatozenik’ (SL-1986-AS-ha) baina *mu.da.tu.nai.rik* (SL-1986-AS-10H-2), *za.ti.tu.ri.kan* ‘zatiturik’ (SL-1986-AS-10H-3) edo *lo.tu.ri.kan* (SL-1986-AS-10H-3) baina *da.ne.ta.tik* ‘denetatik’ (SL-1986-AS-be-1), etab. Hizkeren arteko aldakortasuna aditzetan ere badarabil Lizasok, behar duenean silabaren bat gehitzeko hots kateari: *i.zan.du* ‘izan’ (SL-1986-GS-pe-1), *ju.an.di.ra.de* ‘joan dira’ (SL-1986-AS-10H-1) baina *ez.ge.ra* ‘ez gara’ (ez *ez gerade*) (SL-1986-GS-8H-2), *i.zan.dan* ‘izan den’ (ez *izandu den*) (SL-1986-AS-be), *oi.di.ra* ‘ohi dira’ (ez *ohi dirade*) (SL-1986-AS-ge-1), *bar.ka.tu.di.ra* ‘barkatu dira’ (ez *barkatu dirade*) (SL-1986-AS-ge-3).

Jon Lopategik 1989an gehiketa adibide gutxi batzuk darabiltza. Aurretik ere aipatutako ablatiboaren (NONDIK) eta partitiboaren (ZERIK) *-tik/-(r)ik* eta *-tikan/-(r)ikan* formen arteko txandakatzea darabil (*be.ar.zu.e.ni.kan* ‘behar zuenik’, JL-1989-AS-10H-2), baita aditz oinaren gainean beharrean partizipioarekin osatutako formaren bat ere: *e.ro.ri.tze.an* ‘erortzean’ (JL-1989-GS-ge-2).

Andoni Egañaren 1993ko bertsoetan gehiketa adibide bakarra jaso dut, partitiboko *-rikan* formari lotua: *o.la.ko.ro.llo.ri.kan* ‘horrelako rollorik’ (AE-1993-GS-pe). 1997an kasu gehiagotan antzeman daiteke gehiketa, eskakizun metrikoak betetzeko baliabide gisa. Ablatiboa (NONDIK) eta

partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/- (r)ik* eta *-tikan/- (r)ikan* formen arteko txandakatzea aipa daiteke (*es.ko.pe.ta.ri.kan* ‘eskopetarik’ AE-1997-AS-ip-3; *o.so.goi.ti.kan* ‘oso goitik’, AE-1997-AS-ge-3), ergatiboaren marka erabiltzea absolutiboa behar lukeenean (*ba.tzuk jai.o.ak* ‘batzuk jaiok’ baina *bes.te.ba.tzu.ek* (tor.pe) ‘beste batzuk torpe’, AE-1997-AS-ge-2), izenari artikulua singular marka ez kentzea mugagabea behar lukeenean (*a.rra.gaiz.to.ak* ‘har gaiztoak’, AE-1997-AS-ge-3) edo aditz forma batzuk partizipioaren gainean eraikitzea aditz oinetik abiatu beharrenean (*us.tu.tzen* ‘husten’ AE-1997-AS-ge-3; *ja.rrri.gai.te.zen* ‘jar gaitezen’, AE-1997-GS-ha).

2001ean gehiketen eremuan ablatiboa (NONDIK) eta partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/- (r)ik* eta *-tikan/- (r)ikan* formen arteko txandakatzea aipa daiteke beste behin ere, nagusiki, Egañaren bertsoetan: *zer.ga.ti.kan* ‘zergatik’ (AE-2001-GS-6mtz-1), *or.ti.kan.sor.tu* ‘hortik sortu’ (AE-2001-GS-6mtz-2), *ar.bo.la.ti.kan* ‘arbolatik’ (AE-2001-GS-6mtz-3), *len.di.kan.nen.go.en* ‘lehendik nengoen’ (AE-2001-AS-ptk-1), *a.tu.rrri.ti.kan* ‘Aturritik’ (AE-2001-AS-ge-1), *or.ta.ti.kan* ‘hortatik’ (AE-2001-BB-8tx-3), *au.ke.ra.tze.ri.kan* ‘aukeratzerik’ (AE-2001-BB-1p-1), etab. —baina *bein.go.a.ga.tik* ‘beingoagatik’ (AE-2001-AS-ge-1) (ez *beingoagatikan*), *ar.ga.tik* ‘hargatik’ (AE-2001-BB-ge-3) (ez *hargatikan*), etab.—.

2005eko txapelketako finalean ere ablatiboa (NONDIK) eta partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/- (r)ik* eta *-tikan/- (r)ikan* formen arteko txandakatzea da aipatu beharrekoa Egañaren bertsoetan: *ger.tu.ti.kan* ‘gertutik’ (AE-2005-GS-10tx-3), *er.di.e.tsi.ri.kan* ‘erdi etsirik’ (AE-2005-GS-ge-3), *gu.ru.tze.ti.kan* ‘gurutzetik’ (AE-2005-AS-ha), *zu.re.a.bes.te.ti.ka.nal.da.po.ten.te.a* ‘zurea bestetik al da potentea?’ (AE-2005-AS-ptk-1), *ne.ka.tu.ri.kan.ga.bil.tza* ‘nekatu gabilta’ (AE-2005-BB-ge-1).

Maialen Lujanbiok ere, 2009an, ablatiboa (NONDIK) eta partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/- (r)ik* eta *-tikan/- (r)ikan* formen arteko txandakatzeak eskaintzen duen aldakortasuna darabil, nagusiki: *i.ra.ga.ni.ka.no.sa.tue.ze.an* ‘iraganik(an) osatu ezean’ (ML-2009-GS-8H-1) —baina *ge.ro.ri.ke.zi.ñe,rai.ki* ‘gerorik ezin eraiki’ (ML-2009-GS-8H-1)—, *er.di.i.lli.ka.ne.do* ‘erdi hilik edo’ (ML-2009-AS-ptk-4). 2017ko Lujanbioren bertsoetan molde bereko adibide bakarra jaso dut: *mal.ko.ri.kan.xu.ka* ‘malkorik xuka(tu)’ (ML-2’17-BB-8tx-4).

Amets Arzallusek ere 2013ko bertsoetan partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/- (r)ik* eta *-tikan/- (r)ikan* formen arteko txandakatzea darabil: *ez.mal.ko.ri.kan* ‘ez malkorik’ (AA-2013-AS-ge-2) —baina *ni.ke.gi.a.rik* ‘nik egiarik’ (AA-2013-GS-ha)—.

Gehiketari erreparatuta, bertsolari guztiek neurri handiago edo txikiagoan darabilte *-tik/- (r)ik* eta *-tikan/- (r)ikan* formen arteko txandakatzea; gehiketaren alorrean baliabiderik emankorrena da,

zalantzarik gabe. Hortik aurrera, askotariko hautu hautu lexiko eta morfo(no)logikoen bitartez osatzen dute bertsolariek bertsoa. Sakon aztertu beharreko auzia da hemen labur eta ideia orokor gisa jasotakoa, aniztasun eta aldakortasun handia aurki baitaiteke forma eta erabilera batzuetatik besteetara, batez ere Amurizaren eta Lizasoren kasuan. Gainerako bertsolariek bestelako baliabideak darabiltzate gehiago, beharbada. Gehiketa horren baliabide emankorra ez izatea epai-irizpideekin lot daiteke: 1997tik aurrera (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 1997) gaitzetsi egiten da baliabide gisa (*sufritutzen, etorritzen* gisakoak egitea), tradizio zabala duten formak onartzen diren arren (*oraindikan, lanikan*, etab.). Hain zuzen ere, gehiketaren esparruan bertsolari guztiek darabilten baliabidea da onartzen den bakarra.

8.4.3.3. *Lenitio aipagarriak, eskakizun metrikoak betetzeko: sinalefak, sineresiak eta kenketak*

Aztertutako corpusean kenketa eta desilabagiletzeari lotutako baliabideak emankorragoak direla esan daiteke gehiketa eta silabagiletzearekin erlazonatutakoak baino, bertsolarien artean aldakortasun handia dagoen arren. Jarraian sinalefa, sineresia eta kenketa aurkeztu ditut, txapelketaz txapelketa bertsolari bakoitzak eginiko erabilera aletuz.

- Sinalefa

Sinalefa hitz arteko bokal bilkuran bokaletako bat desilabagiletu eta ondoko bokalarekin batera gauzatzea da, silaba berean. Bertsolari batzuek modu emankorren darabilten baliabidea, beste batzuek ez dute ia erabiltzen.

Xabier Amurizak, 1980an, 13 aldiz gauzatzen du sinalefa 35 bertsotan: *ni.e.reo.lan.go.a* ‘ni ere horrelakoa’ (XA-1980-GS-pe-1), *bi.zi.tze.ae.re* ‘bizitzea ere’ (XA-1980-GS-ge-2), *bi.jo.tza.t[aj]n.bat* ‘bihotza (e)ta hainbat’ (XA-1980-AS-ge-2), *zuk.ni.r[je].zu.rra.ke.ta* ‘zuk niri hezurak’ (XA-1980-BB-8tx-3), etab. Behar metrikoen arabera eginiko silabatze-hautuak dirudite jasotakoek, eta ez dirudi bokal kobinazioen arabera murriztapenik duenik bertsolariak, hitz arteko bokal bilkuran bokal berbera elkartzen denean (‘a# #a’ edo ‘o# #o’, adibidez), bi bokalak silaba berean bildu eta bakuntzen ez dituen arren. 1982an 16 sinalefa adibide jaso ditut Amurizaren 38 bertsotan; antzeko neurrian gauzatzen du, beraz, bertsolariak hitz arteko desilabagiletzea aztertutako bi txapelketetan: *bes.t[ej].txu.ra.bat* ‘beste itxura bat’ (XA-1982-GS-8H-1), *ni.ke.reos.tu.ko* ‘nik ere ostuko’ (XA-1982-GS-8H-4), *kan.ta.r[ja].bi.la* ‘kantari abila’ (XA-1982-GS-ge-3), *a.lae.re* ‘hala ere’ (x3) (XA-1982-GS-ge-3; XA-1982-AS-10H-1; XA-1982-BB-8tx-2), etab.

Sebastian Lizasok 1986an ez du ia sinalefarik gauzatzen. Bi adibide besterik ez du jaso 31 bertsoan: *biz.ka.[ja]l.de.tik* ‘Bizkaia aldetik’ (SL-1986-GS-ha), e.rra.**m[we].gu.na** ‘Erramu eguna’ (SL-1986-AS-ge-3).

Jon Lopategik 1989an 20 kasutan darabil sinalefa 32 bertsoan. Askotariko bokal bilkurekin osatzen ditu silabak, eta bokal bera elkartzen denean ez du elkarketa bakundu eta bokal bakar gisa ahoskatzeko arazorik: *be.rae.de.rre.na.ren.ja.be* ‘bera ederrenaren jabe’ (JL-1989-GS-8H-3), *be.ti.zan.za.ra.zu* ‘beti izan zara zu’ (JL-1989-GS-10tx-1), *e.te.nau.i.zan.g[wa]l.da* ‘eten hau izango al da’ (JL-1989-GS-10tx-3), *no.la.jai.o.te.nin.tzen* ‘nola jaio ote nintzen’ (JL-1989-GS-pe-1), *ba.ñ[aj]n.gu.ru.ko.e.kin* ‘baina ingurukoekin’ (JL-1989-AS-4oin), etab.

Andoni Egañak progresiboki handitzen du sinalefaren erabilera txapelketaz txapelketa (azken bietan paretsu darabil, proportzioan). 1993an 3 kasutan soilik gauzatzen du 29 bertsoan: *t[aw].rrak.ton.to.a.kez.ti.ra* ‘(e)ta haurrak tontoak ez dira’ (AE-1993-GS-8H-2), *lo.kar.t[waw].rre.tik* ‘lokartu aurretik’ (AE-1993-GS-8H-3), *la.gun.d[we].gin.bear.zai.e* ‘lagundu egin behar zaie’ (AE-1993-GS-pe). 1997an 6 adibide jaso ditut 29 bertsoan: *ni.o.l[aj].ku.siz* ‘ni ho(rre)la ikusiz’ (AE-1997-GS-6mtz-1), *tun.tu.n[aj].za.te.a* ‘tuntuna izatea’ (AE-1997-GS-6mtz-2), *ko.lo.ka.t[wo]r.dez* ‘kolokatu orde’ (AE-1997-AS-ha), *es.tal.peon.do.an* ‘estalpe ondoan’ (AE-1997-AS-10H-2), *ar.tzai.ek.no.lae.do.a.la* ‘artzainek nola edo hala’ (AE-1997-AS-10H-2), *i.gual.u.rae.re* ‘igual hura ere’ (AE-1997-AS-ip-2). 2001ean 13 adibidetan aurki daiteke 45 bertsoan, askotariko bokal bilkuretan: *go.go.rrae.gin.du* ‘gogorra egin du’ (AE-2001-GS-8tx-3), *ne.r[ej].kas.le.bat* ‘nire ikasle bat’ (AE-2001-GS-ge-1), *bes.te.zer.ba.ño.le.na.go* ‘beste ezer baino lehenago’ (AE-2001-AS-ha), *au.ke.ra.ja.rr[je]z.ke.ro* ‘aukera jarriz gero’ (AE-2001-AS-ptk-3), *gu.r[ew].tsu.ne.a* ‘gure hutsunea’ (AE-2001-BB-ip-3), etab. 2005eko txapelketako finalean, 11 aldiz darabil sinalefa 39 bertsoan, askotariko bokal elkarketak bilduz silaba bakarrean, hemen ere: *ez.tu.g[we].tsi* ‘ez dugu etsi’ (AE-2005-GS-8H-2), *ba.ña.bes.ter.di.a.ten.te* ‘baina beste erdia tente’ (AE-2005-GS-8H-2), *a.tzoa.rra.tsal.dez* ‘atzo arratsaldez’ (AE-2005-GS-ge-1), *e.pa.ll[eaw].rre.an* ‘epaile aurrean’ (AE-2005-AS-ge-1), etab.

Maialen Lujanbio da, alde handiz, sinalefa gehien darabilen bertsolaria, aztertutako bi txapelketetan. 2009an 32 kasutan gauzatzen du 37 bertsoan, hitz arteko askotariko bokal bilkurak txertatuz silaba bakarrean: *ai.taes.ker.tzen.di.zut* ‘aita eskertzen dizut’ (ML-2009-GS-8H-1), *i.ra.ga.ni.ka.no.sa.t[we].ze.an* ‘iraganik osatu ezean’ (ML-2009-GS-8H-1), *tao.ra.ño.e.an* ‘(e)ta orain ohean’ (ML-2009-GS-8H-3), *as.pal.di.ku.tu.ga.be* ‘aspaldi ikutu gabe’ (ML-2009-GS-8tx-1), *zu.r[ej].ze.na.re.kin* ‘zure izenarekin’ (ML-2009-GS-6mtz-3), *ba.ñ[aj].tzak* ‘baina hitzak’ (ML-2009-GS-ge-3), etab. 2017ko txapelketako finalean 39 adibide bildu ditut 39 bertsoan (bertsoko

bat, batez beste): *de.na.pa.rra* ‘dena aparra’ (ML-2017-GS-8H-2), *ba.ñ[aw].ts[je]z.ke.ro* ‘baina hautsiz gero’ (ML-2017-GS-8H-2), *zar.ta.t[uj]z.ta.rre.ko.min.tza* ‘zartatu iztarreko mintza’ (ML-2017-GS-8H-2), *tao.rra.zal.tze.naiz* ‘(e)ta hor azaltzen naiz’ (ML-2017-GS-8H-3), *guk.gre.bae.gin.da.ko.an* ‘guk greba egindakoan’ (ML-2017-GS-10tx-2), etab.

Amets Arzallusek, 2013an 15 kasutan gauzatzen du sinalefa 38 bertsotan. Askotariko bokal bilkurak elkartzen ditu silaba bakarrean, baina ez dago bokal beraren hitz arteko sinalefarik (bakuntzerik): *ez.tae.rre.xa* ‘ez da erraza’ (AA-2013-GS-8tx-2), *i.ra.kur.tz[ew].tsa.re.ki.ni.ga.xo.tu.nin.tzen* ‘irakurtze hutsarekin ni gaixotu nintzen’ (AA-2013-GS-8tx-2), *be.ti.k[oj].txi.ba.lu.te* ‘betiko itxi balute’ (AA-2013-GS-pe-1), *i.ku.s[je]z.du.dan* ‘ikus ez dudan’ (AA-2013-GS-ge-2), etab.

Gertakari segmentalekin eta silabatze-aukerekin gertatu bezala, lizentzia metrikoen erabileran ere aldakortasun handia aurki daiteke bertsolari batetik bestera. Hori argi ikusten da sinalefaren erabileran: Lizasok ekidin egiten du ahal duela edo ez du, behintzat, bere silabatze-joera nagusien artean, eta Lujanbiok, berriz, baliabide oparo gisa darabil; pentsatzekoa da bertsoak sortzean sinalefa egiteko aukera oso presente duela, bere silabatzean integraturiko joeretako bat dela. Gainerako bertsolariak bi aukera horien artean kokatzen dira, noizean behin gauzatuz sinalefak, beharren arabera; gehiagotan batzuek (bokal beraren elkarketak bakunduz, esaterako), gutxiagotan besteek.

Epai-irizpideek onartzen dute sinalefa, 1997tik aurrera modu esplizituan aipatuz sinalefa egitea beti dela libre, eta 2005etik aurrera zehaztuz “sinalefa lizentzia onargarria d[el]a baina bere neurrian” (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 2017); ez da zehazten zein den neurri edo muga hori. Lujanbio da, esan bezala, sinalefa gehien egiten dituen bertsolaria, eta azken irizpideen arabera irabazi ditu bi txapelak; beraz, pentsa daiteke bere gauzatzea onargarritzat jo zutela 2009ko eta 2017ko txapelketetako epaimahaikideek, edo sinalefek bestelako ekarpenei ez zietela itzal handirik egin, bederen²⁸⁹. Txapelketaz txapelketa jasotako adibideen zerrendarako, ikus I. Eranskina.

289 Egindako lotura irristakorra da, epai-irizpideek arlo asko hartzen baitituzte kontuan. Hala, Lujanbio txapeldun izendatu izanak ez du derrigor esan nahi berak gauzatutako sinalefak —edo sinalefa guztiak— onargarri izan zirenik epaimahaikideentzat. Niretzat, entzule gisa, zeharo onargarriak dira. Sinalefez zein bestelako hotsezko gertakariez bertsolariak euren eta entzuleek duten hautematea eta iritzia ezagutzea interesgarria litzateke; horrek epai-irizpideetan jasotakoa osatzen lagunduko luke (batzuetan sakonduz, besteetan kontra eginez, etab.).

- Sineresia

Sineresien gauzatzea ere oso aldakorra da bertsolarien artean: hitz barneko bokal elkarketa heterosilabikoak diptongatzen dituzte batzuek noizean behin, eta beste batzuek, berriz, ez dute (ia) halakorik egiten.

1980ko txapelketan, aztertutako Xabier Amurizaren bertsoetan zalantzazko adibide bakarra jaso dut sineresi posible gisa: *neu.rri.ja* ‘neurria’ (XA-1980-AS-ge-3), eta ez dut hitz bera aurkitu bokal bilkura bi silabatan ahoskatzen duenik; aldiro horrela gauzatzen du. Beraz, ezin esan dezaket neurria betetzeko gauzatu duenik hitza horrela. 1982an sineresi adibide argiak daude: *jo.a.na* (XA-1982-AS-ge-1) baina *joan.zai.tez* (XA-1982-GS-8H-3), edo *su.er.tez* (XA-1982-GS-8H-3) baina *pues.tu.an* ‘postuan’ (XA-1982-GS-ha), onartzen badugu forma horien abiapuntuan bokal elkarketaren gauzatze heterosilabikoa dagoela, eta behar metrikoek eraginda, desilabagiletze (diptongatze) bilakabidea gauzatu dela. Azken adibidea, ‘puestuan’, irristakorragoa da, ez baita erraza zehaztea gaztelaniako mailegua izanik diptongodun forma edo hiatoduna hartu behar den oinarrizkotzat. Dieresiaren atalean ere izan ditut aipagai kasu hauek, eta argi esan daitekeena zera da: Amurizak, besteak beste, gaztelaniako maileguk euskaraz ematen duten diptongo edo hiato aukera baliatzen duela beharren arabera eskakizun metrikoak betetzeko. Gainerakoan, sineresia ez da oso baliabide emankorra aztertutako bere bertsoen silabatzean.

Sebastian Lizasok, 1986an, sineresi edo desilabagiletze kasu bakarra gauzatzen du: *e.man.go.di.[ew]* ‘emango diegu’ (SL-1986-GS-ha). Sineresia gertatu ahal izateko, lehenengo bokal arteko igurzkari belarra bokal artean kendu behar izan da (/diegu/ → [di.e.yu] → [di.e.u]). Horrela, hitz barneko bokal elkarketa heterosilabikoan goiko eta atzeko /u/ bokalari silabagiletasuna kenduta, irristari bilakatu eta aurreko bokalarekin antolatzen da silaban ([di.e.u] → [di.ew]). Ikus daitekeenez, sineresia ez da oso baliabide emankorra Lizasoren silabatzean.

Jon Lopategik 1989ko txapelketako finalean sineresizat har daitezkeen adibide batzuk gauzatzen ditu: *goi.al.t[we].na.ri* ‘goi altuenari’ (JL-1989-GS-ge-1), *le.n[aw].ko.mo.du.ra* ‘lehenagoko modura’ (JL-1989-AS-8tx-2), *bi.o.k[ej]n.du.gu.ta* ‘biok egin dugu (e)ta’ (JL-1989-AS-8tx-3), *[ej].ten* ‘egiten’ (JL-1989-AS-10H-3) —baina *e.gin.di.tu.ta* ‘egin ditu eta’ (JL-1989-GS-8H-2)—. Lehen adibidean euskaraz mendebaldeko hizkeretan behintzat horren ohikoa ez den goranzko diptongoa gauzatzen du ‘altuenari’ ahoskatzean; pentsatzekoa da hitza ahoskatzeko joera ohikoena hiatoa litzatekeela. Gainerakoetan, Lizasoren adibide bakarrean bezala, bokal arteko igurzkari belarraren kenketa gertatu da, eta ondoren, silaba banatuko gune gisa antolaturik zeuden hotsak birsilabatuz (adibide bakoitzean /o/ edo/i/ bokalari silabagiletasuna kendu eta irristaritutuz; o-ren kasuan [w] gisa), silaba bakarrean ahoskatu du bertsolariak bokal bilkura: /le(he)nago/ →

[le.na.ɣo] → [le.na.o] → [le.naw]; /egin/ → [e.ɣin] → [e.in] → [ejn]; /egiten/ → [e.ɣi.ten] → [e.i.ten] → [ej.ten]. Adibide bakanak dira, edonola ere, Lopategiren bertso-jardunean jasotakoak (aztertutako bertsoetan, betiere).

Andoni Egañak 1993an bi sineresi gauzatzen ditu: *tre.n[aj]* ‘trenari’ (AE-1993-GS-8H-3), eta *.bear*. ‘behar’ (silaba bakarrean) (AE-1993-GS-pe) —baina *be.ar* ‘behar’ (AE-1993-GS-ge-2), *be.ar.ko.lu.ke* ‘beharko luke’ (AE-1993-AS-ba)—. Lehen adibidean bokal arteko igurzkari den ttakaren kenketa gertatu da desilabagiletzea baino lehen (/trenari/ → [tre.na.ri] → [tre.na.i] → [tre.naj]); bigarrenan, bi bokalak silaba bakarrean ahoskatzen ditu bertsolariak. 1997an gehiagotan darabil baliabide metriko hau: *la.r[oj].ta.bi.ko* ‘laurogeita biko’ (AE-1997-GS-ha), *po.zar.tu.bear.du.zu* ‘poz hartu behar duzu’ (AE-1997-GS-6mtz-1) —baina *joan.be.ar.dut* ‘joan behar dut’ (AE-1997-GS-ge-3)—, *[ej].te.a* ‘egitea’ (AE-1997-GS-6mtz-2), —baina *e.gi.ten.bai.tet* ‘egiten baitut’ (AE-1997-GS-8H-2)— *ba.daez.pa.da.re* ‘badaezpada (e)re’ (AE-1997-AS-1p-1), *po.li.ti.ko.e.k[ew].ki.ko.du.te* ‘politikoeak edukiko dute’ (AE-1997-AS-ge-3), *[oj].ta.‘a.ma.bost* ‘hogeita hamabost’ (AE-1997-AS-ge-2)²⁹⁰. *la.r[oj].ta.bi.ko* ‘laurogei eta biko’ eta *[oj].ta.‘a.ma.bost* ‘hogeita hamabost’ adibideetan, ‘hogei’ hitza dago silaba bakarrean ahoskatuta, bokal arteko igurzkari belarra kendu eta bokal bilkura desilabagiletzeaz gain, sinpletuta. ‘Behar’ aurreko txapelketan ere gauzatzen du Egañak silaba bakarrean, eta ‘egin’ Lopategik ere gauzatzen du silaba bakarrean. *ba.daez.pa.da.re* kasuan, bokal bilkura silaba bakarrean ahoskatzen du, eta *po.li.ti.ko.e.k[ew].ki.ko.du.te*-n, ‘eduki’ hitzeko igurzkari horzkarian kendu eta /u/ bokala desilabagiletzen du bertsolariak, silaba bakarrean ahoskatzeko.

2001eko txapelketan ere Egañak sineresi kasu gutxi batzuk ahoskatzen ditu: *u.rrun.d[wa].ra.zi* ‘urrunduarazi’ (AE-2001-GS-8H-1), *[aj].tu.naiz* ‘ahitu naiz’ (AE-2001-GS-ge-3), *pa.rre.[aj]* ‘barreari’ (AE-2001-GS-8tx-3), *goa.zen* (AE-2001-BB-1p-3) —baina *ez.jo.an.da* (AE-2001-GS-8tx-2)—. Lehen bi kasuetan —*u.rrun.d[wa].ra.zi* eta *[aj].tu.naiz*— /u/ eta /i/ bokalen desilabagiletzea gertatu da; gainerako bi adibideetan aurrez azaldutako gertakariak ikus ditzakegu. 2005ean sineresi kasu gehiago gauzatzen ditu Egañak, aurreko txapelketekin alderatuta bikoitza eta gehiago. Badira bokal bilkuran silabagiletasuna galdutako kasuak (*[ja].len.baj.le.ni.ris.ten.zai.gun* ‘(e)ta ia lehenbailehen iristen zaigun’, AE-2005-GS-8H-3; *bue.no.[oj].ra.ez.[oj].ra* ‘bueno, ohera ez ohera’, AE-2005-AS-ptk-9 —baina *o.e.ra.buel.ta* ‘ohera buelta’, AE-2005-GS-8tx-4—, etab.), baita bokal arteko kontsonanteak galdu eta ondoren desilabagiletutako adibideak ere: *[ei].te.ko.a.‘e.gi.ña*

290 Honako adibide hauek ere jaso ditut sineresi posible gisa: *a.nes.te.s[ja].tze.a* ‘anestesiatzeta’ (AE-1997-AS-8tx-2), *ma.r[ja].sun* ‘Mariasun’ (AE-1997-AS-ge-3), baina ziurrenik Egañak goranzko diptongo eta guzti ahoskatzen ditu normalean ere. Ez da, beraz, hots katea neurriira egokitzeko baliatutako desilabagiletzea, ohiko silabatze joera baizik.

‘egitekoa egina’ (AE-2005-GS-8tx-3), *i.xi.pu.‘e.rro.sa.[jo]* ‘isipu, errosario’ (AE-2005-GS-10tx-1), etab. (ikus I. Eranskina adibide guztien zerrendarako).

Maialen Lujanbio da, aztertutako bertsolarien artean, sineresia gehien darabilena baliabide metriko gisa, bai 2009an, bai 2017an; sinalefa bezalaxe. Desilabagiletzea bere silabatze-estrategietan presente dagoen osagaia da, hitz artean bezala hitz barnean ere. Askotariko bokal desilabagiletzeak gauzatzen ditu, baita bokal arteko kontsonantea kendu ondorengo desilabagiletzeak ahoskatu ere: *naiz.ta.guk.ja.so.z[we].ke.re* ‘nahiz (e)ta guk jaso zuek ere’ (ML-2009-GS-ha) —baina *zu.en.tza.ko* (ML-2009-GS-ge-1)—, *kon.tae.zi.ña.ren* ‘kontaezinaren’ (ML-2009-GS-8H-2), *a.ze.le.r[aw].zaiz.ki.zu* ‘azeleratu zaizkizu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *ba.tak.bes.te.[aj].as.ko.e.zi.ni.ra.ka.tsi* ‘batak besteari asko ezin irakatsi’ (ML-2009-GS-pe1) —baina *pu.bli.zi.da.de.a.ri* ‘publizitateari’ (ML-2009-GS-pe-1)—, *e.g[wa].rri.par.te.an* ‘eguberri partean’ (ML-2009-GS-pe-2), *.bear*. ‘behar’ (x3) (ML-2009-GS-6mtz-1; ML-2009-AS-10tx-1, 3) —baina *be.ar* ‘behar’ (ML-2009-AS-ptk-3)—, *ber.di.n[ej]n.go.zen.du.ke.la* ‘berdin egingo zenukeela’ (ML-2009-GS-6mtz-1), *s[we]r.te.a* ‘suertea’ (ML-2017-GS-8tx-1) —baina *se.ri.o.a* (ez *se.r[jo].a*) (ML-2017-GS-8tx-1) edo *es.pe.zi.a.le.kin* (ML-2017-GS-8tx-2)—, *e.gin.‘i.g[wa].l[ej]n.tzen.dun* ‘egin igual egin zenuen’ (ML-2017-GS-8tx-3), *naiz.joa.nel.ka.rre.kin* ‘nahiz joan elkarrekin’ (ML-2017-GS-10tx-1) —baina *go.a.zen* (ML-2017-BB-8H-3), *ju.an* ‘joan’ (ML-2017-BB-8tx-2)—, *a.zal.pen.bea.rrik* ‘azalpen beharrik’ (ML-2017-GS-ge-3), *in.ko.e.ren.tz[ja]k* ‘inkoherentziak’ (ML-2017-AS-6mtz-2), etab. Jasotako hainbat adibide dieresiaren atalean aipatu ditut gaztelaniako maileguak izanik, eskaintzen duten aukera bikoitzagatik: hiato gisa edo diptongatuta ahoskatzeko parada, alegia.

Amets Arzallusek 2013ko txapelketako finaleko bertsoetan kasu gutxi batzuetan gauzatzen du sineresia: *ka.b[ja]r* ‘kabiar’ (AA-2013-GS-8tx-2), *[o.jej]* ‘horiei’ (AA-2013-GS-6mtz-1), *n[ew].rri.tik* ‘neurritik’ (AA-2013-GS-6mtz-2), *bear.ko.da* ‘beharko da’ (x2) (AA-2013-AS-ptk-2, 6), *g[wa].zen* ‘goazen’ (AA-2013-AS-ge-1), *[ew]n.ba.teu.ro* ‘ehun bat euro’ (AA-2013-BB-8tx-1). Horietako hainbat zalantzazko kasuak dira, ezin da ziurtatu arrazoi metrikoak direla eta eginiko diptongatzeak direnik. Bertsoetako lagin handiagoa aztertu beharko litzateke, edo hitz lauко ekoizpena aztertu, silabatze-aukera horietaz zerbait sendoa esan ahal izateko.

Epai-irizpideak aztertuz gero, 1997ko txapelketatik aurrera sineresia gaitzetsi egiten da ohikoen diren formak salbuetsita —*joan* edo *behar* gisakoak silaba bakarrean ahoskatzea onartzen da, esaterako—. 2005etik aurrera, sineresiak gaitzetsi arren, ohikoen diren formak onartzeaz gain kontuan hartzen da zenbait hizkerak eta maileguk goranzko diptongoak dituztela. Aipagarria da, jada hainbatetan azpimarratu bezala, bertsolari batzuek (Egañak eta Lujanbiok, nagusiki,

aztertutako bertsoetan) maileguen silabatzea komeni gisan darabiltela, neurria betetzeko. Horrekin batera, sineresizat hartu ditut jatorrian hala ez direnak: bokal arteko kontsonantea kendu ondorengo bokal elkarketaren diptongatzea gauzatzen duten kasuak, hain zuzen ere. Sineresi izan edo ez —berez kenketatzat hartu beharko litzateke beharbada, emaitza diptongoa izan arren—, baliabide oparoa da bertsolari batzuegan (Egaña eta Lujanbiorengan, batez ere; beste bertsolari batzuek ere multzo horretako adibideak badituzten arren). Txapelketaz txapelketa jasotako adibideen zerrendarako eta azalpenetarako, ikus I. Eranskina.

- Kenketa

Kenketa bertsolari guztiek darabilten baliabidea da, aldakortasun morfonologikoari lotuta, batez ere. Gertakari guztien berri xehea emateak lanari ezarritako mugak gaindituko lituzke; horregatik, kenketa joera nagusiak jasotzera mugatu naiz.

Amurizak 1980an askotariko moduetara laburtzen ditu hitzak hots katea neurrira egokitzeke. Batetik, aditz jokatueta bokal bilkurak soiltzen ditu —/e/ bokala kenduta—, behar duenean: *zai.tu.nak* ‘zaituenak’ (XA-1980-GS-10tx-1), *ez.ta.go.la* ‘ez dagoela’ (XA-1980-GS-10tx-2), *e.tzun* ‘ez zuen’ (XA-1980-GS-10tx-3), *ba.ge.nun* ‘bagenuen’ (XA-1980-AS-8tx-1), *na.gon* ‘nagoen’ (XA-1980-AS-ES-2), etab. baina *nin.du.en* (XA-1980-GS-pe-1), *pre.so.nen.go.en* (XA-1980-BB-ge-1), *i.zan.gen.du.en* ‘izan genuen’ (XA-1980-BB-ge-3), *no.la.da.go.en* (XA-1980-BB-ge-3), etab.

Bestetik, hitz lauz ohikoak diren bokal kenketak gauzatzen ditu kantuan: a itsatsiaren kenketa, *do.nos.tin* ‘Donostian’ (XA-1980-BB-ge-3); bikoiztutako bokalen bakuntzea, *be.ra* ‘behera’ (XA-1980-BB-9phtz), *(e)ta* ‘eta’ (XA-1980-GS-10tx-2); partizipio marka kentzea aditzari, *ez.ne.za.ke.si.nets* ‘ezin nezake sinetsi’ —*ez(in)* eta *sinets(i)* laburtuta— (XA-1980-GS-ge-2), etab. Horiekin batera, *gu.su.a* ‘lehengusua’ (XA-1980-GS-8H-1) eta *(ni.re.)di.ña* ‘nire adina’ (XA-1980-BB-8tx-2) gisako aferesidun formak ere baliatzen ditu, Amurizaren ohiko baliabide ez izan arren²⁹¹.

1982ko txapelketan ere aditz jokatueta bokal bilkuretan /e/ kentzen du beharren arabera: *ze.gon* ‘zegoen’ (XA-1982-GS-8H-3), baina *nen.go.en* ‘nengoan’ (XA-1982-GS-10tx-3). 1980ko txapelketan oparoago erabilitako baliabidea, adibide gutxiago topatzen dira 1982ko txapelketan. Aditz laguntzaileekin jarraituz, hizkera arteko aldakortasuna badarabil Amurizak, behar metrikoen

291 *Gusu* eta *dina* formak aztertuta, argi ikus daiteke bi hitzei hasierako silaba kendu zaiela (gutxienez), betiere ulertzen badugu aipaturiko hitzen forma osoak —adina eta le(he)ngusu— direla abiapuntu eta oinarritzko aurkezpenean dauden formak. Izan ere, *gusu* eta *dina* formak jasorik daude OEH-n, lekukotutako formak dira, baita beste bertsolari batzuek lehenago erabilitakoak ere (Bilintzek *dina* darabil *Potajiarena* bertso-sortan, adibidez). Aztertzeko litzateke ea Xabier Amurizak bere egunerokoan baliatzen dituen hitzak ote diren, edo nahita hautaturiko formak diren bertso-neurria egoki betetzeko. Bi hitzak ere oinak dira, errima daramaten hitzak.

arabera: *zen.dun* ‘zenuen’ (XA-1982-AS-8tx-3), *zi.nu.zen* ‘zenituen’ (XA-1982-GS-8H-2), etab. Bestetik, euskaraz hainbat hizkeratan ohikoak diren askotariko bokal eta, zabalago, silaba kenketak ere gauzatzen ditu kantuan, 1980ko txapelketako ildo berean: *fu.ti.ñen* ‘futinean’ (XA-1982-GS-10tx-1), *len.go* ‘lehengo’ (x2) (XA-1982-GS-ha; XA-1982-GS-pe1), *na.si.ja* ‘nahasia’ (XA-1982-GS-10tx-3), *do.nos.tin* ‘Donostian’ (XA-1982-GS-8H-2), *nai.ta* ‘nahi (e)ta’ (XA-1982-GS-10tx-3), *ar.tu.ga.be.re* ‘hartu gabe (e)re’ (XA-1982-AS-8tx-3), *kez.kik* ‘kezkarik’ (XA-1982-AS-ge-2), *ta.ez* ‘(e)ta ez’ (XA-1982-BB-8tx-2), *el.kar.mai.ta.za.gun* ‘elkar maita (de)zagun’ (XA-1982-AS-8tx-3), etab. baina *u.tzi.de.za.gun* ‘utz(i) dezagun’ (XA-1982-GS-ha), *kan.ta.zak.e.taez.a.di* ‘kanta (e)zak eta ez hadi’ (XA-1982-GS-ge-2), *e.txe.han* ‘etxean’ (ez *etxen*) (XA-1982-AS-be-1), *jain.ku.ak.e.re* (ez *jainkuak e*) (XA-1982-GS-8H-3), etab. Azkenik, 1980an egin bezala, aditz oina erabiltzen du kasu batzuetan partizipioak behar lukeen lekuan, silaba bat gutxiago ahoskatzeko: *jo.ka.be.a.rra* ‘jokatu(tu) beharra’ (XA-1982-GS-ha), *e.zin.go.je.tan.min.tza* ‘ezin goietan mintza(tu)’ (XA-1982-GS-8H-4), *zau.de.bu.ka.arte* ‘zaude buka(tu) arte’ (XA-1982-AS-ge-2), etab.

Sebastian Lizasok 1986ko txapelketako finalean askotariko kenketak darabiltza hitzak hots katea neurrira egokitzeko. Genitiboa (NOREN) ahoskatzean, adibidez, markak duen *-(r)e-* gauzatu edo ez neurriak baldintzatzen duela dirudi: *ner.bi.on* ‘nerbioen’ (SL-1986-GS-4oin-2), *ne.gu.hi.lu.nan* ‘negu ilunaren’ (SL-1986-AS-10H-1), *ku.ku.an* ‘kukuaren’ (SL-1986-AS-10H-1), baina *txa.pe.la.ren* (SL-1986-GS-8H-4). Bestalde, aditz jokatuetakoko bokal bilkurak soiltzen ditu behar duenean, baita /e/ bokal atonoa, azentugabea, kenduta duten formak erabili ere: *be.re.kin.du.la* ‘berarekin duela’ (SL-1986-GS-8H-4), *da.go.ne.rri.a* ‘dagoen herria’ (SL-1986-AS-10H-3), *i.bi.li.gen.dun* ‘ibili genuen’ (SL-1986-AS-ge-3) baina *ar.tu.gen.du.en* ‘hartu genuen’ (SL-1986-AS-ge-1), eta *ar.tu.za.zu* ‘hartu (e)zazu’ (SL-1986-GS-10tx-1) edo *a.lai.tu.za.zu* ‘alaitu (e)zazu’ (SL-1986-AS-10H-1) baina *gor.de.e.za.zu* ‘gorde ezazu’ (SL-1986-GS-8H-4) *en.tzu.ne.za.zu* ‘entzun ezazu’ (SL-1986-AS-10H-1) edo *ja.rri.e.za.zu* (SL-1986-AS-10H-3), etab. Bestetik, euskaraz ohikoak diren askotariko bokal eta, zabalago, silaba kenketak ere gauzatzen ditu kantuan: *des.pe.di.da.ko* ‘despedidarako’ (SL-1986-GS-8H-3); *ba.ten* ‘batean’ (SL-1986-AS-ptk-1) baina *txa.rre.an* ‘txarrean’ (SL-1986-GS-8H-1); *i.ñor.ke.e.zus.te* ‘inork ere ez uste’ (SL-1986-AS-ha), *ni.ke* ‘nik ere’ (SL-1986-AS-8tx-3) baina *gal.tzen.ba.de.zu.e.re* ‘galtzen baduzu ere’ (SL-1986-GS-8H-1), *pa.sa.e.re.bai* (SL-1986-AS-be-1); *bu.lla.ta.za.ra.ta* ‘buila eta zarata’ (SL-1986-AS-ge-3) baina *e.ta.al.bis.te* ‘eta albiste’ (SL-1986-AS-ge-3); etab.

Jon Lopategik 1989an ez du kenketa baliabide nagusi gisa baliatzen. Hala ere, hainbat adibide aurki daitezke bere silabatzean. Aditz jokatuetakoko bokal bilkurak soiltzen ditu, behar duenean (ikus I. Eranskina xehetasun gehiagorako): *ge.nun* eta *gendun* ‘genuen’ (JL-1989-GS-ge-2), *da.gon*

‘dagoen’ (JL-1989-GS-ge-1) —baina *zen.du.en* ‘zenuen’ (JL-1989-GS-8H-2)—, esate baterako. Bestetik, euskaraz ohikoak diren askotariko bokal eta, zabalago, silaba kenketak ere gauzatzen ditu kantuan: *be.re.la.bu.ka.zi.tzai.gun* ‘berehala bukatu zitzaigun’ (JL-1989-GS-ge-1), *ir.te.ran* ‘irteeran’ (JL-1989-GS-ge-3), etab.

Andoni Egañak, 1993an, morfema mugei edo kategoria morfologiko jakinei lotutako kenketak gauzatzen ditu sarri. Genitiboa (NOREN) ahoskatzean, adibidez, markak duen *-(r)e-* gauzatu edo ez neurriak baldintzatzen duela dirudi: *au.rran* ‘haurraren’ (AE-1993-GS-6mtz-1), *au.rra.ne.ri.o.tza* ‘haurraren heriotza’ (AE-1993-GS-6mtz-2), *e.ri.o.tzan* ‘heriotzaren’ (AE-1993-GS-ge-1), *bi.zi.tzan* ‘bizitzaren’ (AE-1993-GS-ge-1), *es.ko.te.a.kin* ‘eskotearekin’ (AE-1993-AS-1p-1), baina *bes.te.a.ren.tzat.kax.ka,rra* ‘bestearentzat kaxkarra’ (AE-1993-GS-ge-1), *e.go.e.ra.ren* (AE-1993-AS-10H-1), *ma.so.kis.mo.a.re.kin* (AE-1993-AS-8tx-3), etab. Inesibo (NON) pluralean ere *-etan* markaren *-e-* bokala kentzen du: *zaz.pi.ter.di.tan* ‘zazpi eta erdietan’ (AE-1993-GS-8H-4), *fut.bol.ze.lai.tan* ‘futbol zelaietan’ (AE-1993-AS-10H-1); aditz jokatueto bokal bilkuretako /e/ ere bai, kasu batzuetan: *be.ar.ge.nu.ken.to.ki.ra* ‘behar genukeen tokira’ (AE-1993-AS-10H-1), *ez.nu.nes.pe.ro* ‘ez nuen espero’ (AE-1993-GS-ge-1). Horrez gain, /e/ bokala edo bestelako silabak galdutako formak ere badarabiltza: *e.rrri.tak* ‘errietak’ (AE-1993-GS-ge-3), *len.go.a* ‘lehenago’ (AE-1993-AS-ba), *le.rro.ta* ‘lerrotara’ (AE-1993-AS-10H-2), *o.la* ‘horrela’ (AE-1993-AS-8tx-3), etab.

1997an ere kenketa ugari jaso ditut Egañaren bertsoetan. Aditz jokatueto /e/ bokala kentzen du hainbatetan, esate baterako: *ar.tzen.ge.ni.tun* ‘hartzen genituen’ (AE-1997-GS-ha), *e.ra.bil.tzen.du.na* ‘erabiltzen duena’ (AE-1997-GS-htz), *ez.nu.nes.pe.ro.se.ku.la* ‘ez nuen espero sekula’ (AE-1997-GS-ge-1), *e.sa.te.nun.bai* ‘esaten nuen bai’ (AE-1997-GS-ge-1), etab., beharren arabera baliatuz laburtutako edo laburtu gabeko formak (*ni.kus.te.nu.en*, AE-1997-GS-8H-2; *es.po.nu.en* ‘Expo nuen’, AE-1997-AS-ge-1). Horrez gain, bestelako kenketak gauzatzen ditu Egañak 1997an, askotarikoak. Jasotako adibide batzuk bertsolariaren hizkeran dauden formak dira ziurrenik (*le.nen.go* ‘lehenengo’, AE-1997-GS-8H-4; *o.la* ‘horrela’ (AE-1997-GS-6mtz-2; *e.giz.ko.ak* ‘egiazkoak’, AE-1997-AS-10H-3; *al.da.la* ‘ahal dela’, AE-1997-AS-10H-3), edo bere hizkeran edo besteren batean erabiltzen direnak eta hiztunak ezagutzen dituenak, beharren arabera baliatuz forma bat edo beste. Beste asko morfologiari lotutakoak direla ematen du. Genitibomarkari lotuta daude batzuk, adibidez: *gu.re.mun.du.an* ‘gure munduaren’, AE-1997-GS-8H-1; *eu.ro.pa.za.rran* ‘europa zaharraren’, AE-1997-GS-8H-2). Silabak galdutako bestelako formak ere badarabiltza: *o.la.ko.ta.ra* ‘horrelakoetara’ (AE-1997-GS-8H-2), *le.nen.go* ‘lehenengo’ (AE-1997-GS-8H-4), *dan.tza.le.ku.tan* ‘dantzalekuetan’ (AE-1997-GS-6mtz-1), *o.la* ‘horrela’ (AE-1997-GS-

6mtz-2), *e.ta.gaiz* ‘eta gaiez [gaiei buruz]’ (AE-1997-AS-ha), *e.giz.ko.ak* ‘egiazkoak’ (AE-1997-AS-10H-3), *al.da.la* ‘ahal dela’ (AE-1997-AS-10H-3), *e.rre.ge.ne.tan* ‘erregerenetan’ (AE-1997-AS-10H-3), *o.la.ko* ‘horrelako’ (AE-1997-AS-8tx-2), *mai.an* ‘mahaian’ (AE-1997-AS-8tx-4), etab.

2001eko txapelketan ere aditz jokatueta bokal bilkuretan /e/ bokala kentzen du hainbatetan, beharren arabera txandakatuz forma laburtuak eta laburtu gabeak: *da.gon.ze.a.ro* ‘dagoen zeharo’ (AE-2001-GS-ha), *e.za.gu.tu.nun* ‘ezagutu nuen’ (AE-2001-GS-ge-1), *a.ter.tzen.du.ne.an* ‘atertzen duenean’ (AE-2001-AS-ptk-2), *da.go.na* ‘dagoena’ (AE-2001-AS-ge-1), etab. Genitiboa (NOREN) erabiltzean ere, komeni gisa ahoskatu edo kentzen du *-re-* morfema-markan: *be.ti.glo.ri.an* ‘beti gloriaren’ (AE-2001-GS-6mtz-1), *o.ron* ‘ororen’ (AE-2001-GS-ge-1), *ne.re.an.dre.an* ‘nire andrearen’ (AE-2001-GS-ge-3), *ai.tan* ‘aitaren’ (AE-2001-AS-ge-1), etab. Bestelako askotariko kenketak ere gauzatzen ditu. Jasotako adibide batzuk bertsolariaren hizkeran dauden formak dira beharbada txapelketa honetan ere (*le.nen* ‘lehenen’, AE-2001-GS-6mtz-1; *zu.len.bi.zi.ko.al.diz* ‘zu lehenbiziko aldiz’, AE-2001-AS-10tx-1; *le.nen.go.neu.as.te.a* ‘lehenengo neu hastea’, AE-2001-AS-ptk-5), eta aldiro horrela darabiltza. Beste batzuk bere hizkeran edo besteren batean erabili eta hiztunak ezagutzen dituen formak dira, eta beharren arabera baliatzen du forma bat edo beste. Gorago aipatutako aditz jokatu edo genitibo-markaz gain, bestelako hauek ere multzo horretan sar genitzake: *do.nos.tik.de.ne.tik.du* ‘Donostiak denetik du’ (AE-2001-GS-pe2) —baina *do.nos.ti.a.ra.tzen* (AE-2001-GS-pe4), *o.ri.li.tza.ke.ne.re* ‘hori litzateke nire’ (AE-2001-AS-ge-3) —baina *o.ri.ez.li.tza.te.ke* ‘hori ez litzateke’ (AE-2001-AS-ptk-3)—, *o.tza.kin* ‘hotzarekin’ (AE-2001-BB-8tx-1) —baina *gri.pe.a.re.kin* (AE-2001-GS-ha)—, *ba.ten* ‘batean’ (AE-2001-BB-8tx-1) —baina *gau.za.ba.te.an* (AE-2001-BB-1p-2)—, etab.

2005ean ere aurreko txapelketen ildo berean gauzatzen ditu Egañak kenketak. Aditz jokatueta bokal bilkuretan /e/ bokala kentzen du hainbatetan: *gen.dun* ‘genuen’ (AE-2005-GS-8H-3), *gen.du.na* ‘genuena’ (AE-2005-GS-10tx-3), *a.nu.tzi.ni.tun* ‘han utzi nituen’ (AE-2005-GS-ge-1), *er.di.tu.gin.dun* ‘erditu gintuen’ (AE-2005-AS-ba), *do.ble.su.fri.tzen.du.la.ko* ‘doble(a) sufritzen duelako’ (AE-2005-AS-ba), etab. Bestelako askotariko kenketak ere gauzatzen ditu: *bo.ka.di.llo.an* ‘bokadiloaren’ (AE-2005-GS-8H-3) —baina *ez.kon.tze.a.ren* (AE-2005-GS-10tx-1)—, *me.mo.ri* ‘memoria’ (AE-2005-GS-pe1), *len* ‘lehen’ (AE-2005-AS-6mtz-1), *len.da.bi.zi.ko* ‘lehendabiziko’ (AE-2005-BB-ge-1) —baina *be.ti.le.e.na* ‘beti lehena’ (AE-2005-GS-ge-1), *le.en.ttan.tta.bat* ‘lehen tanta bat’ (AE-2005-GS-ge-3)—, *el.bu.ru.a.na.si* ‘helburua nahasi’ (AE-2005-BB-ge-3), *ol.tza.tik.kan.po* ‘oholtzatik kanpo’ (AE-2005-AS-ba) —baina *a.ha.rrau.si* ‘aharrausi’ (AE-2005-BB-ge-3)—, etab.

Maialen Lujanbiok oparo darabil kenketa baliabide metriko gisa. 2009an aditz jokatuetakoko bokal bilkuretan /e/ bokala kentzen du hainbatetan: *e.tzen.du.nar.tu* ‘ez zenuen hartu’ (ML-2009-GS-8H-3), *pen.tsa.tu.bai.nun* ‘pentsatu bainuen’ (ML-2009-GS-6mtz-1), *us.te.zen.dun* ‘uste zenuen’ (ML-2009-GS-ge-1), *fua.be.ar.zu.na* ‘foie behar zuena’ (ML-2009-AS-ha), etab. Genitibo markarekin gauzatzen duen txandakatzea da akaso baliabide emankorrenetakoa: *du.zu.enan* ‘duzuenaren’ (ML-2009-GS-ha), *lei.o.a.ner.tza* ‘leihoaren ertza’ (ML-2009-GS-8H-1), *o.e.a.ne.pe.la* ‘ohearen epela’ (ML-2009-GS-6mtz-1), *o.si.je.no.an* ‘oxigenoaren’ (ML-2009-AS-ge-2), *i.txu.ran* ‘itxuraren’ (ML-2009-BB-6mtz-1), etab. Horiez gain, bestelako kenketak ere gauzatzen ditu bertsolariak, askotarikoak: *i.ru.ña.ko.au.to.bus.ka* ‘Iruñeko autobuska(da)’ (ML-2009-GS-ha), *tao.ra.ño.e.an.la.sai.e.tza.ten* ‘ta orain ohean lasai etzaten’ (ML-2009-GS-8H-3) —baina *e.ta.e.sa.ne.zi.ñak* ‘eta esan ezinak’ (ML-2009-GS-8H-3)—, *ar.tu.be.so.ta.ne.ta* ‘hartu besoetan eta’ (ML-2009-GS-8tx-3), *pe.so.e.‘e.te.be.kin* ‘PSOE etb-rekin’ (ML-2009-GS-pe-2), *len.bi.ta.‘uts* ‘lehen bi (e)ta huts’ (ML-2009-GS-6mtz-2) —baina *le.e.ni.da.tzi.nu.e.na.ga.tik* ‘lehen idatzi nuenagatik’ (ML-2009-GS-ge-1)—, etab.

2017an ere ildo bereko kenketak gauzatzen ditu bertsolariak. /e/ bokala kentzen du Lujanbiok ere hainbatetan, beharren arabera txandakatu forma laburtuak eta laburtu gabeak: *e.tze.gon* ‘ez zegoen’ (ML-2017-GS-ge-1), *ba.nun.ta* ‘banuen eta’ (ML-2017-GS-ge-1), *o.te.nin.dun* ‘ote ninduen’ (ML-2017-AS-ge-1), *ni.ga.ti.kor.dain.du.du.na* ‘nigatik ordaindu duena’ (ML-2017-BB-ge-1), etab. Bestelako askotariko kenketak ere gauzatzen ditu: *al.ze.nu.en* ‘ahal zenuen’ (ML-2017-GS-8tx-2), *az.tu.zu.re.pe.na* ‘ahaztu zure pena’ (ML-2017-GS-pe-3) —baina *a.al.tsu* ‘ahaltsu’ (ML-2017-AS-ge-3)—, *el.ka.rre.na* ‘elkarrengana’ (ML-2017-GS-ge-1), *ka.su.ba.tzu.tan* ‘kasu batzuetan’ (ML-2017-GS-ge-1), *e.rre.giñ* ‘erregina’ (ML-2017-GS-ge-2), *ba.tzu.tan* ‘batzuetan’ (ML-2017-GS-ge-2) —baina *bes.te.e.tan* (ML-2017-GS-pe-2)—, *o.ri.len* ‘hori lehen’ (ML-2017-AS-ptk-6) —baina *le.en* ‘lehen’ (ML-2017-AS-ge-1)—, *ne.ke.a.e.ta.‘o.sa.su.na.ta.‘di.ru.tza* ‘nekea eta osasuna eta dirutza’ (ML-2017-AS-ge-1), *kos.ta.ko.zai.zu* (ML-2017-BB-8tx-1) —baina *kos.ta.tu.zait* (ML-2017-BB-8tx-1)—, etab.

Amets Arzallusek 2013an aditz jokatuetakoko bokal bilkuretan /e/ bokala kentzen du Arzallusek kasuren batzuetan, gehienetan forma laburtu gabeak darabiltzan arren: *gal.du.nu.ne.txe.a* ‘galdu nuen etxea’ (AA-2013-BB-8tx-3), *ba.nun* ‘banuen’ (AA-2013-BB-9phtz), etab. Horrekin batera, zenbait hitzetan bikoiztutako bokalaren bakuntzea (*kon.tu.zar* ‘kontu zahar’, AA-2013-GS-8H-3 —baina *a.az.tu* ‘ahaztu’, AA-2013-AS-10tx-3—; *len.go.po.zak* ‘lehengo pozak’, AA-2013-AS-ge-3; *len* ‘lehen’, AA-2013-BB-ge-2 —baina *le.en* ‘lehen’, AA-2013-BB-ge-1—), aditz jokatu batzuen forma murriztuak (*e.tza.zu* ‘ez (e)zazu’ —baina *e.ze.za.zu.la* ‘ez ezazula’—, AA-2013-GS-6mtz-2;

e.man.zai.o.zu ‘eman ‘(ie)zaiozu’, AA-2013-AS-ptk-3; *gal.du.nu.ne.tx.e.a* ‘galdu nuen etxea’, AA-2013-BB-8tx-3 —baina *ba.nu.en*, AA-2013-BB-9phtz—) edo *-a itsatsi* gabeko formen erabilera (*zaz.pi.pro.bin.tzi* ‘zazpi probintzia’, AA-2013-GS-ha; *e.ner.gi* ‘energia’, AA-2013-BB-8tx-2) aipa daitezke behar metrikoak betetzeko.

Kenketa baliabide erabilia da, bertsolari batzuek oparago darabilten arren. Adibideak aztertuta ondoriozta daiteke gehienetan aldakortasun morfonologikoa dagoela kenketadun formen atzean. Emaniko adibide-multzo heterogeneoan, bertsoetako informazioa soilik hartuta kontuan, zaila da askotan zehazten bilakabide fonologikoen ondorio izan diren silabatze horietako batzuk (bokal bikoiztuen bakuntzeak, kasu) edo bertsolarien hizkeran jada horrela lexikalizatutako formak diren (eta beharren arabera darabilten hizkeren zein formen arteko aldakortasuna). Jasotako adibideek —eta horien atzean dauden gertakariak— lanketa sakonagoa eskatzen dute ondorio sendoak atera ahal izateko. Txapelketaz txapelketa jasotako adibideen zerrendarako eta azalpenetarako, ikus I. Eranskina.

Epai-irizpideetan kenketak duen lekua aztertuta, aipagarri da 1989tik aurrera xeheago arautzen dela. Orduan laburdurak onartzen dira, betiere forma osoak hobetsita. Hor kokatzen da Lopategiren 1989ko ekoizpena, bertsolari guztien artean kenketa gutxien darabilen bertsolaria izanik bera (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 1990). 1997tik aurrera aditz jokatueta bokal bilkuretan /e/ bokala edo izenen *-a itsatsia* kentzea onartzen da, koherentzia eskatzen den arren formen erabilera (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 1997). 2005etik aurrera “ahozko hizkeraren baitakotzat” hartzen dira bokal galerak (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 2017), bokal arteko kontsonante galerak eta askotariko laburdurak, ontzat emanez, beraz.

8.4.4. Bertsolarien silabatze-joerak erritmoaren araberako tipologiaren argi-ilunetan

§3.4.3 atalean berrikusi bezala, erritmoaren araberako tipo linguistikoetan bi joera nagusi aurkitzen dira: silaba-aldiranzkoa eta azentu-aldiranzkoa. Lan honetan hartzen dudan ikuskeran, askotariko ezaugarri fonologikoek eragiten dute polo batetik edo bestetik gertuago egotea hizkuntza bat, *continuum* dinamikoan. Bertsozintzan —eta, zehatzago, bertsozintza kantatuan— ere eragina du hizkuntza bakoitzaren antolakuntza fonologikoak. Hori dela eta, kapitulu honetan esanguratsu diren ezaugarri —edo gertakari— horietako batzuk aztertu ditut, silabatzeari lotuta: bertsolariek gauzatutako silaba-egiturak eta horien maiztasunak, silaba-egitura baldintzatzen duten bilakabide segmentalak, bertsolarien silabatze-hautuak eta lizentzia metrikoen erabilera.

Euskara silaba-aldiranzko joera duen hizkuntzat hartu izan da orain arte eginiko ikerketa eta berrikuspenetan. Corpusaren azterketak ere ideia hori berresten du, silabatzeari dagokionez. Jarraian tipologikoki esanguratsu diren alderdiak berrikusi ditut, aztertutako datuen interpretazio proposamena eginez, tipologiaren ikuspuntutik.

8.4.4.1. Silaba-egituraren konplexutasuna eta silaba-moten maiztasunak

Aurreko §3.4.3.4 atalean berrikusi dudana bezala, corpusean aztertutako bertsolari guztiek, txapelketa guztietan, silaba irekiak ahoskatzen dituzte %70etik gorako maiztasunarekin, CV oinarritzko silabaren presentzia %60 ingurukoa izanik aldiro. Horrek euskara eta, zehatzago, aztertutako bertsolarien bertsogintza silaba-aldiranzko polotik gertu kokatzen dute, esan bezala.

8.4.4.2. Joera segmentalak

§3.4.3.2 eta §3.4.3.8 atalean berrikusi bezala, hainbat dira hizkuntzaren tipo erritmikoak baldintzatutako gertakari segmentalak. Bertoetako silabatzearen azterketarekin josteko alor esanguratsua da, hasteko, murriztapen segmental eta silabikoen auzia. Azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan maiz gertatzen dira murriztapenak, esan bezala. Azentugabeko silabetan bokal murriztapenak gertatzen dira azentuaren indarraren eraginez, esaterako, bai luzeran, bai nolakotasunean²⁹². Aurrez ere baliatutako ingelesezko adibidea berriro ekarriz: *him*, /hɪm/ → [ɪm] → [m̩] edo *of*, /ʌv/ → /ə/. Esanguratsua da azentu-aldiko hizkuntzetan silaba azentugabe murriztuek ez dutela maiz haien silabagiletasuna galtzen. Ingelesarekin jarraituz: *I saw him* esaldian *saw him* [sɔm] ahoskatuta ere, [m̩] hotsak silabagiletasunari eusten dio, bokala galdu arren (Hurch 2006b: 3, 9). Ez da hala gertatzen silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan. Hots katean ez dira horren ohikoak (bokal) murriztapenak eta, halakoak gertatzen direnean, ingurune fonetikoa dela eta izaten dira normalean, ez hainbeste(tan) azentuaren eraginez. Azentuak eragindako murriztapenik den kasuetan, bestelako jokabidea ageri dute silaba-aldiko hizkuntzek: murriztutako segmentu edo silaba horiek “guztiz” kendu eta hots-katea birsilabatu egiten dute. Lehenago ere aipatutako kasua frantsesez, esaterako: *chez le garçon* sintagman *le* silabako bokala murriztuz gero, [ʃel.gar̩.sõ] ahoskatuko da, *le* silabako bokala (silaba-gunea) guztiz ezabatuz. Hala, geratzen den albokaria aurreko silabako kodan kokatzen da (Dauer 1983: 57; Dauer 1987: 448).

292 Azentuak hizketaren alderdi segmentalean duen eragin handiaren ondorioz, azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzek baldintza prosodikoen arabera (azentudun edo azentugabeko silaben mendeko) alofono ugari izan ohi dituzte.

Euskarazko bertsoetan askotariko kenketak (segmentu murrizketak) jaso ditut aztertutako corpusean, bokal murriztapenetatik hasi (*ar.tzen.ge.ni.tun* ‘hartzen genituen’, AE-1997-GS-ha) eta silaba osoen ezabatzeraino (*gu.su.a* ‘lehengusua’, XA-1980-GS-8H-1). Bokala murriztutako silabetan gainerako segmentuek ez dute silabagiletasuna mantentzen, euskaraz bokalak soilik izan baitaitezke silaba-gune. Frantsesaren antz handiagoa du silabatze-joeretan bertsoetako euskarak, beraz; silaba-aldiko hizkuntzen ildoan kokatzen da. Kontuan hartzekoa da silaba-kopurua dela, printzipioz²⁹³, metrikaren oinarria eta horrek ere indartuko duela, seguruenen, silaba eta silaba-arteko muga argiak gauzatzea, gauzatutako silaba-kopurua argi adieraztea, nolabait.

Bertsolariek gauzatutako kenketek ez dute, oro har, silaba-egitura konplexuagotzen, ekialdeko hizkera batzuetan aurki daitezkeen *kártzko* ‘ekartzeko’ eta *ánktan* ‘hanketan’ gisakoak (Hualde 1997: 114-115) ahoskatuz. Aztertutako bertsolarien hizkerak mendebaldeko eta erdialdeko ezaugarrietan kokatu behar dira nagusiki (Zuazo 2008, 2014), hitz lauako ekoizpen xehegoen azterketak emango lukeen berrespenaren faltan. Horrek eta Euskal Herri mailako txapelketa izateak laguntzen du eginiko kenketen “ulergarritasuna” kokatzen, kendutako hotsak gehienetan “berreraikigarriak” direla esan baitaiteke euskararen —erdialdeko hizkeren, nagusiki, aztertutako bertsoetan— ezagutza dutenentzat: *ze.gon* ‘zegoen’ (XA-1982-GS-8H-3), *bu.lla.ta.za.ra.ta* ‘buila eta zarata’ (SL-1986-AS-ge-3) *ir.te.ran* ‘irteeran’ (JL-1989-GS-ge-3), *e.rri.tak* ‘errietak’ (AE-1993-GS-ge-3), *lei.o.a.ner.tza* ‘leihoaren ertza’ (ML-2009-GS-8H-1), *e.man.zai.o.zu* ‘eman ‘(ie)zaiozu’, (AA-2013-AS-ptk-3), etab.

Maila sintagmatikoan, silaba-egiturari loturik gauzatutako bilakabide fonologiko segmentalei dagokienez, bertsoetan aztertuak silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan ohikoak direla esan daiteke (Dauerren 1987: 448), hots katea CV silaba-egiturara hurbiltzen dutenak:

- Epentesiak, bokal bilkurak ekidinez edo eremu prosodikoen ertzetan: hasperena (*na.go. [h]es.tu*, ‘nago estu’, SL-1986-GS-ge-2), kontsonante palatala (*bi.[j]ur.be.kiz.kit* ‘bihur bekizkit’, XA-1980-GS-ge-2), kontsonante ezpainkaria (*bi.jok.gen.du.[β]en* ‘biok genuen’, JL-1989-GS-ge-1).
- Silaba ekineko segmentuak indartzea: /i/ bokala konsonantetzea (*ge.[j]e.gi* ‘gehiegi’, XA-1980-AS-ha), eta bokal arteko herskariak ez igurzkaritzea (*ba.ñau.tsiez.ke.ro. [b]e.lau.na.e.do* ‘baina hautsiz gero belauna edo’, ML-2017-GS-8H-2).

293 Bertsoetako metrikaren oinarriez eginiko proposamenen berrikuspenerako, ikus §9.2.3.2 atala. Aztertutako corpusaren analisi proposamenerako gai horri dagokionean, ikus §10.4.1.5 atala.

- Silaba-kodako kontsonanteak ahuldu eta kentzea, kontsonante bilkura heterosilabikoetan: (*de.no*[ɣ].*ber.di.nak* ‘denok berdinak’, AE-1993-AS-10H-3; *ba.tzu.ka.te.ri.ña* ‘batzuk katerina’, AA-2013-AS-ha).

I. Eranskinean bildu ditut gertakari horietako bakoitzari buruzko xehetasunak txapelketaka, bertsolari guztiek ez baitituzte neurri berean gauzatzen aipatutako bilakabideak, ez eta guztiak gauzatu ere. Edonola ere, denen silabatzea dago silaba-aldiko polotik gertu (ikus §8.4.1 atalean aurkeztutako silaba-egiturak eta horien maiztasunak).

Hurhek (2008) proposatzen du silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan joera zentrifugo deiturikoak gauzatzen direla gehiago: polarizazioak, fortitioak, disimilazioak. Bertsoen kasuan halakoak gertatzen dira, gorago aurkeztutako bilakabideak indartzaileak baitira baina, aipatutakoez gain, sarri gauzatzen dituzte bertsolariek askotariko kenketa eta desilabagiletzeak ere —hitz barnean zein hitz artean—. Kenketak atal honetan bertan aipatu ditudanez, hona hemen hainbat desilabagiletze adibide (horietako batzuk bokal arteko kontsonante kenketa gertatu ondorengoak): *e.te.nau.i.zan.g[wa]l.da* ‘eten hau izango al da’ (JL-1989-GS-10tx-3), *ni.o.l[aj].ku.siz* ‘ni ho(rre)la ikusiz’ (AE-1997-GS-6mtz-1), *bear.ko.da* ‘beharko da’ (x2) (AA-2013-AS-ptk-2, 6), *in.ko.e.ren.tz[ja]k* ‘inkoherentziak’ (ML-2017-AS-6mtz-2), etab. Tipor erritmikoari dagokionez, bilakabide horiekin esanguratsua dena da bertsoetako desilabagiletze eta kenketek ez dituztela, oro har, silaba-egiturak konplexuago egiten edo silaben arteko mugak lausotzen, murriztapenen ondorioz sortutako kontsonante taldeekin. Bertsoetako gertakari segmentalek, *fortitio* zein *lenitio* izan, joera nagusi gisa, hatsarre silabikoak jarraitu eta horiek indartzen dituzte, Jauregik eta Oñederrak aurrez zehaztutako joerei jarraiki (Jauregi eta Oñederra 2010: 86; Oñederra 2020a, 2020b).

Erritmoaren arabera hizkuntza-tipoez ari dela, Mayerthalerrek (1996) *silaba-egitura hobetzen duten bilakabideak* dituzten hizkerak —uler bedi, silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzak— eta *silaba-egitura okertzen duten bilakabideak* dituzten hizkerak —azentu-aldiranzko joeradunak— bereizten ditu, silaba-egiturarekin elkarreraginean azentuak duen funtsezko papera nabarmenduz. Bere arabera, parametro bat hobesteak beste parametro bat uzten du atzean. Euskara lehen taldean kokatzen dut corpusean aztertutako gertakari segmentalen arabera, silaba-egitura hobetzen duten bilakabideak gauzatzen baitituzte bertsolariek, batez ere. Azentuaren eragin-esparrua txikituko luke horrek, Mayerthalerren arabera; §9 kapituluan hausnartu dut bertsoetan azentuek (eta, zabalago, erritmo-ereduek) dituzten egiteko eta eraginez.

Txapelketako testuinguru formala ere azpimarratu nahiko nuke emaitza hauek interpretatzean: euskararen sistema fonologikoak hatsarre silabikoen arabera hots antolakuntza erlatiboki erraz

ahalbidetzen badu ere, jendaurreko jardun formal eta kantatua —eta grabatua, eta epaitua, etab.— izateak ahoskera zaintzea dakarkie bertsolariei, ahoskerari garrantzia ematea. Horrek areagotu egiten du bilakabide indartzaileen presentzia, bertsolari batzuen ekoizpenean. Gainera, bakoitzaren kantaeraren ezaugarriek ere ahoskera baldintza dezakete; horietako batzuen (Amuriza, Lopategi) nahiko enfatikoak da batzuetan. Ikuspegi tipologikoaz gain bestelako eragile batzuk kontuan hartzea geratzen da agerian, esan bezala.

8.4.4.3. Hitz arteko mugen trataera

Gertakari segmentalei loturik, esangura tipologikoa duen silabatze-ezaugarria izan daiteke *liaison*arena. Hitz bat kodadun silaban amaitzen bada eta ondorengo hitza bokalez hasi (C# #V), hots katea modu jarraituan ahoskatzen du hiztunak batzuetan, hitz arteko mugak urtuz, hitzeko azken kontsonantea hurrengo hitzeko silaba ekinean gauzatuta: *ni.sai.a.tzen.nai.zi.rri.zir.te.ten.pla.za.ra* ‘ni saiatzen naiz irriz irteten plazara’ (ML-2017-GS-pe-1). Fonologian oinarritutako erritmoaren araberrako tipologiatik *liaisona* egitea silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzen ezaugarritzat hartzen da (Dauer 1987: 448). Aztertutako corpusean bertsolari guztiek urtzen dituzte inoiz hitz arteko mugak, hots katea CV egiturarantz hurbilduta birsilabatuz²⁹⁴. Aurkako aukera ere gauzatzen dute sarri: hitzak bereiz ahoskatzea, mugako segmentuak birsilabatu gabe (*liaison*ik egin gabe).

Euskara silaba-aldiko hizkuntzat hartuz gero, joera nagusi gisa *liaisona* egitea bada espero izatekoa, nola ulertu aztertutako bertsolarien silabatze-aukerak? Amurizak (1980ko eta 1982ko txapelketetan) edo Egañak (1997an eta 2001ean) *liaisona* noizean behin gauzatu arren hitz artean, silabatze-joera nagusi gisa hitzak bereiz ahoskatzen dituzte, esaterako (xehetasun gehiagorako, ikus I. Eranskina). Hitz arteko mugan bokalak elkartzen diren kasuetan bertsolarien silabatzea zernolako den ere aztertu dudanez, ikusi ahal izan dut hitzak batzuetan eten labur batez bereizita ahoskatzeko “hautua” ez dela C# #V testuingurukoa soilik, gertakaria modu zabalagoan ulertu behar dela.

Hitzaren edo sintagmaren eremua hots katean mugatzearen motibazioa bi eragile posibletan koka daiteke, gutxienez. Batetik, orain artean hainbatetan aipatu dudana txapelketako testuinguru formaletik: bertsolariek kantatzen dutena modu argian, ulergarrian, kantatzea dakar horrek. Maila segmentalean hainbaten kasuan silaba indartzen duten bilakabideak dakartzan bezala, maila prosodikoan eremu txikiagoak, talde gehiago, mugatzea ekar dezake (ikus Madelska eta Dressler

294 Liaisonari lotuta uler daiteke sinalefa ere, bertsolarien artean aldakortasun handia jaso dudana arren. Ikus jarraian §8.4.5.3.

1996, besteak beste; ikus §4). Horrekin batera, datozen kapituluetan gehiagotan ekarriko dudan beste ideia bat aipatu behar da: prosodiak, hizketa denboran antolatzeaz gain, askotariko egitekoak betetzen dituela, hain zuzen. Morfoprosodia aipatu dut lehenago (ikus §9.2.1.3 azalpen sakonagorako); azentu-eredu zein taldekatze prosodikoak —eta horiei lotutako gertakari segmentalak— motibazio morfosintaktikoen edo semantiko-pragmatikoen arabera gerta daitezke, besteak beste (ikus §4): fokalizatutako osagaia nabarmen dezakete perpausean (*ba.ñao.rain.dik.ka.paz.naiz / e.jem.‘e.gi.te.ko* ‘baina oraindik kapaz naiz “ejem” egiteko’, AE-2005-BB-8tx-1), zerrenda bateko osagaiak mugatu (*i.xi.pu.‘e.rro.sa.[jo]* ‘isipu, errosario’, AE-2005-GS-10tx-1), hitz joko bat adierazi (*es.ku.zes.ku.es.ku.‘us.ka* ‘eskuz esku, esku huska’, ML-2009-GS-ha), etab. Aztertutako bertsoetan prosodian izan ditzakeen askotariko egitekoei §10 kapituluaren (§10.4.1.4.2) heldu diet, lehen hurbilpen gisa.

8.4.5. Bertsoetako txertatze prosodikoa

8.4.5.1. Abiapuntua: hots katearen ezaugarriak

Bertsoetako silabatzea ulertzeko denboran zehar ahoskatu nahi den hots katearen ezaugarriei erreparatu behar zaie, beste ezer baino lehen. Euskaraz indarrean dauden bilakabide paradigmaticoak direla eta, segmentuen antolakuntzak —ahoskatu nahi diren hitzen ezaugarriek, nahi bada— erraztasunak ematen ditu silaba egituratzen duten hatsarreak erlatiboki “erraz” betetzeko oinarrizko aurkezpenetik bertatik. Horregatik, bokal bilkurak ekiditeko maila sintagmatikoan *fortitiorik* (silaba ekineko hasperena, kontsonante palatala edo ezpainkaria, etab.) (ia) agertzen ez duten bertsolarien silabatzea (Sebastian Lizasorena, Andoni Egañarena, Maialen Lujanbiorena eta Amets Arzallusena) ez da halakoak agertzen dituztenen (Xabier Amurizaren eta Jon Lopategiren) silabatzetik aldentzen, egiturari dagokionez (ikus §8.4.1 atalean bertsolarietako ekoiztutako silaba-egituren maiztasunak). Gauza bera gertatzen da kontsonante taldeei emaniko trataerarekin. Bertsolarien joera, oro har, segmentu guztiak ahoskatzen ahalegintzea da, argitasunaren mesedetan, baina kontsonante taldeak gehien bakuntzen dituzten bertsolarien silaba-egiturak (Sebastian Lizaso eta Jon Lopategi) gainerakoekin alderatuta ere, ez dugu alde nabarmenik aurkitzen. Ezta *liaison* gutxien egiten dituzten bertsolarien kasuan ere (Xabier Amuriza eta Andoni Egaña), hitz arteko mugak gehiago birsilabatzen dituztenekin alderatuta ere.

Euskararen paradigma fonologikoak eta oinarrizko aurkezpenaren antolakuntzak errazten du silaba-hatsarreak jarraitzea txertatze prosodikoan, maila sintagmatikoan eraldaketa handirik eragin gabe maiz.

8.4.5.2. *Maila sintagmatikoa: aldakortasun ardatz batzuk*

Oinarrizko aurkezpenean dagoen hots katea ahoskatzean, askotariko bilakabideak gauzatzen dira. Kapitulu honetan hainbat gertakari segmental eta silabiko aztertu ditut. *Fortitio* segmentalak (hasperena, kontsonante palatala eta kontsonante ezpainkaria txertatzea silaba ekinean; /i/ bokala kontsonantetzea edo bokal arteko herskaria ez igurzkaritzea) ez dira bertsolari guztien ekoizpenetan aurkitzen, ezta neurri berean ere. Kontsonante bilkurei emandako trataeraz edo hitzen silabatzeaz ari garela, aurkako diren joerak urkitzen ditugu bertsolari bakoitzarengan. Itxura batean nahasgarri suertatzen den datu-bildumak errealitatearen konplexutasuna uzten du agerian. Izan ere, bertsoen silabatzean askotariko eragileek —batzuetan, elkarren aurkako direnak— hartzen dute parte.

Hasteko, erosoago edo errazago ahoskatzeak, kantatutakoari kutsu informal edo arduragabea eman nahi izateak, bertsolari batzuen estilo propioak, neurria bete behar izateak, etab. hots katearen jarraitutasuna eta bilakabide kohesiozile eta ahultzaileak ekarriko ditu berekin: kenketak, segmentuen ahultzeak, hitzen arteko mugak urtuta eginiko birsilabatzeak, etab. Horren aurrez-aurre, txapelketaren formaltasunak, ahoskera argia egin nahiak zein bertsolari batzuen estilo propioak, besteak beste, aurkako bilakabideak aktibatuko ditu: epentesiak, muga prosodikoak nabarmentzea (silabatik hasita), hitzak mugatzea, etab.

Horrez gain, gorago ere aipatu dudan prosodiaren egitekoak daude, eremu jakin bat nabarmentzera daramana bertsolaria, ondorio segmental eta prosodikoekin. Azkenik, aztertutako corpusaren silabatzea ezin uler daiteke bertsoaren egiturarik gabe: metrikak hainbat bilakabide baldintzatuko ditu (dieresia, sinalefa eta sineresia, gehiketa eta kenketa, kasu) eta musikak (doinuak) eta kantaerak ere hotsezko hainbat gertakari eragin ditzake. Lan honetan “makulu silaba” deitutakoak, esaterako (ikus I. Eranskina). Alor metrikoan sakondu dut hurrengo atalean.

8.4.5.3. *Neurri-eskakizunak nola bete: sinalefaren auzia*

Orain artean hainbatetan zehaztu bezala, hizkuntzaren fonologiak bertsogintza eta kantua baldintzatzen ditu, neurri batean behintzat, hizkuntzan posible diren moldeetan antolatuz hotsak, ezaugarri eta joera horiek hitz lauz erdigunean egon edo ez (De Sisto 2020). Rodríguez-Vázquezek (2010: 246-265) ingelesez eta gaztelaniaz sortutako herri-kantu banaren kasu-azterketa eginda azaltzen du gaztelaniaz (silaba-aldiko hizkuntza) sinalefa gehiago gertatzen direla ingelesez (azentu-aldiko hizkuntza) baino, hizkuntza erromantzean hitz lauz ere ohiko diren desilabagiletze joerak islatuz bertsoen metrikan eta kantuan. Ikerlariak hizkuntza bakoitzean erabiltzen den bertso-

neurriarekin ere lotzen du gertakaria: gaztelaniarena silaba-kopuruan oinarritua denez, ezinbestean gauzatu beharko dira batzuetan sinalefa bezalako birsilabatzeak, bilakabideak; ingelesez, berriz, azterturiko kasuan behintzat, neurriak ez duenez silaba-kopuru finkoa eskatzen —azentuen gauzatze finkoa baizik—, kantariari askatasuna ematen dio ekoizpenean nahi edo behar beste silaba ekoizteko, ingelesaren joera fonologikoei jarraiki moldatuz doinua.

Euskaraz hizketa azkar edota arduragabeen hitz mugen artean gerta daiteke bokal desilabagiletze edo diptongatzea (sinalefa): *ho(rre)[laj]kusi*; *alkandor[awr]dina* (Hurch eta Oñederra 1987: 24-26). Bertsoetan ere gertatzen da, neurriaren eskakizunak betetzeko baliabide gisa (hainbat bertsogilek sinalefaz eginiko hautuez, ikus §8.2.7.2 atala). Bat-bateko bertsolarien sorkuntza-prozesuan sinalefa “komeni denean, aisiara, batere araurik gabe” (Altuna 1994: 1224) egiten dela zehazten du Altunak, tradizioetik edaten duen joerari jarraiki.

Aztertutako bertsoetan ikusi ahal izan dut sinalefaren erabilera oso desberdina egiten dutela bertsolariak, denak bat-batean, kantuan eta antzeko testuinguruan aritu arren (txapelketako finalean, jendaurrean, antzeko lanetan, etab.). Batzuen bertsokeran oso integratua dagoela dirudi, bertsoak sortzean sinalefarekin kontatzen dutela errazago: Maialen Lujanbio da, 2009ko eta 2017ko txapelketan, sinalefa gehien gauzatzen dituen bertsolaria. Aipagarria da hitz arteko desilabagiletze edo diptongatzeekin batera, hitz barnean ere desilabagiletze ugari gauzatzen dituela bertsolariak, baita kenketak ere. Ematen du esan nahi duen hori neurriarekin bat ez datorrenean bere silabatze-estrategia nagusietako bat hots katea murriztu (kenketen bidez) edota “tolestea” (desilabagiletzea) dela (sinalefa eta sineresiekin). Apenas dagoen gehiketa edo dieresirik Lujanbioren ekoizpenetan.

Beste bertsolari batzuek, ordea, sinalefa egitea ekiditen dutela ematen du: Sebastian Lizaso da, 1986ko txapelketako finalean, sinalefa gutxien egiten dituen bertsolaria (31 bertsoetan 2 sinalefa), aztertutakoaren artean. Ematen duenez, txertatze prosodikoan hots katea silabatan antolatzen du, segmentuak “etorri ahala” kokatuz silabatan, nolabait, eta ahal dela, murriztu gabe —pentsatzekoa da bertsolari guztiek jarraitzen dutela joera hori, baita Lujanbiok ere—. Lizasok ez du desilabagiletzeekin jokatzeko lehen aukera gisa behar metrikoari erantzuteko. Kenketa eta gehiketa darabiltza, batez ere, bertsolariak hots katea eskakizun metrikoetara egokitzeko. Gainerako bertsolariak tartean kokatzen dira, desilabagiletze (sinalefa eta sineresi), kenketa eta gehiketak erabiliz, bakoitzak bere neurrian, behar metrikoak asetzeko (ikus I. Eranskina xehetasun gehiagorako). Bertsolari bakoitzak, beraz, hizkuntzak eskaintzen dituen aukeren artean (euskararen tipo erritmikoaren eta sistema fonologikoaren baitan) bere “silabatze-formulak” darabiltzala esan daiteke: behar metrikoen aurrean erantzuteko estrategia propioak, batzuetan bat etorri arren, beste batzuetan ez direnak berberak. Ezin da ahaztu bertsogintza jardun artistikoa dela eta sortzaile

bakoitzak egiten duela bere ekarpena, hizkuntzaren silabatze-hautu eta joeretara ere heltzen dena, akaso²⁹⁵.

8.4.5.4. Silabaren izaeraz

Atal honen sarreran aipatu dut bertsoen azterketak silabaren izaeraz gogoeta egiteko aukera ematen duela. Silaba hizketaren maila sintagmatikoan, txertatze prosodikoan, zehazten dela esan dut (Donegan eta Stampe 1978). Ideia hori corpusean jasotako silabagiletze eta desilabagiletze gertakarien bidez indartzen da. Bertsoetan hots kate beraren silabatze desberdinak gertatzen dira, bertso beraren baitan maiz. Errepika duten bertsoak adibide egokia dira horretarako, aurrera begira sistematikoki aztertze modukoak, silabatzeari dagokionez. Hitzen taldekatzea aldatu ohi da maiz berriro kantatzean eta, ondorioz, hots katearen silabatzea (edo alderantziz). Esaterako, Amurizak 1982ko txapelketako goizeko saioan gaia emanda kantatutako bigarren bertso bukaera lehen aldiz kantatzean: *kan.ta.zak.‘e.ta.‘e.za.di.sil.‘i.ño.la* gauzatzen du; bigarren aldiz kantatzean, berriz: *kan.ta.zak.‘e.tae.za.di.‘i.sil.‘i.ño.la*, XA-1982-GS-ge-2; ikus §10 (79. irudia) gertakaria xehetasun handiagoz ezagutzeko. Lopategik, 1989ko arratsaldeko saioko hamarreko handiko hirugarren bertso bukaeran *on.do.an.‘e.gon* abesten du behin, eta bigarren aldiz kantatzean, *on.do.ba.ne.gon* ‘ondoan egon’ (JL-1989-AS-10H-3) ahoskatzen du. Aipatutako adibideak zein kapitulu honetan jasotako beste asko baliagarri dira bertsolarien silabatze-joeretan zein horien aldakortasunean sakondu eta maila teorikoan hausnartzeko.

8.5. Laburbilduz

Bertsoetako silabatzea gertakari konplexua da. Euskararen hots antolakuntzak silaba egituratzen duten hatsarreak betetzen dituen silabak antolatzea ahalbidetzen die bertsolariari, eta hala egiten dute guztiek ere. Aztertutako corpusean hizketaren maila sintagmatikoan gertatzen diren bilakabide segmentalak (eta horiek gauzatzeko neurria) aldatu egiten dira bertsolarien arabera. Batez ere, fortitioak dira horren zabaldua ez daudenak: bokal bilkurak ekiditen dituzten hots epentetikoak txertatzea (hasperena, kontsonante palatala eta kontsonante ezpainkaria) neurri handiago edo txikiagoan, silaba ekineko segmentuak indartzea (/i/ bokala kontsonantetuz edo bokal arteko herskaria ez igurzkarituta). Horrez gain, hitzen arteko mugen trataera oso aldakorra da bertsolari guztietan: batzuek hitzak gehiago(tan) mugatzeko joera agertzen dute eta beste batzuek,

295 Lan honetan ezin dut txertatze prosodikoan bertsolarien hizkerek izan dezaketen eragin posiblea aztertu, horretarako toki bereko hainbat bertsolariaren jarduna aztertzea litzatekeelako beharrezko, edo pertsona berberen hitz lauko eta bertsoetako ekoizpenak aztertzea. Etorkizunerako geratzen da eragile posible hori kontuan hartzea.

berriz, hots katea gehiagotan birsilabatzekoa, baina bi aukerak ageri dira bertsolari denen silabatzean. Lizentzia metrikoen erabilerari dagokionez, kenketa da hedatuen dagoen baliabidea; gainerako erabilera bertsolari bakoitzaren arabera aldatzen da. Sinalefa, baliabiderik ezagunena, bertsolari bakoitzaren silabatze-estiloaren arabera gauzatzen da. Ematen du bertsolari batzuek erraztasun handiagoz darabiltela kantuan eta, beste batzuek, berriz, neurria betetzeko azken aukera gisa dutela.

Aztertutako gertakari eta ezaugarriek bertsoetako hizkerak (euskarak) silaba-aldiranzko joera duela berresten dute, erritmoaren arabeko tipologiaren ikuspuntutik: hatsarre silabikoak ahalbidetzen dituzten bilakabideak gauzatzen dituzte bertsolariek, CV oinarrizko silaba-egitura da nagusi, baita silaba irekiak ere, oro har, eta hitz arteko mugak urtu egiten dituzte batzuetan (*liaisona* egiten dute). Edonola ere, bertsoetako silabatze-joerak ulertzeko, erritmoaren arabeko tipologiaz gain, testuinguruaren formaltasuna, bertso-egitura, bertsolari bakoitzaren estiloa eta prosodiaren askotariko egitekoak hartu behar dira kontuan, besteak beste.

Corpusaren azterketatik ateratako datuek, ondorioztatutako gertakariak, silabari buruzko gogoeta teorikoan sakontzeko aukera ematen dute. Izan ere, hots kate beraren silabatze desberdinak aurki daitezke hainbatetan eta bertsolari desberdinen ahotan, silaba hizketaren maila sintagmatikoan egituratzen dela iradokiz.

9. Bertsoetako erritmo-ereduak:

ezaugarri nagusiak, aldaerak eta aldakortasun-eragile posible batzuk

9.1. Sarrera

Ahozko ekoizpen orok du erritmoa, eta erritmo-ereduen bitartez gauzatzen da. Izan lagunarteko hizketaldia, poesia errezitaldia edo rock kontzertua, ahoskatutako silabak azentudun edo azentugabe gauzatu eta hautematen dira, iraupen, garaiera eta intentsitate jakinaz, besteak beste. Osagaiak taldekatzen dira haien artean etenak eginez, etab.

Euskarazko bat-bateko bertsogintzan, bertsolariak kantatzeko hautatutako doinuak —bertsolariak kantatzen duen gisan— eredu erritmikoak eskaintzen dizkio bertan gauzatzen den hizketari. Silaba kopurua, silaba horien iraupen eta garaiera zein konpasarekiko duten kokapena —gune indartsu azentudunean ala gune ahul azentugabean gauzatu— doinuan aldeztatik zehazturik eskaintzen dira, hasiera batean. Hasiera batean diot, gauza jakina baita bertsolariak ez duela aldiro doinua berdina kantatzen, eta bertsolari bakoitzak doinu jakin baten bertsio propioa(k) d(it)uelako.

Testu-uztartzean agertutako aldakortasun erritmikoa bertso-neurriak eta hizkuntzaren fonologiak baldintza dezakete, besteak beste, orain artean hainbat hizkuntzatan eginiko ikerketen arabera. Azentu linguistiko eta musikalak bat etorrarazteko joera lekukotu izan da azentu-aldiranzko joera duten zenbait hizkuntzako testu-uztartzean, horretarako erritmo-ereduetan aldaerak gauzatuz, esaterako (ikus jarraian §9.2.4). Dirudienez, hizkuntzaren fonologiak ez du erritmo-ereduen aldakortasunean soilik eragiten: doinuek dituzten oinarritzko ezaugarrietan —konpasaren

zein motibo erritmikoen ezaugarrietan (ikus jarraian §9.2.4.1.3— eta inprobisatzean hizkuntza eta doinua lotzeko molde nagusietan ere hizkuntza-tipologiaren eragina iradoki izan da, hitz lauho prosodiatik eta helburu komunikatiboetatik hurbilago kokatzen diren kantu-generoetan eragin hori nabarmenagoa izanik, espero den gisan (ikus §5).

Erritmo-ereduak hizkuntzaren erritmo-antolakuntzaren oinarrietako bat dira (§3.2). Azentu-ereduak egituratzen dituzten hatsarre prosodikoetatik hasi eta prosodiaren askotariko egitekoekin jarraituz, eragile askoren mende dagoen alorra da. Euskaraz gai konplexua da azentuerena, hizkeren arteko aldakortasunak zein maiz testuinguruaren arabera aurki daitekeenak eraginda, besteak beste (ikus jarraian §9.2.1.4.5). Bat-bateko bertsoen eredu-erritmiko nagusien ezaugarriak zein horien aldakortasuna aztertu dut kapitulu honetan. Horren bidez euskaraz bertsoetako testu-uztatzean azentu linguistikoak duen tokiaz hausnartu eta bertsoetako erritmo-eredua baldintza dezaketen bestelako eragile posibleak proposatu ditut, hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren egiturak kontuan hartuta, baita bertsoaren izaera komunikatiboa ere, ahal izan den neurrian.

9.2. Aurrekariak eta marko teoriko-analitikoa

9.2.1 Erritmo-ereduak (azentuerak) txertatze prosodikoan

Aurrez ere esan bezala, txertatze prosodikoa hizkuntzaren osagai linguistikoak (gramatika eta hiztegia, alegia) erritmo- eta doinu-ereduekin uztartzea da (Donegan eta Stampe 1978: 30; txertatze prosodikoaz, ikus §2). Kapitulu honetan erritmo-ereduetan sakondu dudanez, txertatze prosodikoan horiek duten tokia aztertu beharrekoa da. Txertatze prosodikoa gertatu baino lehen hein batean finkatutako “oinarrizko erritmo- eta doinu-ereduak” badirela uler daiteke Donegan eta Stamperen definiziotik, hizkuntzaren hotsak horietan antolatzen baitira. Horrekin batera, behin segmentuak eredu prosodikoekin uztartu direla, hiztunak azkenean ahoskatzen dituen “azentuek”, “iraupena” edo “taldekatzea” ditugu, azkenean maila sintagmatikoan azaleratutako erritmo- eta doinu-ereduak.

Aipagarria da Donegan eta Stamperen (1979) proposamenetik abiatuta Hurček (1994, 1996) eginiko garapena bilakabide prosodikoen teorizazioan. Fonologia segmentala ulertzeko proposatu bezala (Stampe 1969, Donegan eta Stampe 1979, 2009), alor prosodikoan ere maila paradigmaticoa eta sintagmaticoa bereizten ditu. Hizkuntza baten paradigma fonologikoa litzateke hiztun batek, hizkuntza jakin hori gogoan hartu eta hizketa bilakatu ahal izateko, buruan dituen hots-unitate, hots-bilkura aukerak eta eredu prosodikoak. Hala, *bilakabide paradigmaticoak* izango dira hizkuntza jakin bateko hots unitateak eta eredu prosodiko orokorrak zehazten dituztenak (Oñederra 2004: 126-127). Hizkuntzaren alderdi sintagmaticoa, berriz, paradigma jakin batetik abiatuta hizkuntza ahoskatzean, hizketa (fisiko) bilakatzean, azkenean gauzatzen diren gertakariak eta ezaugarriak

osaten dute. Hizketa bere testuinguruan, hotsak hots katean, prosodikoki antolaturik, gauzatzeko modua da. Bilakabide sintagmatikoen inguruneak, bere askotariko alorretan, hizketari —hizketa unitateei— eragiten dizkion aukerak zehaztuko dituzte, beraz.

Horregatik aipatu dut lehenago txertatze prosodikoan hizkuntza *hein batean* finkaturik dauden eredu prosodikoetan antolatzen dela. Maila paradigmaticoak zehazten ditu ezaugarri prosodiko batzuk, abiapuntu gisa, baina beste batzuk txertatze prosodikoan bertan zehazten dira, maila sintagmatikoan.

Plano paradigmaticoaren eta sintagmatikoaren bitartez hizketaren prosodiaren konplexutasuna hobeto azal daiteke, gertakari prosodikoen jatorriak bat baino gehiago izan daitezkeela uzten baita agerian. Aipatutako planoez gain, gramatikaren askotariko alderdiek —morfologiak, esaterako— beren funtzioak adierazteko bali dezakete prosodia, edo gertakari fonologikoak tarteko, aldaera prosodikoek ezaugarri morfologikoak (edo beste eremuren batekoak) adierazi. Morfoprosodia (*morfoprosody*) izendatzen du plano linguistiko hori Hurchek (1994, 1996). Jarraian txertatze prosodikoaren fase desberdinetan sakonduko dut Hurchen proposamenean oinarrituta, erritmo-ereduetan fokua jarririk.

9.2.1.1. Bilakabide prosodikoak eta erritmo-ereduak

Hizkuntzaz ari garela, sarri asumitzen da hitzak ahoskatzen ditugula, eta sortzen ditugun silaba horietako batzuetan “jartzen” ditugula azentuak. Ikuspegi horri buelta emanez, FNtik proposatzen da hitzak direla azentu-ereduetan txertatzen direnak, ez alderantziz²⁹⁶. *Azentu-eredu* edo *erritmo-eredu* horiek²⁹⁷ hartzen dira prosodiaren oinarritzat, eta ulertzen da edozein hitz konkretu ahoskatu baino lehen ere badirela, ez daudela hitz jakinei loturik hasiera batean. Gai gara hitzun gisa azentu-eredu horiek hautemateko, guk hitz egiten ditugun hizkuntzak zein beste batzuk izan. Italieraz, esaterako, [òòòóó], [òóó] edo [òòòóó] azentu-ereduak bereiz daitezke, beste hainbaten artean. Hitzak ikastean ere, erritmoa aparteko alderdia dela dirudi, hitz bat gogoratzeko ahaleaginean sarri erritmo-eredua lehenago berreskuratzen baita hari lotutako hots-katea baino (Hurch 1996: 87).

Azentu-eredu orokorrak, beraz, hitz jakinen azentuatzea baino lehen badirela ulertzen dut lan honetan. Eredu horiek gorago aipatutako bilakabide paradigmaticoen emaitza dira: bilakabideen arteko elkarreraginak, gauzatzeak edo ez gauzatzeak, elkarren artean desberdinak diren eredu

296 Hizketan gauzatzen diren erritmo-ereduak ulertzeko, Stamperen esana hartzen du abiapuntutzat Hurchek (1996: 87): “we do not put accents on words, but words on accents” (Hurch 1996: 87) “or, more exactly, words are put together with accents” (Hurch 1994: 215).

297 Hurchek (1994) motibo erritmiko (*rhythmic motive*) izendatzen ditu azentu-eredu horiek, musikologiako terminologia hizkuntzara ekarriz. Lan honetan bertso-doinuen azterketan baliatu dut nik *motibo erritmiko* terminoa; horregatik, *erritmo-eredu* baliatu dut, zentzu zabalean, hitz lauz zein kantuan gauzatzen diren azentu-ereduei erreferentzia egiteko.

erritmikoak sortzen dituzte, eredu prosodiko orokorrek hizkuntzen artean zein hizkeren artean agertzen dituzten aldeetako batzuk azaltzea ahalbidetuz. Izan ere, eredu prosodikoak egituratzean *bilakabide prosodiko paradigmatico ingurunez landakoak* bereizi behar dira, batetik (Hurch 1996: 88). Haien egitekoa hizkuntza baten baitako hobespen prosodiko nagusiak zehaztea izango da, inguruneak baldintzatu gabe. Esate baterako, bada hobespen bat eredu prosodikoak *trokaiko* [óo] egitearen aldekoa (ikus aurrerago §9.2.1.2 hobespen prosodikoen aurkezpenerako). Joera hori gaztelaniaz gauzatzen diren azentu-eredu orokorretan islatzen da, besteak beste. Ohikoa da hitzetan azentu nagusia azken aurreko silaban kokatzea: *alegre, marcha, mármol, canto, baile*, etab. Euskal hizkeren artean, Zuberoa ingurukoa litzateke eredu nagusi gisa joera trokaikoa ageri duenetako bat²⁹⁸ (Gaminde eta Hualde 1995, Hualde 1997, etab.; euskararen azentuerez, ikus aurrerago §9.2.1.4).

Joera paradigmatico ingurunez landakoez gain, osagai gramatikalek prosodia balia dezakete forma eta esanahi gramatikalak adierazteko. Egiteko horiek hobeto beteko dira, hautemangarriagoak izango direlako, hizkuntza horretan indarrean dauden joera paradigmaticoen ezeztapena badira, joera prosodiko orokorrei aurka egiten badie. Gaztelaniaz, *bailé, cantó* eta gisako azentu-ereduak — *baile, canto* adibideekiko aurrez-aurre—, esaterako (ikus aurrerago §9.2.1.3).

Azkenik, kontuan hartu behar da hizketan ekoizten dugun eredu prosodiko oro —hatsarre prosodikoen arabera egituratua zein gramatikak gobernatua izan— maila sintagmatikoan erritmikotzat, ontzat, jotzen ditugula hiztunok. Azken finean, edozein azentuera bilakabide prosodiko sintagmatikoen galbahetik igarotzen da, hots kate eta eredu prosodikoak ahoskagarri eginez, modu batera edo bestera. Horrek aldaketak ekar ditzake abiapuntuko eredu-prosodikoetan, baina ez derrigor. Horrez gain, kontuan hartu beharrekoa da maila sintagmatikoan bestelako baldintza prosodikoen zein bilakabide segmentalen eragina jasaten duela hizketak, eredu prosodikoetan opakotasuna eraginez edo bilakabide prosodikoak berriro gertaraziz.

Honela deskribatzen du Hurchek (1996: 88) txertatze prosodikoa, azentuaretan fokua jarririk:

The syntagmatic process of accentuation is essentially just the mapping of accent units onto the language specific patterns established paradigmatically. This mapping may be governed by different strategies. In a language with fixed primary accent, the mapping follows only prosodic principles which again are reflections of the (context-free and context-sensitive) preferences. [...] Thus, in Czech a trisyllabic is necessarily mapped onto [óoo], a pentasyllabic onto [óooòò], a hexasyllabic onto [óòòòòò], etc. In systems like that of Latin, interaction with quantity defines patterns available for the mapping of a given word. A word like Lat. *Natura* 'birth, essence' is mapped onto [oóo] by quantity preference. In systems with free accent, lexical, morphological and syntagmatic prosodic factors govern the mapping processes.

(Hurch 1996: 88)

298 Azentu-eredu orokorra joera trokaikoan oinarritzeak ez du esan nahi, noski, hizkera horretan ez dela bestelako erritmo-eredurik.

Askotariko neurrietako erritmo-ereduak daude, eta hizkuntza bakoitzak hitzen luzeraren, hobespen tipologiko eta morfologikoen nahiz bestelako murriztapenen arabera “hautatzen” ditu bere sisteman indarrean dauden bilakabide eta erritmo-ereduak. Hala, hitz jakinak eredu prosodiko zehatzekin uztartzean, ekoitzi nahi den hitz edo hitz multzoaren arabera eredu prosodikoa hautatzen da hitz lauz²⁹⁹, hizkuntza bakoitzean indarrean dauden murriztapenak eta testuinguruak emaniko baldintzak jarraituz. Murriztapen horiek, kasu batzuetan, prosodikoak soilik dira. Goiko aipuan aipatzen den txekieraz, adibidez, hitz hasierako silaba gauzatu ohi da azentu nagusidun. Beste batzuetan, silaben kantitateak ere eragiten du azentu-ereduen hautuan, hizkuntza batzuetan (latinez, kasu). Edo azentu-ereduen hautuak, baldintza fonologikoez gain, zehaztapen morfologiko, lexiko edota idiosinkratikoak ere jarrai ditzake, italierarena bezalako azentu-sistema batean kasuan bezalaxe (Hurch 1994: 217).

Azter dezagun italierazko *elettricità* hitzaren txertatze prosodikoa (Hurch 1994: 212-213). Italierak hitzen azken aurreko silaba azentudun gauzatzeko joera prosodiko sendoa du, gaztelaniak bezala. Edonola ere, *elettricità* hitzaren kasuan kontuan hartu behar da, printzipioz bost silabakoa izateaz gain³⁰⁰, morfo-lexikoki zehazturiko azentu nagusia duela hitz azkenean, formaren aldagaiztasuna eta generoa adieraziz, besteak beste ([ooooó]). Gramatikak baldintzatutako azentuera —hitz azkeneko azentua— kontuan hartuta, azentu bigarrenkariaren kokapenerako aukera bat baino gehiago daude italieraz, maila sintagmatikoan zehazten baitira horiek. *Elettricità* hitzaren kasuan ondokoak lirateke: [òòòóó] edo [oòòóó]³⁰¹. Italiar hiztunek, beraz, *èlettricità* edo *elètricità* ahoskatuko dute hitza, ziurrenik. Nabarmentzekoa da hizkuntza guztiek, azentu-eredu orokorra edozein izanik ere, hobespen sintagmatiko prosodiko agerikoak jarraitzen dituztela maila sintagmatikoan (Hurch 1994: 219-220). Jarraian (§9.2.1.2 atalean) aurkeztuko ditut hobespen prosodiko horiek, prosodian oinarritutako erritmo-eredu paradigmaticoen eta maila sintagmatikoan aurkitzen diren gertakari prosodikoen atzean daudenak, Hurchen (1994, 1996) arabera. Ondoren, morfoprosodian sakonduko dut gehixeago (§9.2.1.3).

299 Gogora dezagun bertso eta kantuan, alde zuretik neurria edota doinua sortua denean, hizkuntza dela eredu prosodikora moldatu behar dena, hasiera batean behintzat.

300 Printzipioz bost silabakoa dela diot, silabatzeari buruzko §2.3 atalean azaldu eta erakutsi bezala, hitzen silabatzea hizketaren maila sintagmatikoan zehazten delako, eta aldakorra izan daitekeelako (Donegan eta Stampe 1978). Hala ere, Jauregik (2007: 342) zehaztutakoaren bide berean, hizkuntza batzuetan errazago da aurreikustea hasiera batean zein silabatze izango duen. Hori da euskararen kasua eta, baita italierarena ere, aztergai dudana *elettricità* hitzaren kasuan, behintzat.

301 Biak ala biak erabil daitezke testuinguru berean hitzari esanahia aldatu gabe, eta beraz, erritmo-eredu baten azpi-aldaeratzat har daitezke; gertaera azpi-fonemiko edo azpi-prosodikotzat (Hurch 1994: 219-220).

9.2.1.2. Erritmo-ereduak egituratzen dituzten hobespen prosodikoak

Orain artean behin eta berriro aipatu ditut prosodiak gobernatutako azentu-eredu orokorretan zein txertatze prosodikoaren maila sintagmatikoan joera edo hobespen prosodiko batzuk azaleratzen direla. Hurchek (1996: 88) hobespen horiei buruz zehazten duenez, “I do not assume that preferences themselves are grammatical concepts but they illustrate preferred states and patterns either under the absence of or under constant contextual influences. The preferences below may themselves work as prosodic processes or they simply represent the “unmarked” vs. “marked” context of other prosodic or segmental processes”. Honakoak dira berak proposaturiko hobespenak azentuerei dagokienean³⁰²:

(1) Beheranzko azentu-ereduak (*falling patterns*) —trokeoa, [óo], edo daktiloa, [óoo]— nahiago dira goranzkoak (*rising patterns*) —ianboa, [oó], edo anapestoa, [ooó]— baino. Hobeste horren aldeko argudioak hainbat eremutan aurki daitezke. Besteak beste, azentu-eredu orokorreari begiratuz gero, goranzko azentu nagusia duten hizkuntzen kasuan (ere) —baldintza prosodikoak jarraituz gauzatutako— azentu bigarrenkariak beheranzko joera agertzen dute sarri (ikus WALS-en “Rhythm types” ezaugarria joera hori berresteko³⁰³). Maila sintagmatikoan gertatutako bestelako gertakari erritmikoek ere beheranzko azentu-ereduen aldeko joera agertzen dutela ematen du. Adibidez, bi azenturen arteko talka dagoenean, elkarren ondoan gauzatzekoak direlako (literaturan *accent clash* deiturikoa), edozein delarik ere horri aurre egiteko baliatutako estrategia —azentuaren lekualdatzea edo azentugabetzea, nagusiki—, beheranzko ereduen alde egin ohi da: *New Yórk Cíty* → *Néw York Cíty*, adibidez. Hizkuntza-jabekuntzaren alorrean ere badirudi trokeoa dela hasiera batean nagusi, haurrak (sasi-)hitzak ahoskatzen hastean (ikus honetaz Dressler [1996: 43] ere), etab.

(2) Oin metrikoaren neurriari dagokionez, egitura **bitarrak** hobesten dira, trokeoa, [óo], eta ianboa, [oó], hirutarrak diren daktiloaren, [óoo], eta anapestoaren, [ooó], gainetik. Kasu honetan ere hizkuntza-jabekuntzatik dator joera zehazteko argudioetako bat: dirudienez, bi silabatako egiturak beste batzuk baino lehenago datozela dirudi, oinarrizkoagoak direla erritmikoki. Hizkuntzen baitako bilakabideetan, esaterako, badira bi bereziki nabarmen daitezkeenak egitura hirutarrak bitar bilakatzeko joera dutelako: sinkopa eta apokopea. Gertakariari ikuspegi diakronikotik begiratuta, hizkuntza erromantzeetan maiz aurkitzen dira latinez hiru silaba zituzten hitzak bitartuta: Lat. *géneru* → gazt. *verno*; *cómite* → *conde*; lat. *Dómina* → it. *Donna*, *spéculum* → *specchio*, etab. Ikuspegi sin-

302 Jarraian aurkezten ditudan joerak ondorengo lanetan oinarrituak dira: Hurch (1994, 1994); Dressler (1996); Maldeska eta Dressler (1996). Ematen diren azalpen eta adibideak Hurch (1996)-tik atereak dira, ez badago erreferentzia gehigarrik edo bestelako oharrik. Erreferentzia gehigarri eta osagarrietarako, jo lan horietara.

303 Atlasean jasotako hizkuntzen artean trokeoaren aldeko joera nagusitzen da azentu bigarrenkarien artean. Sarean ikusteko: <https://wals.info/chapter/17> (azken kontsulta: 2023-09-14).

kronikoak ere ematen dizkigu joera horren aldeko frogak. Ingelesez, esaterako, hizkera arduragabeen ohiko izan daitezke horrelako murriztapenak: *family* → *famly*, *interest* → *intrest*, etab. (Hurch 1996: 91). Euskaraz, egiturak bitartu izanaren adibidetzat aipa genitzake Irun edo Hondarribia inguruan *Ondárbi*, *Onddárbi* ahoskatzea ‘Hondarribi’, ‘Hondarrabi’ edo Beintza-Labaiengo hizkeran, *a.bís.tu* ‘abisatu’ (Michelena [1961] 1990:390) gisakoak ahoskatzea. Emandako adibideetan hitza-zen errima —azentu nagusitik hitz amaierara arte doan tartea— hirutar izatetik bitar izatera igarotzen da, azentu ondorengo silaba postonikoa galduta³⁰⁴.

Joera honen oinarria erritmikoa da, eta baita pertzeptuala ere, zentzu zabalagoan. Dresslerrek (1996: 42) *Figure and ground* printzipio semiotikoa planteatzen du joera horren oinarrian. Horren arabera, “lehen lerroan” dauden irudiak gehiago nabarmentzeko joera dago, eta “hondoan” kokatzen diren osagaiak, berriz, “atzerago” eramatekoa. Doneganek (1985) fonologiarako planteatutako “aberatsa aberastearen” printzipioa (*rich-get-richer*) eta Donegan eta Stampek (1978) plazaratutako ‘aurkakoak erakartzea’ izendatutako hatsarrea ere honekin lotuta leudeke. Paragrafo honetan aurkeztutako hatsarreek ondorengo azentu-ereduen konplexutasunaren inguruko joera ulertzen ere laguntzen dutela esan daiteke.

(3) Azentu-ereduen konplexutasuna aztertzean, elkarren aurkako bi joera aipatu behar dira: batetik, azentu-azentugabe bereizketa oinarrizkoa hobesten da, hautemateko kontrasterik argiena ematen duelako; baina bestalde, aipaturiko bereizketa monotonoegia izan liteke silaba kate luzean, eta beraz, azentu-maila gehiago izateak (azentu nagusia/ azentu bigarrenkaria/ azentugabea, kasu) aberastuko luke hori, prozesatzea zaildu arren. Dirudienez, joera baten edo bestearen alde egiteko esanguratsua da eremu prosodikoaren neurria. Pentsatzekoa da, beraz, eremu txiki edo denboran laburragoek azentu-eredu sinpleagoak izango dituztela, eta hizketa-kate luzeagoek, berriz, eredu konplexuagoak. Edonola ere, kontuan hartzekoa da azentu-ereduen konplexutasuna hizketa-estiloen arabera alda daitekeela, besteak beste (Madelska eta Dressler 1996; ikus §4.3).

(4) Iraupena —iraupen luzea(goa)— azentuarekin elkarreraginean dago eta azentua adierazteko modu nagusia da batzuetan (fonetikoki). Badira hizkuntzak azentua bokal edo silaba luzeetan (astunetan) kokatzeko joera ageri dutenak, baina inoiz ez da aurkakorik aurkitzen: ez dago bokal edo silaba laburrak (arinak) soilik nabarmentzeko joera duen hizkuntzarik. Kantitate segmental edo silabikoak testuinguru gisa jokatzeko joera duen azentuarentzat, eta beraz, aipaturiko iraupen luzea

304 Gertakari zabalagoaren baitan kokatzen da azentu aurreko edo ondorengo silaba atono edo azentugabeen galera, ez soilik egitura hirutarrak bitar egiten dituzten horietan —nahiz eta halakoetarik asko izan—. Irunen lekukotua da, esate baterako, *txokóltia* ‘txokolatea’; edo Ultzamako *tor da* ‘etorri da’, *kus duzu* ‘ikusi duzu’, *bizi daitzen* ‘bizi daitezen’, etab. (Michelena [1961] 1990: 391).

duen silabaren bat izanez gero hizketa katean, aukera gehiago izango ditu azentudun gauzatzeko, oharmenarentzat ere errazagoa baita hala hautematea. Kontuan hartu behar da hizkuntza guztiak ez direla kantitateaz baliatzen eredu-erritmikoak egituratzean —edo azentu nagusietan soilik duela eragina; latinez, esate baterako—, baina, edonola ere, fonetikoki luzera izan daiteke azentuaren ondorio bat. Gorago aipatutako “aberatsa aberasteko” joera (Donegan 1985) gertakari horrekin lot liteke.

(5) Azentua eremu prosodikoen ertzetan gauzatzeko joera (bazterrekotasuna³⁰⁵; ing. *peripherality*) aurkitzen da. Jakobsonek aurkeztutako *azentuaren egiteko demarkatiboaren* ideari helduz —azentuak hitzen mugak adierazten dituela, alegia—, adierazpena tentuz hartu eta joera honela aurkezten da: eremu prosodikoaren muga inguruan dagoen silaba azentuduna nahiago da bestelako kokapenen batean dagoen silaba azentuduna baino. Azentuaren egiteko indartzaitetik ulertzen da gertakaria, eremu prosodikoen nondik-norakoak adierazteko gaitasunetik. Hala, hizkuntza eransleetan —zeintzuetan oso hitz luzeak gerta daitezkeen— ohikoa da eremu prosodikoen hasiera edo amaiera inguruan kokatzea azentuak.

(6) Tonu hizkuntzen kasuan —ez naiz garaiera-azentua duten hizkuntzez ari³⁰⁶— ematen du tonu nabarmenena duen silabak azentudun izateko aukera handiagoak dituela. Hala da, esaterako, hausa edo akan hizkuntzetan (ikus Hurch 1996: 94). Era berean, azentugabeko silabetan tonua neutraldu egiten dela dirudi hainbat tonu-hizkuntzatan. Garaieraz oro har, esan behar da azentuaren adierazle ohikoa izan daitekeela fonetikoki.

Aipaturiko joerek —edo joeretako batzuek— elkarreraginean osatzen dituzte prosodiak gobernatutako azentu-eredu orokorrak. Horiek sintagmatikoki gauzatzean, kasuan kasuan bestelako gertakari segmental edo prosodikoekin daude elkarreraginean, baita haien artean zein bestelako baldintza gramatikalekin ere. Txekiera adibide egokia da baldintza prosodikoen arabera erritmo-eredua darabilen hizkuntza gisa. Ikus daitekeenez, aipaturiko joeren artean gehienak biltzen ditu:

The simplest stress systems lack any kind of context sensibility, i.e., they lack any interaction with segmental or other prosodic categories, and choose only those patterns which are produced by the preferences of binarity, prominence direction, structural depth, and peripherality. A simple regular system, like Czech as described by Jakobson (1971 [1926]), would thus generally map bisyllabics onto [óo], trisyllabics onto [óoo], tetrasyllabics onto [óoòo] with a possible secondary accent on the third syllable, pentasyllabics onto [óooòo], hexasyllabics onto [óoòòòo], etc.

(Hurch 1994: 220)

305 Oñederrari (2012) jarraiki baliatu dut euskarazko terminoa.

306 Tonu hizkuntzak eta garaiera-azentudun hizkuntzak ez dira berberak. Jun-en (2005) arabera, tonu hizkuntzetan silaba bakoitzari tonu bat dagokio eta garaiera-azentudun hizkuntzetan, berriz, hitzeko silabaren batek zehaztaperen lexikoak izan ditzake garaiera-azentua izateko (Patel 2008: 119). Euskaraz badira hainbat hizkera, egun Bizkaiko kostaldeko hizkerak, besteak beste, garaiera-azentuduntzat hartzen direnak (ikus Elordietaren lanak, batez ere. Lan honetan §9.2.1.4 eta §10.2.1.1.4 ataletan dira horietako batzuk aipagai).

Joera prosodiko horiek badirela onartzeak laguntzen du ulertzen munduko hizkuntzetan zehar nolatan aurkitzen den azentua sarriago eremu prosodikoaren azken aurreko silaban, azkenekoan baino, adibidez. Trokeoaren [óo] aldeko joera nagusitzen da gorago aipaturiko hobespen gehienak elkarrekin gauzatuz gero (Hurch 1994: 221), eta hori hizkuntza batzuen paradigmaren eta edozein hizkuntzaren txertatze prosodikoan, maila sintagmatikoan islatu ohi da.

Orain artean hitzen azentuerak izan ditut hizpide adibideetan, nahiz eta esan behar dudana aipatutako joerak eta, oro har, edozein jatorritako erritmo-ereduek eremu prosodiko handiagoetarako ere balio dezaketela. Kontuan hartu behar da, hasteko, hizkuntza bakoitzak zein duen azentu-ereduak gauzatzeko eremu prosodikoa: batzuetan hitza izango da, beste batzuetan eremu handiagoa, etab. Esaldi-mailako azentuerez esan daiteke hatsarre erritmikoekin batera hizkuntzaren bestelako arlo gramatikalek ere badutela eragina (gogoratu gorago aurkeztutako morfoprosodia; ikus §9.2.1.3). Alor lexiko, morfosintaktiko, semantiko, pragmatiko-diskurtsiboek ere, beste hainbat eragileren artean, izan dezakete eragina kasuan kasuan ekoizten den erritmo-ereduetan, inguruneak eragindako erregistro hautuak edo hiztunaren bestelako ezaugarriek bezalaxe (ikus §4).

9.2.1.3. *Morfoprosodia*

Orain arteko ataletan aurkeztu bezala, lan honetan ulertzen dut, batetik, badirela hizketan muga eta joera prosodiko orokor batzuk erritmikoki hauteman eta ahoskatzen dugun horretan (§9.2.1.2 atalean aurkeztu berri ditudanak). Baina, era berean, ulertzen dut hizkuntzetan aurkitzen diren azentu-eredu guztiak ez direla beti prosodiak (hatsarre prosodikoek) gobernatuak; azentu nagusien kokapena ez dute beti baldintza prosodikoek (soilik) zehazten. Izan ere, hizkuntzaren alderdi gramatikalek funtzio gramatikalak betetzeko ere balia dezakete prosodia eta, zehatzago, azentuera (eredu-prosodikoak): “all parts of grammar may exploit the resources prosody offers for the expression of grammatical meaning and form” (Hurch 1994: 210). Hala, badira *azentuera finkodun* hizkuntzak, printzipio prosodikoen arabera antolatzen dutenak euren erritmoa. Frantsesa edo txekiera dira halakoak, unitate prosodikoaren azken eta lehen silaban kokatzen dutenak azentu nagusia, hurrenez hurren. Azentuera “libredun” hizkuntzen kasuan, berriz, ilunagoa da azentuaren nondik norakoa, eta bigarren talde horretako azentu-eredu batzuk ulertzeko proposatzen du Hurchek (1994, 1996) morfoprosodia, prosodiak morfologiarekin duen harremanean jarriz fokua: “Morphoprosody [...] refers to the situation where prosodic variation is connected to morphological processes. [...] By ‘prosodic’ I mean essentially all prosodic categories [...]. The term ‘morpho-’

here includes its widest range from ‘morpho’-lexical down to ‘morpho’-phonological” (Hurch 1994: 192).

Hainbat gertakari prosodikoren erabilera gramatikalizatua egin daiteke —lotura konbentzionalean gertakari prosodiko batek ezaugarri morfologikoren baten berri emanez—, edo txandakatze prosodikoek morfologiak gobernatutako murriztapenak izan ditzakete; esate baterako, azentu nagusiaren kokapena kategoria morfologiko baten arabera (erroa, kasu) zehaztuz (Hurch 1996). Euskaraz, hizkera batzuetan gramatikak gobernatzen ditu erritmo-eredu (azentuera) batzuk (ikus §9.2.1.4.3 xehetasun gehiagorako). Zegamako hizkeran, izen deklinabidearen paradigman, honakoa aurki dezakegu, adibidez:

20. taula: *ardi* izenaren deklinabide paradigma, Zegamako hizkeran³⁰⁷ (Amundarain Arana 1990 *apud* Hurch 1996)

	Singularra	Plurala
Absolutiboa	<i>ardíe</i>	<i>árdik</i>
Ergatiboa	<i>ardík</i>	<i>árdik</i>
Datiboa	<i>ardíri</i>	<i>árdi:</i>
Genitiboa	<i>ardín</i>	<i>árdin</i>
Asoziatiboa	<i>ardíkin</i>	<i>árdikin</i>
Destinatiboa	<i>ardíntzat</i>	<i>árdintzat</i>

Taulan ikus daitekeenez, *-i* edo beste bokal batean amaitzen diren eta bi silabako oinarria duten izenen inflexio mugatu singularraren eta pluralaren bereizgarri sistematikoa azentu-egiturak emana da hizkera honetan (Hurch 1994: 196).

Hizketaren alderdi prosodikoak alderdi segmentalarekin duen elkarreraginaren ondorioz ere sor daitezke kategoria gramatikalaren berri ematen duten azentuerak, ondorio gisa. Zubereran aurki ditzakegu halako adibideak, §2.4.3 atalean aurreratu bezala. Joera prosodiko nagusia hitzaren azken aurreko silaba azentudun gauzatzea izanik, *alhába* (mugagabea) eta *alhabá* (mugatua) gisako formak aurki ditzakegu aurrez-aurre. Ondorioa forma mugatuan kategoria morfologikoa adierazten duen azentuera izan arren, sakonean bilakabide fonologikoen ondorioa da: *alhaba* erro mugagabeari *-a* determinatzailea gehitu (*alhabaa*) eta silaba-katea zubereran ohikoa den azentu-egituran txertatu ondoren (*alhabáa*), hitz azkeneko bokal elkarketa murriztu eta bokal azentugabearen kenketa gertatzen da, gorago aurkeztutako *alhabá* forma emanez emaitza gisa (Hurch 1994: 198; Oñederra 2002a: 504-505).

307 Hurchek (1994) aurkezten ditu taulan jasotako euskarazko datuak. Jatorriz Amundarain Aranaren (1990) lanetik hartuak dira.

Azentuera morfoprosodikoa hizkuntza bateko joera prosodiko nagusietatik aldendu egiten da, beraz, eredu markatu esanguratsu bat adieraziz. Bere forma idealean joera prosodikoen ezeztapena litzateke: “morpho(phono)logical accentuation is not simply ignoring prosody but it is, in its ideal form, a negation of prosody, hence, morpho(phono)logical accentuation creates accent locations which, in its ideal case, indicate morphologically-marked behaviour or categories” (Hurch 1996: 74).

Erritmo-ereduen ulerkera teorikoa azalduta, euskaraz aurkitzen ditugun azentuera nagusiak aletzen ahalegindu naiz jarraian.

9.2.1.4. *Euskaraz baliatzen diren azentuen izaeraz eta azentu-eredu orokorrez*

Euskararen fonologian gai korapilatsua suertatzen da azentua. Mitxelenak (Michelena [1961] 1990: 379; [1957-1958] 2011) jasotzen duenez, euskaraz esan izan da ez dela azenturik. Zuberera aipatzen da beti gainerako hizkerekiko aldentuta, baliatzen duen erritmo-eredu erregularra dela eta —hitzen azken aurreko silaban kokatuz azentua—. Hizkera gehienetan egiteko “bereizlerik” —morfoprosodikorik, Hurchen (1994, 1996) terminoetan— ez duenez apenas, gramatika askotan ez da aipatu ere izan. Hala ere, esan daiteke euskal hizkeren azentuerak ez direla hatsarre prosodiko hutsen arabera soilik antolatzen, ez baitira zeharo erregularrak (Oñederra 1998: 441; ikus Hualde 1997, esate baterako).

Hizkeren artean zein hizketan, hiltun bakarrarengan, aurki daitekeen aldakortasuna medio, euskaraz azentua kokagunea(k) —azentu-ereduak— zein d(ir)en eta euskararen sistema fonologikoaren baitan azentua tokia zein den eztabaidagai da gaurdaino³⁰⁸. Horrekin batera, euskal azentu(ar)en gauzatze fonetikoa kasu askotan oso nabarmena ez izateak zein aldakorra izateak ere zaildu egiten du euskarazko azentu(ar)en inguruko ezagutza eta ulerkera sendoa.

Hizkuntzatik hizkuntzara —eta hizkeratik hizkerara, erregistroaren arabera, etab.— alda daiteke, besteak beste (1) azentu-eredua ezartzeko eremu prosodikoa, (2) azentu nagusi zein bigarrenkariaren kokapena (azentu-eredua), (3) azentu-ereduen gobernariak —prosodia edo morfologia izan daitezke, kasu—, (4) azentua gauzatze fonetikoa edo (5) azentua eragina segmentu katean eta silaba-egituraren antolakuntzan. Aipaturiko alorretan eginiko “hautu”

308 Ez da aztergai berria ondokoa, gaur egun ere euskararen azentuerak osotasun baten baitan ulertzeko ikerketetan sakontzea beharrezkoa izan arren. Larramendiren (1729), Gavel-en (1921), Navarro Tomás-en (1923, 1925), Larrasquet-en (1927), Azkue-ren (1931) —Azkuek azentua inguruan esandakoak bildu ditu, besteak beste, Elordietak (2001)—, Altube-ren (1932) edo Lafon-en (1935) azentua inguruko deskribapen eta irakurketa teorikoak zein oharrak aipa daitezke aitzindari gisa, beste batzuen artean. Euskal azentua inguruan eginiko lan aitzindarien bibliografia sakonagorako, ikus Txillardegik (1984: 423-426) eskainitakoa. Oro har azentua eta intonazioaz euskararen eremuan egin diren lanen berrikuspen berriagorako, ikus Elordietak (2011) edo Egurtzegi eta Elordietak (2023) laneko sarrera.

bakoitzak hizkuntza baten sistema fonologikoa eta hizketaren erritmo-antolakuntza zehaztuko ditu, beste osagai batzuekin batera (ikus §3.4).

Euskaraz ari garela ezin da azentu-eredu orokor bakarraz hitz egin. Euskal hizkeretan aipaturiko arloen araberrako aldakortasuna aurki daiteke eta, jarraian, euskararen azentuerak puntu horien arabera kokatzen ahalegindu naiz, euskaraz azentuak duen izaeraz hausnartuz. Horretarako, Mitxelenaren (Michelena [1957-1958] 2011; [1961] 1990; [1976] 2011) eta Hualderen (1997) lan panoramiko(ago)ak baliatuko ditut batez ere, eta baita Elordietaren eta Gaminderen beste hainbat lan zehatzago ere³⁰⁹. Deskribapenaren ondorengo irakurketa teoriko eta gogoetarako, Jauregiren (2004, 2007, 2011), Oñederraren (1998, 2015; Oñederra et al. 2015) eta Hurchen (1988c) lanez baliatu naiz batez ere³¹⁰.

9.2.1.4.1. Azentu-eredua antolatzeke eremu prosodikoak

Euskaraz, azentua gauzatzen den eremu prosodikoa ez da bera hizkera guztietan. Ekialdeko hizkerei³¹¹ begiraturaz gero, hitza edo erroa da azentu-ereduaren eremu ohiko (Michelena [1961] 1990: 381; Hualde 1997: 73-97). Hizkerotan hitzek buruaskitasun prosodiko handiagoa dute azentuaren eremua hitzari lotua izanik, erdialdeko hizkerekiko kontrastean³¹². Zubereraz: *jákin*, *ápho*, *alhárgün*, *obligazióne*, *bezalakóxe*, etab. (Hualde 1997: 75).

Ematen duenez, antolakuntza prosodikorako eremua zabaldu egiten da ekialdetik erdialderantz hurbildu ahala: Lapurdi eta Nafarroa Behereko hizkeretan badirudi azentua hitza baino eremu prosodiko handiagoetan antolatzen dela, eta erdialdeko zein mendebaldeko hizkera

309 2011ra arte euskal herri hizkerez eginiko lanen erreferentzietarako, ikus Elordietak (2011: 393) jasotako lanak.

310 Ez dut hizkera bakoitzaren edo, zabalago, euskararen azentuaren deskribapen xeherik egin, ez eta euskararen azentu-sistemak ulertzeko proposamenik ere, hori beharrezkoa litzatekeen arren. Azpi-atal honen helburua da euskaraz irristakor suertatzen den azentuaz oro har dakiguna modu orokorrean jasotzea, gerora ikuspegi tipologikotik euskarari begiratzean eta bertsoak aztertzean hainbat ezaugarri kontuan hartu ahal izateko.

Zailtasun terminologikoekin batera, hizkerak nik neuk eta prosodiaz dudak ikuspegitik aztertu ez izanak dakartzan zailtasunekin egin dut topo: ikerlari bakoitzaren ikuskerak datu-bilketa eta horien interpretazioa baldintzatzen dituen heinean, hainbatetan ez daude aztertutik edo jasorik azentuaz lan honetan hartzen dudak ikuspegitik gogoeta sendoagoa egiteko beharko nituzkeen hainbat alderdi. Esaterako, nire ustez funtsezkoa da euskaraz hizkera guztietan azentuari lotutako gertakariak esaldi-mailako ikuspegitik ere aztertzea, hitzetik harago. Sarri, ordea, hitz mailara mugatzen dira eginiko lanak eta horrek azentuerez izan dezakegun ikuspegia eta ulerkera mugatzen du.

311 Ekialdeko hizkera izendatzen ditu Hualdek (1997) Zuberoa eta Erronkariko hizkerak, eta baita Zaraitzu ibarretik Baztan eta Ultzama ingururaino doan eremuko hizkera gehienak ere, haien arteko aldeak alde.

312 Mitxelenak (Michelena [1961] 1990) aurrez aurre jartzen ditu azentua ezartzeko eremuaren auzian ekialdeko eta erdialdeko hizkerak. Kontuan hartu behar da bere azken helburua aitzin-euskararentzako azentu-eredua berreraikitzea dela, eta berak ekialdeko hizkeretan kokatzen duela sistema fonologiko zaharrena. Gertakari fonologikoei erreparatuta hitzaren eremua esanguratsua dela zehazten du, segmentuen jokabidea ez baita berbera hitz barrenean edo hitz ertzean. Horrekin batera gaur egungo euskararen atzizki diren osagaien arteko harremana denboran atzera eginda fonologikoki urrunagoa zela dio, artikulua adibidetzat hartuta. Egungo artikulua erakusleetatik eratorritzen dela proposatzen du (ikus gerora garatutako Manterolaren [2015] lana artikularen jatorriaz). Hala, aitzin-euskaraz hitzak buruaskitasun prosodiko handiagoa zuela ondorioztatuta, ekialdeko hizkeren azentu-sistema hartzen du bere berreraiketaren oinarri, zaharragoa dela iritzita, hitzek bertan duten autonomia handiagoa dela eta.

askotan esaldia —sintagmaren zentzuan, batzuetan; beste batzuetan perpausarenean— hartu behar da ezinbesteko erreferentziazko unitate gisa^{313 314}. Lekeitioko hizkeran, esate baterako: *gure seme nagosidxák ein dau*³¹⁵ (Elordieta 2011: 401).

Mitxelenak (Michelena [1961] 1990: 380-381) zehazten du erdialdeko hizkeretan —berak *guipuzcoano* izendatzen dituenetan— hitzek ez dutela beregaintasun prosodikorik. Azentuaren indar txikia dela eta, etenak dira unitate prosodikoetan hitzak eta hitz taldeak bereizi ohi dituztenak, bere arabera. Martineten esanetan oinarrituta, Mitxelenak zehazten du hizkerotan silabaren ondoren esaldia dela “hurrengo” unitate prosodiko autonomoa: “prácticamente es la sílaba la única realidad fonética mayor que el fonema y menor que la frase”³¹⁶ (Martinet 1955: 343; Mitxelenaren itzulpena). Euskararen morfologia eranslea aipatzen du horren argudio gisa, zehaztuz gutxitan datozela bat hitz erroa eta eremu prosodikoaren amaiera. Navarro Tomás-ek (1925: 645) *Pronunciación guipuzcoana* lanean aztertutako Zaldibiako ahoskeraz ere antzeko ondorioa ateratzen du: “En la frase, la acentuación de cada palabra se acomoda a la estructura prosódica del conjunto”.

Oñederrak (2015: 496) euskararen antolakuntza prosodikoaz ari dela zentzu zabalagoan —ez hizkera jakin batez—, “sintagmakako antolakuntza” iradokitzen du, oso luzeak diren esaldietan behintzat. Aipagai dugun gertakariak antolakuntza tipologiko jakina uzten du agerian³¹⁷ (ikus §3.4 eta §3.5).

9.2.1.4.2. Azentu-eredu orokorrak

Azentu nagusiaren kokapena (ere) ez da berbera euskal hizkeretako azentu-eredu orokorretan³¹⁸. Ekialdeko hizkeretako azentu-joera orokorra da azentu nagusia hitz prosodikoaren

313 Hualdek (1997) euskararen azentuaren inguruko lana hitzen —zentzu zabalean ulertuta— eremuari erreparatuta egiten du nagusiki eta hainbat euskal hizkerez aritzeko esaldi mailako azterketaren beharra mahai-gaineratzen du, batez ere Lapurdi eta Nafarroa Behereko zein hortik mendebalera dauden hizkeren azentuaren kasuan. Etxeberriak (1998: 430) zein Elordietak (2011) hizkera guztietan hitzetik haragoko eremu zabalagoak aztertze beharra azpimarratzen dute. Hizkera askotan esaldi mailan hitzen azentuera “lausotzea” bera esanguratsua izan daiteke sistema fonologikoan eta hizkuntzaren antolakuntza erritmikoan azentuak duen tokia hobeto ezagutzeko.

314 Azentuaren gauzatze eremuen mapa batzuetarako, ikus Aurrekoetxea et al (2011).

315 Elordietaren lanean jasotako adibidean azentu nagusia bakarrik dago adierazita (jaso dudan bezala); pentsatzekoa da silaba katean azentu bigarrenkariak ere gauzatzen dituztela hitzunez.

316 Aipuan esanguratsua da Martinetek silabari ematen dion garrantzia, segmentuen eta esaldiaren arteko ezinbesteko zubi gisa kokatuz erdialdeko hizkeretan.

317 Bertsogintzaz egindako lanetan silabaz gain “hitz andanak” proposatzen dira neurria egituratzen duen osagaitzat (Michelena [1977] 2011); hitz taldeak, uler liteke. Altunak (1979) ere unitate melodikoa (*unidad melódica*) eta talde fonikoa (*grupo fónico*) ditu hizpide “hitz andanei” loturik, Navarro Tomás-i (1939) jarriki. §10.2.2. atalean sakondu dut honetan, baina hizkuntzaren antolakuntza prosodikoaren eta metrikaren arteko lotura interesgarria izan daiteke aipagai dugun hau (ikus De Sisto-ren [2020] proposamena, nagusiki).

318 Jarraian hainbat hizkeraren azentu-eredu orokorraren berri emango dut. Horrek ez du esan nahi, ordea, aipaturiko hizkeretan ez dagoela bestelako eredurik, edo azentu-eredua hautatzeko baldintza bakarria eremuaren araberako silaba-kokapenean dagoela. Xehetasunetarako, jo bereziki Hualderen (1997) lanera, edo kasuan kasuan aipatutako erreferentzietara.

azken aurreko silaban kokatzea (ooóo), Hurchek (1994, 1996) proposatutako hobespentan joera trokaikoarena eta, hein batean, ertzaldekotasanarena betez, besteak beste. Txillardegik (1984: 17) Zuberoako eta Nafarroa Behereko ekialdeko hizkerak kokatzen ditu multzo honetan, erronkariarekin batera, eta baita Nafarroa hegoaldeko hainbat hizkera ere. Mitxelenak (Michelena 1972) eta Hualdek (1997) ere Zuberoako eta Erronkariko toki hizkerak kokatzen dituzte aipaturiko joera orokorraren baitan³¹⁹ —azentu nagusia hitzaren azken aurreko silaban kokatzeko joera duten hizkera gisa—, hizkeren arteko aldeak badauden arren (silaben kantitatea tratatzeko moduari dagokionean, esate baterako; xehetasunetarako, ikus Hualde 1997: 73-97). Zaraitzu ibarretik Baztan eta Ultzama ingururaino doan eremuko hizkera gehienak ere joera orokor horrekin lotzen ditu Hualdek (1997: 99), baita Lapurdi eta Nafarroa Behereko hizkerak ere, hitz solteak ahoskatzean behintzat.

Bizkaia hego-mendebaldean eta Gipuzkoa mendebaldean ere ekialdeko azentu-eredu orokorraren joerarekin bat egiten duten hizkerak aurki daitezke, aldeak alde; Bergaran eta Antzuolan, esate baterako (Hualde 1997: 150-158). Hala ere, aipaturiko toki hizkera horietan eremu prosodikoaren hasierako ertzetik gertu kokatzen diren azentuerak ere gauzatzen dira hitz konkretu, konposatuetan eta beste kasu batzuetan. Zeberion eta Arratian ere azentua talde prosodikoaren bukaerako ertzean ezartzeko joera dago, azken aurreko silaban sarri, baina eremu prosodiko gisa esaldi fonologikoak duen garrantzia nabarmendu behar da kasu honetan; hitzak ez du beregaintasunik, ekialdeko hizkerekiko kontrastean (Hualde 1997: 167-172). Euskara batua ahoskatzeko “prosodia gaztea” edo berria deiturikoa ahoskatzeko hiztun batzuek duten modua ere azentu-eredu honetatik gertu dagoela dirudi³²⁰: *Joatén bagára kótxez?* (Oñederra 1998: 440).

Erdialdeko hizkeren joera nagusia da azentua eremu prosodikoaren ekinetik hasita bigarren silaban kokatzea³²¹. Arantzako hizkeran, esaterako: *besúa* ‘besoa’, *itxéra* ‘etxera’, *txistúlaja* ‘txistularia’, *alábari*, *gizónan itxí da*, etab. Txillardegik (1984: 16-17) Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa iparraldea eta Nafarroa Behereko mendebaldeko hizkera asko kokatzen ditu bertan, bakoitza bere “azpi-multzoan”. Hualdek (1997) joera hau Gipuzkoako eremurik handienean, Nafarroa mendebaldean (Bidasoa bailaran) eta Bizkaiko alderdi batzuetako hizkeretan kokatzen du³²². Era berean, euskara batuarekin sarri baliatzen den azentuera dela dio. Euskara batuan egitean, beren hizkerako azentu-ereduak baliatzen dituzte euskara H1 duten hiztun askok. Hori sarri erdialdeko hizkeretako hiztunek egiten dutela dio Hualdek (1997: 142). Ordea hizkera euskara

319 Mitxelenaren azentu “tipo”-etan, II.a litzateke ekialdeko hizkerena (Michelena [1972] 2011).

320 Prosodia “gaztea” deiturikoaren azentu-ereduaren zergatia ez dago garbi. Trokeoranzko joera euskal hizkera batzuetan lekukotzen da, eta munduan zehar oso ohikoa den eredu da (gogoratu Huchen hobespen prosodikoak; ikus §9.2.1.2). Gaztelaniaren eredu nagusia ere halakoxea da (Oñederra 1998: 446-447).

321 Mitxelenaren azentu “tipo”-etan IV.a litzateke eredu hau (Michelena [1972] 2011).

322 Ñabardurak ñabardura: ikus Hualde (1997) eta Elordieta (2011: 395-396).

batutik urrunago duten —edo hala sumatzen duten— hiztunen kasuan, sarri azentu-sistema aldatzen dute, askotan erdialdeko azentu-sistema baliatuz euskara baturako. Hitzun berrien kasuan ere, badirudi erdialdeko azentu-eredu orokorra baliatzen dutela “erdialdeko eremuko” hiztun berri askok³²³.

Nafarroa Garaian aurkitzen diren hego-mendebaldeko hizkerak (Sakana, Imotz eta Basaburuakoak) erdialdeko sistemarekin lotzen ditu Hualdek (1997: 140-141), sistema zeharo bat ez dato-rrera aitortu arren. Hitzaren eremuan oinarrিতuta, azentua hitz hasieran edota bukaeran gauzatzen dela zehazten du³²⁴, nahiz eta eremu hasierako ertzetik hasita bigarren silaban ere gauza daitekeen azentua hizkerotan, erdialdeko hizkeren gisan. Urolaldean (Azkoitia eta inguruetan) eremu prosodi-koaren ekinetik hasita hirugarren silaba gauzatzen da azentudun joera nagusi gisa, Hualderen (1997: 158-167) arabera³²⁵.

Mendebaldeko hizkeren artean Bizkaiko kostaldeko hainbat herri hizkeratan (Gernikaldean, besteak beste) jaso den garaiera-azentu sistema aipatu behar da, azkenik. Izenak berak adierazi be-zala, hizkera hauen ezaugarri nabarmenatarikoa da garaiera baliatzen dela nagusiki azentu-ereduak gauzatzeko³²⁶; doinu behearakada, zehazki (ikus Hualde 1997: 173-221 eta Elordietan 2011: 406-409 laburpen batzuetarako)³²⁷.

9.2.1.4.3. Azentu-ereduak zein alorrek kudeatzen dituen

§9.2.1.3 atalean aipatu dut, Hurchen (1994, 1996) proposamenean, azentu-ereduak hatsarre prosodikoek egituratzeaz gain, posible dela gramatikaren bestelako alorrek gobernatzea. Hala, prosodiak zehaztutako eredu orokorrekin kontrastea eginez —formarik idealenean—, egiteko gramatikalak dituen edo ezaugarri gramatikalak adierazten dituzten bestelako azentu-ereduak ere egituratzen dira hizkuntza eta hizkera batzuetan.

Euskaraz, hizkera batzuetan hatsarre fonologikoek “soilik” zehazten dituzte azentuerak. Ematen duenez, hala da Zaraitzu ibarretik Baztan eta Ultzama ingururaino doan eremuko hizkeretan

323 Hualdek (1997: 142) jasotzen duenez, sarri euskara baturako erdialdeko azentu-eredua nagusitzearen arrazoa irrati-telebistetako esatariek emandako ereduaren ondorioa (ere) izan daiteke, Gorka Elordietaren arabera.

324 “Bi azentuak, hasierakoa eta bukaerakoa, maila berean egon daitezke, *álabá*; lehendabizikoa bigarrena baino prominenteagoa izan daiteke, *álabà*; edo alderantziz, *àlabá*. Bi azentuetarik bat bakarrik entzun daiteke gainera” (Hualde 1997: 141). Aipu honek gogoeta eta lanketa teorikoa eskatzen duela esango nuke. Etorkizuneko ikergai interesgarria litzateke eremuotako hizkeren azterketan sakontzea. Ikus, besteak beste, gerora eginiko Erdoziaren (2000) lana Sakanako azentueraz.

325 Hualdek (1997: 149) berak aitortzen du tipologikoki arraroa dela eredu hori. Aztertzea litzateke, besteak beste, esaldi mailan nola egituratzen diren azentuerak.

326 Bizkaiko kostaldeko hizkerari lotuta Goizuetako hizkera aipatu behar da. Bertan azentuaren kokapena eta doinu gorabeherak baliatzen direla dirudi bereizkuntza lexikoetarako (ikus, adibidez, Hualde, Lujanbio eta Torreira 2008; Elordietan 2011: 402-403 iruzkindua).

327 Azentu-ereduen erabilera geografiko zehatzagorako, ikus Aurrekoetxea et aliiren (2011) mapak.

(Hualde 1997:99). Beste hizkera askotan, ordea, azentu-ereduek batzuetan egiteko morfologikoa betetzen dutela proposatu da.

Bildutako kasuak izen-morfologiari lotutakoak dira, nagusiki (ikus, esaterako, Gaminde et al 1998, Gatikako hizkeraz). Zubereraz, adibidez, izen batzuen forma mugagabea eta mugatua bereizteko baliatzen da azentu-eredua, lehenago ere aurkeztu bezala: *alhába* – *alhabá*. Azentuera orokor gisa erdialdeko eredua duten hizkera batzuetan —azentu nagusia eremu prosodikoaren ekinetik hasita bigarren silaban kokatzen duten hizkera batzuetan— ere azentueren erabilera morfologikoa aurki daiteke, baita Gipuzkoa mendebaldeko hizkera batzuetan (Bergaran eta Antzuolan, adibidez), Urolaldean, Bizkaiko kostaldeko hizkeretan eta Nafarroa Garaiko hegomendebaldeko hizkera batzuetan ere (Hurch 1994, Hualde 1997, Oñederra 2002. Singularren eta pluralaren azentu bidezko bereizkera edo bereizketa lexikorako azentua baliatzen duten hizkeren mapa batzuetarako, ikus Aurrekoetxea et aliiren [2011] mapak). Horien adibidetzat aipa daiteke Zegamako hizkera (*árdik* – *ardík*) (xehetasun gehiagorako, ikus §3.1.2.1).

Beste kasu batzuetan, azentu-eredua ezartzeko eremua morfologikoa dela dirudi: hainbat hizkeretan ematen du deklinabideko atzizki batzuk tartean direnean azentua gauzatzeko eremua erroa dela, hitz prosodikoa edo esaldi fonologikoa beharrea³²⁸. Esate baterako, Igorreko hizkeran, hiru silabako hitzetan azentu nagusia erroaren azken silaban ezartzen da deklinatzean: *alabéa*, *alabéari*, *alabéan*, *alabéagas*, etab. (Iglesias et al. 2017: 74. Ikus Iglesias 2008, 2014 ere). Adibide honek berak erakusten duenez, bestelako baldintza fonologikoak ere sartzen dira tartean; hiru silaba edo gehiagoko hitza izatea, kasu honetan.

Hitz ‘markatu’ eta ‘markatugabeak’ bereiziz, Hualdek zehazten du Bizkaiko kostaldeko garaiera-azentudun hizkeretan “hitz batzuek azentu lexikoa daramaten bitartean, hitz gehienek esaldi mailako azentua baizik ez dute[la] jasotzen” (Hualde 1997: 220). Irurtzunek (2004) Errenteriako hizkerarako ere proposatzen du hitz markatu-markatugabe bereizketa hau. Mitxelenaren Errenteriako datuetatik abiatuta (Etxenike 1988) hizkera hori gaur egun Bizkaiko kostaldean lekukotzen diren garaiera-azentudun hizkerekin lotzen du, denboran atzera eginda garaieran oinarritutako azentu sistema Gipuzkoan zehar zabalduago zegoela iradokiz (hizkeren arteko harremana ulertzeko proposatutako *continuumez*, ikus Hualde et al. 2002 zein Jauregi 2011).

Hitzak lexikoki bereizteko ere azentu-eredua baliatzen da kasu batzuetan. Gatikako euskaran, esaterako: *arté* (zuhaitza) eta *árte* (bitarte); *txistú* (ttua) eta *txistu* (musika tresna); *ausí* (hautsi) eta *áusi* (ahausi) (Gaminde et al. 1998: 81)³²⁹.

328 Erronkarieraz azentua ezartzeko eremu nagusia hitzaren erroa zela proposatzen du Hualdek (1997: 89).

329 Baliabide hau eremu zabalagoan ere erabiltzen da: *eltzéa* – (*h*)*éltzea*, *iltzéa* – (*h*)*íltzea*, *basóa* – *básóa*, etab. (Jauregiri zor dizkiot adibideak).

Baldintza morfologikoez gain, azentuaz aparteko baldintza fonologikoez ere izan dezakete eraginik azentu ereduak osatzerako orduan (Hurch 1994). Hizkera batzuetan ematen du silabaren kantitateak —silaba arin edo astuna den— eragina (izan) duela azentuaren kokapenean —azentu-ereduaren hautaketan—; erronkarieraz, esate baterako, “hiru silaba edo gehiagoko oinarriekin, azken silaba astuna bada, azentu oxitonoa dugu” (Hualde 1997: 87): *alargún, txokorrakín, arratój*, etab. Alor fonologiko eta morfologikoaz gain, atal honetan ez dut garatuko prosodia kudeatu edo baldintzatzen duen beste alorrik —pragmatika, semantika, hizketa-maila eta bestelakoen eraginik— alderdi horiek ere maila desberdinetan azentu-ereduen aldakortasunean eragina duten arren; ikus horretarako §4).

9.2.1.4.4. Azentuen aldagai akustikoak

§3.2 atalean aurkeztu bezala, hainbat izan daitezke azentuaren ordain akustiko nagusiak: garaiera, iraupena eta intentsitatea, batzuetan zail den arren aldagai fonetikoetatik soilik azentuerak ondorioztatzea. Hizketaren alor segmentalean ere izan dezake eragina, eta aldagaiak elkarreraginean daude. Hizkuntzatik hizkuntzara aldatu egiten dira azentuaren ezaugarriok, baita hizkeratik hizkerara ere.

Euskaraz, ekialdeko hizkerari dagokienez, bokalen nolakotasunari erreparatuta esan liteke zubererako bokalen gauzatzeak agertzen duela azentuen arabera aldakortasunik handiena, erdialdeko beste hizkera batzuekin alderatuta, behintzat —Zaldibiako bokalekin (Etxeberria 1990), besteak beste—. Azentu-aldiko hizkuntzetan ohikoa da luzera (iraupena) ere azentuaren aldagai fonetiko izatea, eta ez da halakorik jasotzen zubereraz Salaberriaren (1998) azterketan. Azentuaren eragina garaieran eta energia erlatiboan jasotzen du batez ere, bokalen nolakotasunean duen eraginarekin batera (Salaberria 1998³³⁰). Iraupena eta intentsitatea Goizuetako hizkeran dira aldagai esanguratsuak garaierarekin batera, ematen duenez (Hualde et al. 2008; Hualde eta Beristain 2018).

Erdialdeko hizkeretako ahoskeraz Navarro Tomásék (1925) egindako lana —*Pronunciación guipuzcoana*— aipatu behar da, azentuaren alderdi akustikoak aztertzen baititu. Ez du alde nabarmenik topatzen silaba azentudun eta azentugabeen artean ez garaierari ez iraupenari dagokionean, azentuari lotuta. Mitxelenak (Michelena [1961] 1990) azentuaren esangura fonologiko urria eta gauzatze fonetiko sotila kokatzen du Bizkaiko, Gipuzkoako eta Lapurdiko lurraldeetan egiten diren hizkeretan, haien arteko aldeak alde. Erdialdeko hizkerez ari dela, Salaburuk (1984) Baztango euskaraz eta Etxeberriak (1990) Zaldibiako bokalez egindako azterketa

330 Zubererako bokalez egindako azterketen aurrekariak ezagutzeko, ikus Salaberria (1998: 29-122; 1. kapitulua).

akustikoak aipatu behar dira, besteak beste. Biek ere azentudun eta azentugabeko bokalen arteko aldea txikia dela ondorioztatzen dute³³¹.

Azpeitiko aldagai akustikoak aztertuta, azentuaren ordain nagusia garaiera dela azaltzen dute Hualdek eta Beristainek (2017, 2018), intentsitatea eta iraupena ere ageri diren arren, neurri mugatuan islatzen direla baitirudi. Bizkaiko kosta inguruko hizkeretako azentuen aldagai akustikoak aztertuta, hemen ere garaiera da azentuari lotuta nabarmentzen den aldagai nagusia edo nagusienetako bat (ikus, esaterako, Gatika, Urduliz eta Bermeoko hizkerez, Gaminde 1992, 1993; Lekeitiokoaz, Elordieta eta Hualde 2003), baita Bizkaia hegoalderagoko hizkera batzuetan ere (ikus Igorrekkoa, adibidez; Iglesias et al. 2017).

Gutxiegia dakigu oraindik ere herri hizkera askotako azentuen ordain akustikoez —eta azentuerez, oro har— ondorio sakonak atera ahal izateko euskarari buruz, eta kontuan hartzekoa da azterketa askotan hitz mailako eremua soilik hartu dela kontuan, nahiz eta sarri esaldi baten testuinguruan gauzatu. Edonola ere, joera orokor gisa aipa daiteke garaierak azentua adierazteko duen nagusitasuna kasu askotan gainerako aldagai akustikoekiko.

9.2.1.4.5. Azentuak eragindako bilakabide segmentalak

Azentuak bilakabide segmentaletan eta silaba-egituraren antolakuntzan duen eragina ez da bera hizkuntza guztietan, hainbatetan aurreratu dudan gisan. Euskaraz aldea dago hizkera batzuetatik besteetara. Erronkarieraz, zaraitzueraz eta “ekialdeko hizkeren” taldean sartzen diren beste zenbait hizkeratan azentuari lotutako —azentuak eragindako— bilakabide fonologiko segmentalak aurki daitezke. Erronkariko hizkeran, esaterako, azentugabeko (silaba-gunea osatzen duten) goiko eta erdiko bokalek silabagiletasuna galtzen dute hots katean beste bokal baten ondoan gauzatzen badira. Hala, (goranzko) diptongo moduan gauzatzen dira aipaturikoak: *men.di.a* → *mén.d[ja]*, *bu.ru.a* → *bú.r[ja]*, *as.to.a* → *ás.toa*, *se.me.a.* → *se.m[ja]*, etab. Bokal horiek ez dute, ordea, silabagiletasuna galtzen azentudun silaba osatzen badute, nahiz eta ondoan beste bokal bat gauzatu: *mé.a* ‘mehea’, *ló.a* ‘loa’, *bí.ar* ‘bihar’ —baina *b[já]r* ‘behar’—, etab. (Mitxelena [1954] 2011; Hualde 1997: 97). Azentuari loturiko silabagiletasunaren galera gertatzen zen erronkarieraz, aurkeztutako adibideek iradokitzen dutenez. Sinkopa ere aipa daiteke hizkera honetan, azentuari lotuta; *túpla* ‘tipula’, *kándra* ‘kandela’, *ábre* ‘abere’, etab. (Mitxelena [1976] 2011; sinkopadun formen bilakaera diakronikoaren proposamenetarako, ikus Michelena [1976] 1987: 254-255 eta Hualde 1997: 97-99).

331 Etxeberriak (1998: 429) aipatzen du Hernaezek eta berak (Hernaez eta Etxeberria 1991) eginiko “Zenbait euskal hitz homonimoren azterketa akustikoa” lan argitaragabea. Bertan “Gipuzkoako eta Bizkaiko unibertsitateko bi ikaslek” ahoskatutako esaldietan garaiera, iraupena eta intentsitatea neurtzen dituzte, balio akustikoetan alde txikiak daudela ondorioztatuz, gaztelania edo ingelesezko balioekin alderatuz gero, behintzat.

Erdialdeko hizkera batzuetan ere sinkopa ohiko gertakaria da, erdialdeko eremuaren baitan ekialderen kokatzen diren hizkeretan, bereziki (Bidasoa bailaran eta inguruetan, besteak beste). Arantzan, esate baterako, azentudun silaba ondorengo silaba atonoko bokala kendu egiten da: *eskópta* ‘eskopeta’, *eskóltik* ‘eskolatik’, *basértarra* ‘baserritarra’, etab. Sinkoparen ondorioz euskaraz horren ohikoak ez diren kontsonante taldeak ekoitz daitezke hizkera horretan, Hualdek (1997: 114-115) dioenez: *kártzko* ‘ekartzeko’, *ánktan* ‘hanketan’, *béstkuá* ‘bestakoa’, *eskóptkuá* ‘eskopetakoa’, etab. Gertakari hauek ulertzeko beharrezkoa da hizkuntzaren maila fonemikoa eta fonetikoa bereiztea, azalean —ekoizpen fonetikoan— halako kontsonante taldeak gauzatu arren, hiztunaren ahoskera-asmoetan ez baitago -ptk- gisako hots-kate bat bere horretan ahoskatzeko intentziorik³³².

Ukaezina eta kontuan hartu beharrezkoa da azentuak hizketaren alderdi segmentalean duen eragina Bidasoa bailaran, inguruko beste zenbait hizkeretan eta ekialderagoko aipatutako hizkeretan. Bestalde, gainerako hizkeretan ez da azentuaren horrenbesteko eraginik lekukotu.

Jauregik (2011) erritmoaren araberako ikuspegi tipologikotik euskal hizkeren arteko *continuum*aren arrastoak daudela proposatzen du, Mayerthalerren (1996) italierazko hizkeren azterketa proposamenean oinarrituta (ikus §3.4.3.10). Hiru eremu nagusi proposatzen ditu hizkeren artean: mendebaldeko eta erdialdeko eremua litzateke bat, Nafarroako hizkerek osatuko lukete bigarrena, eta ekialdeko hizkerek hirugarrena. Horretarako ondoko ezaugarriak hartzen ditu kontuan: (1) bokal unitateak, (2) bokal atonoen galerak (edo galerarik eza), (3) goranzko diptongoak (edo halako diptongorik eza), (4) sortzen diren kontsonante taldeak eta (5) azentua adierazteko moldeak (indar-azentua vs garaiera-azentua³³³)³³⁴.

Tresna bidezko kontsonante eta bokal tarteen iraupenak neurtuta ateratako datuetatik abiatuta, ikuspegi fonetikotik ere euskara silaba-aldiko polotik gertuago dagoela ondorioztatzen dute Gaminde et alii (2013), Robles-Puentek (2021) eta Jauregik (2021). Aipatutako azken lan horretan, esaterako, Ondarroako, Zaldibiako, Goizuetako eta Zuberoako (Altzai, Altzabeheiti eta Santa Grazi herrietako) hiztunen ekoizpenak aztertuta, lehen hiru hizkerek silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzei egozten zaizkien ezaugarriak agertzen dituzte, eta molde bereko neurketak egindako

332 Donegan eta Stampek (1978: 26) ederki azaltzen dute gertakaria ingelesa aztergai hartuta. Forma fonologiko bat —oinarrizko aurkezpeneko forma bat— onargarria da aldaketarik gabe silabatze onargarria ahalbidetzen badu. Ingelesezt, /*bnik/ konbinazio fonemikoa ez da onargarria, hasierako kontsonante taldea dela eta. Edonola ere, *beneath* hitzaren ahoskeren artean [bə'niθ] bezala aurki daiteke [bniθ] ere. Kontraesana dirudien gertakari hori ulertu ahal izateko ulertu behar da ingelesez [bniθ] jatorrizko /bə'niθ/ asmotik (asmo fonemikotik) abiatuta, hizketaren maila sintagmatikoan, gertatutako bilakabide ahultzaileen emaitza dela. *Eskoptkuá* gisako formak bide berean azal daitezke akaso, maila sintagmatikoan gertatutako *lenitio*en ondoriozko ahoskera gisa.

333 Ezaugarri zehatz horren inguruan, garaiera-azentudun eta indar-azentudun sistemak alderatuz, euskal hizkeren arteko *continuum*a proposatzen dute Hualde et alii (2002).

334 Maila fonologikoan aztertutakoaren neurketak egin dituzte Jauregik (2021), Robles-Puentek (2021) eta Gaminde et alii (2013), beste hainbat hizkuntzatan erritmoa neurtzeko proposatutako algoritmoak baliatuz (ikus §3.4.8).

frantsesa edo japoniera bezalako hizkuntzen inguruan kokatzen dira. Zuberera, ordea, sarri kokatzen da azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzen eremuan, azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzen neurriko murriztapenak jasaten ez dituen arren (ikus §3.4.8 xehetasun gehiagorako).

9.2.2. Azentu-ereduak eta euskara erritmoaren arabeko tipologia

9.2.2.1. Silaba azentudun eta azentugabeen arteko bereizkuntza

Aurrez ere esan bezala, azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan azentudun-azentugabe kontrastea markatu ohi da askotariko baliabide prosodikoen bidez. Silaba-aldiko hizkuntzetan, ordea, ez da azentuaren arabeko horren alde nabarmenik aurkitzen (Dauer 1987). Azentuaren eragina ez da prosodikoa bakarrik azentu-aldiko hizkuntzetan; ondorio segmentalak ere baditu, alofono gehiago eraginez, besteak beste. Silaba-aldiko hizkuntzetan, berriz, ez dira azentuak eragindako horrenbeste alofono izango (Dauer 1987: 449).

Euskarari dagokionez, §9.2.1.4.5 atalean egindako berrikuspena laburbilduz, hizkeren arteko aldeak aurki daitezke azentuak hots katean duen eraginean. Ekialdeko hizkerak dira indar-azentuaren eragin handiena ageri dutenak, askotariko sinkopa, aferesi eta apokopeen bitartez. Gainerako hizkeretan ere murrizketak gertatzen diren arren, esan daiteke ez direla horren nabarmenak (ikus Jauregi 2021 edo Robles-Puente 2021, tresna-bidezko azterketek eskaintzen dituzten emaitzetarako).

Silaba-egiturari erreparatuta (ikus §8.2.1), euskaraz murriztapenak gertatzean, bokalak kentzean —azentuaren eraginez zein bestelako arrazoiengatik— silaba osatzen zuten gainerako hotsak inguruko silabetan antolatzen dira. Ez dute, ingelesa bezalako azentu-aldiko hizkuntzetan gertatu bezala, kontsonante batzuek silabagiletasuna bereganatzen. Euskaraz kenketak gertatzean hots katea hatsarre silabikoen arabera antolatu ohi da normalean. Ekialdeko eta erdialdeko zein Nafarroako zenbait hizkeratan *túpla* ‘tipula’, *kándra* ‘kandela’, *kártzko* ‘ekartzeko’, *ánktan* ‘hanketan’ edo *eskóltik* ‘eskolatik’ gisako kenketan gertatzen dira, kontsonante taldeak sortuz edo handituz, baina beste askotan kenketen emaitzak ez du silaba-egitura konplexuagotzen. Horren adibide dira, besteak beste, §8 kapituluan corpusaren azterketatik jasotako kenketa kasuak.

9.2.2.2. Tempoazkartzeko modua (allegrostyle deiturikoa)

§3.4.3.3. atalean azaldu bezala, *tempoa* azentugabeko silaben murriztapen eta ezabatzearen bidez gauzatzen da joera nagusi gisa azentu-aldiko hizkuntzetan. Silaba-aldiko hizkuntzetan, ordea, badirudi silaba guztien konpresio proportzionalaren bidez lortzen dela hizketa-abiadura lastertzea

(Bertinetto 1977). Gertakaria azentudun eta azentugabeko silaben balio eta pisu erritmikotik uler daiteke beharbada: silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan azentuaren gauzatzeak eragin erlatiboki txikia izan ohi du bai maila prosodikoan bai segmentalean, eta silabek antzeko balio erritmikoa dute, ondorioz —segmentu kopuruaren edo bestelakoen arabera iraupena bezalakoak aldatu arren—. Hala, ulertzekoa da *tempo*a azkartzean silaba guztiak murriztea “modu proportzionalean”. Azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, ordea, azentudun silabek indar egituratzaile handia izan ohi dute, ezaugarri prosodikoez (garaiera, intentsitatea, iraupena) nabarmenduz eta inguruko silabetako segmentuak erakarriz, sarri. Horregatik, uler daiteke *tempo*a azkartzean silaba azentudun eta azentugabekoen hierarkia hori areagotzea, aipatutako joerak muturrerago eramanez.

9.2.2.3. *Silaba astunak azentudun?*

§3.4.3.6 atalean zehaztu bezala, silaba astunak azentudun izateko joera jaso da azentu-aldiko hizkuntzetan. Silaba-aldiko hizkuntzetan, ordea, ez da halako joerarik. Halaber, azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan azentudun silabak luzeagoak izan ohi dira. Silaba-aldiko hizkuntzetan, berriz, silaben kantitatea eta azentuerak ez daude elkarri horren loturik (Dauer 1987: 448).

Euskaraz, egindako berrikuspenaren arabera, ez dago loturarik kantitate silabikoaren eta azentuaren artean, joera nagusi gisa. Hala ere, ematen du silaben astuntasunak egitekoa (izan) duela azentu-ereduen hautaketan euskal hizkera batzuetan; erronkarieraz, esaterako.

9.2.2.4. *Azentuaren aldagai akustikoak, erritmo-ereduen gauzatze-eremuak eta azentuen kokapena*

§3.4.3.9 atalean jaso gisan, azentu lexikoa edo hitz mailako azentua izatea azentu-aldiko hizkuntzen ezaugarritzat hartu ohi da eta luzeraren, garaieraren, ozentasunaren eta segmentu kalitatearen elkarreragin konplexu baten bidez gauzatzen da akustikoki. Horren ondorioz, hots katea azentu-eredu aldakorragoetan antolatzen da. Silaba-aldiko hizkuntzei dagokienez, berriz, batzuek ez dute azentu lexikorik (frantsesak, esaterako). Kasu horietan, pentsatzekoa da hatsarre prosodiko eta, oro har, fonologikoek kudeatzen dituztela azentu-ereduak. Silaba-aldiranzko joera duten beste hizkuntza batzuetan, ordea, azentu-ereduek badute egiteko lexiko edo morfologikoa. Edonola ere, garaiera izan ohi da azentuaren adierazle nagusia sarri (japonieraz, kasu) (Dauer 1983: 58).

Ematen duenez, azentuak maiztasun handiagoz gauzatzen dira azentu-aldiko hizkuntzetan. Silaba-aldiko hizkuntzetan, ordea, azentutik azenturako tartea aldakorragoa (silaba kopuruz) eta handiagoa izaten da (Bertinetto 1977; Dauer 1983: 58). Azkenik, azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan hitzak, unitate prosodiko gisa, garrantzia izan ohi du erritmo antolakuntzan, askotariko ondorio segmental eta prosodikoren eremu izanik —erritmo-ereduen antolatze eremu izatea, adibidez—. Silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, silaba da funtsezko unitate, eta hortik gora hitza baino unitate prosodiko handiagoak nagusitu ohi dira sarri (eremu fonologikoa, esaterako) (Donegan eta Stampe 1983, 2002, 2004; Donegan 1993; Auer 1990; van Oostendorp 2000; Caro-Reina eta Sczepaniak 2014; taldekatze prosodikoaz, ikus §10 kapitulua).

Gaia euskarara ekarrita, §9.2.1.4.3 ataletan egindako berrikuspenetik ondoriozta daiteke hizkera askotan erritmo-ereduek egiteko morfologikoa izaten dutela, maiz izen-morfologiari loturik. Gertakaria nahiko mugatua dela dirudi. Azentuaren aldagai akustikoei dagokienez, hizkeren artean aldeak aurkitzen diren arren, denetan ageri den arloa garaierarena da, nahiz eta ikerketa batzuetan azentuak eragin akustiko txikia duela ondorioztatu. Azentu-ereduak gauzatzeko eremu nagusia aldakorra da hizkeraren arabera: ekialdeko hizkeretan hitzak garrantzi handiagoa hartzen duela dirudi. Hortik kanpo, erritmo-ereduak esaldi mailan antolatzen direla ematen du, nahiz eta kasuan kasuan hizkako azentuerak edo hitzen araberako aldakortasun erritmikoa aurki daitekeen.

Ezin da euskararen azentu-sistema hitz bakarrean laburbildu; azentu-sistemez hitz egin beharrean gaudela dirudi. Erdialde eta mendebaldeko hizkerak, salbuespenak salbuespen, silaba-aldiko polotik gertu daudela pentsa daiteke. Gainerako hizkeretan (Nafarroako zenbaitetan eta ekialdekoetan) azentuak indar handiagoa duela ematen du eta horrek ikerketa gehiagoren beharra uzten du agerian. Edonola ere, azentuari lotutako gertakariak azentu-aldikotzat hartutako beste hainbat hizkuntzarekin alderatuz gero, euskararen ezaugarriak (are, zubererarenak), silaba-aldiko polotik gertuago daude (Jauregi 2021: 273; ikus §3.4.8 atala).

9.2.3. Erritmo-ereduak eta bertsoen oinarri metrikoa

Hitz lautik bertsoetara etorrira, aurretik ere hainbatetan aipatu dut hizkuntzaren fonologiak hizkuntza horretan sortzen den egitura metrikoa baldintzatzen duela, hein batean bederen. Hizkuntzaren fonologiaren eta hizkuntza horretan garatutako egitura metrikoaren arteko lotura azpimarratu dute ikerlari askok. Erritmoaren araberako hizkuntza-tipologia lantzean, sarri hitz lauz aurkitu ezin diren erregulartasunak eta argudioak bilatu izan dira bertsoen antolakuntzaren oinarrietan (Abercrombie 1967; Donegan eta Stampe 1983; Bertinetto 1989; Lehiste 1990; etab.).

Bertsogintza hizkuntzaren erritmo antolakuntza —antolakuntza fonologikoa— agertzeari dagokionean hizkuntzaren adierazpide markatua, muturrera eramana dela ulertuz, hizkuntzaren erritmoa aztertzeke bide edo oinarri (erregular) egokia litzatekeela uste dute zenbaitek. Lehistek (1990) azaltzen duenez:

I believe that if one wants to study rhythm, one will do well to look where rhythm can be expected to be found—in the metric structure of poetry developed in a given language over the years. Patterns that may be imperfectly realized in prose may be manifested in a more regular fashion in poetry. The rhythmic structure of poetry may just represent what for the realization of segmental sounds has sometimes been called “maximally differentiated style”. This is the form of speech in which all oppositions are optimally manifested. I submit that for the suprasegmental system of a language, poetry represents that maximally differentiated style.

(Lehiste 1990: 123)

Hizkuntza batean sortutako bertsoen egitura metrikoan zein bertso horien gauzatzean hitz lauz horren argi gauzatzen ez diren ezaugarri eta ereduak aurkituko dira, beraz, muturrerago eramanez beste hizketa molde batzuetan neutraldu edo lausotzen diren joerak. Ikuskera horren arabera, hizkuntza batean garatutako sistema metrikoa hizkuntza horren sistema fonologikoaren erdigunean dauden osagaien isla litzateke.

Hizkuntza baten sistema fonologikoaren eta hizkuntza horretan garatutako metrikaren arteko harremana ez da, ordea, beti horren argia eta zuzena; eragin soziokulturala bezalako faktoreak kontuan hartzea funtsezkoa da. De Sistok (2020: 3) hizkuntza eta metrikaren artean harreman konplexuagoa proposatzen du. Bere esanetan, hizkuntza batean erabiltzen diren egitura metrikoak hizkuntzaren fonologiaren mugen baitan daude ezinbestean, hizkuntza jakin horretan egingarri izan behar baita sortuko den bertsoa; eskakizun metrikoak hizkuntza horretan betetzeko moduak izan behar baitira. Hala ere, ez dira beti —ez derrigor— sistema fonologikoaren erdigunean dauden ezaugarriarik emankorrenak islatu behar metrikaren oinarrietan (ikus §9.2.3.1).

9.2.3.1. *Hizkuntzen fonologiaren eta sistema metrikoen arteko loturak*

Hizkuntzaren eta neurriaren arteko harreman posibleak aipatuta, hizkuntzetan zer-nolako sistema metrikoak aurki daitezkeen aurkeztuko dut labur jarraian, ahal dela ezaugarri fonologikoen eta metrikoen arteko loturak marraztuz, euskarazko bertso-neurriak ikuspegi zabal horretan kokatzeko gero.


Hizkuntza jakinean baliatzen den eredu metrikoaren —edo eredu metrikoren baten— oinarria bat dator sarri hizkuntza horren erritmo antolakuntzan (prosodian) oinarritzkoen den osagaiarekin: silabarekin, morarekin edo azentuarekin³³⁵ (berrikuspen batzuetarako, ikus Sapir 1921: 228-230;

335 Tonuak eta intonazioak egitura metrikoetan izan dezaketen egitekoa ez dut landu ikerketa honetan, berrikuspenetan ageri den informazioaz harago. Gai horretan interesgarria litzateke txinera bezalako tonu hizkuntza batean gauzatzen den sistema metrikoa aztertzea, esaterako (ikus Frankel 1972 edo Chen 1979, besteak beste).

Jakobson [1960] 1987: 74 edo Lotz 1972, esate baterako). Unitate prosodiko horietatik abiatuta sortzen dira sarri eredu metrikoak (*metrical template* deiturikoak).

Hizkuntzaren fonologiari bete-betean lotutako sistema metrikoa izan ala ez, hainbat dira mora, silaba, azentua edo tonua oinarri hartuta egituratzen diren bertso-neurriak munduan zeharreko hizkuntzetan³³⁶. Sistema metrikoen sailkapena birformulatuz, ondoko eskema proposatzen du Fabbek (1997: 56-87), ondoren Arouik (2009: 11) osatua:

36. irudia: Sistema metrikoen oinarri prosodikoak (Aroui 2009: 11³³⁷).



Eskeman ikus daitekeenez, hizkuntzen sistema fonologikoen oinarrian dauden osagaiak (tonua, mora, silaba, azentua) egituratzen dituzte metrikak —aztertzea litzateke kasuan-kasuan hizkuntza bakoitzean zenbateko pisua duten neurria egituratzen duten elementu prosodikoek—. Oinarri gehienetan aurki daitezke eredu bidezko egiturak eta osagaiak zenbatzekoak: tonu konbinazio bidez, silaben kantitatearen arabera (moren arabera) edo azentudun-azentugabeko silaben konbinazioz osatutako ereduak aurki daitezke metrika batzuen oinarrian. Bestela, tonu jakinak, morak, azentuak edo silabak kontaktzen dituzten neurriak daude, labur esanda³³⁸.

Goian aurkeztutako irudian sistema metrikoen zein horiek baliatzen dituzten hizkuntzei kokapen bakar eta itxia eman arren, sistema metrikoen artean nolabaiteko kontinuuma dagoela

336 Nabarmendu beharrekoa da lan honetan oinarri prosodikodun neurri-sistemak aipagai ditudan arren, hizkuntzetan badirela oinarri prosodikorik ez duten sistema metrikoak; paralelismo sintaktiko edo semantikoan oinarritzen direnak, adibidez (hebraieraz aurki daitezke halakoak, besteak beste). Horiek ez ditut ikerketa honetan landu.

337 Nik ekarri dut euskarara.

338 Hainbat elementu konbinatzen dituzten neurri-sistemak ere aurki daitezke.

azaltzen du Arouik (2009: 14), hainbat elementutan oinarritutako neurriak ere posible direla, eta hizkuntza batean molde metriko bat baino gehiago ere aurki daitekeela, bai sinkronian, bai denboran zeharreko bilakaeran ere. Pentsatzekoa da hizkuntzaren unean-uneke fonologiak hizkuntza horretan erabiltzen diren metriekin duen harremana ere aldakorra dela.

Hizkuntza erromantzeen sistema fonologikoak eta egitura metrikoak aztertuz gero, esaterako, askotariko egoerak aurki daitezke Berpizkundeko bertso-neurrien oinarrietan (De Sisto 2020): frantsesez, hitz lauz bilakabide fonologiko gehienen eremua esaldi fonologikoa da eta ez du hitz mailako azenturik, esaldi mailakoa baizik. Horri loturik, frantses bertsoek metrika guztiz silabikoa ageri dute, *colon*³³⁹ bidezko taldekatzearen laguntzaz osatuz bertsoaren erritmoa. Italiara eta gaztelania aztertuz, berriz, hitz mailako azentudunak dira bi hizkuntzak eta euren metrika oinean ardatzen ez duten arren, bertsoetan nolabaiteko joera erritmiko *ianbikoak* (oó) agertzen dituzte batzuetan, silabikotasunarekin batera (De Sisto 2020: 74-75).

Orain arte aurkeztutako kasuetan esan daiteke hizkuntzen fonologiaren erdiguneko ezaugarriak eta antolakuntza metrikoa bat datozela, orokorrean. Katalanez, ordea, ohikoak dira hitz lauz azentuari loturiko gertakariak— bokal murriztapenak, esaterako—, baina halakoek ez dute inolako islarik ageri, dirudenez, Berpizkundeko bertsoen egitura metrikoan: silabikotasun “hutsean” eta *colon* mailako taldekatzean oinarritzen da katalanezko neurri-sistema, frantsesarena bezalaxe, frantsesaren eta katalanaren fonologiak alderatuz gero, desberdintasun nabarmenak aurki daitezkeen arren (De Sisto 2020: 76). Katalanarena bezalako azken kasu horiek hobeto ulertzeko proposatzen du De Sisto (2020: 25), hizkuntzaren fonologiaz gain, metrika aztertzean eragin kultural eta artistikoak kontuan hartzeko beharra. Izan ere, katalan bertsoegileek frantsesaren eredu jarraitzen dute Berpizkundean.

Kapitulu honetan aztergai dudan erritmo-ereduetara etorrira, ematen du hizkuntzaren sistema fonologikoaren eta eragin kulturalen araberakoa dela, besteak beste, azentu-ereduek hizkuntza batean erabiltzen d(ir)en sistema metriko(et)an izan dezaketen presentzia. Moretan edo azentuetan oinarritutako metrika batzuek zehaztuko dituzte silaba astun edo azentudunen kokagunak. Gainerako kasuan, ez dirudi azentu-ereduek edo silaben kantitateak eraginik duenik neurriaren egituratzean.

9.2.3.2. Euskararen fonologia eta sistema metrikoa

Euskararen gaur egungo sistema metrikoa 36. irudiko eskeman kokatu beharko bagenu, “silabak zenbatzen” dituen egituren multzoan kokatuko genuke. §8 kapituluan, euskararen fonologiaz egindako berrikuspenaz gain, bertsoetako silabatzea aztertzean ikusi ahal izan dut

³³⁹ Oin metrikoa baino handiagoa den unitate metrikoa da. Ikus §10.2.2.1 atala xehetasun gehiagorako.

hatsarre silabikoek hizkuntza denboran zehar antolatzeke duten indarra. Hala, ulertzekoa da bertsogintzan baliatzen diren neurriek silaba izatea erdigunean.

Gaur egun oro har onartua dago euskarazko bat-bateko bertso-neurriak silaban oinarritzen direla, baina azken mendeetan euskarazko bertsogintzaren oinarriak (bat-bateko bertsoetatik harago) ulertzeko ez da beti proposamen bera egin izan. Silabaren nagusitasuna ikerlari edo poesiaren —bertsogintzaren— inguruko tratatugile askok aitortu izan dute, bakoitzak bere helburuari loturik (ikus, beste batzuen artean, Leizaola 1951; Onaindia 1964; Arana Goiri 1965; Haritschelhar 1969; Michelena [1977] 2011, 1978; Altuna 1979a, 1992, 1994; Altzibar 1998; Garzia et al. 2001), baina oin metrikoak (Lekuona 1978) ere proposatu izan dira euskarazko bertsoen neurriaren ardatz gisa, kantitate silabikoari loturik —silaba astun eta arinak bereizi eta horien arabeko eredu erritmikoak jarraitzean oinarrituta, alegia—.

Euskarak kantitate silabikoa duela aldarrikatzen zuen Oihenartek (1665; ikus Lafitte 1967) ere, poesia kultua helburu, herri bertsogintzatik aldentzen den bestelako metrika proposatuz. Lafittek (1978) aztertutako Borda-k (1854) ere bere hexametroak hizkuntzaren kantitatean oinarritzen zituela dirudi, latinaren joerak euskarara ekarrita. Goicoechea “Gaztelu”-k (1963), berriz, esaldi mailako *ictusean* ezartzen dio oinarria euskal metrikari (Oihenart eta Gazteluren proposamenen berrikuspen kritiko baterako, ikus Altuna 1979a). Lan honetan silabaz aparteko oinarria proposatzen dutenen artean Lekuonaren (1978) ikuskera aztertu dut sakonago, bat-bateko bertsogintzarekin eta herri bertsogintzarekin duen lotura dela eta.

9.2.3.2.1. Oin metrikoetan oinarritutako sistema: Lekuonaren ikuspegia

Lekuonaren proposamenaren nondik norakoak ulertzeko azentuari erreparatu behar zaio lehenik. Batez ere Azkueren lanari jarraiki euskaraz azentua badela onartu arren, Lekuonak zehazten du euskararen azentua “leunagoa” (“más suave”) eta “bigunagoa” (“más flexible”) dela inguruko hizkuntza “modernoeekin” alderatuta eta bertsogintzan ez duela eragin nabarmenik (Lekuona [1918] 1978: 145). Horrek ahalbidetzen du, bere arabera, euskal azentuak ez oztopatzea poesiaren edo musikaren erritmoa: “los acentos del Euskera, con ser verdaderos y muy perceptibles, sin embargo para el ritmo tanto poético como musical, para el poeta y músico como tales, son como si no fuese, no son, no existen” (Lekuona [1918] 1978: 146). Euskararen azentuek bertsogintza edo kantagintza baldintzatzen ez dutelako ideia azken mendeko hainbat euskalariren lanetan aurki daiteke (ikus §9.2.4.1.2 atala).

Azentuarekin jarraituz, euskaraz azentu zirkunflexua dagoela azaltzen du Lekuonak, silaben kantitateari loturik:

Existe [sic.] en Euskera vocales largas, que, experimentando en la primera parte de su emisión el aumento de intensidad o tono, que llamamos acento, en su segunda parte sufren una disminución; son por tanto tónicas en su primera parte y átonas en la segunda, o, como dirían otros, hay en ella combinación de dos acentos: agudo el primero y grave el segundo, combinación que recibe el nombre de acento *circumflejo*.

[...] Alarga, da doble valor a la primera vocal acentuada, y, después de acentuar su primera mitad, disminuye de intensidad en la segunda, intercalando de este modo un arsis entre las dos tesis [hala *accent clash* deiturikoa ekidinez, Lekuonaren arabera]. Obsérvese por ejemplo cómo pronuncia el vasco el nombre de madre en la oración “nor dator?—Ama” [...]: no emite [...] *áma*, ni tampoco *amá*; sino que alarga la primera sílaba en doble *aa*, y, acentuando la primera de las dos *aa*, disminuye la intensidad y el tono en la segunda, y después de este intervalo carga con nuevo brío sobre la sílaba final *má*, de tal modo, que el nombre completo viene a sonar *áàma = âma*.

Y he aquí dónde y cómo encontramos en el Euskera dos elementos, que con el latín y el griego antiguo los creíamos desaparecidos. Tales son el acento circumflejo y, como consecuencia necesaria, la cantidad de las vocales.

(Lekuona [1918] 1978: 144-145)

Azentuaren hautemate horrek darama euskaraz silaba luze eta laburrak daudela ondorioztatu eta metrikaren oinarritzat, silaba kopurua baztertuta, kantitateari —silaben astuntasun edo luzerari— loturik oin metrikoak proposatzera, latinaren edo greziera klasikoaren sistema metrikoekin parekatuz euskararena³⁴⁰. Aldeko argudio gisa aurkezten ditu kantuetako hainbat gertakari:

Obsérvese en efecto, que, con una misma música y una misma medida de tiempo, se cantan los verbos [sic.] de dos estrofas, cuyo número de sílabas, sin embargo, no es el mismo, sino que varía en una, dos, o tres: lo cual es una prueba evidente, de que aquellos versos son isócronos, aunque su número de sílabas no sea igual. Dedúcese de aquí, que la unidad métrica de aquel verso no es la sílaba, [...] sino valiéndose de otra unidad, en la cual, por precisión, dos sílabas equivalgan a una, y una equivalga a las dos. Es decir, que nos hallamos en pleno terreno, en que la cantidad silábica es variable, y en el cual no se puede prescindir de tomar por una unidad métrica el pie rítmico, pues en él únicamente es donde dos breves valen por una larga [...].

Véanse a este propósito las distintas versiones del canto popular “Uso zuria, érazu”, y se observará, cómo apenas hay dos versos que consten de un mismo número de sílabas; [...] que si atendemos a los pies rítmicos, observaremos que los de cada verso [...] forman un conjunto de cuatro, por lo cual viene a ser un tetrapodio dactílico.

340 Euskara latin edo greziera klasikoarekin parekatzearen ideia beste hainbat euskalariren lanetan ere aurki daiteke, horien artean gorago aurkeztutako Oihenart zein Borda-renetan, esaterako. Hizkuntzalaritzatik aztertzeaz gain, auzia ikuspegi soziolinguistikotik lantzea ere interesgarria litzateke, hizkuntzen prestigioak proposamenotan izan lezakeen eragina kontuan hartzeko.

[...] Y si no ¿cómo explicar la del decasílabo con el octosílabo, que es lo que viene a ser el *zortziko* mayor? [...] dividamos el primer verso en dos hemistiquios de a cada un dáctilo y un espondeo, y demos al segundo un dáctilo, dos espondeos completos y un tercero truncado, y observaremos que ambos versos son tetrapodios dactílicos, acataléctico el primero y cataléctico el segundo: ambos son, no silábicamente, pero sí rítmicamente de idéntico valor.

(Lekuona [1918] 1978: 147-148)

Esanguratsua da adibidetzat *kantatu* egiten diren bertsoak edo bertso-neurriak aipatzen dituela, eta *oin erritmikoa* duela aipagai, oinarri musikala. Oin erritmikoa hizpide dituela ez die hitz lauak azentuerei edo eredu metrikoan txertatzen diren silaben kantitateari (astuntasunari) erreferentziarik egiten, ez bada oinarri musikalean txertatzen den silaba kopuru irregularrari. Orain arte aipatu gabeko auzi bat mahai-gaineratzen da horrela: bertso-neuria silaba kopuruaren araberakoa dela diote proposamen gehienek, baina *Uso zuria, errazu* kantua ez ei dago modu erregularrean antolatua horren arabera. Arazo horrek bultzatuta proposatzen du Lekuonak oin erritmikoa euskal metrikaren oinarri, bertso-neuri ohikoetan puntua osatzen duten bi hemistikioen silaba kopuru desberdina ere —molde handian 10/8, adibidez— oin erritmikoen bidez azalduz (auzi honetaz gogoeta sakonagorako, ikus §9.2.3.2.1).

Hizkuntza eta musikaren arteko lotura hori da hain zuzen ere Haritschelharrek (1969: 415-416), Lafittek (1978: 494) edo Altunak (1979a: 121) Lekuonaren proposamenari (1978) egozten diotena: oin metrikoek edo Lekuonak “kantitate silabiko” gisa izendatzen duenak musikan dutela jatorria, ez euskararen fonologian, silaben egituran (astuntasunean). Hori hala, ezin da kantitatean oinarritutako sistema metrikoaz hitz egin euskararen kasuan.

Edonola ere, azpimarratzekoa da Lekuonaren proposamenean musikari ematen zaion garrantzia euskarazko bertsoen neurria —silaba kopuruari dagozkion “irregulartasunak” — ulertzeko (gaiaren garapenerako, ikus §10.4.1.5, taldekatzeari buruzko kapituluan). Euskal bertsogintza —herri-bertsogintza, bederen— musikarekin batera aztertu izan da sarri, edo hala aztertu behar litzatekeela aldarrikatu izan da euskal metrikaz azken mendean eginiko hainbat lanetan (Altzibar 1998; Orixe [1918] 1991; Azkue [1921, 1925] 1990; Altube 1932; Leizaola 1951; Onaindia 1964; Haritschelhar 1969; Mitxelena [1977] 2011; Lekuona 1978; Altuna 1979a; etab.).

Atal honetan egitura metrikoaz aritu arren, bat-bateko bertsoak funtsezko du bere oinarri prosodikoan bertso-doinua (ikus §6.6.2). Bertsoak kantatuak diren kasuetan, musikak eskaintzen dituen baliabideak eta testuingurua kontuan hartu gabe ezin dira osoki ulertu bertso-neuria eta hortik eratorritako (ahozko) testua baldintzatzen duten faktoreak (Rodríguez-Vázquez 2013). Kasu

batzuetan musikak emango ditu, hain zuzen, neurria ulertzeko gakoak (Aroui 2009: 3-4; ikus §10.4.1.5).

9.2.3.2.2. Silaba zenbaketan oinarritutako sistema: gaur egungo ulerkera

Lekuonarena bezalako proposamenak izan diren arren, gaur egun arte heldu den ikuspegi nagusia da euskararen sistema metriko nagusia silaba zenbaketan oinarritzen dela; oinarritzko unitate prosodikoa silaba duela bertsolaritzak (ikus Leizaola 1951; Onaindia 1964; Arana Goiri 1965; Haritschelhar 1969; Michelena [1977] 2011, 1978; Altuna 1979, 1992, 1994; Alzibar 1998; Garzia et al. 2001, besteak beste). Bertso-neurria silaban oinarritzea hizkuntzaren fonologiatik uler daiteke gorago ere zehaztu bezala, euskaraz hatsarre silabikoek sistema fonologikoan eta, zehatzago, erritmoaren antolakuntzan, duten lekuagatik, silaba-aldiranzko joera duen hizkuntzat hartzen baita (ikus §3.4.4).

Azken hamarkadetan bat-bateko bertsoen metrika molde silabiko horretan ulertzen dela dirudi (Amuriza [1981] 1997; Garzia et al. 2001): silaba kopuruan eta silaba horien taldekatze zehatzean, hain zuzen³⁴¹. 1980tik aurrerako txapelketetako epai-irizpideak aztertuta (Euskaltzaindia 1979b; Bertsolari Elkarte 1985; Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 1990, 2001, 2017), neurriari dagokionez bete beharrekoak silaba kopuru zehatza³⁴² eta hemistikio zein puntuaren taldekatzea dira. Oinak, silaba astun eta arinak, morak edo azentuak ez dira aipatu ere egiten.

37. irudia: zortziko handiko neurriaren eskema metrikoa (Garzia et al. 2001: 84).



341 Hoskidetasuna ere bete beharreko eskakizuna da. Lan honetan ez dut horretan sakondu eta horregatik ez dut aldiro aipatzen, kontuan hartu beharrekoa den arren.

342 Irizpideek 1980an, 1982an eta 1986an neurria “doinuaren arauera[koa]” izan behar dela zehazten dute, metrika eta musikaren arteko harreman eta elkarreragina utziz agerian. 1989ko irizpideetatik aurrera, ordea, molde bakoitzeko bertsoen silaba kopurua jasotzen da idatziz: zortziko txikian puntua 7/6 silabaz osatzen dela. 2005eko irizpideetatik aurrera, molde handiko neurriak 10/8 silaba behar dituela jasotzen da. §10.2.2.2 eta §10.4.1.5 atalean sakondu dut auzi horretan.

Irudian ikus daitekeenez, zortziko handiko neurriaren eskema metrikoan zehazten diren osagaiak hemistikioak, bakoitzaren silaba kopurua eta errimaren kokapena dira. Ez dirudi, beraz, aztergai ditudan bertsolarien ekoizpenean metrikak ezarritako erritmo-ereduen eragina dagoenik.

9.2.4. Erritmo-ereduak eta testu-uztartzea kantuan

§5 atalean zehaztu bezala, testu-uztartzean hizkuntza, bere erritmo-eredu eta, zabalago, ezaugarri fonologikoekin doinu batean txertatzen da: erritmo-eredu propioak dituen doinu batekin fusionatzen da (ikus §6.6.2). Testu-uztartze hori eta azkenean kantatzen den hots katearen eredu-erritmikoa(ren aldakortasuna) hainbat eragilek baldintzatzen dute, horien artean egon daitezkeelarik azentu linguistikoak. Horregatik, kapitulu honetan bi ardatz posibletan jarri dut fokua, bertsoetako aldakortasun erritmikoa ulertzeko: 1) hizkuntzaren tipo linguistikoak —zabalago, hizkuntzaren sistema fonologikoak— doinuaren ezaugarriekin lotzeko dituen moduak eta 2) sortzailearen adierazkortasunak askotariko moldeetan eragindako aldakortasuna.

9.2.4.1. Hizkuntzaren fonologiaren eragina kantuan gauzatutako erritmo-ereduetan

Aurrez ere hainbatetan aipatu dut hizkuntza kantatzean ezaugarri linguistiko batzuek ardatzen dutela uztartze hori, batzuetan musikaren ezaugarriak eraldatuz. Erritmo-ereduekin lotura dute horietako batzuek:

9.2.4.1.1. Nabarmentasunak bat etortzea

Azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, sistema fonologikoaren erdigunean kokatzen dira azentua eta hari lotutako gertakari fonologikoak. Hala, azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzek nabarmentasun (azentu) linguistikoa eta musikala³⁴³ bat etorrarazteko joera agertzen dute sarri modu (nahiko) sistematikoan. Ingelesezt, adibidez, (kantu) sortzaileek bat etorrarazi ohi dituzte azentu linguistikoak musikalki indartsu diren guneekin³⁴⁴. H1 ingelesdun hiztunek, entzule gisa, desegoki edo onartezintzat hartzen dute azentuak bat ez etortzea (*accent mismatch* deiturikoa). Beraz, kasuan kasuko xehetasunez, baina testu-uztartzearen eskakizuntzat har daiteke azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan aipatutako azentu linguistiko eta musikalen bateratzea (ikus, beste hainbatetan artean, Janda eta Morgan 1988; Morgan eta Janda 1989; Palmer eta Kelly 1992; Halle eta Lerdahl

343 Nabarmentasun musikal gisa uler daitezke periodikotasunak (pultsuak) eragindako azentua, gune erritmiko indartsuetan gauzatutako musika nota zein silabek hartzen dutena, garaierak eragindakoa, iraupen luzeak ekarritakoa (sinkopa bezalako gertakariak, esaterako), harmoniak emanikoa edo intentsitatearen eraginez lorturikoa. Ikus §5.3.2 atala xehetasun gehiagorako.

344 Ez bada asmo artistikoak direla eta haustura bilatzen azentu linguistikoaren eta musikalen artean, biak uztartu gabe. Edonola ere, haustura efektu hori lor daiteke joera nagusi gisa azentuak bat etortzea bilatzen delako.

1993; Dell eta Halle 2009; Rodríguez-Vázquez 2010³⁴⁵). Ondoko 38. irudiko adibidean azter daiteke azentu linguistiko eta musikalen bat etortzea:

38. irudia: Ingeleseko testu-uztartzea (Halle eta Lerdahl 1993)³⁴⁶.

x								x							
x			x					x				x			
x	x		x	x				x		x		x		x	
x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
What		shall	we	do			with	a	drunk-	en		sail-		or?	

Hautatutako adibidean hitzen azentu linguistikoak doinuaren oinarri musikalak emaniko azentu periodikoarekin uztartzen dira, hizkuntzaren tipo linguistikoan nagusi den ezaugarrietako bat (azentua) agerian utziz eta islatuz, kantuan ere. §5.3 atalean hizkuntza, metrika eta musika alderatzean aipatu bezala, kantuan askotariko azentu musikalak aurki daitezke periodikotasunak emanikoaz gain: intentsitate, iraupen, garaiera edo harmoniak eragindakoak, besteak beste. Azentu-aldiko hizkuntza batzuetan, azentu linguistikoa azentu melodikoarekin edo iraupenezkoarekin bat etorrarazita ere onargarritzat jotzen dute entzuleek, dirudienez; alemanez, esaterako (Proto 2013).

Ingelesaren adibidearekin jarraituko dut, azentu-aldiko hizkuntza prototipikotzat har daitekeelako eta testu-uztartzeaz ikerketak hizkuntzaren bati buruz egin badira, ingelesari buruz egin direlako³⁴⁷. Azentu linguistikoak eta musikalak bat etorrarazteko helburuz, ohikoa izan daiteke doinuaren ezaugarri erritmikoak eraldatzea. Morgan eta Jandak (1989) eginiko ekoizpen esperimentuan, esaterako, 10 ingeles hiztuni —azentu-aldiko hizkuntza baten hiztun gisa— eta beste 10 gaztelania hiztuni —azken horiek silaba-aldiko hizkuntza baten ordezkari— eskatu zieten *Frère Jacques* doinuan —euskaraz *Anai Xanti* gisa ezagutzen den kantua— aurrez zehaztutako testu bat txertatzeko. Testuak diseinatua zeuden bi hizkuntzetan azentu linguistikoek doinuaren azentuekin talka egiteko silabak doinuaren musika notetan “ordenan” eta inolako aldaketarik egin gabe txertatuz gero.

345 Protok (2015) bere berrikuspen lanean ondoko lanak ere aipatzen ditu, ideia bera indartzen duten ikerketa gisa: Hayes eta MacEachern 1996, Hayes 2009.

346 Irudia Protoren (2015: 122) lanetik hartua.

347 Horrek ñabardura eta sakontasunerako aukera handiagoa ematen du, hizkuntza bakarraren baitako aldakortasun eta joerak aztertzea ahalbidetuz. Hala ere, beharrezkoa da hizkuntza gehiagotan ildo bereko ikerketak egitea, ingelesean aztertutako lotura eta gertakariak zein neurritan orokor daitezkeen ikusteko.

Emaizta esanguratsuak izan zituzten: ingeles hiztun guztiek egin zituzten aldaerak erritmo-ereduetan hitzen azentu linguistikoak nabarmentasun musikalekin lotzeko³⁴⁸. Gaztelania hiztunek, berriz, gehienetan musika-nota bakoitzeko silaba bat txertatu zuten Morgan eta Jandaren (1989) esperimentuan, azentu linguistikoek musikalekin bat egiten ote zuten erreparatu gabe, eskainitako eredu-erritmikoak mantenduz. Gaztelaniaz aldaerak gauzatu zituzten kasu bakanetan azentu linguistikoa eta musikala bat etorrarazteko izan zen, ematen duenez, eta hortik ondorioztatzen dute Morgan eta Jandak (1989: 282) gaztelaniazko testu-uztartzean azentu linguistiko eta musikalen bat etortzea ezinbesteko eskakizun ez den arren, hiztunon belarrietara hobeto ematen duela askotan bat etortzeak, silaba-aldiko hizkuntzak izanda ere —zeintzuetan azentuak ez duen horrenbesteko pisu erlatiborik hizkuntzaren antolakuntza fonologikoan—:

While it has been shown that songs in Spanish and many other languages often allow otherwise aberrant stress-patterns, certain parameters are clearly preferred over others, since, even in these languages, the vast majority of musical stresses do not fall on otherwise totally unstressable syllables. Indeed, it is safe to say that, in Western musical tradition, there is at least a tendency for some type of prosodic or lexical stress to seek out the musical beat (or vice versa).

(Morgan eta Janda 1989: 282)

Bi hizkuntza tipoen arteko aldea litzateke ingelesez azentu linguistiko eta musikalak bat etortzea testu-uztartzearen eskakizuntzat har daitekeela eta, silaba-aldiko hizkuntzetan, ordea, lotura hori egitea ez dela derrigorra, azentuak bat etortzea hiztunek beharbada nahiago duten arren.

Ingelesezko testu-uztartzera itzulita, esan behar da azentu linguistiko eta musikalak bat etorrarazteko joera edo eskakizun horretan salbuespenak aurki daitezkeela. Rodríguez-Vázquez-ek (2010), gaztelaniazko eta ingelesezko herri kantuen corpus bana aztertuta, hitzen kategoria gramatikala hartzen du kontuan azentuak bat ez datozen kasuak kokatzeko. Hitz lauz azentua jasotzeko lehentasun eskalak daude klase gramatikalen arabera, eta horiek azaleratu egiten dira hizkuntza batzuetan (*izena > aditza > preposizioa > pertsona izenordaina > [...] gisakoak*) (ikus §9.2.1.2 Hurchek azentuarentzat proposatutako hobespenez). Ematen duenez, eskala horren baitan azentua jasotzeko aukera txikienak dituzten funtzio hitzak dira ingelesezko bat ez etortzeetan nagusi direnak (bat ez etortzeen %93,22; bat ez etortze lexikoak % 6,78). Ematen duenez, eduki karga txikiagoa duten hitzen azentu-eredua aldatzea onargarriago da ingelesez. Gaztelaniaz, berriz, jasotako bat ez etortzeetan %52,28 dira hitz gramatikalak, eta %47,51 eduki hitzak; erdia eta erdia, beraz (Rodríguez-Vázquez 2010: 241). Pentsatzekoa da bat ez etortzeekiko onarpen handiagoa dagoela hizkuntza honetan. Bi hizkuntzetan azentuerei dagokienean testu-uztartze joera desberdinak aurkitzen direla argia da, bai azentu linguistiko eta musikalen bat etortze neurrian (ingelesez askoz

348 Antzeko zehaztapenak egiten dituzte ingelesez gauzatutako aldaera erritmikoei buruz Halle eta Lerdahl-ek (1993) edo Dell eta Halle-k (2009), besteak beste.

handiagoa baita lotura) bai bat ez etortze kasuen izaerari dagokienez ere (ingelesez funtzio hitzak, hitz gramatikalak, baitira normalean, eta gaztelaniaz edozein hitz izan baitaiteke).

Gaztelaniaz joera sistematiko gisa azentuak bat ez etortzearen arrazoi posibleetako bat hitzen luzera dela proposatzen dute Janda eta Morganek (1988: 167-168), baita Rodríguez-Vázquezek (2010: 291) ere, aurrekoei jarraiki. Silaba anitzeko hitzen maiztasuna altua izaki gaztelaniaz, zaildu egiten du 2/4 edo 4/4 gisako konpas baten erregularitasunean beti modu egokian uztartzea hizkuntza eta musikaren nabarmentasunak. Ideia hori Donegan eta Stamperen (1983, 2002, 2004; Donegan 1993) tipologia holistikoarekin lot genezake. Silaba-aldiko hizkuntzek sarri morfologia eranslea izan ohi dutela zehazten dute, hitzak luzera aldakorrekook, eta hala, ezinezko egiten da horien kasuan *one word : one beat —hitz bat : beat bat—* baldintza betetzea. Ideia testu-uztartzera eramanda, gaztelania bezalako silaba-aldiko hizkuntza baten ezaugarri morfonologikoez zaildu egiten dute nabarmentasun linguistiko eta musikalak sistematikoki uztartzea. Bestalde, silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan azentuak duen indar erlatiboki txikia kontuan hartuta, uler daiteke beste ezaugarri batzuk izatea testu-uztartzean gako. Silaben eta musika-noten arteko harremanak hartzen du garrantzia: silaba-kopuru zehatza edo erritmo-ereduak elkarrekiko “paralelo” izateak, esaterako (Rodríguez-Vázquez 2010; ikus §10.2.4).

Silaba-aldiko hizkuntzen kasuan, beraz, ez dirudi azentu linguistikoek horrenbesteko garrantzia dutenik testu-uztartzean, hizkuntzatik hizkuntzara eta kasuan kasuan azentuari loturiko betekizunak badiren arren.

Frantsesezko herri kantuetan, esaterako, azentuak bat etorrarazi behar dira bertso-lerro edo esaldi musikalen amaieran, ez bestela (Dell eta Halle 2009: 71-75). Frantsesezko kantuak darabiltza Bertinettok (1989), hain zuzen, azentuak bat (ez) etortzean morfoprosodia (ere) esanguratsu izan daitekeela iradokitzen. Azentu-lexikoa duten hizkuntzen (azentu-aldiko hizkuntzak, sarri) eta nagusiki hatsarre prosodikoetan oinarritutako azentuerak baliatzen dituzten hizkuntzen (silaba-aldiko hizkuntzak, maiz) artean bereiziz, silaba-aldiko hizkuntzen baitan, joera “askea” izendatzen du frantsesarena, azentu lexikorik ez duelako, eta hori indartzeko argudio gisa azaltzen du nola ez den frantsesez testu-uztartzean, kantuan, azentua islatu beharrik, oro har. Hurchen (1994, 1996) esanei jarraituz, hatsarre prosodikoetan oinarritzen den azentu-sistema litzateke frantsesarena, egiteko morfologikorik (lexikorik, Bertinettoren hitzetan) ez duena. Era berean, testu-uztartzean, kantuan, azentua islatzeko beharrik ez izatea frantsesaren sistema fonologikoan azentuak duen lekuaren ondorio izan daiteke, ez baitago hizkuntzaren antolakuntzaren erdigunean eta ez baitu egiteko “bereizlerik”.

Italieraz, hau ere silaba-aldiko hizkuntzat hartzen den arren, kantuan hitz proparoxitonoen azentu-ereduari —[óoo] eredudun hitzak dira horiek; *fávola*, kasu— erritmo sinkopatuaz aurka egiten dion txertatze prosodikoa gauzatzen bada, silaba paroxitonoa gauzatuz horrela azentudun (*favóla* litzateke), onartezintzat hartzen da (Proto eta Dell 2013). Italieraz azentu-eredu orokortzat har daitekeen joera paroxitonoa [oóo] duten hitzak musikan txertatzean, berriz, onargarri dira azentu-eredua betetzen ez duten eredu erritmikoak. Protok (2015: 124) zehazten du ez dagoela argi zer dela eta egiten den bereizkuntza hori.

Hurchen (1994, 1996) morfoprosodiaren planteamendua lagungarri izan daiteke, beharbada, jatorri prosodikoa duten azentu-ereduak eta horiei aurka egiten dieten bestelako eredu markatuagoak bereizten baititu. Azken horiek lirateke agian esanguratsuago batzuetan testu-uztartzea baldintzatzeko. Sakonago aztertu beharreko baieztapena da, gaztelaniak ere nagusiki hatsarre prosodikoak jarraitzen dituen azentuera izan arren, badituelako morfoprosodiaren ondorio diren azentu-ereduak eta, hala ere, ez dirudi derrigorra denik horiek kantuan islatzea (Janda eta Morgan 1989; Rodríguez-Vázquez 2010).

Azentu linguistikoak testu-uztartzea baldintzatzan ez duen silaba-aldiko hizkuntza eta kantuetan, ez du esan nahi azentu musikalek inongo egitekorik ez dutenik: izan badira, eta taldekatze-arrasto edo adierazkortasun baliabide oparo izan daitezke, besteak beste (ikus §10.2.6 lan honetan).

Silaba-aldiko eta mora-aldiko hizkuntzetan ohikoa izaten da garaiera-azentua (ikus §3.4.3.9); japonieraz, adibidez. Japoniar haur kantuetan garaiera-azentuek musikaren *beat* indartsuekin edo melodiaren goraldiekin (azentu melodikoekin) uztartzen direla dirudi, baina ikerketa gehiagoren beharra geratzen da agerian ondorio sendoetara heldu ahal izateko (berrikuspen baterako, ikus Proto 2015: 124-125).

9.2.4.1.2. Euskararen azentuerak testu-uztartzean

Testu-uztartzean azentu linguistikoak izan dezakeen paperaz eginiko berrikuspena ikusita, pentsatzekoa litzateke euskarazko testu-uztartzean azentuak ez duela eraginik izango, ez modu sistematikoan behintzat, nagusiki silaba-aldiranzko joera duen hizkuntza dela kontuan harturik. Euskal hiztun eta kantuzale zein bertsozale gisa nire hautemate pertsonalaren arabera, azentuak ez du, modu sistematikoan behintzat, testu-uztartzea baldintzatzan, eta azentuak bat ez etortzea onargarria da nire hautematearentzat, batzuetan nabarmenagoa egiten den arren haustura hori (izen propioekin, adibidez; ikus §9.4.4.6 atala aurrerago). Orain arte euskarazko testu-uztartzeaz eginiko

lanetan batez ere bide horretako adierazpen eta emaitzak aurki ditzakegu, baina eztabaidagai den auzia da oraindik. Eztabaida zailtzen du gaiaren inguruko ikerketa gutxi izateak, eta horri gehitu behar zaizkio azentuaren gaiak euskaraz planteatzen dituen zailtasunak (ikus §9.2.1.4).

Jose Ignacio Aranak 1872-ko bere *Tratado de métrica vasca* lanean aipatzen du: “En el verso eúscaro todas las sílabas de las palabras son susceptibles de acento agudo o dominante, según que lo exija la música que al verso corresponda.” (*apud* Altuna 1992: 134). Lekuonaren ([1918] 1978) esanak ere bide berean doaz. Euskararen azentuera(k) “malguak” direla zehaztuta, bertsogintza edo kantagintzan eraginik ez dutela azaltzen du³⁴⁹, euskal metrikaren ezaugarritzat hartuz euskararen azentuen eta poesia edo musikaren azentuen bat ez etortzea —hautematean eragin negatiborik ez dakarrela—:

He aquí indicada la diferencia capital, que al Euskera separa de las neo-latinas, en punto a adaptabilidad para la versificación: su carácter acentual [...] dúctil [...] y flexible [...], hace, que así como no se estorban en la prosa el acento oratorio y el prosódico, tampoco se estorben en el verso este y el proceso rítmico, invadiendo campos, que no son menos deslindados e independientes que los de ambos acentos oratorio y prosódico en el discurso, o el ritmo oratorio y el musical en el canto.

De este modo el *koplari*, libre de la preocupación y pesadilla del acento prosódico, no tiene que ocuparse más que de la rima, [...] y de la acertada combinación de los pies rítmicos³⁵⁰.

(Lekuona [1918] 1978: 137-138)

Miremos [...] el proceder, que nuestros poetas, nuestros *koplaris* y nuestra música [...] han seguido con respecto a las sílabas de una palabra. Sin que ello repugne en modo alguno al oído, observaremos que tan pronto hacen caer la tesis musical o poética en una sílaba acentuada como en una átona: observaremos cómo [...] la sílaba *der* de *eder*, que [...] es acentuada, tan pronto está en arsis [gune azentugabea] como en tesis [gune azentudunea]

(Lekuona [1918] 1978: 146)

Euskal kantu eta bertsoetan, beraz, hizkuntzaren azentuak ez datoz musikarekin bat, eta entzulearentzat onargarri da, Lekuonaren esanetan. Iritzi berekoa da Amuriza ([1981] 1997) ere, bat-bateko bertso kantatuak sortzeaz ari dela. Euskararen azentua “euskararen gaitasunak bertsogintzarako” atalean aurkezten du, bertsotan egiteko abantaila gisa: “Euskaraz azentua badago eta oso nabaria gainera. Gertatzen dena kanturako ez duela trabarik jartzen. Kantatzean, azenturik ez balitz bezala gertatzen da” (Amuriza [1981] 1997: 222-223).

349 Ez naiz lan honetan sartu Lekuonaren prosodiari buruzko ideiak banan-banan azaldu eta eztabaidatzera: hizkuntza erromantzeen “azentu finkoaren” aurrean euskararen azentuaren malgutasuna, euskararen prosodia ulertzeko proposatzen zuen azentu zirkunflexoa, etab. Etorkizunerako geratzen da hori. Atal honetan euskararen azentuerek testu-uztartzerako ematen duten erraztasuna azpimarratzen duten aipuak ditut helburu.

350 Lekuonak euskarazko bertsogintzaren oinarri metrikoaz proposatzen duenaren berri izateko, ikus §9.2.3.2.1.

Haritschelharrek (1969: 447-450), Beck-ek 1910ean frantses trobadoreen musikaz eginiko lanetik (*La musique des troubadours*) abiatuta, doinuaren azentu musikalen eta hitzen azentu linguistikoaren bat etortzea aztertzen du Etxahunen bertso batzuetan, Zuberoako hizkeran oinarriturik. Bere ondorioa argia da: ez dago loturarik azentu linguistikoaren eta musikalaren artean. Lehenago Orixek³⁵¹ ([1920] 1991), Altubek³⁵² (1932: 271); Mitxelenak ([1960] 2001, [1961] 1990, [1976] 2011: 193-194; kasu) edo Lafittek (1967: 14) ere esana zuten, besteak beste, euskara kantatzean, bertsoetan, azentu linguistikoak ez duela eraginik testu-uztartzean, “ezta zubereraz ere” (euskal hizkeren azentuerez, ikus §9.2.1.4): “[En la versificación] El acento no parece haber jugado ningún papel en las muestras que han llegado hasta nosotros, incluso en dialectos que como el suletino tienen hoy un acento de intensidad parecido al castellano” (Michelena [1960] 2001: 62). Froga gisa errima daramaten hitzak aipatzen ditu Mitxelenak, besteak beste: nola “Hox aingureki” zuberotar kantuan, esaterako, *sendótcen* eta *beitzén* errimatzen diren, hitz lauz euren azentuerak bat ez etorri arren³⁵³.

Idea bera azpimarratzen du Gavel-ek (1921: 112), lehenago, euskal azentuez eginiko lanean. Euskaraz azentu nagusiaren intentsitate txikia agerian uzten duen froga gisa agertzen du azentuak testu uztartzean duen rol eskasa. Horri lotuta gehitzen du ez dirudiela euskal doinuek azentu linguistikoa kontuan hartzen dutenik³⁵⁴. Zubereran fokua jarririk zehazten duenez:

Même en souletin où il existe un accent tonique nettement caractérisé, il arrive parfois que la mélodie des chants est en contradiction formelle avec l’accent. En voici un exemple, entre beaucoup d’autres : dans le refrain d’un cantique très populaire en Soule reviennent les mots : *O Jesus, zure maithatzeko, laidatzeko, benedikatzeko* = « O Jésus, pour vous aimer, pour vous louer, pour vous bénir ». Or, dans les trois derniers mots, tels qu’ils seraient prononcés en langage parlé, l’accent tonique principal serait sur l’avant-dernière syllabe, c’est-à-dire sur *tze*. La mélodie s’accorde avec cet accent tonique dans le mot *maithatzeko*, mais dans les deux suivants elle oblige à accentuer la syllabe *ko* plus que la syllabe *tze*, et cependant personne n’en est choqué.

(Gavel 1921: 112-113)

351 “en vascuence es indiferente aplicar las partes fuertes musicales a cualquiera sílaba de la palabra, pues nada disuenan” (Orixe [1920] 1991: 481).

352 “Las poesías euskéricas se adaptan bien, en general, a las melodías musicales, basta con que haya coincidencia métrica; así, el poeta y el músico, no deben preocuparse del acento y sí solo de la medida del verso y de las frases musicales respectivamente” (Altube 1932: 271).

353 Bertsoen neurria egituratzean euskarazko azentuerek eragina izan ote duten zalantzan jartzen du une batez Mitxelenak ([1976] 2011: 193) goi-nafarrerazko azentu moldeetatik gertu egon daitezkeen koplak zahar batzuk topatu ondoren (Iruñean 1609an eta 1610ean egindako poesia lehiaketa bateko poema irabazleak, hain zuzen. Ikus Michelena [1976] 2011: 189). Euskaraz beste hizkera batzuetako azentuerei ere erreparatzen die badaezpada, bere hizkeratik gertuen dituen Xenpelarren bertsoak aztertuta, besteak beste, eta ezezkoa ondorioztatzen du: azentu linguistikoak ez duela eraginik bertsoen egituratze eta ekoizpenean ([1976] 2011: 193).

354 “Une observation qui montrerait au moins le peu d’intensité de l’accent tonique en basque et le peu d’importance que les Basques même qui accentuent lui accordent, c’est que l’accent tonique ne joue à peu près aucun rôle dans la musique. Les mélodies des chansons basques semblent ne tenir de lui absolument aucun compte” (Gavel 1921: 112).

Kontuan har bedi zuberera dela euskal hizkeren artean indar-azentua modu nabarmenean ageri duenetako bat, eta tipo erritmikoei erreparatuta azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzen ezaugarrietatik gertuen kokatzen dena, alor batzuetan, behintzat (Jauregi 2021; ikus §3.4.8).

Hala, orain arte aztertutako lanen arabera, euskaraz testu-uztartzea gauzatzean nahikoa litzateke silaba kopuruarekin batera eremu prosodikoen taldekatzeari erreparatzea:

Los metros tradicionales van asociados a una o varias melodías cada uno y nunca se da el caso, si la cuenta de las sílabas es cabal y la división de los grupos se ajusta a los viejos moldes, de que la letra, por razones acentuales, disuene de la música. Esto es, al menos, lo que me parece que ocurre.

(Michelena [1976] 2011: 194)

Orain artean jasotako ikerketa eta adierazpenek bat egiten dute silaba-aldiko beste hizkuntza batzuetan eginiko ikerketen emaitza gehienekin: ez dirudi euskararen azentu linguistikoek testu-uztartzea sistematikoki baldintzatzten dutenik. Mendizabal-Iturriak (2020, 2023) euskal kantuetara eginiko hurbilpenetik ere ondorio hori ateratzen du, kasu batzuetan azentu linguistikoekiko loturak badirela proposatu arren.

Orixe-k ([1958] 1991), Euskaltzaindian sartzeko Leitzan emandako hitzaldian, euskaraz nagusi omen den garaiera azentuari egotzen dio kantatzean azentu linguistikoak talkarik ez egitea: “Gure azentua eskurakoi da erabiltzeko, baiña beste ainbeste zail esamiñatzeko, igeskorra baita inguruko izkuntzena ez-bezala. Gure onek, griego zarrak bezala, ez du indarrezko azentu nabarmenik; gora-beerako mintzor leguna du, ta ortatik eldu da (dator) kantarekin oztopo itsusirik ez egitea” (Orixe [1958] 1991: 972). Silaba-aldiko hizkuntzek ohiko izaten dute garaiera-azentua (ikus §3.4.3.9) eta, Donegan eta Stampek (2004: 17) zehazten dutenez, garaiera-azentuak sarri ez du balio erritmikorik hizkuntza-antolakuntzan³⁵⁵. Erritmikoki zentraltasunik ez badu, ulertzekoa litzateke silabak eta silaben kopurua (taldekatzea) izatea testu-uztartzean ardatz, azentua baino gehiago. Horri gehitu behar zaio euskararen morfologia eranslea (Janda eta Morganen [1988] proposamena euskarara ekarriz): luzera oso aldakorreko hitzak dira posible, eta horrek zaildu egiten du oinarri musikal erregularrak zehaztutako *beat* indartsuekin bat etorraraztea beti hitzen azentuerak —horiek argi leudekeen kasuetan ere—. Gainera, euskal hizkera askotan azentu nagusia esaldi fonologikoaren eremuan ezartzen da (ikus §9.2.1.4.1). Ez dirudi bateragarria musikak markatzen duen azentu periodikoa esaldi mailako azentu linguistikoarekin (soilik) uztartzea.

Garaiera-azentuari bestela begiraturaz, euskaraz testu-uztartzea aztertzeko proposamen metodologikoa egiten du deCastro-Arrazolak (2015), euskarazko garaiera-azentuaren eta doinuen

355 ““Accent” usually coincides with the beat, but in some languages it has no rhythmic relevance whatever. For example, the pitch accents of Vedic or Homeric Greek or of Japanese seem to play no role in the rhythm even of their verse” (Donegan eta Stampe 2004: 17).

aldakortasun melodikoaren arteko lotura iradokiz. Japonieraz garaiera-azentua dela eta gorago §5 atalean jasotako berrikuspenean ikerketa gehiagoren beharra nabarmentzen du Protok (2015); gauza bera errepikatu beharrean naiz hemen euskarari buruz, azentuaren azterketak dakartzan zailtasunak beste behin mahai-gaineratzeaz gain (ikus §9.3.1).

Euskarazko testu-uztartzean azentu linguistikoak pisu handirik ez duela dirudi, orain arte berrikusitako lanen arabera. Badira, baina, aurkakoa pentsarazten duten adibide eta hautemateak.

Lerchundik (1983) nafar-lapurteraz kantatzean azentuak bat etorrarazteko proposamen arau-emailea egiten du bere lanean (paradoxikoki, bere proposamenaren sarreran nafar-lapurteraz hitz lauz azentu-eredu argirik zehazterik ez dagoela adierazi arren³⁵⁶). Beharrezkoa litzateke hautemate eta ekoizpen esperimentuak egitea nabarmentasunarekiko joerak nolakoak diren modu sendoan zehaztu ahal izateko eta, euskal hiztunen artean hautemate desberdintasunak badaude, desberdintasun horien oinarrian zer dagoen aztertze.

Mendizabal-Iturriak (2009, 2023), esaterako, kantu zaharretan doinua hizkuntzaren prosodiaren (azentueren) arabera moldatzen den kasu posibleak aztertzen ditu, gorago aurreratu bezala. DeCastro-Arrazolak (2011) musika eta antzerki munduko hainbat sortzaileren adierazpenak jasotzen ditu, azentuen bat ez etortzea onartezin(ago) egiten zaiela agerian utziz³⁵⁷.

Puntu honetan esanguratsua iruditzen zait Janda eta Morganek (1989) gaztelaniaren testu-uztartzeaz zehazten dutena euskarara ekartzea, erdibideko ikuskera posible gisa: azentu linguistiko eta musikalak bat etorraraztea hizkuntzaren eskakizun sistematikoa ez izan arren, hiztunek kantuen hautematean nahiago dute azentu horiek uztartzea (ikus gorago §89.2.4.1.1). Altubek (1932) ideia hori plazaratzen du euskaraz ari dela: “si *no suena mal* el verso euskérico acoplado a una melodía musical de ritmo o acentuación *distinta*, la consonancia será más perfecta y, por consiguiente, el oído y el sentimiento artístico del oyente recibirán una mayor sensación de armonía y belleza

356 “il se trouve que l’accent n’est pas —n’est plus— un fait général dans le basque: alors qu’il subsiste encore —très sensible— dans le dialecte souletin et, à un degré beaucoup moindre, dans les dialectes d’outres-monts, il n’existe plus dans le labourdin et le bas-navarrais où, dans l’enchaînement des mots, les diverses syllabes donnent l’impression d’être pratiquement *isotones* (encore que la dernière syllabe de l’incise soit naturellement affectée d’un certain appui-appui de posé)” (Lerchundi 1983: 347).

357 DeCastro-Arrazolak (2011: 11) komunikazio pertsonal bidez jasotako iritzietako bi dira ondokoak: “[...] ordura arte latineraz abesten ziren testuak itzuli egin ziren. Sabin Azkue apaizaren iritziz, haietako euskaratze batzuek musikarekiko arazoak daukate. [...]

Antzerkiaren arloan, arazo antzekoa aipatzen digu Ainara Ortega musikariak. Abestiaren hitzak (euskaraz) pertsona batek idatzi baina doinua beste batek egiten du, euskaraz ez dakien batek zenbaitetan. Sortzen den abestiak, ondorioz, azentuaren aldeko arazoak omen dauka; sortutako doinuaren metroa hitzen berezko azentuarekin ez datorrelako bat”.

Nire hautemate propioan, esan bezala, azentuen bat ez etortzeak oro har onargarriak egiten zaizkit, baina bada kontrakoa esan izan didan musika munduko pertsonaren bat inguruan.

cuando coinciden ambas acentuaciones” (Altube 1932: 273)³⁵⁸. Hala, pentsa daiteke azentuen bat ez etortzea onargarri izanagatik, ez dela (beti) hautemanezina euskaraz³⁵⁹.

9.2.4.1.3. Erritmo-ereduen ezaugarriak kantuan eta musika instrumentalean

Gorago, §3.4.3.3 atalean, aipatu dut hitz lauz *tempo*a azkartzeko modua (*allegro*style deiturikoa lortzeko era) desberdina dela hizkuntzaren tipo erritmikoaren arabera. Azentu-aldiko hizkuntzetan, tempo a azkartzea azentugabeko silaben murriztapen eta ezabatzearen bidez lortu ohi da. Silaba-aldiko hizkuntzetan, berriz, silaba guztien —izan azentudun edo azentugabe— konpresio proportzionalaren bidez lastertzen da hizketa-abiadura (Bertinetto 1977, iraupenezko auzi zenbaiten berrikuspenerako, ikus Bertinetto 1989: 113-116). Gertakari hau kantuetako erritmoarekin lotzen du Hurchek (2006b: 7), silaba-aldiko hizkuntzat hartzen den italierazko zenbait pieza —madrigalak, kasu: Monteverdiren *Guerrieri et amorosi* aipatzen du adibide gisa— azentu-aldiko den alemanera itzultzea ezinezkoa litzatekeela iradokiz, hizkuntza bakoitzaren ezaugarri fonetiko-fonologikoek ezaugarri eta balio erritmikoak baldintzatzearen ondorioz³⁶⁰.

Hayes eta Kaun-ek (1996), ingelesezko herri kantuak aztertuta, joera gisa proposatzen dute hitz lauz silabek luketen iraupen fonetikoa kantuan islatu behar litzatekeela, *beat* kopuruaren bidez. Rodríguez-Vázquezek (2010: 185-186) egiten dien kritika ekarriz, ordea, adierazpena indartsuegia dela esan beharra dago: fonetikoki astunak diren silabek musikan ere —ezinbestean— iraupen luzeagoa izango duten arren material fonetiko gehiago izate hutsagatik —besterik da zein balio musikal ematen zaien—, oso ohikoa da hitz lauz silaba arinak, laburrak edota azentugabekoak direnek balio musikal luzeagoak hartzea kantuan³⁶¹.

358 Halako proposamenen aurrean, silabatzeaz edo bat-bateko bertsoetarako doinu hautuez aritzean bezalaxe, sortzaile bakoitzaren hautu eta inertziak hartu behar dira kontuan, hizkuntzak jar ditzakeen baldintzez gain.

359 Esango nuke euskaraz azentu talka bereziki nabarmena dela azentu finkoa duten izena bezalako kategoria lexikoetan —gogoratu azentua jasotzeko “lehentasuna” edo “pisua” izaten dutela sarri izena bezalako kategoria gramatikalek—. Nire hautemate pertsonalean, esaterako, bereziki gogoan dut 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko Irungo saioan (2017-11-01) Aitor Sarriegik eginiko bakarkakoan bere buruari erreferentzia eginez “Áitor” ahoskatu zueneko, azentu musikalak zirela eta (hitz lauz *Aitór* esango nuke). Nabarmena izanagatik, onargarria egiten zait, edonola ere. Izen propioek azentuera jakina izan ohi dute, euskaraz testuinguruaren arabera hori alda litekeen arren.

Bertsoaldia ikus-entzuteko: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14806-kartzela-aitor-sarriegi-btn17> (azken kontsulta: 2023-11-06).

360 Ulertzen dudanez, italiara bezalako silaba-aldiko hizkuntza batean posible da silaba guztiei antzeko balio erritmikoa ematea, silaben material segmentala antzekoa baita. Azentu-aldiko hizkuntzetan, berriz, horrelako efektuak lortzea zailagoa da, silaben arteko aldea handiagoa baita, azentudun silabek material segmentala bereganatzearen ondorioz —eta kontrastean, azentugabeko silabak murrizteagatik—.

361 Rodríguez-Vázquezek (2010: 188) Hayes eta Kaunen (1996) lanari egiten dien beste kritika orokor bat da euren lanean eragile kulturalak kontuan hartu ez izana aldaera erritmiko batzuk ulertzeko. Herri kantuez ari garela, hizkuntzaz gain alor kulturala kontuan hartzea funtsezkoa dela azpimarratzen du.

Silaben iraupenari loturik, mora-aldiko hizkuntzak aipatzea funtsezkoa da atal honetan. Silaba astun eta arinen artean erritmikoki bereizkuntza egiten duten hizkuntzak izaki, espero izatekoa litzateke kantuan, testu-uztartzean, silaben mora-balioak islatzea balio erritmiko luze-laburren bitartez. Japoniera —mora-aldiko hizkuntza— aztertu duten ikerketa batzuek frogatutzat eman dute testu-uztartzearen izaera moraikoa (ikus Manabe 2009, adibidez), nahiz eta silabek ere garrantzia dutela geratu agerian hainbat kasutan —hitz mailegatueta, kasu— (Starr eta Shih 2012).

Konpositore baten H1-ak konpositore horrek sortzen duen musika instrumentalaren ezaugarrietan eragina duela ere proposatu izan da, eredu-erritmikoei eta oinarri musikalaren (konpasaren) ezaugarriari erreparatuz (ikus hurrengo §9.2.4.1.4 atala konpasaz). Patel eta Daniele-k (2003) ingeles eta frantsesezko hitz laua eta XIX. mendean zeharreko konpositore zenbaiten musika lanak aztertu eta konparatzen dituzte aldakortasun erritmikoari dagokionean³⁶². Horretarako, hitz lauz tipo erritmikoak aztertzeke baliatu izan diren neurketetan oinarritzen dira —“normalized Pairwise Variability Index” (nPVI) delakoan — (ikus §3.4.7), bokal tarteen iraupen aldakortasuna behatuz hizketan eta musika-noten iraupen aldakortasuna musika obretan. Emaitzak aldakorrak dira konpositore batetik bestera bi hizkuntzetan (ikus behean 39. irudia), baina bi hizkuntzetako musika-joerak aztertuz gero, aldea dagoela azaltzen dute Patel eta Danielek, hitz lauz ingelesez eta frantsesez aurkitzen diren emaitzak islatzen direlako musikan ere. Ingelesez —azentu-aldiko hizkuntza izaki— musika-noten arteko iraupen aldeak handiagoak dira eta frantsesez —silaba-aldiko hizkuntza—, berriz, musika-noten arteko iraupen-aldeak eta gorabeherak txikiagoak dira.

362 Azaltzen dutenez, nahita ekiditen dute herri musika aztertzea, hori sarri kantuari loturik egon ohi denez, hizkuntzak zuzenean baldintzatuago den musika izatea baita espero dena.

39. **irudia:** Ingeles eta frantses konpositoreen lanen iraupen aldakortasuna (Patel eta Daniele 2003: B41).




Fig. 4. Musical nPVI values by composer. English composers: Elg = Elgar, Del = Delius, Bax = Bax, V.Will = Vaughan Williams, Ire = Ireland, Hol = Holst. French composers: D'Indy = D'Indy, Rav = Ravel, Deb = Debussy, Fau = Fauré, Rou = Roussel, Ibe = Ibert, Mil = Milhaud, Hon = Honegger, Pou = Poulenc, S-S = Saint-Saëns.

Ondorio gisa Patel eta Danielek zehazten dute ingelesak eta frantsesak iraupen aldakortasun alde esanguratsua dutela, hizkuntzetarako aztertutako joera berak agertuz, nahiz eta aldea txikiagoa den musikan hizkuntzen artean baino. Horrek kultura bakoitzaren baitako aldakortasuna uzten du agerian, musika sorkuntza artistikoa den heinean hizkuntzaz gain eragina izango duten beste hainbat faktore baitaude; estilistikoak, besteak beste. Hala ere, musikan hizkuntzen norabide berean doazen joerak ageri direla azpimarratzen dute: “What is remarkable is that in the face of this diversity, average differences still emerge between cultures which parallel the rhythmic differences between the native languages of those cultures” (Patel eta Daniele 2003: B42).

Patel eta Danielen (2003) ikerketan oinarrituta alderatzen ditu Jekiel-ek (2014) ingelesa eta poloniera hitz lauz eta, musika-noten aldakortasuna aztertuz, herrialde bakoitzeko herri musika eta XIX. mendeko musikaren lagin bana. Poloniera tipo erritmiko mistotzat hartzen da, eginiko neurketa ezberdinetan emaitza ezberdinak izan baititu. Ingelesarekiko aldeak ageri ditu, edonola ere. Jekielen ikerketak ingeles eta poloniar kulturetako herri musikan alde esanguratsuak aurkitzen ditu, ingeles musikan noten iraupen aldakortasuna handiagoa izanik. Ez du alde esanguratsurik

aurkitzen, ordea, XIX. mendeko musikan. Patel eta Danielek (2003) aurreikusi bezala, herri musika gertuago dago hizketan gauzatzen diren erritmo-joeretatik; musika “klasikoan”, ordea, ez dirudi horren modu hertsian islatzen direnik konpositorearen H1-en joera erritmikoak. Jekielek (2014: 66-67) azaltzen duen gisan, eztabaidan eta ikerketan zenbat eta musika-genero gehiago sartu —eta metodologia findu ahala—, ondorio sendoagoak eta ikuspegi konplexuagoa osatu ahalko da auzi honetaz. Musika instrumentalean jasotakoa kantuan areagotzen dela pentsatzekoa da, esan bezala, hizkuntzaren fonologia presente baitago musikaren ezaugarriekin elkarreraginean. Ideia hori atal honen hasieran aipatutako adierazpenekin lotzen da.

Euskaraz, hainbat kanturen balio erritmikoak nahiko parekatuak direla adierazi izan da. Antzeko luzeradun musika-notak (silabak) dituztela eta batetik besterako intentsitate alde handirik gabekoak direla zehaztu dute hainbat ikerlarik (Hurch 1988c: 817 edo deCastro-Arrazola 2015: 174, besteak beste). Joera hori silaba-aldiko ezaugarritzat hartzen du Hurchek (1988c), Mikel Laboaren *Bedeinkatua* edo *Pasaiako herritik* kantuak adibidetzat hartuta. Euskal kantuen erritmo-ereduak askotarikoak izan daitezke, edonola ere, eta beharrezko dira erritmo-ereduen azterketak, gaiari buruzko ondorio sendoagoak atera ahal izateko³⁶³.

9.2.4.1.4. Kantuen oinarrian dagoen konpasa

Kompasa (oinarri erritmikoa) hizkuntzen tipo erritmikoei lotuta egon daitekeela ere proposatu izan da, ikerketa enpirikoen falta dagoen arren. Ematen duenez, kulturen artean badira diferentziak herri musikan nagusi den oinarri erritmikoari dagokionean: Japonian, esaterako, arraroak dira 6/8 gisako konpas hirutarrak Ingalaterran oso ohikoak diren bitartean eta, Balkanetan, berriz, konpas irregular edo sumatiboak dira nagusi. Horrek guztiak pentsarazten du beharbada badela loturarik kultura bakoitzari loturiko hizkuntzaren eta hizkuntza horretan sortzen diren kantuen konpas-ezaugarrien artean (Patel 2008: 157-158), metrikaren arloan oinarri metrikoarekin sarri gertatzen den bezala (ikus §9.2.3.1). Ildo berean egiten du gogoeta Hurchek (2006b: 7), joera gisa proposatuz silaba-aldiko hizkuntzetan nagusi direla 2/4 gisako konpas bitarrak eta azentu-aldiko hizkuntzetan,

363 Ikerketa bide emankorra izan daiteke ingelesa bezalako azentu-aldiko hizkuntza batetik euskarara ekarri diren kantuen eredu erritmikoak jatorrizko ingelesezko bertsiorekin alderatzea, aldakortasun joera esanguratsurik ba ote den aztertzeko (Kortatu eta Negu Gorriak-en kantuak jatorrizkoekin, Leonard Cohen edo Bob Dylanen kantuak eta horien euskarazko bertsiok alderatzea, besteak beste). Esango nuke badirela euskaraz silaben balio erritmikoak parekatzen dituzten adibide batzuk; *No time for love (if they come in the morning)* kantu irlandarraren euskarazko bertsiok (Hertzainak taldearena, Mikel Markezena, etab.), esaterako. Lanketa sakonagoa eta ikerketa sistematikoa eskatzen du, halere, auziak, kontuan hartuta, era berean, hizkuntzaren antolakuntza fonologikoa ez dela eredu-erritmikoak zehaztu eta baldintzatzen dituen eragile bakarra testu-uztartzean, eta hizkuntzaren erdigunean dauden ezaugarriek ez dutela zertan ekoizpen musikala baldintzatu, kasu honetan silaben balio erritmikoak parekatuz. Abiapuntuko erreferentzia egokia izan daiteke Greenall-en (2015) lana.

berriz, 3/4 gisako konpas hirutarrak. Azken horietan azentudun *beat*-a nabarmenagoa litzateke; konpas bitarretan, berriz, musika noten arteko aldea ez litzateke horren nabarmena.

Euskaraz Katz-ek (2005: 337) aztertzen du Dorronsororen (1995) doinutegian jasotako bertso-doinuen oinarrian dauden konpasak zein diren eta zein proportziotan azaltzen diren, §6.6.2.1 atalean aurkeztu bezala: 2/4 gisako konpas bitarrak dira nagusi (%38,5), 6/8 erako bitar konposatuak datoz gero (%17,5), 3/4 bezalako konpas hirutarrak ondoren (%13) eta 5/8 gisako konpas konposatu edo sumatiboak leudeke azkenik (%10). Zenbakiok ez lukete gorago aurkeztutako joera tipologikoen aurka egingo, ez eta bete-betean babestu ere. Ikerketa gehiagoren beharra dago oinarri erritmikoak hizkuntzarekin beharbada lituzkeen loturetan sakontzeko.

9.2.4.2. Alor adierazkorra

Hizkuntzaren ezaugarri fonologikoek testu-uztartzean eta, zehatzago, kantuen edo bertso kantatuen erritmo-ereduen ezaugarrietan izan dezaketen eragina agerian geratu da egindako berrikuspenean: azentu linguistikoak eta musikalak bat etorrarazteagatik (edo hala ez egiteagatik) zein silaben egituratzeak eredu-erritmikoetan batzuetan izan dezakeen isla dela eta, besteak beste, ezaugarri batzuk izango dituzte, edo aldakortasun joera batzuk erakutsi. Hala ere, hizkuntzaren antolakuntza erritmikoa ez da kantuan aldakortasuna eragin dezakeen bakarra. Kontuan hartu behar da prosodiak askotariko egitekoak betetzen dituela edozein hizkuntzatan (ikus §4), eta horiek —horietako batzuk— kantuan ere isla daitezkeela, hitz lauz adierazi bezala edo beste moduren batera, §5.3 atalean aurreratu bezala:

“Obviously, singers use an acoustic code for adding expressivity to a performance. As pointed out by Juslin and Laukka (2003), the code is similar to that used in speech; in fact, it would be most surprising if different codes were applied in speech and singing in order to convey the same information. For example, the slowing of the tempo toward the end of musical phrases is similar to the final lengthening principle used in speech for marking the end of structural units such as sentences. Likewise, in both singing and speech, an important syllable or tone can be emphasized by lengthening its upbeat (Sundberg et al., 1995). However, the expressive code used in singing may not necessarily be simply imported from that used in speech.”

(Sundberg 2013: 99).

Bestalde, hitz lauz, metrikan zein musika instrumentalean gertatzen den bezala, eragin kultural, artistiko eta estilistiko-pertsonalak ere kontuan hartu behar dira kantuetako eredu erritmikoen ezaugarriez ari garela, dena ezin baita hizkuntzaren bitartez ulertu. Erritmo-ereduak eta horien aldakortasuna aztertzean, ulertu behar da bertsolari edo abeslariak ez dutela metronomoak agintzen duen pulsuaren arabera kantatzen zehatz-mehatz (ez bada efektu hori sortzea asmoa). Bide berean, abestutako silabei ez diete sortaileek partitura batean idatzita baleude ordenagailu batek emango liekeen iraupen zehatza ematen musika-nota eta silabei. Erritmoaren kudeaketa

adierazkorra (*expressive timing*) deitzen zaio horri musikologiaren esparruan. Egindako hainbat ikerketaren arabera (ikus Patel 2008: 114-117, berrikuspen baterako), ekoizpenek ageri ohi duten aldakortasuna ez da ausazkoa, musikariak (bertsolariak) bere obraz egiten duen interpretazioaren arrasto baizik, obraren (gure kasuan, bertsoaren) egituran eta sortzailearen intenzionalitatean oinarrituz, besteak beste (Patel 2008: 114). Ematen duenez, entrenatutako entzuleak gai dira, gainera, aipatutako alorrak hauteman eta identifikatzeko (berrikuspena Patel 2008: 115-116-n).

9.2.5. Euskarazko bat-bateko bertso-gintzan erabiltzen diren bertso-doinuen egitura erritmikoaz

Hizkuntzatik musikarako bidean, hizkuntzak testu-uztartzean duen eraginaz aritu naiz orain artean. Baina hori bezain funtsezko da doinuak berak zer-nolako eredu prosodikoa eskaintzen duen abiapuntu gisa hizkuntza bertan txertatzeko (erritmo-eredu horien izaeran sortzailearen H1ak izan dezakeen eragina alde batera utziz). Erritmo-ereduak euskaraz bertsoaren hezurdura metrikoan aurkituko ez ditugula dirudenez, bertso-doinuak eskaintzen dituen ereduak aztertzea geratzen da.

9.2.5.1. Musikaren ekarpen erritmikoak kantatzen den hizketaren ezaugarriei

9.2.5.1.1. Periodikotasunak eragindako azentuak

Hasteko, gogoratu beharrekoa da hitz lauarekin alderatuta kantuak, mendebaldeko musikan —eta aztergai ditugun bertsoetan—, behintzat, periodikotasuna dakarkiola maiz ahoskatzen den kantuari (ikus §5.3.1). Musikaren ekoizpen nahiz hautematean, formarik erregularrenetan, oinarri erritmiko gisa funtzionatzen duen *beat* edo pultsua dago (konpasa), hitz lauz ez bezala (Patel 2008: 97). *Beat* edo pultsu erregularrak indartsu-ahul txandakatzearen arabera antolatzen dira hierarkikoki, eta horrek dakar, hain zuzen, pultsu periodikoa presente egotea musikaren hautematean:

“Most notably, temporal periodicity in musical meter is much stricter than anything found in speech, and this difference has dramatic cognitive consequences. The regular periodicities of music allow meter to serve as a mental framework for sound perception, such that an event can be perceived as metrically prominent even if is physically quite weak [...]”

(Patel 2008: 141)

§3.2 atalean aipatu dut hitz lauz azentuaren ordain fonetikoak intentsitatea, garaiera, iraupena edo gertakari segmentalak izan daitezkeela. Musikan ere intentsitatea, garaiera eta iraupena azentua (nabarmentasuna) adierazteko arrasto prosodiko izan daitezke —eta, kantuz ari garela, gertakari segmentalak ere hala izan daitezkeela da pentsatzekoa—, baina horiekin batera ezinbestekoa da musikan (kantuan) periodikoa den oinarri erritmikoak eragindako azentuak kontuan hartzea, hitz

lauko azentuerekiko aurrez aurre. Izan ere, oinarri erritmikoaren *beat* indartsu eta ahulen txandakatzearekin hertsiki loturik dago periodikotasunak eragindako azentua: musikan azentudun hautematen dira *beat* edo pultsu indartsuak, baita horietan txertatutako musika-nota edo silabak ere, hitz lauz azentua adierazteko baliatzen diren ordain akustikorik gabe ere. Zenbait denbora-eskalatan hautemandako periodikotasunak eragiten du azentu-mota hau (Patel 2008: 104-105).

Musika “erregularraren” ekoizpenean entzuleak oinarrian dagoen pultsua hautematen du eta, hala, hurrengo pultsu edo *beat* indartsuak “non eta noiz” behar lukeen aurreikusten du. Joera kognitibo hori dela eta hautematen ditu azentudun hainbat musika nota eta silaba, nahiz eta intentsitate, iraupen edo garaiera nabarmenagorik ez izan, inolako arrasto prosodikorik ez izan arren (Morgan eta Janda 1989: 277).

Musikan, beraz, hitz lauz aurkitzen diren azentuerekin batera, periodikotasunak eragindako beste azentu batzuk gauzatzen dira, ekoizpenak pultsu edo *beat* indartsuak hautemateko moduko erregularitasuna duen kasuetan, betiere. Gerta daiteke kantu beraren baitan pasarte batzuk erregularrak izatea eta beste batzuk pultsu periodiko horretatik aldentzea ere.

Horrez gain, bestelako egiturazko azentu gehiago ere gauza daitezke ekoizpen musikaletan (lan honetan horietan sakondu ez dudan arren): harmoniak edo egitura musikalak —esaldi musikal baten hasierak, esaterako— eragindakoak, adibidez. Garrantzitsua da kontuan hartzea aipaturiko osagai guztiak elkarreaginean daudela musikan (kantuan), azentu- eta, zabalago, erritmo-sare konplexua osatuz.

9.2.5.1.2. Egitura: erritmo-ereduak eta taldekatzea

Hitz lauak eta bertso-neurriak egitura propioa duten bezala, obra musikal batek (bertso-doinu batek) ere bere egitura du. Egitura horren alor erritmikoan sakonduz, erritmo-ereduak aipatu behar dira konpas edo oinarri erritmikoarekiko harremanetan. Musikaren molderik erregularrean, kantatzen diren musika-nota edo silabei balio erritmiko bat ematen zaie (beltzarena, kortxearena, etab.), horiek pultsu erregularraren baitan kokatuz gune erritmiko indartsu edo ahulagoan, era berean. Forma musikal oinarritzkoenetan (bertso-doinuak halakoak direla esan genezake; ikus jarraian §9.2.5.2 atala) erreferentziazkoa den eredu-erritmiko baten —edo batzuen— errepikapen eta aldaerez osatzen da piezaren (doinuaren) paisaia erritmikoa: motibo erritmikoaren errepikapen eta aldaerez.

Eredu erritmikoen ezaugarriak funtsezko izango dira, era berean, kantuaren egitura (osagai batzuen, behintzat) adierazi eta hautemateko, taldekatze arrasto gisa (ere) funtzionatzen baitute (§10 kapituluaren heldu diot taldekatzearen gaiari).

9.2.5.2. Bat-bateko eta euskarazko bertsogintzan baliatzen diren doinuen eredu-erritmikoak

Musikak kantuaren prosodiari erritmo-ereduen alorrean egin diezazkiokeen ekarpenak modu orokorrean kokatuta, euskaraz eta bat-bateko bertsoetan erabiltzen diren bertso-doinuen ezaugarri nagusiak aletu ditut jarraian, alor erritmikoan sakonduz.

9.2.5.2.1. Bertso-doinuen egituratze erritmikoa

§6.2.1 atalean aurkeztu dut bertso-doinuen egitura. Esan bezala, lan honetan analisi musikalean baliatzen diren *sekzio*, *esaldi musikal*, *periodo* eta *motibo erritmiko* unitateak bereizi ditut, eta kapitulu honetan motibo erritmikoan sakondu dut, hori baita doinuaren eredu-erritmikoa zehazten duen oinarrizko osagaia. Gainerako gertakari erritmikoak, handiagoak direnak, taldekatzeari dagokion §10 kapituluan aztertu ditut. Motibo erritmikoa doinuetako oinarrizko elementu sortzailea da, “germena” (Schömberg [1967] 2004: 19), lehenago ere esan bezala. Bat-bateko bertso-doinuen paisaia erritmikoa sarri motibo erritmiko bakarraren eta haren aldaeren errepikapenez osatzen da (Zamacois 2004: 7). Horrekin batera kadentzia aipatu behar da, osagai musikalen amaiera adierazteko motibo erritmiko berezia. Berrito ekarri dut 12. irudia (urdinez motibo erritmiko nagusia eta haren aldaerak, laranja kadentzia, berdez periodoak horiz esaldi musikalak eta morez sekzioak).

12. irudia: Lurraren pean sar nindaiteke doinuaren egitura (XA-1982-AS-ba)

The image shows a musical score for a song. The score is written on a single treble clef staff with a key signature of one sharp (F#). The lyrics are written below the notes. Several groups of syllables are highlighted with colored boxes: a yellow box highlights the first three measures, a blue box highlights the first two measures of the second line, and an orange box highlights the last measure of the second line and the first measure of the third line. Durations in seconds (s) are indicated above the notes for each highlighted group.

Lyrics and durations:

- Line 1: Len - go txa - pe - la (0,657s), nu - e - la - ri - kan (0,994s), il - tze ba - te - an (0,425s), ja - rri - ja (1,65s)
- Line 2: u - ra gor - de - zun (0,302s), mai - te - a - re - kin (0,604s), ba - dau - kat kez - ka (0,278s), la - rri - ja (1,241s)
- Line 3: bi - jak be - ra - ri (0,657s), es - kai - ni ' a - la (0,996s), bi - la - tu mai - te (0,996s), be - rri - ja (0,996s)
- Line 4: ez ta be - rri - ja (0,486s), bai - zik za - ha - rra (0,695s), nik mai - te du - dan (0,747s), e - rri - ja (0,747s)
- Line 5: gaur - ko - a zu - ri (0,474s), es - kain - tzen di - zut (0,523s), pu - bli - ku ' a - gur (0,523s), ga - rri - ja (0,523s)
- Line 6: pu - bli - ku ' a - gur (0,523s), ga - rri - ja (0,523s)

Motiboa bera musika-notek (eta kantuan, silabek) osatzen dute, oinarri erritmiko erregularrean (halakorik bada) kokapen jakina izanik —*beat* indartsu edo ahuletan kokaturik—, eta balio erritmiko (iraupen) zehatzaz. Aztertzekoa litzateke erritmo-eredu horien ezaugarriak zer-nolakoak diren, ea bertan txertatutako silaben artean zer-nolako aldea markatzen duten, abiapuntu gisa, §5 atalean zehaztutakoari jarraiki, hizkuntzaren tipo erritmikoak doinuaren paisaia erritmikoa baldintzatzen ote duen —eta baiezkoan, nola— ikusteko³⁶⁴.

364 Auzi honi loturik, esanguratsua izan daitekeen anekdota bat aipatu nahiko nuke. 2019ko abenduan Gasteizko Sumendiola Bete Poto bertso-eskolako kideok elkartrukea egin genuen Manlleuko (Osona) Cor de Carxofa glosa-eskolako kideekin. Murgian euskaraz eta katalanez inprobisatzen zuten bertsolari eta glosadoreekin egin zen saioa, bi tradizioetako doinuak baliatuz bi hizkuntzetan. Saioa baino lehen bazkaltzen izan ginen denok elkarrekin, eta glosadore katalanetako batek hala galdetu zigun euskaraz bat-batean aritzeko erabiltzen genituen doinuez: “baina non daude azentuak zuen doinuetan?”. Antza, katalanez kantatzean ohituago zeuden —sortzaile horiek, behintzat— doinuan bertan azentu musikal markatuagoak izatera. Etorkizuneko ikerketa aberasgarria litzateke bi hizkuntzen fonologia eta inprobisazio kantatua (doinuaren ezaugarrietatik hasi eta testu-uztartzera) aztertu eta alderatzea, katalanaren fonologian azentuak eragina baduenez (gogoratu De Sistoren 2020 irakurketa, hizkuntzaren eta metrikaren arteko harremanaz, esaterako), horrek bat-bateko sorkuntza kantatuan izan ditzakeen ondorioak esploratzeko.

9.2.5.2.2. Motibo erritmikoak egitura metrikoarekin duen harremana

§6.6.2.2 atalean azaldu dut doinuaren egitura orokorra bertso-neurriarenarekin bat datorrela oinarrian (Arana-Martija 1980; Amuriza [1981] 1997; Dorronsoro 1995; Garzia et al. 2001: 83; Herri musikaren txokoa 2007). Tradizioz ezagutzen diren doinuak aztertuz gero, bertso-neurriaren oinarritzko eskakizunak betetzen dituztela ikusi ahalko dugu: 1) neurriak eskatzen duen silabakopurua (gutxienez) gauza daitekeela bermatzen duen musika-nota kopurua eta 2) puntu zein hemistikioen araberako taldekatze musikala, motibo-erritmikoen zein osagai handiagoen egituratzearen bidez.

9.2.5.2.3. Doinuetako erritmo-ereduen aldakortasuna

Doinuak azertzean kontuan hartu behar da sortzaile bakoitzak doinu bakoitza bere erara gauzatzen duela, bere erritmo-eredu zein aldaera melodikoekin, besteak beste, bakoitzak bertsoa kantatzeko estilo propioa duen bezalaxe. Bertsolari bakoitzak doinu bera kantatzen duenean ere ez du aldiro berdin kantatzen, askotariko arrazoiengatik. Eredu-erritmikoen aldakortasun eragile posible batzuk §5 atalean aurkeztu ditut, gorago: hizkuntzaren tipo erritmikoa (azentu musikaleta linguistikoak bat etorraraztea), egitura linguistikoa adieraztea (fokua, esaterako), erritmoaren kudeaketa adierazkorra (*expressive timing*), etab.

9.3. Ikerketa-galderak eta auzi metodologikoak

Hitz lauz, metrikan, testu-uztartzean zein doinuetan erritmo-ereduek izan dezaketen tokia berrikusi eta euskara horietan kokatuta, osagaiok euskaraz eta bat-bateko bertso kantatuetan nola uzartzen diren aztertu dut ondorengo ataletan, erritmo-eredu orokorrak eta aldaera nagusiak ezaugarritzea helburu. Izan ere, bertsoetako erritmo-ereduen ezagutzan sakontzea esanguratsu izan daiteke ikuspegi tipologikotik, baina baita hizkuntzak, metrikak eta musikak kantuan bat-batean duten harremana ulertu zein prosodiak dituen askotariko egitekoak eta aldakortasun eragileak ezagutzeko ere. Horretarako, corpus azterketa izan dut oinarri, hautu horrek dakartzan abantaila eta zailtasunez jakitun.

9.3.1. Azentu linguistikoaren eragina aztertzekeo zailtasunak corpus analisian

Erritmo-ereduez ari garela, egindako berrikuspenaren ondoren sortzen den galdera nagusietakoa da azentu linguistikoak kantuko (bat-bateko bertsoetako) erritmo-ereduetan eraginik ote duen. Aztertutako bertsolarien hitz lauko ekoizpenen azterketa sistematikoaren faltan, esan daiteke bertsolari guztiak kokatzen direla indar-azentua duten hizkeretatik at eta pentsatzekoa da azentuak hizkuntzaren erritmo-antolakuntzan duen eragina ez dela horren nabarmena³⁶⁵, silaba-aldiko hizkuntza batez ari garenez gero (ikus §7.2.3 eta §9.2.1.4 ataleko berrikuspena). Gainera, kontuan hartu behar da hitz mailako azentu erregularra ageri duen zuberera bezalako hizkera batean aztertutako kantuetan ere ez dirudiela azentu linguistikoak eraginik duenik kantuen egituratzean, orain artean eginiko ikerketetan eta ikerlari gehienek hautematean, behintzat (ikus §9.2.4.1.2). Azken hamarkadetako Bertsolari Txapelketa Nagusietako epai-irizpideetan azentueri buruzko oharrik ez agertzeak ere esangura izan dezake, kontrastean, silaba-kopuruari, dieresiei, sineresiei edo sinalefei buruzko irizpideak jasotzen baitira, esaterako (ikus §8.2.7.3).

Edonola ere, euskaraz azentu linguistiko eta musikalak bat datozen edo ez aztertzea ez da ingelesez edo gaztelaniaz bezain erraza corpus azterketan oinarrituta. Zaila da maiz hitz edo esaldi baten hitz lauko azentueria zein litzatekeen jakitea. Hizkeratik hizkerara alda daiteke, eta hizkera askotan testuinguruak (perpausetik hasi eta egoera komunikatiboraino) eragina du azentu-ereduen hautuan (ikus §9.2.1.4 atalean egindako berrikuspena). Hitzun berak ez du, gainera, herri hizkera eta euskara batua azentueria beraz ahoskatzen sarri, eta euskal hitzun berriak direnek ere, ez dute beti azentu-sistema bera barneratzen (Hualde 1997: 142, Oñederra 1998: 440, besteak beste).

Corpusean aztertutako bertsolarien hitz lauko ekoizpenen eta hizkuntza-ibilbideen azterketa egitea beharrezkoa litzateke kasu bakoitzean bertsoetako ekoizpena hitzun bakoitzaren hizketa-ezaugarriekin modu fidagarriagoan alderatu ahal izateko. Kontuan hartu behar da bertsolariak euskara baturantz hurbiltzen den hizkeran ari direla kantuan, beharren arabera euren hizkerako zein beste hizkera batzuetako baliabide linguistikoak erabiliz (fonologikoak, lexikoak zein morfosintaktikoak). Halaber, bertsoen eskakizun metrikoak bete beharrak dakar hoskidetasuna (errima), silaba kopurua eta silaba horien taldekatzea —hemistikio eta puntuen arabera— betetzeko batzuetan hitz-ordena bihurritzea, askotariko elipsiak egitea, hitz lauz horren ohiko ez diren moduetan egituratzea esaldiak, etab. Horrek ere zaildu egiten du azentuen hitz lauko kokapena zein litzatekeen zehaztea, kantuan eginiko ekoizpenarekin alderatzeko³⁶⁶.

365 Besterik da azentuek askotariko egitekoak betetzen dituztela hizkuntzaren prosodian (ikus §4).

366 Horren aurrean, aukera bat izan daiteke bertsolarietara euren kantatutako bertsoak errezitatzeko eskatzea, baina horrek ere hainbat arazo ekar ditzake. Batetik, testuaren erregularitasun metrikoaren ondorioz, hitzunik baliatutako azentu-ereduak ez izatea bere hizker(et)akoak, silaba-kopuru erregularrak eta hitzen taldekatzeak ahalbidetzen duen erritmikotasunari jarraitzen dioten bestelako eredu batzuk baizik. Bestetik, kontuan hartu behar da bertsolarietara aztertutako bertsoak kantatu zituztenetik urteak igaro direla, berrogei urte baino gehiago batzuen kasuan. Gainera,

9.3.2. Eredu-erritmikoen ezaugarriak eta aldakortasuna

Zailtasunak zailtasun, corpus azterketaren bidez bertsolariek kantuan zer-nolako erritmo-ereduak gauzatzen dituzten jaso daiteke, baita aldaera nagusiak identifikatu eta horien eragile posibleak proposatu ere³⁶⁷. Janda eta Morganek (1988, 1989) zein Rodríguez-Vázquezek (2010) jasotakoaren arabera, ingelesez (azentu-aldiranzko joera duen hizkuntza) joera dago kantuetako eredu-erritmikoak moldatzeko azentu linguistiko eta musikalek bat egin dezaten eta gaztelaniaz (silaba-aldiranzko joera duen hizkuntza), berriz, indartsuagoa da, neurriak eraginda, silaba-kopurua mantentzeko joera. Hala, silabak “etorri ahala, ordenan” txertatzen dira maiz musika-notetan, doinuaren erritmo-ereduak “bere horretan” mantenduz, aldaera handirik gabe.

Euskara silaba-aldiko hizkuntza izanik, gaztelaniaren antzerako joera erritmikoak izatea aurreikus daiteke. Bertsolariek gauzatzen dituzte, ordea, aldaerak erritmo-ereduetan kantuan ari direla. Horiek nolakoak diren eta zein baldintzatan, zenbateraino, gertatzen diren aztertzeak bertsoetako erritmo-antolakuntza sakonago ezagutzen lagun lezake, testu-uztartzearen ulkerera modu konplexuagoan planteatzeko aukera emateaz gain. Izan ere, testuinguru eta baldintza jakinetan bat-batean eginiko ekoizpenak dira aztergai lan honetan, asmo komunikatiboz sortuak, eta pentsatzekoa da hizkuntzaren fonologiaren gain (azentu linguistikoek izan lezaketen eraginaz gain) lan honetan berrikusitako bestelako eragile askok ere baldintzatuko dutela bertsoetako erritmo-ereduen gauzatzea.

9.3.2.1. Ikerketa-galderak

Aipatutakoak kontuan hartuta, datu-bilketa eta interpretazioa bideratu duten ikerketa-galderak ondokoak izan dira, erritmo-ereduei eta horien aldakortasunari lotuta:

- Zein ezaugarri dituzte bertsolariek kantatutako doinuen eredu-erritmiko orokorrek? Zein da horien neurria (tamaina)? Nolakoak dira erritmo-eredua osatzen duten musika-noten (silaben) balio-erritmikoak?
- Bertso-doinuaren eredu erritmikoetan nolako aldaerak gauzatzen dituzte bertsolariek? Zein neurritan (zenbat)? Nola uler daitezke horiek? Bada alderik bertsolarien artean?

Jon Lopategiren kasuan ezin da ariketa egin, 2019an zendu baitzen.

Hitz lauko azentuerek bertsoetan duten eragina testatu ahal izateko, egoki diseinatutako esperimendua egin daiteke hainbat bertsolarirekin, Janda eta Morganen (1989) bide berean, esaterako: hiztunei bertsoetan kantatzeko testu “arazotsuak” eman (azentuak zuzenean bat etorriko ez direnak), zein konponbide darabilten ikusteko (azentu linguistikoak eta musikalak bat etorrarazteko doinu-aldaerak egiten ote dituzten ikusteko). Hala ere, ariketa hori baino lehen, hiztun(ar)en azentuerek hitz lauz nolakoak diren zehaztu beharko litzateke.

Entzuleekin hautemate frogak egitea ere beharrezko litzateke, azentuen bat ez etortzeen onargarritasuna ezagutzeko. 367 Aurrera begira egin daitezkeen bestelako frogak eta azterketak diseinatzeko lagungarri da eginiko corpus azterketa.

9.3.2.2. *Datuen trataera*

Galdera horiei erantzun ahal izateko, lehenengo, bertsoen transkripzio musikala eta linguistikoa egin dut (ikus jarraian 40. irudia). Ondoren, bertsoaldi bakoitzean erabilitako doinuaren motibo erritmiko nagusiak identifikatu ditut bertsolariaren ekoizpenean oinarrituta, horien ezaugarri nagusiak jasoz. Jarraian, motibo-erritmiko nagusietatik aldentzen diren aldaerak identifikatu eta kausa posiblea zein izan daitekeen jaso dut, eredu erritmikoa hizketarekin batera interpretatuz. Izan ere, pentsatzekoa da bertsoetakoa komunikazioari horren lotua dagoen ekoizpen kantatua izanik, hizkuntza bere askotariko alorretan sarri izango dela aldaera musikalen eragile. Ondoko Lopategiren bertsoan, adibidez, urdinez adierazitako motibo erritmiko nagusiaren eredutik aldentzen dira 40. irudian berdez markatutako kasuak. Bertsolariak gauzatutako eten gehigarriak gezi laranja irudikatuta daude:

40. **Irudia:** JL-1989-GS-ge-1, motibo erritmiko nagusia, etenak eta eredu erritmiko nagusitik aldentzen diren gauzatze erritmikoak nabarmenduta

Voz

mun - du on - ta - ko jus - ti - zi - jae - re ain ger - ta - tzen da u - rri - ja

gu - txi - e - nus - te du - gun ga - ra - jan bai - ta - tor gaitz bi - u - rri - a

mun - du - an da - gon goi ' al - tue - na - ri ar - tu - na je - an neu - rri - a

o - na bi - ko - te o - so za - le - a mar - txa ' aun - di - jan ' ja - rri - a

ba - ña be - re - la bu - ka zi - tzai - gun i - lu - si - jo - en ar - gi - a

au da ' e - ne al - da - rri - a min - be - ra ' e - ta la - rri - a

la - gu - na - re - kin bi - jok gen - du - ben e - be - res - te - ne - ga - rri - ja

az - ken bo - la - dan ' o - la gal - tze - a e - zal - da ne - gar - ga - rri - ja

Bertsoaldiz bertsoaldi erritmo-eredu nagusiak eta aldaera erritmikoak aztertu ondoren, jasotako eredu erritmikoen aldaera nagusiak multzokatu ditut, aldakortasun-joeren berri modu argiagoan izateko (§9.4.2 atalean daude aurkeztuta). Ondokoak dira³⁶⁸:

368 Aldaeratzat hartu ditut bertsoan zeharreko gainerako ekoizpenarekiko —motibo erritmiko nagusiekiko— modu nabarmenean kontrastatzen duten kasuak soilik. Kortxea gisa transkribatu ditudan kasuetan, esaterako, maiz izan dut zalantza entzundako bi silaba labur bi kortxea ote ziren edo lehena puntudun kortxea eta bigarrena semikortxea.

- Eredu hasiera edo bukaerako silaba(k) luzatzea
- Egiturazko etenak³⁶⁹ ez egitea³⁷⁰, modu jarraituan kantatzea
- Eremua trinkotzea, lauago gauzatzea edo eremuak elkarrengana hurbiltzea
- Silaben balio erritmikoa parekatzea
- Hizkako edo sintagmakako multzokatzea motibo erritmiko barnean, eredu hitzen neurrira moldatuz edota eten bidez
- Silaba(ren) bat(zuk) nabarmentzea motibo erritmikoaren baitan
- Motibo erritmikoan musika nota bat (silaba bat) gehitzea

Aldaera bakoitza aurkeztuta, horien aldakortasunari erreparatu diot bertsolariz bertsolari eta, bukatzeko, datuen interpretazioa proposatu dut, aldaeren izaeraz gogoeta eginez.

9.4. Datuen aurkezpena eta kasuan kasuko interpretazio proposamena

9.4.1. Motibo erritmiko orokorren ezaugarriez

Aztertutako corpusean askotariko aldaerak jaso arren, bertsolarien joera nagusia —kasuan-kasuan eta aldeak alde— doinuak d(it)uen motibo erritmiko orokorra(k) bere horretan errepikatzea dela esan daiteke. Betiere, adierazkortasunaren araberrako erritmoaren kudeaketak ekar ditzakeen ñabardura sotilak eta pulstu erregular baina malgua kontuan hartuta. Hala, bertsolariak doinuaz duen bertsioan gauzatzen dituen erritmo-ereduetan antolatzen dira silabak, musika-notetan, balio erritmiko jakina berenganatuz —garaiera eta bestelako ezaugarri prosodiko batzuekin batera—.

Izan ere, silaben osaera segmentala bezalako faktoreek eragin dezakete horien balio erritmikoan, neurri batean. Horrelako zalantzarako kasuak ez ditut aldaera gisa jaso. Lan honetan aldakortasun erritmikoaren lehen hurbilpen orokorra egitea da helburua eta, beraz, kasurik sotilenak baztertu egin ditut.

369 Egiturazko etenen artean puntuaren eta hemistikioaren eremukoak hartu ditut kontuan kapitulu honetan. Motiboaren eremukoa (hemistikioa bitan banatzen duenean) ere egiturazko etena den arren, gertakari hori taldekatzearen atalean landu dut aldakorragoa delako, eta ez dut hemen bertsolariek motiboaren eremuko etenak egiten dituzten ala ez jaso modu sistematikoan.

370 Bertsoetako silabatzeari buruzko §8 kapituluaren hitz arteko bokal bilkurak zein C# #V elkarketak banatzeko eten laburrak jaso ditut (0,2 s baino laburragoak), maila artikulatorioan gehiago, hitzen segmentatzeari lotuta. Atal honetan 0,2 s-tik gorako etenak hartu ditut kontuan batez ere, hautematerako modu nabarmenagoan gauzatutakoak. Izan ere, ohikoa da, eten artikulatorioekin batera, bertsolariek doinu eta neurriak zehaztutako unitate prosodikoak mugatzeko etenak gauzatzea (ikus §10 kapituluaren taldekatzeari buruz). Hori dela eta, atal honetan 0,2 segundo baino luzeagoak diren etenik ez egitea hartu dut kontuan egiturazko etenak gauzatu ez direla esatean, maila artikulatorioko etenak beste plano batean kokatzen direla ulertuta.

0,2 segundoko muga arbitrarioa da, eten guztiak *continuum* batean ulertzea baita egokiena, baina bertsolarien ekoizpenetan eta hainbat hizkuntzatan egindako etenei buruzko azterketetan oinarrituta egin dut banaketa (berrikuspen baterako, ikus Fletcher 2010: 573-575). Butcher-ek (1981), esaterako, hiru multzotan bereizten ditu etenak, entzuleen hautematearen arabera: eten entzungaitzak, 0,1-0,2 s-ko iraupenekoak; eten laburrak 0,5-0,6 s-koak; eten luzeak 1-1,2 s-koak. Aztertutako bertsoetako etenak ez dira, kasu askotan, segundo bateko iraupenera helden, eta “eten isilekin” batera, kontuan hartu behar da “eten zaratatsuak” edo eremu azkeneko luzatzearen fenomenoak ere eremu prosodikoak mugatzeko egiteko dutela, neurtzeko askoz zailagoak izan arren. Gainera, bertso-doinuetako eredu-erritmikoen sarri mugatzen dute balio erritmiko luzeagoen unitate prosodiko amaiera, luzatze beharrik gabe ere. Horregatik, lan honetan hots katearen segmentatze laburra (silabatze berezia) egiten duten etenen (0,2 s baino laburragoak diren) eta eten luzeagoen arteko bereizkuntza egin dut, denak ezin jasota.

Motibo erritmiko deitu diot lan honetan oinarritzko zelula erritmiko horri (ikus gorago §6.6.2.1). Hurchek (1994, 1996), hitz lauко azentu-ereduez ari dela, zehazten du berez ez dagoela muga jakinik hizkuntzetan aurkitzen diren erritmo-ereduetarako, erritmoari dagozkion hobespenek eta hizkuntza bakoitzaren ezaugarriek eredu horien hautua baldintzatzen duten arren. Hizkuntzarekin harremanetan dauden doinuetako motibo erritmikoek zer-nolako ezaugarriak dituen aztertzea esanguratsua izan daiteke euskarazko testu-uztartzearen ezagutzan sakontzeko: zein ezaugarri erritmiko dituen doinuak eskaintzen dituen oinarriak, hizkuntza bertan —sortzaile zein entzuleentzat modu onargarrian, printzipioz— txerta dadin.

Corpusean aztertutako bertsoetan —bertso-doinuetan— baliatutako motibo erritmikoen dimentsioei dagokienez, lau-bost musika-notako (silabako) tamaina izan ohi dute txikienek, melismak³⁷¹ kontuan hartu gabe. Hala, molde handiko neurrietan hamar silabako hemistikio barneko 5 + 5 taldekatzea markatzen dute erritmo-ereduek batzuetan. Esaterako, *Oraindik hango oihartzun hots bat*³⁷² doinuak (urdin ilunez mugatuta dago motibo erritmikoa 41. irudian).

41. irudia: *Oraindik hango oihartzun hots bat* doinua, Lujanbiok kantatu bezala (ML-2017-BB-8H-1)

371 Melisma musika-nota batez baino gehiagoz kantatutako silaba da. Motibo erritmikoak aztertzean, kontuan hartu dudana izan da zenbat silaba “kabitzen” ziren. Silaba eta musika noten arteko harremanaz, §10.4.1.5 atalean sakondu dut.

372 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/3491-oraindik-hango-oihartzun-hots-bat> (azken kontsulta: 2023-11-02).

Kasu horietan, kadentziak sarri hiru silabaz osatzen dira (41. irudian, urdin argiz markatuta). Horrela, molde handiko neurrietan, motibo erritmikoak bost silaba baditu, puntua osatzen duen bigarren hemistikioa, zortzi silabakoa, eraikitzen da 5 + 3 silaba eginda, goiko 41. irudian ikus daitekeen bezala.

Motibo erritmiko handienek 7-8 musika-nota (silaba-gune) izan ohi dituzte. Molde txikiko neurrietan sarri (lehen) hemistikioaren tamainarekin bat egiten dute ereduak. *Orioko balearena*³⁷³ doinuak, adibidez:

42. irudia: *Orioko balearena* doinua, Arzallusek kantatu bezala (AA-2013-GS-8tx-1)

The image shows a musical score for the song 'Orioko balearena'. It consists of five staves of music in treble clef, with lyrics written below each staff. The lyrics are: 'Zu - ga - ni - lu - si - o bat jo - an zen gor - puz - ten', 'Su - bi - ja - na ta ' Ar - zak ' a - tzez ' e - ra - kus - ten', 'ze - ni - on zen - ba - ti - zar Mi - txe - lin di - tuz - ten', 'ba o - rai - ni a - ri nai - zi - za - rra - ki - kus - ten', and 'ba o - rai - ni a - ri nai - zi - za - rra - ki - kus - ten'. The score includes various rhythmic markings, such as 'X' above notes and time signatures like 3/8, 2/4, 3/8, and 6/8. There are also numerical values indicating durations: 0,862s, 0,652s, 0,726s, and 0,424s.

Kasu horietan, kadentziak ez du maiz eredu erritmiko bereizirik. Eredu erritmiko orokorra moldatuz (musika-nota bat kenduta, gehienetan) gauzatzen da silaba bat gutxiago —molde txikian, 6 silaba— duen hemistikioa, goiko 42. irudiko adibidean ikus daitekeen bezala.

Batzuetan, motibo erritmiko bat baino gehiago ditu doinuak abiapuntu gisa. Hori da bakarkako gaietarako baliaututako doinu luzeago batzuen kasua, nagusiki³⁷⁴. Esate baterako,


373 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/593-orioko-balearena> (azken kontsulta: 2023-11-02).

374 Hainbatetan egungo —azken hamarkadetako— kantuetatik moldatutakoak izan ohi dira eta hortik azal daiteke beharbada konplexutasun erritmiko handiagoa.

Lujanbiok Laboaren kantutik abiatuta proposatutako *Eguzkiak urtzen du han goian B*³⁷⁵ doinuarena (corpusean, ML-2009-GS-ge).

Motibo erritmikoez biltzen dituzten balioei dagokienez, askotan bi maila nagusitako kontrastea egiten dutela esan daiteke, beltza (bi kortxeako balioduna) —edo puntudun beltza, hiru kortxeako balioa duena— eta kortxea gisa definitu ditudan eginiko transkripzioetan³⁷⁶. Era berean, maila horiek gehiagotan zatika daitezke, kortxeari puntua gehituz gero, etab.

43. irudia: Balio erritmiko eta aldaera posible batzuk



Irudian jasotako ereduak bezalakoak ere gauzatzen dituzte bertsolariek, puntudun balioek edo semikortxeak bezalakoek erritmo-ereduetan maila gehiago ekarriz ekoizpenari. Kortxeen kasuan sarri zaila da zehazten, edonola ere, noiz duten elkarren ondoan dauden bi kortxeak balio bertsua eta noiz dauden mailakatuta (puntudun kortxea + semikortxea) gisa, silaben egituratze segmentalak zein erritmoaren kudeaketa adierazkorrak halako ñabardura eta aldaketa txikiak baitakartza sarri. Horiek batzuetan esanguratsuak dira hizkuntzarekiko harremanetan, §9.4.2 atalean azalduko dudana bezala, baina beste batzuetan silaba osatzen duten segmentuei egotz dakieke iraupen aldakortasuna—.

Beste hainbatetan, hiru maila bereiz daitezke abiapuntu gisa, semikortxea gisa irudikatu ditudan sartzen baitira jokoan. *Iparragirre abila dela* doinuko puntu motzetan, adibidez:

44. irudia: *Iparragirre abila dela* doinuko puntu motzen erritmo-eredu orokorra



Edonola ere, paper gainean konplexuago irudika daitezkeen erritmo-ereduak (44. irudian jasotako semikortxea horiek, esaterako) gauzatzean asko txikitzen da silaben arteko alde erritmiko (teoriko) hori, aztertutako bertsoetan behintzat.

375 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/3211-eguzkiak-urtzen-du-han-goian-b> (azken kontsulta: 2023-11-02).

376 Beltzak konpas bitar batean pulsu edo *beat* baten balio osoa hartuko luke, eta kortxeak, berriz, erdia. Konpas hirutarretan, puntudun beltza litzateke pulsu osoaren balioa lukeena, eta hiru kortxea lirateke horren balioa.

9.4.2.1. Eremu hasiera edo bukaerako silaba(k) luzatzea³⁷⁸

Identifikatutako aldaera nagusietako bat da doinuak edota metrikak jada mugatzen duen osagai bat gehiago mugatzea, eremu hasierako edo bukaera aldeko silabak luzatuz. Taldekatze arrasto gisa funtzionatzen du luzatze horrek osagai jakinaren hasiera edo amaiera nabarmenago adierazten baita (ikus §10.2.6 taldekatze arrastoez).

Aztertutako corpusean mota honetako hainbat aldera bereizi ditut, kasu batzuetan konbinatuta gauzatzen direnak:

- Batzuetan, anakrustikoa den lehen silaba luzatu eta hurrengo silaben balio erritmikora luzatzen da (motzagoa bada motibo erritmiko nagusian). Anakrustiko izatetik tetiko gauzatzerara ere pasatzen da aldaera batzuetan, *beat* indartsuarekin batera gauzatuta (azpimarratutako silaba da luzatu edota tetiko gauzatutakoa): *ta.zuk.ar.tu.mi.ña* ‘eta zuk hartu mina’ (XA-1980-BB-8tx-2), *ez.tau.ka.gu.‘ma.kal* ‘ez daukagu makal’ (XA-1982-GS-10tx-2), *ba.ña.la.gu.nah* ‘baina laguna’ (JL-1989-GS-ge-2), *e.sa.te.nun.bai* ‘esaten nuen, bai’ (AE-1997-GS-ge-1), *e.tzai.taz.tu.ko.se.ku.la* ‘ez zait ahaztuko sekula’ (AE-2001-BB-Ip-2), *e.rre.le.bo.a.dut.‘ger.tu* ‘erreleboa dut gertu’ (AE-2005-GS-ha), *qua.po.nai.al.tzen.du.ke* ‘guapo, nahi al zenuke’ (ML-2009-GS-8tx-1), *ja.ki.zu.o.ke.rre.na* ‘jakin ezazu okerrena’ (AA-2013-GS-8tx-3), *zer.no.la.tan.za.bil.tzan* ‘zer-nolatan zabiltzan’ (ML-2017-GS-8tx-3), etab.

Adibide bat sakonago aztertuz, ondoko irudian *Itsaso hori dago zatarra* doinuaren motibo erritmiko nagusia dago jasota Egañak 1997an (AE-1997-GS-ge-1) kantatu bezala —‘nere bizio’ sintagma kantatzean—, eta ondoren eredu haren aldaera erritmikoa *e.sa.te.nun.bai* ‘esaten nuen, bai’ ahoskatzean (AE-1997-GS-ge-1), lehen silaba tetiko gauzatuta anakrustiko beharrean³⁷⁹. Azpimarratuta daude bi kasuetan musikaren pultsu periodikoak eragindako azentudun silabak, eredu nagusian eta aldaeran ez baitira berberak.

378 Ez dut aldaera gisa hartu eremu azkeneko silaba jada luzea gehiago luzatzea.

379 Teknikoki silabak (musika-notak anakrusan egoten jarraitzen du 4/4-ko konpasean transkribatu dudanez bertsoa, lehen hiru silabak lirakeelako anakrusaren parte. Edonola ere, *beat*-aren gune ahulean egotetik gune indartsuan egotera igarotzen da. Horregatik diot aldaerak silaba hori “tetiko” bilakatzen duela; *beat* edo pultsuaren azentua jasotzen duelako.

46. irudia: *Itsaso hori dago zatarra* doinuaren motibo erritmiko nagusia eta haren aldaera bat (AE-1997-GS-ge-1)

ne.re. bi. zi. o e. sa. te. nun.bai

- Beste batzuetan, puntu amaieran, azken aurreko silaba —sarri azentugabea edota anakrustikoa— inguruko balio erritmiko paretsura luzatzen dute bertsolariek, eremu bukaerako hainbat silaba balio erritmiko luzeagoz kantatuz (azpimarratutako silaba da luzatutakoa): *au.rre.ra.a.‘a.tze.ra* (XA-1980-BB-8tx-4), *jau.nak.pa.ra.bo.la* (XA-1982-GS-ge-2), *a.ma.kon.tso.la.ga.rr*í** (JL-1989-GS-10tx-1), *gu.gen.jei.ma.jo.a.te.a* ‘Guggenheim-a joatea’ (AE-1997-AS-ge-3), *bi.o.ko.sa.tzen.de.gu* ‘biok osatzen dugu’ (AE-2001-AS-10tx-3, errepikan), *ba.ñao.rain.dik.ka.paz.naiz* (AE-2005-BB-8tx-1), *o.rain.‘o.pa.ro* (ML-2017-GS-8H-2), etab.

Ikus, esate baterako, Amurizaren ondoko adibidean nola luzatzen duen azken aurreko silaba, doinuaren eredu nagusia zertxobait eraldatuta:

47. irudia: XA-1980-BB-8tx-4, erritmo-eredu nagusia eta haren aldaera bat.

ja. jo.a. e. tze. ra. au. rre.ra. a.tze. ra

- Hirugarren aukera gisa, hemistikio amaierako silaba luzatzen dute sortzaileek hainbatetan, doinuaren motibo erritmiko nagusiak hala egiten ez duenean, osagai metrikoa musikalki ere mugatuz. Gertakari hau puntua osatzen duen lehen hemistikioa mugatzeko gauzatzen da nagusiki, molde txikiko neurrietan, maiz eredu erritmiko nagusia puntuaren arabera egituratzen baita. Hemistikioaren eremu azkeneko luzatze erritmiko bidez osagai metrikoa mugatzen du kantuan bertsolariak, esan bezala, nahiz eta doinuak abiapuntutik hori ez markatu: *e.ma.ku.me.tan.ba.da* (XA-1982-AS-ge-1), *la.sai.ga.to.ze.ni.kan* ‘lasai gatozenik’ (SL-1986-AS-ha), *tra.go.ar.tu.bai.ba.ño* ‘tragoa hartu bai baina’ (ML-2009-AS-ptk-7), *ta.‘be.ra.mu.gi.tu.ta* ‘eta bera mugituta’ (ML-2017-AS-ptk-8), etab.

Lizasoren 1986ko ondoko 48. adibidean (SL-1986-AS-ha) ikus daiteke bertsolariak nola mugatzen dituen hemistikioak lehen bi puntuetan, kasu bakoitzean lehen hemistikioako azken silaba luzatuta (kortxea gisa gauzatu beharrean beltzaren balio luzeagoa emanez). Azken silaba luzatzearekin batera, etena ere gauzatzen du bertsolariak bi kasuetan lehen hemistikioaren ondoren, eremu edo osagai prosodikoak mugatzeko baliatu ohi diren taldekatze arrasto nagusietako bi —elkarri hertsiki lotuak— agerian utziz: eremu azkeneko luzatzea eta etena³⁸⁰ (ikus §10.2.6). Irudian lauki urdinez dago markatuta eredu erritmiko nagusia, eta berdez Lizasok gauzatutako aldaera erritmiko bidez mugatutako lehen bi puntuetako hemistikioak. Laranja luzatutako silabak eta eginiko eten “gehigarriak”.

48. irudia: *Maritxu nora zoaz I* doinuan Lizasok kantatutako bertsoa, hemistikioaren eremua mugatzeko aldaera erritmiko eta etenekin (SL-1986-AS-ha).

A - rra - tsal - de on be - rri - ro lan za - llak da - toz - te
 5 la - sai ga - to - ze - ni - kan i - ñor - ke e - zus - te
 9 mi - lla ner - bi - o kla - se mi - lla bu - ru - aus - te
 13 gu - txi - ñe - ze - gin - go al da goi - ze - a - nain - bes - te

Eremu hasiera edo bukaerako silabak luzatuta bertsolariak egiten dituzten aldaera nagusiak aurkeztuta, esan behar da azaldutako hiru aukeretatik, lehena dela bertsolari gehienek oparoen darabiltena: eremu ekineko silaba luzatzea edo tetiko gauzatzea (Lizaso litzateke salbuespen, 1986ko txapelketan, eta Egaña 1993koan). Bertsolari bakoitzak zein aldaera eta zein adibidetan

380 48. irudian jasotako adibideak baditu bestelako ezaugarri aipagarri batzuk: bertsolariak, eredu erritmikoa eraldatuta, silaba gehigarriak kantatzen dituela, besteak beste. Gertakari horri aurrerago heldu diot, §10 atalean.

darabilen ikusteko, jo II. Eranskinera.

9.4.2.2. Egiturazko etenak ez egitea, modu jarraituan kantatzea

Bertsolariak kantuan paisaia erritmikoa —eta taldekatzea (ikus §10)— eraldatzeko duen beste baliabide bat “espero izatekoak” diren egiturazko etenak, metrikak zehaztuak nagusiki, ez egitea da. Aldaera honetan berezi behar dira, gorago aurreratu bezala, doinuak bere motibo erritmikoaz taldekatze metrikoak markatzen ez dituen kasuak (*Maritxu nora zoaz I* doinua, adibidez³⁸¹; ikus §10.4.1 atala) eta, bestela, bertsolariak doinuak ere dakarren taldekatze-joerari aurka eginez, modu jarraituan kantatutako osagai metrikoak.

Ikus, esaterako, ondoko adibidean, Arzallusek puntuaren eremua nola gauzatzen duen modu jarraituan, hemistikioaren eremua mugatu gabe, aldaera erritmikoaz baliatuz —eremu bukaera adierazi behar lukeen balio erritmiko luzeaz gauzatu beharrean hemistikio bukaerako silaba, inguruko balio erritmiko paretsua emanaz— (berdez dago adierazita aldaera erritmikoa, urdinez motibo erritmiko nagusia):

49. irudia: AA-2013-AS-ptk-7

Ametz Arzallus (AA):

Ti - raez ta gaiz - ki ' ir - ten le - e - na - le - gi - ña

Beñat Gaztelumendi (BG):

bi - ga - rre - ne - ze - gin - go , al de - gu ber - di - ña

AA:

bai pix - kat ki - li - ma - tu zait bi - o - tzix - ki - ña

BG:

ai an - tze - ko - a - go - ak , e - to - rri ba - gi - ña

381 Ikus gorago 48. adibidea Lizasok (SL-1986-AS-ha) *Maritxu nora zoaz I* doinuan kantatutako bertso baterako. Doinuak eskaintzen duen eredu erritmikoan aldaerak egiten ditu bertsolariak hemistikioaren eremua markatzeko eremu azkeneko luzatze eta eten bidez.

Azken mota horretako aldaerei erreparatuta, gainditzen den eremu metriko nagusia hemistikioarena da. Bertsolari guztiek dute, maila handiago edo txikiagoan, hemistikioaren eremua eten nabarmenik gabe ahoskatzen duten adibideren bat. Puntuaren eremua ere gainditzen da, baina kasu gutxi batzuetan (gertakari horien interpretazio xeheagorako, ikus §10.4.1 atala, taldekatzeari buruzko kapituluan). Bertsolarien arteko aldakortasunari erreparatuz gero, Jon Lopategi (1989) eta Andoni Egaña (1993, 1997, 2001, 2005) dira etenen gauzatze erregularrena egiten duten bertsolariak, kasu gutxitan ahoskatzen baitute hemistikioaren eremua etenik egin gabe. Etenen gauzatze-ez gauzatzearekin gehien jokutzen duen bertsolaria Maialen Lujanbio (2009, 2017) da, hemistikioaren eremuaz gain puntuarena ere gaindituz hainbatetan, etenei dagokienez.

Bertsolari bakoitzak zein talde metriko eta zein bertsolatan gainditzen duen ikusteko, jo II. Eranskinera.

9.4.2.3. Eremua trinkotzea, lauago gauzatzea edo eremuak elkarrengana hurbiltzea

Gertutasuneko printzipio topologikoaren arabera, elkarrengandik gertu dauden osagaiak talde beraren parte gisa hautematen ditugu; Behaghel-en legea orokortuz Donegan eta Stampek proposatzen dutenez, “[w]hat goes together in sense, goes together in time” (Donegan eta Stampe 1983: 9). Unitate prosodiko bateko osagaiak elkarrekiko lotuago gauzatzearekin lotzen da ondoko aldera erritmikoa: eremu jakin bat osatzen duten silaba batzuk laburtu eta inguruko silabekiko gertuago gauzatzean datza. Hainbat aldaera sar daitezke multzo honetan:

- Batzuetan motibo erritmikoko lehen silaba edo motiboko barreneko beste silabaren bat, laburrago gauzatuta, ondorengo silab(ar)ekin lotuago gauzatzen —eta hautematen— da (azpimarratuta laburtutako silabak): *la.pu.rrik.aun.di.je.nak* ‘lapurrik handienak’ (x2) (XA-1980-AS-ES-1), *e.gun.‘a.re.tan* ‘egun haietan’ (XA-1982-GS-8H-2), *go.goz.jo.e.ta.su* (JL-1989-GS-10tx-1), *ba.rre.ne.ko.‘a.rra* ‘barreneko harra’ (AE-1993-GS-9phtz), *i.raul.tza.rik.sa.ko.ne.na* (AE-1997-GS-8H-3), *a.tza.par.bi.zu.ri.ak* (AE-2001-AS-10tx-2), *ga.ñe.ra.‘el.bu.ru* ‘gainera helburu’ (AE-2005-GS-10tx-1), *be.re.be.so.e.ta.ra.ño* ‘bere besoetaraino’ (AA-2013-BB-ge-2), *pa.kis.tan.‘ma.ro.ko.tik* ‘Pakistan, Marokotik’ (ML-2017-GS-10tx-2), etab. Aldaera hauetan, inoiz, laburtzen den silabaren hurrengo silab(ar)ekin lotuago gauzatzeaz gain, laburtzen denaren ondoko silaba nabarmendu egiten da, azken horrek erritmikoki eredu nagusiarekiko aldaketarik jasan ez arren. Esaterako, *do.nos.ti.a.ko* ‘Donostiako’ (AA-2013-GS-ge-1) adibidean, lehen silaba laburtu eta anakrustiko gauzatuta *beat* indartsuaren azentuera galdu egiten du eta bigarren silabak hartzen du pisu handiagoa (Donostiako), hitz lauz akaso emango geniokeen azentu-eredutik

gertuago agertuz. Beste batzuetan, guztiz kontrakoa gertatzen da, edonola ere: nabarmendutako silaba gehiago aldentzen da hitz lau akaso lukeen erritmo-eredutik. Goiko adibide multzoko batzuk izan daitezke horren adibide.

Lopategik, kasu, 1989ko ondoko bertsoan jada kokapen erritmiko ahulean dauden zenbait silaba gehiago laburtzen ditu, hurrena datozen silabekiko gertuago ahoskatuta (irudian berdez borobilduta daude modu nabarmenean laburrago gauzatutako silabak):

50. irudia: JL-1989-GS-10tx-1

Le - nen - go - a **nu** - en da ain - bes - te ' a - ra - zu

a - ma kon - tso - la - ga - rri be - ti - zan za - ra zu

ba - te - ki - nen **bi** - le - ni go - goz **je** e - ta su

ne - re gal - de - ra ' o - ni e - gi - o - zu ka - su

zen - ba - ga - rren gi - zo - na e - txe - an dau - ka - zu

zen - ba - ga - rren gi - zo - na e - txe - an dau - ka - zu

- Aldaera oso orokortua da, multzo honetan, eremu erritmikoko azken aurreko silaba laburtzea. Horrela, silaba hori ingurukoetara gerturatzeaz gain, azken silaba luzea nabarmenago geratzen da, taldekatze arrasto gisa gehiago azpimarratuz eremu amaiera (azpimarratuta laburtutako silaba): *nik.kan.ta.tzen.dut* (XA-1980-GS-8H-3), *al.pe.rri.kan.‘zq.biltz ‘alferrik zabilta’* (XA-1982-AS-8tx-1), *ga.rai.ba.te.an* (AE-1993-GS-6mtz-3), *ne.re.ber.tso.ak.sal.tze.an* (AE-1997-GS-ge-2), *as.pal.di.pa.se.a.da* (AE-2001-GS-

pe-3), *gal.de.tu.‘a.ri* ‘galdetu hari’ (AE-2005-BB-10H-3), *ba.ña.bi.otz.ba.rru.ko.a* ‘baina bihotz barrukoa’ (ML-2009-BB-ge-2), *ba.ña.be.gi.ak* ‘baina begiak’ (AA-2013-GS-ge-2), *be.ar.tu.‘be.ar.den* ‘behartu behar den’ (ML-2017-AS-ge-2), etab.

Ikus, adibidez, Egañak ondoko adibidean *Aita izena kanta beharrak* doinuaren motibo erritmiko nagusia eta azken aurreko musika-nota (silaba) laburtuta duen aldaera nola gauzatzen dituen 2005ean:

51. irudia: *Aita izena kanta beharrak* doinuaren motibo erritmiko nagusia eta azken aurreko musika-nota (silaba) laburtuta duen aldaera (AE-2005-BB-10H-3).



- Azkenik, eremuak trinkotzeko egitekoetan, bada aldaera bat, kasu gutxi batzuetan gauzatzen dutena bertsolari batzuek: motibo edo hemistikio bateko azken silaba laburrago gauzatzen dute, eremu horren azkeneko luzatze arrastoa litzatekeena kenduz, eta horrela hurrengo talde prosodikoari loturik edo gertuago gauzatuz eta hautemanez laburtutako silabaren bi aldeetara dauden bi eremuak, hots katea trinkotuz (azpimarratuta laburtutako silabak): *nik.mai.te.du.‘dan*, ‘e.ri.ri.‘ja ‘nik maite dudan herria’ (XA-1982-AS-ba) *min.bi.zi.du.te.bi.u.me.‘e.ri.be.gi.ra.be.gi.ra.na.go* ‘minbizia duten bi umeei begira-begira nago’ (ML-2009-AS-ge-1), *de.xen.te.‘zar.tu.da.ba.ña.‘a.ma.bi.zi.rik.dau.kat.ño* ‘dezente zahartu da baina ama bizirik daukat, ño’ (AA-2013-BB-ge-2), etab.

Amurizak, 1982an, kasu, motibo erritmikoak mugatzen duen taldea lausotzen du, hots katearen jarraitutasuna areagotuz motibo erritmikoko azken silaba laburtuz —eta azken aurrekoa luzatuz, aldaera erritmikoan— (52. irudian laukizuzen berdez mugatuta dago aldaera, eta laranjaz borobilduta trukaturako balio erritmikoak; urdinez eredu erritmiko nagusia):

52. irudia: XA-1982-AS-ba.

The image displays a musical score for a piece titled '52. irudia: XA-1982-AS-ba.'. It consists of six staves of music, each with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The lyrics are written below the notes, and various timing annotations in seconds (s) are placed above the staves. The lyrics are: 'Len-go txa - pe - la nu - e - la - ri - kan il - tze ba - te - an ja - rri - ja', 'u - ra gor - de - zun mai - te - a - re - kin ba - dau - kat kez - ka la - rri - ja', 'bi - jak be - ra - ri , es - kai - ni , a - la bi - la - tu mai - te be - rri - ja', 'cz ta be - rri - ja bai - zik za - ha - rra nik mai - te du - dan , e - rri - ja', 'gaur - ko - a zu - ri , es - kain - tzen di - zut pu - bli - ku , a - gur - ga - rri - ja', and 'pu - bli - ku , a - gur - ga - rri - ja'. A green box highlights the phrase 'nik mai - te du - dan , e - rri - ja' on the fourth staff, and a red circle highlights the word 'dan' within this phrase. Timing annotations include 0,657s, 0,994s, 0,425s, 1,65s, 0,302s, 0,604s, 0,278s, 1,241s, 0,657s, 0,996s, 0,486s, 0,695s, 0,747s, 0,474s, and 0,523s.

Irudian ikus daitekeenez, aldaeran motibo erritmikoaren eremua kadentziarenetik gertuago gauzatu arren, hizkuntza mugak mantendu egiten dira (silabatze bereizi eta guzti).

Jasotako aldaeren artean eredu erritmikoko azken aurreko silaba laburtzearena da oparoena, bertsolarien arteko aldeak nabarmenak diren arren: Egañak (1993, 1997, 2001, 2005) darabil baliabide hori gehien; Lizasok (1986) eta Lopategik (1989) gutxien, aztertutako bertsoetan. Bertsolari bakoitzak zein aldaera eta zein adibidetan gauzatzen duen ikusteko, jo II. Eranskinera.

9.4.2.4. Silaben balio erritmikoa parekatzea

Aurreko aldaerari loturik, silaba kate zabalagoari eragiten dion gertakaria da silaben balio erritmikoa parekatzearena: eredu erritmikoan eginiko aldaeren ondorioz, elkarren segidan dauden hainbat silabek antzeko balio erritmikoa hartzen dute —hala ere, parekatutako hots katean silaba

batzuk azentudun hauteman daitezke, noski—. Batzuetan, silaben balioa parekatzeaz gain, bertsolariek kantuan darabilten pulsu malgu baina erregularretik aldendu eta hitz lauко gauzatetik gertuago leudekeen eran ahoskatzen dituzte silabak, *tempo* azkarragoan eta eredu erritmiko horren markatu eta neurtuak gauzatu gabe. Hitz edo motibo erritmikoaren eremutik puntuaren eremuraino joan daiteke silaben parekatze-eremua eta, edozein kasutan, berdindutako silaben talde prosodikoa trinkotu egiten da, bere baitan hainbat osagai bazeuden, horiek elkarrengana hurbilduz edo talde bakarrean bateratuz, erritmikoki (azpimarratuta parekatutako silabak): *ai.zer.‘a.tse.gi.ña* ‘ai, zer atsegina’ (XA-1982-GS-ge-3), *be.gi.ra.zer.di.zu.tan* ‘begira zer dizudan’ (SL-1986-GS-ge-3), *lo.ta.nal.tzen.den.‘e.ne.jaun.goi.ko* ‘lotan al zeunden, ene jaungoiko’(AE-1993-GS-6mtz-1), *kan.pa.ña.o.ri* ‘kanpaina hori’ (AE-1993-AS-10H-3), *po.rru.au.e.ni.ze.ne.an* ‘porru hauen izenean’ (AE-1997-GS-ge-3), *ge.jen.‘es.ti.ma.tzen.dut* ‘gehien estimatzen dut’ (AE-2001-BB-9phtz, errepikan), *tai.a.len.bai.le.ni.ris.ten.zai.gun* ‘eta ea lehenbailehen iristen zaigun’ (AE-2005-GS-8H-3), *sa.be.lo.to.do* (AE-2005-AS-ge-2), *ar.tu.be.so.ta.ne.ta.e.man.ne.ri.mu.xu* ‘hartu besoetan eta eman niri musu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *ba.dau.kat.nai.ko.‘es.pe.rien.tzi.a* ‘badaukat nahikoa esperientzia’ (ML-2009-GS-ge-2), *i.ra.kur.tzeu.tsa.re.ki.ni.ga.xo.tu.nin.tzen* ‘irakurtze hutsarekin ni gaixotu nintzen’ (AA-2013-GS-8tx-2), *nik.gei.a.goe.ma.ten.dut* ‘nik gehiago ematen dut’(AA-2013-AS-ptk-1), *ba.ña.gi.zar.teon.ta.ko.pa.no.ra.ma.re.kin* ‘baina gizarte honetako panoramarekin’ (ML-2017-GS-10tx-3), *fa.mi.li.a.ke.re* ‘mu.ziñ ‘famiak ere muzin’, (ML-2017-GS-ge-3), *u.nai.es.na.tu* (ML-2017-GS-8H-2), etab.

Adibideak aztertuta, esan daiteke silaben balio erritmikoa parekatzearen bidez batzuetan hitzak trinkotzen direla: *ge.jen.‘es.ti.ma.tzen.dut* ‘gehien estimatzen dut’ (AE-2001-BB-9phtz, errepikan). Beste batzuetan, berriz, hots kate luzeagoa hizketa lauко moldeetara hurbiltzen da, abiadura edota adierazkortasuna emanez hala gauzatutako pasarteei, modu “neurritsu edo neurtuagoan” kantatutako atalekin kontrasteaz: *ar.tu.be.so.ta.ne.ta.e.man.ne.ri.mu.xu* ‘hartu besoetan eta eman niri musu’ (ML-2009-GS-8tx-3). Aipagarria da gauzatze zabalago horietako asko bertso amaieran gertatzen direla, azken puntuan edo azken puntutik gertu, eta adierazkortasun baliabide gisa uler daitezke sarri (ikus §10.4.1.4, taldekatzeari buruzko kapituluan. Kasu batzuen azterketa zehatzagorako, ikus Aizpurua 2019a).

Esate baterako, Arzallusen ondoko bertsoan azken bi puntuen hasieretan —errepika baino lehen— azter daiteke silaben balio erritmikoa parekatzea, aurreko puntuetako eredu erritmiko nagusiarekin kontrasteaz.

53. irudia: AA-2013-GS-8tx-3

Gla - mur pix - ka - te - ma - nez piz - tu bi kan - de - la

ja - ki - zu o - ke - rre - na ba - ña ze - ra de - la

e - txe - ra - ko ' ain nu - en ' aur - pe - gi zi - me - la

ba - te pos - tre - ri(k) ga - be gel - di - tu gi - ñe - la

ba - te pos - tre - ri(k) ga - be gel - di - tu gi - ñe - la

Bertsolarien arteko aldakortasunari erreparatuz gero, bi taldetan banatzen dira, modu nabarmenean: Amuriza (1980, 1982), Lizaso (1986) eta Lopategi (1989) daude, batetik, lauzpabost silaba parekatuz, askoz jota. Horien artean Lizaso da silaben balioa gehien parekatzen duena, adibide gutxi batzuetan. Bestetik, Egaña (1993, 1997, 2001, 2005), Lujanbio (2009, 2017) eta Arzallus (2013) ditugu, azken bi bertsolariak izanik eremu handienak parekatzen dituztenak aztertutako bertsoetan: hemistikioaren eta puntuaren eremuak, batzuetan³⁸². Bertsolari bakoitzak zein aldaera eta zein adibidetan gauzatzen duen xeheago ikusteko, jo II. Eranskinera.

9.4.2.5. *Hizkako edo sintagmakako multzokatzea motibo erritmiko barnean, eredia hitzen neurrira moldatuz edota eten bidez bereiziz*³⁸³

Bertsolariek gauzatutako aldaera erritmiko batzuetan, kantatutako hitz eta sintagmen mugak —hitz edo sintagmen ekinak edo amaierak— adierazten dira.

- Maiz, motibo erritmiko nagusia eraldatuta, balio erritmiko luze(ago)ekin markatzen da hitz edo sintagmen lehen edo azken silaba (azpimarratuta luzatutako silabak): *kri.mi.na.len.pa.re*

382 Egañak ere parekatzen ditu silabak hemistikioaren eremuan, baina neurri txikiagoan; bere kasuan motiboaren eremu barreneko parekatzea da nagusi. Ikus II. Eranskina.

383 Gorago aipatu bezala, 0,2 segundotik gorako etenak hartu ditut kontuan kapitulu honetan.

(XA-1980-AS-ES-1), *e.men.jar.tze.a* ‘hemen jartzea’ (XA-1982-BB-ge-2), *min.ga.ñq.lo.ri.tu.a* ‘mingaina loditua’ (SL-1986-GS-ge-2), *e.gin.di.tu.ta* ‘egin ditu eta’ (JL-1989-GS-8H-2), *ne.re.bu.ru.a* ‘nire burua’ (AE-1993-GS-8H-2), *ge.je.gik.gu.txi.e.gi* ‘gehiegik gutxiegi’ (AE-1997-GS-htz), *ze.ñen.xe.le.bre.zau.den* ‘zeinen zelebren zauden’ (AE-2001-GS-8tx-2), *za.ti.tzen.gai.tu.en.rai.a* ‘zatitzen gaituen raya’ (AE-2005-GS-8H-3), *pla.te.ra.su.kal.de.ra* ‘platera sukaldera’ (ML-2009-AS-10tx-2), *ze.ni.on.zen.ba.ti.zar* ‘zenion: zenbat izar’ (AA-2013-GS-8tx-1), *de.na.pa.rra.de.na.bi.tsa* ‘dena aparra, dena bitsa’ (ML-2017-GS-8H-2), etab.

Ondoko 2001eko bertsoan, esaterako, Egañak hitzen arabera moldatzen du eredu erritmiko nagusia hirugarren puntu hasieran, hitzen azken silaba luzatuta. Irudian, urdinez lehen hemistikioaren eredu erritmiko nagusia, eta berdez hizkako aldaera —luzatutako silabak laranjaz—:

54. irudia: AE-2001-GS-8tx-2

The image shows a musical score for the phrase "ze.ñen.xe.le.bre.zau.den". The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 6/8 time signature. The lyrics are: "On - dar - tzan ba - ze - nu - ke , nai - ko kon - pro - mi - su ez jo - an - da ' o - be da o - rra nik , a - bi - xu ze - ñen xe - le - bre zau - den ai ai - to - na ' ai - zu ka - ra - ko - lak pa - rrez - ka a - si - ko zaiz - ki - zu la - rai - la - ra - ra - la - ra - ra a - si - ko zaiz - ki - zu".

Annotations in the score include:

- A blue box highlights the first hemistich: "On - dar - tzan ba - ze - nu - ke".
- A green box highlights the second hemistich: "ze - ñen", "xe - le - bre", and "zau - den".
- Vertical lines indicate syllable lengths: 0,661s, 0,571s, 0,396s, 0,445s, 0,34s, 0,355s, 0,38s, and 0,409s.
- Red circles highlight the syllables "ze - ñen", "xe - le - bre", and "zau - den".

- Beste hainbatetan hitz edo sintagmak egiturazkoak ez diren etenez bereizten dira: *e.ri.‘a.za.la* (XA-1980-AS-ES-2), *sor.tze.an.‘a.rra.za* (XA-1982-AS-ge-3), *bi.zi.nin.tze.ni.‘an.tzi.na* ‘bizi nintzen ni antzina’ (JL-1989-AS-10H-3), *guz.ti.‘o.nen.‘e.zur.du.ra* ‘guzti honen hezurdura’ (AE-1993-GS-ha), *lais.ter.‘ar.di.bat.‘bai.etz* ‘laster ardi bat baietz’ (AE-1997-AS-Ip-1), *su.fri.men.duz.‘e.gar.be.ra* ‘sufrientuz egarbera’ (AE-2001-BB-Ip-3), *e.nu.en.‘us.te.‘i.no.la* ‘ez nuen uste inola’ (AE-2005-GS-ge-3), *ain.bes.te.se.kre.tuz.‘i.a* ‘hainbeste sekretuz ia’ (ML-2009-GS-8H-2), *ni.kez.ti.zut.‘e.zez.ta.tzen* ‘nik ez dizut ezeztatzen’ (AA-2013-AS-ge-1), *i.rii.fa.rre.tsu.‘a.tse.giñ* ‘irribarretsu, atsegin’ (ML-2017-GS-ge-3), etab.

Lujanbioren 2009ko ondoko bertsoan (ikus 55. irudia), esaterako, bi oin (errimadun hitz) mugatzen eta bereizten ditu hots katean etenen bidez: *ia* eta (*h*)*esia*. Bigarren hitzaren multzokatzea motibo erritmikoak errazten du (urdinez adierazia irudian), ereduaren amaiera bat baitator etenaren kokapenarekin; ez, ordea, lehen hitzarena. Horrek oina bezalako elementuek bertsoaren egituratze erritmikoan izan dezaketen garrantzia uzten dute agerian (ikus §10.4.1.4.1 taldekatzeari buruzko kapituluan).

55. irudia: ML-2009-GS-8H-2

The image displays a musical score for the song '55. irudia: ML-2009-GS-8H-2'. It consists of four staves of music in treble clef, with lyrics written below the notes. The lyrics are: "E - ta pa - go - a go - rri - tue - gin da ain - bes - te se - kre - tuz i - a e - zin pa - sa - ta , i - ra - ga - na - ren , kon - tae - zi - ña - rer e - si - a no - la zau - ri - a - kez - ti - re - ni - txi ta bi - zi - rik de - nau - zi - a or - du - ko be - run , a - le - ak di - ra gaur - ko sa - si - en , a - zi - a". The score includes several annotations: blue boxes highlight the phrases "pa-go-a", "go-rri-tue-gin da", and "kon-tae-zi-ña-rer"; a green box highlights "i-a"; a red circle highlights a note in the second staff; and red arrows point to time markers "0,2s" and "0,293s". Other time markers are placed above the staves: "1,21s", "1,951s", "1,388s", "1,043s", "1,341s", and "0,722s".

- Azkenik, batzuetan, bi arrastoak konbinatzen dira, aldaera erritmikoak eta etena baliatuz hitz edo sintagmen araberako segmentatzean (azpimarratuta luzatutako silaba): *ta.zer.ga.tik.‘gal.de* (XA-1980-AS-ES-1), *a.te.ri.kan.‘a.te* (XA-1982-AS-ge-2), *en.tzun.‘au.ja.kin.‘or.du.ko* ‘entzun, hau jakin orduko’ (SL-1986-AS-ge-1), *e.nai.sen.ti.tzen.‘a.tse.gin* ‘ez naiz sentitzen atsegin’ (JL-1989-GS-ge-3), *sa.di.ka.‘an.tze.ko* (AE-1993-AS-8tx-2), *e.ba.kun.tza.‘au.rre.tik* (AE-1997-AS-8tx-3), *bi.de.ak.du.‘ga.rran.tzi.a* (AE-2001-AS-ge-3), *es.ka.tzen.di.zut.‘o.rre.la* ‘eskatzen dizut horrela’ (AE-2005-AS-6mtz-3), *e.san.nai.‘e.ta.e.sa.ne.zi.ñak* ‘esan nahi eta esan ezinak’ (ML-2009-GS-8H-3), *go.za.me.na.‘e.der.ga.rrri* (AA-2013-BB-6mtz-3), *fa.mi.li.a.ke.re.‘mu.ziñ* ‘famiak ere muzin’ (ML-2017-GS-ge-3), etab.
- Goiko Lujanbioren 2009ko bertsoan (ikus 54. irudia), adibidez, kantuan mugatutako lehen oina —*hainbeste sekretuz ‘ia* (ML-2009-GS-8H-2)— *sekre*tuz hitzaren azken silaba luzatuta eta ondoren etena eginda bereizten du bertsolariak.

Aldaera mota hau bertsolari guztiak gauzatzen dute gutxiago edo gehiago, eta zabalduen dagoena dela esan daiteke, aztertutako corpusean. Adibideak aztertuta, mugatutako hitz eta sintagmetako asko oinak direla ikus daiteke, errima daramaten hitzak: *fa.mi.li.a.ke.re.‘mu.ziñ* ‘famiak ere muzin’ (ML-2017-GS-ge-3). Beste kasu batzuetan hots katea segmentatzen laguntzen dute bertsolariak eginiko multzokatzeek: *ze.ñen.xe.le.bre.zau.den* ‘zeinen zelebren zauden’ (AE-2001-GS-8tx-2). Hirugarren multzo zabal batean koka daitezke beste hainbat adibide, hitz lau taldekatzeari eta adierazkortasunari loturik eginiko aldaeratzat har baitaitezke: *i.rri.fa.rre.tsu.‘a.tse.giñ* ‘irribarretsu, atsegin’ (ML-2017-GS-ge-3) —zerrendatzea islatzen duen taldekatzea da; horrez gain, azken hitza oina ere bai—. Hiru eragileak elkarreaginean ere gertatzen dira, noski, azken adibideak erakusten duen bezala (ikus §10.4.1.4 atala azterketa sakonagorako).

Bertsolarien arteko aldakortasunari erreparatuta, Egaña (2001, 2005) eta Lujanbio (2009, 2017) dira aldaera hauek gehien darabiltzatenak; gutxien, berriz, Lizaso (1986) eta Amuriza (1980). Bertsolari bakoitzak zein aldaera eta zein adibidetan gauzatzen duen ikusteko, jo II. Eranskinera.

9.4.2.6. Silaba(ren) bat(zuk) nabarmentzea motibo erritmikoaren baitan

Corpusa aztertzean jasotako aldaera gutxi batzuetan, hitz barreneko silabaren bat nabarmentzen da gainerakoekiko. Sarri motibo erritmiko orokorraren arabera pareko behar luketen silaben artean bat nabarmentzen da, luzatuta, edo aldaera erritmikoen bitartez bestela nabarmenduko ez zen silaba batek hartzen du kantuan pisu handiagoa (azpimarratuta luzatutako

silabak): *a.te.ri.kan.‘a.te* (XA-1982-AS-ge-2), *zu.e.na.gin.du.ba.ti* (JL-1989-GS-ha), *in.dar.ke.ri.a* (AE-1993-AS-ge-1), *e.ma.ku.me.en* (AE-1997-GS-ha), *o.roi.tza.pe.nik* (AE-2001-BB-Ip-2), *sen.ti.tze.naiz.‘ain.‘a.rra.ro* ‘sentitzen naiz hain arraro’ (AE-2005-AS-6mtz-1), *la.na.da.si.nis.te.a.‘ai* ‘lana da sinestea, ai’ (ML-2009-BB-6mtz-3), *be.re.be.so.e.ta.ra.ño* ‘bere besoetaraino’ (AA-2013-BB-ge-2), *ze.o.ze.ren.tru.ke* ‘zeozeren truke’ (ML-2017-GS-10tx-2), etab.

Andoni Egañaren 2001eko ondoko bertso hasieran, esaterako, hainbatetan eraldatzen du eredu erritmiko nagusia (56. irudian lauki urdinez adierazia), horietako batean hitz barreneko silaba bat nabarmenduz —*o.roi.tza.pe.nik* (AE-2001-BB-Ip-2) (irudian lauki berdez)—. Aipagarria da lehen bi puntuetako aldaera erritmikoen paralelismoa. Ofizio berean kantatutako beste bi bertsoetan —lehenengoan eta hirugarrenean— motibo erritmiko nagusia mantentzen du aldiro.

56. irudia: AE-2001-BB-Ip-2, lehen bi puntuak

Jasotako adibideetako batzuk hitz lauко azentu-ereduetara hurbiltzen direla pentsa daiteke, hitzón hitz lauко azentuera eremu ekinetik hasita bigarren silaba dela onartuz gero: *a.te.ri.kan.‘a.te* (XA-1982-AS-ge-2), *in.dar.ke.ri.a* (AE-1993-AS-ge-1), etab. Baina ez beste hainbat: *e.ma.ku.me.en* (AE-1997-GS-ha), *be.re.be.so.e.ta.ra.ño* ‘bere besoetaraino’ (AA-2013-BB-ge-2), etab. Aldaera hau ez da bertsolariék bereziki darabiltena; sortzaileen arteko aldakortasunari erreparatuta, Amuriza (1982), Egaña (1992, 2001, 2005) eta Lopategi (1989) dira halako aldaera gehien gauzatu dituztenak, gutxi izan arren. Bertsolari bakoitzak zein aldaera eta zein adibidetan gauzatu duen ikusteko, jo II. Eranskinera.

9.4.2.7. *Motibo erritmikoan musika nota bat (silaba bat) gehitzea*

Azkenik, bada adibide kopuru oso mugatua —zazpi— duen aldaera esanguratsu bat: motibo erritmikoari musika nota bat gehitzearena, silaba bat gehiago ahoskatu ahal izateko. Musika-nota gehiketa doinuaren konpasaren barrenean gauzatzen da, musika nota luze(ago) baten ordeз bi labur(rago) gauzatuta eta, horrela, bertsolariak silaba bat gehiago ahoskatzen du “modu

erritmikoan”, oharmenarentzat onargarri izanda, aurretik ere bertsoak zuen konpas (pultsu) kopuru bera mantentzen baita.

57. **irudia:** *Aranora joan ziran I* doinua erabilia Amurizak 1980ko puntu erantzunetan gauzatutako aldaera erritmiko nagusiak.

Eredu erritmiko orokorraz gauzatutako pasartea:

e. zo.te. du.zu.la.gun ‘ez ote duzu, lagun’ (XA-1980-GS-pe-2)

Musika nota eta silaba bat gehiagorekin:

ba.ten.bat.i zan.go.da.la ‘baten bat izango dela’ (XA-1980-BB-pe-1)

Nabarmentzekoa da jasotako adibide guztiak molde txikiko neurrian gauzatzen dituztela bertsolariak —puntu erantzunetan, zortziko txikiko ofizioan, hasierako agurrean—, eta hiru doinu zehatz erabiltzean: goiko adibidean aurkeztutako *Aranora joan ziran I* (XA-1980-BB-pe-1, 2; XA-1982-BB-pe-2), *Mando baten gainean I* (XA-1982-BB-8tx-2) eta *Maritxu nora zoaz I* (SL-1986-AS-ha). Hirurak ere konpas hirutarrean oinarritutako doinuak, silaba gehigarria beti *beat*-aren kokapen ahulean gehitzen da, goiko 57. irudian irudikatu bezala, kortxea baten balio erritmikoz, lan honetan egindako transkribapenetan (nabarmenduta, aldaeraren bitartez gehitutako silaba): *ar.tze.nau.be.ro.ta.su.nak* ‘hartzen nau berotasunak’ (XA-1980-BB-pe-2), *au.‘u.tsa.ga.tik.bu.rru.ka* ‘hau hutsagatik borroka’ (XA-1982-BB-8tx-2), *be.tor.‘eus.kal.te.le.bis.ta* ‘betor euskal telebista’ (XA-1982-BB-8tx-2), *gu.re.o.llar.be.rri.tsu.a* ‘gure oilar berritsua’ (XA-1982-BB-pe-2), *a.rra.tsal.de.on.be.rri.ro* ‘arratsalde on berriro’ (SL-1986-AS-ha), *gu.txi.ñe.ze.gin.go.al.da* ‘gutxienez egingo al da’ (SL-1986-AS-ha).

Ikus azken bi adibideak, Lizasoren 1986ko bertsoan (laranjaz borobilduta musika nota eta silaba gehigarriak).

58. irudia: SL-1986-AS-ha

A - rra - tsal - de on be - rri - ro lan za - llak da - toz - te
5 la - sai ga - to - ze - ni - kan i - ñor - ke e - zus - te
9 mi - lla ner - bi - o kla - se mi - lla bu - ru - aus - te
13 gu - txi - ñe - ze - gin - go al da goi - ze - a - nain - bes - te

Bertsolarien arteko aldakortasunari erreparatuta, kasu honetan muga argia dago lehen hiru txapelketen eta ondorengo artean: Amurizak (1980, 1982) eta Lizasok (1986) soilik gauzatzen dituzte horrelako aldaera gutxi batzuk. Ondorengo bertsolariek horrelako aldaerarik ez gauzatzea epai-irizpideen laguntzaz uler daiteke, 1989tik aurrera molde txikiko bertsoen silaba-kopurua zehaztu egiten baita. Ordura arte doinua hartzen zen neurria betetzeko irizpide nagusizat, gehiago zehaztu gabe (ikus §10.4.1.5 gertakariaren interpretazio zabalagorako). Bertsolari bakoitzak zein aldaera eta zein adibidetan gauzatu duen ikusteko, jo II.Eranskinera.

9.4.3. Erritmo-ereduen aldakortasuna bertsolariz bertsolari

Bertso-doinuek —betiere bertsolari bakoitzak duen bertsoian— abiapuntu gisa eskaintzen duten eredu erritmikoa mantentzea da joera nagusia aztertutako bertsoetan (ikus gorago §9.4.1). Ez da ahaztu behar, ordea, bertsoa bat-bateko sorkuntza dela, jendaurrekoa eta kantatua, komunikatzea helburu duena, eta horrek aldaerak ekarriko ditu, ezinbestean, askotariko alorrek eraginda. Jarraian erritmo-ereduen aldaerak bertsolari bakoitzak zenbateraino erabili dituen laburtzen ahalegindu naiz, ondoren aldaeren eragile posibleak proposatzeko labur. Taldekatzeari buruzko §10 kapituluan

sakondu dut atal honetan aipatutako zenbait auzitan, elkarri loturik dauden gertakariak baitira eredu erritmikoen eta taldekatzearen (baita §8 kapituluaren aztertutako silabatzearen ere).

Aldaeren azterketan ikusi dut bertsolari guztiek antzeko aldaerak egin arren kasu gehienetan, horiek ez dituztela neurri berean egiten. Ondoko taulan jaso dut aztertutakoaren panoramika bat, bertsolari bakoitzaren joeren berri emanez (txapelketa bakoitzean kasuan kasuko bertsolariaren ekoizpenean jasotako adibideen zerrendarako, ikus II. Eranskina):

59. irudia: Aldaera erritmikoen erabilera bertsolariz bertsolari³⁸⁴

	Ereму ertzak nabarmentzea	Egiturazko etenak ez	Hitz / sintagmen araberako taldekatzea	Ereму prosodikoa trinkotzea	Silaben balio erritmikoa parekatzea	Hitz barneko silabaren bat nabarmentzea	Silaba bat gehitzea eredu errimikoa
Amuriza 1980							
Amuriza 1982							
Lizaso 1986							
Lopategi 1989							
Egaña 1993							
Egaña 1997							
Egaña 2001							
Egaña 2005							
Lujanbio 2009							
Arzallus 2013							
Lujanbio 2017							

Adibiderik ez
1-15 adibide
16-30 adibide
31-45 adibide
46-60 adibide
61-75 adibide
76-90 adibide

Jarraian aurreko §9.4.2 atalean emandako datuak aurkeztu ditut berrantolaturik. Aldaera erritmikoa bertsolariz bertsolari nola gauzatu diren jaso dut, bakoitzaren erabilera eta joera nagusiak nolakoak diren ikusten laguntzen duelakoan.

9.4.3.1. Xabier Amuriza (1980, 1982)

Xabier Amurizak, 1980an, oso modu erregularrean kantatzen ditu bertsoak, doinuaren motibo erritmikoa ia bere horretan errepikatuz bertso guztietan. Gauzatzen dituen aldaera erritmikoen silaba bati edo biri eragiten diote normalean, eta bost multzo nagusitan bereiz daitezke, dituzten ondorioei erreparatuta:

384 Datuak aurkezteko II. Eranskinean jasotako adibide kopuruan oinarritu naiz. Adibide kopurua hamabosnaka antolatzea arbitrarioa da, bildutako adibide kopurua modu bisualean egoki islatu arren. Datuen lanketa kuantitatibo estatistikoa bezalakoak beharrezko lirakeke jasotako aldearen esanguraren berri izateko, besteak beste.

- **Bertso-doinuko (neurriko) osagaien** —motiboa, hemistikioa, puntua— **ertzak nabarmentzea**, bai hasierak, bai amaierak, silabei balio erritmiko handiagoa emanaz. Amaierako luzatzen kasuan, aipagarria da azken aurreko silaba dela inguruko balio erritmiko bera izan dezan luzatzen duena (batzuetan melisma bidez), eta hainbatetan puntu amaiera (oina, errima daraman hitza) nabarmenago adierazten dela horrela, azken silabek balio erritmiko luzeagoa dutelako (azpimarratutako silabak dira luzeago gauzatutakoak): *zer.sen.ti.tzen.duk* (XA-1980-AS-ba), *au.rre.ra.a.‘a.tze.ra* (XA-1980-BB-8tx-4), etab.
- **Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea**, puntua eredu erritmiko(ar)en arabera gauzatuta. Baliabide erritmiko hau da bertsolariak gehien darabilena 1980ko finalean. Hainbatetan, doinua bera da —Amurizak doinua kantatzeko duen modua— hemistikio maila eredu erritmiko bidez mugatzen ez duena (estrukturalki, nolabait), eta Amurizak kasu horietan modu jarraituan —0,2 s baino luzeagoak diren eten nabarmenik gabe— kantatzen du puntua, muga linguistikoek hemistikio mailako taldekatze hori errespetatzen duten arren. Hemistikio mailako etenik gabeko doinu guztiak molde txikiko neurrikoak dira (7 + 6 silabaz osatutako puntudunak), aztertutako corpusean. Beste kasu batzuetan, modu puntualean kantatzen du segidan puntua Amurizak, hemistikio mailako etenik egin gabe. Adibide horietako asko bertsoa azken puntua dira, bertsoa bota aurretik prestatzean (ia) lehenengo pentsatzen den osagaia, printzipioz (ikus Egaña 2007, esaterako).
- **Bertso-doinuko (neurriko) osagaiak modu trinkoagoan gauzatzea**, eremu hasierako zein amaierako silabak laburrago gauzatuz. Amurizaren kasuan aipagarria da silaba bakarra dela laburtzen duena motibo erritmikoan, ingurukoekiko lotuago gauzatuz (azpimarratutako silaba da laburrago gauzatutakoa): *ne.re.ko.txe.ak.e.tzun* ‘nire kotxeak ez zuen’ (XA-1980-GS-10tx-3), *ni.re.kin.kon.pon.tze.ko*, (XA-1980-BB-8tx-4).
- **Motibo erritmikoaren baitan hitz edo sintagmen araberako taldekatzea egitea**, eredu erritmikoak eraldatuta edota etenen bidez. Gertakari honetan aipagarri da kasu askotan oina dela mugatutakoa (azpimarratutako silabak luzeago gauzatzen ditu bertsolariak): *ta.zer.ga.tik.‘gal.de* (XA-1980-AS-ES-1), *e.tsa.ja.su.e.ta.‘ke.tan* ‘etsaia su eta ketan’ (XA-1980-GS-ge-1), etab.
- **Silaba bat gehiago ahoskatzeko musika nota bat gehitzea motibo erritmikoari, doinuaren konpasaren baitan** (nabarmendutakoa da silaba gehigarria): *ba.ten.bat.‘i.zan.go.da.la* ‘baten bat izango dela’ (XA-1980-BB-pe-1), etab.

1982an, 1980ko aldaera bertsuak gauzatzen ditu Amurizak, silaba bati edo biri eragiten dietenak gehienak, baina aldakortasun erritmikoa askoz ere gehiago darabil txapelketa honetan³⁸⁵. Berrikuntza gisa, silaben balio erritmikoa parekatzen du bi kasutan bertsolariak, hitzaren eremuan, berdindutakoak oinak izanik, errima daramaten hitzak (azpimarratutako silabak dira balio erritmikoz parekatutakoak): *ai.zer.‘a.tse.gi.ña* ‘ai, zer atsegina’ (XA-1982-GS-ge-3), *il.tze.ba.te.an.‘ja.rrri.ja* ‘iltze batean jarria’ (XA-1982-AS-ba), etab. Horrez gain, motibo erritmiko nagusiak silabak pareko balioekin gauzatzea bultzatzen duen hainbat kasutan (zortzi adibide jaso ditut, zehazki), motibo eta hitz barreneko silabak nabarmentzen dira 1982ko adibide batzuetan (azpimarratutako silabak dira luzatutakoak): *i.ja.ja.rrri.gai.tuz.te* ‘ia jarri gaituzte’ (XA-1982-AS-be1), *e.txé.han.ba.da.be.rriz*, *e.gi.ja.‘e.sa.ten.da* ‘egia esaten da’ (XA-1982-AS-be1), etab. Bertso-egiturako osagaiak nabarmentzen dituzten aldaerak eta unitate prosodikoak trinkotzen dituztenak askoz gehiago darabiltza txapelketa honetan.

9.4.3.2. Sebastian Lizaso (1986)

Sebastian Lizasok ere, 1986ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, modu oso erregularrean gauzatzen ditu bertsoetako erritmo-ereduak, ia aldaerarik egin gabe. Bera da aldaera erritmiko gutxien gauzatzen dituen bertsolaria, aztertutako bertsoetan. Kantatzen dituen aldaera erritmikoek silaba bati edo biri eragiten diote normalean, silaben balio erritmikoak parekatzen diren kasuetan izan ezik. Bost multzo nagusitan bereiz daitezke, dituzten ondorioei erreparatuta:

- **Hemistikio amaierako silaba luzatzea, motibo erritmikoak hala ez duenean egiten.** Badira doinu batzuk puntuaren eremuko motibo erritmikoa dutenak. Hala ere, Lizasok, neurriaren egiturari jarraiki, hemistikio eremuko taldekatzea gauzatzen du eredu erritmikoa moldatuta; hemistikio eremuko azken silaba luzatuta: *a.rra.tsal.de.on.be.rrri.ro, la.sai.ga.to.ze.ni.kan* ‘lasai gatozenik’ (SL-1986-AS-ha), etab.
- **Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea** kasu gutxi batzuetan.
- **Silaben balio erritmikoa parekatzea motibo erritmikoaren neurrian.** Eredu erritmikoak dituen balio luze bat(zuk) laburren neurrira ekarrita, pareko balio erritmikoa duten silaba kateak ahoskatzen ditu Lizasok, motiboaren baitan (azpimarratuta laburtutako silabak): *biz.ka.jal.de.tik* ‘Bizkaia aldetik’ (SL-1986-GS-ha), *be.gi.ra.zer.di.zu.tan* ‘begira zer dizudan’ (SL-1986-GS-ge-3), etab.

³⁸⁵ Adibide kopuru bikoitza eta gehiago jaso dut eremuen ekin zein amaierako ertza nabarmentzean, eremuak trinkoago gauzatzean edo hitz zein sintagmen araberrako erritmo moldaketetan; egiturazko etenak ez egitean ere kasu gehiago jaso ditut (ikus II. Eranskina).

- **Motibo erritmikoaren baitan hitz edo sintagmen araberako taldekatzea egitea**, eredu erritmikoak eraldatuta. Aipagarria da batzuetan motibo erritmiko nagusiak silabei pareko balio erritmikoa emango liekeenean hitzen araberako taldekatzera egokitzen dituela bertsolariak, balio erritmiko luzeago eta laburragoak gauzatuz: *ar.tu.a.di.da.ten.ga.ña* ‘hartua didaten gaina’ (XA-1982-GS-ha), *be.gi.jak.go.rri.tu.a* ‘begiak gorritua’, *min.ga.ña.lo.ri.tu.a* ‘mingaina loditua’ (SL-1986-GS-ge-2), etab. Horrekin batera, motibo erritmikoa eraldatzen du bestela ere, eredu erritmiko barnean hitz amaierako silaba luzatuta, mugatuz: *oi.di.ra.ba.tzar.guz.ti.ak* ‘ohi dira batzar guztiak’ (SL-1986-AS-ge-1), *e.rri.jan.dau.de.ger.tu.ko* ‘herrian daude gertuko’,(SL-1986-AS-ge-1), etab.
- **Silaba bat gehiago ahoskatzeko musika nota bat gehitzea motibo erritmikoari, doinuaren konpasaren baitan** (nabarmendutakoa da silaba gehigarria): *a.rra.tsal.de.on.be.rri.ro, gu.txi.ñe.ze.gin.go.al.da* ‘gutxienez egingo al da’ (SL-1986-AS-ha).

9.4.3.3. Jon Lopategi (1989)

Jon Lopategik ere, 1989an, oso modu erregularrean gauzatzen ditu doinuetako erritmo-ereduak. Gauzatzen dituen aldaerek silaba bati edo biri eragiten diote askoz jota, eta etena nabarmenduko nuke baliabide gisa, bertsolari honen kasuan, taldekatzeari lotuta (ikus §10). Bost multzotan bereiz daitezke aldaerak, dituzten ondorioei erreparatuta:

- **Bertso-doinuko (neurriko) osagaien** —motiboa, hemistikioa, puntua— **ertzak nabarmentzea**, bai hasierak, bai amaierak, silabei balio erritmiko handiagoa emanez. Kasu gutxi batzuetan eremu hasierako silaba (sarri anakrustikoa) luzatzen du ondoko silaben antzeko balioetara ekarriz, edo eremu bukaerako azken aurreko silabari ematen dio azken silabaren balio bertsua (azpimarratuta luzatutako silabak): *ba.ña.la.gu.nah* ‘baina laguna’ (JL-1989-GS-ge-2), *bu.ru.ba.ka.rra.ren.tzat* (JL-1989-AS-ha), *a.ma.kon.tso.la.ga.rri* (JL-1989-GS-10tx-1), *ja.ne.da.ri.tan* ‘jan edaritan’ (JL-1989-GS-ge-2), etab.
- **Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea** kasu gutxi batzuetan. Horrez gain, estrukturalki eten hori egitea “eskutzen” ez duen eredu erritmikodun doinu bat ere badarabil, puntu-erantzunetan.
- **Bertso-doinuko (neurriko) osagaiak modu trinkoagoan gauzatzea**, motibo barreneko edo amaiera aldeko silaba(k) laburtuta. Adibide gutxi batzuk jaso ditut (azpimarratuta laburtutako silabak): *e.gin.du.o.rain* (JL-1989-GS-8H-1), *go.goz.jo.e.ta.su* (JL-1989-GS-10tx-1), etab.

- **Motibo erritmikoaren baitan hitz edo sintagmen araberako taldekatzea egitea**, eredu erritmikoak eraldatuta. Mota honetako aldaerak dira Lopategik gehien gauzatzen dituenak. Batzuetan silaben balio erritmikoak (luze-laburrak) aldatzen ditu, hitzen mugekin (hasiera edo amaierarekin) bat etor dadin balio luzea motiboaren baitan (azpimarratuta luzatutako silaba): *e.gin.di.tu.ta* ‘egin ditu eta’ (JL-1989-GS-8H-2), *ze.ni.dan.zuk.len* ‘zenidan zuk lehen’ (JL-1989-GS-8H-4), *sa.ja.tu.ko.naiz.be.ñe.pin* ‘saiatuko naiz behinik behin’ (JL-1989-GS-ge-3), etab. Beste kasu askotan etena baliatzen du hitz edo sintagma bereizteko motibo erritmikoaren barrenean. Gehienetan oina da mugatutakoa (hitza edo oina daraman sintagma), bertsoan zehar beste hitzen batzuk ere nabarmentzen dituen arren: *i.lu.si.jo.en.ar.gi.a* ‘ilusioen argia’ (JL-1989-GS-ge-1), *aur.ki.tzen.da.ain.bat.mu.til* ‘aurkitzen da hainbat mutil’ (JL-1989-AS-10H-1), *za.le.ta.su.nez.e.zin* ‘zaletasunez ezin’ (JL-1989-AS-ge-3), etab.
- **Motibo erritmiko nagusiak** —balio erritmiko luzez— **nabarmentzen ez dituen hitz barneko silabak nabarmentzea**. Adibide gutxi batzuetan, eredu erritmikoen aldaerak hitz barneko silaba bat(zuk) nabarmentzen ditu (azpimarratuta luzeago gauzatutako silabak): *e.ran.tzun.na.jan.be.ti* ‘erantzun nahian beti’ (JL-1989-GS-ha), *ain.ger.ta.tzen.da.u.rri.ja* ‘hain gertatzen da urria’, *bu.ru.ba.ka.rra.ren.tzat* ‘buru bakarrarentzat’ (JL-1989-AS-ha), etab.

9.4.3.4. Andoni Egaña (1993, 1997, 2001, 2005)

Andoni Egañak, 1993ko Txapelketa Nagusiko finaleko bertsoetan, modu erregularrean gauzatzen ditu erritmo-ereduak, joera nagusia izanik erregularitasuna. Hala ere, aldera erritmikoak gauzatzen ditu maiz, silaba gutxi batzuk hartuz batzuetan (1-3 bitarte), baina eremu handiagoak ere bai, hainbatetan. Bost multzo nagusitan bereiz daitezke, dituzten ezaugarri eta ondorioei erreparatuta:

- **Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea** kasu gutxi batzuetan.
- **Bertso-doinuko (neurriko) osagaiak modu trinkoagoan gauzatzea**, eremu hasierako zein amaierako silabak laburrago gauzatuz. 1993an bertsolariak gehien darabilen baliabidea da ondokoa. Egañaren aldaeretan aipagarria da eremu amaieran, azken aurreko silaba edo silabak dagokiena baino laburrago gauzatzen dituen hori. Horrela, azken silaba luzea nabarmenago agertzen da kontrastean (eta batzuetan, iraupen konpentsazioz, are luzeago). Adibide asko aurki baitaitezke bertsoaldietan zehar (azpimarratuta laburrago gauzatutako silabak): *e.ne.jaun.goi.ko* (AE-1993-GS-6mtz-1), *a.la.re.o.rre.kez.tu.es.tal.tzen* ‘hala ere

horrek ez du estaltzen' (AE-1993-GS-6mtz-2), *e.ze.rre.tzu.ten.me.re.zi* (AE-1993-GS-ge-2), etab. Horrekin batera, eremu hasierako silaba(k) laburrago gauzatzea ere ohiko aldaera da bertsolariarengan, neurri txikiagoan: *ba.rre.ne.ko.*'*a.rra* 'barreneko harra' (AE-1993-GS-9phtz),*so.ñe.ko.a.ri.be.gi.ra* 'soinekoari begira' (AE-1993-AS-Ip-2), etab.

- **Silaben balio erritmikoa parekatzea hemistikioaren, motibo erritmikoaren eta hitzaren neurrian.** Aipatutako eremuetan, eredu erritmikoa osatzen duten silaba batzuek pareko balioa hartzen dute —normalean balio luzeena dutenak laburtuta—, eta aurretik pareko balioa bazuten, *tempoa* azkartu eta hitz lautik gertuago dagoen moldean kantatzen du hots katea bertsolariak: *lo.ta.nal.tzen.den.*'*e.ne.jaun.goi.ko* 'lotan al zeunden, ene jaungoiko' (AE-1993-GS-6mtz-1),*gu.ri.es.ke.rrak* 'guri eskerrak' (AE-1993-GS-ha), *e.men.di.kos.pa* 'hemendik ospa' (AE-1993-AS-ge-3), *ne.re.bu.ru.a* 'nire burua' (AE-1993-GS-8H-3), etab.
- **Motibo erritmikoaren baitan hitz edo sintagmen araberako taldekatzea egitea**, eredu erritmikoak eraldatuta. Kasu batzuetan hitzen lehen edo azken silaba luzeago gauzatuta mugatzen du hitz edo sintagma Egañak (azpimarratuta luzatutako silabak): *tau.rrak.ton.to.a.kez.ti.ra* 'eta haurrak tontoak ez dira' (AE-1993-GS-8H-2), *ne.re.bu.ru.a* 'nire burua' (AE-1993-GS-8H-2), *on.do.pen.tsa.tzen.*'*ja.rri.ez.ke.ro* 'ondo pentsatzen jarriz gero' (AE-1993-GS-ge-2), etab. Beste batzuetan, etenak gauzatzen ditu motibo erritmikoaren baitako osagaiak banatuz eta oina —errima daraman hitza edo, kasu batzuetan sintagma— mugatuz: *guz.ti.*'*o.nen.*'*e.zur.du.ra* 'guzti honen hezurdura', *de.nak.sort.tzen.dit.*'*ar.du.ra* 'denak sortzen dit ardura', *e.ta.mor.bo.a.ren.*'*mu.ga* 'eta morboaren muga' (AE-1993-GS-ha), *uz.tai.e.do.ta.*'*ez.*'*uz.tai* 'uztai edota ez uztai' (AE-1993-AS-ba), etab.
- **Motibo erritmiko nagusiak** —balio erritmiko luzez— **nabarmentzen ez dituen hitz barneko silabak nabarmentzea.** Batzuetan motibo erritmiko nagusiaren arabera pareko ziratekeen silaben artean bat nabarmentzen du Egañak eta beste batzuetan, berriz, eredu erritmiko nagusiaren araberako balio erritmikoak aldatuta nabarmentzen du hitz barneko beste silaba bat (azpimarratuta nabarmendutako silaba): '*ez.nu.nes.pe.ro* 'inola ere ez nuen espero' (AE-1993-GS-ge-1), *in.dar.ke.ri.a* (AE-1993-AS-ge-1), *me.re.zi.de.gu* 'merezidugu' (AE-1993-AS-ge-2), etab.

1997ko txapelketako finalean, Egañak aurreko txapelketan baino aldakortasun handiagoa agertzen du eredu erritmikoen gauzatzean. 1993ko aldaera guztiak darabiltza, eta neurri handiagoan jaso ditut eremuak trinkoago gauzatzeko joera (aldaerarik erabiliena 1997an ere), silabak parekatzekoa zein hitz edo sintagmakako antolakuntza dakarrena. Hemistikio mailako etena behin

bakarrik ekiditen du, eta hitz barneko silabaren bat nabarmentzeko identifikatutako aldaerak ere oso gutxi dira. 1993ko txapelketan jaso ez dudana aldaera molde bat darabil hainbatetan 1997an: egiturazko eremuen hasierako zein amaierako —Egañaren 1997ko kasuan, hasierako, nagusiki— silabak luzeago gauzatzea, ondokoen pareko eta batzuetan luzeago gauzatuta. Esaterako: *sal.tza.lle.a.rek* ‘saltzaile hark’ (AE-1997-ge-1), *gaur.jo.ka.tu.du* (AE-1997-ge-2), *ni.ke.ja.tze.ra* ‘ni kexatzera’, *a.zo.ka.ra.ño* ‘azokaraino’ (AE-1997-GS-ge-3), *gu.gen.jei.ma.jo.a.te.a* ‘Guggenheim-a joatea’ (AE-1997-AS-ge-3), etab.

2001ean bertsolariak aurreko txapelketetako aldaera bertsuak gauzatzen ditu, baina askoz gehiago: eremua trinkoago gauzatuz laburtutako silabak, balio erritmiko parekoa emandako pasarteak eta hitz edo sintagmakako multzokatzera egokitutako ereduak dira nabarmentzekoak aldaeren igoeran, azken hauek izanik txapelketa honetan gehien darabiltzanak. 2005eko finalean ere aurreko txapelketetako aldaera mota berak gauzatzen ditu. Gehien darabiltzanak dira hots katea hitz edo sintagmaka segmentatzea ahalbidetzen duten aldaerak, eta neurri txikixeagoan, eremuak trinkotzeko baliabideak, horien artean silaben balio erritmikoa parekatzeko joera izanik nagusi. Aipatutakoekin batera, doinu edo metrikak zehaztutako eremuen ertzak (hasiera, batez ere) luzeago gauzatzeko aldaera gehiago egiten ditu azken txapelketa honetan, aurrekoekin alderatuta.

9.4.3.5. *Maialen Lujanbio (2009, 2017)*

Maialen Lujanbiok, 2009an, modu erregularrean gauzatzen ditu erritmo-ereduak, joera nagusia izanik erregularitasuna. Hala ere, aldera erritmikoak gauzatzen ditu maiz, silaba gutxi batzuk hartuz batzuetan (1-3 bitarte), baina eremu handiagoak ere bai, hainbatetan. Bertsolariaren joera nagusiak hizkako segmentatzea eta silaben balio erritmikoa parekatu eta eremu prosodikoen arteko mugak urtzea dira, baina gauzatzen dituen aldaerak sei multzo nagusitan bereiz daitezke, dituzten ezaugarri eta ondorioei erreparatuta:

- **Bertso-doinuko (neurriko) osagaien** —motiboa, hemistikioa, puntua— **ertzak nabarmentzea**, bai hasierak, bai amaierak, silabei balio erritmiko handiagoa emanez. Kasu gutxi batzuetan eremu hasierako silaba (sarri anakrustikoa) luzatzen du ondoko silaben antzeko balioetara ekarriz eta *beat* indartsuan tetiko gauzatuz (azpimarratuta luzatutako silaba): *ge.rri.a.gu.ri.gu.ri* ‘gerria guri-guri’, *gua.po.nai.al.tzen.du.ke* ‘guapo, nahi al zenuke’ (ML-2009-GS-8tx-1), *ai.gu.reiz.kun.tza* ‘ai, gure hizkuntza’, *ne.re.i.dei.ak* ‘nire ideiak’ (ML-2009-GS-ge-2), etab. Beste kasu bakan batzuetan hemistikio amaierako silaba luzatzen du, motibo erritmiko nagusiak hala ez duenean egiten, muga adierazteko:

tra.go.ar.tu.bai.ba.ño ‘tragoa hartu bai baina’ (ML-2009-AS-ptk-7), *e.gan.ba.ño.be.o.ñez* ‘hegan baino hobe oinez’ (ML-2009-AS-ptk-8), etab.

- **Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea.** Lujanbio da baliabide hau gehien darabilen bertsolaria aztertutakoaren artean, kantatzen ari denari jarraitutasuna emanaz hainbatetan. Horrez gain, estrukturalki eten hori egitea “eskatzen” ez duten eredu erritmikodun hiru doinu ere badarabiltza, zortziko txikian, puntu-erantzunetan eta puntuka.
- **Bertso-doinuko (neurriko) osagaiak modu trinkoagoan gauzatzea,** motibo barreneko edo amaiera aldeko silaba(k) laburtuta. Adibide gutxi batzuetan hemistikioko azken silaba laburrago gauzatzen du, hurrengo hemistikiora gehiago gerturatuz kantatutakoa (azpimarratuta laburtutako silabak): *min.bi.zi.du.te.bi.u.me.e.ri.be.gi.ra.be.gi.ra.na.go* ‘minbizia duten bi umeei begira-begira nago’ (ML-2009-AS-ge-1), etab. Beste batzuetan, hemistikio edo motibo erritmikoko azken aurreko silaba laburrago gauzatzen du, eremua mugatzen duen azken silaba luzea nabarmenago utziz: *as.ti.roas.ti.ro.jo.an.gai.te.zen* (ML-2009-BB-6mtz-1), *zen.bat.ta.su.nez.pa.ñe.tan* ‘zenbat tasun ezpainetan’ (ML-2009-BB-ge-1), etab. Lujanbioren beste aldaera batzuk, puntu honetan deskribatutako gertakariekin bat etor daitezkeen arren, hurrengo puntuetan kokatu ditut, ohikoa baita bertsolariarengan eremua trinkotzearen baitan silaben balio erritmikoa parekatzea edo eredu erritmikoak hitz zein sintagmen mugekin bat etorraraztea.
- **Silaben balio erritmikoa parekatzea puntuaren, hemistikioaren eta motibo erritmikoaren neurrian.** Aipatutako eremuetan, eredu erritmikoa osatzen duten silaba batzuek pareko balioa hartzen dute —normalean balio luzeena dutenak gainerakoen iraupenera laburtuta—, eta aurretik pareko balioa bazuten, *tempoa* azkartu eta hitz lautik gertuago dagoen moldean kantatzen du hots katea bertsolariak: *ar.tu.be.so.ta.ne.ta.e.man.ne.ri.mu.xu* ‘hartu besoetan eta eman niri musu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *u.rren.gour.te.a.ne.gin.bear.de.gu.des.ber.din* ‘hurrengo urtean egin behar dugu desberdin’ (ML-2009-AS-10tx-3), *eus.ka.ran.txin.ga.rrei.puz.ka* ‘euskararen txingarrei puzka’ (ML-2009-GS-ha), *e.gon.go.nai.zen* ‘egongo naizen’ (ML-2009-GS-ge-2), *e.me.neon.go.ge.ra* ‘hemen egongo gara’ (ML-2009-AS-10tx-1), etab.
- **Motibo erritmikoaren baitan hitz edo sintagmen araberako taldekatzea egitea,** eredu erritmikoak eraldatuta. Mota honetako aldaerak dira Lujanbiok gehien gauzatzen dituenak. Batzuetan silaben balio erritmikoak (luze-laburrak) aldatzen ditu, hitzen mugekin (hasiera edo amaierarekin) bat etor dadin balio luzea motiboaren baitan, etenez ere lagunduta maiz (azpimarratuta luzatutako silabak): *mi.lles.ker.de.nok.be.te.du.gu.gaur* ‘milesker, denok bete dugu gaur’ (ML-2009-GS-ha), *or.du.ko.be.run.a.le.ak.di.ra* ‘orduko berun aleak dira’ (ML-

2009-GS-8H-2), *ne.re.‘i.ri.tziz.‘o.sa.tu.di.tut* ‘nire iritziz osatu ditut’(ML-2009-GS-ge-1), etab. Beste kasu askotan etena baliatzen du hitz edo sintagma bereizteko motibo erritmikoaren barrenean. Gehienetan oina da mugatutakoa (hitza edo oina daraman sintagma), bertsoan zehar beste hitzen batzuk ere nabarmentzen dituen arren: *kon.tae.zi.ña.ren.‘e.si.a* ‘kontaezinaren hesia’ (ML-2009-GS-8H-2), *o.rain.dik.da.‘aur.ten* ML-2009-AS-10tx-2), *le.pa.za.ña.zait.‘puz.tu.ko* ‘lepazaina zait puztuko’ (ML-2009-BB-ge-2), etab.

- **Motibo erritmiko nagusiak** —balio erritmiko luzez— **nabarmentzen ez dituen hitz barneko silabak nabarmentzea**. Jasotako adibide bakarrean, eredu erritmikoen aldaerak hitz barreneko silaba bat nabarmentzen du (azpimarratuta luzeago gauzatutako silabak): *la.na.da.si.nis.te.a.‘ai* ‘lana da sinestea, ai’ (ML-2009-BB-6mtz-3).

2017ko txapelketan, 2009ko aldaera berak baliatu arren, askoz gehiago dira eremu prosodiko ekina nabarmenduz eta silaba anakrustikoak tetiko eta luzeago gauzatuz Lujanbiok ahoskatutako adibideak (azpimarratuta luzatutako silabak): *zer.no.la.tan.za.bil.tzan* ‘zer-nolatan zabiltzan’ (ML-2017-GS-8tx-3), *guk.gre.bae.gin.da.ko.an* ‘guk greba egindakoan’ (ML-2017-GS-10tx-2), *ka.su.ba.tzu.tan* ‘kasu batzuetan’ (ML-2017-GS-ge-1), *bes.te.re.ne.ti.kas.ko* ‘besterenetik asko’ (ML-2017-BB-9phtz), *gaur.ko.en.gan.dik* ‘gaurkoengandik’ (ML-2017-AS-ba), etab. Silaben balioa parekatzeko joera ere handitu egiten du azken txapelketa honetan, jaso ditudan adibideen arabera: *ba.ña.qi.zar.teon.ta.ko.pa.no.ra.ma.re.kin* ‘baina gizarte honetako panoramarekin’ (ML-2017-GS-10tx-3), *gu.re.bu.ru.a.ren.kon.tra* ‘gure buruaren kontra’ (ML-2017-GS-ha), *du.zun.‘in.bi.ri.o.rrek* ‘duzun inbidia horrek’ (ML-2017-GS-8tx-1), *guk.gre.bae.gin.da.ko.an* ‘guk greba egindakoan’ (ML-2017-GS-10tx-2), *la.bo.ra.ri.ak.gai.i.zan.ga.ra* ‘laborariak gai izan gara’ (ML-2017-BB-8H-2), *gu.‘pros.ti.tu.ton.pa.pe.ra* ‘gu, prostituton, papera’ (ML-2017-BB-ge-3), etab. Hitz eta sintagmen araberako erritmo-aldaerak ugari diren arren, beherakada dago kopuruan; neurri paretsuan gauzatzen ditu silaben balio erritmikoa parekatutako kasuak eta hitz edo sintagmen neurriaren arabekoak.

9.4.3.6. Amets Arzallus (2013)

Amets Arzallusek, 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, motibo erritmiko nagusiei jarraituz sortzen ditu bertsoak, sarri kantatzen duenaren arabera erritmikoak badarabiltza ere. Gauzatzen dituen aldaera erritmikoek silaba gutxi batzuei eragiten die batzuetan, eta puntuaren eremura arte hel daitezke beste batzuetan (silaben balio erritmikoa parekatzean, adibidez). Sei multzo nagusitan bereiz daitezke, dituzten ondorioei erreparatuta:

- **Bertso-doinuko (neurriko) osagaien** —motiboa, hemistikioa, puntua— **hasierak nabarmentzea**, eremuko lehen silabari balio erritmiko luzeago edota tetikoa emanez (*beat* indartsuarekin bat etorraraziz), anakrustikoa beharrea. Hainbat adibide jaso ditut Arzallusen bertsoetan (azpimarratuta luzatutako silabak): *ja.ki.zu.o.ke.rre.na* (AA-2013-GS-8tx-3), *a.ra.or.'al.ka.te.a* 'hara hor alkatea' (AA-2013-AS-ptk-2), *a.ren.'u.sain.go.xo.a* 'haren usain goxoa' (AA-2013-BB-9phtz), *au.rra.nin.tze.la.'eus.ka.raz* 'haurra nintzela euskaraz' (AA-2013-AS-ba), etab.
- **Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea**. Lujanbioren ondoren Arzallus da baliabide hau gehien darabilen bertsolaria, kantatzen ari denari jarraitutasuna emanez hainbatetan, etenak ez egitearen truke. Horrez gain, estrukturalki eten hori egitea "eskatzen" ez duten eredu erritmikodun sei doinu ere badarabiltza, zortziko txikian (goizeko saioan eta buruz-buruzkoan), puntu-erantzunetan, bederatzi puntukoan, puntuka eta hasierako agurrean (arratsaldeko saioan). Bertsolariak gehien darabiltzan aldaeren artean dago honakoa.
- **Bertso-doinuko (neurriko) osagaiak modu trinkoagoan gauzatzea**, motibo hasierako, barreneko edo amaiera aldeko silaba(k) laburtuta. Hainbat kasutan eremu hasierako edo motibo barreneko silabak laburtzen ditu bertsolariak (azpimarratuta laburtutako silabak): *guk.bi.e.ba.ki* (AA-2013-GS-8H-2), *do.nos.ti.a.ko* 'Donostiako' (AA-2013-GS-ge-1), *zu.lo.ba.te.ko.kar.tze.la* (AA-2013-GS-ge-3), *ba.ña.ni.ez.pai.nai.ze.men* 'baina ni ez bainaiz hemen', (AA-2013-AS-ba), etab. Adibide gutxi batzuetan eremu amaierako azken aurreko silaba gauzatzen du laburrago (eta kontrastean, sarri azken silaba luzeago): *ta.'az.ke.ne.an* 'eta azkenean' (AA-2013-GS-ge-1), *nik.su.fri.tu.dut*, *ba.ña.as.ko.za.ze.de.rra.go.da* 'baina askozaz ederrago da' (AA-2013-BB-6mtz-2), etab. Azkenik, eremu azkeneko silaba laburtu eta osagaia gehiago mugatzen duen etenik ez egitearen ondorioz, hurrengo hemistikioarekin lotuago gauzatzen ditu kasu bakan batzuetan Arzallusek silabak, puntuaren eremua bera trinkotuz (azpimarratuta laburtutako silabak): *de.xen.te.zar.tu.da.ba.ña.'a.ma.bi.zi.rik.dau.kat.ño* 'dezente zahartu da baina ama bizirik daukat, ño' (AA-2013-BB-ge-2), etab.

- **Silaben balio erritmikoa parekatzea puntuaren, hemistikioaren eta motibo erritmikoaren neurrian.** Arzallusek gehien darabilen baliabidea da. Aipatutako eremuetan, eredu erritmikoa osatzen duten silaba batzuek pareko balioa hartzen dute —normalean balio luzeena dutenak gainerako iraupenera laburtuta—, eta aurretik pareko balioa bazuten, *tempoa* azkartu eta hitz lautik gertuago dagoen moldean kantatzen du hots katea bertsolariak. Puntuaren eremuan, esaterako (azpimarratuta laburtutako silabak): *i.ra.kur.tzeu.tsa.re.ki.ni.ga.xo.tu.nin.tzen* ‘irakurtze hutsarekin ni gaixotu nintzen’ (AA-2013-GS-8tx-2), etab. Eta hemistikio edo motiboarenean: *ta.e.ror.tzen.ba.za.ra* ‘eta erortzen bazara’ (AA-2013-AS-10tx-3), *ma.da.ri.ka.tu.a* ‘madarikatua’ (AA-2013-AS-ptk-4), *i.tze.gin.be.za.bi.o.tzak* ‘hitz egin beza bihotzak’ (AA-2013-AS-ge-3), *es.ku.bi.de.a* (AA-2013-GS-ha), etab. Bertsolariak gehien darabiltzan aldaeren artean dago honakoa ere.
- **Motibo erritmikoaren baitan hitz edo sintagmen araberako taldekatzea egitea**, eredu erritmikoak eraldatuta. Batzuetan silaben balio erritmikoak (luze-laburrak) aldatzen ditu, hitzen mugekin (hasiera edo amaierarekin) bat etor dadin balio luzea motiboaren baitan, etenez ere lagunduta maiz: *lu.rro.ri.du.gu.re.i.tzak* ‘lur hori du gure hitzak’ (AA-2013-GS-ha), *guk.bi.e.ba.ki* (AA-2013-GS-8H-2), *ze.ni.on.zen.ba.ti.zar* ‘zenion: zenbat izar’, (AA-2013-GS-8tx-1), etab. Adibide gutxi batzuetan etena baliatzen du hitz edo sintagma bereizteko motibo erritmikoaren barrenean. Gehienetan oina da mugatutakoa (hitza edo oina daraman sintagma), bertsoan zehar beste hitzen batzuk ere nabarmentzen dituen arren: *ten.tsi.o.‘in.kre.txen.do.a* ‘tentsio in *crescendo*-a’ (AA-2013-GS-8H-2), *ni.kez.ti.zut.‘e.zez.ta.tzen* ‘nik ez dizut ezeztatzen’ (AA-2013-AS-ge-1), etab. Bertsolariak gehien darabiltzan aldaeren artean dago honakoa ere.
- **Motibo erritmiko nagusiak** —balio erritmiko luzez— **nabarmentzen ez dituen hitz barneko silabak nabarmentzea**. Bi adibide jaso ditut: *di.ozu.be.gi.ak.gor.dez* (AA-2013-AS-ge-2), *be.re.be.so.e.ta.ra.ño* ‘bere besoetaraino’ (AA-2013-BB-ge-2).

9.4.3.7. Joera bertsuak, modu eta neurri desberdinetan

Bertsolariz bertsolari aldaera erritmikoen berrikuspena eginda, ikus daiteke jasotako aldaera erritmiko gehienak presente daudela bertsolari gehienetan, baina neurri eta modu desberdinetan. Are, aldea dago bertsolari beraren ekoizpenetan, txapelketatik txapelketara, batzuetan.

Sebastian Lizaso da aldaera gutxien gauzatzen dituen bertsolaria, doinuaren motibo erritmiko orokorrari bere horretan jarraitzen diona, gehienetan. Xabier Amurizari dagokionez, bilakaera ikus daiteke 1980ko finaleko bertsoetan gauzatutako aldaeretatik 1982koetara, bigarren txapelketan

bikoiztu egiten baitira, kasu gehienetan, bertsolariak baliatutako aldaera erritmikoak. Jon Lopategiren kasuan (1989), aldaera batzuk gauzatzen ditu, oro har, baina nabarmentzekoa da hitz edo sintagmen araberako aldaeren erabilera. Egañaren jarduna bi bloketan bereiz daiteke, eredu erritmikoen aldakortasunari erreparatuta: lehen bi txapelketetan (1993, 1997) badarabiltza aldaerak, eremuak trinkotzen dituzten adibideak izanik gehien jaso ditudanak. Azken bi txapelketetan (2001, 2005) aldaeren kopuruak gora egiten du mota gehienetan, baliabiderik erabiliena hitz edo sintagmak mugatzen dituen izanik. Maialen Lujanbiok ere aldeak agertzen ditu 2009 eta 2017ko erritmoaren kudeaketan: 2009an hitz edo sintagmen araberako aldaera erritmikoak nabarmentzen dira, egiturazko etenik ez egitearekin eta silaben balio erritmikoa parekatzearekin batera (azken bi hauek neurri txikiagoan gauzatzen ditu). 2017an, berriz, askotariko aldaerak darabiltza modu orekatuagoan, eremu prosodikoen hasierak nabarmentzean eta silaben balio erritmikoa parekatzean egonik, bereziki, igoera; hitz eta sintagmen araberako eredu-aldaeretan jaitziera dago. Amets Arzallusek (2013) hitz eta sintagmen araberako aldaerak eta silaben balio erritmikoa darabiltza nagusiki, baita eremu ekinak indartzen dituzten aldaerak eta hemistikio mailako etenik gabeko gauzatzeak ere³⁸⁶.

9.4.4. Aldaeren eragile posibleak

Aldaera erritmiko nagusiak aztertuta, horiek eragin dituzten alorrak zeintzuk izan daitezkeen proposatu dut jarraian, kontuan harturik aldaera bakoitzaren atzean sarri eragile bat baino gehiago izango dela, ziurrenik, eta lan honetan proposatu gabeko kausak ere izango direla beharbada tarteko.

9.4.4.1. Bertso-egitura: mugak indartu edota osagaiak trinkotzea

Taldekatzeari buruzko §10 kapituluan aurkeztu dudanez, bat-bateko bertsoen taldekatzea zehazten duen alor nagusia metrika da. Horrela, unitate metrikoak nabarmen(ago) gauzatzeari lotzen zaizkio kapitulu honetan identifikatutako zenbait aldaera erritmiko: eremu hasiera edota amaiera mugatzen duena eta eremua trinkotzen duena, batez ere. Horretarako baliabide nagusi izango dira eremu hasierako edo amaerako silab(ar)en luzatzea edo eremua osatzen duten silaben laburtzea, ingurukoekiko gertuago gauzatuz, taldea trinkoago eginda³⁸⁷. Eremu nagusi gisa aipatu behar dira:

- puntua
- hemistikioa

386 Bertsolari bakoitzaren jardunean, egin beharreko lanaren, hautatutako doinuaren edo eraikitako bertsoaldiaren arabera ere aldatzen da batzuetan aldaeren agerpena. Etorkezinerako ikerbide interesgarria litzateke aldakortasun ardatzak xeheago aztertzea.

387 Horiekin batera, etenak gauzatzea edo ez gauzatzea ere izan daiteke osagai metrikoak indartzeko baliabide.

- hemistikio barreneko 5 + 5 taldekatzea, molde handiko neurridun bertsoetan, eta
- oina, sistematikoki mugatu edo trinkotzen den osagai metrikoa ez izan arren, bertsolariak maiz nabarmentzen duten elementu linguistiko eta metrikoa baita.

Taldekatzeari buruzko §10 kapituluaren sakondu dut eremuetako bakoitzean, esan bezala.

9.4.4.2. *Hizkuntzaren mugetara moldatzea kantua*

Hizkuntza da kantatzen dena eta entzuleentzat ulergarri izan behar da ahoskaturikoa. Aldaera erritmikoetan jasotako zenbait eremu-trinkotze eta silaben balio erritmikoen parekatze hitzen segmentatzeari loturik uler daitezke. Eredu erritmikoak eraldatu eta hitz edo sintagmen mugekin bat etorraraztea ere bai, egiturazkoak ez diren etenak gauzatzearekin batera. Askotariko aldaera erritmikoek kantuko hots katea hitzen, sintagmen arabera segmentatzen (laguntzen) dute. Batzuetan, gainera, bertsolariak hitz lauko hizketaren taldekatze-moduak imitatzen dituztela dirudi, baliabide adierazkor gisa ere baliatuz (ikus §10.4.1.4.2).

9.4.4.3. *Kontrastea, adierazkortasun baliabide*

Morfoprosodiaren definizioan Hurchek (1994, 1996) azaltzen duenez, egiteko morfologikoa duten ereduak, euren forma idealean, prosodiak gobernatutako eredu orokorren ezeztapena dira, aurka egiten diote joera nagusiari. Kontrastea taldekatze-arrasto da, besteak beste, bertso gintza kantatuan (ikus §10.2.6.2), desberdintasunetik eraikiz harremanak eta osatuz eremuak. Bertsoak kantatzean doinua egituratzen duen motibo erritmikoak zehaztutako ereduak izan ohi da nagusi, baina maiz bertsolariak aldaera —besteak beste— erritmikoak gauzatzen dituzte. Kontraste efektu hori da, hain zuzen, fokua silaba, hitz edo pasarte jakinetan jartzera garamatzana, eta askotariko aldaera erritmikoen bidez gauzatzen da, maiz hitz lauko ekoizpen prosodikotik gertuago ahoskatuz bertsoetako hots katea. Taldekatzeari buruzko §10 kapituluaren aletu ditut adierazkortasunari eta hitz lauko hizketa antolakuntzari lotuta dauden zenbait adibide.

9.4.4.4. *Epai-irizpideek argi lezaketena*

§9.4.2.7 atalean aurreratu bezala, aldaera erritmiko batzuen presentzia edo, bestela esanda, presentzia falta, epai-irizpideek ezarritako arauetatik (eta horien atzean legokeen bertso gintzaren ulerkeratik) azal daitezke. Xabier Amurizaren 1980ko eta 1982ko zein Sebastian Lizasoren 1986ko finaleko bertsoetan molde txikiko neurrietan silaba bateko aldakortasuna jaso dut hemistikio luzean, batzuetan 7/6 silabako puntua kantatu beharrean 8/6 silabakoa kantatuz. Txapelketa horietako epai-irizpideetan, neurria doinuaren araberakoa izan dadila eskatzen da, “etenaldi eta silabetan”

(Bertsolari Elkartea 1985). Hala, uler daiteke Amurizak eta Lizasok eginiko aldaerak onargarri zirela orduan³⁸⁸. 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusitik aurrera, ordea, irizpideetan espresuki jasotzen da “[z]enbait doinuk beste neurri batzuetarako bidea ematen duen arren, zortziko txikiaren neurria 7/6” dela (Euskal Herriko Bertsolari Elkartea 1990: 21). Bestelako silaba-kopurua gauzatzea akastzat hartzen da, beraz, 1989tik aurrera. Doinuaren egitura bertso-neurriarengandik bereizita, metrikak eskatzen duen silaba-kopurua zorrotz betetzen dute, irizpideei jarraiki, aztertutako bertsolariak 1989tik aurrera. Ez dute silaba gehigarridun aldaera erritmikorik kantatzen aztertutako txapelketako bertsoetan, doinu batzuek horretarako aukerak eman arren. Normak —epai-irizpideek, kasu honetan— sortzaileen ekoizpenean duen eraginaren adibide da honakoa, bestelako eragile batzuk ere tartean izan daitezkeen arren. §10.4.1.5 atalean sakondu dut gai honetan, aipatutakoez gain, ertz gehiago baititu auziak.

388 Beharrezkoa litzateke adierazpena baieztatu, ezeztatu edo ñabartzea orduko epaimahaikide, aditu, bertsolari eta bertsozaleekin. Bertsogintza ulertzeko orduan zuten ikuskeraren ezagutza sakonagoak gertakaria testuinguruan kokatu eta hobeto azaltzen lagunduko luke.

9.4.4.5. Estilo eta kanon kontuak

Aldaera erritmikoen gauzatzea ulertzeko ezinbestekoa da bertsolarien arteko aldakortasuna aipatzea. Garaian garaiko bertsolari eta bertsoegintza kanona eta horiei lotutako kantaera zein bestelako ezaugarri-sorta (ikus §6.5, §7.2.3 eta §7.3) eta bakoitzaren estilo edo proposamen artistikoa —alor prosodikoari dagokionean, lan honetan aztertutakoari bagagozkio— esanguratsu izan daitezke, ziur aski, eredu batzuen edo besteen presentzia ulertzeko. §9.4.3 atalean aletu dut bertsolari bertsolari eta txapelketaz txapelketa bertsolari bakoitzak zer-nola gauzatzen dituen aldaera erritmikoak (xehetasun gehiagorako, ikus II. Eranskina). Nabarmena da, esaterako, silaben balio erritmikoa parekatzea motibo erritmikoa baino eremu handiagoetan, Egañak (1993, 1997, 2001, 2005), Lujanbiok (2009, 2017) eta Arzallusek (2013) gauzatzen dutela, 90eko hamarkadatik aurrera, aztertutako bertsoetan³⁸⁹ (ikus 59. irudia ere). Era berean, aldaera erritmikoen eragin-esparrua askoz zabalagoa da aipatutako bertsolarien kasuan, eta hitz lauко egituratze prosodikora hurbiltzeko joera iradokitzen dute aztertutako adibideetako batzuek (ikus §10.4.1.4.2 atala, adibide zehatz batzuen azterketarako). Amurizak (1980, 1982), Lizasok (1986) eta Lopategik (1989) ere gauzatzen dituzte aldaerak eta etenak, baina eraldaketa txikiagoa gauzatzen dute joera nagusiekiko, oro har; euren adierazmoldearen funtsa ere bada hori bera, hain zuzen. Kantaera eta aldaera erritmiko bakoitzak unean uneko bertsolari eta bertsoegintza kanonekin lituzkeen lotura posibleak eta horien hautematea aztertzea lan honi ezarritako mugetatik harago dagoen zerbait da, baina eragile posible gisa jaso nahi izan dut, aurrera begirako lanetan kontuan hartzeko moduko faktorea delakoan.

9.4.4.6. Euskararen azentu-ereduek zein toki dute bat-bateko bertso kantatuetan?

Oso gutxi dira, aztertutako bertsoetan, hitz barneko silabaren bat propio nabarmentzeko eginiko aldaerak (kontuan hartuta §9.2.1.4.2 atalean berrikusitako euskarazko azentu-eredu nagusien kokapena). Jasotako adibideetako batzuk, §9.4.2.6 atalean esan bezala, hitz lauко euskarazko azentu-ereduekin bat egitea posible da³⁹⁰: *an.dik.‘o.nuntz.ba.da.tor* ‘handik honuntz badator’ (XA-1982-AS-be1), *e.tx.e.han.ba.da.be.rriz* (XA-1982-AS-ge-2), *e.ran.tzun.na.jan.be.ti* (JL-1989-GS-ha), *i.no.la.e.re.‘ez.nu.nes.pe.ro* ‘inola ere ez nuen espero’ (AE-1993-GS-ge-1), *in.dar.ke.ri.a* (AE-1993-AS-ge-1), *ar.bo.la.ti.kan.‘jeix.ti.a* ‘arbolatik jeistea’ (AE-2001-GS-6mtz-3), *la.na.da.si.nis.te.a.‘ai* ‘lana da sinestea, ai’ (ML-2009-BB-6mtz-3), *di.ozu.be.gi.ak.gor.dez* (AA-

389 Horrek ez du esan nahi lan honetan aztertutako gainerako bertsolariak ez darabiltenik inoiz. Lizasok, esaterako, maiz baliatzen du silaben balioa parekatzeko aldaera azken puntuari adierazkortasuna emateko plazako jardunean, besteak beste. Aztertutako finaleko bertsoetan, aztertutako urtean, ordea, ez dut halakorik jaso.

390 Balorazio hori, edonola ere, nire hiztun hautemateetik egina da. §7.2.3 atalean azaldu bezala, bertsolarien hizkeren auzia gai konplexua da eta bestelako lanketa eskatzen du.

2013-AS-ge-2), *ze.o.ze.ren.tru.ke* ‘zeozeren truke’ (ML-2017-GS-10tx-2), etab. Adibideetako asko erdialdeko azentu-eredu orokorrarekin letozke bat, eremu ekinetik hasita bigarren silaba gauzatzen baitute azentudun³⁹¹ (ikus §9.2.1.4.2, esan bezala). Bakanak dira, ordea, jasotako molde honetako adibideak bestelako aldaera batzuekin alderatuta. Egia da bestelako aldaera erritmiko gisa jasotako adibide batzuek ere hitz lauz euskaraz baliatzen diren azentu-ereduak isla ditzaketela akaso; ekineko silaba laburrago gauzatzen duten aldaeradunak, esaterako (ikus §9.4.2.3), horren ondorioz bigarren silaba gauzatzen baita maiz nabarmenago³⁹². Adibidez adibide aztertu beharreko auzia da, halere³⁹³. Halere, ez dut jaso modu sistematikoan gauzatzen den erritmo-aldaerarik eta, gutxiago, jasotako aldaeren artean, sistematikoki hitz lauko euskararen azentu-ereduetara —beharbada— hurbiltzen denik.

Bertsolarien arteko aldakortasunak ere agerian uzten du testu-uztartzean azentu-ereduen gauzatzean nolabaiteko askatasuna dutela, sortzaile bakoitzaren hizkerak baldintzatua ere izan daitekeen arren aldakortasun hori. Gainera, azken puntua eta errepika eredu erritmiko desberdinez gauzatzen dira sarri (ikus jarraian 60. irudia), eta horrek ere agerian uzten du bertsolariek gauzatutako aldaerak ez direla hizkuntza doinuarekin “egoki uztartzeko” derrigor gauzatutakoak. Ziur aski, aldaeretako asko estuago daude lotuta adierazkortasunari, kanon artistikoei eta estiloari.

60. irudia: Azken puntua eta haren errepika Arzallusen (AA-2013-GS-8tx-3) bertsoan

ba - te pos - tre - ri(k) ga - be gel - di - tu gi - ñe - la

ba - te pos - tre - ri(k) ga - be gel - di - tu gi - ñe - la

391 Adibide horiek —eta jasotako gainerako adibide guztiak— aldaera erritmiko gabe kantatuta ere onargarri lirateke niretzat. Aurrez ere zehaztu bezala, ekoizpen eta hautemate frogak egin beharko lirateke, besteak beste, gertakari honi buruzko xehetasun gehiago bildu eta sakonago ulertu ahal izateko.

392 Mendizabal-Iturriak (2023), Xabier Leteren kantagintza aztergai duela, anakrusaren erabilera eta bestelako egokitzapen prosodiko metrikoak nabarmetzen ditu, horiek erdialdeko azentu-eredu nagusiarekin lot litezkeela iradokiz. Aldaera erritmiko horien oinarrian dagoen edo dauden eragileetan sakontzea interesgarria litzateke (hizkuntza, kantagintza, etab.), bat-bateko bertsoetako gertakari erritmikoak beste kantu-genero batzuetakoekin lotuz eta kontrastatuz.

393 §9.3.1 atalean zehaztu bezala, zail da euskaraz kasu batzuetan sortzaileak hitz lauz gauzatuko lukeen azentu-eredua aurreikusi eta hori bertsoetan eginikoarekin alderatzea modu fidagarrian, corpus azterketa soilean oinarrituta.

Gainera, azpimarratzekoa da, goiko adibidean bertan ikus daitekeenez, aldaeretako askok silaben balio erritmikoa parekatu egiten dutela, batzuetan laburtuta eta, beste zenbaitetan, luzatuta —eremu ekin edo amaierako silaben kasuan—. Joera horrek, printzipioz, gainerako silabekiko bat nabarmentzea zailtzen du, hain zuzen. Ikuspegi tipologikotik aztertzekoa izan daiteke, akaso, alor hau.

Edonola ere, adibide batzuek iradoki lezakete kasu batzuetan aldaera erritmikoak hitz lauz euskarak beharbada lukeen eredura gerturatzen direla. Hala izatekotan, corpus honen azterketatik ondorioztatutako nuke, besteak beste Morgan eta Jandak (1989) argudiatutako bidean, akaso bertsolariak azentu linguistiko eta musikalak bat etorraraztea euskarazko testu-uztartzeko eskakizun derrigorrezkoa ez den arren, kasu batzuetan hitz lauz azentudun gauzatuko genituzkeen silabak nabarmentzen dituztela kantuan (.

9.4.5. Aldaeren izaeraz

Orain arte esandakoek bat-bateko bertsoetan gertatzen diren aldaera erritmikoen izaeraz hausnartzera naramate, etorkizuneko ikerketa posibleen hipotesi gisa planteatuz ondoko lerrook. Esan daiteke ikuspegi linguistiko hertsia batetik ez direla, ziur aski, aldaera erritmikoak “beharrezko”; entzuleok —euskal hiztunok— modu guztiz erregularrean bertsoak kantatuta ere “ontzat” emango genituzkeela³⁹⁴, seguruena, akaso gauzatze “egokiagoak” ere baloratuko genituzkeen arren.

Hizkuntza metrikaren eta doinuaren egiturekin uztartzeak badakartza zailtasun batzuk, eta lotura horietan nolabaiteko koherentzia bilatu nahiak ere eragiten ditu, sarri, aldaerak, hurrengo §10 kapituluan aztertu dudanez.

9.5. Laburbilduz

Bat-batean kantatzeko baliatutako doinuaren erritmo-eredu orokorrak dira nagusi aztertutako bertsoetan —bertsolariak doinu hori kantatzeko duen moduan, betiere—. Erritmo-eredu orokor horien ezaugarriei dagokienez, lau-bost musika-notako (silabako) neurria izan ohi dute txikienean. Metrikan molde handiko neurrietan hamar silabako hemistikioen baitako 5 + 5 taldekatzea doinuaren egituratik bertatik mugatzen da horrela maiz. Motibo erritmiko handienek, berriz, 7-8 silaba dituzte aztertutako bertso eta doinuetan, molde txikiko bertso-neurriko lehen hemistikioaren tamainarekin bat eginez sarri. Bertso-neurriak eta doinuak duten lotura geratzen da agerian.

394 Ñabardurak ñabardura, noski. Hor jokoan sartzen da musikak konnotazio eta emozioekin duen lotura, eta bertsoak modu oso erregularrean gauzatzeak ere entzuleon hautematea baldintzatzen du (ikus §6.6.2.3).

Erritmo-eredu horiek osatzen dituzten musika-noten (silaben) balio erritmikoei dagokienez, bi maila nagusi bereiz daitezke doinu gehienetan (partituretan beltz eta kortxea gisa irudikatuak), horietatik abiatzen direlarik bestelako balioak (puntutun kortxea, semikortxea, puntudun beltza, etab.). Aipagarria da eredu-erritmikoen batzuetan balio luzeagodun notak ertzetan izaten dituztela, eremu musikal eta metrikoa mugatzen lagunduz.

Erritmo-eredu orokorrekin batera, ezinbestekoa da bertsolariek gauzatzen dituzten aldaera erritmikoak aipatzea. Corpusa aztertuta, zazpi multzotan bildu ditut identifikatutako aldaerak, gauzatutako aldaketek dituzten ondorioetan oinarrituta, nagusiki. Ondokoak izan dira:

- Eremu hasiera edo bukaerako silaba(k) luzatzea
- Egiturazko etenak ez egitea, modu jarraituan kantatzea
- Eremua trinkotzea, lauago gauzatzea edo eremuak elkarrengana hurbiltzea
- Silaben balio erritmikoa parekatzea
- Hizkako edo sintagmakako multzokatzea motibo erritmiko barnean, eredia hitzen neurrira moldatuz edota eten bidez
- Silaba(ren) bat(zuk) nabarmentzea motibo erritmikoaren baitan
- Motibo erritmikoan musika nota bat (silaba bat) gehitzea

Aldaerak bertsolariz bertsolari (eta txapelketaz txapelketa) nola gauzatzen diren aztertuta, esan daiteke bertsolari gehienek gauzatzen dituztela identifikatutako aldaera gehienak, baina neurri eta modu desberdinean. Eredu nagusitik aldentzen diren joera-erritmikoen eragile posibleei dagokienez, hainbat proposatu ditut, kontuan hartuta maiz elkarreraginean arituko direla bat baino gehiago (eta baita lan honetan aipatu gabeko eragileak ere). Batetik, bertso-egitura hartu behar da kontuan, osagai metrikokoak (puntua, hemistikioa, hemistikio barreneko 5 + 5 taldekatzea eta oina) argiago mugatzeari lot baitakioke eremu hasiera edo amaiera luzatzen duen aldaera zein eremua trinkoago gauzatzen duena. Hizkuntzak eta, zehatzago, hitz zein sintagma mugek lagun diezagukete beste aldaera batzuk ulertzen, erritmo-eredua horiekin bat etorrarazteko moldatzen baita hainbatetan. Bertsoa komunikazioan ardaztutako sorkuntza lana izaki, aldaera erritmikoak adierazkortasun baliabide ere izan daitezke, erritmo-eredu nagusiarekiko kontrastea baliatuz askotariko moduetara, batzuetan hitz lau baliabide prosodikoetara gerturatuz. Epai-irizpideek eta horiek atzean duten bertsogintza ulertzeko moduak ere ematen dituzte zenbait gako silaba bat gehiago txertatzeko moldatutako eredu erritmikoen izatea ulertze bidean: 1980-1986 bitarteko txapelketetan, neurria “doinuaren arabera” bete beharrekoa zela zehazten dute orduko irizpideek, horrek silaba kopuruari dagokionean aldaera txikiak egitea ahalbidetuz, dirudienez, bertsoaren dimentsio musikala baliatuz. 1989ko txapelketatik aurrera, ordea, bertso-neurri bakoitzak izan beharreko silaba-kopurua zehazten da, erritmo-ereduari musika-nota (eta silaba) bat gehitzen dioten

aldaerak desagertzen direlarik (§10 kapituluan sakondu dut auzi horretan). Bertsolari bakoitzaren estiloa eta kantaera, garaian garaiko bertsogintza kanonak zein proposamen artistikoak ere kontuan hartu beharrekoak dira bertsolarien arteko aldeak ulertuko baditugu aldera erritmikoez bakoitzak egiten duten erabileran.

Azentu linguistikoak eta musikalak sistematikoki bat etortzeko joera aztertuta (azentu linguistikoa alderen eragile posible gisa baloratuz), esan behar da bertsolariek eginiko aldaera batzuetan hitz lauko azentuerara gerturatzen diren kasuak egon daitezkeela (lan honetan egindako azterketan hori ziur baieztatzea ezinezko den arren), baina pentsatzekoa da hitz lauko azentuen eta azentu musikalen arteko lotura bilatu beharra ez dela sistematikoa, hitz lauko azentueretatik aldentzen diren gauzatze musikalak ere aurki baitaitezke. Gainera, hots kate bera aldaera erritmiko desberdinekin kantaturik jasotzeak (bertsoen azken puntua errepikatzen denean, adibidez) areagotu egiten du aldaeren izaera “hautazkoa” delako ideia, hizkuntzak azentu linguistikoekiko duen harremanari dagokionez, behintzat.

10. Bertsoetako unitate prosodikoak: taldekatzea

10.1. Sarrera

Erritmoaren baitan, azentu-ereduekin batera funtsezko ideia da taldekatzearena (*grouping*; ikus §3 atalean aurkeztutako Allenen [1975] lana, adibidez). Taldekatzea mugak (*boundaries*) hautematea da, mugen arteko elementuak denbora lerroan txertatuz musikaren eta hizketaren kasuan. Hala, elkarren segidan doazen elementuak muga biren artean kokatu eta osagai horien hautematea bere taldean doazenekin lotuago eta mugaz bestaldekoetatik solteago izango da³⁹⁵ (Patel 2008: 106).

Denboran zehar antolatzen den ahozko ekoizpena eta baita, besteak beste, (ahozkoa den edo ez den) ekoizpen musikala ere, segmentatu egiten du hiztunak. Hizketa taldekatuta ekoizten duela esan liteke, unitate prosodikoen arabera (silaba, hitz prosodikoa, esaldi fonologikoa, etab.). Entzuleak ere segmentatu, deskodetu, egiten du hautemandakoa; taldekatuta hautematen du ekoizpen akustikoa. Horretarako, zenbait arrastoz (*cue*) baliatu ohi dira hiztun-entzuleak bai ekoizpenean bai hautematean. Bestela esanda, hiztunak hizketa prosodikoki ekoiztean, antolakuntza horren zenbait arrasto hautematen ditu entzuleak eta, horien ondorioz, modu jakinean segmentatu eta interpretatzen du entzundakoa. Sarri ekoizpen eta hautemate arrasto horiek bat etorri ohi dira (deCastro-Arrazola 2018: 15; ikus §10.2.6).

395 Oñederrari zor diot Patelen (2008: 106) definizioaren euskarazko garapena.

Tipologikoki esanguratsua da taldekatzea. Hizkuntza baten erritmo-antolakuntzaren oinarrian zein unitate kokatzen diren —silaba edo hitza, esaterako—, ondorio prosodiko eta segmentalak izango ditu, §3.4.3.8 atalean labur berrikusi dudan bezala. Antolakuntza horrek, beste alderdi fonologiko batzuekin batera, ondorioak ditu, gainera, bertsogintzaren oinarriak ezartzean (ikus De Sisto eta van Oostendorp 2018; De Sisto 2020, besteak beste) edo hizkuntza musikarekin uztartzean (testu-uztartzean; ikus Proto 2015 berrikuspen baterako).

Alderdi tipologikoaz gain, hizketaren taldekatzea funtsezkoa da komunikazio-ekintzan, hizketaren segmentatzean: hautematearen ikuspuntutik, hizketaren seinale jarraituan hitzak ezagutzea ahalbidetzen du, esate baterako, edo lotura zein muga morfo-sintaktiko, semantiko zein diskurtsiboak ondorioztatzen³⁹⁶. Ekoizpenarena txanponaren beste aldea litzateke: hizketa erritmikoki antolatu eta hiztunaren asmo komunikatiboak —egitura morfo-sintaktikotik hasi eta alderdi semantiko-pragmatikoetara— neurri batean adierazteko baliabide izan daiteke taldekatzea.

Euskararen prosodia eta euskarazko bat-bateko bertso kantatuen prosodia ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da taldekatzeari erreparatzea. Halaber, hizketa-ekoizpen baten taldekatzea zein den ezagutzeko, taldekatze-arrastoei erreparatzea da bide egokienetako bat, hizkuntzaren antolakuntza prosodikoaren emaitzak edo ondorioak islatzen baitituzte.

10.2. Aurrekariak eta marko teoriko-analitikoa


10.2.1. Hizkuntzaren egiturak

10.2.1.1. Hizkuntzaren hierarkia prosodikoa

§3.3 atalean azaldu bezala, prosodia egitura gisa ere ulertu behar da, parametro fonetikoekin batera: hiztunok hizketa silabatan, hitzetan, esalditan antolatuta ahoskatzen dugu, hizketaren alor prosodiko eta segmentalak baldintzatuz (Fletcher 2010: 528). Unitate linguistikoko zein segmentalak denboran zehar gauzatzean sortzen dira, beraz, unitate prosodikoak eta azpimarratzekoa da haien antolakuntza hierarkikoa (Hurch 2006: 542). §1.1.1 atalean aurkeztutako 1. irudia berriro ekarri dut antolakuntza horren isla gisa:

396 Hautematearen ikuspuntutik eginiko berrikuspen baterako, ikus McQueen eta Cutler (2010).

1. irudia: Esaldi baten hierarkia prosodikoa (Mol et alii 2017)



Jarraian eskainiko dudan berrikuspen laburrean agerian geratzen da unitate prosodikoen inguruko proposamenak gaur egun urruti daudela ulerkera bateratu eta batasun terminologikotik, §3.3 atalean aurreratu bezala. Edonola ere, interesgarri bezain garrantzitsu suertatzen dira aukera desberdinak eta eztabaida, atal honekin dudan helburua unitate prosodikoen antolakuntza, haien arteko harremanak eta hizkuntza-tipoetan duten tokia zein aldakortasuna ezagutzea izanik. Izan ere, azken buruan atal hau garatuta dudan asmoa da hizketako unitate prosodikoak bat-bateko bertsoetan zernola islatzen diren aztertu ahal izatea, beste hizkuntza batzuetan proposatutako loturak euskarara ekar daitezkeen miatuz.

10.2.1.1.1. Silaba, mora. Segmentuen egituratze erritmikoa denboran zehar

Gorago ere hainbatetan aipatu dudan silabarekin hasiko dut unitate prosodikoen aurkezpena. (ikus §2.3 eta § 8.2.1 atalak). Hizkuntza guztiak antolatzen dira silabatan baina silabak prosodia antolatzeko unitate erritmiko gisa ez du pisu bera hizkuntza denetan, eta ez beti modu berean. Silaban oinarritutako erritmo-antolakuntzaren baitan badira silaba arin eta astunen artean bereizten duten hizkuntzak. Silaben balio astun edo arin hori egituraren araberakoa da: V edo CV egituradun silabak —irekiak deiturikoak— arintzat hartu ohi dira; CVC silabak —hizkuntza batzuetan, VC egituradunak ere bai—, itxiak deiturikoak, berriz, astuntzat³⁹⁷. Silaben balio-erritmikoz aritzeko, mora deituriko denbora-unitatea baliatzen da:

397 Azalpenean silaba-egiturez ari garela CV diodanean, CCV ere izan liteke, esate baterako, eta CVC esandakoan, CCVCCC ere adierazi nahi da. Silaba-egitura ekina, silaba-gunea edo koda ba ote diren edo ez diren adierazi nahi da, osagai bakoitzak duen konplexutasunean sakondu gabe, kasu honetan.

The precise coordination of gestures required in speaking and other intentional action depends on a neural metronome that emits a flexible but regular pattern in real time, onto which we map intended words and phrases for articulation. The shortest unit in this inner rhythmic pattern that is relevant in speech, verse, and song is the time needed to pronounce a short syllable, which I will refer to by the Greek prosodic term *mora*. But the shortest unit of time required to pronounce an independent word is two *moras* long, and I will refer to it by the musical term *beat*.

(Donegan 1993a: 7)

Mora, beraz, silaba arin bat— labur bat— silaba-katean ahoskatzeko beharrezkoa den denbora-unitate laburrena litzateke³⁹⁸. Edonola ere hitz silaba bakar bat —arina edo astuna izanik ere— modu buruaskian ahoskatuz gero, bi moratako balio erritmikoa —*beat* batekoa³⁹⁹— izango luke guxtienez, Doneganen (1993) arabera. Silaba astunek —edo luzeek—bi moratako balioa lukete. Badi-ra hizkuntzak euren erritmoa moran oinarritzen dutenak, silaba astun edo arinen artean bereiziz. Japoniera edo sora⁴⁰⁰ dira, adibidez, mora-aldiko hizkuntzak. Silaba batek mora bateko edo biko balioa izango du denboran zehar antolatzean. Hizkuntzaren arabera, erritmoa antolatzeko oinarritzko unitate nagusia mora, silaba bera edo azentu taldeak —oina, hitza— izango dira, esan bezala (ikus §3.4 erritmoan oinarritutako tipologiaz, eta jarraian datorren §10.2.1.1.2 atala oinaz eta hitzaz).

Erritmoari eta bertsogintzari loturik silabaren errima aipatu behar da, azpi-atala bukatzeko. Errima silaba-guneak eta kodak —halakorik balego— osatzen dute, §8.2.1 atalean azaldu bezala, eta osagai hori da balio erritmikoa duena hizketan. Ematen duenez, ekinak ez du egitekorik silaba bat astuna edo arina den zehaztean eta, hala, ez du hizkuntzaren antolakuntza erritmikoan eraginik izango, konpasa hasi aurretik kantatzen den musika-nota anakrustikoa legez (Donegan 1993: 7).

398 Esan behar da ez dagoela morari buruzko definizio bakarra. Lan honetan hitzaren jatorrizko adierari jarraitu diot, mora erritmo-unitatetzat hartuta: hasiera batean mora grezierazko eta latinezko bertsogintza klasikoaren oinarri metrikoak ulertzeko ikasketa metrikoetan baliatutako terminoa da. Izan ere, bertsoen neurria ez zen silaba kopuruan edo silaba azentudun eta azentugabeen txandakatzean oinarritzen, silaben luze-laburrean baizik, silaben kantitatean (ikus Allen 1964). Mora terminoa hizkuntzalaritzara estrukturalisten eskutik heldu zen. Pragako eskolan, Trubetzkoy (1939) eta Jakobsonen (1937) funtsezko garrantzia aitortu zioten tipologia fonologikoan eta, Amerikan, Sapir (1931) aipa liteke batez ere, hizkuntza deskribapenetan baliatu baitzuen mora unitate gisa. Hortik aurrera askotariko molde-teoriko eta ikerlanetan baliatu izan da, esanahi desberdinekin (berrikuspen baterako, ikus Fox 2001: 46-51).

399 Ikus jarraian oinari buruzko atalean *beat*-ari buruz esanikoak. Doneganek (1993) hierarkia erritmikoa aurkezten du, eta mora eta, moren konbinazioz, *beat*-a, lirakeke osagairik oinarritzkoenak. Gainerako unitate erritmikoak —*neurria* eta *neurri luzeagoa* edo *konpasa*— oinarritzko unitate erritmiko horien multzokatze eta txandakatzeetik osaturiko lirakeke. Ikus §10.2.1.1.2 atala azalpen sakonagorako.

400 Sora munda hizkuntza-familia austroasiatikoaren parte den hizkuntza da. India ekialdean hitz egiten da, nagusiki.

10.2.1.1.2. Oina, *beat*-a, hitz prosodikoa eta beste. Azentuen inguruan antolatutako egiturak

Silabez osatua, oina azentuak biltzen duen unitate prosodikorik txikiena dela esan liteke. Prosodiaz ari garela beste termino askorekin gertatu bezala, oinarekin ere zaila suertatzen da definizio bateratu eta argia eskaintzea, askotariko ikerlariak eta askotariko iker-moldeetan baliatu izan baitute terminoa adiera antzeko baina desberdinez. Hainbatek hitzaren baitan azentudun silabak eta ondorengo silaba azentugabeak edo azentugabeek osaturiko osagaiari deitu izan diote oin (tradizio sortzailean, Kiparsky 1979, Hayes 1985 edo Halle eta Vergnaud 1987 aipa daitezke; berrikuspen batzuetarako, ikus Shattuck-Hufnagel eta Turk 1996: 218-219; Fox 2001: 355-357).

Eredu-erritmiko oinarrizko gisa ere ulertzen da; azentudun eta azentugabeko silaben taldekaketa dakarren eredu gisa. Ulerkera horretan hainbat oin mota bereizten dira, metrika klasikoan dutenak jatorria: trokeoa [ó], ianboa [ó], daktiloa [óó] eta anapestoa [óó] aipa daitezke. Hurchek (1994, 1996) aurkeztutako azentu-ereduak sortzeko hobespenetatik abiatuta, trokeoa litzateke —[ó]— oinarrizkoen den oin-eredua: silaba azentudun batek eta azentugabe batek osaturiko unitatea⁴⁰¹.

Azentua azpimarratu beharra dago oinarekiko loturan: hainbatetan aipatu bezala, azentua kanpo-nabarmentasuna da silabarentzat eta bera osatzen duten segmentuentzat (Donegan eta Stampe 1978). Hortik du azentuak bere inguruan silabak eta inguruko silabetako segmentuak, batzuetan, erakarri eta antolatzeko gaitasuna. Hizkuntza bakoitzaren antolakuntza fonologikoaren arabera, azentuaren indarrak silaba-egitura eta segmentuen antolakuntza silabikoa baldintzatuko du gutxiago edo gehiago. Oina osatzen duen azentua azentu nagusia edo bigarrenkaria izan daiteke eta, beraz, azentu-eredu baten baitan kokatu behar da oina hizketan, beste azentu —eta ezaugarri prosodiko— batzuekin harremanetan. Eztabaidagaia da, hizkuntza eta iker-molde batzuetan behintzat, oina unitate prosodiko buruaskia ote den, ezinbesteko antolakuntza erritmikorako beharrezko den nabarmentasun-alternantziatik harago (ikus Selkirk 1984 edo Fox 2000: 355, esate baterako).

Aipaturiko definizioekin batera, bada oinaren aipatu beharreko definizio bat, Abercrombie-ri (1964) egozten zaiona (*Abercrombian foot* deiturikoa). Isokroniaren ideian oinarrituta (ikus ikus gorago §3.4.1), aurrekoekiko kontrastean, nolabaiteko oinarri erritmiko gisa proposatzen du Abercrombiek oina, ingelesa aztergai hartuta:

401 Hainbat hobespen biltzen ditu trokeoak bere baitan: behearazko eredueterako joera, multzokatze bitarrarena, azentu-kontraste simple eta argienarena, etab. (Huch 1994, 1996; Dressler 1996; Madelska eta Dressler 1996; ikus gorago §9.2.1.2 atala).

English utterances may be considered as being divided by the isochronous beat of the stress pulse into feet of (approximately) even length. Each foot starts with a stress and contains everything that follows that stress up to, but not including, the next stress. *This is the 'house that 'Jack 'built* has therefore four feet.

(Abercrombie 1964: 217)

Abercrombieren definizioan oina azentu isil batek, isilune batek, osa dezake, silaba azentugabe batekin batera. Bere arabera, horrek ahalbidetuko luke azentuen arteko erregulartasuna ingelesa bezalako azentu-aldiko hizkuntzetan. Bere esanetan, oinak hitzetan zehar (ere) gauzatzen dira, ez dira hitz (lexiko) baten baitako unitate prosodiko (bakarrik). Esan bezala, Abercrombieren oina hizkuntza txertatzen den oinarri erritmiko gisa uler daiteke, musikan konpasa den gisan, hitzen mugak zeharkatuz azentu batetik hurrengora doan tarte gisa (Shattuck-Hufnagel eta Turk 1996; Fox 2001: 355-357; Fletcher 2010: 530).

Abercrombieren oinaren ulerkerari lotuta, musikan baliatzen den *beat* terminoa proposatzen dute Donegan eta Stampek (Donegan 1993; Donegan eta Stampe 2004) denbora-unitate gisa, *oin* terminoa baztertuz⁴⁰². Hitz lauz, bertsoen metrikari eta musikan baliagarri den terminoa eta ulerkera bilatzea dute helburu egindako hautu terminologikoarekin, aipaturiko hiru hizketa moldeen arteko loturak adierazi eta modu bateratuan ulertuz, ahal den heinean. Gorago, §10.2.1.1.1 atalean, moraz aritzean aurreratu bezala, *beat*-ak hitz buruaski bat ahoskatzeko behar den gutxieneko denbora tarte erlatiboa irudikatzen du hizketa antolatzen den oinarri erritmikoan, eta bi moraz dago osatua, lehen mora erlatiboki indartsua eta bigarrena erlatiboki ahula izanik⁴⁰³.

Beat-ak ez dira pultsuak⁴⁰⁴, denboraren zatikatzeak baizik —“divisions of time”—, “sufficient for a long syllable (like English 'stead ɾ) or two or perhaps three short syllables ('steady ɾ ɾ or 'steadier ɾ ɾ ɾ, the latter spoken as a triplet) of which the first is the most prominent” (Donegan eta Stampe 2004: 17). *Steady* gisako hitz bat ahoskatzen denean ingelesez, lehen silaba lehen moran txertatzen da eta bigarren silaba bigarren moran⁴⁰⁵. *Stead* gisako hitz silababakar buruaskietan ere

402 “The incompatible use of the term foot in verse metrics and in musicology (Cooper and Meyer 1960) makes us reluctant to follow Abercrombie (1964a) and many others in using foot to refer to beats” (Donegan eta Stampe 2004: 30).

403 Donegan eta Stampek (2004: 31; Donegan 1993: 8) argudiatzen dute *beat*-en egitura bitarra eta behearanzko azentu-ereduduna (indartsu-ahul ereduduna) dela eta hori unibertetsala dela, hizketan ez ezik —aipatu dugu trokeoranzko joera azentu-ereduez ari ginela (Hurch 1994, 1996; Dressler 1996, besteak beste)— bertso-neurrietan eta (mendebaldeko) musikan ere islatzen baita sarri.

404 Periodikotasuna ez da hitz lauko erritmoa ezaugarritzen duen alderdia. Bide horretan, *beat*-aren kontzeptuarekin ez da adierazten denbora tarte berbera irudikatzen duenik uneoro zentzu absolutuan, hizkuntza unitate tenporaletan antolatzean sarri eremu erritmiko gisa jokatzeko duela baizik. Ikus isokroniaz esandakoak §3.4.1 atalean.

405 Euskaratik ahoskatu bagenu hitza, hiru silabatan gauzatuko genuke seguruena, *es.té.di*, lehen silaba anakrustiko gauzatuz, ozentasun eskala hausten duten kontsonante multzoak ez baitira onartzen silaba ekinean euskaraz (ikus Jauregi 2007, besteak beste).

beat osoa betetzen da, silaba hori behar adina luzatuz, Doneganek (1993: 7) azaltzen duenez. Ianboak —oó— diren hitzak ahoskatzean, demagun *instead* ingelesez, lehen silaba *beat*-arekiko anakrusan gauzatzen dela irudikatzen da —zenbait molde teorikotan *estrametrikal* izendatu izan dena —, bigarren silaba azentuduna gauzatuz *beat*-aren lehen mora indartsuan kokaturik. Txertatze hori agerian geratzen da hizketa azkar eta arduragabeen silaba anakrustikoaren kenketa gertatzen baita: —‘*stead*. Molde berekoak lirateke gorago aipatutako euskarazko (*e*)*tórri*, (*e*)*mán*, (*i*)*kúsi* eta (*e*)*kárrri* gisako aferesiak. *Beat*-ean txertatutako silaba baino lehenago dagoen materiala beste *beat* bat betetzeko nahikoa bada, ordea, bi *beat*-etan antolatzen da hitza —Doneganek (1993: 7) neurri (*measure*) izendatzen duen unitate erritmikoa osatuz—, *understand*-en kasuan bezala: [ə̀ndr̩ | stáɛnd]⁴⁰⁶. Ohar gisa esan behar da *beat*-en mugek ez dutela bat egin behar derrigor hitzen muga prosodikoe-kin; azentu-ereduetan azentu nagusia hitzeko lehen silaban nahitaez kokatu behar ez den bezala, edo musikan doinua konpaseko lehen pultsuan hasten ez den bezala. Besterik da badaudela azentu-ereduen osaketan eta hizkuntzen txertatze prosodikoan nolabaiteko hobespenak (§9.2.1.2).

Hizkuntzaren eta oinarri erritmikoaren —kasu honetan hitzen eta *beat*-en— arteko harremanari erreparatzea esanguratsua izan daiteke hizkuntzetan gauzatzen diren hainbat gertakari eta joera fonologiko ulertzeko. *Beat*-aren nozioak laguntzen du, esate baterako, hizkuntza-aldaketan kantitateari loturik gauzatzen diren zenbait gertakari ulertzen. Silaba azentuduna luzatzea hizkuntza bazu-*beat* berean zegoen silaba azentugabearen galeraren aurrean, adibidez:

A pair of beats, again ordered strong and weak, combine into a measure, as in English *baby-sitter*, *baby-sit*, *house-sitter*, *house-sit*. Note that there is a subtle lengthening of *sit* here when it is the only material in a beat. This temporal compensation is the basis of the widely attested sound change that lengthens an accented syllable when a following unaccented syllable is lost.

(Donegan 1993: 7)

Beat-aren kontzeptua bereziki suertatzen da baliagarri azentu-aldiko hizkuntza deritzenetan. Izan ere, gorago aipatu da badirela hizkuntzak beren erritmoaren antolakuntza silaban oinarritzen dutenak (italiera, gaztelania edo euskara, kasu), beste batzuen kasuan mora da oinarrizko unitate hori (japoniera edo sora izan litezke adibide), eta bada hirugarren multzo bat. Azken hauetan azentuari loturiko bilakabideek gobernatzen dute erritmoa nagusiki, hitzean edo azentu-taldean oinarrituta (ikus §3.4). Azentu-ereduei dagokien joera gisa proposatzen dute Donegan eta Stampek (Donegan 1993) *hitz bat : beat bat* hobespena. Haien esanetan, hizkuntzetan bada joera hitz bakoitzak *beat* bat bete dezan. Adierazpen hori uzta-*beat* liteke gorago aurkeztutako hobespenetako batekin: hitzen neurria

406 Goitik beherako banaketa lerroak < | > bi *beat*-en arteko muga adierazi nahi luke, Doneganek (1993: 8) irudikatu bezala.

eta azentu-eredua zehaztean trokeorako dagoen joerarekin, hain zuzen ere (Hurch 1994, 1996; Dressler 1996, besteak beste). Edonola ere, ez da hizkuntza guztietan neurri berean betetzen joera hori, hizkuntza bakoitzaren ezaugarriek zeharo baldintza dezaketelako txertatze prosodikoa, hatsarre silabikoen nagusitasunarekin —edo nagusitasunik ezarekin— gertatzen den bezala (txertatze prosodikoaz, ikus §2).

Hala, erritmikoki esanguratsua den hitz atala —silaba-gune azentudunetik hitz amaierara arteko tartea— *beat* batean “kabitzeko” modukoa duten hizkuntzek beteko dute ondoen aipaturiko joera: hitzaren atal erritmikoa luzeran nahikoa laburra eta nahikoa aldagaitza duten hizkuntzek, hain zuzen, ingelesak adibidez. Ahaztu gabe aipaturikoa *joera* bat dela eta ez derrigor bete beharreko legea, ikusi ahal izango dugu ingelesez kasu askotan betetzen dela. Gorago baliatutako adibideei helduz beste behin ere, *stéad* silababakarrak, bi silabatako *stéady*-k, hiruko *stéadily*-k —musikan konpas bitarrean gauzatzen den hirukoa (*triplet*) bezala— eta are (*in*)*stéad*-ek —anakrusan dagoen silaba kontuan hartu gabe— beteko lukete aipaturiko baldintza. Ingelesaren antolakuntza fonologikoa aztertuta, hainbat eta hainbat bilakabide fonologiko —segmental zein prosodiko— hitzaren inguruan gauzatzeko joera duela ikus genezake (lotura honetaz ikus Hurch 2006b, 2008, Auer 1993 eta Caro-Reina eta Szczepaniak 2014 ere, Donegan eta Stamperen lanez gain). Ingeleseko beste adibide batzuk lirateke *opera* > *op’ra* ‘opera’ gisako sinkopak sinkronian edo diakronikoki gauzatutako bokal laburtzeak, *sāne* ‘zentzudun’ baina *sānity* ‘zuhurtzia’ egiten baita (Donegan 1993: 9). *Beat* bateko balioa duen hitza da gertakari fonologikoen eremu aipaturiko kasuetan. Erritmo-antolakuntzaren oinarrizko unitatea hitza dela esan genezake hizkuntz tipo honetan, azentuari loturik, nahiz eta horrek ez duen esan nahi hizketa silabatan —eta printzipio silabikoen arabera, maiz— antolatzen ez denik, besteak beste.

Zer gertatzen da, ordea, erritmikoki esanguratsua den hitzaren atala *beat*-a baino luzeagoa, edo luzeran aldakorra, duten hizkuntzen kasuan? Euskara adibide egokia izan daiteke, hizkuntza eranslea izanik oso hitz luzeak gauza daitezkeelako bi silabakoak edo silaba bakarrekoak direnen ondoan: *eskolarrainoko bide malkar hau*. Halako hizkuntzetan azentuak ez du sarri erritmoaren antolakuntzan horrenbesteko nagusitasunik, silabak baizik —edo silaba luze eta laburrak bereiziz, morak—. Esate baterako, Homeroren grezieraz edo japonieraz aurkitzen den garaiera-azentua ez dirudi hizkuntzaren antolakuntza erritmikoaren erdigunean dagoenik, eta ez da islatzen bertsoen metrikaren ere (Donegan eta Stampe 2004: 17; bertsogintzaz, ikus §6). Aipaturiko hizkuntza horien kasuan, silaba-taldeak biltzen dira *beat*-etan joera gisa,; hitz puskak, ez hitzak⁴⁰⁷ (Donegan 1993: 9-10). Auzia

407 Ohartzen naiz hitzaz ari naizela behar den bezala definitu gabe, eta horrek laster argitzen —edo behintzat problematizatzen— ahaleginduko naizen anbiguotasuna dakarrela azalpenean.

tipologikoa da (ikus §3.4) eta Hurchen (2008) aipu bat ekarri dut, ideia borobiltzen lagunduko duelakoan:

The most promising approach to phonological types is rhythm-based and proposes two structural types based on timing organization: there are languages in which the basic unit of temporal organization is the syllable and there are languages in which that function is taken by accent and accent groups (foot). Properly conceived, the syllabic type of languages exhibits different phonological regularities (processes, constraints, etc.) from the accent type. The former shows what can be termed centrifugal tendencies (polarizations, fortitions, dissimilations, etc.), the latter their centripetal counterparts (reductions, lenitions, weakening, etc.). It is the interaction of these tendencies historically and synchronically that is responsible for the different phonologies. In other words, languages of the accent type have syllabic regularities, however those regularities play only a minor role and are overruled by accent-driven processes.

(Hurch 2008: 1)

Hurch-ek silabatik abiatzen du bere azalpena. Ideia lantzen ari naizen *one word: one beat* jorara ekarriz, esan daiteke badirela hizkuntzak ez dutenak euren fonologia horrenbeste oinarritzen azentuan eta hitzean, silaban baizik. Horrek dakar euskara bezalako hizkuntza eransleek *beat*-etan ez antolatzea hitz osoak, silaba-multzoak baizik⁴⁰⁸ (Donegan 1993: 9) eta unitate-erritmiko handiagoak behar izatea hizkuntza horietan hitzak gauzatzeko.

Oinaz eta *beat*-az aritu ondoren, ezinbestekoa da *hitzaz* aritzea, aurreko bi osagaiekin harremanetan dagoen elementu gisa. Aitortu behar da definizio problematikoa duela *hitz* terminoak, eremu prosodikoez gain hizkuntzaren alderdi morfo-lexiko-semanticokoak ukitzen baititu ezinbestean. Hierarkia prosodikoan *hitz prosodikoaz* hitz egiten da, *hitz gramatikalari* loturik, hein batean, baina harekiko bereiz. Izan ere, hitz gramatikal edo morfologikoak —“atomo sintaktikoak”— bere horretan ez du unitate gisa fonologian zertan tokirik izan derrigor (Peperkamp 1999: 15). Hyman-ek (2008: 335) hainbat argudio aurkezten ditu hitz prosodikoa eta hitz gramatikala elkarrengandik bereiztearen alde. Bere esanetan, askotariko gertakari fonologikoen hitz prosodikoa den unitateari egiten diote erreferentzia; bai “ezker-ertzari” —ekinari— bai “eskuin-ertzari” —koda edo amaierari—. Hierarkia prosodikoaren baitan tokia du hitz prosodikoak: osagai handiagoak —esaldi fonologikoak, adibidez— osatzen dituen unitatea da hitz prosodikoa —ez gramatikala—, eta osagai txikiagoak —oin edo silabek— osatzen dute bera; gainerako unitateek modu batera edo bestera erreferentzia egiten dioten eremua da.

408 Doneganek (1993: 10) azaltzen du hizkuntza hauetan *beat* batean hitz bat txertatzearen joera betetzen ez den arren, silaba multzoak antolatzeke moduak oinarrian *beat*-aren erreferentzia agertzen dutela: sarri joera bitarra izatea hitz luzeagoaren azentu-ereduak (ikus Hurch 1994, 1996), silaba azentugabeetan batzuetan gertatzen diren segmentu ahultzeak, etab. Beste eztabaida bat litzateke *beat*-ak —eta hari lotuta, azentuak— zein toki duen hizkuntza horien fonologia egituratzean, oinarritzko funtzio erritmikotik harago.

Edonola ere, hizkuntzatik hizkuntzara hitz prosodikoaren ezaugarritzea aldatu egiten da. Kasu batzuetan, hitz prosodikoa hitz gramatikala baino txikiagoa da, oinaren neurrikoa: germanikoko aurrizkiak hitz gisa definitzen dituztenen kasua litzateke hori, Hymanen (2008: 335) arabera. Beste kasu batzuetan, berriz, hitz prosodikoa gramatikala baino handiagoa izan ohi da, proklitiko eta enklitikoak dituen bere baitan: bantu hizkuntza batzuetan —shona hizkuntzan, beste batzuetan artean— proposatu da, esate baterako, halako hitz prosodikoa. Hitz prosodiko horren definizioa bat etorriko litzateke hainbat ikerlarik (ikus Nespor eta Vogel 1986 edo Hayes 1989) hierarkia prosodikoko osagai gisa proposatutako *talde klitikoarekin*⁴⁰⁹ (*clitic group*). Bukatzeko, hitz prosodikoa hitz elkartuetako osagaien arabera izan daiteke. Hymanek (2008: 335) zalantza agertzen du, esanez aipaturiko hitz prosodiko posibleak elkarren osagarri edo elkarren aurkako izan daitezkeela. Zalantza horri lotuta, hizkuntza baten baitan eta hizkuntzen artean ager daitezkeen hitz prosodiko mota desberdinak aurkezten ditu, edo hitz prosodikoa ezaugarritzeko modu batzuk, hobe esanda.

21. taula: Hitz prosodikoa ezaugarritzeko modu posible batzuk (Hyman 2008: 335-336).

a. the demarcative word	a property marks the beginning or end of the word
b. the culminative word	a feature occurs only once per word
c. the harmonic word	a feature is realized throughout the word
d. the metrical word	a word consists of hierarchically arrayed moras or syllables
e. the minimal word	a word must consist of a minimum [number ⁴¹⁰] of moras or syllables
f. the maximal word	a word can consist of a maximum [number] of moras or syllables
g. the phonotactic word	a word permits only certain output segments/sequences
h. the morphophonotactic word	a word permits only certain input segments/sequences

Taula aurkeztearekin batera, Hymanek (2008: 336) berak onartzen du hitz prosodikoa askotariko ezaugarri fonologikoen definitzen dutela, ez goian zerrendatutako alderdi horietako bakar batek

409 Izan ere, eduki hitzen eta funtzio hitzen arteko loturatik sortutako osagaiak hainbat modutara ulertu izan dira ikerlarien partetik, hierarkia prosodikoaren baitan: hainbatek —horien artean azalpenaren ardatz gisa hartu dudana Hyman-ek (2008) edo Selkirk (2003) zein Inkelas eta Zec-ek (1993)— hitz prosodiko edo esaldi fonologikotzat hartu izan dituzte osagaiok, kasuan-kasuan. Beste hainbatek (Nespor eta Vogel 1986; Hayes 1989), berriz, aipaturiko *talde klitiko*a baliatu izan dute euren ikerketetan. Gerora (Vogel 2009, kasu) *talde konposatu* (*composite group*) gisa ere berrizendatu izan da aipaturiko osagaia.

410 Eliasson-i (2014: 46-47) jarraiki bete dut kortexte artekoa.

soilik. Hizkuntza bakoitzean hitz prosodikoa definitzeko baliabide eta estrategia desberdinak aurkituko ditugu, beraz (Hyman 2008: 335-336). Lanean zehar silabaz aritzean esan bezala, hizkuntzatik hizkuntzara silaba-egitura eta gertakari segmental joera desberdinak aurki daitezke muga eta hatsarre batzuen baitan. Bide berean, ulertzekoa da, hizkuntza bakoitzak bere sistema fonologikoaren erdigunean osagai jakin batzuk eta horiei loturiko gertakari zein joerak jartzen dituen heinean, hitz prosodikoak askotariko ezaugarriak izatea parametro batzuen baitan. Are, ulertzekoa da hizkuntza batzuen sistema fonologikoan erdigunean dagoen unitate prosodikoa hitza izatea —ingelesez, adibidez— eta beste hizkuntza batzuetan, berriz, hitza unitate prosodiko beregain gisa azaldu ere ez egitea (Eliasson 2014: 47). Tarteko egoerak ere askotarikoak dira, noski.

Konplexutasuna konplexutasun, definizio labur gisa esango dut azentu nagusi bat daraman unitate prosodikoa dela hitz prosodikoa, oinez osatua —*oina* hitz barneko azentudun eta azentugabeko silabek osatzen duten unitate gisa ulertuta— eta bere ertz zein barrenak gertakari prosodiko zein segmentalez mugatuak dituen, gainerako unitate prosodikoek legez (ikus §10.2.6 taldekatze arrastoez).

10.2.1.1.3. Esaldi fonologikoa eta hierarkian “goragoko” osagaiak

Hitz prosodikoz osatua, esaldi fonologikoa litzateke oro har onartua den hurrengo osagaia hierarkia prosodikoan. Aztertutako hizkuntzaren arabera, molde teorikoaren arabera edo eginiko analisiaren ezaugarrien arabera esaldi fonologiko mota bakarra edo bat baino gehiago bereizi izan da: *esaldi fonologiko txikia* eta *nagusia* (*Minor Phrase* eta *Major Phrase*), kasu, bata bestearen baitan antolaturik (ikus Selkirk 1986, adibide baterako). Esaldi fonologikoa sarri definitu izan da ezaugarri morfosintaktikoei loturik, eta horiek antolakuntza prosodikoan duten eragina ukaezina den arren, oro har onartua den ideia da bestelako alderdi batzuek (ere) baldintzatzen dutela esaldi fonologikoen antolakuntza⁴¹¹.

Izan ere, perpausen antolakuntza sintaktikotik soilik ezin da hizketaren antolakuntza prosodikoa —esaldi fonologikotan, besteak beste— aurreikusi: antolakuntza sintaktikoa eta prosodikoa ez dira isomorfikoak (gaiaren inguruko lanen berrikuspen baterako, ikus Shattuck-Hufnagel eta Turk 1996: 196-205, 212-215). Hizketa lastertasunak edo osagaien luzerak ekoizpen prosodikoan eragina

411 Antolakuntza sintaktikoaren eredu sortzailetik abiatuta, Fonologia Prosodikoaren iker-moldean eztabaidagai da egitura prosodikoaren errekurtsibitatea (ikus Ito eta Mester 2012, 2013, adibidez). Planteamendua Bizkaiko kostaldeko hizkeretara ekarri du Elordietak (2015). Lan honetan ez ditut ideia horiek azaldu zein eztabaidatuko, ikerketaren helburuetatik aldentuko nintzateke eta. Eztabaidarako, ikus Grijzenhout eta Kabak (2009), besteak beste.

izan ohi du, esate baterako (ikus Jun 1993 edo Gee eta Grosjean 1983, besteak beste; §4). Bestelako alorrekin lotura konplexuak izateaz gain, gertakari segmental eta erritmikoen gertagune da esaldi fonologikoa: eremu azkeneko luzatzea eta etenak bezalako taldekatze-arrastoak esaldi fonologikoa mugatuz gauzatu ohi dira sarri, baita eremu ekineko indartze segmental andana ere.

Esaldi fonologikoari loturik, *intonazio esaldia* (*Intonational Phrase*) aipatu behar da. Izenak berak adierazten duenez, intonaziozko ezaugarriak dira nagusiki unitate prosodiko hau definitzen dutenak: intonazio-eredu koherente eta hautemangarriak zehaztuko luke, bestelako gertakari erritmiko batzuekin batera⁴¹². Baldintza sintaktiko batzuek ere intonazio esaldien ekoizpena baldintzatzen dutela dirudi (Shattuck-Hufnagel eta Turk 1996: 211-n jaso; ikus §4). Proposamen batzuetan intonazio esaldi bat baino gehiago proposatzen da —esaldi fonologikoaren kasuan bezala— (Ladd 1986; Beckman eta Pierrehumbert 1986) eta beste ikerketa-lan batzuetan, berriz, intonazio esaldia (intonazio esaldirik txikiena) eta esaldi fonologikoa (esaldi fonologiko nagusia) bat datozela proposatu izan da: japonieraz, esate baterako (Selkirk eta Tateishi 1991). Hala, intonazioak ere definitu eta mugatuko luke esaldi fonologikoa (ikus Beckman 1996, beste batzuetan artean).

Bukatzeko, *erranaldia* (ing. *utterance*) proposatu izan dute batzuek hierarkia prosodikoan maila goren gisa⁴¹³. Gertakari fonologikoen eremu handiena, perpaus sintaktikoaren neurrikoa izan liteke —edo hainbat perpaus laburrek osatua—, eta ‘zalantzazkoa ez den egiturazko etenak’ mugatua. Unitate honen kasuan ere ez dago argi proposamenaren arabera ez ote datorren bat intonazio esaldi nagusiarekin (berrikuspen baterako, ikus Shattuck-Hufnagel eta Turk 1996: 209-210).

Proposamenaren eta molde teorikoaren arabera aldatzen dira unitate prosodikoen izenak eta ezaugarriak, osagaien arteko harremana ulertzeko modua, etab. Kontziente naiz egin dudan errepa-soan molde desberdinetako ideiak josi ditudala eta horrek arriskuak eta arazoak dakartzala. Hala egitearen helburua izan da taldekatzearen alderdi prosodikoetan oinarrituta egindako proposamenak elkarren artean lotu eta proposatzen diren osagaiak zein horien ezaugarrietako batzuk ezagutzea.

Idea orokor gisa esan liteke, hierarkia prosodikoa osatzen duten unitateak zehazterako orduan, beheagoko mailetan gertakari segmental eta erritmikoen dutela pisu handiagoa —intonaziozko gertakariak baztertu gabe— eta, zenbat eta gorago egin unitateetan, zenbat eta unitate handiagoak, prosodiaren alderdi melodikoak (intonaziozkoak) izango duela garrantzi handiagoa —gertakari erritmikoak baztertu gabe, noski—. Segmentatze arrastoei dagokienean ere, osagaiak zenbat eta

412 Proposamen batetik bestera aldakorra da intonazio esaldiaren ezaugarritzea. Berrikuspen baterako, ikus Shattuck-Hufnagel eta Turk (1996: 210-212).

413 Hortik “gora” ere diskurtsoaren egiturarekin lotutako gertakari prosodikoak aipa daitezke (ikus §4).

handiagoak izan eta osagaien arteko lotura, urrunagoa, nabarmenagoak izango dira mugak adierazten dituzten arrastoak (ikus §10.2.6 aurrerago).

10.2.1.1.4. Euskararen fonologia ulertzeko proposatutako unitate prosodiko batzuk

Eginiko berrikuspen laburra euskarara ekarrita, silaba da unitate prosodiko gisa proposatu izan den osagairik oinarritzkoena. Ez dirudi silaben astuntasunak (kantitateak) erritmo antolakuntzan eraginik duenik, ez modu orokortuan behintzat (ikus Rotaetxe 1975 edo Hualde 1997, besteak beste, adibide zehatzen azterketa proposamen batzuetarako).

Silabaren ondoren, hitzak badu beregaintasuna, neurri batean behintzat. Euskaraz ematen du hizkera batzuetan azentu-ereduen gauzatze-eremua hitza dela; batez ere ekialdeko hizkeretan (ikus §9.2.1.4.1). Fosildutako gertakari segmental zenbaitek hitzaren eremua, errotik nahiko gertu dagoen unitate gisa, inoiz prosodikoki esanguratsu(ago) izan zela uzten du agerian: egun gaindituta dagoen arren, dardarkaririk ez zen onartzen hitz hasieran, esaterako (lat. *regem* > eusk. *errege*). Gaur egun ere aurkitzen dira askotariko gertakariak hitzaren eremuan —hitzaren ertzak eta barrenak bereiziz—: silaba egiturari erreparatuz gero, kasu, ikus daiteke kodan dauden hotsen kasuan hitz amaieran onartzen diren hots batzuk ez direla hitz barrenean ageri. Herskariak, adibidez: “hitz amaieran kontsonante herskariak onartzen dira (*bart, dut, nik*) eta hitz barrenean mailegu berri batzuetan soilik (eta mailegu horiek hizkera jasoan erabiltzean bakarrik)” (Jauregi 2007: 286). Gauza bera gertatzen da txistukari afrikatuekin; hitz amaieran gauzatzen dira, baina ez hitz barrenean: *hitz* → *hiztun, hizlari; motz* → *moztu, mozketa* (Jauregi 2007: 285-286; ikus Hualde 2003: 34-37 ere, besteak beste). Bertsoetako silabatzearen (ikus §8) eta erritmo-ereduen aldakortasunaren (ikus §9) azterketek agerian uzten dute bertsolariak batzuetan hitz gramatikal-lexikoa —gehienetan— edo sintagma —hitz prosodiko edo esaldi fonologikoari loturik— hots katean bereizten dutela, hitzen arabera segmentazioa “beharrezko” edo “derrigorra” ez den arren, ziur aski⁴¹⁴.

Hitz prosodikoari lotuta, aipaturiko unitate prosodikoekin batera, Bizkaiko kostaldeko garaiera-azentudun hizkerez ari dela, Elordietak (1997, 1998; Jun eta Elordieta 1997) “*azentuzko osagaia*”⁴¹⁵ (*Accentual Phrase*) proposatzen du intonazio eredu txikiena gauzatzeko eremu prosodiko gisa, Pierrehumbert eta Beckmanen (1988) proposamenari jarraituz. Hori Selkirken (1984) esaldi fonologiko txikiarekin etor daiteke bat, gutxi gorabehera (Elordieta 2015: 51), edo hitz lexikoaz ha-

414 Kasu honetan kontuan hartu behar da bertsoetako ekoizpena eragile askok baldintzatua dela (doinuak eta bertso-neurriak, besteak beste), eta horrek ere ekar dezakeela bestela agian horren ohiko ez diren gertakariak azaltzea.

415 Elordietaren (2011) hitzetan.

tzen ditu⁴²⁰ (berrikuspen baterako, ikus Elordieta eta Hualde 2014). Erranaldia aipa daiteke unitate prosodikoekin bukatzeko.

Lan honetan, euskaraz gauzatutako unitate prosodikoak kantuan eta bertsoetan aztertu ditut. Doinua da oinarri prosodiko nagusia eskaintzen duena, eta bertan hitz lauko erreferentzia prosodikoak izatea zaila da, hitz lau bestelako intonazio- eta azentu-ereduak zein taldekatzea baitira abiapuntua, hizkuntzarekiko harremanetan, betiere. Gainera, bertsolariek sarri hitz (lexiko-gramatikal) edo sintagmakako segmentatzea egiten dutela ikusirik, osagai prosodiko eta morfosintaktikoak hartu ditut kontuan, nahasian, bertsoetako taldekatze prosodikoa aztertu eta ulertzeko:

- silaba,
- hitza: sarri hitz gramatikala eta, batzuetan, propio erreferentzia eginda, hitz prosodikoa, hitz gramatikala baino zabalagoa bada, baina esaldi fonologikotzat har daitekeena baino osagai txikiagoa, eta
- sintagma: esaldi fonologikoari loturik uler daitekeena, ziur aski. Bertsoetan gainera, ikusi ahal izan dut hizkako eta sintagmakako antolakuntza egiten dutela bertsolariek sarri, askotan hitz lauko taldekatze prosodikoa islatuz.

Hizkuntzari dagokionez, ez dut sintagma edo esaldi fonologikoa baino osagai handiagorik hartu kontuan, ikerketaren mugak gaindituko lituzkeelako⁴²¹. Era berean, oinarena bezalako unitate prosodiko bat ez dirudi buruaskia denik euskaraz, hitzen luzera, azentuaren izaera eta azentu-ereduen antolakuntza dela eta —hitza baino eremu handiagoetan antolatzen baita, normalean—.

Aipatutako osagaiez gain, bertso-neurriak eta doinuak eskaintzen dituzten unitateak ere hartu ditut kontuan.

10.2.1.2. Unitate prosodikoei tipologiaren ikuspegitik begira

Erritmoaren araberako tipologietan unitate edo osagai prosodiko desberdinak nagusitzen dira tipo erritmikoaren arabera. Azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, azentuak sistema fonologikoaren antolakuntzan duen nagusitasuna dela eta, hari loturiko hitza izango da unitate prosodiko zentral(etako bat) (Donegan eta Stampe 1983, 2002, 2004; Donegan 1993; Auer 2001; Hurch 2008;

420 Intonazio osagai horretan aipagarriak dira intonaziozko gertakariekin batera eremu azkeneko luzatzea eta etena, eremua mugatzen duten arrasto gisa.

421 Kantatutakoaren diskurtso-egitura bertso- eta doinu-egiturarekin nola uztartzen den ere ikergai emankorra litzateke, beste askoren artean.

Caro-Reina eta Szczepaniak 2014; besteak beste; ikus §3.4). Horrela, hitzaren eremuak baldintzatu-ko ditu hainbat bilakabide segmental (Auer 1990, 1993, 2001), eta azentu-ereduen gauzatze eremu nagusietako bat ere hitz prosodikoarena izango da.

Silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, ordea, silaba izango da oinarritzko unitate erritmiko nagusi, silabaren ondoren esaldi fonologikoa izanik, maiz, eremu prosodiko beregain nagusia (van Oostendorp 2000). Bilakabide segmentalak osagai horien baitan gertatuko dira gehiagotan, eta hitzen arteko mugak urtuz birsilabatzea (*liaisona*) gertatuko da sarri esaldi fonologikoaren eremua bezalakoetan (Dauer 1987, Bertinetto 1989, Auer 2001; ikus lan honetan §8 euskaraz eta bertsoetan *liaisona* egiteari dagokionez).

10.2.2. Bertso-neurrien osagaiak

§9 kapituluan aritu naiz bertso-neurrien zenbait ezaugarri, horiek hizkuntzarekin dituzten lotura eta alde posible batzuk hizpide izanik. Jarraian, mora, silaba edo azentua baino handiagoak diren unitateak metrikan nola antola daitezkeen aurkeztuko dut labur, metrikaren eta hizkuntzaren arteko loturak egiten ahaleginduz, ondoren euskararen eta bat-bateko bertsoen metrikara salto egiteko.

10.2.2.1. Taldekatze metrikoak eta hizkuntzekiko lotura posibleak

§3.4 atalean azaldu bezala, hizkuntza bakoitzaren antolakuntza fonologikoan eremu prosodiko batzuek (silabak, adibidez) eta horiei lotutako hatsarreek indar egituratzaile handiagoa dute beste batzuek (azentuak, kasu) baino; euskaraz, esaterako (ikus §3.4.4). Nagusi diren unitate eta osagai prosodikoak aldatu egiten dira hizkuntzaren tipo erritmikoaren arabera; horrek ondorioak ditu bilakabide segmentalen gauzatze-eremuetan, gauzatzen diren bilakabide motetan edo silaba-egituran, besteak beste. Oinarritzko unitate edo osagai prosodikoaz gain —mora, silaba edo azentua—, kontuan hartu behar da hizkuntzaren prosodia modu hierarkikoan antolatzen dela (aurreko §3.3 atalean aurkeztu bezala). Hala, goragoko mailetan ere islatzen dira joera tipologikoak: azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzetan hitzaren eremua erdigunean jartzeko joera aurkituko da eta, silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, berriz, silabak taldekatzearen ondorioz, esaldi fonologikoarena bezalako talde prosodiko handiagoak (xehetasun gehiagorako, ikus §3.4.3.8).

Hitz lauko gertakariak bertsoen antolakuntzarekin lotuta, hezurdura metrikoa antolatzean (hitz lauko) hierarkia prosodikoan gorago dauden osagaiek (ere) eragina izan dezaketela proposatzen dute De Sisto eta Van Oostendorp-ek (2018; proposamenaren garapen osoa, De Sisto 2020 lanean).

Hizkuntzaren tipo erritmikoen arabera⁴²², hitz prosodikoa edota esaldi fonologikoa lirateke taldekatze metrikoa baldintzatzen duten unitate prosodiko nagusiak⁴²³. Ulerkera horretan, De Sisto eta Van Oostendorp-ek azaltzen dute silaba-aldiranzko joera duten frantsesa edo gaztelania bezalako hizkuntzetan esaldi fonologiko mailako taldekatzea islatu ohi dela nagusiki hitz lauz eta, ondorioz, baita egitura metrikoan ere, *colon* deitzen zaion unitate metrikoaren bitartez⁴²⁴, batez ere. Azentu-aldiranzko joera duten nederlandera edo alemana bezalako hizkuntzetan, berriz, hitzaren eremua izaten da nagusi hizkuntza hitz lauz antolatzean. Horien kasuan joera nagusia maiz hitzek bi silaba inguru izatea da, eta bertsoen oinarri metrikoa, ondorioz, azentu-ereduen txandakatzean ardatzen da, oin metrikoan⁴²⁵.

Planteamendu hori Donegan eta Stamperen (1983, 2002, 2004; Donegan 1993) ikuspegi holistikoarekin lotu eta osa daiteke. Aurrez ere azaldu bezala, *hitz bat : beat bat* joera proposatzen dute azentu-aldiranzko joera ageri duten hizkuntzentzat. Baldintza hori bete ahal izateko hitzen errima beat batean “kabitzeko” bezain laburra eta erlatiboki aldagaitza izan beharko dute hizkuntzek. Hori ulertzeko lagungarri da (berriro) kokatzea hizkuntza hauetan azentuak sistema fonologikoan duen zentraltasuna indar egituratzaile gisa eta, horri hein batean loturik, morfologia analitiko edo isolatzailea izan ohi dutela maiz tipo erritmiko horretako hizkuntzek. Hala, hitzaren neurriko taldekatzea posible da *beat* bakarraren baitan, hitz lauz, edo oin metrikoaren neurrian, metrikan.

Silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzen kasuan, berriz, agertzen duten taldekatze joera handiagoa hobeto uler daiteke silabak —hatsarre silabikoek— duten nagusitasunarekin batera hizkuntzok sarri morfologia eranslea izan ohi dutela kontuan hartuz gero. Hori litzateke euskararen kasua, esaterako. Silaba-aldiranzko joera eta morfologia eranslea izanik, zail gertatzen da bertsoen

422 Auer-en (1993) eta Van Oostendorp-en (2000) erritmoaren araberako tipologiaren ikuskeran dago proposamena oinarrituta.

423 Egia da hitza zuzenean lotzen zaiola azentuari eta beharbada ez dagoela horrenbesteko alderik azentua edo bi silabako hitza alderatzean; besterik da hitzen luzera handiagoa bada. Silaba eta esaldi fonologikoa aurrez aurre jarritz gero bai, nabarmena da aldea eta argi dago eremu prosodiko desberdinez ari garela.

424 Bertso-lerroa (ing. *verse*-en zentzuan) banatzen duen osagaia da *colona*, oin metrikoa baino handiagoa izan ohi dena. Lagungarri izan daiteke beharbada Lotz-en (1972: 11) definizioa: “The colon is a cohesive, sequential stretch of the verse line characterized by syntactic affinity or connectedness utilized for metric purposes. [...] [it] is related to the notion of caesura”. Askotariko neurria —“tamaina”— izan dezake osagaiak, hizkuntzaren eta neurri-motaren arabera; frantsesez sortutako neurri alexandrinoan, esaterako, sei silabako *colonez* osatuta dago, zesurak —etenak— mugatzen duen talde metriko bakoitza lerroaren (*verse*) barnean, azken silaba azentudun izateko eskakizunarekin batera. Lan honetan darabilkidan terminologian, hemistikioaren edo molde handiko neurrietan hemistikioaren baitako bost silabako talde metrikoekin aldera daiteke, ziur aski, *colona*.

425 Berpizkunde garaian Europan zehar zabaldutako okzitaniar jatorriko bertso-neurri baten garapena du De Sistok (2020) aztergai hizkuntza erromantzeetan eta germaniko-mendebaldarretan. Italiar metrika *endecasillaboa* edo frantses *alexandrinoa*, zuten prestigioa zela eta, ingelesa edo nederlandera bezalako azentu-aldiranzko hizkuntzetara hedatu ziren, baita gaztelania edo katalana bezalako silaba-aldiranzko hizkuntzetara ere, besteak beste (italiera eta frantsesa ere silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzentzat hartzen dira). Hala, ikus daiteke silaba-aldiranzko hizkuntzetatik —frantsesetik, kasu— mailegatutako bertso-neurri silabikoa, gorago aurkeztu bezala colonean oinarritua, oin metriko ianbikoaren arabera egituratutako metrikarantz aldatzen dela azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzek (nederlandarak, ingelesak, alemanak edo frisierak) baliatu ahala.

antolakuntzaren ardatz erregularra hitza (edo bi silabako oin metrikoa) izatea, luzera oso aldakorreko hitzak gauza baitaitezke euskaraz⁴²⁶ (Oñederra 2015): *bi*, edo *lagunarenganako*, esaterako. §3.4.4.5 eta §9.2.1.4.1 ataletan laburbildu bezala, hainbat dira euskararen erritmoa antolatze silabaren ondoren unitate prosodiko gisa sintagma (Oñederra 2015, Oñederra et al. 2015) edo esaldia proposatzen dutenak (Navarro Tomás 1925: 645, Martinet 1955: 343). Azentu-ereduen gauzatze eremuari begiratuta ere, ekialdeko hizkeretatik at hitza baino osagai handiagoei egin behar zaie erreferentzia (ikus §9.2.1.4.1 berrikuspen baterako). Hitz lauz aztertutako gertakari horiek bertsoetan ere isla daitezkeela pentsatzekoa da, De Sistoren (2020; De Sisto eta van Oostendorp 2018) proposamenaren ondotik.

10.2.2.2. *Euskaraz sortutako (bat-bateko) bertsoen egitura metrikoa*

Lan honetan zehar jada hainbatetan aurkeztu bezala (ikus §6.6.1 edo §9.2.3.2 atalak, besteak beste), azterketaren abiapuntu gisa hartzen dudan bertso-neurria egun silaba-kopuruan eta silaba horien taldekatze zehatzean oinarritzen da⁴²⁷. Ondokoak dira, printzipioz, bat-bateko bertsoak osatzeko baliaututako neurrien osagaiak, eta horien arteko harremana:

- **Puntua:** errimak mugatzen duen osagai metrikoa da, silaba kopuru jakina duena. Ohikoen diren neurrietan, molde handiko bertsoetan 18 silaba dituzte puntuek, eta molde txikikoek, berriz, 13 silaba. Puntua osatzen duten silaba horiek, aipagai ditugun molde “klasiko”-etan, bi hemistikiotan banatzen dira: neurri handietako puntuak 10 + 8 silabatan antolatzen dira, eta txikikoak, 7 + 6 silabatan. Bestelako neurri batzuetan (bederatzi puntuko motzean edo *Iparragirre abila dela* doinuarekin osatutako bertsoetan), puntu laburrak ere gauzatzen dira, hemistikio baten neurrikoak (sei edo zazpi silabaz osatuak, maiz). Horiek ez dute barne taldekatzerik, eta errimak mugatzen du berdina-unitatea.
- **Hemistikioa:** puntuaren azpi-atal edo osagaia, silaba-kopuruak definitu ohi du, gorago zehaztu bezala. Molde handiko neurrietan, hamar silaba dituen puntuko lehen hemistikioa bitan banatu ohi da, 5 + 5, multzokatze hori beti egin behar ote den egungo eztabaidagaia den arren bertsolarien artean⁴²⁸ (ikus atal honetan beheago xehetasun gehiago).
- **Silaba:** esan bezala, gutxienez azken hamarkadetako bertso-neurria silaban oinarritzen da, silaba-kopuruan, zehatzago izateko (ñabardura batzuetarako, ikus §10.4.1.5).

426 Ezin da, inondik inora ere, baztertu euskaraz eta asmo artistikoz (helburu estetiko-erritmikoz) eginiko bi silabako hitzez osatutako sorkuntza-lanik (bertsorik), esaterako, hori izatez posible baita euskaraz: bi silabako hitz ugari daude. Kontua da ea modu kontzientean eginiko hautuez harago joera orokortua ote den metrikaren erritmoa hitzaren (oinaren) eremuan, azentuaren inguruan, antolatzearena.

427 Baita hoskidetasunean ere (erriman), nahiz eta lan honetan ez dudana kontuan hartu, esan bezala.

428 Nerea Ibarzabal, zuzeneko komunikazioa.

Ikus jarraian zortziko handiko neurriaren eskema metrikoa, eta horren arabera Amets Arzallusek osatutako bertsoa:

62. irudia: Zortziko handiaren eskema metrikoa (Garzia et al. 2001: 84) eta Amets Arzallusen zortziko handiko bertsoa (AA-2013-GS-8H-1).

<i>Zortziko handia</i>		
-----	10	<i>Neronek ere pentsatu dut, bai</i>
-----	8 A	<i>“eginen ote du galde?”</i>
-----	10	<i>ardo, patxaran eta whiskia</i>
-----	8 A	<i>begi-bistan aldez alde</i>
-----	10	<i>barra hori da amildegi bat</i>
-----	8 A	<i>ta gu bere bi maitale</i>
-----	10	<i>hemen orekan baldin bagabiltz</i>
-----	8 A	<i>sendatu garen seinale</i>

Silaba kopurua eta taldekatzea dira —hoskidetasunarekin batera—, Etxepareren bertsoetatik gaurdaino eta bat-bateko bertsolarien jardunetik igarota, euskarazko bertsogintza egituratzen duten alderdi nagusiak, Mitxelena (Michelena [1976] 2011) arabera⁴²⁹. Etxepareren 15 silabako puntuak duten bertso batzuk aztertuta proposatzen du, esaterako, 4 / 4 // 4 / 3 silabakako taldekatzea puntu barruan. Lan honetan jarraitzen dudana terminologian, puntuaren eremua litzateke 15 silabako eremu osoa, 8 eta 7 silabako hemistikioek osatua, eta horiek [4 + 4] eta [4 + 3] silabako barne-taldekatzea lukete, hurrenez hurren. Proposamen horretatik abiatuta, Altunak (1979a) sistematikoki aztertzen ditu Etxepareren bertsoak, aipaturiko taldekatze-joera badela berretsiz eta salbuespenetan sakonduz (horiek §10.2.5 atalean aurkeztu ditut). Euskararen erritmoaren oinarrian azentuerek nagusitasunik ez dutela ondorioztatuta, euskal bertsogintzaren oinarrian silaben taldekatzea dagoela proposatzen du Altunak (1979a: 121-150) ere, hizkuntzaren eta bertsogintzaren erritmoak lotuz:

Sintetizando lo que llevamos dicho sobre ritmo, éste en la poesía y lengua vasca es, a nuestro juicio, el resultado de la regularidad con que en la cadena hablada se producen las interrupciones o silencios de cortes fijos, bien en fin de frase o miembro de frase, bien tras unidades fonéticas iguales o análogas, que nosotros designamos como ‘grupos de palabras’ o ‘grupo fónico’. [...] Ellos, [...] y solo ellos determinan y marcan en vasco el ritmo. Tales grupos de palabras no son por otra parte susceptibles de una ulterior división interna, dado

429 Ikus Mitxelena (Michelena [1977] 2011: 279): “Orain eta lehentxeago, Etxeparez geroz, silaben kontua izan da neurkeraren muina, kontaktetan bereizkuntzak aurkitzen badira ere. Lehenago, ordea, Erdi Aroko kanta zaharretan, esaterako, bertsoak ez dira berdinak luze-laburrean, neurri jakin baten ingurutsuko badira ere. Itxura ohi baino engainagarriago gertatzen ez bada, gainera, badirudi hitz andanek badutela, silabek ez ezik, zer ikusirik antzinako, eta are geroko, euskal neurkerarekin”.

que ni siquiera el número de sílabas igual es requisito indispensable, mucho menos la coincidencia de ictus o acentos en sílabas determinadas [...] y la distinción de tiempos fuertes y débiles [...].

(Altuna 1979a: 143)

Aurreko atalean euskararen “sintagmakako” edo esaldi fonologikoen arabeko erritmo-antolakuntza azpimarratuta, bide bereko adierazpena da Altunarena ere, euskararen hitz lauho eta bertsoetako antolakuntza lotuz, gainera. “Hitz taldeak” edo “talde fonikoak” aurkezten ditu erritmoaren oinarri gisa, etenez bereizten diren “esaldi” (*frase*) edo ‘esaldiko osagai’ (*miembro de frase*) gisa. Altunaren arabera, talde horiek ez dira osagai txikiagotan banatzen, eta bazterturik geratzen dira euskarazko metrikaren oinarri gisa oin metrikoa edo azentua.

Mitxelena ([1977] 2011) bertsoetan esangura luketen “hitz talde”, “hitz andana” deituriko horiek Navarro Tomásék (1939) *unitate melodiko* eta *talde foniko* deiturikoekin lotzen ditu Altunak (1979) —nahiz eta ez datozen horiekin guztiz bat, bere esanetan—. Lan honetan hemistikio izendatzen dudan osagaiarekin dator bat seguruen *unitate melodiko* hori, Altunak (1979: 149) euskarara ekartzean zehazten duenaren arabera: 6-10 silabako osagaia litzateke. Talde melodiko edo fonikoa baino osagai txikiagoak lirateke *hitz talde* edo *hitz andana* izenekoak, Navarro Tomásén (1939) terminologian gune erritmiko-semantikoak (*núcleos rítmico-semánticos*) liratekeenak. Azken hori molde handiko neurrietan hemistikio barrenean eginiko 5 + 5 silabako taldeekin lot daiteke, beharbada⁴³⁰.

Bat-bateko bertsoetan baliatzen diren ohiko neurrietan aurki daitekeen taldekatzeari bagagozkio, beti aurkitzen dira puntuaren eta hemistikioaren eremua, silaba-kopuruan oinarrituta —kontuan hartuta neurri bakoitzak bere ezaugarriak dituela— (ikus gorago eginiko unitate metrikoen eskema). Horrez gain, “molde handiko” bertso-neurrietan —10 + 8 silabako puntua dutenetan, nagusiki—, 10 silabako hemistikioa 5 + 5 banatu ohi da sarri, hala egiten dela edo hala egin *behar* litzatekeela proposatuz (Onaindia 1964: 128; Michelena [1978] 2011: 409; Altuna 1979a: 149, 1994: 1228; Arana-Martija 1980: 82; Lekuona 1982: 143-144; Amuriza [1981] 1997: 254-256; Garzia et al. 2001: 91-92). Gorago aurreratu dut molde handiko neurrietan 10 silabako hemistikioaren baitako 5 + 5 silabako barne-taldekatzea eztabaidagai dela. Batzuen ustez, beti bete beharreko araua da, hitz mugak muga metriko horrekin bat etorraraziz. Beste batzuentzat, berriz,

430 Lan honetan ez dut euskarazko bertsoentzaren taldekatzeaz egindako lan eta proposamen guztien berri eman, ikerketari ezarritako mugak gaindituko lituzkeelako. Mitxelena eta Altunaren proposamenaren berri eman dut, batetik, bi ikerlarien ikuskera eta planteamendua lan honetan bat-bateko bertsoetara egiten duenarekin bateragarria dela iruditzen zaidalako, euskararen hitz lauho erritmoa bertsoentzakoarekin lotzeko proposamena jasoz, gainera. Bestalde, askotariko testu zaharren azterketak emandako perspektiba eta adibideak baliatzearekin batera, Etxepareren bertsoentza da —Altunak, behintzat— sakonen aztertua. XVI. mendeko bertso-sorta horiek “bertso-molde herrikoian” eta ziur aski kantatzeko —edo doinu eta guzti— sortuak direla pentsatzen denez (ikus Altuna 1991: 99), bat-bateko bertsoak ulertzeko gako batzuk eskaini ditzake beharbada Etxepareren bertsoentzaren azterketak, aldeak alde.

doinuak hala “eskaten” duenean bakarrik gauzatu beharko litzateke linguistikoki eten hori; doinuak taldekatze hori eredu erritmikoaz markatzen duenean, alegia (ikus §9 bertsoetako erritmo-ereduen ezaugarriez). Hainbat lanetan aipatzen da etenaren eta doinuaren arteko lotura hori (ikus Lekuona 1982: 168; Amuriza [1982] 1997: 254-257; Garzia et al. 2001: 91-92, esaterako), doinu batzuek 5 + 5 taldekatze bereizia bultzatzen duten bitartean (*Oraindik hango oihartzun hots bat doinuak*⁴³¹, adibidez; ikus 41. irudia), beste batzuek halakorik ez dakartela azalduz (*Haurtxo txikia negarrez dago I doinuak*⁴³², esaterako)⁴³³.

Molde txikiko neurrietan, 7/6 silabaz osatutako puntua eta haren baitako bi hemistikioez gain, ez da taldekatze sistematikorik zehazten (Altuna 1979: 149; Lekuona 1982: 147; Amuriza [1981] 1997: 254-256; Garzia et al. 2001: 91-92). 8/7 silabako puntu-antolakuntza duten bertso-neurrietan —*zortziko zaharra* deiturikoan— 8 silabako hemistikioa 4 + 4 banatzen dela aipatzen dute Lekuonak (1982: 150) edo Amurizak ([1981] 1997: 254-256).

Aztertutako corpora baldintzatu ahal izan duten epai irizpideei begiratuta, 1980 eta 1982ko txapelketetan, “neurria musikaren arauera” bete behar dela jasotzen da (Euskaltzaindia 1979: 790). 1986ko txapelketa arautzen duten irizpideetan, gehixeago zehaztuz, eskaten da “[n]eurria doinuaren arabera izan dadila etenaldi eta silabetan” (Bertsolari Elkarte 1985). Lehen hiru txapelketetan, doinuaren eta neurriaren arteko lotura estua azpimarratzen da, alor musikalaren esku utziz, hein handi batean, alderdi metrikoa: kantatzen den silaba kopurua eta horien taldekatzea.

1989tik aurrera, modu esplizituan bereizten dira neurria eta doinua, silaba kopurua arautuz, doinuaren ezaugarriak edozein izanik ere. 1989tik 2001era arteko txapelketetako irizpideetan molde txikiko bertso-neurrien silaba kopurua soilik jasotzen da: puntua 7/6 silabaz osatu behar da, “[z]enbait doinuk beste neurri batzuetarako bidea ematen duen arren” (Euskal Herriko Bertsolari

431 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/3491-oraindik-hango-oihartzun-hots-bat> (azken kontsulta: 2023-10-28). Aztertutako corpusean, doinu horretan kantatzen du Maialen Lujanbiok Aitor Mendiluzerekin 2017ko Bertsoalri txapelketako finalean, buruz burukoan zortziko handiko ofizioa (ML-2017-BB-8H).

432 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1468-haurtxo-txikia-negarrez-dago-i> (azken kontsulta: 2023-10-28).

433 Amurizaren ondoko aipuak auzia ulertzeko modu bat islatzen du:

“Zertan dago etenaren oinarria? Doinuak berak egiten duen etena da. Kanta itzazu zortziko handi batzu eta ikusiko duzu nola doinuak berak daraman etena edo geldiunea, esaniko une horietan [hamar silabako hemistikioa 5 + 5 banatuta]. Beraz, musikaren ritmoak eskaten duena dela esan genezake.

Baina kontuz. Doinu guztiek ez daramate ritmo berdina. Askok egitura hori daukate, baina badaude hamar silabako lerroa honela banatzen dutenak: 3-3-4. Beraz, hamar silaba, baina banakuntza ezberdina. Gainera doinuek une horretaz beste batzutan ere badituzte eten musikalak. Guzti horiek errespetatzea ezinezkoa litzateke.

Ari garenon kasuan, eten musikala gehien eta nabarien gertatzen den tokian, testua ere eteteko ohitura nagusitu da. Ohitura hori pixkanaka arau bihurtu da eta arau bihurtu den tokietan badirudi horixe eskatzen duela. Baina bilakaera hau ez da denean berdin izan. Iparraldeko tradizioan etenari ez zaio garrantzi gehiegi eman. Hango belarriei ez datorkie hain gaizki etenaren araurik gabeko bertsoa.

Eten kontu hau, beraz, nahiko erlatiboa eta konbentzionala da jatorriz. Horrek ez du esan nahi garrantzirik ez daukanik, arte-arauak horrelaxe sortzen eta aldatzen baitira. Gaur arau hori errespetatu beharra dagoela esan dezakegu [...]” (Amuriza [1981] 1997: 256).

Elkartea 1990: 19). 2005eko irizpideetatik aurrera, molde handiko neurrietan puntuak 10/8 silaba (izan behar) dituela ere geratzen da jasota, molde txikiko neurri eskakizunekin batera. Akastzat hartzen da silaba-kopurua ez errespetatzea: “Estrofa bakoitzak bere molde metrikoa du, eta molde metriko hori silabaka neurtzen da. Bertsolariak estrofa bakoitzaren molde metrikoa errenditu beharko du, eta hala egiten ez duenean, gaizki neurtu duela esango dugu, eta akats moduan hartu” (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 2017).

Kontrastean, gorago aipatutako 10 silabako hemistikio barneko 5 + 5 taldekatzea gauzatzea edo ez gauzatzea, doinuaren arabera izan behar dela zehazten da irizpide guztietan (1980tik 2017ra): “ Etena doinuaren arabera egin behar da. Batzuetan nahitaezko izango den bezala, zenbait doinutan ez da beharrezkoa izango” (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 2017). Akastzat hartzen da, ordea, 1989tik aurrera modu esplizituan, “lerrotik lerrora hitza puskatzea” (Euskal Herriko Bertsolari Elkarte 1990: 21); hemistikiotik hemistikiora zangalatraua egitea, lan honetan darabildan terminologiaren arabera. 2001eko irizpideetatik aurrera ondoko adibidea jasotzen da esan nahi dena argi erakusteko:

*Hamaika aldiz egoten zine-
ten zuek guri itxoiten.*

(Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 2001: 8)

Bertso-doinuen antolakuntza kontuan hartu beharreko alorra da, beraz, bertso-neurriarekin batera, bertsoen taldekatzea ulertzeko.

Taldekatze metrikoaren auziari ikuspuntu tipologikotik helduz De Sistoren (2020) planteamenduari jarraiki, landutako proposamenotan ez da aipatzen oin metrikoaren bi-hiru silabako taldekatze sistematikotik gertu legokeen joera sendorik⁴³⁴. Euskal metrikarentzat proposatutako oinarriak —silabismoa eta oina baino handiagoa den osagai metrikoetan egituratutako taldekatzea (De Sistok aipatutako *colon*-arekin lotu daitekeena, ziur asko)— bat letozke, printzipioz behintzat, euskararen silaba-aldiranzko tipo erritmikoarekin (ikus §3.4.4).

10.2.3. Bertso-doinuen egitura

§10.2.1 atalean aurkeztu dut hizketako hierarkia prosodikoa, eta §10.2.2 atalean bertsoen egitura metrikoa. §6.6.2 atalean aurkeztu bezala, forma edo ekoizpen musikaletan ere hizkuntza eta

434 Ez da ahaztu behar §9.2.3.2.1 atalean jasotako Lekuonaren oin erritmikoen proposamena, baina ez dut kapitulu honetan berriro jaso, bere ikuskera musikaren (bertso-doinuaren) eraginetik ulertzen baitut, ez hizkuntzaren eraginez gauzatutako osagai metrikoen ondorio gisa. Aurrerago, §10.2.5.3 atalean, Navarro-Tomás (1925) bertso erreztatuen azterketatik proposatutako “clausulas bisilábicas” direlako oin bitarrak aurkeztuko ditut, horiek ere bertsoen oinarri metriko-prosodiko gisa baztertuz, proposamenaren arbitrariotasuna eta hizketa molde desberdina (errezitatua) dela eta.

metrikaren egituraketarekin alderagarri den hierarkia aurkitzen dugu taldekatzeari dagokionez, aldeak alde. Aurrez ere jaso dudan irudian daude islatuta lan honetan identifikatu ditudan osagai musikalak doinuaren egitura: musika-nota (doinuaren oinarrizko antolakuntza unitatea), motibo-erritmikoa, periodoa, esaldi musikala eta sekzioa (bakoitzari buruzko xehetasunetarako, jo §6.2.1 aralera).

12. Irudia: *Lurraren pean sar nindaiteke* doinuaren egitura (XA-1982-AS-ba)

The image shows a musical score for the song 'Lurraren pean sar nindaiteke'. The score is written in a single system with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The lyrics are written below the notes. Time annotations in seconds (s) are placed above the notes, indicating the duration of specific phrases or segments. These segments are highlighted with colored boxes: a yellow box highlights the first four phrases, a green box highlights the first three phrases, a blue box highlights the first two phrases, and an orange box highlights the last phrase of each line. The lyrics are: Len-go txa - pe - la nu - e - la - ri - kan il - tze ba - te - an ia - rri - ja u - ra gor - de - zun mai - te - a - re - kin ba - dau - kat kez - ka la - rri - ja bi - jak be - ra - ri ' es - kai - ni ' a - la bi - la - tu mai - te be - rri - ja ez ta be - rri - ja bai - zik za - ha - rra nik mai - te du - dan ' e - rri - ja gaur - ko - a zu - ri ' es - kain - tzen di - zut pu - bli - ku ' a - gur - ga - rri - ja pu - bli - ku ' a - gur - ga - rri - ja

Doinuen egitura bertso-neurriren batean oinarritua izaki (Arana-Martija 1980; Amuriza [1981] 1997: 258; Dorronsoro 1995; Garzia et al. 2001: 83; Herri Musikaren Txokoa 2007) —edo neurri batera moldatua, bertsoarako egokitutako abestien kasuan—, Dorronsorok⁴³⁵ (1995) puntuaren eremuaren arabera zehazten ditu bildutako doinuen egitura musikalak⁴³⁶, §6.6.2.1 atalean esan bezala. Sarri esaldi musikala eta puntuaren eremua bat etorri ohi dira: *Goizian goizik jeiki ninduzun*

435 Bertso-doinuen bilketa lana egin eta Doinutegia sortu zuen, besteak beste.

436 Gaur egun arte puntuaren eremuaren arabera daude dokumentaturik doinuen egiturak Bertsolaritzaren Datu Basean.

*I*⁴³⁷, kasu. Horretan salbuespen dira hainbat neurri berezi edo ez horren ohiko; puntu motzak dituztenak, besteak beste, horietan puntu motzek, kateaturik, osatzen baitute esaldia⁴³⁸, esaterako, *Iparragirre abila dela*⁴³⁹ doinuan. Hala, doinuen egitura puntuen ezaugarri musikalen arabera zehazten da. Aipatu berri dudan *Iparragirre abila dela* doinuarena, esaterako, A1 A2 B D E A2 gisa dago jasota, puntu bakoitzaren izaera kontuan harturik. Hizkiek agerian uzten dutenez, posible litzateke doinua hiru atal nagusitan multzokatzea ezaugarri musikalen arabera taldekatuz puntuak, ziur aski: [A1 A2] + [B D E] + [A2].

63. irudia: *Iparragirre abila dela* doinuaren transkripzio musikala (Iturria: Doinutegia, sarean).

Doinuaren egitura musikal orokorra kontuan hartzea esanguratsua izan daiteke taldekatze arrasto prosodikoen izaera ulertzeko, batetik: §10.2.6 atalean azalduko dudanez, etena edo eremu azkeneko luzatzea bezalako arrastoak nabarmenagoak izan ohi dira osagai prosodiko handi edo buruaskienetan. Gainera, lan honetan aztertu ez dudan arren, bertsolariak batzuetan euren diskurtso egitura musikarenarekin uztartu ohi dute aipagai dudan maila orokorrean, doinuaren egitura eta ezaugarriak esan nahi dutena indartzeko baliatuz.

437 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1445-goizian-goizik-jeiki-ninduzun-i> (azken kontsulta: 2023-10-28).

438 Edonola ere, esaldi musikalaren baitan erritmikoki mugaturik gauzatzen dira puntuak batzuetan; hori da *Iparragirre abila dela* doinuaren kasua.

439 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/2146-iparragirre-abila-dela-gure-etxeko-neskatua> (azken kontsulta: 2023-10-28).

Katz-ek (2005), §6.6.2.1 atalean aurreratu bezala, bertso-doinuak aztertzean, puntuaz gain, puntua osatzen duten hemistikioen araberrako egiturarekin lan egitea proposatzen du, doinuaren egituratzean sakonduz. Hemistikioak maiz lan honetan periodo izendatu ditudan osagai musikalekin etorri ohi dira bat. Gorago aurkeztu bezala, lan honetan motibo erritmikoa ere hartu dut kontuan, sarri hemistikio edo periodoaren baitako osagaia izanik. Molde handiko neurrietan, askotan, hemistikioaren azpi-atal edo azpi-osagai izan ohi da. Beste batzuetan, berriz, motibo erritmikoa bat etorri ohi da hemistikioaren neurriarekin; molde txikiko neurrietan, batez ere (ikus §10.4.1 azalpen sakonagorako).

10.2.4. Osagaien arteko harremanak testu-uztartzeko taldekatzean⁴⁴⁰

Aurreko ataletan hizkuntzaren, metrikaren eta bertso-doinuaren (musikaren) egiturak bereiz aurkeztuta, beharrezkoa da osagai horien arteko lotura, tentsio eta elkarreaginean sakontzea, bertsoaren ekoizpenean bertsolariak gauzatzen dituzten osagai prosodikoak ulertzeko.

Txertatze prosodikoaren ideia (Donegan eta Stampe 1978, 1979) berriro ere ekarrita, lan honetan ulertzen dut badela bertsoetan hizkuntzaren taldekatzea —hasiera batean, hasiera batetik— baldintzatu eta zehazten duen oinarri prosodiko bat, doinuak eskaintzen duena —doinua bera bertso-neurrian dagoelarik oinarrituta, hezurduan, bestelako egitura-maila eta aukera batzuk eskaini arren—. Baina, era berean, kontuan hartu behar da oinarri prosodiko horretan txertatzen den hizkuntzak dakartzan ezaugarriak —fonologiko zein morfosintaktiko eta semantikoek— oinarri prosodikoa eralda dezaketela atzera (maila sintagmatikoan). Jarraian testu-uztartzeko txertatze prosodikoan gako diren alor horiei erreparatu diet, bat-bateko bertsoetako errealitatea(k) kokatzen ahaleginduz beste ikerketa batzuen laguntzaz.

10.2.4.1. Oinarri prosodikoak ezartzen dituen baldintzak

Bat-bateko bertsoetan doinua da hizketaren euskarri, inprobisaziorako helduleku eta oinarri. Doinua bera da bertsolariari neurria betetzen laguntzen diona (Garzia et al. 2001: 83), neurriaren eta doinuaren arteko harremana ezagututa, betiere. Hala, gauzatu beharreko silaba-kopurua adina musika-nota eskaintzen dira, gutxienez, material linguistikoz betetzeko, eta bertso-neurriko puntuen araberrako taldekatzea bultzatzen dute doinuetako eredu erritmikoei; sarri baita hemistikioaren mailako multzokatzea eta, are, hemistikio barreneko taldekatzea ere, batzuetan.

⁴⁴⁰ Analisi-ildo honen abiapuntuan gako izan da Lehiste eta Ross-ek (2001) estonierazko *kalevala* neurriko (*kalevala meter*) kantuez eginiko lana, bertso kantatuetan hizkuntza-metrika-musika hirukoaren elkarreagina azpimarratzen baitu.

Oinarri prosodiko hori bere horretan mantendu eta hizkuntzaz betez gero, beraz, silaba-kopurua eta silaba horien taldekatzea baldintza dezake. Horrez gain, ezin da ahaztu neurriak zehaztu gabeko bestelako hainbat alor zehazten dituela bertso-doinuak, euskararen eta bat-bateko bertsoen kasuan: silaben balio erritmikoa (kokapen erritmikoa eta luzera) eta osagai prosodiko maila gehiago, neurriak zehaztutakoez gain (ikus gorago aurkeztutako doinuaren egitura).

Lanaren hasieran (§5) aipatutako ideia bat berriro hona ekarrita, ezin ahaztu daiteke bat-bateko bertso kantatuetan prosodia gramatikaren gainerako alorrei nagusitzen zaiela. Hitz lauz esan nahi dugunaren arabera ere prosodikoak hautatzen ditugu eta kantuan, berriz, egokitutako edo hautatutako neurri eta doinuaren egiturara moldatu behar du bertsolariak esan nahi duen hori. Bertsoetako oinarri prosodikoak bertan txertatzen den hizkuntza baldintzatzen du, bertsolariaren formulazio morfosintaktiko eta hautu lexikoetatik hasi eta hots katearen silabatze eta taldekatzeraino. Txertatze prosodikoan, horrela, abiapuntu edo oinarri den doinua ez da material fonologikoz betetzen “modu zuzen eta pasiboan”. De Sisto (2020: 20) bertsoegintzarako proposatutakoa bertso kantatuetara ekarriz, egitura metrikoa (edo prosodikoa) material fonologikoarekin betetzen denean, egitura metrikoak berak hautu fonologikoak baldintzatzen ditu:

[...] the metrical template does not just passively get filled by phonological material. The interaction between phonological and metrical structure goes both ways, in that the metrical template can select the phonological material which suits it better, from among the elements available. In a way, it can push phonology in a specific direction and reinforce or suppress phonological aspects according to its preferences. In other words, the metrical template can have a preference for a certain type of element available in the inventory and can make a selection accordingly; it can stretch phonological options in order to favor the characteristics of its own structure.

(De Sisto 2020: 20)

Bertso-neurria hizkuntzaren fonologian oinarrituta egon arren, joko-arau propioak ezartzen dizkie, beraz, hizkuntzari eta hiztunari (bertsolariari). Zehatzago, doinuak ezartzen —edo eskaintzen— dizkio baldintza horiek euskaraz kantatzen duen sortzaileari. Abiapuntu gisa, taldekatzeaz ari garela, motibo erritmikoaren, periodoaren, esaldi musikalen eta sekzioen arabera taldekatzea izango dugu eskuragarri eta, unitate musikal horiei loturik, puntuaren, hemistikioaren eta, molde handiko neurrietan, hemistikio barneko taldekatzea sarri. Silaba-kopuruari dagokionez, doinuaren eta neurriaren arteko harremanaren arabera izango da emaitza, joera nagusia musika-nota bakoitzeko silaba bat gauzatzea izango delarik (ikus §10.2.5.1).

10.2.4.2. Koherentzia prosodikoaren bilaketa

Oinarri prosodikoaren eta bertan txertatzen den hizkuntzaren arteko harremana aldebikoa da, aurreko atalean zehaztu bezala: oinarriak baldintzatzen ditu bertan txertatzen den hizkuntzaren ezaugarriak, eta txertatutako hizkuntzak berak eralda dezake oinarri prosodikoa. Harreman horretan, beste hizkuntza batzuetan testu-uztartzeaz eginiko azterketetan maiz nolabaiteko “koherentzia prosodikoa” bilatzen dela proposatu izan da, hizkuntzaren taldekatze prosodikoa —hitz lauz ekoitziko litzatekeen taldekatze prosodikoa— eta doinuaren egitura musikala bat etorraraziz.

Batzuetan hizkuntza izango da doinuaren taldekatzera egokituko dena. Hayes eta Kaunek (1996: 266-270), adibidez, ingelesezko herri kantuetako 670 lerro (*folksong lines*) aztertuta zehazten dute badagoela hizketako esaldi fonologikoen eta lerroen arteko bat etortzea, baita sarri lerroa osatzen duten hemistikioen eta hizketako unitate prosodikoen arteko uztartzea ere. Hitzen mugek doinuaren egitura errespetatzeaz gain, beraz, hitz lauz talde prosodikoa osatuko luketen silabak kantuan ere batera gauzatzeko joera dagoela proposatzen dute⁴⁴¹.

Beste batzuetan, berriz, doinuaren (eta metrikaren) taldekatzea edo eredu-erritmikoa moldatu edo eraldatuta, hizkuntzaren egitura eta taldekatzea islatuko dira. Morgan eta Jandaren (1989) ekoizpen esperimentuko adibidea izan daiteke bertsoen azterketarako baliagarri, hizkuntzaren alderdi morfosintaktiko, semantiko eta prosodikoak testu-uztartzean izan dezakeen eragina iradokitzen baitu. Morgan eta Jandak (1989) ingelesez eta gaztelaniaz eginiko esperimentuan (ikus esperimentuaren azalpen xeheagoa, §9.2.4.1.1 atalean), gaztelania hitzun batzuen ekoizpenetan jaso zuten aldaeretako bat “taldekatze sintaktikoak” baldintzatua izan daitekeela proposatzen dute. Esperimentuko parte-hartzaileek *me viene a molestar* adierazpena ekoizteko sei musika nota zituzten, hiruak multzokaturik:

64. irudia: Morgan eta Jandaren (1989) esperimentuan parte-hartzaileek baliatu beharreko eredu erritmikoa



Gaztelania hitzunek bi estrategia nagusi baliatu zituzten eredu prosodikoaren eskakizunari aurre egiteko: 1) sinalefa egitea *viene* eta *a* preposizioaren artean (*me.vie.nea.*) (*mo.les.tar*) taldekatuz parpaua, edo 2) musika nota gehigarri bat ekoiztea bigarren konpas eta talde musikalean, (*me.vie.ne.*) (*a.mo.les.tar*) taldekatzea gauzatuz. Ikerlariak bigarren gauzatzearen

441 Gai honen inguruan eginiko ikerketa gehiagorako, ikus, besteak beste, Hayes eta MacEathern (1998); Dell eta Halle (2009).

aldeko hautua egiten duten hiztunen ekoizpena ikusita, galdera plazaratzen dute: “this raises the question (here unanswered) of whether, for those speakers, the correspondence of musical phrases to real syntactic units is more important than accentual integrity” (Morgan eta Janda 1989: 282). Osagai morfosintaktiko eta semantikoek taldekatze prosodikoarekin duten lotura kontuan hartu beharrekoa dela dirudi, beraz, testu-uztartzeko taldekatzean.

Bat-bateko bertsoak Morgan eta Jandaren (1989) esperimentuarekin pareka daitezke alor batzuetan. Izan ere, alde aurretik emana den doinu bat dago eta bertan txertatzen da hizketa bat-batean, muga metriko batzuen baitan, kasuan kasuan bertsolariak erabakitako hitz, egitura eta aksotariko ezaugarriekin. Hala, pentsatzekoa da bertsolarien ekoizpenean gauzatutako aldaera erritmikoek (ikus §9) batzuetan arrazoi linguistikoak izan ditzaketela atzean —adibidez adibide aztertu beharrekoak—, bestelako eragile batzuekin batera. Horrek egituren arteko bat ez etortzeaz aritzera narama, egituren arteko tentsioez, hizketa kantatuko taldekatzean.

10.2.4.3. Egituren arteko bat ez etortzeak (“tentsioak”)

Egitura metrikoa eta fonologikoa uztartzean ez dira beti bat etorriko derrigor; *tentsioa* deitu ohi zaio elkarrengandik aldentze horri metrikaren iker-eremuan. Kantuetan —bertso kantatuetan— ere tentsioa sor daiteke hizkuntzaren egituren eta egitura metrikoan oinarrituta dagoen baina egitura propioa duen doinuaren egituraren artean, loturak bezainbeste. Hizkuntzatik hizkuntzara “tentsioa” sortzeko ezaugarriak aldatu egingo dira, hizkuntzaren fonologiaren eta metrikaren oinarriak ez baitira beti berberak. Gaztelaniaz, adibidez, azentu linguistiko eta musikalak bat ez etortzea ez dirudi tentsio eragile handia denik; bai, ordea, ingelesez (ikus §9.2.4.1.1). Euskaraz pentsa daiteke silaba kopuruari eta taldekatzeari loturiko auziak izan daitezkeela tentsio eragile, euskararen eta bertso-neurriaren ezaugarriei erreparatuta (ikus §3.4.4, §6.6.1 eta §9.2.3.2 atalak). Jakobsonek ([1960] 1987: 80-81) egituren arteko bat ez etortzeak —estrukturalak, nolabait— eta gerora horiek gauzatzeko modua bereizten ditu ekoizpen poetikoan, osagai horien arteko harremana konplexua eta dinamikoa dela azpimarratuz. Hori azaltzeko ondoko adibidea baliatzen du:

“But tell me, child, your choice; what shall I buy

You?” — “Father, what you buy me I like best”.

These two lines from “The Handsome Heart” by Hopkins contain a heavy enjambment which puts a verse boundary before the concluding monosyllable of a phrase, of a sentence, of an utterance. The recitation of these pentameters may be strictly metrical with a manifest pause between “buy” and “you” and a suppressed pause after the pronoun. Or, on the contrary, there may be displayed a prose-oriented manner without any separation of the words “buy you” and with a marked pausal intonation at the end of the question. Non of these ways of recitation can, however, hide the intentional discrepancy between the metrical and syntactic division.

(Jakobson [1960] 1987: 81)

Hizkuntzaren egituraren eta egitura metrikoaren arteko bat ez etortze estrukturala —goiko adibidean lerro jauzi bidez idatzita ikus daitekeena— ahoz gauzatzeko aukera bat baino gehiago dago, Jakobsonen aipuan plazaratzen duen bezala. Horien artean muturreko bi hautu posibleak lirateke: 1) unitate metrikoak eten artean gauzatzea, bertso-lerroaren eremua mugatuz horrela, hizketan ohikoa litzatekeen taldekatzea hautsiz *buy* eta *you* bereiz gauzatuta; 2) hitz lau taldekatzera hurbiltzea ekoizpena *buy* eta *you* talde prosodiko berean gauzatuz eta etena ondoren eginez, poemako ahotsak bereiziz horrela, unitate metrikoak —bertso-lerroa— ahozko ekoizpenean islatu gabe. Aukera baten edo bestearen alde lerratu, agerian geratzen da hizkuntzaren eta metrikaren egiturak ez datozela bat oinarrian.

Testu-uztartzeaz ari garela —molde bateko edo besteko kantuz—, doinua eta haren ezaugarri zein egitura sartu behar ditugu tentsioaren ekuazioan. Neurria doinuaren hezurduan islatu ohi dela kontuan hartuta —doinutik doinurako aldea kontuan hartu behar den arren—, hizkuntzaren eta doinuaren arteko harremanak hartzen du zentraltasuna egituren arteko harremanean, betiere jokoan dauden sistemak hiru direla ahaztu gabe, metrikak batzuetan izango baitu eragina ekoizpena antolatzean, doinuak mugatzen ez dituen eremuen kasuan (ikus §10.4.3 corpusaren azterketan oinarrituta eginiko gogoetarako).

Kantuetako tentsio edo bat ez etortzeak jardun artistikoaren parte gisa aldarrikatzen ditu Rodríguez-Vázquez-ek (2010: 210-211): “In almost all European traditions one can observe a certain degree of mismatch between music and text in song. Actually, mismatches are also common in the works of art-music composers of all times. [...] A certain degree of disjunction is, in fact necessary, as it prevents song from becoming monotonous and inartistically predictable”. Hala, bat ez etortzeak baliazeko askotariko moduak egon daitezke artistikoki. De Sistok (2020: 24-25) eragin kultural (“tradiziozkoak”) eta estilistikoak aipatzen ditu bertsogintza idatziaz ari dela, sortzaileen jardunean plano kolektibo eta indibidualak uztartuz; bat-bateko bertso kantatuetara ekarri daitekeen ideia da.

10.2.4.4. Ahozko ekoizpenak neurtuz

Testu-uztartzean taldekatzea aztertzeke beste bide bat neurketak egitea izan da. Hala egiten du Lehistek (1990), adibidez, estonieraz, latvieraz, finlandieraz eta japonieraz errezitatutako bertsoetan silaben, moren, oinen eta bertso-lerroen iraupenak neurtuta. Ikerketaren oinarrian dagoen ideia da aipaturiko hizkuntzak desberdinak direnez elkarren artean bai genetikoki, bai tipologikoki, hizkuntzen antolakuntza fonologikoa bertsoak errezitatzea nabarmenago islatuko dela.

Iraupen-datuaren azterketa estatistikoak eginda zehazten du, besteak beste, latvieraz oin metrikoa dela nagusiki iraupen-konpentsazioen eremu —lerroa ere bai, hein batean—. Horrek hizkuntzak azentu-aldiranzko joera duela iradokitzen du, Lehisteren (1990: 127) esanetan. Estonieraz lerroak du garrantzia, bertso-lerroaren baitako iraupen konpentsazioa gertatzen baita, nahiz eta silaba kopuruak ere baduen eraginik lerro horien iraupenean. Hitz lauz hizkuntzaren fonologian bereizten den silaba kantitatea ez dirudi bertso errezitatuetan islatzen denik⁴⁴². Finlandieraz, berriz, kantitate silabikoaren arabera iraupenak gertatzen direla dirudi. Hizkuntza horretan, *kalevala* deituriko neurrian, ez dira hitzen azentuak eta oin metrikoek markatutako gune indartsuak bat etorrarazten joera gisa. Aipaturiko ezaugarriek azentu-aldikotasunetik aldenduko litzateke estoniera eta finlandiera, Lehisteren (1990: 127) arabera. Japoniera litzateke tenporalizazioari dagokionean denetan erregularrena Lehisteren (1990: 129-133) datuen arabera, moren eta bertso-lerroen iraupenen desbideratze estandarra oso txikia baita. Hala ere, erritmoaren arabera tipologiaren bilakaeran hitz laua aztertzean gertatu bezala (ikus §3.4.2), ez du Lehistek isokronia hertsirik topatzen ez morari dagokionean japonieraz, ez gainerako hizkuntzetan ere, bestelako unitate prosodikoekin. Horrek, beste behin, aukera ematen du hizkuntzen egitura fonologikoen gauzatze fonetikoez gogoeta egiteko (ikus §3.4.7).

10.2.5. Euskal aurrekari batzuk bertsoegintzako taldekatzeen azterketan

Aurreko §10.2.2.2 atalean azaldu dut labur oinarri prosodikoak nola baldintza dezakeen bertsoetan euskaraz txertatze prosodikoa. Jarraian, aurreko atalean landutako puntuei lotuta, euskaraz egin diren azterketa eta proposamen batzuk jaso ditut, bertsoen gauzatzean jarritz arreta.

⁴⁴² Estonierazko herri kantu mota desberdinetan ere kantitate silabikoa neutraltzen dela dirudi, kasu eta kantu-genero gehienetan behintzat (Lehiste eta Ross 2001).

10.2.5.1. Silaben eta musika-noten arteko harremana kantuan

Testu-uztartzean begi-bistakoen egiten den lotura da beharbada doinu bateko musika-noten eta bertan txertatzen den testuko silaben artekoa. Ematen duenez, herri kantu eta antzeko generoetan doinua osatzen duen musika-nota bakoitzeko silaba bat txertatzea da joerarik orokorrena; kantu silabikoa gauzatzea, alegia (ikus Halle eta Lerdahl 1993: 10). Asko izango dira aurki daitezkeen salbuespenak, edonola ere.

Euskarazko bat-bateko bertsoez zehaztu izan da kantu silabikoa dela nagusi (Arana-Martija 1980: 89⁴⁴³; Amuriza [1981] 1997: 258; Dorronsoro 1995; Katz 2005: 329; deCastro-Arazola 2015), tarteka melisma laburrak —musika nota batez baino gehiagoz kantatutako silabak— aurkituko ditugun arren; baita estilo melismatikoagoan kantatzen duten bertsolariak ere. Aldakortasun horretan sartzan dira estiloa eta helburu estetikoak bezalako arrazoiak, besteak beste, doinu bakoitzaren ezaugarriekin batera.

Silabak doinuarekiko harremanean aztertuta, dimentsio musikala gehitzen zaio hizkuntzaren eta bertso-neurriaren azterketari, hainbatetan gako izan daitekeelarik hori. Arouik (2009: 3) azaltzen duenez, gaur egun arte idatzita heldu zaizkigun antzinako hainbat tradizio poetikok arraroak edo irregularrak dirudite agertzen duten aldakortasun prosodikoa dela eta. Halakoetan ez da kontuan hartzen beharbada bertso-neurria egitura metriko-tenporaletan (musikaren konpasean, alegia) oinarritzen dela, notazio musikala galdu delako —edo jaso ez delako—. Bertso-genero batzuetan oso ohikoa da sorkuntza unea bera musikari loturikoa izatea —ez lehenengo bertsoa idatziz sortzea eta gero musikatzea— eta, horregatik, neurria aztertzean musika kontuan hartzea funtsezko izan daiteke, nolabaiteko sistema metriko hibridoa izan baitezakete bertsoek:

[...] recent research appears to show that certain forms have behind them metrical systems that we could describe, as it were, as “mixed”, that are built on a twofold metrical organization where one part is based on the linguistic material, the other on the musical material, the first being amenable to study independently of the other. Benoît de Cornulier (1989) has found one example of this kind of double structure in the text of Rouget de Lisle’s “Marseillaise”. The results reported by Banti & Giannattasio (1996) and Dell & Elmedlaoui (2008) tend to lead to the conclusion that, in certain folk traditions at the very least, this double organization is far from rare (see also Kiparsky 2006: 8-18, 25). In fact, even in the French tradition studied by Cornulier, the entirety of the

443 Arana-Martijak ([1976] 1987), Azkueri ([1921, 1295] 1990: 29) jarraiki, euskararen kantu silabikoa bere tipo linguistikoarekin lotzen du: “Con relación al poema, la melodía puede ser silábica o melismática. Es silábica la melodía que para cada nota musical tiene una sílaba correspondiente en el texto y melismática aquella que en algunos trozos hace oír varias notas musicales con una sola sílaba. Tanto el griego como el vasco —observó Azkue— son silábicos. En cambio, el gregoriano, fundado sobre textos latinos, hubo de adaptar su música a letras en que se hacía perfecta distinción entre sílabas largas y breves; con las primeras, de mayor duración, podían cantarse varias notas. De aquí que el canto romano y gregoriano sean melismáticos. También en euskera hay algunas sílabas largas, pero a efectos musicales son siempre iguales” (Arana-Martija [1976] 1987: 352). Egungo ikuspegitik ematen du kantu silabikoa hizkuntzaren tipo linguistikoari baino lotuago dagoela joera linguistiko eta kognitibo orokorrei, baina Azkue eta Arana-Martija ez zebiltzan oker silaben kantitatea nolabait bereizten duten hizkuntzek ezaugarri hori —batzuetan— kantuan ere islatzen dutela proposatuta (ikus Manabe 2009, esaterako).

metrical structure of the oeuvre of a songwriter such as Béranger can be analysed at the same time on the basis of both linguistic and melodic-temporal criteria. This double structure can also sometimes be found in learned poetry, for example among the troubadors or in the poetry of Machaut (Cornulier 2003). Double metrical structure often has a “natural” origin since the pairing of a text with a temporally regular metrical structure can result in regularities in the phonological material (for example, a regular number of accents or syllables).

(Aroui 2009: 3-4)

§9.2.3.2.1 atalean, bertso-neurriez aritu naizenean, aurkeztu dut labur Lekuonak ([1918] 1978) euskal bertsogintzaren metrika ulertzeko egiten duen proposamena. Euskararen bertso-neurria oin metrikotan oinarritzen dela onartu ezin den arren —ikus, esate baterako, Haritschelharrek (1969: 416) egiten dion kritika— azpimarratzekoa da Lekuonak bere azalpenean musikari ematen dion lekua. Izan ere, bertsoetako irregulartasunak ulertzeko gako gisa aurkezten du *ictus erritmikoa*, musikaren konpasaren oinarrian dagoen pultsua —gero berak hori oin metrikoekin lotzen duen arren—:

Esta fue [...] la manera según la cual el vasco, llevado de su instinto rítmico, practicó el arte de la versificación. Prescindió en absoluto del número de las sílabas y, atento solo al de los ictus rítmicos, a dos versos de un número de sílabas desigual los miró como a iguales, a cambio solamente de que coincidieran sus ictus rítmicos o los pies, de que constaban.

[...] “Alostórea” “Eresia” a la muerte de Martín Bañez de Artazubiaga (1429), otra a la muerte de Emilia de Lastur, idem otra de Abendaño (1443), algunas de las estrofas de “Lelo-il-lelo” [...] etc., etc., son ejemplares que confirman plenamente mi aserto. Por la forma en que hasta nosotros han llegado, y por ser cosecha de aquella edad, en que la poesía no se había divorciado de la música, nos consta que estas piezas poéticas no estaban destinadas a la declamación, sino más bien a ser cantadas, lo cual era un poderoso motivo para que en ellas brillara la uniformidad en el número de las sílabas; y sin embargo sus versos están muy lejos de corresponderse mutuamente en cuanto a este extremo. Es que el vasco puso la mira, no en las sílabas, sino en el número de pies que media el tiempo de cada verso, y dicho tiempo lo rellenó de un grupo de sílabas, que podía ser mayor o menor, pero que siempre constituía un número determinado de pies.

(Lekuona [1918] 1978: 149-150)

Oinen inguruan ari dela aztertzen dituen adibide guztiak musikatuak dira⁴⁴⁴, kantatuak, eta Lekuonak berak aipatzen du zenbait bertsoen neurriak musikari lotuta ulertzeko beharra, musikaren esku dagoela “euskal poesiaren erritmoa”, aipatutako kasuetan (Lekuona [1976] 1978, [1965] 1978). Bide horretan egiten diote, hain zuzen ere, kritika Haritschelharrek (1969: 416), Lafittek (1978: 494) edo Altunak (1979: 121), Lekuonak proposatutako bertsoetako silaba edo gune luze-indartsuak musikarenak direla argituz, ez hizkuntzaren kantitateak edo azentu linguistikoak

444 Beste batzuen artean, ondokoak aipatzen ditu: Xenpelarrek kantatutako “Betroiarena”, “Iparragirrenen doinuak”, San Inazioen martxa, Bereterretxeren kantoria, etab.

eraginak. Edonola ere, Lekuonaren proposamenak aldarrikatzen du euskal (herri-)bertsogintza ulertzeko alor musikala esanguratsua izan daitekeela.

Lan honetan egin dudan corpus azterketak ere agerian uzten du musikaren oinarri metrikoak (pultsu erregularrak) eskaintzen duen dimentsioa gako izan daitekeela neurriari lotutako gertakari zenbait ulertzeko (ikus §10.4.1.5).

10.2.5.2. *Koherentzia prosodikoaz eta egituren arteko tentsioez*

Bertsoen egitura metrikoa jada osatuta dauden bertsoetatik ondorioztatu ohi da. Bide horretan, idatziz jasotako bertsoen azterketak ugari dira euskararen eremuan, muga linguistikoaren eta metrikoaren bat etortze maila aztertuz eta zehaztuz. §10.2.4 atalean aurreratu dut egile desberdinek bertso-neurri jakinetarako proposatutako taldekatzeak zein diren. Atal honetan, Mitxelenak, Altunak eta Haritschelharrek eginiko azterketa eta gogoeta batzuk jaso ditut, bat-bateko bertsogintzaren azterketarako baliagarri izan daitezkeelakoan. Laburbilduz, ikerlarion arabera osagai linguistikoaren mugak —hitz gramatikalaren mugak, uler daiteke— kasuan kasuko bertso-neurriaren unitate metrikoekin bat etorrarazi ohi dira batzuetan, bertsoaren baitako taldekatzea mantenduz, eta beste batzuetan tentsio edo zangalatrauak aurki daitezke, egilearen arabera.

Azalpenaren abiapuntu gisa har dezagun Mitxelenaren ondoko aipua:

[euskal bertso-neurria gaztelaniarenarekin alderatuz] Además de las diferencias de medida, hay la distribución de grupos de palabras dentro del verso que, en nuestro caso, pero no en castellano, se aplica con gran rigor, desde que tenemos muestras de verso vasco, hasta el día de hoy, y no son los improvisadores populares los que, cuando conocen bien su oficio, son más laxos en el cumplimiento de este requisito. Una estrofa, como ésta de Dechepare, tiene una estructura rítmica como la que señalo con líneas oblicuas:

Arma arma / mundu oro // iudicio / handira

Ceru eta / lur ororen // creadore / handia

Munduyaren / iuyacera // rigorosqui / helduda

Nola gauden / apphaynduric // bat bederac / beguira

(Michelena [1976] 2011: 190-191)

Mitxelenak nabarmentzen du euskarazko bertsogintzan asko zaintzen dela bertsoaren baitako taldekatzea muga linguistikoaren unitate metrikoekin bat etorraraziz, baita bat-batean ari diren bertsolarien kasuan ere. Horrekin batera, aipuan jasotako Etxepareren bertsoa iruzkinduz, zehazten du ez dagoela zangalatraurik (gazt. *encabalgamiento*; ing. *enjambment*) puntuaren eremua gainditzen duenik — *Arma arma / mundu oro // iudicio / handira*, kasu—, ezta hemistikioaren eremutik harago doanik ere — *Ceru eta / lur ororen*, adibidez—. Izatekotan, hemistikio barruko hitz taldeen banaketan egon daiteke, goiko adibidean < / > bidez banatuta dauden osagaien artean,

ohikoena hori ez den arren. Talde horien artean zangalatrauak dauden kasuetan sarri banaketa “sutura” gramatikal batean gertatzen dela azaltzen du Mitxelenak, *gure salua / çalia* adibidean bezala, aditz erroa eta atzizkia bananduz. Hala, aztergai duen euskarazko bertso-neurrian puntuaren eremuko barne egitura ohikoa honakoa litzateke, salbuespenak salbuespen: 4 / 4 // 4 / 3 /// (Michelena [1976] 2011: 191).

Mitxelenaren azken ideia hori abiapuntu gisa hartuta aztertzen ditu Altunak (1979) Etxepareren bertsoak sistematikoki 4 / 4 // 4 / 3 /// multzokatzearen arabera, gorago ere azaldu bezala. Hala, taldekatze joera hori betetzen dela berresten du, salbuespenen azterketan sakonduz. Ekidinezinak diren salbuespentzat hartzen ditu 5 silabatik gorakoak diren “hitz luzeegiak” (*Misericordiaz bethe*, I,58, adibidez; *apud* Altuna [1979: 35]) edo “egoki multzokatzeko” silaba kopuru “ezegokia” duten hitz konbinazioak (3 + 2 + 3, kasu: *Dembora duyan artian*, II, 68; *apud* Altuna [1979: 36]). Euskararen sintaxiak ere hautsi ezin diren hainbat baldintza ezartzen ditu kasu batzuetan: erlatiboazko *-(e)n* atzizkia sintagma bukaeran jarri beharra (*çure gomenduyan dena*, I, 412; *apud* Altuna [1979: 35]), posesiboa izenaren aurretik jartzea (*Neure beqhatuyez oroz*, I, 67; *apud* Altuna [1979: 35]), etab. Puntua osatzen duen bigarren hemistikioan errimak baldintzatu ohi du gehienbat multzokatzea (Altuna 1979: 35-45). Aipaturiko kasuetan eskakizun metrikoen eta morfosintaktikoen elkarreragina ikus daiteke, taldekatze gertakariak egoki ulertzeko ikuspegi holistikoaren beharra agerian utziz⁴⁴⁵. Hizkuntzaren taldekatzea eta metrikarena bat etortzea joera nagusia izanagatik, beti ez da posible izango, beraz. Ondoko aipuarekin laburbil daiteke Altunaren ondorioa:

No cabe, sin embargo, esperar un homomorfismo perfecto entre ambas estructuras, sino una cierta correspondencia, que, como se verá, es mucho más frecuente en el primer hemistiquio. El poeta tiene, en efecto, que valerse sobre todo del orden y de la elección de las formas para ajustarse al esquema métrico. Existen, por otro lado, obstáculos insuperables: palabras demasiado largas, necesidad de la rima en fin de verso y, de modo particular, [...] la naturaleza de la sintaxis vasca, que no permite ciertas mutaciones e inversiones, obstáculos que explican a nuestro juicio la existencia de versos que no concuerdan con el esquema que preconizamos.

(Altuna 1979: 26-27)

Altunaren ideiak bat-bateko bertsogintzaren ezaugarriak ulertzeko lagungarri izan daitezke: azken finean, bertsolaria inprobisatzen ari da, euskaraz eta eskakizun metriko batzuei jarraiki. Hala, euskararen hitzen luzera aldakorrak, morfologia eransleak eta bestelako ezaugarri eta eskakizun sintaktiko eta metrikoek baldintzatuko dute bertsolariaren jarduna. Amurizak ([1981] 1997: 224-

445 Gogora bedi §3.4.6 atalean hizkuntzen tipo erritmikoaren ondorio metrikoen esanikoa. Euskararen morfologia eransleak zaildu egin lezake osagai metriko txikiak —3-4 silabakoak— betetzea beti.

227) “euskararen trabak bertsogintzarako” atalean jasotzen ditu deklinabidea edo adizki perifrastikoak, adibidez.

§10.2.4.1 atalean aipatu dut “koherentzia prosodikoa” bilatzeko joera aurki daitekeela (herri-)bertsogintzan eta testu-uztartzean, oro har. Ematen duenez, joera hori aurki daiteke euskaraz ere: hitz lauz talde prosodiko batean ahoskatuko genukeena hitz neurtuz ere talde metriko —zein musikal— berean gauzatzeko joera lekukotzen da. Etxepareren bertsogintza aztertuta ideia hori aurkezten du Mitxelenak, esaterako:

Lo castizo, al menos desde Dechepare, es la estrofa en que los versos [hemistikioa, lan honetako terminologian] que riman tienen una sílaba (alguna vez dos) menos que los libres o bien, si se prefiere, versos [puntuata, lan honetako terminologian] divididos por una cesura en dos hemistiquios de los que el segundo es más breve que el primero. A fin de cuentas, será mejor hablar de dísticos que de cuartetas, porque, como el encabalgamiento (*enjambement*) no lo han practicado más que algunos poetas cultos, lo que normalmente constituye una unidad de sentido, una frase separada por una pausa, es el conjunto $n + (n - 1)$ ó $(n - 2)$ [lan honetan puntuaren eremua deitzen zaiona, alegia]. Hay cierta correlación entre elemento métricos y lingüísticos (frase, miembro de frase, grupo de palabras) con algunas posibilidades de variación dentro de la fijeza del esquema métrico: por ejemplo, en un verso o miembro de verso [hemistikioa] octosílabo pueden alternar grupos rítmicos (grupos de palabras) de $4 + 4$, $5 + 3$ ó $3 + 5$ sílabas.

(Michelena [1960] 2001: 63-64)

Silabaz harago, Mitxelenak ([1960] 2001: 63-64) puntuaren eta hemistikioaren eremua aurkezten ditu berak aztertutako bertsoetan “normalean zentzua duten unitate” gisa, osagai horiek etenak banatzen dituelarik. Unitate metriko eta linguistikoaren arteko harremana agerian utziz, eremu horiek osatzen —banatzen— dituzten (azpi-) *talde erritmikoak* ere baditu hizpide, *hitz taldeak*. Erdi Aroko kantu eta bertsoen metrika aztertuta, silabez gain *hitz andanek* euskarazko garai hartako metrikaren antolakuntzan izan lezaketen papera mahai-gaineratzen du Mitxelenak ([1977] 2011: 279). Gorago ere jasotako aipua berriro ekarriz: “Erdi Aroko kanta zaharretan, esaterako, bertsoak ez dira berdinak luze-laburrean, neurri jakin baten ingurutsuko badira ere. Itxura ohi baino engainagarriago gertatzen ez bada, gainera, badirudi hitz andanek badutela, silabek ez ezik, zer ikusirik antzinako, eta are geroko, euskal neurkerarekin” (Michelena [1977] 2011: 279). Hitz andana horiek musikarekin duten harremanaz ere mintzo da Mitxelena, Arana-Martijaren ([1976] 1987) esanetan oinarrituta:

Hortik [Arana-Martijaren lanetik] jaso nahi nukeena hauxe da batez ere: euskal doinua silabikoa dela batik bat, ez melismatikoa [...]. Bestela esan eta salbuespenak salbuespen, nota bat datxekio silaba bati eta silaba bat dagokio nota bakoitzari. [...] Silabak oinarrizko direnez gero, esana dago hitz-andanak ere (hizketaren etendurak, direnak eta daitezkeenak, musikaren geldiuneei egokitzen zaizkielarik) kontuan hartzen dituela gure musikak.

(Mixelena [1977] 2011: 285)

Esan liteke, beraz, kantu silabikoarekin batera euskarazko testu-uztartzean hitzen multzokatzeak (hitz andanak) baduela bere garrantzia Mitxelenaren arabera eta, horrek, era berean, harreman estua duela bertso horiek kantatzen diren doinuarekin, izan doinuak hitzen multzokatzea edota bertsoen egitura metrikoa jarraitzen duelako, izan doinu horretan kantatzen diren hitzek (bertsoek) musikaren egitura jarraitzen dutelako.

Etxepareren bertsogintza aztertuta, talde metriko eta prosodikoen arteko bat etortzea bilatzen dela esan daiteke; nolabaiteko “koherentzia prosodikoa”, beraz. Hala, ezohiko suertatzen dira —izan badiren arren— hemistikio artean hausten diren osagai sintaktiko eta prosodikoak; aditz nagusia eta laguntzailea banatzen dituen etena gisakoak, kasu: *Orduyan ere vere escuyan // dic gracia gucia*, II, 73 (Altuna 1979: 141-142).

Ez da hori, ordea, bertsogile guztien kasua. Jakobsonek aurkeztutako egituren arteko tentsioa euskal bertsogileetan ere ageri dela dirudi, sortzaile bakoitzak bere hautua egiten duelarik hizkuntza eta metrika uztartzeko moduan. Hala azaltzen du, adibidez, Altunak, Etxepare eta Etxeberri Ziburukoaren bertsoak alderatuz:

[...] zein da lehen Etxeberrirentzat, zenbait sintagmaren ahoz hizkerazko taxua ala bertsoaren eskema eta batipat puntua? Bestela esan: urra al daitezke sintagma batzuk eta aho hizkeran esaten ez diren moduan tolestatu bertsoan, bertsoaren neurria, eskema eta puntua behar bezala paratzearen? Etxeparek ezetz (zenbait sintagmaz ari naiz, ez ahantz) erantzungo lukeen bezala, Etxeberri baietz erantzuten digu.

(Altuna 1980: 384)

Etxeberri Ziburukoaren bertsogintzan, beraz, ematen du bertsoaren egitura metrikoa mantentzeak daramala egilea hizkuntza-unitateak banatzera. Alor metrikoa linguistikoari nagusitzen zaio, beraz, batzuetan.

Etxahunen bertsogintza aztertuta ere ikusi ahalko dugu egituren arteko bat ez etortzeak daudela. Haritschelharrek (1969: 443-444) azaltzen du koblakariak grafikoki markatzen dituela lan honetan hemistikio deitzen diedan unitateen arteko zesura edo egiturazko etenak (</>). Hala, taldekatze metrikoa egitura sintaktikoarekin alderatuta, etenak koordinazioan dauden bi osagai bana ditzake —*haren goçatceco loria // eta guero celucoua* (*Musde Legouv e*, 12. bertsoa; Haritschelhar [1969: 443]-n jasoa)—, perpaus bereko osagaien artean gauza daiteke —*pariseco sabantenari //*

aldis erranenderoçu edo barcocheco ignorantenac // khantiac deitçola hountu (Musde Legouvé, 13. bertsua; Haritschelhar [1969: 443]-n jaso)—, eta baita sintagma bereko posesibo eta izenaren artean ere —*Espeirciren çure // berthutiareki* (Musde Renaud, 4. bertsua; *apud* Haritschelhar [1969: 443]). Horrez gain, izena (edo Determinatzaile Sintagma) eta postposizioa gisakoak ere bereiz ditzake —*Defis jaun presidenta // gati libreraci* (*Chansos de sa vie*, 48. bertsua; Haritschelhar [1969: 444]-n jaso). Hizkuntza-egituraren eta egitura metrikoaren arteko halako bat ez etortzeak euskal bertsogintzan gertatzen direla zehazten du Haritschelharrek (1969: 444), bereziki aipatuz bat-bateko bertsolariak:

De cas de ce genre [erro eta atzizkiak etenak banaturik agertzea] ne sont pas impossibles dans la poésie populaire basque. Il est certain que la césure ne marque pas forcément, pour l'improvisateur en particulier, un arrêt dans le sens, et on ne saurait considérer comme licence poétique volontaire chez les poètes basques souvent illettrés, ce qui l'était chez Fray Luis de León lorsqu'il réalisait l'enjambement audacieux.

(Haritschelhar 1969: 444)

Goiago §10.2.4.3 atalean jasotako Jakobsonen ([1960] 1987: 81) ideia legoke Haritschelharren aipuren atzean ere: bereizi egin behar da hizkuntzaren eta metrikaren egituren arteko oinarrizko harreman estrukturala bertsoan, batetik, eta hori nola gauzatzen den, bestetik. Izan ere, ikerlariaren arabera, egiturak berez bat etorri ez arren, hizkuntzaren alderanzko taldekatze prosodikoa gauzatuz gero, ulermenari ez dio kalterik egiten. Bestalde, zail da, Haritschelharren ustez, egituren arteko halako bat ez etortzeak inprobisatzaile bakoitzak harturiko lizentzia poetikotzat hartzea, nahita, asmo estetikoaz, eginiko zangalatrau gisa.

Idea horri gehi dakioke Amurizaren ([1981] 1997: 256) esana: iparraldeko tradizioan, hemistikioaren baitako taldekatze metrikorik ez dela kontuan hartzen sarri; 10 silabako hemistikioa ez dela 5+5 gauzatzen beti eta derrigor, esaterako⁴⁴⁶. Edonola ere, Etxahunen bertsoetan zangalatraba puntuaren eremuan gertatzen da, osagai sintaktiko eta prosodikoek hemistikioen arteko mugak gaindituz.

Haritschelharrek zehazten du, batez ere bat-bateko bertsolariez, haien bertsoetan eginiko zangalatrau edo bestelako bat ez etortzeak ez direla seguruena nahita, asmo artistikoz, eginikoak izan. Horrek bertsolariak barneratuta duen eskema metrikoa eta hori betetzeko joera edo norma aztertzeraz garrantzitsuak, kasuan kasuan. Etxahunen bertsoetan, esaterako, badirudi hemistikioaren eremu metrikoaz kontzientzia izan arren, ez duela beti berau errespetatzeko “beharrik” sentitzen.

446 Horren adibide izan daiteke 1969ko txapelketan Xalbadorrek txistuak txalo bihurtuz kantatutako bertsoa ondoko lerroa: *zu.e.kez.ba.zi//ra.te.kon.ten.tu* ‘zuek ez bazarete kontentu’. Egun ere eztabaidagai da, esan bezala, hemistikio barneko taldekatzearen auzia.

Bertsoa sorkuntza lan gisa ulertzea itzuliz, pentsatzekoa da gaur egungo bertsolari jakin batzuek behintzat tentsio edo osagaien arteko bat ez etortzea nahita bilatzen dutela, bertsoa eraiki zein ekoizteko modu eta estilo propio gisa. Alaia Martinen bertsogintzako zenbait adibide oso argigarri izan daitezke zentzu horretan, esaterako⁴⁴⁷. Gauza bera esango nuke bat etortze kasuetan ere: hizkuntza, metrika eta doinuaren uztartzea batzuetan “muturrekoa” dela esan liteke, eta hori bertsolari batzuek oso modu kontzientean, asmo komunikatibo edota artistiko-estetikoz, bilatutakoa da (ikus §6.2 eta §6.3). Normalean, bi mutur horien artean kokatzen diren ekoizpenak izango ditugu, ziur aski.

Egituren eta gauzatzearen arteko uztartzea edo tentsioa estilo eta adierazkortasun baliabide ere izan daiteke, beraz. Egiteko, ekiteko, moduetan unean uneko eragin kulturalak, kanon artistikoak eta estilo pertsonalak hartu behar dira kontuan, aurreko §9.4.4.5 atalean zehaztu bezala.

10.2.5.3. Neurketak

Euskarazko bertsogintza errezitatu eta kantatuaren azterketan egin izan dira neurketak, gutxi izan arren. Navarro-Tomás (1925), *Gernikako arbola* zortziko txikiko neurriko Iparragirrenen bertso-sorta ezagunaren ekoizpen errezitatu batean silaben eta etenen iraupenak neurtzen ditu:

447 Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, Oiartzungo finalaurrekoan (2019-11-24), Alaia Martinek bakarka gaia emanda kantatutako bertsoaldiko 3. bertsoa aipa daiteke adibide gisa.

[...]
Ta klinikara heldu naiz
eta sartu naiz [**atzeko**//
atetik] ta sentiarazi
naute kolpean **etxeko**//
[...]

Aldiro egiten du bertsolariak etena puntuaren eremuan (/), oinaren (errimadun hitzaren) ondoren. Baina jasotako adibidean, *atzeko atetik* sintagma geratzen da egitura metrikoak banatuta. *Atzeko* oina izanik, pentsatzekoa da bertsolariak nahita eginiko hautua dela, horrela planifikatu duela bertsoa. Sintagma banatu arren, edonola ere, aipatzekoa da hitzen muga linguistikoak bat datozela egitura metrikoaren osagaiekin.

Bertsoaldia ikus-entzuteko: <https://bertsoa.eus/bertsoak/17360-korrika-zoaz-ezin-duzu-denborarik-galdu> (azken kontsulta: 2023-12-05).

65. **irudia:** *Gernikako arbola* bertso errezitatuko silaben eta etenen iraupenak (Navarro-Tomás 1925: 636-637).

Gue	ni	ca	co	ar	bo	la	
47,5	19,5	22,5	20,5	27	20	18,5	
67		43		47			
da	be	dein	ca	tu	ba	[pausa]	
19	21	26,5	22	17	23,5	30	
40		48,5		40,5			
eus	cal	du	nen	ar	te	an	
33	31	21	21	20	26,5	25,5	
64		42		46,5			
guz	tiz	mai	ta	tu	ba	[pausa]	
37,5	39,5	23,5	20,5	19	27	65	
77		44		46			
E	man	ta	za	bal	tza	zu	[pausa]
17,5	32,5	17	25,5	21,5	26,5	36,5	14
50		42,5		48			
min	du	ban	fru	tu	ba	[pausa]	
28	14,5	25,5	22	16	29,5	66	
42,5		47,5		45,5			
a	do	ra	txen	zai	tu	gu	[pausa]
14,5	21,5	16	34,5	24,5	24	24	9
36		50,5		48,5			
ar	bo	la	san	tu	ba	[pausa]	
21,5	21	18	32,5	15	23,5	80	
42,5		50,5		38,5			

Irudian ikus daitekeenez, Navarro-Tomásék (1925) silaben eta etenen iraupena neurtzeaz gain, “cláusulas bisilábicas” izendatzen dituen oin metriko bitarrak ere bereizten ditu. Zehazten duenez, ez dirudi silaben iraupena loturik dagoenik silaba egiturarekin. Era berean, ez dirudi silabak oin metriko jakinen arabera antolatzen direnik iraupenari dagokionez, eredu trokaikoa gisakoak osatuz, esaterako. Hemistikio hasiera eta bukaeretako silabak luzeago ekoitzi ditu hiztunak, kasu batzuetan; bertso-egitura nabarmendu izanari egozten dizkio luzatze horiek Navarro-Tomásék (1925: 637). Gorago aipatutako oin bisilabiko (*cláusula bisilábica*) horien neurria paretsua dela azpimarratzen du (Navarro-Tomás 1925: 638-639). Irudian ikus daitekeenez, 0,36s-tik 0,77s-ra arteko balioa izan dezakete oin horiek. Ikerlariak ez du argi zehazten zer dela eta bereizten dituen osagai bisilabiko horiek; ez datoz inongo hizkuntza mugarekin bat, eta aldiro osatzen duten silaben balioa desberdina da, ez dago eredu errepikakorrik. Hala, zail da euskal bertso-gintzan unitate horrek lukeen lekuaz ondorio sendorik atera ahal izatea.

Navarro-Tomásen (1925) ikerketan bat-bateko bertsoen erritmo antolaketarako interesgarri suerta daitekeen alorra ikerlariak gainetik soilik aipatzen du: errezitatzailerak gauzatutako etenen arteko hierarkia. Izan ere, puntuaren eremuan hiztunak eginiko etenak kualitatiboki luzeagoak dira (0,3s – 0,8s bitarteko iraupena dute), puntu barnean —hemistikio artean— eginikoak baino (0,08s – 0,14s bitarte); are, batzuetan ez dago etenik jasota azken kasu horietan. Bertsogintzako taldekatze arrastoen artean aurki daitezke, beraz, eremu azkeneko luzatzea eta etena, hitz lauz bezalaxe (ikus aurrerago §10.2.6).

Bat-bateko bertsoen gauzatzeari dagokionez, bertsolariek kantuan denbora kudeatzeko duten modua aztertzen du Iraizoz Remiro-k (2012), bertsoa azken puntutik hasita eraikitze teknikak ekoizpenean eragina izango duelako hipotesiaz. Ohikoa da inprobisatzaileek bertsoa antolatzeko bukaera —azken puntua— formulatzea (pentsatzea) beste ezer baino lehen eta, hori erreferentziatzen hartuta, hautatzea bertsoan zehar baliatuko dituzten gainerako oinak (errimadun hitzak) (ikus Amuriza [1981] 1997; Garzia et al. 2001 edo Egaña 2007 azalpen sakonagorako).

Xabier Leteren *Habanera* kantua bertso-doinu gisa erabiltzen da bat-batean⁴⁴⁸, eta Iraizoz Remirok (2012) Leteren ekoizpen zenbait eta Jon Maia zein Andoni Egaña bertsolarien bat-bateko bertsoaldi batzuk aztertzen ditu, kantatutako bertsoen iraupena neurtuz. Aztertutako bertsolariek aldakortasuna agertzen dute doinu berean kantatzean *tempoari* (lastertasunari) dagokionean, bai euren artean bai sortzaile bakoitzak doinu bera baliatuz eginiko askotariko ekoizpenen artean. Hala, bertsotarako testuinguruak —saio mota, publikoaren ezaugarriak, bertsokideen arteko harremana, bertsolariaren egoera, kantatzeko emandako gaia, gaiari eman nahi zaion kutsua, etab.— bertsoa kantatzen den lastertasunean eragina duela pentsa daiteke, hitz lau prosodiaren hainbat alor baldintzatzen dituen bezalaxe (ikus §4 atala). Era berean, bertsolarien arteko aldeak iradokitzen du *tempoa* bezalako ezaugarri prosodiko bat estiloari loturiko ezaugarria ere badela, maila pertsonalekoa (besteak beste bertsogintzako kanonez, ikus §7.2.3 eta §7.3).

Habanera osatzen duten zortzi puntuen iraupenari erreparatuta (ikus beherago 65. irudian, habanera doinuaren transkripzio musikala), bertsoaren baitako aldakortasuna ere aztertzen du Iraizoz Remirok (2012). Bi bertsolariek *tempoa* azkartzen dute azken puntura hurreratu ahala, azken puntu hori izanik iraupen laburrena duena bi bertsolarien kasuan. Ikerlariak “inpaktu dramatiko lortzeko” baliabide gisa deskribatzen du azelerazio hori; azken punturako bidean “indarra irabazteko” modu gisa (Iraizoz Remiro 2012: 61-62). Lotura horrek bertsoen prosodia ulertzeko bertsogintzaren beraren izaera kontuan hartu eta ulertzearen garrantzia azpimarratzen du. Taldekatzeari bagagozkio ere, ikus daiteke talde prosodiko berak (puntuak, kasu honetan) ez direla

448 Doinutegian *Baserrian jaio nintzan* izenez da ezaguna doinua. Informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1945-baserrian-jaio-nintzan> (azken kontsulta: 2023-10-18).

berdin gauzatzen bertsoan duten kokapenaren arabera, eta bertsolari bakoitzak bere erara gauzatzen dituela bertsoetako osagaiak (*tempoari dagokionez, kasu*).

66. irudia: *Habanera / Baserrian jai o nintzan* doinuaren transkripzio musikala (iturria: Doinutegia, sarean).

BASERRIAN JAI O NINTZAN (G)

The image shows a musical score for the song "Baserrian jai o nintzan" in G major. The score consists of ten staves of music, each with a line of lyrics underneath. The lyrics are in Basque. The music is written in a single melodic line on a treble clef staff with a key signature of one flat (B-flat). The lyrics are: Ba-se-rrri-an jai-o nin-tzan, bi-zi-tza-ren e-go-e-tan, zen-bat go-za i-zan du-dan, han-go ze-lai ber-de-e-tan, jo-an-da ge-ro ba-da-kit, zer zi-nen u-ne ho-ne-tan, min har-te-tik kan-ta-tzen dut, mai-te zin-tu-dan be-ne-tan, ho-rre-la-ko gu-txi di-ra, ai-tor-tzen zai-tut ho-rre-tan, el-ka-rre-kin ga-biltz be-ti, ne-re o-roi-tza-pe-ne-tan.

Puntua osatzen duten hemistikioen iraupenak ere aztertzen ditu ikerlariak Maia eta Egañaren ekoizpenetan, bertsoaren baitako aldakortasuna izanik hori ulertzeko gako. Kasu guztietan puntuko lehen hemistikioa(k) laburragoa(k) d(ir)a bigarrena(k) baino, iraupen aldea handiagoa edo txikiagoa

izan. Izan ere, puntuaren bukaera mugatzen duen etena luzeagoa da hemistikioak banatzen dituen baina, bertso-neurriaren egitura hierarkikoak kantaeran duen isla utziz agerian, beste behin —gogoratu Navarro-Tomás-ek (1925) jasotako bertso errezitatuaren kasuan ere halaxe gertatzen zela—. Eten eta eremu azkeneko luzatzea behin baino gehiagotan aipatu ditut jadanik, eta beharrezkoa izango da corpusaren azterketa prestatzeko taldekatze arrastoei erreparatzea.

10.2.6. Taldekatze arrastoak

Taldekatzeaz ari garela, ezinbesteko da taldekatze-arrastoak aipatzea, horien bitartez gauzatzeko eta hautematen baita ekoizpen jakin baten antolakuntza, unitatetan. Hala, joera kognitibo orokorrek —gestalt erakoek, esaterako— baldintzatutako arrasto orokorrak aurkituko ditugu hizkuntzan, metriketan eta musikan. Gertutasun topologikoari lotutako gertakariak aipa daitezke, horren adibide (ikus Dressler 1996, besteak beste). Hitz laua, bertsoa —hizketa bidez gauzatua, azken finen— eta musika denborazko gertakariak dira, denboran zehar gauzatu eta antolatzen direnak. Hala, etena —zesura, isilunea— edo eremu azkeneko silaba edo musika-notaren luzatzea bezalako gertakariak taldekatze-arrasto izango dira denetan, baita eremu hasieran *tempo*a azkartzea zein eremu bukaeran *tempo*a moteltzea ere (Patel 2008: 112), aurreko atal amaieran aurkeztutako Navarro-Tomásen (1925) zein Iraizoz Remioren (2012) ikerketek agerian utzi bezala.

Taldekatzea gertakari hierarkiko eta poliedrikoa da, askotariko osagaiak hartzen dute parte eta, horregatik, ez da beti argi eta eztaba daezina izango, edozein delarik ere aztertzen dugun hizketa moldea. Ekoizpenean dimentsio desberdinak gurutzatzen direnez, osagai eta eremu desberdinak markatu ohi dira sarri. Esaterako, bertso kantatuetan —aztertutako corpusean— gerta daiteke eredu erritmikoak eta intonazioak (melodiak) eremu jakina mugatzea, baina alderdi artikulatorioak bestelakoa(k). Jon Lopategik 1989ko txapelketako finalean gaia emanda goizeko saioan kantatutako bigarren bertsoan, *hura gendun eguzkia* ‘hura genuen eguzkia’ (JL-1989-GS-ge-2) kantatzean, eredu erritmiko-melodikoak 4 + 4 silabatan banatzen dute adierazpena: [hura gendun] + [eguzkia], pentsa daiteke. Silabatzeari erreparatuz gero, ordea, hitz mugak urtu eta birsilabatuta kate osoa ahoskatzen du modu jarraituan: *u.ra.gen.du.ne.guz.ki.ja* ‘hura genuen eguzkia’ (JL-1989-GS-ge-2). Azpimarraitutako silabak balio erritmiko luzeagoa eta nolabaiteko muga erritmiko-melodikoa islatzen du, silabatzean gauzatzen ez dena (ikus §8).

Hotsezko ekoizpen baten taldekatzea, bai ekoizpenean bai hautematean, gertakari konplexua da. Taldekatze arrasto guztiek ez dituzte osagai berak mugatu edo markatzen eta elkarrekiko independenteak dira maila batzuetan, Deutschek (2013) musikaren taldekatzeaz azaldu bezala: “the

evidence shows that grouping decisions are not made by a single, internally coherent, system, but rather by a number of different subsystems, which at some stage act independently of each other, and can arrive at inconsistent conclusions” (Deutsch 2013: 184).

Edonola ere, ukaezina da taldekatze arrastoek, modu batera edo bestera, norabide jakinean bideratzen dutela hotsezko ekoizpenaren antolakuntza. Horren hautematea ere taldekatzeak —taldekatze arrastoek— baldintzatua da. Bat-bateko bertsoetako taldekatzea aztertzeke, beharrezko izango da hizkuntzak (hitz lauak), bertsoegintzak eta doinuak (kantuak) darabiltzaten taldekatze arrastoak ezagutzea. Horregatik, jarraian hitz lauako taldekatze-arrasto nagusiak aurkeztuko ditut lehenik, eta bertso kantatuetan aurki daitezkeenak gero, kontuan izanik euskarazko bat-bateko bertsoetan askotariko eremuetako arrastoak aurki daitezkeela.

10.2.6.1. *Hitz lauako taldekatze arrastoak*

Jarraian hitz lauako ekoizpenari dagozkion segmentatze baliabide foniko nagusien berrikuspena egin dut⁴⁴⁹, unitate prosodikoen gauzatzea zein arrastoren arabera izan daitekeen aztertu eta gerora corpusaren azterketan tresna analitiko bezala erabili ahal izateko. Izan ere, segmentatze arrastoen bitartez uler daiteke hizkuntza jakin baten antolakuntza prosodikoa nolakoa den: zein unitate prosodiko nagusitzen diren, noiz edota zeren arabera, zein arrastoren bitartez gauzatzen den bakoitza, etab.

Taldekatze arrastoak bi multzo nagusitan bereiz daitezke, unitate edo eremu prosodikoekiko harremanetan: (1) eremu prosodikoen ertzetan gertatzen diren arrastoak leudeke, batetik; eta (2) eremuen barrenari dagozkionak, bestetik, eremu prosodikoan zehar gauzatzen direnak, hain zuzen ere. Multzo bakoitzean askotariko baliabide prosodiko zein segmentalak aurki daitezke, eta horien azalpenean sakondu dut jarraian⁴⁵⁰, erritmoari dagozkion arrastoei erreparatuz nagusiki, lan honetan erdigunean dagoen osagaia baita. Ondoren, maila orokorragoan lotzen ahalegindu naiz hierarkia prosodikoa, bere osagaiak eta segmentatze arrastoak (§10.2.6.1.3).

449 Ekoizpenari dagozkion segmentatze-arrastoak ditut hizpide ikerlan honen muina ekoizpenaren azterketan dagoelako, baina azpimarratzekoa da segmentatze-prozesuan oharrenaren alderdiak duen garrantzia. Gainera, ekoizpenari eta hautemateari dagozkien segmentatze-arrastoak beti berberak ez diren arren, sarri elkarri loturik dauden gertakariak dira. Horregatik, ekoizpenetik abiatuta ere, hainbatetan egingo diot erreferentzia hizketaren hautemateari ere, segmentatze prozesuak ulertzeko funtsezko osagaia dela uste baitut, ekoizpenarekin batera.

450 Aurreko §10.2.1 atalean unitate prosodikoak aipatzean ez dut (gehienetan behintzat) zehaztu zein segmentatze arrastori loturik agertu ohi diren, eta jarraian segmentatze arrastoez aritzean, kasu batzuetan soilik aipatuko dut zein eremu prosodikori loturik agertu ohi diren, bibliografian jasotakoaren arabera. Hori egiteko arrazoi nagusia da hizkuntzatik hizkuntzara eta hizkuntza beraren baitan erregistroaren eta bestelako baldintzen arabera, taldekatzea, unitateei loturiko segmentatze arrastoak eta, oro har, hizketaren gauzatze prosodikoa alda daitezkeela (ikus Maldeska eta Dressler 1996, adibide baterako).

10.2.6.1.1. Eremu prosodikoen ertzak

Eremu prosodikoen ertzetan, eremu prosodikoak mugatuz, gertakari edo arrasto indartzaileak gertatzen dira batez ere, egiteko bereizlea dutenak. Hasierako ertza edo eremu prosodikoaren ekina eta amaierako ertza edo koda bereizi behar dira joerei dagokienean, halere. Baita eremu prosodikoa ere, ez baita gauza bera silabaz aritu edo esaldi fonologikoaz. Hala, ondoko arrasto nagusiak aurki daitezke eremu prosodikoen ertzetan:

- Azentuen bazterrekotasuna

§2.4.2 atalean aipatu bezala, hatsarre prosodikoetan oinarritzen den azentu(er)ak *muga-egitekoa* (*demarcative function*)⁴⁵¹ duela proposatu zuen Jakobsonek (1937). Trubetzkoy-ren (1939: 253-254) arabera ere, oso ohikoa da azentu “ez librea” edo “finkoa” duten hizkuntzetan —prosodiak gobernaturiko azentuera duten hizkuntzetan— azentua eremu prosodikoaren hasierako edo amaierako ertzean edo ertzetik gertu kokatzea. Izan ere, azentuera bidezko bereizkuntza lexikorik ez dagoenez, azentuaren funtzioa eremu prosodikoaren hasera edo amaiera adieraztea dela zehazten du Trubetzkoyk.

Hurchek (1994, 1996), Jakobsonen adierazpenei jarraiki baina zertxobait leunduz baieztapena, bazterrekotasunaren (*peripherality*) ideia plazaratzen du azentuerei dagokienean: muga-egitekoari loturik, hobesten da azentu nagusia dena delako eremu prosodikoaren ertzetako batetik gertu egotea. Esate baterako, frantsesez, eremu prosodiko bukaerako ertzean kokatuko da azentu nagusia (Fletcher 2010: 536). Islandieraz, berriz, eremu hasieran kokatu ohi da hitzen azentua, salbuespenak salbuespen, eta eremu bukaeran, berriz, esaldi mailakoa (Árnason 2009: 298-299). Ez da ahaztu behar azentua denboran zehar gauzatutako nabarmenatsuna dela eta, beraz, egiteko indartzailea due-la ezinbestean (Donegan eta Stampe 1978). Hurchek (1996: 94) azaltzen duenez, funtzio indartzaile horrek berekin dakar azentu-eredua ezartzen den eremu prosodikoa markatu edo adieraztea. Horrek berebiziko garrantzia hartzen du eremu prosodikoa luzeagoa eta aldakorragoa izan ohi den hizkuntzetan; hizkuntza eransleetan, kasu. Hala, ez da harrizkoa hizkuntza fino-ugriarretan edo turkiarretan eremu prosodikoaren ertzetatik gertu dauden azentu-ereduak gauzatzea (ikus §9.2.1.4.2 atala euskal hizkeretan azentu-eredu nagusien berrikuspenerako). Auerrek (2001) ere erritmoaren araberrako tipologiarekin lotzen du bazterrekotasuna. Bere esanetan, silaba-aldiko hizkuntzetan eremu hasieran edo amaieran gauzatuko litzateke azentu nagusia, esaldi fonologikoaren mailan. Azentu-aldiko hizkuntzetan, berriz, hitz prosodikoaren eremuan kokatzen da azentua.

451 Terminoaren euskal ordaina Oñederrari (2012) zor zaio.

Atal honen helburuari jarraiki, ideia orokor gisa berretsiko dut azentua segmentatze arrasto izan daitekeela, eremu prosodiko baten ertzetako baten inguruan gauzatuta. Ulerkera hori indar daiteke fokua, bokatiboa, enfasidun esaldia eta antzeko egiteko “nabarmentzaileen” gauzatzean azentua sarri eremu hasieran edo amaieran gauzatzen dela ikusita. Euskaraz, esate baterako, bokatibo edo deiki funtzioa duen osagaia (jarraian datozen adibideetan azpimarratua) azken silaban azentuatze joera aurki daiteke (Alberdi 2014: 56-57) hizkera batzuetan: *zatoz hona*, *Ainará* edo *ikusiko duzu*, *lazzaná*, *nola konponduko diren gauzak*.

Azentuaren muga-egitekoaz gain, taldekatzearen hautematean eragina izan dezake azentuen arteko tartea handitze hutsak (Lehiste 1977) eta, beraz, ekoizpenean azentu-eredua aldatzea bera esanguratsu izan daiteke hizketaren segmentatzerako (ikus §3.4.3 atala).

- Eremu prosodikoen ekinak artikulatorioki indatsuagoak edota luzeagoak

Hizketa ekoiztean eremu prosodiko hasierako segmentuak artikulatorioki indartu edota luzatu egiten dira sarri (Trubetzkoy-k [1939] demarkatibo izendatu zituen eremu ekineko indartze segmentalak ere). Islandieraz, adibidez, eremu-ekin glotala (*glottal onset*) aurki dezakegu, azentu nagusiaz eta bokalez (silaba-ekin hutsarekin) hasten den hitz prosodikoen ekinean⁴⁵² (Árnason 2009: 299). Hawaiierraz, ingelesez eta alemanez ere aurki genezake bokalez hasitako eremu ekinean herskari glotala, gorago ere aurkeztu bezala; hizkuntza bakoitzean eremu prosodiko batetik “gora” aurkitzen da aipaturiko indartze artikulatorioa, eremu prosodikoak bilakabide segmentalen gauzatzea baldintzatuz: hawaiierraz esalditik aurrera ([ʔ]aloha), ingelesez hitz prosodikoaren eremua da unitaterik txikiena horretarako ([ʔ]apples or [ʔ]oranges) eta, alemanez, oina (ver[ʔ]einigt) (Donegan eta Stampe 1978: 28)⁴⁵³.

Euskaraz silabaren ekina indartzen duten bilakabide andana aurki daiteke, baita hitzaren eremuak baldintzatutako zenbait gertakari ere (Jauregi 2007). Bilakabide segmentalok silabaren eremuan eta silaba-egitura indartzeko joeraren baitan kokatuta askotariko gertakariak azalpen bateratu baten pean ulertzeko bidea ematen du, euskararen fonologian funtsezko den osagaietako bat utziz agerian (Jauregi eta Oñederra 2010: 86; Oñederra 2020a, 2020b; euskararen bilakabide segmental

452 Ematen duenagatik, kontsonantez hasten diren silaben kasuan ere gerta daiteke herskari glotala, baina oso testuinguru formaletan eta esango den horren hasierako anakrusa edo adierazlea balitz bezala (Árnason 2009: 300). Uler daitekeenez, aipaturiko adibidearen kasuan indartze segmentala eremu ekinari, azentuari eta silaba egiturari zein hizketa erregistroari loturiko gertakaria da. Agerian uzten du gertakari prosodikoen konplexutasuna eta alor prosodiko eta segmentalaren arteko elkarrengaitasuna (ikus §4).

453 Eremu ekineko indartze segmentalaren inguruko berrikuspen batzuetarako, ikus Fletcher 2010: 546-547 eta White 2014: 42; silaba eta hitzaren eremu ekineko indartze segmentalez, ikus Caro-Reina eta Szczepaniak (2014) bildutako lanak.

batzuen aurkezpenerako, ikus §8.2.4). Lan honetan bertan, bertsolarien silabatzea aztertzean (ikus §8 kapitulua), jaso ahal izan ditut silaba ekina indartzen duten kontsonante palatal zein ezpainkarien gauzatzea — *je.ni.[j]o* ‘jenio’ (SL-1986-GS-8H-1); *ja.rri.ge.nu.[β]en* ‘jarri genuen’ (JL-1989-GS-ge-2)— edo silaba zein hitz ekinean hasperenak ahoskatzea ere — *be.[h]ar.ba.da* ‘beharbada’ (XA-1980-GS-ge-1); *[h]on.da.tze.ko* ‘hondatzeko’ (XA-1980-GS-10tx-1)—, beste indartze segmental batzuen artean (xehetasun gehiagorako, ikus I. Eranskina ere).

Indartze segmentalaz gain, eremu hasierako silabaren balio erritmikoak (iraupenak) ere baldintzatzen ditu unitate prosodikoen gauzatzeak. Eremu ekineko silabak luzeago gauzatu ohi dira sarrri. Gertakaria bereziki esaldi prosodikotik gorako osagaietan gauzatzen da nabarmen, nahiz eta hizkuntzatik hizkuntzara eta kasuan kasuan aztertu beharreko gertakaria den (berrikuspen batzuetarako, ikus Turk eta Shattuck-Hufnagel 2000; Fletcher 2010: 525).

Euskarara eta bertsoetara etorrira, bat-bateko bertsoetako eredu erritmikoak aztertzean (ikus §9 kapitulua), bertsolari batzuen ekoizpenean motibo erritmikoaren ekina indartzen (luzatzen eta *beat* indartsuarekin bat gauzatzen) duten aldaerak jaso ditut: *ne.re.i.dei.ak* ‘nire ideiak’ (ML-2009-GS-ge-2), kasu.

- Eremu azkeneko luzatzea eta etenak

Eremu hasierak indartzen diren bezala, eremu prosodikoen bukaerak ere hainbat gertakariren gune izan ohi dira. Horietako bat da *eremu azkeneko luzatze* gisa ezagutzen den gertakaria:

A syllable, and in particular the rhyme portion of a syllable (i.e., the vowel nucleus plus any coda consonant(s)) tends to be longer in intonational phrase-final and utterance-final position than when the same syllable is uttered in nonfinal or phrase-medial position. This durational phenomenon variously referred to as final lengthening, prepausal lengthening, domain-final lengthening, or preboundary lengthening, is considered by many to be universal, although the degree and extent of lengthening varies among languages.

(Fletcher 2010: 540)

Eremu prosodiko baten amaierako kokapenean dagoen silabaren balio erritmikoa luzatzea ohikoa da⁴⁵⁴, batez ere hierarkia prosodikoaren goiko mailetan dauden unitate “handiagoen” azken ertzean: esaldi fonologikoa bezalako eremuetan, kasu (berrikuspen baterako, ikus Turk eta Shat-

454 Whitek (2014: 42) eginiko berrikuspen lanean jasotzen du eremu azkeneko luzatzea azken azentudun silabatik—silaba-gune edota kodatik— unitate prosodikoaren amaierara arte gerta daitekeela, “hitzaren errima” deiturikoan, hainbat silaba luzatuz, beraz.

tuck-Hufnagel 2000). Hitz prosodikoan eremu-azkeneko luzatzea gertatzen den eztabaidagaia da, zail egiten baita hitz mailako gertakaria eremu handiagoetako azkeneko luzatzetik edo esaldi-mailako azentuak hitzarekiko elkarrekintzan eragindako luzatzetik bereiztea (eztabaidaren nondik norakoetarako, ikus Turk eta Shattuck-Hufnagel 2000; White 2014: 42). Bertsogintzan eta, oro har, musikan ere baliatzen da taldekatze mekanismo hori (Patel 2008, Deutsch 2013, deCastro-Arrazola 2018, besteak beste; ikus §10.2.6). Aipagarria da hainbat mailatako eremu azkeneko luzatzea aurki daitekeela bai hizkuntzan, bai metrian eta musikan ere: egitura edo maila prosodikoaren arabera, nabarmenagoa edo sotilagoa izango da luzatzea —gogoratu aurreko §10.2.4.4 aurkeztutako Navarro Tomás (1925) zein Iraizoz Remioren (2012) etenen neurketak—.

Hizkuntzatik hizkuntzara —eta, hizkuntza beraren baitan, ikerketatik ikerketara— emaitzak aldatu arren, sarri maila bat baino gehiago bereizten dira eremu azkeneko luzatzeari dagokionean, esan bezala. Ingelesezt, kasu, hiru edo lau maila bereizi izan dira ikerketaren arabera: hitz prosodikoarena, esaldi fonologikoarena, intonazio esaldiarena eta, batzuetan, erranaldiarena^{455 456} (erreferentziatarako, ikus Fletcher 2010: 542-543). Segmentatze prosodikorako funtsezko arrastoa da eremu azkeneko luzatzearena hautematearen ikuspegitik (ere), beste arrasto batzuekin batera, oro har, hizkuntza-egituraz jabetu eta, zehatzago, sintaktikoki anbiguoak diren sintagmak desanbiguatze baliatzen baitu entzuleak (Lehiste 1977, kasu; berrikuspen baterako, ikus Fletcher 2010: 542).

Eremu azkeneko luzatzearekin batera, *etena (pause)* aipatu behar da ezinbestean. Etena bi osagai banatzen dituen hutsunea edo hustasuna (*emptiness*) da, taldekatzearen arrasto nabarmenatarikoa. Eten hori modu askotara gauza daiteke hizketan: tarte isil baten bidez, “bete gabeko etena” (*unfilled silent*) gauzatuz; arnasketaren bidez; eremu bukaerako silaba luzatuta —aipatu berri dudan eremu azkeneko luzatzearen bidez (ikus behezagoko azalpena)— edo tarte bestelako material ahos-tunaz betez, “eten bete” (*filled pauses*) gauzatuz —hitzaldi edo hizketaldi (erdi) bat-batekoetan hiztunak gauzatu ohi dituen “eeee” gisakoak izan litezke horren adibide—; etab. (Donegan eta Stampe 2004: 31; Fletcher 2010: 573; deCastro-Arrazola 2018: 30).

Hizketan gauzatutako etenez eginiko azterketetan hainbat luzeratako etenak bereizi izan dira: entzungaitz diren etenak, *eten artikulatorio* deiturikoak (100-200 ms bitarte), herskari ahoskabea gisako segmentuak ahoskatzean gauzatzen direnak; eten laburrak (500-600 ms bitarte) eta eten luzeak

455 Eremu azkeneko luzatzea baldintzatzen duten alderdiezt, irakurri Turk eta Shattuck-Hufnagel (2007: 445-446), besteak beste.

456 Hizkuntza batzuetan —frantsesezt, adibidez— bat etorri ohi dira azentu nagusia eta eremu azkeneko luzatzea, *azentu bidezko luzatzea (accentual lengthening)* deritzona gauzatuz (berrikuspen baterako, ikus Fletcher 2010: 536).

(1000-1200 ms bitarte), esate baterako⁴⁵⁷ (Butcher 1981; berrikuspen baterako, ikus Fletcher 2010: 573-574). Ideia orokor gisa aipagarria dena da eremu azkeneko luzatzearekin aipatu bezala, etenen kasuan ere eten motak eta mailak bereizten direla, osagai prosodikoak eta horien arteko loturak edo mugak islatuz. Etenek askotariko egitekoak izan ohi dituzte hizketa-ekoizpenean: arnasa hartzeko balia daitezke, egitura sintaktikoa adieraz —edo muga— dezakete hein batean, esan nahi den horren plangintzarako (pentsatzeko) balia daitezke, etab.

Donegan eta Stampek (2004: 31) —besteak beste— etenekin parekatu izan dute eremu azkeneko luzatzea, gorago aurreratu bezala. Elkarren baliokide izan daitezke bi gertakariak eta, azaltzen dutenez, etenak iraupen erritmikozko askotariko maila gisa ulertzeak ahalbidetzen du ingelesez tradizionalki bereizi izan diren lotura-mailei (*junction*) erantzutea: hitz mailakoa (*Néwton*), hitz konposatuen mailakoa (*Néwtòwn*), sintagma mailakoa (*nêw tówn* —eten hutsekin edo eremu azkeneko luzatze bidez gauzatua—) eta sintagma koordinatuen mailakoa (*éggs, óil, and lémons* —eten hutsekin edo eremu azkeneko luzatze bidez gauzatua—).

Elkarren baliokide izateaz gain, etena eta eremu azkeneko luzatzea elkarren osagarri ere izan daitezke eremu prosodikoak mugatzean; adibidez, perpaus baten ondoren eremu azkeneko luzatzea eta etena gauzatuta (bietako bat beharrean). Eremu prosodikoa zenbat eta handiagoa izan eta ahoskatzen diren osagaien arteko lotura zenbat eta urrunagoa edo lausoagoa, orduan eta nabarmenagoak izango dira arrasto prosodikoak, edo horietako batzuk behintzat: hala da eremu azkeneko luzatzearen eta, oro har, etenen kasuan behintzat (Fletcher 2010: 536, 574).

Euskaraz Gatikako hizkeran bat-bateko hizketan gauzatutako etenak aztertu ditu Gamindek (2004) isilunea, azken silabako bokal luzapena edota bestelako hots betegarriren baten txertatzea gauzatzen den begiraturaz. Aztertutako etenen gehiengoa (%71,25) dira isilune bidez egindakoak, eta % 28,25 isilune gabekoak. Bokal betegarria (*a*, Gamindek dioenez) kasuen %39,25ean baliatu da. Eten eta eten arteko talde prosodikoaren luzerari erreparatuta, gehiengoa 2 silabatik 8ra doan taldean kokatzen da (talde prosodikoen %72,547 osatzen du tarte horrek), eta silaba bakarreko taldeak zein 9tik 14ko tarte aipa litezke ondoren, baina gauzatze gutxiagorekin (%23,389)⁴⁵⁸ (Gaminde 2004: 526). Azaleratutako joera bat dator Bizkaiko beste hainbat hizkeratan aurkitutakoarekin (laburpenerako, ikus Gaminde 2004: 526).

457 Aurkeztutako eten motak eta iraupen tarteak beste askoren artean Butcher-ek (1981) proposatutakoak dira, eta irakurlea kokatzeko asmoz eskaini dira. Ez da lan honen helburua eten sailkapen sendoa egin edo horien zenbakizko mugak zehaztea —edo proposatutako tarteak berrestea zein ukatzea—, nahiz eta aztertutako corpusean etenen iraupenak neurtu ditudan, modu osagarrian.

458 Gamindek (2004: 525) silaba batetik hogeita hamarrerako multzoak jasotzen ditu.

Atal honetan deskribatutako gertakariak gertutasunezko *gestalt* hatsarre orokorrari lotzen zaizkio, Dresslerrek (1996: 42-43) azaltzen duenez: “the proximity law ‘that near stimuli tend to be grouped together’ (Lopez-García 1990: 124-128) not only supports the demarcation of phonological words (cf. Nathan 1985) but also of syntactic constituents and textual chunks”. Hau da, talde beraren parte gisa hautemango dira errazago eten edo eremu azkeneko luzatzearen bidez mugatutako osagaiak, elkarrengandik gertuago gauzatzen baitira, eta gainerakoengandik urrunago.

- Eremu azkeneko bilakabide segmentalak

Eremu prosodikoak bilakabide segmentalen gerta(g)une dira. Hori dela eta, eremu prosodikoaren bukaerako ertzek ere baldintzatzen dituzte gertakari segmentalak. Hainbat hizkuntzatan aipa daiteke, esate baterako, hitz bukaerako kontsonanteen ahoskabetzea (euskaraz, ikus Hualde 2003 eta Jauregi 2007; gorago §8.2.4). Ez dago eremu ekineko indartzeak bezain argi eremu bukaerako bilakabide segmentalak beti indartzaileak izaten direnik; silaba edo eremu prosodiko handiagoaren koda dauden kontsonanteak ahuldu egin daitezke, indartu beharrean. Horregatik da, esaterako, oinarritzko silaba eredua CV eta ez CVC. Hala ere, badira eremu amaierako kontsonante indartzeak jaso dituzten ikerketak, esaldi fonologiko mailan, besteak beste (berrikuspen baterako, ikus Fletcher 2010: 546).

- Silabatzea

Hierarkia prosodikoko unitaterik txikienez ari garela —silabaz, oinaz, hitz prosodikoaz, batez ere— sarri silabatzea izango da eremu prosodiko baten berri ematen duen arrastoa. Txertatze prosodikoan zehaztu ohi da silabatzea, ahoskatu nahi den segmentu katea denboran antolatzean, maila sintagmatikoan (ikus §2). Hizkuntza batzuetan —azentu-aldiko hizkuntzetan, prototipikoki; ikus §3.4 atala— silabatzearen bidez bereizi ohi dira hitzak euren artean, *hiatoa* eginez (Donegan eta Stampe 1983: 346). Horri lotuta (hitz prosodikoaren) eremu ekineko indartze artikulatorioa edo azentu-ereduari lotutako bestelako gertakariak ekoitz daitezke. Beste hizkuntza batzuetan —silaba-aldiko hizkuntzetan, prototipikoki—, berriz, hitzen —eta kasu batzuetan, are osagai handiagoen— arteko mugak urtzeko joera dago birsilabatzearen bidez (*liaison* deiturikoaren bidez, besteak beste), eta eremu prosodiko handiagoak gauzatzen dira silabatze bidez lotuta, CV antolakuntzaranzko jorrari jarraiki (Dauer 1987: 448; Bertinetto 1989; Auer 1993 eta ondorengo lanak; Caro Reina eta Szczepaniak 2014n jasotako artikuluak).

Aipatuez gain, muga morfologiko eta sintaktikoen silabatzean eragin dezakete⁴⁵⁹: “The variation [‘hãnd, aot] ~ [‘hãñ, daot] *hand-out* is due to the intermediate morphological domain compound as opposed to simple word (*hand, handy*)”. (Donegan eta Stampe 1978: 31). Euskaraz ere baliabide emankorra da silabatzearena, §4.2.4 atalean jasotako adibideek erakusten dutenez: Gatikako euskaraz, *oin.ez* ‘orain ez’ vs *oi.nez* ‘oinez’ edo ((*iru txakur*) (*andik*) (*etor dire*)) ‘hiru txakur handik etorri dira’ vs ((*iru txakur andik*) (*etor dire*)) ‘hiru txakur handiak etorri dira’ (Gaminde et al. 1998: 94-95) gisakoek, azken adibide sortan, bigarren perpausean, *txakur* eta *andik* *txa.ku.rran.dik* gisara silabatuta ahoskatuko litzatekeela pentsatuta. Silabatzeak, beraz, beste hainbat arrasto prosodikorekin batera, batzuetan, taldekatze prosodikoa adieraziz hizkuntzaren egitura morfosintaktiko-semanticoren berri eman diezaguke.

- Tempoa moteltzea

Eremu prosodiko handien bukaerako ertzean, diskurtsoaren informazio-egiturako osagaiak adieraziz, besteak beste, *tempoa* moteldu ohi da sarri, ekoizpen musikalean ere egin ohi den bezala (ikus erreferentziak Fletcher 2010: 569-n).

- Muga-tonuak eta, oro har, intonaziozko gertakariak

Ohikoa da eremu prosodikoen ertzak muga-tonu (*boundary tones*) deritzonen gertagune izatea, hierarkiako goiko mailetan behintzat (adibidez, Árnason 2009: 300-301, islandieraz gertakaria nola gauzatzen den ikusteko). Euskaraz Gatikako hizkeran etenek mugatutako osagaietan gauzatzen diren muga-tonuak aztertu ditu Gamindek (2004), esaterako. Elordietak (1997, 1998, 2007b, 2011, 2015) nagusiki intonaziozko gertakarien bitartez argudiatzen ditu azentuzko osagaia (*accentual phrase*), erdi-mailako osagaia (*intermediate phrase*) eta intonazio osagaia (*intonational phrase*) deitzen dituen unitate prosodikoak hierarkian, gorago §10.2.1.1.3 atalean ere aipatu bezala. Alderdi melodikoak taldekatzean duen egitekoaren garrantzia ekoizpen musikalaren eremuan ere nabarmendu izan da⁴⁶⁰ (ikus aurrerago §10.2.6.2).

459 Betiere kontuan hartuta eragile morfosintaktikoekin batera hizketa *tempoa* edo hizketa maila bezalakoak ere esanguratsu izango direla hots katearen antolakuntza prosodiko horretan.

460 Aipaturiko azken kasu horietan intonazioak ez luke unitate prosodikoen muga adieraziko, edo ez hori bakarrik: eremu prosodiko jakina da intonazio-eredu baten gertagune.

10.2.6.1.2. Eremu prosodikoen barrenak

Eremu prosodikoen baitan, berriz, gertakari ahultzaile edo *kohesio-gileak* gauzatu ohi dira. Eremua osatzen duten unitateen arteko loturak indartzen dituzte, tarteko mugak lausotuz edo gaindituz (Donegan eta Stampe 1979, 2009; islandieraz gertakari hauei buruz eginiko azterketarako, ikus Árnason 2009: 291-297). Horiekin batera, azentu- eta intonazio-ereduak eremu prosodiko jakinetan antolatzen direnez, eremu barreneko nabarmentasun gertakariak ere aurki daitezke unitate prosodikoen baitan, eredu-prosodikoetako gune nabarmenena eremu barrenean kokatzen den kasuetan (White 2014: 43).

Ondokoak dira eremu prosodikoen barreneko gertakari fonologiko (prosodiko eta segmental) nagusiak:

- Bilakabide segmental ahultzaileak

*Lenitio*ak gauzatu ohi dira sarri eremu prosodikoen baitan⁴⁶¹. §2.4.1 atalean azaldu dudanez, *lenitio* edo bilakabide segmental ahultzaileek hotsak (segmentuak) ahoskagarriago egiten dituzte hizketaren maila sintagmatikoan. Hala, hizketa-katean ahoskatutako hotsak elkarrekiko lotuago, gertuago, ahoskatzen dira, bilakabidea gauzatzen den eremuaren baitako kohesioa areagotuz. Eremu prosodikoen antolakuntza hierarkikoak muga gisa funtziona dezake bilakabide segmental batzuentzat, eremu hori baino txikiagoak diren unitateen baitan gauzatzen delarik bilakabidea (Donegan eta Stampe 1978).

Bat-bateko bertsoetan, esaterako, Sebastian Lizasoren ahoskeran, hitz kodako herskari ahoskabearen ahostuntzea gertatzen da batzuetan, hots katean herskari hori bokal artean birsilabatuta ahoskatuz gero: *pa.zi.en.tzi.ri.[ɣ]e.zo.te.di.o* ‘pazientzi(a)rik ez ote dio’ (SL-1986-GS-8H-1). Hala, hitza unitate prosodiko handiagoaren baitan dagoenez antolatuta, osagai horren kohesioa areagotzen du hitzaren birsilabatze eta herskariaren ahostuntzeak (ikus §8 kapitulua). Euskarazko bilakabide segmental ahultzaile edo kohesio-gileen berri izateko, ikus §8.2.4).

- (Bir)silabatzea

Eremuen ertzetako gertakariez aipatu dut, ikuspegi tipologikotik, ohikoa dela hizkuntza batzuetan (ingelesez, esate baterako) hitz prosodikoaren eremua mugatzea joera nagusi gisa, askotariko gertakari segmentalez gain, silabatzearen bidez. Beste hizkuntza batzuetan, berriz (frantsesez,

461 Horrek ez du esan nahi, noski, bilakabide segmental indartzailerik gauzatzen ez denik.

kasu), hitzen arteko mugak —edo eremu prosodiko jakin bateko mugak— urtu eta CV silaba egituraranzko joeran silabatu ohi dira dena delako eremuko —adibidez, esaldi fonologikoaren baitako— barrenak (islandieraz gertakaria nola gauzatzen den ikusteko, Árnason 2009: 295). Euskaraz, hizketan ohikoa izaten da hitzen arteko mugak urtuz eremu handiagoak osatzea birsilabatzearen bidez. Bat-bateko bertsoetako adibide ugari aipa daitezke, esaterako: *zu.ga.ni.lu.si.o.bat* ‘zuga ilusio bat’ (AA-2013-GS-8tx-1) (ikus §8 kapitulua). Horrek ez du esan nahi, ordea, hitzaren eremua inoiz mugatzen ez denik.

Silabatzea —osagaiak lotuz edo bereiziz— lotura semantiko edota morfosintaktikoak adierazteko —edota desanbiguatzeko— ere baliatzen da, aurreko §4 atalean azaldu bezala.

- Azentu- zein intonazio-ereduen gauzatzea

Azentu-ereduak eremu prosodiko jakin batean antolatu ohi dira. Gorago §2.4.2 atalean azaldu dut azentu-ereduek bazterrekotasunerako joera dutela sarri, baina badira bestelako kasuak ere: hizkuntza batzuetan eremuen barrenean, “buruan” edo “gailurrean”, gauzatu ohi da azentu nagusia⁴⁶² (ikus Hyman 2008, esate baterako). Intonazioaz ari garela, ertz-tonuekin batera eremuaren baitako intonazio gailurrak (*peak*) izango ditugu (ikus Beckman 1996, adibidez; euskaraz, Elordietaren lanak dira, batez ere, aipagarri).

Eremu prosodikoen baitako gune nabarmenena(k) —azentudunak— luzatzeko joera dago⁴⁶³, eta luzatze hori entzuleentzat esanguratsua dela dirudi (berrikuspen baterako, ikus White 2014: 43). Edonola ere, eztabaidagai da oraindik zenbat nabarmentasun maila bereizten diren, azentuaren auziak hizketaren alderdi segmentalarekin, ozentasunarekin edo garaierarekin duen elkarreragin konplexua kontuan hartu behar da eta (ikus §9.2.1 atala, azentuerez).

- Iraupen konpentsaziozko gertakariak

Eremu prosodiko jakinean —demagun, hitz prosodikoan— zenbat eta silaba gehiago egon, orduan eta laburrago ahoskatuko dira. Ingelesez, adibidez, *speed*, *speedy* eta *speediness* hitzak hartuz gero, silaben balio erritmikoak laburragoak dira hitzak zenbat eta silaba gehiago eduki (ikus Lehiste

462 Bada eztabaida ikermolde batzuetan hitzaren eremuko prosodia “culminative”, hitz mailako azentuduna, edo “mugatzaila” (*delimitative*), hitz prosodikoen arteko mugak adierazten dituen, ote den. Eztabaida horri egozten dio Fletcherrek (2010: 529-530) eremu prosodikoez ari garela ertzez eta buruaz (barrenaz) aritzea.

463 Nahiz eta azentuaren eta luzeraren arteko lotura hizkuntza-tipoaren arabera, besteak beste, alda daitekeen (ikus §3.4.3 atala).

1972, Port 1981 edo Turk eta White 1999, adibidez). Horrek hitzaren eremuaren baitako nolabaiteko iraupen-konpentsaziozko joera utz lezake agerian. *Silaba-kopuruagatiko laburtzea (polisyllabic shortening)* deitu izan zaio gertakariari (gaiaren inguruko berrikuspen baterako, ikus Fletcher 2010: 547-549). Hizketa denboran zehar eta taldekatuta gauzatzen dela ulertzeak iraupen konpentsaziozko gertakariak hobeto azaltzen laguntzen du⁴⁶⁴.

- Tempoa lastertzea

Hizketa *tempoa* edo abiadura lastertzea ere baliatu ohi da osagai baten baitako silabak elkarrekin taldekatu eta haien arteko lotura morfosintaktiko edo semantikoak adierazteko, besteak beste (Clark, Yallop eta Fletcher [1990] 2007: 328). Gertakari hau ere hurbiltasunezko *gestalt* hatsarrearen arabera uler liteke (ikus Dressler 1996, adibidez).

10.2.6.1.3. Hitz lauko taldekatze-arrastoez azken hitzak

Aurreko atalean berrikusitako taldekatze arrastoak honakoak izan dira, nagusiki:

22. taula: Taldekatze-arrasto nagusiak hitz lauz

Eremu prosodikoen ertzak	Eremu prosodikoen barrenak
1. Azentuen bazterrekotasuna	1. Azentu nagusia eredu-erritmikoaren erdigunean (dagoenean)
2. Ekinak artikulatorioki indartsuagoak edo luzeagoak	2. Bilakabide segmental ahultzaileak (lenitioak) eremuan zehar
3. Eremu azkeneko luzatzea eta etenak	3. Iraupen konpentsaziozko gertakariak
4. Eremu azkeneko bilakabide segmentalak	4. Bilakabide segmental ahultzaileak (lenitioak) eremuan zehar
5. Silabatze bereizia	5. (Bir)silabatzea
6. <i>Tempoa</i> motelteza eremu amaieran	6. <i>Tempoa</i> azkartzea eremu barrenean
7. Muga-tonuak eta intonaziozko bestelako gertakari batzuk	7. Azentu-eredu eta intonazio-ereduen gertagune edo eremu

⁴⁶⁴ Maila teorikoan sakonago landu beharreko gaia litzateke gertakarion atzean zein mekanismo dagoen, Turk eta Shattuck-Hufnagel (2000) mahai-gaineratzen duten gisan. Gertakariaren bestelako interpretazioa egiten du White-k (2014: 46), ingeleseko lanei erreparatuta (ikus Turk eta Shattuck-Hufnagel 2000, White 2002, White eta Turk 2010, besteak beste). Donegan eta Stampek (1978) ere lantzen dute gaia ingeleseko adibideetatik abiatuta (ikus §2 atala, txertatze prosodikoaz).

Unitate edo eremu prosodiko bakoitzak bere arrastoak izan ohi ditu; gorago aipatutakoen artean bat edo batzuk izan daitezke, kasuan kasuan, eta modu jakin batean gauzatuta, gainera. Edozein hizketa molde aztertuta aldakortasuna topatuko dugu taldekatze arrastoei dagokienean.

Askotariko mailak agertzen ditu antolakuntza prosodikoak, unitateen hierarkiari jarraiki. Musikan ere halaxe gertatzen da (Patel 2008; Deutsch 2013), eta baita bertsogintzan ere (ikus deCastro-Arrazola 2018 berrikuspen baterako; §10.2.6.2 atala lan honetan). Hala, ikusi ahalko dugu kasu batzuetan modu hierarkikoan antolatzen direla taldekatze arrastoak ere.

Lan honen egituraketan silabatzea (§8), azentu-ereduak (§9) eta taldekatzea (§10) bereizitako hiru osagai gisa aurkeztu ditut hasiera batean analisisian, baina taldekatze arrastoei erreparatuta agerian geratzen da hizkuntzaren erritmo antolakuntzaren parte direla denak ere, elkarreraginean daudenak: eremu prosodikoetan antolatzen dira azentu- eta intonazio-ereduak eta, era berean, azentu- eta intonazio-ereduek unitate prosodikoak zehazten laguntzen dute. Silabatzeak unitate prosodikoen mugak adierazten laguntzen du eta, aldi berean, hizkuntzaren taldekatzearen arabera antolatzen dira hotsak modu batera edo bestera, muga batzuen edo besteen arabera, bilakabide segmentalen gauzatzea ere baldintzatuz.

10.2.6.2. Taldekatze arrastoak kantatutako bertsoetan

Euskarazko bat-bateko bertso kantatuetan hizkuntza, metrika eta doinuaren (musikaren) egiturak daude elkarreraginean. Bertsoetako taldekatzea ulertzeko, beraz, hiru eremu horietako gertakariak hartu behar dira kontuan. Hitz lauko taldekatze-arrasto nagusiak zein diren aurkeztuta, beste bi alorren antolakuntzan gako diren osagaiak aletu ditut jarraian. Horretarako, deCastro-Arrazolak (2018) bertsoen ekoizpenean baliatzen diren taldekatze arrastoez eginiko berrikuspena baliatu dut abiapuntu nagusi gisa⁴⁶⁵. Horrekin batera, ezinbestean hartu ditut kontuan hitz lauz berrikusitako arrastoak ere, baita musikaren arloan taldekatze arrastoez eginiko beste lan batzuk ere (Deutsch 2013 lanean berrikusiak, nagusiki). Arrastoetako bakoitza euskarara ekarri eta ahal dela bat-bateko bertsoetan kokatzen ahalegindu naiz, §10.4 atalean proposatutako analisisira begira.

DeCastro-Arrazolak (2018) hiru multzo nagusitan antolatzen ditu bertsoen ekoizpenean gerta daitezkeen taldekatze-arrasto nagusiak⁴⁶⁶: 1) paralelismoa, 2) kontrastea eta 3) osagaien mugak

465 DeCastroren (2018) berrikuspenak genetikoki eta tipologikoki askotarikoak diren bertso-ereduak ditu aztergai. Bere azken helburua bertsoetako kontrol numerikoa aztertzea den arren, lan honetarako oso baliagarri suertatzen da taldekatze-arrastoez egiten duen berrikuspena; horregatik jaso eta baliatu dut nire lanean, helburuak bestelakoak izanagatik.

466 Atal honetan berrikusitako taldekatze arrasto guztiak jaso ditut, nahiz eta batzuk ez diren euskarazko bat-bateko bertsoetan modu sistematikoan gertatzen.

markatzea. Lan honetan, hitz lauz eginiko berrikuspenari jarraiki, laugarren eremu bat osatu dut, aurrekoei loturik egon arren, analisi eta azalpenetan lagungarri izan daitekeelakoan: 4) osagaien barne-kohesioa areagotzea, hain zuzen ere. Jarraian, beraz, bertso kantatuetan aurki daitezkeen taldekatze-arrasto nagusiak aurkeztu ditut labur:

10.2.6.2.1. Paralelismoa

Paralelismoa —osotasun baten baitako— bi unitate edo gehiago elkarrekiko identifikazioan harremantzea dela esan liteke; antzekotasunak batzen ditu, osagai horiek elkarren artean guztiz berdinak ez izan arren (deCastro-Arrazola 2018: 20, 22). Bertso-neurriak bere baitan darama modu inplizituan paralelismoa, egitura-eredu baten errepikapenean oinarritzen baita. Kantatuak diren bertsoen kasuan, paralelismo mota ohikoena melodikoa da: doinu bat errepikatzea hitz desberdinak josiz aldiro melodia berari. Gertakari ezaguna da hori euskarazko bat-bateko bertsoen kasuan, deCastro-Arrazolak berak azaltzen duenez:

In Basque [...] (and in many other languages [...]), a singer chooses a melody from a conventional repertoire and uses it as a placeholder to introduce new strophes (Egaña 2007). This can also be done in the form of a duel. Where the melody is used in alternation by two different singers. The complete text can be easily divided tracking each repetition of the tune.

(deCastro-Arrazola 2018: 21-22)

Edozein bertsoaldi entzunda gai gara bertsoak bereizteko, doinuaren errepikapenean oinarritzen baitira gehienetan. Ez du ardura bakarkako lana den eta bertsolariak hiru bertso osatzen dituen doinu beraren errepikapenaz, edo bi bertsolari ari diren elkarrekintzan: bertsoak bereizteko gai izango gara, doinua errepikatzearen bitartez, besteak beste. Paralelismo bidezko taldekatzea litzateke hori.

Paralelismo melodikoa ez da bertso osoaren mailan bakarrik aurkitzen. Bertso-doinuaren baitako osagaien artean ere gauzatzen da, bertsoaren barne-egitura markatuz sarri. §6.6.1 atalean aurkeztu dut bertso-doinuen egitura. Doinuak sarri (aldaerekin) errepikatzen den melodia baten gainean eraikitzen dira, elkarren artean loturarik ez duten lau esaldi musikal izan beharrean (deCastro-Arrazola 2018: 22). Esaterako, zortziko handiko neurriko *Pello Josepe I-A* doinuan⁴⁶⁷ bi melodia nagusi bereiz daitezke: lehen bi puntuetan eta azken puntuan errepikatzen dena (aldaerekin; ikus urdinez 66. irudian), eta hirugarren puntuko melodia (ikus laranja irudian).

467 Doinuari buruzko informazio gehiagorako, ikus: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1551-pello-josepe-tabernan-dela-i-a> (azken kontsulta: 2023-10-15).

67. irudia: *Pello Josepe I-A* doinuaren egitura (iturria: Doinutegia, sarean)

Pe- llo Jo- se- pe ta- ber- nan de- la
 hau- rra jai- o da La- rrau- nen,
 Pe- llo Jo- se- pe ta- ber- nan de- la
 hau- rra jai- o da La- rrau- nen
 e- txe- ra juan- da e- san o- men du
 ez da ne- re- a i- za- nen
 haur ho- rren a- mak to- pa de- za- la
 haur ho- rrek ai- ta nor du- en.

Beste paralelismo mota bat erritmikoa da. Silaba, azentu linguistiko edo *beat* musikalak bezalako unitate prosodiko-tenporalak errepikatzean datza (deCastro-Arazola 2018: 23). Euskarazko bat-bateko bertso kantatuetara etorrira, metrika silaba kopuruan dago oinarritua: zortziko txikia, esaterako, 7/6 silabako puntuaren 4 errepikapenez osatzen da. Horrekin batera, bertso-neurrian oinarritutako bertso-doinua da aipatu beharrekoa: neurri jakinean kantatzeko gida izatearekin batera, eredu edo balio erritmiko zehatzak eskaintzen ditu silabak kantatzeko, motibo erritmiko jakinen eta horien aldaeren errepikapenean oinarritzen baita (ikus §6.6.2 atala). Motibo erritmikoaren errepikapenean oinarritutako paralelismoak beste maila bateko taldekatzea dakar bertsoetan, puntu edo esaldi musikal mailakoa baino txikiagoa izan ohi dena gehienetan. Ikus, esaterako, hainbatetan aurkeztutako 12. irudia, adibide gisa.

Bertsoak kantatuak diren heinean, *beat* edo oinarri erritmiko (konpas) mailako paralelismoa ere aurki dezakegu bertsoen ekoizpenean, bertsolariak erregulartasun minimo baten baitan kantatzen duenean. Konpasaren dimentsio erritmikoak baliabide gehigarriak ematen dizkio bertsolariari, bertso neurtu erreztatutako dakartzan baldintza zurrunagoetatik —silaba kopuru zehatzetik— aldentzeko aukera emanez, konpas barruan kantatuz gero (ikus §5.3.1 eta §10.4.1.5 auzi horren garapenerako).

Beste paralelismo mota batzuk —prosodiko-musikalak ez direnak— dira paralelismo sintaktikoa eta semantikoa, hizkuntza batzuetan bertsogintzaren funtsa izan ohi direna, hebreeraz, esaterako. Euskarazko bertsogintzaren oinarri nagusia ez izan arren, baliabide poetiko-erretoriko gisa baliatuta paralelismo sintaktiko edo semantikoaren adibide andana jaso daitezke bat-bateko bertsoetan, besteak beste, sarri prosodikoki ere paralelo diren osagaietan txertaturik (ikus §10.4.1.4.2 atala, halako adibide batzuetarako).

Azkenik, muturrera eramano paralelismoa genuke: errepikapena (deCastro-Arrazola 2018: 27). Euskarazko bat-bateko bertsoetan aurki daiteke errepikapena, *errepikadun* bertso doinueta, kasu. Doinu batzuk kantatzean, bertsolariak bertso-lerro edo puntu bat errepikatu egiten du, hitz, eredu melodiko eta eredu erritmiko berberaz batzuetan, eta aldaerekin beste batzuetan.

Hoskidetasuna ere (errima edo aliterazioa) errepikapen edo paralelismo mota bat litzateke, taldekatze arrasto gisa funtzionatzen duena.

10.2.6.2.2. Kontrastea

Paralelismoaren aukako litzatekeen taldekatze arrastoa kontrastearena da, osotasun baten baitako bi unitate antzekotasunetik jarri beharrean elkarrekiko harremanetan, desberdintasunetik lotzen eta bereizten dituen. Munduan zeharreko bertso tradizioetan askotariko kontraste moldeak aurki daitezke: bakarlariak kantatutako atalaren eta taldeak kantatutako zatiaeren artekoa, aurrez sortuaren —finkoa, errepikakorra denaren; kantuetako leloaren, kasu— eta bat-batean sortutakoaren artekoa; semantikoki esanguratsua denaren eta ez denaren artekoa, etab. (deCastro-Arrazola 2018: 27-29).

Ikerlan honetan aztergai ditudan bertsoetarako interesgarrien suertatzen den kontraste motetako bat bertsoaren egituraren baitakoa da, alderdi musikal edo prosodikoari dagokiona. Bertso-doinuaren egituraz paralelismoaren atalean esan dut sarri melodia beraren (aldaeren) errepikapenez eraikitzen dela doinua —atal batzuk behintzat—; bada, baita melodia jakin batekiko kontrastea egiten duen beste melodia batekin ere. Horrela bereiz (taldekatu) daitezke bertso-doinu batean atal desberdinak, A eta B melodiak, doinu beraren baitan. Ikus, berriro ere, aurreko puntuan 67. irudian aurkeztutako *Pello Josepe I-A* doinuaren egitura: hiru puntu melodia beraren aldaeretan oinarritzen dira, baina bat ez (3. puntua, hain zuzen ere, laranja markatua). Azken hori kontraste bidez hautematen dugu talde bereizi gisa.

Melodiarekin batera, eredu erritmikoen ere eragin dezakete kontrastea (ikus §9), kontraste bidezko taldekatzea; baita kantaeraren intentsitate edo *tempo* aldaketek ere, beste alderdi batzuekin

batera. Hala, prosodia ezaugarritzen duten alorrak kontraste-baliabide izan daitezke taldekatze arrasto bilakatuta, eta baita adierazkortasun baliabide ere, kasu batzuetan.

10.2.6.2.3. Osagaien mugak adieraztea

Paralelismoak eta kontrasteak taldeen arteko harremana hartzen dute erreferentziatza, talde bakoitzaren antzekotasun edo desberdintasunak lotuz. Osagaien mugak markatzeak, berriz, izenak berak agerian uzten duen gisan, talde jakina non hasi edota bukatzen den adierazten du.

Hitz lauz §10.2.6.2 atalean jaso ditudan taldekatze arrasto guztiak gauza daitezke kantuan ere taldekatze arrasto gisa: azentuen bazterrekotasunerako joera, eremu prosodikoen ekinak artikulatorki indartsuago gauzatzea, eremu azkeneko luzatzea eta etena, silabatze bereizia, etab.

Euskarazko bertsogintza kantatuaren oinarriez ari dela, eremu azkeneko luzatzea eta etenaren garrantzia azpimarratzen ditu Lafittek:

Dans nos chansons, même souletines, anciennes ou modernes, on ne tient compte ni de l'accent ni de la quantité prosodique; on agit comme si dans le vers toutes les syllabes s'équivalaient; on a soin seulement de faire coïncider les syllabes finales avec les notes longues en respectant aussi les coupes et les césures.

(Lafitte 1967: 14)

Euskarazko bertsogintza kantatuan, azentu edo kantitate silabikoa baino, garrantzitsu(en)a silaba taldeetan azken silaba —hemistikio edo puntu amaiera adierazten duen— musika-nota luzeagoarekin bat etorraraztea da Lafitteren arabera, metrikak zehaztutako etenak errespetatuz horrela. Amurizak ere etenaren garrantzia nabarmentzen du bat-bateko bertsogintzaz ari dela: “Etena geldiene edo pausa musikal bat da, testuak ere errespetatu behar duena. Zubi hori ez dago hitz berarekin pasatzerik, aurreko hitza bukatu eta ondoren beste bat hasita baizik” (Amuriza [1981] 1997: 254). Hizkuntzaren osagaiak musikaren taldekatze arrastoeekin bat etorrarazita, bertso-neurriaren egitura errespetatzea litzateke gakoa euskarazko testu-uztartzean, Lafitte eta Amurizaren esanetan, horretarako arrasto nagusiak eremu azkeneko silabaren (musika notaren) luzatzea (edo luzera) eta etena izanik⁴⁶⁸.

Bat-bateko bertsoen eredu erritmikoen aldaerak aztertzean, badira bertsolarien gauzatzean jasotako eten gehigarriak, eta hitzen mugekin bat etortzeko luzatutako silabak ere. Aldaera horiek ere unitate prosodikoak mugatzeko baliabidetza uler daitezke (ikus §9).

468 Osagaien mugak adierazteko arrasto nagusiak eremu azkeneko luzatzea eta etena izanagatik, bat-bateko bertsoetako taldekatzea aztertzean hitz lauz berrikusitako gainerako arrastoak ere kontuan hartzea garrantzitsua bezain esanguratsua izan daiteke.

10.2.6.2.4. Osagaien barne-kohesioa areagotzea

Osagaien mugak markatzeak talde jakin baten hasiera edo amaiera zehazten duen gisan, osagaien barne-kohesioa areagotzeak talde beraren baitako osagaiak —modu batera edo bestera— elkarrengandik lotuago gauzatzea dakar, horren ondorioz talde beraren parte gisa ekoitziz edota hautemanaz elementuok, kapituluaren sarreran taldekatzeaz emaniko definizioa gogora ekarriz.

Aurrez ere esan bezala, hitz lauz, osagaien barne-kohesioa areagotzeari loturik, ondoko gertakariak aipatu ditut nagusiki: eremuen barrenetan bilakabide segmental ahultzaileak gauzatzea, hotsak elkarrengandik antzekoago eginez, katean; hitz eta sintagmen mugak urtzen dituzten birsilabatzeak gauzatzea eta, eremu jakinaren baitan, osagaien iraupena konpentsatzea (ikus §2.4.1 atala). Horiekin batera, gertutasun topologikoaren *gestalt* printzipioari loturik (Dressler 1996, besteak beste) iraupenari loturiko bestelako gertakari batzuk aipatu behar dira. Gertutasun tenporala taldekatze arrasto gisa baliatu ohi da hitz lauz bezala kantuan ere, etenen artean dauden osagaiak talde beraren parte gisa hautemanaz (Deutsch 2013: 196). Hala, bertsoetako eredu erritmikoen aldakortasunaren azterketan jasotako zenbait aldaera ere osagaien barne-kohesioa handitzen duten gertakaritzat uler daitezke, silaben balio erritmikoak laburtu eta elkarrengandik gertuago gauzatzen baititu bertsolariak batzuetan (ikus §9)

Patelek (2008: 114), musikako iraupen patroia edo ereduaren inguruko lanak berrikusten ari dela, azaltzen du mendebaldeko musika hautemateko moduan bi kategoria nagusi bereizten direla musika noten iraupenari dagokionez. Iraupen luze(ago)ko musika notak “buruaskiak” diren unitate indibidual gisa hautematen dira, dirudienez, eta iraupen laburreko —edo laburragoko— musika notak, berriz, eredu erritmiko jakinaren (motibo erritmikoaren) parte gisa.

*Tempo*a edo lastertasuna bezalako faktoreek eragina dute taldekatzearen hautematean, Allenen (1975) ikerketak agerian uzten duen bezala (ikus §3). Garaiera bezalako alderdiak ere esanguratsu dira taldekatzean⁴⁶⁹, elkarrengandik gertu dauden tonuak talde beraren parte gisa hautemanaz eta elkarrengandik urrunago daudenak talde bereizietan, esaterako (Deutsch 2013: 196).

469 Esan bezala, lan honetan ez dut erritmoaz gain bestelako alorretan sakonduko taldekatzeari dagokionean, kontuan hartzekoak diren arren. Horretarako, abiapuntu egokia izan daiteke Deutsch (2013).

10.2.6.2.5. Bertso kantatuetako taldekatze arrastoez azken hitzak
 Laburbilduz, ondokoak dira bertso kantatutetako taldekatze-arrasto nagusiak:

23. taula: Bertso kantatuetako taldekatze arrasto nagusiak.

PARALELISMOA	KONTRASTEA	OSAGAIEN MUGAK ADIERAZTEA	OSAGAIEN BARNE-KOHESIOA AREAGOTZEA
- Melodikoa (bertso artean eta bertsoaren baitan)	- Melodikoa (bertso artean zein bertsoaren egituraren baitan)	-Eremu prosodiko ekineko fortitioak	- Lenitioak
- Erritmikoa (motibo erritmikoaren mailan)	- Erritmikoa (eredu erritmikoen artekoa)	-Eremu azkeneko luzatzea eta etena	- Bisilabatzeak
-Konpas edo oinarri erritmikoari dagokiona	- Kantaeraren askotariko ezaugarriei dagokiena: <i>tempoari</i> edo <i>intentsitateari</i> , besteak beste.	- Silabatze bereizia	-Eredu erritmikoko osagaiak trinkotzea
-Paralelismo sintaktiko edota semantikoa		- Tempoa moteltzea amaierako ertzean	- Tempoa azkartzea eremu barrenean.
- Errepika (pena)			
- Hoskidetasuna (errima eta aliterazioa)			

Taulan laburbilduta daude bat-bateko bertsoetan aurkitu ahalko ditugun taldekatze arrasto nagusiak, batez ere hotsezko alorrari dagokionean. Agerian geratzen da eremu eta ikuspegi desberdinak hartu behar direla kontuan, taldekatzea den gertakari-sare konplexura hurbiltzerakoan.

10.3. Ikerketa-galderak eta auzi metodologikoak

Euskarak bere antolakuntza erritmikoa du denboran zehar, silaba, hitz eta esaldi fonologikotan gauzatzen dena, mailarik txikienetan. Silaba-aldiranzko joera duen hizkuntza izanik, silaba egituratzen duten hatsarreek ardatzen dute sistema fonologikoa, eta ohiko dira silaba ekina indartzen duten bilakabide segmentalekin batera, hitzen mugak urtuta birsilabatutako pasarteak. Azentu-ereduen gauzatze eremua ere hitza baino handiagoa izan ohi da sarri —ekialdeko hizkeretatik at, behintzat—, sintagma edo esaldi mailan kokatu behar delarik euskararen erritmo antolakuntza maiz.

Hizkuntzaren ezaugarritze fonologiko horren mugez baitan ulertu behar da euskaraz —eta bat-bateko bertsoetan— erabiltzen den sistema metrikoa, printzipioz bat datorrena hizkuntzaren fonologiarekin: silaba kopuruan eta silaba horien taldekatzean dago oinarrituta —hoskidetasunarekin batera—. Ikuspegi tipologiko batetik, silaba kopuruaz gain bertsoa oin metrikoa baino osagai handiagotan —*colon*-etan, kasu— antolatzea silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzen ezaugarritzat proposatzen da, hitz lauko erritmo antolakuntza nolabait islatzen baitu egituratze metrikoak (De Sisto 2020). Proposamen horrek balio lezake euskarak hitz lauz zein eskakizun metrikoetan dituen ezaugarriekin, orain arte berrikusitakoaren arabera, behintzat. Hezurdura mailako lotura —eta antolakuntza— bertsolarien ekoizpenean zer-nola gauzatzen den ezagutzea da falta dena, irudi konplexuagoa osatu ahal izateko.

Ezin da ahaztu bat-bateko bertsoa ahozko jardun kantatua dela, doinu bat duena beti inprobisaziorako oinarri. Doinuak bertso-neurriaren hezurdura orokorra jarraitzen duen arren, ezaugarri propioak gehitzen dizkio bertso kantatuari, egitura-geruza handiago eta txikiagoak eskainiz, esaterako. Halaber, bertso-neurriari konpasaren eta balio erritmikoen dimentsioa gehitzen dizkio, alor erritmikoan. Hainbat hizkuntza eta tradizio poetikotan metrika ulertzeko doinua gakoa izan da (Aroui 2009: 3), eta euskaraz ere lotura hori aldarrikatu den arren, nahi baino gutxiago dira harreman horietan sakondu duten ikerketak (ikus §10.2.5).

Azken hamarkadetakako bat-bateko bertsoegintzan etengabeko jarduna izan da; horren erakusgarri dira lan honetan aztergai ditudan Bertsolari Txapelketa Nagusi guztietako bertsoak, beste askoren artean. Aldi berean, molde metriko horien teorizazioa ere egin da (ikus §9.2.3.2), baita arautzea ere, txapelketara begira, epai-irizpideen bitartez (Euskaltzaindia 1979; Euskal Herriko Bertsolari Elkarte 1985, 1990; Euskal Herriko Bertsozale Elkarte 1997, 2001, 2005, 2009, 2013, 2017).

10.3.1. Bertsoetako unitate prosodiko nagusiak

Bat-batean sortutako bertsoen azterketan hizkuntza, metrika eta musika nola uztartzen diren aztertzea esanguratsu izan daiteke euskararen fonologiaren antolakuntzan gako diren unitate prosodikoak ezagutzeko, hasteko, ikuspegi tipologiko batetik. Maila estrukturalen posible diren loturak eginda, ekoizpenaren sare-konplexuari begiratuta zein osagai nagusitzen diren ezagutzea funtsezko da euskarak bertsoetan duen erritmo antolakuntzaren ezagutzan sakontzeko.

Era berean, bat-bateko bertsoegintza komunikazio ekintza artistikoa den heinean, hizkuntzaren (prosodiaren) askotariko egitekoak zein sortzaile bakoitzaren ekarpen estilistikoek bertsoetako

taldekatzean duten edo izan dezaketen tokietan sakontzeko aukera ematen du, bertso-neurriak eta doinuak eskaintzen duten abiapuntuarekiko harremanetan.

10.3.1.1. Ikerketa-galderak

Hori horrela, ondokoak dira ikerketa baldintzatu eta bideratu duten galderak:

- Hizkuntza, metrika eta musikaren egiturak elkarreraginean dauden bat-bateko bertsoetan, zein unitate prosodiko dira nagusi? Nola adierazten dira eta zein ezaugarri dituzte? Zer irakurketa egin daitezke errealitate hori dela eta? Bada bertsolarien arteko alderik?
- Nagusi ez izan arren, bestelako zein unitate prosodiko ageri dira bertsoetan? Zerk baldintzatzen du unitate prosodiko horien agerpena? Nola daude adierazita eta zein ezaugarri dituzte? Zer irakurketa egin daitezke errealitate hori dela eta? Bada bertsolarien arteko alderik?

10.3.1.2. Datuen trataera

Bat-bateko bertsoen taldekatzea aztertzeko tresna nagusia nire hautematean oinarrituta eginiko bertsoen transkripzio musikal eta linguistikoak izan dira, eta horien osagarri baliatu ditut *Praat* (Boersma eta Weenik 2021) bidez eginiko etenen neurketak. Orain artean hainbatetan berrikusitako hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren osagai prosodikoak kontuan hartuta, taldekatze arrastoei jarraiki (ikus 23. taula)⁴⁷⁰, bertsolariek gauzatzen dituzten eremu prosodikoak identifikatu ditut, aldiro zehazten ahaleginduz zein alor izan den —hizkuntza, metrika edota musika— taldekatze hori eragin duena eta zein arrastorekin mugatzen den.

Taldekatze nagusiak zehaztu ditut —metrikak eta doinuak eragindakoak— eta, ondoren, joera nagusi horiek hausten dituzten adibideen azterketa egin dut, zein eragileren ondorio izan den zehazteko. Halaber, joera nagusiei aurka egin ez arren bertsolariek gauzatzen dituzten bestelako eremuak identifikatu ditut beren beregi (hizkuntzak eta musikak eraginak direnak)⁴⁷¹.

10.3.2. Bertso-neurriaren oinarriak

Metrikaren alorrean, bertsolariek bat-bateko bertsoetan musikarekiko nolako hartu-emanak gauzatzen dituzten jaso daiteke ekoizpen errealaren azterketaren bitartez. Euskaraz eginiko azterketa gehienek idatzizko iturriak dituzte abiapuntu eta, hori beharrezko eta esanguratsu den

470 Lanean ez dut sakondu garaierari (melodiari), intentsitateari, *tempo*ari eta hoskidetasunari dagozkion arrastoetan, alor erritmikora mugatu naiz, batez ere, lanari ezarritako mugei jarraiki. Etorkizunean landu beharreko ardatzak lirake.

471 Horretan aurreko §8 eta §9 kapituluari jasotako silabatze-aukerak eta eredu erritmikoen aldaerak esanguratsu izan dira, arrasto gisa funtzionatzen baitute.

arren, grabazioen azterketak metrikaren eta doinuaren arteko harremana euskaraz eta azken hamarkadetan nolakoa den ezagutzen lagun diezaguke, egungo bertsoak eta, akaso, zaharragoak ulertzeko gakoak zein izan daitezkeen pentsatzeko heldulekuak eskainiz.

Bat-bateko bertsoen neurriaz aritzean, silaba-kopuru zehatza eta silaba horien taldekatzea aipatzen dira metrikaren oinarri gisa (Amuriza [1981] 1997, Garzia et al. 2001), baina corpuseko bertsoetako aldaera erritmikoen azterketan (ikus §9 kapitulua) zenbait irregulartasun jaso ditut molde txikiko neurrian, hainbatetan silaba bat gehiago gauzatuz puntuko lehen hemistikioan —7/6 silabako puntua egin beharrean 8/6koa eginez—. Epai-irizpideak aztertuta ere badago bilakaera neurria ulertzeko moduari dagokionez, §9.4.4.4 atalean jaso bezala: 1980-1986 bitarte neurria doinuan oinarritzen da, eta ondoren, hemistikio barneko taldekatzea egin edo ez doinuaren ezaugarrien esku utzi arren, unitate metrikoetako silaba kopurua finkatuta uzten da, doinuarekiko bereiz. Joko-arau aldaketa horiek bertsolarien jardunean zein eragin izan duen aztertu eta adibide “irregularrak” jaso eta aztertzeak euskaraz eta azken hamarkadetan, txapelketako testuinguruan, doinua eta metrika nola uztartzen diren ulertzeko gakoak eman diezazkiguke.

10.3.2.1. Ikerketa-galderak

Hori horrela, ondokoak dira ikerketa baldintzatu eta bideratu duten galderak:

- Nola betetzen dute bertsolariak neurria? Nola aldatu da hori txapelketaz txapelketa, irizpideekiko harremanetan? Bada bertsolarien arteko alderik?
- Zein da, kasuan-kasuan, doinuaren eta neurriaren arteko harremana? Zein oinarri ditu euskarazko bat-bateko bertso kantatuen metrikak?

10.3.2.2. Datuen trataera

Bat-bateko bertsoen taldekatzea aztertzekeo tresna nagusia nire hautematean oinarrituta eginiko bertsoen transkripzio musikal eta linguistikoak izan dira, beste behin. Fokua bi arlotan jarri dut:

- Doinuen eredu erritmikoetan (betiere bertsolariak gauzatu gisa), joera orokor gisa —estrukturalki, nolabait— zein osagai metriko mugatzen edo markatzen dituzten jasoz, baita hortik abiatuta bertsolariak zer-nolako gauzatzeak egiten dituzten begiratzen ere.
- Bertsoetako silaba-kopuruan, aztertuz ea bertso-neurriak zehaztutakoaren arabera den edo badagoen irregulartasunik. Irregulartasunen kasuan, doinuaren ezaugarriak aztertu ditut, gertakaria ulertzeko gako bila.

§10.3.1 eta §10.3.2. puntuetan taldekatze eta metrikari dagozkion auziak bereiz aurkeztu ditudan arren, analisi proposamenean uztartu egin ditut, elkarri eragiten dioten alorrak direlakoan.

10.4. Datuen aurkezpena eta interpretazio proposamena

10.4.1. Bat-bateko bertsoetako unitate prosodikoak

Aztertutako bertsoetan nagusi diren osagai prosodikoek metrikari dute euren jatorria, eta bertsoaren gauzatzean doinuaren egitura erritmiko-melodikoek zein hitzen mugek indartzen dituzte, oro har. Horrek ez du esan nahi, ordea, hizkuntzak eta musikak euren ekarpena egiten ez dutenik bertsoak egituratu eta denboran antolatzean. Ondoko ataletan corpusean bildutako bertsoetan taldekatze-arrastoei jarraiki identifikatu ditudan unitate prosodikoak aurkeztu ditut banan-banan: puntua, hemistikioa, hemistikio barneko 5 + 5 taldekatzea, hitz-sintagmak eta silaba, konpasarekin (doinuarekin) harremanetan.

10.4.1.1. Puntua⁴⁷²

Osagai metrikoen artean puntuaren eremua nagusitzen da. Bertsolariek baliatutako doinuek musikalki mugatzen duten eremua izaki⁴⁷³, sortzaileek oinarri prosodikoa betetzean errimadun hitzekin (oinekin) zein muga linguistikoekin indartzen duten eremua da —ez dago zangalatrau geratutako hitzik puntuen artean—. Gainera, eremu azkeneko luzatzeaz eta etenez ere adierazten dute, gehienetan.

10.4.1.1.1. Puntuaren eremua lausotzea

Hitz mugak puntuaren muga metrikoarekin bat etorri arren, batzuetan bertsolariek ohikoak baino eten laburragoak gauzatzen dituzte puntuaren eremuan, edo ez dute etenik egiten, edo doinuaren eredu erritmikoa eraldatzen dute, puntuaren eremua lausotuz, eta puntu-mugaren aurretik kantatua hurrengo osagaiarengandik gertuago gauzatuz; talde berean, kasu gutxi batzuetan.

Xabier Amurizaren kasuan, 1980ko eta 1982ko bertsoetan aipagarria da puntuaren ondorengo etenak gauzatzen dituela sistematikoki, 0,3 – 2,1 s bitarteko iraupenekoak gehienak. 1982ko txapelketan eten laburragoak gauzatzen ditu puntuaren eremuan, sarri bertso amaieran azken puntua

472 Lehenago ere esan bezala, lan honetan ez ditut puntua baino osagai prosodiko handiagoak aztertu ikergaiari ezarritako mugak direla eta. Etorkizunerako geratzen da.

473 Puntu laburrak ez dituzte beharbada horren modu nabarmenean mugatzen, motibo erritmikoak batzuetan puntu horien eremua mugatu arren (ikus *Iparragirre abila dela* edo *Betroiarena* doinuak, esaterako).

edo haren errepikari lotuta. Esate baterako: [...] *amak sortu ninduen ni ere holangoa: / munduan ibiltzeko mutil fandangoa* (XA-1980-GS-pe-1, eten laburragoaz banatutako azken bi puntuak).

Sebastian Lizasok 1986an oro har eten askoz laburragoak darabiltza kantuan (0,3 – 1,1 s bitarteko etenak gauzatuz, gehienetan), eta zailagoa da etenen mailakatze argia zehaztea puntuaren eremuan, ohikoa baita bere kasuan bertsoak aurrera egin ahala gradualki laburtzea, bertsolari guztiek gutxi edo gehiago agertzen duen joerari jarraiki (ikus §6.6.3.2). Adibidez:

68. irudia: Sebastian Lizasok puntuaren eremuan gauzatutako etenak (SL-1986-GS-8H-1)

Ez nu - e - nus - te se - na - rra o - rren gaiz - ki za - nik , a - zal - du - ko
 pa - zi - en - tzi - ri - ke - zo - te di - o nor - bai - te - gaur bi - da - li - ko
 be - ti je - ni - jo - txa - rre - an - zau - de e - rri - e - tak ne - re - ki - ko
 txa - pe - la gal - tzen ba - de - zu e - re mun - du - a ez - ta gal - du - ko

Jon Lopategik ere, 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko bertsoetan 0,4 - 1s bitarteko iraupeneko etenak darabiltza puntuaren eremua mugatzeko, gaia emanda (JL-1989-GS-ge; JL-1989-AS-ge) eta bukaera emanda (JL-1989-AS-be-1, 2) sortutako bertsoetan izan ezik; azken horietan eten luzeagoak ere gauzatzen ditu, bertso hasieran (1,753 s-ra arteko etenak gauzatuz). Lopategiren bertsoetan ere bertsoak aurrera egin ahala eten laburragoak gauzatzeko joera ikus daiteke, salbuespenak salbuespen⁴⁷⁴. Esaterako:

474 Bertso-doinu (neurri) luzeagoetan sekzio musikalak edo bertsoaren baitako “atal diskurtsiboak” mugatzeko eten luzeagoak gauzatzen ote diren aztertzea litzateke, besteak beste.

69. irudia: Jon Lopategik puntuaren eremuan gauzatutako etenak (JL-1989-AS-ge-1)

1 - tsa - so - ra nik sa - rri e - gi - nu - en ji - ra

1,12s / 1,379s

be - gi - ra zer du - dan gaur sa - ri - tzat se - gi - da

0,792s / 1,327s

neu - re ' e - zin ' o - ne - tan au da ' i - kus - mi - ra

0,872s / 1,466s

be - gi - ra - tu na - je - an i - tsa - so ar - gi - ra

0,645s / 0,865s

le - io - tik ' o - la - tu - ei ja - rri naiz be - gi - ra

0,728s / 0,722s

21 le - io - tik ' o - la - tu - ei ja - rri naiz be - gi - ra

0,365s / 0,671s

26 o - tsa - ken - tzu - ten di - tut ba - ñau - rru - ti di - ra

0,446s

Andoni Egañak ere puntuaren eremua 0,3 – 1 s bitarteko etenen bidez mugatzen du normalean (1993, 1997, 2001, 2005⁴⁷⁵). Bertsoaren baitan puntuaren eremuko etenek ez dute horrenbesteko progresio eta alderik agertzen maiz Egañaren ekoizpenetan —lehen hiru txapelketetan, nagusiki—, bertso amaierara hurbildu ahala gutxi laburtzen baitira gainerako bertsolarien joerekin alderatuta, laburtzen badira. Egañak batzuetan bertsoa kantatzean amaiera aldera *tempoa* lastertu —gogoratu

475 Aipagarria da 2005eko txapelketan bakarka eginiko lanetan (AE-2005-GS-ge, AE-2005-AS-ge, AE-2005-BB-9phtz, AE-2005-BB-ge) 1, 5 s-ra arteko etenak gauzatzen dituela Egañak, puntuaren eremuko etenen iraupen-espektroa zabalduz.

Irazoz Remioren (2012) neurketak— eta eredu erritmikoak eraldatu arren, esan daiteke nahiko modu konstantean gauzatzen dituela etenak, azterketa sakonagoa egitea beharrezko den arren. Horregatik da beharrezko, gorago zehaztu bezala, etena gainerako osagai prosodikoekin elkarreraginean ulertzea (eremu azkeneko luzatzearekin eta *tempo*arekin, besteak beste). Ondoko bertsoan zehar gauzatutako etenak izan daitezke horren adibide⁴⁷⁶ (alderatu gorago aurkeztutako Lizasoren zortziko handiko adibidearekin):

70. irudia: Andoni Egañak puntuaren eremuan gauzatutako etenak (AE-1993-GS-8H-4)

Gau - rre - gu - ne - an lo - ti - a naiz ni lo - ti - a nin - tzen txi - ki - tan _____

5 ta E - us - ki - tze e - men dau - ka - gu be - re ' er - ne - ga - tu pin - tan

9 a - tzo re ze - gon ' E - ga - ñak dau - kan pa - txa - da - re - nin - bi - ri - tan _____

13 te - le - fo - no - tik ez dei - tu ne - ri goi - ze - ko zaz - pi ter - di - tan _____

17 te - le - fo - no - tik ' ez dei - tu ne - ri goi - ze - ko zaz - pi ter - di - tan

Gorago aipatu dut bertsolariek batzuetan espero litzatekeena baino eten laburragoak gauzatzen dituztela osagaiak elkarrengandik gertuago gauzatzeko baliabide gisa. Egañak adibide batzuetan eten artikulatorioa edo ohi baino eten laburragoa gauzatzen du puntu laburrak bereizteko. 1993an gaiari botatako bertsoetan gauzatutako puntu labur batzuk, esaterako: AE-1993-GS-ge-1, 2,

⁴⁷⁶ Horrelako adibideekin agerian geratzen da etena taldekatze arrasto bat gehiago dela, eta bertsoko gainerako elementuekin elkarreraginean ulertu behar dela.

3 (x4)⁴⁷⁷. Kasu honetan doinuari —*Zuek horrela ikusi eta / Dona dona*⁴⁷⁸— egotz diezaiokegu hein batean puntu laburren arteko distantzia txikitzea, doinuko puntu labur guztiak esaldi musikal berean baitaude egituratuta eta ez baitago erritmikoki muga nabarmenagirik puntu bakoitza markatzeko, bertsolariak gauzatzen duen ekoizpenaz harago:

71. irudia: *Zuek horrela ikusi eta / Dona dona* doinuaren pasartea. Puntu motzak dituen esaldi musikala; pentagrama bakoitzeko puntu bat dago irudikatuta (iturria: Doinutegia).

Horiekin batera, doinuaren eredu erritmikoaren aldaera bat baliatuta, puntu “luze” bateko eremua hurrengo puntuarekin lotzen du Egañak, egiturazko etena gauzatu gabe (X), 2001eko zortziko handiko ofizioan, goizeko saioan: *errutinara iritsi ginen / maitasunetik irtenda (X) ta errutina / pasata ere / errukia gelditzen da* (AE-2001-GS-8H-1, azken bi puntuak). Pentsatzekoa da azken puntu aurreko etenik ez gauzatzea adierazkortasunari loturik dagoela kasu honetan, *errutina* eta *errukiaren* arteko hitz joko eta ideiak kateatuta ulertarazteko bertsolariaren intentzioa, akaso. Zentzu berean uler daiteke seguruena 2005ean hitzari (“aulkia”) kantatutako bertsoan puntu motzen artean etenik ez gauzatzea: *IKEAn bai lepo (X) desberdinak seko* (AE-2005-BB-9phtz, azken aurreko bi puntuak).

Perpaua bera osatzen dute bi puntuetako hitzek. Gainera, kontuan hartu behar da azken puntua datorrela goiko adibidean jasotakoaren ondoren eta nolabaiteko “efektu adierazkortzat” ere har genezake, bertsoaren egituraketan azken puntuak izan ohi duen garrantzia kontuan hartuta (Egaña 2007).

Maialen Lujanbiok, 2009an eta 2017an, 0,3 – 2 s bitarteko etenak gauzatzen ditu puntuaren eremua mugatzeko⁴⁷⁹. Aipagarria da kantatzeko darabilen *tempo* aldetik ziur aski motelen kantatzen duen bertsolaria ez den arren (neurketa sistematikoen faltan), etenik luzeenetarikoak gauzatzen

477 Puntu laburrekin sarri eten laburragoak gauzatu arren, ez da beti horrela: *Iparragirre abila dela* doinua erabiliz Egañak berak kantatutako bertsoetan, adibidez, puntu laburrak gainerako puntuen neurriko etenez mugatzen ditu aldiro: AE-1993-AS-1p; AE-1997-AS-1p; AE-2001-BB-1p). Doinuaren egiturazko erritmikoak laguntzen du, seguruena, taldekatze horretan.

478 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/2653-zuek-horrela-ikusi-eta-dona-dona> (azken kontsulta: 2023-10-31).

479 2017ko txapelketan eten laburragoak darabilta ofiziotan: 0,3 - 1,2 s bitartekoak, gehienetan.

dituela Lujanbiok⁴⁸⁰, Amurizarekin batera. Bere bertsoetan maiz ikus daiteke etenen laburtze progresiboa bertsoak aurrera egin ahala, batez ere azken puntuak mugatzen dituzten etenak laburrago gauzatze hori —bertsoaren hasierako etenen luzera aldakorragoa baita bertsolari honen kasuan, eta ez du beti luzeenetik laburrenera jotzen—. Puntuaren eremua modu argian gauzatzen ez duen adibide bakarra jaso dut 2009an, Lujanbiok, puntu labur baten ondoren etenik ez egiteaz gain, eredu erritmikoaren aldaera jarraitu bat baliatuta, bi puntu labur lotzen dituen hitzari (“sua”) kantatutako bertsoan:

72. irudia: ML-2009-BB-9phtz; azken aurreko bi puntu motzak.

e - do ja - ki de - na be - ro - tzen du - e - na

Egañaren azken adibidean bezalaxe⁴⁸¹, esaldi bera osatzen dute bi puntuek (*edo jaki dena berotzen duena*) eta adibidean jasotakoaren ondoren dator azken puntua. Baliabide adierazkor gisa uler daiteke gauzatze hau ere, nahiz eta argigarri den 2017an doinu berarekin pasarte berean eginiko taldekatze (eta eredu erritmikoaren gauzatze) berera:

73. irudia: ML-2017-BB-9phtz; azken aurreko lau puntu motzak.

i - zer - di - a zer den zai dae - sa - ten ze - ren ,
jai , e - ta , as - te - len , ar - tu - ta a - tse - den

Azken irudi honetan ikus daitekeenez, *Betroiarena A*⁴⁸² doinua modu berean gauzatzen du azken aurreko bi puntuen pasartean Lujanbiok, eredu erritmiko beraren parte gisa gauzatuz biak, talde bakarrean, eskema metrikoa —silaba kopurua, hitzen muga linguistikoak eta hoskidetasuna—

480 Bat-bateko bertsoetan isiltasunak duen garrantzia azpimarratu izan du, bertso-saio musikatuetik kontrastean, *a capella* kantatzen diren bertsoetan isiltasunak duen garrantzia nabarmenduz (Lujanbio 2017).

481 Esanguratsua da, doinu desberdina izan arren, bederatzi puntuko motzeko neurrian kantatutako bertsoak direla bi kasuak, eta puntu motzen kokapena bera dela: puntu motzen taldekatze bera egiten dute bi bertsolariak.

482 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/2101-betroiarena-a-fernandorena-joan-den-ostegunean> (azken kontsulta: 2023-10-31).

errespetatu arren. 2017ko bertsoan ere esaldi beraren parte dira osagai bakar gisa kantatutako bi puntuak (*jai eta astelehen hartuta atsedeen*). Gauzatze horrekin batera, aipagarria da 2017ko bertsoan azken aurreko bi puntuez gain, horien aurreko beste bi puntu motzak ere etenik gabe gauzatzen dituela, edo eten artikulatorio laburraz: *izerdia zer den (/) zail da esaten zeren (/) jai eta astelehen (/) hartuta atsedeen*. 73. irudian jasotako lehen bi puntu laburren kasuan eredu erritmikoak puntuaren eremu laburra mugatzen du etenik egin gabe ere, motibo erritmikoak puntu laburraren neurria baitu: puntuko azken silaba luzeago gauzatzen du bertsolariak bi kasuetan. Edonola ere, modu jarraituan kantatzen ditu osagaiok, eta pentsa daiteke eragile posible bat hizkuntza dela, esaldi beraren parte baitira esaldian jasotako lau puntu motzak —irudian jaso gabeko azken puntu luzea ere bai: *izerdia zer den (/) zail da esaten zeren (/) jai eta astelehen (/) hartuta atsedeen // besterenetik asko bizi da hemen*—. Horrekin batera, ezin ahaztu daiteke bertsoaren amaieraz ari garela. Lujanbioren gauzatze honek bat egingo luke bertsoaren baitan amaierara hurbildu ahala puntuak azkarrago kantatzeko joerarekin, azken punturako bidea (“efektua”) prestatzearekin⁴⁸³.

2017ko txapelketan puntu luzeak elkarrengana hurbiltzen ditu hainbat kasutan Lujanbiok, etenik egin gabe. Adibide aipagarrienetakoa da buruz burukoan, gaia emanda, kantatutako bigarren bertso hasieran gauzatzen duena (laranjaz borobilduta bertsolariak egin gabeko egiturazko etenak):

74. irudia: ML-2017-BB-ge-2, bertso lehen bi puntuak

Voice

Mi - ri - bi - lla - ko ro - ton - dan e - rre - ka - rriz e - rre - ka - rri

5

be - ze - la - xe e - gin di - tut mi - la bwel - ta e - rru - ka - rri

Etenen arabera, horrela antolatuko litzateke adibidean jasotako hizkuntza:

Miribillako rotondan /

errekarriz errekarri bezelaxe egin ditut mila buelta errukarri

Irudian ikus daitekeenez, motibo erritmikoa mantenduz baina modu jarraituan kantatzen du Lujanbiok *errekarriz errekarri bezelaxe egin ditut mila buelta errukarri* (ML-2017-BB-ge-2). Hizkuntza da, seguru asko, puntua mugatzen duen etena egin ez izanaren arrazoietakoa bat: moduzko

⁴⁸³ Lujanbiok baditu adibide gehiago ere puntu motzak elkarren ondoan, eten gabe, kantatzen dituenak. Seiko motzean, esaterako, azken aurreko bi puntu motzak: *ni kapaza naiz eusteko (X) ta lanari ez uzteko* (ML-2017-AS-6mtz-3).

perpauza, *errekarriz errekarri bezelaxe*, talde prosodiko berean ahoskatzea, lotura sintaktikoak kantuan islatuz. Horrekin batera, maila artistikoan, *errekarrri* eta *errukarri* oinak elkarrengandik gertuago gauzatuta ageriago geratzen da beharbada hitzen arteko hoskidetasuna⁴⁸⁴ ⁴⁸⁵(xehetasun gehiagorako, ikus Aizpurua-Insausti 2019b).

Ametz Arzallusek, 2013ko bertsoetan 0,4 – 1,6 s bitarteko etenak gauzatzen ditu gehienetan puntuaren eremua mugatzeko. Bertso hasieran gauzatutako etenak amaierakoekin alderatuz gero iraupen laburragokoak badira ere ia beti, bertsoan zehar ez da askotan gorago aipatutako laburtze progresibo hori modu argian ageri. Puntuaren eremua beti adierazten du etenaz, hitzari kantatutako bederatzi puntukoan izan ezik, puntu laburrak kantatzean maila artikulatiora mugatzen baitira horiek, aurretik —eta ondoren— Egañak edo Lujanbiok ere egin bezala. Ondokoak dira Arzallusek modu jarraituan kantatutako puntu motzak eta horien ondoren egindako etenak:

75. irudia: AA-2013-BB-9phtz

Hizkuntzak, beste behin, lagun lezake osagaien arteko jarraitutasuna bilatu izana ulertzen, hitzen lotura, besteak beste, prosodiko eta sintaktikoak direla medio: *amaren ahala da unibertsa // goxoa, apala ta zabal-zabala* (AA-2013-BB-9phtz)⁴⁸⁶.

484 Azken ideia hori Karlos Aizpuruari zor diot.

485 2017ko finaleko buruz burukoan kantatutako zortziko txikian ere, 2. eta 4. bertsoetan, ez du lehen puntu ondorengo etenik gauzatzen Lujanbiok —egitekotan, maila artikulatiora bereizten ditu hitzak—, motibo erritmikoak puntuaren eremua mugatzen duen arren bertsolariaren gauzatzean. Ondokoa da bigarren bertso hasiera: *Pixka bat heldu da ta harrotu da dena (X) erabat joan zaio umearen sena* (ML-2017-BB-8tx-2).

Lehen adibide horretan bi puntuak elkarrengandik gertuago gauzatzea deskribapenetik uler daiteke, bi puntuetan kontaktzen baitu bertsolariak zein den umearen egoera. Ondoren datozen bi puntuetan umeari berari zuzentzen zaio, ahots aldaketa eginez: *aizu helduaroa da denik ta tristena // gero re beharko dezu zuk irudimena* (ML-2017-BB-8tx-2).

Laugarren bertsoan, berriz, paralelismo sintaktikotik uler daiteke bi puntuen arteko lotura:

Gero etzazula ba malkorikan xuka (X) gero etzazula izan lehengoan gomuta (ML-2017-BB-8tx-4).

Aipatutako motibazio linguistiko posibleez gain, beti hartu behar da kontuan bertsolariaren adierazkortasun baliabide eta molde estilistiko ere badela etenak (ez) gauzatzea.

486 Arzallusek gauzatutako puntu motzak bertsoaren osotasunean kokatuta, ikus daiteke puntu luzeetako hemistikioen neurri bertsoa dutela puntu motzek. Bertsolariak maila artikulatiora etenez bereizten ditu hemistikioak bertsoan zehar eta, hala, puntu motzak ere berdin tratatzen ditu musikalki, oreka erritmikoari eutsiz, nolabait (ikus §4 prosodiaren askotariko egitekoez).

Puntuaren eremua, beraz, bertsoa egituratzen duen osagai metriko nagusia da, bertsolariek muga linguistikoaz, hoskidetasunaz (errimaz) eta etenaz mugatu ohi dutena. Normalean doinuaren eredu erritmikoak ere mugatu ohi du (balio erritmiko luzeagoen bidez), salbuespenak badiren arren (puntu motzen kasuan, bereziki, gorago jaso bezala). Arrazoi linguistiko eta estilistikoak dira, ziurrenik, doinuen eredu erritmikoen ezaugarriekin eta horien aldakortasunarekin batera, bertsolaria puntuaren eremua gutxiago mugatzera daramatena.

Puntuaren eremua lausotu arren —etenik egin gabe eta eredu erritmikoak hots kateari jarraikortasuna ekarrita, besteak beste—, hitzen mugek ez dute inoiz puntuaren eremua hausten, aztertutako bertsoetan.

10.4.1.2. Hemistikioa

Puntu luzeen azpi-osagaia, ia puntua bezainbeste mugatu ohi da sarri taldekatze-arrastoei erreparatuz gero, motibo erritmikoak eta etenak mugatzen baitute sarri, muga linguistikoekin batera. Hego Euskal Herriko tradizioan bertso-lerro ere deiturikoa (ikus §6.6.1.1), bertsoak grafikoki irudikatzeko baliatzen den moduak berak ere uzten du agerian hemistikioaren mailako taldekatzea:

*Zorionean jarri gaituzte
kolpe batez gazte biak
hala ere gure pozak ez dira
munduan haundiegiak
aizak, laguna, beltz eta triste
zeudek gaur hire begiak
bide txarretik sartu haiz baina
barkatu beharko diat
hortako a(d)ina arrazoi hemen
badagola bazekiat⁴⁸⁷*

(XA-1982-AS-10H-1)

Xabier Amurizaren 1982ko bertsoaren idatzizko transkripzioak bere gauzatze prosodikoa ere irudikatzen du, hemistikioei —eta puntuei— dagokienean behintzat. Doinuaren eredu melodiko-erritmikoak jada mugatzen duenaz gain —eremu azkeneko silaba luzeago gauzatzen baitu—, etena gauzatzen du bertsolariak hemistikio bakoitzaren ondoren.

487 Bertsoa kantatzean gauzatutako xehetasun segmental eta silabikoetarako, jo §8 kapitulura.

10.4.1.2.1. Hemistikioaren eremua lausotzea

Adibidean aurkeztutakoa bezalako bertsoen gauzatze erregularrak asko dira, bertsolari guztiek egiten dituzte neurri handiago edo txikiagoan. Hemistikio mailako muga ahulago gauzatu edo eremu hori urtzen duten kasuak ere badira, ordea. Taldekatze arrastoen “lausotze” horiek ohikoagoak direla esan daiteke, puntuaren eremua lausotzea ez bezala —salbuespenak oso gutxi baitira aztertutako corpusean, aurreko atalean jasoak—. Aztertutako bertsoetan bi eragile orokor identifikatu ditut hemistikioaren eremua horrenbeste ez markatzeko: bata, doinuari —bertsolariak doinuaz duen bertsoari— lotua, egiturazkoa; eta bestea, adierazkortasunari eta bertsoa eraikitzeke —zein kanporatzeko— moduari lotua. Bereiz aurkeztu arren, bi alor horiek elkarri eragiten diete bertsolarien jardunean.

Jada hainbatetan zehaztu bezala, doinuaren paisaia erritmikoa zehazten duen motibo erritmikoa batzuetan hemistikioaren baitako taldekatzea islatzen du, molde handiko neurrietan, bereziki. Horietan datorren §10.4.1.2 atalean sakondu dut. Beste batzuetan, hemistikioaren neurrikoa izan ohi da motibo erritmikoa —molde txikiko neurrietan, maiz—. Aztertutako corpusean ondokoak dira, esaterako, horrelako doinuak —bertsolariak kantatzen dituzten eran hemistikioaren eremua mugatzen dutenak⁴⁸⁸: *Xarmangarria zera I*⁴⁸⁹ (XA-1980-GS-4oin, XA-1982-GS-4oin, SL-1986-AS-8tx, SL-1986-AS-ptk⁴⁹⁰), *Lagundurikan danoi I*⁴⁹¹, *Esne saltzailearena / Ai gure antzinako*⁴⁹² (XA-1980-AS-ES), *Lurralde dena dabil I*⁴⁹³ (XA-1980-BB-8tx), *Gaztalondo handian*⁴⁹⁴ —azken puntuan izan ezik— (XA-1982-GS-ge⁴⁹⁵), *Antton eta maria I*⁴⁹⁶ (*Batetikan korroska*, XA-

488 Hemistikioaren eremua mugatzen duten doinu gisa jaso ditut *Xarmangarria zera I* bezalako doinuak, motibo erritmiko amaieran luzeagoak diren bi musika nota dituztelako. Hala ere, jarraikortasuna ahalbidetzen duten ereduak dira aipatutako doinuarena bezalakoak, eredu erritmikoa hurrengo hemistikioa lehen notarekin kateatzeko aukera ematen baitu.

489 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/683-xarmangarria-zera-i> (azken kontsulta: 2012-10-31).

490 Lizasok doinu honen aldaera jakina darabil, jatorrizkotik dezente aldentzen dena.

491 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bertsoa.eus/doinuak/lagundurikan-danoi-i> (azken kontsulta: 2012-10-31).

492 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/951-ai-gure-antzinako> (azken kontsulta: 2012-10-31).

493 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/lurralde-dena-dabil-i> (azken kontsulta: 2012-10-31).

494 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/gaztalondo-handian-bidarraitarra-nuzu> (azken kontsulta: 2012-10-31).

495 Oso argi ikusten da Amurizaren bertsoan eredu erritmikoa eremua mugatzen duenean bertsolariak etena ere egiten duela talde proosdikoa are gehiago mugatuz, eta doinuak hemistikioaren eremua markatzen ez duenean, bertsolariak ez duela etenik egiten unitate metrikoa markatzeko.

496 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/960-antton-eta-maria-i-donostian-soldado-batetikan-korrozka> (azken kontsulta: 2012-10-31).

1982-AS-ha, XA-1982-AS-be-2), *Markesaren alaba I-B*⁴⁹⁷ (XA-1982-AS-8tx), *Hamalau heriotzena I*⁴⁹⁸ (SL-1986-GS-10tx), etab.

Doinu horietako bat da, esaterako, aurreko zerrendan aipatutako *Hamalau heriotzena I*. Lizasok kantatzen du 1986ko txapelketako finalean, goizeko saioko hamarreko txikiko ofizioan, Iñaki Muruarekin batera. Doinuaren motibo erritmikoa, bertsolariak gauzatzen duen gisan, hainbat musika-nota laburrez osatuta dago, hemistikioaren eta puntuaren eremuan azken nota luzeagoa delarik, egitura metrikoa markatuz. Lizasok etena gauzatzen du aldiro hemistikioaren eta puntuaren mugan, bertsoak aurrera egin ahala laburragoa, aurreko §10.4.1.1 atalean esan bezala.

76. irudia: SL-1986-GS-10tx-1

Gu - re e - txe - an de - zu zu - ka - te - a ju - a

ze - rra - rra - jo - tan za - biltz gaur gi - za - ra - ju - a

au ez - ta sa - soi - ko - ak oi - di - ran le - ku - a

sar - tu ta ar - tu za - zu ni(k) de - dan pues - tu - a

ber - so - a - ken - tzu - te - ra do - nos - ti - ra nu - a

Azkenik, hirugarren multzo batean koka daitezkeen bertso-doinuetan, eredu erritmikoak ez du mugarik markatzen hemistikioaren mailan, puntua izanik taldekatze arrasto erritmikoek mugatzen dutena⁴⁹⁹. Doinu horietan motiboaren taldekatze erritmikoa bestelakoa izan daiteke —*Aranora joan*

497 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/506-markesaren-alaba-i-b> (azken kontsulta: 2012-10-31).

498 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/hamalau-heriotzena-i> (azken kontsulta: 2012-10-31).

499 Aztertu beharrekoa litzateke, kasuan kasuan, doinuaren alderdi melodikoak zein taldekatze egiten dituen.

ziran eta *Mando baten gainean I* doinuetan, kasu (ikus aurrerago irudiak)— edo puntuaren erdialdeko eremuan pareko balio erritmikoa duten silabak gauzatzen dira, hemistikioaren muga adierazi gabe —*Betroiarena* doinuaren puntu batzuetan, esaterako (ikus gorago 75. irudian, azken puntuaren eredu erritmikoa)—. Ondokoak dira, esaterako, horrelako doinuak —aztertutako bertsolarien bertsioetan— landutako corpusean: *Aranora joan ziran I*⁵⁰⁰ (XA-1980-GS-pe-1, 2; XA-1980-AS-pe-1, 2; XA-1980-BB-pe-1, 2), *Betroiarena* (batzuetan;), *Mando baten gainean I*⁵⁰¹ (baina Amurizak batzuetan etenak gauzatu - XA-1982-BB-8tx), *Maritxu nora zoaz I*⁵⁰² (SL-1986-AS-ha⁵⁰³), etab.

Molde txikiko neurrikoak dira orain arte aipatutako doinuak, eta molde ertaineko neurriek —puntuaren eremua 8 + 7 silabaz osatua dutenek, besteak beste— ere batzuetan ez dute markatzen hemistikioaren eremua. Horren adibide da *Gai horrek badu mamia*⁵⁰⁴ doinua; ikus jarraian 77. irudian laugarren puntutik aurrera Amurizak gauzatutako eredu erritmikoa, puntuaren eremua soilik mugatuz erritmikoki (muga linguistikoek errespetatzen dute hemistikioaren unitate metrikoa). Doinuak estrukturalki eremua mugatu ez arren, bertsolariak sarri egiten dituzte etenak hemistikioa amaitzean, ondoko bertsoan ikus daitekeen bezala —lehen hiru puntuetan hemistikio mailako eremu azkeneko luzatzea eta etena egiten ditu Amurizak, unitate metriko hori mugatuz doinuaren motibo erritmiko nagusia eraldatuta—. Horrek hemistikioaren neurriko taldekatzea baldintzatzen duen beste alor batez aritzera narama: bertsoaren eraikuntza eta adierazkortasunera, hain zuzen.

500 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/aranora-joan-ziran-i> (azken kontsulta: 2012-10-31).

501 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1023-mando-baten-gainean-i> (azken kontsulta: 2012-10-31).

502 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/501-maritxu-nora-zoaz-i-maria-nora-zoaz> (azken kontsulta: 2012-10-31).

503 Nahiz eta Lizasok eten batzuk egiten dituen doinuaren eredu nagusia eraldatuta jasotako adibidean.

504 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1778-gai-horrek-badu-mamia> (azken kontsulta: 2012-10-31).

77. **irudia:** *Gai horrek badu mamia doinua, Xabier Amurizak kantatu bezala (XA-1980-AS-ge-3)*

O - gi - ja da fa - mi - li - jan gau - za mai - ta - ga - rri - ja

5 bai - na o - rrek be - ha - rra du az - pi - jan oi - na - rri - ja

9 i - di gi - sa da - ra - ma - gu bu - ru - an uz - ta rri - ja

13 as - ka - ta - su - na da o - gi e - ta gu - re neu - rri - ja

17 i - noiz gar - bi i - re - ki - tzen ba - dao - rren i - tu - rri - ja

21 be - ti - ko ber - de - tu - ko da se - ma - fo - ro go - rri - ja

25 be - ti - ko ber - de - tu - ko da se - ma - fo - ro go - rri - ja

§9 kapituluaren aztertu ditut bertsolarien aldaera erritmikoak: agerian geratzen da, askotariko arrazoiak direla medio, bertsolariak euren ekoizpena moldatzen dutela, talde prosodiko batzuk edo besteak nabarmentzeko: hitzak, hemistikioak edo puntuak, besteak beste. Hala, doinuak abiapuntu gisa hemistikioaren eremua mugatu ez arren, bertsolariak motibo erritmikoa molda dezake, eta etenak gauzatu, unitate metrikoa mugatzeko, goiko adibidean bezala. Aurkako norabidean ere gertatzen da: doinuaren motibo erritmikoak hemistikioaren eremua mugatu arren, sarri bertsolariak ez du unitate metriko hori horrenbeste nabarmentzen. Silabatzea adierazgarri suertatzen da batzuetan; izan ere, bertsolariak eredu erritmikoaz hemistikioa mugatu arren eta muga linguistikoak

ere talde horiekin bat etorriagatik, hots katearen silabatzeak gainditu egiten ditu gauzatze sintagmatikoan muga horiek:

[gu bioi jaten eman zigunak] [ez duela jan nahi]

gu.bi.oi.ja.te.ne.man.zi.gu.na.kez.tu.e.la.ja.nai (ML-2009-BB-6mtz-3, azken puntua)

Lujanbioren adibidean ikus daitekeenez, bertsolariak bertsoa planifikatzean kontuan hartu ditu muga metrikoak, hitzak talde metrikoen arabera antolatuz ([5 + 5] [6]: [gu bioi jaten / eman zigunak] [ez duela jan nahi]. Kontua da hots katea ahoskatzean, kantuaren jarraitutasunak ekarri duela hemistikioaren muga lausotu eta hitzen arteko *liaisona* egitea: *zi.gu.na.kez.tu.e.la*.

Adibide hori egokia izan daiteke adierazkortasunaz hitz egiteko. Aztertutako corpusean oso maiz lausotzen da hemistikioaren eremua bertsoaren azken puntuan —batzuetan bertsoan zehar ere bai, beste puntu batzuetan—. Horrek bertsoaren eraikuntzak haren kanporatzean duen eragin posibleaz aritzera narama. Kontuan hartu behar da normalean bukaera dela, oinekin (errimadun hitzekin) batera bertsolariak bat-batean aritzeko batez ere pentsatzen duena (ikus Egaña 2007, besteak beste), eta bertsoan zehar kantatutakoa borobiltzen duena, “azken kolpea” ematen duena⁵⁰⁵ etab. Hala, ulergarria izan daiteke bertsolariak azken puntuan kantatuko duena zehatz-mehatz gogoratzen duelako —aldeztatik pentsatu duelako—, edota bertsoaren amaierari “indarra” edo “bizitasuna” —edo nahi den kontzeptua— emateko, hemistikioaren neurriko etenik ez gauzatzea. Bertsoan zehar gauzatutako zenbait eten —edo egin gabeko eten— ulertzeko ere lagungarriak izan daitezke ideia horiek.

Edonola ere, ez da ahaztu behar, gorago aipatu gisa, etena, beste gauza askorekin batera, arnasteko, esango dena pentsatzeko zein efektu dramatiko lortzeko baliabidea dela (Fletcher 2010: 574), eta bertsoetan hiru arrazoi horiek oso posible direla, bertsolaria kantuan ari baita, bat-batean sortzen —hein batean— eta entzuleekin komunikatu nahian.

Bestalde, “koherentzia prosodikoa” (§10.2.4.2 eta §10.2.5.2) ere izan daiteke hemistikio mailako eten edo azken silabaren luzatze batzuk ez egiteko arrazoi posiblea, mugatzen duten eredu erritmikoak lausotuta, hizkuntzak hitz lauz lukeen taldekatze prosodikora hurbiltzeko ahaleaginean. Amets Arzallusek, kasu, ondoko adibidean aditz nagusia eta laguntzailea —*kilimatu zait*— elkarren ondoan kantatzen ditu, hemistikioaren muga tartean izan arren, etenik gabe eta silaben balio erritmikoa parekatuta (78. irudian laukizuzen berdez dago mugatuta aldaera erritmiko hori; urdinez eredu erritmiko nagusia):

505 Aurretik ere esan bezala, beharrezkoa litzateke bertsolariarekin sakoneko elkarrizketak egitea, bakoitzak bertsoa nola eraikitzen duen hobeto ulertzeko. Izan ere, badira bertsoaren amaierari horrenbesteko pisurik ematen ez dioten planteamenduak, azken puntuak garrantzia beti edukiko duen arren, ziur aski.

78. irudia: Hemistikio mailako taldekatzea lausotzea, hitzen arteko loturak gauzatzuz (AA-2013-AS-ptk-7)

Amets Arzallus (AA):

Ti - raez ta gaiz - ki ' ir - ten le - e - na - le - gi - ña

Beñat Gaztelumendi (BG):

bi - ga - rre - ne - ze - gin - go , al de - gu ber - di - ña

AA:

bai pix - kat ki - li - ma - tu zait bi - o - tzix - ki - ña

BG:

ai an - tze - ko - a - go - ak , c - to - rri ba - gi - ña

Edonola ere, bertsoetan sarri aurki daitezke hemistikioaren mailako egiturazko etenak banatutako osagai sintaktiko estuak: *airea ote / da gizonaren samina* (XA-1980-GS-ge-3), *nere autoa hartu / duzu zure esku* (XA-1980-GS-10tx), *bihotza ez da enbor bat / bezala bitan puskatzen* (AA-2013-AS-ge-1), etab. Koherentzia prosodikoa beti bilatzen da hitz mugei erreparatuta; hortik aurrera bertsolari bakoitzaren eta kasuan kasuko bertsoaren ezaugarrien esku geratzen da zein nagusituko: metrikaren (eta doinuaren) edo hizkuntzaren egiturak (hitz lauко lotura sintaktiko eta prosodikoak kantuan adieraztea edo ez).

Bertsolarien arteko aldakortasunari erreparatuz gero, §9.4.2.2 atalean jaso dudanez, Jon Lopategi (1989) eta Andoni Egaña (1993, 1997, 2001, 2005) dira etenen gauzatze erregularrena egiten duten bertsolariak, kasu gutxitan ahoskatzen baitute hemistikioaren eremua berau mugatzen duen etenik egin gabe. Aurkako muturrean, etenen gauzatze-ez gauzatzearekin gehien jokutzen duen bertsolaria Maialen Lujanbio (2009, 2017) da, hemistikioaren eremuaz gain puntuarena ere gaintuz hainbatetan, etenei dagokienez. Tartean kokatzen dira Xabier Amuriza (1980, 1982) eta Amets Arzallus (2013).

10.4.1.2.2. Hemistikioaren eremua gainditzea

Hemistikioaren eremua modu batera edo bestera lausotu arren —etenik egin gabe, eredu erritmikoa eraldatuta, hotsak birsilabatuta—, bertsolarien joera nagusia da muga linguistikoak muga metrikoarekin bat etorraraztea, planifikazio mailan behintzat. Hala ere, aztertutako corpusean badira hemistikioaren eremua gainditzen duten Amurizaren 1982ko bi adibide, bertsoaren gauzatzean doinuak, oinarri prosodiko gisa, izan dezakeen eragina uzten dutenak agerian. Biak bederatzi puntu motzeko neurrian jaso ditut, azken puntuan, eta biak ere doinuaren ezaugarrietatik uler daitezke: doinuaren eredu erritmikoak ez du hemistikioaren eremua mugatzen, modu jarraituan kantatzea ahalbidetzen du, eta oinarri prosodiko horri jarraiki, ez du bertsolariak muga linguistikoa metrikoarekin bat etorrarazten; bai, ordea, musikaren taldekatzearekin.

79. irudia: XA-1982-GS-ge-2, bertsoko azken puntua eta errepika

kan - ta - zak , e - ta , e - za - di - xil , i - ño - la

kan - ta - zak , e - tae - za - di , i - xil , i - ño - la

Bederatzi puntuko motzean, azken puntuaren hemistikioakako taldekatzea 7 + 5 da, egitura metrikoan (Amuriza [1981] 1997: 251; Garzia et al. 2001: 89). 79. irudian jasotako adibidean, ordea, azken puntua lehen aldiz kantatzean ez du taldekatze hori gauzaten Amurizak. Errepikan, ordea, metrikaren araberrako taldekatzera aldatzen du hitzen silabatzea:

kan.ta.zak. 'e.ta. 'e.za.di.xil. 'i.no.la // [kanta (e)zak eta] [ez hadi isil inola]
kan.ta.zak. 'e.tae.za.di. 'i.xil. 'i.no.la [kanta (e)zak eta ez hadi] [isil inola]

Errepikan taldekatze linguistikoa —hitzen silabatzea— aldatu izanak agertzen du bertsolariak berez taldekatze metrikoa betetzeko asmoa zuela, ziur aski.

1982ko txapelketan aurki daitekeen bigarren adibidea ondokoa da:

80. irudia: XA-1982-AS-ge-3, azken puntua.

zu - ek , ar za - zu - e ne - reaz - ken , ar - na - sa

zu - e - kar za - zu - e ne - reaz - ken , ar - na - sa

Kasu honetan, bi aldiz errepikatzen du *zu.ek.‘ar.za.zu.e.ne.reaz.ken.‘ar.na.sa* puntu barrenean metrikaren araberrako 7 + 5 taldekatzerik gauzatu gabe —*zu.ek.‘ar.za.zu.e.ne. / reaz.ken.‘ar.na.sa* litzateke—; hitz eta sintagmak dira hots katean segmentatuak silabatzearen bidez. Doinuaren eredu erritmikoari jarraiki, antzeko balioz gauzatzen ditu silaba guztiak, oina den *arnasa* hitzera heldu arte —azken hiru silabak balio erritmiko luzeagoz gauzatzen ditu—. Bertsoaren azken puntua honela dago transkribaturik BDB-Bertsolaritzaren Datu basean⁵⁰⁶:

zuek har zazue nere

azken arnasa.

Bertsolariaren ahozko gauzatzearen eta horren idatzizko irudikapenaren arteko aldea geratzen da agerian: hemistikioen araberrako transkripzioak ez du ahalbidetzen Amurizaren puntuaren araberrako ekoizpena —eta hemistikio mugan eginiko zangalatraua— islatzea. Era berean, bertsolariaren taldekatzea ulertzeko funtsezkoa da alor musikala —eredu erritmikoaren ezaugarriak, taldekatzea— kontuan hartzea; idatziz jasotako bertsoek sarri falta ohi dutena.

Bestalde, gogoratu behar da Amurizak parte hartutako txapelketetan (1980an eta 1982an) epai irizpideetan neurria “doinuaren arauera” betetzea eskatzen dela⁵⁰⁷ (Euskaltzaindia 1979b: 790); 1989ko txapelketatik aurrera hasten da hori aldatzen, silaba kopuru zehatza eta horien hemistikioakako taldekatzea adieraziz (ikus §10.4.1.5 aurrerago).

506 Informazio gehiagorako, ikus: <https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/l8b64> (azken kontsulta: 2013-11-01).

507 Beharrezko litzateke orduko neurriaren ulerkeraren berri sakonago izatea, garaiko bertsogintzari buruzko adituak, bertsolariak, bertsozaleak zein epaimahaian zeuden kideak elkarriketatuta, besteak beste.

10.4.1.3. Hemistikio barreneko taldekatzeak

§10.2.5 atalean aurkeztu dudanez, molde handiko neurrietan ohikoa da 10 silabako hemistikioa 5 + 5 silaba multzokatzea. Taldekatze hori bete beharra “doinuaren araberakoa” izan behar dela aipatzen da aztertutako hainbat iturritan, beste zenbaitek derrigorrezkotzat dutelarik (ikus §10.2.5 erreferentzietarako). Epai-irizpideetan —1980tik 2017ra— interpreta daitekeenez, doinuaren erritmo-ereduak markatzen badu bete beharrekoa da hemistikio barneko taldekatze hori.

Aztertutako corpusean, molde handiko bertso-doinu gehienek —bertsolariak kantatu gisan— markatzen dute 10 silabako hemistikioa bosnakako taldekatzea, motibo erritmikoaren bitartez. Ondokoak dira aztertutako corpusean molde handian abiapuntu gisa 5 + 5 taldekatzea bultzatzen duten doinu batzuk: *Aita izena kanta beharra*⁵⁰⁸ ((XA-1980-BB-ge, SL-1986-AS-10H), *Itsaso hori dago zatarra* (naufraigoarena)⁵⁰⁹ (XA-1982-BB-ge), *Lurraren pean sar nindaiteke*⁵¹⁰ (XA-1980-AS-ba, XA-1982-AS-ba, ML-2009-AS-ge, ML-2017-AS-ge), *Haize hegoak hurbiltzen ditu*⁵¹¹ (XA-1980-GS-8H, SL-1986-GS-ha), *Pello Josepe tabernan dela I-A*⁵¹² (SL-1986-GS-8H, SL-1986-AS-ba), SL-1986-AS-ge), *Maitasuna da bizi izateko*⁵¹³ (AE-1993-AS-ge-1), etab.

Adibidez, *Maitasuna da bizi izateko* da Egañak 1993an arratsaldeko saioan bakarka gaiari kantatzeko hautatutako doinua. Motibo erritmikoak taldekatzea markatzeaz gain, bertsolariak etenez ere mugatzen du osagaia. Pentsatzekoa da motibo erritmikoaren ezaugarriek etena egitea errazten dutela.

508 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1596-aita-izena-kanta-beharrak> (azken kontsulta: 2012-10-31).

509 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/2148-itsaso-hori-dago-zatarra-naufraigoarena> (azken kontsulta: 2012-10-31).

510 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1620-lurraren-pean-sar-nindaiteke> (azken kontsulta: 2012-10-31).

511 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1457-haize-hegoak-hurbiltzen-ditu-sujet-eder-bat-deklaratzan-dut-egun-berezi-bat-bazela-gaur> (azken kontsulta: 2012-10-31).

512 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1551-pello-josepe-tabernan-dela-i-a> (azken kontsulta: 2012-10-31).

513 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1642-maitasuna-da-bizi-izateko> (azken kontsulta: 2012-10-31).

81. irudia: *Maitasuna da bizi izateko* doinuak motibo erritmikoaz markatzen duen 5 + 5 taldekatzea, Egañak gauzatutako bertso baten hasieran (AE-1993-AS-ge-1).

So - bre-ro ba - tek kon - ta - tu zi - dan zer den, ez - pa - ta zo - rro - tza

o - ra - ñar - te - an e - der - ki jan - det in - gu - ru - ko la - rre mo - tza

Aztertutako corpusean bertsolarietako molde handian baliaitutako doinuen gehiengoak hemistikio barreneko taldekatzea mugatu arren, badira hainbat doinu ez dutenak hori horren modu argian bultzatzen, epai-irizpideek zein teoriagileek aurreratu bezala. *Kantore berri xarmant batzuek*⁵¹⁴ (XA-1982-GS-8H) edo *Iparragirre abila dela*⁵¹⁵ (puntu luzeetan) (SL-1986-GS-ge) dira aztertutako corpusean 5 + 5 taldekatzea horren modu argian markatzen ez duten doinu batzuk.

Horrelako doinua da, esaterako, *Kantore berri xarmant batzuek*, Amurizak 1982an baliatzen duena Jon Azpillagarekin batera, zortziko handiko ofizioan:

82. irudia: *Kantore berri xarmant batzuek* doinuaren hasiera, Amurizak kantatu bezala (XA-1982-GS-8H-1).

Pa - pe - rak, o - rain, al - da - tu be - ar au da ko - me - ri sor - gi - ña

ni - re la - gu - na gu - ri da - go - ta len - go, a - pai - za, zi - ki - ña

Doinuaren egituratze erritmikoa aztertuz gero, ikus daiteke motibo erritmikoa bost silabakoa dela berez, eta konpas bateko neurria duela. Horrek, eredu melodikoarekin batera, nolabait bost

514 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1496-kantore-berri-xarmant-batzuek-barber-gazte-bat> (azken kontsulta: 2012-10-31).

515 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/2146-iparragirre-abila-dela-gure-etxeko-neskatua> (azken kontsulta: 2012-10-31).

silabako taldea muga dezakeen arren, eremuko azken musika-notaren (silabaren) balio erritmikoa laburra izanik, ondoko motiboarekin lotuta gauzatzen du aldiro bertsolariak. Edonola ere, beti betetzen du linguistikoki 5 + 5 silabako taldekatzea, doinuak zehaztu gabe ere.

Horixe da, hain zuzen, corpusean aztertutako bertso guztietan jasotako joera: molde handiko bertsoetan, doinuak mugatu edo ez, hamar silabako hemistikioa bitan banatzen duen taldekatzea errespetatzen du hitz mugen bidez, eta batzuetan bertsolariak etenaz ere mugatzen dute talde hori.

5 + 5 taldekatzea linguistikoki betetzen ez duten bi adibide jaso ditut aztertutako corpusean, Sebastian Lizasok eginak: 1) *Iparragirre abila dela* doinuarekin kantuan ari dela (SL-1986-GS-ge-3), azken puntuan ez du hitz mugekin taldekatze hori gauzatzen: *baz.ka.ri.a.ba./ña.nai.a.go.det* ‘bazkaria baina nahiago dut’; 2) *Aita izena kanta beharra* doinuan kantuan ari dela (1986-AS-10H-3), *ta nere kan/tuan konpasean* ‘(e)ta nire kantua(re)n konpasean’.

83. irudia: SL-1986-GS-ge-3, azken puntua

83. irudian aurkeztutako adibidean, kontuan hartu behar da doinuaren erritmo ereduak ez duela 5 + 5 taldekatze metriko hori zehazten konpasak mugatu arren: lehen lau silabak biltzen ditu —laugarrena luzeago gauzatuz— eta gainerako seiak biltzen ditu hurrengo taldean. Lizasok doinuaren taldekatze horrekin bat datorren taldekatze linguistikoa egiten du, hitz amaierak balio erritmiko luzedun notekin lotuta.

84. irudia: SL-1986-AS-10H-3

0,216s | 0,803s | 0,882s

I - txa - ro - pe - na e - ka - rri di - zut as - mo - ri - kan ' o - ne - ne - an

9 0,469s | 0,714s

ta ne - re kan - tu - an kon - pa - se - an sa - ia - tu zai - te ' la - ne - an

17 0,244s | 0,445s | 0,493s

za - ti - tu - ri - kan da - go - ne - rri - a ja - rri e - za - zu ba - te - an

25 0,254s | 0,422s | 0,498s

ta li - bre ' e - gin o - rain da - go - na or lo - tu - ri - kan ka - te - an

33 0,24s | 0,321s | 0,484s

i - a kan - tu - an gel - di - tzen ze - ran ni ju - a - te - nai - ze - ne - an

41

ni ju - a - te - nai - ze - ne - an

84. irudian jasotako adibidean berez motibo erritmikoak 5 + 5 mugatzen du ekoizpena, balio erritmiko luzeagoen eta konpasaren mugen laguntzaz, baina motiboaren errepikapenez (etenik egin ezean) balio erritmiko luzeagoko hainbat musika nota pilatzen direnez (motibo erritmiko desberdinetakoak) bestela ere taldeka daitezke, Lizasok egin bezala (laukizuzen berdez marraztuta dago Lizasoren taldekatzea, eta urdinez, motibo erritmikoarena). Aipagarria gainerako puntuetan (eta lehenengo bi bertsoetan) motiboaren eremuko etena gauzatzen duela Lizasok (laburra bada ere), eta aipagai dugun salbuespenean ez, hizkuntzak eragindako tentsioari “koherentzia prosodikoz” erantzun nahian akaso (taldekatze linguistikoa bermatuz, gutxienez).

Salbuespen bakarrak dira 83. eta 84. irudietan jasotakoak, molde handiko gainerako bertso guztietan berak ere hemistikio barneko taldekatzea betetzen baitu hitzen mugekin.

§10.4.1.3 atalean jaso dut molde ertaineko neurrietan —puntua 8/7 silabatan antolatzen dutenetan— 8 silabako bertso-lerroaren 4 + 4 banaketa proposatzen dutela Lekuonak (1982: 150) edo Amurizak ([1981] 1997: 254-256). Corpusean aztertutako kasuetan, ordea, ez da 4 + 4 taldekatzea sistematikoki muga linguistikoein betetzen. Horren adibide da *Gai horrek badu mamia* doinuan kantatutako Amurizaren bertsoaldia (XA-1980-AS-ge). Esan behar da doinuak ere ez duela hemistikio barreneko multzokatze hori bultzatzen. Molde berdineko neurrietan ere —puntua 8/8 silabatan antolatzen denean— ez da hemistikioen baitan 4 + 4 silabako taldekatzea gauzatzen hitzekin, aztertutako bertsoetan. *Norbere mundu intimo doinua*⁵¹⁶ aipa daiteke, esaterako, Lujanbiok proposatua eta erabilia (corpusean, ML-2017-BB-ge); doinuak berak ere ez du taldekatze hori modu hertsian bultzatzen eredu erritmikoaren bitartez.

10.4.1.4. Hitz eta sintagmak

Talde metrikoak aipatuta, hizkuntza dela eta bertsolariek une puntualetan gauzatzen dituzten talde prosodikoak aipatu behar dira. Silabatze bereziak, egiturazkoak ez diren etenak egitea edo askotariko aldaera erritmikoak gauzatzea⁵¹⁷ izan daitezke unitate hauek identifikatzeko arrasto nagusiak, horietako bakar bat edo bat baino gehiago gerta daitekeelarik, aldi berean (ikus §8 eta §9 kapituluak).

Corpusean jasotako adibideak aztertuta, bi multzo nagusi bereizi ditut bertsoetan segmentatutako hitz eta sintagmen kausa posible gisa: 1) bertsoetako oinak (errimadun hitzak) bereiztea, eta 2) hitz lauz gauzatuko genituzkeen taldekatze prosodikoak bertsoetara ekartzea edo bertsoetako gauzatze erritmikoa hizkuntzarenera gerturatzea.

10.4.1.4.1. Oinak mugatzea

Oinek, errima daramaten hitzek, funtsezko garrantzia dute bertsoetan, silaba kopuruarekin eta horien taldekatzearekin batera. Bertsolariak, inprobisatzeko, amaiera pentsatzearekin batera pentsatzen ditu, printzipioz, bertsoa eraikitzean baliatuko dituen oinak. Estrukturalki garrantzia duten elementuak dira, beraz. Gainera, potoa, hitz bera erabiltzea errima gisa, esanahi berarekin, bertsoa osatzean eginiko akastzat hartzen da, eta kontuan hartu behar da aztertutakoak txapelketako bertsoak direla, epaimahai batek epaituak.

Hala, ez da harritzekoa bertsolariek maiz oinak mugatzea bertsoa kantatzean. Aipagarria da batzuetan hitz gramatikala mugatu beharrean sintagma osoa mugatzen dutela bertsolariek, osagaien

516 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/3217-norbere-mundu-intimo> (azken kontsulta: 2023-11-02).

517 Egiturazko etenik ez egitea, hitzen eremua trinkotzea, eremu jakineko silaben balio erritmikoa parekatzea zein hitzen mugak markatuz gauzatutako aldaera erritmikoak dira hizkuntzaren osagaien bat mugatzen dutenak.

arteko lotura sintaktiko-semanticopro-sodikoak kantuan ere gauzatuz (urdinez, oinak; beltzez azpimarratuta, eredu erritmiko nagusiarekin alderatuta luzatutako silabak): *e.tzau.de.‘lan.gi.le.fi.na* ‘ez zaude langile fina’ (XA-1982-GS-8H-1), *be.rri.ze.re.‘e.men.ga.goz* ‘berriz ere hemen gaude’ (JL-1989-GS-ha), *o.rain.i.kus.ten.‘a.ri.da* ‘orain ikusten ari da’ (AE-1993-AS-10H-1), *ez.du.da.nez.‘as.ko.mai.te* ‘ez dudanez asko maite’ (AE-1997-AS-ge-2), *gau.za.o.nik.‘e.zin.so.ma* ‘gauza onik ezin suma’ (AE-2001-AS-ge-1), *e.gin.lei.ke.‘zen.bait.mar.mar* ‘egin liteke zenbait marmar’ (AE-2005-BB-10H-1), *lu.rro.ri.du.gu.re.i.tzak* ‘lur hori du gure hitzak’ (AA-2013-GS-ha), *i.zer.di.e.ta.‘ur.tra.go* ‘izerdi eta ur trago’ (ML-2017-GS-8H-1), etab⁵¹⁸.

Amurizak (1980, 1982) silabatze bereiziz eta eten laburrez bereizten ditu normalean hitzok. Aldaera erritmikoak ere badarabiltza kasu bakanetan: *ta.zer.ga.tik.‘gal.de* edo *kri.mi.na.len.pa.re* (XA-1980-AS-ES-1), *nik.da.ki.dan.bi.jo.tze.an* ‘nik dakidan bihotzean’ (XA-1980-AS-ba), *e.sa.na.da.‘da.na* ‘esana da dena’ (XA-1982-AS-ge-1), *or.tx.e.di.tut.‘pa.sa* ‘hortxe ditut pasa’ (XA-1982-AS-ge-3), etab.

Sebastian Lizasok (1986) silabatze bereiziaz eta etenaz —maila artikulatorioan gehienetan, eten luzeagoz, batzuetan— mugatzen ditu oinak, kasu jakinetan. Ez da oso gertakari orokortua bertsolari honengan, aztertutako bertsoetan: *ez.lei.ke.e.gin.‘au.rre.ra* (SL-1986-AS-10H-2), *neu.kan.ge.ro.ko.‘la.ga.ta* (SL-1986-AS-ge-3), etab. Jon Lopategik (1989) ere modu berean mugatzen ditu oinak maiz: *esperantzaren.‘iz.pi.ja* ‘esperantzaren izpia’ (JL-1989-GS-ge-2), *ez.du.zu.‘a.zal.du* ‘ez duzu azaldu’ (SL-1989-AS-8tx-4), etab. Andoni Egañak, 1993an, ere bai: *las.ter.je.su.sen.‘jai.o.tza* ‘laster Jesusen jaiotza’ (AE-1993-GS-6mtz-2), *tes.ta.men.tu.an.‘o.a.rra* ‘testamentuan oharra’ (AE-1993-GS-ge-1), etab.

Bertsolari berak 1997an, 2001ean eta 2005ean eredu erritmikoen aldaerak ere baliatzen ditu, eten soilez banatutako adibideekin batera, oinak mugatzeko hainbatetan (azpimarratuta luzatutako silaba; urdinez, oina): *joan.be.ar.dut.zu.ze.ne.an* ‘joan behar dut zuzenean’ (AE-1997-GS-ge3), *xe.le.bre.a.da.‘da.na* ‘xelebrea da dena’ (AE-1997-AS-ha), *zer.naiz.ni.ti.po.tx.e.pe.la* ‘zer naiz ni, tipo txepela’ (AE-2001-GS-ha), *ar.bo.la.ti.kan.‘jeix.ti.a* ‘arbolatik jaistea’ (AE-2001-GS-6mtz-3), *ma.ji.ña.bat.ne.ke* ‘makina bat neke’ (AE-2005-GS-10tx-2), etab.

Maialen Lujanbiok ere 2009an eta 2017an silabatzea, etenak eta aldaera erritmikoak darabiltza noizean behin oinak mugatzeko⁵¹⁹: *ain.bes.te.se.kre.tuz.‘i.a* ‘hainbeste sekretuz ia’ (ML-

518 Hitza beharrean batzuetan sintagma mugatzeak hainbat azalpen posible izan ditzake: horietako bat da koherentzia prosodikoarena, hitz lauz ere talde prosodiko berean ahoskatuko lirakeen osagaiak bertsoetan ere talde berean kanporatzea. Bigarrena, oreka erritmikoarena litzateke: §4.4 atalean azaldu bezala, batzuetan talde prosodikoak sortzen dira osagaien arteko oreka ahalik eta handiena bilatuz. Horrela, hitz bakar bat baino orekatuago geratuko da taldekatzeari dagokionez sintagma osoa batera multzokatzea. Halere, adibide askoz gehiago daude hitza bakarrik mugatuz, silaba batetik hasita. Beraz, oreka erritmikoaren bilaketak ez dirudi pisuzko faktorea oinari lotutako taldekatzeetan.

519 Lujanbiok oinak mugatzen dituen kasu asko hitz lauz gauzatzen diren taldekatze moldeen bidez ere uler daitezke.

2009-GS-8H-2), *ta.no.la.ez.kon.pre.ni.tu* ‘eta nola ez konprenitu’ (ML-2009-AS-ge-3), *ez.da.o.ri.zu.en.pe.na* ‘ez da hori zuen pena’ (ML-2017-GS-ge-1), *fa.mi.li.a.ke.re.mu.ziñ* ‘famiak ere muzin’ (ML-2017-GS-ge-3), *trans.mi.si.o.a.ren.tren.tzak* ‘transmisioaren trentzak’ (ML-2017-AS-ba), etab. Amets Arzallusek ere, 2013an, silabatzea, etenak eta aldaera erritmikoak darabiltza noizean behin oinak mugatzeko: *a.ra.zuk.e.pai.tu* ‘hara, zuk epaitu’ (AA-2013-AS-10tx-1), *go.za.me.na.e.der.ga.rri* ‘gozamina edergarri’ (AA-2013-BB-6mtz-3), etab.

10.4.1.4.2. Hizkuntzaren segmentatzea bertsoetan: hitz lauko baliabide prosodiko zenbait

§9 kapituluaren ondorioztatu dudanez, bertsolariek kantuan gauzatutako aldaera erritmikoak ez dira, seguru asko, hizkuntzaren ezaugarriak testu-uztartzean islatzeko derrigor gauzatu beharrekoak. Edonola ere, bat-bateko bertsoetan sortzaile eta entzuleen arteko etengabeko harremana dago eta komunikazioa funtsezkoa da, elkar ulertzea. Horregatik, aldaerak derrigorrezko ez izan arren, bertsolariek hots katearen segmentatzean lagungarri diren aldaerak gauzatzen dituzte, batetik, eta horri lotuta, batzuetan hitz lauz taldekatze prosodikoak —eta, zabalago, prosodiak— betetzen dituen askotariko egitekoetako batzuk islatzen dituzte nolabait kantuan ere, gorago aipatutako “koherentzia prosodikoaren” bilaketan maiz, hizkuntzaren taldekatzeak lehenetsiz metrika eta musikarenaren aurretik, edo horiekin batera —horiek mugatutako eremuan baita hizkuntzari lotutako taldekatzeak ere gauzatuta— (ikus §10.2.4.2).

Aztertutako corpusean askotariko adibideak jaso ditut, II. Eranskinean daudenak zerrendaturik, eredu erritmikoen aldaerei eta egiturazko ez diren etenei lotuak baitira (ia) denak ere. Kasu horietako bakoitza bertsoan, bertsoaldian, saioan, etab. kokatuta aztertu eta ulertu beharko litzateke, behar bezala ulertzekotan (Lujanbioren 2017ko adibide batzuen azterketa proposamenerako, ikus Aizpurua 2019b). Jarraian adibide jakin batzuen azterketa egin dut, lehen hurbilpen gisa, eragile zehatz posible batzuk proposatuz bertsolariek gauzatutako taldekatze bakoitzarentzat⁵²⁰.

Aldaera batzuek hitz lauz akaso hizkuntzak gauzatuko lukeen taldekatzea imitatzen dute, edo hitzen mugak adierazita, kantuan ekoiztutako hots katea segmentatu eta interpretatzeko laguntza eskaintzen dute. Lujanbioren 2009ko ondoko adibidean bezala:

520 Horrek ez du esan nahi, noski, hemen aipatu gabeko bestelako kausarik ez dagoenik ez aztertutako corpusean ez, zabalago, bertsoen antolakuntza erritmikoan. §4 atalean jasotako prosodiaren askotariko egitekoak eta prosodia baldintzatzen duten faktoreetako asko aztergai dira oraindik, eta lan honetan aipatutako eragileetan sakontzeko beharra dago.

Jarraian aurkeztutako adibideak Egaña, Lujanbio eta Arzallusenak dira, bertsolari horiek baitira aldaera erritmikoak eta egiturazko etenak hitz lauko egituretara hurbiltzeko gehiago baliatu dituztenak. Amuriza, Lizaso eta Lopategik ere adibideak badituzten arren, aldaeren eremua txikiagoa da, eragin-esparru mugatuagoa dute hizkuntzarekiko loturan, hori bera tipologikoki esanguratsua izanik, eta bertsolari eta bertsogintza kanonen ikuspegitik ere landu beharrekoa (ikus §9).

85. irudia: ML-2009-GS-6mtz-2⁵²¹

Ne - re za - ti zu - re par - te sen - ti - be-ra - go zi - ña - ke

o - rain gu bi - ok ba - de - gu zer - bait be - ti - ra - ko ka - te

len bi ta 'uts bi - on kal - te o - rain bat ta bat en - pa - te

mun - du - a e - re lo - gi - ka on - tan , o - be li - jo - a - ke

mun - du - a e - re lo - gi - ka on - tan , o - be li - jo - a - ke

Elipsiz beteriko perpausak dira 85. irudian berdez nabarmendutako pasartean ahoskatutakoak: *le(he)n bi (e)ta huts, bion kalte. Orain, bat eta bat: enpate* (ML-2009-GS-6mtz-2). Zenbakizko emaitzak argi ulertu eta lehengo egoera oraingoarekin alderatzen ari dela argiago adierazteko, ia hizkako segmentatzea gauzatzen du bertsolariak, eredu erritmikoaren aldaerak eta etenak baliatuta⁵²²; hori agerian geratzen da hizpide dugun pasartea bertsoaren gainerako puntuen gauzatze erritmikoarekin alderatuta.

Beste adibide bat litzateke zerrendatzearena. Hitz lauz maiz osagaien taldekatze bereziz ezaugarritzen da (ikus §4.2) eta bertsoetan ere halaxe gauzatzen dute bertsolari batzuek, batzuetan, zerrendako osagaiak eredu erritmikoen aldaerez edo etenez segmentatuz. Ikus, esaterako, nola gauzatzen dituen Lujanbiok 2009ko azken agurrean *legez, juizioz, trabaz* zerrendako hitzak,

521 Honakoa izan zen Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiori bertsotarako emaniko gaia: “Andoni, giltzurrun bat behar zenuela eta, Maialenek eskaini zizun berea. Gaur izan da ebakuntza, eta elkarren ondoan esnatu zarete”.

522 Aldaera erritmikorik eta bestelako etenik egin gabe ere ulertuko zen, ziurrenik, bertsolariak esan nahi zuena, baina hitzen araberrako aldaera erritmikoez segmentatzea errazten dute, “hitzen neurrira eginiko” eredu prosodiko bilakatuz doinuak eskainitako abiapuntua.

erritmikoki mugatuta (86. irudian berdez adierazita), eta alderatu hurrengo puntuko erritmo ereduarekin (abiapuntukoa litzatekeenarekin; urdinez irudian):

86. irudia: ML-2009-AS-ba

0,892s 1,187s

gu - re bi - de - a ez da e - rre - xa be - te le - gez jui - zioz tra - baz

0,644s 1,235s

eus - ka - le - rri - ko lau er - tze - ta - ra i - tzu - li - ko ga - ra ga - baz

Lujanbiok zerrendako osagaiak, hitzak, segmentatu egiten ditu hitzen azken silaba luzatuta eta lehena laburtuz (azpimarratuta luzatutako silabak): *be.te.le.gez.jui.zioz.tra.baz* ‘bete legez, juizioz, trabaz’ (ML-2009-AS-ba). Bestalde, aipagarria da doinuak abiapuntu gisa eskaintzen duen egituratze erritmikora hitzen mugak egokituz ere efektu erritmiko bera lortzen dela batzuetan, etenen laguntzaz, Egañaren ondoko adibidean bezala, agerian utziz doinuak oinarri erritmiko gisa duen garrantzia⁵²³:

523 Beste hainbaten artean, aipagarria da Lujanbioren ondoko zerrendatze adibidea ere, doinuaren motibo erritmikoak markatutako taldeak baliatuz, etenekin mugak nabarmenduta: *ba.ñae.men.na.tor. “a.la.bar.di.beltz. “mes.pre.tx.a.tu.a. “e.rre.na* ‘baina hemen nator, alaba ardi beltz, mespretxatua, herrena’ (ML-2017-GS-ge-1)

87. irudia: AE-2005-GS-10tx-1

I - xi - pu ' e - rro - sa - io ta me - za , li - bu - ru
o - rre - la za - le as - ko gal - du - ak di - tu - gu
ez - kon - tze - a - ren ' al - de na - go ni se - gu - ru
es - ku - bi - de be - ar du ga - ñe - ra el - bu - ru
17 gi - zar - te - a - re - kin bat e - gi - nai ba - du - gu
22 gi - zar - te - a - re - kin bat e - gi - nai ba - du - gu

Egañaren adibide horretan, zerrendatzearen araberako taldekatzearekin batera —lehen puntuan— oreka edo gutxi gorabeherako “simetria” erritmikoaren eragina ere aipatu daiteke (Gee eta Grosjean 1983; ikus §4.4), bertsoan zehar eten labur edo luzeagoz zein motibo erritmikoak mugatuta banatutako talde ia guztiek 3-4 silaba baitituzte. Aipatzekoa da puntuetako bigarren hemistikioetan eredu erritmikoak duen eragina, beharrezko ez den arren Egañak hitzen mugak taldekatze erritmikoarekin bat etorrarazten baititu, kasu batzuetan etenak ere gauzatu.

Bertsoan maila diskurtsiboan kantatutako ahots aldaketak ere —beste norbaitek esanak zuzenean ekarriz kantura— taldekatze bitartez bereizten dituzte bertsolariek batzuetan. Lujanbio da, aztertutako corpusean, taldekatzea —eredu erritmikoak moldatuta edo, nagusiki, etenak erabiliz— ahotsak bereizteko baliabide gisa gehien darabilen bertsolaria: *esaten zigun*: “Bazkaritan ez? Ba meriendatan bai!” (ML-2009-BB-6mtz-3), *esan diot*: “Txikitxo, hara, miraria” (ML-2009-BB-8tx-2), “Ezinezko da”, *saltzen digute* (ML-2017-BB-8H-2), etab. Ikus jarraian (88. irudian) aipatutako azken adibidearen irudikapen linguistiko eta musikala bertso osoaren testuinguruan:

88. irudia: ML-2017-BB-8H-2

Voice

Ba - ña ba - rru - an e - re guz - ti - ak ez - ti - ra gu - re i - tze - ko

5
jen - de - a du - gu e - men ko - lo - re ta i - ri - tzi a - ni - tze - ko

10
e - zi - nez - ko da sal - tzen di - gu - te guk e - zer ez u - ki - tze - ko

15
la - bo - ra - ri - ak gaj i - zan ga - ra bi go - ber - nu mu - gi - tze - ko

Aipagarria da etena motiboaren eremua mugatuz gauzatzen duela bertsolariak eta “egiturazkotzat” har genezakeela, baina azpimarratu behar da bertsoaldi osoan, doinu berarekin, ez duela dimentsio berbereko etenik gauzatzen. Ahots aldaketa gertatzen den kasuan soilik gauzatzen du (“*Ezinezko da*”, *saltzen digute*) eta esanguratsua da, beraz, bertsolariak kasu horretan egindako taldekatze edo banaketa.

Kantuan, nagusiki taldekatze bidez —baina baita beste baliabide prosodiko batzuen bitartez ere—, isla daitekeen beste gertakari linguistiko bat fokuarena da, corpus azterketak agerian utzi duenez. Sortzaileek kantuan ari direla hitzen bat nabarmentzen dute —etenaz edo eredu erritmikoa eraldatuta bereiz taldekatuz, intentsitate aldaketa baliatuz, etab.—, fokalizatu edo nabarmentzeko, kantuan duen esanguragatik (azpimarratuta nolabait nabarmendutako hitzak): *orduan ‘gaitzat, hartzen genitun, ta orain ‘eurak ‘gai dira* (AE-1997-GS-ha), *baina oraindik kapaz naiz “ejem” egiteko* (AE-2005-BB-8tx-1), *ez da urte berria, oraindik da ‘aurten* (ML-2009-AS-10tx-2), *erkin. ‘e.ta.ja.rrai ‘erkin eta jarrai* (ML-2017-AS-ha), *argazki baten flash ‘hutsa, zorrotza da, ez ‘amutsa* (AA-2013-GS-6mtz-1), *herria trinko ‘egin nahiz, trinko diot, ez artalde* (ML-2017-GS-ha), etab.

Paralelismoak kantuan adierazteko modua ere esanguratsua da batzuetan, simetria erritmikoa edo lotura prosodikoa bilatzen baitute bertsolariek. Aipagarria da, hasteko, doinuak berak

eskaintzen duen taldekatzeaz baliatzen direla batzuetan horretarako, oinarri prosodikoak hizkuntza baldintzatu eta egituratzeko duen gaitasuna agerian utziz:

89. irudia: ML-2009-BB-ge-2



Irudian ikus daitekeenez, motibo erritmiko berarekin daude gauzatuta paralelo diren osagaiak, simetria erritmikoa (ere) lortuz: *kondena 'hark / zenbat gezur / zenbat tranpa / zenbat truko* (ML-2009-BB-ge-2). Beste batzuetan, berriz, oinarri prosodikoak hori eskaintzen ez duenean, oinarria bera eraldatzen dute bertsolariek aldaera erritmiko edota etenen bidez —edo biak baliatuta—, antolakuntza edo efektu bera —antzekoa— sortuz. Lujanbioren ondoko adibidean, esaterako, aipagarria da oinak (errimadun hitzak) mugatzeko bertsolariak gauzatutako aldera erritmikoak eta etenak, kasuan kasuan:

90. irudia: ML-2009-AS-ge-1 (azken puntuaren errepika gabe)

1,196s 0,35s 2,026s
Za - bal za - ba - lik ge - ra - tzen zaiz - kit ne - re be - gi ne - re ; a - o

1,535s 1,749s
os - pi - ta - lon - tan sar - tu zi - ra - la den - bo - ra juan da lu - za - ro

1,116s 0,308s 1,141s
a - buz - tu , i - rai - lle - ta , u - rri - a bi - ur - tu za - ie a - za - ro

1,195s 0,675s 1,538s
ta zai - zai dau - de noi - zir - ten - goe - do noi - za - gin - du - ko a - ka - bo

1,078s 0,591s 1,291s
ei - ka - rri no - la dei - tzen di - o - ten bu - ru - soil - txo e - ta kal - bo

X 1,407s
min - bi - zi du - ten bi u - me - e - ri be - gi - ra be - gi - ra na - go

X
cu - ren - gan mi - ñak ba - du in - da - rra ba - ña bi - zi - tzak ge - ja - go

Paralelismoa gauzatzeko beste modu prosodiko bat paralelo diren osagaiak talde berean gauzatzea da, Lujanbiok (ML-2017-BB-8tx-4) egin bezala, puntuaren eremuan etenik egin gabe —aldaera erritmikoak mugatzen du puntuaren eremua, baina bi puntuak elkarrengandik gertuago gauzatuta nabarmenago adierazten da paralelismoa—: *gero etzazula ba malkorikan xuka, gero etzazula izan lehengoa(re)n gomuta*.

Bertsolarien jarduna hitz laura hurbiltzen duen beste gertakari bat silaben balio erritmikoa parekatzea da, maiz musikaren pulsu periodikotik aldentuta gauzatzen dena, hitz lauко erritmoereduetatik gertuago. §9 atalean aztertu bezala, batzuetan hitzak trinkotzeko egitekoa du parekatze horrek, hots katearen segmentatzean hitza bezalako osagaiak trinkotuz, baina beste batzuetan, kontrastearen eta hitz lauко gertutasunaren bidez, adierazkortasun baliabidetzat darabilte bertsolariek, azken puntuaren bueltako pasarteetan, bereziki. Arzallusen ondoko honetan, esaterako,

azken bi puntuen hasieretan azter daiteke gertakari hori bertsoan nagusi den eredu erritmikoarekin kontrastean (urdinez eredu nagusia eta berdez parekatutako silaben pasarteak):

91. irudia: AA-2013-GS-8tx-3

Gla - mur pix - ka - te - ma - nez piz - tu bi kan - de - la

ja - ki - zu o - ke - rre - na ba - ña ze - ra de - la

e - txe - ra - ko ' ain nu - en ' aur - pe - gi zi - me - la

ba - te pos - tre - ri(k) ga - be gel - di - tu gi - ñe - la

ba - te pos - tre - ri(k) ga - be gel - di - tu gi - ñe - la

Azken aurreko puntuan balioak parekatu egiten dira, eten laburren bitartez hitzak segmentatuz: *etxerako* ‘*hain nuen* ‘*aurpegi zimela*. Eta azken puntuan, bukaerako ideiak dakarrena lehen aldiz kantatzean adierazkortasun handiagoz kantatuz hitz lauko lastertasun eta moldeetatik gertuago, puntuan zeharreko hemistikio osoko eta bigarren hemistikio zenbait silabaren balio erritmikoa parekatzen du Arzallusek: *bate(re) postrerik gabe gelditu ginela* (AA-2013-GS-8tx-3)⁵²⁴.

Asko dira, ikus daitekeenez, kantuan isla daitezkeen hizkuntzazko gertakariak, sortzaile eta adierazpen adina, kasik. Atal honetan lagin bat jaso dudan arren, aurretik ere esan bezala, beharrezkoa da bertsoaldiak osorik hartu eta kasu azterketa sakonagoak gauzatzea, aldaeretako bakoitza testuinguruan —bertsotik hasi eta bertsoaldi, saio, bertsolari, garairaino— nola kokatzen den ulertuz. Lan horretarako helduleku funtsezko iruditzen zaizkit hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren arteko harremana (ikus §5), prosodiaren askotariko egitekoak eta hitz lauko zein kantuko horien gauzatzeak (ikus §4) eta garaian garaiko bertsolari zein bertsogintza kanonak eta horiei

524 §9 atalean ere aipatu bezala, silaben balio erritmikoaren parekatzeari buruzko lanketa sakonagorako, ikus Aizpurua 2019a.

loturiko epai-irizpideak (ikus §6 eta §7) zein bertsolari bakoitzaren proposamen artistikoak, besteak beste.


10.4.1.5. Silaba (eta doinuaren arteko harremanak)

Hitz eta sintagmek, hizkuntzak, oro har, bertsoetako taldekatzean —eta horri loturiko erritmo-ereduetan— izan dezakeen eragina azpimarratu ondoren, bertsoen antolakuntzan funtsezko den azken osagaiari heldu diot berriro atal honetan: silabari, hain zuzen. §8 kapituluan aztertu ditut bertsolarien silabatze-aukerak, silaba-egitura baldintzatzen duten bilakabide segmentalak zein eskakizun metrikoak —silaba kopurua eta taldekatzea— betetzeko bertsolariek baliatutako estrategia foniko nagusiak. Jarraian aztertutako corpusean silabak doinuarekin duen harremanetan sakondu dut, identifikatutako zenbait irregulartasunen harira.

Eredu erritmikoen aldakortasunari buruzko §9 kapituluan aldaera bat identifikatu dut, ondorio gisa silaba bat gehiago kantatzea dakarrena, molde metrikoan zehaztutako silaba kopurua hautsiz: molde txikiko puntuaren eremuan 7/6 silaba gauzatu ordez 8/6 eginez (ikus §9.4.2.7). Atal hartan esan bezala, gehiketa doinuaren konpasaren barrenean gauzatzen da, musika nota luze(ago) baten ordez bi labur(rago) gauzatuta eta, horrela, bertsolariak silaba bat gehiago ahoskatzen du “modu erritmikoan”, oharmenarentzat onargarri izanda, aurretik ere bertsoak zuen konpas (pultsu) kopuru bera mantentzen baita. Berriro ekarri dut 57. irudia:


57. irudia: *Aranora joan ziran I* doinua erabilita Amurizak 1980ko puntu erantzunetan gauzatutako aldaera erritmiko nagusiak.

Eredu erritmiko orokorraz gauzatutako pasartea:



e. zo.te. du.zu.la.gun ‘ez ote duzu, lagun’ (XA-1980-GS-pe-2)

Musika nota eta silaba bat gehiagorekin:



ba.ten.bat.i. zan.go.da.la ‘baten bat izango dela’ (XA-1980-BB-pe-1)

Nabarmentzekoa da jasotako adibide guztiak molde txikiko neurrian gauzatzen dituztela Amurizak eta Lizasok —puntu erantzunetan, zortziko txikiko ofizioan, hasierako agurrean—, eta hiru doinu zehatz erabiltzean: goiko adibidean aurkeztutako *Aranora joan ziran I* (XA-1980-BB-pe-1, 2; XA-1982-BB-pe-2), *Mando baten gainean I*⁵²⁵ (XA-1982-BB-8tx-2) eta *Maritxu nora zoaz I* (SL-1986-AS-ha). Hirurak ere konpas hirutarrean oinarritutako doinuak, silaba gehigarria beti *beat*-aren kokapen ahulean gehitzen da, goiko 57. irudian irudikatu bezala, kortxea baten balio erritmikoz, lan honetan egindako transkribapenetan (nabarmenduta, aldaeraren bitartez gehitutako silaba): *ar.tze.nau.be.ro.ta.su.nak* ‘hartzen nau berotasunak’ (XA-1980-BB-pe-2), *au.‘u.tsa.ga.tik.bu.rru.ka* ‘hau hutsagatik borroka’ (XA-1982-BB-8tx-2), *be.tor.‘eus.kal.te.le.bis.ta* (XA-1982-BB-8tx-2), *gu.re.o.llar.be.rri.tsu.a* ‘gure oilar berritsua’ (XA-1982-BB-pe-2), *a.rra.tsal.de.on.be.rri.ro* (SL-1986-AS-ha), *gu.txi.ñe.ze.gin.go.al.da* ‘gutxienez egingo al da’ (SL-1986-AS-ha).

Bada, aldaera erritmiko bidez gehitutako silabekin batera, aztertutako corpusean beste modu batean ere “gehitzen” zaio silaba bat molde metrikoak zehaztutakoari, kasu bakarrean: melismadun doinuak baliatuta, hain zuzen. Gorago azaldu dudanez, melisma silaba bakarraz musika nota bat baino gehiago kantatzea da. Ondoko adibidean (92. irudian), esaterako, horiz nabarmendutako silabetan ikusten da kantu melismatikoa:

92. irudia: XA-1980-AS-8tx-1

The image shows a musical score in G major, 3/4 time, with lyrics in Basque. The melody is written on a single staff. The lyrics are: "Ttun - ttu - na ren ___ o - tsa ___ da al - bo - tik ' en - tzu na ___ me - re - zi ja ___ du be - raz gu - re ' e - ran - tzu - na len - di - ke re ___ ba - ge - nun o - rren ' o - jar - tzu na ___ ki - ta - rra be - ze - la da gu bi - on zen - tzu - na". There are four yellow circles highlighting melismas on the words "ren", "ja", "re", and "na". Above the staff, there are four vertical lines indicating the duration of these melismas: 0,731s, 0,517s, 0,5s, and 0,475s. The first melisma is on the word "ren", the second on "ja", the third on "re", and the fourth on "na".

525 Doinuari buruzko informazio gehiagorako: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1023-mando-baten-gainean-i> (azken kontsulta: 2023-10-31).

Euskal kantagintza nagusiki silabikoa dela nabarmendu izan da, musika-nota bakoitzeko silaba bat kantatzen dela zehaztuz (Arana-Martija 1980: 89; Amuriza [1981] 1997: 258; Dorronsoro 1995; Katz 2005: 329; DeCastro-Arrazola 2015; ikus §10.2.5.1). Aztertutako corpusean ere joera hori berrets dezaket, melisma txikiak egitea eskatzen duten doinuak badiren arren, bertsolari batzuen doinu-bertsioetan⁵²⁶ (92. irudian aurkeztutako doinua, esaterako). Bertsolaritik bertsolarira ere aldatzen da melismen gauzatzea.

92. irudian jasotako doinua erabiltzen ari dela gehitzen du Amurizak (1980) silaba bat gehiago zortziko txikian. Berez melisma litzatekeen kasu horietako batean, silaba bakarra bi musika-notarekin kantatu beharrean, bi silaba kantatzen ditu bi nota horietan. Alderatu silaba gehigarri-dun ondoko adibidea (hori ilunez borobilduta) melismadun “jatorrizko gauzatzearekin” (hori argiz adierazita):

93. irudia: XA-1980-AS-8tx-3

Ba - po bi - zi - tze , o - rrek ba - du , a - rris - ku - a

a - la e - re gu - re mar - txa ez - ta , ain gaiz - tu - a

zu ttun - ttu - na ba - za - ra e - ta ni txis - tu - a

las - ter ja - rri - ko du - gu Eus - ka - di biz - tu - a

526 Aipagarria da, 92. irudiko adibidea hori erakusteko egokiena ez den arren, melismarik gehienak eremu metrikomusikalen amaiera aldera gauzatzen direla, azken silaba edo azken aurrekoa gauzatuz musika-nota batekin baino gehiagorekin. Kasu askotan melismak ere taldekatze-arrasto gisa funtzionatzen duela pentsa daiteke.

Silaba bat gehiago kantatzen du Amurizak, jatorriz doinuak duen melisma baliatuz, doinuaren konpasaren baitan, oharmenarentzat nabarmen egin gabe⁵²⁷: *a.la.e.re.gu.re.mar.txa* ‘hala ere gure martxa’ (XA-1980-AS-8tx-3). Amurizak ([1981] 1997: 258) berak azaltzen duenez,

Nota musikal bakoitzari silaba bat egokitzea arau orokorra da, zeinak ez duen esan nahi salbuespenik ez dagoenik. Badaude doinuak tarteka silaba bakarrez bi nota musikal hartzen dituztenak. *Urzo xuria* honela hasten da:

Urzo xuria errazu
norat joaiten zira zu.

Kantaerarik gehienetan bigarren lerroko norat horren lehen silabak bi nota hartzen ditu, **no-o-rat** eginez. Nota arrastatua bezala. Pasoko nota hori kendurik ere, doinuak ez luke ezer galduko, baina apaingarri bat da. Doinuak horrelako aukera ematen duenean, silaba baten gorabehera disimulatzea errezago da, baina bertso doinurik gehienek ez dute horretarako erarik ematen.

Amurizak ([1981] 1997: 258)

Neurriak zehazten duena baino silaba gehiago kantatzeko — “hankaluze” deiturikoak egiteko— baliabideak ematen dituzte, beraz, melismadun doinuek, baina “hankaluze disimulatuak” liriateke horiek, Amurizak maila teoriko eta praktikokoan agerian uzten duenez. Izan ere, batzuetan bertsolariak kantuan ari direla neurriak zehazten duena baino silaba gehiago kantatuta —“hankaluzea” eginda—, entzulea ohartu egiten da, “doinuz kanpo” gehitzen delako silaba hori, doinuan “ez delako kabitzen” silaba gehigarri hori, kantatu bezala. Esango nuke sentsazio hori sortzen dela doinuak mugatutako konpas eta pultsu kopurutik kanpo silaba horrek kantatutakoari balio erritmiko gehigarria eransten diolako; doinuak mugatutako esparrutik hots katea atera egiten delako suertatzen dela nabarmen maiz.

Aztertutako corpusean jasotako “hankaluze disimulatu” horietan ez da, ordea, hori gertatzen. Kasu guztiak molde txikiko neurrian jaso ditut, konpas hirutarreko doinuetan, eta silaba gehigarria beti txertatzen da *beat*-aren kokagune ahulean. Dagoen espazio erritmikoan hartzen dute silaba horiek tokia, izan balio erritmiko luzeago bat dagoen tokian bi silaba laburrago sartuta, edo melisma bat dagoen tokian musika-nota bakoitza silaba batez beteta. Ez dute pultsuak markatu eta doinuak mugatutako oinarri metrikoa gehiago luzatzen.

§9.4.4.4 atalean esan bezala, epai-irizpideak ezagutzea esanguratsua da aldaera hauen izatea hobeto ulertzeko. Amurizak (1980, 1982) eta Lizasok (1986) soilik gauzatzen dituzte, ondorengo bertsolariek —Lopategik (1989), Egañak (1993, 1997, 2001, 2005), Lujanbiok (2009, 2017) eta Arzallusek (2017)— ez. 1980-1986 bitarteko txapelketetako epai-irizpideetan, neurria doinuaren araberakoa izan dadila eskatzen da, “etenaldi eta silabetan” (Bertsolari Elkarte 1985). Hala, uler

527 Bertso-neurriak doinu horrekin duen harremana nolakoa den ezagutzen duena ohartuko da, seguruenen, silaba gehigarri bat kantatu duela Amurizak. Kontua da doinuaren melodian, konpasaren baitan, tarte erritmiko gehigarririk gabe gauzatzen dela silaba hori —§9.4.2.7 atalean jasotako gainerako silaba gehigarriak bezala—, eta horregatik ez dela, musikalki behintzat, nabarmen egiten.

daiteke Amurizak eta Lizasok eginiko aldaerak onargarri izan zitezkeela orduan, doinuak mugatutako konpas kopuruan eta doinuaren aldaeren baitan gauzatzen baitituzte. 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusitik aurrera, ordea, irizpideetan espresuki jasotzen da “[z]enbait doinuk beste neurri batzuetarako bidea ematen duen arren, zortziko txikiaren neurria 7/6” dela (Euskal Herriko Bertsolari Elkarte 1990: 21). Bestelako silaba-kopurua gauzatzea akastzat hartzen da, beraz, 1989tik aurrera, txapelketako testuinguruan. Doinuaren egitura bertso-neurriarengandik bereizita, metrikak eskatzen duen silaba-kopurua zorrotz betetzen dute, irizpideei jarraiki, aztertutako bertsolariek 1989tik aurrera. Ez dute silaba gehigarridun aldaera erritmikorik kantatzen aztertutako txapelketako bertsoetan, “doinu batzuek” bestelako aukerak eman arren. Aipagarria da, esaterako, Maialen Lujanbiok eta Aitor Mendiluzek 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko buruz-burukoan zortziko txikia *Maritxu nora zoaz I* doinuan kantatzen dutela (ML-2017-BB-8tx), baina euren ekoizpenean ez dago Lizasok 1986an doinu hori baliatzean (SL-1986-AS-ha) eginiko “aldaera silaba-gehiarren” arrastorik. Halaber, puntu-erantzunetarako 1980an eta 1982an erabilitako *Mando baten ginean I* doinua ez da berriro erabiltzen horretarako gainerako txapelketetan, 7/6-ko neurriaz gain, bestelako aukerak eman zitzakeelako, akaso⁵²⁸.

Txapelketaz bestelako errealitatea aurki daiteke, edonola ere, plazan. Bertsolariaren arabera aldakortasuna ikus daiteke, batzuek beti silaba-kopuru bera gauzatzen baitute aldaerak onartzen dituzten doinuetan ere. Baina txapelketan “neurritsu”, irizpideen arabera, kantatzen duten batzuek —Lujanbiok, kasu— plazan musikak eskaintzen dituen aukerak baliatzen dituzte silaba-kopurua modu malguagoan gauzatzeko⁵²⁹. 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean ere, puntuagarria ez den azken agurrean —txapeldunaren agurrean—, esaterako, 8/6 silabako azken puntua kantatu zuen Lujanbiok *Mando baten ginean I* doinuan: *bo.rro.ka.i.ra.baz.te.ko / de.ses.pe.ran.tza.ri* (ML-2022-AS-ba). Errealitate horrek agerian uzten du txapelketaz kanpoko bertso-jarduna aztertzearen garrantzia.

Era berean, ematen du, txapelketari dagokionez behintzat, neurriaren eta doinuaren arteko disoziazioa gertatu dela azken hamarkadetan, unitate metriko nagusiei dagokienez behintzat. Eskakizun metrikoak —silaba kopuruan eta horien taldekatzean— beti betetzen dituzte aztertutako bertsolariek 1989tik aurrera, doinuak eremu hori mugatu edo ez —molde handiko hemistikio barneko 5 + 5 silaba taldeak, kasu—, eta nahiz eta epai-irizpideek maila batzuetan taldekatze aldakorrakoak egiteko aukera eman⁵³⁰.

528 Garai hartan antolakuntza lanetan, epailertzan edo bertsolari gisa zebilen jendea elkarriketatu beharko litzateke, auziak berak ekarritako eztabaida eta ondorioak ezagutzeko.

529 Plazako adibide baterako ikus *Mando baten ginean I* doinuan Xabat Galletebeitiarekin batera Lujanbiok osatutako bertsoaldia: <https://bertsoa.eus/bertsoak/22618-sekretuen-inguruan-maialen-lujanbio-eta-xabat-galletebeitia> (azken kontsulta: 2023-10-31).

1980, 1982 eta 1986ko Amuriza eta Lizasoren adibide “irregularrei” esker, agerian geratzen da musikak eskaintzen duen dimentsioa silaba kopuruaren aldakortasunerako, eskema metrikoaren zurruntasunaren aurrean. Euskaraz *free style*-a egiten denean —oinarri musikal erregular baten gainean nagusiki errezitatuz inprobisatzea— ez dago bota beharreko silaba kopuru zehatzik, ahal edo nahi beste silaba sar daitezke; kontua da oinarri musikalak markatzen duen 4 x 4-ko oinarriaren mugetan aritzea. Bat-bateko bertso kantatuetan ez dago horrenbesterako askatasunik, baina corpus azterketan jasotako adibide sotilek agerian uzten dute doinuak ezarritako muga erritmiko-metrikoetan “sartuz” gero, silabaren bateko aldakortasuna egingarria dela, garaian garai akaso onargarria ez den arren. Kasu bakoitzean, edonola ere, metrikaren oinarria desberdina litzateke: 1989tik aurrerako txapelketetan silaba-kopuru zehatza eta horien taldekatzea, eta aurretik, silaba-kopuru eta taldekatzearekin batera, doinuak duen dimentsio metriko-erritmikoa, hein batean, aztertutako adibide zehatzetan⁵³¹.

§10.2.5.1 atalean jaso dudanez, Arouik (2009: 3) azaltzen du gaur egun arte idatzita heldu zaizkigun tradizio poetiko batzuek ezohikoak diruditela agertzen dituzten irregulartasunak direla eta. Horrelakoetan ez da sarri kontuan hartzen agian bertso-neurria egitura metriko-tenporaletan (musikaren konpasean, alegia) oinarrizten dela, notazio musikala galdu delako edo bilketa lanean jaso ez delako. Batzuetan oso ohikoa da bertsoa musikari loturik sortzea eta, horregatik, neurria aztertzean musika kontuan hartzea esanguratsua izan daiteke, nolabaiteko sistema metriko hibridoa izan baitezakete bertsoek kasu batzuetan. Bat-bateko bertsoen azterketak euskaraz neurri eta musikaren arteko zer-nolako harremanak sor daitezkeen ulertzen lagun lezake, aztertutako adibide bakanek erakusten dutenez⁵³².

10.4.2. Bertsoetako txertatze prosodikoa taldekatzetik

Txertatze prosodikoa, orain artean hainbatetan errepikatu dudanez, hizkuntza —esan nahi den hori— erritmo- eta doinu-ereduekin uztartzea dela esan liteke, *hitzak musikan txertatzea* (Donegan eta Stampe 1978: 30). Denbora errealean gertatzen den hizketa prozesamenduko eragiketa da (Do-

530 Aztertzea litzateke bertso-eskoletako jardunean zein plazan zer-nolako taldekatzeak egiten dituzten askotariko bertsolariak, eta zein den gairi buruz duten iritzia; nola ulertzen duten metrikaren, doinuaren eta hizkuntzaren arteko harremana.

531 Atal honetan aztergai den auzia hizpide izan dute bai Amurizak bai Garziak, Egañak eta Sarasuak bertsolaritzari buruz eginiko lanetan.

Ondokoa diote Garzia eta kideek (2001: 83): “Neurria da bertsolariari buru-hausterik gehien sortzen dion alderdietariko bat. Doinuak eta errimak laxotasun handiagoa dute (kantatu edo errimatu daiteke oso ondo, ondo, ez hain ondo, erdipurdi, gaizki, oso gaizki..., baina neurriak ez du inongo eskalarik onartzen. Ongi neurtuko dugu edo gaizki. Ez da erdibiderik. Badira halere, doinu jakinen batzuk, ohituraren poderioz 7/6 egin ordez 8/6 egiten dena. Baina doinu gutxi dira eta inork ez dauka oso argi horrelakoetan legeak edo ohiturak hartu behar lukeen gaina”.

532 Anisosilabismo deituriko irregulartasun metrikoaz gogoeta egiteko interesgarria litzateke Sangiovanni (2015) aztertzea, besteak beste.

negan eta Stampe 1979: 142), eta horren ondorioa da hizkuntzaren taldekatzea silabatan, hitz prosodikotan, esaldi fonologikotan, etab.

Bat-bateko bertsoetan, oinarrizko eredu prosodikoa musikak eskaintzen du, bertso-doinuak. Bertso-doinuak zehazten du, musika-noten bidez, gauza daitekeen silaba kopuru gehienezkoa, edo esaldi musikalen taldekatze bidez, txertatzen den hizkuntzaren mugak —hitz gramatikalen mugak— non ezarri behar liratekeen, printzipioz. Horrekin batera, doinuak markatu edo ez, metrikak zehaztutako bete beharreko silaba-kopuru eta taldekatze-irizpide batzuk ere badaude modu inplizituan, oinarri horri loturik⁵³³: puntuaren eta hemistikioaren eremuak dira horiek, baita, corpus azterketatik ondoriozta daitekeenez, molde handietako 10 silabako hemistikioaren baitako 5 + 5 taldekatzearena ere, kasu gehien-gehienetan. Unitate metriko horien baitan, doinuak maiz talde erritmiko txikiagoak mugatzen ditu, baina horiek betetzean ez da derrigorra muga linguistikoak talde musikalekin bat etorraraztea, batzuetan bertsolariek hala egiten duten arren —nahita edo nahi gabe—.

Txertatze prosodikoan, aurkeztu berri dudan oinarri prosodiko konplexu horrekin uztartzen denean hizkuntza, metrikak agindutako taldeak dira nagusi: muga linguistikoek joera nagusi gisa betetzen dituzte eta doinuak —bertsolariaren kantaerak— mugatzen ditu normalean, molde metrikoaren eta hautatutako doinuaren zein bertsolariaren gauzatzearen arabera hori alda daitekeen arren.

Horrekin batera, baina, hitz lauко antolakuntza prosodikoak interferentzia egiten du bertsoetako talde prosodikoen ezaugarritze eta egituratzean, hori modu sistematiko eta erregularrean gertatzen ez den arren. Hala, hizkuntzaren askotariko alorrei —hitz muga, taldekatze prosodiko, azentu-eredu, etab.— lotuta, aldaera erritmikoak zein egiturazkoak ez diren etenak gertatzen dira, edo egiturazkoak diren etenak ekidin, hizkuntza doinuak eta neurriak eskainitako oinarrira egokitu beharrean —edo hori bakarrik egin beharrean—, abiapuntu den euskarri prosodikoa txertatzen den hizkuntzara zertxobait egokituz. Horrela mugatzen dira bertsoen egituratzean horren garrantzitsuak diren oinak, adibidez, edo, bertsolari batzuek aldaera erritmikoen bitartez adierazten dituzte kantuan gauzatutako hizkuntza-osagaien batasun prosodikoa, zerrendatzea, fokua, ahots aldaketa edo azken puntuko ideia burutsua.

Azken kasu horietan oinarri prosodikoaren nolabaiteko negoziazioa dagoela esan daiteke. Bertsolariak, batzuetan, doinuak eskainitakora moldatzen dute, gutxi gorabehera, esan nahi dutena. Beste batzuetan, oinarria da eraldatzen dutena, hizkuntzaren egitura eta ezaugarrietara zertxobait moldatuz. Bertsolarien artean ere aldeak daude joera baten edo bestearen alde, eta bertsolari beraren

533 Kasuan-kasuan alda daitezkeenak; molde txikiko neurrietako silaba-kopuruaren aldakortasunarekin gertatzen den bezala.

baitan ere aldakortasuna ageri da, bertsoaldiaren arabera. Norabide batean zein bestean, bertsoetako taldekatzean koherentzia prosodikoaren bilaketa presente dagoela esan daiteke, nahiz eta ez den osagai guztien batasuna bilatzen etengabe —ezinezkoa litzateke—; hitz muga da bete beharreko baldintza minimoa eta bertsolari batzuk, batzuetan, harago doaz, gorago aipatutako uztartzeak gauzatuz, besteak beste⁵³⁴.

Izan ere, koherentzia prosodikoaren bilaketan bertsolariak askotariko mugak dituzte: eskakizun metrikoak eta horiei lotutako norma, unean uneko konbentzioak kantatzeko “egokitasunari” buruz, hizkuntzak berak (euskarak) dituen ezaugarri fonologiko eta morfosintaktikoak, etab.

10.4.3. Doinuen garrantzia bertsoak egituratzean

Corpus azterketak agerian uzten du doinuen garrantzia bertsoetako egituratzea ulertzeko. Hasteko, doinuak taldekatzea baldintzatzen du. Neurriak ezarritako taldekatzearekin batera, osagai metriko horiek denboran zehar nola antolatu baldintzatzen du, hein handian. Bereizketa egin beharra dago molde handiko eta txikiko neurrietarako doinuen artean. Izan ere, molde txikiko neurrietan eremu erritmikoa hemistikioaren neurrikoa izaten da sarri, eta batzuetan ez du talde hori ere mugatzen (ikus §10.4.1.2); hala, molde txikiko neurrian kantatutako bertsoetako taldekatzea osagai zabalagoz gauzatzen da, “lauago” —bertsolariak egiten dituen etenek gauzatze hori baldintza dezaketen arren—. Molde handiko bertsoetan, berriz, gehienetan motibo erritmiko orokorra bost silabakoa da, eta horren gainean eraikitzen da paisaia erritmikoa. Horrek dakar molde handiko doinuetako taldekatzea konplexuagoa izatea sarri, eredu erritmikoak berak gehiago(tan) multzokatzen baitu bertan txertatutako hizkuntza —kasu honetan ere esanguratsua da, noski, bertsolariaren kasuan kasuko gauzatzea—. Abiapuntu gisa, baina, silaba kopuruz desberdinak diren bezala, taldekatze desberdina planteatzen dute bi neurriek⁵³⁵.

Gainera, aurreko atalean aurkeztu berri dudana bezala, doinuak bertso-neurria baldintza dezake hein (txiki) batean, silaba-kopuruarekin batera oinarri erritmiko edo konpasaren dimentsioa emanaz bertsoari.

534 Edonola ere, kontuan hartu behar da bertsolari batzuek egituren arteko bat ez etortzea nahita gauzatzen dutela, euren bertsoegintzaren ezaugarri bilakatuz batzuetan. Ikus gorago oin oharrean jasotako Alaia Martinen adibidea, esaterako.

535 Hein batean hitz lauz hizketa mailen arabera aurki daitekeen aldakortasun prosodikoa gogorarazten du molde bakoitzaren egiturazko antolakuntzak eta maiz baita horien gauzatzeak ere: zenbat eta egoera formalagoa izan, hizketa *tempo*a motelagoa edota arreta handiagoa jarri ahoskerari, talde prosodiko gehiago egingo dira, markatuagoak, maila prosodiko gehiago bereiziko dira, etab. Zenbat eta egoera arduragabeagoa (informalagoa) izan, hizketa *tempo*a azkarragoa edota arreta txikiagoa jarri ahoskerari, talde prosodiko gutxiago egingo dira, horiek zabalagoak eta lauagoak, hizkuntzaren jarraitutasuna izango delako nagusi (ikus §4.3 atala). Bi mutur planteatu ditut eta argi dago doinu bakoitzak bere ezaugarri zehatzak dituela, baita bertsolari bakoitzak bere kantaera ere, eta bertsoaren kanporatzean eragina dute biek.

Doinuek bertsoen erritmoan duten garrantzia Soroaren (2022) ondorioekin lot daiteke, berak aztertutako *tempo* eta intentsitate aldaketak doinuaren ezaugarriei egozten baitizkie nagusiki (eta baita, kasu jakinetan, testuaren ezaugarriei ere; ikus §6.6.3.2).

10.4.4. Neurriaren eta bertsoa eraikitze moduaren garrantzia erritmoa egituratzean

Analisiaren hasieran (§10.4.1) eta ondoren ere hainbatetan aipatu bezala, neurrian ardaizten dira, batez ere, lan honetan aztertutako unitate prosodikoak, hizkuntzak eta musikak horiek indartzen dituztelarik (eta ahaztu gabe bai musikak bai hizkuntzak dutela euren egitekoa bertsoen erritmo-antolakuntzan: ikus aurreko §10.4.3 doinuaz eta §10.4.1.4 hizkuntzaren eraginaz). Halaber, metrikaren zehaztasunak dira bertsolariak silaba-kopuru erregularra mantentzera bultzatzen dituztenak, batzuetan doinuak (dimentsio musikalak, §10.4.1.5 atalean azaldu bezala) silaba gehiago txertatzeko aukera eman arren⁵³⁶.

Neurriari lotuta, aztertutako datuek iradokitzen dute bertsoa eraikitze moduak, bertsoa antolatzeak, ere eragina duela bat-bateko bertsoen erritmo-ezaugarrietan. Horren adibidetzat aipa daitezke bertsolari guztiek gutxiago edo gehiago mugatutako oinak, eta bertsoa bukaeratik hasita pentsatzearen ondorio prosodikoak (etenak maiz progresiboki laburragoak izatea bertsoaren amaierara heldu ahala, sarri azken puntuaren inguruan gauzatzen diren aldaera erritmikoak, etab.). Aztertutako gertakari horiek bat datoz Iraizoz Remirok (2012) edo Soroak (2020) *tempo*a aztertuta ateratako ondorioekin. Edonola ere, bertso guztiek ez dute joera bera ageri, bestelako eragileak kontuan hartzeko beharra utziz agerian.

10.4.5. Bertsoetako osagai prosodikoen interpretazioa erritmoaren arabera tipologiatik

§3.4 atalean azaldu bezala, hizkuntza baten tipologia erritmikoaren arabera, hotsak denboran zehar antolatze modua aldatu egiten da. Silaba-aldiranzko joera duen hizkuntza bezala, euskaraz, silaba funtsezko unitate izateaz gain, osagai prosodiko handiagoen artean, hitza baino eremu handiagoetara jo behar izaten da sarri hizkuntza-antolakuntza ulertzeko; ekialdeko hizkeretatik at, azentu-ereduen gauzatze-eremua kokatzeko, adibidez. Hitz lauz hizkuntzak duen taldekatze hori hizkuntza horretan garatutako sistema metrikoan ere islatu ohi da, ñabardurak ñabardura (ikus §10.2.4 atala). Euskaraz, silaba da hitz lauz oinarritzko unitate, eta silaba da, era berean, sistema metrikoaren oinarri nagusi (silaba-kopuru hutsean oinarritu edo kasu bakinetan silabak pulstu erritmikoen arabera antolatu; ikus §10.4.1.5). De Sistok (2020; van Oostendorp eta De Sisto 2018)

⁵³⁶ Auzi honetan ez da ahaztu behar gehienetan doinuaren egiturak berak laguntzen diola bertsolariari neurria egoki betetzen; errazago musika-nota eta silaben arteko harremana 1 = 1 (silabikoa) denean.

hitz lauko antolakuntza maila handiagoak ere egitura metrikoan islatzen direla proposatzen du. Silaba-aldiranzko joera duten hizkuntzetan, *colona* —lan honen terminologian hemistikioa edo, molde handiko neurrietan, hemistikioaren baitako talde txikiagoa, seguruena— da proposatzen duen unitatea —azentu-aldiranzko hizkuntzetan, hitzari loturik, oin metrikoa—.

Euskarazko bat-bateko bertso-neurriei bagagozkie, argi dago ez direla oin metrikoan oinarritzen, eta silaba-taldeak hemistikiotan antolatzen direla —eta hemistikio barreneko 5 silabako taldeetan, molde handiko neurrietan, joera nagusi gisa—. Bertsoen gauzatze erreala aztertuta, talde horiek presente daude gehienetan, muga linguistikoek bete ohi dituztelako, nahiz eta gauzatze prosodikoari erreparatuz gero, modu nabarmenagoan edo lausoagoan ahoskatuko dituzten aldiro bertsolariak (ikus §10.4.1). Edonola ere, bertsoen gauzatzean ere presente dauden osagaiak dira, euskararen silaba-aldiranzko joerarekin bat letozkeenak, printzipioz⁵³⁷.

Unitate metrikoak nagusi izan arren, hitzak eta sintagma presenten daude, eremu gisa, bertsoen ekoizpenean, aldaera erritmikoen zein etenek mugaturik, nagusiki, baita egiturazko etenik ez gauzatzeak ere. Horrek askotariko neurrietako talde prosodikoetara garamatza, silaba batetik hasi (*ai* [aj]) eta bi punturen neurria hartzen duten osagaietara arte (ikus Lujanbioren 73. edo 74. irudietako adibideak, kasu). Hitz eta sintagma hauen gauzatzea ez da sistematikoa bertsolarien ekoizpenetan, bertsolarien arteko aldeak ere aipagarriak izanik (ikus §10.4.1.4). Horrek bertsoen erritmo antolakuntzan hizkuntzaren tipo erritmikoaz gain bestelako eragile batzuk kontuan hartzearen beharra uzten du agerian. Hainbat taldekatze bertsoaren egituratik bertatik uler daitezke, gorago aurreratu bezala (oinak mugatzea, kasu). Beste hainbat kantuan, hots katean, hitzak segmentatzen —gertakari horrek hizkuntzaren segmentatze joera orokorrekin du agian lotura, baita hizkuntza idatziaren eraginarekin ere, ematen baitu maiz hitz gramatikala dela askotan erreferentzia—. Horiekin batera, hitz lauz euskaraz —eta beste hizkuntza askotan— fokua, zerrendatzea zein ahots aldaketa bezalakoak adieraztean hiztunok gauzatzen ditugun taldekatze joerak hein batean bertsoetan islatzen konprenituko ditugu beste zenbait aldaera, prosodiak betetzen dituen askotariko egitekoetatik (§4). Unean uneko bertsolari eta bertsogintza kanonak zein, txapelketa den heinean, epai-irizpideek ere emango dizkigute bertsolarien gauzatzearen alderdi batzuk ulertu ahal izateko gakoak (garaian garai bertsogintza ulertzeko moduetako bat islatzen duten heinean), normak eta askotariko eragin kulturek ere eragina baitute bertsoen gauzatzean. Azkenik, bertsolarien arteko aldakortasuna ulertzeko bakoitzaren estilo propioa ere aipatu behar da.

537 Lotura hauek modu sendoan baieztatu ahal izateko, beharrezkoa litzateke hizkuntza gehiagotan kantuak zer-nolako antolakuntza eta gauzatzea duen berrikustea, hainbat maila prosodikotan.

10.5. Laburbilduz

Aztertutako bertsoetan nagusi diren osagai prosodikoak metrikak zehaztutakoak dira eta doinuaren zein hizkuntzaren egiturek indartuak. Metrika nagusi izanagatik, hizkuntzak eta musikak ere badute euren egitekoa bat-bateko bertsoen erritmo-antolakuntzan, edonola ere. Ondokoak dira taldekatze arrastoei jarraiki identifikatutako unitate prosodikoak:

- Puntua
- Hemistikioak
- Hemistikio barreneko taldekatzeak
- Hitz eta sintagmak
- Silaba (eta doinuaren arteko harremanak)

Puntua da aztertutako osagai prosodikoen artean handiena eta nabarmenena. Doinuaren hezurdua, besteak beste, osagai horretan oinarrituta dagoenez gero, bertsolariek kantuan doinua den oinarri prosodikoa betetzean gauzatzen dute, errimadun hitzekin (oinekin) eta muga linguistikoekin (hitz mugekin) ere finkatuz. Eremu azkeneko luzatzea eta etena ere baliatzen dituzte sortzaileek unitate hau mugatzeko. Bertsolariengan maiz jasotzen da (nahiz eta aldea dagoen bertsoetik bertsoa eta bertsolaritik bertsolarira) bertsoak aurrera egin ahala gero eta eten laburragoez mugatzea eremua. Horrekin batera, puntu motzak aipatu behar dira, sarri ez baitira etenaz mugatzen: doinuaren egituraren esaldi musikalaren parte izanik, elkarren artean lotuago gauzatzen dituzte bertsolariek maiz. Kasu bakanetan, bertsolariren batek ez du puntu luzeen arteko eten nabarmenik egiten adierazkortasun linguistikoari lotuta, bi puntuen arteko lotura ageriago eginez.

Hemistikioari dagokionez, oro har puntuaren antzera gauzatu ohi da maiz, doinuaren motibo erritmikoak eta etenak mugaturik (etenok batzuetan puntuaren eremukoak baino laburragoak izaten dira). Hemistikioaren eremua puntuarena baino gehiagotan lausotzen dute bertsolariek, bi arrazoi nagusigatik: doinuaren ezaugarriengatik (motibo erritmikoak ez duelako unitate metrikoa mugatzen, abiapuntu gisa) edo adierazkortasunagatik zein bertsoa eraikitzeke moduagatik, hizkuntzari lotuta. Bi eragileak elkarreaginean aurki daitezke maiz. Corpusean hemistikioaren eremua gainditzen duten adibide gutxi batzuk aurkitu dira (doinuaren eta hizkuntzaren ezaugarrietatik uler daitezkeenak), baina joera da beti betetzea.

Hemistikio barreneko taldekatzeei buruz esan daiteke molde handiko neurrietan ohikoa dela 10 silabako hemistikioak 5 + 5 banatzea muga linguistikoekin eta askotan baita muga musikalekin ere, doinuen erritmo-ereduek ere hala mugatzen baitute oinarria sarri. Salbuespen gutxi batzuk aurkitu dira, doinuari eta hizkuntzari loturik ulertzen direnak, kasu honetan ere. Halere, joera nagusia molde handiko bertsoetan, lehen hemistikioa bitan taldekatzea da.

Metrikak dakartzan unitate prosodikoekin batera, hizkuntzatik uler daitezkeenak ere aipatu behar dira: une puntaletan gauzatzen dituzte bertsolariek, silabatze bereiziaz, egiturazkoak ez diren eten gehigarri zein eredu erritmikoaren aldaerez baliatuz. Eragile nagusitzat bi eremu aipatu behar dira: bertso-neurriari lotutako oina (errimadun hitza) mugatzea, bertsoaren egituran eta eraikuntzan duen garrantzitik ulertuta gertakaria; eta hitz lauz gauzatzen diren talde prosodikoetara hurbiltzea kantuaren antolakuntza erritmikoa, adierazkortasunari loturik sarri.

Azkenik, silaba aipatu behar da oinarrizko unitate gisa, doinuarekiko (musika-nota eta konpasarekiko) harremanean. Oro har bertsolariek gauzatutako silaba kopurua neurriak zehaztutakoa da. Halere, badira irregularitasun batzuk (1980-1986 bitarteko txapelketetan), eta musika izan daiteke horiek ulertzeko gakoetako bat, epai-irizpideekin (garaian garaiko bertsogintzaren ulerkerekin) batera.

Bat-bateko bertsoetako txertatze prosodikoan doinuak eta neurriak eskaintzen duten oinarriarekin elkarrekintzan sartzen da hizkuntza, joera orokor gisa metrikaren taldekatzea jarraituz, baina batzuetan bere egitura (ere) taldekatuz (izan metrikaren eta doinuaren egituratzearen aurka, izan horiekin batera taldekatze propioa ere nabarmenduz). Metrika bertsoen taldekatzea ulertzeko funtsezko den bezala, halaxe dira doinua (musika) eta hizkuntza ere: elkarreraginean ulertu behar dira.

Bertsoetako osagai prosodikoei erritmoaren araberako tipologiatik erreparatuta, esan daiteke euskarak silaba-aldiranzko joera duen hizkuntza baten ezaugarriak agertzen dituela bat-batean eta kantuan ere, printzipioz, aztertutako bertsoetan bederen: silabak duen nagusitasuna eta oin erritmikoa baino handiagoak diren osagai metrikoek (hemistikioaren barreneko taldekatzeak edo hemistikioek) ahalbidetzen digute baieztapen hori egitea. Edonola ere, hitzarena bezalako eremu prosodikoak bertsoetan gauzatzeak erritmoa egoki ulertu ahal izateko tipologiaz bestelako eragileak arakatzeko beharra uzten du agerian.

Hala, gorago aipatu bezala, doinua, metrika, bertsoaren izaera (egituratik hasi eta eraikitze moduraino), bertsogintza ulertzeko moduak (lan honetan epai-irizpideen bidez islatua, nagusiki) edo garaian garaiko bertsogintza kanonak zein bertsolari bakoitzaren estiloa hartu behar dira kontuan, besteak beste.

11. Ondorioak

Euskarazko bat-bateko bertsoen erritmoa aztergai, marko teoriko eta interpretatibo baten eraikuntza eta lanketa horretan oinarritutako corpus azterketa dira lan honen zutabe nagusiak. Hizkuntzen erritmo-antolakuntza eta erritmoaren arabeko tipologietatik abiatuta (§3), kontuan hartu ditut prosodiaren askotariko egitekoak (§4), testu-uztartzean parte hartzen duten hiru egiturak (hizkuntza, metrika eta musika) eta haien arteko elkarreragina (§5) zein bertsolaritzaren izaera (§6) ere, aztertutako corpora (1980-2017 bitarteko Bertsolari Txapelketa Nagusietako irabazleen finalerako bertsoek osatua) bere testuinguruan kokatzearekin batera (§7). Corpus azterketa elkarri loturik dauden hiru ardatzetan antolatu dut: batetik, bertsoetako silabatzea eta silaba-egiturari loturiko gertakari segmentalak aztertu ditut, eskakizun metrikoak betetzeko bertsolarien baliabide fonikoei ere erreparatuz (§8). Halaber, bertsolarien kantuan gauzatutako erritmo-ereduei eta horien aldakortasunari begiratu diet (§9). Azkenik, silabatze eta erritmo-ereduei hertsiki loturik, bertsoetako unitate prosodikoen azterketa egin dut (§10). Lan osoan zehar txertatze prosodikoaren kontzeptua (§2) baliatu dut bertsoetako testu-uztartzearen prozesua kokatzeko, askotariko maila, eragile eta aldakortasun-ardatzak azaltzeko lagungarri izan delarik.

Tesiaren helburu nagusiak izan dira: a) euskararen tipo erritmikoak eta, zehatzago, euskararen fonologiak bertso-jarduna nola baldintzatzen duen aztertzea, b) hizkuntzaren, metrikaren eta musikaren arteko harremanak bertsoetan zer-nolakoak diren ulertzea eta c) bertsoetako aldakortasun

prosodikoaren nondik-norakoak aztertzea, testu-uztartzeaz dugun ikuspegia konplexuagotuz (ikus §1.2). Helburu horiek gogoan, ondokoak dira egindako lanaren ondorio nagusiak.

11.1. Euskararen tipo erritmikoaren eragina bat-bateko bertsoen erritmo-antolakuntzan

Hizkuntzen tipo erritmikoak egitura metrikoa eta musikala baldintza ditzake. Hari horiei jarraiki, aztertutako bat-bateko bertsoetan agerian geratzen da euskararen silaba-aldikotasunerako joera silabatzean, erritmo-ereduetan eta nagusi diren unitate prosodikoetan.

Bertsolariek kantatutako silabei dagokienez, corpusean aztertutako bertsolari guztiek, txapelketa guztietan, silaba irekiak ahoskatzen dituzte %70etik gorako maiztasunarekin, CV oinarrizko silabaren presentzia %60 ingurukoa izanik aldiro. Silaba-egitura baldintzatzen duten bilakabide segmentalei dagokienez, hatsarre silabikoei jarraituz, bilakabideok CV silaba-egiturara hurbiltzen dute sarri hots-katea: bokal bilkura heterosilabikoak hausten dituzten edo eremu prosodikoen ekinean gauzatzen diren epentesi kontsonantikoak jaso dira (hasperena, kontsonante palatala eta kontsonante ezpainkaria), silaba ekineko segmentuak indartzea edo ez ahultzea (/i/ bokala kontsonantetzea edo bokal arteko herskariak ez jarraitutzea) eta kontsonante bilkura heterosilabikoetan silaba-kodako kontsonanteak ahuldu eta kentzea, nagusiki. Bertsolari guztiek ez dituzte neurri berean gauzatzen aipatutako bilakabideak, ez eta guztiak gauzatu ere. Edonola ere, denen silabatzea dago silaba-aldiko polotik gertu, gauzatutako silaben egitura-maiztasunek agerian uzten dutenez.

Hitz arteko mugen trataerari dagokionez, aztertutako corpusean bertsolari guztiek urtzen dituzte inoiz hitz arteko mugak, *liaisona* eginez⁵³⁸ (edo bokal bilkura heterosilabikoak modu jarraituan ahoskatuz), silaba-aldiranzko hizkuntzetan ohikoa den gisan. Aurkako aukera ere gauzatzen dute sarri, ordea: hitzak bereiz ahoskatzea, mugako segmentuak birsilabatu gabe eta maiz eten laburraz bereizirik. Gertakari horrek agerian uzten du hizkuntzaren tipo erritmikoaz gain bertsoen egituratze erritmikoa baldintzatzen duten beste hainbat eragile ere badaudela: testuinguruaren formaltasuna (edo baliatutako hizketa-maila) edo prosodiak betetzen dituen askotariko egitekoak, besteak beste.

Azentu linguistikoek kantuan duten eragina (edo eraginik eza) ezin da garbi frogatu eginiko corpus azterketan. Hala ere, bertso-doinuak eskaintzen duen eredu orokorra da nagusi bertsolari guztien ekoizpenetan, aldaerak aldaera. Gainera, jasotako aldaera erritmikoak ez dira sistematikoak,

538 Beste maila batean, baldintza metrikoen mende, sinalefa ere aipagarri da arlo honetan.

eta horien egituratzean hizkuntzaren segmentatzea eta adierazkortasuna bezalako eragileak daudela iradokitzen du eginiko azterketak. Badira hainbat adibide hitz lauko azentu-ereduekin lot daitezkeenak, baina baita, kontrako norabidean, balizko lotura horietatik aldentzen diren aldaera erritmikoak ere. Horrela, ez dirudi euskararen azentu-ereduak kantuan islatzea testu-uztartzearen nahitaezko eskakizuna denik (azentu-aldiranzko hizkuntzen kasuan, ordea, badirudi nahitaezkoa dela). Alor honek bestelako lanketa eskatzen duen arren, corpus azterketatik behin behinean atera daitezkeen ondorioek silaba-aldiranzko joeraren aldeko ikuspegia indartzen dute alor honetan ere.

Taldekatzeaz ari garela, euskarazko bat-bateko bertso-neurriei bagagozkie, eginiko berrikuspenean zehaztu da jada euskararen fonologiaren eragina silabak sistema metrikoan duen garrantzia nabarmentzean. Silaba baino handiagoak diren osagaiak erreparatuta, corpus azterketak agerian uzten du bertsolariak baliatzen dituzten molde metrikoak ez direla oin metrikoan oinarritzen (azentu-aldiranzko joera duten hizkuntzen kasuan gertatu bezala), eta silaba-taldeak hemistikiotan antolatzen direla —eta hemistikio barreneko bost silabako taldeetan (5 + 5), molde handiko neurrietan, joera nagusi gisa—. Eskema metrikotik abiatuta bertsoen gauzatze erreala aztertuta, talde metriko horiek (puntua, hemistikioa, hemistikio barreneko taldekatzea) presente daude gehienetan ekoizpen prosodikoan ere, muga linguistikoek muga metrikoak errespetatu ohi dituztelako. Hala ere, gauzatze prosodikoari dagokionez, modu nabarmenagoan edo lausoagoan ahoskatuko dituzte talde horiek bertsolariak (muga metrikoa silabatze bereiziz edo birsilabaturik gauzatuz, etenaz mugatuta zein etenik gauzatu gabe jarraian kantatuz, etab.). Aldakortasuna baden arren, joera nagusi gisa bertsoen gauzatzean ere presente dauden osagaiak dira hezurdura metrikoak eskainiriko horiek. De Sistoren (2020) proposamena euskarara ekarrita, silaba-aldiranzko joerarekin bat letozke euskarazko bat-bateko bertsoetako unitate prosodikoak, silabaren ondoren hitz lauz sarri hitza baino eremu prosodiko handiagoak baitira nagusi (ekialdekotzat hartutako hizkeretatik kanpoko). Horrela, silaben hemistikioakako (zein hemistikio barneko) taldekatze horrek islatzen du hizkuntzaren antolakuntza erritmikoa.

Hala ere, hitzak presente daude aztertutako bertsoetan sintagmekin batera. Euren gauzatzea sistematikoa ez den arren, bertsoetako antolakuntza erritmikoan hizkuntzaren tipo linguistikoaz bestelako eragileak kontuan hartzeko beharra geratzen da agerian, beste behin.

11.2. Hizkuntzaren, bertso-neurrien eta doinuen arteko elkarreragina(k)

Bat-bateko bertsoen antolakuntza erritmikoa ulertzeko ezinbestekoa da hizkuntzaren, metrikaren eta doinuaren ekarpenari eta elkarreraginari —batzuetan uztartze, besteetan tentsio izango denari— erreparatzea. Lanean zehar osagaietako bakoitza ezaugarritu eta egituren arteko

lotura posibleak adierazita, euskarazko bat-bateko bertsoetako silabatzearen, erritmo-ereduen eta taldekatzearen ulerkeran ikuspegi hirukoitz hori izatearen garrantzia geratzen da agerian.

Hasteko, oinarrizko eredu prosodikoa musikak eskaintzen du, bertso-doinuak. Bertso-doinuak zehazten du, musika-noten bidez, gauza daitekeen gehienezko silaba kopurua (hasiera batean), silaba bakoitzak printzipioz jasoko duen balio erritmikoa edo osagai musikalen taldekatze bidez, txertatzen den hizkuntzaren mugak —hitz gramatikalen mugak— non ezarri behar liratekeen. Horrekin batera, doinuak musikalki adierazi edo ez, eskakizun metrikoak presente daude oinarri prosodiko horri loturik, modu inplizituan: aldez aurretik zehaztutako silaba-kopuru eta taldekatze-irizpide batzuk daude finkaturik, besteak beste.

Horrela, bertsoetan gauzatutako unitate prosodiko nagusien jatorria metrika da. Unitate metrikoak nabarmen(ago) gauzatzeari lotzen zaizkio lan honetan identifikatutako zenbait aldaera erritmiko eta taldekatze arrasto: eremu prosodiko hasiera edo amaiera mugatzen duen aldaera, esaterako. Bertsoetako eremu nagusi gisa aipatu behar dira puntua, hemistikioa eta hemistikio barreneko 5 + 5 taldekatzea, molde handiko neurridun bertsoetan. Horiekin batera, bertso-egiturarekin duen lotura dela eta, oina (errimadun hitza) aipatu behar da, sistematikoki mugatu edo trinkotzen den osagai metrikoa ez izan arren, bertsolariek maiz nabarmentzen duten elementu linguistiko eta metrikoa baita.

Baldintza metrikoak nagusi izanagatik, hizkuntza da kantatzen dena eta entzuleentzat ulergarri izan behar da ahoskaturikoa. Aldaera erritmikoetan, adibidez, taldekatzeari loturik, hitzen segmentatzeetik uler daitezke jasotako zenbait eremu trinkotze edo silaben balio erritmikoen parekatze batzuk, besteak beste. Askotariko aldaera erritmikoen, silabatzeek zein hitz ekineko gertakari segmentalek kantuko hots katea hitzen edo sintagmen arabera segmentatzen (laguntzen) dute. Batzuetan, gainera, bertsolariek hitz lauko hizketaren taldekatze-moduak imitatzen dituztela dirudi, kantatutakoa segmentatzen lagunduz edota baliabide adierazkor gisa. Hitz lauko antolakuntza prosodikoak interferentzia egiten du, beraz, metrikan eta doinuan jatorria duten bertsoetako talde prosodikoen ezaugarritze eta egituratzean, hori modu sistematiko eta erregularrean gertatzen ez den arren.

Aipatu behar den azken unitate prosodikoa silaba da, euskararen fonologiaren erdigunean dagoen osagaia eta bertso-neurriaren ardatza ere badena. Corpusean jasotako zenbait irregulartasun silabiko ulertzeko, ordea, musikaren beharra dugu: silaba-kopurua ez da kasu batzuetan metrikak zehaztutakoa. Konpasaren dimentsioak, bertan silabei ematen zaien balio erritmikoak eta silabek doinuko musika-notekin duten harremanak laguntzen du, azterketan jasotako adibideetan, irregulartasuna ulertzen, epai-irizpideena bezalako beste eragile batzuekin batera.

Hiru sistemen egituren arteko etengabeko negoziazioa gertatzen da bertsoetan, beraz: bertsolariak maiz doinuak eskainitakora moldatzen dute, gutxi gorabehera, esan nahi dutena askotariko baliabide fonikoen bitartez, metrikaren eskakizunak ere betez gehienetan. Beste batzuetan, ordea, oinarria da eraldatzen dutena, hizkuntzaren egitura eta ezaugarrietara zertxobait moldatuz abiapuntu gisa eskainitako eredu prosodikoa. Bertsoetako erritmoa egituratzean alor metriko-musikala nagusi den arren, bertsolarien artean aldeak daude joera horri eutsi edo tarteka hizkuntzaren nagusitasun handiagoa bilatzeko. Bertsolari beraren baitan ere aldakortasuna ageri da, bertsoaldiaren arabera. Modu batean zein bestean, bertsoetako taldekatzean koherentzia prosodikoaren bilaketa presente dagoela esan daiteke, hizkuntzaren, metrikaren eta doinuaren egiturak bat etorraraziz ahal den heinean —egituren arteko haustura bera ere, proposamen artistiko gisa, baden arren—. Hala ere, ez da osagai guztien batasuna bilatzen etengabe —ezinezkoa litzateke—; hitz muga da bete beharreko baldintza minimoa eta bertsolari batzuk, batzuetan, harago joaten dira.

11.3. Bat-bateko bertsoetan prosodiaren askotariko egitekoak eta prosodia eralda dezaketen askotariko eragileak

Bat-bateko bertsoen erritmo-antolakuntza ulertzeko, aipatutako alorrez gain, ezinbestekoa da testuinguruari erreparatzea zentzurik zabalenean. Hizketa mailari loturik, esaterako, erosoago edo errazago ahoskatzeak, kantatutakori kutsu informal edo arduragabea eman nahi izateak, bertsolari batzuen estilo propioak, eta abarrek hots katearen jarraitutasuna eta bilakabide fonologiko kohesiozile eta ahultzaileak ekarriko ditu berekin maila segmental eta silabikoan: kenketak, segmentuen ahultzeak, hitzen arteko mugak urtuta eginiko birsilabatzeak, etab. Eredu erritmikoei eta taldekatzeari dagokienez ere ikusi ditugu horrelako gertakariak: silaben balio erritmikoa parekatzea, eremu bat osatzen duten elementuak trinkotzea, erritmikoki mugatutako unitateak ondokoengana gerturatzea edo egiturazko etenak ez gauzatzea. Horren aurrez-aurre, txapelketaren formaltasunak, kantatutakoa argi ahoskatu nahiak zein bertsolari batzuen estilo propioak, besteak beste, aurkako bilakabideak aktibatuko dituzte maila segmental eta silabikoan: epentesiak, muga prosodikoak nabarmentzea (silabatik hasita), hitzak mugatzea, etab. Eredu erritmikoei eta taldekatzeari erreparatuta ere gertatzen dira joera indartzaileok: hitzen mugen edo azentuaren araberrako aldaera erritmikoak gauzatzea, edo hitz eta sintagmak mugatzeko gauzatutako eten gehigarriak egitea, besteak beste.

Bestalde, aztertutako gertakariak ezin uler litezke aurreko atalean aipatutako bertsoaren egiturarik gabe: metrikak eta bertsolariak bertsoa eraikitzeke duen moduak hainbat gertakari

segmental eta silabiko baldintzatuko ditu (dieresia, sinalefa eta sineresia, gehiketa eta kenketa, kasu), baita aldaera erritmikoen eta etenen gauzatzea zein osagai linguistikoen taldekatzea ere, unitate metrikoen (puntua, hemistikioa, etab.) edo bertsoaren eraikuntzan funtsezko diren oina edo azken puntua bezalako osagaien arabera.

Musikak (doinuak) eta kantaerak ere hotsezko hainbat gertakari eragin ditzakete, maila oso desberdinetan: silabatzeari buruzko atalean jasotako gertakari foniko indartzaile zenbait, silaben balio erritmikoak edo taldekatzearen atalean jasotako hemistikio barreneko osagaien gauzatze prosodikoa, besteak beste, doinuaren eta kantaeraren ezaugarrietatik ulertu ahalko da sarri. Gainera, bertso-neurriari loturik aurkitutako zenbait irregulartasun musikak eskaintzen duen dimentsio erritmikotik uler daiteke, esan bezala.

Corpusean jasotako irregulartasun horien agerpena eta desagerpena ulertzeko funtsezko beste elementu bat epai-irizpideena da: aztertutakoak txapelketako bertsoak izaki, horiek epaitzeko ezarritako arauak eta arau horiek oinarrian duten bertsogintzaren ulerkerak zenbait gako eman ditzake unean-uneko normak bertsolarien jarduna hein batean baldintza dezakeela utziz agerian. Horri loturik ulertu behar dira garaian-garaiko bertsolari eta bertsogintza kanonak zein bertsolari bakoitzaren estiloa edo proposamen artistikoa ezaugarri prosodikoen eta aldakortasun prosodikoaren eragile posible gisa. Izan ere, aztertutako alor guztietan jaso dut bertsolarien arteko aldakortasuna, neurri handiagoan edo txikiagoan. Hizkuntzak eskaintzen dituen aukeren artean bertsolari bakoitzak bere “silabatze-formulak” darabiltzala esan daiteke, esaterako, bilakabide segmentalen gauzatzeetatik hasi eta behar metrikoen aurrean erantzuteko estrategia propioetaraino. Horiek batzuetan bat etorri arren, beste batzuetan ez dira berberak bertsolari batetik bestera. Gauza bera gertatzen da bertsoetan gauzatutako aldaera erritmikoekin eta taldekatzearekin: hamarkaden zein bertsolarien arteko aldeak aurkitzen dira silaben balio erritmikoa parekatzeko moduetan edo puntuaren eremua mugatzen duen etenik ez egiteko joeretan, adibidez.

11.4. Etorkizunerako ikerlerroak

Sarreran aipatu bezala, tesi honek abiapuntu izan nahi luke aurrera begira lan honetan aztertutakoak sakondu zein bestelako ardatzak proposatu eta ikergaia zabaltzeko, (ia) dena baitago oraindik egiteko bat-bateko bertsoen prosodiaren ikerketan. Eraikitzen hasitako marko teoriko-interpretatiboa osatzea da etorkizunean egin beharreko lanetako bat, bertsoetako gertakariak modu aberatsagoan eta sakonago ulertu ahal izateko. Musikaren, kantagintzaren eta kognizioaren alorretan sakontzeak zein bertsoen testuinguruak (zentzurik zabal eta konplexuenean) bertsolarien ekoizpena

bera baldintzatzeko dituen moduak ulertzeko helduleku teoriko-analitikoak izateak lagunduko luke, besteak beste, bertsolarien kantuzko ezaugarri eta gertakari zenbait hobeto ulertzen (bertsolarien arteko aldeak, esaterako). Fonologiazko gaietan sakontzen jarraitzeak berak zein morfosintaxitik, semantikatik edo pragmatikatik eginiko ikerketek ere heldulekuak eskainiko lituzkete lan honetan jasotako gertakarietako batzuk modu osoagoan kokatzeko (adierazkortasunari lotuta aipatutako auziak, besteren artean).

Aztertutako corpusak ere mugak ditu, noski, eta marko teorikoa zabaltzea bezain aberasgarria litzateke bertso gehiagoren azterketarekin ekarpena egitea orain arte proposatutakoari: beste bertsolari batzuk, beste saio-mota batzuk, bat-batean sortzeko beste ariketa batzuk, beste garai batzuk, etab. aztertzeak lan honetan proposatutakoak sendotzen, osatzen, ñabartzen edo ezeztatzen lagunduko luke. Are, ekarpena egingo luke antzeko testuinguruetan eta bertsolari berberak ekoiztutako bertsoen azterketak ere.

Lan honek sakonago aztertu dituen alorrei dagokienean ere badago zer landua aurrera begira. Batetik, silabatzeari eta hari lotutako bilakabide segmentalei dagokienez, beharrezkoa litzateke landutako gertakari fonikoetako bakoitzean sakontzea, bai deskribapen fonetikoan (tresnabidezko azterketetan) bai gauzatzen diren testuinguruen ulerkeran. Lan honetan jasotako gertakari batzuk sistematikoki aztertzea ere beharrezkoa litzateke: bokal arteko herskarien gauzatzea, esaterako. Era berean, beharrezko da lan honetan aztertu gabeko txandakatzeak jaso eta bat-bateko bertsoetan gertatzen diren bilakabideen mapa osatzea, horien gauzatze-eremu eta testuinguruak ezagutzuz.

Azentu-ereduen ulerkeran, metodologikoki corpus-azterketa baliatu izanaren mugak gaintitzea litzateke beharrezko, besteak beste. Azentu linguistiko eta musikalen bat (ez) etortzearen auziari zein eredu erritmikoen aldakortasunari (horien ekoizpen-asmo eta hautemateari), oro har, heltzeko garrantzitsua litzateke bide esperimentalean ekoizpen zein hautemate frogak egitea askotariko bertsolari zein entzuleekin (kontuan hartuta bat-bateko bertsoetan ohikoa den testuingurutik at testatuko direla ziurrenik hiztunak). Era berean, gai horiei buruzko sakoneko elkarrizketak egitea ere beharrezkoa litzateke bertsolariekin eurekin eta askotariko entzuleekin. Bestelako metodologiak baliatzeak ahalbidetuko luke beharbada corpus azterketatik harrapagaitz gertatzen den auzia ulertzeko gako batzuk mahai-gaineratzea. Edonola ere, eginiko corpus azterketa osatuko luke aztertutako bertsolarien hitz lauko zein bestelako hizketa-molde batzuen azterketak ere. Horrek berak euskarri berriak emango lituzke lan honetan jasotako gertakariak interpretatzeko, ziur aski.

Erritmo-ereduez aritzean aipaturiko ideia metodologikoak baliagarriak lirateke taldekatzearen azterketan sakontzeko ere: ekoizpen eta hautemate frogak, sakoneko elkarrizketak zein hitz lauaren

azterketa lagungarri lirateke lan honetan eginiko interpretazioa osatzeko. Interes bereziko aztergaiak lirateke, nire ustez, molde handiko neurrietan hamar silabako hemistikioaren baitako 5 + 5 taldekatzearen auzia (eta horren derrigortasuna, doinuaren ezaugarriekin duen lotura, etab.) edo dimentsio musikala baliatuz gauzatutako irregulartasun metrikoena. Bietan ere testuinguruaren araberako aldakortasuna (txapelketako saioa vs. bertso-afari batekoa, adibidez) zein denboran eta espazioan (Euskal Herriko geografian) zeharreko bilakaera aldagai esanguratsu izan daitezkeelakoan nago.

Lan honetan ez dut —hautemate pertsonalaren bidez edo kasu zehatzetan ez bada— *tempo*aren, garaieraren (melodiaren) edo intentsitatearen eragina aztertu bertsoen silabatzean eta hari lotutako bilakabide segmentaletan, bertsolariek gauzatutako eredu erritmikoetan eta horien aldaeretan zein ahoskatutako unitate prosodikoetan. Hitz lauz gertatu bezala, osagai prosodikoen arteko elkarrengain aurreikustekoa da. Horregatik, landu gabeko alor prosodiko horietan sakontzeak osatu egingo luke tesi honetan eginikoa.

Zabalago, hizkuntza, metrika eta musikaren arteko elkarrekintzan askotariko ertzak dira ikergai: doinuek eta kantaerek diskurtso-egiturarekin eta konnotazioekin dituzten loturak; bertsolarien adierazkortasun baliabideak, prosodiari lotuta (literaturan *word painting* gisa ezagutzen dena, besteren artean: hitzez esandako horren esanahia kantuko ezaugarrien bidez irudikatzea); etab.

Euskarazko bat-bateko bertsogintzaren azterketak diziplinarteko lanketa behar du derrigor lan honetan agerian geratu denez. Hori dela eta, gorago esan bezala, tesian proposatutako ikuspegi, metodologia eta aztergaietan sakontzeaz gain, funtsezkoa da bestelako begirada, molde eta ikerbideak txertatu eta eremu desberdinen arteko loturak egitea.

Erreferentziak:

- Abercrombie, David. (1964). *English phonetic texts*. London: Faber and Faber.
- Abercrombie, David. (1967). *Elements of general phonetics*. Edinburgh: Edinburgh University Press.
- Agirreazaldeggi, Ainhoa eta Arkaitz Goikoetxea. (2007). Verse Schools. *Oral Tradition* 22 (2). 65–68.
- Aierdi, Xabier, Juan Aldaz, Eider Alkorta, Alfredo Retortillo eta Harkaitz Zubiri. (2007). *Bertsolaritza, tradizio modernoa*. Bilbo: University of the Basque Country.
- Aizpurua, Karlos, Amaia Altube, Estitxu Arozena, Iñaki Aurrekoetxea, Itziar Eizagirre, Arkaitz Estiballes, Iñaki Gurrutxaga, Joxin Iturrioz, Josu Landeta, Joxema Leitza, Etxahun Lekue, Irati Lotina, Unai Ormaetxea, Oihane Perea, Kattalin Salaberri, Aitor Sarasua, Nerea Urrea & Josune Zabala. 2008. *Bertsolaritzaren Curriculum Lehen Hezkuntzan*. Andoain: Euskal Herriko Bertsozale Elkartea & Lanku Bertso Zerbitzuak S.L.
- Aizpurua Insausti, Ainhoa. (2017). Bokal triangeluaren erpinak. Bi bertsolari aztergai hitz lauz eta bertsotan, in Iñaki Alegría Loinaz, Ainhoa Latatu, Miren Josu Omaetxebarria Ibarra eta Patxi Salaberri Muñoa (arg.), *II. Ikergazte nazioarteko ikerketa euskaraz: Kongresuko artikulua-bilduma*. Bilbo: UEU. 103-110.
- Aizpurua Insausti, Ainhoa. (2019a). Silaben balio erritmikoa parekatzea: bertsoen azterketatik hurbilpen bat, in Itziar Aduriz eta Ruben Urizar (arg.), *Hizkuntzalari Euskaldunen III. Topaketa. Zer berri?* Bilbo: UEU. 45-57.
- Aizpurua-Insausti, Ainhoa. (2019b). Etenak abiapuntu: bertsoetako eremu prosodikoez, in Irantzu Epelde Zendoia eta Oroitz Jauregi Nazabal (arg.), *Bihotz ahots. M.L. Oñederra irakaslearen omenez*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua. 31-44.
- Alberdi, Andres. (2014). *Ahoskera*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Alberdi, Uxue. (2019). *Kontrako eztaeratik. Emakume bertsolarien testigantzak*. Zarautz: Susa.
- Allen, W. Sidney. (1964). On quantity and quantitative verse, in David Abercrombie, P.A.D. MacCarthy, N.C. Scott, eta J.L.M. Trim (arg.), *In Honour of Daniel Jones*. London: Longmans, Green. 3-15.

- Allen, George D. (1975). Speech rhythm: its relation to performance universals and articulatory timing, *Journal of Phonetics* 3. 75-86.
- Altube, Seber. (1932). *El acento vasco (en la prosa y en el verso)*. Bermeo: Gaubeka.
- Altuna, Francisco María [Patxi]. (1979a). *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación*. Bilbo: Mensajero, D.L.
- Altuna, Patxi. (1979b). Oihenarten metrika, *Fontes Linguae Vasconum*, 32. 269-284.
- Altuna, Patxi. (1980). Zenbait sintagmaren batasun hauskorra Ziburuko Etxeberrigan, *Euskera* 25, 2. 381-397.
- Altuna, Patxi. (1991). ¿Son endecasílabos los versos de Dechepare?, *ASJUren gehigarriak*, 14-1. 93-105.
- Altuna, Patxi. (1992). Tratado de métrica vasca (1872), *Fontes Linguae Vasconum*, 59. 119-164.
- Altuna, Patxi. (1994). Bertso-lerroa, *Euskera*, 39-3. 1221-1231.
- Altzibar, Xabier (arg.). (1998). Art poétique basque Adéma “Zalduby”-rena, *Lapurdum*, III. 77-101.
- Altzibar, Xabier. (2008a). Aferesi, *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. Sarean: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?search=aferesi&bila=bai&option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474 (Azken kontsulta: 2023-12-05).
- Altzibar, Xabier. (2008b). Apokope, *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. Sarean: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?search=apokope&bila=bai&option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474 (Azken kontsulta: 2023-12-05).
- Amuriza, Xabier. (1981a). *Bertsolaritza 1: Hitzaren kirol nazionala*. Bilbo: AEK.
- Amuriza, Xabier. (1981b). *Bertsolaritza 2: Hiztegi errimatua*. Bilbo: AEK.
- Amuriza, Xabier. (1982). *Zu ere bertsolari*. Donostia: Elkar.
- Amuriza, Xabier. ([1981] 1997). *Hiztegi errimatua. Hitzaren kirol nazionala*. Gizaburuaga: Bizkaiko Bertsozale Elkarte.
- Amuriza, Xabier. (2017). Xabier Amuriza: bertsotan ikasteko metodoaren iraultzailea. Elkarriketa Andoni Egañaren eskutik, in *Bertsoa.eus (Bertsozale Elkarte)*. <https://bertsoa.eus/albisteak/6476-xabier-amuriza-bertsotan-ikasteko-metodoaren-iraultzailea> (azken kontsulta: 2023-12-05).

- Arana Goiri, Sabino. ([1986] 1965), *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino, Obras completas de Sabino Arana Goiri. Segundo tomo*. Donostia: Sendoa. 810-982.
- Aramendi, Martin. (2016). Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideen bilakaera eta bertsozaintzaren zenbait aje, HABEren C2ko Gaikuntza Ikastaroa, proiektua. Sarean: http://bdb.bertsozale.eus/uploads/liburutegia/xdz5_ld_000854.pdf (azken kontsulta: 2023-12-05)
- Aramendi, Martin. (2018). Gaur udaberri bat dabil, in Bertsozale Elkarte (arg.), *Bertsolari Txapelketa Nagusia 2017*. Andoain: Euskal Herriko Bertsozale Elkarte & Lanku Bertso Zerbitzuak S. L. 439-446. <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/albisteak/gaur-udaberri-bat-dabil> (azken kontsulta: 2018-07-27).
- Arana-Martija, Jose Antonio. ([1976] 1987). *Música Vasca*. Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína.
- Arana-Martija, Jose Antonio. (1980). Bertsoen doinua, *Jakin*, 14-15. 80-98.
- Árnason, Kristjan. (2009). Phonological domains in Modern Icelandic, in Janet Grizenhout eta Bariş Kabak (arg.), *Phonological Domains. Universals and Deviations*. Berlin/ New York: Mouton de Gruyter. 283-313.
- Aroui, Jean-Louis. (2009). Introduction. Proposals for metrical typology, in Jean-Louis Aroui eta Andy Arleo (arg.), *Towards a Typology of Poetic Forms. From language to metrics and beyond*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 1-39.
- Artetxe, Miren. (2014a). Bertsozaintzaren eragina Lapurdiko bertso-eskoletako gazteen identitatean eta hizkuntza erabileran: bertso-eskola jarduera komunitate gisa aztertzeko proposamena, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 92–93 (3–4). 11–31.
- Artetxe, Miren. (2014b). Les jeunes et la revitalisation du basque au pays basque nord. L'influence de la bertsozaintza sur l'usage de la langue et l'identité linguistique. *Zeszyty Łużyckie* 48. 129–146. Sarean: https://www.researchgate.net/publication/273339470_Les_jeunes_et_la_revitalisation_du_basque_au_pays_basque_nord_L%27influence_de_la_bertsozaintza_sur_l%27usage_de_la_langue (azken kontsulta 2023-12-05).
- Artetxe, Miren. (2018). Hiztun berriak eta bertso-mundua: Legitimatua a(ha)la auzitan jarri?, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 109. 45-72.
- Artetxe, Miren eta Ane Labaka (arg.). (2019). *Bertsozaintza feminismitik (bir)pentsetzen*. Bilbo: UEU.

- Artzelus Muxika, Alexander. (2021). *Garaziko euskararen hizkuntza-aldakortasuna*. Doktore tesia, UPV/EHU.
- Auer, Peter. (1990). A note on prosody in Natural Phonology, in Julián Méndez Dosuna eta Carmen Pensado (arg.), *Naturalists at Krems. Papers from the workshop on Natural Phonology and Natural Morphology* (Krems, 1-7 July 1988). Salamanca: Universidad de Salamanca. 11-22.
- Auer, Peter. (1993). Is a rhythm-based typology possible? A study of the role of prosody in phonological typology, (*KonTRI Working Paper 21*). Universität Konstanz. Sarean: http://paul.igl.uni-freiburg.de/auer/userfiles/downloads/Phonotypo_Kontri1.pdf (Azken kontsulta: 2023-12-05).
- Auer, Peter. (1994). Einige Argumente gegen die Silbe als universale prosodische Hauptkategorie, in Karl Heinz Ramers, Heinz Vater eta Henning Wode (arg.), *Universale phonologische Strukturen und Prozesse*. Tübingen: Niemeyer. 55-78.
- Auer, Peter. (2001). Silben- und akzentzählende Sprachen, in Martin Haspelmath, Ekkehard König, Wulf Oesterreicher eta Wolfgang Raible (arg.), *Language Typology and Language Universals*. Berlin/ New York: Walter de Gruyter. 1391-1399.
- Auer, Peter. (2010). Word and syllable languages. Thoughts on the typological and diachronic relevance of a prosodic distinction, *Phonological Typology of Syllable and Word Languages in Theory and Practice* mintegian Freiburg-eko unibertsitatean eginiko aurkezpena (Freiburg, 2010-03-29/31). Sarean: https://www.frias.uni-freiburg.de/de/das-institut/archiv-frias/school-of-lili/veranstaltungen/Dateien_Veranstaltungen/a1 (azken kontsulta: 2023-12-05).
- Auer, Peter. (2014). Preface, in Javier Caro-Reina eta Renata Szczepaniak (arg.), *Syllable and Word languages*. Berlin/ Boston: De Gruyter. 1-7.
- Aurrekoetxea, Gotzon; Iñaki Gaminde; Leire Gandarias eta Aitor Iglesias. (2011). Prosodic Variation in the Basque Language: Stress Areas, in Álvarez Pérez, Xosé Afonso, Ernestina Carrilho eta Catarina Magro (arg.), *Proceedings of the International Symposium on Limits and Areas in Dialectology (LimiAr)*. Lisboa: Centro de Linguística da Universidade de Lisboa. 35-51.
- Azkue, Resurrección María de. (1931). *Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos*. Bilbo: Editorial vasca, S.A.

- Azkue, Resurrección María de. ([1921,1925] 1990). *Cancionero popular vasco (Tercera edición)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Azurmendi, Joxe. (1980). Bertsolaritzaren estudiorako, *Jakin* 14/15. 139-164.
- Azurmendi, Maria Jose eta Francisco Olarte. (1983). Egungo euskararen silabaren zenbait eitezte ikerketa eta deskriptitzaile, ordenagailua erabiliz, *Iker* 1. 479-517.
- Barandiaran, Alberto. (2011). *Beste larogei urtian*. Andoain: Euskal Herriko Bertsozale Elkarte.
- Barwick, Linda; Bruce Birch eta Nicholas Evans. (2007). Iwaidja Jurtbirrk songs: Bringing language and music together, *Australian Aboriginal Studies*, 2007: 2. 6-34.
- Beardsley, Monroe C. (1972). Verse and music, in William Kurtz Wimsatt (arg.), *Versification. Major language types*. New York: New York University Press. 238-252.
- Beckman, Mary Esther. (1996). The parsing of prosody, *Language and Cognitive Processes*, 11: 1-2. 17-68.
- Beckman, Mary Esther eta Jennifer J. Venditti. ([1997] 2010). Tone and intonation, in William J. Hardcastle, John Laver eta Fiona E. Gibbon (arg.), *The Handbook of Phonetic Sciences. Second Edition*. West Sussex: Wiley-Blackwell. 603-652.
- Bertinetto, Pier Marco. (1977). “Syllabic Blood”, ovvero l’italiano come lingua ad isocronismo sillabico, *Studi di Grammatica Italiana* 6. 69-96.
- Bertinetto, Pier Marco. (1981). *Strutture prosodiche dell’italiano. Accento, quantità, sillaba, giuntura, fondamenti metrici*. Florentzia: Accademia della Crusca.
- Bertinetto, Pier Marco. (1989). Reflections on the dichotomy “stress” vs “syllable-timing”, *Revue de phonétique Appliquée* 91/93. 99-130.
- Bickel, Balthasar. (2007). Typology in the 21st century: major current developments. *Linguistic Typology* 11(1). 239-251.
- Bickford, Tyler. (2007). Music of poetry and poetry of song: expressivity and grammar in vocal performance, *Ethnomusicology*, 51: 3. 439-476.
- Birch, ([2014] 2017). 3. Data Collection, in Jacques Durand, Ulrike Gut eta Gjert Kristoffersen (arg.), *The Oxford Handbook of Corpus Phonology*. Oxford: Oxford University Press. 27-45.

- Blevins, Juliette. (1996). The syllable in phonological theory, in John A. Goldsmith (arg.), *The Handbook of Phonological Theory*. Cambridge/ Oxford: Blackwell Publishing. 206-244.
- Boersma, Paul & Weenink, David. (2021). Praat: doing phonetics by computer [programa informatikoa]. 6.4.02 bertsioa. Sarean: <http://www.praat.org/> (azken kontsulta: 2023-12-05).
- Brogan, Terry V.F. (1993). Verse and prose, in Alex Preminger eta Terry V.F. Brogan (arg.), *The New Princeton Encyclopedia of Poetry and Poetics*. Princeton, New Jersey: Princeton University Press.
- Bruce, Gösta. (1982). Textual aspects of prosody in Swedish, *Phonetica* 39. 274-287.
- Butcher, Andrew. (1981). Aspects of the speech pause: Phonetic correlates and speech functions. *Aipuk* (Arbeitsberichte Institut für Phonetik Kiel), 15.
- Caro-Reina, Javier eta Renata Szczepaniak (arg.). (2014). *Syllable and Word languages*. Berlin/ Boston: De Gruyter.
- Chen, Matthew Y. (1979). Metrical structure: evidence from Chinese poetry, *Linguistic Inquiry* 10, 3. 371-420.
- Chomsky, Noam eta Morris Halle. (1968). *Sound pattern of English*. New York: Harper and Row.
- Churma, Donald G. (1984). Impossible nativizations as phonological evidence and the explanation of constraints of phonological structure, *Journal of Linguistics* 20. 223-227
- Clark, John; Colin Yallop eta Janet Fletcher. ([1990] 2007). 9. Prosody, *An Introduction to Phonetics and Phonology (Third Edition)*. Oxford: Blackwell Publishing. 326-371.
- Classe, André. (1939). *The rhythm of English prose*. Oxford: Blackwell.
- Cooper, William E., Stephen J. Eady eta Pamela R. Mueller. (1985). Acoustical aspects of contrastive stress in question answer contexts, *Journal of the Acoustical Society of America*, 77. 2142-2156.
- Crystal, David. (1969). *Prosodic systems and intonation in English*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Dauer, Rebecca M. (1983). Stress-timing and syllable-timing reanalyzed, *Journal of Phonetics*, 11. 51-62.

- Dauer, Rebecca M. (1987). Phonetic and phonological components of language rhythm, in Tamaz Gamkrelidze (arg.), *Proceedings of the Eleventh International Congress of Phonetic Sciences, Tallin*, 5. 447-450.
- DeCastro-Arrazola, Varun. (2011). Doinuen hitzak, hitzen doinuak. Euskal abestien prosodia aztertzeke proposamena. Eresbil.
- DeCastro-Arrazola, Varun. (2015). The prosody of Basque songs: A methodological proposal, in Teresa Proto, Paolo Canettieri eta Gianluca Valenti (arg.), *Text and Tune. On the Association of Music and Lyrics in Sung Verse*. Berna: Peter Lang. 171-181.
- DeCastro-Arrazola, Varun. (2018). *Typological tendencies in verse and their cognitive grounding*. Utrecht: LOT.
- De Sisto, Mirella. (2020). *The interaction between phonology and metre. Approaches to Romance and West-Germanic Renaissance metre*. Amsterdam: LOT.
- De Sisto, Mirella eta Marc van Oostendorp. (2018). ‘Words’ vs ‘phrases’ as building blocks of poetic metrics, *The 15th Old World Conference on Phonology (OCP)* kongresuan emaniko hitzaldiaren esku-orria (Londres2018-1-12).
- Den Ouden, Hanny; Leo Noordman eta Jacques Terken. (2009). Prosodic realizations of global and local structure and rhetorical relations in read aloud news reports, *Speech Communication* 51. 116–129.
- Dell, Françoise eta John Halle. (2009). Comparing musical textsetting in French and English songs, in Jean-Louis Aroui eta Andy Arleo (arg.), *Towards a Typology of Poetic Forms: From language to metrics and beyond*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company. 63-78.
- Dellwo, Volker. (2006). Rhythm and speech rate: a variation coefficient for DeltaC, in Pawe Karnowski and Imre Sziget (arg.), *Language and language processing: proceedings of the 38th Linguistics Colloquium*. Frankfurt: Peter Lang. 231–241
- Deutsch, Diana. ([1982] 2013). Grouping mechanisms in music, in Diana Deutsch (arg.), *The Psychology of Music (Third Edition)*. London/ Waltham/ San Diego: Academic Press. 183-248.
- Deutsch, Diana (arg.). ([1982] 2013). *The Psychology of Music (Third Edition)*. London/ Waltham/ San Diego: Academic Press.
- Donegan, Patricia. (1985). *On the natural phonology of vowels*. New York: Garland Publishing Inc.

- Donegan, Patricia. (1993a). Rhythm and Vocalic Drift in Munda and Mon-khmer, *Linguistics of the Tibeto-Burman Area* 16:1. 1-43.
- Donegan, Patricia. (1993b). On the phonetic basis of phonological change, in Charles Jones (arg.), *Historical Linguistics: Problems and Perspectives*. 98-130.
- Donegan, Patricia eta David Stampe. (1978). The syllable in phonological and prosodic structure, in Alan Bell eta John Bybee Hooper, (arg), *Syllables and Segments* (Symposium on Segment organization and the syllable, Boulder, Colorado, Oct. 21-23, 1977). Amsterdam: North-Holland Publishing Company. 25-34.
- Donegan, Patricia eta David Stampe. (1979). The Study of Natural Phonology, in Daniel A. Dinnsen (arg.), *Current approaches to Phonological Theory*. Bloomington/ Londres: Indiana University Press. 126-173.
- Donegan, Patricia eta David Stampe. (1983). Rhythm and the holistic organization of language structure, in F. Richardson (arg.), *Parasession on the interplay of phonology, morphology & syntax*. Chicago: Chicago Linguistic Society. 337-353.
- Donegan, Patricia eta David Stampe. (2002). South-East Asian features in the Munda languages: Evidence for the analytic-to-synthetic drift of Munda, in Patrick Chew (arg.), *Proceedings of the 28th Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society, Special Session on Tibeto-Burman and Southeast Asian Linguistics, in honor of Prof. James A. Matisoff*. Berkeley, CA: Berkeley Linguistics Society. 111-129.
- Donegan, Patricia eta David Stampe. (2004). Rhythm and the Synthetic Drift of Munda, in Rajendra Singh (arg.), *Yearbook of South Asian Languages and Linguistics* 2004. Berlin / New York: Mouton de Gruyter. 3-36.
- Donegan, Patricia eta David Stampe. (2009). Hypotheses of Natural Phonology, in Katarzyna Dziubalska-Kořazyk (arg.), *Poznań Studies in Contemporary Linguistics* 45 (1). Poznań: Adam Mickiewicz University. 1-31.
- Donegan, Patricia eta Geoffrey S. Nathan. (2015). *Natural Phonology and Sound Change*. Oxford: Oxford Hanbooks online.
- Dorrnsoro, Joanito. (1981). *Bertsotan, 1789-1936*. Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea.
- Dorrnsoro, Joanito. (1982). *Bertsotan: irakaslearentzako gidaliburua*. Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea.
- Dorrnsoro, Joanito. (1988). *Bertsotan II, 1936-1980*. Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea.

- Dorronsoro, Joanito. (1995). *Bertso doinutegiaren katalogoa*. Donostia: Euskal Herriko Bertsolari Elkarte.
- Dressler, Wolfgang U. (1985). *Morphonology: the dynamics of derivation*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Dressler, Wolfgang U. (1996). Principles of naturalness in phonology and across components, in Bernhard Hurch eta Richard Rhodes (arg.), *Natural Phonology. The state of the art*. Berlin/ New York: Mouton de Gruyter. 41-51.
- Dressler, Wolfgang U.; Willi Mayerthaler; Oswald Panagl eta Wolfgang Ullrich Wurzel (1987). *Leitmotifs in Natural Morphology*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Dziubalska-Kolaczyk, Katarzina. (2002). *Beats and Binding Phonology*. Frankfurt: Peter Lang.
- Egaña, Andoni. (2003). Nolako gaia, halako neurria?, *Bertsolari* 49. 109-135.
- Egaña, Andoni. (2005). The Process of Creating Improvised Bertsoak, in Samuel G. Armistead eta Joseba Zulaika (arg.), *Voicing the moment. Improvised Oral Poetry and Basque Tradition*. Reno: Center for Basque Studies-University of Nevada. 305-322
- Egaña, Andoni. (2007a). The Process of Creating Improvised Bertsoak, *Oral Tradition*, 22/2. 117-142.
- Egaña, Andoni (2007b). Bertsoa neurriaren musikan, *Herri musikaren I. jardunaldiak. Herri Musika Bilduma*, 4. Astigarraga: Herri musikaren txokoa.
- Egaña, Andoni eta Jon Sarasua. (1997). *Zozoak beleari*. Irun: Alberdania.
- Egurtzegi, Ander eta Gorka Elordieta. (2023). A history of the Basque prosodic systems, *Diachronica*, 40-1. 30-72.
- Elfner, Emily. (2018). The syntax-prosody interface: current theoretical approaches and outstanding questions, *Linguistic Vanguard* 2018. 1-14.
- Eliasson, Stig. (2014). The typology of syllable and word languages and Swedish phonological structure, in Javier Caro Reina eta Renata Szczepaniak (arg.), *Syllable and Word languages*. Berlin/ Boston: De Gruyter. 43-86.
- Elordieta, Arantzazu. (2020). Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen, in Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga eta Borja Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari*. Iruñea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa. 223-236.

- Elordieta, Arantzazu; Gorka Elordieta eta José Ignacio Hualde. (2018). Menpeko perpausetako hitz azentugabeen foku azentuaz, *Fontes Linguae Vasconum* 126. 414-433.
- Elordieta, Gorka. (1997). Accent, tone and intonation in Lekeitio Basque, in Fernando Martínez-Gil eta Alfonso Morales-Font (arg.), *Issues in the phonology and morphology of the major Iberian languages*. Washington D.C.: Georgetown U.P. 1-78.
- Elordieta, Gorka. (1998). Intonation in a pitch accent variety of Basque, *ASJU* 32. 511-669.
- Elordieta, Gorka. (2001). R. M. de Azkueren euskal azentuari buruzko deskribapenak, *Euskera*, 46: 1. 243-255.
- Elordieta, Gorka. (2007a). Constraints on intonational prominence of focalized constituents, in B. Büring, M. Gordon eta C.L. Lee (arg.), *Topic and focus: Papers from a work-shop on intonation and meaning*. Dordrecht: Springer. 1-22.
- Elordieta, Gorka. (2007b). A constraint-based analysis of the intonational realization of focus in Northern Bikaian Basque, in T. Riad eta C. Gussenhoven (arg.), *Tones and Tunes: Volume I, Typological Studies in Word and Sentence Prosody*. Berlin: Mouton de Gruyter. 201-234.
- Elordieta, Gorka. (2007c). Minimum size constraints on intermediate phrases, in Jürgen Trouvain (arg.), *Proceedings of the XVI International Congress of Phonetic Sciences*. Universität Saarland. 201-234.
- Elordieta, Gorka. (2011). Euskal azentu eta intonazioari buruzko ikerketa: status quaestionis, in Joseba A. Lakarra, Joaquín Gorrochategui, Blanca Urgell (koord.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*. Bilbo: UPV/EHU. 389-428.
- Elordieta, Gorka. (2015). Recursive phonological phrasing in Basque, *Phonology* 32. 49-78.
- Elordieta, Gorka eta José I. Hualde. (2001). The role of duration as a correlate of accent in Lekeitio Basque, in *Proceedings of Eurospeech 2001 Scandinavia*, CPK. Aalborg: Aalborg University. 115-118.
- Elordieta, Gorka eta José I. Hualde. (2002). La duración como correlato acústico del acento en dialectos de acento tonal del euskera, in J. Díaz García (arg.), *Actas del II. Congreso de Fonética Experimental*. Sevilla: Universidad de Sevilla. 156-161.
- Elordieta, Gorka eta José I. Hualde. (2003a). Experimental study of a diachronic change in Basque accentuation, in Maria-Josep Solé (arg.), *Proceedings of the 15th International Congress of Phonetic Sciences*, Barcelona: ICPhS. 1683-1686.

- Elordieta, Gorka eta José I. Hualde. (2003b). Tonal and durational correlates of accent in contexts of downstep in Northern Bizkaian Basque, *Journal of the International Phonetic Association* 33. 195-209.
- Elordieta, Gorka eta José I. Hualde. (2014). Intonation in Basque, in Sun-Ah Jun (arg.), *Prosodic Typology II. The Phonology of Intonation and Phrasing*. Oxford/ New York: Oxford University Press. 405-463.
- Elordieta, Gorka eta Aritz Irurtzun. (2009). The prosody and interpretation of non-exhaustive narrow focus in Basque, *ASJU* 53. 205-230.
- Erdozia, José Luis. (2000). Sakana erdialdeko azentuaren deskribapena, *Fontes Linguae Vasconum* 32. 417-440.
- Esnaola, Pello. (1994). Puntua bertsolaritzan, *Euskera* 39:3. 1233-1270.
- Essens, P. J. (1986). Hierarchical organization of temporal patterns, *Perception and Psychophysics*, 40. 69-73.
- Etxebarria, Aintzane; Iñaki Gaminde; Urtza Garay eta Asier Romero. (2011). Prosodiaren garrantzia kortesia erlazioetan, *Euskalingua* 18. 13-21.
- Etxebarria, Pilartxo. (1990). *Zaldibiako bokalen azterketa akustikoa*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea-Mundaiz.
- Etxebarria, Pilartxo. (1998). Mintzakantuen oharmena, *Euskera* 43:2. 425-437.
- Etxenike, Maite. (1988). Stress and pitch; Luis Mitxelena zenak utzitako langaia, *Euskera* 23:2. 495-521.
- Etxepare Euskal Institutua eta Mintzola Ahozko Lantegia. (2019). *What is bertsolaritza?* dokumentala. Sarean: <https://www.youtube.com/watch?v=6Lk0FhAN3S8&list=PLouKOUe4gFQABuK1gm2gbKaLFVbrv1ngr> (azken kontsulta: 2023-12-05).
- Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak. (1985). Bapateko bertsogintza neurtzeko legeak eta erizpideak (Bertsolari Elkartearen Loiolako txostena, 1985-10-21), in *Bertsolaritza modernoaren bideak*, *Jakin* 44 (1987). 27-31.
- Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak. (1990). *Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia* 89. Donostia: Elkar.

- Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. (1997). *Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 97*. Donostia: Elkarlanean.
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. (2001). *Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak*. Euskal Herriko Bertsozale Elkarte (dokumentua).
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. (2005). *Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak: 2005eko Txapelketa Nagusia*. Euskal Herriko Bertsozale Elkarte (dokumentua).
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. (2009). *Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak: 2009ko Txapelketa Nagusia*. Euskal Herriko Bertsozale Elkarte (dokumentua).
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. (2013). *Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak: 2013ko Txapelketa Nagusia*. Euskal Herriko Bertsozale Elkarte (dokumentua).
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. (2017). Bertsolari Txapelketa Nagusia 2017. Epai irizpideak. Sarean: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/informazioa/epai-irizpideak> (Azken kontsulta: 2021-06-16).
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. (Sarean). Neurrian sartzen: esaldiak. *Bertso ikasgela*. Bertsozale Elkarte. Sarean: https://bertsoikasgela.eus/media//pdf/Zozoak_bleari_78-79.pdf (Azken kontsulta: 2023-08-01).
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Ikerketa Taldea. (2009). *Bertso-estrofa izendatzeko irizpideak* (sareko dokumentua). Bertsozale Elkarte. Sarean: <https://bdb.bertsozale.eus/common/file/get/67599> (Azken kontsulta: 2023-08-01).
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Ikerketa Taldea. (2021). *Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak* (sareko dokumentua). Bertsozale Elkarte.
- Euskaltzaindia. (1979). *Euskera XXIV* (2. aldia). (1979)-2. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fabb, Nigel eta Morris Halle. (2008). *Meter in poetry. A new theory*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Ferreira, Fernanda. (1991). Creation of prosody during sentence production, *Psychological Review* 100 (2). 233-253.
- Firth, John Rupert. (1948). Sounds and Prosodies, *Transactions of the Philological Society 1948*: 127–152. Berrargitaratua in Firth, *Papers in Linguistics 1934–1951*. London: Oxford University Press. 121–138.

- Fischer-Jørgensen, Eli. (1975). *Trends in Phonological Theory: A Historical Introduction*. Kopenhage: Akademisk Forlag.
- Fletcher, Janet. (2010). The Prosody of Speech: Timing and Rhythm, in William J. Hardcastle, John Laver eta Fiona E. Gibbon (arg.), *The Handbook of Phonetic Sciences. Second Edition*. West Sussex: Wiley-Blackwell. 524-602.
- Foley, John Miles. (2007). Basque oral poetry championship, *Oral Tradition*, 22(2). 3-11.
- Fougeron, Cécile eta Sun-Ah Jun. (1998). Rate effects on French intonation: prosodic organization and phonetic realization, *Journal of Phonetics* 26. 45-69.
- Fox, Anthony. (2000). *Prosodic Features and Prosodic Structure. The phonology of suprasegmentals*. Oxford: Oxford University Press.
- Fraisse, Paul. (1963). *The Psychology of Time*. New York: Harper and Row.
- Fraisse, Paul. (1982). Rhythm and tempo, in Diana Deutsch (arg.), *The Psychology of Music*. New York: Academic Press.
- Frankel, Hans. (1972). Classical Chinese, in William Kurtz Wimsatt (arg.), *Versification. Major language types*. New York: New York University Press. 22-37.
- Gaminde, Iñaki. (1992). *Urduliz eta Gatikako herri hizkeren azterketa linguistikoa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Gaminde, Iñaki. (1993). Bermeoko azentu-ereduaz, *Uztaro* 8. 105-117.
- Gaminde, Iñaki. (2004). Tonuak eta etenak Gatikako intonazioan, *Fontes Linguae Vasconum* 97. 519-536.
- Gaminde, Iñaki; Aintzane Etxebarria; Urtza Garay eta Asier Romero. (2013). La competencia prosódica en la lectura en voz alta: análisis de los aspectos rítmicos, *Onomázein* 27. 1-14.
- Gaminde, Iñaki; Urtza Garay; Aintzane Etxebarria eta Asier Romero. (2014). Oinarrizko emozioen ezaugarri akustikoez, *Fontes Linguae Vasconum* 117. 100-120.
- Gaminde, Iñaki; Inmaculada Hernáez; José Luis Alvarez «Txillardeggi» eta Pilartxo Etxebarria. (1998). Azentu, intonazio eta silabifikazioen funtzio bereizleez, *Revista de Psicodidáctica* 6. 79-98.
- Gaminde, Iñaki eta Jose Ignacio Hualde. (1995). Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa, *ASJU*, XXIX-I. 175-197.

- Gaminde, Iñaki; Aintzane Etxebarria, Urtza Garay eta Asier Romero. (2013). La competencia prosódica en la lectura en voz alta: análisis de los aspectos rítmicos, *ONOMÁZEIN* 27 (2013ko ekaina). 1-14.
- Gaminde, Iñaki; Asier Romero; Aintzane Etxebarria eta Urtza Garay. (2015). Diferencias en los formantes vocálicos de [a] según el tipo de emoción y otras variables sociolingüísticas, *Boletín de Filología, Tomo L, 2*. 33-50.
- Gaminde, Iñaki; Jasone Salaberria eta Ander Olalde. (2009). Aldaketak Prosodiaren Esparruan: Ikergaiak eta arazo metodologikoak, *Lapurdum* 13. 183-199.
- Garzia, Joxerra. (2000). *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak*. Bilbo: EHU.
- Garzia, Joxerra. (2007a). Bertsolaritza in the School Curriculum. *Oral Tradition*, 22/2. 69-76.
- Garzia, Joxerra. (2007b). History of Improvised *Bertsolaritza*: A Proposal. *Oral Tradition*, 22/2. 77-115.
- Garzia, Joxerra. ([2013] 2021). *Bertsolaritza. El bertsolarismo. Bertsolaritza*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.
- Garzia, Joxerra; Jon Sarasua eta Andoni Egaña. (2001). *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*. Donostia: Bertsozale Elkarte.
- Gavel, Henri. (1921). *Eléments de Phonétique Basque*. *RIEV* 12, 1. 1-542.
- Gee, James Paul eta François Grosjean. (1983). Performance structures: A psycholinguistic and linguistic appraisal, *Cognitive Psychology*, 15: 4. 411-458.
- Goicoechea, Juan Ignacio ["Gaztelu"]. (1963) *Musika ixilla*. Donostia: Auñamendi.
- Grabe, Esther eta Ee Ling Low. (2002). Durational variability in speech and the rhythm class hypothesis, in Carlos Gussenhoven eta Natasha Warner (arg), *Laboratory Phonology 7*. Berlin, Germany: Mouton de Gruyter. 515-546.
- Greenall, Annjo K. (2015). Textsetting in translation: Rhythmical (non-)equivalence in the works of three Scandinavian 'singer-translators, in Proto, Teresa, Paolo Canettieri eta Gianluca Valenti (arg.), *Text and tune. On the association of music and lyrics in sung verse*. Berna: Peter Lang. 313-331
- Grijzenhout, Janet eta Bariş Kabak (arg.). (2009). *Phonological Domains. Universals and Deviations*. Berlin/ New York: Mouton de Gruyter.

- Gut, Ulrike eta Holger Voormann. ([2014] 2017). 2. Corpus design, in Jacques Durand, Ulrike Gut eta Gjert Kristoffersen (arg.), *The Oxford Handbook of Corpus Phonology*. Oxford: Oxford University Press. 13-26.
- Halle, John eta Jean-Roger Vergnaud. (1987). *An Essay on Stress*. Cambridge, Mass: MIT Press.
- Halle, John eta Fred Lerdahl. (1993). A generative textsetting model, *Current Musicology* 55 (1993). 3-23.
- Haritschelhar, Jean. (1969). 'Musique et poesie' eta 'La mètrique populaire basque', *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862). Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIX^e siècle*. Baiona: Société des Amis du Musée Basque. 379-508.
- Hayes, Bruce. (1985). *A metrical theory of stress rules*. Ney York: Garland Press.
- Hayes, Bruce. (1988). Metrics and phonological theory, in Frederick J. Newmeyer (arg.), *Linguistics: The Cambridge Survey, 2. lib. Linguistic Theory: Extensions and Implication*. Cambridge: Cambridge University Press. 220-49.
- Hayes, Bruce. (1989). The prosodic hierarchy in meter, in Paul Kiparsky and Gilbert Youmans (arg.), *Rhythm and Meter*. Orlando: Academic Press. 201-260.
- Hayes, Bruce. (2009). Textsetting as a constraint conflict, in Jean-Louis Aroui eta Andy Arleo (arg.), *Towards a Typology of Poetic Forms: From language to metrics and beyond*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company. 43-61.
- Hayes, Bruce eta Abigail Kaun. (1996). The role of phonological phrasing in sung and chanted verse, *The Linguistic review* 13 (1996). 243-303.
- Hayes, Bruce eta Margaret MacEachern. (1996). Are there lines in folk poetry?, *UCLA Working papers in Phonology* 1. 125-142.
- Hayes, Bruce eta Margaret MacEachern. (1998). Quatrain form in English folk verse, *Language* 74, 3. 473-507.
- Heinz, Matthias. (2014). Syllable complexity in the diachrony of Romance languages: A center vs. Periphery view and the syllable vs. Word rhythm paradigm, in Javier Caro Reina eta Renata Szczepaniak (arg.), *Syllable and Word languages*. Berlin/ Boston: De Gruyter. 87-111.
- Hernández, Jone M. (2008). Euskara birpentsatu beharra, ekarpen batzuk antropologiatik, *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 69/4. 27-42.

- Hernández, Jone M. (2016). Odolak badu generorik? Edo zergatik gorputz emeak ez diren bertsoarako bizitoki, in Mari Luz Esteban eta Jone M. Hernández (koord.), *Etnografia feministak Euskal Herrian. XXI. Mendera begira dagoen antropologia*, 27-42. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Hernández, Jone M. (2017). A bertso home: architectures of the word and constrictions of gender, in Xabier Irujo (arg.), *World Improvised Verse Singing: Europa bat-batean*. Reno: Center for Basque Studies. 54-64.
- Hernández, Jone M. (2019). Gorputz bat ikusten dut zure ahotsean: gorputz generizatuak bertsoaritzaren soinu-bidean, in Miren Artetxe Sarasola eta Ane Labaka Mayoz (arg.), *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentsatzen*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea. 133-153.
- Herri Musikaren Txokoa. (2007). *Herri musikaren I. Jardunaldiak. Herri musika-bertsolaritza* (Oiartzun, 2002-11-30 eta 2002-12-01). *Herri musika bilduma*, 4. Astigarraga: Herri Musikaren Txokoa.
- Coseriu, Eugenio. (1968). Sincronía, diacronía e historia, *Actas del 11 Congreso Internacional de lingüística y filología románicas*. Madril: CSIC. 269-283.
- Coseriu, Eugenio. (1980). Der Sinn der Sprachtypologie, *TCLC* 20. 157-170.
- Honing, Henkjan. (2013). Structure and interpretation of rhythm in music, in Diana Deutsch (arg.), *The Psychology of Music (Third Edition)*. London/ Waltham/ San Diego: Academic Press. 369-404.
- Hualde, Jose I. (1991). *Basque phonology*. London / New York: Routledge.
- Hualde, Jose I. (1994), Euskal azentuen sailkapenaz eta historiaz, in Ricardo Gómez eta Joseba A. Lakarra (arg.), *Dialektologia Kongresua. ASJU-ren Gehigarriak*. 189-208.
- Hualde, Jose I. (1995). Reconstructing the Ancient Basque Accentual System: Hypotheses and evidence, in Jose Ignacio Hualde, Joseba Andoni Lakarra eta R.L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language*. Amsterdam: John Benjamins. 171–188
- Hualde, Jose I. (1997). *Euskararen azentuerak (ASJUren gehigarriak 42)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hualde, Jose I. (2003), Phonology, in Jose I. Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin, Mouton de Gruyter. 15-113.

- Hualde, Jose I. (2019). Fonologo baten galderak espektrogramaren aurrean, in Irantzu Epelde eta Oroitz Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*. Bilbo: EHU. 337-351.
- Hualde, Jose I. eta Ander Beristain. (2018). Azpeitiko azentuaren gauzatze fonetikoaz, *Fontes Linguae Vasconum* 49, 123. 65-85.
- Hualde, Jose I. eta Ander Beristain. (2018). Acoustic correlates of word-accent in Basque, *TAL2018, Sixth International Symposium on Tonal Aspects of Languages* (Berlin, 2018-06-18/20).
- Hualde, Jose I., Gorka Elordieta eta Arantzazu Elordieta, (1994). *The Basque dialect of Lekeitio. (ASJU-ren Gehigarriak 34)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hualde, Jose I.; Gorka Elordieta; Iñaki Gaminde eta Rajka Smiljanić. (2002). From pitch-accent to stress-accent in Basque, in Carlos Gussenhoven eta Natasha Warner (arg.), *Laboratory Phonology* 7. Berlin: Mouton de Gruyter. 547-584.
- Hualde, Jose I.; Oihana Lujanbio eta Francisco Torreira. (2008). Lexical tone and stress in Goizueta Basque, *Journal of the International Phonetic Association* 38: 1. 1-24.
- Huron, David eta Matthew Royal. (1996). What is Melodic Accent? Converging Evidence from Musical Practice, *Music Perception* 13. 489-516.
- Hurch, Bernhard. (1987). On aspiration with special reference to Basque, in Pello Salaburu (arg.), *Euskal Morfosintaxia eta Fonologia, Eztabaida Gaiak*. Bilbao : EHU/UPV. 32-52.
- Hurch, Bernhard. (1988a). Phonetics and Phonology or Phonology and Phonetics, *Zeitschrift für phonetische Sprachwissenschaft und Kommunikationsforschung* 41:3. 346-352
- Hurch, Bernhard. (1988b). On the notion “latent process”, Pier Marco Bertinetto eta Michele Loporcaro (arg.), *Certamen Phonologicum*. Torino: Rosenberg & Sellier. 103-115.
- Hurch, Bernhard. (1988c). Is Basque a syllable-timed language?, *ASJU XXII-3*. 813-825.
- Hurch, Bernhard. (1994). Morphoprosody: Some reflections on accent and morphology, in Rajendra Singh (arg.), *Trubetzkoy's Orphan. Proceedings of the Montréal Roundtable 'Morphology: Contemporary Responses'*. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins. 189-221.
- Hurch, Bernhard. (1996). Accentuations, in Bernhard Hurch & Richard A. Rhodes (arg.), *Natural Phonology: the State of the Art*. Berlin/ New York: Mouton de Gruyter. 73-96.

- Hurch, Bernhard. (2006a). Natural Phonology, in Keith Brown (arg.) *Encyclopedia of Language and Linguistics* (2nd ed.). Oxford: Elsevier. 541-543.
- Hurch, Bernhard. (2006b; eskuizkribua). Typologische Implikationen einer kontrastiven Prosodie, (Frankfurt-eko Unibertsitatean, Gradueiertenkolleg-en emandako hitzaldia).
- Hurch, Bernhard. (2008). The syllable and syllabic type, *CUNY Conference on the syllable* kongresuan emaniko hitzaldiaren laburpena.
- Hurch, Bernhard. (2013). Syllabic Typology, Madrilgo UIMP-eko Máster de Fonética y Fonología-n emandako aurkezpenaren PPT-a.
- Hurch, Bernhard eta Miren Lourdes Oñederra. (1987). Euskarazko fonologiaren zenbait bilakabidez, in Pello Salaburu (arg.), *Euskal Morfosintaxia eta Fonologia, Eztabaida Gaiak*. Bilbao : EHU/UPV. 9-27.
- Hyman, Larry M. (2008). Directional asymmetries in the morphology and phonology of words, with special reference to Bantu, *Linguistics*, 46. 309-350.
- Hyman, Larry M. (2012). In defense of prosodic typology: A response to Beckman & Venditti, *Linguistic Typology*, 16. 341-385.
- Hyman, Larry M. (2018). What is phonological typology?, in Larry M. Hyman eta Frans Plank (arg.), *Phonological Typology*. Berlin/ Boston: Mouton de Gruyter.
- Hyman, Larry M. (2019). Prosodic asymmetries in nominal vs. verbal phrases in Bantu, *UC Berkeley Phonetics and Phonology Lab Annual Report (2019)*. 90-107.
- Igartua, Iván. (2002). Euskararen hasperena ikuspegi tipologiko eta diakronikotik, in Xabier Artiagoitia, Patxi Goenaga eta Joseba A. Lakarra (arg.), *ASJUren gehigarriak 44*. 367-391.
- Igartua, Iván. (2023). *Fundamentos de tipología lingüística*. Madril: Síntesis.
- Iglesias, Aitor. (2008). Igorreko azentuaz, *Euskalingua* 13. 16-26.
- Iglesias, Aitor. (2014). *Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa*. Gasteiz: UPV/EHU.
- Iglesias, Aitor; Naia Eguskiza; Iñaki Gaminde eta Lorea Unamuno. (2017). Igorreko azentuaren korrelato akustikoez, in Lorea Unamuno, Asier Romero, Aintzane Etxebarria eta Aitor Iglesias (arg.), *Euskararen bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza III*. Bilbo: UPV/EHU.

- Inkelas, Sharon eta Draga Zec. (1993). Auxiliary reduction without empty categories: A prosodic account, *Working Papers of the Cornell Phonetics Laboratory* 8. 205-253.
- Iraizoz Remiro, Urtzi. (2012). *Tenporalizazioa bertolaritzan. Bi bertolariren arteko alderaketa*. Nafarroako Unibertsitate Publikoan aurkeztutako Master Amaierako Lana (argitaragabea).
- Irazu, Alberto. (2017). *Rocka puntua!* Iruñea: Pamiela.
- Irurtzun, Aritz. (2004). Stress on Accent; Errenteria Basque Revisited, in *Proceedings of the 15th International Congress of Phonetic Sciences*. Barcelona: ICPhS. 2075-2078.
- Ito, Junko eta Armin Mester (2012). Recursive prosodic phrasing in Japanese, in Toni Borowsky, Shigeto Kawahara, Takahito Shinya & Mariko Sugahara (arg.) *Prosody matters: essays in honor of Elisabeth Selkirk*. London: Equinox. 280–303.
- Ito, Junko eta Armin Mester (2013). Prosodic subcategories in Japanese, *Lingua* 124. 20–40.
- Iza, Iban. (2010). *Ikastola mugimendua, dabilen herria. Ikastola ereduak 1960-2010*, Jagon Saila. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Jakobson, Roman. (1937). Über die Beschaffenheit der prosodischen Gegensätze, *Mélanges de linguistique et de philologie offerts à J. van Ginneken*. Paris.
- Jakobson, Roman. ([1960] 1987). Linguistics and poetics, in Krystyna Pomorska eta Stephen Rudy (arg.), *Roman Jakobson. Language in Literature*. Cambridge: Harvard University Press. 62-94.
- Janda, Richard D. eta Terrell A. Morgan. (1988). El acento dislocado –pues cantado– castellanó: on explaining stress-shift in song texts from Spanish (and certain other Romance languages), in David Birdsong eta Jean-Pierre Montreuil (arg.), *Advances in Roman Linguistics*. Dordrecht: Foris. 151-170.
- Jauregi, Oroitz. (2004). Hizketa arduragabearen tresnabidezko azterketa akustikoa, *ASJU* 38: 1. 367-402.
- Jauregi, Oroitz. (2007). *Euskararen silaba: egitura eta historia*. Bilbo: UPV/EHU.
- Jauregi, Oroitz. (2008). Sobre la naturaleza de la sílaba y la estructuración de sus elementos en euskera, *ASJU* 42:2, 337-352.
- Jauregi, Oroitz. (2011). Ba ote dago euskal dialektoen arteko "continuum"-ik tipologia prosodikoaren ikuspegitik?, in Joseba Andoni Lakarra Andrinua, Joaquín Gorrochategui

- Churruca, Blanca Urgell Lázaro (koord.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra: Gasteiz, 2007ko urriaren 8tik 11ra, Filologi eta Geografi-Historia Fakultateko Aula Magnan*. Bilbo: UPV/EHU. 323-336.
- Jauregi, Oroitz. (2015). Euskarazko silaba egiturak zen.ba.tzen, Maria José Ezeizabarrena eta Ricardo Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrikee Knör irakasleari (1947-2008)*. 325-336.
- Jauregi, Oroitz. (2021). Euskararen erritmoa neurtzen, *Fontes Linguae Vasconum* 132. 257-278.
- Jauregi, Oroitz eta Miren Lourdes Oñederra. (2010). Sibilantes tras consonante sonante en euskera: inserción vs. Africación, fonética y fonología, *Revista de Estudos Linguísticos de Universidade do Porto*, 5. 71-89.
- Jekiel, Mateusz. (2014). Comparing rhythm in speech and music: The case of English and Polish, *Yearbook of the Poznań Linguistic Meeting* 1. 55-71.
- Jun, Sun-Ah. (1993). *The Phonetics and Phonology of Korean Prosody*. Doktore-tesia, OSU. Columbus, Ohio. (Argitaratua: Jun, Sun-Ah. (1996). *The Phonetics and Phonology of Korean Prosody*. New York: Garland Publishing Inc.).
- Jun, Sun-Ah. (2003). Prosodic Phrasing and Attachment Preferences, *Journal of Psycholinguistic Research* 32:2. 219-249.
- Jun, Sun-Ah. (2005). Prosodic Typology, in Sun-Ah Jun (arg.), *Prosodic Typology. The Phonology of Intonation and Phrasing*. Oxford/ New York: Oxford University Press. 430-458.
- Jun, Sun-Ah. (2014). Prosodic typology: by prominence type, word prosody, and macro-rhythm, in Sun-Ah Jun (arg.), *Prosodic Typology II. The Phonology of Intonation and Phrasing*. Oxford/ New York: Oxford University Press. 520-539.
- Jun, Sun-Ah eta Gorka Elordieta. (1997). Intonational Structure of Lekeitio Basque, in Antonis Botinis, Georgios Kouroupetroglou eta G. Carayiannis (arg.), *Intonation: Theory, Models and Applications. Proceedings of an ESCA Workshop*. Atenas: ESCA. 193-196.
- Juslin, Patrick N. eta John A. Sloboda. (2013). Music and emotion, in Diana Deutsch (arg), *The Psychology of Music (Third Edition)*. London/ Waltham/ San Diego: Academic Press. 583-645.
- Karlsson, Anastasia; Hakan Lundström; Jan-Olof Svantesson eta Siri Tuttle. (2014). Speech and song: investigating the borderland, in Gerda Lechleitner eta Christian Liebl (arg.),

Jahrbuch des Phonogrammarchivs der Österreichischen Akademie der Wissenschaften
4. Göttingen: Cuvillier. 142-179.

- Karlsson, Anastasia; David House eta Jan-Olof Svantesson. (2015). Prosodic signaling of information and discourse structure from a typological perspective, in The Scottish Consortium for ICPhS 2015 (arg.), *Proceedings of the 18th International Congress of Phonetic Sciences*. Glasgow: ICPHS.
- Katz, Israel J. (2005). Bertsolaritza and its musical foundations: some observations, in Samuel G. Armistead eta Joseba Zulaika (arg.), *Voicing the moment. Improvised Oral Poetry and Basque Tradition*. Reno: Center for Basque Studies-University of Nevada. 325-348.
- Keane, Elinor. (2006). Rhythmic characteristics of colloquial and formal Tamil, *Language and Speech* 49. 299-332
- Keating, Patricia; Taehong Cho; Cécile Fougeron eta Chai-Shune Hsu. (2003). Domain-initial articulatory strengthening in four languages, in John Local, Richard Ogden eta Rosalind Temple (arg.), *Phonetic Interpretation: Papers in Laboratory Phonology VI:8*. 145-163.
- Kiparsky, Paul (1979). Metrical structure assignment is cyclic, *Linguistic Inquiry* 10. 421-442.
- Klatt, Dennis H. (1976). Linguistics uses of segmental duration in English: Acoustic and perceptual evidence. *JASA* 59. 1208-1220.
- Kügler, Frank eta Sasha Calhoun. (2020). Prosodic encoding of information structure: A typological perspective, in Carlos Gussenhoven eta Aoju Chen (arg.), *The Oxford Handbook of Language Prosody*. Oxford: Oxford University Press. 453–467.
- Labaka, Ane. (2019). Irribarre erditik irribarre osora. Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero-ikuspegitik, in Miren Artetxe eta Ane Labaka (koord.), *Bertsolaritza feminisotik (bir)pentsatzen*. UEU. 213-225.
- Labov, William. (1966). *The social stratification of English in New York City*. Washington D.C.: Center for Applied Linguistics.
- Ladd, Robert D. (1986). Intonational phrasing: The case for recursive prosodic structure, *Phonology Yearbook* 3. 311-340.
- Ladd, Robert D. (1996). *Intonational Phonology*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Ladefoged, Peter. (1975). *A Course in Phonetics*. New York: Harcourt Brace Jovanovich.

- Ladefoged, Peter eta Keith Johnson. ([1975] 2011). *A course in phonetics. Sixth Edition*. Boston: Wadsworth.
- Lafitte, Pierre (arg.). (1967). *L'Art Poétique basque d'Arnaud d'Oyhenart (1665), avec une introduction de Pierre Lafitte*. Baiona: Gure Herria.
- Lafitte, Pierre. (1978). Les hexamètres de B. Borda (1854), *Fontes Linguae Vasconum* 30. 493-523.
- Lafon, René. (1935). Observations sur la place de l'accent dans quelques formes basques des parlers souletins, *Mélanges de Littérature d'Histoire et de Philologie offerts à Paul Laumonier para ses élèves et ses amis*. Geneva: Slatkine Reprint.
- Lakarra, Joseba A. (2005). Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco, *Palaeohispánica*, 5 (*Actas del IX coloquio sobre lenguas y culturas paleohispánicas*). 407-470.
- Lakarra, Joseba A. (2006). Protovasco, munda y otros: Reconstrucción interna y tipología holística diacrónica, *Oihenart*, 21. 229-322.
- Larramendi, Manuel. ([1729] 1988). El imposible vencido. Echévarri : Amigos del Libro Vasco.
- Larrañaga, Carmen. (1997). Del bertsolarismo silenciado. *Jentilabaratz. Folklore koadernoak*, 57-73. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Larrañaga, Jexux. (2013). *Jolas sakona. Txapelketaren prozesu errituala eta bertsolariaren arrazoi sortzailea XXI. mendeko agoran*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitateko doktore tesia.
- Larrasquet, P. Jean. (1927). *Accion de l'accent sur l'evolution des consonnes*. Paris: Vrin.
- Lehiste, Ilse. (1970). *Suprasegmentals*. Cambridge/ Massachusetts: M.I.T. Press.
- Lehiste, Ilse. (1973). Rhythmic units and syntactic units in production and perception, *Journal of the Acoustic Society of America*, 54. 1228-1234.
- Lehiste, Ilse. (1974). Interaction between test word duration and the length of utterance, *Ohio State University Working Papers in Linguistics* 17. 160-169.
- Lehiste, Ilse. (1975). The phonetic structure of paragraphs, in Antonie Cohen eta Sibout G. Nooteboom (arg.), *Structure and Process in Speech Perception*. Berlin: Springer-Verlag. 195-206.
- Lehiste, Ilse. (1977). Isochrony reconsidered, *Journal of Phonetics*, 5. 253-263.
- Lehiste, Ilse. (1979). The perception of duration within sequences of four intervals, *Journal of Phonetics*, 7. 313-316.

- Lehiste, Ilse. (1990). Phonetic investigation of metrical structure in orally produced poetry, *Journal of Phonetics* (1990), 18. 123-133.
- Lehiste, Ilse eta Jaan Ross. (2001). *The Temporal Structure of Estonian Runic Songs*. Berlin/ New York: Mouton de Gruyter.
- Leizaola, Jesús María de. (1951). *Estudios sobre la poesía vasca*. Buenos Aires: Ekin.
- Lekuona, Manuel de. ([1965] 1978). *Literatura oral vasca, Kardaberaz bilduma 22-B*. Tolosa: Kardaberaz Bazkuna
- Lekuona, Manuel de. ([1974] 1978). Bertsolaritza, *Aozko literatura, Kardaberaz bilduma 22-A*. Tolosa: Kardaberaz Bazkuna. 73-87.
- Lekuona, Manuel de. ([1918] 1978). Métrica vasca, *Aozko literatura, Kardaberaz bilduma 22-A*. Tolosa: Kardaberaz Bazkuna. 131-157.
- Lekuona, Manuel de. ([1976] 1978). Bertsoa jakintzaren argitan, *Aozko literatura, Kardaberaz bilduma 22-A*. Tolosa: Kardaberaz Bazkuna. 159-185.
- Lekuona, Manuel de. (1978). *Aozko literatura, Kardaberaz bilduma 22-A*. Tolosa: Kardaberaz Bazkuna.
- Lekuona, Juan Mari. (1982). *Ahozko Euskal Literatura*. Donostia: Erein.
- Lekuona, Juan Mari. (2008a). Lizentzia metriko, *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. Sarean: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=lizentzia%20metriko (Azken kontsulta: 2021-05-18).
- Lekuona, Juan Mari. (2008b). Sinalefa, *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. Sarean: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?search=sinalefa&bila=bai&option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474 (Azken kontsulta: 2023-08-17).
- Lekuona, Juan Mari. (2008c). Epentesi, *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. Sarean: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?search=epentesi&bila=bai&option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474 (Azken kontsulta: 2023-08-17).
- Lekuona, Juan Mari. (2008d). Protesi, *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. Sarean: <https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?>

[search=protesi&bila=bai&option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?search=protesi&bila=bai&option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474) (Azken kontsulta: 2023-08-17).

- Lekuona, Juan Mari. (2008e). Paragoge, *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. Sarean: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?search=paragoge&bila=bai&option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474 (Azken kontsulta: 2023-08-17).
- Lerchundi, Gabriel. (1983). Le traitement rythmique des mots dans le chant en navarro labourdin non-accentué d'aujourd'hui, *Iker* 2. 347–413.
- Levin, Juliette, (1985). *A metrical theory of syllabicity*. Massachusetts: Massachusetts Institute of Technology.
- List, George. (1963). The boundaries of speech and song, *Ethnomusicology* 7 (1). 1-16.
- Lloyd James, Arthur. (1940). *Speech signals in telephony*. Londres: Pitman.
- Lotz, John. (1972). Elements of versification, in William Kurtz Wimsatt (arg.), *Versification. Major language types*. New York: New York University Press. 1-21.
- Lujanbio, Maialen. (2017). Zer da doinua, zer da kantaera bertsolariarentzat?, *Bertsolarien kantaera eta sormena* (Donostia, 2017-08-24). EHUren Uda Ikastaroak.
- Madelska, Liliana eta Wolfgang U. Dressler. (1996). Postlexical stress processes and their segmental consequences illustrated in Polish and Czech, in Bernhard Hurch eta Richard A. Rhodes (arg.), *Natural Phonology: The State of the Art*. Berlin/ New York: Mouton de Gruyter. 189-200.
- Manabe, Noriko. (2009). *Western Music in Japan: the Evolution of styles in children's songs, hip-hop, and other genres*. Doktore tesia, City University of New York.
- Maia, Jon. (2017). *Berriak jaio ginen*. Andoain: Lanku Bertso Zerbitzuak S. L.
- Major, Roy C. (1985). Stress and rhythm in Brazilian Portuguese, *Language*, 61. 259-282.
- Manterola, Julen. (2015). Euskararen morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak. Bilbo: UPV/EHU.
- Martin, J.G. (1972). Rhythmic (hierarchical) versus serial structure in speech and other behaviour, *Psychological Review*, 79. 487-509.
- Martinet, André. (1955). *Economie des changements phonétiques. Traité de phonologie diachronique*. Berna: A. Francke.

- Mayerthaler, Eva. (1996). Stress, syllables and segments: their interplay in an Italian dialect continuum, in Bernhard Hurch eta Richard A. Rhodes (arg.), *Natural Phonology: The State of the Art*. Berlin/ New York: Mouton de Gruyter. 201-221.
- McQueen, James M. eta Anne Cutler. ([1997] 2010). Cognitive processes in speech perception, in William J. Hardcastle, John Laver eta Fiona E. Gibbon (arg.), *The Handbook of Phonetic Sciences. Second Edition*. West Sussex: Wiley-Blackwell. 489-520.
- Mendizabal-Iturria, Agustin. (2009). Berdabioren bertso doinuen inguruan: musika eta prosodia uztartuz, *Iker* 23. 321-350.
- Mendizabal-Iturria, Agustin. (2020). *Azken hamarkadetako euskal kantarien prosodia musikalaz, ene oharmenaren leihatilatik*. Master Bukaerako Lana, Mondragon Unibertsitatea. Mondragon Unibertsitateko Biblioteka: Katalogoa. Sarean: https://katalogoa.mondragon.edu/janium-bin/janium_login_opac.pl?find&ficha_no=166524 (Azken kontsulta: 2023-12-05).
- Mendizabal-Iturria, Agustin. (2023). *Xabier Leteren prosodia musikalaren alderdi batzuk*. Mintzola Ahozko Lantegiaren Ikerketa Proiektua (argitaragabea).
- Michelena, Luis. ([1954] 2011). La posición fonética del dialecto vasco del Roncal, *Luis Michelena. Obras Completas VII. Fonética y fonología. Morfosintaxis. Dialectología, ASJUren gehigarriak*. Donostia eta Gasteiz: EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia. 611-647.
- Michelena, Luis. ([1957-1958] 2011). À propos de l'accent basque, in Joseba A. Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras Completas VII. Fonética y fonología. Morfosintaxis. Dialectología, ASJUren gehigarriak*. Donostia eta Gasteiz: UPV/EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia. 123-152.
- Michelena, Luis. ([1960] 2001). *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.
- Michelena, Luis. ([1961] 1990). *Fonética Histórica Vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Michelena, Luis. ([1972] 2011). A note on Old Labourdin Accentuation, in Joseba A. Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras Completas VII. Fonética y fonología. Morfosintaxis. Dialectología, ASJUren gehigarriak*. Donostia eta Gasteiz: EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia. 163-175.
- Michelena, Luis. ([1976] 2011). Acentuación alto-navarra, in Joseba A. Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras Completas VII. Fonética y fonología*.

- Morfosintaxis. Dialectología, ASJUren gehigarriak*. Donostia eta Gasteiz: EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia. 177-194.
- Michelena, Luis. ([1977] 2011). Euskal hizkera eta euskal neurkera, in Joseba A. Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras Completas XIII. Historia de la literatura vasca. Literatura vasca del siglo XX, ASJUren gehigarriak*. Donostia eta Gasteiz: EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia. 277-289.
- Michelena, Luis. ([1978] 2011). Aspectos de la métrica de Aresti (Miscelánea filológica vasca II, 4), in Joseba A. Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras Completas XIII. Historia de la literatura vasca. Literatura vasca del siglo XX, ASJUren gehigarriak*. Donostia eta Gasteiz: EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia. 317-326.
- Mintzola Ahozko Lantegia. (2018). *Mundu bat ahoz aho*, Lanku. Sarean: <https://bertsoa.eus/albisteak/6803-mundu-bat-ahoz-aho> (azken kontsulta: 2023-12-05).
- Mol, Carien, Aoju Chen, Rene W. J Kager, eta Sita M. ter Haar. (2017). Prosody in birdsong: A review and perspective, *Neuroscience and biobehavioral reviews*, 81. 167–180.
- Morgan, Terrell A. eta Richard D. Janda. (1989). Musically conditioned stress shift in Spanish revisited: empirical verification and nonlinear analysis, in Carl Kirschner eta Janet DeCesaris (arg.), *Studies in Romance Linguistics. Selected Papers from the Seventeenth Linguistic Symposium on Romance Languages (XVII.LSRL)*, Rutgers University, 27-29 March 1987. Amsterdam/Philadelphia: John Bnejamis Publishing Company. 273-288.
- Múgica, Matias. (1998). *Libelo sobre la cultura en euskera. Debile principium*. Alegia: Haranburu Editor.
- Navarro, Itziar. (2018). *Transformations in the Bertsolaris' Singing Style in Oiartzun since the Mid-20th Century*. Georg-August-Universität-en (Göttingen) aurkeztutako Master Amaierako Lana (argitaragabea).
- Navarro Tomás, Tomás. (1923). Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica, *III Congreso de Estudios Vascos* (1922, Gernika). Donostia: Eusko-Ikaskuntza. 49-56.
- Navarro Tomás, Tomás. (1925). Pronunciación Guipuzcoana. Contribución al estudio de la fonética vasca, *Homenaje a Menéndez Pidal*, III. 593-653.
- Navarro Tomás, Tomás. (1939). El grupo fónico como unidad melódica, *Revista de filología hispánica*, 1. 3-19.

- Nazzi, Thierry, Josiane Bertoncini eta Jaques Mehler. (1998). Language discrimination in newborns: Toward an understanding of the role of rhythm. *Journal of Experimental Psychology: Human Perception and Performance*, 24. 756-777.
- Nazzi, Thierry, Peter W. Jusczyk eta Elizabeth K. Johnson. (2000). Language discrimination by English learning 5-month-olds: Effects of rhythm and familiarity. *Journal of Memory and Language*, 43. 1-19.
- Nespor, Marina eta Irene Vogel. (1986). *Prosodic Phonology*. Dordrecht: Foris Publications.
- Nespor, Marina; Mohinish Shukla eta Jacques Mehler. (2011). Stress-timed vs. syllable-timed languages, in Marc van Oostendorp , C. J. Ewen , E. Hume and K. Rice (arg.), *The Blackwell Companion to Phonology*. London: Blackwell Publishing. 1147-1159.
- Nichols, Johanna. (2007). What, if anything, is typology? *Linguistic Typology*, 11. 231-238.
- Ohala, John. (1979). The contribution of acoustic phonetics to phonology, in Björn Lindblom eta Susanna Öhman (arg.), *Frontiers of speech communication research*. Londres: Academic Press. 355-363.
- Onaindia, Santiago. (1964). *Gure bertsolariak*. Bilbo: Graficas Bilbao.
- Oñederra, Miren Lourdes. (1986). From automatic assimilation to sound symbolism. A case study of Basque Palatalization, *ASJU 20-1*. 67-74.
- Oñederra, Miren Lourdes. (1990). *Euskal Fonologia: Palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*. Bilbo: UPV/EHU.
- Oñederra, Miren Lourdes. (1998). Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak, *Euskera* 43: 2. 439-449.
- Oñederra, Miren Lourdes. (2002a). Palatalization revisited: bustidura adierazgarriaren estatusaz ohar batzuk, in Xabier Artiagoitia, Patxi Goenaga eta Joseba Lakarra (arg.) *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk. ASJU Gehigarriak XLIV*. Bilbo: UPV/EHU. 499-509.
- Oñederra, Miren Lourdes. (2002b). Oharmenaz ohartu eta muga galdu, *Lapurdum VII*. 259-270.
- Oñederra, Miren Lourdes. (2004). *Fonetika-fonologia hitzez hitz*. Bilbo: UPV/EHU.
- Oñederra, Miren Lourdes. (2005). Fonologiaren mugak: alabea eta birjinak elexan, *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia. Iker*, 17. 379-397.
- Oñederra, Miren Lourdes. (2008). Palabras en música: un ejercicio de lingüística contrastiva. UPV 05/81. UPV/EHU (argitaragabea).

- Oñederra, Miren Lourdes. (2012). Prosodia, azentua, morfoprosodia. *Euskal Fonetika eta Fonologia II* ikasgaiko apunteak (2012-2013 ikasturtea).
- Oñederra, Miren Lourdes. (2015). Tipologia eta hizkuntzaren erritmoa: Stampe eta Doneganen ideien inguruan, in Mari Jose Ezeizabarrena eta Ricardo Gomez (arg.), *Eridenen du zertzaz kontenta: Sailkideen omenaldia Hernike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Bilbo: UPV/EHU. 491-498.
- Oñederra, Miren Lourdes. (2016). Hierarkia prosodiko unibertetsala. *Euskal Morfologia eta Fonologia* ikasgaiko apunteak (2016-2017 ikasturtea).
- Oñederra, Miren Lourdes. (2020a), Vennemann's Head Law and Basque, in Magdalena Wrembel, Agnieszka Kiełkiewicz-Janowiak, Piotr Gaşiorowski (arg.), *Approaches to the sound structure of speech. Interdisciplinary work in honour of Katarzyna Dziubalska-Kořaczyk*, New York/ Abington: Routledge. 66-75.
- Oñederra, Miren Lourdes. (2020b). Consecuencias en el bilingüismo actual de algunas divergencias diacrónicas entre castellano y vasco, in María José Martínez Alcalde, Juan Pedro Sánchez Méndez, Francisco Javier Satorre Grau, Mercedes Quilis Merín, Amparo Ricós Vidal, Adela García Valle, Francisco Pedro Pla Colomer, Santiago Vicente Llavata (koord.), *El español y las lenguas peninsulares en su diacronía: miradas sobre una historia compartida. Estudios dedicados a M^a. Teresa Echenique Elizondo*. Valencia: Tirant Humanidades. 419-434.
- Oñederra, Miren Lourdes; Agurtzane Elordui; Irantzu Epelde; Pilartxo Etxeberria; Oroitz Jauregi eta Jasone Salaberria. (2015). Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena (*Ahoskerak axola du*), *Euskera* 60: 2. 499-531.
- Orixe [Ormaetxea, Nikolas]. ([1918] 1991). Acento Vasco, *Nikolas Ormaetxea, Orixe. Idazlan guztiak III. Artikuluak eta saiakerak*. Donostia: Eusko Jaurlaritza eta Etor. 470-479.
- Orixe [Ormaetxea, Nikolas]. ([1920] 1991). De la música y letra popular al acento, *Nikolas Ormaetxea, Orixe. Idazlan guztiak III. Artikuluak eta saiakerak*. Donostia: Eusko Jaurlaritza eta Etor. 481-490.
- Orixe [Ormaetxea, Nikolas]. ([1958] 1991). Leitza'ko mintza-doiñua, *Nikolas Ormaetxea, Orixe. Idazlan guztiak III. Artikuluak eta saiakerak*. Donostia: Eusko Jaurlaritza eta Etor. 972-977.
- Oteiza, Jorge. (2007). *Quousque Tandem ...!* Iruñea: Fundación Museo Jorge Oteiza.

- Palmer, Caroline eta Michael H. Kelly. (1993). Linguistic prosody and musical meter in song, *Journal of Memory and Language* 31. 525-542.
- Patel, Aniruddh. (2008). *Music, language and the brain*. New York: Oxford University Press.
- Patel, Aniruddh eta Daniele, Joseph. (2003). An empirical comparison of rhythm in language and music, *Cognition* 87. B35-B45.
- Peperkamp, Sharon. (1999). Prosodic Words, *GLOT International* 4.4. 15-16.
- Perez Aldasoro, Pio. (2011). *Joxe Zapirainen bertso-malkoak. Edo nola arindu arimaren sufrimenduak bertsoen bidez*. Amorebieta: Amorebieta-Etxanoko Udala eta Labayru ikastegia.
- Pierrehumbert, Janet eta Mary Esther Beckman. (1988). *Japanese tone structure*. Cambridge: MIT Press.
- Pike, Kenneth. (1945). *The intonation of American English*. Ann Arbor: University of Michigan Press.
- Plank, Frans. (1998). The co-variation of phonology with morphology and syntax: a hopeful history, *Linguistic Typology*, 2. 195-230.
- Port, R.F.. (1981). Linguistic timing factors in combination, *Journal of the Acoustical Society of America* 69. 262–274.
- Proto, Teresa. (2013). Singing in German: text-setting rules and language rhythm, in V. Galatà (arg.), *Atti del IX convegno AISV*. Roma: Bulzoni.
- Proto, Teresa. (2015). Prosody, melody and rhythm in vocal music. The problem of textsetting in a linguistic perspective, *Linguistics in the Netherlands 2015*. 116–129.
- Proto, Teresa eta Françoise Dell. (2013). The structure of metrical patterns in tunes and in literary verse. Evidence from discrepancies between musical and linguistic rhythm in Italian songs, *Probus* 25, 1. 105-138.
- Proto, Teresa, Paolo Canettieri eta Gianluca Valenti (arg.). (2015). *Text and tune. On the association of music and lyrics in sung verse*. Berna: Peter Lang.
- Ramus, Franck. (2002). Language discrimination by newborns: Teasing apart phonotactic, rhythmic, and intonational cues. *Annual Review of Language Acquisition*, 2. 85-115.
- Ramus, Franck; Marina Nespors et Jaques Mehler. (1999). Correlates of linguistic rhythm in the speech signal. *Cognition* 73. 265–292

- Ramus, Franck eta Jaques Mehler. (1999). Language identification with suprasegmental cues: A study based on speech resynthesis. *Journal of the Acoustical Society of America*, 105. 512-521 .
- Ramus, Franck, Emmanuel Dupoux eta Jaques Mehler. (2003). The psychological reality of rhythm classes: Perceptual studies. *Proceedings of the 15th International Congress of Phonetic Sciences, Barcelona*. 337-342.
- Retortillo, Alfredo & Xabier Aierdi. (2007). A sociological study of sung, extempore verse-making in Basque. *Oral Tradition*, 22/2. 13-31.
- Roach, Peter. (1982). On the distinction between “stress-timed” and “syllable-timed” languages, in David Crystal (arg.), *Linguistic Controversies*. Londres: Hodder Education Group. 73-79.
- Robles-Puente, Sergio. (2021). El euskera como lengua de ritmo intermedio en el continuo isosilábico-isomoraico: una comparación con el español y el japonés, *ASJU* 53 (1-2). 107-126.
- Rodríguez-Vázquez, Rosalía. (2010). *The rhythm of speech, verse and vocal music: a new theory*. Berna: Peter Lang.
- Rodríguez-Vázquez, Rosalía. (2013). The metrics of Galician songs: some preliminary remarks, *Signa* 22. 59-80.
- Rotaetxe, Karmele. (1975). Interpretación de la cantidad silábica en Euskara. *Archivum XXIX-XXX* (29-30). 373-397.
- Salaburu, Pello. (1984). *Hizkuntzaren soinu-egitura. Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia I, II* . Bilbo: EHU.
- Salaberria, Jasone. (1998). *Zuberera barkoxtarreko bokalen azterketa akustikoa*. Doktore-tesia, Université Michel de Montaigne-Bx III.
- Sangiovanni, Fabio. (2015). For the anisosyllabic whim of the Romance Middle Ages: Disciplines and non-regularity in the lyric poetry, in Teresa Proto, Paolo Canettieri eta Gianluca Valenti (arg.), *Text and Tune. On the Association of Music and Lyrics in Sung Verse*. Berna: Peter Lang. 87-95.
- Sapir, Edward. (1921). Chapter 11: Language and literature, *Language*. New York: Harcourt Brace.

- Sarasua, Jon. (2003). Bertsolaritzaren gizarte eta kultur ezaugarriak, *Ahozko Inprobisazioa Munduan Topaketak* kongresuan aurkeztutako artikulua (Donostia, 2003-11-3tik 2003-11-8ra).
- Sarasua, Jon. (2007). Social features of bertsolaritza, *Oral Tradition* 22 (2). 33-56.
- Sarasua, Jon. (2013). *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Iruñea: Pamiela.
- Schmid, Stephan. (2016). Special Topics in Formal Linguistics: Tipología Fonológica y Ritmo Lingüístico, Hizkuntzalaritza Unibertsitate Masterrean (EHU) emaniko ikastaroa (2016-06-13tik 2016-06-17ra).
- Schömborg, Arnold. ([1967] 2004). *Fundamentos de la composición musical* (A. Santosen itzulpena). Madril: Real Musical.
- Shattuck-Hufnagel, Stefanie eta Alice E. Turk. (1996). A prosody tutorial for investigators of auditory sentence processing, *Journal of Psycholinguistic Research*, 25. 193-247.
- Seeger, Anthony. (1987). *Why Suyá sing. A musical anthropology of an Amazonian people*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Selkirk, Elisabeth O. (1978). On prosodic structure and its relation to syntactic structure, in T. Fretheim (arg.), *Nordic Prosody II*. Trondheim: Tapir. 111-140.
- Selkirk, Elisabeth O. (1984). *Phonology and Syntax: The Relation between Sound and Structure*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Selkirk, Elisabeth O. (1986). On derived domains in phonology, *Phonology [Yearbook]* 3. 371-405.
- Selkirk, Elisabeth O. (2011). The syntax-phonology interface, in John Goldsmith, Jason Riggle eta Alan C. Yu (arg.), *The handbook of phonological theory* (2nd edition). Malden, MA: Wiley-Blackwell. 435-484.
- Selkirk, Elisabeth O. eta Koichi Tateishi (1991). Constraints on minor phrase formation in Japanese, *Proceedings of the 24th Annual Meeting of the Chicago Linguistics Society*. Chicago: Chicago Linguistics Society. 316–336.
- Siadeco. (1995). Bertsozaletasunari buruzko azterketa, *Jakin*, 87. 11-74.
- Soroa, Maddi. (2020). Bertsolariaren formazioan bertsoa sortzeko eta interpretatzeko kompetentzia arloak (Gradu Amaierako Lana). Musikene (argitaragabea).

- Soroa, Maddi. (2022). *Procedimiento de análisis agógico y dinámico de bertsos en relación con la tonada y el texto improvisado* (Master Amaierako Lana). Universidad Internacional de La Rioja (argitaragabea).
- Stampe, David. ([1973] 1979). *A Dissertation on Natural Phonology*. New York/ London: Garland Publishing.
- Starr, Rebecca L. eta Stephanie S. Shih. (2012). Moraicity in Translated versus Native Japanese Text-setting. *Music, Metrics and Mind* kongresuan aurkeztutako artikulua (Erroma, 2012-02-23tik 2012-02-25era).
- Steindel Burdin, Rachel; Sara Phillips-Bourass; Rory Turnbull; Murat Yasavul; Cynthia G. Clopper eta Judith Tonhauser. (2015). Variation in the prosody of focus in head- and head/edge-prominence languages, *Lingua* 165. 254-276.
- Sundberg, Johan. (2013). Perception of singing, in Diana Deutsch (arg), *The Psychology of Music (Third Edition)*. London/ Waltham/ San Diego: Academic Press. 69-105.
- Trubetzkoy, Nikolai S. (1939). *Grundzüge der Phonologie*. Göttingen: Vandenhoeck eta Ruprecht. Baliatutako itzulpena: (1973). *Principios de fonología* (itzultzailea: Delia García Giordano, Luis J. Prietoren laguntzarekin). Madril: Editorial Cincel.
- Turk, Alice eta Stefanie Shattuck-Hufnagel. (2000). Word-boundary-related duration patterns in English, *Journal of Phonetics*, 28. 397–440.
- Turk, Alice eta Stefanie Shattuck-Hufnagel. (2007). Multiple targets of phrase-final lengthening in American English words, *Journal of Phonetics*, 35. 445–472.
- Turk, Alice eta Stefanie Shattuck-Hufnagel. (2013). What is speech rhythm? A comentary on Arvaniti and Rodriguez, Krivokapić, and Goswami and Leong, *Laboratory Phonology 2013*; 4(1). 93-118.
- Turk, Alice eta Laurence White. (1999). Structural influences on accentual lengthening in English, *Journal of Phonetics*, 27. 171–206.
- Turpin, Myfany eta Tonya Stebbins. (2010). The language of song: some recent approaches in description and analysis, *Australian Journal of Linguistics*, 30:1. 1-17.
- Txakur Gorria kolektiboa. (2022). *Orainmenean: bertsolaritzaren genealogia feministak*. Andoain: Lanku Bertso Zerbitzuak.
- Txillardeggi [Alvarez, Jose Luis]. (1984). *Euskal azentuaz*. Donostia: Elkar.

- Tyler, Joseph. (2013). Prosodic correlates of discourse boundaries and hierarchy in discourse production, *Lingua* 133. 101-126.
- Urreta, Irati. (2020). Euskararen ahoskera hizkera-maila ezberdinetan: aldagarritasuna aztertzen, *Euskera*, 65. 625-657.
- Urreta, Irati. (2022). Euskararen ahoskera eta hizkera-mailak: fonologia naturaletik hurbilpen bat, in Alazne Arriortua Zorrila, Aitor Lizardi Ituarte, Sergio Monforte del Valle, Laura Vela Plo (arg.), *Kimu berriak Euskal Hizkuntzalaritzan*. Bilbo: UEU. 11-31.
- Van Donzel, Monique. (1999). *Prosodic Aspects of Information Structure in Discourse*. Doktoretesia, University of Amsterdam.
- Van Oostendorp, Marc. (2000). *Phonological Projection: A Theory of Feature Content and Prosodic Structure*. Berlin eta New York: Mouton de Gruyter.
- Vellupillai, Viveka. (2012). *An Introduction to Linguistic Typology*. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins.
- Vennemann, Theo. (1988). *Preference laws for syllable structure*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Vogel, Irene. (2009). The status of the clitic group, in Janet Grizenhout eta Baris Kabak (arg.), *Phonological Domains. Universals and Deviations*. Berlin: Mouton de Gruyter. 15-46.
- White, Laurence. (2002). *English Speech Timing: A Domain and Locus Approach*. Doktore tesia. University of Edinburgh.
- White, Laurence. (2014). Communicative function and prosodic form in speech timing, *Speech Communication* 63–64. 38–54.
- White, Laurence eta Sofia Malisz. (2020). Chapter 11: Speech Rhythm and Timing, in Carlos Gussenhoven eta Aoju Chen (arg.), *The Oxford Handbook of Language Prosody*. Oxford: Oxford University Press. 166-179.
- White, Linda. (2001). Orality and Basque Nationalism: Dancing with the Devil or Waltzing into the future?, *Oral Tradition*, 16 (1). 3-28.
- Woodrow, Herbert. (1951). Time perception. in S. S. Stevens (arg.), *Handbook of Experimental Psychology*. New York: Wiley. 1224-1236.
- Zamacois, Joaquín. (2004). *Curso de formas musicales*. Barcelona: Idea Books.
- Zuazo, Koldo. (2008). *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, Koldo. (2014). *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

- Zubiri, Harkaitz. (2016). Kultur-ekosistema sortzeko estrategia, bertsolaritza garaikidean transmisioa ulertzeko gako. *Europa bat-batean. Kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketa* kongresuan emaniko hitzaldia (Donostia, 2016-07-11tik 2016-07-15era).
- Zubiri, Harkaitz; Xabier Aierdi eta Alfredo Retortillo. (2017). A Strategy to Produce Your Own Cultural Ecosystem: The Case of Bertsolaritza, in Xabier Irujo (arg.), *World Improvised Verse Singing*. Reno: Center for Basque Studies Press. 147–177.
- Zubiri, Harkaitz; Alfredo Retortillo eta Xabier Aierdi. (2019). *Kultura ez da bat-batekoa. Bertsolaritza aztergai*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Terminologia hiztegia (euskara - ingelesa)

Afixu = Affixe

Arrasto prosodiko = Prosodic cue

Azentu = Accent

Azentu-aldiko = Stress-timed

Azentu bidezko luzatze = Accentual lengthening

Azentudundu = Accentuate

Azentuera = Accentuation

Barne-nabarmentasun = Internal prominence

Bazterrekotasun = Peripherality

Bilakabide fonologiko = Phonological process

Bertso = Verse (stanza)

Bertso-lerro = Verse (line)

Bertso-neurri = Metrical template

Bertsogintza = Versification

Bertsolaritza = Improvised Basque verse singing (*bertsolaritza*)

Doinu = Tune

Eredu metriko = Metrical template

Eremu azkeneko luzatze = Final lengthening, preboundary lengthening,

Eremu prosodiko = Prosodic domain

Eremuz landako = Domain-free

Erranaldi = Utterance

Errima = Rhyme

Erritmo = Rhythm

Erritmo-eredu = Rhythmic pattern

Esaldi fonologiko = Phonological Phrase

Etena = Pause

Garaiera = Pitch

Garaiera-azentu = Pitch accent

Hemistikio = Hemistich

Hitz prosodiko = Prosodic Word

Hitz gramatikal = Grammatical word

Hizketa-maila = Register
Hizkuntza-tipo = Linguistic type
Hots = Sound
Indar-azentu = Stress
Ingurunez landako = Context-free
Intentsitate = Intensity
Intonazio esaldi = Intonational Phrase
Isokronia = Isochrony
Kanpo nabarmentasun = External prominence
Melodia = Melody
Metrika = Meter
Motibo erritmiko = Rhythmic motif
Muga = Boundary
Muga-egiteko = Demarcative function
Neurri (bertsogintzan) = Meter
Neurria (oinarri erritmikoan) = Measure
Oin (hierarkia prosodikoan) = Foot
Oin (euskarazko bertsogintzan) = Word containing the rhyme
Paradigma = Paradigm
Paradigmatiko = Paradigmatic
Prosodia = Prosody
Segmentu = Segment
Segmentatze = Segmentation
Sintagmatiko = Syntagmatic
Silaba = Syllable
Silaba-aldiko = Syllable-timed
Silabatze = Syllabification
Sistema metriko = Metrical system
Testu-uztartze = Textsetting, text-setting
Taldekatze = Phrasing, grouping
Taldekatze-arrasto = segmentation cue
Tipo-erritmiko = Rhythmic type
Txertatze prosodiko = Prosodic mapping

Eranskinak

I. Eranskina:

Bertsoetako silabatze gertakariak txapelketaz txapelketa

1. Xabier Amuriza (1980)

1.1. Silaben egiturak eta horien maiztasunak

Amurizaren 1980ko txapelketako finaleko bertsoetako silabak aztertuta, ondokoak dira bertsolariak ekoiztutako silaben egiturak, bakoitzetik zenbatu den silaba-kopurua eta orotara ahoskatutako silabekiko proportzioa (maiztasuna):

8. taula: 1980ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Xabier Amurizak ekoiztutako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	1504	%59,64
CVC	536	%21,25
V	274	%10,86
VC	176	%6,98
CCV	27	%1,07
CCVC	2	%0,08
CVCC	2	%0,08
VCC	1	%0,04
	Guztira: 2522	
Silaba irekiak denetara:		%71,57
Silaba itxiak denetara:		%28,43

Taulan ikus daitekeenez, Amurizaren silabatzean CV egitura da nagusi, egiturarik oinarrizkoena (%59,64). Horren ondoren, CVC silaba-egitura baliatzen du maizen bertsolariak (%21,25). Silaba ekina indartzen duten egiturak %80tik gora dira (%82,12), horrela, nahiz eta esan behar den ekinean kontsonante bat baino gehiago gauzatzea ez dela batere ohikoa Amurizarentzat; CCV (%1,07) eta CCVC (%0,08) ez dira ekoiztutako silaben %2ra heltzen. CVC egituraren ondoren, V bokalez (edo diptongoz) soilik osatutako silabek dute maiztasunik altuena: %10,86, VC egitura ere gertu dagoelarik (%6,98). Agerpen gutxi batzuk besterik ez dituzte, orain arte aipatutako CCV eta CCVC egiturekin batera, CVCC (%0,08) eta VCC (%0,04) silaba-motek. Silaba-ekinean

eta kodan kontsonante bat baino gehiago ahoskatzea Amurizarentzat ezohikoa dela esan daiteke horrela.

Datuei bestela begiratuta, silaba irekiek egitura guztien %71,57 osatzen dute. Itxiek, berriz, %28,43.

1.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko segmental nagusiak

Ondokoak dira Amurizak 1980ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoetan baliatutako silabatze-joerak eta silaba-egitura eta silabatzea baldintzatzen duten bere bilakabide fonologiko nagusiak:

1.2.1. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko indartzaile (fortitio) nagusiak

(F1) Silaba ekinean hasperen epentetikoa txertatzea hitz barnean zein hitz artean bi bokal heterosilabikoren elkarketa dagoenean, baita ozen ondoren edo eremu prosodiko hasieran ere.

Corpuseko adibideak bokal artean, hitz barnean:

goi.ze.[h]an ‘goizean’ (XA-1980-GS-ha), *jo.[h]an.go* ‘joango’ (XA-1980-GS-10tx-3),
ar.te.[h]an ‘artean’ (XA-1980-GS-8H-3), *be.[h]ar* ‘behar’ (XA-1980-AS-ge-1),
be.[h]ar.ba.da ‘beharbada’ (XA-1980-GS-ge-1), *be.[h]a.rra* ‘beharra’ (XA-1980-AS-ge-3)
ai.re.[h]a ‘airea’ (XA-1980-GS-ge-3), *la.ne.[h]an* ‘lanean’ (XA-1980-BB-8tx-1)
ka.le.[h]an ‘kalean’ (XA-1980-GS-10tx-1), *au.rre.[h]an* ‘aurrean’ (XA-1980-BB-8tx-1)
be.[h]ar ‘behar’ (XA-1980-GS-10tx-2, 3), *be.[h]a.rrak* ‘beharrak’ (XA-1980-BB-ge-1)
ma.[h]a.tsa ‘mahatsa’ (XA-1980-BB-9phtz).

Corpuseko adibideak bokal artean, hitz artean: *ba.ña.[h]au.ez.ta* ‘baina hau ez da’ (XA-1980-GS-ge-3), *ba.[h]al.da.e.men.i.ñor* ‘ba al da hemen inor?’ (XA-1980-AS-kge-1).

Corpuseko adibideak ozen ondoren, hitz artean: *ko.txe.ae.ra.man.[h]e.ta* ‘kotxea eraman eta’ (XA-1980-GS-10tx-2).

Corpuseko adibideak eremu prosodiko hasieran: *[h]ai.zi* ‘haiz hi’ (XA-1980-GS-10tx-3), *[h]ez.li.te.ke* ‘ez liteke’ (XA-1980-AS-pe-1), *[h]on.da.tze.ko* ‘hondatzeko’ (XA-1980-GS-10tx-1), *[h]o.be* ‘hobe’ (XA-1980-BB-8tx-2).

Nahitaezkoa ez den bilakabidea (hautazkoa). Ondoko adibideetan ez da gertatzen, besteak beste: *ba.ke.a.ren* ‘bakearen’ (XA-1980-GS-8H-1), *gru.a.za.le.a* ‘gruazalea’ (XA-1980-GS-10tx-


1), *be.ar* ‘behar’ (XA-1980-GS-10tx-3), *jo.an.go* ‘joango’ (XA-1980-AS-ha), *baz.te.rre.an* ‘bazterrean’ (XA-1980-BB-9phtz), *gu.re.a* ‘gurea’ (XA-1980-BB-9phtz), *el.tze.an* ‘heltzean’ (XA-1980-AS-ba), etab.

Bilakabide honen egiteko eta ondorioa bokal elkarketa heterosilabikoa ekiditea dela pentsa daiteke, hots katea CV silaba-egitura oinarritzorantz gerturatuz. Testuinguruari erreparatuta, /e/ + /a/ bilkura da bereziki bertsolariak hasperen bidez banatzen duena: *goi.ze.[h]an* ‘goizean’ (XA-1980-GS-ha), *be.[h]ar.ba.da* ‘beharbada’ (XA-1980-GS-ge-1), *ai.re.[h]a* ‘airea’ (XA-1980-GS-ge-3), *be.[h]ar* ‘behar’ (XA-1980-GS-10tx-2, 3), etab. Beste bokal bilkura batzuk banatzeko ere gauzatzen du bertsolariak: /o/ + /a/ (*jo.[h]an.go* ‘joango’, XA-1980-GS-10tx-3); /a/ + /a/, hitz barnean zein hitz artean⁵³⁹ (*ma.[h]a.tsa* ‘mahatsa’, XA-1980-BB-9phtz; *ba.ña.[h]au.ez.ta* ‘baina hau ez da’, XA-1980-GS-ge-3) eta sudurkari ondoren, /e/ aurrean, corpusean jasotako adibide bakarrean (*ko.tx.e.ae.ra.man.[h]e.ta* ‘kotxea eraman eta’, XA-1980-GS-10tx-2). Azkenik, hitza edo handiagoak diren eremu prosodikoen ekinean ere gauzatzen du hasperena bertsolariak bokal aurrean ([**h**]ai.zi ‘haiz hi’ (XA-1980-GS-10tx-3), [**h**]es.li.te.ke ‘ez liteke’, XA-1980-AS-pe-1; [**h**]on.da.tze.ko ‘hondatzeko’, XA-1980-GS-10tx-1; [**h**]o.be ‘hobe’, XA-1980-BB-8tx-2). Gertakaria /a/, /e/ eta /o/ bokalei lotuta dago jasotako adibideetan. Hala, hots katean bokal horietako bi elkartzean bakoitza silaba banatan ahoskatuko direnez gero, silaba-gunea “biluzik” (ekinik gabe) ez uzteko hatsarre silabikoa betetzen da fortitio honen bidez, CV oinarritzko egiturarantz gerturatuz hots katearen antolamendua, esan bezala.


Ondoko espektrogrametan ikusi daitezke corpuseko adibide batzuk, hasperenak bokalen jarraitutasuna nola hausten erakusten dutenak:

539 Hitz artean jasotako adibideak askoz gutxiago diren arren, zerrendan ikus daitezkeenez.

94. irudia: Espektrograma. [goj.se.han] ‘goizean’ (XA-1980-GS-ha)



95. irudia: Espektrograma. [xo.haŋ.go] ‘joango’ (XA-1980-GS-10tx-3)



Nahitaezkoa ez den bilakabide baten aurrean gaude, hainbat baitira bokal artean eta, zehatzago, hasperena gauzatu den /e/ + /a/ gisako testuinguruetan kontsonante epentetiko gabe ahoskatutako adibideak (ikus goiko taulan horietako batzuk). Hautazko bilakabidea dela baieztatzeko adibiderik esanguratsuena bertso berean ekoizitako *gu.re.‘ar.te.[h]an* ‘gure artean’(1980-GS-XA-8H-3) baina *bi.jo.nar.te.an* ‘bion artean’ (1980-GS-XA-8H-3) ekoizpenek agertzen dute. Horiekin batera aipagarri dira *be.[h]ar* (XA-1980-AS-ge-1) baina *be.ar* ‘behar’ (XA-1980-GS-10tx-3), *jo.[h]an.go* ‘joango’ (XA-1980-GS-10tx-3) baina *jo.an.go* (XA-1980-AS-ha) edo *ka.le.[h]an* ‘kalean’ (XA-1980-GS-10tx-1) baina *baz.te.rre.an* (XA-1980-BB-9phtz).

Bilakabide honekin interesgarri suertatzen den alor bat Amurizak ekoizitako hasperenen izaerarena da. Pentsatzekoa da bertsolari honek ez duela /h/ fonemarik bere inbentarioan eta [h] hotsa bertsoak kantatzeko duen modu enfatikoaren eraginez azaleratutako *fortitio* sintagmatikoen ondorioa dela.

Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi euskaraz alfabetatua izatearen eragin posiblea. Euskara batuaren aroan kokatzen da 1980ko txapelketa eta Xabier Amuriza hartzen da euskara batutik gertu kantatzen hasi zen lehenengoetariko gisa (Garzia 2007b; Amurizari berari egindako elkarrizketak⁵⁴⁰). Amurizak gauzatutako hasperen batzuk grafia idatziarekin bat datoz: [h]o.be (XA-1980-BB-8tx-2), be.[h]a.rrak (XA-1980-BB-ge-1), ma.[h]a.tsa (XA-1980-BB-9phtz), [h]ai.zi ‘asto haiz hi’ (XA-1980-GS-10tx-3), etab. Halere, hizkera idatziaren bidez ezin dira adibideetako asko azaldu: goi.ze.[h]an ‘goizean’ (XA-1980-GS-ha), ar.te.[h]an ‘artean’ (XA-1980-GS-8H-3), jo.[h]an.go ‘joango’ (XA-1980-GS-10tx-3), ko.tx.e.ae.ra.man.[h]e.ta ‘kotxea eraman eta’ (XA-1980-GS-10tx-2), ba.[h]al.da.e.men.i.ñor ‘ba al da hemen inor?’ (XA-1980-AS-kge-1).

Azkenik, nabarmetzekoa da hasperena inesiboko marka singularrari lotuta ageri dela hainbatetan: goi.ze.[h]an ‘goizean’ (XA-1980-GS-ha), ar.te.[h]an ‘artean’ (XA-1980-GS-8H-3), ka.le.[h]an ‘kalean’ (XA-1980-GS-10tx-1), la.ne.[h]an ‘lanean’ (XA-1980-BB-8tx-1), au.rre.[h]an ‘aurrean’ (XA-1980-BB-8tx-1). Kasualitatea da agian morfema horrekiko gertakariak duen lotura eta bide fonetiko-fonologikoetatik azal daitekeena osorik, baina sakonago aztertu beharrekoa da.

(F2) Kontsonante palatal epentetikoa txertatzea **hitz barnean** aurreko eta goiko bokalaren (/i/) eta beste bokal heterosilabiko baten artean, azken honen silaba-ekinean (**i.V →i.[j]V**).

Corpuseko adibideak (guztiak):

bi.[j]o.tzez ‘bihotzez’ (XA-1980-GS-ha), di.fe.ren.tzi.[j]a ‘diferentzia’ (XA-1980-GS-8H-1),
bi.[j]otz.bi.[j]o.tzez ‘bihotz-bihotzez’ (XA-1980-GS-8H-1),
di.fe.ren.tzi.[j]ak ‘diferentziak’ (XA-1980-GS-8H-2),
bi.[j]ok.ba.te.ra (XA-1980-GS-8H-2), bi.[j]o.nar.te.an ‘bion artean’ (XA-1980-GS-8H-3),
bi.[j]o.tze.ra.ño ‘bihotzeraino’ (XA-1980-GS-ge-1),
eus.ka.le.ri.[j]az ‘Euskal Herriaz’ (XA-1980-GS-ge-1),
bi.[j]otz ‘bihotz’ (XA-1980-GS-ge-2), bi.[j]ur.be.kiz.kit ‘bihur bekizkit’ (XA-1980-GS-ge-2),
bi.[j]o.tze.ko ‘bihotzeko’ (XA-1980-GS-ge-3), di.[j]e.gu ‘diegu’ (XA-1980-GS-10tx-3),

540 Xabier Amuriza, *Bertsolari Txapelketa Nagusiko irabazlea bigarren*. Sarean: <https://www.youtube.com/watch?v=EXrBKmLiXOY> (azken kontsulta: 2023-12-05).

eus.ka.le.rrri.[j]an (XA-1980-GS-4oin), *me.re.zi.[j]a* ‘merezia’ (XA-1980-AS-8tx-1),
aun.di.[j]e.nak ‘handienak’ (XA-1980-AS-ES-1), *i.[j]es* ‘ihes’ (XA-1980-AS-ES-2)⁵⁴¹,
o.gi.[j]a.kin.χus.ti.si.[j]a ‘ogiarekin justizia’ (XA-1980-AS-ge-1),
bi.[j]o.tza ‘bihotza’ (XA-1980-AS-ge-2, XA-1980-BB-ge-1),
o.gi.[j]a ‘ogia’ (XA-1980-AS-ge-3),
fa.mi.li.[j]an ‘familiar’ (XA-1980-AS-ge-3), *maj.ta.ga.rrri.[j]a* (XA-1980-AS-ge-3),
az.pi.[j]an. ‘oi.na.rrri.[j]a’ ‘azpian oinarria’ (XA-1980-AS-ge-3),
uz.ta.rrri.[j]a ‘uztarria’ (XA-1980-AS-ge-3), *neu.rrri.[j]a* ‘neurria’ (XA-1980-AS-ge-3),
i.tu.rrri.[j]a ‘iturria’ (XA-1980-AS-ge-3), *go.rrri.[j]a* ‘gorria’ (XA-1980-AS-ge-3),
ba.li.[j]o ‘balio’ (XA-1980-AS-8tx-2), *kon.tra.ri.[j]o.ak* ‘kontrarioak’ (XA-1980-AS-8tx-3),
de.sa.fi.[j]o.ka ‘desafioka’ (XA-1980-AS-8tx-4),
i.[j]a ‘ia’ (XA-1980-BB-ge-1, 2; XA-1980-BB-ge-3),
ga.zi.[j]a ‘gazia’ (XA-1980-BB-ge-2), *i.ka.si.[j]a* ‘ikasia’ (XA-1980-BB-ge-2),
gra.zi.[j]a (XA-1980-BB-ge-2), *a.zi.[j]a* ‘hazia’ (XA-1980-BB-ge-2),
eus.ka.le.rrri.[j]a ‘Euskal Herria’ (XA-1980-BB-ge-3), *guz.ti.[j]ak* (XA-1980-BB-ge-3),
o.rrri.[j]ak ‘orriak’ (XA-1980-BB-ge-3), *di.[j]at* ‘diat’ (XA-1980-AS-ba),
bi.[j]o.tze.an (XA-1980-BB-ge-3), *bi.[j]on.tza.te.ta* ‘biontzat eta’ (XA-1980-BB-ge-3).

Nahitaezkoa ez den bilakabidea (hautazkoa). Ondoko adibideetan ez da kontsonante argia gertatzen⁵⁴² (salbuespen guztiak jasota daude): *bi.otz* ‘bihotz’ (XA-1980-GS-ge-1), *gu.bi.on* ‘gubion’ (XA-1980-AS-8tx-1), *o.gi.az* ‘ogiaz’ (XA-1980-AS-ge-1) edo *jo.si.a* ‘josia’ (XA-1980-AS-ba), *di.os.ka* ‘dios-ka’ (XA-1980-BB-pe1).

Amurizak sarri txertatzen du kontsonante palatala /i/ bokalaren ondoren, beste bokal baten aurretik, hitz barrenean. Bilakabide honen ondorioa bokal elkarketa heterosilabikoa ekiditea dela pentsa daiteke, hots katea CV silaba-egitura oinarritzorantz gerturatuz, horretarako /i/ bokalaren palataltasuna baliatuta. Testuinguruari erreparatuz gero, lehen bokala beti /i/ izanik —bokal oso gisa edo, kasuren batean, irristari gisa [j] ahoskatuta, diptongoan—, bigarren bokala edozein izan

541 *Ihes* hitza honela ere ahoskatzen du Amurizak txapelketa berean: *i.ge.si* ‘ihesi’ (XA-1980-GS-10tx-3).

Aldakortasuna aztertzekoa bada ere, argi dagoena da bokal elkarketa ekiditeko beste epentesi bat dela ondokoa.


542 Bilakabide honi dagokionean kontuan hartu behar da ez dagoela muga argia —ez hautemateari dagokionean, ez akustikoki— bokal arteko trantsizioaren eta bi bokalaren artean sor daitekeen kontsonante hurbilkariaren artean. Multzto honetan jasotako adibideetan ez dago, edonola ere, kontsonante argirik ez hautematean ez espektrogramen azterketan (ikus beherago 98. irudia). Zalantzarriak egin zaizkit ondokoak: *zo.ri.(l[j])on.tsu.ak* (XA-1980-GS-ge-3), *e.rrri.(l[j])a* ‘herria’ (XA-1980-AS-pe2), *ma.mi.(l[j])a* (XA-1980-AS-ge-1), *bi.(l[j])o.tzak.di.(l[j])os.ta* ‘bihotzak diost’ (XA-1980-BB-pe1).

Ikus gertakari honetaz Xabier Amurizaren 1982ko txapelketako adibideak.

daiteke, /i/ goiko eta aurreko bokala izan ezik (ez da adibiderek jaso): *di.fe.ren.tzi.[j]ak* ‘diferentziak’ (XA-1980-GS-8H-2), *di.[j]e.gu* ‘diegu’ (XA-1980-GS-10tx-3), *bi.[j]o.tzez* ‘bihotzez’ (XA-1980-GS-ha), *bi.[j]ur.be.kiz.kit* ‘bihur bekizkit’ (XA-1980-GS-ge-2).


Ondoko espektrogrametan ikus daiteke bokal artean txertatzen den kontsonantea:

96. irudia: Espektrograma. *di.[j]e.gu* ‘diegu’ (XA-1980-GS-10tx-3).




Bilakabide hau ere ez da nahitaezkoa aztergai dugun bertsolariaren kasuan, *gu.bi.on* (XA-1980-AS-8tx-1), *o.gi.az* (XA-1980-AS-ge-1) edo *jo.si.a.di.[j]at* ‘josia diat’ (XA-1980-AS-ba) adibideek erakusten dutenez. Ikus jarraian 97. eta 98. irudiak, ‘ogia’ hitza tartean dela bertso berean ekoitziak, bata bokal arteko kontsonante palatala duela eta bestea gabe:

97. irudia: Espektrograma. *o.gi.[j]a.kin* (XA-1980-AS-ge-1).



98. irudia: Espektrograma. *o.gi.az* (XA-1980-AS-ge-1).



Urriak dira, edonola ere, aipatutako bokal arteko testuinguruan bilakabidea gauzatzen ez den kasuak; goiko taulan jaso dira salbuespen guztiak eta eta zalantzazko adibideak. Hitz barnean soilik gertatzen dela dirudi: hitz arteko bokal banaketak ekiditeko bestelako baliabideak darabiltza bertsolariak; hasperena edo etena, besteak beste.

Silabakako ekoizpen *fortitiboa* isla dezakeen bilakabidea, silaba unitate gisa hots katean indartzeko joera ageri du. Hizpide dudan bilakabidea ohikoagoa da beharbada erdialdeko hizkera batzuetan, besteak beste⁵⁴³. Kontuan hartu beharrekoa da 1980eko hamarkadan —eta lehenago ere— nagusi zen bertsoarako eredua erdialdeko hizkeran oinarritzen zela nagusiki.

(F3) Hiru bokal elkartzen direnean hitz barnean, **erdikoa goikoa eta aurrekoa izanik (/i/)**, hots katean /i/ **bokala kontsonante palatal gisa** gauzatzen da azken bokalarekin batera, silaba ekinean (ViV → V.jV), edo irristari gisa gauzatzearekin batera kontsonante palatala ere ahoskatzen da (ViV → Vj.jV)⁵⁴⁴.

Corpuseko adibideak (guztiak): *a.nai.[j]a* ‘anaia’ (XA-1980-GS-8H-1), *kai.[j]o.lan* ‘kaiolan’ (XA-1980-GS-8H-1), *gei.[j]o* ‘gehio’ (XA-1980-GS-8H-3), *ka.[j]o.la* ‘kaiola’ (XA-1980-GS-8H-2, 3), *a.na.[j]ak* ‘anaiak’ (XA-1980-GS-ge-1), *e.tsa.[j]a* ‘etsaia’ (XA-1980-GS-ge-1), *ge.[j]e.gi* ‘gehiegi’ (XA-1980-AS-ha), *o.[j]ar.tzu.na* ‘oihartzuna’ (XA-1980-AS-8tx), *sa.[j]ets* ‘saihets’ (XA-1980-AS-ge-2), *ba.[j]etz* ‘baietz’ (XA-1980-AS-ge-2), *a.rra.[j]o* ‘arraio’ (XA-1980-AS-8tx-2), *ja.[j]oi.zan* ‘jαιο izan’ (XA-1980-AS-8tx-2), *sa.[j]e.tsak* ‘saihetsak’ (XA-1980-AS-8tx-3), *ja.[j]o.a* ‘jaioa’ (XA-1980-AS-8tx-4), *na.[j]a.go* ‘nahiago’ (XA-1980-BB-ge-1), *gai.[j]au* ‘gai hau’ (XA-1980-BB-ge-3)⁵⁴⁵.


Aurreko fortitioarekin oso lotuta, bokal bilkurak ekidin eta hots katea CV egiturarantz hurbiltzen duen bilakabidea da hau ere, silaba(-ekina) indartuz hizketa kanporatzean. Fonetikoki aztertuta ez da erraza zehaztea kontsonante palatalarekin batera noiz egiten den irristaria eta noiz ez, aurreko bokala [j] ahoskatzeko berdin-berdin hurbiltzen baita ahoskune palatalera. Amurizaren 1980ko jardunean nahitaezkoa dela dirudi aipagai den bilakabidea. Hitz barnean, gerta daitekeen testuinguruan (ViV), beti gauzatzen da neurri handiagoan edo txikiagoan, jasotako adibideetan ikus daitekeenez. Ondoko espektrogramak erakusten du bilakabidearen emaitza kontsonantikoa:

543 Aurrez ere aipatu bezala, hitz lauz bere hizkeran ari dela batzuetan [ʒ] kontsonantea egiten duela dirudi testuinguru berean, ez [j] kontsonantea. Ikus ondoko bideoa, esaterako. Xabier Amuriza, Bertsolari Txapelketa Nagusiko irabazlea bigarrenez: : <https://www.youtube.com/watch?v=EXrBKmLiXOY> (azken kontsulta: 2023-12-05).

544 Gorago ere azaldu gisa, txandakatze honetan bilakabide bat baino gehiago dago ziurrenik: lehenengo, /i/ bokala irristari gisa gauzatzen da (/anaia/ → [a.naj.a]). Irristari palatalaren ondorioz, kontsonante palatala txertatzen da hurrengo bokalaren aurrean ([a.nai.ja]). Azkenik, kasu batzuetan, irristari palatala kentzen da ([a.na.ja]).

545 Kontsonante palatala hitz barnean txertatzen dela esan dut, eta adibide honetan bi hitz gramatikalen artean gauzatzen da bilakabidea. Bi hitz gramatikal izan arren, hitz prosodiko bakarra dela esan genezake, bi silabaz osatua. Horregatik gauzatzen da bilakabidea kasu honetan (gainerakoan, “hitz arteko” adibide bakarra da).

99. irudia: Espektrograma. *gei.[j]o* ‘gehio’ (XA-1980-GS-8H-3)



(F4) Silaba ekineko **herskari ahostunak ez igurzkaritzea** (edo hala hautematea) **bokal artean**, ez hitz barnean ez hitz artean⁵⁴⁶


Corpuseko adibide batzuk: [ba.du.gu.ga^(h)a]wr] ‘badugu gaur’ (XA-1980-GS-ha),
 [i.san.go.da.gu.re.la.na] ‘izango da gure lana’ (XA-1980-GS-ha),
 [li.bre.na.go.ba.ɲa] ‘libre nago baina’ (XA-1980-GS-8H-1),
 [e.do.gu.ʃu.a] ‘edo (lehen)gusua’ (XA-1980-GS-8H-1),
 [ba.da.go.la] ‘badagoela’ (XA-1980-GS-8H-3),
 [be.har.ba.da.‘da.to.re.la] ‘beharbada datorrela’ (XA-1980-GS-ge-2), etab.

Batzuetan herskari ahostunak (/b/, /d/, /g/) bokal artean, ere herskari gauzatzen ditu Amurizak, ez igurzkarik, ahulduta —*lenitioa* gauzatuta—, ingurune ahostun eta jarraitu horretan espero izatekoa litzatekeen bezala. Gutxienez, kontsonanteok batzuetan bokal artean ohi diren baino nabarmenago gauzatzen direlako hautematea izan dut. Sakonago eta sistematikoki aztertu beharreko gertakaria da ondokoa, hautematearen alorra tresnabidezko azterketarekin uztartuz. Aurrez ere esan bezala, lagin bat besterik ez dut hartu azterketa honetan, eta beharrezkoa litzateke gertakariaren izaera eta hedapena zenbaterainokoa den zehaztea.

546 Gertakari hau Amurizaren 1980ko txapelketako ekoizpenean nabarmen daiteke. Gainerako txapelketetan ez dut modu sistematikoan aztertu; hautemateari dagokionez oso nabarmena zen adibideren bat sumatuz gero jo dut kasu zehatz hori akustikoki aztertzeraz, hautematea baieztatzeko (Lujanbioren 2009ko txapelketan, adibidez). Horrek ez du esan nahi gainerako txapelketetako silabatzean ez dagoenik bokal arteko herskaririk. Gertakariak azterketa sakon eta sistematikoa eskatzen du; lan honetan hurbilpena besterik ez dut egin.

Herskariaren bokal arteko ahoskera fortitiboago horrek bertsolariaren dikzio enfatikoa uzten du agerian, baita silabak unitate gisa Amurizaren ekoizpenean duen garrantzia ere, silaba-ekinak indartzen dituen gertakaria baita aztergai duguna, izan hitz barnean edo hitz artean (eremu prosodikoaren ekinean). Ondoko espektrograman akustikoki azter daitezke hautemate bidez jasotakoak⁵⁴⁷:

100. irudia: Espektrograma. *ba.du.gu.gaur* (XA-1980-GS-ha)



Hemendik aurrerako “fortitioak” ez dakit bilakabideak diren bere horretan eta, segmentuak ukitzen dituzten arren, segmentalak (soilik) ote diren ere zalantza dut. “Hots katearen silabatze-joera” gisa aurkeztu ditut.

(F5) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea eta etenaz banatzea [V# #V → V.‘V](lizentzia metrikoetan hiato gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibide batzuk (goizeko saiokoak)⁵⁴⁸, bokal elkarketa heterosilabikoa eten labur batez (‘) bereizita:

bil.tze.ko.‘e.men ‘biltzeko hemen’ (XA-1980-GS-ha),

o.be.‘i.zan.go ‘hobe izango’ (XA-1980-GS-ha),

547 Ez dirudi hauteman bezain herskariak direnik hotsak akustikoki. Edonola ere, espektrogramaren transkripzioan herskarizat jaso ditut. Gorago ere esan bezala, aurrera begira lantzeko aztergaia litzateke ondokoa.

548 Askok dira 1980ko Amurizaren bertsoetan hitz arteko bokal elkarketa eten bidez banatzen duten kasuak. Silaba kopuruari eta taldekatzeari lotuta dagoen gertakaria izaki, ez ditut adibide guztiak zerrendatu, jasotako lagina nahikoa esanguratsua dela iruditzen baitzait.

on.do.‘ez.ta.kit ‘ondo ez dakit’ (XA-1980-GS-ha),
di.fe.ren.tzi.ja.‘o.ri.‘i.za.nak ‘diferentzia hori izanak’ (XA-1980-GS-8H-1),
a.nai.ja.‘e.do.gu.su.a ‘anaia edo (lehen)gusua’ (XA-1980-GS-8H-1),
da.‘a.ka.so (XA-1980-GS-8H-2), *la.no.ri.‘e.zin* (XA-1980-GS-8H-3),
ne.za.ke.‘i.po.la (XA-1980-GS-8H-3), *pen.tsa.‘a.lae.re* ‘pentsa hala ere’ (XA-1980-GS-8H-3),
gu.re.‘ar.te.han ‘gure artean’ (XA-1980-GS-8H-3), *eus.ka.le.rri.ko.‘o.do.la* (XA-1980-GS-8H-3),
nai.‘al.du.zu ‘nahi al duzu’ (XA-1980-GS-pe-1),
i.pur.di.ko.‘o.tzik ‘ipurdiko hotzik’ (XA-1980-GS-pe-2),
bi.jo.tze.ra.ño.‘u.me.tan ‘bihotzeraino umetan’ (XA-1980-GS-ge-1),
mun.du.‘o.ne.tan ‘mundu honetan’ (XA-1980-GS-ge-1),
al.kar.‘ar.tu.‘e.zi.ñik ‘elkar hartu ezinik’ (XA-1980-GS-ge-1),
su.‘e.ta.ke.tan (XA-1980-GS-ge-1),
ai.ze.‘o.tze.ko.‘or.be.la ‘haize hotzeko orbela’ (XA-1980-GS-ge-2),
do.a.‘e.rri.ko.kor.de.la ‘doa herriko kordela’ (XA-1980-GS-ge-2),
mun.du.‘on.ta.ra ‘mundu hontara’ (XA-1980-GS-ge-2),
o.ri.‘ez.ba.da.‘o.rre.la ‘hori ez bada horrela’ (XA-1980-GS-ge-2),
zer.ko.lo.rez.ko.‘ai.re.ha.‘o.te ‘zer kolorezko airea ote’ (XA-1980-GS-ge-3),
ni.‘e.ta.zu.en.ba.rre.na.‘or.tan ‘ni eta zuen barrena hortan’ (XA-1980-GS-ge-3),
o.rre.la.‘e.ta ‘horrela eta’ (XA-1980-GS-ge-3),
ar.ga.tik.bal.da.‘on.tan ‘hargatik Balda hontan’ (XA-1980-GS-ge-3),
gru.a.za.le.a.‘o.rra ‘gruazalea horra’ (XA-1980-GS-10tx-1),
ne.re.‘au.to.a.‘ar.tu ‘nire autoa hartu’ (XA-1980-GS-10tx-1),
zu.re.‘es.ku (XA-1980-GS-10tx-1),
ta.‘o.rra.gru.a ‘eta horra grua’ (XA-1980-GS-10tx-2),
ta.noiz.nai.‘ir.te.na ‘eta noiznahi irtena’ (XA-1980-GS-10tx-2),
no.la.‘i.zan.zin.tez.ke (XA-1980-GS-10tx-2),
zu.‘e.gin.zin.tu.e.nak (XA-1980-GS-10tx-2),
jo.han.go.‘i.ge.si ‘joango ihesi’ (XA-1980-GS-10tx-3),
nai.‘ain.bat ‘nahi hainbat’ (XA-1980-GS-10tx-3),
nai.ko.‘as.to.‘ai.zi ‘nahiko asko haiz hi’ (XA-1980-GS-10tx-3),
ba.ña.‘ez.ta.kit.noiz ‘baina ez dakit noiz’ (XA-1980-GS-4oin),
ez.ta.‘i.zan.go ‘ez da izango’ (XA-1980-GS-4oin), etab.


Corpuseko adibideak, hitz arteko bokal elkarketa silaba heterosilabikoetan gauzatuta, modu jarraituan, aire-etorria eten gabe (adibide guztiak): *ba.ña.hau.ez.ta* ‘baina hau ez da’ (XA-1980-GS-ge-3), *a.la.e.re* ‘hala ere’ (XA-1980-AS-8tx-3), *gu.e.re* ‘gu ere’ (XA-1980-AS-ES-1), *mun.du.au* ‘mundu hau’ (XA-1980-AS-pe-1), *o.ri.e.re* ‘hori ere’ (XA-1980-AS-pe-2).

Aurkako joera ageri duten adibideak Aurrerago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen diren sinalefa adibideak, askoz gutxiago direnak. 1980ko txapelketako finalean Amurizak ahoskatutako sinalefen bikoitza baino gehiago dira goizeko saioan bakarrik egindako hiatoak.

Hitz arteko bokal elkarketak silaba bereizietan ahoskatzen ditu joera orokor gisa Amurizak 1980ko txapelketan, metrikari lotuta hiato deitzen dena gauzatuz normalean: *e.ne.‘es.ku.ra.‘el.tze.an* ‘ene eskura heltzean’ (XA-1980-AS-ba) (salbuespenetarako, ikus aurrerago jasotako adibideak: *ni.e.‘reo.lan.go.a* ‘ni ere horrelakoa’, XA-1980-GS-pe-1; *bi.zi.tze.‘ae.re* ‘bizitza ere’, XA-1980-GS-ge-2, etab.). Hala egiten du euskaraz posible diren beheranzko diptongoa sortzeko aukera dagoenetan ere, neurriak bestela egitera “behartzen” ez badu: *o.be.‘i.zan.go* ‘hobe izango’ (XA-1980-GS-ha), *ne.za.ke.‘i.no.la* ‘nezake inola’ (XA-1980-GS-8H-3), *bi.jo.tze.ra.ño.‘u.me.tan* ‘bihotzeraino umetan’ (XA-1980-GS-ge-1), *no.la.‘i.zan.zin.tez.ke* ‘nola izan zintezke’ (XA-1980-GS-10tx-2), *jo.han.go.‘i.ge.si* ‘joango ihesi’ (XA-1980-GS-10tx-3), etab. Askotariko bokal bilkura heterosilabiko horiek, gainera, gehienetan eten artikulatorio txiki baten bidez (‘) ere banatzen ditu⁵⁴⁹: *i.pur.di.ko.‘o.tzik* ‘ipurdiko hotzik’ (XA-1980-GS-pe-2). Hitz arteko bilkurak modu jarraituan oso kasu gutxitan ahoskatzen ditu; taulan jaso ditut adibide guztiak (4): *a.la.e.re* ‘hala ere’ (XA-1980-AS-8tx-3), *gu.e.re* ‘gu ere’ (XA-1980-AS-ES-1), *mun.du.au* ‘mundu hau’ (XA-1980-AS-pe-1), *o.ri.e.re* ‘hori ere’ (XA-1980-AS-pe-2). Silaba unitate prosodiko gisa Amurizaren ekoizpenean (silabatzean) oso presente dagoen bezala, hala dago hitza ere, eta hots katean adierazi egiten du eremu prosodiko hori, besteak beste, etenaren bitartez. Gertakari honi §10. kapituluari heldu diot sakonago taldekatze prosodikoari lotuta, baina bertsolariaren silabatze-joerak ulertzeko lagungarri denez, atal honetan ere jaso dut labur. Akustikoki ondoko espektrograman azter daiteke aipatutako joera:

549 Hemistikioa eta puntua direla eta eginiko hitz arteko etenak ez ditut kontuan hartu silabatze-azterketa egitean, kasu horietan metrikak ezarritako baldintzak baitaude eta Amurizak beti betetzen baititu muga horiek.

101. irudia: Espektrograma. *bil.tze.ko.‘e.men* ‘biltzeko hemen’ (XA-1980-GS-ha)



(F6) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-ik ez egitea, hitzen arteko muga ez urtzea (lehen hitzeko kodako kontsonantea(k) ez silabatzea hurrengo silabako ekin hutsean). **Hitz artean hots katea ez birsilabatzea** CV egiturarantz.

Corpuseko adibide batzuk (goizeko saiokoak):

zer.bai.ten.‘a.fa.na ‘zerbaiten afana’ (XA-1980-GS-ha),

goi.ze.han.‘a.si ‘goizean hasi’ (XA-1980-GS-ha), *zer.‘e.ma.na* ‘zer emana’ (XA-1980-GS-ha),

e.zal.zen.‘o.be ‘ez al zen hobe’ (XA-1980-GS-ha),

pre.so.kai.jo.lan.‘e.ta ‘preso kaiolan eta’ (XA-1980-GS-8H-1),

ba.ke.a.ren.‘u.su.a ‘bakearen usoa’ (XA-1980-GS-8H-1),

bi.jo.tzez.‘es.kajn.tzen ‘bihotzez eskaintzen’ (XA-1980-GS-8H-1),

nik.‘e.re ‘nik ere’ (XA-1980-GS-8H-2),

bi.jo.nar.te.an‘o.sa.tzen.du.gu ‘bion artean osatzen dugu’ (XA-1980-GS-8H-3),

mun.du.an.‘i.bil.tze.ko ‘munduan ibiltzeko’ (XA-1980-GS-pe1),

ge.roz.tik.‘ain.bat.gau.za ‘geroztik hainbat gauza’ (XA-1980-GS-ge-1),

a.na.jak.‘al.kar.‘ar.tu ‘anaiak elkar hartu’ (XA-1980-GS-ge-1),

zer.bait.‘o.be.rik ‘zerbait hoberik’ (XA-1980-GS-ge-2),

bi.jur.be.kiz.kit.‘es.te.ak.‘a.rri ‘bihur bekizkit hesteak harri’ (XA-1980-GS-ge-2),


zo.ri.on.tsu.ak.‘i.zan.gin.tez.ke ‘zoriontsuak izan gintezke’ (XA-1980-GS-ge-3),

on.tan. ‘uz.ten.dut ‘hon(e)tan uzten dut’ (XA-1980-GS-ge-3),
nen.bi.len. ‘es.tu ‘nenbilen estu’ (XA-1980-GS-10tx-1),
pe.ka.tu.rik. ‘ez.tu ‘bekaturik ez du’ (XA-1980-GS-10tx-1),
le.ku.rik. ‘ez.ta.go.la ‘lekurik ez dagoela’ (XA-1980-GS-10tx-2),
ain. ‘as.ta.kir.te.na ‘hain astakirtena’ (XA-1980-GS-10tx-2),
ba.koi.tzak. ‘e.men. ‘e.gin ‘bakoitzak hemen egin’ (XA-1980-GS-10tx-3),
gaur. ‘o.ri.me.re.zi ‘gaur hori merezi’ (XA-1980-GS-10tx-3),
i.zan.gi.ñan. ‘i.ñoiz ‘izan ginen inoiz’ (XA-1980-GS-4oin),
o.rain. ‘es.kla.bo ‘orain esklabo’ (XA-1980-GS-4oin),
in.da.rren. ‘a.rra.zoiz ‘indarren arrazoiz’ (XA-1980-GS-4oin),
bein.tzat. ‘ez.ta.i.zan.go ‘behintzat ez da izango’ (XA-1980-GS-4oin), etab.

Aurkako joera ageri duten adibideak. Aurrerago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-a duten adibideak. Gutxiago dira *liaison*-a egiten diren kasuak: goizeko saioan jasotako *liaison* gabeko adibideak bakarrik gehiago dira final osoan *liaison*arekin silabatutako kasuak baino.

Amurizaren 1980ko txapelketako bertsoetako silabatze-joera nagusi gisa hitzak ez dira hotskatean urtu eta birsilabatzen. Eten laburrez baliatuta (‘) hitzen mugak “errespetatu” eta silabatze bereizia gauzatzen du, hitzez hitzekoa, kasu askotan: *a.na.jak.* ‘al.kar. ‘ar.tu ‘anaiak elkar hartu’ (XA-1980-GS-ge-1). Artikulatorioki ahalegina eskatzen duen hautua da, eta hitzaren eremuak Amurizaren ekoizpenean duen garrantzia eta darabilen ahoskera enfatikoa (*fortitiboa*) uzten ditu agerian. Ondoko espektrograman ikus daiteke joera horren adibide bat:

102. irudia: Espektrograma. *ba.ke.a.ren.‘u.su.a* ‘bakearen usoa’ (XA-1980-GS-8H-1)



Badira joera honen salbuespenak; hitzen arteko mugak urtu eta hots katea birsilabatzen dutenak, CV egiturara hurbilduz gehiago: *len.di.ke.re* ‘lehendik ere’ (XA-1980-AS-8tx-1), *u.mo.re.rik.de.nar.te* ‘umorerik den arte’ (XA-1980-AS-8tx-2), etab. Hala ere, dezente gutxiago dira Amurizaren 1980ko bertsoetan.

(F7) Hitz arteko kontsonante bilkura heterosilabikoetan (VC(C)# #(C)CV) kontsonante horien ahultze, asimilazio edo kenketarik ez gertatzea, hots bakoitzak bere izaerari eutsiz.

Corpuseko adibide batzuk:

Herskari bilkurak: *ez.ta.kit.ba.ña* (XA-1980-GS-ha), *bat.pre.so* (XA-1980-GS-8H-1), *nik.kan.ta.tzen* (XA-1980-GS-8H-3), *jau.nak.‘ge.je.gi* (XA-1980-AS-ha), *goi.tik.kre.sa.la* (XA-1980-AS-ES-2), *bai.zik.gu.ri* (XA-1980-BB-ge-3), etab.

Sudurkari bilkurak: *nin.du.en.ni* (1980-GS-XA-pe-1), etab.

Aurkako joera ahultzaileak ageri dituzten adibide batzuk:

Herskari taldeak bakundu edo igurzkaritzea: *kai.jo.la.ba.da* ‘kaiola bat da’ (XA-1980-GS-8H-2), *bi.jo[ɥ].ba.te.ra* ‘biok batera’ (XA-1980-GS-8H-2), *ba.so.ri[ɥ].ba.so* ‘basorik baso’ (XA-1980-GS-8H-2), *zer.bai[ð].ge.jo* ‘zerbait gehio’ (XA-1980-GS-8H-3), etab.

Sudurkari taldeak bakuntzea: *e.sa.nai* ‘esan nahi’ (XA-1980-GS-pe-1), *au.rre.ha.na.go* ‘aurean nago’ (XA-1980-BB-8tx-1), *ar.tze.nau.* ‘hartzten nau’ (bi aldiz, XA-1980-BB-pe2), *jo.a.nin.tzen* ‘joan nintzen’ (XA-1980-BB-ge-1), *ai.ta.nue.nik* ‘aita nuen nik’ (XA-1980-BB-ge-2), etab.


Hots-katearen silabatze-joera honetan kontsonante-bilkuretan kontsonanteek euren izaera mantentzen dute (hautematearen ikuspegitik abiatuta) eta ez dira katean modu nabarmenean asimilatzen, bakuntzen edo kentzen, ezta gehiago indartzen ere. Askotariko kontsonante bilkurak jasotzen ditu joera honek (txistukari frikarien bilkurak, afrikatuenak, sudurkarietak, herskari + txistukari frikari, etab.), taulan herskarietak eta sudurkarietak soilik jaso ditudan arren⁵⁵⁰. Beharrezkoa litzateke gertakaria hobeto ezagutzeko kasuak banan-banan aztertzea eta gertakariaren alor fonetikoan sakontzea. Lehen hurbilpen gisa, halere, esan daiteke kasu askotan errepikatzen diren hotsek osatzen dituztela bilkura hauek eta, bi hotsetako bat kenduta edo asimilatuta katea nolabait erraztearen aukeraren aurrean (ahoskera erraztearen aurrean), bi hotsak ahoskatzeko ahalegina egiten duela batzuetan Amurizak (hautematearen mesedetan).

Aurretik ere beste hainbat bilakabide eta joeratan aipatu dut hitzaren eremuak bertsolari honengan duen garrantzia, eta kasu hau ere zentzu horretan uler daiteke: dikzio enfatikoaren ondorioz (ez da ahaztu behar jendaurrean kantuan ari dela bertsolaria), eta oinarrizko aurkezpenarekiko gardentasuna bermatuz, sarri hizkakoa den silabatzean hitzaren eremua markatzen du Amurizak, hitz arteko hotsak inolaz ere lotu gabe. Esan behar da, gainera, joera honen baitan jasotako kasu batzuetan eten labur bat ere egiten duela bi hitzak (bi kontsonante heterosilabikoak) banatzeko.


Ondoko adibideetan ikus daitezke askotariko kontsonante bilkura horien adibide batzuk:

550 Beste bilkura batzuen adibide lirateke ondokoak: *gatoz.zu.en.ga.na* ‘gatoz zuengana’ (XA-1980-GS-ha), *amets.txar.bat.da* ‘amets txar bat da’ (XA-1980-GS-8H-2), *tain.bat.* ‘sa.jets ‘ta hainbat saihets’, XA-1980-AS-ge-2), etab.


103. irudia: Espektrograma. *naiz.zu.re* ‘naiz zure’ (XA-1980-GS-8H-1)



104. irudia: Espektrograma. *nik.kan.ta.tzen* ‘nik kantatzen’ (XA-1980-GS-8H-3)



105. irudia: Espektrograma. *amets.txar* [a.metʃ.tʃar] (XA-1980-GS-8H-2)



Joera hau ez da orokorra eta badira testuinguru berberetan —zein beste kontsonante bilkura batzuetan— gauzatutako *lenitioak*: *e.sa.nai* ‘esan nahi’ (XA-1980-GS-pe-1) *kai.jo.la.ba.da* ‘kaiola bat da’ (XA-1980-GS-8H-2), etab. Pentsatzekoa da Amuriza hotsak (eta hitzak) ahal den argien ahoskatzeko ahalegina egiten ari dela saio osoan zehar eta noizean behin, “erlaxatzen” denean, hizketan horren ohikoak diren *lenitioak* gauzatzen dituela.

1.2.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko kohesiozile (lenitio) nagusiak

(L1) Hitz barneko segmentu kenketa batzuk⁵⁵¹

L.1.1. Aditz jokatueta, hitz barnean, bilkura heterosilabikoan bi bokal elkartzen direnean, bigarrena /e/ erdiko eta aurrekoa izanik, bigarren bokal hori kentzea⁵⁵²

Corpuseko adibide batzuk:

zai.tu.nak ‘zaituenak’ (XA-1980-GS-10tx-1), *ba.ze.gon* ‘bazegoen’ (XA-1980-AS-pe1),
ez.ta.go.la ‘ez dagoela’ (XA-1980-GS-10tx-2), *zen.dun* ‘zenuen’ (XA-1980-BB-8tx-2),
e.tzun ‘ez zuen’ (XA-1980-GS-10tx-3), *nen.go.la* ‘nengoela’ (XA-1980-BB-ge-1),
ba.ge.nun ‘bagenuen’ (XA-1980-AS-8tx-1), etab.
na.gon ‘nagoen’ (XA-1980-AS-ES-2),

Kenketa gabeko corpuseko adibide batzuk: *nin.du.en* (XA-1980-GS-pe-1),
au.si.nis.te.nez.tu.e.nik ‘hau sinisten ez duenik’ (XA-1980-AS-ge-1), *pre.so.nen.go.en* (XA-1980-BB-ge-1), *i.zan.gen.du.en* ‘izan genuen’ (XA-1980-BB-ge-3), *no.la.da.go.en* (XA-1980-BB-ge-3), etab.

L.1.2. Askotariko silaba kenketak.

Corpuseko adibide batzuk:

do.nos.tin ‘Donostian’ (XA-1980-BB-ge-3), *be.ra* ‘behera’ (XA-1980-BB-9phtz), *ta* ‘eta’ (XA-1980-GS-10tx-2), *ez.ne.za.ke.si.nets* ‘ezin nezake sinetsi’ —ez(in) eta sinets(i) laburtuta— (XA-1980-GS-ge-2), *gu.su.a* ‘lehengusua’ (XA-1980-GS-8H-1) eta *(ni.re.)di.ña* ‘nire adina’ (XA-1980-BB-8tx-2).

Bokal bilkura ekiditen duen beste gertakari bat da aditz jokatueta /e/ bokalaren kenketa, ondorioak dituen silaba kopuruan eta, beraz, baliabide metriko gisa eraginkorra dena. Hotsezko gertakari hori ulertzeko aditzari erreferentzia egin beharrik agerian uzten du erregela baten aurrean gaudela, izatekotan. Amurizak forma murriztuak (/e/ gabeak) eta osoak erabiltzen ditu behar metrikoen arabera. Gertakari honekin gogoetarako gai gisa mahai-gaineratzen da hiztunak —kasu honetan, bertsolariak— hizkuntza batean ezagutzen dituen hizkera desberdinen baliabideez egin

551 Atal honetan izaera desberdina duten gertakari fonikoak jaso ditut elkarrekin eta beharrezkoa da aurrera begira horietan sakontzea. Taulan aurkeztutakoekin batera, zalantzazko adibide gisa jaso ditut *neu.rri.ja* ‘neurria’ (XA-1980-AS-ge-3), lehen silabako diptongatzea sineresizat har ote daitekeen ziur egon gabe, behearazko diptongoduna izanda, eta *ju.e.zi* (XA-1980-GS-10tx-3) eta *di.os.ka* (XA-1980-BB-pe-1) dieresizat (irristariaren silabagiletzetat) har ote daitezkeen euskaraz, jakinda goranzko diptongoak egitea ez dela horren ohikoa. Adibideetako bakoitzak azterketa sakonagoa eskatzen du.

552 Bestelako bokal eta, zabalago, silaba kenketak ere gauzatzen ditu Amurizak. Askotariko gertakariak dira, mota bakoitzeko adibide gutxi batzuk dituztenak eta, horregatik, baliabide metrikoen atalean jaso ditut zuzenean, eskakizun metrikoak betetzeko kenketa baliabide gisa, ezin baitira silabatze joera orokortzat (edo neurri batean zabalduak hartu).

dezakeen erabilera —kasu honetan, neurria betetzeko—. Ea bokal bilkuraren murriztapena hizkeraren batean bizirik dagoen edo, hiztunak gutxienez hizkera estandarra, erdialdekoa eta mendebaldekoa ezagutzen dituen (hizkera horietako forma zehatz batzuk, bederen), sistema desberdinen emaitza morfonologiko edo fonologikoez baliatzen den.

Bestetik, hitz lauz ohikoak diren bokal kenketak gauzatzen ditu kantuan: *do.nos.tin* ‘Donostian’ (XA-1980-BB-ge-3), *be.ra* ‘behera’ (XA-1980-BB-9phtz), *(e)ta* ‘eta’ (XA-1980-GS-10tx-2), *ez.ne.za.ke.si.nets* ‘ezin nezake sinetsi’ —ez(in) eta sinets(i) laburtuta— (XA-1980-GS-ge-2), etab. Horiekin batera, *gu.su.a* ‘lehengusua’ (XA-1980-GS-8H-1) eta *(ni.re.)di.ña* ‘nire adina’ (XA-1980-BB-8tx-2) gisako aferesidun formak ere baliatzen ditu, Amurizaren ohiko baliabide ez den arren.

(L2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak birsilabatzea, silaba bakarrean ahoskatuta [V# #V → VV] (lizentzia metrikoetan **sinalefa** gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (guztiak):

a.la^he.re ‘hala ere’ (XA-1980-GS-8H-3),
ni.e.reo.lan.go.a ‘ni ere horrelakoa’ (XA-1980-GS-pe-1),
bi.zi.tze.æ.re ‘bizitzea ere’ (XA-1980-GS-ge-2),
a.lae.re ‘hala ere’ (XA-1980-GS-10tx-1),
ko.txe.æ.ra.man ‘kotxea eraman’ (XA-1980-GS-10tx-2),
taes.naiz ‘ta ez naiz’ (XA-1980-GS-10tx-3),
buel.tae.ma.te.ko ‘buelta emateko’ (XA-1980-AS-pe-1),
bi.jo.tza.t[aj]n.bat ‘bihotza (e)ta hainbat’ (XA-1980-AS-ge-2),
ba.dao.rren. ‘i.tu.rri.ja’ ‘bada horren iturria’ (XA-1980-AS-ge-3),
ja.j[oj].zan ‘jaino izan’ (XA-1980-BB-8tx-2),
zuk.ni.r[je].zu.rra.ke.ta ‘zuk niri hezurak’ (XA-1980-BB-8tx-3),
au.ke.rae.de.rrau ‘aukera eder hau’ (XA-1980-BB-ge-1),
go.raes.pe.ran.tza ‘gora esperantza’ (XA-1980-BB-9phtz).

Sinalefarik gabeko adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen ez diren hiato adibideak (1980ko Amurizaren bertso ekoizpenean, sinalefak baino dezente gehiago direnak).

Bertsoetako oinarri metrikoak zehaztutako silaba-kopuruak eta taldekatze eskakizunek eragindako silabatze-joera da sinalefarena, eta Amurizak taulan jasotako kasuetan darabil, 13 aldiz

35 bertsotan. Diptongoan hitz artean gehien batzen den bokal bilkura /a/ + /e/ da: *bi.zi.tze.æ.re* ‘bizitzea ere’ (XA-1980-GS-ge-2), *a.læ.re* ‘hala ere’ (XA-1980-GS-10tx-1), *ko.txe.æ.ra.man* ‘kotxea eraman’ (XA-1980-GS-10tx-2), *taes.najz* ‘ta ez naiz’ (XA-1980-GS-10tx-3), *buél.tæ.ma.te.ko* ‘buelta emateko’ (XA-1980-AS-pe-1), etab. Horrekin batera, behearazko diptongoak ([aj]: *bi.jo.tza.t[aj]n.bat* ‘bihotza (e)ta hainbat’, XA-1980-AS-ge-2), goranzkoak ([je]: *zuk.ni.r[je].zu.rra.ke.ta* ‘zuk niri hezurak’, XA-1980-BB-8tx-3) eta /a/ + /o/ (*ba.dæo.rren.‘i.tu.rrí.ja* ‘bada horren iturria’, XA-1980-AS-ge-3) zein /e/ + /o/ (*ni.e.reo.lan.go.a* ‘ni ere horrelakoa’, XA-1980-GS-pe-1) bokal konbinazioak aurkitzen dira Amurizaren sinalefetan.

Behar metrikoen arabera eginiko silabatze-hautuak dirudite jasotakoek, eta ez dirudi bokal konbinazioen araberrako murriztapenik duenik bertsolariak, hitz arteko bokal bilkuran bokal berbera elkartzen denean (‘a# #a’ edo ‘o# #o’, adibidez), bi bokalak silaba berean bildu eta bakuntzen ez dituen arren: *da.‘a.ka.so* (XA-1980-GS-8H-2), *pen.tsa.‘a.læ.re* ‘pentsa hala ere’ (XA-1980-GS-8H-3), *i.pur.di.ko.‘o.tzik* ‘ipurdiko hotzik’ (XA-1980-GS-pe-2). Bakuntzeak (*da.ka.so*, *pen.tsa.læ.re* edo *i.pur.di.ko.tzik* gisakoek) oinarrizko aurkezpenarekiko distantzia areagotuko luke, eta esan nahi dena deskodetzeko zailagoa litzateke entzulearentzat. Sinalefa bokal desberdinekin egiten denean, hots katea birsilabatuta, presente daude oinarrizko aurkezpeneko segmentu guztiak, esan nahi den hori ulertzea errazago eginez.

Amurizak sinalefa egiteko arazorik ez duen arren, askoz gehiago dira hitz arteko diptongatzerik eza (hiatoa) agertzen duten adibideak. Ematen du Amurizak joera orokor gisa ez dituela hitzak elkarren artean lotzen, eta oso noizean behin gauzatzen duela sinalefa, hots katea neurrian sartzeko.

(L3) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean, silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-a egitea hitzen arteko muga urtuz; hots katea birsilabatzea CV egiturarantz.

Corpuseko adibideak (guztiak): *e.zal.zen* ‘ez al zen’ (XA-1980-GS-ha), *la.no.ri* ‘lan hori’ (XA-1980-GS-8H-3), *bi.jo.nar.te.an* ‘bion artean’ (XA-1980-GS-8H-3), *eus.ka.le.rrí.ko* ‘Euskal Herriko’ (XA-1980-GS-8H-3), *e.zo.te* ‘ez ote’ (XA-1980-GS-pe-2), *e.za.zu* ‘ez (e)zazu’ (XA-1980-GS-pe-2), *eus.ka.le.ri.jaz* ‘Euskal Herriaz’ (XA-1980-GS-ge-1), *to.ki.ri.kez* ‘tokirik ez’ (XA-1980-GS-10tx-1), *hai.zi* ‘haiz hi’ (XA-1980-GS-10tx-3), *len.di.ke.re* ‘lehendik ere’ (XA-1980-AS-8tx-1), *u.mo.re.rik.de.nar.te* ‘umorerik den arte’ (XA-1980-AS-8tx-2),

si.nis.te.nez.tu.e.nik ‘sinisten ez duenik’ (XA-1980-AS-ge-1),
(zu.e.k)e.ze.tze.sa.na.rren ‘ezetz esan arren’⁵⁵³ (XA-1980-AS-ge-2),
ni.ke.san.go.dut ‘nik esango dut’ (XA-1980-AS-ge-2),
ba.koi.tza.ke.gin.be.ar ‘bakoitzak egin behar’ (XA-1980-BB-8tx-3),
zuk.ni.rie.zu.rra.ke.ta ‘zuk niri hezurak eta’ (XA-1980-BB-8tx-3),
au.ke.rae.de.rrau ‘aukera eder hau’ (XA-1980-BB-ge-1),
zu.ke.man.da.ko ‘zuk emandako’⁵⁵⁴ (XA-1980-BB-ge-2),
eus.ka.le.rrri ‘Euskal Herri’ (XA-1980-BB-9phtz),
e.zaut ‘ez haut’ (XA-1980-AS-ba), *a.ne.gon.go.ajz* ‘han egongo haiz’ (XA-1980-AS-ba),
bi.jon.tza.te.ta ‘biontzat eta’ (XA-1980-AS-ba).

Liaisonik ez duten adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-ik egiten ez duten adibideak (eta bilakabidearen deskribapena). Amurizaren kasuan, joera nagusia *liaisonik* ez egitea da, adibide askoz gehiago aurkitzen baitira norabide horretan.

Silaba-aldiko hizkuntzetan ohiko den *liaison* edo birsilabatzea ez da joera horren ohikoa Amurizaren jardunean, orain arte aurkeztutako bilakabide eta joerek agerian uzten dutenez, hitzaren eremuak garrantzia baitu bertsolariaren silabatze-hautuetan (ikus §10. kapitulua hitzaren eremu prosodikoaz, taldekatze prosodikoaren ikuspegitik). Horri gehitu behar zaio txapelketa den jendaurreko testuinguru formalean ahoskera zaindu eta argia, oinarrizko aurkezpenarekiko ahal den gardenena, gauzatzeko beharbada bertsolariak duen joera. Edonola ere, hainbat dira aurki daitezkeen hitz arteko birsilabatze adibideak, bertsolariak horretarako murriztapenik ez duela iradokiz: *e.zaut* ‘ez haut’ (XA-1980-AS-ba), *a.ne.gon.go.ajz* ‘han egongo haiz’ (XA-1980-AS-ba), *bi.jon.tza.te.ta* ‘biontzat eta’ (XA-1980-AS-ba).

553 Errepikan kantatzen da esamoldea, eta bigarrenaz kantatzean gauzatzen du Amurizak CVrantz birsilabaturik ‘zuek ezetz’ ere, lehenengo etenaz bereizten du.

554 Errepikan gauzatzen du *liaison*dun ahoskera; lehen aldiz hots katea kantatzean, hizkako segmentazioa egiten du: *zuk*. ‘emandako’ (XA-1980-BB-ge-2).

(L4) Hitz arteko kontsonante bilkura heterosilabikoen asimilazio zenbait eta bestelako kenketa batzuk⁵⁵⁵

L.4.1. Txistukari ahoskabearen ondorengo herskari ahostuna ahoskabetzea ‘ez’ morfemari lotuta (erregela).

Corpuseko adibideak: *ez.ta.kit* ‘ez dakit’ (XA-1980-GS-ha; XA-1980-GS-4oin; XA-1980-AS-ge-2), *ez.tu* ‘ez du’ (XA-1980-GS-10tx-1), *ez.ta.go.la* ‘ez dagoela’ (XA-1980-GS-10tx-2), *ez.ta* ‘ez da’ (XA-1980-GS-3; XA-1980-GS-4oin), *ez.tu* ‘ez du’ (XA-1980-GS-10tx-1), *ez.ta.go.la* ‘ez dagoela’ (XA-1980-GS-10tx-2), *ez.pa.na.go* ‘ez banago’ (XA-1980-AS-ge-1), *au.si.nis.te.nez.tu.e.nik* ‘hau sinisten ez duenik’ (XA-1980-AS-ge-1), *ez.tu.zu* (XA-1980-BB-8tx-1), *ez.tan* ‘ez den’ (XA-1980-BB-9phtz).

Ahoskabetzea gertatzen ez den zenbait adibide: *ez.ba.da* (XA-1980-GS-ge-2), *ez.gai.te.zen* (XA-1980-AS-ge-1).

L.4.2. Bi frikari txistukari gauzatzen direnean elkarren segidan, bat kendu eta bestea afrikatzea ‘ez’ morfemari lotuta.

Corpuseko adibideak: *e.tzun* ‘ez zuen’ (XA-1980-GS-10tx-3), *e.tze.ra* ‘ez zara’ (XA-1980-BB-8tx-4).

Afrikatze gabeko adibideak: *e.za.zu* ‘ez (e)zazu’ (XA-1980-GS-pe-2)⁵⁵⁶.

Puntu honetan jasotako kenketa eta asimilazioek erregela izaera dutela dirudi, ‘ez’ hitzarekiko duten harremanagatik. Hala ere, atal honetan jaso nahi izan ditut hots katea silabatzean hitzen arteko lotura bilatzen duten gertakariak direlako (asimilazioa, kenketa), silaba (ekina) indartzearekin batera. Xabier Amurizak aukera duen kasu gehienetan gauzatzen du ahoskabetzea; beti aditza /d/ kontsonante horzkariarekin hasten bada: *ez.ta.kit* ‘ez dakit’ (XA-1980-GS-ha; XA-1980-GS-4oin; XA-1980-AS-ge-2), *ez.tu* ‘ez du’ (XA-1980-GS-10tx-1), *ez.ta.go.la* ‘ez dagoela’ (XA-1980-GS-10tx-2), *ez.ta* ‘ez da’ (XA-1980-GS-3; XA-1980-GS-4oin). Batzuetan ahoskabetzen du txistukari ondorengo /b/ ezpainkaria: *ez.pa.na.go* ‘ez banago’ (XA-1980-AS-ge-1) baina *ez.ba.da* (XA-1980-

555 Jauregik (2007) fortitioen atalean kokatzen ditu L4-n jasotako erregelak. Nik, berriz, lenitioen atalean kokatu ditut, segmentu batzuekiko emaitza fortitiboa izan arren eta silaben ekina indartu arren, hots kateko osagaiak elkarren artean gehiago lotzea duelako ondorio gisa. Horrek kontrastea egiten du fortitioen atalean kokatutako aurkako F7 joeraren aurrean: kontsonante taldeak bere horretan mantentzea eta bereiz ahoskatzea hitzak. Ulerkera hori lagungarri da taldekatzeaz eta eremu prosodikoez aritzeko.

556 ‘Ez’ morfemari lotuta jaso da txistukariaren kenketa ere, ozen aurrean. Amurizak ez du halakorik egiten, 1980ko bertsoetan jasotako adibide bakarrean: *ez.nu.en* (XA-1980-BB-ge-1).

GS-ge-2). /g/ kontsonante belarrarekin jasotako adibide bakarrean ez du ahoskabetzen: *ez.gai.te.zen* (XA-1980-AS-ge-1).

Taulan jasotako txandakatzeez gain, nabarmentzekoa da afrikatzea emaitza duten bilakabideak ez direla gehienetan gauzatzen, hitz artean, Amurizaren jardunean. Ozen ondorengo frikarien kasuan, adibidez: *e.zal.zen* ‘ez al zen’ (XA-1980-GS-ha), *e.gin.zin.tu.e.nak* ‘egin zintuenak’ (XA-1980-10tx-2), *e.gin.zan* ‘egin zen’ (XA-1980-AS-ES-2). Herskaria eta frikaria elkartzean euskaraz batzuetan gauzatzen den afrikatua ere ez du egiten Amurizak: *ain.bat.sa.jets* ‘hainbat saihets’ (XA-1980-AS-2), *diz.ki.zut.zu.ri* ‘dizkizut zuri’ (XA-1980-BB-ge-3). Horrek bertsolariaren ekoizpenean hitzaren eremu prosodikoak duen nagusitasuna uzten du agerian, oinarrizko aurkezpenarekiko gertutasunarekin bilaketa posiblea iradokitzeaz gain.

1.2.3. Bestelako gertakari foniko indartzaile esanguratsu batzuk


(B1) “Makulu-silaba” enfatikoak ekoiztea, hasperen bat txertatuz silaba-gunea osatzen duen bokalaren erdian (edo tarte batez bokala ahoskabetuz), aire-etorriari bultzada bat emanez.

Corpuseko adibide batzuk: [ba^ha].*da* ‘bada’ (XA-1980-GS-ha), [a^ha].*fa.na* ‘afana’ (XA-1980-GS-ha), [ga^hawr] ‘gaur’ (XA-1980-GS-ha), [o^ho].*be* ‘hobe’ (XA-1980-GS-ha), di.fe.ren.tz[i^hi].*ja* ‘diferentzia’ (XA-1980-GS-8H-1), n[o^ho].*la* (XA-1980-GS-8H-2), ja.s[o^ho] (XA-1980-GS-8H-2), a./[a^he].*re* ‘hala ere’ (XA-1980-GS-8H-3), z[e^he].*r.bait* ‘zerbait’ (XA-1980-GS-8H-3), e.zo.t[e^he] (XA-1980-GS-pe2), s[a^ha].*mi.na* (XA-1980-GS-ge-3), be.rr[i^hi]z *ez.ta.go.la* ‘ez dagoela’ (XA-1980-GS-4oin), i.z[a^ha]n.*go* (XA-1980-GS-4oin), etab.

Silaba jakinetan, enfasis kantatzean, hasperen bat txertatzen du bertsolariak bokalean, “bokal erdian”, silaba barrenean, silaba hori bera ahoskatzeko nolabaiteko “makulu silaba” bat sortuz. Aire etorriari bigarren bultzada bat ematen dio bertsolariak: /ba/ → [ba^ha] (*ba^ha.da* ‘bada’; XA-1980-GS-ha), /te/ → [te^he] (*ezote^he* ‘ez ote’; XA-1980-GS-pe-2), /ris/ → [ri^his] (*be.rris* ‘berriz’; XA-1980-GS-4oin) edo /o/ → [o^ho] (*o^hobe*; XA-1980-GS-ha) gauzatuz. Kantagintzako gertakaritzat hartuko nuke ondokoa: aztertutako kasuen gehiengoan, bertsolariak musika nota garaiago bat kantatu behar duenean gertatzen da bokal barreneko hasperena, arnasbidean nota agudoagora heltzeko egiten ari den presioa hasperen forman (ere) ateraz fonetikoki (ikus Lizasoren atalean garaiara jaso duten espektrogramak gertakari honekin). Fonetikoki diot, argi baitago hasperen horrek ez duela izaera fonemikorik, eta entzule bertsozaleek ez dutelako (ziurrenik) gertatua silaba

gehigarri bat bezala kontatzen, metrikari dagokionez. *o^ho.be* ‘hobe’ (XA-1980-GS-ha) ekoizpenak bi silaba ditu, ez hiru (*o.^ho.be*), hizkuntza ezagutu gabe ozentasun gorabeheri erreparatuta beharbada pentsatuko genukeen bezala. Ondoko espektrograman ikus daiteke *hobe* hitzeko /o/ bokalaren ekoizpena tarte batez ahoskabetzen dela.

106. irudia: Espektrograma. *o^ho.be* (XA-1980-GS-ha)



Gertakari hau oparo aurki daiteke Amurizarengan; sakon aztertu beharrekoa litzateke zein den zehazki gauzatzen dituen adibideen testuingurua, baldintzak zein diren, gertakaria egoki ulertu ahal izateko. Edonola ere, gertakari honek, aurreko gehienek bezalaxe, agerian uzten du Amurizak silabak kantatzeko duen modu fortitiboa, haietako bakoitzari fonetikoki indarra emanez.

1.3. Neurria betetzeko baliabide foniko nagusiak

Amurizak hizketa katea oinarri metrikoarekin uztartzeko hainbat baliabide foniko darabiltza 1980ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean:

- Nabarmenena, baliabide metrikotzat har badaiteke berau, **hiatoa** da: hots kateko bokal bilkurak, hitz artekoak direnean, banatuta silabatzea, bakoitzak bere silaba duela, hitz arteko mugak urtu eta bokalak birsilabatu gabe. Esate baterako: *nai.‘al.du.zu* ‘nahi al duzu’ (XA-1980-GS-pe-1), *i.pur.di.ko.‘o.tzik* ‘ipurdiko hotzik’ (XA-1980-GS-pe-2), *bi.jo.tze.ra.ño.‘u.me.tan* ‘bihotzeraino umetan’ (XA-1980-GS-ge-1), *mun.du.‘o.ne.tan* ‘mundu honetan’ (XA-1980-GS-ge-1), etab. Joera hau nagusitzat har daiteke Amurizaren bertsoetako txertatze prosodikoan.
- **Sinalefa** ere erabiltzen du batzuetan (13 aldiz 35 bertsoetan), hiatoaren aurkako joera, hain zuzen. Hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak birsilabatu eta silaba bakarrean

ahoskatzea, horrela silaba bat gutxiago sortuz: *buel.tae.ma.te.ko* ‘buelta emateko’ (XA-1980-AS-pe-1), *bi.jo.tza.t[aj]n.bat* ‘bihotza (e)ta hainbat’ (XA-1980-AS-ge-2), *ba.dao.rren.i.tu.rri.ja* ‘bada horren iturria’ (XA-1980-AS-ge-3), *ja.j[oj].zan* ‘jαιο izan’ (XA-1980-BB-8tx-2), *zuk.ni.r[je].zu.rra.ke.ta* ‘zuk niri hezurrak’ (XA-1980-BB-8tx-3), etab.

- **Kenketa** aipatu behar da ondoren. Izan ere, askotariko moduetara laburtzen ditu Amurizak hitzak hots katea neurrira egokitzeko. Batetik, aditz jokatueta bokal bilkurak bezalakoak soilduta, behar duenean: *zai.tu.nak* ‘zaituenak’ (XA-1980-GS-10tx-1), *ez.ta.go.la* ‘ez dagoela’ (XA-1980-GS-10tx-2), *e.tzun* ‘ez zuen’ (XA-1980-GS-10tx-3), *ba.ge.nun* ‘bagenuen’ (XA-1980-AS-8tx-1), *na.gon* ‘nagoen’ (XA-1980-AS-ES-2) baina *nin.du.en* ‘ninduen’ (XA-1980-GS-pe-1), *pre.so.nen.go.en* ‘preso nengoen’ (XA-1980-BB-ge-1), *i.zan.gen.du.en* ‘izan genuen’ (XA-1980-BB-ge-3), *no.la.da.go.en* ‘nola dagoen’ (XA-1980-BB-ge-3), etab.

Bestetik, hitz lauz ohikoak diren bokal kenketak gauzatzen ditu kantuan: *do.nos.tin* ‘Donostian’ (XA-1980-BB-ge-3), *be.ra* ‘behera’ (XA-1980-BB-9phtz), *(e)ta* ‘eta’ (XA-1980-GS-10tx-2), *ez.ne.za.ke.si.nets* ‘ezin nezake sinetsi’ (XA-1980-GS-ge-2), etab. Horiekin batera, *gu.su.a* ‘lehengusua’ (XA-1980-GS-8H-1) eta *(ni.re.)di.ña* ‘nire adina’ (XA-1980-BB-8tx-2) gisako aferesidun formak ere baliatzen ditu, Amurizaren ohiko baliabide ez den arren.

- Azkenik, askotariko **gehiketak** aipatu behar dira baliabide gisa. Gertakari honetan hizkuntzaren alor morfonologikoa sartzen da bete-betea, erregelen ondorio diren txandakatzeak edo hizkera desberdinetan baliatutako formak erabiliz komeni gisa, neurria egoki betetzeko. Ablatiboaren (NONDIK) erabileran, adibidez, *-tik/-(r)ik* eta *-tikan/-(r)ikan* formen arteko txandakatzea baliatzen du bertsolariak: *min.ga.ñe.ti.kan* ‘mingainetik’ (XA-1980-GS-ge-2), *baz.te.rri.kan.baz.ter* ‘bazterrik bazter’ (XA-1980-AS-pe2), baina *ba.so.rik.ba.so* (XA-1980-GS-8H-2). Absolutiboko marka beharrean ergatiboarena ere baliatzen du silaba bat gehiago ekoitzi ahal izateko, kasuren batean: *ba.tzu.ek* (daude kontra) ‘batzuk’ (XA-1980-AS-ES-1), baina *bes.te.ba.tzuk* (alde) (XA-1980-AS-ES-1). Aditz laguntzaileen hizkera arteko aldakortasuna ere erabiltzen du, beharren arabera: *li.bre.ge.ra.de* ‘libre gara’ (XA-1980-GS-4oin), *di.jos.ta* ‘diost(a)’ (XA-1980-BB-pe1) baina *ze.ra* ‘zara’ (XA-1980-GS-pe2), *ga.re.la.ko* ‘garelako’ (XA-1980-AS-8tx-2). Sakon aztertu beharreko auzia da hemen labur eta ideia orokor gisa jasotakoa, aniztasun eta aldakortasun handia aurki baitaiteke forma eta erabilera batetik bestera.

1.4. Joera nagusiak laburbilduz

Xabier Amurizak 1980ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoen silabatzean fokua jarririk, esan daiteke bertsolariak hots katearen ekoizpen fortitiboa egiten duela, oro har; bokal bilkurak banatzeko hasperen eta kontsonante palatal epentetikoek, bokal arteko herskariak ohi baino gutxiago igurzkaritzeak (hautematearen ikuspegitik, behintzat), (ia) hizkako segmentatzeak eta hitz arteko kontsonanteak (eta kontsonante taldeak) sarri ez ahultzeak, etab. bertsolariak ahoskera zaindu eta enfatikoak egiten duela pentsatzera narama. Aipatutako joera indartzaile gehienek silaba (eta hitza) eremu prosodiko gisa indartu eta hots-katea CV silaba-egitura oinarrizkoenerantz hurbiltzea dute ondorio maiz.

Lenitioei dagokienez, hots katearen ahoskera erraztu eta, aipatutako fortitio askok bezala, segmentuen antolaketa CV egiturarantz hurbiltzen duten bilakabide, erregela eta joerak dira nagusi: bokal bilkurak ekiditeko kenketak, birsilabatzeak (*liaison*-a), diptongatzeak (sinalefak), kontsonante bilkuren sinpletzeak, etab. Jasotako gertakariekin erraz ulertzen dira silaba-egituren maiztasunak aztertzean ateratako datuak; silaba-ekina indartzen duten egiturak %80tik gora izatea, eta silaba irekiak, %70 baino gehiago.

Aipatutako gertakari eta joerak lizentzia metrikoen erabileran islatzen dira: ahal dela hitz bakoitzari bere silabatze propioa eskaintzen dio Amurizak, joera nagusi gisa, oinarriko aurkezpenetik ahal den gertuen dagoen ahoskerarekin sarri. Neurriak behartuz gero, ez dirudi sinalefa baliatzeko arazorik duenik, baina aurkitutako adibideengatik (13 kasu, 35 bertsoetan) pentsatzekoa da ez dela lehen aukera gisa bertsolariak darabilen silabatze-aukera. Askotariko kenketa eta gehiketak ere baliatzen ditu, aldakortasun morfonologikoari lotuta, batez ere, neurriaren eskakizunak bete ahal izateko.

2. Xabier Amuriza (1982)

2.1. Silaben egiturak eta horien maiztasunak

Amurizaren 1982ko txapelketako finaleko bertsoetako silabak aztertuta, ondokoak dira bertsolariak ekoiztutako silaben egiturak, bakoitzetik zenbatu den silaba-kopurua eta orotara ahoskatutako silabekiko proportzioa (maiztasuna):

9. taula: 1982ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Xabier Amurizak ekoiztako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	1752	%61,32
CVC	540	%18,90
V	345	%12,08
VC	180	%6,30
CCV	29	%1,02
CCVC	6	%0,21
CVCC	4	%0,14
VCC	1	%0,04
	Guztira: 2857	
Silaba irekiak denetara:		%74,42
Silaba itxiak denetara:		%25,58

Taulan ikus daitekeenez, Amurizaren silabatzean CV egitura da nagusi, egiturarik oinarrizkoena (%61,32). Horren ondoren, CVC silaba-egitura baliatzen du maizen bertsolariak (%18,90). Silaba ekina indartzen duten egiturak %80tik gora dira (%81,59), nahiz eta esan behar den ekinean kontsonante bat baino gehiago gauzatzea ez dela batere ohikoa Amurizarentzat 1982ko txapelketan ere; CCV (%1,02) eta CCVC (%0,21) egiturak ez dira ekoiztako silaben %2ra heltzen. CVC egituraren ondoren, V bokalez (edo diptongoz) soilik osatutako silabek dute maiztasunik altuena: %12,08, VC egitura ere gertu dagoelarik (%6,30). Agerpen gutxi batzuk besterik ez dituzte, orain arte aipatutako CCV eta CCVC egiturekin batera, CVCC (%0,14) eta VCC (%0,04) silabamotek. Silaba-ekinean eta kodan kontsonante bat baino gehiago ahoskatzea Amurizarentzat ezohikoa dela esan daiteke horrela.

Datuei bestela begiratuta, silaba irekiek egitura guztien %74,42 osatzen dute. Itxiek, berriz, %25,58.

2.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko segmental nagusiak

Ondokoak dira Amurizak 1982ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoetan baliatutako silabatze-joerak eta silaba-egitura eta silabatzea baldintzatzen duten bere bilakabide fonologiko nagusiak:

2.2.1. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko indartzaile (fortitio) nagusiak

(F1) Silaba ekinean **hasperen epentetikoa** txertatzea **hitz barnean zein hitz artean bi bokal heterosilabikoren elkarketa dagoenean**, baita eremu prosodiko hasieran ere.

Corpuseko adibideak bokal artean, hitz barnean:

o.len.tze.ro.[h]a.noa ‘olentzeroan noa’ (XA-1982-GS-pe-1),
zo.ri.jo.ne.[h]an ‘zorionean’ (XA-1982-AS-10H-1),
e.txe.[h]an (x2) ‘etxean’ (XA-1982-AS-be-1; XA-1982-AS-be-2),
nahi [na^hj](XA-1982-BB-8tx-3)
be.[h]a.rra (XA-1982-BB-ge-1),
za.[h]a.rra (XA-1982-AS-ba).


Corpuseko adibideak bokal artean, hitz artean: *o.ni.[h]i.lar.te* ‘honi hil arte’ (XA-1982-GS-4oin-1), *ne.re.[h]al.da.ri.ja* (XA-1982-GS-ge-1).

Corpuseko adibideak eremu prosodiko hasieran: *[h]or.bal.din.ba.da* (XA-1982-BB-ge-2).

Nahitaezkoa ez den bilakabidea (hautazkoa). Ondoko adibideetan ez da gertatzen, besteak beste: *be.a.rra* ‘beharra’ (XA-1982-GS-ha), *or.go.je.tan* ‘hor goietan’ (XA-1982-GS-8H-4) edo *o.rra.nik.as.ti.ro* ‘horra nik astiro’ (XA-1982-GS-4oin-1), *ko.txe.e.de.rre.an* ‘kotxe ederrean’ (XA-1982-GS-10tx-2) edo *e.lur.zu.ri.ga.ñe.an* ‘elur zuri gainean’ (XA-1982-GS-ge-3), *an.dre.ak* ‘andreak’ (XA-1982-AS-8tx-1), etab.

1980ko txapelketan bezala, 1982an ere hasperena gauzatzen du Amurizak batzuetan bokal artean edo eremu prosodiko hasieran. Ondoko espektrograman ikus daiteke:

107. irudia: Espektrograma. *za.[h]a.rra* (XA-1982-AS-ba)



Kasu gutxiagotan gauzatzen du hasperena Amurizak 1982ko txapelketan (1980koan 21 adibide zenbatu ditut denetara; 1982koan, 9).

1980ko txapelketako adibideak aurkeztean esan bezala, 1982koetan ere hasperena gauzatzeak kasu guztietan indartzen du silaba unitate gisa, ekinik gabeko silabari ekina emanez. Adibideak banan-banan aztertuta, hainbat kasutan hitzak banatzeko egitekoa (ere) betetzen duela pentsa genezake: *o.ni.[h]i.lar.te* ‘honi hil arte’ (XA-1982-GS-4oin-1), *ne.re.[h]al.da.ri.ja* ‘nire aldarria’ (XA-1982-GS-ge-1). Beste batzuek ortografiaren, alfabetatzearen eragina iradokitzen dute, idatziz jasotzen diren toki berean gauzatzen baitu bertsolariak hasperena: *be.[h]a.rra* ‘beharra’ (XA-1982-BB-ge-1), *[h]or.bal.din.ba.da* ‘hor baldin bada’ (XA-1982-BB-ge-2), *za.[h]a.ra* ‘zaharra’ (XA-1982-AS-ba), nahiz eta bertsolariaren ekoizpena ez datorren beti bat hitzen idazkerarekin. Hainbatetan muga morfologikoekin lotura duela pentsarazten du, aipagarriak izanik inesibodun (NON) adibideak (1980an bezala): *o.len.tze.ro.[h]a.noa* ‘olentzeroan noa’ (XA-1982-GS-pe-1), *zo.ri.jo.ne.[h]an* ‘zorionean’ (XA-1982-AS-10H-1), *e.txe.[h]an* ‘etxean’ (x2) (XA-1982-AS-be-1; XA-1982-AS-be-2). Inoiz eremu prosodikoen (hitz prosodikoaren, esaldi fonologikoaren) ekineko indartzetzat ere har genezake.

Gutxi dira bildutako adibideak eta testuinguru bakar batean ere ez da hasperena sistematikoki gauzatzen: *be.[h]a.rra* ‘beharra’ (XA-1982-BB-ge-1) baina *be.a.rra* ‘beharra’ (XA-1982-GS-ha), *[h]or.bal.din.ba.da* ‘hor baldin bada’ (XA-1982-BB-ge-2) baina *or.go.je.tan* ‘hor goietan’ (XA-1982-GS-8H-4) edo *o.rra.nik.as.ti.ro* ‘horra nik astiro’ (XA-1982-GS-4oin-1), *e.txe.[h]an* (x2)

(XA-1982-AS-be-1; XA-1982-AS-be-2) baina *ko.tx.e.e.de.rre.an* ‘kotxe ederrean’ (XA-1982-GS-10tx-2) edo *e.lur.zu.ri.ga.ñe.an* (XA-1982-GS-ge-3), etab.

Silaba ekina indartzen duen fortitioa modu mugatuan gauzatzen du, beraz, Amurizak 1982an. Azterketa sakonagoa beharrezkoa litzateke gertakaria hobeto ulertzeko.

(F2) Kontsonante palatal epentetikoa txertatzea **hitz barnean eta hitz artean** aurreko eta goiko bokalaren (/i/) eta beste bokal heterosilabiko baten artean, azken honen silaba-ekinean (**i.V** → **i.jV**)⁵⁵⁷.

Corpuseko adibideak (guztiak):

fe.ri.[j]a ‘feria’ (XA-1982-GS-10tx-1), *ko.me.ri.[j]a* ‘komeria’ (XA-1982-GS-10tx-1),
lo.te.ri.[j]a ‘loteria’ (XA-1982-GS-10tx-1), *e.ri.[j]a* ‘eria’ (XA-1982-GS-10tx-1),
gar.men.di.[j]a ‘Garmendia’ (XA-1982-GS-10tx-2),
i.[j]a ‘ia’ (x3) (XA-1982-GS-10tx-2; XA-1982-AS-be-1; XA-1982-BB-ge-3),
na.si.[j]a ‘nahasia’ (XA-1982-GS-10tx-3), *a.si.[j]a* ‘hasia’ (XA-1982-GS-10tx-3),
fan.ta.si.[j]a ‘fantasia’ (XA-1982-GS-10tx-3), *de.si.[j]a* ‘desia’ (XA-1982-GS-10tx-3),
e.to.rrí.[j]a ‘etorria’ (XA-1982-GS-ge-1), *be.rrí.[j]a* ‘berria’ (XA-1982-GS-ge-1),
go.rrí.[j]a ‘gorria’ (XA-1982-GS-ge-1), *i.tu.rrí.[j]a* ‘iturria’ (XA-1982-GS-ge-1),
hal.da.rrí.[j]a ‘aldarria’ (XA-1982-GS-ge-1), *gar.bi.[j]a* ‘garbia’ (XA-1982-GS-ge-1),
o.ña.rrí.[j]a (XA-1982-GS-ge-1), *txan.txan.go.rrí.[j]a* ‘txantxangorria’ (XA-1982-GS-ge-3),
zo.ri.[j]o.ne.[h]an (XA-1982-AS-10H-1), *gaz.te.bi.[j]ak* (XA-1982-AS-10H-1),
aun.di.[j]e.gi.[j]ak ‘handiegiak’ (XA-1982-AS-10H-1), *be.gi.[j]ak* ‘begiak’ (XA-1982-AS-10H-1),
be.ar.ko.di.[j]at ‘beharko diat’ (XA-1982-AS-10H-1),
ba.ze.ki.[j]at ‘bazekiat’ (XA-1982-AS-10H-1),
eus.ka.le.rrí.[j]a ‘Euskal Herria’ (XA-1982-AS-10H-2), *di.jo* ‘dio’ (XA-1982-AS-10H-3),
eus.ka.le.rrí.[j]an ‘Euskal Herrian’ (XA-1982-AS-10H-3),
i.[j]a ‘ia’ (x3) (XA-1982-AS-be-1; XA-1982-BB-pe1; XA-1982-BB-ge-3),
e.gi.[j]a ‘egia’ (XA-1982-AS-be-1), *i.rra.ti.[j]an* ‘irratian’ (XA-1982-AS-ge-1),

557 Bilakabide horri hertsiki loturik uler daiteke 1982ko txapelketan adibide bakarra duen ondoko bilakabide indartzaila: kontsonante ezpainkaria (/b/) txertatzea hitz barnean atzeko eta goiko bokalaren (/u/) eta beste bokal heterosilabiko baten artean (u.V → u.βV). Adibidea: *mun.du.[β]a* (XA-1982-GS-10tx-1). Nahitaezkoa ez den fortitioa da ondokoa Amurizarentzat, testuinguru berean ez baitu gainerako kasuetan gauzatzen, ezta hitz berarekin ere: *mun.du.ak* (XA-1982-BB-ge-3), *pues.tu.an* (XA-1982-GS-8H-1), *su.er.tez* (XA-1982-GS-8H-3), *bu.ru.a* (XA-1982-GS-10tx-2), *o.[j]u.a* (XA-1982-BB-ge-1), *zu.en* (XA-1982-BB-ge-2), etab. Lopategik ere gauzatzen du bilakabidea 1989ko Bertsolari Txapelketako finalean.


aun.di.[j]a ‘handia’ (XA-1982-AS-ge-1), *u.ga.ri.[j]a* ‘ugaria’ (XA-1982-BB-pe-1),
kan.ta.ri.[j]a ‘kantaria’ (XA-1982-BB-pe1), *er.di.[j]an* ‘erdian’ (XA-1982-BB-ge-2),
i.to.zo.ri.[j]an ‘itozorian’ (XA-1982-BB-ge-3), *ez.ti.[j]at* ‘ez diat’ XA-1982-BB-9phtz),
ja.rr.i.[j]a ‘jarria’ (XA-1982-AS-ba), *la.rr.i.[j]a* ‘larria’ (XA-1982-AS-ba),
be.rr.i.[j]a ‘berria’ (XA-1982-AS-ba), *e.rr.i.[j]a* ‘herria’ (XA-1982-AS-ba),
a.gur.ga.rr.i.[j]a ‘agurgarria’ (XA-1982-AS-ba).

Corpuseko adibideak, hitz artean (guztiak): *e.gu.naun.di.[j]au* ‘egun handi hau’ (XA-1982-AS-ha), *bi.[j]al.de.ta.ra* ‘bi aldetara’ (XA-1982-AS-ha), *e.to.rr.i.[j]a.di* ‘etorri hadi’ (x2) (XA-1982-GS-ge-1; XA-1982-AS-10H-3).

Nahitaezkoa ez den bilakabidea (hautazkoa). Ondoko adibideetan ez da kontsonante argia gertatzen: *me.re.zi.ak* (XA-1980-GS-4oin-2), *a.be.ri.a* (XA-1982-GS-10tx-1), *des.gra.zi.a* (XA-1982-GS-10tx-3), *ja.rr.i.a* (XA-1982-GS-ge-1), *o.pi.o* (XA-1982-AS-10H-2), *bi.otz* (x3) (XA-1982-AS-ge-2; XA-1982-BB-ge-2, 3), *bi.e.ta.ti.kan* ‘bietatik’ (XA-1982-BB-8tx-2), *bi.oi* (XA-1982-BB-8tx-3).

1980ko txapelketan bezala, goiko bokal palatalaren (/i/) ondorengo bokal aurrean, silaba ekinean, kontsonante palatala txertatzen du Amurizak hitz barnean: *i.[j]a* ‘ia’ (x3) (XA-1982-GS-10tx-2; XA-1982-AS-be-1; XA-1982-BB-ge-3), *na.si.[j]a* ‘nahasia’ (XA-1982-GS-10tx-3), *a.si.[j]a* ‘hasia’ (XA-1982-GS-10tx-3), *fan.ta.si.[j]a* ‘fantasia’ (XA-1982-GS-10tx-3), etab. Nabarmentzekoa da hitz barnean bi kontsonante txertatzen diren kasua: *aun.di.[j]e.gi.[j]ak* ‘handiegiak’ (XA-1982-AS-10H-1). Jarraian txertatu dut hitzari dagokion espektrograma:

108. irudia: Espektrograma. *aun.di.[j]e.gi.[j]ak* ‘handiegiak’ (XA-1982-AS-10H-1)




Hitz barnean kasu gehienetan gauzatzen du bilakabidea bertsolariak, nahiz eta badiren salbuespenak bilakabidea nahitaezkoa ez dela pentsatzera garamatzatenak: *me.re.zi.ak* (XA-1982-GS-4oin-2), *a.be.ri.a* (XA-1982-GS-10tx-1), *des.gra.zi.a* (XA-1982-GS-10tx-3), *ja.rri.a* (XA-1982-GS-ge-1), *o.pi.o* (XA-1982-AS-10H-2). 1980ko txapelketarekiko alde eta berrikuntza gisa, kasu gutxi batzuetan hitz artean gertatzen da kontsonante palatala, bigarren hitzaren ekina indartuz baina, era berean, hots katearen jarraitutasuna edo lotura handituz: *e.gu.naun.di.[j]au* ‘egun handi hau’ (XA-1982-AS-ha), *bi.[j]al.de.ta.ra* ‘bi aldetara’ (XA-1982-AS-ha), *e.to.rri.[j]a.di* ‘etorri hadi’ (x2) (XA-1982-GS-ge-1; XA-1982-AS-10H-3).


Bada gogoetarako auzi bat bilakabide honi dagokionez, Amurizaren ekoizpenean. 1982ko txapelketako finaleko goizeko saioan, hamarreko txikian, lehen eta hirugarren bertsoetan, errimadun hitza (oina) da kontsonante palatala duena, edo hala kantatzen ditu hitz horiek bertsolariak, azken puntuko oina (errima) izan ezik: *fe.ri.[j]a* ‘feria’, *ko.me.ri.[j]a* ‘komeria’, *lo.te.ri.[j]a* ‘loteria’, *e.ri.[j]a* ‘eria’ baina *a.be.ri.a* (XA-1982-GS-10tx-1) eta *na.si.[j]a* ‘nahasia’, *a.si.[j]a* ‘hasia’, *fan.ta.si.[j]a* ‘fantasia’, *de.si.[j]a* ‘(ezin nizuke) desia’ baina *des.gra.zi.a*, (XA-1982-GS-10tx-3). Oin horiek hoskide dira oinarritzko aurkezpenean: *feria*, *komeria*, *loteria*, *eria*, *aberia*; edo *na(ha)sia*, *(h)asia*, *fantasia*, *desia*, *desgrazia*⁵⁵⁸. Ikus ondoko espektrogrametan *fe.ri.[j]a* ‘feria’ (XA-1982-GS-10tx-1) kontsonante palatalaz, eta *a.be.ri.a* (XA-1982-GS-10tx-1) batera gabe:

558 Gertakari honen adibide gehiago ere badaude: ikus XA-1982-GS-ge-1, esate baterako.

109. irudia: Espektrograma. *fe.ri.[j]a* ‘feria’ (XA-1982-GS-10tx-1)



110. irudia: Espektrograma. *a.be.ri.a* (XA-1982-GS-10tx-1)




Maila sintagmatikoan gauzatutako ekoizpenean, nire hiztun hautematek zalantzak ditut hoskidetzat hartuko nituzkeen, baina argi dago bertsolariarentzat gauzatze horiek errimatzen dutela edo, bertsoa pentsatu zuen bezala, hitz horiek elkarren artean errimatzen zutela. Ez da kasualitatea, seguruena, aztertutako bi adibideetan kontsonante palatal gabeko hitza azken oina izatea: bertsoan egitean lehenengo pentsatzen dena, printzipioz (bertsoa eraikitze moduez, ikus, besteak beste, Amuriza [1981] 1996; Egaña 2007, etab.).

(F3) Hiru bokal elkartzen direnean hitz barnean, **erdikoa goikoa eta aurrekoa izanik (/i/)**, hots katean **/i/ bokala kontsonante palatal gisa** gauzatzen da azken bokalarekin batera, silaba ekinean (ViV →V.jV), edo irristari gisa gauzatzearekin batera kontsonante palatala ere ahoskatzen da (ViV →Vj.jV).

Corpuseko adibideak (guztiak): *o.[j]e.ri* ‘ho(r)ieri’ (XA-1982-GS-8H-1), *ja(i).[j]o* ‘jaio’ (x2) (XA-1982-GS-8H-2; XA-1980-GS-4oin-1), *o(i).[j]ek* ‘ho(r)iek’ (XA-1982-GS-8H-3), *go.[j]e.tan* ‘goietan’ (XA-1982-GS-8H-4), *e.tsai.[j]en* ‘etsaien’ (XA-1982-GS-4oin-1), *a.rrai.[j]o* ‘arraio’ (XA-1982-GS-4oin-1), *sai.[j]o* ‘saio’ (XA-1982-GS-4oin-1), *zai.([j])o* ‘zaio’ (XA-1982-GS-4oin-1), *o.[j]en* ‘ho(r)ien’ (XA-1982-AS-ge-3), *lei.[j]o.a* ‘leioha’ (XA-1982-BB-8tx-4), *o.[j]u.a* ‘oihua’ (XA-1982-BB-ge-1), *ai.([j])au* ‘ai, hau’ (XA-1982-BB-ge-1).

Aurreko fortitioarekin oso lotuta, bokal bilkurak ekidin eta hots katea CV egiturarantz hurbiltzen duen bilakabidea da hau, silaba(-ekina) indartzen duena hizketaren kanporatzean: *o.je.ri* ‘ho(r)ieri’ (XA-1982-GS-8H-1), *ja(i).jo* ‘jaio’ (x2) (XA-1982-GS-8H-2; XA-1980-GS-4oin-1), etab. Amurizaren 1982ko jardunean (ere) nahitaezkoa dela dirudi, 1980koan bezala, hitz barnean, bilakabidea gerta daitekeen testuinguruan (ViV) beti gauzatzen baita neurri handiagoan edo txikiagoan, kontsonantea nabarmenagoa izan edo ez, jasotako adibideetan ikus daitekeenez. Ondoko espektrogramak erakusten du bilakabidearen emaitza kontsonantikoa:

111. irudia: Espektrograma. *o(i).[j]ek* ‘ho(r)iek’ (XA-1982-GS-8H-3)



(F4) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea eta etenaz banatzea [V# #V → V.‘V](lizentzia metrikoetan hiato gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibide batzuk (goizeko saiokoak)⁵⁵⁹, bokal elkarketa heterosilabikoa eten labur batez (‘) bereizita:

ain.bes.te.‘eus.kal.dun ‘hainbeste euskaldun’ (XA-1982-GS-ha),

ber.tso.la.ri.tza.‘ez.ta.‘a.lar.gun ‘bertsolaritza ez da alargun’ (XA-1982-GS-ha),

no.la.‘ez.jardun ‘nola ez jardun’ (XA-1982-GS-ha),

len.go.‘a.pai.za ‘lehengo apaiza’ (1982-GS-8H-1),

es.ku.‘o.[j]e.ri ‘esku ho(r)ierri’ (1982-GS-8H-1),

a.rra.zoi.‘o.[j]ek ‘arrazoi ho(r)iek’ (1982-GS-8H-2),

ka.rre.ra.‘e.re.‘e.gi.ña ‘karrera ere egina’ (1982-GS-8H-2),

ta.‘o.rain ‘(e)ta orain’ (1982-GS-8H-3),

lan.gi.le.‘on.bat ‘langile on bat’ (1982-GS-8H-3), *zu.re.‘e.gi.le.‘i.za.tez* ‘zure egile izatez’ (1982-GS-8H-3),

kar.pe.ta.‘o.[j]ek ‘karpeta ho(r)iek’ (1982-GS-8H-3),

ba.ña.‘e.zus.te ‘baina ez uste’ (1982-GS-8H-4), *la.pu.rra.‘i.zan* ‘lapurra izan’ (1982-GS-8H-4),

e.rrri.‘o.ni ‘herri honi’ (1982-GS-4oin-1),

kon.tro.la.‘an.ta.‘e.men ‘kontrola han eta hemen’ (1982-GS-4oin-1),

o.ri.‘o.men ‘hori omen’ (XA-1982-GS-10tx-1),

a.go.‘i.‘e.ri.[j]a ‘hago hi erria’ (XA-1982-GS-10tx-1),

bu.ru.a.‘on.do.‘o.men ‘burua ondo omen’ (XA-1982-GS-10tx-2),

ni.ko.tx.e.‘e.de.rre.an ‘ni kotxe ederrean’ (XA-1982-GS-10tx-2),

gar.men.di.ja.‘a.pal ‘Garmendia apal’ (XA-1982-GS-10tx-2),

bi.ma.ku.lu.‘ar.tu.ta ‘bi makulu hartuta’ (XA-1982-GS-10tx-2),

la.war.tu.tae.re.‘i.[j]a ‘lau hartuta ere ia’ (XA-1982-GS-10tx-2),

ez.ta.‘az.kar.ju.an.go ‘ez da azkar joango’ (XA-1982-GS-10tx-2),

o.rain.go.‘itz ‘oraingo hitz’ (XA-1982-GS-10tx-3),

ala.‘e.re ‘hala ere’ (XA-1982-GS-10tx-3),

ko.rrri.ka.‘e.gi.nai.ta ‘korrika egin nahi eta’ (XA-1982-GS-10tx-3),

len.go.‘i.tsu.a ‘lehengo itsua’ (XA-1982-GS-pe-1),

559 Asko dira 1982ko Amurizaren bertsoetan hitz arteko bokal elkarketa eten bidez banatzen duten kasuak. Silaba kopuruari eta taldekatzeari lotuta dagoen gertakaria izaki, ez ditut adibide guztiak zerrendatu, jasotako lagina nahikoa esanguratsua dela iruditzen baitzait. §10. kapituluaren sakondu dut taldekatzearen auzian.

gaur.gu.re.‘i.ze.nak ‘gaur gure izenak’ (XA-1982-GS-pe2),
gu.re.‘al.ma.ze.nak ‘gure almazenak’ (XA-1982-GS-pe2),
ne.gu.a.‘o.rra ‘negua, horra’ (XA-1982-GS-ge-1),
be.re.‘i.tza.la.‘an.du ‘bere itzala han du’ (XA-1982-GS-ge-2),
ga.ñe.ko.‘ar.bo.la ‘gaineko arbola’ (XA-1982-GS-ge-2),
be.ko.‘u.jo.la ‘beheko uhola’ (XA-1982-GS-ge-2),
e.sa.du.da.na.‘ez.ta ‘esan dudana ez da’ (XA-1982-GS-ge-2),
txo.ri.‘o.ri.‘o.la ‘txori hori ho(rre)la’ (XA-1982-GS-ge-2),
e.ta.‘e.za.di ‘eta ez hadi’⁵⁶⁰ (XA-1982-GS-ge-2), etab.


Corpuseko adibide batzuk, bokal bilkura heterosilabikoa modu jarraituan ahoskatuta
 (goizeko saioan ez dago adibiderik, arratsaldeko saioko batzuk): *sar.tu.aiz* ‘sartu haiz’ (XA-1982-AS-10H-1), *ta.e.maz.te.a* (XA-1982-AS-ge-3).

Aurkako joera ageri duten adibideak. Aurrerago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen diren sinalefa adibideak, askoz gutxiago direnak. 1982ko txapelketako final osoan Amurizak ahoskatutako sinalefen bikoitza baino gehiago dira goizeko saioan bakarrik egindako hiatoak. Gorago daude, bestalde, hitz arteko bokal bilkuran txertatutako kontsonante palatal kasuak ere.

Hitz arteko bokal elkarketak silaba bereizietan ahoskatzen ditu joera orokor gisa Amurizak 1982ko txapelketan ere, metrikari lotuta hiato deitzen dena gauzatuz, nahiz eta hots katearen segmentatze jarraituagoa egiten duen bigarren txapelketa honetan, eta sinalefa kopurua altuagoa den. Hiatoaren adibide batzuk ondokoak dira: *es.ku.‘o.je.ri* ‘esku ho(r)ieri’ (1982-GS-8H-1), *a.rra.zoi.‘o.jek* ‘arrazoi ho(r)iek’ (1982-GS-8H-2), *ka.rre.ra.‘e.re.‘e.gi.ña* ‘karrera ere egina’ (1982-GS-8H-2), *ta.‘o.rain* ‘(e)ta orain’ (1982-GS-8H-3), *lan.gi.le.‘on.bat* ‘langile on bat’ (1982-GS-8H-3), *zu.re.‘e.gi.le.‘i.za.tez* ‘zure egile izatez’ (1982-GS-8H-3), etab. Ondoko espektrograman azter daitezke Amurizak bokal artean egin ohi dituen etenak:

560 Adibide hau azken puntuan dago eta errepikatu egiten da. Bigarren aldiz kantatzean, Amurizak sinalefa egiten du, *e.ta.e.za.di* ‘eta ez hadi’ (XA-1982-GS-ge-2), hemistikioaren eremua hitz mugarekin bat etorraraziz horrela. Taldekatzeaz, ikus §10. atala.

112. irudia: Espektrograma. *ka.rre.ra.‘e.re.‘e.gi.ña* (1982-GS-8H-2)



Esan behar da, halere, gutxitan ahoskatzen dituela hitz desberdinetako bokal bilkura heterosilabikoak jarraian, tartean etenik egin gabe. Bokal elkarketak ekiditeko joera hein batean mantentzen duela esan daiteke, hitz mugak markatuz.

(F5) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-ik ez egitea, hitzen arteko muga ez urtzea (lehen hitzeko kodako kontsonantea(k) ez silabatzea hurrengo silabako ekin hutsean). **Hitz artean hots katea ez birsilabatzea** CV egiturarantz.

Corpuseko adibide batzuk (goizeko saiokoak):

zu.ek.‘en.tzun ‘zuek entzun’ (XA-1982-GS-ha),

e.gu.naun.di.bat.‘or.‘u.tzi ‘egun handi bat hor utzi’ (XA-1982-GS-ha),

pa.pe.rak.‘o.rain.‘al.da.tu ‘paperak orain aldatu’ (XA-1982-GS-8H-1),

bes.tei.txu.ra.bat.‘i.zan.go.zen.dun ‘beste itxura bat izango zenuke(en)’ (XA-1982-GS-8H-1)

pa.per.‘ar.te.tik ‘paper artetik’ (XA-1982-GS-8H-2),

zuk.‘aterako ‘zuk aterako’ (XA-1982-GS-8H-2),

do.nos.tin.‘e.ta.tu.lu.sen ‘Donostian eta Toulousen’ (XA-1982-GS-8H-2),

zu.ja.[j]o.zi.nan.‘e.gun.‘a.re.tan ‘zu jaio zinen egun hartan’ (XA-1982-GS-8H-2),

o.rain.‘al.de ‘orain alde’ (XA-1982-GS-8H-3),


on.bat.‘ez.tuk.sal.du.tzen ‘on bat ez duk saldutzen’ (XA-1982-GS-8H-3),

jain.ku.ak. 'e.re 'jainkoak ere' (XA-1982-GS-8H-3),
o.[j]ek. 'ar.tu.ta 'ho(r)iek hartuta' (XA-1982-GS-8H-3),
e.zin. 'or.go.[j]e.tan 'ezin hor goietan' (XA-1982-GS-8H-3),
zer. 'a.rra.[j]o 'zer arraio' (XA-1982-GS-4oin-1), *jaun. 'o.ne.kin* (XA-1982-GS-4oin-2),
sen.ti.tzen.du.dan. 'i.tza 'sentitzen dudan hitza' (XA-1982-GS-4oin-2),
nik. 'as.ti.ro 'nik astiro' (XA-1982-GS-4oin-2),
txan.dal. 'o.ri 'txandal hori' (XA-1982-GS-10tx-1),
bu.ru.an. 'e.re.ba.duk.kris.ton. 'a.be.ri.a 'buruan ere baduk kristoren aberia' (XA-1982-GS-10tx-1),
o.nen.tzat. 'i.gu.al 'honentzat igual' (XA-1982-GS-10tx-2),
itz. 'o.ri 'hitz hori' (XA-1982-GS-10tx-3),
ku.pi.tzen. 'a.si.[j]a 'gupidatzen hasia' (XA-1982-GS-10tx-3),
be.zain.bat. 'a.bi.la 'bezainbat abila' (XA-1982-GS-pe1),
jau.nak. 'e.to.rrri.[j]a 'jaunak, etorria' (XA-1982-GS-ge-1),
a.mets. 'i.tu.rrri.a 'amets iturria' (XA-1982-GS-ge-1), *or. 'a.go* 'hor hago' (XA-1982-GS-ge-1),
po.zen. 'o.ña.rrri.ja 'pozen oinarria' (XA-1982-GS-ge-1),
ar.tza.jen. 'e.txo.la 'artzainen etxola' (XA-1982-GS-ge-2),
kan.ta.zak. 'e.ta 'kanta ezak' (XA-1982-GS-ge-2), *i.sil. 'i.no.la* 'isil inola' (XA-1982-GS-ge-2),
zer. 'a.tse.gi.ña 'zer atsegina' (XA-1982-GS-ge-3),
i.zan. 'e.zin.na 'izan ezina' (XA-1982-GS-ge-3, etab.

Aurkako joera ageri duten adibideak. Aurrerago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-a duten adibideak. Gutxiago dira *liaison*-a egiten diren kasuak: goizeko saioan jasotako *liaison* gabeko adibideak final osoan *liaison*arekin silabatutako kasuen parekoak dira kopurutan. Saio osoan zehar, beraz, gehiagotan banatzen ditu etenaz hitzak, 1980ko txapelketarekin alderatuta kasuak elkarrengandik gertuago dauden arren.

Amurizaren 1982ko txapelketako bertsoetako silabatze-joera nagusi gisa hitzak ez dira hotskatean urtu eta birsilabatzen, 1980koan bezalaxe. Eten laburrez baliatuta (‘) hitzen mugak “errespetatu” eta silabatze bereizia gauzatzen du, hitzez hitzekoa, kasu askotan: *zu.ja.jo.zi.nan. 'e.gun. 'a.re.tan* 'zu jaio zinen egun hartan' (XA-1982-GS-8H-2), *o.rain. 'al.de* (XA-1982-GS-8H-3), *on.bat. 'ez.tuk.sal.du.tzen* 'on bat ez duk saldutzen' (XA-1982-GS-8H-3), etab. Artikulatorioki ahalegina eskatzen duen hautua da eta hitzaren eremuak Amurizaren ekoizpenean duen garrantzia eta darabilen ahoskera enfatikoa (*fortitiboa*) uzten ditu agerian. Ondoko espektrograman ikus daiteke joera horren adibide bat:

113. irudia: Espektrograma. (zu jaio) *zi.ñan.‘e.gun.‘a.re.tan* ‘zu jaio zinen egun hartan’ (XA-1982-GS-8H-2)



Joera honen salbuespenak 1980ko txapelketan baino gehiago dira txapelketa honetan, Amurizak hots katearen (eta hitzen arteko) ahoskera lotuagoa gauzatzen duela utziz agerian. Ahoskera fortitiboa da oraindik ere, baina ez horren modu nabarmenean beharbada, hizkako segmentatzeari dagokionean (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz).

(F6) Hitz arteko kontsonante bilkura heterosilabikoetan (VC(C)# #(C)CV) kontsonante horien ahultze, asimilazio edo kenketarik ez gertatzea, hots bakoitzak bere izaerari eutsiz.

Corpuseko adibideak:

Herskari bilkurak: *o.[j]ek.‘pa.per* (XA-1982-GS-8H-2), *au.duk.ko.me.ri.[j]a* (XA-1982-GS-10tx-1), *ba.duk.kris.ton* (XA-1982-GS-10tx-1), *jau.nak.pa.ra.bo.la* (XA-1982-GS-ge-2), *zeu.dek.gaur* (XA-1982-AS-10H-1), *u.tzi.zak.‘dro.ga* ‘utzi (e)zak droga’ (XA-1982-AS-10H-3), *di.tut.‘pa.sa* (XA-1982-AS-ge-3), *ma.dril.dik.‘gu.re.tza.ko* (XA-1982-BB-8tx-1), *ba.dau.kat.kez.ka* (XA-1982-AS-ba).

Sudurkari bilkurak: *or.go.je.tan.‘min.tza* ‘hor goietan mintza’ (XA-1982-GS-8H-4), *er.di.jan.na.go* ‘erdian nago’ (XA-1982-BB-ge-2), *di.gu.ten.‘nas.te.a* ‘diguten nahastea’ (XA-1982-BB-9phtz), etab.

Aurkako joera ahultzaileak ageri dituzten adibide batzuk:

Herskari taldeak bakundu edo igurzkaritzea: *es.ku.zi.kihi.ña[ɣ].di.tu.da.la* ‘esku zikinak ditudala’ (XA-1982-GS-8H-2), *nai.ze.ni.[ɣ]ero* ‘naizenik gero’ (XA-1982-GS-8H-4), *an.ka.ti.[ɣ]o.ra.goe.re* ‘hankatik gorago ere’ (XA-1982-GS-10tx-1), *or.ti.kal.ku.la* ‘hortik kalkula’ (XA-1982-AS-ha), *kan.ta.za(k).li.bre* ‘kanta (e)zak libre’⁵⁶¹ (XA-1982-GS-ge-3), *or.ti.kal.ku.la* ‘hortik kalkula’ (XA-1982-AS-ha), *e.tx.e.ti.kan.po* ‘etxetik kanpo’ (XA-1982-AS-be1), *o.rain.di.[β]a.ge.ra.la* ‘oraindik bagarela’ (XA-1982-AS-be2), *bi.zi.ri[ɣ].dut* ‘bizirik dut’ (XA-1982-AS-ge-1), *bat.txi(t).ba.ka.na* (XA-1982-AS-ge-1), *o.rre[ɣ].da.ka.rre.na* ‘horrek dakarrena’ (XA-1982-AS-8tx-1).

Sudurkari taldeak bakuntzea: *e.gi.naj.ta* ‘egin nahi ta’ (XA-1982-GS-10tx-3), *o.len.tze.ro.ha.no.a* ‘olentzeroan noa’ (XA-1982-GS-pe-1), *o.rai.na.go* ‘orain nago’ (XA-1982-BB-8tx-4).

1980ko ekoizpenean bezala, Amurizak asko zaintzen du hitzen ahoskera, eta sarri hitz arteko kontsonante talde heterosilabikoa osatzen dute segmentu guztiak ahoskatzen ahalegintzen da, hots katean kontsonanteak elkarri “lotuta” gertatu ohi diren bilakabide ahultzaile nabarmenik gabe⁵⁶² (asimilazioak, kenketak, etab.). Askotariko kontsonanteek osatutako bilkurak dira aipagai ditudanak, joera orokor bat badela pentsarazten dutenak: segmentazioan hitzaren eremua (eta oinarrizko aurkezpena) zaintzekoa, hain zuzen ere. Horrek dakar, hitz arteko bokal bilkura eta kontsonante-bokal bilkurak bereiz ahoskatzea bezala, kontsonante bilkurak osatzen dituzten segmentuen izaera ahal den bezainbeste mantentzeko joera ere, seguru aski. Horrela, *o.[j]ek.pa.per* (XA-1982-GS-8H-2), *au.duk.ko.me.ri.[j]a* (XA-1982-GS-10tx-1), *ba.duk.kris.ton* (XA-1982-GS-10tx-1), *ma.ki.ña.bat.sa.[j]o* (XA-1982-GS-4oin-1) edo *er.di.[j]an.na.go* ‘erdian nago’ (XA-1982-BB-ge-2) gisakoak ahoskatzen ditu bertsolariak.


Joera hau ez da orokorra 1982ko txapelketan ere, eta badira testuinguru berberetan —zein beste kontsonante bilkura batzuetan— gauzatutako askotariko lenitioak ere: *nai.ze.ni.[ɣ]ero* ‘naizenik gero’ (XA-1982-GS-8H-4), *an.ka.ti.[ɣ]o.ra.goe.re* ‘hankatik gorago ere’ (XA-1982-GS-10tx-1), *e.gi.naj.ta* ‘egin nahi ta’ (XA-1982-GS-10tx-3), etab.

561 ‘Kanta (e)zak libre’ (XA-1982-GS-ge-3) bertso amaieran abesten du Amurizak, errepikarekin. Lehen aldiz kantatzean, *kantazak* kodako herskari eta guzti ahoskatzen du; bigarren aldiz errepikatzean, ordea, kendu egiten du: *kan.ta.za.li.bre*.


562 Argi dago beste testuinuru batzuetan (hitz hasieran, eten ondoren, kasu) baino ahulago ahoskatzen dituela kontsonanteok taldean baina, edonola ere, hotsetako bakoitza ahoskatzen du maiz.

Aldakortasuna aurki daiteke bertso berean bertan. Goizeko saioan gaiari kantatutako bertsoetan, hirugarrenean, azken puntua eta haren errepikapena kantatzean, ‘kanta (e)zak libre’, lehen aldian ‘(e)zak libre’ kateko /k/+/l/ taldea lehen silabako kodako kontsonante belar eta guzti kantatzen du, ahulduta bada ere, *kan.ta.zak.li.bre*. Bigarren aldian, berriz, herskaria kendurik: *kan.ta.za.li.bre* (XA-1982-GS-ge-3). Ikus bi ekoizpenak jarraian aurkeztutako espektrogrametan.

114. irudia: Espektrograma. *kan.ta.zak.li.bre* ‘kanta (e)zak libre’ (XA-1982-GS-ge-3)



115. irudia: Espektrograma. *kan.ta.za.li.bre* ‘kanta (e)zak libre’ (XA-1982-GS-ge-3)



Adibide horrek 1980an kontsonante bilkurez aritzean proposatutako ideia indartzen du: bertsolaria ahoskera argia egiteko ahaleginean ari da eta horrelaxe kantatzen du azken puntua, lehen aldiz, oinarritzko aurkezpeneko kontsonante guztiak ahoskatuz. Behin entzuleek Amurizak esan nahi zuena jasota, hitz berberak (hots kate bera) ahoskatzean ez da “beharrezko” horrenbeste zaintzea hotsen kanporatzea, ahoskera errazten duten *lenitioei* —kenketari, kasu honetan— bide eginez eta, ondorioz, silabatzea CV silaba-egitura oinarritzokorantz hurbilduz. Aurrerago jaso ditut 1982an gertatzen diren beste gertakari batzuk, kontsonante taldeei lotuta.

2.2.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko kohesiozile (*lenitio*) nagusiak

(L1) Hitz barneko segmentu kenketa batzuk

L.1.1. Aditz jokatueta, hitz barnean, bilkura heterosilabikoan bi bokal elkartzen direnean, bigarrena /e/ erdiko eta aurrekoa izanik, bigarren bokal hori kentzea

Corpuseko adibide batzuk: *ze.gon* (XA-1982-GS-8H-3), *gin.tez.ken* ‘gintezkeen’ (XA-1982-GS-ge-2), *ni.nen.gon* (XA-1982-AS-8tx-2), *es.tun* ‘ez duen’ (XA-1982-AS-10H-2), *gor.de.zun* ‘gorde zuen’ (XA-1982-BB-ba).

Kenketa gabeko corpuseko adibide batzuk: *nen.go.en* (XA-1982-GS-10tx-3), *be.ar.nu.en* ‘behar nuen’ (XA-1982-BB-ge-1), etab.

L.1.2. Askotariko silaba kenketak:

Corpuseko adibideak:

jo.ka.be.a.rra ‘jokatu(tu) beharra’ (XA-1982-GS-ha), *fu.ti.ñen* ‘futinean’ (XA-1982-GS-10tx-1), *len.go* ‘lehengo’ (x2) (XA-1982-GS-ha; XA-1982-GS-pe1), *na.si.ja* ‘nahasia’ (XA-1982-GS-10tx-3) *do.nos.tin* ‘Donostian’ (XA-1982-GS-8H-2), *jain.ku.ak.e.re* (ez *jainkuak e*) (XA-1982-GS-8H-3), *e.zin.go.je.tan.min.tza* ‘ezin goietan mintza(tu)’ (XA-1982-GS-8H-4), *nai.ta* ‘nahi (e)ta’ (XA-1982-GS-10tx-3), *ar.tu.ga.be.re* ‘hartu gabe (e)re’ (XA-1982-AS-8tx-3), *kez.kik* ‘kezkarik’ (XA-1982-AS-ge-2), *ta.ez* ‘(e)ta ez’ (XA-1982-BB-8tx-2), *el.kar.mai.ta.za.gun* ‘elkar maita (de)zagun’ (XA-1982-AS-8tx-3), baina *u.tzi.de.za.gun* (XA-1982-GS-ha), *kan.ta.zak.e.taez.a.di* ‘kanta (e)zak eta ez hadi’ (XA-1982-GS-ge-2), *e.tx.e.han* ‘etxean’ (ez *etxen*) (XA-1982-AS-be-1), *zau.de.bu.ka.arte* ‘zaude buka(tu) arte’ (XA-1982-AS-ge-2), etab.

Aditz jokatuetak /e/ bokalaren kenketari erreparatuta, Amurizak forma murriztuak (/e/ gabeak) eta osoak erabiltzen ditu beharren arabera: *ze.gon* (XA-1982-GS-8H-3), baina *nen.go.en* (XA-1982-GS-10tx-3). 1980ko txapelketan oparoago erabilitako baliabidea, adibide gutxiago topatzen dira 1982ko txapelketan.

Bestetik, euskaraz ohikoak diren askotariko bokal eta, zabalago, silaba kenketak ere gauzatzen ditu kantuan: *fu.ti.ñen* ‘futinean’ (XA-1982-GS-10tx-1), *len.go* ‘lehengo’ (x2) (XA-1982-GS-ha; XA-1982-GS-pe1), *na.si.ja* ‘nahasia’ (XA-1982-GS-10tx-3) *do.nos.tin* ‘Donostian’ (XA-1982-GS-8H-2), *nai.ta* ‘nahi (e)ta’ (XA-1982-GS-10tx-3), *ar.tu.ga.be.re* ‘hartu gabe (e)re’ (XA-1982-AS-8tx-3), *kez.kik* ‘kezkarik’ (XA-1982-AS-ge-2), *ta.ez* ‘(e)ta ez’ (XA-1982-BB-8tx-2), *el.kar.mai.ta.za.gun* ‘elkar maita (de)zagun’ (XA-1982-AS-8tx-3), etab. baina *u.tzi.de.za.gun* (XA-1982-GS-ha), *kan.ta.zak.e.taez.a.di* ‘kanta (e)zak eta ez hadi’ (XA-1982-GS-ge-2), *e.txe.han* ‘etxean’ (ez *etxen*) (XA-1982-AS-be-1), *jain.ku.ak.e.re* (ez *jainkuak e*) (XA-1982-GS-8H-3), etab.

Azkenik, aditz oina erabiltzen du kasu batzuetan partizipioak behar lukeen lekuan, silaba bat gutxiago ahoskatzeko: *jo.ka.be.a.rra* ‘jokatu(tu) beharra’ (XA-1982-GS-ha), *e.zin.go.je.tan.min.tza* ‘ezin goietan mintza(tu)’ (XA-1982-GS-8H-4), *zau.de.bu.ka.arte* ‘zaude buka(tu) arte’ (XA-1982-AS-ge-2), etab.

(L2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak birsilabatzea, silaba bakarrean ahoskatuta⁵⁶³ [V# #V → VV] (lizentzia metrikoetan **sinalefa** gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (guztiak):

bes.t[ej].txu.ra.bat ‘beste itxura bat’ (XA-1982-GS-8H-1),
ni.ke.reos.tu.ko ‘nik ere ostuko’ (XA-1982-GS-8H-4),
an.ka.ti.go.ra.goe.re ‘hankatik gorago ere’ (XA-1982-GS-10tx-1),
dau.ka.nae.man.de.za.la ‘daukana eman dezala’ (XA-1982-GS-pe-2),
e.za.di.sil ‘ez hadi isil’ (XA-1982-GS-ge-2 [lehen aldiz abestean]),
tae.za.di ‘ta ez hadi’ (XA-1982-GS-ge-2 [errepikan]),
kan.ta.r[jal].bi.la ‘kantari abila’ (XA-1982-GS-ge-3),
a.lae.re ‘hala ere’ (x3) (XA-1982-GS-ge-3; XA-1982-AS-10H-1; XA-1982-BB-8tx-2),
e.ma.ku.me.ae.san.da ‘emakumea esanda’ (XA-1982-AS-ge-1),
an.dre.aor.da.go ‘andrea hor dago’ (XA-1982-AS-ge-2),

⁵⁶³ Hitz barneko diptongatze (desilabagiletze, sineresi metrikan) kasu oso gutxi dago (bakarra) 1982ko txapelketan, Amurizak gauzatuta, eta ez da nahitaeko bilakabidea: *joan.zaj.tez* ‘joan zaitez’ (XA-1982-GS-8H-3), baina *ju.an* ‘joan’ (XA-1982-GS-10tx-2), adibidez.

i.jaez.na.go ‘ia ez nago’ (XA-1982-AS-ge-3), *ne.reaz.ken* ‘nere azken’ (XA-1982-AS-ge-3),
es.ta.g[oj].noiz ‘ez dago inoiz’ (XA-1982-BB-pe-2),
la.gu.naon.do.tik ‘laguna ondotik’ (XA-1982-BB-ge-1),
le.nen.goa.si.naiz ‘lehenengo hasi naiz’ (XA-1982-BB-ge-2),
ez.ti.jat.sen.ti.tu.k[oj].ki.ra.baz.te.a ‘ez diat sentituko hik irabaztea’ (XA-1982-BB-ge-2).

Sinalefarik gabeko adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen ez diren hiato adibideak (1982ko Amurizaren bertso ekoizpenean, sinalefak baino gehiago direnak).

1980ko datuekin alderatuta, Amurizak gehiagotan baliatzen du 1982an desilabagiletze eta birsilabatze baliabide hau (16 adibide jaso ditut 38 bertsoetan), antzeko neurrian izan arren (1980ko txapelketako finalean 13 kasu dira 35 bertsoetan). Askotariko bokal bilkurak gauzatzen ditu hitz artean: /a/, /e/ eta /o/ bokalen artekoak (*ni.ke.reos.tu.ko* ‘nik ere ostuko’, XA-1982-GS-8H-4; *an.ka.ti.go.ra.goe.re* ‘hankatik gorago ere’, XA-1982-GS-10tx-1; *dau.ka.nae.man.de.za.la* ‘daukana eman dezala’, XA-1982-GS-pe-2; *an.dre.aor.da.go* ‘andrea hor dago’, XA-1982-AS-ge-2), euskaraz ohiko diren beheranzko diptongoak (*bes.t[ej].txu.ra.bat* ‘beste itxura bat’, XA-1982-GS-8H-1; *ez.ta.g[oj].noiz* ‘ez dago inoiz’, XA-1982-BB-pe-2), eta goranzko diptongoak (*kan.ta.r[ja].bi.la* ‘kantari abila’, XA-1982-GS-ge-3). Bokal beraren elkarketa eta bakuntze adibide bat ere bada, 1980ko adibide-sortan ez bezala: *e.za.di.sil* ‘ez hadi isil’ (XA-1982-GS-ge-2 [lehen aldiz abestean]), nahiz eta hots kate bera errepikatzean bestela birsilabatzen den, taldekatze auziak direla eta. Adibide bakarra da, halere.

Sinalefa bera, gertakari gisa, hots katearen silabatzea oinarritzko aurkezpenean ez dagoela baieztatzeko froga izan daiteke. Bada, sinalefen artean aurkitutako aldakortasuna ere —hots kate bera desberdin silabatzea aldiro— hori argudiatzeko ebidentzia gehigarria da. Goizeko saioko bakarkakoan, gaia emanda, bigarren bertsoaren azken puntua eta haren errepika kantatzean, hots kate bera bi modutara gauzatzen du Amurizak, diptongatze (desilabagiletze) edo bakuntze desberdin bana gauzatuz aldiro: ‘kanta (e)zak eta ez hadi isil inola’ (1) *kan.ta.zak.‘e.ta.‘e.za.di.sil.‘i.ño.la*, (2) *kan.ta.zak.‘e.tae.za.di.‘i.sil.‘i.ño.la* (XA-1982-GS-ge-2). §10. kapituluaren sakondu dut silaba baino handiagoak diren talde prosodikoen gauzatzean, eta hizkuntzak egitura metriko eta musikalararekin duen harremanean. Labur aipatuko dut, halere, azken puntua lehen aldiz kantatzen duen moduan hemistikioaren eremuko etena edota hari loturiko muga linguistikoa ez dela betetzen; bai, ordea, bigarren gauzatzean: [*kan.ta.sak.‘e.tae.sa.di.*] (7 silaba) [*‘i.fil.‘i.no.la*] (5 silaba). Taldekatze prosodikoak ere silabatzea baldintzatzen du, beraz.

(L3) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean, silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#. #V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-a egitea hitzen arteko muga urtuz; hots katea birsilabatzea CV egiturarantz.

Corpuseko adibideak (guztiak):

gu.ke.ran.tzun ‘guk erantzun’ (XA-1982-GS-ha),
e.gu.naun.di.bat ‘egun handi bat’ (XA-1982-GS-ha),
e.zus.te ‘ez uste’ (XA-1982-GS-8H-4),
ni.ke.reos.tu.ko ‘nik ere ostuko’ (XA-1982-GS-8H-4),
al.pe.rra.gi.za.te.ko ‘alferrak izateko’ (XA-1982-GS-4oin-1),
hi.lar.te ‘hil arte’ (XA-1982-GS-4oin-1),
gau.rre.zin ‘gaur ezin’ (XA-1982-GS-10tx-2),
lu.ma.ka.rro.a.ke.ta ‘lumak harroak eta’ (XA-1982-GS-ge-1),
tae.za.di ‘(e)ta ez hadi’ (XA-1982-GS-ge-2), *ne.gu.a.ne* ‘neguan e(re)’ (XA-1982-GS-ge-3),
e.zaiz ‘ez haiz’ (XA-1982-GS-ge-3), *gu.re.tza.te.gi.ña* ‘guretzat egina’ (XA-1982-GS-ge-3),
e.gu.naun.di.jau ‘egun handi hau’ (XA-1982-AS-ha),
la.ne.gi.te.ko ‘lan egiteko’ (XA-1982-AS-8tx-1),
su.fri.men.tu.a.ze.do ‘sufirimenduaz edo’ (XA-1982-AS-8tx-3),
es.na.tu.zai.te.ze.ta ‘esna(tu) zaitez eta’ (XA-1982-AS-8tx-3),
mu.til.ba.to.la ‘mutil bat ho(rre)la’ (XA-1982-AS-10H-2),
e.zal.du.zu ‘ez al duzu’ (XA-1982-AS-10H-2),
eus.ka.le.rri.ja ‘Euskal Herria’ (XA-1982-AS-10H-2), *e.zaiz* ‘ez haiz’ (XA-1982-AS-10H-2),
eus.ka.le.rri.jan ‘Euskal Herrian’ (XA-1982-AS-10H-3),
a.rra.zoi.ri.kez.te.gu ‘arrazoirik ez dugu’ (XA-1982-AS-be1),
ber.tso.ze.zin ‘bertsoz ezin’ (XA-1982-AS-ge-1),
zu.e.kar.za.zu.e ‘zuek har (e)zazue’ (XA-1982-AS-ge-3),
i.lar.te ‘hil arte’ (XA-1982-BB-pe-1),
ar.ta.zi.noiz.ni.kar.tu.ko.lutu ‘hartaz inoiz nik hartuko lutorik’ (XA-1982-BB-pe-2),
ni.ke.men ‘nik hemen’ (XA-1982-BB-ge-1),
e.ze.gon ‘ez egon’ (XA-1982-BB-9phtz), *ni.kus.te.a* ‘nik ustea’ (XA-1982-BB-9phtz),
sen.ti.tu.koi.ki.ra.baz.te.a ‘sentituko hik irabaztea’ (XA-1982-BB-9phtz).

Liaisonik ez duten adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-ik egiten ez duten adibideak (eta bilakabidearen deskribapena). Amurizaren kasuan, joera nagusia *liaison*ik ez

egitea dela esan daiteke, adibide gehiago aurkitzen baitira norabide horretan, baina 1980ko ekoizpenarekin alderatuta, *liaison* kasu gehiago gauzatzen ditu 1982an.

Silaba-aldiko hizkuntzetan ohiko den *liaison* edo birsilabatzea ez da joera horren ohikoa Amurizaren jardunean, 1980ko ekoizpenarekin alderatuta, hitzen mugak urtu eta hots katea CV egiturarantz hurbiltzen duten adibide gehiago dauden arren 1982an: *gu.ke.ran.tzun* ‘guk erantzun’ (XA-1982-GS-ha), *e.gu.naun.di.bat* ‘egun handi bat’ (XA-1982-GS-ha), *e.zus.te* ‘ez uste’ (XA-1982-GS-8H-4), *ni.ke.reos.tu.ko* ‘nik ere ostuko’ (XA-1982-GS-8H-4), *hi.lar.te* ‘hil arte’ (XA-1982-GS-4oin-1), etab.

Silabatzea hitzen oinarritzko aurkezpenean zehaztuta ez dagoela agerian uzten duten adibide ugari aurki daitezke bertsoetan —aurreko puntuko sinalefarena, adibidez—, eta *liaisonari* loturik aurki daitezke hainbat kasu, hots kate bera aldiro desberdin ekoitzita. 1982ko txapelketako finalean, arratsaldeko saioan, gaia emanda, azken puntua (eta ondoren haren errepika) kantatzean, silabatze sotilki desberdina gauzatzen du aldiro Amurizak lehen eta hirugarren bertsoetan. Lehen bertsoan: ‘hauxe da poza bertsoz ezin emana’ (1) *au.xe.da.po.za.ber.tsoz.‘e.zin.‘e.ma.na*, (2) *au.xe.da.po.za.ber.tso.ze.zin.‘e.ma.na* (XA-1982-AS-ge-1). Hirugarren bertsoan: (1) *zu.ek.‘ar.za.zu.e.ne.reaz.ken.‘ar.na.sa*, (2) *zu.e.kar.za.zu.e.ne.reaz.ken.‘ar.na.sa* (XA-1982-AS-ge-3). Bi bertsoetan ere, lehen aldiz kantatzean hizkako segmentazio nabarmenagoa gauzatzen du eta, bigarrenean, jada esango duena ezaguna izanik, CVrantsko silabatzea gauzatzen du hitzen arteko mugak urtuz ‘bertsoz ezin’ eta zuek har (e)zazue’ hots kateetan^{564 565}.

(L4) Txistukari ahoskabearen ondorengo herskari ahostuna ahoskabetzea ‘ez’ morfemari lotuta

566

Corpuseko adibideak: *ez.ta* ‘ez da’ (x9) (XA-1982-GS-ha; XA-1982-GS-10tx-2; XA-1982-GS-ge-1, 2; XA-1982-AS-8tx-1; XA-1982-AS-ge-3 [x2]; XA-1982-AS-8tx-1; XA-1982-AS-ba), *ez.tuk* ‘ez duk’ (XA-1982-GS-8H-3), *ez.tau.ka.gu* ‘ez daukagu’ (x2) (XA-1982-GS-4oin-1; XA-

564 Hasierako agurreko *zu.ek.‘en.tzun* ‘zuek entzun’ baina *gu.ke.ran.tzun* ‘guk erantzun’ (XA-1982-GS-ha) adibidea ere bide berean azal liteke.

565 Aurkeztutako bi adibideetan puntuko azken hitza, *emana* eta *arnasa* bertso bakoitzean, berdin-berdin bereiz segmentatzeak izan lezake bere azalpena, bertsoaren eraikuntzaren oinarriak kontuan hartuz gero: oina da bi kasuetan, errima daraman hitza (hizkako segmentazioaz, §10. kapitulua). Horrekin batera, ezin ahantz dezakegu hitzak segmentatzea ulertzeko Amurizaren kantaera, 1982ko txapelketan joera zertxobait leundu arren, oso fortitiboa dela.

566 Hitz arteko kontsonante elkarketa heterosilabikoetan ez dago bertsolariaren jardunean hedaturik dagoen bestelako gertakari esanguratsurik. Horregatik jaso dut erregela hau soilik.

1982-GS-10tx-2), *ez.ta.ki.gu* ‘ez dakigu’ (XA-1982-GS-ge-2), *ez.pa.litz* ‘ez balitz’ (XA-1982-AS-8tx-1), *ez.ti.ra* ‘ez dira’ (XA-1982-AS-10H-1), *ez.ta.kit* (XA-1982-AS-10H-2), *ez.tau.kak* ‘ez daukak’ (XA-1982-AS-10H-3), *ez.tun* ‘ez duen’ (XA-1982-AS-10H-3), *ez.ti.gu* ‘ez digu’ (XA-1982-AS-be2), *ez.tu.gu* (XA-1982-BB-8tx-2), *ez.pa.da* ‘ez bada’ (XA-1982-BB-8tx-3), *ez.ta.goi.ñoiz* ‘ez dago inoiz’ (XA-1982-BB-pe2), *ez.ta.go* ‘ez dago’ (XA-1982-BB-ge-2), *ez.ti.jat* ‘ez diat’ (XA-1982-BB-9phtz).

4.2.2.3. Bestelako gertakari foniko esanguratsu batzuk

(B1) “Makulu-silaba” enfatikoak ekoiztea, hasperen bat txertatuz silaba-gunea osatzen duen bokalaren erdian (edo bokala tarte batez ahoskabetuz), aire-etorriari bultzada bat emanez

Corpuseko adibide batzuk: *l[a^ha].gun* ‘lagun’ (XA-1982-GS-ha), *la.gu.n[h]na* ‘laguna’ (XA-1982-GS-8H-1), *[h]len.go*⁵⁶⁷ (XA-1982-GS-8H-1), *z[i^hi].ki.ña* ‘zikina’ (XA-1982-GS-8H-1), *o.j[e^he].ri* ‘horiei’ (XA-1982-GS-8H-1), *be.gi.ra.t[u^hu].rik* (XA-1982-GS-8H-1), *t[u^hu].lu.sen* ‘Toulousen’ (XA-1982-GS-8H-2), *zi.k.[i^hi].ñak* (XA-1982-GS-8H-2), *di.tu.da.l[a^ha].ta* ‘ditudala (e)ta’ (XA-1982-GS-8H-2), *[e^he].re* ‘ere’ (XA-1982-GS-8H-3), *lo.tsa.be.[a^ha]r.du* ‘lotsa behar du’ (XA-1982-GS-8H-3), *go.je.t[a^ha]n* ‘goietan’ (XA-1982-GS-8H-4), *g[e^he].ro* ‘gero’ (XA-1982-GS-8H-4), etab.


1980ko txapelketako finaleko bertsoak aztertzean aipatu bezala, 1982koan ere, Xabier Amurizak silaba jakinetan, enfasiz kantatzean —sarri melodiaren goraldietan, 1980ko adibideetan bezalaxe—, hasperen bat txertatzen du bertsolariak bokalean, “bokal erdian”, nolabaiteko “makulu silaba” indartzaile bat sortuz. 1982ko bertso-ekoizpenetan ikusi ahal izan dudanez, hasperena kontsonante ozenen aurrean ere gauzatzen du Amurizak, kasu gutxi batzuetan: *la.gu.n[h]na* ‘laguna’ (XA-1982-GS-8H-1), adibidez.

Bertsoaldi ia guztietan aurki daitezke halako “makulu silabak” bertsolariaren 1982ko jardunean ere. Adibidez, hona hemen goizeko saioko zortziko handiko lehenengo bertsoa adibide guztiak: *la.gu.n[h]na* ‘laguna’ (XA-1982-GS-8H-1), *[h]len.go* (XA-1982-GS-8H-1), *z[i^hi].ki.ña* ‘zikina’ (XA-1982-GS-8H-1), *o.j[e^he].ri* ‘horiei’ (XA-1982-GS-8H-1), *be.gi.ra.t[u^hu].rik* (XA-

567 Adibide zehatz honetan esango nuke hasperenak balio adierazkorra duela, hitz lauz ere barrearen adierazle gisa egin ohi den hasperena islatuz.

1982-GS-8H-1). Ikus jarraian espektrogramaren bitartez *la.gu.n[h]na* ‘laguna’ (XA-1982-GS-8H-1) nola ahoskatzen duen Amurizak:

116. irudia: Espektrograma. *la.gu.n[h]na* ‘laguna’ (XA-1982-GS-8H-1)



Doinuari eta kantaerari lotutako gertakaria ematen du kasu honetan ere, 1980ko txapelketako Amurizaren adibideak gainera aztertuta iradokitakoa indartuz (ikus aurrerago Lizasoren ekoizpena “makulu-silabei” dagokienez). *z[ɪ̯].ki.ña* ‘zikina’ (XA-1982-GS-8H-1) eta *zi.k.[ɪ̯].ñak* (XA-1982-GS-8H-2) adibideak alderatuta, esaterako, ikus daiteke hitz bera ahoskatzean silaba desberdinetan egin duela bertsolariak “makulu silaba”. Silabatzea doinuari lotuta aztertuz gero, azpimarragarria da Amurizak “makulu silaba” gauzatu duen silaba hori kantuan doinuaren pulsu erregularraren (beat-aren) gune indartsuan ahoskatzen dela bi kasuetan, eta silaba bi musika notarekin abesten dela (melisma egiten dela), noten garaierak gora eginez.

2.3. Neurria betetzeko baliabide foniko nagusiak

Amurizak hizketa katea oinarri metrikoarekin uztartzeko hainbat baliabide foniko darabiltza 1982ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean:

- Nabarmenena **hiatoa** da: hots kateko bokal bilkurak, hitz artekoak direnean, banatuta silabatzea, bakoitzak bere silaba duela, hitz arteko mugak urtu eta bokalak birsilabatu gabe. Esate baterako: *ber.tso.la.ri.tza.‘ez.ta.‘a.lar.gun* ‘bertsolaritza ez da alargun’ (XA-1982-GS-ha), *no.la.‘ez.jardun* (XA-1982-GS-ha), *len.go.‘a.pai.za* ‘lehengo apaiza’ (1982-GS-8H-1),

es.ku.‘o.je.ri ‘esku ho(r)ieri’ (1982-GS-8H-1), etab. Joera hau nagusitzat har daiteke Amurizaren bertsoetako txertatze prosodikoan.

- **Sinalefa** ere erabiltzen du batzuetan (16 aldiz 38 bertsoetan): *bes.t[fej].txu.ra.bat* ‘beste itxura bat’ (XA-1982-GS-8H-1), *ni.ke.reos.tu.ko* ‘nik ere ostuko’ (XA-1982-GS-8H-4), *an.ka.ti.go.ra.goe.re* ‘hankatik gorago ere’(XA-1982-GS-10tx-1), *dau.ka.nae.man.de.za.la* ‘daukana eman dezala’ (XA-1982-GS-pe-2), *kan.ta.r[jal].bi.la* ‘kantari abila’ (XA-1982-GS-ge-3), etab.
- Halaber, askotariko **gehiketak** aipatu behar dira baliabide gisa. 1982ko txapelketan, Amurizarengan, gehiketen eremuan emankorrena da ablatiboa (NONDIK) eta partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/-(r)ik* eta *-tikan/-(r)ikan* formen arteko txandakatzea: *bes.te.ri.kan* ‘besterik’ (XA-1982-GS-10tx-3), *al.pe.rri.kan* ‘alferrik’ (XA-1982-GS-8tx-1), *lo.ri.kan* ‘lorik’ (XA-1982-AS-8tx-2), *e.txe.ti.kan* ‘etxetik’ (XA-1982-AS-be1), *bal.da.ti.kan* ‘Baldatik’ (XA-1982-AS-ge-1), *a.te.ri.kan.a.te* ‘aterik ate’ (XA-1982-AS-ge-2), *bi.e.ta.ti.kan* ‘bietatik’ (XA-1982-BB-8tx-2), *nu.e.la.ri.kan* ‘nuelarik’ (XA-1982-AS-ba) baina *bil.du.de.la.rik* (ez *bildu delarikan*) (XA-1982-GS-ha), *be.gi.ra.tu.rik* (ez *begiraturikan*) (XA-1982-GS-8H-1), *pa.per.‘ar.te.tik* (ez *paper artetikan*) (XA-1982-GS-8H-2), *o.rain.dik* (ez *oraindikan*) (XA-1982-GS-4oin-1), *ar.tu.rik* ‘harturik’ (ez *harturikan*) (XA-1982-GS-pe1), etab. Aditz oinaren gainean beharrezan partizipioarekin osatutako formak ere badarabiltza, hainbat hizkeratan (eta bertsolarirengan) ohiko (izan) direnak: *sal.du.tzen* ‘saltzen’ (XA-1982-GS-8H-3), *on.da.tu.tze.ko* ‘hondatzeko’ (XA-1982-AS-10H-2), *sar.tu.tze.ko* ‘sartzeko’ (XA-1982-BB-8tx-4), *piz.tu.tze.ko* ‘pizteko’ (XA-1982-BB-ge-1), baina *ku.pi.tzen* ‘gupidatzen’ (ez *kupidatutzen* edo antzeko zerbait) (XA-1982-GS-10tx-3), *ze.ar.ka.tzen* ‘zeharkatzen’ (ez *zeharkatutzen*) (XA-1982-GS-ge-2), etab. Aipatutakoak lirarekin gehiketen eremuko baliabide nagusiak, baina sakon aztertu beharreko auzia da hemen labur eta ideia orokor gisa jasotakoa, aniztasun eta aldakortasun handia aurki baitaiteke forma eta erabilera batetik bestera.
- **Kenketa** aipatu behar da, azkenik. Izan ere, askotariko moduetara laburtzen ditu Amurizak hitzak hots katea neurrira egokitzeko. Batetik, aditz jokatueta bokal bilkurak soiltzen ditu, behar duenean: *ze.gon* (XA-1982-GS-8H-3), *gin.tez.ken* ‘gintezkeen’ (XA-1982-GS-ge-2), *ni.nen.gon* (XA-1982-AS-8tx-2), *es.tun* ‘ez duen’ (XA-1982-AS-10H-2) baina *nen.go.en* (XA-1982-GS-10tx-3), *be.ar.nu.en* ‘behar nuen’ (XA-1982-BB-ge-1), etab. Baliabide hori 1980an baino askoz gutxiago darabil 1982an. Bestetik, euskaraz ohikoak diren askotariko bokal eta, zabalago, silaba kenketak ere gauzatzen ditu kantuan: *fu.ti.ñen* ‘futinean’ (XA-

1982-GS-10tx-1), *len.go* ‘lehengo’ (x2) (XA-1982-GS-ha; XA-1982-GS-pe1), *na.si.ja* ‘nahasia’ (XA-1982-GS-10tx-3), *do.nos.tin* ‘Donostian’ (XA-1982-GS-8H-2), *nai.ta* ‘nahi (e)ta’ (XA-1982-GS-10tx-3), *ar.tu.ga.be.re* ‘hartu gabe (e)re’ (XA-1982-AS-8tx-3), *kez.kik* ‘kezkarik’ (XA-1982-AS-ge-2), *ta.ez* ‘(e)ta ez’ (XA-1982-BB-8tx-2), *el.kar.mai.ta.za.gun* ‘elkar maita (de)zagun’ (XA-1982-AS-8tx-3), etab. baina *u.tzi.de.za.gun* (XA-1982-GS-ha), *kan.ta.zak.e.taez.a.di* ‘kanta (e)zak eta ez hadi’ (XA-1982-GS-ge-2), *e.tx.e.han* ‘etxean’ (ez *etxen*) (XA-1982-AS-be-1), *jain.ku.ak.e.re* (ez *jainkuak e*) (XA-1982-GS-8H-3), etab.

Azkenik, gehiketen atalean aipatu dut aditz oinean eraikitako formak beharrian partizipiodunak erabiltzen dituela bertsolariak batzuetan, silaba bat gehiago kantatu ahal izateko. Alderantziz ere egiten du Amurizak, aditz oina erabiliz partizipioak behar lukeen lekuan, silaba bat gutxiago ahoskatzeko: *jo.ka.be.a.rra* ‘jokatu(tu) beharra’ (XA-1982-GS-ha), *e.zin.go.je.tan.min.tza* ‘ezin goietan mintza(tu)’ (XA-1982-GS-8H-4), *zau.de.bu.ka.arte* ‘zaude buka(tu) arte’ (XA-1982-AS-ge-2), etab.

2.4. Joera nagusiak laburbilduz

Xabier Amurizak 1982ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoen silabatzean fokua jarririk, esan daiteke bertsolariak hots katearen ekoizpen fortitiboa egiten duela, oro har; bokal bilkurak banatzeko hasperen eta kontsonante palatal epentetikoek, (ia) hizkako segmentatzeak eta hitz arteko kontsonanteak sarri ez ahultzeak, etab. bertsolariak ahoskera zaindu eta enfatikoa egiten duela pentsatzera narama. Aipatutako joera indartzaile gehienek silaba (eta hitza) eremu prosodiko gisa indartu eta maiz hots-katea CV silaba-egitura oinarrizkoenerantz hurbiltzea dute ondorio. 1980ko txapelketako silabatzearekin alderatuta, *fortitio*en presentzia leundu egiten da hainbat kasutan. Esate baterako, hitz barneko bokal bilkurak ekiditeko hasperena oso gutxitan gauzatzen du, hots katearen jarraitutasuna hobetsiz horrela. Bestalde, /i/ bokal palatalaren ondorengo bokal aurreko kontsonante palatalaren presentzia nabarmena da, baita hitz artean ere, kasu batzuetan. Gertakariak ahoskera fortitiboa uzten du agerian, baina, era berean, hitz arteko harremana handiagoa dela erakusten du, bilakabide segmentalak hitz artean ere gertatzen baitira, 1980an baino neurri handiagoan.

Lenitioei dagokienez, hots katearen ahoskera erraztu eta, aipatutako fortitio askok bezala, segmentuen antolaketa CV egiturarantz hurbiltzen duten bilakabide, erregela eta joerak dira nagusi: bokal bilkurak ekiditeko kenketak, birsilabatzeak (*liaison*-a), diptongatzeak (sinalefak), kontsonante bilkuren sinpletzeak, etab. Jasotako gertakariekin erraz ulertzen dira silaba-egituren maiztasunak

aztertzean ateratako datuak; silaba-ekina indartzen duten egiturak %80tik gora izatea, eta silaba irekiak, %70 baino gehiago.

Aipaturako gertakari eta joerak lizentzia metrikoen erabileran islatzen dira: ahal dela hitz bakoitzari bere silabatze propioa eskaintzen dio Amurizak, joera nagusi gisa. Neurriak behartuz gero, ez dirudi sinalefa baliatzeko arazorik duenik(19 kasu, 38 bertsoetan). Askotariko gehiketak eta kenketak ere baliatzen ditu, aldakortasun morfonologikoari lotuta, batez ere, neurriaren eskakizunak bete ahal izateko. 1980ko txapelketan eginiko silabatzearekin alderatuta, hiatoaz bestelako baliabide gehiago baliatzen dituela esan daiteke.

3. Sebastian Lizaso (1986)

3.1. Silaben egiturak eta horien maiztasunak

Lizasoren 1986ko txapelketako finaleko bertsoetako silabak aztertuta, ondokoak dira bertsolariak ekoizitako silaben egiturak, bakoitzetik zenbatu den silaba-kopurua eta orotara ahoskatutako silabekiko proportzioa (maiztasuna):

10. taula: 1986ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Sebastian Lizasok ekoizitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	1289	%63,28
CVC	383	%18,80
V	222	%10,90
VC	127	%6,23
CCV	13	%0,64
CCVC	2	%0,10
CVCC	1	%0,05
VCC	0	%0
	Guztira: 2037	
Silaba irekiak denetara:		%74,82
Silaba itxiak denetara:		%25,18

Taulan ikus daitekeenez, Lizasoren silabatzean CV egitura da nagusi, egiturarik oinarrizkoena (%63,28). Horren ondoren, CVC silaba-egitura baliatzen du maizen bertsolariak (%18,80). Silaba

ekina indartzen duten egiturak %80tik gora dira (%82,87), nahiz eta esan behar den ekinean kontsonante bat baino gehiago gauzatzea ez dela batere ohikoa Lizasorentzat; CCV (%0,64) eta CCVC (%0,1) egiturak ez dira ekoizitako silaben %1era ere heltzen. CVC egituraren ondoren, V bokalez (edo diptongoz) soilik osatutako silabek dute maiztasunik altuena: %10,90, VC egitura ere gertu dagoelarik (%6,23). Agerpen bakarra besterik ez du, orain arte aipatutako CCV eta CCVC egiturekin batera, CVCC (%0,05) silaba-motak, eta VCC egitura ez da lekukotu aztertutako Lizasoren bertsoetan. Silaba-ekinean eta kodan kontsonante bat baino gehiago ahoskatzea Lizasorentzat ezohikoa dela esan daiteke horrela.

Datuei bestela begiratuta, silaba irekiek egitura guztien %74,82 osatzen dute. Itxiek, berriz, %25,18.

3.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko segmental nagusiak

Ondokoak dira Lizasok 1986ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoetan baliatutako silabatze-joerak eta silaba-egitura eta silabatzea baldintzatzen duten bere bilakabide fonologiko nagusiak:

3.2.1. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko indartzaile (*fortitio*) nagusiak

(F1) Silaba ekinean hasperen epentetikoa txertatzea hitz barnean zein hitz artean bi bokal heterosilabikoren elkarketa dagoenean.

Corpuseko adibide bakarra bokal artean, hitz barnean: *e.rri.a.re.nau.rre.[h]an* ‘herriaren aurrean’ (SL-1986-GS-pe-2).

Corpuseko adibide guztiak bokal artean, hitz artean:

bes.te.la.[h]ez.nin.tza.ke (SL-1986-GS-pe-2), *au.to.bu.sa.[h]ar.tu.ta* (SL-1986-GS-10tx-2), *na.go.[h]es.tu* (SL-1986-GS-ge-2), *ne.gu.[h]i.lu.nan* (SL-1986-AS-10H-1), *ta.[h]eus.kal.du.na* (SL-1986-AS-10H-1), *al.dre.be.sa.[h]o.te.dan* (SL-1986-AS-ptk-5).

Nahitaezkoa ez den bilakabidea (hautazkoa). Ondoko adibideetan ez da gertatzen, besteak beste:

Hitz barnean: *ner.bi.o.ak* (SL-1986-GS-ha), *su.kal.de.an* (SL-1986-GS-8H-2), *be.lo.dro.mo.an* ‘Belodromoan’ (SL-1986-GS-8H-3), *jo.ku.a* (SL-1986-GS-8H-4), etab.

Hitz artean: Aurrerago jaso ditut eten bidez egindako bokal arteko banaketak eta modu jarraituan ahoskatutakoak.

Testuinguru guztietan nagusi dira hasperen gabe ahoskatutako kasuak.


Bokal artean hasperena gauzatzen du batzuetan Sebastian Lizasok ere, Amurizak egin bezala. Nahitaezko ez den bilakabidea da hasperena txertatzearena Lizasorentzat ere; gorago jaso dira 1986ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean berak gauzatutako hasperen guztiak. Gainerakoan hasperenik gabe gauzatzen ditu bokal elkarketak. Amuriza eta Lizaso hasperenari dagokionean alderatuz gero, Amurizak bestelako jokabidea agertzen du: 1980ko finalean hitz barneko bokal elkarketak ekidinez zein hitzaren eremu prosodiko hasieran gauzatutakoak dira Amurizaren hasperenak, batez ere; 1982an, parekatuago dago hitzaren eremuaren baitan zein hitz artean gauzatutako hasperenen kopurua, oro har hasperendun askoz adibide gutxiago bildu arren. Lizasoren 1986ko txapelketako finaleko bertsoak aztertuta, esan daiteke nagusiki hitzaren eremuaren ekinean gauzatzen dela, nahitaezko ez den bilakabide gisa, eta hasperenaren erabilera ez dagoela bereziki zabaldua. Hitz barneko adibide bakarra, *e.rri.a.re.nau.rre.[h]an* ‘herriaren aurrean’ (SL-1986-GS-pe-2), inesiboan dago⁵⁶⁸.

Adibideak aztertuta ondoriozta daitekeenez, kasu gehienetan hitz arteko mugan gauzatutako hasperenak dira, bokal artean. Gertakariak hitz prosodikoaren eremu hasiera, ekina, prosodikoki nabarmentzen du kasu horietan, hots katea deskodetzeko lagungarri izanez, ondorio gisa.

Ondorengo espektrograman hitz arteko hasperena ikus daiteke:

568 Gogoratzekoa da Amurizak ere hainbat hasperendun adibide dituela inesiboan (*goi.ze.[h]an* ‘goizean’, XA-1980-GS-ha; *arte.[h]an* ‘artean’, XA-1980-GS-8H-3; *ka.le.[h]an* ‘kalean’, XA-1980-GS-10tx-1; *la.ne.[h]an* ‘lanean’, XA-1980-BB-8tx-1; *au.rre.[h]an* ‘aurrean’, XA-1980-BB-8tx-1; *zo.ri.jo.ne.[h]an* ‘zorionean’, XA-1982-AS-10H-1; *e.txe.[h]an* (x2) ‘etxean’, XA-1982-AS-be-1, XA-1982-AS-be-2; etab.); gertakaria sakon aztertu beharko litzateke hasperenaren eta *-(e)an* markaren artean loturarik ote dagoen ikertu eta, izatekotan, zer-nolako harremana dagoen ulertzeko.

117. **irudia:** Espektrograma. *na.go.[h]es.tu* (SL-1986-GS-ge-2).



(F2) Kontsonante palatal epentetikoa txertatzea **hitz barnean** aurreko eta goiko bokalaren (/i/) eta beste bokal heterosilabiko baten artean, azken honen silaba-ekinean (**i.V →i.jV**).

Corpuseko adibideak (guztiak):


je.ni.[j]o ‘jenio’ (SL-1986-GS-8H-1),
be.gi.[j]ak ‘begiak’ (SL-1986-GS-ge-2),
bi.[j]ak ‘biak’ (SL-1986-AS-8tx-2),
e.rii.[j]an ‘herrian’ (SL-1986-AS-ge-2).

Nahitaezkoa ez den bilakabidea (hautazkoa). Ondoko adibideetan ez da kontsonanterik gauzatzen (adibide guztiak): *pa.zien.tzi.ri.ke.zo.te.di.o* ‘pazientzirik ez ote dio’ (SL-1986-GS-8H-1), *a.mes.ti.a* (SL-1986-GS-pe-1), *e.rii.a.re.nau.rre.han* ‘herriaren aurrean’ (SL-1986-GS-pe-2), *bi.o.tza* ‘bihotza’ (x2) (SL-1986-GS-pe-2; SL-1986-AS-10H-1), *ner.bi.on* ‘nerbioen’ (SL-1986-GS-4oin-2), *or.du.txi.ki.ak* (SL-1986-GS-ge-1), *jei.ki.ta.i.a* (SL-1986-GS-ge-2), *e.gun.sen.ti.a* (SL-1986-GS-ge-3), *baz.ka.ri.a* (SL-1986-GS-ge-3), *ner.bi.o* (SL-1986-AS-ha), *ser.bi.zi.o* (SL-1986-AS-8tx-1), *au.zi.a* (SL-1986-AS-8tx-4), *bi.o.tzak* ‘bihotzak’ (SL-1986-AS-10H-2), *eus.ka.le.ri.ak* ‘Euskal Herriak’ (SL-1986-AS-10H-2), *i.a* (SL-1986-AS-10H-3), *ten.ta.zi.o* (SL-1986-AS-ptk-1), *di.at* (SL-1986-AS-ptk-1), *ko.me.ri.a* (SL-1986-AS-ptk-2), *naz.ka.ga.rii.a* (SL-1986-AS-ptk-2), *e.rii.e.tan* (SL-1986-AS-ptk-4), *au.zi.ak* (SL-1986-AS-ge-1), *gu.zi.ak* (SL-1986-AS-ge-1), *guz.ti.ak* (x2) (SL-1986-AS-ge-2; (SL-1986-AS-ge-3), *ez.da.ki.e.nik* (SL-1986-AS-ge-2), *poz.ga.rii.e.na* (SL-1986-AS-ge-3), *di.ot* (x2) (SL-1986-AS-

ba), *bi.otz.bi.o.tzez* (SL-1986-AS-ba), *gu.zi.a.ri* (SL-1986-AS-ba).

Sebastian Lizasoren 1986ko bertso-ekoizpenean ere aurkitzen da goiko eta aurreko bokalaren ondoren kontsonante palatala txertatzeko bilakabidea. Kasu honetan adibide bakan batzuetan gauzatzen duen bilakabidea da, nahitaezko ez dena. Hona hemen aztertutako bertsoetako adibide guztiak: *je.ni.[j]o* ‘jenio’ (SL-1986-GS-8H-1), *be.gi.[j]ak* ‘begiak’ (SL-1986-GS-ge-2), *bi.[j]ak* ‘biak’ (SL-1986-AS-8tx-2), *e.rrri.[j]an* ‘herrian’ (SL-1986-AS-ge-2). Ondoko espektrograman ikus daiteke kontsonante palataldun gauzatzeetako bat:

19. irudia: *je.ni.[j]o* ‘jenio’ (SL-1986-GS-8H-1)




1982ko ekoizpenean Amurizak bilakabidea hitz artean ere gauzatzen du. Lizasoren silabatzea aztertuta, ordea, ez dut jaso gertakariaren adibiderik hitz artean, horretarako testuingurua dagoen kasuetan: *ja.rrri.e.za.zu* ‘jar(ri) ezazu’ (SL-1986-AS-10H-3), *be.ti.e.rrri.e.tan* ‘beti errietan’ (SL-1986-AS-ptk-4) edo *e.ra.b.a.ki.au* ‘erabaki hau’ (SL-1986-AS-ge-1) gauzatzen ditu bertsolariak, esaterako, kontsonante palatalik gabe.

Gorago esan dut Lizasoren bertsoetan kontsonante palatalaren txertatze-adibide gutxi batzuk baino ez ditudala jaso. Salbuespenak (edo kontsonante palatalik gabeko adibideak) askoz gehiago dira (hitz barnean), taulan ikus daitekeenez: *a.mes.ti.a* (SL-1986-GS-pe-1), *e.rrri.a.re.nau.rre.[h]an* ‘herriaren aurrean’ (SL-1986-GS-pe-2), *bi.o.tza* ‘bihotza’ (x2) (SL-1986-GS-pe-2; SL-1986-AS-10H-1), *ner.bi.on* ‘nerbioen’ (SL-1986-GS-4oin-2), *or.du.txi.ki.ak* ‘ordu txikiak’ (SL-1986-GS-ge-

1), *jei.ki.ta.i.a* ‘jeiki eta ia’ (SL-1986-GS-ge-2), *e.gun.sen.ti.a* ‘egunsentia’ (SL-1986-GS-ge-3), *baz.ka.ri.a* ‘bazkaria’ (SL-1986-GS-ge-3), etab.

Ondorengo espektrograman kontsonante palatalik gabeko adibide bat ikus daiteke, kontsonantedunaren irudiarekin alderatzeko:

118. irudia: Espektrograma. *ten.ta.zi.o* (SL-1986-AS-ptk-1)



Lizasoren aurkezpena aztertuta, ematen du hots katearen jarraitutasuna lehenesten duela silabakako ekoizpen fortitiboaren aurretik, oso kasu gutxitan gauzatu baitu kontsonante palatala, aukera izan duenetan⁵⁶⁹; beharbada oinarrizko aurkezpenarekiko gardentasuna ere bai. Beste gai bat izan daiteke bertsolariaren hizkeraren eta euskara estandarrerantz hurbiltzen den moldearen arteko aldakortasunarena.

Esan behar da Amurizaren 1980ko eta 1982ko txapelketetako silabatzeetan jasotako /i/ bokalaren kontsonantetzea, bokal artean (ViV → V_jV edo V_j.jV) —*go.[j]e.tan* ‘goietan’ (XA-1982-GS-8H-4), *e.tsai.[j]en* ‘etsaien’ (XA-1982-GS-4oin-1), *a.rrai.[j]o* ‘arraio’ (XA-1982-GS-4oin-1), etab. — ez dela gertatzen Lizasoren 1986ko ekoizpenean. /i/ irristari gisa gauzatzen du ([j]), hots anbisilabiko gisa gauzatuta kantuan: *ze.rra.rra[j].o.tan* ‘zer arraiotan’ (SL-1986-GS-10tx-1), *na[j].a.go.det* ‘nahiago dut’ (SL-1986-GS-ge-3), *ge[j].e.gi* ‘gehiegi’ (SL-1986-AS-8tx-1), *a.rra.zo[j].e.ta.ne.tzan* ‘arrazoietan ez zen’ (SL-1986-AS-8tx-1), *ju.a.na[j].ez.ba.de.zu* ‘joan nahi ez baduzu’ (SL-1986-AS-8tx-2), *sa[j].a.tu* ‘saiatu’ (SL-1986-AS-10H-3). Gertakari honek ere utz

⁵⁶⁹ Esango nuke bertsolariak hitz lauz gehiagotan gauzatzen duen bilakabidea dela bokal palatalaren ondoren kontsonante palatala txertatzearena, bokal aurrean eta hitz barnean (ikus *Berria* egunkariaren ondoko bideoa, esaterako: <https://www.youtube.com/watch?v=S0tNxqdBtZA> [azken kontsulta: 2023-12-05]). Ondo aztertu beharko litzateke zein testuingurutan gauzatzen duen, baina Lizasoren kasuan aztertzekoa litzateke ea kontrasterik dagoen hitz lauan eginiko ekoizpenaren eta bertsoetakoaren artean, bilakabide honi dagokionean, bestek beste.

dezake agerian Lizasoren bertsoetako silabatzea ez dela horren fortitiboa eta bokal elkarketetan ez duela horrenbeste(tan) silaba ekina indartzen kontsonantetze bilakabideen bitartez.

(F3) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea eta etenaz⁵⁷⁰ banatzea
[V# #V → V.'V] (lizentzia metrikoetan hiato gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (guztiak):

o.e.a.ne.re. 'a.par.te 'ohean ere aparte' (SL-1986-GS-8H-2),
e.man.zai.da.zu. 'a.bi.su 'eman iezadazu abisu' (SL-1986-GS-8H-3),
o.sa.tu.nai. 'i.ru.ku.a 'osatu nahi hirukoa' (SL-1986-GS-8H-4),
e.zo.te.da. 'a.ri 'ez ote da ari' (SL-1986-GS-pe-2),
kan.tu.ra. 'e.to.rri.naiz 'kantura etorri naiz' (SL-1986-GS-4oin-1),
gi.zo.na. 'ain.gu.txi.da 'gizona hain gutxi da' (SL-1986-GS-4oin-2),
la.gu.na. 'au.ke.ra 'laguna aukera' (SL-1986-GS-10tx-3),
i.gan.de.ro. 'or.da.toz.te 'igandero hor datoz' (SL-1986-GS-ge-1),
gaur.be.ze.la.xe. 'a.ma.se.me.ak 'gaur bezalaxe ama-semeak' (SL-1986-GS-ge-2),
ger.ta.tu. 'oi.ge.ra 'geratu ohi gara' (SL-1986-GS-ge-2),
jei.ki.ta. 'i.a 'i.tzi.ka.ne.re 'jeiki (e)ta ia hitzik(an) ere' (SL-1986-GS-ge-2),
a.ma. 'i.ga.ro 'ama igaro' (SL-1986-GS-ge-3),
ez.lej.ke. 'u.ka.tu 'ezin daiteke ukatu' (SL-1986-AS-8tx-1),
gau.rre.re. 'a.rro 'gaur ere harro' (SL-1986-AS-8tx-2),
sar.tu. 'a.tze.ra 'sartu atzera' (SL-1986-AS-8tx-2),
ju.a.na.de.gu. 'i.zo.tza 'joana dugu izotza' (SL-1986-AS-10H-1)
ai.tor.tze.ko. 'ez.naiz.lo.tsa 'aitortzeko ez naiz lotsa' (SL-1986-AS-10H-1),
o.so. 'e.pe.la.bu.rre.ra (SL-1986-AS-10H-2),
ez.leij.ke. 'e.gin 'ezin lezake egin' (SL-1986-AS-10H-2),
ta.li.bre. 'e.gin '(e)ta libre egin' (SL-1986-AS-10H-3),
la.na. 'e.gi.tez.ke.ro 'lana egitez gero' (SL-1986-AS-ptk-1),
ten.ta.zi.o. 'aun.di.rik 'tentazio handirik' (SL-1986-AS-ptk-1),
kon.tra. 'au.da 'kontra hau da' (SL-1986-AS-ptk-2),
e.ra.ba.ki.au. 'ar.tu.gen.du.en 'erabaki hau hartu genuen' (SL-1986-AS-ge-1),

570 Kasu batzuetan etenaz baino artikulatorioki —intentsitate gora-beherez edota aire-etorriaz baliatuta, akaso—, bestela, markatzen du Lizasok bokal arteko (hitz) muga. Edonola ere, hauteman egiten da taldekatze arrastoa eta horregatik sartu ditut adibide horiek ere multzo honetan. Gertakariaren xehetasunetan sakontzea etorkizunerako geratzen da.

e.ta.‘al.bis.te (SL-1986-AS-ge-3), *parte.‘ar.tu* (SL-1986-AS-ba).

Bestelako joerak ageri dituzten adibideak:

Aurrerago jaso ditut hitz arteko bokal elkarketa silaba heterosilabikoetan gauzatuta, modu jarraituan ahoskatzen diren adibideak, aire-etorria eten gabe. Modu jarraian ahoskatutako hitz arteko bokal elkarketa kasuak gehiago dira etenaz banatutakoak baino. Aurrerago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen diren sinalefa adibideak ere.

Amurizaren silabatze-joerekin kontrastean, Lizasok hots katea modu jarraituagoan ahoskatzen du, hitz arteko mugak horrenbeste eta horrenbestetan adierazi gabe prosodikoki edo segmentalki. Joera nagusia hotsen, silaben, hitzen arteko loturak indartzekoa da. Hala ere, hainbat dira hitz edo sintagmaren eremua mugatzen duten eten txikiak, hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak gauzatzean: *o.e.a.ne.re.‘a.par.te* ‘ohean ere aparte’ (SL-1986-GS-8H-2), *e.man.zai.da.zu.‘a.bi.su* ‘eman iezadazu abisu’ (SL-1986-GS-8H-3), *o.sa.tu.nai.‘i.ru.ku.a* ‘osatu nahi hirukoa’ (SL-1986-GS-8H-4), *e.zo.te.da.‘a.ri* ‘ez ote da ari’ (SL-1986-GS-pe-2), etab.

Hitz edo sintagmakako segmentatze kasu zehatz horiek ulertzeko beharrezkoa da bertsoa bere osotasunean aztertzea. Izan ere, modu bereizian —etenaz mugatuta— ahoskatutako zenbait hitz oinak dira, bertsoan errima daramaten hitzak. Egitura metrikoan osagai horrek duen garrantzia kontuan hartuta, ulertzekoa da bertsolariak argi adierazi eta mugatzea. Oinak dira, esate baterako, ondoko adibideetako bigarren hitzak: *e.man.zai.da.zu.‘a.bi.su* ‘eman iezadazu abisu’ (SL-1986-GS-8H-3), *o.sa.tu.nai.‘i.ru.ku.a* ‘osatu nahi hirukoa’ (SL-1986-GS-8H-4), *e.zo.te.da.‘a.ri* ‘ez ote da ari’ (SL-1986-GS-pe-2), *la.gu.na.‘au.ke.ra* (SL-1986-GS-10tx-3), *i.gan.de.ro.‘or.da.toz.te* ‘igandero hor datoz’ (SL-1986-GS-ge-1), *ez.lei.ke.‘u.ka.tu* (SL-1986-AS-8tx-1), *sar.tu.‘a.tze.ra* (SL-1986-AS-8tx-2), *ju.a.na.de.gu.‘i.zo.tza* (SL-1986-AS-10H-1).

Eten horietako beste batzuk ulertzeko beharrezkoa izango da bertso-doinuaren edo metrikaren egiturako beste osagai batzuei erreparatzea (motibo erritmikoari, batez ere) eta baita hizketaren egitura sintaktiko eta diskurtsiboari zein ulergarritasuna bezalako bestelako faktoreei ere.

(F4) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-ik ez egitea, hitzen arteko muga ez urtzea (lehen hitzeko kodako kontsonantea(k) ez silabatzea hurrengo silabako ekin hutsean). **Hitz artean hots katea ez birsilabatzea** CV egiturarantz.

Corpuseko adibideak (guztiak):

gaiz.ki.za.nik. 'a.zal.du.ko 'gaizki zenik azalduko' (SL-1986-GS-8H-1),
su.kal.de.an.bat. 'ez.ge.ra.e.ta 'sukaldean bat ez gara eta' (SL-1986-GS-8H-2)
txa.pe.la.ren. 'az.pi.ku.a 'txapelaren azpikoa' (SL-1986-GS-8H-4),
mu.til. 'a.mes.ti.a (SL-1986-GS-pe-1),
i.tze.ma.ten.det. 'e.giz 'hitz ematen dut egiaz' (SL-1986-GS-4oin-1),
a.gu.rre.an. 'e.san.det 'agurrean esan dut' (SL-1986-GS-4oin-2),
gaur. 'e.gun.sen.ti.ti.kan (SL-1986-GS-4oin-2), *me.se.dez. 'a.tze.ra* (SL-1986-GS-10tx-3),
lo.tsa.rik. 'ez.du.ta (SL-1986-AS-8tx-2),
al.ko.la.ren. 'in.da.rrez 'alkoholaren indarrez' (SL-1986-AS-8tx-2),
o.rra.nik. 'au.ke.ra 'horra nik aukera' (SL-1986-AS-8tx-3),
ku.ku.an. 'o.tsa 'kukuaren hotsa' (SL-1986-AS-10H-1),
eus.kal.du.na.ren. 'u.rre.ra 'euskaldunaren hurrera' (SL-1986-AS-10H-2),
*egin. 'au.rre.ra*⁵⁷¹ (SL-1986-AS-10H-2), *as.mo.ri.kan. 'o.ne.ne.an* (SL-1986-AS-10H-3),
nik. 'a.rra.ren 'nik arraren' (SL-1986-AS-ptk-3),
ba.ñan. 'i.re.mu.xu.a 'baina hire musua' (SL-1986-AS-ptk-6),
an.nor. 'as.ten.dan 'han nor hasten den' (SL-1986-AS-ge-2),
en.tzun. 'au.ja.kin. 'or.du.ko 'entzun hau jakin orduko' (SL-1986-AS-ge-2)
es.kein.tzen.di.ot. 'ai.ta.ri (SL-1986-AS-ba).

Aurkako joera ageri duten adibideak. Aurrerago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-a duten adibideak, askoz ere gehiago direnak. Lizasoren joera nagusia hitz arteko mugak urtu eta hots katea birsilabatzea da.


Hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoekin gertatu bezala, hitzen mugan kontsonante bat (lehen silabako kodan) eta bokal bat (hurrengo hitz hasieran) elkartzen direnean, Lizasoren joera orokorra horiek birsilabatu eta, hitz muga urtuta, hots katea CV egitura oinarrikoenerantz

571 Lehen aldiz azken puntua kantatzean oina, *aurrera*, bereiz kantatzen du Lizasok, baina bigarren aldiz puntua errepikatzean, hitzen arteko mugak urturik.

hurbilduta silabatzea da. Edonola ere, badira *liaison* edo birsilabatze gabeko kasuak, hitzaren edo sintagmaren eremua mugatuz bertsoan.

Horietako hainbat, hitz arteko bokal bilkurak etenaz mugatzean egin bezala, bertsoaren egitura metrikotik uler daitezke. Sarri oinak (errima daramaten hitzak) dira silabatzean banatzen direnak: *gaiz.ki.za.nik.‘a.zal.du.ko* ‘gaizki zenik azalduko’ (SL-1986-GS-8H-1), *mu.til.‘a.mes.ti.a* (SL-1986-GS-pe-1), *me.se.dez.‘a.tze.ra* (SL-1986-GS-10tx-3), *lo.tsa.rik.‘ez.du.ta* (SL-1986-AS-8tx-2), *o.rra.nik.‘au.ke.ra* (SL-1986-AS-8tx-3), *ku.ku.an.‘o.tsa* ‘kukuaren hotsa’ (SL-1986-AS-10H-1), *eus.kal.du.na.ren.‘u.rre.ra* ‘euskaldunaren hurrera’ (SL-1986-AS-10H-2), *egin.‘au.rre.ra* (SL-1986-AS-10H-2), *as.mo.ri.kan.‘o.ne.ne.an* ‘asmorik onenean’ (SL-1986-AS-10H-3), *es.kein.tzen.di.ot.‘ai.ta.ri* (SL-1986-AS-ba). Ondoko adibidean ikus daiteke etena espektrograman:

119. irudia: Espektrograma. *me.se.dez.‘a.tze.ra* ‘mesedez atzera’ (SL-1986-GS-10tx-3)



Osagai metriko edo melodiko handiagoak ere mugatzen ditu Lizasok eten laburren bitartez batzuetan. Bertsoaren egitura adieraztearekin bat ez datozen kasuak ere badira, eta azken horietan dikzio argia edo hitz jakinen bat nabarmendu nahia izan daitezke hitzaren eremua mugatzeko arrazoiak: *i.tze.ma.ten.det.‘e.giz* ‘hitz ematen dut egiaz’ (SL-1986-GS-4oin-1), *a.gu.rre.an.‘e.san.det* ‘agurrean esan dut’ (SL-1986-GS-4oin-2), *gaur.‘e.gun.sen.ti.ti.kan* ‘gaur egunsentitik’ (SL-1986-GS-4oin-2), *al.ko.la.ren.‘in.da.rrez* ‘alkoholaren indarrez’ (SL-1986-AS-8tx-2), etab. §10. kapituluak sakondu dut gertakari hauetan taldekatze prosodikoari erreparatzean. Ideia orokor gisa esan daiteke Lizasok ez duela hizkako ahoskera modu orokortuan baliatzen eta, hala, egiteko zehatzak bete ditzakeela bere silabatzean.

(L1) Hitz barneko segmentu kenketa batzuk (askotariko silaba kenketak)

Corpuseko adibideak (batzuk):

des.pe.di.da.ko ‘despedidarako’ (SL-1986-GS-8H-3),

be.re.kin.du.la ‘berarekin duela’ (SL-1986-GS-8H-4),

ner.bi.on ‘nerbioen’ (SL-1986-GS-4oin-2),

ar.tu.za.zu ‘hartu (e)zazu’ (SL-1986-GS-10tx-1) —baina *gor.de.e.za.zu* ‘gorde ezazu’ (SL-1986-GS-8H-4), *en.tzu.ne.za.zu* ‘entzun ezazu’ (SL-1986-AS-10H-1)—,

i.ñor.ke.e.zus.te ‘inork ere ez uste’ (SL-1986-AS-ha) —baina *gal.tzen.ba.de.zu.e.re* ‘galtzen baduzu ere’ (SL-1986-GS-8H-1)—,

ni.ke ‘nik ere’ (SL-1986-AS-8tx-3) —baina *pa.sa.e.re.bai* ‘pasa ere bai’ (SL-1986-AS-be-1)—,

ne.gu.[h]i.lu.nan ‘negu ilunaren’ (SL-1986-AS-10H-1),

a.lai.tu.za.zu ‘alaitu (e)zazu’ (SL-1986-AS-10H-1) —baina *ja.rri.e.za.zu* ‘jarri ezazu’ (SL-1986-AS-10H-3)—,

ku.ku.an ‘kukuaren’ (SL-1986-AS-10H-1) —baina *txa.pe.la.ren* ‘txapelaren’ (SL-1986-GS-8H-4)—,

da.go.ne.rri.a ‘dagoen herria’ (SL-1986-AS-10H-3),

ba.ten ‘batean’ (SL-1986-AS-ptk-1) —baina *txa.rre.an* ‘txarrean’ (SL-1986-GS-8H-1)—,

i.bi.li.gen.dun ‘ibili genuen’ (SL-1986-AS-ge-3) —baina *ar.tu.gen.du.en* ‘hartu genuen’ (SL-1986-AS-ge-1)—,

bu.lla.ta.za.ra.ta ‘buila eta zarata’ (SL-1986-AS-ge-3) —baina *e.ta.al.bis.te* ‘eta albiste’ (SL-1986-AS-ge-3)—, etab.

Askotariko moduetara laburtzen ditu Lizasok hitzak hots katea neurrira egokitzeko. Genitiboa (NOREN) ahoskatzean, adibidez, markak duen *-(r)e-* gauzatu edo ez neurriak baldintzatzen duela dirudi: *ner.bi.on* ‘nerbioen’ (SL-1986-GS-4oin-2), *ne.gu.[h]i.lu.nan* ‘negu ilunaren’ (SL-1986-AS-10H-1), *ku.ku.an* ‘kukuaren’ (SL-1986-AS-10H-1), baina *txa.pe.la.ren* (SL-1986-GS-8H-4). Bestalde, aditz jokatuetakoko bokal bilkurak soiltzen ditu behar duenean, /e/ bokal atonua kenduta duten formak erabiliz: *be.re.kin.du.la* ‘berarekin duela’ (SL-1986-GS-8H-4), *da.go.ne.rri.a* ‘dagoen herria’ (SL-1986-AS-10H-3), *i.bi.li.gen.dun* ‘ibili genuen’ (SL-1986-AS-ge-3) baina *ar.tu.gen.du.en*

⁵⁷² Hitz barneko bokal eta, zabalago, silaba kenketak gauzatzen ditu Lizasok. Askotariko gertakariak dira, mota bakoitzeko adibide gutxi batzuk dituztenak eta, horregatik, baliabide metrikoei buruzko atalean jaso ditut zuzenean, eskakizun metrikoak betetzeko kenketa baliabide gisa, ezin baitira silabatze joera orokortzat (edo neurri batean zabaldutakotzat) hartu.

'hartu genuen' (SL-1986-AS-ge-1), eta *ar.tu.za.zu* 'hartu (e)zazu' (SL-1986-GS-10tx-1) edo *a.lai.tu.za.zu* 'alaitu (e)zazu' (SL-1986-AS-10H-1) baina *gor.de.e.za.zu* 'gorde ezazu' (SL-1986-GS-8H-4) *en.tzu.ne.za.zu* 'entzun ezazu' (SL-1986-AS-10H-1) edo *ja.rri.e.za.zu* 'jarri ezazu' (SL-1986-AS-10H-3), etab. Bestetik, euskaraz ohikoak diren askotariko bokal eta, zabalago, silaba kenketak ere gauzatzen ditu kantuan: *des.pe.di.da.ko* 'despedidarako' (SL-1986-GS-8H-3); *ba.ten* 'batean' (SL-1986-AS-ptk-1) baina *txa.rre.an* 'txarrean' (SL-1986-GS-8H-1); *i.ñor.ke.e.zus.te* 'inork ere ez uste' (SL-1986-AS-ha), *ni.ke* 'nik ere' (SL-1986-AS-8tx-3) baina *gal.tzen.ba.de.zu.e.re* 'galtzen baduzu ere' (SL-1986-GS-8H-1), *pa.sa.e.re.bai* 'pasa ere bai' (SL-1986-AS-be-1); *bu.lla.ta.za.ra.ta* 'buila eta zarata' (SL-1986-AS-ge-3) baina *e.ta.al.bis.te* 'eta albiste' (SL-1986-AS-ge-3); etab.

(L2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea baina modu jarraituan ahoskatzea [V# #V → V.V] (hiatoa).

Corpuseko adibideak (guztiak):

e.to.rri.a.rren 'etorri arren' (SL-1986-GS-ha), *ez.du.te.us.te.ko* 'ez dute usteko' (SL-1986-GS-ha),
se.na.rra.o.rren 'senarra horren' (SL-1986-GS-8H-1),
ba.de.zu.e.re 'baduzu ere' (SL-1986-GS-8H-1),
mun.du.a.ez.ta 'mundua ez da' (SL-1986-GS-8H-1),
ez.ge.ra.e.ta 'ez gara eta' (SL-1986-GS-8H-2),
sal.tsa.au.bu.ka.tu.ar.te 'saltsa hau bukatu arte' (SL-1986-GS-8H-2),
des.pe.di.da.ko.e.man.go.di.zut 'despedida(ra)ko emango dizut' (SL-1986-GS-8H-3),
e.man.zai.da.zu.a.bi.su 'eman iezadazu abisu' (SL-1986-GS-8H-3),
di.tu.zu.e.ta 'dituzu eta' (SL-1986-GS-8H-4), *gor.de.e.za.zu* 'gorde ezazu' (SL-1986-GS-8H-4),
le.ne.re.e.men 'lehen ere hemen' (SL-1986-GS-pe1), *be.ra.e.zo.te* 'bera ez ote' (SL-1986-GS-pe1),
ga.lan.ta.e.gin.de.zu 'galanta egin duzu' (SL-1986-GS-pe2),
gal.dez.ka.as.ti.a 'galdezka hastea' (SL-1986-GS-pe2),
ton.go.ra.ez.da.tor 'tongora ez dator' (SL-1986-GS-pe2),
gu.re.e.tx.e.an 'gure etxean' (SL-1986-GS-10tx-1),
sar.tu.ta.ar.tu.za.zu 'sartu (e)ta hartu (e)zazu' (SL-1986-GS-10tx-1),
sen.da.tze.ko.as.mo.ak 'sendatzeko asmoak' (SL-1986-GS-10tx-2),
ne.re.on.do.ra 'nire ondora' (SL-1986-GS-10tx-2),
e.tzai.da.zu.la.e.gin 'ez iezadazula' egin (SL-1986-GS-10tx-3),
jei.ki.tze.ra.ko.or.du.txi.ki.ak 'jaikitzerako ordu txikiak' (SL-1986-GS-ge-1),

bi.da.li.ga.be.al.ka.rrri ‘bidali gabe elkarri’ (SL-1986-GS-ge-2),
na.go.hes.tu.e.ta.la.rrri ‘nago estu eta larri’ (SL-1986-GS-ge-2),
gu.txi.ñe.ze.gin.go.al.da ‘gutxienez egingo al da’ (SL-1986-AS-ha),
no.la.ez.nun.jo.ko ‘nola ez nuen joko’ (SL-1986-AS-8tx-3),
mar.tx.a.o.ne.ta.ne.tzait ‘martxa honetan ez zait’ (SL-1986-AS-8tx-3),
u.tzi.al.bo.ra ‘utzi albora’ (SL-1986-AS-10H-1), *e.tsi.ez.ke.ro* ‘etsiz gero’ (SL-1986-AS-10H-2),
ez.lei.ke.e.gi.ñau.rre.ra ‘ezin lezake egin aurrera’⁵⁷³ (SL-1986-AS-10H-2)
ja.rrri.e.za.zu ‘jarri ezazu’ (SL-1986-AS-10H-3),
a.la.e.re.a.ri.naiz ‘hala ere ari naiz’ (SL-1986-AS-ptk-4),
be.ti.e.rrri.e.tan ‘beti errietan’ (SL-1986-AS-ptk-4),
ai.to.rre.za.zu.e.men ‘aitor ezazu hemen’ (SL-1986-AS-ptk-5),
pa.sa.e.re.bai ‘pasa ere bai’ (SL-1986-AS-be), *txa.lo.ka.a.si* ‘txaloka hasi’ (SL-1986-AS-be),
ba.te.re.e.san ‘batere esan’ (SL-1986-AS-be),
sa.rrri.as.ko.ta.nau.zi.ak ‘sarri askotan auziak’ (SL-1986-AS-ge-1),
me.re.zi.e.do ‘merezi edo’ (SL-1986-AS-ba).

Bestelako joerak ageri dituzten adibideak:


Gorago jaso ditut hitz arteko bokal elkarketa silaba heterosilabikoetan gauzatuta, etenak bananduta silabatzen diren adibideak. Modu jarraian ahoskatutako hitz arteko bokal elkarketa kasuak gehiago dira etenaz banatutakoak baino. Gorago jaso ditut, era berean, hitz arteko bokal elkartea hasperen bitartez banatzen duten kasuak.

Lizasok, 1986ko txapelketan, joera nagusi gisa hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak hots uhina, aire etorria, ebaki gabe ahoskatzen ditu, jarraian. Kontrastea egiten du horretan Amurizarekin (aztertutako 1980ko eta 1982ko txapelketetan), azken horrek gehienetan kantatzen baititu eten laburrez bereizita. Bertsoaren egitura orokorra zehazten duten taldekatzeak (hemistikioa, puntua, etab.) albo batera utzita —esan bezala, atal honetan ez dira eten luzeago horiek kontuan hartu—, hitz artean elkartutako bokalak silaba bereizietan (hiatoa eginez) baina jarraian, etenik gabe ahoskatzen ditu: *ga.lan.ta.e.gin.de.zu* ‘galanta egin duzu’ (SL-1986-GS-pe2), *gal.dez.ka.as.ti.a* ‘galdezka hastea’ (SL-1986-GS-pe2), *ton.go.ra.ez.da.tor* ‘tongora ez dator’ (SL-1986-GS-pe2), *gu.re.e.tx.e.an* ‘gure etxean’ (SL-1986-GS-10tx-1), *sar.tu.ta.ar.tu.za.zu* ‘sartu (e)ta har (e)zazu’ (SL-

⁵⁷³‘Ez leike egin aurrera’ bertso amaieran kantatzen du Lizasok, errepikadun doinuaz. Horrela, kantatzen duen lehen aldian hitz arteko bokal bilkura nolabait adierazten du artikulatorioki, eta bigarren aldian jarraian ahoskatzen du, adibidean jaso bezala: *ez.lei.ke.e.gi.ñau.rre.ra* (SL-1986-AS-10H-2).

1986-GS-10tx-1), *sen.da.tze.ko.as.mo.ak* ‘sendatzeko asmoak’ (SL-1986-GS-10tx-2), *ne.re.on.do.ra* ‘nire ondora’ (SL-1986-GS-10tx-2), *e.tzai.da.zu.la.e.gin* ‘ez iezadazula’ egin (SL-1986-GS-10tx-3), etab. Ez dago bokalen araberako murriztapenik: bokal berberak elkartzen direnean ere modu jarraituan ahoskatzen ditu, hala behar bada. Ondoko espektrograman ikus daiteke nola ahoskatzen diren hitz arteko bokal bilkurak modu jarraituan:

120. irudia: *sal.tsa.au.bu.ka.tu.ar.te* ‘saltsa hau bukatu arte’ (SL-1986-GS-8H-2).



(L3) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak birsilabatzea, silaba bakarrean ahoskatuta [V# #V → VV] (lizentzia metrikoetan **sinalefa** gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (guztiak):

biz.ka.jal.de.tik ‘Bizkaia aldetik’ (SL-1986-GS-ha),

e.rra.m[we].gu.na ‘Erramu eguna’ (SL-1986-AS-ge-3).

Sinalefarik gabeko adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen ez diren hiato adibideak, askoz ere gehiago direnak.

Lizasok apenas darabilen sinalefa: bi adibide besterik ez ditu 31 bertsoetan. Neurria betetzeko baliabide gisa ez du hitz arteko bokal elkarketa silaba bakarrean ahoskatzen, birsilabatuta, bere silabatze joera orokorra hots katearen jarraitutasunaren aldekoa izan arren.

(L4) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean, silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-a egitea hitzen arteko muga urtuz; hots katea birsilabatzea CV egiturarantz.

Corpuseko adibideak (goizeko saioko guztiak):

ez.nu.e.nus.te ‘ez nuen uste’ (SL-1986-GS-8H-1),

pa.zi.en.tzi.ri.ge.zo.te.di.o ‘pazientzirik ez ote dio’ (SL-1986-GS-8H-1),

le.najn.bes.te ‘lehen hainbeste’ (SL-1986-GS-8H-2), *o.e.a.ne.re* ‘ohean ere’ (SL-1986-GS-8H-2),

e.zi.ka.ra.tu ‘ez ikaratu’ (SL-1986-GS-8H-3),

ni.kon.do.da.kit ‘nik ondo dakit’ (SL-1986-GS-8H-4),

ze.rre.gin.go.da ‘zer egingo da’ (SL-1986-GS-8H-4), *le.ne.re* ‘lehen ere’ (SL-1986-GS-pe-2),

e.zo.te ‘ez ote’ (SL-1986-GS-pe-2), *e.rri.a.re.nau.rre.han* ‘herriaren aurrean’ (SL-1986-GS-pe-2),

i.tze.ma.ten.det ‘hitz ematen dut’ (SL-1986-GS-4oin-1),

ni.kus.tez ‘nik ustez’ (SL-1986-GS-4oin-2),

a.ñur.du.ri ‘hain urduri’ (SL-1986-GS-4oin-2), *e.zes.ka.tu* ‘ez eskatu’ (SL-1986-GS-4oin-2),

zu.ka.te.a.ju.a ‘zuk atea joa’ (SL-1986-GS-10tx-1),

ze.rra.rra.jo.tan ‘zer arraiotan’ (SL-1986-GS-4oin-1), *a.wez.ta* ‘hau ez da’ (SL-1986-GS-10tx-1),

ber.so.a.gen.tzu.te.ra ‘bertsoak entzutera’ (SL-1986-GS-10tx-1),

e.ro.ti.ge.ro.ra ‘erotik erora’ (SL-1986-GS-10tx-2),

ni.kes.kei.ñi ‘nik eskaini’ (SL-1986-GS-10tx-3), *e.tzai.da.zu.la* ‘ez iezadazula’ (SL-1986-GS-10tx-

3), *a.nen.tzun.dako.a.kin* ‘han entzundakoekin’ (SL-1986-GS-10tx-3),

o.rain.di.ke.re ‘oraindik ere’ (SL-1986-GS-ge-1),

me.re.zi.de.da.nain.bes.te ‘merezi dudan hainbeste’ (SL-1986-GS-ge-1),

i.tzi.ka.ne.re ‘hitzik ere’ (SL-1986-GS-ge-2),

a.pe.ti.to.ri.gez.tau.ka.te.ta ‘apetitorik ez daukat eta’ (SL-1986-GS-ge-2),

as.ko.ri.ge.tza.zu ‘askorik ez (e)zazu’ (SL-1986-GS-ge-2),

ai.tor.tzen.di.zu.te.txe.ti.kan.po ‘aitortzen dizut, etxetik kanpo’ (SL-1986-GS-ge-3),


jo.de.te.txe.a.nal.da.ba ‘jo dut etxean aldaba’ (SL-1986-GS-ge-3),

gau.zo.rrek ‘gauza horrek’ (SL-1986-GS-ge-3), etab.

Liaisonik ez duten adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-ik egiten ez duten adibideak (eta bilakabidearen deskribapena). Lizasoren kasuan, joera nagusia *liaisona* egitea dela esan daiteke, adibide gehiago aurkitzen baitira norabide horretan: goizeko saioan bakarrik jada hitz arteko birsilabatze (*liaison*) kasu gehiago daude final osoan banatuta ahoskatutako C# #V kasuak baino.

1986ko Bertsolari Txapelketa Nagusian hitz arteko mugak urtu egiten ditu Lizasok joera nagusi gisa, hitz bat kontsonantez amaitzen bada eta ondorengo hitza bokalez hasi, CV egiturara gehiago hurbiltzen den birsilabatzea gauzatuz: *a.pe.ti.to.ri.[ɣ]ez.tau.ka.te.ta* ‘apetitorik ez daukat eta’ (SL-1986-GS-ge-2), *jo.de.te.tx.e.a.nal.da.ba* ‘jo dut etxean aldaba’ (SL-1986-GS-ge-3), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke, adibidez, liaisonaren gauzatzea; hotsak hitz muga urturik nola ahoskatzen dituen bertsolariak:

121. irudia: Espektrograma. *pa.zi.en.tzi.ri.[ɣ]e.zo.te.di.o* ‘pazientzi(a)rik ez ote dio’ (SL-1986-GS-8H-1).



Silabatze-joera honek agerian uzten du hots katearen jarraitutasunari lotutako gertakari segmental bat: hitz artean eta bokal artean gauzatutako herskari ahoskabeen ahostuntzea, hain zuzen ere. Goiko espektrograman ikus daiteke nola ‘pazientzi(a)rik ez ote dio’ katea /pasientsirikesotedio/ → *pa.zi.en.tzi.ri.[ɣ]e.zo.te.di.o* ahoskatzen duen Lizasok, hasiera batean *pazientzirik* hitzaren kodan zegoen herskaria bokal artean eta silaba ekinean ahulduz. Gertakari horrek kontsonante bilkuren trataerari buruz aritzera narama ezinbestean.

(L5) Hitz arteko kontsonanteen eta kontsonante bilkura heterosilabikoen asimilazio eta kenketa batzuk

L.5.1. Bokal artean edo ozen ondorengo **herskari ahoskabea ahostundu eta, kasu batzuetan, igurzkaritzea.**

Corpuseko adibideak: *pa.zi.en.tzi.ri.[ɣ]e.zo.te.di.o* ‘pazientzi(a)rik ez ote dio’ (SL-1986-GS-8H-1), *ber.so.a.[ɣ]en,tzu.te.ra.* ‘bertsoak entzutera’ (SL-1986-GS-10tx-1), *e.ro.ti.[ɣ]e.ro.ra*

‘erotik erora’ (SL-1986-GS-10tx-2), *a.pe.ti.to.ri.[γ]ez.tau.ka.te.ta* ‘apetitorik ez daukat eta’ (SL-1986-GS-ge-2), *as.ko.ri.[γ]e.tza.zu.ja.rrī* ‘askorik ez (e)zazu jarri’ (SL-1986-GS-ge-2), *ten.ta.tu.ni.ñu.en.da* ‘tentatu ninduen (e)ta’ (SL-1986-AS-8tx-3), *po.zi.[γ]ar.tu.ko.du* ‘pozik hartuko du’ (SL-1986-AS-8tx-4), *i.si.li.[γ]e.go.na.di* ‘isilik egon hadi’ (SL-1986-AS-ptk-2), *ge.zu.rrī.[γ]ez.dut* ‘gezurrik ez dut’ (SL-1986-AS-be), *txa.pe.l.da.guz.ti* ‘txapel (e)ta guzti’ (SL-1986-AS-ba), etab.

Nahitaezko ez den bilakabidea. **Ahostuntzerik gabeko adibideak:** *ni.kon.do.da.kit* ‘nik ondo dakit’ (SL-1986-GS-8H-4), *ni.kus.tez* ‘nik ustez’ (SL-1986-GS-4oin-2), *zu.ka.te.a.ju.a* ‘zuk atea joa’ (SL-1986-GS-10tx-1), *ni.kes.ke.ñi* ‘nik eskaini’ (SL-1986-GS-10tx-3), *o.rain.di.ke.re* ‘oraindik ere’ (SL-1986-GS-ge-1), *di.zu.te.txē.ti.kan.po* ‘dizut etxetik kanpo’ (SL-1986-GS-ge-3), etab.

L.5.2. (Sarri klase bereko) **kontsonante elkarketa heterosilabikoan, bi kontsonanteetako bat asimilatzea edo kentzea** (elkarketa bakunduz)⁵⁷⁴.

Corpuseko adibideak:

Sudurkariak: *pa.rran.da.nin.tzan* ‘parrandan nintzen’ (SL-1986-GS-ge-1), *mai.ta.tze.na.zu* ‘maitatzen nauzu’ (SL-1986-GS-ge-1), *ju.a.na.jez.ba.de.zu* ‘joan nahi ez baduzu’ (SL-1986-AS-8tx-2), *ju.a.te.nai.ze.ne.an* ‘joaten naizenean (SL-1986-AS-10H-3), etab.

Herskariak: *nor.baj.te.gaur* ‘norbaitek gaur’ (SL-1986-GS-8H-1), *ni.de.dan.pues.tu.a* ‘nik dudan postua’ (SL-1986-GS-10tx-1), etab.

Nahitaezko ez den bilakabidea. **Asimilazio edo kenketa gabeko adibideak:**

Sudurkariak: *an.‘nor* ‘han nor’ (SL-1986-AS-ge-2).

Herskariak: *be.gi.[j]ak.go.rrī.tu.a* ‘begiak gorritua’ (SL-1986-GS-ge-2), *i.ga.ro.det.ga.ba* ‘igaro dut gaua’ (SL-1986-GS-ge-3).

L.5.3. Txistukari ahoskabearen ondorengo herskari ahostuna ahoskabetzea ‘ez’ morfemari lotuta (erregela).

Corpuseko adibideak: *ez.ta* ‘ez da’ (SL-1986-GS-8H-1), *ez.ta.du.ka.zu* ‘ez daukazu’ (SL-1986-GS-8H-2), *au.ez.ta* ‘hau ez da’ (SL-1986-GS-10tx-1), *a.pe.ti.to.ri.gez.tau.ka.te.ta* ‘apetitorik ez daukat eta’ (SL-1986-GS-ge-2), *ez.tet* ‘ez dut’ (SL-1986-AS-ptk-3), *ez.tek* ‘ez duk’ (SL-1986-AS-ptk-6).

⁵⁷⁴ Hitz barnean ere ondoko kontsonante bilkuren soilteak aurki daitezke Lizasoren silabatzean: *belztuta* → *bez.tu.ta* (SL-1986-AS-8tx-2), *honuntz dakarkit* → *o.nuz.da.kar.kit* (SL-1986-AS-10H-1).

Ahoskabetze gabeko zenbait adibide: *ez.du.te* (SL-1986-GS-ha), *ez.di.at* (SL-1986-AS-ptk-1), *ez.da.ki.e.nik* (SL-1986-AS-ge-2), *ez.da* (SL-1986-AS-ge-2).

L.4.4. Bi frikari txistukari gauzatzen direnean elkarren segidan —horietako lehenengoa ‘ez’ morfemarena eta bigarrena aditz jokatuarena—, bat kendu eta bestea afrikatzea.


Corpuseko adibideak: *e.tzai.da.zu.la* ‘ez (ie)zadazula’ (SL-1986-GS-10tx-3), *as.ko.ri.ge.tza.zu.ja.rri* ‘askorik ez (e)zazu jarri’ (SL-1986-GS-ge-2), *a.rra.zo.[j]e.ta.ne.tzan* ‘arrazoietan ez zen’ (SL-1986-AS-8tx-1), *e.tza.zu* ‘ez (e)zazu’ (SL-1986-AS-8tx-2), *mar.txa.o.ne.ta.ne.tzait* ‘martxa honetan ez zait’ (SL-1986-AS-8tx-3)⁵⁷⁵.

Lizasok 1986an bilakabide eta erregela segmentaletan ere islatzen du ahoskera jarraituagoa. Hasteko, hitzak elkarren artean birsilabatzean (liaisona egitean) bokal artean edo ozen ondoren gauzatutako herskari ahoskabeak askotan ahostundu eta frikaritu egiten ditu, hots katearen jarraitutasuna areagotuz. /k/ herskari belarrarekin gertatzen da nagusiki bokal arteko lenitioa: *pa.zi.en.tzi.ri.[ɣ]e.zo.te.di.o* ‘pazientzi(a)rik ez ote dio’ (SL-1986-GS-8H-1), *ber.so.a.[ɣ]en,tzu.te.ra* ‘bertsoak entzutera’ (SL-1986-GS-10tx-1), *e.ro.ti.[ɣ]e.ro.ra* ‘erotik erora’ (SL-1986-GS-10tx-2), *a.pe.ti.to.ri.[ɣ]ez.tau.ka.te.ta* ‘apetitorik ez daukat eta’ (SL-1986-GS-ge-2), *as.ko.ri.[ɣ]e.tza.zu.ja.rri* ‘askorik ez (e)zazu jarri’ (SL-1986-GS-ge-2), etab. /t/ herskari hobikariarekin, berriz, ozen ondorengo ahostuntzea ((e)ta osagaiari lotuta, besteak beste): *en.ta.tu.ni.ñu.en.da* ‘tentatu ninduen (e)ta’ (SL-1986-AS-8tx-3), *txa.pel.da.guz.ti* ‘txapel (e)ta guzti’ (SL-1986-AS-ba), etab. Ondoko espektrogrametan ikus daiteke ahostundutako herskari bat, lehenik —*e.ro.ti.[ɣ]e.ro.ra* ‘erotik erora’ (SL-1986-GS-10tx-2)—, eta testuinguru berean ahostundu gabekoa (ahoskabea) ondoren: *ni.kes.ke.ñi* ‘nik eskaini’ (SL-1986-GS-10tx-3).


575 Lizasoren 1986ko Bertsolari Txapelketako Finaleko silabatzean ez da aurkitu txistukari frikari bilkuraren aurrean afrikatu gabeko adibiderik. Hala ere, ozen ondoko txistukaria ez dirudi afrikatzen denik: *e.man.zai.da.zu* (SL-1986-GS-8H-3).

Bestalde, ‘ez’ morfemari lotuta, txistukari frikariaren ondoren sudurkaria datorrenean, ez da txistukaria kentzen, Lizasoren 1986ko txapelketako finaleko bertsoetan, behintzat: *ez.nu.e.nus.te* ‘ez nuen uste’ (SL-1986-GS-8H-1), *ez.naiz* (x2) (SL-1986-GS-8H-3; SL-1986-AS-10H-1).

122. irudia: Espektrograma. *e.ro.ti.[ɣ]e.ro.ra* ‘erotik erora’ (SL-1986-GS-10tx-2)




123. irudia: Espektrograma. *ni.kes.ke.ñi* ‘nik eskaini’ (SL-1986-GS-10tx-3)




Gertakari segmentalekin jarraituz, hitz arteko askotariko kontsonante bilkurak ahuldu eta bakuntzeko bilakabideak gauzatzen ditu maiz Lizasok, hots katea ahoskagarriago eginez eta sarri silabatzea CV egiturarantz hurbilduz gehiago: *nor.baj.te.gaur* ‘norbaitek gaur’ (SL-1986-GS-8H-1), *pa.rran.da.nin.tzan* ‘parrandan nintzen’ (SL-1986-GS-ge-1), *mai.ta.tze.na.zu* ‘maitatzen nauzu’ (SL-1986-GS-ge-1), *ni.de.dan.pues.tu.a* ‘nik dudan postua’ (SL-1986-GS-10tx-1), etab. Ondoko espektrogrametan ikus daiteke kontsonante bilkuraren soiltzearen emaitza den adibidea (124. irudia)

eta hotsak horrenbeste ahuldu gabe eginiko ahoskera (125. irudia), biak baitira posible, joera ahultzailea (edo kohesiogilea) nagusi den arren.

124. irudia: Espektrograma. *as.ko.ri.[ɣ]e.tza.zu* (SL-1986-GS-ge-2).



125. irudia: Espektrograma. *be.gi.jak.go.rri.tu.a* (SL-1986-GS-ge-2)



Bestalde, 'ez' morfemari lotutako txandakatzeetan txistukari ondoko herskari ahostuna ahoskabetu egiten du sari Lizasok, asimilazioaren ondorioz herskariak osatzen duen silaba-ekina, silaba pareta, indartuz hots katean: *ez.ta* 'ez da' (SL-1986-GS-8H-1), *ez.ta.du.ka.zu* 'ez daukazu' (SL-1986-GS-8H-2), *au.ez.ta* 'hau ez da' (SL-1986-GS-10tx-1), *a.pe.ti.to.ri.gez.tau.ka.te.ta* 'apetitorik ez daukat eta' (SL-1986-GS-ge-2), *ez.tet* 'ez dut' (SL-1986-AS-ptk-3), etab. Morfema berarekin bi txistukari frikari elkartzean, lehenengoa kendu eta bigarrena afrikatu egiten da, erregela

honen ondorioz ere hots katea CV egiturarantz hurbilduz eta afrikariak osatzen duen silaba-ekina indartuz: *e.tzai.da.zu.la* ‘ez (ie)zadazula’ (SL-1986-GS-10tx-3), *as.ko.ri.ge.tza.zu.ja.rri* ‘askorik ez (e)zazu jarri’ (SL-1986-GS-ge-2), *a.rra.zo.je.ta.ne.tzan* ‘arrazoietan ez zen’ (SL-1986-AS-8tx-1), etab. Corpusean jasotako adibideen arabera, beti gauzatzen duen txandakatzea da aipatutakoa.


3.2.3. Bestelako gertakari foniko esanguratsu batzuk

(B1) “Makulu-silaba” enfatikoak ekoiztea, hasperen bat txertatuz silaba-gunea osatzen duen bokalaren erdian (edo bokala tarte batez ahoskabetuz), aire-etorriari bultzada bat emanez

Corpuseko adibide batzuk: *a.g[u^hu]r.tuz* ‘agurtuz’ (SL-1986-GS-ha), *[u^hu]s.tez* ‘ustez’ (SL-1986-GS-ha), *a.zal.d[u^hu].ko* ‘azalduko’ (SL-1986-GS-8H-1), *txa.rre.an.z[a^hu].de* ‘txarreen zaude’ (SL-1986-GS-8H-1), *ez.n[a^hi]z.gal.du.ko* ‘ez naiz galduko’ (SL-1986-GS-8H-3), *ber.s[o^ho].la.ri.tzak* ‘bertsolaritzak’ (SL-1986-GS-8H-4), *[i^hi].ru.k[u^hu].a* (SL-1986-GS-8H-4), *nai.k[u^hu].a* ‘nahikoa’ (SL-1986-GS-8H-4), *gu.tx[i^hi].ñez* ‘gutxienez’ (SL-1986-GS-8H-4), *b[i^hi].o.tza* ‘bihotza’ (SL-1986-GS-pe1), etab.

Sebastian Lizasok silaba jakinetan hasperena txertatzen du “bokal erdian” (edo bokala ahoskabetzen du tarte batez), 1980ko eta 1982ko txapelketetan Xabier Amurizak egin bezala, nolabaiteko “makulu silaba” indartzaile bat sortuz. Bertso gehienetan aurki daiteke adibideren bat, edo bat baino gehiago. Adibideok aztertuta ematen du Lizasoren “makulu silaba” horiek, Amurizarenak bezala, doinuari (kantuari) lotuta gertatzen direla, sarri musikalki luze(ago) edo eremu prosodikoaren ekinean gauzatutako silabetan gertatzen baita, garaiera aldaketarekin (igoerarekin) batera, musika nota berriaren ekinarekin. Ondoko irudietan *[i^hi].ru.k[u^hu].a* ‘hirukoa’ (SL-1986-GS-8H-4) adibidearen transkripzio musikala eta espektrograma ageri dira, azken horretan garaiera ere adierazita, eta ikus daiteke hasperenean egiten duela intonazioak gora, nagusiki.

126. irudia: Espektrograma. [i^hi].ru.k[u^hu].a (SL-1986-GS-8H-4) espektrograma




Espektrograman ikus daitekeenez, bertsolariak *i.ru.ku.a* hitzeko lehen bokala, /i/, aurreko silabako (*nahi*) garaierarekin kantatzen du hasieran⁵⁷⁶, eta gero, ahalegina eginda —eta ondorioz, hasperena gauzatuta—, lortzen du doinuak eskatzen duen garaierara heltzea lehen silaba hori. Musika nota batetik bestera heltzeko trantsizioa egiten du makulu silaba darabilen lehen [i^hi] silaba horretan. Gauza bera gertatzen da adibideko hirugarren silaban: doinuak eskatzen duen goraldia egiteko, *ku* silaba lehenengo aurreko silabako garaierarekin kantatzen da eta, ahalegina (hasperenean islatua) egin ondoren, heltzen da silaba (bokala) doinuak eskatzen duen garaierara.

Hasperen indartzailea bokal bakarreko silabetan txertatzeaz gain, diptongoetan ere gauzatzen du Lizasok, bi bokalak (bokala eta irristaria) tarte batez ahoskabetuz, kantuko ahaleginaren ondorioz: *txa.rre.an.z[a^hw].de* ‘txarrean zaude’ (SL-1986-GS-8H-1), *ez.n[a^hj]z.gal.du.ko* ‘ez naiz galduko’ (SL-1986-GS-8H-3). Jarraian aurkeztutako transkripzioan eta espektrograman ikus daiteke *txa.rre.an.z[a^hw].de* ‘txarrean zaude’ (SL-1986-8H-1) adibidean diptongoa nola gauzatzen den erdian bokala zertxobait ahoskabetzen dela, ahalegin artikulatorioa dela eta.

⁵⁷⁶ Musikan *apoiatura* deritzona eginez.

127. irudia: Espektrograma. *txa.rre.an.z[a^hw].de* ‘txarrean zaude’ (SL-1986-8H-1).



Lizasoren “makulu silabek” ere berretsi egiten dute orain arte planteatutako hipotesia: garaiera igoerak ahots-bidean dakarren presio igoeraren ondorio izan daitekeela hasperena, ahalegin artikulatorio handiagoa dela eta sortua. Amurizaren “makulu silabekin” esan bezala, beharrezkoa da gertakariaren azterketa sakon eta xehea, eta silabatzeaz gain garaiera eta bestelako baldintza prosodiko batzuk hartzea kontuan, lehen hurbilpen honek agerian uzten baitu emankorra izan daitekeela bidea.

3.3. Neurria betetzeko baliabide foniko nagusiak

Lizasok hizketa katea oinarri metrikoarekin uztartzeko hainbat baliabide foniko darabiltza 1986ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean:

- Nabarmenena **hiatoa** da: hots kateko bokal bilkurak, hitz artekoak direnean, banatuta silabatzea, bakoitzak bere silaba duela, hitz arteko mugak urtu eta bokalak birsilabatu gabe. Esate baterako: *e.to.rri.a.rren* ‘etorri arren’ (SL-1986-GS-ha), *ez.du.te.us.te.ko* ‘ez dute usteko’ (SL-1986-GS-ha), *se.na.rra.o.rren* ‘senarra horren’ (SL-1986-GS-8H-1), *ba.de.zu.e.re* ‘baduzu ere’ (SL-1986-GS-8H-1), *mun.du.a.ez.ta* ‘mundua ez da’ (SL-1986-GS-8H-1), *ez.ge.ra.e.ta* ‘ez gara eta’ (SL-1986-GS-8H-2), *sal.tsa.au.bu.ka.tu.ar.te* ‘saltsa hau bukatu arte’ (SL-1986-GS-8H-2), etab. Joera hau nagusizat har daiteke Lizasoren

bertsoetako txertatze prosodikoan, hitz arteko bokal elkarketak modu jarraituan ahoskatuz (etenik gabe), etenez banaduta baino gehiagotan. Esan behar da sinalefarik ez duela ia egiten; bi adibide baino ez dira (*biz.ka.jal.de.tik* ‘Bizkaia aldetik’, SL-1986-GS-ha; e.rra.m[we].gu.na ‘Erramu eguna’, SL-1986-AS-ge-3) 31 bertsoetan jasotakoak. Hots katea oinarri metrikora egokitzeko bestelako baliabideak erabiltzen ditu bertsolariak.

- **Kenketa** aipatu behar da, gehiketarekin batera, lizentzia metriko nagusi gisa. Izan ere, askotariko moduetara laburtzen ditu Lizasok hitzak hots katea neurrira egokitzeko. Genitiboa (NOREN) ahoskatzean, adibidez, markak duen *-(r)e-* gauzatu edo ez neurriak baldintzatzen duela dirudi: *ner.bi.on* ‘nerbioen’ (SL-1986-GS-4oin-2), *ne.gu.hi.lu.nan* ‘negu ilunaren’ (SL-1986-AS-10H-1), *ku.ku.an* ‘kukuaren’ (SL-1986-AS-10H-1), baina *txa.pe.la.ren* (SL-1986-GS-8H-4). Bestalde, aditz jokatueta bokal bilkurak soiltzen ditu behar duenean, baita /e/ bokal atonoa kenduta duten formak erabili ere: *be.re.kin.du.la* ‘berarekin duela’ (SL-1986-GS-8H-4), *da.go.ne.rri.a* ‘dagoen herria’ (SL-1986-AS-10H-3), *i.bi.li.gen.dun* ‘ibili genuen’ (SL-1986-AS-ge-3) baina *ar.tu.gen.du.en* ‘hartu genuen’ (SL-1986-AS-ge-1), eta *ar.tu.za.zu* ‘hartu (e)zazu’ (SL-1986-GS-10tx-1) edo *a.lai.tu.za.zu* ‘alaitu (e)zazu’ (SL-1986-AS-10H-1) baina *gor.de.e.za.zu* ‘gorde ezazu’ (SL-1986-GS-8H-4) *en.tzu.ne.za.zu* ‘entzun ezazu’ (SL-1986-AS-10H-1) edo *ja.rri.e.za.zu* (SL-1986-AS-10H-3), etab. Bestetik, euskaraz ohikoak diren askotariko bokal eta, zabalago, silaba kenketak ere gauzatzen ditu kantuan: *des.pe.di.da.ko* ‘despedidarako’ (SL-1986-GS-8H-3); *ba.ten* ‘batean’ (SL-1986-AS-ptk-1) baina *txa.rre.an* ‘txarrean’ (SL-1986-GS-8H-1); *i.ñor.ke.e.zus.te* ‘inork ere ez uste’ (SL-1986-AS-ha), *ni.ke* ‘nik ere’ (SL-1986-AS-8tx-3) baina *gal.tzen.ba.de.zu.e.re* ‘galtzen baduzu ere’ (SL-1986-GS-8H-1), *pa.sa.e.re.bai* (SL-1986-AS-be-1); *bu.lla.ta.za.ra.ta* ‘buila eta zarata’ (SL-1986-AS-ge-3) baina *e.ta.al.bis.te* ‘eta albiste’ (SL-1986-AS-ge-3); etab.
- Azkenik, askotariko **gehiketak** aipatu behar dira Lizasoren baliabide metriko gisa. Gehiketen eremuan emankorrena da ablatiboa (NONDIK) eta partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/-(r)ik* eta *-tikan/-(r)ikan* formen arteko txandakatzea: *me.se.de.ri.kan* ‘mesederik’ (SL-1986-GS-8H-2) edo *as.mo.ri.kan* ‘asmorik’ (SL-1986-AS-10H-3) baina *lo.tsa.rik* (SL-1986-AS-8tx-1); *bi.o.tze.ti.kan* ‘bihotzetik’ (SL-1986-GS-8H-3), *e.gun.sen.ti.ti.kan* ‘egunsentitik’ (SL-1986-GS-4oin-2) baina *e.men.dik* (SL-1986-AS-8tx-4) edo *go.go.rre.tik* (SL-1986-AS-10H-2); *ga.to.ze.ni.kan* ‘gatozenik’ (SL-1986-AS-ha) baina *mu.da.tu.nai.rik* (SL-1986-AS-10H-2), *za.ti.tu.ri.kan* ‘zatiturik’ (SL-1986-AS-10H-3) edo *lo.tu.ri.kan* (SL-1986-AS-10H-3) baina *da.ne.ta.tik* (SL-1986-AS-be-1), etab.

Hizkeren arteko aldakortasuna aditzetan ere badarabil Lizasok, behar duenean silabaren bat gehitzeko hots kateari: *i.zan.du* ‘izan’ (SL-1986-GS-pe-1), *ju.an.di.ra.de* ‘joan dira’ (SL-1986-AS-10H-1) baina *ez.ge.ra* ‘ez gara’ (ez *ez gerade*) (SL-1986-GS-8H-2), *i.zan.dan* ‘izandén’ (ez *izandu den*) (SL-1986-AS-be), *oi.di.ra* ‘ohi dira’ (ez *ohi dirade*) (SL-1986-AS-ge-1), *bar.ka.tu.di.ra* (ez *barkatu dirade*) (SL-1986-AS-ge-3). Aipatutakoak lirateke gehiketen eremuko baliabide nagusiak, baina sakon aztertu beharreko auzia da hemen labur eta ideia orokor gisa jasotakoa, aniztasun eta aldakortasun handia aurki baitaiteke forma eta erabilera batetik bestera⁵⁷⁷.

3.4. Joera nagusiak laburbilduz

Sebastian Lizasok 1986ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoen silabatzean fokua jarririk, esan daiteke bertsolariak hots katea modu jarraituan ahoskatzeko joera duela, oro har. Fortitioei dagokienez, hasperen epentetikoak eremu prosodikoaren (hitzaren) ekina adierazten du kasu gehienetan, hots katearen jarraitutasunean eremu prosodiko berriaren ekina adieraziz, nolabait. Amurizak gauzatutako hasperenekin kontrastea dago; azken honek bokal bilkurak ekidin eta hitz barnean (batez ere) silaba(-ekina) indartzeko baliabidetzat baitu. Lizasorengan ez da silabakako ahoskera fortitiborik aurkitzen, silaba-ekina indartzen duten bilakabideak gertatu arren. /i/ ondorengo (bokal arteko) kontsonante epentetiko palatalari dagokionez, gutxi dira aurkitutako adibideak —ikertzekoa litzateke ea hitz lauz baino gutxiago gauzatzen duen Lizasok bilakabidea bertsoetan—.

Hitzen arteko harreman sintagmatikoa estua dela esan daiteke bertsolari honengan: sinalefa (edo hitz arteko bokalen desilabagiletze eta birsilabatze) gutxi eginagatik (bi besterik ez 31 bertsoetan), ez ditu hitz arteko bokal elkarketak sistematikoki ekidin edo etenaz banatzen, modu jarraituan ahoskatzen ditu; hitz arteko *liaisona* egiten du joera nagusi gisa lehen hitza kontsonantez amaitu eta hurrengoa bokalez hasten denean; eta hitz arteko kontsonante taldeak soiltzeko (asimilatzeko, bakuntzeko) joera argia ageri du, salbuespenak salbuespen. Joera nagusia aipatutakoa den arren, kasu zehatzetan (hainbatetan) hitzaren edo sintagmaren eremua markatzen ditu, besteak beste, alor metriko-musikalaren edo linguistiko-diskurtsiboaren eraginez (ikus §10. kapitulua).

Aipatutakoen ondorioz hots-katea sarri hurbiltzen da CV silaba-egitura oinarritzkoenerantz, hots katearen ahoskera ulergarria bezain ahoska-erraza gauzatuz. Horrela uler daiteke silaba-ekina indartzen duten egiturak %80tik gora izatea, eta silaba irekiak, %70 baino gehiago. Amurizarekin

577 Lizasok 1986ko txapelketan erabilitako hainbat forma ez ditut aipatu, ez dudalako aldakortasunik aurkitu kasu horietan. Beraz, neurriari egoki datorkion forma izanagatik, ezin da frogatu horretarako darabilenik.

alderatuta, silaba-moten ehunekoak antzekoak dira, baina askoz *fortitio* gutxiago gauzatzen ditu Lizasok, eta silaba zein hitza bezalako eremu prosodikoak gutxiago markatu hots katean. Bestalde, *lenitio* gehiago gauzatzen ditu kontsonante bilkuren aurrean, eta hitzak elkarren artean gehiago lotu. Esan bezala, jarraitutasuna har genezake bere joera nagusitzat.

Lizentzia metrikoen erabilerari dagokionez, joera nagusi gisa Lizasok (ere) ahal dela hitz bakoitzari bere “espazio silabikoa” eskaintzen dio —gero silabatzean hitzen arteko mugak urtu arren—, ez baitu apenas sinalefarik egiten (2 kasu, 31 bertsoetan). Neurria betetzeko gehiketa eta kenketa dira baliabide nagusiak, aldakortasun morfonologikoari lotuta, batez ere.

4. Jon Lopategi (1989)

4.1. Silaben egiturak eta horien maiztasunak

Lopategiren 1989ko txapelketako finaleko bertsoetako silabak aztertuta, ondokoak dira bertsolariak ekoiztutako silaben egiturak, bakoitzetik zenbatu den silaba-kopurua eta orotara ahoskatutako silabekiko proportzioa (maiztasuna):

11. taula: 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Jon Lopategik ekoiztutako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	2555	%62,27
CVC	533	%21,35
V	237	%9,49
VC	150	%6,01
CCV	19	%0,76
CVCC	2	%0,08
CCVC	1	%0,04
VCC	0	%0
	Guztira: 2497	
Silaba irekiak denetara:		%72,52
Silaba itxiak denetara:		%27,48

Taulan ikus daitekeenez, Lopategiren silabatzean CV egitura da nagusi, egiturarik oinarrizkoena (%62,27). Horren ondoren, CVC silaba-egitura baliatzen du maizen bertsolariak

(%21,35). Silaba ekina indartzen duten egiturak %80tik gora dira (%84,5), nahiz eta esan behar den ekinean kontsonante bat baino gehiago gauzatzea ez dela batere ohikoa Lopategirentzat; CCV (%0,76) eta CCVC (%0,94) egiturak ez dira ekoiztako silaben %1era heltzen. CVC egituraren ondoren, V bokalez (edo diptongoz) soilik osatutako silabek dute maiztasunik altuena: %9,49, VC egitura ere gertu dagoelarik (%6,01). Agerpen gutxi batzuk besterik ez ditu, orain arte aipatutako CCV egiturarekin batera, CVCC (%0,08) silaba-motak (ez dago VCC egituradun silabarik). Silaba-ekinean eta kodan kontsonante bat baino gehiago ahoskatzea Lopategirentzat ezohikoa dela esan daiteke horrela.

Datuei bestela begiratuta, silaba irekiek egitura guztien %72,52 osatzen dute. Itxiek, berriz, %27,48 .

4.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko segmental nagusiak

Ondokoak dira Lopategik 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoetan baliatutako silabatze-joerak eta silaba-egitura eta silabatzea baldintzatzen duten bere bilakabide fonologiko nagusiak:

4.2.1. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko indartzaile (fortitio) nagusiak

(F1) Silaba kodan edo ekinean hasperen epentetikoa txertatzea hitz barnean zein hitz artean.

Corpuseko adibide bakarra eremu prosodikoaren ekinean: [h]aun.di.je.na ‘handiena’ (JL-1989-AS-8tx-3).


Corpuseko adibideak **hitz barnean, silaba kodan** (guztiak): *or.dan.tze.a[h].‘ga.tik* ‘ordaintzeagatik’ (JL-1989-GS-ha), *a[h].mes.ti.ja* ‘amestia’ (JL-1989-GS-ge-2).

Corpuseko adibideak **hitz artean, eremu prosodikoaren bukaerako ertzean** (guztiak): *e.be.res.pun.ta[h].ge.nun.a.me.sa* ‘Everest punta genuen ametsa’ (JL-1989-GS-ge-2), *ba.ña.la.gu.na[h].‘e.ro.ri.tze.an* ‘baina laguna erortzean’ (JL-1989-GS-ge-2), *pun.ta.or.ta.ra[h]* ‘punta hortara’ (JL-1989-GS-ge-3), *la.gu.na.ren.ta[h]* ‘lagunaren ta’ (JL-1989-GS-ge-3).

1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko bertsoetan Jon Lopategik (ere) hasperen epentetikoa txertatzen du hots katean, adibide gutxi batzuetan. Amuriza eta Lizasoz bestela


—bertsolari horiek silaba ekinean gauzatzen baitute hasperena—, Lopategik silaba kodan gauzatzen du nagusiki (adibide bakarra du eremu prosodikoaren ekinean: [h]aun.di.je.na ‘handiena’, JL-1989-AS-8tx-3). Bi kasutan hitz barrenean txertatzen du silaba kodan, kantatutako silaba hori balio erritmiko aldetik luzea izanda (ingurukoekiko aldean): or.dan.tze.a[h].‘ga.tik ‘ordaintzeagatik’ (JL-1989-GS-ha), a[h].mes.ti.ja ‘amestia’ (JL-1989-GS-ge-2).

128. irudia: Espektrograma. a[h].mes.ti.ja ‘amestia’ (JL-1989-GS-ge-2)



Gainerako adibideak hitz artean gertatzen dira, hitz edo sintagma mailako eremu prosodikoaren azken ertza mugatuz: e.be.res.pun.ta[h].ge.nun.a.me.sa ‘Everest punta genuen ametsa’ (JL-1989-GS-ge-2), ba.ña.la.gu.na[h].‘e.ro.ri.tze.an ‘baina laguna erortzean’ (JL-1989-GS-ge-2), pun.ta.or.ta.ra[h].‘a.la.ga.tze.ko ‘punta hortara ailegatzeko’ (JL-1989-GS-ge-3), la.gu.na.ren.ta[h].‘ni.re.i.ze.na ‘lagunaren (e)ta nire izena’ (JL-1989-GS-ge-3). Bertsoaren (eta doinuaren) egitura metrikoa lagungarri da mugatutako eremua zein den ulertzeko, kasu guztiak bertsoaldi berean gertatutakoak dira eta. Molde handiko neurrian kantatutako bertsoak dira, eta 10 silabako hemistikioa bitan banatzen duen osagaia mugatzen du adibide guztietan, batzuetan etenaz ere lagunduta. Ondoko espektrograman ikus daiteke e.be.res.pun.ta[h].ge.nun.a.me.sa ‘Everest punta genuen ametsa’ (JL-1989-GS-ge-2) adibideko hasperena.

129. irudia: *pun.ta[h].‘ge.nun* ‘punta genuen’ (JL-1989-GS-ge-2).



Lopategiren kantaerari lotuta uler daiteke gertakari hau: 1980ko hamarkadako Lopategiren bideoak ikusiz gero⁵⁷⁸, bertso batzuk kantatzean nabarmena da bertsoak kanporatzen bertsolariak darabilen tentsioa ahotsean, duen kantu fortitiboa askotan. Horrela, ulertzekoa da eremu prosodiko edo metriko esanguratsu bat kantatu ondoren aire-etorriaren presioa askatzen uztea (hasperena ekarriz ondorio gisa) berriro ere atzera kantuan hasteko.

(F2) Kontsonante palatal epentetikoa txertatzea **hitz barnean** aurreko eta goiko bokalaren (/i/) eta beste bokal heterosilabiko baten artean, azken honen silaba-ekinean (**i.V →i.jV**).

Corpuseko adibideak (goizeko saioko guztiak):

se.si.[j]o.a ‘sesioa’ (JL-1989-GS-8H-2), *de.si.[j]o.a* ‘desioa’ (JL-1989-GS-8H-2),
le.zi.[j]o.a ‘lezioa’ (JL-1989-GS-8H-2), *be.dein.ka.zi.[j]o.a* ‘bedeinkazioa’ (JL-1989-GS-8H-2),
xen.pe.la.rrek.zi.[j]o.nez ‘Xenpelarrek zionez’ (JL-1989-GS-4oin-1)
bi.zi.[j]o ‘bizio’ (JL-1989-GS-4oin-2), *guz.ti.ek.de.si.[j]o* ‘guztiek desio’ (JL-1989-GS-4oin-2),
jen.de.de.nak.di.[j]o ‘jende denak dio’ (JL-1989-GS-4oin-2), *ba.li.[j]o* ‘balio’ (JL-1989-GS-4oin-2),
ni.[j]on ‘nion’ (JL-1989-GS-10tx-3), *bi.[j]o.tza* ‘bihotza’ (JL-1989-GS-10tx-3),
jus.ti.zi.[j]ae.re ‘justizia ere’ (JL-1989-GS-ge-1), *u.rrí.[j]a* ‘urria’ (JL-1989-GS-ge-1),
aun.di.[j]an ‘handian’ (JL-1989-GS-ge-1), *i.lu.si.[j]o.en* ‘ilusioen’ (JL-1989-GS-ge-1),
bi.[j]ok ‘biok’ (JL-1989-GS-ge-1), *e.be.res.te.ne.ga.rrí.[j]a* ‘Everesten egarria’ (JL-1989-GS-ge-1),

578 Ikus, esate baterako, 1986ko txapelketako Lopategiren bakarkako lan ezaguna ondoko bideoan, 36’ 55”-tik aurrera: <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/hitzetik-hortzera/hitzetik-hortzera-2010-2011/osoan/6235/17087/> (azken kontsulta: 2023-08-30).

ne.gar.ga.rrri.[j]a (JL-1989-GS-ge-1), *sas.ki.[j]a* ‘saskia’ (JL-1989-GS-ge-2),
su.ben.zi.[j]o.tan ‘subentziotan’ (JL-1989-GS-ge-2), *ga.les.ti.[j]a* ‘garestia’ (JL-1989-GS-ge-2),
bi.on.bi.[j]o.tzak ‘bion bihotzak’ (JL-1989-GS-ge-2), *iz.pi.[j]a* ‘izpia’ (JL-1989-GS-ge-2),
i.[j]a ‘ia’ (JL-1989-GS-ge-2), *ah.mes.ti.[j]a* ‘amestia’ (JL-1989-GS-ge-2),
bus.ti.[j]a (JL-1989-GS-ge-2), *e.guz.ki.[j]a* ‘eguzkia’ (JL-1989-GS-ge-2),
bi.der.di.[j]e.tan ‘bide erdietan’ (JL-1989-GS-ge-3).

Nahitaezkoa ez den bilakabidea (hautazkoa). Ondoko adibideetan ez da kontsonante argia gertatzen (goizeko saioko adibide guztiak): *lo.ka.rrri.ak* (JL-1989-GS-4oin-1), *bi.u.rrri.ak* ‘bihurriak’ (JL-1989-GS-4oin-1), *be.rrri.ak* (JL-1989-GS-4oin-1), *i.rrri.ak* (JL-1989-GS-4oin-1), *e.gi.o.zu* ‘egi(n) (ieza)iozu’ (JL-1989-GS-10tx-1), *az.pi.an* (JL-1989-GS-pe2), *bi.u.rrri.a* ‘bihurria’ (JL-1989-GS-ge-1), *ja.rrri.a* (JL-1989-GS-ge-1), *ar.gi.a* (JL-1989-GS-ge-1), *al.da.rrri.a* (JL-1989-GS-ge-1), *la.rrri.a* (JL-1989-GS-ge-1), *bi.on.bi.jo.tzak* ‘bion bihotzak’ (JL-1989-GS-ge-2), *ez.ti.a* (JL-1989-GS-ge-2), *ni.rea.bes.ti.a* ‘nire abestia’ (JL-1989-GS-ge-2), *bi.o.tza* ‘bihotza’ (JL-1989-GS-ge-3), *txa.lo.ga.rrri.ak* (JL-1989-GS-ba), etab.


Lopategik sarri txertatzen du kontsonante palatala /i/ bokalaren ondoren, beste bokal baten aurretik, hitz barrenean: *se.si.[j]o.a* ‘sesioa’ (JL-1989-GS-8H-2), *de.si.[j]o.a* ‘desioa’ (JL-1989-GS-8H-2), *le.zi.[j]o.a* ‘lezioa’ (JL-1989-GS-8H-2), *be.dein.ka.zi.[j]o.a* ‘bedeinkazioa’ (JL-1989-GS-8H-2), *xen.pe.la.rrek.zi.[j]o.nez* ‘Xenpelarrek zionez’ (JL-1989-GS-4oin-1), *bi.zi.[j]o* ‘bizio’ (JL-1989-GS-4oin-2), *e.be.res.te.ne.ga.rrri.[j]a* ‘Everesten egarrria’ (JL-1989-GS-ge-1), *ne.gar.ga.rrri.[j]a* (JL-1989-GS-ge-1), *sas.ki.[j]a* ‘saskia’ (JL-1989-GS-ge-2), *su.ben.zi.[j]o.tan* ‘subentziotan’ (JL-1989-GS-ge-2), *ga.les.ti.[j]a* ‘garestia’ (JL-1989-GS-ge-2), etab. Testuinguruari dagokionez, /o/ atzeko eta arteko bokalaren edo /a/ erdiko eta beheko bokalaren artean errazago txertatzen dela dirudi.

Amurizaren kasuan gertatu bezala, ematen du kontsonante palatala txertatzea Lopategirentzat (ere) ez dela ez fonemikoa ez eta nahitaezkoa ere⁵⁷⁹, bertso bakarrean, errima gisa gauzatzen baititu kontsonante palataldun eta hori gabeko hitzak: *u.rrri.[j]a*, *bi.u.rrri.a*, *neu.rrri.a*, *ja.rrri.a*, *ar.gi.a*, *al.da.rrri.a*, *la.rrri.a*, *e.ga.rrri.[j]a*, *ne.gar.ga.rrri.[j]a* (JL-1989-GS-ge-1). Bigarren bertsoan bertan ere (JL-1989-GS-ge-2) antzeko adibideak aurki daitezke, besteak beste. Sintagma berean ere gerta daiteke kasu batean gauzatzea eta beste batean ez egitea hala: *i.lu.si.[j]o.en*. ‘*ar.gi.a* ‘ilusioen argia’

579 Beharrezkoa litzateke hitz lauz eginiko hizketaren azterketa sistematikoa, ematen baitu eguneroko hizketan ere ez dela bilakabide nahitaezkoa Lopategirentzat, gorago ere aipatutako bideoan darabilen hitz laua aztertuta ikus daitekeenez: <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/hitzetik-hortzera/hitzetik-hortzera-2010-2011/osoan/6235/17087/> (azken kontsulta: 2023-08-30). Kontuan hartu behar da bi hamarkada baino gehiago igaro direla bertsoan ari denetik hitz lauz egiten zaion elkarriketara.

(JL-1989-GS-ge-1) edo *bi.on.bi.[j]o.tzak* ‘bion bihotzak’ (JL-1989-GS-ge-2). Ikus azken adibide horren espektrograma:

20. irudia: Espektrograma. *bi.on.bi.[j]o.tzak* ‘bion bihotzak’ (JL-1989-GS-ge-2)



Horrez gain, aldakortasuna aurki daiteke hots kate bera silabatzean ere, bilakabidea nahitaezkoa ez dela utziz agerian: arratsaldeko saioan, zortziko txikian, hirugarren bertsoko azken puntua errepikarekin kantatzean, lehen aldian *aun.di.e.na.zeu.za.ra* ‘handiena zeu zara’ silabatzen du, eta bigarren aldiz kantatzean, berriz, *haun.di.je.na.zeu.sa.ra* (errepikan) (JL-1989-AS-8tx-3). Ikusten denez, lehen aldiz kantatzean oinarritzko aurkezpenarekiko gardentasunak garrantzi handiagoa duela esan daiteke bigarren aldiz kantatzean eta errepikan, berriz, esandakoa berretsiz bezala, bilakabide fortitibo gehiago gauzatzen ditu bertsolariak: eremu ekineko hasperena eta bokal arteko kontsonante palatala, silabatzea CV egitura oinarritzorantz hurreraturaz.

(F3) Kontsonante ezpainkari epentetikoa ([β]) txertatzea hitz barnean atzeko eta goiko bokalaren (/u/) edo atzeko eta erdiko (/o/) bokalaren eta beste bokal heterosilabiko baten artean (u.V → u.βV / o.V → o.βV).

Corpuseko adibideak (guztiak):


bi.jok.gen.du.[β]en ‘biok genuen’ (JL-1989-GS-ge-1), *ja.rri.ge.nu.[β]en* ‘jarri genuen’ (JL-1989-GS-ge-2), *su.[β]er.te.a* ‘suertea’ (JL-1989-AS-ha) *za.bal.du.[β]a* ‘zabaldua’ (JL-1989-AS-pe), *on.do.[β]a.ne.gon* ‘ondoan egon’⁵⁸⁰ (JL-1989-AS-10H-3).

Nahitaezkoa ez den bilakabidea (hautazkoa). Ondoko adibideetan ez da kontsonante ezpainkaririk gauzatzen: *go.go.a.nar.tu* ‘gogoan hartu’ (JL-1989-GS-8H-1), *su.er.te.a* (JL-1989-AS-8tx-1), *mun.du.a* (JL-1989-GS-10tx-2), *a.bi.su.a* (JL-1989-GS-10tx-3), *mun.du.an* (JL-1989-GS-ge-1), *sen.ti.tzen.zu.en* (JL-1989-GS-ge-2), *es.ku.an* (JL-1989-GS-ge-2), *be.ti.zen.du.en* ‘beti zenuen’ (JL-1989-AS-10H-2), *ba.ñae.tzen.du.en* ‘baina ez zenuen’ (JL-1989-AS-10H-2), *zu.e.ni.kan* ‘zuenik’ (JL-1989-AS-10H-2), *kan.tu.an* (JL-1989-AS-be1), *du.e.nak* (JL-1989-AS-be1), *ni.tu.en* (x2) (JL-1989-AS-ge-2, 3), *o.la.tu.en* (JL-1989-AS-ge-2), etab.


Kide palatala baino neurri askoz ere mugatuagoan, hitz barnean kontsonante ezpainkaria gauzatzen du kasu bakan batzuetan, /u/ goiko eta atzeko bokalaren edo /o/ arteko eta atzeko bokalaren ondoren: *bi.jok.gen.du.[β]en* ‘biok genuen’ (JL-1989-GS-ge-1), *ja.rri.ge.nu.[β]en* ‘jarri genuen’ (JL-1989-GS-ge-2), *su.[β]er.te.a* ‘suertea’ (JL-1989-AS-ha) *za.bal.du.[β]a* ‘zabaldua’ (JL-1989-AS-pe), *on.do.[β]a.ne.gon* ‘ondoan egon’ (JL-1989-AS-10H-3). Gertakari honek silaba ekina indartzen du, bokal bilkura ekidin eta hots katearen silabatzea CV egitura oinarrizkorantz gerturatuz, eta Lopategiren kantaera, oro har, fortitiboa utz lezake agerian. Nahitaezkoa ez den bilakabidea da ondokoa testuinguru berean adibide andana aurki baitaitezke kontsonante ezpainkari gabe: *go.go.a.nar.tu* ‘gogoan hartu’ (JL-1989-GS-8H-1), *su.er.te.a* (JL-1989-AS-8tx-1), *mun.du.a* (JL-1989-GS-10tx-2), *a.bi.su.a* (JL-1989-GS-10tx-3), *mun.du.an* (JL-1989-GS-ge-1), *sen.ti.tzen.zu.en* (JL-1989-GS-ge-2), *es.ku.an* (JL-1989-GS-ge-2), *be.ti.zen.du.en* ‘beti zenuen’ (JL-1989-AS-10H-2), etab. Hitz bera aurki daiteke 1989ko Lopategiren ekoizpenean zehar kontsonante ezpainkaridun eta gabe: *su.[β]er.te.a* ‘suertea’ (JL-1989-AS-ha) baina *su.er.te.a* (JL-1989-AS-8tx-1), esaterako. Bertso berean ere aurki genezake aldakortasuna, hots kate bera bi aldiz ahoskatzean bertsoko azken puntua errepikaduna delako. Arratsaldeko saioan, hamarreko handiko bertsoaldiko hirugarren bertso amaieran /ondoanegon/ hots katea kanporatzean, lehengo aldiz kantatzean hitz bakoitzari bere eremua ematen dio Lopategik, eten bidez bereiziz biak eta oinarrizko aurkezpenetik gertu dagoen gauzatzea eginda segmentalki: *on.do.an.‘e.gon* (JL-1989-AS-10H-3). Bigarren aldiz kantatzean, ordea, *on.do.[β]a.ne.gon* ‘ondoan egon’ (JL-1989-AS-10H-3) silabatzen du, hitzen arteko muga urtu eta hotsak birsilabatuta eta, lehen hitzeko bokal elkarketa banatuz, kontsonante ezpainkaria txertatuta /o/ bokalaren ondoren, hurrengo bokalaren silaba-ekinean. Ondoko espektrogrametan ikus daitezke bi gauzatzeak:

580 Lopategik errepikan kantatzen du ‘ondoan egon’ hots katea bokal arteko kontsonante ezpainkari eta guzti. Lehen aldiz kantatzean hitzen arteko mugak birsilabatu gabe eta bokal arteko kontsonante epentetikorik gabe egiten du: *on.do.an.‘e.gon*.

130. irudia: Espektrograma. *on.do.an.‘e.gon* (JL-1989-AS-10H-3) (lehen aldiz kantatzean)



131. irudia: Espektrograma. *on.do.[β]a.ne.gon* ‘ondoan egon’ (JL-1989-AS-10H-3)



(F4) Hiru bokal elkartzen direnean hitz barnean, **erdikoa goikoa eta aurrekoa izanik (/i/)**, hots katean /i/ **bokala kontsonante palatal gisa** gauzatzen da azken bokalarekin batera, silaba ekinean (ViV →V.jV), edo irristari gisa gauzatzearekin batera kontsonante palatala ere ahoskatzen da (ViV →Vj.jV).


Corpuseko adibideak (guztiak): *sa.[j]a.tze.ko* ‘saiatzeko’ (JL-1989-GS-ha), *na.[j]an.be.ti* ‘nahian beti’ (JL-1989-GS-ha), *le.[j]a.le.ta* ‘leial eta’ (JL-1989-GS-ha), *o.[j]ar.tzu.na* ‘oihartzuna’

(JL-1989-GS-8H-4), *dei.[j]a* ‘deia’ (JL-1989-GS-10tx-3), *ga.ra.[j]an* (JL-1989-GS-ge-1), *na.[j]e.an* ‘nahian’ (x2) (JL-1989-GS-ge-1; JL-1989-AS-ge-1), *ser.mo.[j]a* ‘sermoia’ (JL-1989-AS-10H-1), *a.rra.zo.[j]a* ‘arrazoia’ (JL-1989-AS-10H-2), *za.[j]o* ‘zaio’ (JL-1989-AS-ba).


Nahitaezkoa ez den bilakabidea (hautazkoa). Kontsonante argirik gabeko corpuseko adibideak ([j] anbisilabikoaz ahoskatuak): *a.nai.a.rre.bak* ‘anai-arrebak’ (JL-1989-GS-ha), *sa.soi.an* ‘sasoian’ (JL-1989-GS-8H-3), *a.rra.zoi.or.tan* ‘arrazo horan’ (JL-1989-GS-8H-4), *no.la.jai.o.te.nin.tzen* ‘nola jaio ote nintzen’ (JL-1989-GS-pe-1), *ai.e.na.tu.zen* ‘aihenatu zen’ (JL-1989-GS-ge-2), *sai.a.tu.ko* (JL-1989-GS-ge-3), *lei.al* (JL-1989-AS-10H-2), *lei.o.tik* ‘leihotik’ (JL-1989-AS-ge-1).

Aurreko fortitioekin oso lotuta, bokal bilkurak ekidin eta hots katea CV egiturarantz hurbiltzen duen bilakabidea da hau, silaba(-ekina) indartzen duena hizketaren kanporatzean: *sa.[j]a.tze.ko* ‘saiatzeko’ (JL-1989-GS-ha), *le.[j]a.le.ta* ‘leial eta’ (JL-1989-GS-ha), *o.[j]ar.tzu.na* ‘oihartzuna’ (JL-1989-GS-8H-4), etab. Lopategiren 1986ko bertso-jardunean ez da nahitaezko bilakabidea, bokal palatalaren ondoren kontsonante palatal epentetikoa txertatzea nahitaezkoa ez den bezala. Ondoko espektrogramek erakusten dute *leial* hitza ahoskatutakoan bilakabidearen emaitza kontsonantikoa eta bilakabidea gauzatu gabeko emaitza bokalikoa:

23. irudia: Espektrograma. *le.[j]a.le.ta* ‘leial eta’ (JL-1989-GS-ha).



132. irudia: Espektrograma. *lei.al* (JL-1989-AS-10H-2).




(F5) Silaba ekineko **hetskari ahostunak ez igurzkaritzea** (edo hala hautematea) **bokal artean,** hitz artean

Corpuseko adibide batzuk: *dau.ka.gu.[b]e.ne.tan* (JL-1989-AS-8tx-1), *las.ter.[d]e.nok* (JL-1989-AS-be2), etab.

Lopategik ere bokal arteko hetskari ahostun batzuk (hitz artean, bigarren hitzaren hasieran, hautematearen bitartez jasotako bi adibideetan) ez ditu igurzkaritzen; ez da bokal artean horren ohikoa den hetskari ahostunen igurzkaritze bilakabidea gauzatzen ohi bezainbeste, bederen. Hitzok (hitz hasierok) enfasis, nabarmenduta, kantatu nahi izatea izan daiteke gertakariaren arrazoi posible bat. Ondoko espektrograman ikus daiteke bokal arteko /b/ *benetan* hitzaren hasieran, lehenago hots katean gauzatutako beste kontsonante belarrarekin (/g/) kontrastea:

25. irudia: Espeketrograma. *dau.ka.gu.be.ne.tan* (JL-1989-AS-8tx-1).



Azterketa honetan, aurreratu bezala, adibide batzuen ekoizpen akustikoa jaso besterik ez dut egin, lehen hurbilpen gisa. Beharrezkoa litzateke herskari eta igurzkarien tresnabidezko eta hautemate-bidezko azterketa sistematikoa egitea auziaz gehiago jakin ahal izateko.

(F6) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea eta etenaz banatzea⁵⁸¹

[V# #V → V.'V] (lizentzia metrikoetan hiato gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

- on.gi.e.to.rrri*. 'a.nai.a.rre.bak 'ongi etorri, anai-arrebak' (JL-1989-GS-ha),
- be.rrri.ze.re*. 'e.men.ga.goz 'berriz ere hemen gaude' (JL-1989-GS-ha),
- i.ren.tsi.be.ar.de.na*. 'i.ren.tsiz 'irentsi behar dena irentsiz' (JL-1989-GS-ha),
- go.go.za.ja.tze.ko*. 'as.moz 'gogoz saiatzeko asmoz' (JL-1989-GS-ha),
- le.ja.le.ta*. 'e.rres.pe.toz 'leial eta errespetuz' (JL-1989-GS-ha),
- le.na.go.gaz.te*. 'i.za.na 'lehenago gazte izana' (JL-1989-GS-8H-1),
- no.la*. 'al.da.tu.den.pla.na 'nola aldatu den plana' (JL-1989-GS-8H-1),
- pen.tsa.tze.na.go*. 'e.zo.te.ze.ran 'pentsatzen nago ez ote zaren' (JL-1989-GS-8H-3),
- sa.so.jan.ka.su*. 'e.gi.ni.zun.da 'sasoian kasu egin nizun eta' (JL-1989-GS-8H-3),
- ni.zu.re*. 'e.rruz 'ni zure erruz' (JL-1989-GS-8H-3),

581 Kasu batean hitz barneko bokal elkarketa banatzen du etenaz Lopategik: *en.tzun.du*. 'a.'o.t'sa (JL-1989-GS-10tx-3). Silabakako kantaera enfatikoa dela eta uler daiteke, besteak beste, gertakaria.

a.rre.za.zu. ‘*e.ran.tzu.na* ‘har ezazu erantzuna’ (JL-1989-GS-8H-4),
or.du.an.txe. ‘*e.gin.go.* ‘*di.tu.gu.* ‘*i.rri.ak* (JL-1989-GS-4oin-1),
ba.ña. ‘*ajn.bes.te.ra.ko* ‘baina hainbesterako’ (JL-1989-GS-4oin-2),
ain.bes.te. ‘*a.ra.zu* ‘hainbeste arazo’ (JL-1989-GS-10tx-1),
ne.re.gal.de.ra. ‘*o.ni* ‘nere galdera honi’ (JL-1989-GS-10tx-1),
tran.pa. ‘*e.do.tru.ko* ‘tranpa edo truko’ (JL-1989-GS-10tx-2),
a.bi.su.a. ‘*en.tzun.du* ‘abisua entzun du’ (JL-1989-GS-10tx-3),
en.tzun.du. ‘*a.* ‘*o.tsa* ‘entzun du ahotsa’ (JL-1989-GS-10tx-3),
ma.le.zi.ga.be. ‘*e.gin* ‘malezi gabe egin’ (JL-1989-GS-10tx-3),
ma.mi.ta. ‘*a.za.la* ‘mami (e)ta azala’ (JL-1989-GS-pe2),
goi. ‘*al.tue.na.ri* ‘goi altuenari’ (JL-1989-GS-ge-1),
mar.tx.a. ‘*aun.di.jan* ‘martxa handian’ (JL-1989-GS-ge-1),
au.da. ‘*e.ne* ‘hau da ene’ (JL-1989-GS-ge-1),
min.be.ra. ‘*e.ta.la.rri.a* ‘minbera eta larria’ (JL-1989-GS-ge-1),
i.ja. ‘*es.ku.an* ‘ia eskuan’ (JL-1989-GS-ge-2),
i.bi.le.ra. ‘*ah.mes.ti.ja* ‘ibilera amestia’ (JL-1989-GS-ge-2),
ze.nun. ‘*a.me.sa* ‘zenuen ametsa’ (JL-1989-GS-ge-2),
gu.re. ‘*ir.te.ran* ‘gure irteeran’ (JL-1989-GS-ge-3), *gu.re.* ‘*ain.bat* ‘gure hainbat’ (JL-1989-GS-ge-3),
ni.re. ‘*i.ze.na* ‘nire izena’ (JL-1989-GS-ge-3),
ber.tan.txe. ‘*i.da.tzi.da.din* ‘bertantxe idatzi dadin’ (JL-1989-GS-ge-3),
ni.re. ‘*us.te.tan* ‘nire ustetan’ (JL-1989-GS-ba), etab.

Nahitaezkoa ez den joera. Bestelako joerak ageri dituzten corpuseko adibideak:

Aurrerago jaso ditut modu jarraituan ahoskatzen diren hitz arteko bokal elkarketa adibideak, aire-etorria eten gabe gauzatutakoak. Etenaz banatutako hitz arteko bokal elkarketa kasuak gehiago dira modu jarraian ahoskatutakoak baino.

Era berean, aurrerago jaso ditut testuinguru berean **birsilabatzen diren sinalefa adibideak.**

Lopategik, 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, bertso-neurriaren egitura orokorra adierazten duten egiturazko etenez gain, eten artikulatorio laburragoak egiten ditu hitz artean. Horietako asko hitz mugan lehen hitza bokalez amaitu eta hurrengo hitza ere bokalez hasten denean; bokal bilkura ekidin egiten du kasu batzuetan eten motz baten bidez. Taldekatzea §10. kapituluaz aztertu dut sakonago, eta orain labur aipatuko ditut hitz arteko bokal elkarketa banatzeko


hiru motibazio nagusiak. Molde handiko bertsoetan —puntua 10+8 silabaz osatzen denean— hemistikioa bitan banatzen duen etena izan ohi da bokal artean gauzatutakoa, hitzak egitura metrikoaren —eta sarri baita doinuaren motibo erritmikoaren— arabera multzokatuz. Jarraian jasotako adibideetan denek dute 5+5 silaba egitura, tartean etena gertatzen delarik: *on.gi.e.to.rri.‘a.nai.a.rre.bak* (JL-1989-GS-ha), *pen.tsa.tze.na.go.‘e.zo.te.ze.ran* ‘pentsatzen nago ez ote zaren’ (JL-1989-GS-8H-3), *sa.so.jan.ka.su.‘e.gi.ni.zun.da* ‘sasoian kasu egin nizun eta’ (JL-1989-GS-8H-3), etab.

Egitura metrikoarekin jarraituz, Lizasoren kasuan ere aipatu bezala, beste askotan mugatzen den hitza (edo sintagma, inoiz) oina da, errima daraman hitza. Adibide hauetan eten ondorengo hitza da kasuan kasuko bertsoko errima daramana: *ain.bes.te.‘a.ra.zu* ‘hainbeste arazo’ (JL-1989-GS-10tx-1), *en.tzun.du.‘a.‘o.tsa* (JL-1989-GS-10tx-3), *ma.mi.ta.‘a.za.la* (JL-1989-GS-pe2), *ni.re.‘us.te.tan* (JL-1989-GS-ba), etab.

Azkenik, badira arrazoi metriko-musikaletatik ulertzen ez diren kasuak. Horietan bestelako arrazoiak bilatu behar dira: bertsolariaren dikzio argia, oharmen ontasuna helburu, hitzen bat nabarmentzea bertsoan duen esanahiagatik, perpausaren egitura kantuan ere islatzea, etab. (gai horiek, esan bezala, §10. kapituluari landuko ditut sakonago). Aipagarria da multzo honetan, esate baterako, hitz artean bokal bera elkartzean sarri etena egiten duela Lopategik, hizketa katea horrela segmentatuta entzuleari bertsoa errazago deskodetzen lagunduz: *ni.zu.re.‘e.rruz* ‘ni zure erruz’ (JL-1989-GS-8H-3), *or.du.an.txe.‘e.gin.go* ‘orduantxe egingo’ (JL-1989-GS-4oin-1), *ba.ña.‘ajn.bes.te.ra.ko* ‘baina hainbesterako’ (JL-1989-GS-4oin-2), *ma.le.zi.ga.be.‘e.gin* ‘malezi gabe’ (JL-1989-GS-10tx-3), etab.

Ikusi ondorengo espektrograman /e/ + /e/ bokal elkarketa ekiditeko bertsolariak egindako etena:

133. irudia: Espeketrograma. *ni.zu.re.‘e.rruz ‘ni zure erruz’* (JL-1989-GS-8H-3).



Aipatzekoa da hitz arteko bokal elkarketan aurrean joera nagusi(ago)tzat har genezakeela tartean eten laburra gauzatzeko hau, modu jarraituan ahoskatutako adibideak ere aurki daitezkeen arren. Era berean, hitz arteko bokal elkarketak ekiditeko egiten du gehiagotan etena Lopategik hitz artean, C# #V testuinguruko elkarketak banatzeko baino. Ondorengo puntuan ikus daitezkeen bezala, bi testuinguruak alderatuta, azken honetatik ez daude horrenbeste adibide.

(F7) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-ik ez egitea, hitzen arteko muga ez urtzea (lehen hitzeko kodako kontsonantea(k) ez silabatzea hurrengo silabako ekin hutsean). **Hitz artean hots katea ez birsilabatzea** CV egiturarantz.

Corpuseko adibide batzuk (goizeko saiokoak):

man.da.lu.ni.zen.‘e.sa.na (JL-1989-8H-1),

a.pai.zak.be.rak.‘e.gin.du.o.rain (JL-1989-GS-8H-1),

ne.ri.uz.ten.‘e.tzi.da.na ‘niri uzten ez zidana’ (JL-1989-GS-8H-1),

be.ran.du.sa.mar.‘i.ka.si.dut.nik (JL-1989-GS-8H-2),

le.nen.go.la.nak.‘e.gin.di.tu.ta ‘lehenengo lanak egin ditu (e)ta’ (JL-1989-GS-8H-2),

e.to.rri.zait.‘o.jar.tzu.na (JL-1989-GS-8H-4),

sen.ti.men.tu.az.‘on.do.bus.ti.a (JL-1989-GS-8H-4),

e.ta.pe.ne.tan. ‘*en.tzu.na* (JL-1989-GS-8H-4),
bo.ta.di.da.zun. ‘*a.rra.zoi.or.tan* ‘bota didazun arrazoi hortan’ (JL-1989-GS-8H-4),
gu.da.ri.ek. ‘*au.tsi.nai* ‘gudariak hautsi nahi’ (JL-1989-GS-4oin-1),
az.ken.bo.la.dan. ‘*o.la.gal.tze.a* ‘azken boladan ho(rre)la galtzea’ (JL-1989-GS-ge-1),
es.pe.ran.tza.ren. ‘*iz.pi.ja* ‘esperantzaren izpia’ (JL-1989-GS-ge-2),
ba.ña.la.gu.nah. ‘*e.ro.ri.tze.an* ‘baina laguna erortzean’ (JL-1989-GS-ge-2),
bi.o.tza.ja.rri.zait. ‘*ar.min* ‘bihotza jarri zait har min’ (JL-1989-GS-ge-3),
ain.bat. ‘*a.mets* ‘hainbat amets’ (JL-1989-GS-ge-3), etab.

Aurkako joera ageri duten adibideak. Aurrerago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-a duten adibideak. Gutxiago dira *liaison*-a duten kasuak: goizeko saioan jasotako *liaison* gabeko adibideak final osoan *liaison*arekin silabatutako kasuen parekoak dira kopurutan. Saio osoan zehar, beraz, gehiagotan banatzen ditu etenaz hitzak.

Aurreko puntuan esan bezala, hitz artean lehen hitza kontsonantez amaitu eta bigarrena bokalez hasten denean, noizean behin eten laburra gauzatzen du Lopategik, hitzen arteko mugak urtu eta hots katea birsilabatu beharrean (*liaisona* egin beharrean). Horrela, aurreko puntuan aurkeztu bezala, mugatutako eremuak bertso-neurriaren egituratik edo hizkuntzaren egitura zein argitasunetik uler daitezke beharbada (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz). Molde handiko neurrietan hemistikioaren eremua bitan banatzen du batzuetan aipatutako etenak testuinguru honetan ere (*a.pai.zak.be.rak.* ‘*e.gin.du.o.rain*, JL-1989-GS-8H-1; *az.ken.bo.la.dan.* ‘*o.la.gal.tze.a* ‘azken boladan ho(rre)la galtzea’, JL-1989-GS-ge-1; *ba.ña.la.gu.nah.* ‘*e.ro.ri.tze.an* ‘baina laguna erortzean’, JL-1989-GS-ge-2), oina muga dezake (*man.da.lu.ni.zen.* ‘*e.sa.na*, JL-1989-GS-ha; *e.to.rri.zait.* ‘*o.jar.tzu.na*, JL-1989-GS-8H-4; *es.pe.ran.tza.ren.* ‘*iz.pi.ja* ‘esperantzaren izpia’, JL-1989-GS-ge-2), edo hizkuntzaren ahoskera argia bilatzearen, esandako zerbait nabarmentzearen ondorioz, gauza ditzake etenok (*gu.da.ri.ek.* ‘*au.tsi.nai* ‘gudariak hautsi nahi’, JL-1989-GS-4oin-1; *ain.bat.* ‘*a.mets* ‘hainbat amets’ (JL-1989-GS-ge-3).

Etendun adibideak aurki daitezkeen arren, hitz artean C# #V testuingurua aurkitzean Lopategiren joerarik orokortuena hots katea birsilabatzea da, hitzen arteko mugak urtu eta CV egiturarantz gehiago hurbilduz: *e.gu.non.tan* ‘egun hontan’ (JL-1989-GS-8H-2), *e.zo.te.ze.ran* ‘ez ote zaren’ (JL-1989-GS-8H-3), *ain.gel.di.tu.nai.ze.ra.be* ‘hain gelditu naiz herabe’ (JL-1989-GS-8H-3), *a.rre.za.zu* ‘har ezazu’ (JL-1989-GS-8H-4), etab.

4.2.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko kohesiozile (lenitio) nagusiak

(L1) Hitz barneko desilabagiletze (sineresi) eta segmentu kenketa batzuk⁵⁸².

L.1.1. Bokal elkarketan bokaletako bat desilabagiletzea (sineresia)⁵⁸³

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

goi.‘*al.t[we].na.ri* ‘goi altuenari’ (JL-1989-GS-ge-1), *le.n[aw].ko.mo.du.ra* ‘lehenagoko modura’ (JL-1989-AS-8tx-2).

bi.o.k[ej]n.du.gu.ta ‘biok egin dugu (e)ta’ (JL-1989-AS-8tx-3), *[ej].ten* ‘egiten’ (JL-1989-AS-10H-3) —baina *e.gin.di.tu.ta* ‘egin ditu eta’ (JL-1989-GS-8H-2)—.

Aurkako joerak ageri dituzten adibideak (gehiketa eta silabagiletzeak):

ez.ta.du.kat.gi.ro (JL-1989-AS-4oin-1) baina *dau.kat.nik* (JL-1989-AS-4oin-1).

na.je.an ‘nahian’ (x2) (JL-1989-GS-ge-1; JL-1989-AS-ge-1) baina *e.ran.tzun.na.jan.be.ti* ‘erantzun nahian beti’ (JL-1989-GS-ha).

L.1.2. Aditz jokatueta bokal bilkuretan /e/ kentzea.

Corpuseko adibideak:

ge.nun eta *gen.dun* ‘genuen’ (JL-1989-GS-ge-2), *da.gon* ‘dagoen’ (JL-1989-GS-ge-1) baina *zen.du.en* ‘zenuen’ (JL-1989-GS-8H-2).

Eskakizun metrikoak betetzeko, hitz barnean askotariko *lenitio*ak gauzatzen ditu Lopategik; horien artean bokal arteko kontsonanteen kenketak eta bokal elkarketa heterosilabikoa osatzen duten bokaletako baten desilabagiletzea (lizentzia metrikoetan sineresi deiturikoa) eta, are, kenketa. Hala uler daitezke goiko taulan aurkeztutako adibideak: *goj*.‘*al.twe.na.ri* ‘goi altuenari’ (JL-1989-GS-ge-1), *le.n[aw].ko.mo.du.ra* ‘lehenagoko modura’ (JL-1989-AS-8tx-2), *bi.o.k[ej]n.du.gu.ta* ‘biok egin dugu (e)ta’ (JL-1989-AS-8tx-3), *ej.ten* ‘egiten’ (JL-1989-AS-10H-3), *ge.nun* eta *gen.dun* ‘genuen’ (JL-1989-GS-ge-2), *da.gon* ‘dagoen’ (JL-1989-GS-ge-1). Forma horien aurrean batzuetan desilabagiletze eta kenketarik gabeko hitzak aurkitzen dira (*e.gin.di.tu.ta* ‘egin ditu eta’, JL-1989-GS-8H-2; *zen.du.en* ‘zenuen’, JL-1989-GS-8H-2), txandakatzea baliabide metrikoa dela agerian utziz.

582 Puntu honetan bildutako adibideak gertakari desberdinen ondorio dira. Horietako batzuk bilakabide fonologikoen ondorio, eta beste batzuk, berriz, erregela morfonologikoak zein bestelakoak direla eta gertatuak. Lan honetan lehen hurbilpen bat besterik ez dut egin.

583 Adibideetan ikus daitekeenez, kasu batzuetan bokal elkarketa baino lehen bokal arteko kontsonantearen kenketa gertatu da.

Kenketa eta desilabagiletze horiekiko aurrez aurre, gehiketa eta silabagiletze kasu pare bat aipatu behar dira Lopategiren silabatzean⁵⁸⁴: *ez.ta.du.kat.gi.ro* (JL-1989-AS-4oin-1) —baina *dau.kat.nik* (JL-1989-AS-4oin-1)— eta *na.je.an* ‘nahian’ (x2) (JL-1989-GS-ge-1; JL-1989-AS-ge-1) —baina *e.ran.tzun.na.jan.be.ti* ‘erantzun nahian beti’ (JL-1989-GS-ha)—. Adibide hauek —formen aldakortasuna— ere neurria betetzeko baliatu dituela pentsa genezake.

(L2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea baina modu jarraituan ahoskatzea [V# #V → V.V] (hiatoa).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

e.gin.du.o.rain ‘egin du orain’ (JL-1989-GS-8H-1), *zu.e.re* ‘zu ere’ (JL-1989-GS-8H-3), *a.rra.zoi.or.tan* ‘arrazoi hortan’ (JL-1989-GS-8H-4), *pre.so.e.ra.man.di.tu* ‘preso eraman ditu’ (JL-1989-GS-4oin-1), *jo.e.ta.su* ‘jo eta su’ (JL-1989-GS-10tx-1), *e.te.nau.i.zan.g[wa]l.da* ‘eten hau izango al da’ (JL-1989-GS-10tx-3), *be.ra.kur.te.as.ko.tan* ‘berak urte askotan’ (JL-1989-GS-pe2), *mun.du.on.ta.ko* ‘mundu hontako’ (JL-1989-GS-ge-1), *or.ni.tu.e.re* ‘hornitu ere’ (JL-1989-GS-ge-2), *ja.rrai.tu.e.zin* ‘jarraitu ezin’ (JL-1989-GS-ge-2), *gel.di.tu.i.no.‘la*⁵⁸⁵ ‘gelditu inola’ (JL-1989-GS-ge-3), *pun.ta.or.ta.rah* ‘punta hortara’ (JL-1989-GS-ge-3), etab.

Bestelako joerak ageri dituzten adibideak:

Gorago jaso ditut hitz arteko bokal elkarketa silaba heterosilabikoetan gauzatuta etenak bananduta silabatzen diren (goizeko saioko) adibideak, modu jarraituan ahoskatutakoak baino gehiago direnak (bikoitza).

Hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoez ari garela, Lopategik kasu batzuetan modu jarraituan ahoskatzen ditu, etenaz banatutako kasuak diren arren joera nagusi. Ematen du lotura sintaktiko estua duten osagaiak, hitz lauz ere talde prosodiko berean gauzatuko liratekeenak, ahoskatzen dituela Lopategik modu jarraituan: *e.gin.du.o.rain* ‘egin du orain’ (JL-1989-GS-8H-1), *zu.e.re* ‘zu ere’ (JL-1989-GS-8H-3), *a.rra.zoi.or.tan* ‘arrazoi hortan’ (JL-1989-GS-8H-4), *pre.so.e.ra.man.di.tu* ‘preso eraman ditu’ (JL-1989-GS-4oin-1), *jo.e.ta.su* ‘jo eta su’ (JL-1989-GS-

584 Jasotako adibide bikoteak (silaba bat gehiago edo gutxiagorekin) hizkera desberdinetan erabiltzen dira; beharbada Lopategik bi hizkerak (formak) ezagutu eta horien txandakatzea baliatzen du behar metrikoen arabera, eta ez gara bizirik dagoen gehiketa eta silabagiletze kasu batzuez ari.

585 Hitz barnean (*ino‘la*) etena egiten du Lopategik, seguruena doinuaren eredu erritmikoak bultzatuta, hitzaren lehen silaba luzeagoa baita.

10tx-1), *e.te.nau.i.zan.g[wa]l.da* ‘eten hau izango al da’ (JL-1989-GS-10tx-3), *be.ra.kur.te.as.ko.tan* ‘berak urte askotan’ (JL-1989-GS-pe2), etab.

(L3) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak birsilabatzea, silaba bakarrean ahoskatuta [V# #V → .VV.] (lizentzia metrikoetan **sinalefa** gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (guztiak):

be.rae.de.rre.na.ren.ja.be ‘bera ederrenaren jabe’ (JL-1989-GS-8H-3),

be.ti.zan.za.ra.zu ‘beti izan zara zu’ (JL-1989-GS-10tx-1),

e.te.nau.i.zan.g[wa]l.da ‘eten hau izango al da’ (JL-1989-GS-10tx-3),

no.la.jai.o.te.nin.tzen ‘nola jaio ote nintzen’ (JL-1989-GS-pe-1),

jus.ti.zi.jae.re ‘justizia ere’ (JL-1989-GS-ge-1), *ni.rea.bes.ti.a* ‘nire abestia’ (JL-1989-GS-ge-2),

bi.der.di.je.tan ‘bide erdietan’ (JL-1989-GS-ge-3),

la.pu.rre.t[a(e)]n.gen.du,en ‘lapurreta egin genuen’ (JL-1989-AS-8tx-1),

e.tzai.z[wa]l.pe.rri.gal.du ‘ez zaizu alferrik galdu’ (JL-1989-AS-8tx-2),

ez.ta.la.pu.rre.taor.tan ez da lapurreta hortan’ (JL-1989-AS-8tx-3),

ba.ñ[aj]n.gu.ru.ko.e.kin ‘baina ingurukoekin’ (JL-1989-AS-4oin),

ba.ñae.tzen.du.en ‘baina ez zenuen’ (JL-1989-AS-10H-2),

le.na.goel.du.zen ‘lehenago heldu zen’ (JL-1989-AS-10H-3),

laz.ka.noe.to.rri.ko.da ‘Lazkano etorriko da’ (JL-1989-AS-be-2),

ba.ñ[aw].rru.ti.di.ra ‘baina urruti dira’ (JL-1989-AS-ge-1),

le.na.go.be.t[ja].rran.tzan ‘lehenago beti arrantzan’ (JL-1989-AS-ge-2),

ba.ñae.rre.a.li.ta.tez ‘baina errealitatez’ (JL-1989-AS-ge-2),

gi.xa.xo.nek ‘gizajo honek’ (JL-1989-AS-ge-2),

ba.te.ze.r[eaw].rrez.dau.den ‘batez ere aurrez dauden’ (JL-1989-AS-ba),

txa.pe.lae.ma.ten.za.jo ‘txapela ematen zaio’ (JL-1989-AS-ba),

Sinalefarik gabeko adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen ez diren hiato adibideak, gehiago direnak.

Sinalefa edo hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoa osatzen duten segmentuetako bat desilabagiletu eta silaba bakarrean gauzatzea Lopategik noizean behin darabilen baliabidea da bertsoen eskakizun metrikoak betetzeko. 20 kasutan egiten du 32 bertsoetan, eta askotariko hitz arteko bokal elkarketak biltzen ditu silaba berean: /a/ + /e/ (*be.rae.de.rre.na.ren.ja.be* ‘bera

ederrenaren jabe’, JL-1989-GS-8H-3), /e/ + /a/ (*ni.rea.bes.ti.a* ‘nire abestia’, JL-1989-GS-ge-2), /a/ + /o/ (*ez.ta.la.pu.rre.taor.tan* ez da lapurreta hortan’, JL-1989-AS-8tx-3), /o/ + /e/ (*laz.ka.noe.to.rri.ko.da* ‘Lazkano etorriko da’, JL-1989-AS-be-2), beheranzko diptongoak (*ba.ñ[aj]n.gu.ru.ko.e.kin* ‘baina ingurukoekin’, JL-1989-AS-4oin), goranzkoak (*e.tzai.z[wa].pe.rri.gal.du* ‘ez zaizu alferrik galdu’, JL-1989-AS-8tx-2), eta are hiru bokaleko bilkuratik abiatutako silaben gauzatzeak (*ba.te.ze.r[eaw].rrez.dau.den* ‘batez ere aurrez dauden’, JL-1989-AS-ba). Lopategik bokal berberen bilkurak ere gauzatzen ditu silaba bakarrean, elkarketa bakunduz: *be.ti.zan.za.ra.zu* ‘beti izan zara zu’ (JL-1989-GS-10tx-1), *no.la.jai.o.te.nin.tzen* ‘nola jaio ote nintzen’ (JL-1989-GS-pe-1), *bi.der.di.je.tan* (JL-1989-GS-ge-3), *gi.xa.xo.nek* ‘gizajo honek’ (JL-1989-AS-ge-2). Aurreko bertsolariak (Amurizak eta Lizasok) azken kasu horiek ekiditeko joera dutela dirudi; Lopategik, berriz, hainbat adibide gauzatzen ditu, molde horretako birsilabatzeekin arazorik ez duela iradokiz.

(L4) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean, silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-a egitea hitzen arteko muga urtuz; hots katea birsilabatzea CV egiturarantz.

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):


be.rri.ze.re ‘berriz ere’ (JL-1989-GS-ha), *zu.e.na.gin.du.ba.ti* ‘zuen agindu bati’ (JL-1989-GS-ha),
le.ja.le.ta ‘leial eta’ (JL-1989-GS-ha), *go.go.a.nar.tu* ‘gogoan hartu’ (JL-1989-GS-8H-1),
len.di.ko.ne.ra ‘lehendik hona’ (JL-1989-GS-8H-1),
zuk.gal.ga.re.ki.nar.tzen.zen.du.en ‘zuk galgarekin hartzen zenuen’ (JL-1989-GS-8H-2),
e.gu.non.tan ‘egun hontan’ (JL-1989-GS-8H-2),
e.zo.te.ze.ran ‘ez ote zaren’ (JL-1989-GS-8H-3),
ain.gel.di.tu.nai.ze.ra.be ‘hain gelditu naiz herabe’ (JL-1989-GS-8H-3),
a.rre.za.zu ‘har ezazu’ (JL-1989-GS-8H-4),
ni.kez.tut.ba.li.jo ‘nik ez dut balio’ (JL-1989-GS-4oin-2),
nes.ka.po.li.te.de.rra ‘neska polit, ederra’ (JL-1989-GS-10tx-2),
ni.gal.tze.a.nez.dau.ka ‘ni galtzean ez dauka’ (JL-1989-GS-10tx-2),
ni.kain.bes.te.lu.to ‘nik hainbeste luto’ (JL-1989-GS-10tx-2),
be.ra.ki.ne.zin.ba.dut ‘bera(re)kin ezin badut’ (JL-1989-GS-10tx-2),
e.nai.zez.kon.du.ko ‘ez naiz ezkonduko’ (JL-1989-GS-10tx-2),
ni.jon.ni.kai.tor.tza ‘nion nik aitortza’ (JL-1989-GS-10tx-3),

e.te.nau ‘eten hau’ (JL-1989-GS-10tx-3),
be.re.za.ñeu.ki.ko.dut ‘bere zain edukiko dut’ (JL-1989-GS-10tx-3),
or.ta.ti.ke.to.rri.zait ‘hortatik etorri zait’ (JL-1989-GS-pe1),
az.pi.a.ne.go.te.naiz ‘azpian egoten naiz’ (JL-1989-GS-pe2),
be.ra.kur.te.as.ko.tan ‘berak urte askotan’ (JL-1989-GS-pe2),
gu.txi.e.nus.te ‘gutxien uste’ (JL-1989-GS-ge-1),
e.be.res.te.ne.ga.rri.ja ‘Everesten egarria’ (JL-1989-GS-ge-1),
e.zal.da ‘ez al da’ (JL-1989-GS-ge-1),
ja.ne.da.ri.tan ‘jan edarietan’ (JL-1989-GS-ge-2),
u.ra.gen.du.ne.guz.ki.ja ‘hura genuen eguzkia’ (JL-1989-GS-ge-2),
gu.re.tza.tain.bes.te.lo.rrin ‘gureztat hainbeste lorrin’ (JL-1989-GS-ge-3),
a.tse.gi.ne.ta.kez.ke.tan ‘atsegin eta kezketan’ (JL-1989-GS-ba),
en.tzu.le.o.ke ‘entzuleok ere’ (JL-1989-GS-ba), etab.

Liaisonik ez duten adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-ik egiten ez duten adibideak (eta bilakabidearen deskribapena). Lopategiren kasuan, joera nagusiagoa da *liaisona* egitea, goizeko saioko adibideak aztertuta, kasu kopuru bikoitza aurkitzen baita hitz mugak urtu eta bersilabatuta.

Fortitioen atalean aurreratu bezala, hitz arteko C# #V elkarketak birsilabatzea ohikoa da Lopategiren 1989ko bertsoen silabatzean; testuinguru horretan ohikoen den joera da. *Liaisona* egiteak hots katearen antolakuntza CV egiturarantz lerratzen du: *a.tse.gi.ne.ta.kez.ke.tan* ‘atsegin eta kezketan’ (JL-1989-GS-ba), *ja.ne.da.ri.tan* ‘jan edarietan’ (JL-1989-GS-ge-2), *e.be.res.te.ne.ga.rri.ja* ‘Everesten egarria’ (JL-1989-GS-ge-1), *e.zal.da* ‘ez al da’ (JL-1989-GS-ge-1), *e.te.nau* ‘eten hau’ (JL-1989-GS-10tx-3), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke hots katea nola ahoskatzen den modu jarriatuan, CV egiturara hurbilduta:

134. irudia: Espektrograma. *e.be.res.te.ne.ga.rri.ja* ‘Everesten egarria’ (JL-1989-GS-ge-1).



Bertsoak errepika duenean, azken puntua —edo beste punturen bat— bi aldiz kantatzen denean, sarri lehen aldiak hitzak elkarrengandik banatuta kantatzen ditu Lopategik, eta bigarren aldiz errepikatzean, hots katea birsilabatuta. Arratsaldeko saioan gaia emanda kantatutako bigarren bertsoan, adibidez, azken aurreko puntua lehen aldiz honela kantatzen du: *o.rain.‘a.di.tu.tze.an.‘o.la.tu.en.‘ots.au* ‘orain aditzean olatuen hots hau’ (JL-1989-AS-ge-2). Errepikatzean, berriz, hitzen arteko mugak urtuz (hemistikioak banatutakoak eta oinari lotutako sintagmarenak izan ezik), horrela: *o.rai.na.di.tu.tze.an.‘o.la.tu.en.‘o.tsau* ‘orain aditzean olatuen hots hau’ (JL-1989-AS-ge-2). Halako adibideek agertzen dute ahoskatzen denaren argitasunaren eta ahoskera erraztasunaren arteko aldakortasuna.

(L5) Kontsonanteen eta kontsonante bilkura heterosilabikoen asimilazio eta kenketa batzuk, hitz artean⁵⁸⁶

L.5.1. Hitz artean silaba kodan dagoen herskari ahoskabea ahostuntzea (eta igurzkaritzea), beste kontsonante (ahostun) baten aurrean eta, kasu batzuetan, kentzea⁵⁸⁷.

Corpuseko adibideak: *a.pai.za[ɣ].be.rak* ‘apaizak berak’ (JL-1989-GS-8H-1), *o.rre.xe.ga.ti([ɣ]).sor.tzen.di.zu[d].nik* ‘horrexegatik sortzen dizut nik’ (JL-1989-GS-8H-2), *zu([ɣ]).gal.ga.re.kin* ‘zuk galgarekin’ (JL-1989-GS-8H-2), *i.ka.si.du[ð].nik* ‘ikasi dut nik’ (JL-1989-GS-8H-2), *ba.te.re.fru.tu.ri.ga.be* ‘batere fruiturik gabe’ (JL-1989-GS-8H-3), *a.di.tu.du.ni([ɣ]).zu.re.kan.tu.a* ‘aditu dut nik zure kantua’ (JL-1989-GS-8H-4), *zu[ɣ].len* ‘zuk lehen’ (JL-1989-GS-8H-4), *txa.pel.ke.ta([ɣ]).sor.tzen.du* ‘txapelketak sortzen du’ (JL-1989-GS-4oin-2), *guz.ti.e[ɣ].de.si.jo* ‘guztiek desijo’ (JL-1989-GS-4oin-2), *ez.ta.ki.zer.da.bi.len* ‘ez dakit/daki? zer dabilen’ (JL-1989-GS-10tx-2), *le.nen.go.a.nu.en.da* ‘lehenengoa nuen (e)ta’ (JL-1989-GS-10tx-1), *ba.ka.rra.mai.te.du[ð].nik* ‘bakarra maite dut nik’ (JL-1989-GS-10tx-2), *e.be.res.ga.ña* ‘Everest gaina’ (JL-1989-GS-ge-2), *e.be.res.pun.tah* ‘Everest punta’ (JL-1989-GS-ge-2), *e.be.res.be.rriz* ‘Everest berriz’ (JL-1989-GS-ge-3), etab.

Nahitaezko ez den bilakabidea. **Ahostuntze eta kenketa argirik gabeko adibideak** (goizeko saiokoak): *xen.pe.la.rrek.zi.jo.nez* ‘Xenpelarrek zionez’ (JL-1989-GS-4oin-1), *au.da.nik.be.ti.du.dan* ‘hau da nik beti dudan’ (JL-1989-GS-pe1), *o.so.fi.nak.bai.di.tu* ‘oso finak baititu’ (JL-1989-GS-pe2), *bi.on.bi.jo.tzak*. ‘*sen.ti,tzen.zu.en* (JL-1989-GS-ge-2), etab.

L.5.2. Klase bereko kontsonante elkarketa heterosilabikoan, bi kontsonanteetako bat kentzea (elkarketa bakunduz).

586 Aurkeztutako bilakabideez gain, ‘ez’ morfemari lotutako erregelak ere badira:

- Txistukari aurreko ahoskabearen ondorengo herskari ahostuna ahoskabetzea: *ni.kez.tut* ‘nik ez dut’ (JL-1989-GS-4oin-2), *ez.ta.ki.zer.da.bi.len* ‘ez dakit zer dabilen’ (JL-1989-GS-10tx-2), *ez.tu.gu.mer.ke.a* ‘ez dugu merkea’ (JL-1989-AS-ha), *ez.ta.la.pu.rre.ta.or.tan* ‘ez da lapurreta horretan’ (JL-1989-AS-8tx-3), *ez.tu.zu.es.ti.ma.tzen* ‘ez duzu estimatzen’ (JL-1989-AS-8tx-4), *ez.ta.du.kat.gi.ro* ‘ez daukat giro’ (JL-1989-AS-4oin), *o.ri.ez.ta* ‘hori ez da’ (JL-1989-AS-10H-2), etab. Baina *ez.du.zu*. ‘*a.zal.du* (JL-1989-AS-8tx-4).

- Bi frikari txistukari gauzatzen direnean elkarren segidan bat kendu eta bestea afrikatzea: *e.tzi.da.na* ‘ez zidana’ (JL-1989-GS-8H-1), *e.tzai.zual.pe.rri.gal.du* ‘ez zaizu alferrik galdu’ (JL-1989-AS-8tx-2), *ba.ña.e.tzen.du.en* ‘baina ez zenuen’ (JL-1989-AS-10H-2), etab.

- Ozen aurreko txistukaria kentzea: *e.nai.zez.kon.du.ko* ‘ez naiz ezkonduko’ (JL-1989-GS-10tx-2) baina *ez.nin.te.ke* (JL-1989-GS-ge-3) edo *ez.nai.sen.ti.tzen* ‘ez naiz sentitzen’ (JL-1989-GS-ge-3), *ez.nin.tzan* ‘ez nintzen’ (JL-1989-AS-10H-3), .

Ez dut Lopategiren kasuan gertakari horietan sakondu kontsonante taldeei lotutako gertakari esanguratsuagoak daudela iruditzen baitzat bere kasuan.

587 Hitz barnean ere aurki daitezke kodako herskariaren kenketak Lopategiren silabatzean: *zen.ba.ga.rren* ‘zenbatgarren’ (JL-1989-GS-10tx-1).

Bestalde, silaba ekineko herskari ahoskabeak ahostundu egin daitezke ozen ondoren (akaso *(e)ta* osagaiari lotuta): *a.ger.tu.zen.da* ‘agertu zen eta’ (JL-1989-GS-ge-2).


Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak): *go.go.za.ja.tze.ko* ‘gogoz saiatzeko’ (JL-1989-GS-ha), *e.me.nau.zu.e* ‘hemen nauzue’ (JL-1989-GS-8H-1), *pen.tsa.tze.na.go* ‘pentsatzen nago’ (JL-1989-GS-8H-3), *e.gi.ni.zun.da* ‘egin nizun eta’ (JL-1989-GS-8H-3), *ba.te.ki.nen.bi.le.ni* ‘batekin nenbilen ni’ (JL-1989-GS-10tx-1), *az.pi.a.ne.go.te.naiz* ‘azpian egoten naiz’ (JL-1989-GS-pe2), *ez.nai.sen.ti.tzen* ‘ez naiz sentitzen’ (JL-1989-GS-ge-3), etab.

Nahitaezko ez den bilakabidea. Kenketa garbirik gabeko adibideak (goizeko saiokoak): *e.ran.tzun.na.jan.be.ti* ‘erantzun nahian beti’ (JL-1989-GS-ha), *gaitz.bi.u.rrri.a* ‘gaitz bihurria’ (JL-1989-GS-ge-1), *artu.na.je.an.neu.rrri.a* ‘hartu nahian neurria’ (JL-1989-GS-ge-1), *a.mets.gor.din* (JL-1989-GS-ge-3), etab.

Lopategik hitz arteko kontsonante bilkura heterosilabikoak ahultzeko joera du, lehen hitzeko kodan dagoen kontsonantea asimilatuz edo kenduz. Bilakabide horiek hots katea CV egitura oinarrizkorantz hurbiltzen dute, beste behin, ahoskagarriago ere eginez. *Everest* izenarekin hots katearen eta silabatzearen arabera bilakabide batzuk edo besteak gertatzen dira hitz amaierako kontsonante taldeari erreparatuz gero. Mendi-izenaren ondorengo hitza bokalez hasten bada, *liaisona* egin eta *Everest* hitz azkeneko herskaria hurrengo silabaren ekinean gauzatzen da: *e.be.res.te.ne.ga.rrri.ja* ‘Everesten egarria’ (JL-1989-GS-ge-1). Izenaren ondoren kontsonantez hasten den hitza badator, ordea, herskari ahoskabea kendu egiten da: *e.be.res.ga.ña* ‘Everest gaina’ (JL-1989-GS-ge-2), *e.be.res.pun.tah* ‘Everest punta’ (JL-1989-GS-ge-2) eta *e.be.res.be.rriz* ‘Everest berriz’ (JL-1989-GS-ge-3).


Beste adibide batzuetan hitz amaierako kodan dagoen herskaria beste kontsonante baten aurrean kentzean CV egiturara hurbiltzen da gehiago hitz elkarketa, ondorengo *fru.tu.ri.ga.be* ‘fruiturik gabe’ (JL-1989-GS-8H-3) adibidearen espektrograman ikus daitekeenez:

31. irudia: Espektrograma. *fru.tu.ri.ga.be* ‘fruiturik gabe’ (JL-1989-GS-8H-3)



Bestalde, klase bereko kontsonante bilkurak sortzen direnean hitz artean, elkarketa bakundu egiten da, lehen hitzaren kodan dagoen segmentua izanik kentzen dena: *go.go.za.ja.tze.ko* ‘gogoz saiatzeko’ (JL-1989-GS-ha), *e.me.nau.zu.e* ‘hemen nauzue’ (JL-1989-GS-8H-1), *pen.tsa.tze.na.go* ‘pentsatzen nago’ (JL-1989-GS-8H-3), *e.gi.ni.zun.da* ‘egin nizun eta’ (JL-1989-GS-8H-3), etab. Jarraian *go.go.za.ja.tze.ko* ‘gogoz saiatzeko’ (JL-1989-GS-ha) adibidearen espektrograman ikus daiteke gertakariaren emaitza:

135. irudia: Espektrograma. *go.go.za.ja.tze.ko* ‘gogoz saiatzeko’ (JL-1989-GS-ha).



4.3. Neurria betetzeko baliabide foniko nagusiak

Lopategik hizketa katea oinarri metrikoarekin uztartzeko hainbat baliabide foniko darabiltza 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean:

- Nabarmenena **hiatoa** da. Esate baterako: *on.gi.e.to.rri.‘a.nai.a.rre.bak* (JL-1989-GS-ha), *be.rri.ze.re.‘e.men.ga.goz* ‘berriz ere hemen gaude’ (JL-1989-GS-ha), *i.ren.tsi.be.ar.de.na.‘i.ren.tsiz* ‘irentsi behar dena irentsiz’ (JL-1989-GS-ha), *go.go.za.ja.tze.ko.‘as.moz* ‘gogoz saiatzeko asmoz’ (JL-1989-GS-ha), etab. Joera hau nagusizat har daiteke Lopategiren bertsoetako txertatze prosodikoan ere.
- **Sinalefa** ere gauzatzen du bertsolariak; 19 aldiz darabil baliabidea 32 bertsotan. Hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak birsilabatu eta silaba bakarrean ahoskatuta, silaba bat gutxiago ahoskatzen du: *e.te.nau.i.zan.g[wa]l.da* ‘eten hau izango al da’ (JL-1989-GS-10tx-3), *no.la.jai.o.te.nin.tzen* ‘nola jaio ote nintzen’ (JL-1989-GS-pe-1), *jus.ti.zi.jae.re* ‘justizia ere’ (JL-1989-GS-ge-1), *ni.rea.bes.ti.a* ‘nire abestia’ (JL-1989-GS-ge-2), *bi.der.di.je.tan* ‘bide erdietan’ (JL-1989-GS-ge-3), etab. Aipatzekoa da bokal berberaz osatutako bilkuren bakuntzeak ere gauzatzen dituela Lopategik, hitz artean⁵⁸⁸.
- Sinalefaren ondoren, **kenketa** aipatu behar da lizentzia metriko gisa. Izan ere, askotariko moduetara laburtzen ditu Lopategik hitzak hots katea neurrira egokitzeko, baliabide nagusia ez izan arren (atal honetan aipatutakoez gain, ikus gorago jasotako sineresi kasuak). Aditz jokatuetakoko bokal bilkurak soiltzen ditu, behar duenean: *ge.nun* eta *gendun* ‘genuen’ (JL-1989-GS-ge-2), *da.gon* ‘dagoen’ (JL-1989-GS-ge-1) —baina *zen.du.en* ‘zenuen’ (JL-1989-GS-8H-2)—, esate baterako. Bestetik, euskaraz ohikoak diren askotariko bokal eta, zabalago, silaba kenketak ere gauzatzen ditu kantuan: *be.re.la.bu.ka.zi.tzai.gun* ‘berehala bukatu zitzaigun’ (JL-1989-GS-ge-1), *ja.ne.da.ri.tan* ‘jan edarrietan’ (JL-1989-GS-ge-2), *ir.te.ran* ‘irteeran’ (JL-1989-GS-ge-3), etab.
- Azkenik, **gehiketak** aipatu behar dira baliabide gisa. Aurretik ere aipatutako ablatiboaren (NONDIK) eta partitiboaren (ZERIK) *-tik/-(r)ik* eta *-tikan/-(r)ikan* formen arteko txandakatzea, adibidez: *be.ar.zu.e.ni.kan* ‘behar zuenik’ (JL-1989-AS-10H-2). Aditz oinaren

588 Sinalefari lotuta, atal honetan jasotako baliabide nagusiekin batera, sineresizat har daitezke ondoko adibideak: *goj.‘al.t[we].na.ri* ‘goi altuenari’ (JL-1989-GS-ge-1), *le.n[aw].ko.mo.du.ra* ‘lehenagoko modura’ (JL-1989-AS-8tx-2), *bi.o.k[ej]n.du.gu.ta* ‘biok egin dugu (e)ta’ (JL-1989-AS-8tx-3), *ej.ten* ‘egiten’ (JL-1989-AS-10H-3). Bestalde, aurkako norabidean, dieresizat har daitezke akaso corpuseko bi adibide hauek: *ez.ta.du.kat.gi.ro* (JL-1989-AS-4oin-1) —baina *dau.kat.nik* (JL-1989-AS-4oin-1)— eta *na.je.an* ‘nahian’ (x2) (JL-1989-GS-ge-1; JL-1989-AS-ge-1) —baina *e.ran.tzun.na.jan.be.ti* ‘erantzun nahian beti’ (JL-1989-GS-ha)—.

gainean beharrean partizipioarekin osatutako formaren bat ere badarabil, hainbat hizkeratan (eta bertsolariengan) ohiko (izan) dena: *e.ro.ri.tze.an* ‘erortzean’ (JL-1989-GS-ge-2).

4.4. Joera nagusiak laburbilduz

Jon Lopategik 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoen silabatzean fokua jarririk, esan daiteke bertsolariarengan elkarrekintzan daudela modu nahiko agerikoan fonologiaren egituratzean parte hartzen duten elkarren aurkako bi “indarrak”: oharren argitasuna eta ahoskera erraztasuna.

Batetik, hots katearen ekoizpen fortitiboa gauzatzen du, oro har, kantu enfatiko eta pausatua baliatuz. Horren ondorio dira eremu prosodiko amaieran gertatutako hasperenak, kontsonante palatal epentetikoak, bokal artean ohi bezala igurzkaritu gabe gauzatutako kontsonante ahostunak, hitz arteko bokal bilkurak banatzeko eginiko eten laburrak, etab. Esanguratsua da, halere, fortitio horietako bakoitzetik dagoen adibide kopurua, horietako bakar bat ere ez baita nahitaezko bilakabidea, eta adibideak ez baitira oso oparoak (alderatu Amurizaren gauzatzeekin, kasu). Bertsolariak ahoskera zaindu eta enfatikoa darabil batzuetan, baina beste hainbatetan hots kateko osagaien arteko kohesioa dakarten gertakariak nagusitzen dira silabatzean.

Horrela, hitz barnean zein hitz artean gertatzen diren desilabagiltzeak aipa daitezke, modu jarraituan ahoskatutako hitzarteko bokal bilkura heterosilabikoak, hitz arteko muga urtuta gauzatutako bersilabatzeak (*liaisona*), kontsonante bilkuren —batez ere silaba kodan dauden kontsonanteen— asimilazio eta bakuntzeak, etab. Gertakariok sarri dute ondorio gisa hots katearen silabatzea oinarrizko CV egiturarantz hurbiltzea. Jasotako joerekin erraz ulertzen dira silaba-egituren maiztasunak aztertzean ateratako datuak; silaba-ekina indartzen duten egiturak %80tik gora izatea, eta silaba irekiak, %70 baino gehiago.

Aipatutako gertakari eta joerak lizentzia metrikoen erabileran ere badute eragina: ahal dela hitz bakoitzari bere silabatze propioa eskaintzen dio Lopategik (hiatoa), *liaisona* edo sinalefa (azken hori ondorio metrikoekin) gauzatzeko arazorik ez duen arren (19 sinalefa egiten ditu 32 bertsoetan). Hainbat gehiketa eta kenketa ere baliatzen ditu, aldakortasun morfonologikoari lotuta, batez ere, neurriaren eskakizunak bete ahal izateko, adibide multzoa oso zabala ez den arren.

Hots katearen jarraitutasunaren eta kantatzen den horrekiko argitasunaren arteko dialektika topa daiteke Lopategiren 1989ko silabatzean.

5. Andoni Egaña (1993)

5.1. Silaben egiturak eta horien maiztasunak

Egañaren 1993ko txapelketako finaleko bertsoetako silabak aztertuta, ondokoak dira bertsolariak ekoiztutako silaben egiturak, bakoitzetik zenbatu den silaba-kopurua eta orotara ahoskatutako silabekiko proportzioa (maiztasuna):

12. taula: 1993ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Andoni Egañak ekoiztutako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	1735	%64,43
CVC	441	%16,38
V	340	%12,63
VC	159	%5,90
CCV	17	%0,63
CCVC	1	%0,04
CVCC	0	%0
VCC	0	%0
	Guztira: 2693	
Silaba irekiak denetara:		%77,69
Silaba itxiak denetara:		%22,31

Taulan ikus daitekeenez, Egañaren silabatzean CV egitura da nagusi, egiturarik oinarritzkoena (%64,43). Horren ondoren, CVC silaba-egitura baliatzen du maizen bertsolariak (%16,38). Silaba ekina indartzen duten egiturak %80tik gora dira (%81,48), nahiz eta esan behar den ekinean kontsonante bat baino gehiago gauzatzea ez dela batere ohikoa Egañarentzat; CCV (%0,63) egitura soilik lekukotzen da 1993ko bertsoetan, adibide bakarrean. CCVC egitura duen silaba bakarra jaso dut (%0,04). CVC egituraren ondoren, V bokalez (edo diptongoz) soilik osatutako silabek dute maiztasunik altuena: %12,63, eta VC litzateke horren ondoren erabiltzen den mota (%5,90). Aztertutako 1993ko txapelketako Egañaren bertsoetan ez dago CVCC eta VCC egituradun silabarik. Silaba-ekinean eta kodan kontsonante bat baino gehiago ahoskatzea Egañarentzat ezohikoa dela esan daiteke, beraz.

Datuei bestela begiratuta, silaba irekiek egitura guztien %77,69 osatzen dute. Itxiek, berriz, %22,31.

5.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko segmental nagusiak

Ondokoak dira Egañak 1993ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoetan baliatutako silabatze-joerak eta silaba-egitura eta silabatzea baldintzatzen duten bere bilakabide fonologiko nagusiak:

5.2.1. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko indartzaile (*fortitio*) nagusiak

(F1) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea eta etenaz banatzea

[V# #V → V.‘V] (lizentzia metrikoetan hiato gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

i.ñu.la.rre.ko. ‘*or.du.ra* ‘inularreko ordura’ (AE-1993-GS-ha),
guz.ti. ‘*o.nen* ‘guzti honen’ (AE-1993-GS-ha), *ain.da.* ‘*es.tu.a* ‘hain da estua’ (AE-1993-GS-ha),
ni.pos.tu.ra. ‘*e.tza.ne.an* ‘ni postura etzanean’ (AE-1993-GS-8H-1),
ne.re. ‘*us.te.* ‘*o.tza.ne.an* ‘nire uste otzanean’ (AE-1993-GS-8H-1),
main.di.re.tar.te. ‘*ez.ti.ra* ‘maindire tarte eztira’ (AE-1993-GS-8H-1),
in.da.rra. ‘*e.ta.dez.ti.ra* ‘indarra eta distira’ (AE-1993-GS-8H-2),
a.me.tsak.ba.du. ‘*e.gi.a.kez.tun* ‘ametsak badu egiak ez duen’ (AE-1993-GS-8H-2),
mi.la.pe.na. ‘*e.ta.ne.ke* ‘mila pena eta neke’ (AE-1993-GS-8H-3),
ta.e.us.ki.tze. ‘*e.men.dau.ka.gu* ‘(e)ta E(g)uzkitze hemen daukagu’ (AE-1993-GS-8H-4),
be.re. ‘*er.ne.ga.tu.pin.tan* ‘bere ernegatu pintan’ (AE-1993-GS-8H-4),
e.gun.go. ‘*e.go.e.rak* ‘egungo egoerak’ (AE-1993-GS-4oin),
i.zan.da. ‘*az.ke.na* ‘izanda azkena’ (AE-1993-GS-4oin),
zer.ta.ko. ‘*i.tze.gin* ‘zertarako hitz egin’ (AE-1993-GS-pe),
e.tzai.e. ‘*a.tse.gin* ‘ez zaie atsegin’ (AE-1993-GS-pe),
an.dre.a. ‘*an* ‘andrea han’ (AE-1993-GS-9phtz),
ba.rre.ne.ko. ‘*a.rra* ‘barreneko harra’ (AE-1993-GS-9phtz),
zu.re. ‘*i.rri.pa.rra* ‘zure irribarra’ (AE-1993-GS-9phtz),
o.ri.xe.da. ‘*in.por.ta* ‘horixe da inporta’ (AE-1993-GS-9phtz),
gu.re. ‘*u.me.sa.gra.tu.a* ‘gure ume sakratua’ (AE-1993-GS-6mtz-1),
u.me.a.de.gu. ‘*i.lo.tza* ‘umea dugu hilotza’ (AE-1993-GS-6mtz-2),
a.la.re. ‘*o.rre.kez.tu.es.tal.tzen* ‘hala ere horrek ez du estaltzen’⁵⁸⁹ (AE-1993-GS-6mtz-2),

si.nis.men.tsu.da.go. ‘*a.ma* ‘sinesmentsu dago ama’ (AE-1993-GS-6mtz-3),
no.la. ‘*a.rrai.o* ‘nola arraio’ (AE-1993-GS-6mtz-3),
ai.naur.txo. ‘*o.tza.na* ‘hain haurtxo otzana’ (AE-1993-GS-6mtz-3),
o.sa.na. ‘*e.ta.o.sa.na* ‘Hossana eta Hossana’ (AE-1993-GS-6mtz-3),
ze. ‘*ez.ta.bai.da* ‘zer eztabaida’ (AE-1993-GS-ge-1),
a.la.ba. ‘*os.pa.* ‘*i.e.si* ‘alaba ospa ihesi’ (AE-1993-GS-ge-2),
ta. ‘*on.da.su.nak* ‘(e)ta ondasunak’ (AE-1993-GS-ge-2),
ba.ña. ‘*el.tzen.zait* ‘baina heltzen zait’ (AE-1993-GS-ge-3),
sor.tu. ‘*a.ra.zi* ‘sortuarazi’ (AE-1993-GS-ge-3),
ne.re.di.ru. ‘*on.da.su.na* ‘nire diru-ondasuna’ (AE-1993-GS-ge-3), etab.

Nahitaezkoa ez den joera. Bestelako joerak ageri dituzten corpuseko adibideak:

Aurrerago jaso ditut modu jarraituan ahoskatzen diren hitz arteko bokal elkarketa adibideak, aire-etorria eten gabe gauzatutakoak. Etenaz banatutako hitz arteko bokal elkarketa kasuak gehiago dira modu jarraian ahoskatutakoak baino (bikoitza, gutxi gorabehera).

Era berean, aurrerago jaso ditut testuinguru berean **birsilabatzen diren sinalefa adibideak.**


Egañak ere, 1993ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, bertso-neurriaren egitura orokorra adierazten duten egiturazko etenez gain, eten artikulatario laburragoak egiten ditu hitz artean. Horietako asko hitz mugan lehen hitza bokalez amaitu eta hurrengo hitza ere bokalez hasten denean gauzatzen ditu, bokal bilkura ekidinez. Sarri bertso-egituratik uler daitezke eten horiek. Esate baterako, molde handiko bertsoetan —puntua 10+8 silabaz osatzen denean— hemistikioa bitan banatzen duen etena izan daiteke bokal artean gauzatutakoa: *a.me.tsak.ba.du.* ‘*e.gi.a.kez.tun* ametsak badu egiak ez duen’ (AE-1993-GS-8H-2), etab. Oina (errima daraman hitza) ere mugatu ohi du Egañak sarri (jarraian emaniko adibide bakoitzean, azken hitza da oina): *i.ñu.la.rre.ko.* ‘*or.du.ra* ‘inularreko ordura’ (AE-1993-GS-ha), *ni.pos.tu.ra.* ‘*e.tza.ne.an* (AE-1993-GS-8H-1), *ne.re.* ‘*us.te.* ‘*o.tza.ne.an* ‘nire uste otzanean’ (AE-1993-GS-8H-1), *main.di.re.tar.te.* ‘*ez.ti.ra* (AE-1993-GS-8H-1), etab.

Azkenik, badira arrazoi metriko-musikaletatik ulertzen zail diren kasuak. Horietan bestelako arrazoiak bilatu behar dira: bertsolariaren dikzio argia oharmen ontasuna helburu, hitzen bat nabarmentzea bertsoan duen esanahiagatik, perpausaren egitura kantuan ere islatzea, etab. (gai horietan §10. kapituluak sakondu dut). Adibidez: *an.dre.a.* ‘*an* ‘andrea han’ (AE-1993-GS-9phtz),

589 Hitz arteko bokal bilkura etenez banatzen du lehen aldiz kantatzean. Errepika duen bertsoa izaki, bigarren aldiz hots kate hori bera kantatzean eten gabe abesten du Egañak, dena jarraian.

o.ri.xe.da.‘in.por.ta ‘horixe da inporta’ (AE-1993-GS-9phtz), *gu.re.‘u.me.sa.gra.tu.a* ‘gure ume sakratua’ (AE-1993-GS-6mtz-1), *a.la.re.‘o.rre.kez.tu.es.tal.tzen* ‘hala ere horrek ez du estaltzen’ (AE-1993-GS-6mtz-2), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke Egañaren bokal arteko etenetako bat, oina mugatzen duena:

136. irudia: Espektrograma. *i.ñu.la.rre.ko.‘or.du.ra* ‘inularreko ordura’ (AE-1993-GS-ha).



Aipatzekoa da hitz arteko bokal elkarketen aurrean joera nagusi(ago)tzat har genezakeela tartean eten laburra gauzatzeko hau, modu jarraituan ahoskatutako adibideak ere aurki daitezkeen arren. Era berean, hitz arteko bokal elkarketak ekiditeko egiten du gehiagotan etena Egañak hitz artean, C# #V testuinguruko elkarketak banatzeko baino.

(F2) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-ik ez egitea, hitzen arteko muga ez urtzea (lehen hitzeko kodako kontsonantea(k) ez silabatzea hurrengo silabako ekin hutsean). **Hitz artean hots katea ez birsilabatzea** CV egiturarantz.

Corpuseko adibide batzuk (goizeko saiokoak):

au.zu.tik.‘oso ‘hau zutik oso’ (AE-1993-GS-8H-1),

as.koz.‘o.be.da ‘askoz hobe da’ (AE-1993-GS-8H-1),

lo.a.ren.bi.dez.‘u.xa.tzen.de.gu ‘loaren bidez uxatzen dugu’ (AE-1993-GS-8H-3),

de.non.‘es.ku.ra ‘denon eskura’ (AE-1993-GS-8H-3),

a.tzo.re.ze.gon. ‘*e.ga.ñak.dau.kan* ‘atzo ere zegoen Egañak daukan’ (AE-1993-GS-8H-4),
te.le.fo.no.tik. ‘*ez.dei.tu.ne.ri* ‘telefonotik ez deitu niri’ (AE-1993-GS-8H-4),
guz.ti.on. ‘*o.me.na* (AE-1993-GS-4oin), *jan.nai.du.en.* ‘*a.ri* ‘jan nahi duen hari’ (AE-1993-GS-pe),
e.tzen. ‘*aun.di.a* ‘ez zen handia’ (AE-1993-GS-6mtz-1),
biz.ka.rre.an.dut. ‘*ai.o.tza* ‘bizkarrean dut aihotza’ (AE-1993-GS-6mtz-2),
au.rra.lur.pe.an. ‘*e.tza.na* ‘haurra lurean etzana’ (AE-1993-GS-6mtz-3),
ain.ba.tal.di.tan. ‘*e.sa.na* ‘hainbat alditan’ (AE-1993-GS-6mtz-3),
e.ri.o.tzan. ‘*a.tza.pa.rra* ‘heriotzaren atzaparra’ (AE-1993-GS-ge-1),
bi.zi.tzan. ‘*i.lu.na.ba.rra* ‘bizitzaren ilunabarra’ (AE-1993-GS-ge-1),
o.tsak. ‘*en.tzu.naz* ‘hotsak entzunaz’ (AE-1993-GS-ge-1),
e.zer. ‘*e.tzu.ten.me.re.zi* ‘ezer ez zuten merezi’⁵⁹⁰ (AE-1993-GS-ge-2, errepikan),
a.ots. ‘*u.rru.na* ‘ahots urruna’ (AE-1993-GS-ge-3),
nik.den.de.na.det. ‘*en.tzu.na* ‘nik den-dena dut entzuna’ (AE-1993-GS-ge-3),
i.ri.tsi.zait. ‘*oi.ar.tzu.na* ‘iritsi zait oihartzuna’ (AE-1993-GS-ge-3),
ba.rru.a.na.zer. ‘*u.tsu.na* ‘barruan a zer hutsunea’ (AE-1993-GS-ge-3), etab.

Aurkako joera ageri duten adibideak. Aurrerago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-a duten adibideak. Elkarren aurkako bi joerak pareko neurrian gauzatzen direla esan daiteke.

Aurreko puntuan esan bezala, hitz artean lehen hitza kontsonantez amaitu eta bigarrena bokalez hasten denean, noizean behin eten laburra gauzatzen du Egañak, hitzen arteko mugak urtu eta hots katea birsilabatu beharrean (*liaisona* egin beharrean). Horrela, aurreko puntuan aurkeztu bezala, mugatutako eremuak bertso-neurriaren egituratik edo hizkuntzaren egitura zein argitasunetik uler daitezke beharbada (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz). Molde handiko neurrietan hemistikioaren eremua bitan banatzen du batzuetan C# #V testuinguruan ere (*lo.a.ren.bi.dez.* ‘*u.xa.tzen.de.gu* ‘loaren bidez uxatzen dugu’, AE-1993-GS-8H-3; *a.tzo.re.ze.gon.* ‘*e.ga.ñak.dau.kan* ‘atzo ere zegoen Egañak daukan’, AE-1993-GS-8H-4; *te.le.fo.no.tik.* ‘*ez.dei.tu.ne.ri* ‘telefonotik ez deitu niri’, AE-1993-GS-8H-4), oina muga dezake hitz arteko eten laburrak (*guz.ti.on.* ‘*o.me.na*, AE-1993-GS-4oin; *ain.ba.tal.di.tan.* ‘*e.sa.na* ‘hainbat alditan’, AE-1993-GS-6mtz-3; *au.rra.lur.pe.an.* ‘*e.tza.na* ‘haurra lurean etzana’, AE-1993-GS-6mtz-3), edo hizkuntzaren ahoskera argia bilatzearren, esandako zerbait nabarmentzearen ondorioz, hots katea desanbiguotzeko, etab. gauzatzea etenok (*au.zu.tik.* ‘*oso* ‘hau zutik oso’, AE-1993-GS-

590 Lehen aldiz kantatzean hitzen arteko mugak urturik kantatzen ditu Egañak: *e.zer.rre.tzu.ten.me.re.zi* ‘ezer ez zuten merezi’ (AE-1993-GS-ge-2),

8H-1; *jan.nai.du.en* ‘a.ri ‘jan nahi duen hari’, AE-1993-GS-pe; *e.tzen* ‘aun.di.a ‘ez zen handia’, AE-1993-GS-6mtz-1).

Etendun adibideekin batera, hitz artean C# #V testuingurua aurkitzean hots katea birsilabatzea ere aukera posiblea da, hitzen arteko mugak urtu eta CV egiturarantz gehiago hurbilduz: *ai.naur.txo* ‘hain haurtxo’ (AE-1993-GS-6mtz-3), *ain.ba.tal.di.tan* ‘hainbat alditan’ (AE-1993-GS-6mtz-3), *fe.de.du.ni.za.na* ‘fededun izana’ (AE-1993-GS-6mtz-3), *ne.re.tza.to.rain* ‘niretzat orain’ (AE-1993-GS-ge-1), etab. Elkarren aurkako bi joerak pareko dira.

5.2.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko kohesiozile (*lenitio*) nagusiak

(L1) Hitz barneko segmentu kenketa eta desilabagiletze batzuk.

L.1.1. Desilabagiletzea (sineresia), besteak beste:

tre.n[aj] ‘trenari’ (AE-1993-GS-8H-3),

.bear ‘behar’ (silaba bakarrean) (AE-1993-GS-pe) —baina *be.ar* ‘behar’ (AE-1993-GS-ge-2), *be.ar.ko.lu.ke* ‘beharko luke’ (AE-1993-AS-ba)—.

L.1.2. /e/ bokalaren kenketa askotariko testuinguruetan:

zaz.pi.ter.di.tan ‘zazpi eta erdietan’ (AE-1993-GS-8H-4),

fut.bol.ze.lai.tan ‘futbol zelaietan’ (AE-1993-AS-10H-1),

e.rri.tak ‘errietak’ (AE-1993-GS-ge-3), *u.tsu.na* ‘hutsunea’ (AE-1993-GS-ge-3),

len.go.a ‘lehengoa’ (AE-1993-AS-ba),

be.ar.ge.nu.ken.to.ki.ra ‘behar genukeen tokira’ (AE-1993-AS-10H-1),

ez.nu.nes.pe.ro ‘ez nuen espero’ (AE-1993-GS-ge-1) —baina *ze.go.e.ne.giñ.be.a.rra* ‘zegoen egin beharra’ (AE-1993-GS-ge-1)—, etab.

L.1.3. Silaba osoen kenketak: *le.rro.ta* ‘lerrotara’ (AE-1993-AS-10H-2), *o.la* ‘horrela’ (AE-1993-AS-8tx-3), etab.

L.1.4. Genitibo-markari (NOREN) lotutako -re- silabaren kenketa:

au.rran ‘haurraren’ (AE-1993-GS-6mtz-1),

au.rra.ne.ri.o.tza ‘haurraren heriotza’ (AE-1993-GS-6mtz-2),

e.ri.o.tzan ‘heriotzaren’ (AE-1993-GS-ge-1), *bi.zi.tzan* ‘bizitzaren’ (AE-1993-GS-ge-1),

es.ko.te.a.kin ‘eskotearekin’ (AE-1993-AS-1p-1), etab.

Forma osoa agertzen duten adibideak: *bes.te.a.ren.tzat.kax.ka,rra* ‘bestearantzat kaxkarra’ (AE-1993-GS-ge-1), *e.go.e.ra.ren* (AE-1993-AS-10H-1), *ma.so.kis.mo.a.re.kin* (AE-1993-AS-8tx-3), etab.

Eskakizun metrikoak betetzeko, hitz barnean askotariko kenketa eta desilabagiletzeak gauzatzen ditu Egañak. Horien artean aipagarri dira bokal arteko kontsonanteen kenketak eta bokal elkarketa heterosilabikoa osatzen duten bokaletako baten desilabagiletzea (lizentzia metrikoetan sineresi deiturikoa), silaba bat gutxiago ekoiztea dutenak ondorio: *tre.n[aj]* ‘trenari’ (AE-1993-GS-8H-3), *.bear*. ‘behar’ (silaba bakarrean) (AE-1993-GS-pe) —baina *be.ar* ‘behar’ (AE-1993-GS-ge-2), *be.ar.ko.lu.ke* ‘beharko luke’ (AE-1993-AS-ba)—.

Morfema mugei edo kategoria morfologiko jakinei lotuta sarri, /e/ bokala kentzen du hainbatetan Egañak, testuinguru desberdinetan: *zaz.pi.ter.di.tan* ‘zazpi eta erdietan’ (AE-1993-GS-8H-4), *e.rri.tak* ‘errietak’ (AE-1993-GS-ge-3), *u.tsu.na* ‘hutsunea’ (AE-1993-GS-ge-3), *fut.bol.ze.lai.tan* ‘futbol zelaietan’ (AE-1993-AS-10H-1), *be.ar.ge.nu.ken.to.ki.ra* ‘behar genukeen tokira’ (AE-1993-AS-10H-1), etab. Jasotako adibide batzuk bertsolariaren hizkeran dauden formak dira beharbada (*utsuna* ‘hutsunea’, *erritak* ‘errietak’, *ola* ‘horrela’), edo bere hizkeran edo besteren batean erabili eta hiztunak ezagutzen dituenak, beharren arabera baliatuz forma bat edo beste; ezin da, horrela, bilakabide fonologikoez hitz egin akaso. Adibide asko morfologiari lotutakoak direla ematen du, inesibo-markari (*zaz.pi.ter.di.tan* ‘zazpi eta erdietan’, AE-1993-GS-8H-4; *fut.bol.ze.lai.tan* ‘futbol zelaietan’ AE-1993-AS-10H-1) edo genitibo-markari (*e.ri.o.tzan* ‘heriotzaren’, AE-1993-GS-ge-1; *bi.zi.tzan* ‘bizitzaren’, AE-1993-GS-ge-1; *es.ko.te.a.kin* ‘eskotearekin’, AE-1993-AS-1p-1), esaterako. Gertakari bakoitza sakonago aztertu beharko litzateke ondorio sendoak atera ahal izateko. Laburtutako forma guztiek dute ondoriotzat silabatzean silaba bat gutxiago ekoiztea.

(L2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea baina modu jarraituan ahoskatzea [V# #V → V.V] (hiatoa).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

gu.ri.es.ke.rrak ‘guri eskerrak’ (AE-1993-GS-ha),

e.ta.ez.gu.re.kon.tu.ra ‘eta ez gure kontura’ (AE-1993-GS-ha),

a.ma.bi.or.duz ‘hamabi orduz’ (AE-1993-GS-8H-2),

ta.es.na.tze.an ‘(e)ta esnatzean’ (AE-1993-GS-8H-3),

sa.rri.as.ko.tan ‘sarri askotan’ (AE-1993-GS-8H-3),

tre.na.e.ro.si.ko.nu.ke ‘trena erosiko nuke’ (AE-1993-GS-8H-3),

ta.e.us.ki.tze ‘(e)ta E(g)uzkitze’ (AE-1993-GS-8H-4), *e.ta.i.gual* ‘eta igual’ (AE-1993-GS-4oin),

i.no.la.e.re ‘inola ere’ (AE-1993-GS-6mtz-1),
a.la.re.o.rre.kez.tu.es.tal.tzen ‘hala ere horrek ez du estaltzen’ (AE-1993-GS-6mtz-2, errepikan),
e.ta.o.sa.na ‘eta Hossana’ (AE-1993-GS-6mtz-3), *i.no.la.e.re* ‘inola ere’ (AE-1993-GS-ge-1),
o.rre.la.ko.es.ker.txarra ‘horrelako esker txarra’ (AE-1993-GS-ge-1),
be.re.mal.ko.e.ta.gu.zi ‘bere malko eta guzti’ (AE-1993-GS-ge-2), etab.

Bestelako joerak ageri dituzten adibideak:

Gorago jaso ditut hitz arteko bokal elkarketa silaba heterosilabikoetan gauzatuta, etenak bananduta silabatzen diren (goizeko saioko) adibideak, modu jarraituan ahoskatutakoak baino gehiago direnak (bikoitza, gutxi gorabehera).

Hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoez ari garela, Egañak 1993an batzuetan modu jarraituan ahoskatzen ditu, etenaz banatutako kasuak diren arren joera nagusi. Ematen du lotura sintaktiko estua duten osagaiak, hitz lauz ere talde prosodiko berean gauzatuko lireratekeenak maiz, ahoskatzen dituela aire-etorria eten gabe: *gu.ri.es.ke.rrak* (AE-1993-GS-ha), *e.ta.ez.gu.re.kon.tu.ra* (AE-1993-GS-ha), *a.ma.bi.or.duz* ‘hamabi orduz’ (AE-1993-GS-8H-2), *ta.es.na.tze.an* (AE-1993-GS-8H-3), *sa.rri.as.ko.tan* (AE-1993-GS-8H-3), *tre.na.e.ro.si.ko.nu.ke* (AE-1993-GS-8H-3), etab.

(L3) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak birsilabatzea, silaba bakarrean ahoskatuta [V# #V → .(C)V(V)(C).] (lizentzia metrikoetan **sinalefa** gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (guztiak):

t[aw].rrak.ton.to.a.kez.ti.ra ‘(e)ta haurrak tontoak ez dira’ (AE-1993-GS-8H-2),
lo.kar.t[waw].rre.tik ‘lokartu aurretik’ (AE-1993-GS-8H-3), *la.gun.d[we].gin.bear.zai.e* ‘lagundu egin behar zaie’ (AE-1993-GS-pe).

Sinalefarik gabeko adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen ez diren hiato adibideak, gehiago direnak.

Egañak, Lizasok bezala, apenas darabilen sinalefa: hiru adibide besterik ez ditu 29 bertsoetan. Neurria betetzeko baliabide gisa ez du (ia) hitz arteko bokal elkarketa silaba bakarrean ahoskatzen, birsilabatuta.

(L4) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean, silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-a egitea hitzen arteko muga urtuz; hots katea birsilabatzea CV egiturarantz.

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

e.san.go.de.taz.ke.ne.an ‘esango dut azkenean’ (AE-1993-GS-8H-1),
e.gi.a.kez.tun ‘egiak ez duen’ (AE-1993-GS-8H-2),
tau.rrak.ton.to.a.kez.ti.ra ‘(e)ta haurrak tontoak ez dira’ (AE-1993-GS-8H-2),
gau.rre.gu.ne.an ‘gaur egun’ (AE-1993-GS-8H-4),
pa.txa.da.re.nin.bi.ri.tan ‘patxadaren inbidiatan’ (AE-1993-GS-8H-4),
zi.ri.ños.ki.re.no.ri ‘Zhirinovskiren hori’ (AE-1993-GS-4oin),
az.ke.ne.a.ne.san.dit ‘azkenean esan dit’ (AE-1993-GS-9phtz),
lo.ta.nal.tzen.den ‘lotan al zeunden’ (AE-1993-GS-6mtz-1),
o.rre.kez.tu.es.tal.tzen ‘horrek ez du estaltzen’ (AE-1993-GS-6mtz-2),
au.rra.ne.ri.otza ‘haurraren heriotza’ (AE-1993-GS-6mtz-2),
ai.naur.txo ‘hain haurtxo’ (AE-1993-GS-6mtz-3),
ain.ba.tal.di.tan ‘hainbat alditan’ (AE-1993-GS-6mtz-3),
fe.de.du.ni.za.na ‘fededun izana’ (AE-1993-GS-6mtz-3),
ne.re.tza.to.rain ‘niretzat orain’ (AE-1993-GS-ge-1),
ze.go.e.ne.giñ.be.a.rra ‘zegoen egin behara’ (AE-1993-GS-ge-1),
ba.ten.tza.to.na ‘batentzat ona’ (AE-1993-GS-ge-1),
i.ru.di.tzen.zai.ti.tsu.si ‘iruditzen zait itsusi’ (AE-1993-GS-ge-2),
e.ze.rre.tzu.ten.me.re.zi ‘ezer ez zuten merezi’⁵⁹¹ (AE-1993-GS-ge-2),
ba.rru.a.na.zer ‘barruan a zer’ (AE-1993-GS-ge-3),
os.pi.ta.lon.tan ‘ospitale honetan’ (AE-1993-GS-ge-3),
e.ta.ne.re.e.ki.zan.go.du.te ‘eta nireek izango dute’ (AE-1993-GS-ge-3), etab.


Liaisonik ez duten adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-ik egiten ez duten adibideak (eta bilakabidearen deskribapena). Egañaren 1993ko kasuan, elkarren aurkako bi joerak pareko direla esan daiteke.

Fortitioen atalean aurreratu bezala, hitz arteko C# #V elkarketak birsilabatzea ohikoa da Egañaren 1993ko bertsoen silabatzean; testuinguru horretan nahiko parekatuta daude hitzak

591 Hitz arteko mugak birsilabatuta ahoskatzen ditu Egañak ‘ezer ez zuten merezi’ lehen aldiz kantatzean, eta hitz arteko muga etenaz banatzen du bigarren aldiz abestean, esandakoak berretsiz bezala.

banatuta eta birsilabatuta ahoskatzea. *Liaisona* egiteak hots katearen antolakuntza CV egiturarantz lerratzen du, orain artean hainbatetan esan bezala: *au.rra.ne.ri.otza* ‘haurraren heriotza’ (AE-1993-GS-6mtz-2), *ai.naur.txo* ‘hain haurtxo’ (AE-1993-GS-6mtz-3), *ain.ba.tal.di.tan* ‘hainbat alditan’ (AE-1993-GS-6mtz-3), *fe.de.du.ni.za.na* ‘fededun izana’ (AE-1993-GS-6mtz-3), *ne.re.tza.to.rain* ‘niretzat orain’ (AE-1993-GS-ge-1), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke hots katea nola ahoskatzen duen Egañak modu jarraituan, CV egiturara hurbilduta:

137. irudia: Espektrograma. *os.pi.ta.lon.tan* ‘ospitale honetan’ (AE-1993-GS-ge-3).



Bertsoak errepika duenean, azken puntua —edo beste punturen bat— bi aldiz kantatzen denean, batzuetan lehen aldiak hitzak elkarrengandik banatuta kantatzen ditu Egañak, eta bigarren aldiak errepikatzean, hots katea birsilabatuta. Arratsaldeko saioko hasierako agurrean, adibidez, azken puntuaren hasierako hemistikioa lehen aldiak honela kantatzen du: *nor.bai.tek.* ‘*ar.to.bi.xa.rrik.ba.du* (AE-1993-AS-ha). Errepikatzean, berriz, hitzen arteko mugak urtuz, horrela: *nor.bai.te.kar.to.bi.xa.rrik.ba.du* (AE-1993-AS-ha). Ematen du hots katea lehen aldiak kantatzean *artobixar* hitza entzuleengana argi heltzeko bereiz ahoskatzen duela eta, behin mezua transmitituta, errepikan ahoskera erraztasuna nagusitzen dela, silabatzea CV oinarritzko egiturarantz hurbildu.

Egañaren kasuan badira alderantzizko norabidean gauzatutako adibideak ere. Goizeko saioan, gaia emanda kantatutako bigarren bertso amaieran, hots katea lehenengoz birsilabatuta ekoizten du (*e.ze.rre.tzu.ten.me.re.zi*, ‘ezer ez zuten merezi’ AE-1993-GS-ge-2), hitzak lehen aldiak abestean efektua emateko esandakoari beharbada, adierazkortasuna, *tempoa* azkartu eta eredu erritmikoak

eraldatzearekin batera. Ondoren, adierazpen bera bigarren aldiz kantatzean, berrespen enfatiko gisa akaso, hitzak bereiz segmentatzen ditu katean: *e.zer*: ‘*e.tzu.ten.me.re.zi*’ (AE-1993-GS-ge-2).

Halako adibideek agerian uzten dute Egañaren silabatzean (ere, Lopategirenean bezala), etengabe daudela ahoskatzen denaren argitasuna zein ahoskera erraztasuna dialektikan⁵⁹².

(L5) Klase bereko kontsonante elkarketa heterosilabikoetan, bi kontsonanteetako bat asimilatu edota kentzea (elkarketa bakunduz).⁵⁹³

Corpuseko adibide batzuk:

Sudurkarki bilkurak: *mur.gil.tze.naiz.ni* ‘murgiltzen naiz ni’ (AE-1993-GS-8H-2), *ez.nu.nes.pe.ro* ‘ez nuen espero’ (AE-1993-GS-ge-1), *o.so.e.neu.rri.ra* ‘osoen neurrira’ (AE-1993-AS-10H-1, errepikan), *e.zal.da.bis.ta.na.ba.ri* ‘ez al da bistan nabari’ (AE-1993-AS-ge-2, errepikan), *e.sa.nai.di.ot* ‘esan nahi diot’ (AE-1993-AS-ge-2), etab.

Herskari bilkurak: *a.me.tsa[ɣ].ba.du* ‘ametsak badu’ (AE-1993-GS-8H-2), *e.ga.ña[ɣ].dau.kan* ‘Egañak daukan’ (AE-1993-GS-8H-4), *da.mu.ba([ð]).daukat*⁵⁹⁴ ‘damu bat daukat’ (AE-1993-GS-6mtz-3), *de.no[ɣ].ber.di.nak* ‘denok berdinak’ (AE-1993-AS-10H-3), *ba.ña.ni[ɣ].di.ot* ‘baina nik diot’ (AE-1993-AS-10H-3), *e.san.go.de[θ].[kh]an.tuan* ‘esango dut kantuan’ (AE-1993-AS-1p-2), *po.li.ta.kex.ka.xa[ɣ].di.ra* ‘politik eskasak dira’ (AE-1993-AS-1p-2), *bes.te.a[ɣ].bi.pu.ru.lo.di* ‘besteak bi puru lodi’ (AE-1993-AS-ge-2), *zu.en.txa.lo.a[ɣ].be.re.tza.di.ra* ‘zuen txaloak beretzat dira’ (AE-1993-AS-ba), etab.

Nahitaezko ez den bilakabidea. Kenketa garbirik gabeko adibide batzuk:

Herskari bilkurak: *tau.rrak.ton.to.a.kez.ti.ra* ‘(e)ta haurrak tontoak ez dira’ (AE-1993-GS-8H-2), *bes.te.a.ren.tzat.kax.ka.rra* (AE-1993-GS-ge-1), *e.ze.rre.tzu.ten.me.re.zi* ‘ezer ez zuten

592 Horrek ez du esan nahi orain arte aurkeztutako Amuriza eta Lizasoren silabatzean ere aurkako bi joera horiek presente ez daudenik, noski. Egaña eta Lopategiren silabatzean aldakortasuna nabarmenagoa da, ordea.

593 Aurkeztutako bilakabideaz gain, ozen ondoko herskari ahoskabeen ahostuntze adibideak ere badaude, besteak beste, Egañaren 1993ko silabatzean: *biz.ka.rre.an.da* ‘bizkarrean (e)ta’ (AE-1993-AS-10H-ge-3). ‘Ez’ morfemari lotutako erregelak ere badira:

- Txistukari aurreko ahoskabearen ondorengo herskari ahostuna ahoskabetzea: *t[aw].rrak.ton.to.a.kez.ti.ra* ‘(e)ta haurrak tontoak ez dira’ (AE-1993-GS-8H-2), *o.rre.kez.tu* ‘horrek ez du’ (AE-1993-GS-6mtz-2), *ez.ta.de.ta.lle.txu.ku.na* ‘ez da detaile txukuna’ (AE-1993-GS-ge-3), *zer.de.nez.ta.ki* ‘zer den ez daki’ (AE-1993-AS-8tx-1), *ez.tu* ‘ez du’ (AE-1993-AS-1p-1), etab. — baina *ez.go.a.zi.no.ra* ‘ez goaz inora’ (AE-1993-AS-8tx-3) —.

- Bi frikari txistukari gauzatzen direnean elkarren segidan bat kendu eta bestea afrikatzea: *e.tze.go.en.txa.rra* ‘ez zegoen txarra’ (AE-1993-GS-9phtz), *e.tzen* ‘ez zen’ (AE-1993-GS-6mtz-1), *e.tzai.da.zu.kon.ta* ‘ez (ie)zaidazu konta’ (AE-1993-AS-10H-2), *e.tzai.z.ki.gu* ‘ez zaizkigu’ (AE-1993-AS-ge-3), *i.no.rre.tze.go.en* ‘inor ez zegoen’ (AE-1993-AS-ba), etab.

Ez dut Egañaren kasuan gertakari horietan sakondu kontsonante taldeei lotutako gertakari esanguratsuagoak daudela iruditzen baitzat bere kasuan.


594 Esaldia errepikatu egiten da, bertso amaieran. Lehen aldian, bat hitz kodako herskaria ahostunduta kantatzen du Egañak; bigarren aldian (errepikan), herskaria kenduta ahoskatzen du hots katea, CVranzko joeratik gertuago.

merezi' (AE-1993-GS-ge-1), etab. gehiago bilatu.

Sudurkari bilkurak: *jan.nai.du.en* 'jan nahi duen' (AE-1993-GS-pe), *ai.ta.za.rran.mai.ta.su.na* 'aita zaharraren maitasuna' (AE-1993-GS-ge-3), *o.so.en.neu.rri.ra* 'osoen neurrira' (AE-1993-AS-10H-1, lehen aldiz kantatzean), *o.rai.nar.te.an.nes.ka.txa.zi.ñen*⁵⁹⁵ 'orain artean neskatxa zinen' (AE-1993-AS-10H-Ip-3), *e.zal.da.bis.tan.na.ba.ri* 'ez al da bistan nabari' (AE-1993-AS-10H-ge-2, lehen aldiz kantatzean), etab.

Egañak batzuetan hitz arteko klase bereko kontsonante bilkura heterosilabikoak ahultzen ditu, lehen hitzeko kodan dagoen kontsonantea asimilatuz edo kenduz, gehienetan. Bilakabide horiek hots katea CV egitura oinarrizkorantz hurbiltzen dute, beste behin, ahoskagarriago ere eginez: *mur.gil.tze.naiz.ni* 'murgiltzen naiz ni' (AE-1993-GS-8H-2), *a.me.tsa[ɣ].ba.du* 'ametsak badu' (AE-1993-GS-8H-2), *da.mu.ba([ð]).daukat* 'damu bat daukat' (AE-1993-GS-6mtz-3), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke, esaterako, /suentfaloakberetsatdira/ hots katean sortzen diren hitz arteko herskari taldeak nola ahoskatzen dituen Egañak, lehengo taldean —*txaloak beretzat*— *txaloak* hitz kodan dagoen herskari belarra ahostunduz eta igurzkarituz, eta bigarren taldean —*beretzat dira*—, berriz, *beretzat* hitz kodako herskari ahoskabe hobikaria kenduz:


138. irudia: Espektrograma. *zu.en.txa.lo.a[ɣ].be.re.tza.di.ra* 'zuen txaloak beretzat dira' (AE-1993-AS-ba)



595 /i/ bokalaren ondorengo sudurkariaren bustidurarik ez du gauzatzen lehen kasuan: *o.rai.nar.te.an* (AE-1993-AS-10H-Ip-3).


Kontsonante elkarketen artean beste adibide aipagarrietako bat, Egañaren 1993ko gainerakoengandik bereizten delako, hitz arteko bi herskari ahoskaberan igurzkaritze eta hasperentzearena da, /esangodetkantuan/ hots katea ahoskatzean. Hitz mugan, lehenengo hitz (*det*) kodan dagoen herskari ahoskabe hobikaria igurzkaritzen da, eta bigarren hitz ekinean (*kantuan*) dagoen herskari ahoskabe belarra hasperentzen da, herskari hasperenduna gauzatuz hitz ekinean.

17. irudia: Espektrograma. *e.san.go.de[θ].[kh]an.tuan* ‘esango dut kantuan’ (AE-1993-AS-10H-Ip-2)



Kontsonante ahultzeen adibideak andana diren arren, badira kontsonanteen asimilazio edo kenketa argirik gabeko adibide ugari ere: *tau.rrak.ton.to.a.kez.ti.ra* ‘(e)ta haurrak tontoak ez dira’ (AE-1993-GS-8H-2), *jan.nai.du.en* ‘jan nahi duen’ (AE-1993-GS-pe), *bes.te.a.ren.tzat.kax.ka.rra* (AE-1993-GS-ge-1), *e.ze.rre.tzu.ten.me.re.zi* ‘ezer ez zuten merezi’ (AE-1993-GS-ge-1), *ai.ta.za.rran.mai.ta.su.na* ‘aita zaharraren maitasuna’ (AE-1993-GS-ge-3), etab. Ikus ondoko espektrograman, esate baterako, hitz artean dauden bi sudurkariak nola ahoskatzen dituen Egañak:

139. irudia: Espektrograma. *za.rran.mai.ta.su.na* ‘zaharraren maitasuna’ (AE-1993-GS-ge-3)




5.2.1. Bestelako gertakari foniko esanguratsu batzuk

(B1) “Makulu-silaba” enfatikoak ekoiztea, hasperen bat txertatuz silaba-gunea osatzen duen bokalaren erdian (edo bokala tarte batez ahoskabetuz), aire-etorriari bultzada bat emanez

Corpuseko adibideak (guztiak): [a^ha].tse.gin ‘atsegin’ (AE-1993-GS-pe), o.ra.ñar.t[e^he].an ‘orain artean’ (AE-1993-AS-ge-1), pei.n[e^he].ta ‘peineta’ (AE-1993-ge-2), [e^he].ta ‘eta’ (AE-1993-ge-2).

Andoni Egañak ere, lau kasutan, bokal “erdian” hasperena ekoizten du silaba barnean. Lan honetan “makulu silaba” gisa izendatutako fenomeno indartzailea darabil, bokala tarte batez ahoskabetuz. Gertakaria oso mugatuta dago baina, Egañak ere, jasotako adibideetan melismarekin batera (silaba bakarra musika nota bat baino gehiagorekin kantatzean) —[a^ha].tse.gin ‘atsegin’ (AE-1993-GS-pe), o.ra.ñar.t[e^he].an ‘orain artean’ (AE-1993-AS-ge-1), pei.n[e^he].ta ‘peineta’ (AE-1993-ge-2)— edo eremu prosodikoaren ekinean — [e^he].ta ‘eta’ (AE-1993-ge-2)—, gune erritmiko indartsuan eta balio erritmiko luzeaz, gauzatzen ditu. Kantaerari lotutako gertakaria dela dirudi bertsolari honen kasuan ere. Ondoko espektrograman ikus daiteke bokal erdian Egañak gauzatutako hasperenetako bat:

140. irudia: Espektrograma. [a^ha].tse.gin ‘atsegin’ (AE-1993-GS-pe).



5.3. Neurria betetzeko baliabide foniko nagusiak

Egañak hizketa katea oinarri metrikoarekin uztartzeko hainbat baliabide foniko darabiltza 1993ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean:

- Nabarmenena **hiatoa** da: hots kateko bokal bilkurak, hitz artekoak direnean, banatuta silabatzea, bakoitzak bere silaba duela, hitz arteko mugak urtu eta bokalak birsilabatu gabe. Esate baterako: *i.ñu.la.rre.ko.* ‘or.du.ra’ ‘inularreko ordura’ (AE-1993-GS-ha), *guz.ti.* ‘o.nen’ ‘guzti honen’ (AE-1993-GS-ha), *ain.da.* ‘es.tu.a’ ‘hain da estua’ (AE-1993-GS-ha), *ni.pos.tu.ra.* ‘e.tza.ne.an’ ‘ni postura etzanean’ (AE-1993-GS-8H-1), *ne.re.* ‘us.te.’ ‘o.tza.ne.an’ ‘nire uste otzanean’ (AE-1993-GS-8H-1), *main.di.re.tar.te.* ‘ez.ti.ra’ ‘maindire arte eztira’ (AE-1993-GS-8H-1), etab. Joera hau nagusizat har daiteke Egañaren bertsoetako txertatze prosodikoan, hitz arteko bokal elkarketak etenaz ahoskatuz sarri, modu jarraituan baino gehiagotan. Esan behar da sinalefarik ez duela ia egiten; hiru adibide baino ez dira 29 bertsoetan jasotakoak⁵⁹⁶. Hots katea oinarri metrikora egokitzeko bestelako baliabideak erabiltzen ditu bertsolariak, kenketa, batez ere.
- **Kenketa** aipatu behar da, ondoren, lizentzia metriko nagusi gisa. Izan ere, askotariko moduetara laburtzen ditu Egañak hitzak silaba bat gutxiago ahoskatuta hots katea neurrira egokituz. Genitiboa (NOREN) ahoskatzean, adibidez, markak duen *-(r)e-* gauzatu edo ez

596 Horrez gain, L1 puntuan jaso ditut bi sineresi kasu ere: *tre.n[aj]* ‘trenari’ (AE-1993-GS-8H-3), *.bear.* ‘behar’ (silaba bakarrean) (AE-1993-GS-pe).

neurriak baldintzatzen duela dirudi: *au.rran* ‘haurraren’ (AE-1993-GS-6mtz-1), *au.rra.ne.ri.o.tza* ‘haurraren heriotza’ (AE-1993-GS-6mtz-2), *e.ri.o.tzan* ‘heriotzaren’ (AE-1993-GS-ge-1), *bi.zi.tzan* ‘bizitzaren’ (AE-1993-GS-ge-1), *es.ko.te.a.kin* ‘eskotearekin’ (AE-1993-AS-1p-1), baina *bes.te.a.ren.tzat.kax.ka,rra* ‘bestearantzat kaxkarra’ (AE-1993-GS-ge-1), *e.go.e.ra.ren* (AE-1993-AS-10H-1), *ma.so.kis.mo.a.re.kin* (AE-1993-AS-8tx-3), etab. Inesibo (NON) pluralean ere *-etan* markaren *-e-* bokala kentzen du: *zaz.pi.ter.di.tan* ‘zazpi eta erdietan’ (AE-1993-GS-8H-4), *fut.bol.ze.lai.tan* ‘futbol zelaietan’ (AE-1993-AS-10H-1); aditz jokatuetakoko bokal bilkuretako /e/ ere bai, kasu batzuetan: *be.ar.ge.nu.ken.to.ki.ra* ‘behar genukeen tokira’ (AE-1993-AS-10H-1), *ez.nu.nes.pe.ro* ‘ez nuen espero’ (AE-1993-GS-ge-1). Horrez gain, /e/ bokal atonua edo bestelako silabak galdutako formak ere badarabiltza: *e.rri.tak* ‘errietak’ (AE-1993-GS-ge-3), *len.go.a* ‘lehengoa’ (AE-1993-AS-ba), *le.rro.ta* ‘lerrotara’ (AE-1993-AS-10H-2), *o.la* ‘horrela’ (AE-1993-AS-8tx-3), etab.⁵⁹⁷

5.4. Joera nagusiak laburbilduz

Andoni Egañak 1993ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoen silabatzean fokua jarririk, esan daiteke bertsolariarengan elkarrekintzan daudela modu nahiko agerikoan eta parekoan fonologiaren egituratzean parte hartzen duten elkarren aurkako bi “indarrak”: oharmen argitasuna eta ahoskera erraztasuna.

Batetik, hots katearen alor “fortitiboen” artean koka daitezke hitz arteko bokal bilkurak banatuz edo *liaisona* ekidinez eginiko eten laburrak, baita asimilatu edo soildu gabeko hitz arteko kontsonante bilkurak ere. Hizketaren alderdi segmentala eta eremu prosodikoak indartzen eta markatzen dituen joera horien kontra esanguratsua da, bestalde, orain arte aztertutako bertsolariengan gauzatzen diren beste *fortitio* batzuk apenas daudela presente: hasperena, “makulu-silaba” deiturikoa edo bokal aurreko zein bokal arteko /i/-ren kontsonantetzea —azken hori ez da gertatzen Egañaren silabatzean—.

Joera “kohesiozile” edo ahultzaileen artean, hitz barneko desilabagiletze eta kenketadun formak aipatu behar dira, modu jarraituan ahoskatutako hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak, hitz arteko muga urtuta gauzatutako birsilabatzeak (*liaisona*), kontsonante bilkuren —batez ere silaba kodan dauden kontsonanteen— asimilazio eta bakuntzeak, etab. Gertakariok sarri dute ondorio gisa hots katearen silabatzea oinarritzko CV egiturarantz hurbiltzea. Jasotako joerekin erraz ulertzen dira silaba-egituren maiztasunak aztertzean ateratako datuak; silaba-ekina indartzen duten

597 Gehiketa adibide bakarra jaso dut, partitiboko -rikan formari lotua: *o.la.ko.rro.llo.ri.kan* ‘horrelako rollorik’ (AE-1993-GS-pe).

egiturak %80tik gora izatea, eta silaba irekiak, %70 baino gehiago. Egañaren kasuan joera indartzaileek ez dakarte berez CVranzko lerratzerik, baina euskararen beraren hitzek, hots katearen ezaugarriek, antolakuntza fonologikoak, ahalbidetzen dute hori hein handi batean abiapuntu gisa.

Aipatutako gertakari eta joerek lizentzia metrikoen erabileran ere badute eragina: ahal dela hitz bakoitzari bere silabatze propioa eskaintzen dio Egañak (hiatoa), *liaisona* gauzatzeko arazorik ez duen arren —analisiari zehar azaldu bezala, paretsu dira *liaisona* eginiko kasuak eta hitzak eten bidez bereiz silabatutakoak—. Sinalefa, ordea, ekidin egiten du, ahal dela, edo ez du, behintzat, erabiltzen (3 sinalefa egiten ditu 29 bertsoetan). Kenketa da neurria betetzeko baliabide nagusia, aldakortasun morfonologikoari lotuta, batez ere.

6. Andoni Egaña (1997)

6.1. Silaben egiturak eta horien maiztasunak

Egañaren 1997ko txapelketako finaleko bertsoetako silabak aztertuta, ondokoak dira bertsolariak ekoiztutako silaben egiturak, bakoitzetik zenbatu den silaba-kopurua eta orotara ahoskatutako silabekiko proportzioa (maiztasuna):

13. taula: 1997ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Andoni Egañak ekoiztutako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	1509	%60,72
CVC	434	%17,46
V	347	%13,96
VC	169	%6,80
CCV	17	%0,68
CCVC	5	%0,20
CVCC	4	%0,16
VCC	0	%0
	Guztira: 2485	
Silaba irekiak denetara:		%75,36
Silaba itxiak denetara:		%24,64

Taulan ikus daitekeenez, Egañaren silabatzean CV egitura da nagusi, egiturarik oinarritzkoena (%60,72). Horren ondoren, CVC silaba-egitura baliatzen du maizen bertsolariak (%17,46). Silaba ekina indartzen duten egiturak ia %80ra heltzen dira (%79,22), nahiz eta esan behar den ekinean kontsonante bat baino gehiago gauzatzea ez dela batere ohikoa Egañarentzat; CCV (%0,68) eta CCVC (%0,20) egiturak ez dira ekoizitako silaben %1era heltzen. CVC egituraren ondoren, V bokalez (edo diptongoz) soilik osatutako silabek dute maiztasunik altuena: %13,96, VC egitura da ondoren datorrena maiztasunari begiratuta (%6,80). Agerpen gutxi batzuk besterik ez ditu, orain arte aipatutako CCV eta CCVC egiturekin batera, CVCC (%0,16) egiturak. Ez dago VCC silabamotaren agerpenik. Silaba-ekinean eta kodan kontsonante bat baino gehiago ahoskatzea Egañarentzat ezohikoa dela esan daiteke horrela.

Datuei bestela begiratuta, silaba irekiek egitura guztien %75,36 osatzen dute. Itxiek, berriz, %24,64.

6.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko segmental nagusiak

Ondokoak dira Egañak 1997ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoetan baliatutako silabatze-joerak eta silaba-egitura eta silabatzea baldintzatzen duten bere bilakabide fonologiko nagusiak:

6.2.1. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko indartzaile (*fortitio*) nagusiak⁵⁹⁸

(F1) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea eta etenaz banatzea

[V# #V → V.'V] (lizentzia metrikoetan hiato gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

o.rain.tx.e. 'i.a 'oraintxe ia' (AE-1997-GS-8H-1),

598 Egañaren 1997ko bertsoak transkribatzean, bokal arteko herskari ahostunak igurzkaritzen ez zituelako hautematea izan dut arratsaldeko saioko Iparragirre doinuan kantatutako bere bigarren bertsoan, herskari gisa gauzatzen dituela, *bi.zi.a.nai.ta.bi.zi.a.gal.du/ a.la.da.bi.zi.ber.be.ra* 'bizia nahi eta bizia galdu, hala da bizi berbera' (AE-1997-AS-ip-2) adibideetan (gutxienez). Azterketa akustikoa eginda, ordea, ematen du eten laburrak egiten dituela hitz artean kontsonanteak ahoskatu aurretik. Aurretik ere esan bezala, bokal arteko herskariena ez da azterketa sistematikoa izan, hautematek abiatuta egindakoa baizik, laginak jasotzeko, eta beharrezkoa da gertakariaren azterketa sakon eta sistematikoa egitea behar den bezala ulertzeko Egañaren aipatutako kasu horiek zein gainerako bertsolarienak. Txapelketa honetan Egañak ez du hasperenik gauzatzen, baina herskari hasperendun bat gauzatzen du hitz ekinean, beste kontsonante baten ondoren: *zeu.re.tzat.[kh]al.te.a* 'zeuretzat kaltea' (AE-1997-GS-6mtz-2). /i/ aurreko eta goiko bokala bokal artean gauzatzen denean, hitz barnean, joera nagusia irristari gisa gauzatzea da, hots anbisilabiko moduan. Hala ere, bada kontsonante gisa gauzatutako adibide argi bat (*na.jo.al.tzen.dun* 'nahiago al zenuen' AE-1997-GS-6mtz-2), eta zalantzarik beste bat (*ar.tza.jek.no.lae.do* 'artzaiek nola edo', AE-1997-AS-10H-2).

len.da.bi.zi.ko ‘*u.rra.tsa* ‘lehendabiziko urratsa’ (AE-1997-GS-8H-1),
e.ra ‘*or.ta.ko* ‘era horretako’ (AE-1997-GS-8H-2),
ta.e.gun.ber.tan ‘(e)ta egun bertan’ (AE-1997-GS-8H-3),
e.ta ‘*o.ri.da.trix.te.a* ‘eta hori da tristea’ (AE-1997-GS-8H-4),
ba.tzu.tan.da ‘*ar.gi.a* ‘batzuetan da argia’ (AE-1997-GS-htz),
ta ‘*o.ri* ‘*i.gar.tzen.da* ‘(e)ta hori igartzen da’ (AE-1997-GS-pe),
e.ta ‘*u.rri.ta.su.na* ‘eta urritasuna’ (AE-1997-GS-pe),
gu.re ‘*a.ni.me.tan* ‘gure arimetan’ (AE-1997-GS-pe),
a.o.ra ‘*i.ris.te.an* ‘ahora iristean’ (AE-1997-GS-9phtz),
e.do.ta ‘*i.za.ra* ‘edota izara’ (AE-1997-GS-9phtz),
gu.re ‘*a.bi.a.da* ‘gure abiada’ (AE-1997-GS-9phtz),
ne.re ‘*us.tez* ‘nire ustez’ (AE-1997-GS-9phtz),
gal.du.a.lo ‘*or.du.ba.tzu* ‘galdua lo ordu batzuk’ (AE-1997-GS-6mtz-1),
a.ma.min.tzo.da ‘*in.dar.tsu* ‘ama mintzo da indartsu’ (AE-1997-GS-6mtz-1),
a.la.re ‘*a.ma.txo* ‘*ai.zu* ‘halere, amatxo, aizu’ (AE-1997-GS-6mtz-1),
ta.koi ‘*e.ta* ‘*es.ko.te.a* ‘takoi eta eskotea’ (AE-1997-GS-6mtz-2),
ola ‘*ar.tze.a* ‘horrela hartzea’ (AE-1997-GS-6mtz-2),
au.se.ño.ri.ta ‘*ei.te.a* ‘hau señorita egitea’ (AE-1997-GS-6mtz-2),
na.jo ‘*al.tzen.dun* ‘nahiago al zenuen’ (AE-1997-GS-6mtz-2),
zu.re ‘*a.la.ba* (AE-1997-GS-6mtz-2),
au ‘*o.ri.e.ta* ‘*a.la.ko* ‘hau, hori eta halako’ (AE-1997-GS-6mtz-3),
gor.pu.tza ‘*ez.dau.kat.ba.po* ‘gorputza ez daukat bapo’ (AE-1997-GS-6mtz-2),
sor.ta ‘*i.txu.raz* ‘sorta itxuraz’ (AE-1997-GS-ge-1),
e.rre.xe.gi ‘*e.tsi.du.la* ‘errazegi etsi du(e)la’ (AE-1997-GS-ge-1),
an.do.ni ‘*eu.re* ‘*e.tx.e.an* ‘Andoni, eure etxean’ (AE-1997-GS-ge-2),
ta ‘*a.zo.ka.ra* ‘ta azokara’ (AE-1997-GS-ge-2), *jo* ‘*a.fa.ne.an* ‘jo afanean’ (AE-1997-GS-ge-3),
 etab.

Nahitaezkoa ez den joera. Bestelako joerak ageri dituzten corpuseko adibideak:

Aurrerago jaso ditut modu jarraituan ahoskatzen diren hitz arteko bokal elkarketa adibideak, aire-etorria eten gabe gauzatutakoak. Etenaz banatutako hitz arteko bokal elkarketa kasuak gehiago dira modu jarraian ahoskatutakoak baino (hirukoitza, gutxi gorabehera).

Aurrerago jaso ditut, era berean, jaso ditut testuinguru berean **birsilabatzen diren sinalefa adibideak**.

Egañak ere, 1997ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, bertso-neurriaren egitura orokorra adierazten duten egiturazko etenez gain, eten artikulatario laburragoak egiten ditu hitz artean. Horietako asko hitz mugan lehen hitza bokalez amaitu eta hurrengo hitza ere bokalez hasten denean gauzatzen ditu, bokal bilkura ekidinez eta hitzak mugatuz hots katean.


Sarri bertso-egituratik uler daitezke eten horiek. Esate baterako, oina (errima daraman hitza) mugatu ohi du Egañak askotan (jarraian emaniko adibide bakoitzean, azken hitza da oina): *len.da.bi.zi.ko.‘u.rra.tsa* ‘lehendabiziko urratsa’ (AE-1997-GS-8H-1), *gu.re.‘a.ni.me.tan* ‘gure arimetan’ (AE-1997-GS-pe), *e.do.ta.‘i.za.ra* ‘edota izara’ (AE-1997-GS-9phtz), *gu.re.‘a.bi.a.da* ‘gure abiada’ (AE-1997-GS-9phtz), etab.

Badira hizketaren prosodiatik hobeto uler daitezkeen segmentatzeak ere, bertsolariak txapelketako testuinguru formalean ziur aski bilatzen duen dikzio argitik: hitzen bat nabarmentzea bertsoan duen esanahiagatik; hitz lauко taldekatze prosodikoa imitatzea bertsotan, etab. Esate baterako, bokatiboa erabiltzean hitz lauz gauzatzen ditugun etenen parekoak izan daitezke ondoko adibidekoak: *a.la.re.‘a.ma.txo.‘ai.zu* ‘halere, amatxo, aizu’ (AE-1997-GS-6mtz-1). Zerrendatzerako baliatzen dugun taldekatzearen antzekoa litzateke beste kasu honetakoa: *au.‘o.ri.e.ta.‘a.la.ko* ‘hau, hori eta halako’ (AE-1997-GS-6mtz-3), etab. (ikus §10. kapituluа taldekatzeaz)⁵⁹⁹.

Ondoko espektrograman ikus daitezke zerrenda laburra kantatzean Egañak egindako etenak:

599 Adibide hauekin eztabaidagai izan daiteke ea Egañak egindako eten labur horiek hitz lauко taldekatze prosodikoa islatzen duten, edo hizkuntza idaztean jartzen ditugun komen (,) eten bidezko irudikapena ote diren. Biak, beharbada, edo bat ere ez: bokal bilkura ekidin eta hitzak katean argi segmentatzeko baliabide soil ere izan baitaiteke.

141. **irudia:** Espektrograma. *au. 'o.ri.e.ta. 'a.la.ko 'hau, hori eta halako* (AE-1997-GS-6mtz-3).



Aipatzekoa da hitz arteko bokal elkarketen aurrean joera nagusizat har genezakeela tartean eten laburra gauzatzeko hau, modu jarraituan ahoskatutako adibideak ere aurki daitezkeen arren. Badira hots kate bera bi moduetara ahoskatutako adibideak ere. Goizeko saioko seiko motzeko bigarren bertsoan, esaterako. Azken puntua lehen aldiz kantatzean, bokal elkarketak modu jarraituan ahoskatzen ditu Egañak: *na.jo.al.tzen.dun* 'nahiago al zenuen' (AE-1997-GS-6mtz-2), *zu.re.a.la.ba* (AE-1997-GS-6mtz-2), mezua lehen aldiz kantatzean hots katearen jarraitutasunak eman dezakeen "arintasun" efektuaz. Bigarrenean, banandurik silabatzen ditu hitzak: *na.jo. 'al.tzen.dun* 'nahiago al zenuen' (AE-1997-GS-6mtz-2), *zu.re. 'a.la.ba* (AE-1997-GS-6mtz-2), esandakoa berretsiz bezala.

(F2) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-ik ez egitea, hitzen arteko muga ez urtzea (lehen hitzeko kodako kontsonantea(k) ez silabatzea hurrengo silabako ekin hutsean). **Hitz artean hots katea ez birsilabatzea** CV egiturarantz.

Corpuseko adibide batzuk (goizeko saiokoak):

e.ma.ku.me.en. 'a.ri.ra 'emakumeen harira' (AE-1997-GS-ha),

ta.o.rain. 'eu.rak '(e)ta orain eurak' (AE-1997-GS-ha),

ez. 'i.za.na.rren 'ez izan arren' (AE-1997-GS-8H-2),

i.po.kre.si.tik. 'a.si.ta 'hipokresitik hasita' (AE-1997-GS-8H-2),
e.men. 'e.rre.ten 'hemen erreten' (AE-1997-GS-8H-4),
a.rra.ñen.ba.tzuk. 'uz.te.a 'arrainen batzuk uztea' (AE-1997-GS-8H-4),
bes.te.tan. 'i.llu.na 'bestetan iluna' (AE-1997-GS-htz),
bes.te.tan. 'as.tu.na 'bestetan astuna' (AE-1997-GS-htz),
kan.po.tik. 'i.lle.a.du 'kanpotik ilea du' (AE-1997-GS-htz),
de.nok. 'o.pa.ro.ga.biltz 'denok oparo gabiltz(a)' (AE-1997-GS-pe),
de.nak. 'az.tuak.di.tut 'denak ahaztuak ditut' (AE-1997-GS-9phtz),
ne.re. 'us.tez. 'a.ra 'nire ustez, hara' (AE-1997-GS-9phtz),
ba.dut. 'ai.tza.ki.a.pran.ko 'badut aitzakia franko' (AE-1997-GS-6mtz-3),
e.tx.e.ra.la.gun. 'or. 'i.zan.di.tut 'etxera lagun hor izan ditut' (AE-1997-GS-6mtz-3),
ez.tau.kat. 'on.gi.bru.ju.la 'ez daukat ongi brujula' (AE-1997-GS-ge-1),
bart. 'a.rra.tse.an 'bart arratsean' (AE-1997-GS-ge-2),
aun.di.rik. 'ez.tek 'handirik ez duk' (AE-1997-GS-ge-2),
nor.mal. 'an.tze.an 'normal antzean' (AE-1997-GS-ge-2),
sal.tzai.le.en. 'oi.a.ne.an 'saltzaileen oihanean' (AE-1997-GS-ge-3),

Aurkako joera ageri duten adibideak. Aurrerago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-a duten adibideak. Gehiago dira *liaison gabeko* kasuak C# #V testuinguruan hitzak bereiz banatzea ohikoagoa da Egañaren 1997ko bertsoen silabatzean.

Aurreko puntuan esan bezala, hitz artean lehen hitza kontsonantez amaitu eta bigarrena bokalez hasten denean, sarri eten laburra gauzatzen du Egañak, hitzen arteko muga markatuz, muga hori urtu eta hots katea birsilabatu beharrean (*liaisona* egin beharrean). Horrela, hitz edo sintagmaren eremua adierazten du eten laburraz. Aurreko puntuan aurkeztu bezala, mugatutako eremuak bertso-neurriaren egituratik edo hizkuntzaren askotariko alderdietatik uler daitezke (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz): molde handiko neurrietan hemistikioaren eremua bitan banatzen du (*e.tx.e.ra.la.gun. 'or. 'i.zan.di.tut*, AE-1997-GS-6mtz-2), oina muga dezake hitz arteko eten laburraz (*e.ma.ku.me.en. 'a.ri.ra* 'emakumeen harira', AE-1997-GS-ha; *i.po.kre.si.tik. 'a.si.ta* 'hipokresitik hasita', AE-1997-GS-8H-2; *a.rra.ñen.ba.tzuk. 'uz.te.a* 'arrainen batzuk uztea', AE-1997-GS-8H-4), hizkuntzaren ahoskera argia bilatzearen edo esandako zerbait nabarmentzearen ondorioz gauza ditzake etenok (*ez. 'i.za.na.rren* 'ez izan arren', AE-1997-GS-8H-2); *e.men. 'e.rre.ten* 'hemen

erreten', AE-1997-GS-8H-4; *kan.po.tik. 'i.lle.a.du*, AE-1997-GS-htz; *de.nok. 'o.pa.ro.ga.biltz*, AE-1997-GS-pe), etab.

Etendun adibideekin batera, hitz artean C# #V testuingurua aurkitzean hots katea birsilabatzea ere posible da, hitzen arteko mugak urtu eta CV egiturarantz gehiago hurbilduz: *i.za.na.rren* 'izan arren' (AE-1997-GS-2), *ni.kus.te.nu.en* 'nik uste nuen' (AE-1997-GS-8H-3), *kon.tu.so.llau.ek* 'kontu soil hauek' (AE-1997-GS-8H-3), *e.go.ta.rroi.ek* 'hegotar horiek' (AE-1997-GS-8H-4), *a.rran.tza.ne.ra.kus.te.a* 'arrantzan erakustea' (AE-1997-GS-8H-4), etab. Hala ere, gorago aurreratu bezala, ohikoagoa da testuinguru honetan (ere) hitzak edo sintagmak etenaz banatzea.

6.2.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko kohesiozile (lenitio) nagusiak

(L1) Hitz barneko segmentu zein silaba kenketa eta desilabagiletze batzuk.

L.1.1. Desilabagiletzea (lizentzia metrikoetan sineresi deiturikoa), besteak beste:

la.r[oj].ta.bi.ko 'lauregoita biko' (AE-1997-GS-ha), *po.zar.tu.bear.du.zu* 'poz hartu behar duzu' (AE-1997-GS-6mtz-1) —baina *joan.be.ar.dut* (AE-1997-GS-ge-3)—, *[ej].te.a* 'egitea' (AE-1997-GS-6mtz-2), —baina *e.gi.ten.bai.tet* 'egiten baitut' (AE-1997-GS-8H-2)— *ba.daez.pa.da.re* 'badaezpada (e)re' (AE-1997-AS-1p-1), *po.li.ti.ko.e.k[ew].ki.ko.du.te* 'politikoez edukiko dute' (AE-1997-AS-ge-3), *[oj].ta. 'a.ma.bost* 'hogeita hamabost' (AE-1997-AS-ge-2)⁶⁰⁰.

L.1.2. /e/ bokalaren kenketa aditz jokatuetakoko bokal bilkura heterosilabikoetan .

Corpuseko adibideak:

ar.tzen.ge.ni.tun 'hartzten genituen' (AE-1997-GS-ha), *e.ra.bil.tzen.du.na* 'erabiltzen duena' (AE-1997-GS-htz), *na.jo.al.tzen.dun* 'nahiago al zenuen' (AE-1997-GS-6mtz-2), *ez.nu.nes.pe.ro.se.ku.la* 'ez nuen espero sekula' (AE-1997-GS-ge-1), *e.sa.te.nun.bai* 'esaten nuen bai' (AE-1997-GS-ge-1), *tru.ke.a.nun.bi.o.tze.an* 'trukea nuen bihotzean' (AE-1997-AS-ge-2), etab.

Kenketa gabeko adibideak:

ni.kus.te.nu.en 'nik uste nuen' (AE-1997-GS-8H-2), *es.po.nu.en* 'Expo nuen' (AE-1997-AS-ge-1), *la.pur.tze.nu.en* 'lapurtzen nuen' (AE-1997-AS-ge-1), etab.

600 Honako adibide hauek ere jaso ditut sineresi posible gisa: *a.nes.te.[ja].tze.a* 'anestesiaketa' (AE-1997-AS-8tx-2), *ma.r[ja].sun* 'Mariasun' (AE-1997-AS-ge-3), baina ziurrenik Egañak goranzko diptongo eta guzti ahoskatzen ditu normalean ere. Ez da, beraz, hots katea neurri egokitzeko baliatutako desilabagiletzea, ohiko silabatze joera baizik.

L.1.3. Askotariko silaba kenketak:

gu.re.mun.du.an ‘gure munduaren’ (AE-1997-GS-8H-1), *eu.ro.pa.za.rran* ‘europa zaharraren’ (AE-1997-GS-8H-2), *o.la.ko.ta.ra* ‘horrelakoetara’ (AE-1997-GS-8H-2), *le.nen.go* ‘lehenengo’ (AE-1997-GS-8H-4), *dan.tza.le.ku.tan* ‘dantzalekuetan’ (AE-1997-GS-6mtz-1), *o.la* ‘horrela’ (AE-1997-GS-6mtz-2), *e.ta.gaiz* ‘eta gaiez [gaiei buruz]’ (AE-1997-AS-ha), *e.giz.ko.ak* ‘egiazkoak’ (AE-1997-AS-10H-3), *al.da.la* ‘ahal dela’ (AE-1997-AS-10H-3), *e.rre.ge.ne.tan* ‘erregerenetan’ (AE-1997-AS-10H-3), *o.la.ko* ‘horrelako’ (AE-1997-AS-8tx-2), *mai.an* ‘mahaian’ (AE-1997-AS-8tx-4), *bir.ji.ñi.za.te.a* ‘birjina izatea’ (AE-1997-AS-8tx-4), *ba.daez.pa.da.re* ‘badaezpada (e)re’ (AE-1997-AS-1p-1), *ka.le.go.rri.tan* ‘kale gorrietan’ (AE-1997-AS-ge-1), *la.pu.rre.ta.ko* ‘lapurretarako’ (AE-1997-AS-ge-1), *(ba.te.na.e.ta.)bes.te.na* ‘bestearena’ (AE-1997-AS-ge-1), *la.pu.rre.ta.ne* ‘lapurretan ere’ (AE-1997-AS-ge-2), *al.nu.e.ne.ran* ‘ahal nuen eran’ (AE-1997-AS-ge-2), *ez.tut.ba.te* ‘ez dut batere’ (AE-1997-AS-ge-2), *ta.‘a.zo.ka.ra* ‘eta azokara’ (AE-1997-AS-ge-2), *le.ne.an* ‘lehenean’ (AE-1997-AS-ge-3), etab.

Eskakizun metrikoak betetzeko, hitz barnean askotariko kenketa eta desilabagiletzeak gauzatzen ditu Egañak. Horien artean aipagarri dira bokal arteko kontsonanteen kenketak eta bokal elkarketa heterosilabikoa osatzen duten bokaletako baten desilabagiletzea (lizentzia metrikoetan sineresi deiturikoa), silaba bat gutxiago ekoiztea dutenak ondorio: *la.r[oj].ta.bi.ko* ‘lauregoita biko’ (AE-1997-GS-ha), *po.zar.tu.bear.du.u* ‘poz hartu behar duzu’ (AE-1997-GS-6mtz-1) —baina *joan.be.ar.dut* (AE-1997-GS-ge-3)—, *[ej].te.a* ‘egitea’ (AE-1997-GS-6mtz-2), —baina *e.gi.ten.bai.tet* ‘egiten baitut’ (AE-1997-GS-8H-2)—, etab.

Aditz jokatueta /e/ bokala kentzen du hainbatetan Egañak: *ar.tzen.ge.ni.tun* ‘hartzen genituen’ (AE-1997-GS-ha), *e.ra.bil.tzen.du.na* ‘erabiltzen duena’ (AE-1997-GS-htz), *ez.nu.nes.pe.ro.se.ku.la* ‘ez nuen espero sekula’ (AE-1997-GS-ge-1), *e.sa.te.nun.bai* ‘esaten nuen bai’ (AE-1997-GS-ge-1), etab., beharren arabera baliatuz laburtutako edo laburtu gabeko formak (*ni.kus.te.nu.en*, AE-1997-GS-8H-2; *es.po.nu.en* ‘Expo nuen’, AE-1997-AS-ge-1). Horrez gain, bestelako kenketak gauzatzen ditu Egañak 1997an, askotarikoak. Jasotako adibide batzuk bertsolariaren hizkeran dauden formak dira ziurrenik (*le.nen.go* ‘lehenengo’, AE-1997-GS-8H-4; *o.la* ‘horrela’ (AE-1997-GS-6mtz-2; *e.giz.ko.ak* ‘egiazkoak’, AE-1997-AS-10H-3; *al.da.la* ‘ahal dela’, AE-1997-AS-10H-3), edo bere hizkeran edo besteren batean erabiltzen direnak eta hiztunak ezagutzen dituenak, beharren arabera baliatuz forma bat edo beste. Beste asko morfologiari lotutako txanakatzeak direla ematen du. Genitibo-markari lotuta daude batzuk, adibidez: *gu.re.mun.du.an* ‘gure munduaren’, AE-1997-GS-8H-1; *eu.ro.pa.za.rran* ‘europa zaharraren’, AE-1997-GS-8H-2).

Ezin da, horrela, bilakabide fonologikoez hitz egin kenketa kasu askotan, eta gertakari bakoitza sakonago aztertu beharko litzateke ondorio sendoak atera ahal izateko. Edonola ere, laburtutako forma guztiek dute ondoriotzat silaba bat gutxiago ekoiztea, gutxienez.

(L2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea baina modu jarraituan ahoskatzea [V# #V → V.V] (hiatoa).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

jen.de.tza.o.nen ‘jendetza honen’ (AE-1997-GS-ha), *ta.o.rain* ‘(e)ta orain’ (AE-1997-GS-ha), *bi.ar.ko.as.te.le.na* ‘biharko astelehena’ (AE-1997-GS-9phtz), *e.ne.a.ma.txo* (AE-1997-GS-6mtz-2), *na.jo.al.tzen.dun* ‘nahiago al zenuen’ (AE-1997-GS-6mtz-2), *zu.re.a.la.ba* (AE-1997-GS-6mtz-2), *o.ri.e.ta* ‘hori eta’ (AE-1997-GS-6mtz-3), *po.rru.au.e.ni.ze.ne.an* ‘porru hauen izenean’ (AE-1997-GS-ge-3), etab.

Bestelako joerak ageri dituzten adibideak:

Gorago jaso ditut hitz arteko bokal elkarketa silaba heterosilabikoetan gauzatuta, etenak bananduta silabatzen diren (goizeko saioko) adibideak, modu jarraituan ahoskatutakoak baino gehiago direnak (hiru aldiz gehiago, gutxi gorabehera).

Hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoez ari garela, Egañak 1997an batzuetan modu jarraituan ahoskatzen ditu, etenaz banatutako kasuak diren arren joera nagusi. Ematen du lotura sintaktiko estua duten osagaiak, hitz lauz ere talde prosodiko berean gauzatuko liratekeenak, ahoskatzen dituela aire-etorria eten gabe: *jen.de.tza.o.nen* ‘jendetza honen’ (AE-1997-GS-ha), *ta.o.rain* ‘(e)ta orain’ (AE-1997-GS-ha), *bi.ar.ko.as.te.le.na* ‘biharko astelehena’ (AE-1997-GS-9phtz), *e.ne.a.ma.txo* (AE-1997-GS-6mtz-2), etab. Bertsoetako hizkera (silabatzea) hitz lauoko molde arduragabera hurbiltzen duenean ere hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak jarraian ahoskatzen ditu: *po.rru.au.e.ni.ze.ne.an* ‘porru hauen izenean’ (AE-1997-GS-ge-3), kasu. Edonola ere, hitz arteko bokal bilkurak etenaz banatzea da bertsolariaren joera nagusia.

(L3) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak birsilabatzea, silaba bakarrean ahoskatuta [V# #V → .(C)V(V)(C).] (lizentzia metrikoetan **sinalefa** gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (guztiak):

ni.o.[aj].ku.siz ‘ni ho(rre)la ikusiz’ (AE-1997-GS-6mtz-1), *tun.tu.n[aj].za.te.a* ‘tuntuna izatea’ (AE-1997-GS-6mtz-2), *ko.lo.ka.t[wo]r.dez* ‘kolokatu ordeztu’ (AE-1997-AS-ha), *es.tal.peon.do.an* ‘estalpe ondoan’ (AE-1997-AS-10H-2), *art.zai.ek.no.lae.do.‘a.la* ‘artzainek nola edo hala’ (AE-1997-AS-10H-2), *i.gual.‘u.rae.re* ‘igual hura ere’ (AE-1997-AS-ip-2)⁶⁰¹.

Sinalefarik gabeko adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen ez diren hiato adibideak, gehiago direnak.

Egñak, gutxitan darabil sinalefa: sei adibide daude 29 bertsoetan. Neurria betetzeko baliabide gisa ez du (ia) hitz arteko bokal elkarketa silaba bakarrean ahoskatzen, birsilabatuta, nahiz eta 1993ko txapelketako finalean baino gehiagotan darabilen.

(L4) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean, silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-a egitea hitzen arteko muga urtuz; hots katea birsilabatzea CV egiturarantz.

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):


i.za.na.rren ‘izan arren’ (AE-1997-GS-2), *ni.kus.te.nu.en* ‘nik uste nuen’ (AE-1997-GS-8H-3), *kon.tu.so.llau.ek* ‘kontu soil hauek’ (AE-1997-GS-8H-3), *e.go.ta.rroi.ek* ‘hegotar horiek’ (AE-1997-GS-8H-4), *a.ran.tza.ne.ra.kus.te.a* ‘arrantzan erakustea’ (AE-1997-GS-8H-4), *ze.ro.rre.ke.re* ‘zerorrek ere’ (AE-1997-GS-6mtz-1), *po.zar.tu.bear.du.zu* ‘poz hartu behar duzu’ (AE-1997-GS-6mtz-1), *po.rru.au.e.ni.ze.ne.an* ‘porru hauen izenean’ (AE-1997-GS-ge-3), *be.la.rrar.tifi.zi.a.la* ‘belar artifiziala’ (AE-1997-AS-10H-2), *u.rre.ti.kez.ta.mar.du.la* ‘urretik ez da mardula’ (AE-1997-GS-ge-1), *ni.ke.re.ber.diñ* ‘nik ere berdin’ (AE-1997-GS-ge-2), *po.rru.au.e.ni.ze.ne.an* ‘porru hauen izenean’ (AE-1997-GS-ge-3), etab.

Liaisonik ez duten adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-ik egiten ez duten adibideak. Egñaren 1997ko kasuan, *liaison*-a duten kasuak gutxiago dira etenez banatutakoak baino.

601 Zalantza adibide gisa jaso dut *bir.ji.ñi.za.te.a* ‘birjina izatea’ (AE-1997-AS-8tx-4). Silabatze horren jatorria sinalefa bat izan daiteke, ondoren bokal bilkura tauosilabikoa bakunduta (*bir.ji.ñai.za.te.a* → *bir.ji.ñi.za.te.a*). Bigarren aukera da *birjiña* hitzaren azken bokala kentzea lehenengo (apokopea) eta, ondoren, hitzen arteko muga urtuta, birsilabazea (*bir.jiñ.i.za.te.a* → *bir.ji.ñi.za.te.a*).

Fortitioen atalean aurreratu bezala, hitz arteko C# #V elkarketan birsilabatzea Egañak 1997ko bertsoen silabatzean batzuetan gauzatzen duen joera da, bertsoen amaiera aldera sarriago: *a.rran.tza.ne.ra.kus.te.a* ‘arrantzan erakustea’ (AE-1997-GS-8H-4), *ze.ro.rre.ke.re* ‘zerorrek ere’ (AE-1997-GS-6mtz-1), *po.zar.tu.bear.du.zu* ‘poz hartu behar duzu’ (AE-1997-GS-6mtz-1), etab. *Liaisona* egiteak hots katearen antolakuntza CV egiturarantz lerratzen du, orain artean hainbatetan esan bezala. Ondoko espektrograman ikus daiteke hots katea nola ahoskatzen duen Egañak modu jarraituan:

142. irudia: Espektrograma. *a.rran.tza.ne.ra.kus.te.a* ‘arrantzan erakustea’ (AE-1997-GS-8H-4).



Egañak hots katea hitzen mugak urtuta tarteka birsilabatzen duen arren, gehiagotan banatzen du hitz arteko C# #V testuingurua etenaz, hitz edo sintagmen eremua mugatuz —markatuz—.

(L5) Hitz arteko kontsonante bilkura heterosilabikoen asimilazio eta kenketa batzuk

L.5.1. Klase bereko **kontsonante elkarketa heterosilabikoetan, bi kontsonanteetako bat asimilatu edota kentzea** (elkarketa bakunduz).

Corpuseko adibideak (batzuk):

Herskari bilkurak: *az.tu.a[ɣ].di.tut* (AE-1997-GS-9phtz), *o.rre.xe.ga.ti[ɣ].dau.kat* (AE-1997-AS-10H-2), *ne.re.tza[ð].be.rriz* ‘niretzat berriz’ (AE-1997-AS-ge-3), etab.

Sudurkari bilkurak: *e.sa.te.nun.bai* ‘esaten nuen, bai’ (AE-1997-GS-ge-1), *e.gi.naiz* ‘egin naiz’ (AE-1997-AS-ha), *la.pur.tze.nu.en* ‘lapurtzen nuen’ (AE-1997-AS-ge-1), etab.

Nahitaezko ez den bilakabidea. Kenketa edo asimilazio garbirik gabeko adibide batzuk:

Herskariak: *eu.rak.gai.di.ra* (AE-1997-GS-ha), *gei.e.gik.gu.txi.e.gi* ‘gehiegik gutxiegi’ (AE-1997-GS-htz), *zeu.re.tzat.[k^h]al.te.a* ‘zeuretzat kaltea’ (AE-1997-GS-6mtz-2), *ba.dau.kat.ti.tu.loa* ‘badaukat titulua’ (AE-1997-AS-8tx-1), *e.zin.di.tut.be.re.zi* ‘ezin ditut bereizi’ (AE-1997-AS-8tx-2), *o.rre.ke.ma.ten.dit.pe.na* ‘horrek ematen dit pena’ (AE-1997-AS-ge-1), *ain.bat.kal.te* ‘hainbat kalte’ (AE-1997-AS-ge-2), etab.

Sudurkariak: *es.po.nu.en.ne.re* ‘Expo nuen nire’ (AE-1997-AS-ge-1), etab.


L.5.2. ‘Ez’ hitz kodako txistukari ahoskabearen ondorengo herskari ahostuna ahoskabetzea:

Corpuseko adibideak: *ez.ta.ba.ka.rrik* ‘ez da bakarrik’ (AE-1997-GS-ha), *ez.tau.kat* ‘ez daukat’ (AE-1997-GS-ha), *u.rre.ti.kez.ta* ‘urretik ez da’ (AE-1997-AS-ge-1), *ez.tau.kat.suer.te* ‘ez daukat suerte’ (AE-1997-AS-10H-2), *ez.tek* ‘ez duk’ (AE-1997-AS-ge-2), *ez.tu.as.ko.in.por.ta* ‘ez du asko inporta’ (AE-1997-AS-8tx-1), *ez.ta.gau.za.xa.mu.rra* ‘ez da gauza samurra’ (AE-1997-AS-8tx-2), *ez.ta.kal.te.a* ‘ez da kaltea’ (AE-1997-AS-8tx-4), *ez.ti.o.te.san* ‘ez diot esan’ (AE-1997-AS-1p-1), *di.ru.ri.kez.tut* ‘dirurik ez dut’ (AE-1997-AS-ge-2), *ez.tut.ba.te* ‘ez dut batere’ (AE-1997-AS-ge-2), etab.

Egañak batzuetan hitz arteko klase bereko kontsonante bilkura heterosilabikoak ahultzen ditu, lehen hitzeko kodan dagoen kontsonantea asimilatuz edo kenduz. Bilakabide horiek hots katea CV egitura oinarritzorantz hurbiltzen dute, beste behin, ahoskagarriago ere eginez. Joera argiena sudurkariekin gauzatzen du bertsolariak: *e.sa.te.nun.bai* ‘esaten nuen, bai’ (AE-1997-GS-ge-1), *e.gi.naiz* ‘egin naiz’ (AE-1997-AS-ha), etab.

Herskari elkarketetan, berriz, hotsak elkarren antzekoago egiten dira, herskari ahoskabe + herskari ahostun bilkura batzuetan, lehenengo herskaria ahostunduz. Ondoko espektrograman ikus daiteke, esaterako, /k/ herskari ahoskabea nola ahostuntzen eta igurzkaritzen den ([ɣ]) /d/ herskari ahostunaren aurrean: *o.rre.xe.ga.ti[ɣ].dau.kat* (AE-1997-AS-10H-2), *ne.re.tza[ð].be.rriz* ‘niretzat berriz’ (AE-1997-AS-ge-3), etab.


143. irudia: Espektrograma. *o.rre.xe.ga.ti[ɣ].dau.kat* (AE-1997-AS-10H-2).



Herskari elkarketen ahultze adibide argiak ez dira asko, joera orokor gisa Egañak bi hotsak ahoskatzen baititu; ez dago sudurkariekin bezalako bakuntze (kenketa) argirik. Sarri hitz amaieran eta silaba kodan dagoen herskaria igurzkaritu egiten da, hots katea ahoskagarriago eginez. Ikus ondoko espektrograman, esate baterako, /badaukattituloa/ hots katea ahoskatzean nola gauzatzen dituen Egañak hitz mugako bi kontsonante horzkariak⁶⁰² (/t/):

602 Irudian ikus daiteke *badaukat* hitzaren kodan ahoskatutako kontsonantea igurzkariturik gauzatzen dela, baina bertsolariak bi kontsonanteak ahoskatzen ditu, hots berberen elkarketa izanik bakundu gabe. Antzeko beste adibide batzuk dira *e.zin.di.tut.be.re.zi* 'ezin ditut bereizi' (AE-1997-AS-8tx-2), *o.rre.ke.ma.ten.dit.pe.na* 'horrek ematen dit pena' (AE-1997-AS-ge-1), *ain.bat.kal.te* 'hainbat kalte' (AE-1997-AS-ge-2), etab.

144. irudia: Espektrograma. *ba.dau.kat.ti.tu.loa* ‘badaukat titulua’ (AE-1997-AS-8tx-1).



Bestalde, salbuespenik gabe gauzatzen du ‘ez’ morfemari lotutako erregela morfonologikoa, ezeztapenaren ondoren herskari ahostunez hasitako aditz jokatua dagoenean, herskaria ahoskabetuz: *ez.ta.ba.ka.rrik* ‘ez da bakarrik’ (AE-1997-GS-ha), *ez.tau.kat* ‘ez daukat’ (AE-1997-GS-ha), *u.rre.ti.kez.ta* ‘urretik ez da’ (AE-1997-AS-ge-1), *ez.tau.kat.suer.te* ‘ez daukat suerte’ (AE-1997-AS-10H-2), *ez.tek* ‘ez duk’ (AE-1997-AS-ge-2), *ez.tu.as.ko.in.por.ta* ‘ez du asko inporta’ (AE-1997-AS-8tx-1), etab.

6.3. Neurria betetzeko baliabide foniko nagusiak

Egañak hizketa katea oinarri metrikoarekin uztartzeko hainbat baliabide foniko darabiltza 1997ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean:

- Nabarmenena **hiatoa** da: hots kateko bokal bilkurak, hitz artekoak direnean, banatuta silabatzea, bakoitzak bere silaba duela, hitz arteko mugak urtu eta bokalak birsilabatu gabe. Esate baterako: *ta.‘o.ri.‘i.gar.tzen.da* (AE-1997-GS-pe), *e.ta.‘u.rri.ta.su.na* (AE-1997-GS-pe), *gu.re.‘a.ni.me.tan* ‘gure arimetan’ (AE-1997-GS-pe), *a.o.ra.‘i.ris.te.an* ‘ahora iristean’ (AE-1997-GS-9phtz), *e.do.ta.‘i.za.ra* (AE-1997-GS-9phtz), *gu.re.‘a.bi.a.da* (AE-1997-GS-9phtz), etab. Joera hau nagusitzat har daiteke Egañaren bertsoetako txertatze prosodikoan, hitz arteko bokal elkarketak etenaz ahoskatuz sarri, modu jarraituan baino gehiagotan. Sinalefa gutxi batzuk egiten ditu, hitz arteko bokal elkarketak silaba bakarrean (bir)silabatuz, 1993an baino gehiago: sei adibide 29 bertsoetan. Horrez gain, L1 puntuan jaso

ditut hainbat sineresi kasu ere (hitz barneko desilabagiletzeak): *la.r[oj].ta.bi.ko* ‘lauregoita biko’ (AE-1997-GS-ha), *po.zar.tu.bear.du.u* ‘poz hartu behar duzu’ (AE-1997-GS-6mtz-1), *[ej].te.a* ‘egitea’ (AE-1997-GS-6mtz-2), *po.li.ti.ko.e.k[ew].ki.ko.du.te* ‘politikoeak edukiko dute’ (AE-1997-AS-ge-3), etab.

- **Kenketa** aipatu behar da lizentzia metriko nagusi gisa. Izan ere, askotariko moduetara laburtzen ditu Egañak hitzak silaba bat gutxiago ahoskatuta hots katea neurrira egokituz. Aditz jokatuetakoko bokal bilkuretako /e/, adibidez, kendu egiten du behar metrikoen arabera: *ar.tzen.ge.ni.tun* ‘hartzen genituen’ (AE-1997-GS-ha), *e.ra.bil.tzen.du.na* ‘erabiltzen duena’ (AE-1997-GS-htz), *na.jo.al.tzen.dun* ‘nahiago al zenuen’ (AE-1997-GS-6mtz-2), *ez.nu.nes.pe.ro.se.ku.la* ‘ez nuen espero sekula’ (AE-1997-GS-ge-1), etab. Edo genitibo markak (NOREN) duen *-(r)e-* gauzatu edo ez neurriak baldintzatzen duela dirudi: *gu.re.mun.du.an* ‘gure munduaren’ (AE-1997-GS-8H-1), *eu.ro.pa.za.rran* ‘europa zaharraren’ (AE-1997-GS-8H-2), etab.

Silabak galdutako bestelako formak ere badarabiltza: *o.la.ko.ta.ra* ‘horrelakoetara’ (AE-1997-GS-8H-2), *le.nen.go* ‘lehenengo’ (AE-1997-GS-8H-4), *dan.tza.le.ku.tan* ‘dantzalekuetan’ (AE-1997-GS-6mtz-1), *o.la* ‘horrela’ (AE-1997-GS-6mtz-2), *e.ta.gaiz* ‘eta gaiez [gaiei buruz]’ (AE-1997-AS-ha), *e.giz.ko.ak* ‘egiazkoak’ (AE-1997-AS-10H-3), *al.da.la* ‘ahal dela’ (AE-1997-AS-10H-3), *e.rre.ge.ne.tan* ‘erregerenetan’ (AE-1997-AS-10H-3), *o.la.ko* ‘horrelako’ (AE-1997-AS-8tx-2), *mai.an* ‘mahaian’ (AE-1997-AS-8tx-4), etab. Azken hauen kasuan, bertsoetako informazioa soilik hartuta kontuan, zaila da zehazten bilakabide fonologikoen ondorio izan diren silabatze horietako batzuk edo Egañaren hizkeran jada horrela gordetako formak diren (eta beharren arabera darabilen hizkeren arteko aldakortasuna).

- Azkenik, askotariko **gehiketak** aipatu behar dira Egañaren baliabide metriko gisa. Gertakari honetan hizkuntzaren alor morfonologikoa sartzten da bete-betean, erregelen ondorio diren txandakatzeak edo hizkera desberdinetan baliatutako formak erabiltzen baititu bertsolariak komeni gisa, neurria egoki betetzeko, kenketadun adibide askotan bezalaxe. Gehiketen eremuan ablatiboa (NONDIK) eta partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/-(r)ik* eta *-tikan/-(r)ikan* formen arteko txandakatzea aipa daiteke, adibidez (*es.ko.pe.ta.ri.kan* ‘eskopetarik’ AE-1997-AS-ip-3; *o.so.goi.ti.kan* ‘oso goitik’, AE-1997-AS-ge-3), ergatiboaren marka erabiltzea absolutiboa behar lukeenean (*ba.tzuk jai.o.ak* ‘batzuk jaiok’ baina *bes.te.ba.tzu.ek* (tor.pe) ‘beste batzuk torpe’, AE-1997-AS-ge-2), izenari artikulatu singular marka ez kentzea mugagabea behar lukeenean (*a.rra.gaiz.to.ak* ‘har gaiztoak’, AE-1997-AS-

ge-3) edo aditz forma batzuk partizipioaren gainean eraikitzea aditz oinetik abiatu beharrea (*us.tu.tzen* ‘husten’ AE-1997-AS-ge-3; *ja.rri.gai.te.zen* ‘jar gaitezen’, AE-1997-GS-ha)⁶⁰³. Gehiketarena ez da bereziki alor emankorra, edonola ere, Egañaren jardunean.

6.4. Joera nagusiak laburbilduz

Andoni Egañak 1997ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoen silabatzean fokua jarririk, esan daiteke 1993ko txapelketan bezala bertsolariarengan elkarrekintzan daudela modu nahiko agerikoan fonologiaren egituratzean parte hartzen duten elkarren aurkako bi “indarrak”: oharren argitasuna eta ahoskera erraztasuna.

Batetik, hots katearen alor “fortitiboen” artean koka daitezke hitz arteko bokal bilkurak banatuz edo *liaisona* ekidinez eginiko eten laburrak, hitz eta sintagmen eremuak mugatuz, baita asimilatu edo soildu gabeko hitz arteko kontsonante bilkurak ere. Hizketaren alderdi segmentala eta eremu prosodikoak indartzen eta markatzen dituen joera horien kontra, esanguratsua da, bestalde, orain arte aztertutako bertsolariengan gauzatzen diren beste fortitio batzuk apenas daudela presente: hasperena, “makulu-silaba” deiturikoa edo bokal aurreko zein bokal arteko /i/-ren kontsonantetzea.

Joera “kohesiogile” edo ahultzaileen artean, hitz barneko desilabagiletze eta kenketadun formak aipatu behar dira, modu jarraituan ahoskatutako hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak, hitz arteko muga urtuta gauzatutako birsilabatzeak (*liaisona*), kontsonante bilkuren —batez ere silaba kodan dauden kontsonanteen— asimilazio eta bakuntzeak, etab., Egañaren 1997ko silabatzean hautu nagusiak ez diren arren. Gertakariok sarri dute ondorio gisa hots katearen silabatzea oinarrizko CV egiturarantz hurbiltzea. Jasotako joerekin erraz ulertzen dira silaba-egituren maiztasunak aztertzean ateratako datuak; silaba-ekina indartzen duten egiturak ia %80 izatea, eta silaba irekiak, %75a baino gehiago. Egañaren kasuan joera indartzaileek ez dakarte berez CVrantzko lerratzerik, baina euskararen beraren hitzek, hots katearen ezaugarriek, antolakuntza fonologikoak, ahalbidetzen dute hori hein handi batean abiapuntu gisa.

Aipatutako gertakari eta joerek lizentzia metrikoen erabileran ere badute eragina: ahal dela hitz bakoitzari bere silabatze propioa eskaintzen dio Egañak (hiatoa), hitz edo sintagmaka segmentatuz hots katea joera nagusi gisa. Edonola ere, ez du *liaisona* gauzatzeko arazorik eta hainbatetan urtzen ditu hitz arteko mugak. Sinalefa 1993an baino gehixeago darabil, joera orokor

603 Gehiketaren atalean adibide berezi gisa aipa daiteke ondokoa: *e.tze.za.zula* ‘ez ezazula’ (AE-1997-AS-Ip-2). ‘Ez ezazula’ horrela ahoskatzeak akaso agerian uzten du bertsolariak *ez zazula* → *etzazula* ahoskatzeko asmoa zuela hasiera batean txistukari frikarien bilkuran lehen frikaria kenduz eta bigarrena afrikatuz, baina, silaba baten falta izanik, ‘ezazula’ forma osorik ahoskatu zuela azkenean, txistukari afrikatu eta guzti.

gisa ez egitea nagusi den arren (6 sinalefa egiten ditu 29 bertsoetan). Kenketa da, aldakortasun morfonologikoari lotuta, batez ere, neurria betetzeko baliabide nagusia, seguru asko. Gehiketa gehiagotan darabil 1997ko bertsoetan (1993koekin alderatuta).

7. Andoni Egaña (2001)

7.1. Silaben egiturak eta horien maiztasunak

Egañaren 2001eko txapelketako finaleko bertsoetako silabak aztertuta, ondokoak dira bertsolariak ekoizitako silaben egiturak, bakoitzetik zenbatu den silaba-kopurua eta orotara ahoskatutako silabekiko proportzioa (maiztasuna):

14. taula: 2001eko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Andoni Egañak ekoizitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	2028	%60,04
CVC	643	%19,03
V	452	%13,38
VC	221	%6,54
CCV	26	%0,77
CCVC	6	%0,18
CVCC	2	%0,06
VCC	0	%0
	Guztira: 3378	
Silaba irekiak denetara:		%74,19
Silaba itxiak denetara:		%25,81

Taulan ikus daitekeenez, Egañaren silabatzean CV egitura da nagusi, egiturarik oinarritzkoena (%60,04). Horren ondoren, CVC silaba-egitura baliatzen du maizen bertsolariak (%19,03). Silaba ekina indartzen duten egiturak %80a dira (%80,08 zehazki), nahiz eta esan behar den ekinean kontsonante bat baino gehiago gauzatzea ez dela batere ohikoa Egañarentzat; CCV (%0,77) eta CCVC (%0,18) egiturak ez dira ekoizitako silaben %1era heltzen. CVC egituraren ondoren, V bokalez (edo diptongoz) soilik osatutako silabek dute maiztasunik altuena: %13,38, eta VC egitura legoke ondoren (%6,54). Agerpen gutxi batzuk besterik ez ditu, orain arte aipatutako CCV eta CCVC egiturekin batera, CVCC (%0,06) silaba-motak. VCC egitura ez du Egañak erabiltzen

aztertutako 2001eko bertsoetan. Silaba-ekinean eta kodan kontsonante bat baino gehiago ahoskatzea Egañarentzat ezohikoa dela esan daiteke horrela.

Datuei bestela begiratuta, silaba irekiek egitura guztien %74,19 osatzen dute. Itxiek, berriz, %25,81.

7.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko segmental nagusiak

Ondokoak dira Egañak 2001eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoetan baliatutako silabatze-joerak eta silaba-egitura eta silabatzea baldintzatzen duten bere bilakabide fonologiko nagusiak:

7.2.1. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko indartzaile (fortitio) nagusiak⁶⁰⁴

(F1) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea eta etenaz banatzea.

[V# #V → V.‘V] (lizentzia metrikoetan hiato gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

ne.ro.ni.‘e.ta.tx.a.pe.la ‘neroni eta txapela’ (AE-2001-GS-ha),

i.a.‘e.go.ki ‘ia egoki’ (AE-2001-GS-ha),

ne.re.bu.ru.a.‘i.kus.de.za.ket ‘nire burua ikus dezaket’ (AE-2001-GS-ha),

e.rru.ti.na.ra.‘i.ri.tsi.gi.ñen ‘errutinara iritsi ginen’ (AE-2001-GS-8H-1),

mi.res.te.ko.a.‘i.ru.di.tzen.zait ‘mirestekoa iruditzen zait’ (AE-2001-GS-8H-2),

au.tu.‘e.go.ki ‘hautu egoki’ (AE-2001-GS-8H-2),

gu.re.‘e.rri.ko ‘gure herriko’ (AE-2001-GS-8H-2),

proi.ek.tu.ta.‘e.gi.ta.mu ‘proiektua egitamu’ (AE-2001-GS-8H-3),

bi.ok.ber.din.tsu.‘aur.ki.tzen.ge.ra ‘biok berdintsu aurkitzen gara’ (AE-2001-GS-8H-3),

zuk.pe.na.‘e.ta.nik.da.mu ‘zuk pena eta nik damu’ (AE-2001-GS-8H-3),

ze.‘i.ru.di.me.na ‘zer irudimena’ (AE-2001-GS-8tx-1),

‘e.ta.‘i.tai.a ‘eta igitaia’ (AE-2001-GS-8tx-1),

ez.jo.an.da.‘o.be.da ‘ez joanda hobe da’ (AE-2001-GS-8tx-2),

ai.ai.to.na.‘ai.zu ‘ai, aitona, aizu’ (AE-2001-GS-8tx-2),

604 Aurreko bertsolarien silabatzean F1 gisa aurkeztutako bokal arteko hasperen kasurik ez dago Egañaren 2001eko bertsoetan, baina bai hitzen eremu hasieran gauzatutako hiru herskari hasperendun: *ne.re.bi.otz.[t^h]a.[t^h]e.la.tu* ‘nire bihotz (e)ta teilatu’ (AE-2001-GS-ge-3), *[k^h]a.ra.ko.la(k).pa.rrez.ka* ‘karakolak barrezka’ (AE-2001-GS-8tx-2).

lei.ke. 'e.guz.ki.a 'leike eguzkia' (AE-2001-GS-pe-1),
do.nos.tik.de.ne.tik.du. 'e.zin.lei.ke. 'u.ka 'ezin daiteke ukatu' (AE-2001-GS-pe-2),
e.ta. 'as.ten.de.ne.an 'eta hasten denean' (AE-2001-GS-pe-2),
as.pal.di.pa.ae.a.da. 'a.zo.rre.ko.bro.ma 'aspaldi pasea da Azorreko [Azoreetako] broma' (AE-2001-GS-pe-3),
sa.ro.jen. 'a.rra.zo.ja. 'o.so.bi.ka.ña.zen 'Saroiren arrazoa oso bikaina zen' (AE-2001-GS-pe-4),
ziz.pu.ru. 'e.ta. 'as.pe.ren 'zizpuru eta hasperen' (AE-2001-GS-6mtz-1),
bes.te.la. 'e.san 'bestela esan' (AE-2001-GS-6mtz-1),
zeu.ke.re. 'o.be 'zeuk ere hobe' (AE-2001-GS-6mtz-2),
a.pal.ta.su.na. 'e.zal.da. 'e.zin 'apaltasuna ez al da ezin' (AE-2001-GS-6mtz-2),
zu.re. 'e.to.rri.bus.ti.a 'zure etorri bustia' (AE-2001-GS-6mtz-3),
ez.tu.me.re.zi. 'e.men. 'e.zi.ña 'ez du merezi hemen ezina' (AE-2001-GS-6mtz-3),
ne.re. 'i.zar.de.nen.sa.bai 'nire izar denen sabai' (AE-2001-GS-ge-1)
i.kus.pe.gi. 'o.ron.ta.lai 'ikuspegi ororen talaia' (AE-2001-GS-ge-1),
ja.jo.tza. 'e.ta 'jaiotza eta' (AE-2001-GS-ge-1),
txa.txu.tu. 'al.naiz 'txatxutu al naiz' (AE-2001-GS-ge-1),
be.ti.ji.ra. 'e.ta.buel.ta 'beti jira eta buelta' (AE-2001-GS-ge-2),
ne.re. 'an.dre.a 'nire andrea' (AE-2001-GS-ge-2),
nex.ka. 'o.rre.kin 'neska horrekin' (AE-2001-GS-ge-2),
e.gi.a. 'e.san 'egia esan' (AE-2001-GS-ge-2),
ba.tek.bes.te.a. 'u.ka.tu 'batek bestea ukatu' (AE-2001-GS-ge-3),
ne.re. 'an.dre.an 'nire andrearen' (AE-2001-GS-ge-3),
on.do.a.neu. 'o.re.ka.tu 'ondoan neu orekatu' (AE-2001-GS-ge-3),
ta. 'a.la.re '(e)ta halere' (AE-2001-GS-ge-3), etab.

Nahitaezkoa ez den joera. Bestelako joerak ageri dituzten corpuseko adibideak:

Aurrerago jaso ditut modu jarraituan ahoskatzen diren hitz arteko bokal elkarketa adibideak, aire-etorria eten gabe gauzatutakoak. Etenaz banatutako hitz arteko bokal elkarketa kasuak gehiago dira modu jarraian ahoskatutakoak baino (hirukoitza, gutxi gorabehera).

Era berean, aurrerago jaso ditut testuinguru berean **birsilabatzen diren sinalefa adibideak.**

Egañak ere, 1997ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, bertso-neurriaren egitura orokorra adierazten duten egiturazko etenez gain, eten artikulatorio laburragoak egiten ditu hitz

artean. Horietako asko hitz mugan lehen hitza bokalez amaitu eta hurrengo hitza ere bokalez hasten denean gauzatzen ditu, bokal bilkura ekidinez. Sarri bertso-egituratik uler daitezke eten horiek. Esate baterako, molde handiko bertsoetan —puntua 10+8 silabaz osatzen denean— hemistikioa bitan banatzen duen etena izan daiteke bokal artean gauzatutakoa: *ne.re.bu.ru.a.‘i.kus.de.za.ket* ‘nire burua ikus dezaket’ (AE-2001-GS-ha), *e.rru.ti.na.ra.‘i.ri.tsi.gi.ñen* ‘errutinara iritsi ginen’ (AE-2001-GS-8H-1), *mi.res.te.ko.a.‘i.ru.di.tzen.zait* ‘mirestekoa iruditzen zait’ (AE-2001-GS-8H-2), *bi.ok.ber.din.tsu.‘aur.ki.tzen.ge.ra* ‘biok berdintsu aurkitzen gara’ (AE-2001-GS-8H-3), *a.pal.ta.su.na.‘e.zal.da.‘e.zin* ‘apaltasuna ez al da ezin’ (AE-2001-GS-6mtz-2), etab. Oina (errima daraman hitza) ere mugatu ohi du Egañak sarri (jarraian emaniko adibide bakoitzean, azken hitza da oina): *proi.jek.tu.ta.‘e.gi.ta.mu* ‘proiektua egitamu’ (AE-2001-GS-8H-3), *ze.‘i.ru.di.me.na* ‘zer irudimena’ (AE-2001-GS-8tx-1), *ai.ai.to.na.‘ai.zu* ‘ai, aitona, aizu’ (AE-2001-GS-8tx-2), *lei.ke.‘e.guz.ki.a* ‘leike eguzkia’ (AE-2001-GS-pe-1), etab.

Azkenik, badira arrazoi metriko-musikaletatik ulertzen zail diren kasuak. Horietan bestelako arrazoiak bilatu behar dira: bertsolariaren dikzio argia, hitzen bat nabarmentzea bertsoan duen esanahiagatik, perpausaren egitura kantuan ere islatzea, etab. (gai horietan §10. kapituluari sakondu dut). Adibidez: *ne.ro.ni.‘e.ta.txa.pe.la* ‘neroni eta txapela’ (AE-2001-GS-ha), *i.a.‘e.go.ki* ‘ia egoki’ (AE-2001-GS-ha), *au.tu.‘e.go.ki* ‘hautu egoki’ (AE-2001-GS-8H-2), *gu.re.‘e.rri.ko* ‘gure herriko’ (AE-2001-GS-8H-2), *zuk.pe.na.‘e.ta.nik.da.mu* ‘zuk pena eta nik damu’ (AE-2001-GS-8H-3), *ez.jo.an.da.‘o.be.da* ‘ez joanda hobe da’ (AE-2001-GS-8tx-2), etab. Aipatzekoa da hitz arteko bokal elkarketan aurrean joera nagusi(ago)tzat har genezakeela tartean eten laburra gauzatzeko hau, modu jarraituan ahoskatutako adibideak ere aurki daitezkeen arren. Era berean, hitz arteko bokal elkarketak ekiditeko egiten du gehiagotan etena Egañak hitz artean, C# #V testuinguruko elkarketak banatzeko baino.

(F2) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-ik ez egitea, hitzen arteko muga ez urtzea (lehen hitzeko kodako kontsonantea(k) ez silabatzea hurrengo silabako ekin hutsean). **Hitz artean hots katea ez birsilabatzea** CV egiturarantz.

Corpuseko adibide batzuk (goizeko saiokoak):

ni.ke.zin.go.dut.‘u.rrun.dua.ra.zi ‘nik ezingo dut urrunduarazi’ (AE-2001-GS-8H-1),
nai.zas.pal.di.an.‘ar.tu.e.ma.na ‘nahiz aspaldian hartu-emana’ (AE-2001-GS-8H-1),
ba.ña.nik.ja.san.‘e.gin.be.ar.ko ‘baina nik jasan egin beharko’ (AE-2001-GS-8H-2),

ne.re.zo.ri.txa.rren. ‘a.mu ‘nire zoritxarren amu’ (AE-2001-GS-8H-3),
a.txur. ‘e.ta. ‘i.tai.a ‘atxur eta igitaia’ (AE-2001-GS-8tx-1)
o.rra.nik. ‘a.bi.su ‘horra nik abisu’ (AE-2001-GS-8tx-2),
ai.pa.tzen. ‘as.te.a ‘aipatzen hastea’ (AE-2001-GS-8tx-3),
aun.di.bat. ‘or.do.a ‘handi bat hor doa’ (AE-2001-GS-8tx-4),
ur.gul. ‘ar.te.tik. ‘ir.ten (AE-2001-GS-pe-1),
e.ta. ‘as.ten.de.ne.an. ‘o.ju.e.ta.bul.ka ‘eta hasten denean oihu eta bulka’ (AE-2001-GS-pe-2),
e.mene.tzen. ‘o.nar.tzen. ‘o.la.ko.gi.xo.na ‘hemen ez zen onartzen holako gixona’ (AE-2001-GS-pe-3),
sa.roi.en. ‘a.rra.zoi.a ‘Saroiren arrazoaia’ (AE-2001-GS-pe-4),
gau.zae.de.rrak.ma.dri.len. ‘e.do.ta.pa.ri.sen ‘gauza ederrak Madrilen edota Parisen’ (AE-2001-GS-pe-4),
be.ti.glo.ri.an. ‘on.do.ren ‘beti gloriaren ondoren’ (AE-2001-GS-6mtz-1),
ez.ta.kit.ber.din. ‘e.tza.ren ‘ez dakit berdin ez zaren’ (AE-2001-GS-6mtz-1),
bes.te.la.e.san. ‘e.men ‘bestela esan hemen’ (AE-2001-GS-6mtz-1),
du.te.nen. ‘u.ken.du (AE-2001-GS-6mtz-2), *e.men.* ‘e.zi.ña ‘hemen ezina’ (AE-2001-GS-6mtz-3),
go.ra.tzen. ‘as.ti.a ‘goratzen hastea’ (AE-2001-GS-6mtz-3),
ba.da.tor. ‘u.ne.trix.ti.a ‘badator une tristea’ (AE-2001-GS-6mtz-3),
ne.ro.nen. ‘uz.ki.a (AE-2001-GS-6mtz-3),
a.si.e.ran. ‘e.nu.en.nai ‘hasieran ez nuen nahi’ (AE-2001-GS-ge-1),
ba.nu.en. ‘ain.bes.te ‘banuen hainbeste’ (AE-2001-GS-ge-1),
pen.tsa.tzen. ‘i.ja ‘pentsatzen ia’ (AE-2001-GS-ge-3),
ai.tu.naiz. ‘e.ta ‘ahitu naiz eta’ (AE-2001-GS-ge-3), etab.

Aurkako joera ageri duten adibideak. Aurrerago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-a duten adibideak. Gehiago dira hitzak bereiz ahoskatutako etendun kasuak.

Aurreko puntuan esan bezala, hitz artean lehen hitza kontsonantez amaitu eta bigarrena bokalez hasten denean, noizean behin eten laburra gauzatzen du Egañak, hitzen arteko mugak urtu eta hots katea birsilabatu beharrean (*liaisona* egin beharrean). Horrela, aurreko puntuan aurkeztu bezala, mugatutako eremuak bertso-neurriaren egituratik edo hizkuntzaren egitura zein argitasunetik uler daitezke sarri (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz). Molde handiko neurrietan hemistikioaren eremua bitan banatzen du batzuetan C# #V testuinguruan ere: *ni.ke.zin.go.dut.* ‘urrun.dua.ra.zi ‘nik ezingo dut urrunduarazi’ (AE-2001-GS-8H-1), *nai.zas.pal.di.an.* ‘ar.tu.e.ma.na ‘nahiz aspaldian

hartu-emana' (AE-2001-GS-8H-1), *ba.ña.nik.ja.san. 'e.gin.be.ar.ko* 'baina nik jasan egin beharko' (AE-2001-GS-8H-2), etab. Beste kasu batzuetan oina mugatzen du hitz arteko eten laburrak: *ne.re.zo.ri.tx.a.rren. 'a.mu* 'nire zoritxarren amu' (AE-2001-GS-8H-3), *o.rra.nik. 'a.bi.su* 'horra nik abisu' (AE-2001-GS-8tx-2), *ai.pa.tzen. 'as.te.a* 'aipatzen hastea' (AE-2001-GS-8tx-3), *aun.di.bat. 'or.do.a* 'handi bat hor doa' (AE-2001-GS-8tx-4), etab. Azken multzo zabal batean sar daitezke hizkuntzaren ahoskera argia bilatzearren, edo esandako zerbait nabarmentzearen ondorioz, hots katea desanbiguotzeko, etab. gauzatutako bestelako hitz edo sintagma arteko etenak: *e.me.ne.tzen. 'o.nar.tzen* 'hemen ez zen onartzen' (AE-2001-GS-pe-3), *sa.roi.en. 'a.rra.zoi.a* 'Saroiaren arrazoia' (AE-2001-GS-pe-4), *e.men. 'e.zi.ña* 'hemen ezina' (AE-2001-GS-6mtz-3), *ba.nu.en. 'ain.bes.te* 'banuen hainbeste' (AE-2001-GS-ge-1), etab.

Etendun adibideekin batera, hitz artean C# #V testuingurua aurkitzean hots katea birsilabatzea ere aukera posiblea da, hitzen arteko mugak urtu eta CV egiturarantz gehiago hurbilduz: *ni.ke.zin.go.dut* 'nik ezingo dut' (AE-2001-GS-8H-1), *nai.zas.pal.di.an* 'nahiz aspaldian' (AE-2001-GS-ha), *o.rain.di.ke.re.ba.de.tain.bes.te* 'oraindik ere badut hainbeste' (AE-2001-GS-8H-3), etab. Hala ere, taulan aurreratu bezala, gehiago dira etenaz eta bereiz ahoskatutako adibideak.

7.2.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko kohesiozile (*lenitio*) nagusiak

(L1) Hitz barneko segmentu kenketa eta desilabagiletze batzuk.

L.1.1. Desilabagiletzea (sineresia), besteak beste:

u.rrun.d[wa].ra.zi 'urrunduarazi' (AE-2001-GS-8H-1), *[aj].tu.naiz* 'ahitu naiz' (AE-2001-GS-ge-3), *pa.rre.[aj]* 'barreari' (AE-2001-GS-8tx-3), *goa.zen* 'goazen' (AE-2001-BB-Ip-3) —baina *ez.jo.an.da* 'ez joanda' (AE-2001-GS-8tx-2)—.

L.1.2. /e/ bokala kentzea aditz jokatueta bokal bilkuretan:

da.gon.ze.a.ro 'dagoen zeharo' (AE-2001-GS-ha), *e.za.gu.tu.nun* 'ezagutu nuen' (AE-2001-GS-ge-1), *a.ter.tzen.du.ne.an* 'atertzen duenean' (AE-2001-AS-ptk-2), *da.go.na* 'dagoena' (AE-2001-AS-ge-1), *fla.ko.na.go.la* 'flako nagoela' (AE-2001-BB-8tx-2), *e.nen.gon* 'ez nengoen' (AE-2001-BB-ge-2), *da.go.ne.an* 'dagoenean' (AE-2001-BB-ge-2), *da.go.la* 'dagoela' (AE-2001-BB-ge-3), etab.

Bilkura soildu gabeko adibide batzuk: *e.nu.en.nai* 'ez nuen nahi' (AE-2001-GS-ge-1), *e.san.ba.nu.en* (AE-2001-AS-ha), *ge.nu.en* (AE-2001-BB-ge-3), etab.

L.1.3. Genitibo-markari (NOREN) lotutako -re- silabaren kenketa.

Corpuseko adibide batzuk: *be.ti.glo.ri.an* ‘beti gloriaren’ (AE-2001-GS-6mtz-1), *o.ron* ‘ororen’ (AE-2001-GS-ge-1), *ne.re.an.dre.an* ‘nire andrearen’ (AE-2001-GS-ge-3), *ai.tan* ‘aitaren’ (AE-2001-AS-ge-1), *es.pe.ran.tzan* ‘esperantzaren’ (AE-2001-AS-ge-2), *in.da.rran* ‘indarraren’ (AE-2001-BB-9phtz), etab.

Forma osoa agertzen duten adibideak:

tau.la.re.nor.dez ‘taularen ordeztu’ (AE-2001-GS-8tx-4) (ez *taulan ordeztu*), etab.

L.1.4. Askotariko silaba kenketak.

Corpuseko adibide batzuk: *ger.ta.li.te.ken* ‘gerta litekeen’ (AE-2001-GS-8H-2), *za.rra.ze.ra* (AE-2001-GS-8H-3), *do.nos.tik.de.ne.tik.du* ‘Donostiak denetik du’ (AE-2001-GS-pe2) —baina *do.nos.ti.a.ra.tzen* ‘Donostiaratzen’ (AE-2001-GS-pe4), *le.nen* ‘lehenen’ (AE-2001-GS-6mtz-1), *pa.si.bo.ke.riz* ‘pasibokeriaz’ (AE-2001-GS-ge-2), *al.mo.a.da.kin* ‘almoadarekin’ (AE-2001-GS-ge-3), *gaz.te.ba.tzun.tzat* ‘gazte batzuentzat’ (AE-2001-AS-ha), *zu.len.bi.zi.ko.al.diz* ‘zu lehenbiziko aldiz’ (AE-2001-AS-10tx-1), *e.ta.ge.ro.re* ‘eta gero ere’ (AE-2001-AS-10tx-2), *o.ri.li.tza.ke.ne.re* ‘hori litzateke nire’ (AE-2001-AS-ge-3) —baina *o.ri.ez.li.tza.te.ke* ‘hori ez litzateke’ (AE-2001-AS-ptk-3)—, *le.nen.go.neu.as.te.a* ‘lehenengo neu hastera’ (AE-2001-AS-ptk-5), *o.tza.kin* ‘hotzarekin’ (AE-2001-BB-8tx-1) —baina *gri.pe.a.re.kin* ‘gripearekin’ (AE-2001-GS-ha)—, *ba.ten* ‘batean’ (AE-2001-BB-8tx-1) —baina *gau.za.ba.te.an* ‘gauza batean’ (AE-2001-BB-1p-2)—, etab.

Eskakizun metrikoak betetzeko, hitz barnean askotariko kenketa eta desilabagiletzak gauzatzen ditu Egañak. Horien artean aipagarri dira bokal arteko kontsonanteen kenketak eta bokal elkarketa heterosilabikoa osatzen duten bokaletako baten desilabagiletza (lizentzia metrikoetan sineresi deiturikoa), silaba bat gutxiago ekoiztea dutenak ondorio: *u.rrun.d[wa].ra.zi* ‘urrunduarazi’ (AE-2001-GS-8H-1), *[aj].tu.naiz* ‘ahitu naiz’ (AE-2001-GS-ge-3), *pa.rre.[aj]* ‘barreari’ (AE-2001-GS-8tx-3), etab. Adibide gutxi batzuk besterik ez dira, baina bertsolariak behar duenean baliabide gisa darabil 2001ean (ere).

Aditz jokatuetakoko bokal bilkuretan /e/ bokala kentzen du Egañak hainbatetan, beharren arabera txandakatuz forma laburtuak eta laburtu gabeak: *da.gon.ze.a.ro* ‘dagoen zeharo’ (AE-2001-GS-ha), *e.za.gu.tu.nun* ‘ezagutu nuen’ (AE-2001-GS-ge-1), *a.ter.tzen.du.ne.an* ‘atertzen duenean’ (AE-2001-AS-ptk-2), *da.go.na* ‘dagoena’ (AE-2001-AS-ge-1), etab. Genitiboa (NOREN) erabiltzean ere, komeni gisa ahoskatu edo kentzen du -re- morfema-markan: *be.ti.glo.ri.an* ‘beti

gloriaren' (AE-2001-GS-6mtz-1), *o.ron* 'ororen' (AE-2001-GS-ge-1), *ne.re.an.dre.an* 'nire andrearen' (AE-2001-GS-ge-3), *ai.tan* 'aitaren' (AE-2001-AS-ge-1), etab.

Bestelako askotariko kenketak ere gauzatzen ditu, goiko taulan ikus daitekeen bezala. Jasotako adibide batzuk bertsolariaren hizkeran dauden formak dira beharbada (*le.nen* 'lehenen', AE-2001-GS-6mtz-1; *zu.len.bi.zi.ko.al.diz* 'zu lehenbiziko aldiz', AE-2001-AS-10tx-1; *le.nen.go.neu.as.te.a* 'lehenengo neu hastea', AE-2001-AS-ptk-5), eta aldiro horrela darabiltza. Beste batzuk bere hizkeran edo besteren batean erabili eta hiztunak ezagutzen dituen formak dira, eta beharren arabera baliatzen du forma bat edo beste. Gorago aipatutako aditz jokatu edo genitibo-markaz gain, bestelako hauek ere multzo horretan sar genitzake: *do.nos.tik.de.ne.tik.du* 'Donostiak denetik du' (AE-2001-GS-pe2) —baina *do.nos.ti.a.ra.tzen* 'Donostiaratzen' (AE-2001-GS-pe4), *o.ri.li.tza.ke.ne.re* 'hori litzateke nire' (AE-2001-AS-ge-3) —baina *o.ri.ez.li.tza.te.ke* 'hori ez litzateke' (AE-2001-AS-ptk-3)—, *o.tza.kin* 'hotzarekin' (AE-2001-BB-8tx-1) —baina *gri.pe.a.re.kin* (AE-2001-GS-ha)—, *ba.ten* 'batean' (AE-2001-BB-8tx-1) —baina *gau.za.ba.te.an* (AE-2001-BB-Ip-2)—, etab.

Aurkeztutako adibide gehienetatik ondoriozta daitekeenez, kenketak sarri morfonologiarekin daude lotuta eta ezin da, horrela, bilakabide fonologikoez hitz egin gehienetan. Gertakari bakoitza sakonago aztertu beharko litzateke ondorio sendoak atera ahal izateko.

(L2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea baina modu jarraituan ahoskatzea [V# #V → V.V] (hiatoa).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

pi.lo.to.oi.ek 'piloto horiek' (AE-2001-GS-ha), *ta.e.rru.ti.na* '(e)ta errutina' (AE-2001-GS-8H-1), *gu.re.e.txeko* 'gure etxeko' (AE-2001-GS-8H-1), *bes.te.a.tso.en* 'beste atsoen' (AE-2001-GS-8H-1), *ai.ai.tona* 'ai, aitona' (AE-2001-GS-8tx-2), *be.gi.en.tza.ko.a.ze* 'begientzako a zer' (AE-2001-GS-pe1), *oi.u.e.ta* 'oihu eta' (AE-2001-GS-pe2), *bes.te.la.e.san* 'bestela esan' (AE-2001-GS-6mtz-1), *be.gi.au.rre.an* 'begi aurrean' (AE-2001-GS-ge-1), *bi.zi.e.ta.sen.ti.tu.bai* 'bizi eta sentitu bai' (AE-2001-GS-ge-1), *bi.zi.tza.e.re* 'bizitza ere' (AE-2001-GS-ge-2), *le.on.kas.ti.llo.da.e.ta* 'león-castillo da eta' (AE-2001-GS-ge-2), etab.

Bestelako joerak ageri dituzten adibideak:

Gorago jaso ditut hitz arteko bokal elkarketa silaba heterosilabikoetan gauzatuta, etenak bananduta silabatzen diren (goizeko saioko) adibideak, modu jarraituan ahoskatutakoak baino gehiago direnak (hirukoitza, gutxi gorabehera).

Hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoez ari garela, modu jarraituan ahoskatzen ditu Egañak 2001ean ere batzuetan, etenaz banatutako kasuak diren arren joera nagusi: *bes.te.la.e.san* ‘bestela esan’ (AE-2001-GS-6mtz-1), *be.gi.au.rre.an* ‘begi aurrean’ (AE-2001-GS-ge-1), *bi.zi.e.ta.sen.ti.tu.bai* ‘bizi eta sentitu bai’ (AE-2001-GS-ge-1), *bi.zi.tza.e.re* ‘bizitza ere’ (AE-2001-GS-ge-2), etab.

(L3) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak birsilabatzea, silaba bakarrean ahoskatuta [V# #V → .(C)V(V)(C).] (lizentzia metrikoetan **sinalefa** gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (guztiak):

go.go.rrae.gin.du ‘gogorra egin du’ (AE-2001-GS-8tx-3),
kon.txal.de.guz.ti.a ‘Kontxa alde guztia’ (AE-2001-GS-pe-1),
gau.zae.de.rrak.ma.dri.len ‘gauza ederrak Madrilen’ (AE-2001-GS-pe-4),
*ne.r[**ej**].kas.le.bat* ‘nire ikasle bat’ (AE-2001-GS-ge-1),
tae.ra.ba.ki.a ‘(e)ta erabakia’ (AE-2001-GS-ge-3),
bes.te.zer.ba.ño.le.na.go ‘beste ezer baino lehenago’ (AE-2001-AS-ha),
*kas.ti.ll[**aj**].le.on* ‘Castilla y León’ (AE-2001-AS-ha),
*au.ke.ra.ja.rr[**je**]z.ke.ro* ‘aukera jarritz gero’ (AE-2001-AS-ptk-3),
tae.rri.an. ‘as.ke ‘ta herrian aske’ (AE-2001-AS-ge-1),
tao.rre.ta.ra.ko ‘ta horretarako’ (AE-2001-AS-ge-1),
*gu.r[**ew**].tsu.ne.a* ‘gure hutsunea’ (AE-2001-BB-ip-3),
pos.ta.lael.du.da ‘postala heldu da’ (AE-2001-BB-ge-2),
*lei.o.r[**aj**]r.ten.da* ‘leihora irtenda’ (AE-2001-BB-ge-2).

Sinalefarik gabeko adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen ez diren hiato adibideak, gehiago direnak.

Egañak, 2001eko Bertsolari Txapelketan Nagusian, sinalefa darabil noizean behin; hamahiru adibide jaso ditut 41 bertsoan: *go.go.rrae.gin.du* ‘gogorra egin du’ (AE-2001-GS-8tx-3), *kon.txal.de.guz.ti.a* ‘Kontxa alde guztia’ (AE-2001-GS-pe-1), *gau.zae.de.rrak.ma.dri.len* ‘gauza ederrak Madrilen’ (AE-2001-GS-pe-4), *ne.r[**ej**].kas.le.bat* ‘nire ikasle bat’ (AE-2001-GS-ge-1), etab. Askotariko bokal elkaletak agertzen dituzte adibideek: bokal beraren bakuntzeak (*bes.te.zer.ba.ño.le.na.go* ‘beste ezer baino lehenago’, AE-2001-AS-ha), goranzko diptongoak

(*au.ke.ra.ja.rr[je]z.ke.ro* ‘aukera jarriz gero’, AE-2001-AS-ptk-3), beheranzko diptongoak (*lei.o.r[aj]r.ten.da* ‘leihora irtenda’, AE-2001-BB-ge-2), /a/ + /e/ gisako bokal “osoen” bilkurak (*pos.ta.lael.du.da* ‘postala heldu da’, AE-2001-BB-ge-2), etab. Sinalefa ez da neurria betetzeko bertsolariak darabilen baliabide nagusia, baina lan honetan aztertutako Egañaren txapelketen artean (1993, 1997, 2001, 2005), kantatutako bertsoekiko proportzioan sinalefa gehien darabiltzana da 2001ekoa.

(L4) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean, silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#. #V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-a egitea hitzen arteko muga urtuz; hots katea birsilabatzea CV egiturarantz.

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

ni.ke.zin.go.dut ‘nik ezingo dut’ (AE-2001-GS-8H-1),
nai.zas.pal.di.an ‘nahiz aspaldian’ (AE-2001-GS-8H-1),
o.rain.di.ke.re.ba.de.tain.bes.te ‘oraindik ere badut hainbeste’ (AE-2001-GS-8H-3),
in.da.rro.ri.ba.l.din.ba.nu ‘indar hori baldin banu’ (AE-2001-GS-8H-3),
e.zal.da.tris.te.a ‘ez al da tristea’ (AE-2001-GS-8tx-3),
e.ta.tau.la.re.nor.dez ‘eta taularen ordeztu’ (AE-2001-GS-8tx-4),
e.me.ne.tzen ‘hemen ez zen’ (AE-2001-GS-pe-3), *zeu.ke.re* ‘zeuk ere’ (AE-2001-GS-6mtz-2),
e.zal.da ‘ez al da’ (AE-2001-GS-6mtz-2),
o.ra.ñar.te.an ‘orain artean’ (AE-2001-GS-ge-1),
nik.ze.rre.gin.be.ar.dut ‘nik zer egin behar dut’ (AE-2001-GS-ge-1),
ze.rre.gin.go.det ‘zer egingo dut’ (AE-2001-GS-ge-2),
bein.be.a.rre.ta.ba.na.tu ‘behin behar eta banatu’ (AE-2001-GS-ge-3),
a.la.re.nik.neu.kar.tu ‘halere nik neuk hartu’ (AE-2001-GS-ge-3), etab.

Liaisonik ez duten adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-ik egiten ez duten adibideak (eta bilakabidearen deskribapena). Egañaren 2001eko kasuan, *liaison*-a duten kasuak gutxiago dira etenez banatutakoak baino.

Fortitioen atalean aurreratu bezala, hitz arteko C# #V elkarketak birsilabatzea ohikoa da Egañaren 1997ko bertsoen silabatzean; testuinguru horretan nahiko parekatuta daude hitzak banatuta eta birsilabatuta ahoskatzea. *Liaisona* egiteak hots katearen antolakuntza CV egiturarantz lerratzen du, orain artean hainbatetan esan bezala: *ni.ke.zin.go.dut* ‘nik ezingo dut’ (AE-2001-GS-

8H-1), *nai.zas.pal.di.an* ‘nahiz aspaldian’ (AE-2001-GS-ha), *o.rain.di.ke.re.ba.de.tain.bes.te* ‘oraindik ere badut hainbeste’ (AE-2001-GS-8H-3), *in.da.rro.ri.bal.din.ba.nu* ‘indar hori baldin banu’ (AE-2001-GS-8H-3), etab.

Bertsoak errepika duenean, azken puntua —edo beste punturen bat— bi aldiz kantatzen denean, batzuetan lehen aldia hitzak elkarrengandik banatuta kantatzen ditu Egañak, eta bigarren aldiz errepikatzean, hots katea birsilabatuta. Buruz burukoan *Iparragirre abila dela* doinuan kantatutako ofizioko lehen bertsoan, adibidez, azken puntua lehen aldiz honela kantatzen du: *ne.re.se.me.a.ke.tzu.en.‘i.zan / au.ke.ra.tze.ri.kan.‘e.re* ‘nire semak ez zuen izan aukeratzetik ere’ (AE-2001-BB-1p-1, lehen aldiz kantatzean). Errepikatzean, berriz, hitzen arteko mugak urtuz, horrela: *ne.re.se.me.a.ke.tzu.e.ni.zan / au.ke.ra.tze.ri.ka.ne.re* (AE-2001-BB-1p-1, errepikan).

Egañaren kasuan, 2001ean ere, badira alderantzizko norabidean gauzatutako adibideak ere. Goizeko saioan, gaia emanda kantatutako hirugarren bertso amaieran, hots katea lehenengoz birsilabatuta ekoizten du (*a.la.re.nik.neu.kar.tu* ‘halere nik neuk hartu’, AE-2001-GS-ge-3, lehen aldiz kantatzean). Ondoren, adierazpen bera bigarren aldiz kantatzean, berrespen enfatiko gisa-edo, hitzak bereiz segmentatzen ditu katean: *a.la.re.nik.neuk.ar.tu* ‘halere nik neuk hartu’, AE-2001-GS-ge-3, errepikan).

(L5) Kontsonante bilkura heterosilabikoen asimilazio eta kenketa batzuk, hitz artean⁶⁰⁵.

L.5.1. Klase bereko kontsonante elkarketa heterosilabikoetan, bi kontsonanteetako bat asimilatu edota kentzea (elkarketa bakunduz).

Corpuseko adibide batzuk:

Sudurkari bilkura bakuntzea: *on.do.a.neu.o.re.ka.tu* ‘ondoan neu orekatu’ (AE-2001-GS-ge-3), *o.e.a.nai.nu.ke.sar.tu* ‘ohean nahi nuke sartu’ (AE-2001-GS-ge-3), *e.gi.nai.nu.ke* ‘egin nahi nuke’ (AE-2001-AS-ge-1),

Herskari bilkurako osagaien tasunen bat(zuk) asimilatzea: *zuk.pe.na.e.ta.ni[γ].da.mu* ‘zuk pena eta nik damu’ (AE-2001-GS-8H-3), *do.nos.ti[γ].de.ne.ti[γ].[ð]u* ‘Donostiak denetik du’ (AE-2001-GS-pe2),

Nahitaezko ez den bilakabidea. Kenketa garbirik gabeko adibide batzuk:

Sudurkariak: *e.nu.en.nai* ‘ez nuen nahi’ (AE-2001-GS-ge-1), *e.gin.nai.nu.ke* ‘egin nahi nuke’ (AE-2001-AS-ge-2), *bi.de.a.zein.dan.nik.neuk.be.de.ren* ‘bidea zien den nik neuk bederen’ (AE-

605 Aurkeztutako bilakabideaz gain, ozen ondoko herskari ahoskabeen ahostuntze adibideak ere badaude, besteak beste, Egañaren 2001eko silabatzean: *au.rre.ti.kai.ta.nu.en.da* ‘aurretik aita nuen (e)ta’ (AE-2001-AS-ge-1).

2001-AS-ge-3), etab.

Herskariak: *u.ler.tzen.du*[t^e].*de.na* ‘ulertzen dut dena’ (AE-2001-GS-8tx-1),
[kha].*ra.ko.la(k).pa.rrez.ka* ‘karakolak barrezka’ (AE-2001-GS-8tx-2), etab.

L.5.2. ‘Ez’ hitz kodako txistukari ahoskabearen ondorengo herskari ahostuna ahoskabetzea⁶⁰⁶:

Corpuseko adibide batzuk:

ez.tet.ja.san.go ‘ez dut jasango’ (AE-2001-GS-8H-2), *ez.ta.kit.ber.din* ‘ez dakit berdin’ (AE-2001-GS-6mtz-1), *ez.tu.me.re.zi* ‘ez du merezi’ (AE-2001-GS-6mtz-3), *ez.ta.kal.te.ra.ko* ‘ez da kalterako’ (AE-2001-AS-ptk-4), *ka.ba.lle.ro.ba.tez.ta* ‘caballero bat ez da’ (AE-2001-AS-ptk-6), *nik.be.de.re.nez.tau.kat* ‘nik bederen ez daukat’ (AE-2001-AS-ptk-7), *ez.te.gu.lor.tu* ‘ez dugu lortu’ (AE-2001-AS-ge-1), *ez.tut* ‘ez dut’ (AE-2001-AS-ge-3), *ez.tet.pe.tsa.tzen* ‘ez dut pentsatzen’ (AE-2001-BB-Ip-3), etab.


Herskaria ahoskabetu gabeko kasuak: *u.ler.tu.ez.dut* (AE-2001-GS-ge-1).

Egañak batzuetan hitz arteko klase bereko kontsonante bilkura heterosilabikoak ahultzen ditu, lehen hitzeko kodan dagoen kontsonantea asimilatuz edo kenduz, gehienetan. Sudurkari elkarketetan, esaterako, silaba kodan dagoen lehen hotsa kendu egiten du, hots katea CV egitura oinarrizkorantz hurbilduz: *e.nu.en.nai* ‘ez nuen nahi’ (AE-2001-GS-ge-1), *e.gin.nai.nu.ke* ‘egin nahi nuke’ (AE-2001-AS-ge-2), *bi.de.a.zein.dan.nik.neuk.be.de.ren* ‘bidea zien den nik neuk bederen’ (AE-2001-AS-ge-3), etab. Ikus ondorengo espektrograma, esaterako:

606 ‘Ez’ morfemari lotutako erregela gehiago ere badira Egañaren 2001eko silabatzean. Nagusiki ondorio indartzailea duen ondokoa:


- Bi frikari txistukari gauzatzen direnean elkarren segidan bat kendu eta bestea afrikatzea: *e.me.ne.tzen* ‘hemen ez zen’ (AE-2001-GS-pe3), *e.tza.ren* ‘ez zaren’ (AE-2001-GS-6mtz-1), *pro.ba.tu.ta.e.tze.ra* ‘probatuta ez zara’ (AE-2001-AS-ptk-7), *ne.re.se.me.a.ke.tzu.en* ‘nire semeak ez zuen’ (AE-2001-BB-Ip-1), *e.tzai.taz.tu.ko* ‘ez zait ahaztuko’ (AE-2001-BB-Ip-2), etab.

145. irudia: Espektrograma. *e.gi.nai.nu.ke* ‘egin nahi nuke’ (AE-2001-AS-ge-1)




Hots kate bera, bertsoaldi berean, baina hurrengo bertsoan, sudurkari bilkura bakundu gabe gauzatzen du, gertakariaren aldakortasuna agerian utziz: *e.gin.nai.nu.ke* ‘egin nahi nuke’ (AE-2001-AS-ge-2). Jarraian jaso dut adibide horren espektrograma ere, bi kasuak alderagarri izan daitezten. Azken kasu honetan, bi sudurkariak jarraian ahoskatzen ditu eta, hala, hots bakarra dagoela pentsa daiteke, baina bi irudiak alderatuta ikus daiteke azken honetan sudurkariak ahoskatzeko tartea handiagoa dela. Hautemateari erreparatuta, lehen adibidean sudurkari bakarra sumatzen da; bigarrean, berriz, modu jarraituan ahoskatutako bi:

146. irudia: Espektrograma. *e.gin.nai.nu.ke* ‘egin nahi nuke’ (AE-2001-AS-ge-2).




Herskari elkarketetan, berriz, hotsak elkarren antzekoago egiten dira, herskari ahoskabe + herskari ahostun bilkuran, batzuetan, lehenengo herskaria ahostunduz. Inoiz herskariak igurzkaritu ere egiten dira. Gertakari horien adibide argia da ondokoa: *do.nos.ti[ɣ].de.ne.ti[ɣ].[ð]u* ‘Donostiak denetik du’ (AE-2001-GS-pe2). Ikus jarraian espektrograma:

147. irudia: Espektrograma. *do.nos.ti[ɣ].de.ne.ti[ɣ].[ð]u* ‘Donostiak denetik du’ (AE-2001-GS-pe2).




Herskari elkarketen ahultze adibide argiak ez dira asko, joera orokor gisa Egañak bi hotsak ahoskatzen baititu. Ondoko espektrogrametan azter daitezke horrelako kasu batzuk:

148. **irudia:** Espektrograma. *u.ler.tzen.du.[t^ɛ].de.na* ‘ulertzen dut dena’ (AE-2001-GS-8tx-1).



149. **irudia:** Espektrograma. *[k^ha].ra.ko.la(k).pa.rrez.ka* ‘karakolak barrezka’ (AE-2001-GS-8tx-2)



Bestalde, ezeztapenaren (*ez*) ondoren herskari ahostunez hasitako aditz jokatua dagoenean, hitz hasierako herskaria ahoskabetzen du, ia salbuespen gabe: *ez.tet.ja.san.go* ‘ez dut jasango’ (AE-2001-GS-8H-2), *ez.ta.kit.ber.din* ‘ez dakit berdin’ (AE-2001-GS-6mtz-1), *ez.tu.me.re.zi* ‘ez du merezi’ (AE-2001-GS-6mtz-3), *ez.ta.kal.te.ra.ko* ‘ez da kalterako’ (AE-2001-AS-ptk-4), etab.

Erregela horren ondorioz, hots kateko segmentuak elkarren antzekoago egiten dira (ahoskagarriago) eta, era berean, bigarren silabaren —aditzaren— ekina indartzen da herskari ahoskabeaz.

7.3. Neurria betetzeko baliabide foniko nagusiak

Egañak hizketa katea oinarri metrikoarekin uztartzeko hainbat baliabide foniko darabiltza 2001eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean:

- Nabarmenena **hiatoa** da. Esate baterako: *bi.ok.ber.din.tsu.‘aur.ki.tzen.ge.ra* ‘biok berdintsu aurkitzen gara’ (AE-2001-GS-8H-3), *zuk.pe.na.‘e.ta.nik.da.mu* (AE-2001-GS-8H-3), *ze.‘i.ru.di.me.na* ‘zer irudimena’ (AE-2001-GS-8tx-1), etab. Joera hau nagusitzat har daiteke Egañaren bertsoetako txertatze prosodikoan, hitz arteko bokal elkarketak etenaz ahoskatuz sarri, modu jarraituan baino gehiagotan. Sinalefa gutxi batzuk egiten ditu, hitz arteko bokal elkarketak silaba bakarrean (bir)silabatuz, aurreko txapelketetan baino gehiago (bertso gehiago direla kontuan harturik): 13 adibide 41 bertsotan. Horrez gain, L1 puntuan jaso ditut hainbat sineresi kasu ere (hitz barneko desilabagiletzeak), 1997ko joera bera agertuz: *u.rrun.d[wa].ra.zi* ‘urrunduarazi’ (AE-2001-GS-8H-1), *[aj].tu.naiz* ‘ahitu naiz’ (AE-2001-GS-ge-3), *pa.rre.[aj]* ‘barreari’ (AE-2001-GS-8tx-3), *goa.zen* (AE-2001-BB-Ip-3).
- **Kenketa** aipatu behar da, 2001ean ere, Egañaren lizentzia metriko nagusi gisa. Aditz jokatuetakoko bokal bilkuretako /e/, adibidez, kendu egiten du behar metrikoen arabera: *da.gon.ze.a.ro* ‘dagoen zeharo’ (AE-2001-GS-ha), *e.za.gu.tu.nun* ‘ezagutu nuen’ (AE-2001-GS-ge-1), *a.ter.tzen.du.ne.an* ‘atertzen duenean’ (AE-2001-AS-ptk-2), *da.go.na* ‘dagoena’ (AE-2001-AS-ge-1), etab. Edo genitibo markak (NOREN) duen *-(r)e-* gauzatu edo ez neurriak baldintzatzen duela dirudi: *be.ti.glo.ri.an* ‘beti gloriaren’ (AE-2001-GS-6mtz-1), *o.ron* ‘ororen’ (AE-2001-GS-ge-1), *ne.re.an.dre.an* ‘nire andrearen’ (AE-2001-GS-ge-3), *ai.tan* ‘aitaren’ (AE-2001-AS-ge-1), etab. Silabak galdutako bestelako formak ere badarabiltza: *ger.ta.li.te.ken* ‘gerta litekeen’ (AE-2001-GS-8H-2), *za.rra.ze.ra* (AE-2001-GS-8H-3), *do.nos.tik.de.ne.tik.du* ‘Donostiak denetik du’ (AE-2001-GS-pe2) —baina *do.nos.ti.a.ra.tzen* (AE-2001-GS-pe4), *le.nen* ‘lehenen’ (AE-2001-GS-6mtz-1), *pa.si.bo.ke.riz* ‘pasibokeriaz’ (AE-2001-GS-ge-2), *al.mo.a.da.kin* ‘almoadarekin’ (AE-2001-GS-ge-3), *gaz.te.ba.tzun.tzat* ‘gazte batzuentzat’ (AE-2001-AS-ha), etab.
- Azkenik, **gehiketak** aipatu behar dira Egañaren baliabide metriko gisa. Gertakari honetan (ere) hizkuntzaren alor morfonologikoa sartzen da bete-betean, erregelen ondorio diren txandakatzeak edo hizkera desberdinetan baliatutako formak erabiltzen baititu bertsolariak

komeni gisa, neurria egoki betetzeko, kenketadun adibide askotan bezalaxe. Gehiketen eremuan ablatiboa (NONDIK) eta partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/-(r)ik* eta *-tikan/-(r)ikan* formen arteko txandakatzea aipa daiteke, nagusiki, 2001eko txapelketako bertsoetan: *zer.ga.ti.kan* ‘zergatik’ (AE-2001-GS-6mtz-1), *or.ti.kan.sor.tu* ‘hortik sortu’ (AE-2001-GS-6mtz-2), *ar.bo.la.ti.kan* ‘arbolatik’ (AE-2001-GS-6mtz-3), *len.di.kan.nen.go.en* ‘lehendik nengoen’ (AE-2001-AS-ptk-1), *a.tu.rri.ti.kan* ‘Aturritik’ (AE-2001-AS-ge-1), *or.ta.ti.kan* ‘hortatik’ (AE-2001-BB-8tx-3), *au.ke.ra.tze.ri.kan* ‘aukeratzerik’ (AE-2001-BB-1p-1), etab.—baina *bein.go.a.ga.tik* ‘behingoagatik’ (AE-2001-AS-ge-1) (ez *behingoagatikan*), *ar.ga.tik* ‘hargatik’ (AE-2001-BB-ge-3) (ez *hargatikan*), etab.—.

7.4. Joera nagusiak laburbilduz

Andoni Egañak 2001eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoen silabatzean fokua jarririk, esan daiteke 1993ko eta 1997ko txapelketetan bezala, bertsolariarengan elkarrekintzan daudela modu nahiko agerikoan fonologiaren egituratzean parte hartzen duten elkarren aurkako bi “indarrak”: oharmen argitasuna eta ahoskera erraztasuna.

Batetik, hots katearen alor “fortitiboen” artean koka daitezke hitz arteko bokal bilkurak banatuz edo *liaisona* ekidinez eginiko eten laburrak, hitz eta sintagmen eremuak mugatuz, baita modu argian asimilatu edo soildu gabeko hitz arteko kontsonante bilkurak ere. Hizketaren alderdi segmentala eta eremu prosodikoak indartzen eta markatzen dituen joera horien kontra, esanguratsua da, bestalde, orain arte aztertutako beste bertsolari batzuegan gauzatzen diren beste *fortitio* batzuk apenas daudela presente: hasperena, “makulu-silaba” deiturikoa, bokal arteko herskariak edo bokal aurreko zein bokal arteko /i/-ren kontsonantetzea.

Joera “kohesiogile” edo ahultzaileen artean, hitz barneko desilabagiletze eta kenketadun formak aipatu behar dira, modu jarraituan ahoskatutako hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak, hitz arteko muga urtuta gauzatutako birsilabatzeak (*liaisona*) eta kontsonante bilkuren —batez ere silaba kodan dauden kontsonanteen— asimilazio eta bakuntzeak, Egañaren 2001eko silabatzean (ere) hautu nagusiak ez diren arren. Gertakariok sarri dute ondorio gisa hots katearen silabatzea oinarrizko CV egiturarantz hurbiltzea. Jasotako joerekin erraz ulertzen dira silaba-egituren maiztasunak aztertzean ateratako datuak; silaba-ekina indartzen duten egiturak %80 izatea, eta silaba irekiak, %70a baino gehiago. Egañaren kasuan joera indartzaileek ez dakarte berez CVrantzko lerratzerik, baina euskararen beraren hitzek, hots katearen ezaugarriek, antolakuntza fonologikoak, ahalbidetzen dute hori hein handi batean abiapuntu gisa.

Aipatutako gertakari eta joerek lizentzia metrikoen erabileran ere badute eragina: ahal dela hitz bakoitzari bere silabatze propioa eskaintzen dio Egañak (hiatoa), hitz edo sintagmaka segmentatuz hots katea joera nagusi gisa. Edonola ere, ez du *liaisona* gauzatzeko arazorik eta hainbatetan urtzen ditu hitz arteko mugak. Sinalefa aurreko txapelketetan baino gehixeago darabil, (13 sinalefa egiten ditu 41 bertsoetan). Kenketa da, aldakortasun morfonologikoari lotuta, batez ere, neurria betetzeko baliabide nagusia, seguru asko.

8. Andoni Egaña (2005)

8.1. Silaben egiturak eta horien maiztasunak

Egañaren 2005eko txapelketako finaleko bertsoetako silabak aztertuta, ondokoak dira bertsolariak ekoizitako silaben egiturak, bakoitzetik zenbatu den silaba-kopurua eta orotara ahoskatutako silabekiko proportzioa (maiztasuna):

15. taula: 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Andoni Egañak ekoizitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	2072	%60,71
CVC	643	%18,84
V	443	%12,98
VC	222	%6,50
CCV	21	%0,62
CCVC	6	%0,18
CVCC	5	%0,15
VCC	1	%0,03
	Guztira: 3413	
Silaba irekiak denetara:		%74,31
Silaba itxiak denetara:		%25,69

Taulan ikus daitekeenez, Egañaren silabatzean CV egitura da nagusi, egiturarik oinarrizkoena (%60,71). Horren ondoren, CVC silaba-egitura baliatzen du maizen bertsolariak (%18,84). Silaba ekina indartzen duten egiturak %80ra heltzen dira (%80,5), nahiz eta esan behar den ekinean kontsonante bat baino gehiago gauzatzea ez dela batere ohikoa Egañarentzat; CCV (%0,62) eta CCVC (%0,18) egiturak ez dira ekoizitako silaben %1era heltzen. CVC egituraren ondoren, V

bokalez (edo diptongoz) soilik osatutako silabek dute maiztasunik altuena: %12,98, eta VC egitura legoke ondoren (%6,50). Agerpen gutxi batzuk besterik ez dituzte, orain arte aipatutako CCV eta CCVC egiturekin batera, CVCC (%0,15) eta VCC (%0,03) silaba-motek. Silaba-ekinean eta kodan kontsonante bat baino gehiago ahoskatzea Egañarentzat ezohikoa dela esan daiteke horrela.

Datuei bestela begiratuta, silaba irekiek egitura guztien %74,31 osatzen dute. Itxiek, berriz, %25,69.

8.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko segmental nagusiak

Ondokoak dira Egañak 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoetan baliatutako silabatze-joerak eta silaba-egitura eta silabatzea baldintzatzen duten bere bilakabide fonologiko nagusiak:

8.2.1. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko indartzaile (*fortitio*) nagusiak

(F1) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea eta etenaz banatzea

[V# #V → V.‘V] (lizentzia metrikoetan hiato gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

o.nun.tza.e.tor.tze. ‘*u.tsa* ‘honuntza etortze hutsa’ (AE-2005-GS-ha),

e.zal.da.nai.ko. ‘*a.zer.tu* ‘ez al da nahiko(a) azertu’ (AE-2005-GS-ha),

bi.ar.ko. ‘*eus.ka.le.rri.a* ‘biharko Euskal Herria’ (AE-2005-GS-ha),

ba.ña. ‘*i.ño.zo.a*. ‘*e.naiz* ‘baina inozoa ez naiz’ (AE-2005-GS-ha),

se.gu.ru. ‘*as.ko*. ‘*ezta*. ‘*i.zan.go* ‘seguru asko ez da izango’ (AE-2005-GS-8H-1),

as.to.a.re.na. ‘*e.gi.ñez* ‘astoarena eginez’ (AE-2005-GS-8H-1),

a.si.e.ra.ko. ‘*el.bu.ru*. ‘*o.ro* ‘hasierako helburu oro’ (AE-2005-GS-8H-2),

ne.re. ‘*i.ri.tziz* ‘nire iritziz’ (AE-2005-GS-8H-2),

nai.ze.ta. ‘*ez.te.gun.be.te* ‘nahiz eta ez dugun bete’ (AE-2005-GS-8H-2),

er.di. ‘*i.pur.di* ‘erdipurdi’ (AE-2005-GS-8H-3),

e.ta. ‘*or.du.au.e.tan* ‘eta ordu hauetan’ (AE-2005-GS-8tx-1),

e.ta. ‘*i.tzul.zai.te* ‘eta itzul zaitez’ (AE-2005-GS-8tx-3),

bi.a.rre.naiz.jei.ki.ko. ‘*i.ru.ter.di.kar.te* ‘bihar ez naiz jaikiko hiru eta erdiak arte’ (AE-2005-GS-8tx-3),

ei.te.ko.a. 'e.gi.ña 'egitekoa egina' (AE-2005-GS-8tx-3),
ta. 'o.e.ra.buel.ta '(e)ta ohera buelta' (AE-2005-GS-8tx-4),
no.la.ko. 'a.pe.ta 'nolako apeta' (AE-2005-GS-8tx-4),
nex.ka.ba.ti. 'es.ka.tu 'neska bati eskatu' (AE-2005-GS-pe-2),
u.ra. 'az.ten.ber.nar.do. 'ez.ta.go.e.rra.za 'hura ahazten, Bernardo, ez dago erraza' (AE-2005-GS-pe-2),
i.xi.pu. 'e.rro.sa.jo 'isipu, errosario' (AE-2005-GS-10tx-1),
ajn.bes.te. 'o.mi.li.a 'hainbeste homilia' (AE-2005-GS-10tx-2),
ta. 'ain.bes.te.pa.ke '(e)ta hainbeste bake' (AE-2005-GS-10tx-2),
i.ru.lau. 'atake 'hiru-lau atake' (AE-2005-GS-10tx-2),
naiz.ta.gu.re.a. 'i.zan 'nahiz eta gurea izan' (AE-2005-GS-10tx-3),
fe.de. 'e.rre.su.ma 'fede erresuma' (AE-2005-GS-10tx-3),
ne.re. 'al.dar.te 'nire aldarte' (AE-2005-GS-ge-1),
be.ti.le.e.na. 'i.zan.da.ko.au 'beti lehena izandako hau' (AE-2005-GS-ge-1),
el.bu.ru. 'e.ta 'helburu eta' (AE-2005-GS-ge-2), *ne.re. 'o.lin.po* 'nire Olinpo' (AE-2005-GS-ge-2),
sen.ti.tu.det.ta. 'a.la.re 'sentitu dut (e)ta halere' (AE-2005-GS-ge-2),
us.te. 'i.no.la 'uste inola' (AE-2005-GS-ge-3), *er.di. 'e.tsi.ri.kan* 'erdi etsirik' (AE-2005-GS-ge-3),
gu.re.a. 'ez.ta 'gurea ez da' (AE-2005-GS-ge-3), *e.ta. 'o.rre.kin* 'eta horrekin' (AE-2005-GS-ge-3),
mal.ko. 'u.jo.la 'malko uhola' (AE-2005-GS-ge-3),
ai.ta. 'ez.ti.o. 'a.jo.la 'aita ez dio axola' (AE-2005-GS-ge-3), etab.

Nahitaezkoa ez den joera. Bestelako joerak ageri dituzten corpuseko adibideak:

Aurrerago jaso ditut modu jarraituan ahoskatzen diren hitz arteko bokal elkarketa adibideak, aire-etorria eten gabe gauzatutakoak. Etenaz banatutako hitz arteko bokal elkarketa kasuak gehiago dira modu jarraian ahoskatutakoak baino (bikoitza baino gutxiago, halere).


Aurrerago jaso ditut, era berean, testuinguru berean **birsilabatzen diren sinalefa adibideak**.

2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean (ere), bertso-neurriaren egitura orokorra adierazten duten egiturazko etenez gain, eten artikulatorio laburragoak egiten ditu Egañak hitz eta sintagma artean. Horietako asko hitz mugan lehen hitza bokalez amaitu eta hurrengo hitza ere bokalez hasten denean gauzatzen ditu, bokal bilkura ekidinez hitz artean (V#.#V). Txapelketa honetan ere, sarri bertso-egituratik uler daitezke eten horiek. Esate baterako, molde handiko bertsoetan —puntua 10+8 silabaz osatzen denean— hemistikioa bitan banatzen duen etena izan

daiteke bokal artean gauzatutakoa: *be.ti.le.e.na.‘i.zan.da.ko.au* ‘beti lehena izandako hau’ (AE-2005-GS-10tx-3), *gu.ru.tzil.tza.tu.‘e.gi.nau.te.len* ‘gurutziltzatu egin naute lehen’ (AE-2005-AS-ha), *al.ba.da.go.zo.‘e.ta.lu.ze.a* ‘ahal bada gozo eta luzea’ (AE-2005-AS-6mtz-3), etab. Oina (errima daraman hitza) ere mugatu ohi du Egañak sarri (jarraian emaniko adibide bakoitzean, azken hitza da oina): *e.zal.da.nai.ko.‘a.zer.tu* ‘ez al da nahiko(a) azertu’ (AE-2005-GS-ha), *as.to.a.re.na.‘e.gi.ñez* ‘astoarena eginez’ (AE-2005-GS-8H-1), *no.la.ko.‘a.pe.ta* ‘nolako apeta’ (AE-2005-GS-8tx-4), *lau.‘atake* ‘lau atake’ (AE-2005-GS-10tx-2), *fe.de.‘e.rre.su.ma* ‘fede erresuma’ (AE-2005-GS-10tx-3), etab.

Azkenik, badira arrazoi metriko-musikaletatik ulertzen zail diren kasuak. Horietan bestelako arrazoiak bilatu behar dira: bertsolariaren dikzio argia, oharmen ontasuna helburu, hitzen bat nabarmentzea bertsoan duen esanahiगतिक, perpausaren egitura kantuan ere islatzea, etab. (gai horietan §10. kapitulu sakondu dut). Adibidez: *o.nun.tza.e.tor.tze.‘u.tsa* ‘honuntza etortze hutsa’ (AE-2005-GS-ha), *bi.ar.ko.‘eus.ka.le.rri.a* ‘biharko Euskal Herria’ (AE-2005-GS-ha), *ba.ña.‘i.ño.zo.a.‘e.naiz* ‘baina inozoa ez naiz’ (AE-2005-GS-ha), *se.gu.ru.‘as.ko.‘ezta.‘i.zan.go* ‘seguru asko ez da izango’ (AE-2005-GS-8H-1), *ne.re.‘i.ri.tziz* ‘nire iritziz’ (AE-2005-GS-8H-2), *e.ta.‘or.du.au.e.tan* ‘eta ordu hauetan’ (AE-2005-GS-8tx-1), *ei.te.ko.a.‘e.gi.ña* ‘egitekoa egina’ (AE-2005-GS-8tx-3), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke Egañaren bokal arteko etenetako bat:

150. irudia: Espektrograma. *ei.te.ko.a.‘e.gi.ña* ‘egitekoa egina’ (AE-2005-GS-8tx-3)



Hitz arteko bokal elkarketen aurrean eten laburra gauzatzeko hau har genezake joera nagusi(ago)tzat Egañaren silabatzean, modu jarraituan ahoskatutako hitz arteko bokal elkarketen adibideak ere sarri aurki daitezkeen arren. Era berean, hitz eta sintagmak gehiagotan banatzen ditu

Egañak hitz mugan bokal elkarketa badago; C# #V testuinguruan ere gauzatzen ditu etenak baina gutxiago.

(F2) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-ik ez egitea, hitzen arteko muga ez urtzea (lehen hitzeko kodako kontsonantea(k) ez silabatzea hurrengo silabako ekin hutsean). **Hitz artean hots katea ez birsilabatzea** CV egiturarantz.

Corpuseko adibide batzuk (goizeko saiokoak):

a.tza.par. ‘*e.ta.* ‘*a.gi.ñez* ‘atzapar eta haginez’ (AE-2005-GS-8H-1),

bo.rro.ka.ren. ‘*e.ra.gi.ñez* ‘borrokaren eraginez’ (AE-2005-GS-8H-1),

o.rain.goz. ‘*as.ki.da* ‘oraingoz aski da’ (AE-2005-GS-8H-1),

e.na.go.guz.tiz. ‘*a.lai.a* ‘ez nago guztiz alai’ (AE-2005-GS-8H-3),

ba.lan.tzen. ‘*az.tar.na* ‘balantzen aztarna’ (AE-2005-GS-8tx-1),

da.kar.ki.zun. ‘*a.ma* ‘dakarkizun ama’ (AE-2005-GS-8tx-1),

or.nun.bait. ‘*e.dan.da* ‘hor nonbait edanda’ (AE-2005-GS-8tx-1),

ni.ko.rain. ‘*i.rens.te.ko* ‘nik orain irensteko’ (AE-2005-GS-8tx-4),

ez.kon.tze.a.ren. ‘*al.de* ‘ezkontzearen alde’ (AE-2005-GS-10tx-1),

gi.zar.te.a.re.kin.bat. ‘*e.gi.nai.ba.du.gu* ‘gizartearekin bat egin nahi badugu’ (AE-2005-GS-10tx-1),

ger.tu.ti.kan. ‘*a.si.ta* ‘gertutik hasita’ (AE-2005-GS-10tx-3),

ar.gi.tan. ‘*e.gin.be.ar* ‘argitan egin behar’ (AE-2005-GS-10tx-3),

don.ju.an. ‘*la.gu.na* ‘Don Juan, laguna’ (AE-2005-GS-10tx-3),

le.na.go.ez.ku.tu.an. ‘*e.gi.ten.gen.du.na* ‘lehenago ezkutuan egiten genuena’ (AE-2005-GS-10tx-3),

se.me.ak. ‘*a.te* (AE-2005-GS-ge-1), *e.men.* ‘*e.gu.na* ‘hemen eguna’ (AE-2005-GS-ge-1),

bi.lla.ka.tu.zait. ‘*ur.ka.be* ‘bilakatu zait urkabe’ (AE-2005-GS-ge-2),

e.ne.zen.bat. ‘*a.tse.ka.be* ‘ene, zenbat atsekabe’ (AE-2005-GS-ge-2),

e.tsi.ri.kan. ‘*o.la* ‘etsirik ho(rre)la’ (AE-2005-GS-ge-3),

etab.

Aurkako joera ageri duten adibideak. Aurrerago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-a duten adibideak. Gehixeago dira *liaison*-ik gabeko kasuak, baina elkarren aurkako bi joerak pareko direla esan daiteke.

Aurreko puntuan esan bezala, hitz artean lehen hitza kontsonantez amaitu eta bigarrena bokalez hasten denean, noizean behin eten laburra gauzatzen du Egañak, hitzen arteko mugak urtu eta hots katea birsilabatu beharrean (*liaisona* egin beharrean). Aurreko puntuan aurkeztu bezala, mugatutako eremuak bertso-neurriaren egituratik edo hizkuntzarenetik uler daitezke, baita ahoskera argia bilatzetik ere, beharbada (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz). Neurriari lotuta, hemistikioaren eremua banatzen du batzuetan Egañak eten laburraz (eten luzeagoa gauzatu beharrean⁶⁰⁷): *gi.zar.te.a.re.kin.bat*. ‘*e.gi.nai.ba.du.gu* ‘gizartearekin bat egin nahi badugu’ (AE-2005-GS-10tx-1), *le.na.go.ez.ku.tu.an*. ‘*e.gi.ten.gen.du.na* ‘lehenago ezkutuan egiten genuena’ (AE-2005-GS-10tx-3), etab. Oina ere muga dezake: *ba.lan.tzen*. ‘*az.tar.na* ‘balantzen aztarna’ (AE-2005-GS-8tx-1), *da.kar.ki.zun*. ‘*a.ma* ‘dakarkizun ama’ (AE-2005-GS-8tx-1), *or.nun.bait*. ‘*e.dan.da* ‘hor nonbait edanda’ (AE-2005-GS-8tx-1), etab. Pentsatzekoa da beste kasu batzuetan ahoskera argia bilatzearen, esandako zerbait nabarmentzearen ondorioz, hots katea desanbiguotzeko, etab. baliatzen dituela Egañak etenak: *o.rain.goz*. ‘*as.ki.da* ‘oraingoz aski da’ (AE-2005-GS-8H-1), *ni.ko.rain*. ‘*i.rens.te.ko* ‘nik orain irensteko’ (AE-2005-GS-8tx-4), *ez.kon.tze.a.ren*. ‘*al.de* ‘ezkontzearen alde’ (AE-2005-GS-10tx-1), *ger.tu.ti.kan*. ‘*a.si.ta* ‘gertutik hasita’ (AE-2005-GS-10tx-3), etab.

Goiko taulan aurreratu bezala, hitz arteko C# #V testuinguruan ohikoa da hitzok etenaz banatzea, baina baita hitz mugak urtuz hots katea birsilabatzea ere: *pa.si.llu.a.nu.tzi.ta* ‘pasiloan utzita’ (AE-2005-GS-8tx-1), *kol.pe.ti.ki.ri.tsi.zait* ‘kolpetik iritsi zait’ (AE-2005-GS-8tx-2), *ni.ko.ra.ñau.ja.te.a* ‘nik orain hau jatea’ (AE-2005-GS-8tx-3), *bi.a.rre.naiz.jei.ki.ko* ‘bihar ez naiz jeikiko’ (AE-2005-GS-8tx-3), *i.ru.ter.di.kar.te* ‘hiru eta erdiak arte’ (AE-2005-GS-8tx-3), *ni.ko.rain* ‘nik orain’ (AE-2005-GS-8tx-4), *u.tzi.di.zu.te.ta* ‘utzi dizut eta’ (AE-2005-GS-8tx-4), etab. Elkarren aurkako bi joerak pareko dira adibide kopuruari erreparatuta.

607 Batzuetan metrikak eskatzen dituen taldekatzeak eten laburraz bereizten ditu Egañak, eremuak mugatuz baina etenaren bi aldeetara dauden osagaiak elkarrengandik gertuago gauzatuz. Ikus §10. kapitulua taldekatzearen analisi proposamenerako.

(L1) Hitz barneko segmentu kenketa eta desilabagiletze batzuk.

L.1.1. Desilabagiletzea (sineresia)⁶⁰⁸, besteak beste.

Corpuseko adibideak:

[**ja**].*len.baj.le.ni.ris.ten.zai.gun* '(e)ta ia lehenbailehen iristen zaigun' (AE-2005-GS-8H-3), [**ei**].*te.ko.a. 'e.gi.ña* 'egitekoa egina' (AE-2005-GS-8tx-3), *i.xi.pu. 'e.rro.sa.[jo]* 'isipu, errosario' (AE-2005-GS-10tx-1), *za.rau.tza.joa.naiz* 'Zarautza joan naiz' (AE-2005-GS-ge-3) —baina *ez.jo.an* (AE-2005-GS-10tx-3)—, *e.gin.bea.r.du.gu* 'egin behar dugu' (AE-2005-AS-6mtz-2) —baina *be.ar.li.tza.ke.la* 'behar litzatekeela' (AE-2005-AS-6mtz-3)—, *bue.no.[oj].ra.ez.[oj].ra* 'bueno, ohera ez ohera' (AE-2005-AS-ptk-9) —baina *o.e.ra.buel.ta* 'ohera buelta' (AE-2005-GS-8tx-4)—, *de.kla.ra.tze.ko. 'as.mo.zo.ro.[aj]* 'deklaratzeko asmo zoroari' (AE-2005-AS-ge-3), *ta.e.goe.ra* 'egoera' (AE-2005-BB-10H-1), *laz.kao.txi.ki.ta* 'Lazkao Txiki (e)ta' (AE-2005-AS-ba). [**ej**].*ño.men.du.te* 'egin omen dute' (AE-2005-BB-10H-2), *or.di.z[ja].rra.naiz* 'ordiziarra naiz' (AE-2005-BB-ge-1).

L.1.2. /e/ bokalaren kenketa aditz jokatueta bokal bilkuretan:

Corpuseko adibide batzuk:

gen.dun 'genuen' (AE-2005-GS-8H-3), *gen.du.na* 'genuena' (AE-2005-GS-10tx-3), *a.nu.tzi.ni.tun* 'han utzi nituen' (AE-2005-GS-ge-1), *er.di.tu.gin.dun* 'erditu gintuen' (AE-2005-AS-ba), *do.ble.su.fri.tzen.du.la.ko* 'doble(a) sufritzen duelako' (AE-2005-AS-ba), *a.ri.be.ar.dun* 'ari(tu) behar duen' (AE-2005-BB-ge-3), etab.

Kenketa gabeko corpuseko adibide batzuk: *gai.tu.en* (AE-2005-GS-8H-3), *pa.sa.ge.nu.en* (AE-2005-AS-6mtz-2), etab.

L.1.3. Askotariko silaba kenketak.

Corpuseko adibide batzuk: *len.pa.du.ra.ta.de.ser.tu* 'lehen padura (e)ta desertu' (AE-2005-GS-ha), *bo.ka.di.llo.an* 'bokadiloaren' (AE-2005-GS-8H-3) —baina *ez.kon.tze.a.ren* 'ezkontzearen' (AE-2005-GS-10tx-1)—, *i.ru.ter.di.kar.te* 'hiru eta erdiak arte' (AE-2005-GS-8tx-3), *me.mo.ri* 'memoria' (AE-2005-GS-pe1), *az.ten* 'ahazten' (AE-2005-GS-pe2), *li.tza.ke* 'litzateke' (AE-2005-GS-10tx-2), *e.gi.nau.te.len* 'egin naute lehen' (AE-2005-AS-ha), *len* 'lehen' (AE-2005-AS-6mtz-1), *az.te.ko* 'ahazteko' (AE-2005-AS-6mtz-2), *bai.zu.ke.ta.bai.ni.ke* 'bai zuk eta bai nik ere' (AE-2005-AS-ptk-5), *kon.tzien.tzi.a.kin* 'kontzientziarekin' (AE-2005-AS-ge-1), *len.lan.to.ki.ak* 'lehen

608 Aurkako norabidean, silabagiletze (dieresi) kasuztat har daitezke beharbada ondoko adibide hauek: *er.di. 'i.pur.di* 'erdipurdi' (AE-2005-GS-8H-3), *da.du.ka.min.ga.ña* 'dauka mingaina' (AE-2005-AS-ptk-7).

lantokiak' (AE-2005-BB-10H-1), *len.da.bi.zi.ko* 'lehendabiziko' (AE-2005-BB-ge-1) —baina *be.ti.le.e.na* 'beti lehena' (AE-2005-GS-ge-1), *le.en.ttan.tta.bat* 'lehen tanta bat' (AE-2005-GS-ge-3)—, *el.bu.ru.a.na.si* 'helburua nahasi' (AE-2005-BB-ge-3), *ol.tza.tik.kan.po* 'oholtzatik kanpo' (AE-2005-AS-ba) —baina *a.ha.rrau.si* 'aharrausi' (AE-2005-BB-ge-3)—, etab.

Eskakizun metrikoak betetzeko, hitz barnean askotariko kenketa eta desilabagiletzeak gauzatzen ditu Egañak. Horien artean aipagarri dira bokal arteko kontsonanteen kenketak eta bokal elkarketa heterosilabikoa osatzen duten bokaletako baten desilabagiletzea (lizentzia metrikoetan sineresi deiturikoa), ondoko bokalarekin antolatuz silaba bakarrean: [ja].*len.baj.le.ni.ris.ten.zai.gun* '(e)ta ia lehenbailehen iristen zaigun' (AE-2005-GS-8H-3), [ei].*te.ko.a.'e.gi.ña* 'egitekoa egina' (AE-2005-GS-8tx-3), *i.xi.pu.'e.rro.sa.[jo]* 'isipu, errosario' (AE-2005-GS-10tx-1), *za.rau.tza.joa.naiz* 'Zarautza joan naiz' (AE-2005-GS-ge-3) —baina *ez.jo.an* (AE-2005-GS-10tx-3)—, *e.gin.be.ar.du.gu* 'egin behar dugu' (AE-2005-AS-6mtz-2) —baina *be.ar.li.tza.ke.la* 'behar litzatekeela' (AE-2005-AS-6mtz-3)—, *bue.no.[oj].ra.ez.[oj].ra* 'bueno, ohera ez ohera' (AE-2005-AS-ptk-9) —baina *o.e.ra.buel.ta* 'ohera buelta' (AE-2005-GS-8tx-4)—, etab.

Aditz jokatuetakoko bokal bilkuretan /e/ bokala kentzen du Egañak hainbatetan, beharren arabera txandakaturik forma laburtuak eta laburtu gabeak: *gen.dun* 'genuen' (AE-2005-GS-8H-3), *gen.du.na* 'genuena' (AE-2005-GS-10tx-3), *a.nu.tzi.ni.tun* 'han utzi nituen' (AE-2005-GS-ge-1), *er.di.tu.gin.dun* 'erditu gintuen' (AE-2005-AS-ba), *do.ble.su.fri.tzen.du.la.ko* 'doble(a) sufritzen duelako' (AE-2005-AS-ba), etab.

Bestelako askotariko kenketak ere gauzatzen ditu, goiko taulan ikus daitekeen bezala. Jasotako adibide batzuk bertsolariaren hizkeran edo besteren batean (euskara estandarrean, besteak beste) erabili eta hiztunak ezagutzen dituen formak dira, eta beharren arabera baliatzen du Egañak forma bat edo beste: *bo.ka.di.llo.an* 'bokadiloaren' (AE-2005-GS-8H-3) —baina *ez.kon.tze.a.ren* (AE-2005-GS-10tx-1)—, *me.mo.ri* 'memoria' (AE-2005-GS-pe1), *len* 'lehen' (AE-2005-AS-6mtz-1), *len.da.bi.zi.ko* 'lehendabiziko' (AE-2005-BB-ge-1) —baina *be.ti.le.e.na* 'beti lehena' (AE-2005-GS-ge-1), *le.en.ttan.tta.bat* 'lehen tanta bat' (AE-2005-GS-ge-3)—, *el.bu.ru.a.na.si* 'helburua nahasi' (AE-2005-BB-ge-3), *ol.tza.tik.kan.po* 'oholtzatik kanpo' (AE-2005-AS-ba) —baina *a.ha.rrau.si* 'aharrausi' (AE-2005-BB-ge-3)—, etab.

Aurkeztutako adibide gehienetatik ondoriozta daitekeenez, kenketak sarri morfonologiarekin daude lotuta eta ezin da, horrela, bilakabide fonologikoez hitz egin seguruki. Gertakari bakoitza sakonago aztertu beharko litzateke ondorio sendoak atera ahal izateko.

(L2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea baina modu jarraituan ahoskatzea [V# #V → V.V] (hiatoa).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

o.nun.tza.e.tor.tze ‘honuntza etortze’ (AE-2005-GS-ha),
kul.tur.fes.ta.o.ne.ta.ra ‘kultur festa honetara’ (AE-2005-GS-ha),
de.na.e.ma.te.ra.nator ‘dena ematera nator’ (AE-2005-GS-ha),
ta.au.ez.gaiz.ki.u.ler.tu ‘(e)ta hau ez gaizki ulertu’ (AE-2005-GS-ha),
bi.ur.te.lu.ze ‘bi urte luze’ (AE-2005-GS-8H-2), *bu.ru.er.di.a* ‘buru erdia’ (AE-2005-GS-8H-2),
iu.fa.ka.or.sartu.naiz ‘iufaka hor sartu naiz’ (AE-2005-GS-8tx-1),
or.du.au.e.tan ‘ordu hauetan’ (AE-2005-GS-8tx-1),
e.gi.a.e.san.da ‘egia esanda’ (AE-2005-GS-8tx-2),
e.ma.ku.me.ei.e.gin ‘emakumeei egin’ (AE-2005-GS-10tx-2),
txa.rra.ez.li.tza.ke ‘txarra ez litzateke’ (AE-2005-GS-10tx-2),
le.na.go.ez.ku.tu.an ‘lehenago ezkutuan’ (AE-2005-GS-10tx-3),
mu.xu.e.man.da ‘musu emanda’ (AE-2005-GS-ge-1),
ben.ga.ai.ta.txo ‘benga, aitatxo’ (AE-2005-GS-ge-1),
i.ga.ro.e.ta ‘igaro eta’ (AE-2005-GS-ge-1), *i.zan.da.ko.au* ‘izandako hau’ (AE-2005-GS-ge-1),
be.ke.ko.au.zen ‘BEC-eko hau zen’ (AE-2005-GS-ge-2),
ze.rren.da.o.ri ‘zerrenda hori’ (AE-2005-GS-ge-2),
mo.men.tu.o.ri ‘momentu hori’ (AE-2005-GS-ge-2),
jen.de.au.rre.an ‘jende aurrean’ (AE-2005-GS-ge-3),
a.la.e.san.dit ‘hala esan dit’ (AE-2005-GS-ge-3), etab.

Bestelako joerak ageri dituzten adibideak:

Gorago jaso ditut hitz arteko bokal elkarketa silaba heterosilabikoetan gauzatuta, etenak bananduta silabatzen diren (goizeko saioko) adibideak, modu jarraituan ahoskatutakoak baino gehiago direnak (jarraian ahoskatutakoen bikoitza baino gutxiago dira etendunak, edonola ere).

Hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoez ari garela, Egañak 2005ean batzuetan modu jarraituan ahoskatzen ditu, etenaz banatutako kasuak nagusi izan arren. Ematen du lotura sintaktiko estua duten osagaiak, hitz lauz ere talde prosodiko berean gauzatuko liratekeenak, ahoskatzen dituela aire-etorria eten gabe, besteak beste: *kul.tur.fes.ta.o.ne.ta.ra* ‘kultur festa honetara’ (AE-2005-GS-ha), *de.na.e.ma.te.ra.nator* (AE-2005-GS-ha), *ta.au.ez.gaiz.ki.u.ler.tu* ‘(e)ta hau ez gaizki

ulertu' (AE-2005-GS-ha), *bi.ur.te.lu.ze* (AE-2005-GS-8H-2), *bu.ru.er.di.a* (AE-2005-GS-8H-2), *iu.fa.ka.or.sar.tu.naiz* 'iufaka hor sartu naiz' (AE-2005-GS-8tx-1), etab. Esan dut banatuta ahoskatutako hitz arteko bokal bilkurak gehiago direla, baina orain arte aztertutako Egañaren txapelketen artean modu jarraituan ahoskatutako adibide gehien dituen urtea da 2005ekoa; alde txikiena duena eten bidez banatutako eta modu jarraituan ahoskatutako adibideen artean.

(L3) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak birsilabatzea, silaba bakarrean ahoskatuta [V# #V → .(C)V(V)(C).] (lizentzia metrikoetan **sinalefa** gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (guztiak):

ez.tu.g[we].tsi 'ez dugu etsi' (AE-2005-GS-8H-2),
ba.ña.bes.ter.di.a.ten.te 'baina beste erdia tente' (AE-2005-GS-8H-2),
a.tzoa.rra.tsal.dez 'atzo arratsaldez' (AE-2005-GS-ge-1),
i.ze.naen.tzun.da 'izena entzunda' (AE-2005-GS-ge-1),
e.pa.ll[eaw].rre.an 'epaile aurrean' (AE-2005-AS-ge-1),
tae.gin.de.za.ket '(e)ta egin dezaket' (AE-2005-AS-ge-2),
ba.ñaor.rain.dik 'baina oraindik' (AE-2005-BB-8tx-1),
as.mo.nez 'asmo onez' (AE-2005-BB-8tx-3),
ba.ñaegon.ge.lan 'baina egongelan' (AE-2005-BB-10H-2),
aul.ki.a.gau.zao.na.da 'aulkia gauza ona da' (AE-2005-BB-9phtz),
gal.du.taor.de.a 'galdu (e)ta ordea' (AE-2005-BB-ge-3).

Sinalefarik gabeko adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen ez diren hiato adibideak, askoz ere gehiago direnak.

Egañak 2005eko Bertsolari Txapelketan Nagusian sinalefa darabil noizean behin; hamaika adibide jaso ditut 39 bertsoetan: *es.tu.g[we].tsi* 'ez dugu etsi' (AE-2005-GS-8H-2), *ba.ña.bes.ter.di.a.ten.te* 'baina beste erdia tente' (AE-2005-GS-8H-2), *a.tzoa.rra.tsal.dez* 'atzo arratsaldez' (AE-2005-GS-ge-1), *i.ze.naen.tzun.da* 'izena entzunda' (AE-2005-GS-ge-1), *e.pa.ll[eaw].rre.an* 'epaile aurrean' (AE-2005-AS-ge-1), etab. Askotariko bokal elkarketak agertzen dituzte adibideek: bokal beraren bakuntzeak (*as.mo.nez* 'asmo onez', AE-2005-BB-8tx-3), goranzko diptongoak (*es.tu.g[we].tsi* 'ez dugu etsi', AE-2005-GS-8H-2), beheranzko diptongoak (*e.pa.ll[eaw].rre.an* 'epaile aurrean', AE-2005-AS-ge-1) eta /a/ + /e/ gisako bokal bilkurak (*ba.ñaegon.ge.lan* 'baina egongelan', AE-2005-BB-10H-2), etab. Azken mota horretakoak dira

bilkura gehienak. Sinalefa ez da neurria betetzeko bertsolariak darabilen baliabide nagusia, baina 2001eko txapelketaren ondoren, 2005ean darabiltza adibide gehien.

(L4) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean, silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#. #V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-a egitea hitzen arteko muga urtuz; hots katea birsilabatzea CV egiturarantz.

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):


e.zal.da.nai.ko ‘ez al da nahiko(a)’ (AE-2005-GS-ha),
nai.ze.ta.ez.te.gun.be.te ‘nahiz eta ez dugun bete’ (AE-2005-GS-8H-2),
be.ña.si.gen.dun ‘behin hasi genuen’ (AE-2005-GS-8H-3),
ta.ia.len.baj.le.ni.ris.ten.zai.gun ‘(e)ta ia lehenbailehen iristen zaigun’ (AE-2005-GS-8H-3),
pa.si.llu.a.nu.tzi.ta ‘pasiloan utzita’ (AE-2005-GS-8tx-1),
kol.pe.ti.ki.ri.tsi.zait ‘kolpetik iritsi zait’ (AE-2005-GS-8tx-2),
ni.ko.rai.ñau.ja.te.a ‘nik orain hau jatea’ (AE-2005-GS-8tx-3),
bi.a.rre.naiz.jei.ki.ko ‘bihar ez naiz jaikiko’ (AE-2005-GS-8tx-3),
i.ru.ter.di.kar.te ‘hiru eta erdiak arte’ (AE-2005-GS-8tx-3),
ni.ko.rain ‘nik orain’ (AE-2005-GS-8tx-4),
u.tzi.di.zu.te.ta ‘utzi dizut eta’ (AE-2005-GS-8tx-4),
as.pal.di.an.za.ne.ta ‘aspaldian zen eta’ (AE-2005-GS-pe1),
au.rra.ke.kar.tze.na.si ‘haurrak ekartzen hasi’ (AE-2005-GS-10tx-2),
guk.geu.ke.re.ba.du.gu ‘guk geuk ere badugu’ (AE-2005-GS-10tx-3),
a.nu.tzi.ni.tu.ne.ta ‘han utzi nituen eta’ (AE-2005-GS-ge-1),
mal.ko.ri.ki.su.ri.ga.be ‘malkorik isuri gabe’ (AE-2005-GS-ge-2), etab.

Liaisonik ez duten adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-ik egiten ez duten adibideak (eta bilakabidearen deskribapena). Egañaren 2005eko kasuan, *liaison*-a duten kasuak gehixeago dira etenez banatutakoak baino. Halere, bi joerak pareko direla esan daiteke.

Fortitioen atalean aurreratu bezala, hitz arteko C# #V elkarketak birsilabatzea ohikoa da Egañaren 2005eko bertsoen silabatzean; testuinguru horretan nahiko parekatuta daude hitzak banatuta eta birsilabatuta ahoskatzeko joerak. *Liaisona* egiteak hots katearen antolakuntza CV egiturarantz lerratzen du: *e.zal.da.nai.ko* ‘ez al da nahiko(a)’ (AE-2005-GS-ha), *nai.ze.ta.ez.te.gun.be.te* ‘nahiz eta ez dugun bete’ (AE-2005-GS-8H-2), *be.ña.si.gen.dun* ‘behin hasi

genuen' (AE-2005-GS-8H-3), *ta.ia.len.baj.le.ni.ris.ten.zai.gun* '(e)ta ia lehenbailehen iristen zaigun' (AE-2005-GS-8H-3), *pa.si.llu.a.nu.tzi.ta* 'pasiloan utzita' (AE-2005-GS-8tx-1), *kol.pe.ti.ki.ri.tsi.zait* 'kolpetik iritsi zait' (AE-2005-GS-8tx-2), *ni.ko.rai.ñau.ja.te.a* 'nik orain hau jatea' (AE-2005-GS-8tx-3), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke hots katea nola ahoskatzen duen Egañak modu jarraituan:

151. irudia: Espektrograma. *ni.ko.rai.ñau* 'nik orain hau' (AE-2005-GS-8tx-3).



Bertsoak errepika duenean, azken puntua —edo beste punturen bat— bi aldiz kantatzen denean, batzuetan lehen aldian hitzak elkarrengandik banatuta kantatzen ditu Egañak, eta bigarren aldiz errepikatzean, hots katea birsilabatuta. Arratsaldeko saioko seiko motzeko lehen bertso amaieran (AE-2005-GS-6mtz-1), adibidez, azken puntua ('sexu joera lehen argi neukan / orain dudan nago') lehen aldiz honela kantatzen du: *se.xu.jo.e.ra / len.'ar.gi.neu.kan // o.rain.du.dan.na.go*. Errepikatzean, berriz, hitzen arteko mugak urtuz eta kontsonante bilkurak soilduz, horrela: *se.xu.jo.e.ra / le.nar.gi.neu.kan // o.rain.du.da.na.go*.

(L5) Kontsonante bilkura heterosilabikoen asimilazio eta kenketa batzuk, hitz artean⁶⁰⁹.

L.5.1. Klase bereko **kontsonante elkarketa heterosilabikoetan, bi kontsonanteetako bat asimilatu edota kentzea** (elkarketa bakunduz).

Corpuseko adibide batzuk:

Sudurkariak: *e.gi.nai.ba.du.gu* ‘egin nahi badugu’ (AE-2005-GS-10tx-1), *sen.ti.tze.naiz* ‘sentitzen naiz’ (AE-2005-AS-6mtz-1), *za.rau.tza.joa.naiz* ‘Zarautza joan naiz’ (AE-2005-GS-ge-3), *pen.tsa.tze.nu.en* ‘pentsatzen nuen’ (AE-2005-GS-ge-3), *ba.re.tze.nu.en* ‘baretzen nuen’ (AE-2005-GS-ge-3), *e.gi.nau.te.len* ‘egin naute lehen’ (AE-2005-AS-ha), *jei.tsi.e.gi.naiz* (AE-2005-AS-ha), *sen.ti.tze.naiz* ‘sentitzen naiz’ (AE-2005-AS-6mtz-1), *o.rain.du.da.na.go* (AE-2005-AS-6mtz-1, errepikan), *ez.te.ten.tzu.nai* ‘ez dut entzun nahi’ (AE-2005-AS-ptk-8), *i.zan.nin.te.ke* (AE-2005-AS-ge-1), *e.gi.naiz.ni* ‘egin naiz ni’ (AE-2005—BB-8tx-3), *jo.a.nai.nu.ke* ‘joan nahi nuke’ (AE-2005-BB-3),

Herskariak: *ai.ta.ba.ka.rrri[γ].da.go* ‘aita bakarrik dago’ (AE-2005-GS-8tx-3), *e.li.za[γ].be.te.tze.ko* ‘elizak betetzeko’ (AE-2005-GS-10tx-2), *gu.geu.ke.re* ‘guk geuk ere’ (AE-2005-GS-10tx-3), *an.dre.a[γ].be.rriz* ‘andreak berriz’ (AE-2005-GS-ge-1), *sen.ti.tu.de[δ].[β]ai* ‘sentitu dut bai’ (AE-2005-GS-2), *za.lan.tza.ri.ga.be* ‘zalantzarik gabe’ (AE-2005-AS-ptk-3), *ni.ga.ti.pron.to.na.go* ‘nigatik pronto nago’ (AE-2005-AS-ptk-5), *ba.ka.rrri.ge.ra.be.di* ‘bakarrik gera bedi’ (AE-2005-AS-ptk-8)⁶¹⁰, etab.

Nahitaezko ez den bilakabidea. Kenketa (garbirik) gabeko adibide batzuk:

Sudurkariak: *la.ne.an.nai.dut* ‘lanean nahi dut’ (AE-2001-GS-ha), *o.rain.du.dan.na.go* (AE-2005-AS-6mtz-1, lehen aldiz kantatzean), *a.rris.ku.an.na.go.e.ta* (AE-2005-AS-ge-3), *i.zan.nin.te.ken* (AE-2005-BB-ge-1), etab.

Herskariak: *ez.pa.ñak.tin.taz.dauz.kat* ‘ezpainak tintaz dauzkat’ (AE-2005-GS-8tx-2), *sen.ti.tu.dut.‘bi.o.tze.an* ‘sentitu dut biotzean’ (AE-2005-GS-ge-1), *sen.ti.tu.det.ta* ‘sentitu dut (e)ta’ (AE-2005-GS-2), *man.ten.du.dut.bai* (AE-2005-GS-ge-3), *nik.pen.sa.tzen.det* ‘nik pentsatzen dut’ (AE-2005-AS-6mtz-3), *kon.ta.tu.ko.di.ot.‘de.na* (AE-2005-AS-ge-2), *nor[kh].[th]en.ta* ‘nork tenta’ (AE-2005-AS-ge-3), *ba.ñao.rain.dik.ka.paz.naiz* ‘baina oraindik kapaz naiz’ (AE-2005-BB-8tx-1), *i.a.e.gi.ten.dut.dar.dar* (AE-2005-BB-10H-1), *ain.bat.ku.ti.zi* ‘hainbat

609 Aipatutakoez gain, ozen ondoko herskari ahoskabearen ahostuntzea ere gertatzen da, besteak beste: *e.gin.go.zi.dan.da* ‘egingo zidan (e)ta’ (AE-2005-GS-8tx-2).

610 Ondokoak dira zalantzazko adibideak, besteak beste: *ar.ga.ti(k).ge.ra* ‘hargatik gara’ (AE-2001-GS-ha), *txi.pi.roi.a(k).bi.ar.ko* ‘txipiroiak biharko’ (AE-2005-GS-8tx-4), *e.ta.nex.ka(k).pa.sa* ‘eta neskak pasa’ (AE-2005-GS-pe2), *ne.re.a(k).fuer.te.e.na* ‘nireak fuerteena’ (AE-2005-AS-ptk-7).

gutizi(a)' (AE-2005-BB-ge-3), *ol.tza.tik.kan.po* 'oholtzatik kanpo' (AE-2005-AS-ba), etab.

L.5.2. 'Ez' hitz **kodako txistukari ahoskabearen ondorengo herskari ahostuna ahoskabetzea**⁶¹¹.

Corpuseko adibide batzuk:


ez.ta.i.zan.go 'ez da izango' (AE-2005-GS-8H-1), *nai.ze.ta.'ez.te.gun.be.te* 'nahiz eta ez dugun bete' (AE-2005-GS-8H-2), *ez.tu.gue.tsi.de.rre.pen.te* 'ez dugu etsi derrepente' (AE-2005-GS-8H-2), *ez.ta.zu.re.kal.te* 'ez da zure kalte' (AE-2005-GS-8tx-3), *ez.ta* 'ez da' (AE-2005-GS-ge-3), *ez.ti.to.a.jo.la* 'ez dio axola' (AE-2005-GS-ge-3), *ba.zu.re.a.ez.te.gu* 'ba zurea ez dugu' (AE-2005-AS-ptk-1), *ez.te.ten.tzu.nai* 'ez dut entzun nahi' (AE-2005-AS-ptk-8), *os.ta.da.rri.kez.ta.go* 'ostadarrik ez dago' (AE-2005-BB-3), *ez.ten* 'ez den' (AE-2005-BB-10H-3), *ez.te.gu* 'ez dugu' (AE-2005-BB-9phtz), etab.

Egañak 2005ean (ere) batzuetan hitz arteko kontsonante bilkura heterosilabikoak ahultzen ditu, lehen hitzaren kodan dagoen kontsonantearen tasunen bat asimilatuz edo hotsa bera kenduz, gehienetan. Jarraian herskari eta sudurkari bilkurez arituko naiz, horiek baitira maizen gertatzen diren kontsonante elkarketak.

Herskari bilkuretan, esaterako, sarri ez da kodako segmentua guztiz kentzen, ahostundu eta igurzkaritu egiten da. Ondoko espektrograman ikus daiteke horren adibide bat:


152. irudia: Espektrograma. *ai.ta.ba.ka.rri[γ].da.go* 'aita bakarrik dago' (AE-2005-GS-8tx-3)

⁶¹¹ 'Ez' morfemari lotutako erregela gehiago ere badira Egañaren 2005eko silabatzean. Nagusiki ozen aurretik 'ez' hitzaren (silaba) kodan dagoen txistukaria kentzea: *e.naiz* 'ez naiz' (AE-2001-GS-ha), *e.na.go.guz.tiz* 'ez nago guztiz' (AE-2005-GS-8H-3), *e.nu.en* 'ez nuen' (AE-2005-GS-ge-3), etab.




Hala ere, *tempo*a azkartu eta eguneroko hizketara gehiago hurbiltzen den kasuetan —non hotsen ahoskera argia ez den helburu nagusi, ahoskera erraztasuna baizik— herskari bilkuretan lehen silaba kodan dagoen segmentua guztiz kentzen du Egañak. Arratsaldeko saioko puntukako ariketan ikusten da hori argien: *za.lan.tza.ri.ga.be* ‘zalantzarik gabe’ (AE-2005-AS-ptk-3), *ni.ga.ti.pron.to.na.go* ‘nigatik pronto nago’ (AE-2005-AS-ptk-5), *ba.ka.rri.ge.ra.be.di* ‘bakarrik gera bedi’ (AE-2005-AS-ptk-8) gisako adibideak gauzatzen baititu. Azken adibide horren espektrograma ikus daiteke ondoko irudian:

153. irudia: Espektrograma. *ba.ka.rri.ge.ra.be.di* ‘bakarrik gera bedi’ (AE-2005-AS-ptk-8).



Hitz arteko herskari bilkurak ahultzea ez da, ordea, Egañaren aukera bakarra. Badira bi herskariak argiago ahoskatzen dituen kasuak ere⁶¹²: *ez.pa.ñak.tin.taz.dauz.kat* ‘ezpainak tintaz dauzkat’ (AE-2005-GS-8tx-2), *sen.ti.tu.dut.‘bi.o.tze.an* ‘sentitu dut biotzean’ (AE-2005-GS-ge-1), *sen.ti.tu.det.ta* ‘sentitu dut (e)ta’ (AE-2005-GS-2), *man.ten.du.dut.bai* (AE-2005-GS-ge-3), *nik.pen.sa.tzen.det* ‘nik pentsatzen dut’ (AE-2005-AS-6mtz-3), etab. Horietako bat, ondoko espektrograman azter daitekeena:


154. irudia: Espektrograma. *ba.ñao.rain.dik.ka.paz.naiz* ‘baina oraindik kapaz naiz’ (AE-2005-BB-8tx-1).



Sudurkarien kasuan, bilkura bakundu egiten du Egañak, lehen hitz amaieran (kodan) zegoen hotsa kenduz: *e.gi.nai.ba.du.gu* ‘egin nahi badugu’ (AE-2005-GS-10tx-1), *sen.ti.tze.naiz* ‘sentitzen naiz’ (AE-2005-AS-6mtz-1), *za.rau.tza.joa.naiz* ‘Zarautza joan naiz’ (AE-2005-GS-ge-3), *pen.tsa.tze.nu.en* ‘pentsatzen nuen’ (AE-2005-GS-ge-3), *ba.re.tze.nu.en* ‘baretzen nuen’ (AE-2005-GS-ge-3), *e.gi.nau.te.len* ‘egin naute lehen’ (AE-2005-AS-ha), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke adibide bat:


612 Jasotako adibideetan kodan dagoen herskaria igurzkaritzen da beharbada adibide batzuetan, baina azpimarragarria da Egañak bi segmentuak garbi ahoskatzeko egindako ahalegina. Horregatik jaso ditut kasu hauek “ahultze argirik gabeko” adibideen multzoan.

155. **irudia:** Espektrograma. *e.gi.nai.ba.du.gu* ‘egin nahi badugu’ (AE-2005-GS-10tx-1).



Kontsonante ahultzeen adibideak andana diren arren, badira kontsonanteen asimilazio edo kenketa argirik gabeko adibide batzuk ere: *la.ne.an.nai.dut* ‘lanean nahi dut’ (AE-2001-GS-ha), *o.rain.du.dan.na.go* (AE-2005-AS-6mtz-1, lehen aldiz kantatzean), *a.rris.ku.an.na.go.e.ta* (AE-2005-AS-ge-3), etab. Ikus ondoko espektrograman, esate baterako:

156. **irudia:** Espektrograma. *la.ne.an.nai.dut* ‘lanean nahi dut’ (AE-2001-GS-ha).



Egañaren orain arteko jarduna aztertuta, kontsonante bilkurak gehien ahultzen dituen txapelketa 2005eko hau dela esan daiteke, asimilazio eta bakuntze adibide gehien dituena.

Bestalde, ezeztapenaren (*ez*) ondoren herskari ahostunez hasitako aditz jokatua dagoenean, hitz hasierako herskaria ahoskabetzen du, salbuespen gabe: *ez.ta.i.zan.go* ‘ez da izango’ (AE-2005-GS-8H-1), *nai.ze.ta.‘ez.te.gun.be.te* ‘nahiz eta ez dugun bete’ (AE-2005-GS-8H-2), *ez.tu.gue.tsi.de.rre.pen.te* ‘ez dugu etsi derrepente’ (AE-2005-GS-8H-2), *ez.ta.zu.re.kal.te* ‘ez da zure kalte’ (AE-2005-GS-8tx-3), *ez.ta* ‘ez da’ (AE-2005-GS-ge-3), *ez.ti.to.a.jo.la* ‘ez dio axola’ (AE-2005-GS-ge-3), etab. Erregela horren ondorioz, hots kateko segmentuak elkarren antzekoago egiten dira eta, era berean, bigarren silabaren —aditzaren— ekina indartzen da herskari ahoskabeaz.

8.2.3. Bestelako gertakari foniko esanguratsu batzuk


(B1) “Makulu-silaba” enfatikoak ekoiztea, hasperen bat txertatuz silaba-gunea osatzen duen bokalaren erdian (edo bokala tarte batez ahoskabetuz), aire-etorriari bultzada bat emanez.

Corpuseko adibideak:

ne.ro.ni.[e^he].re ‘neroni ere’ (AE-2005-GS-8H-3), *mu.si.ka.pla.z[a^ha]* ‘musika plaza’ (AE-2005-GS-pe2), *na.go.ni.be.ne.t[a^ha]n* ‘nago ni benetan’ (AE-2005-AS-ptk-6), *e.men.di.kau.rr[e^he].ra* ‘hemendik aurrera’ (AE-2005-AS-6mtz-2, errepikan), *ti.rri.t[a^ha].rra* ‘tirri-tarra’ (AE-2005-AS-ge-1), *[a^ha]z.ke.ne.ra.ko* ‘azkenerako’ (AE-2005-AS-ge-1), *k[o^ho]n.de.na* ‘kondena’ (AE-2005-AS-ge-2), *a.te.an.ba.rr[e^he].na* ‘atean barrena’ (AE-2005-AS-ge-2), *a.p[e^he].ta* ‘apeta’ (AE-2005-AS-ge-3), *g[o^ho]r.de.ta* ‘gordeta’ (AE-2005-BB-8tx-3), *be.ra.tar.t[e^he].ko* ‘bera tarteko’ (AE-2005-BB-9phtz), *gal.d[e^he].ra* ‘galdera’ (AE-2005-BB-ge-2) [oina da], etab.

Andoni Egañak 2005eko txapelketako finaleko bertsoetan ere (1993an bezala), bokal “erdian” hasperena ekoizten du silaba barnean, bokala tarte batez ahoskabetuz, lan honetan “makulu silaba” gisa izendatutako fenomeno indartzailea gauzatuz une puntual batzuetan (1993koan baino kasu gehiagotan). Gertakaria ez da Amuriza edo Lizasoren bertsoetan bezain emankorra, eta akustikoki zein hautemateari dagokionez, askoz ere sotilagoa da (batzuetan argiago ikusten da espektrograman bertan, hautemanda baino). Edonola ere, kantaerari lotuta dirudite Egañak 2005ean gauzatutako “makulu silaba” horiek ere. Jasotako adibide batzuk melismarekin batera gertatzen dira, silaba bakarra musika nota bat baino gehiagorekin kantatzean: *ne.ro.ni.[e^he].re* ‘neroni ere’ (AE-2005-GS-8H-3), *mu.si.ka.pla.z[a^ha]* ‘musika plaza’ (AE-2005-GS-pe2), *na.go.ni.be.ne.t[a^ha]n* ‘nago ni benetan’ (AE-2005-AS-ptk-6). Gainerako kasuak gun eerritmiko indartsuei edo eremu prosodiko ekinei lotuak dirudite, baina azterketa sakon eta xeheagoa behar da ondorio sakonak atera ahal izateko. Ondoko espektrograman ikus daiteke bokal erdian Egañak gauzatutako hasperenetako bat:

157. **irudia:** Espektrograma. *tar.t[e^he].ko* ‘bera tarteko’ (AE-2005-BB-9phtz).



8.3. Neurria betetzeko baliabide foniko nagusiak

Egañak hizketa katea oinarri metrikoarekin uztartzeko hainbat baliabide foniko darabiltza 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean:

- Nabarmenena **hiatoa** da: hots kateko bokal bilkurak, hitz artekoak direnean, banatuta silabatzea, bakoitzak bere silaba duela, hitz arteko mugak urtu eta bokalak birsilabatu gabe. Esate baterako: *naiz.ta.gu.re.a* ‘i.zan ‘nahiz eta gurea izan’ (AE-2005-GS-10tx-3), *fe.de* ‘e.rre.su.ma ‘fede erresuma’ (AE-2005-GS-10tx-3), *ne.re* ‘al.dar.te ‘nire aldarte’ (AE-2005-GS-ge-1), *be.ti.le.e.na* ‘i.zan.da.ko.au ‘beti lehena izandako hau’ (AE-2005-GS-ge-1), *el.bu.ru* ‘e.ta ‘helburu eta’ (AE-2005-GS-ge-2), *ne.re* ‘o.lin.po ‘nire Olinpo’ (AE-2005-GS-ge-2), etab. Joera hau nagusizat har daiteke Egañaren bertsoetako txertatze prosodikoan, hitz arteko bokal elkarketak etenaz ahoskatuz sarri, modu jarraituan baino gehiagotan. Sinalefa gutxi batzuk egiten ditu, hitz arteko bokal elkarketak silaba bakarrean (bir)silabatuz, 2001eko antzeko neurrian, 1993 eta 1997an baino gehiago (bertso gehiago direla kontuan harturik): 11 adibide 39 bertsoetan.
- Horrez gain, L1 puntuan jaso ditut hainbat **sineresi** kasu ere (hitz barneko desilabagiletzeak), aurreko txapelketetan baino gehiago: **[ja].len.baj.le.ni.ris.ten.zai.gun** ‘(e)ta ia lehenbailehen iristen zaigun’ (AE-2005-GS-8H-3), **[ei].te.ko.a** ‘e.gi.ña ‘egitekoa egina’ (AE-2005-GS-8tx-3), *i.xi.pu* ‘e.rro.sa.**[jo]** ‘isipu, errosario’ (AE-2005-GS-10tx-1), *za.rau.tza.joa.naiz* ‘Zarautza joan naiz’ (AE-2005-GS-ge-3) —baina *ez.jo.an* (AE-2005-GS-

10tx-3)—, *e.gin.bear.du.gu* ‘egin behar dugu’ (AE-2005-AS-6mtz-2) —baina *be.ar.li.tza.ke.la* ‘behar litzatekeela’ (AE-2005-AS-6mtz-3)—, *bue.no.[oj].ra.ez.[oj].ra* ‘bueno, ohera ez ohera’ (AE-2005-AS-ptk-9) —baina *o.e.ra.buel.ta* ‘ohera buelta’ (AE-2005-GS-8tx-4)—, *de.kla.ra.tze.ko.‘as.mo.zo.ro.[aj]* ‘deklaratzeko asmo zoroari’ (AE-2005-AS-ge-3), etab.

- **Kenketa** aipatu behar da, 2005ean ere, Egañaren lizentzia metriko nagusi gisa. Izan ere, askotariko moduetara laburtzen ditu bertsolariak hitzak silaba bat gutxiago ahoskatuta hots katea neurrira egokituz. Aditz jokatuetakoko bokal bilkuretako /e/, adibidez, kendu egiten du behar metrikoen arabera: *gen.dun* ‘genuen’ (AE-2005-GS-8H-3), *gen.du.na* ‘genuena’ (AE-2005-GS-10tx-3), *a.nu.tzi.ni.tun* ‘han utzi nituen’ (AE-2005-GS-ge-1), *er.di.tu.gin.dun* ‘erditu gintuen’ (AE-2005-AS-ba), etab. Edo genitibo markak (NOREN) duen *-(r)e-* gauzatu edo ez neurriak baldintzatzen duela dirudi: *bo.ka.di.llo.an* ‘bokadiloaren’ (AE-2005-GS-8H-3) —baina *ez.kon.tze.a.ren* (AE-2005-GS-10tx-1)—, etab. Silabak galdutako bestelako formak ere badarabiltza: *len.pa.du.ra.ta.de.ser.tu* ‘lehen padura (e)ta desertu’ (AE-2005-GS-ha), *i.ru.ter.di.kar.te* ‘hiru eta erdiak arte’ (AE-2005-GS-8tx-3), *me.mo.ri* ‘memoria’ (AE-2005-GS-pe1), *az.ten* ‘ahazten’ (AE-2005-GS-pe2), *li.tza.ke* ‘litzateke’ (AE-2005-GS-10tx-2), *len* ‘lehen’ (AE-2005-AS-6mtz-1), *az.te.ko* ‘ahazteko’ (AE-2005-AS-6mtz-2), *bai.zu.ke.ta.bai.ni.ke* ‘bai zuk eta bai nik ere’ (AE-2005-AS-ptk-5), *kon.tzien.tzi.a.kin* ‘kontzientziarekin’ (AE-2005-AS-ge-1), *len.lan.to.ki.ak* ‘lehen lantokiak’ (AE-2005-BB-10H-1), *len.da.bi.zi.ko* ‘lehendabiziko’ (AE-2005-BB-ge-1) —baina *be.ti.le.e.na* ‘beti lehena’ (AE-2005-GS-ge-1), *le.en.ttan.tta.bat* ‘lehen tanta bat’ (AE-2005-GS-ge-3)—, etab.
- Azkenik, **gehiketak** aipatu behar dira Egañaren baliabide metriko gisa. Beharbada dieresizat har daitezkeen pare bat kasu daude: *er.di.‘i.pur.di* ‘erdipurdi’ (AE-2005-GS-8H-3), *da.du.ka.min.ga.ña* ‘dauka mingaina’ (AE-2005-AS-ptk-7). Horrez gain, gehiketan (ere) hizkuntzaren alor morfonologikoa sartzen da bete-bete, erregelen ondorio diren txandakatzeak edo hizkera desberdinetan baliatutako formak erabiltzen baititu bertsolariak komeni gisa, neurria egoki betetzeko, kenketadun adibide askotan bezalaxe. Gehiketen eremuan ablatiboa (NONDIK) eta partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/-(r)ik* eta *-tikan/-(r)ikan* formen arteko txandakatzea aipa daiteke, nagusiki, 2005eko txapelketako bertsoetan (ere): *ger.tu.ti.kan* ‘gertutik’ (AE-2005-GS-10tx-3), *er.di.e.tsi.ri.kan* ‘erdi etsirik’ (AE-2005-GS-ge-3), *gu.ru.tze.ti.kan* ‘gurutzetik’ (AE-2005-AS-ha), *zu.re.a.bes.te.ti.ka.nal.da.po.ten.te.a* ‘zurea bestetik al da potentea?’ (AE-2005-AS-ptk-1), *ne.ka.tu.ri.kan.ga.bil.tza* ‘nekatu rik gabiltza’ (AE-2005-BB-ge-1).

8.4. Joera nagusiak laburbilduz

Andoni Egañak 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoen silabatzean fokua jarririk, esan daiteke 1993ko, 1997ko eta 2001eko txapelketetan bezala, bertsolariarengan elkarrekintzan daudela modu nahiko agerikoan fonologiaren egituratzean parte hartzen duten elkarren aurkako bi “indarrak”: oharren argitasuna eta ahoskera erraztasuna.

Batetik, hots katearen alor “fortitiboen” artean koka daitezke hitz arteko bokal bilkurak banatuz edo *liaisona* ekidinez eginiko eten laburrak, hitz eta sintagmen eremuak mugatuz, baita modu argian asimilatu edo soildu gabeko hitz arteko kontsonante bilkurak ere (2005eko txapelketa honetan ahultze joera handiagoa jaso den arren). Hizketaren alderdi segmentala eta eremu prosodikoak indartzen eta markatzen dituen joera horien kontra, esanguratsua da, bestalde, orain arte aztertutako gainerako bertsolariengan (Amuriza, Lizaso, Lopategi) gauzatzen diren beste *fortitio* batzuk apenas daudela presente: hasperena, “makulu-silaba” deiturikoa, bokal arteko herskariak edo bokal aurreko zein bokal arteko /i/-ren kontsonantetzea.

Joera “kohesiozile” edo ahultzaileen artean, hitz barneko desilabagiletze eta kenketadun formak aipatu behar dira, baita modu jarraituan ahoskatutako hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak, hitz arteko muga urtuta gauzatutako birsilabatzeak (*liaisona*) eta kontsonante bilkuren —batez ere silaba kodan dauden kontsonanteen— asimilazio eta bakuntzeak ere. Egañaren 2005eko silabatzean aurreko txapelketetan baino parekoago ageri dira joera “banatzaile” edo fortitiboak eta joera “kohesiozile” edo lenitiboak, txapelketa den testuinguru formalak dakarren ahoskera argiaren mugen baitan.

Aipatutako gertakariok sarri dute ondorio gisa hots katearen silabatzea oinarrizko CV egiturarantz hurbiltzea. Horrela, erraz ulertzen dira silaba-egituren maiztasunak aztertzean ateratako datuak; silaba-ekina indartzen duten egiturak %80 izatea, eta silaba irekiak, %70a baino gehiago. Egañaren kasuan joera indartzaileek ez dakarte berez CVrantzko lerratzerik, baina euskararen beraren hitzek, hots katearen ezaugarriek, antolakuntza fonologikoak, ahalbidetzen dute hori hein handi batean abiapuntu gisa.

Aipatutako gertakari eta joerek lizentzia metrikoen erabileran ere badute eragina: ahal dela hitz bakoitzari bere silabatze propioa eskaintzen dio Egañak (hiatoa), hitz edo sintagmaka segmentatuz hots katea joera nagusi gisa. Edonola ere, ez du *liaisona* gauzatzeko arazorik eta sarri urtzen ditu hitz arteko mugak. Sinalefa aurreko txapelketetan baino gehixeago darabil (11 sinalefa

egiten ditu 39 bertsotan). Kenketa da, seguru asko, aldakortasun morfonologikoari lotuta, batez ere, neurria betetzeko baliabide nagusia.

9. Maialen Lujanbio (2009)

9.1. Silaben egiturak eta horien maiztasunak

Lujanbioren 2009ko txapelketako finaleko bertsoetako silabak aztertuta, ondokoak dira bertsolariak ekoiztako silaben egiturak, bakoitzetik zenbatu den silaba-kopurua eta orotara ahoskatutako silabekiko proportzioa (maiztasuna):

16. taula: 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Maialen Lujanbiok ekoiztako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	2099	%63,26
CVC	636	%19,17
V	365	%11
VC	187	%5,64
CCV	25	%0,75
CCVC	3	%0,09
VCC	2	%0,06
CVCC	1	%0,03
	Guztira: 3318	
Silaba irekiak denetara:		%75,01
Silaba itxiak denetara:		%24,99

Taulan ikus daitekeenez, Lujanbioren silabatzean CV egitura da nagusi, egiturarik oinarrizkoena (%63,26). Horren ondoren, CVC silaba-egitura baliatzen du maizen bertsolariak (%19,17). Silaba ekina indartzen duten egiturak %80tik gora dira (%83,3), nahiz eta esan behar den ekinean kontsonante bat baino gehiago gauzatzea ez dela batere ohikoa Lujanbiorentzat; CCV (%0,75) eta CCVC (%0,09) egiturak ez dira ekoiztako silaben %1era heltzen. CVC egituraren ondoren, V bokalez (edo diptongoz) soilik osatutako silabek dute maiztasunik altuena: %11, VC egitura izanik maiztasuna kontuan hartuta hurrengoa (%5,64). Agerpen gutxi batzuk besterik ez dituzte, orain arte aipatutako CCV eta CCVC egiturekin batera, VCC (%0,06) eta CVCC (%0,03)

silaba-motek. Silaba-ekinean eta kodan kontsonante bat baino gehiago ahoskatzea Lujanbiorentzat ezohikoa dela esan daiteke horrela.

Datuei bestela begiratuta, silaba irekiek egitura guztien %75,01 osatzen dute. Itxiek, berriz, %24,99.

9.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko segmental nagusiak

Ondokoak dira Lujanbiok 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoetan baliatutako silabatze-joerak eta silaba-egitura eta silabatzea baldintzatzen duten bilakabide fonologiko nagusiak:

9.2.1. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko indartzaile (*fortitio*) nagusiak

(F1) Silaba ekineko **herskari ahostunak ez igurzkaritzea** (edo hala hautematea) **bokal artean**, ez hitz barnean ez hitz artean


Corpuseko adibideak⁶¹³: *a.ze.le.rau.zaiz.ki.zu.[b]i.o.tze.ta.pul.tsu* ‘azeleratu zaizkizu bihotz eta pultsu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *es.pue.la.[b]at.zen.ba.ño* ‘espuela bat zen baina’ (ML-2009-AS-ptk-2).

2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko bertsoetan, Lujanbiok, bi kasutan behintzat, bokal arteko eta hitz hasierako herskari ahostuna ez du igurzkaritzen (edo igurzkaritzen ez duelako hautematea eragiten du bere ahoskerak, hotsak herskaritzat hartuz): *a.ze.le.rau.zaiz.ki.zu.bi.o.tze.ta.pul.tsu* ‘azeleratu zaizkizu bihotz eta pultsu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *es.pue.la.bat.zen.ba.ño* ‘espuela bat zen baina’ (ML-2009-AS-ptk-2). Azken adibidea oso egokia eta esanguratsua da, hots katean badagoelako beste kontsonante ahostun ezpainkari bat —bokal artean ez, baina ozen eta bokal artean—, bi hotsak akustikoki alderatzeko aukera emanaz. Gainera, adierazpena testuinguru zabalagoan kokatzeak *bat* hitz ekineko kontsonantea indarturik mantentzea zerk eragin ahal izan duen ulertzen lagun diezaguke: *espuela [b]at zen baño gu lau (h)anka gera*. ‘Lau hanka’-rekin kontrastea eta hitz jokoa egin ahal izateko nabarmentzen du akaso Lujanbiok

613 Aurretik ere azaldu bezala, bokal arteko herskari adibideak hautematetik abiatuta jasotakoak dira, ez bertsolarien ekoizpenean sistematikoki aztertutakoak. Lujanbioren 2009ko bertsoetan adibide bakarra jaso dut, baina horrek ez du esan nahi kasu bakarra dagoenik. Azterketa sakonagoa behar du auzi honek, hainbatetan esan bezala; lan honetan lehen hurbilpena besterik ez dut egin.

segmentalki eremu prosodiko horren ekina. Ondoko espektrograman aldera daitezke *bat* hitzaren ekineko bokal arteko kontsonante ezpainkaria (a) eta *baño* hitz ekineko kontsonante ezpainkaria⁶¹⁴.

26. irudia: *es.pue.la.[b]at.zen.ba.ño* ‘espuela bat zen baina’ (ML-2009-AS-ptk-2).



(F2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea eta etenaz banatzea

[V# #V → V.‘V] (lizentzia metrikoetan hiato gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

es.ku.zes.ku.es.ku. ‘*us.ka* ‘eskuz esku, esku huska’ (ML-2009-GS-ha),

naiz.ta.guk.ja.so.zue.ke.re. ‘*e.rein* ‘nahiz (e)ta guk jaso zuek ere erein’ (ML-2009-GS-ha),

bis.taz.gal.du.ko.du. ‘*aur.ki* ‘bistaz galduko du aurki’ (ML-2009-GS-8H-1),

e.zin.pa.sa.ta. ‘*i.ra.ga.na.ren* ‘ezin pasata iraganaren’ (ML-2009-GS-8H-2),

e.tzen.du.nar.tu. ‘*e.tsi.rik* ‘ez zenuen hartu etsirik’ (ML-2009-GS-8H-3),

zan.go.pa.re.a. ‘*au.tsi.rik* ‘zango pareta hautsirik’ (ML-2009-GS-8H-3),

e.san.nai. ‘*e.ta.e.sa.ne.zi.ñak* ‘esan nahi eta esan ezinak’ (ML-2009-GS-8H-3),

tri.pa.e.re. ‘*on.du* ‘tripa ere ondu’ (ML-2009-GS-8tx-1),

no.la. ‘*il.ko.zai.tut.ba* ‘nola hilko zaitut ba’ (ML-2009-GS-8tx-2),

el.du.ta. ‘*on.do.tik* ‘helduta ondolik’ (ML-2009-GS-8tx-2),

pa.rra. ‘*a.te.ra.tzen.zai.to.ri.e.sa.te.an* ‘barrea ateratzen zait hori esatean’ (ML-2009-GS-pe-2),

pe.so.e. ‘*e.te.be.kin* ‘PSOE etb-rekin’ (ML-2009-GS-pe-2),

⁶¹⁴ Espektrograman ematen du iraupena dela nagusiki bi hotsak bereizten dituen. Aurrera begira sakondu beharreko aztergaia da ondokoa.

te.le.bis.ta.ki.tza.li. 'e.gua.rri.par.te.an 'telebistak itzali eguberri partean' (ML-2009-GS-pe-2),
len.bi.ta. 'uts 'lehen bi (e)ta huts' (ML-2009-GS-6mtz-2),
e.do.ta. 'u.ler.tu. 'e.zin (ML-2009-GS-6mtz-3),
ez. 'a.je.ta. 'ez.min 'ez aje eta ez min' (ML-2009-GS-6mtz-3),
ne.re. 'i.ri.tziz 'nire iritziz' (ML-2009-GS-ge-1),
i.a.be.ti.ko. 'e.ra.ra 'ia betiko erara' (ML-2009-GS-ge-1),
or.gel.di.tzen.di.ra. 'a.ra 'hor gelditzen dira, hara' (ML-2009-GS-ge-1),
ne.rea.fi.zi.o.ta. 'o.fi.zi.o 'nire afizio eta ofizio' (ML-2009-GS-ge-1),
ba.dau.kat.nai.ko. 'es.pe.rien.tzi.a 'badaukat nahiko(a) esperientzia' (ML-2009-GS-ge-2),
ba.dau.kat.nai.ko. 'e.da.de 'badaukat nahiko(a) edade' (ML-2009-GS-ge-2),
ai.es.pa.ñi.ko.le.ge.ta. 'a.rau 'ai, Espainiako lege (e)ta arau' (ML-2009-GS-ge-2),
es.ku.zes.ku. 'or.du.zor.du 'eskuz esku, orduz ordu' (ML-2009-GS-ge-3),
ga.taz.ka. 'au 'gatazka hau' (ML-2009-GS-ge-3), etab.

Nahitaezkoa ez den joera. Bestelako joerak ageri dituzten corpuseko adibideak:


Aurrerago jaso ditut modu jarraituan ahoskatzen diren hitz arteko bokal elkarketa adibideak, aire-etorria eten gabe gauzatutakoak. Bi joerak (bokal elkarketa etenaz banatzea edo modu jarraituan ahoskatzea) elkarren pareko dira agerpenei dagokienean Lujanbioren 2009ko silabatzean —besterik da bakoitzaren egitekoa zein den edo zein testuinguru diskurtsibo edo prosodikotan gertatzen den—.

Era berean, aurrerago jaso ditut testuinguru berean **birsilabatzen diren sinalefa adibideak**.

2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, bertso-neurriaren egitura orokorra adierazten duten egiturazko etenez gain, eten artikulatorio laburragoak egiten ditu Lujanbiok hitz eta sintagma artean. Horietako asko hitz mugan lehen hitza bokalez amaitu eta hurrengo hitza ere bokalez hasten denean gauzatzen ditu, bokal bilkura ekidinez (V#.#V). Sarri bertso-egituratik uler daitezke eten horiek. Esate baterako, molde handiko bertsoetan —puntua 10+8 silabaz osatzen denean— hemistikioa bitan banatzen duen etena izan daiteke bokal artean gauzatutakoa: *e.zin.pa.sa.ta. 'i.ra.ga.na.ren* (ML-2009-GS-8H-2), etab. Oina ere mugatzen da sarri eten horien bidez: *es.ku.zes.ku.es.ku. 'us.ka* 'eskuz esku, esku huska' (ML-2009-GS-ha), *bis.taz.gal.du.ko.du. 'aur.ki* (ML-2009-GS-8H-1), *tri.pa.e.re. 'on.du* (ML-2009-GS-8tx-1), *el.du.ta. 'on.do.tik* 'helduta ondotik' (ML-2009-GS-8tx-2), *i.a.be.ti.ko. 'e.ra.ra* (ML-2009-GS-ge-1), etab.

Azkenik, badira arrazoi metriko-musikaletatik ulertzen zail diren kasuak. Horietan bestelako arrazoiak bilatu behar dira: bertsolariaren dikzio argia, oharmen ontasuna helburu, hitzen bat nabarmentzea bertsoan duen esanahiagatik, perpausaren egitura kantuan ere islatzea, etab. (gai horietan §10. kapituluaren sakondu dut). Adibidez: *naiz.ta.guk.ja.so.zue.ke.re.‘e.rein* ‘nahiz (e)ta guk jaso zuek ere erein’ (ML-2009-GS-ha), *no.la.‘il.ko.zai.tut.ba* ‘nola hilko zaitut ba’ (ML-2009-GS-8tx-2), *pe.so.e.‘e.te.be.kin* ‘PSOE etb-rekin’ (ML-2009-GS-pe-2), *ne.re.‘i.ri.tziz* ‘nire iritziz’ (ML-2009-GS-ge-1), *ne.rea.fi.zi.o.ta.‘o.fi.zi.o* ‘nire afizio eta ofizio’ (ML-2009-GS-ge-1), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke Lujanbioren bokal arteko etenetakoko bat:

158. irudia: Espektrograma. *ne.rea.fi.zi.o.ta.‘o.fi.zi.o* ‘nire afizio eta ofizio’ (ML-2009-GS-ge-1)



Hitz arteko bokal elkarketa banatuz eten laburra gauzatzeko joera edo bokalez osatutako hitz muga modu jarraituan ahoskatzekoa elkarren pareko dira Lujanbioren silabatzean, agerpenei dagokienez. Bestalde, hitz eta sintagmak gehiagotan banatzen ditu Lujanbiok hitz mugan bokal elkarketa badago; C# #V testuinguruan ere gauzatzen ditu etenak baina gutxiago.

(F3) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-ik ez egitea, hitzen arteko muga ez urtzea (lehen hitzeko kodako kontsonantea(k) ez silabatzea hurrengo silabako ekin hutsean). **Hitz artean hots katea ez birsilabatzea** CV egiturarantz.

Corpuseko adibide batzuk (goizeko saiokoak):

ber.so.za.le.zu.mau.le.gas.teis.naiz. ‘i.ru.ña.ko.au.to.bus.ka ‘bertsozale, zu, Maule, Gasteiz nahiz Iruñeko autobuska(da)’ (ML-2009-GS-ha),

o.o.re.aun.diz.gaur. ‘en.tzu.le.den ‘ohore handiz gaur entzule den’ (ML-2009-GS-ha),

mi.lles.ker.de.nok.be.te.du.gu.gaur. ‘o.sa.tzen.den.ma.tri.ux.ka ‘milesker, denok bete dugu gaur osatzen den matrioska’ (ML-2009-GS-ha),

ain.bes.te.se.kre.tuz. ‘i.a ‘hainbeste sekretuz ia’ (ML-2009-GS-8H-2),

kon.tae.zi.ña.ren. ‘e.si.a ‘kontaezinaren hesia’ (ML-2009-GS-8H-2),

or.du.ko.be.run. ‘a.le.ak.di.ra (ML-2009-GS-8H-2),

gaur.ko.sa.si.en. ‘a.zi.a ‘gaurko sasien hazia’ (ML-2009-GS-8H-2),

e.san.tzen.du.nez. ‘an.dik.buel.ta.tu ‘esan zenuenez handik bueltatu’ (ML-2009-GS-8H-3),

ni.ke.ma.ni.zun. ‘o.rre.la ‘nik eman nizun horrela’ (ML-2009-GS-6mtz-1),

mun.du.a.e.re.lo.ji.ka.on.tan. ‘o.be.li.jo.a.ke ‘mundua ere logika hon(e)tan hobe lihoake’ (ML-2009-GS-6mtz-1),

pen.tsa.tu.bai.nun.zu.ke.re.ber.din. ‘ein.go.zen.du.ke.la ‘pentsatu bainuen zuk ere berdin egingo zenukeela’ (ML-2009-GS-6mtz-1, errepikan),

mun.du.a.e.re.lo.ji.ka.on.tan. ‘o.be.li.jo.a.ke ‘mundua ere logika hon(e)tan hobe lihoake’ (ML-2009-GS-6mtz-2),

ez. ‘a.je.ta. ‘ez.min ‘ez aje eta ez min’ (ML-2009-GS-6mtz-3),

o.rain.goz.dau.kat. ‘u.tsu.ne.txo.bat ‘oraingoz daukat hutsunetxo bat’ (ML-2009-GS-6mtz-3, lehen aldiz kantatzean),

i.ri.tziz. ‘o.sa.tu.di.tut ‘iritziz osatu ditut’ (ML-2009-GS-ge-1),

latz. ‘a.rras.ta.ka.da.kar.gu (ML-2009-GS-ge-3),

etab.

Aurkako joera ageri duten adibideak. Aurrerago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-a duten adibideak. Lujanbioren 2009ko kasuan, *liaison*-a duten kasuak askoz gehiago dira etenez banatutakoak baino (bikoitza baino gehiago). Lujanbioren joera nagusia C# #V testuinguruan *liaisona* egitea dela esan daiteke.

Aurreko puntuan esan bezala, hitz artean lehen hitza kontsonantez amaitu eta bigarrena bokalez hasten denean, noizean behin eten laburra gauzatzen du Lujanbiok, hitzen arteko mugak urtu eta hots katea birsilabatu beharrean (*liaisona* egin beharrean). Aurreko puntuan aurkeztu bezala, mugatutako eremuak bertso-neurriaren egituratik edo hizkuntzarenetik uler daitezke, baita ahoskera argia bilatzetik ere, beharbada (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz). Neurriari lotuta, hemistikioaren eremua banatzen du batzuetan Lujanbiok eten laburrak: *ber.so.za.le.zu.mau.le.gas.teis.naiz*. ‘i.ru.ña.ko.au.to.bus.ka’ ‘bertsozale, zu, Maule, Gasteiz nahiz Iruñeko autobuska(da)’ (ML-2009-GS-ha), *mun.du.a.e.re.lo.ji.ka.on.tan*. ‘o.be.li.jo.a.ke’ ‘mundua ere logika hon(e)tan hobe lihoake’ (ML-2009-GS-6mtz-1), etab. Beste batzuetan oina da, errima daraman hitza, eten bidez mugatutakoa: *gaur.ko.sa.si.en*. ‘a.zi.a’ ‘gaurko sasien hazia’ (ML-2009-GS-8H-2), etab. Pentsatzekoa da beste kasu batzuetan ahoskera argia bilatzearen, esandako zerbait nabarmentzearen ondorioz, hots katea desanbiguotzeko, etab. baliatzen dituela Lujanbiok etenak: *o.o.re.aun.diz.gaur*. ‘en.tzu.le.den’ ‘ohore handiz gaur entzule den’ (ML-2009-GS-ha), *or.du.ko.be.run*. ‘a.le.ak.di.ra’ (ML-2009-GS-8H-2), *ni.ke.ma.ni.zun*. ‘o.rre.la’ ‘nik eman nizun horrela’ (ML-2009-GS-6mtz-1), *latz*. ‘a.rras.ta.ka.da.kar.gu’ (ML-2009-GS-ge-3), etab.

Goiko taulan aurreratu bezala, hitz arteko C# #V testuinguruan ohikoa da hitzok etenaz banatzea, baina askoz gehiagotan urtzen ditu Lujanbiok hitz arteko mugak, hots katea birsilabatuz eta silabatzea CV oinarritzko egiturarantz hurbilduz: *bi.o.tze.ta.pul.tsu* ‘bihotz eta pulsu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *ar.tu.be.so.ta.ne.ta* ‘hartu besoetan eta’ (ML-2009-GS-8tx-3), *e.ta.or.du.an.gus.to.zi.to.ko.zai.tut.zu* ‘eta orduan gustoz itoko zaitut zu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *e.zi.ni.ra.ka.tsi* ‘ezin irakatsi’ (ML-2009-GS-pe-1), *pa.rra*. ‘a.te.ra.tzen.zai.to.ri.e.sa.te.an’ ‘barrea ateratzen zait hori esatean’ (ML-2009-GS-pe-2), *te.le.bis.ta.ki.tza.li* ‘telebistak itzali’ (ML-2009-GS-pe-2), etab.

(F4) Hitz arteko kontsonante bilkura heterosilabikoetan (VC(C)# #(C)CV), herskariaren ahultze, asimilazio edo kenketarik ez gertatzea (modu nabarmenean), hots bakoitzak bere izaerari eutsiz⁶¹⁵.

Corpuseko adibide batzuk:

zen.bat.ber.so.la.ri ‘zenbat bertsolari’ (ML-2009-GS-ha), *de.nok.be.te.du.gu.gaur* (ML-2009-GS-ha), *i.a.el.du.ko.di.zut.be.la.rra.ta.ko.tik* ‘ia, helduko dizut belarritakotik’ (ML-2009-GS-8tx-2),

615 Lan honetan herskari bilkuren nondik norakoak jaso ditut, adibide ugari aurki daitezkeelako, horrela Lujanbioren silabatze-joeretara lehen hurbilpena eginez. Txistukari bilkurak edo ‘herskari + ozen’ gisako elkarketak ere gertatzen dira eta beharrezkoa litzateke kasu guztiak banan banan aztertu eta ulertzea ikuspegi xehe eta zabalagoa izateko.


ba.tak.bes.te.ai.as.ko ‘batak besteari asko’ (ML-2009-GS-pe-1), *gu.bi.ok.ba.de.gu.zer.bait* ‘gu biok badugu zerbait’ (ML-2009-GS-6mtz-2), *o.rain.bat.ta.bat* ‘orain bat (e)ta bat’ (ML-2009-GS-6mtz-2), *de.lol.mok.di.ost* ‘Del Olmok diost’ (ML-2009-GS-ge-1), *ba.ñai.tzak.kon.pon.du.ko.du* ‘baina hitzak konponduko du’ (ML-2009-GS-ge-3), *zen.bat.bu.ru.ko.min* (ML-2009-AS-10tx-3), *zen.bat.ta.su.nez.pa.ñe.tan* ‘zenbat tasun ezpainetan’ (ML-2009-BB-ge-1), etab.

Joera ahultzaileak ageri dituzten herskari bilkura heterosilabikoak⁶¹⁶:

o.e.ti.kos.ta.ta ‘ohetik kostata’ (ML-2009-GS-8H-1), *zu.e.guz.ti.on.tzat.la.gaz* ‘zuek guztiontzat lagaz’ (ML-2009-AS-ba).

Lujanbiok 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko bertsoetan hitz arteko mugak urtu eta hotsak birsilabatzea joera nagusi duen arren, hitz mugan herskari bilkurak (heterosilabikoak) sortzen direnean, hots guztiak ahoskatzen ditu normalean, ahultze nabarmenik gabe: *zen.bat.ber.so.la.ri* ‘zenbat bertsolari’ (ML-2009-GS-ha), *de.nok.be.te.du.gu.gaur* (ML-2009-GS-ha), *i.a.el.du.ko.di.zut.be.la.rri.ta.ko.tik* ‘ia, helduko dizut belarritakotik’ (ML-2009-GS-8tx-2), *ba.tak.bes.te.ai.as.ko* ‘batak besteari asko’ (ML-2009-GS-pe-1), *gu.bi.ok.ba.de.gu.zer.bait* ‘gu biok badugu zerbait’ (ML-2009-GS-6mtz-2), *o.rain.bat.ta.bat* ‘orain bat (e)ta bat’ (ML-2009-GS-6mtz-2), etab. Ikus ondoko espektrograma horren adibidetzat:


159. irudia: Espektrograma. *zen.bat.ber.so.la.ri* ‘zenbat bertsolari’ (ML-2009-GS-ha).



616 Herskari bilkura heterosilabikoetan badira hainbat zalantzazko adibide. Ondokoak dira adibideak, besteak beste: *o.rain.dik.da* (ML-2009-AS-10tx-2), *nik.ja.so.ko.det.ba.ña* ‘nik jasoko dut baina’ (ML-2009-AS-10tx-3), etab.

Edonola ere, badaude herskari bilkurak bakunduz kenketa gauzatutako adibide batzuk ere: *o.e.ti.kos.ta.ta* ‘ohetik kostata’ (ML-2009-GS-8H-1), *zu.e.guz.ti.on.tzat.la.gaz* ‘zuek guztiontzat lagaz’ (ML-2009-AS-ba). Kasu horietan Lujanbiok ez du lehenengo hitz amaieran (kodan) dagoen herskaria igurzkaritu edo ahostuntzen (ahoskabea bada); kendu egiten du:

160. irudia: Espektrograma. *o.e.ti.kos.ta.ta* ‘ohetik kostata’ (ML-2009-GS-8H-1).



Besterik da sudurkari bilkurekin, adibidez.

9.2.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko kohesiozile (*lenitio*) nagusiak

(L1) Hitz barneko segmentu kenketa eta desilabagiletze batzuk.

L.1.1. Desilabagiletzea (sineresia)⁶¹⁷, besteak beste.

Corpuseko adibideak:

naiz.ta.guk.ja.so.z[we].ke.re ‘nahiz (e)ta guk jaso zuek ere’ (ML-2009-GS-ha) —baina *zu.en.tza.ko* ‘zuentzako’ (ML-2009-GS-ge-1)—,

kon.tae.zi.ña.ren ‘kontaezinaren’ (ML-2009-GS-8H-2),

a.ze.le.r[aw].zaiz.ki.zu ‘azeleratu zaizkizu’ (ML-2009-GS-8tx-3),

ba.tak.bes.te.[aj].as.ko.e.zi.ni.ra.ka.tsi ‘batak besteari asko ezin irakatsi’ (ML-2009-GS-pe1) —baina *pu.bli.zi.da.de.a.ri* ‘publizitateari’ (ML-2009-GS-pe-1)—,

e.g[wa].rri.par.te.an ‘eguberri partean’ (ML-2009-GS-pe-2),

.bear. ‘behar’ (x3) (ML-2009-GS-6mtz-1; ML-2009-AS-10tx-1, 3) —baina *be.ar* ‘behar’ (ML-

⁶¹⁷ Aurkako norabidean, silabagiletze (dieresi) kasutzat har daitezke beharbada ondoko adibide hauek: *es.pu.e.la* (ML-2009-AS-ptk-3) —baina *es.p[we].la* ‘espuela’ (ML-2009-AS-ptk-2)—, *ma.je.an* ‘mahaian’ (ML-2009-AS-ptk-1).

2009-AS-ptk-3)—,
ber.di.n[ej]n.go.zen.du.ke.la ‘berdin egingo zenukeela’ (ML-2009-GS-6mtz-1),
a.nes.te.s[ja].ti.kes.na.tu.ze.ra ‘anestesiatic esnatu zara’ (ML-2009-GS-6mtz-3),
 [waj]n.dik ‘oraindik’ (ML-2009-AS-10tx-1),
e.me.neon.go ‘hemen egongo’ (ML-2009-AS-10tx-1),
a.f[aj].a ‘afaria’ (ML-2009-AS-10tx-3),
 [ej]n.go.de.gu.e.rrez ‘egingo dugu erraz’ (ML-2009-AS-ptk-3),
 j[wa]n ‘joan’ (x2) (ML-2009-AS-ge-1; ML-2009-BB-8tx-2) —baina *jo.an.ga.ra* ‘joan gara’ (ML-2009-GS-ha)—,
gaur.koa.ne.re ‘gaurkoan ere’ (ML-2009-BB-8tx-3),
 [oj].an ‘ohean’ (ML-2009-BB-ge-2), etab.

L.1.2. /e/ bokalaren kenketa aditz jokatueta bokal bilkuretan:

Corpuseko adibide batzuk:

e.tzen.du.nar.tu ‘ez zenuen hartu’ (ML-2009-GS-8H-3), *pen.tsa.tu.bai.nun* ‘pentsatu bainuen’ (ML-2009-GS-6mtz-1), *us.te.zen.dun* ‘uste zenuen’ (ML-2009-GS-ge-1), *fua.be.ar.zu.na* ‘foie behar zuena’ (ML-2009-AS-ha), *go.go.a.du.nak* ‘gogoia duenak’ (ML-2009-AS-ge-3), *ba.zun* ‘bazuen’ (ML-2009-BB-9phtz), etab.

Kenketa gabeko corpuseko adibide batzuk: *az.ter.tu.nu.en* ‘aztertu nuen’ (ML-2009-GS-ge-2), *zer.nai.ze.nu.en.bel.tza* ‘zer nahi zenuen, beltza’ (ML-2009-AS-ptk-1), *us.te.al.ze.nu.e.nez* ‘uste al zenuen ez’ (ML-2009-AS-ptk-7), *gu.bi.oi.ja.te.ne.man.zi.gu.na.kez.tu.e.la.ja.nai* ‘gu bioi jaten eman zigunak ez duela jan nahi’ (ML-2009-BB-6mtz-3), *ba.zu.en* ‘bazuen’ (ML-2009-BB-9phtz), etab.

L.1.3. Genitibo-markari (NOREN) lotutako -re- silabaren kenketa:

Corpuseko adibide batzuk:

du.zu.enan ‘dutzenaren’ (ML-2009-GS-ha), *lei.o.a.ner.tza* ‘leioaren ertza’ (ML-2009-GS-8H-1), *o.e.a.ne.pe.la* ‘ohearen epela’ (ML-2009-GS-6mtz-1), *o.si.je.no.an* ‘oxigenoaren’ (ML-2009-AS-ge-2), *i.txu.ran* ‘itxuraren’ (ML-2009-BB-6mtz-1), *a.txi.lo.ke.tan* ‘atxiloketaren’ (ML-2009-BB-9phtz), *kon.fe.si.o.an.pa.pe.la* ‘konfesioaren papera’ (ML-2009-BB-ge-3), etab.

L.1.4. Askotariko silaba kenketak.

Corpuseko adibide batzuk:

i.ru.ña.ko.au.to.bus.ka ‘Iruñeko autobuska(da)’ (ML-2009-GS-ha), *tao.ra.ño.e.an.la.sai.e.tza.ten* ‘ta orain ohean lasai etzaten’ (ML-2009-GS-8H-3) —baina *e.ta.e.sa.ne.zi.ñak* ‘eta esan ezinak’

(ML-2009-GS-8H-3)—, *ar.tu.be.so.ta.ne.ta* ‘hartu besoetan eta’ (ML-2009-GS-8tx-3) *pe.so.e.‘e.te.be.kin* ‘PSOE etb-rekin’ (ML-2009-GS-pe-2), *len.bi.ta.‘uts* ‘lehen bi (e)ta huts’ (ML-2009-GS-6mtz-2) —baina *le.e.ni.da.tzi.nu.e.na.ga.tik* ‘lehen idatzi nuenagatik’ (ML-2009-GS-ge-1)—, *u.mo.re.bel.tza.kin* ‘umore beltzarekin’ (ML-2009-GS-6mtz-3), *goi.ta.be* ‘goi (e)ta behe’ (ML-2009-GS-ge-2), *es.pa.ñi.ko* ‘Espainiako’ (ML-2009-GS-ge-2), *o.nen.bu.run.bi.zi.dau.de* ‘onen buruan bizi(rik) daude’ (ML-2009-GS-ge-2), *po.li.ti.ka.rin.ba.te.ke.ma.na* ‘politikariren batek emana’ (ML-2009-GS-ge-3), *e.dan.da.re* ‘edanda ere’ (ML-2009-AS-ptk-5), *be.gi.tan.du.te* ‘begietan dute’ (ML-2009-AS-ge-2), *jo.la.soi.e.tan* ‘jolas horietan’ (ML-2009-AS-ge-2), *es.pe.ran.tza.ko* ‘esperantzarako’ (ML-2009-AS-ge-3), *ta.ba.rru.ne.zin.ka.bi.tu* ‘(e)ta barruan ezin kabitu’ (ML-2009-AS-ge-3), *le.nik* ‘lehenik’ (ML-2009-BB-6mtz-1), *aun.di.na* ‘handiena’ (ML-2009-BB-9phtz), etab.

Eskakizun metrikoak betetzeko, hitz barnean askotariko kenketa eta desilabagiletzeak gauzatzen ditu Lujanbiok. Horien artean aipagarri dira bokal arteko kontsonanteen kenketak eta bokal elkarketa heterosilabikoa osatzen duten bokaletako baten desilabagiletzea (lizentzia metrikoetan sineresi deiturikoa), ondoko bokalarekin antolatuz silaba bakarrean: *naiz.ta.guk.ja.so.z[we].ke.re* ‘nahiz (e)ta guk jaso zuek ere’ (ML-2009-GS-ha) —baina *zu.en.tza.ko* (ML-2009-GS-ge-1)—, *kon.tae.zi.ña.ren* ‘kontaezinaren’ (ML-2009-GS-8H-2), *a.ze.le.r[aw].zaiz.ki.zu* ‘azeleratu zaizkizu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *ba.tak.bes.te.[aj].as.ko.e.zi.ni.ra.ka.tsi* ‘batak besteari asko ezin irakatsi’ (ML-2009-GS-pe1) —baina *pu.bli.zi.da.de.a.ri* ‘publizitateari’ (ML-2009-GS-pe-1)—, *e.g[wa].rri.par.te.an* ‘eguberri partean’ (ML-2009-GS-pe-2), *.bear*. ‘behar’ (x3) (ML-2009-GS-6mtz-1; ML-2009-AS-10tx-1, 3) —baina *be.ar* ‘behar’ (ML-2009-AS-ptk-3)—, etab. Sinalefarekin batera —hitz arteko bokal bilkuren birsilabatzearekin, alegia— oso emankorra den baliabidea da Lujanbiorengan hitz barneko desilabagiltzea.

Aditz jokatueta bokal bilkuretan /e/ bokala kentzen du Lujanbiok ere hainbatetan, beharren arabera txandakatuz forma laburtuak eta laburtu gabeak: *e.tzen.du.nar.tu* ‘ez zenuen hartu’ (ML-2009-GS-8H-3), *pen.tsa.tu.bai.nun* ‘pentsatu bainuen’ (ML-2009-GS-6mtz-1), *us.te.zen.dun* ‘uste zenuen’ (ML-2009-GS-ge-1), *fua.be.ar.zu.na* ‘foie behar zuena’ (ML-2009-AS-ha), etab.

Bestelako askotariko kenketak ere gauzatzen ditu, goiko taulan ikus daitekeen bezala. Jasotako adibide batzuk bertsolariaren hizkeran edo besteren batean (euskara estandarrean, besteak beste) erabili eta hiztunak ezagutzen dituen formak dira, eta beharren arabera baliatzen du Lujanbiok forma bat edo beste. Genitibo markarekin gertatzen den txandakatzea da baliabide

emankorrenetakoa: *du.zu.e.nan* ‘duzuenaren’ (ML-2009-GS-ha), *lei.o.a.ner.tza* ‘leihoaren ertza’ (ML-2009-GS-8H-1), *o.e.a.ne.pe.la* ‘ohearen epela’ (ML-2009-GS-6mtz-1), *o.si.je.no.an* ‘oxigenoaren’ (ML-2009-AS-ge-2), *i.txu.ran* ‘itxuraren’ (ML-2009-BB-6mtz-1), etab. Bestelako kenketak ere gauzatzen ditu bertsolariak, askotarikoak: *i.ru.ña.ko.au.to.bus.ka* ‘Iruñeko autobuska(da)’ (ML-2009-GS-ha), *tao.ra.ño.e.an.la.sai.e.tza.ten* ‘ta orain ohean lasai etzaten’ (ML-2009-GS-8H-3) —baina *e.ta.e.sa.ne.zi.ñak* ‘eta esan ezinak’ (ML-2009-GS-8H-3)—, *ar.tu.be.so.ta.ne.ta* ‘hartu besoetan eta’ (ML-2009-GS-8tx-3), *pe.so.e.‘e.te.be.kin* ‘PSOE etb-rekin’ (ML-2009-GS-pe-2), *en.bi.ta.‘uts* ‘lehen bi (e)ta huts’ (ML-2009-GS-6mtz-2) —baina *le.e.ni.da.tzi.nu.e.na.ga.tik* ‘lehen idatzi nuenagatik’ (ML-2009-GS-ge-1)—, etab. Gertakari bakoitza sakonago aztertu beharko litzateke ondorio sendoak atera ahal izateko.

(L2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea baina modu jarraituan ahoskatzea [V# #V → V.V] (hiatoa).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

es.ku.zes.ku.es.ku.('us.ka) ‘eskuz esku, esku huska’ (ML-2009-GS-ha),
i.ru.ña.ko.au.to.bus.ka ‘Iruñeko autobuska(da)’ (ML-2009-GS-ha),
ga.rai.o.tzo.tan.da.bi.lle.no.ro ‘garai hotzotan dabilen oro’ (ML-2009-GS-ha),
o.o.re.aun.diz.gaur ‘ohore handiz gaur’ (ML-2009-GS-ha),
a.o.ri.ka.o.e.rri.ri.ke.rri ‘ahorik aho herririk herri’ (ML-2009-GS-ha),
jo.an.ga.ra.aun.di.tuz.ta ‘joan gara handituz ta’ (ML-2009-GS-ha),
zu.e.re.ge.rra.ni.bi.lli.zi.ñan ‘zu ere gerran ibili zinen’ (ML-2009-GS-8H-3),
tao.rai.ño.e.an.la.sai.e.tza.ten ‘(e)ta orain ohean lasai etzaten’ (ML-2009-GS-8H-3),
tri.pa.e.re ‘tripa ere’ (ML-2009-GS-8tx-1),
gua.po.nai.al.tzen.du.ke ‘guapo nahi al zenuke’ (ML-2009-GS-8tx-1),
i.a.el.du.ko.di.zut ‘ia, helduko dizut’ (ML-2009-GS-8tx-2),
ar.tu.be.so.ta.ne.ta.e.man.ne.ri.mu.xu ‘hartu besoetan eta eman niri musu’ (ML-2009-GS-8tx-3),
e.ta.or.du.an.gus.to.zi.to.ko.zai.tut.zu ‘eta orduan gustoz itoko zaitut zu’ (ML-2009-GS-8tx-3),
ba.tak.bes.te.ai.as.ko.e.zi.ni.ra.ka.tsi ‘batak besteari asko ezin irakatsi’ (ML-2009-GS-pe1),
pu.bli.zi.da.de.a.ri.on.do.di.o.eu.tsi ‘publizitateari ondo dio eutsi’ (ML-2009-GS-pe1),
pa.rra.‘a.te.ra.tzen.zai.to.ri.e.sa.te.an ‘barrea ateratzen zait hori esatean’ (ML-2009-GS-pe2),
mun.du.a.e.re.lo.ji.ka.on.tan ‘mundua ere logika hon(e)tan’ (ML-2009-GS-6mtz-2),
ne.re.az.ken.zer.tze.la.da ‘nire azken zertzelada’ (ML-2009-GS-ge-1),

ta.a.ra.o.rain ‘(e)ta hara orain’ (ML-2009-GS-ge-2), *ze.us.tel* ‘zer ustel’ (ML-2009-GS-ge-2),
ne.re.i.dei.ak.mi.la.ka.la.gun ‘nire ideiak milaka lagun’ (ML-2009-GS-ge-2),
ez.da.kit.zein.dan.gu.re.e.rru.a ‘ez dakit zein den gure errua’ (ML-2009-GS-ge-3),
ez.ja.ki.ña.ren.za.ma.as.tu.na ‘ezjakinaren zama astuna’ (ML-2009-GS-ge-3),
gu.i.xil.tze.ko.en.kar.gu ‘gu isiltzeko enkargu’ (ML-2009-GS-ge-3), etab.

Bestelako joerak ageri dituzten adibideak:

Gorago jaso ditut hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak eten labur bidez banatutako kasuak. Bi joerak (bokal elkarketa etenaz banatzea edo modu jarraituan ahoskatzea) elkarren pareko dira agerpenei dagokienean Lujanbioren 2009ko silabatzean —besterik da bakoitzaren egitekoa zein den edo zein testuinguru diskurtsibo edo prosodikotan gertatzen den (ikus 10. kapitulua)—.

Lujanbiok 2009an sarri modu jarraituan ahoskatzen ditu hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak. Aire-etorria etengabe ahoskatzen ditu hitz arteko osagaiak, kateaturik, bokal bilkurak edo bestelako bilkurak izan: *ar.tu.be.so.ta.ne.ta.e.man.ne.ri.mu.xu* ‘hartu besoetan eta eman niri musu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *e.ta.or.du.an.gus.to.zi.to.ko.zai.tut.zu* ‘eta orduan gustoz itoko zaitut zu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *ba.tak.bes.te.ai.as.ko.e.zi.ni.ra.ka.tsi* ‘batak besteari asko ezin irakatsi’ (ML-2009-GS-pe1), *pu.bli.zi.da.de.a.ri.on.do.di.o.eu.tsi* ‘publizitateari ondo dio eutsi’ (ML-2009-GS-pe1), etab. (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz). Modu jarraian gauzatutakoak etenaz banatutako kasuekiko paretsu dira, adibide kopuruari dagokionez. Edonola ere, horiekin batera kontuan hartu behar dira hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak birsilabatu eta, bokaletako bati silabagiletasuna kenduta, silaba bakarrean —diptongo gisa— gauzatutako elkarketak (sinalefak), Lujanbioren silabatzean baliabide emankorra baita azken hori. Hala, hitzen arteko lotura, modu batera edo bestera, oso presente dago bertsolariaren jardunean.

(L3) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak birsilabatzea, silaba bakarrean ahoskatuta [V# #V → .(C)V(V)(C).] (lizentzia metrikoetan **sinalefa** gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (guztiak):

ai.ta.es.ker.tzen.di.zut ‘aita eskertzen dizut’ (ML-2009-GS-8H-1),
i.ra.ga.ni.ka.no.sa.t[we].ze.an ‘iraganik osatu ezean’ (ML-2009-GS-8H-1),
go.rri.t[we].gin.da ‘gorritu egin da’ (ML-2009-GS-8H-2),

tao.ra.ño.e.an '(e)ta orain ohean' (ML-2009-GS-8H-3),
as.pal.di.ku.tu.ga.be 'aspaldi ukitu gabe' (ML-2009-GS-8tx-1),
mai.ta.t[we].gin.go.zai.tut 'maitatu egingo zaitut' (ML-2009-GS-8tx-2),
au.rre.r[aw]s.ka.lo 'aurrera auskalo' (ML-2009-GS-6mtz-3),
zu.r[ej].ze.na.re.kin 'zure izenarekin' (ML-2009-GS-6mtz-3),
ne.rea.fi.zi.o 'nire afizio' (ML-2009-GS-ge-1), *ne.rea.te.an* 'nire atean' (ML-2009-GS-ge-2),
ai.gu.r[ej]z.kun.tza 'ai gure hizkuntza' (ML-2009-GS-ge-2),
i.da.tzi.[aj].zan 'idatzia izan' (ML-2009-GS-ge-3),
i.tzez.ko.[aj].zan 'hitzezkoa izan' (ML-2009-GS-ge-3),
ba.ñ[aj].tzak 'baina hitzak' (ML-2009-GS-ge-3),
ur.te.koar.do.ta 'urteko ardo (e)ta' (ML-2009-AS-ha),
u.rren.gour.te.a.ne.gin.bear.de.gu.des.ber.din 'hurrengo urtean egin behar dugu desberdin' (ML-2009-AS-10tx-3),
e.doar.do.go.rri.a 'edo ardo gorria' (ML-2009-AS-ptk-1),
tra.go.ar.tu 'tragoa hartu' (ML-2009-AS-ptk-7),
nai.ze.laen.te.ra.tzen 'naizela enteratzen' (ML-2009-AS-ptk-7),
e.gan.ba.ño.be 'hegan baino hobe' (ML-2009-AS-ptk-8),
noi.zir.ten.goe.do 'noiz irtengo edo' (ML-2009-AS-ge-1),
ai.ta.ta.ma.ko.rri.kus.ten.di.tut 'aita (e)ta amak hor ikusten ditut' (ML-2009-AS-ge-3),
taor.du.an '(e)ta orduan' (ML-2009-AS-ge-3),
as.ti.roas.ti.ro 'astiro-astiro' (ML-2009-BB-6mtz-1),
ba.ñae.te.nik.ga.be 'baina etenik gabe' (ML-2009-BB-6mtz-1),
is.pi.llu.a.reor.dau.ka.zu 'ispilua (e)re hor daukazu' (ML-2009-BB-6mtz-2),
ba.ñ[aj]z.ke.ta.nez.tu.te 'baina hizketan ez dute' (ML-2009-BB-8tx-1),
o.moa.bi.li.se.na 'homo habilisena' (ML-2009-BB-9phtz),
e.rau.zi.tae.ra.man.zu.ten 'erauzi (e)ta eraman zuten' (ML-2009-BB-ge-2),
es.pa.ñaez.te.la 'Espainia ez dela' (ML-2009-BB-ge-2),
baez.ti.zut 'ba ez dizut' (ML-2009-BB-ge-3),
ta.mai.tu.ko.dut '(e)ta amaituko dut' (ML-2009-AS-ba).

Sinalefarik gabeko adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen ez diren hiato adibideak, askoz ere gehiago direnak.

Sinalefa edo hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoa osatzen duten segmentuetako bat desilabagiletu eta silaba bakarrean gauzatzea Lujanbiok maiz darabilen baliabidea da bertsoen eskakizun metrikoak betetzeko. 32 kasutan egiten du 37 bertsotan, eta askotariko hitz arteko bokal elkarketak biltzen ditu silaba berean: /a/ + /e/ (*ai.taes.ker.tzen.di.zut* ‘aita eskertzen dizut’, ML-2009-GS-8H-1), /o/ + /a/ (*o.moa.bi.li.se.na* ‘homo habilisena’, ML-2009-BB-9phtz), /e/ + /o/ (*is.pi.llu.a.reor.dau.ka.zu* ‘ispilua (e)re hor daukazu’, ML-2009-BB-6mtz-2), /o/ + /e/ (*noi.zir.ten.goe.do* ‘noiz irtengo edo’, ML-2009-AS-ge-1), beheranzko diptongoak (*ai.gu.r[ej]z.kun.tza* ‘ai gure hizkuntza’, ML-2009-GS-ge-2), goranzkoak (*mai.ta.t[we].gin.go.zai.tut* ‘maitatu egingo zaitut’, ML-2009-GS-8tx-2), etab. Lujanbiok bokal berberen bilkurak ere gauzatzen ditu silaba bakarrean, elkarketa bakunduz: *as.pal.di.ku.tu.ga.be* ‘aspaldi ikutu gabe’ (ML-2009-GS-8tx-1), *ai.ta.ta.ma.ko.rri.kus.ten.di.tut* ‘aita (e)ta amak hor ikusten ditut’ (ML-2009-AS-ge-3), *e.gan.ba.ño.be* ‘hegan baino hobe’ (ML-2009-AS-ptk-8), etab. Aztertutako bertsolarien artean sinalefa gehien darabilen sortzailea da Lujanbio eta 2009ko txapelketan zein 2017koan antzeko neurrian darabil baliabide hau (gehiagotan gauzatzen dut 2017ko txapelketan proportzioan, baina aldea ez da handia: 2009an 32 sinalefa adibide jaso ditut 37 bertsotan; 2017an 39 sinalefa 39 bertsotan).

(L4) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean, silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#. #V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-a egitea hitzen arteko muga urtuz; hots katea birsilabatzea CV egiturarantz.

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

es.ku.zes.ku.es.ku ‘eskuz esku, esku’ (ML-2009-GS-ha),
ga.rai.o.tzo.tan.da.bi.lle.no.ro ‘garai hotzotan dabilen oro’ (ML-2009-GS-ha),
a.o.ri.ka.o.e.rri.ri.ke.rri ‘ahorik aho herririk herri’ (ML-2009-GS-ha)
naiz.ta.guk.ja.so.zue.ke.re ‘nahiz (e)ta guk jaso zuek ere’ (ML-2009-GS-ha),
lei.o.a.ner.tza ‘leihoaren ertza’ (ML-2009-GS-8H-1),
i.ra.ga.ni.ka.no.sa.tue.ze.an ‘iraganik(an) osatu ezean’ (ML-2009-GS-8H-1),
ge.ro.ri.ke.zi.ñe.rai.ki ‘gerorik ezin eraiki’ (ML-2009-GS-8H-1),
no.la.zau.ri.a.kez.ti.re.ni.txi ‘nola zauriak ez diren itxi’ (ML-2009-GS-8H-1),
ta.bi.zi.rik.de.nau.zi.a ‘ta bizirik den auzia’ (ML-2009-GS-8H-2),
zu.e.re.ge.rra.ni.bi.lli.zi.ñan ‘zu ere gerran ibili zinen’ (ML-2009-GS-8H-3),
e.tzen.du.nar.tu ‘ez zeuen hartu’ (ML-2009-GS-8H-3),


tao.ra.ño.e.an.la.sai.e.tza.ten ‘ta orain ohean lasai etzaten’ (ML-2009-GS-8H-3),
za.re.la.gu.ki.ku.si.rik ‘zarela guk ikusirik’ (ML-2009-GS-8H-3),
e.ta.e.sa.ne.zi.ñak ‘eta esan ezinak’ (ML-2009-GS-8H-3),
na.bi.lla.la.mo.du ‘nabil hala modu’ (ML-2009-GS-8tx-1),
ne.re.ki.ñez.kon.du ‘nirekin ezkondu’ (ML-2009-GS-8tx-1),
bi.o.tze.ta.pul.tsu ‘bihotz eta pultsu’ (ML-2009-GS-8tx-3),
ar.tu.be.so.ta.ne.ta ‘hartu besoetan eta’ (ML-2009-GS-8tx-3)
e.ta.or.du.an.gus.to.zi.to.ko.zai.tut.zu ‘eta orduan gustoz itoko zaitut zu’ (ML-2009-GS-8tx-3),
e.zi.ni.ra.ka.tsi ‘ezin irakatsi’ (ML-2009-GS-pe-1),
pa.rra.‘a.te.ra.tzen.zai.to.ri.e.sa.te.an ‘barrea ateratzen zait hori esatean’ (ML-2009-GS-pe-2),
te.le.bis.ta.ki.tza.li ‘telebistak itzali’ (ML-2009-GS-pe-2),
o.ra.ño.e.a.ne.pe.la ‘orain ohearen epela’ (ML-2009-GS-6mtz-1),
os.pi.ta.le.a.nel.ka.rri.ze.ar ‘ospitalean elkarri zehar’ (ML-2009-GS-6mtz-1),
ni.ke.ma.ni.zun ‘nik eman nizun’ (ML-2009-GS-6mtz-1),
pen.tsa.tu.bai.nun.zu.ke.re.ber.di.nein.go.zen.du.ke.la ‘pentsatu bainuen zuk ere berdin egingo zenukeela’ (ML-2009-GS-6mtz-1, lehen aldiz kantatzean),
ez.ti.zu.tu.ler.tu ‘ez dizut ulertu’ (ML-2009-GS-6mtz-3),
a.nes.te.sia.ti.kes.na.tu.ze.ra ‘anestesiatic esnatu zara’ (ML-2009-GS-6mtz-3),
o.rain.goz.dau.ka.tu.tsu.ne.txo.bat ‘oraingoz daukat hutsunetxo bat’ (ML-2009-GS-6mtz-3, errepikan),
ain.ba.tur.te.ko.pa.sa.da ‘hainbat urteko pasada’ (ML-2009-GS-ge-1),
e.gin.du.te.ta ‘egin dut eta’ (ML-2009-GS-ge-1),
o.ra.ña.tze.runtz ‘orain atzerantz’ (ML-2009-GS-ge-1),
de.lol.mok.di.ost ‘Del Olmok diost’ (ML-2009-GS-ge-1),
be.raz.be.rri.a.nuz.ten.di.zu.et ‘beraz, Berrian uzten dizuet’ (ML-2009-GS-ge-1),
le.e.ni.da.tzi.nu.e.na.ga.tik ‘lehen idatzi nuenagatik’ (ML-2009-GS-ge-1),
ja.da.ni.ke.naiz.ne.ra.be ‘jadanik ez naiz nerabe’ (ML-2009-GS-ge-2),
eus.ka.le.rri.ko.pren.tsan.zen.tsu.ra ‘Euskal Herriko prentsan zentsura’ (ML-2009-GS-ge-2),
le.tra.ri.ki.da.tzi.ga.be ‘letrarik idatzi gabe’ (ML-2009-GS-ge-2),
da.tor.kit.zen.bai.ta.kor.du ‘datorkit zenbait akordu’ (ML-2009-GS-ge-3),
po.li.ti.ka.rin.ba.te.ke.ma.na ‘politikariren batek emana’ (ML-2009-GS-ge-3),
ar.nal.do.ze.ta.bes.te.zen.bai.tez ‘Arnaldoz eta beste zenbaitez’ (ML-2009-GS-ge-3),
da.tor.kit.zen.bai.ta.kor.du ‘datorkit zenbait akordu’ (ML-2009-GS-ge-3),

e.rri.gin.tza.na.ri.ze.ra.te.nez ‘herrigintzan ari zaretenez’ (ML-2009-GS-ge-3),
es.ku.zes.ku.‘or.du.zor.du ‘eskuz esku orduz ordu’ (ML-2009-GS-ge-3),
le.tra.ki.xil.du.nai.an.ga.bil.tza ‘letrak isildu nahian gabiltza’ (ML-2009-GS-ge-3),
etab.

Liaisonik ez duten adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-ik egiten ez duten adibideak (eta bilakabidearen deskribapena). Lujanbioren 2009ko kasuan, *liaison*-a duten kasuak askoz gehiago dira etenez banatutakoak baino (bikoitza baino gehiago). Lujanbioren joera nagusia C# #V testuinguruan *liaisona* egitea dela esan daiteke.

Hitz artean C# #V testuingurua suertatzen denean hots elkarketa hori birsilabatzea da ohikoena Lujanbioren 2009ko bertsoen silabatzean: *o.rain.goz.dau.ka.tu.tsu.ne.txo.bat* ‘oraingoz daukat hutsunetxo bat’ (ML-2009-GS-6mtz-3, errepikan), *ain.ba.tur.te.ko.pa.sa.da* ‘hainbat urteko pasada’ (ML-2009-GS-ge-1), *e.gin.du.te.ta* ‘egin dut eta’ (ML-2009-GS-ge-1), *o.ra.ña.tze.runtz* ‘orain atzerantz’ (ML-2009-GS-ge-1), *de.lol.mok.di.ost* ‘Del Olmok diost’ (ML-2009-GS-ge-1), *be.raz.be.rri.a.nuz.ten.di.zu.et* ‘beraz, Berrian uzten dizuet’ (ML-2009-GS-ge-1), *le.e.ni.da.tzi.nu.e.na.ga.tik* ‘lehen idatzi nuenagatik’ (ML-2009-GS-ge-1), *ja.da.ni.ke.naiz.ne.ra.be* ‘jadanik ez naiz nerabe’ (ML-2009-GS-ge-2), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke hots katea nola ahoskatzen duen Lujanbiok modu jarraituan:

161. irudia: Espektrograma. *e.zi.ni.ra.ka.tsi* ‘ezin irakatsi’ (ML-2009-GS-pe-1).



Bertsoak errepika duenean, azken puntua —edo beste punturen bat— bi aldiz kantatzen denean, batzuetan lehen aldian hitzak elkarrengandik banatuta kantatzen ditu Lujanbiok, eta bigarren aldiz errepikatzean, hots katea birsilabatuta. Goizeko saioko seiko motzeko hirugarren bertso amaieran (ML-2009-GS-6mtz-3), adibidez, azken puntuko lehen hemistikioa ('oraingoz daukat hutsunetxo bat') lehen aldiz honela kantatzen du: *o.rain.goz.dau.kat.‘u.tsu.ne.txo.bat*. Errepikatzean, berriz, hitzen arteko mugak urtuz, horrela: *o.rain.goz.dau.ka.tu.tsu.ne.txo.bat*. Ematen duenez, mezuak argitasuna eskatzen duen kasu batzuetan, hitzak edo sintagmak bereiz ahoskatzen ditu Lujanbiok, eta behin puntua lehen aldiz kantatuta, ahoskatzeko errazagoa den moduan errepikatzen duela puntua: *liaisona* eginda.

Kontrako bidean ere gauzatzen ditu silabatzeak errepikadun bertsoetan: lehenengo aldiz *liaison* eta guzti hots katea ahoskatu (*zu.ke.re.ber.di.nein.go.zen.du.ke.la* 'zuk ere berdin egingo zenukeela', ML-2009-GS-6mtz-1) eta, errepikan, esandakoa berretsiz bezala, sintagma edo hitza(k) banatuta (*zu.ke.re.ber.din.‘ein.go.zen.du.ke.la* 'zuk ere berdin egingo zenukeela', ML-2009-GS-6mtz-1).

Askotariko muga prosodikoak zeharkatzen ditu Lujanbiok *liaisonaren* bitartez: hitz mugetatik hasi eta esaldi edo hemistikioaren eremuetaraino (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz).

(L5) Kontsonante bilkura heterosilabikoen asimilazio eta kenketa batzuk, hitz artean⁶¹⁸.

L.5.1. Sudurkari elkarketa heterosilabikoetan, bi kontsonanteetako bat kentzea (elkarketa bakunduz).

Corpuseko adibide batzuk:

ni.ke.ma.ni.zun 'nik eman nizun' (ML-2009-GS-6mtz-1), (*gu bioi jaten eman*) *zi.gu.na.kez.tu.e.la.ja.nai* '(gu bioi jaten eman) zigunak ez duela jan nahi' (ML-2009-BB-6mtz-3), *i.pin.tze.naiz* 'ipintzen naiz' (ML-2009-BB-8tx-1), *i.za.nin.tzen* 'izan nintzen' (ML-2009-BB-ge-2), *i.za.nai.ze.la* 'izan naizela' (ML-2009-BB-ge-3), *go.go.ra.tze.naiz* 'gogoratzen naiz' (x2) (ML-2009-AS-ba), etab.

Nahitaezko ez den bilakabidea. Kenketa (garbirik) gabeko adibide batzuk:

e.san.nai.‘e.ta.e.sa.ne.zi.ñak 'esan nahi eta esan ezinak' (ML-2009-GS-8H-3), *ar.tu.be.so.ta.ne.ta.e.nan.ne.ri.mu.xu* 'hartu besoetan eta eman niri musu' (ML-2009-GS-8tx-3),

618 Aipatutakoez gain, ozen ondoko txistukariaren afrikatzea ere gertatzen da, besteak beste, bertsolariaren ahoskeran: *gua.po.nai.al.tzen.du.ke* 'guapo, nahi al zenuke' (ML-2009-GS-8tx-1), etab. Lan honetan lehen hurbilpen bat egin da bertsolarien silabatzerari. Hainbatetan esan bezala, gertakari guztiak xehe eta sakon aztertu beharko liriteke ulerkera zabalagorako.

eu.re.nau.rre.an.ne.gar ‘euren aurrezan negar’ (ML-2009-AS-ge-3), *ejn.nai.ez* ‘egin nahi ez’ (ML-2009-AS-ge-3), *e.tx.e.an.ni* (ML-2009-BB-ge-2), *oi.an.nu.e.na* ‘ohean nuena’ (ML-2009-BB-ge-2), etab.

L.5.2. **‘Ez’ hitz kodako txistukari ahoskabearen ondorengo herskari ahostuna ahoskabetzea.**


Corpuseko adibide batzuk:

no.la.zau.ri.a.kez.ti.re.ni.txi ‘nola zauriak ez diren itxi’ (ML-2009-GS-8H-1), *ez.ti.zu.tu.ler.tu* ‘ez dizut ulertu’ (ML-2009-GS-6mtz-3), *ez.ta.o.ñez.joa.ten* ‘ez da oinez joaten’ (ML-2009-AS-10tx-2), (*gu bioi jaten eman*) *zi.gu.na.kez.tu.e.la.ja.nai* ‘(gu bioi jaten eman) zigunak ez duela jan nahi’ (ML-2009-BB-6mtz-3), etab.

Ahoskabetu gabeko adibideak: *ez.da.kit* (ML-2009-GS-ge-3), *ez.di.zu.te.ran.tzun.go* ‘ez dizut erantzungo’ (ML-2009-BB-8tx-3), etab.


Lujanbiok, 2009ko bertsoetan batzuetan hitz arteko kontsonante bilkura heterosilabikoak ahultzen ditu, lehen hitzaren kodan dagoen kontsonantearen tasunen bat asimilatuz edo hotsa bera kenduz, gehienetan. Sudurkarien kasuan, bilkura bakundu egiten du, lehen hitz amaieran (kodan) zegoen hotsa kenduz: *ni.ke.ma.ni.zun* ‘nik eman nizun’ (ML-2009-GS-6mtz-1), (*gu bioi jaten eman*) *zi.gu.na.kez.tu.e.la.ja.nai* ‘(gu bioi jaten eman) zigunak ez duela jan nahi’ (ML-2009-BB-6mtz-3), *i.pin.tze.naiz* ‘ipintzen naiz’ (ML-2009-BB-8tx-1), *i.za.nin.tzen* ‘izan nintzen’ (ML-2009-BB-ge-2), *i.za.nai.ze.la* ‘izan naizela’ (ML-2009-BB-ge-3), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke adibide bat:

162. **irudia:** Espektrograma. *go.go.ra.tze.naiz* ‘gogoratzen naiz’ (x2)(ML-2009-AS-ba).



Sudurkari elkarketen bakuntze-adibideak andana diren arren, badira kontsonanteen asimilazio edo kenketa argirik gabeko hainbat adibide ere: *e.san.nai*.‘*e.ta.e.sa.ne.zi.ñak* ‘esan nahi eta esan ezinak’ (ML-2009-GS-8H-3), *ar.tu.be.so.ta.ne.ta.e.nan.ne.ri.mu.xu* ‘hartu besoetan eta eman niri musu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *eu.re.nau.rre.an.ne.gar* ‘euren aurrezan negar’ (ML-2009-AS-ge-3), *ejn.nai.ez* ‘egin nahi ez’ (ML-2009-AS-ge-3), *e.tx.e.an.ni* (ML-2009-BB-ge-2), etab. Ikus ondoko espektrograman, esate baterako:

163. **irudia:** Espektrograma. *eu.re.nau.rre.an.ne.gar* ‘euren aurrezan negar’ (ML-2009-AS-ge-3).



F4 atalean aurkeztu dut herskari bilkurekin modu nabarmenean ez ahultzea dela Lujanbioren 2009ko joera nagusia; sudurkariekin elkarren aurkako bi joerak aurki daitezke neurri paretsuan: bi sudurkariak ahoskatzea edo bakuntzea. Beharrezkoa litzateke kasu bakoitzean baldintza prosodikoak aztertu eta lotzen edo banatzen diren osagaien arteko harreman prosodiko eta sintaktiko-semantikoa zer-nolako den begiratzea, besteak beste, sudurkari bilkura bakundu edo bere horretan ahoskatzea zerk baldintzatzen duen hobeto ulertu ahal izateko.

Bestalde, ezeztapenaren (*ez*) ondoren herskari ahostunez hasitako aditz jokatua dagoenean, hitz hasierako herskaria ahoskabetzen du gehienetan: *no.la.zau.ri.a.kez.ti.re.ni.txi* ‘nola zauriak ez diren itxi’ (ML-2009-GS-8H-1), *ez.ti.zu.tu.ler.tu* ‘ez dizut ulertu’ (ML-2009-GS-6mtz-3), *ez.ta.o.ñez.joa.ten* ‘ez da oinez joaten’ (ML-2009-AS-10tx-2), (*gu bioi jaten eman*) *zi.gu.na.kez.tu.e.la.ja.nai* ‘(gu bioi jaten eman) zigunak ez duela jan nahi’ (ML-2009-BB-6mtz-3), etab. Erregela horren ondorioz, hots kateko segmentuak elkarren antzekoago egiten dira (ahoskagarriago) eta, era berean, bigarren silabaren —aditzaren— ekina indartzen da herskari ahoskabeaz.

9.3. Neurria betetzeko baliabide foniko nagusiak

Lujanbiok hizketa katea oinarri metrikoarekin uztartzeko hainbat baliabide foniko darabiltza 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean:

- Lujanbiok **hiatua** egiten du joera nagusi gisa, hitz bakoitzari “dagokion” silaba kopurua eskainiz; ahoskatu ahala behar diren silabak ekoitiziz, nolabait. Batzuetan hitz arteko mugak eten laburrez bereizten dituen arren, ohikoa da hitz eta sintagmak modu jarraituan ahoskatzea; horrek dakar hots katearen ezaugarrien arabera, hitzen arteko mugak urtu eta birsilabatzea (laisona egitea) ere, batzuetan. Beharren arabera sarri gauzatzen ditu **sinalefak**, hitz arteko bokal elkarketetan bokaletako bat desilabagilu eta silaba bakarrean ahoskatuta bitan beharrean. Aztertutako bertsolarien artean sinalefa gehien darabilen bertsolaria da Lujanbio: 32 kasutan darabil 37 bertsotan. Ondokoak dira adibide batzuk: *ai.ta.es.ker.tzen.di.zut* ‘aita eskertzen dizut’ (ML-2009-GS-8H-1), *i.ra.ga.ni.ka.no.sa.t[we].ze.an* ‘iraganik osatu ezean’ (ML-2009-GS-8H-1), *go.rrit[we].gin.da* ‘gorritu egin da’ (ML-2009-GS-8H-2), *tao.ra.ño.e.an* ‘(e)ta orain ohean’ (ML-2009-GS-8H-3), *as.pal.di.ku.tu.ga.be* ‘aspaldi ikutu gabe’ (ML-2009-GS-8tx-1), *mai.ta.t[we].gin.go.zai.tut* ‘maitatu egingo zaitut’ (ML-2009-GS-8tx-2), *au.rre.r[aw].s.ka.lo* ‘aurrera auskalo’ (ML-2009-GS-6mtz-3), *zu.r[ej].ze.na.re.kin* ‘zure izenarekin’ (ML-2009-

GS-6mtz-3), *ne.rea.fi.zi.o* ‘nire afizio’ (ML-2009-GS-ge-1), *ne.rea.te.an* ‘nire atean’ (ML-2009-GS-ge-2), etab.

- Hitz artean beharren arabera sinalefa gauzatzen duen bezala, hitz barneko bokal elkarketetan bokaletako bat desilabagiletu eta ondoko bokalarekin silaba berean ahoskatzen ditu Lujanbiok batzuetan (maiz horretarako bokal arteko kontsonanteak kenduz lehenago), lizentzia metrikoen artean **sineresi** gisa ezaguna dena eginez: *naiz.ta.guk.ja.so.z[we].ke.re* ‘nahiz (e)ta guk jaso zuek ere’ (ML-2009-GS-ha) —baina *zu.en.tza.ko* (ML-2009-GS-ge-1)—, *kon.tae.zi.ña.ren* ‘kontaezinaren’ (ML-2009-GS-8H-2), *a.ze.le.r[aw].zaiz.ki.zu* ‘azeleratu zaizkizu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *ba.tak.bes.te.[aj].as.ko.e.zi.ni.ra.ka.tsi* ‘batak besteari asko ezin irakatsi’ (ML-2009-GS-pe1) —baina *pu.bli.zi.da.de.a.ri* ‘publizitateari’ (ML-2009-GS-pe-1)—, *e.g[wa].rri.par.te.an* ‘eguberri partean’ (ML-2009-GS-pe-2), *.bear* ‘behar’ (x3) (ML-2009-GS-6mtz-1; ML-2009-AS-10tx-1, 3), etab. Sineresia ere baliabide emankorra da Lujanbioren silabatzean, gainerako bertsolariekin alderatuta.
- **Kenketa** ere aipatu behar da Lujanbioren baliabide metriko gisa 2009an. Askotariko moduetara laburtzen ditu bertsolariak hitzak silaba bat gutxiago ahoskatuta hots katea neurrira egokituz. Aditz jokatueta bokal bilkuretako /e/, adibidez, kendu egiten du batzuetan behar metrikoen arabera: *e.tzen.du.nar.tu* ‘ez zenuen hartu’ (ML-2009-GS-8H-3), *pen.tsa.tu.bai.nun* ‘pentsatu bainuen’ (ML-2009-GS-6mtz-1), *us.te.zen.dun* ‘uste zenuen’ (ML-2009-GS-ge-1), *fua.be.ar.zu.na* ‘foie behar zuena’ (ML-2009-AS-ha), etab. Edo genitibo markak (NOREN) duen *-(r)e-* gauzatu edo ez neurriak baldintzatzen duela dirudi: *du.zu.enan* ‘duzuenaren’ (ML-2009-GS-ha), *lei.o.a.ner.tza* ‘leihoaren ertza’ (ML-2009-GS-8H-1), *o.e.a.ne.pe.la* ‘ohearen epela’ (ML-2009-GS-6mtz-1), *o.si.je.no.an* ‘oxigenoaren’ (ML-2009-AS-ge-2), etab. Silabak kendutako bestelako formak ere badarabiltza: *ar.tu.be.so.ta.ne.ta* ‘hartu besoetan eta’ (ML-2009-GS-8tx-3) *pe.so.e.‘e.te.be.kin* ‘PSOE etb-ekin’ (ML-2009-GS-pe-2), *len.bi.ta.‘uts* ‘lehen bi (e)ta huts’ (ML-2009-GS-6mtz-2) —baina *le.e.ni.da.tzi.nu.e.na.ga.tik* ‘lehen idatzi nuenagatik’ (ML-2009-GS-ge-1)—, *u.mo.re.bel.tza.kin* ‘umore beltzarekin’ (ML-2009-GS-6mtz-3), *goi.ta.be* ‘goi (e)ta behe’ (ML-2009-GS-ge-2), *es.pa.ñi.ko* ‘Espainiako’ (ML-2009-GS-ge-2), *o.nen.bu.run.bi.zi.dau.de* ‘onen buruan bizi(rik) daude’ (ML-2009-GS-ge-2), etab. Azken horietan, bertsoetako informazioa soilik hartuta kontuan, zaila da zehazten bilakabide fonologikoen ondorio izan diren silabatze horietako batzuk edo Lujanbioren hizkeran jada horrela lexikalizatutako formak diren (eta beharren arabera darabilen hizkeren arteko aldakortasuna).

- Azkenik, **gehiketak** aipatu behar dira Lujanbioren baliabide metriko gisa, oso baliabide oparoa ez den arren bertsolari honen kasuan. Beharbada dieresitzat (hitz barneko silabagiletzetzat) har daitezkeen pare bat kasu daude: *es.pu.e.la* (ML-2009-AS-ptk-3) —baina *es.p[we].la* ‘espuela’ (ML-2009-AS-ptk-2)—, *ma.je.an* ‘mahaian’ (ML-2009-AS-ptk-1). Horrez gain, gehiketan (ere) hizkuntzaren alor morfonologikoa sartzen da bete-betean, erregelen ondorio diren txandakatzeak edo hizkera desberdinetan baliatutako formak erabiltzen baititu bertsolariak komeni gisa, neurria egoki betetzeko, kenketadun adibide askotan bezalaxe. Gehiketen eremuan ablatiboa (NONDIK) eta partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/-(r)ik* eta *-tikan/-(r)ikan* formen arteko txandakatzea aipa daiteke, nagusiki, 2009ko txapelketako bertsoetan (ere): *i.ra.ga.ni.ka.no.sa.tue.ze.an* ‘iraganik(an) osatu ezean’ (ML-2009-GS-8H-1) —baina *ge.ro.ri.ke.zi.ñe,rai.ki* ‘gerorik ezin eraiki’ (ML-2009-GS-8H-1)—, *er.di.i.lli.ka.ne.do* ‘erdi hilik edo’ (ML-2009-AS-ptk-4).

9.4. Joera nagusiak laburbilduz

Maialen Lujanbiok 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoen silabatzean fokua jarririk, esan daiteke bertsolariak silabak modu kohesionatuan ahoskatzen dituela, eremu prosodikoen arteko kohesioa nagusitzen delarik, batetik. Sarri hitzen arteko mugak urtzen ditu bokal elkarketa heterosilabikoak modu jarraituan ahoskatuta, sinalefa gauzatuta edo *liaisona* eginda, hotsak birsilabatuta. Sudurkariz osatutako kontsonante taldeak ere bakuntzen ditu maiz. Gainera, Amuriza, Lizaso edo Lopategiren silabatzean aurkitutako *fortitio* batzuk ez daude presente: hasperena, “makulu-silaba” deiturikoa edo bokal aurreko zein bokal arteko /i/-ren kontsonantetzea. Eremu prosodiko bakoitzak —silabak, hitzak, esaldiak— ez du silabatzean horrenbesteko pisurik hartzen sistematikoki, joera nagusi gisa.

Bestalde, ordea, argitasunaren mesedetan (askotariko motiboak tarteko; ikus §10. kapitulua) kasuan-kasuan eremu prosodiko jakinak —hitzak, esaldiak— mugatzen ditu Lujanbiok eten bidez, herskariak bokal artean ohi baino herskariago hautematen dira kasu jakinetan, eta kontsonante taldeak ere maiz ahoskatzen ditu modu nabarmenean ahuldu gabe. Segmentuen izaera ahal den gehien mantenduz, silabatze jarraituranzko joera ageri du bertsolariak, maila segmentalean *lenitio* nabarmenik gauzatu gabe, baina hotsen antolakuntza prosodikoan osagaien kohesioaren alde lerratuz.

Aipatutako gertakarietako batzuek ondorio gisa dute hots katearen silabatzea oinarrizko CV egiturarantz hurbiltzea. Horrela, erraz ulertzen dira silaba-egituren maiztasunak aztertzean ateratako

datuak; silaba-ekina indartzen duten egiturak %80 izatea, eta silaba irekiak, %70a baino gehiago. Lujanbioren kasuan, Egañarenean bezala, joera indartzaileek ez dakarte berez CV egituraren aldeko joerarik, baina euskararen beraren fonologiak eta hots kateaz eginiko silabatzeak ondorio gisa dakarte aipatutako silaba-egiturak izatea nagusi.

Aipatutako gertakari eta joerek lizentzia metrikoen erabileran ere badute eragina: Lujanbioren silabatzean ohikoak dira sinalefak (32 sinalefa adibide 37 bertsotan) eta sineresiak, hitz arteko zein hitz barneko desilabagiletze bilakabideak. Bestelako silaben hitz barneko kenketa ere (sarri aldakortasun morfonologikoari lotuta) baliabide emankorra da bertsolariarengan, eta gehiketa kasu oso puntaletan darabil.

10. Amets Arzallus (2013)

10.1. Silaben egiturak eta horien maiztasunak

Arzallusen 2013ko txapelketako finaleko bertsotako silabak aztertuta, ondokoak dira bertsolariak ekoiztutako silaben egiturak, bakoitzetik zenbatu den silaba-kopurua eta orotara ahoskatutako silabekiko proportzioa (maiztasuna):

17. taula: 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Amets Arzallusek ekoiztutako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	1996	%62,91
CVC	621	%19,57
V	344	%10,84
VC	179	%5,64
CCV	27	%0,85
CVCC	4	%0,13
CCVC	2	%0,06
VCC	0	%0
	Guztira: 3173	
Silaba irekiak denetara:		%74,60
Silaba itxiak denetara:		%25,40

Taulan ikus daitekeenez, Arzallusen silabatzean CV egitura da nagusi, egiturarik oinarrizkoena (%62,91). Horren ondoren, CVC silaba-egitura baliatzen du maizen bertsolariak (%19,57). Silaba ekina indartzen duten egiturak %80tik gora dira (%83,52), nahiz eta esan behar den ekinean kontsonante bat baino gehiago gauzatzea ez dela batere ohikoa Arzallusentzat; CCV (%0,85) eta CCVC (%0,06) egiturak ez dira ekoiztako silaben %1era heltzen. CVC egituraren ondoren, V bokalez (edo diptongoz) soilik osatutako silabek dute maiztasunik altuena: %10,84, VC egitura izanik hurrengoa maiztasunean (%5,64). Agerpen gutxi batzuk besterik ez ditu, orain arte aipatutako CCV eta CCVC egiturekin batera, CVCC (%0,13) silaba motak. VCC egiturak ez du agerpenik Arzallusen ekoizpenean. Silaba-ekinean eta kodan kontsonante bat baino gehiago ahoskatzea Arzallusentzat ezohikoa dela esan daiteke horrela.

Datuei bestela begiratuta, silaba irekiek egitura guztien %74,60 osatzen dute. Itxiek, berriz, %25,40.

10.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko segmental nagusiak

Ondokoak dira Arzallusek 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoetan baliatutako silabatze-joerak eta silaba-egitura eta silabatzea baldintzatzen duten bere bilakabide fonologiko nagusiak:

10.2.1. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko indartzaile (fortitio) nagusiak⁶¹⁹

(F1) Silaba ekineko herskari ahostunak ez igurzkaritzea (edo hala hautematea) **bokal artean**, ez hitz barnean ez hitz artean.

Corpuseko adibidea⁶²⁰: *ta.gu.[b]e.re.[b]i.maj.ta.le* '(e)ta gu bere bi maitale' (AA-2013-GS-8H-1), *a.rre.ba.[b]i* (AA-2013-AS-ba).


619 Jarraian aurkeztuko diren gertakariez gain, Arzallusen ekoizpenean bokal arteko hasperena ere jaso dut bi kasutan, hitz barnean: *a.ha.la* (AA-2013-BB-9phtz), *.z[aha]r*. (AA-2013-BB-ge-2). Azken adibidea (zahar) silaba bakartzat hartzen da, baina hasperena du bokal erdian (tarte batez ahoskabetzen da), "makulu silaba" gisa deskribatutakoaren antz handiagoa hartuz.

620 Aurretik ere azaldu bezala, bokal arteko herskari adibideak hautematetik abiatuta jasotakoak dira, ez bertsolarien ekoizpenean sistematikoki aztertutakoak. Arzallusen 2009ko bertsoetan adibide bakarra jaso dut, baina horrek ez du esan nahi kasu bakarra dagoenik. Azterketa sakonagoa behar du auzi honek; lan honetan lehen hurbilpena besterik ez dut egin.

2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko bertsoetan, Arzallusek, kasu zehatz batean behintzat, bokal arteko herskari ahostuna ez du ohi bezala igurzkaritzen, herskari gisa hautematen da: *ta.gu.be.re.bi.maj.ta.le* '(e)ta gu bere bi maitale' (AA-2013-GS-8H-1).

Ondoko espektrograman ikus daitezke bokal arteko kontsonante ezpainkariak (*bere* eta *bi* hitzen ekinekoa), kontsonante belar ahostunarekin —*gu* hitzaren ekineko kontsonantearekin— kontrastean.

27. irudia: Espektrograma. *ta.gu.be.re.bi.mai.ta.le* '(e)ta gu bere bi maitale' (AA-2013-GS-8H-1).



(F2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea eta etenaz banatzea

[V# #V → V.'V] (lizentzia metrikoetan hiato gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

gu.re. 'i.tzak 'gure hitzak' (AA-2013-GS-ha),

e.ta.gu.re. 'itz.kan.ta.tu.'o.nek 'eta gure hitz kantatu honek' (AA-2013-GS-ha),

ba.rra. 'o.ri.da.'a.mil.de.gi.bat 'barra hori da amildegi bat' (AA-2013-GS-8H-1),

ba.rra. 'o.ri.da 'barra hori da' (AA-2013-GS-8H-1),

a.rra.zoi.du.zu. 'a.rris.ku.tsu.a 'arrazoi duzu arriskutsua' (AA-2013-GS-8H-2),

ten.tsi.o. 'in.kre.txen.do.a 'tentsio in crescendoa' (AA-2013-GS-8H-2),
ba.ña. 'a.lae.re 'baina hala ere' (AA-2013-GS-8H-2),
guk.bi. 'e.ba.ki 'i.za.na.ga.tik 'guk bi ebaki izanagatik' (AA-2013-GS-8H-2),
nai.zor.ta.ra.ko. 'e.go.ki.a.go 'nahiz hortarako egokiago' (AA-2013-GS-8H-3),
su.bi.ja.na.ta. 'ar.zak 'Subijana (e)ta Arzak' (AA-2013-GS-8tx-1),
ez.tae.rre.xa.me.nu.a. 'on.gi.des.kri.bi.tzen 'ez da erraza menua ongi deskribatzen' (AA-2013-GS-8tx-2),
on.jo.pa.pi.llo.te.ko. 'an.ze.nes.kri.bi.tzen 'onddo papiloteko han zen eskribitzen' (AA-2013-GS-8tx-2),
e.txe.ra.ko. 'ain.nu.en 'etxerako hain nuen' (AA-2013-GS-8tx-3),
gus.to.ra.go.nen.go.ke. 'e.men.de.na.de.la 'gustorago nengoke hemen, dena dela' (AA-2013-GS-pe-1),
be.ti.koi.txi.ba.lu.te. 'e.gon.zen.kar.tze.la 'betiko itxi balute egon zen kartzela' (AA-2013-GS-pe-1),
ta.no.la.den.po.si.ble. 'e.tzai.da.zu.gal.de '(e)ta nola den posible ez (ie)zaidazu galde(tu)' (AA-2013-GS-pe-2),
ba.ña. 'a.ren. 'o.re.rik 'baina haren ohorerik' (AA-2013-GS-pe-2),
ta.o.rre.ni.ze.ne.an '(e)ta horren izenean' (AA-2013-GS-pe-3),
zo.rro.tza.da. 'ez. 'a.mu.tsa 'zorrotza da, ez kamutsa' (AA-2013-GS-6mtz-1),
ai.ba.ña. 'ai.tor 'ai, baina Aitor' (AA-2013-GS-6mtz-1),
e.gi.ñe.za.zu. 'e.te.na 'egin ezazu etena' (AA-2013-GS-6mtz-2),
ez.pai.ta. 'ai.tor 'ez baita, Aitor' (AA-2013-GS-6mtz-2),
e.gin.ga.be.ko. 'o.be.na 'egin gabeko hobena' (AA-2013-GS-6mtz-2),
ta.ge.ro. 'e.gin '(e)ta gero egin' (AA-2013-GS-6mtz-3),
i.ru. 'a.bi.zen 'hiru abizen' (AA-2013-GS-ge-1),
no.la. 'e.neu.kan 'nola ez neukan' (AA-2013-GS-ge-1),
as.ki. 'ar.gi.ta. 'as.ki.sen 'aski argi (e)ta aski sen' (AA-2013-GS-ge-1),
o.gei. 'ur.te.ta. 'a.na.si.nin.tzen 'hogeit urte (e)ta han hasi nintzen' (AA-2013-GS-ge-1),
goi.ze.tik.gau. 'i.zer.di.tzen 'goizetik gau izerditzen' (AA-2013-GS-ge-1),
ta. 'az.ke.ne.an '(e)ta azkenean' (AA-2013-GS-ge-1),
kuar.te.le.ra. 'el.du.nin.tzen 'kuartelera heldu nintzen' (AA-2013-GS-ge-1),
ez.ta. 'i.zan.go 'ez da izango' (AA-2013-GS-ge-2),
e.ta. 'il.ba.duk 'eta hil baduk' (AA-2013-GS-ge-2),
e.ta. 'au.zi.te.gi.ge.la 'eta auzitegi gela' (AA-2013-GS-ge-3),

on.taz.ta. ‘*ar.taz* ‘hon(e)taz eta hartaz’ (AA-2013-GS-ge-3),
gal.dez.ka. ‘*a.ri.di.re.la* ‘galdezka ari direla’ (AA-2013-GS-ge-3),
e.ta. ‘*o.rain.neu* ‘eta orain neu’ (AA-2013-GS-ge-3), etab.

Nahitaezkoa ez den joera. Bestelako joerak ageri dituzten corpuseko adibideak:

Aurrerago jaso ditut modu jarraituan ahoskatzen diren hitz arteko bokal elkarketa adibideak, aire-etorria eten gabe gauzatutakoak. Arzallusen 2013ko silabatzean etendun adibideak gehiago dira modu jarraituan ahoskatutakoak baino, nahiz eta kontuan hartu behar den ahoskera modu bakoitza zein testuinguru diskurtsibo edo prosodikotan gertatzen den (ikus 10. kapitulua).


Aurrerago jaso ditut, era berean, testuinguru berean **birsilabatzen diren sinalefa adibideak.**

2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, bertso-neurriaren egitura orokorra adierazten duten egiturazko etenez gain, eten artikulorio laburragoak egiten ditu Arzallusek hitz eta sintagma artean. Horietako asko hitz mugan lehen hitza bokalez amaitu eta hurrengo hitza ere bokalez hasten denean gauzatzen ditu, bokal bilkura ekidinez (V#.#V). Sarri bertso-egituratik uler daitezke eten horiek. Esate baterako, molde handiko bertsoetan —puntua 10+8 silabaz osatzen denean— hemistikioa bitan banatzen duen etena izan daiteke bokal artean gauzatutakoa: *ba.rra.* ‘*o.ri.da.* ‘*a.mil.de.gi.bat* ‘barra hori da amildegi bat’ (AA-2013-GS-8H-1), *a.rra.zoi.du.zu.* ‘*a.rris.ku.tsu.a* ‘arrazoi duzu arriskutsua’ (AA-2013-GS-8H-2), *guk.bi.* ‘*e.ba.ki* ‘*i.za.na.ga.tik* (AA-2013-GS-8H-2), *nai.zor.ta.ra.ko.* ‘*e.go.ki.a.go* ‘nahiz hortarako egokiago’ (AA-2013-GS-8H-3), etab. Edo hemistikio mailakoa: *ez.tae.rre.xa.me.nu.a.* ‘*on.gi.des.kri.bi.tzen* ‘ez da erraza menua ongi deskribatzen’ (AA-2013-GS-8tx-2), *on.jo.pa.pi.llo.te.ko.* ‘*an.ze.nes.kri.bi.tzen* ‘onddo papilloteko han zen eskribitzen’ (AA-2013-GS-8tx-2), *gus.to.ra.go.nen.go.ke.* ‘*e.men.de.na.de.la* ‘gustorago nengoke hemen, dena dela’ (AA-2013-GS-pe-1), etab. Oina ere mugatzen da sarri eten horien bidez: *gu.re.* ‘*i.tzak* ‘gure hitzak’ (AA-2013-GS-ha), *ten.tsi.o.* ‘*in.kre.txen.do.a* ‘tentsio in *crescendoa*’ (AA-2013-GS-8H-2), *e.ta.* ‘*au.zi.te.gi.ge.la* (AA-2013-GS-ge-3), *gal.dez.ka.* ‘*a.ri.di.re.la* (AA-2013-GS-ge-3), etab.

Azkenik, badira arrazoi metriko-musikaletatik ulertzen zail diren kasuak. Horietan bestelako arrazoiak bilatu behar dira: bertsolariaren dikzio argia oharmen ontasuna helburu, hitzen bat nabarmentzea bertsoan duen esanahiagatik, perpausaren egitura kantuan ere islatzea, etab. (gai horietan §10. kapituluan sakondu dut). Adibidez: *e.ta.gu.re.* ‘*itz.kan.ta.tu.* ‘*o.nek* ‘eta gure hitz kantatu honek’ (AA-2013-GS-ha), *ba.rra.* ‘*o.ri.da* ‘barra hori da’ (AA-2013-GS-8H-1), *ba.ña.* ‘*a.lae.re* ‘baina hala ere’ (AA-2013-GS-8H-2), *ba.ña.* ‘*a.ren.* ‘*o.re.rik* ‘baina haren ohorerik’

(AA-2013-GS-pe-2), *ai.ba.ña. 'ai.tor* 'ai, baina Aitor' (AA-2013-GS-6mtz-1), *no.la. 'e.neu.kan* 'nola ez neukan' (AA-2013-GS-ge-1), *as.ki. 'ar.gi.ta. 'as.ki.sen* (AA-2013-GS-ge-1), etab. Ondoko espektrograman ikus daitezke Arzallusen bokal arteko etenetako batzuk:

164. irudia: Espektrograma. *as.ki. 'ar.gi.ta. 'as.ki.sen* (AA-2013-GS-ge-1).



(F3) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-ik ez egitea, hitzen arteko muga ez urtzea (lehen hitzeko kodako kontsonantea(k) ez silabatzea hurrengo silabako ekin hutsean). **Hitz artean hots katea ez birsilabatzea** CV egiturarantz.

Corpuseko adibide batzuk (goizeko saiokoak):

ni.ke.gi.a.rik. 'ez.tu.ta.mes.ten 'nik egiarik ez dut amesten' (AA-2013-GS-ha),

a.me.tsak.di.tut. 'e.gi.tzat 'ametsak ditut egiazat' (AA-2013-GS-ha),

be.gi.bis.tan. 'al.dez. 'al.de 'begi bistan aldez alde' (AA-2013-GS-8H-1),

e.men. 'o.re.kan 'hemen orekan' (AA-2013-GS-8H-1),

da.gu.re.tzat. 'e.men.go.a 'da gureztat hemengoa' (AA-2013-GS-8H-2),

e.man.go.di.zut. 'es.ku.a.e.ta 'emango dizut eskua eta' (AA-2013-GS-8H-3),

o.sa.sun.be.rri.bat. 'o.pa 'osasan berri bat opa' (AA-2013-GS-8H-3),

den. 'as.ko.zaz. 'ardo.ko.pa 'den askozaz ardo kopa' (AA-2013-GS-8H-3),

ar.zak. 'atzez. 'e.ra.kus.ten 'Arzak hatzez erakusten' (AA-2013-GS-8tx-1),

ka.biar. 'u.rar.do.tu.bat. 'o.rre.kin.se.gi.tzen 'kabiar urardotu bat horrekin segitzen' (AA-2013-GS-

8tx-2),

e.tx.e.ra.ko. 'ain.nu.en. 'aur.pe.gi.zi.me.la 'etxerako hain nuen aurpegi zimela' (AA-2013-GS-8tx-3),

a.ren. 'o.re.rik 'haren ohorerik' (AA-2013-GS-pe-2),

ar.gaz.ki.ba.ten.flax. 'u.tsa 'argazki baten *flash* hutsa' (AA-2013-GS-6mtz-1),

zo.rro.tza.da. 'ez. 'a.mu.tsa 'zorrotza da, ez kamutsa' (AA-2013-GS-6mtz-1),

bi.gor.putz. 'oi.ei 'bi gorputz ho(r)iei' (AA-2013-GS-6mtz-1),

an.ka.tar.te.e.tan. 'un.tza 'hankarteetan huntza' (AA-2013-GS-6mtz-1),

za.biltz.neu.rri.tik. 'ir.te.na 'zabiltza neurritik irtena' (AA-2013-GS-6mtz-2),

ez.pai.ta.ai.tor. 'ain.bes.te.ko.a 'ez baita, Aitor, hainbestekoa' (AA-2013-GS-6mtz-2),

bi.be.gi.en. 'a.ra.be.ra 'bi begien arabera' (AA-2013-GS-6mtz-3),

e.gin. 'u.rren.go.gal.de.ra 'egin hurrengo galdera' (AA-2013-GS-6mtz-3),

ge.ro.ne.ke.re.i.kas.de.za.gun. 'eu.re.kin.ba.te.ra 'geronek ere ikas dezagun eurekin batera' (AA-2013-GS-6mtz-3),

ro.dri.gez. 'i.ru 'Rodríguez hiru' (AA-2013-GS-ge-1),

i.ñoiz. 'ill.guar.dia.zi.bi.llik 'inoiz hil guardia zibilik' (AA-2013-GS-ge-2),

e.ta. 'il.ba.duk 'eta hil baduk' (AA-2013-GS-ge-2),

neu.re.lan.ki.de.bat. 'i.llik 'neure lankide bat hilik' (AA-2013-GS-ge-2),

se.gi.tzen.zu.ten. 'i.si.llik 'segitzen zuten isilik' (AA-2013-GS-ge-2),

to.ka.tu.ko.zait. 'i.tzal.lu.ze.a 'tokatuko zait itzal luzea' (AA-2013-GS-ge-3), etab.

Aurkako joera ageri duten adibideak. Aurrerago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-a duten adibideak. Arzallusen 2013ko kasuan, *liaison*-a duten kasuak eta etenaz banatutakoak pareko dira, antzeko neurrian gauzatzen dira —bakoitza zein testuinguru prosodiko edo sintaktikotan gertatzen den da aztertu beharrekoa—.

Aurreko puntuan esan bezala, hitz artean lehen hitza kontsonantez amaitu eta bigarrena bokalez hasten denean, noizean behin eten laburra gauzatzen du Arzallusek, hitzen arteko mugak urtu eta hots katea birsilabatu beharrean (*liaisona* egin beharrean). Aurreko puntuan aurkeztu bezala, mugatutako eremuak bertso-neurriaren egituratik edo hizkuntzarenetik uler daitezke sarri, baita ahoskera argia bilatzetik ere, beharbada (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz). Neurriari lotuta, hemistikioaren eremua banatzen du batzuetan Arzallusek eten laburraz: *ka.biar. 'u.rar.do.tu.bat. 'o.rre.kin.se.gi.tzen* 'kabiari urardotu at horrekin segitzen' (AA-2013-GS-8tx-2), *e.tx.e.ra.ko. 'ain.nu.en. 'aur.pe.gi.zi.me.la* 'etxerako hain nuen aurpegi zimela' (AA-2013-GS-8tx-

3), etab. Beste batzuetan oina da, errima daraman hitza, eten bidez mugatutakoa: *da.gu.re.tzat*. ‘*e.men.go.a* ‘da guretzat hemengoa’ (AA-2013-GS-8H-2), *be.gi.bis.tan*. ‘*al.dez*. ‘*al.de* (AA-2013-GS-8H-1), *o.sa.sun.be.rri.bat*. ‘*o.pa* (AA-2013-GS-8H-3), *atzez*. ‘*e.ra.kus.ten* ‘hatzez erakusten’ (AA-2013-GS-8tx-1), etab. Pentsatzekoa da beste kasu batzuetan ahoskera argia bilatzearen, esandako zerbait nabarmentzearen ondorioz, hots katea desanbiguotzeko, etab. baliatzen dituela Arzallusek etenak: *e.men*. ‘*o.re.kan* ‘hemen orekan’ (AA-2013-GS-8H-1), *den*. ‘*as.ko.zaz*. ‘*ardo.ko.pa* (AA-2013-GS-8H-3), *bi.gor.putz*. ‘*oi.ei* ‘bi gorputz ho(r)iei’ (AA-2013-GS-6mtz-1), *e.ta*. ‘*il.ba.duk* ‘eta hil baduk’ (AA-2013-GS-ge-2), *neu.re.lan.ki.de.bat*. ‘*i.llik* ‘neure lankide bat hilik’ (AA-2013-GS-ge-2), etab.

Goiko taulan aurreratu bezala, hitz arteko C# #V testuinguruan ohikoa da hitzok etenaz banatzea, baina baita hitz arteko mugak urtu eta, hots katea birsilabatuz, silabatzea CV oinarritzko egiturarantz hurbiltzea ere: *ni.ke.gi.a.rik* ‘nik egiarik’ (AA-2013-GS-ha), *ez.tu.ta.mes.ten* ‘ez dut amesten’ (AA-2013-GS-ha), *txo.ko.ba.te.man* ‘txoko bat eman’ (AA-2013-GS-ha), *lu.rro.ri.du* ‘lur hori du’ (AA-2013-GS-ha), *a.me.tse.gi.te.ko.bein.tzat* ‘amets egiteko behintzat’ (AA-2013-GS-ha), *ne.ro.ne.ke.re* ‘neronek ere’ (AA-2013-GS-8H-1), *e.gi.ne.no.te.dut.gal.de* ‘eginen ote dut galde’ (AA-2013-GS-8H-1), *ar.do.pa.txa.ra.ne.ta.wix.ki.ak* ‘ardo patxaran eta whisky-ak’ (AA-2013-GS-8H-1), etab.

10.2.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko kohesiozile (*lenitio*) nagusiak

(L1) Hitz barneko segmentu kenketa eta desilabagiletze batzuk.

L.1.1. Desilabagiletzea (sineresia), besteak beste.

Corpuseko adibideak:

ka.b[ja]r ‘kabiar’ (AA-2013-GS-8tx-2),

[oj].[ej] ‘horiei’ (AA-2013-GS-6mtz-1),

n[ew].rri.tik ‘neurritik’ (AA-2013-GS-6mtz-2),

bea.r.ko.da ‘beharko da’ (x2) (AA-2013-AS-ptk-2, 6),

g[wa].zen ‘goazen’ (AA-2013-AS-ge-1), *[ew]n.ba.teu.ro* ‘ehun bat euro’ (AA-2013-BB-8tx-1), etab.

L.1.2. Askotariko silaba kenketak.

Corpuseko adibide batzuk: *zaz.pi.pro.bin.tzi* ‘zazpi probintzia’ (AA-2013-GS-ha), *kon.tu.zar* ‘kontu zahar’ (AA-2013-GS-8H-3) —baina *a.az.tu* ‘ahaztu’ (AA-2013-AS-10tx-3)—, *ta.e.gin* ‘eta egin’ (AA-2013-GS-8H-3), *gla.mur.pix.ka.te.ma.nez* ‘glamour pixka bat emanez’ (AA-2013-GS-

8tx-3), *e.tzai.da.zu* ‘ez (ie)zaidazu’ (AA-2013-GS-pe-2), *e.mai.e.zu* ‘ema(n) (ieza)iezu’ (AA-2013-GS-6mtz-1), *e.tza.zu* ‘ez (e)zazu’ —baina *e.ze.za.zu.la* ‘ez ezazula’— (AA-2013-GS-6mtz-2), *e.men.go.es.ku.ta.ra* ‘hemengo eskuetara’ (AA-2013-AS-10tx-2), *e.man.zai.o.zu* ‘eman ‘(ie)zaiozu’ (AA-2013-AS-ptk-3), *len.go.pe.nak* ‘lehengo penak’ (AA-2013-AS-ge-3), *len.go.po.zak* ‘lehengo pozak’ (AA-2013-AS-ge-3) —baina *le.en* ‘lehen’ (AA-2013-BB-ge-1)—, *le.zai.o.ke* ‘liezaioke’ (AA-2013-BB-6mtz-3), *e.ner.gi* (AA-2013-BB-8tx-2), *gal.du.nu.ne.txe.a* ‘galdu nuen etxea’ (AA-2013-BB-8tx-3) —baina *ba.nu.en* (AA-2013-BB-9phtz)—, *ba.nun* ‘banuen’ (AA-2013-BB-9phtz), *len* ‘lehen’ (AA-2013-BB-ge-2) —baina *le.en* ‘lehen’ (AA-2013-BB-ge-1)—, etab.

Eskakizun metrikoak betetzeko, hitz barnean kenketa eta desilabagiletze batzuk gauzatzen ditu Arzallusek. Horien artean aipagarri dira bokal arteko kontsonanteen kenketak eta bokal elkarketa heterosilabikoa osatzen duten bokaletako baten desilabagiletzea (lizentzia metrikoetan sineresi deiturikoa), ondoko bokalarekin antolatuz silaba bakarreen. Bertsolariaren kasuan, oso ohiko diren hitzekin, maileguekin edo zalantzazko diren adibideetan bakarrik bildu dut gertakaria: *ka.b[ja]r* ‘kabiar’ (AA-2013-GS-8tx-2), *[oj].[ej]* ‘horiei’ (AA-2013-GS-6mtz-1), *n[ew].rri.tik* ‘neurritik’ (AA-2013-GS-6mtz-2), *be.ar.ko.da* ‘beharko da’ (x2) (AA-2013-AS-ptk-2, 6), *g[wa].zen* ‘goazen’ (AA-2013-AS-ge-1), etab. Aditz jokatuetakoko bokal bilkuretan /e/ bokala kentzen du Arzallusek kasuren batzuetan, gehienetan forma laburtu gabeak darabiltzan arren: *gal.du.nu.ne.txe.a* ‘galdu nuen etxea’ (AA-2013-BB-8tx-3), *ba.nun* ‘banuen’ (AA-2013-BB-9phtz), etab.

Bestelako askotariko kenketak ere gauzatzen ditu, goiko taulan ikus daitekeen bezala. Jasotako adibide batzuk bertsolariaren hizkeran edo besteren batean (euskara estandarrean, besteak beste) erabili eta hiztunak ezagutzen dituen formak dira, eta beharren arabera baliatzen du Arzallusek forma bat edo beste: *kon.tu.zar* ‘kontu zahar’ (AA-2013-GS-8H-3) —baina *a.az.tu* ‘ahaztu’ (AA-2013-AS-10tx-3)—, *ta.e.gin* ‘eta egin’ (AA-2013-GS-8H-3), *gla.mur.pix.ka.te.ma.nez* ‘glamour pixka bat emanez’ (AA-2013-GS-8tx-3), *e.tzai.da.zu* ‘ez (ie)zaidazu’ (AA-2013-GS-pe-2), *e.mai.e.zu* ‘ema(n) (ieza)iezu’ (AA-2013-GS-6mtz-1), *e.tza.zu* ‘ez (e)zazu’ —baina *e.ze.za.zu.la* ‘ez ezazula’— (AA-2013-GS-6mtz-2), *e.men.go.es.ku.ta.ra* ‘hemengo eskuetara’ (AA-2013-AS-10tx-2), *len.go.po.zak* ‘lehengo pozak’ (AA-2013-AS-ge-3) —baina *le.en* ‘lehen’ (AA-2013-BB-ge-1)—, etab. Gertakari bakoitza sakonago aztertu beharko litzateke ondorio sendoak atera ahal izateko.

(L2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea baina modu jarraituan ahoskatzea [V# #V → V.V] (hiatoa).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

e.ta.i.zen.bat.bi.zi.tzak ‘eta izen bat bizitzak’ (AA-2013-GS-ha),
zau.ri.a.o.sa.tzen.do.a ‘zauria osatzen doa’ (AA-2013-GS-8H-2),
es.ku.a.e.ta ‘eskua eta’ (AA-2013-GS-8H-3),
ta.e.gin.de.za.gun.to.pa ‘(e)taegin dezagun topa’ (AA-2013-GS-8H-3),
ba.o.rai.ni.a.ri.nai.zi.za.rra.ki.kus.ten ‘ba orain ni ari naiz izarrak ikusten’ (AA-2013-GS-8tx-1),
ja.ki.zu.o.ke.rre.na ‘jakizu okerrena’ (AA-2013-GS-8tx-3),
e.ta.mun.du.o.so.an ‘eta mundu osoan’ (AA-2013-GS-pe-1),
se.me.a.la.be.na ‘seme-alabena’ (AA-2013-GS-6mtz-2),
zer.sar.tu.in.ter.ne.te.ra ‘zer sartu internetera’ (AA-2013-GS-6mtz-3),
edo.e.ta.zer ‘edo eta zer’ (AA-2013-GS-6mtz-3),
ge.ro.ne.ke.re.i.kas.de.za.gun ‘geronek ere ikas dezagun’ (AA-2013-GS-6mtz-3),
pa.so.e.man.ta ‘paso eman (e)ta’ (AA-2013-GS-ge-1),
e.ta.or.du.tik ‘eta ordutik’ (AA-2013-GS-ge-1), *la.na.e.gin.dut* ‘lana egin dut’ (AA-2013-GS-ge-1),
ne.re.i.ze.na ‘nire izena’ (AA-2013-GS-ge-2), *gal.de.ra.au.ei* ‘galdera hauei’ (AA-2013-GS-ge-2),
o.rre.gon.go.aiz ‘hor egongo haiz’ (AA-2013-GS-ge-2),
za.rra.tu.e.ta ‘zarratu eta’ (AA-2013-GS-ge-2),
ba.ña.el.du.da ‘baina heldu da’ (AA-2013-GS-ge-3),
bi.or.du.di.ra ‘bi ordu dira’ (AA-2013-GS-ge-3),
na.go.i.si.lik ‘nago isilik’ (AA-2013-GS-ge-3), etab.

Bestelako joerak ageri dituzten adibideak:

Gorago jaso ditut hitz arteko **bokal elkarketa heterosilabikoak eten labur bidez banatutako kasuak**. Arzallusen 2013ko silabatzean etendun adibideak gehiago dira modu jarraituan ahoskatutakoak baino, nahiz eta kontuan hartu behar den ahoskera modu bakoitza zein testuinguru diskurtsibo edo prosodikotan gertatzen den (ikus 10. kapitulua).

Arzallusek 2013an sarri modu jarraituan ahoskatzen ditu hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak. Aire-etorria eten gabe ahoskatzen ditu hitz arteko osagaiak, bokal bilkurak zein bestelako hots bilkurak izan: *e.ta.i.zen.bat.bi.zi.tzak* (AA-2013-GS-ha), *zau.ri.a.o.sa.tzen.do.a* (AA-2013-GS-8H-2), *es.ku.a.e.ta* (AA-2013-GS-8H-3), *ta.e.gin.de.za.gun.to.pa* (AA-2013-GS-8H-3),

ba.o.rai.ni.a.ri.nai.zi.za.rra.ki.kus.ten ‘ba orain ni ari naiz izarrak ikusten’ (AA-2013-GS-8tx-1), *ja.ki.zu.o.ke.rre.na* (AA-2013-GS-8tx-3), *e.ta.mun.du.o.so.an* (AA-2013-GS-pe-1), *se.me.a.la.be.na* (AA-2013-GS-6mtz-2), etab. (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz). Modu jarraian gauzatutako adibideak asko diren arren (batez ere eremu prosodiko txikietan), etenaz banatutako hitz arteko bokal bilkurak gehiago dira (ia bikoitza), adibide kopuruari erreparatuta.

(L3) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak birsilabatzea, silaba bakarrean ahoskatuta [V# #V → .(C)V(V)(C).] (lizentzia metrikoetan **sinalefa** gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (guztiak):

a.lae.re ‘hala ere’ (AA-2013-GS-8H-2), *ez.tae.rre.xa* ‘ez da erraza’ (AA-2013-GS-8tx-2), *i.ra.kur.tz[ew].tsa.re.ki.ni.ga.xo.tu.nin.tzen* ‘irakurtze hutsarekin ni gaixotu nintzen’ (AA-2013-GS-8tx-2),

be.ti.k[oj].txi.ba.lu.te ‘betiko itxi balute’ (AA-2013-GS-pe-1),

i.ku.s[je]z.du.dan ‘ikusi ez dudan’ (AA-2013-GS-ge-2),

ba.ñaes.pe.ro.dut ‘baina espero dut’ (AA-2013-GS-ge-3),

tae.men ‘(e)ta hemen’ (AA-2013-AS-10tx-2),

za.lla.g[oj].zan.go.da ‘zailago izango da’ (AA-2013-AS-10tx-2),

ga.ñe.rao.rain ‘gainera orain’ (AA-2013-AS-10tx-3),

gei.a.goe.ma.ten.dut ‘gehiago ematen dut’ (AA-2013-AS-ptk-1),

ti.raez.ta ‘tira ez da’ (AA-2013-AS-ptk-7), *zi.tae.do.no.ri* ‘zita edonori’ (AA-2013-BB-6mtz-3),

e.ga.ñae.rre.xa ‘Egaña erraza’ (AA-2013-BB-8tx-3),

ne.r[ej].tza.la.ren ‘nire itzalaren’ (AA-2013-BB-ge-3),

ber.so.es.ko.la.ko ‘bertso eskolako’ (AA-2013-AS-ba).

Sinalefarik gabeko adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen ez diren hiato adibideak, askoz ere gehiago direnak.

Sinalefa edo hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoa osatzen duten segmentuetako bat desilabagiletu eta silaba bakarrean gauzatzea Arzallusek batzuetan darabilen baliabidea da bertsoen eskakizun metrikoak betetzeko. 15 kasutan egiten du 38 bertsotan, eta askotariko hitz arteko bokal elkarketak biltzen ditu silaba berean: /a/ + /e/ (*ez.tae.rre.xa* ‘ez da erraza’, AA-2013-GS-8tx-2), /a/ + /o/ (*ga.ñe.rao.rain* ‘gainera orain’, AA-2013-AS-10tx-3), /o/ + /e/ (*ber.so.es.ko.la.ko* ‘bertso eskolako’, AA-2013-AS-ba), behearanzko diptongoak (*za.lla.g[oj].zan.go.da* ‘zailago izango da’,

AA-2013-AS-10tx-2), goranzkoak (*i.ku.s[je]z.du.dan* ‘ikusi ez dudan’, AA-2013-GS-ge-2), etab. Arzallusen 2013ko jardunean ez dago bokal berberaren bilkura kasuetan bakuntzerik hitz artean.

(L4) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean, silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#. #V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-a egitea hitzen arteko muga urtuz; hots katea birsilabatzea CV egiturarantz.

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

ni.ke.gi.a.rik ‘nik egirik’ (AA-2013-GS-ha), *ez.tu.ta.mes.ten* ‘ez dut amesten’ (AA-2013-GS-ha),
txo.ko.ba.te.man ‘txoko bat eman’ (AA-2013-GS-ha), *lu.rro.ri.du* ‘lur hori du’ (AA-2013-GS-ha),
a.me.tse.gi.te.ko.bein.tzat ‘amets egiteko behintzat’ (AA-2013-GS-ha),
ne.ro.ne.ke.re ‘neronek ere’ (AA-2013-GS-8H-1),
e.gi.ne.no.te.dut.gal.de ‘eginen ote dut galde’ (AA-2013-GS-8H-1),
ar.do.pa.txa.ra.ne.ta.wix.ki.ak ‘ardo patxaran eta whisky-ak’ (AA-2013-GS-8H-1),
nai.zor.ta.ra.ko ‘nahiz hortarako’ (AA-2013-GS-8H-3),
zu.ga.ni.lu.si.o.bat ‘zuga ilusio bat’ (AA-2013-GS-8tx-1),
ze.ni.on.zen.ba.ti.zar ‘zenion zenbat izar’ (AA-2013-GS-8tx-1),
ba.o.rai.ni.a.ri.nai.zi.za.rra.ki.kus.ten ‘ba orain ni ari naiz izarrak ikusten’ (AA-2013-GS-8tx-1),
an.ze.nes.kri.bi.tzen ‘han zen eskribitzen’ (AA-2013-GS-8tx-2),
i.ra.kur.tzeu.tsa.re.ki.ni.ga.xo.tu.nin.tzen ‘irakurtze hutsarekin ni gaixotu nintzen’ (AA-2013-GS-8tx-2),
gla.mur.pix.ka.te.ma.nez ‘glamur pixka bat emanez’ (AA-2013-GS-8tx-3),
e.me.ne.re ‘hemen ere’ (AA-2013-GS-pe-2),
ta.o.rre.ni.ze.ne.an ‘(e)ta horren izenean’ (AA-2013-GS-pe-3),
bi.de.zu.ze.na.de.ni.ke.na.go.se.gu.ru ‘bide zuzena denik ez nago seguru’ (AA-2013-GS-pe-3),
e.gi.ne.za.zu ‘egin ezazu’ (AA-2013-GS-6mtz-2), *e.ze.za.zu.la* ‘ez ezazula’ (AA-2013-GS-6mtz-2),
e.tza.zu.zuk.zeu.ki.ma.ji.na.tu ‘ez (e)zazu zuk zeuk imajinatu’ (AA-2013-GS-6mtz-2),
e.gi.ñez.du.te.na (AA-2013-GS-6mtz-2),
ge.ro.ne.ke.re.i.kas.de.za.gun ‘geronek ere ikas dezagun’ (AA-2013-GS-6mtz-3),
a.na.si.nin.tzen ‘han hasi nintzen’ (AA-2013-GS-ge-1),
in.txau.rron.do.a.kas.tin.tzen ‘intxaurrondoak astintzen’ (AA-2013-GS-ge-1),
eus.ka.le.rri.an ‘Euskal Herrian’ (AA-2013-GS-ge-2),
i.ke.zo.te.duk ‘hik ez ote duk’ (AA-2013-GS-ge-2),

e.ran.tzu.nar.te ‘erantzun arte’ (AA-2013-GS-ge-2),
o.rre.gon.go.aiz ‘hor egongo haiz’ (AA-2013-GS-ge-2),
len.mu.ti.llai.ek ‘lehen mutil haiek’ (AA-2013-GS-ge-3), etab.

Liaisonik ez duten adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-ik egiten ez duten adibideak (eta bilakabidearen deskribapena). Arzallusen 2013ko kasuan, *liaison*-a duten kasuak eta etenaz banatutakoak pareko dira, antzeko neurrian gauzatzen dira.

Hitz artean C# #V testuingurua suertatzen denean hots elkarketa hori birsilabatzea da ohikoena Arzallusen 2013ko bertsoen silabatzean. *Liaisona* egiteak hots katearen antolakuntza CV egiturarantz lerratzen du: *ni.ke.gi.a.rik* ‘nik egiarik’ (AA-2013-GS-ha), *ez.tu.ta.mes.ten* ‘ez dut amesten’ (AA-2013-GS-ha), *txo.ko.ba.te.man* ‘txoko bat eman’ (AA-2013-GS-ha), *lu.rro.ri.du* ‘lur hori du’ (AA-2013-GS-ha), *a.me.tse.gi.te.ko.bein.tzat* ‘amets egiteko behintzat’ (AA-2013-GS-ha), *ne.ro.ne.ke.re* ‘neronek ere’ (AA-2013-GS-8H-1), *e.gi.ne.no.te.dut.gal.de* ‘eginen ote dut galde’ (AA-2013-GS-8H-1), *ar.do.pa.txa.ra.ne.ta.wix.ki.ak* ‘ardo patxaran eta whisky-ak’ (AA-2013-GS-8H-1), etab. Askotariko muga prosodikoak zeharkatzen ditu Arzallusek *liaison*aren bitartez: hitz mugatik hasi eta esaldi edo hemistikioaren eremuraino (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz).

(L5) Kontsonante bilkura heterosilabikoen asimilazio eta kenketa batzuk, hitz artean⁶²¹.

L.5.1. Klase bereko **kontsonante elkarketa heterosilabikoetan, bi kontsonanteetako bat asimilatu edota kentzea** (elkarketa bakunduz).

Corpuseko adibide batzuk:

Sudurkariak: *ni.sen.ti.tze.naiz* ‘ni sentitzen naiz’ (AA-2013-GS-8H-2),
ba.o.rai.ni.a.ri.naj.zi.za.rra.ki.kus.ten ‘ba orain ni ari naiz izarrak ikusten’ (AA-2013-GS-8tx-1),
i.ra.kur.tzeu.tsa.re.ki.ni.ga.xo.tu.nin.tzen ‘irakurtze hutsarekin ni gaixotu nintzen’ (AA-2013-GS-8tx-2), *gal.de.tze.ni.en* ‘galdetzen nien’ (AA-2013-GS-ge-2), *e.zi.nai.zu.ga.be.bi.zi* ‘ezin naiz zu gabe bizi’ (AA-2013-AS-ge-2), *o.rai.ne.re.li.bu.ru.ak* ‘orain nire liburuak’ (AA-2013-BB-ge-1), etab.

Herskariak⁶²²: *a.me.tsq[ɣ].di.tut* ‘ametsak ditut’ (AA-2013-GS-ha), *ba.te.pos.tre.ri.[ɣ]a.be*

621 Aipatutakoez gain, Arzallusen 2013ko silabatzean aipagarri da hitz arteko —eta kasuren batean, hitz barneko— herskari ahoskabeen ahostuntze eta igurzkaritzea, bokal artean, Lizasok 1986an ere egin bezala: *ba.ña.a.me.tse.[ɣ]ez.tu* ‘baina Ametsek ez du’ (AA-2013-BB-8tx-1), *ni.[ɣ]a.pus.tu* ‘nik apustu’ (AA-2013-BB-8tx-2), *a.me.tse.[ɣ]i.su.ri.du* ‘Ametsek isuri du’ (AA-2013-BB-8tx-2), *ni.[ɣ]as.ken.txa.pel.[ɣ]e.tan* ‘nik azken txapelketan’ (AA-2013-BB-8tx-3). Bildutako adibideak zortziko txikian lastertasun azkarraz kantatutakoak dira, hitz arteko mugak urtuz *liaisona* eginda gauzatutakoak.

‘bate(re) postrerik gabe’ (AA-2013-GS-8tx-3), *ma.ki.ña.ba.tal.de* ‘makina bat talde’ (AA-2013-GS-pe-2), *zer.dau.ka.txa.ra.des.ku.bri.tse.a[γ].bes.te.en.gor.pu.tza* ‘zer dauka txarra deskubritzeak besteen gorputza’ (AA-2013-GS-6mtz-1), *ta.gor.pu.tza.goi.ti[γ].be.ra* ‘(e)ta gorputza goitik behera’ (AA-2013-GS-6mtz-3), *ba.tzu.ka.te.ri.ña* ‘batzuk katerina’ (AA-2013-AS-ha), *gu[γ].de.non.tza.dau.ka.gu* ‘guk denontzat daukagu’ (AA-2013-AS-ha), *ni.go.men.di.o* ‘nik gomendio’ (AA-2013-AS-10tx-1), *e.tzaiz.ki.da.ni[γ].gus.ta.tzen* ‘ez zaizkidanik gustatzen’ (AA-2013-AS-ge-1), *ez.tu[ð].bes.te.ri.kes.ka.tzen* ‘ez dut besterik eskatzen’ (AA-2013-AS-ge-1), *nik.maj.te.zai.tu.ta* ‘nik maite zaitut ta’ (AA-2013-AS-ptk-8), *ar.de.za.gun.tar.te.ba.ta* ‘har dezagun tarte bat (e)ta’ (AA-2013-AS-ge-3, errepikan), *ni[γ].de.na.ma.ja.le.ne.nal.de.du.te.man.go* ‘nik dena Maialenen alde dut emango’ (AA-2013-BB-8tx-1), *ze.ru.ti[γ].be.gi.ra.dau.de* ‘zerutik begira daude’ (AA-2013-AS-ba), etab.

Nahitaezko ez den bilakabidea. Kenketa (garbirik) gabeko adibide batzuk:

Sudurkariak: *e.txe.ra.ko.‘ain.nu.en* ‘etxerako hain nuen’ (AA-2013-GS-8tx-3), *ja.kin.nai.dut.bai.‘u.mo.rez* (AA-2013-AS-ge-2), *nai.ze.ta.e.gin.ni.ga.rra* ‘nahiz eta egin negarra’ (AA-2013-BB-6mtz-1), *ja.kin.ne.re.sen.da.gai* ‘jakin nire sendagai’ (AA-2013-BB-9phtz), *zu.en.ni* ‘zuen ni’ (AA-2013-BB-ge-3), etab.

Herskariak: *di.o.zu.be.gi.ak.gor.dez* (AA-2013-AS-ge-2), *ar.de.za.gun.tar.te.bat.ta* ‘har dezagun tarte bat (e)ta’ (AA-2013-AS-ge-3, lehen aldiz kantatzean), etab.

L.5.2. ‘Ez’ hitz kodako txistukari ahoskabearen ondorengo herskari ahostuna ahoskabetzea.

Corpuseko adibide batzuk:

ez.tu.ta.mes.ten ‘ez dut amesten’ (AA-2013-GS-ha), *ez.tae.rre.xa* ‘ez da erraza’ (AA-2013-GS-8tx-2), *ez.pai.ta* ‘ez baita’ (AA-2013-GS-6mtz-2), *ez.ta.kit.zen.bat.fa.mi.lik* ‘ez dakit zenbat familiak’ (AA-2013-GS-ge-2), *ez.ta.‘i.zan.go* ‘ez da izango’ (AA-2013-GS-ge-2), *ni.kez.ti.o.te.man.go* ‘nik ez diot emango’ (AA-2013-AS-ptk-3), *ez.ta.en.bor.bat* ‘ez da enbor bat’ (AA-2013-AS-ge-1), *ez.ti.ot* ‘ez diot’ (AA-2013-AS-ge-1), *ni.kez.ti.zut* ‘nik ez dizut’ (AA-2013-AS-ge-1), *ez.tut.bes.te.ri.kes.ka.tzen* ‘ez dut besterik eskatzen’ (AA-2013-AS-ge-1), etab.


Ahoskabetze gabeko corpuseko adibide batzuk: *e.gi.ñez.du.te.na* ‘egin ez dutena’ (AA-2013-GS-6mtz-3), etab.

622 Ondokoak dira zalantzazko adibideak, besteak beste: *a.mil.de.gi.tik.ger.tu.ra.tze.an* (AA-2013-GS-8H-2), *guk.bi.‘ebaki* (AA-2013-GS-8H-2), etab.

Arzallusek 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean askotan hitz arteko kontsonante bilkura heterosilabikoak ahultzen ditu hots katearen kohesio eta ahoskagarritasunaren mesedetan. Gertakari horietako batzuk hautatu eta jaso ditut lan honetan, esanguratsu direlakoan. Batetik, klase bereko kontsonante bilkura suertatzen denean, lehen hitzaren kodan dagoen kontsonantearen tasunen bat asimilatu edo hotsa bera kendu egiten da. Sudurkari eta herskari bilkuren adibideak jaso ditut, horiek baitira maizen gertatzen diren kontsonante elkarketak.


Sudurkarien kasuan, bilkura bakundu egiten du Arzallusek, lehen hitz amaieran (koda) zegoen hotsa kenduz: *ni.sen.ti.tze.naiz* ‘ni sentitzen naiz’ (AA-2013-GS-8H-2), *ba.o.rai.ni.a.ri.naj.zi.za.rra.ki.kus.ten* ‘ba orain ni ari naiz izarrak ikusten’ (AA-2013-GS-8tx-1), *i.ra.kur.tzeu.tsa.re.ki.ni.ga.xo.tu.nin.tzen* ‘irakurtze hutsarekin ni gaixotu nintzen’ (AA-2013-GS-8tx-2), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke adibide bat:

165. irudia: Espektrograma. *o.rai.ne.re.li.bu.ru.ak* ‘orain nire liburuak’ (AA-2013-BB-ge-1).




Kontsonante ahultzeen adibideak andana diren arren, badira kontsonanteen asimilazio edo kenketa argirik gabeko adibide dezente ere: *e.tx.e.ra.ko.* ‘*ain.nu.en* ‘etxerako hain nuen’ (AA-2013-GS-8tx-3), *ja.kin.nai.dut.bai.* ‘*u.mo.rez* (AA-2013-AS-ge-2), *nai.ze.ta.e.gin.ni.ga.rra* ‘nahiz eta egin negarra’ (AA-2013-BB-6mtz-1), etab. Ikus ondoko espektrograman, esate baterako, nola ahoskatzen dituen Arzallusek bi sudurkariak eta, asmo horretan, nola gauzatzen duen kodan dagoen lehen sudurkariaren ondoren bokal labur epentetiko bat, berdina diren bi sudurkariak ahoskatu ahal izateko:

166. irudia: Espektrograma. *ain.nu.en* ‘hain nuen’ (AA-2013-GS-8tx-3).




Herskari bilkuretan, Arzallusek batzuetan ez du kodako segmentua guztiz kentzen, ahostundu eta igurzkaritu egiten du: *a.me.tsa[ɣ].di.tut* ‘ametsak ditut’ (AA-2013-GS-ha), *zer.dau.ka.txarra.des.ku.bri.tse.a[ɣ].bes.te.en.gor.pu.tza* ‘zer dauka txarra deskubritzeak besteen gorputza’ (AA-2013-GS-6mtz-1), *ta.gor.pu.tza.goi.ti[ɣ].be.ra* ‘(e)ta gorputza goitik behera’ (AA-2013-GS-6mtz-3), *gu[ɣ].de.non.tza.dau.ka.gu* ‘guk denontzat daukagu’ (AA-2013-AS-ha), etab. Beste batzuetan, ordea, *tempoa* azkartu eta eguneroko hizketa bizira gehiago hurbiltzen den kasuetan —non hotsen ahoskera argia ez den helburu nagusi, ahoskera erraztasuna baizik— herskari bilkuretan lehen silaba kodan dagoen segmentua guztiz kentzen du Arzallusek: *ma.ki.ña.ba.tal.de* ‘makina bat talde’ (AA-2013-GS-pe-2), *ba.tzu.ka.te.ri.ña* ‘batzuk katerina’ (AA-2013-AS-ha), *ni.go.men.di.o* ‘nik gomendio’ (AA-2013-AS-10tx-1), *nik.maj.te.zai.tu.ta* ‘nik maite zaitut ta’ (AA-2013-AS-ptk-8), *ba.te.pos.tre.ri.[ɣ]a.be* ‘bate(re) postrerik gabe’ (AA-2013-GS-8tx-3), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke azken adibidea:

35. **irudia:** *ba.te.pos.tre.ri.[y]a.be* ‘bate(re) postrerik gabe’ (AA-2013-GS-8tx-3).



Adibide argiak gutxi diren arren, herskari bilkurak ez ditu beti ahuldu edo soiltzen Arzallusek. Badira bi kontsonanteak argi ahoskatzen ahalegintzen den kasuak ere: *di.o.zu.be.gi.ak.gor.dez* (AA-2013-AS-ge-2), *ar.de.za.gun.tar.te.bat.ta* ‘har dezagun tarte bat (e)ta’ (AA-2013-AS-ge-3, lehen aldiz kantatzean), etab. Azken adibide hori da ondoko espektrograman azter daitekeena:

167. **irudia:** Espektrograma. *tar.te.bat.ta* ‘tarte bat (e)ta’ (AA-2013-AS-ge-3).



Irudian ikus daitekeenez, bi herskariak ahoskatzeko bokal epentetiko laburra txertatzen du Arzallusek herskari artean, sudurkari bilkuran egin bezala. *ar.de.za.gun.tar.te.bat[e].ta* ‘har dezagun tarte bat (e)ta’ (AA-2013-AS-ge-3, lehen aldiz kantatzean) adibidearekin aipagarria da, bertsoko azken puntuan kokatzen dela eta errepikatu egiten dela. Errepikan soildurik ahoskatzen du Arzallusek herskari bilkura; behin entzulearengana mezua argi helarazita, ahoskera erraztasuna gailentzen da: *ar.de.za.gun.tar.te.ba.ta* (AA-2013-AS-ge-3, errepikan).

Bestalde, ezeztapenaren (*ez*) ondoren herskari ahostunez hasitako aditz jokatur dagoenean, hitz hasierako herskaria ahoskabetzen du, salbuespen gabe: *ez.tu.ta.mes.ten* ‘ez dut amesten’ (AA-2013-GS-ha), *ez.tae.rre.xa* ‘ez da erraza’ (AA-2013-GS-8tx-2), *ez.pai.ta* ‘ez baita’ (AA-2013-GS-6mtz-2), *ez.ta.kit.zen.bat.fa.mi.lik* ‘ez dakit zenbat familiak’ (AA-2013-GS-ge-2), *ez.ta.‘i.zan.go* ‘ez da izango’ (AA-2013-GS-ge-2), etab.

10.3. Neurria betetzeko baliabide foniko nagusiak

Arzallusek hizketa katea oinarri metrikoarekin uztartzeko hainbat baliabide foniko darabiltza 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean:

- Nabarmenena **hiatoa** da. Esate baterako: *ar.zak.‘atzez.‘e.ra.kus.ten* ‘Arzak hatzez erakusten’ (AA-2013-GS-8tx-1), *atzez.‘e.ra.kus.ten* ‘hatzez erakusten’ (AA-2013-GS-8tx-1), *ka.biar.‘u.rar.do.tu.bat.‘o.rre.kin.se.gi.tzen* ‘kabiak urardotu at horrekin segitzen’ (AA-2013-GS-8tx-2), *e.ta.i.zen.bat.bi.zi.tzak* (AA-2013-GS-ha), *zau.ri.a.o.sa.tzen.do.a* (AA-2013-GS-8H-2), *es.ku.a.e.ta* (AA-2013-GS-8H-3), *ta.e.gin.de.za.gun.to.pa* (AA-2013-GS-8H-3), etab. Joera hau nagusizat har daiteke Arzallusen bertsoetako txertatze prosodikoan, ahoskatuko dituen hitzak, hots katea, bere horretan ahoskatzekoa. **Sinalefa** batzuk egiten ditu, hitz arteko bokal elkarketak silaba bakarrean (bir)silabatuz (15 kasutan darabil 38 bertsoan): *a.lae.re* ‘hala ere’ (AA-2013-GS-8H-2), *ez.tae.rre.xa* ‘ez da erraza’ (AA-2013-GS-8tx-2), *i.ra.kur.tz[ew].tsa.re.ki.ni.ga.xo.tu.nin.tzen* ‘irakurtze hutsarekin ni gaixotu nintzen’ (AA-2013-GS-8tx-2), *be.ti.k[oj].txi.ba.lu.te* ‘betiko itxi balute’ (AA-2013-GS-pe-1), *i.ku.s[je]z.du.dan* ‘ikusi ez dudan’ (AA-2013-GS-ge-2), *ba.ñaes.pe.ro.dut* ‘baina espero dut’ (AA-2013-GS-ge-3), etab. Hots katea oinarri metrikora egokitzeko bestelako baliabideak erabiltzen ditu bertsolariak, horietako bakar bat ere gehiegi nabarmentzen ez den arren.
- **Kenketa** aipatu behar da, gehiketarekin batera, lizentzia metriko nagusi gisa. Izan ere, askotariko moduetara laburtzen ditu Arzallusek hitzak hots katea neurrira egokitzeko. Hitz barneko bokalen desilabagiletzeren batekin batera (sineresia: [oj].[ej] ‘horiei’, AA-2013-

GS-6mtz-1; *g[wa].zen* ‘goazen’, AA-2013-AS-ge-1), zenbait hitzetan bikoiztutako bokalaren bakuntzea (*kon.tu.zar* ‘kontu zahar’, AA-2013-GS-8H-3 —baina *a.az.tu* ‘ahaztu’, AA-2013-AS-10tx-3—; *len.go.po.zak* ‘lehengo pozak’, AA-2013-AS-ge-3; *len* ‘lehen’, AA-2013-BB-ge-2 —baina *le.en* ‘lehen’, AA-2013-BB-ge-1—), aditz jokatu batzuen forma murriztuak (*e.tza.zu* ‘ez (e)zazu’ —baina *e.ze.za.zu.la* ‘ez ezazula’—, AA-2013-GS-6mtz-2; *e.man.zai.o.zu* ‘eman (ie)zaiozu’, AA-2013-AS-ptk-3; *gal.du.nu.ne.txe.a* ‘galdu nuen etxea’, AA-2013-BB-8tx-3 —baina *ba.nu.en*, AA-2013-BB-9phtz—) edo *-a itsatsi* gabeko formen erabilera (*zaz.pi.pro.bin.tzi* ‘zazpi probintzia’, AA-2013-GS-ha; *e.ner.gi* ‘energia’, AA-2013-BB-8tx-2) aipa daitezke, aldakortasun morfologikoa baliatuz, nagusiki, behar metrikoak betetzeko.

- Azkenik, **gehiketak** aipatu behar dira Arzallusen baliabide metriko gisa, horiek bereziki nabarmenak ez diren arren. Gertakari honetan ere hizkuntzaren alor morfonologikoa sartzen da batez ere, erregelen ondorio diren txandakatzeak edo hizkera desberdinetan baliatutako formak erabiltzen baititu bertsolariak komeni gisa, neurria egoki betetzeko. Esate baterako, partitiboa (ZERIK) erabiltzean, *-tik/-(r)ik* eta *-tikan/-(r)ikan* formen arteko txandakatzea baliatzea: *ez.mal.ko.ri.kan* ‘ez malkorik’ (AA-2013-AS-ge-2) —baina *ni.ke.gi.a.rik* ‘nik egiarik’ (AA-2013-GS-ha),—.

Hitz elkartua bere osagaien arabera banatzea (*an.ka.tar.te.e.tan*. ‘*un.tza* ‘hankarteetan huntza’, AA-2013-GS-6mtz-1), edo ergatibo marka hizkera batzuetan baliatu gisan, silaba bat gehiagorekin gauzatzea (*e.do.no.rek* ‘edonork’, AA-2013-AS-ge-2) aipa daitezke. Esan bezala, gehiketa maila fonikoan ez da Arzallusen bertsokeran bereziki aberatsa. Bertsolariak askotariko hitz, atzizki edo formulazioren bitartez bilatzeko joera du, du hots katea “ia bere horretan” silabatze modukoa izan dadin hautatuz, maila sintagmatikoan formak eraldatu beharrean.

10.4. Joera nagusiak laburbilduz

Amets Arzallusek 2013eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoen silabatzean fokua jarririk, esan daiteke bertsolariarengan elkarrekintzan daudela plano desberdinetan —maila prosodikoan eta segmentalean— fonologiaren egituratzean parte hartzen duten elkarren aurkako bi “indarrak”: oharren argitasuna eta ahoskera erraztasuna.

Batetik, hots katearen alor “fortitiboen” artean koka daitezke hitz arteko bokal bilkurak banatuz —batez ere— edo *liaisona* ekidinez eginiko eten laburrak, hitz eta sintagmen eremuak

mugatuz, baita hitz jakinen ekina nabarmenduz hautemandako herskari (horrenbeste) igurzkaritu gabeak ere. Hizketaren alderdi segmentala eta eremu prosodikoak indartzen eta markatzen dituen joera horien kontra, esanguratsua da, bestalde, 80ko hamarkadako txapelketetan Amurizak, Lizasok edo Lopategik gauzatzen dituzten beste indartze segmental batzuk apenas daudela presente: hasperena, “makulu-silaba” deiturikoa edo bokal aurreko zein bokal arteko /i/-ren kontsonantetzea.

Joera “kohesiogile” edo ahultzaileen artean, hitz barneko desilabagiletze eta kenketadun formak aipatu behar dira —Arzallusen kasuan gutxi direnak—, baita modu jarraituan ahoskatutako hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak —eten laburraz banatutako adibideak gehiago izan arren—, hitz arteko muga urtuta gauzatutako birsilabatzeak (*liaisona*) —etendun adibideekin paretsu— eta kontsonante bilkuren —batez ere silaba kodan dauden kontsonanteen— asimilazio eta bakuntzeak ere. Txapelketa den testuinguru formalak dakarren ahoskera argiaren mugen baitan, hizkako segmentatzea ohikoa da Arzallusen silabatzean baina, horrekin batera, maiz gertatzen dira hitz arteko birsilabatzeak eta kontsonante taldeen ahultze eta bakuntzeak, hots katearen ahoskera erraztuz eta CV oinarrizko egiturarantz gerturatuz ekoizitako silabak.

Horrela, ulergarriak dira silaba-egituren maiztasunak aztertzean ateratako datuak; silaba-ekina indartzen duten egiturak %80 izatea, eta silaba irekiak, %70a baino gehiago. Arzallusen kasuan, Egaña eta Lujanbiorenean bezalaxe, joera indartzaileek ez dakarte berez CVranzko lerratzerik, baina euskararen beraren hitzek, hots katearen ezaugarriek, antolakuntza fonologikoak, ahalbidetzen edo errazten dute silaba-egitura hori hein handi batean.

Aipatutako gertakari eta joerek lizentzia metrikoen erabileran ere badute eragina: ahal dela hitz bakoitzari bere silabatze propioa eskaintzen dio Arzallusek (hiatoa), hitz edo sintagma segmentatuz hots katea joera nagusi gisa. Edonola ere, ez du *liaisona* gauzatzeko arazorik eta sarri urtzen ditu hitz arteko mugak. Sinalefa badarabil, baliabide metriko nagusia ez izan arren (15 adibide 38 bertsoetan), baita kenketa eta, neurri askoz txikiagoan, gehiketa ere.

11. Maialen Lujanbio (2017)

11.1. Silaben egiturak eta horien maiztasunak

Lujanbioren 2017ko txapelketako finaleko bertsoetako silabak aztertuta, ondokoak dira bertsolariak ekoizitako silaben egiturak, bakoitzetik zenbatu den silaba-kopurua eta orotara ahoskatutako silabekiko proportzioa (maiztasuna):

18. taula: 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Maialen Lujanbiok ekoizitako silaba-egituren maiztasunak.

Silaba-egitura	Silaba-kopurua	Maiztasuna
CV	2214	%63,66
CVC	624	%17,94
V	392	%11,27
VC	194	%5,58
CCV	33	%0,95
CCVC	13	%0,37
CVCC	8	%0,23
VCC	0	%0
	Guztira: 3478	
Silaba irekiak denetara:		%75,88
Silaba itxiak denetara:		%24,12

Taulan ikus daitekeenez, Lujanbioren silabatzean CV egitura da nagusi, egiturarik oinarrizkoena (%63,66). Horren ondoren, CVC silaba-egitura baliatzen du maizen bertsolariak (%17,94). Silaba ekina indartzen duten egiturak %80tik gora dira (%83,15), nahiz eta esan behar den ekinean kontsonante bat baino gehiago gauzatzea ez dela batere ohikoa Lujanbiorentzat; CCV (%0,95) eta CCVC (%0,37) egiturak ez dira ekoizitako silaben %2ra heltzen. CVC egituraren ondoren, V bokalez (edo diptongoz) soilik osatutako silabek dute maiztasunik altuena: %11,27, eta VC egitura dator ondoren (%5,58). Agerpen gutxi batzuk besterik ez ditu, orain arte aipatutako CCV eta CCVC egiturekin batera, CVCC (%0,23) silaba-motak. VCC egiturak ez du agerpenik. Silaba-ekinean eta kodan kontsonante bat baino gehiago ahoskatzea Lujanbiorentzat ezohikoa dela esan daiteke horrela.

Datuei bestela begiratuta, silaba irekiek egitura guztien %75,88 osatzen dute. Itxiek, berriz, %24,12.

11.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko segmental nagusiak

Ondokoak dira Lujanbiok 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoetan baliatutako silabatze-joerak eta silaba-egitura eta silabatzea baldintzatzen duten bilakabide fonologiko eta gertakari foniko nagusiak:

11.2.1. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko indartzaile (*fortitio*) nagusiak


(F1) Silaba ekineko **horskari ahostunak ez igurzkaritzea** (edo hala hautematea) **bokal artean, ez hitz barnean ez hitz artean**

Corpuseko adibidea⁶²³: *ba.ñau.tsiez.ke.ro.[b]e.lau.na.e.do* ‘baina hautsiz gero belauna edo’ (ML-2017-GS-8H-2), *ne.ga.rre.gi.ten.du.[g]ar.tsu* ‘negar egiten du gartsu’ (ML-2017-AS-ge-3), *ta.gu.[b]e.gi.ra* ‘(e)ta gu begira’ (ML-2017-BB-ge-2), *nai.[b]e.ze.la.ko.[b]e.ze.ro* ‘nahi bezalako bezero’ (ML-2017-BB-ge-2).

2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko bertsoetan, Lujanbiok, batzuetan, bokal arteko horskari ahostuna ez du ohi bezainbeste igurzkaritzen, horskari gisa hautematen da. Horren adibide gisa jaso ditut: *ba.ñau.tsiez.ke.ro.[b]e.lau.na.e.do* ‘baina hautsiz gero belauna edo’ (ML-2017-GS-8H-2), *ne.ga.rre.gi.ten.du.[g]ar.tsu* ‘negar egiten du gartsu’ (ML-2017-AS-ge-3), *ta.gu.[b]e.gi.ra* ‘(e)ta gu begira’ (ML-2017-BB-ge-2), *nai.[b]e.ze.la.ko.[b]e.ze.ro* ‘nahi bezalako bezero’ (ML-2017-BB-ge-2). Ondoko espektrograman ikus daitezke bokal arteko eta hitz ekineko horskariak:

623 Aurretik ere azaldu bezala, bokal arteko horskarien adibideak hautematetik abiatuta jasotakoak dira, ez bertsolarien ekoizpenean sistematikoki aztertutakoak. Lujanbioren 2017ko bertsoetan adibide batzuk jaso ditut, baina horrek ez du esan nahi horiek bakarrik daudenik. Azterketa sakonagoa behar du auzi honek; hautematetik jasotakoaren ezaugarritze fonetikoan sakontzea, besteak beste. Esan bezala, lan honetan lehen hurbilpena besterik ez dut egin.

168. irudia: Espektrograma. *nai.be.ze.la.ko.be.ze.ro* ‘nahi bezalako bezero’ (ML-2017-BB-ge-2).



Lujanbioren ahoskera, oro har, nahiko fortitiboa da silaba ekinetikoko buruz burukoan gaiari kantatutako bertsoetan.

(F2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea eta etenaz banatzea

[V# #V → V.'V] (lizentzia metrikoetan hiato gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

- gei.e.gi.* ‘i.zan.nai.ga.be ‘gehiegi izan nahi gabe’ (ML-2017-GS-ha),
- gu.re.i.dei.a.ta.* ‘a.ots ‘gure ideia (e)ta ahots’ (ML-2017-GS-ha),
- ain.txi.ki.* ‘or.maz.bes.tal.de ‘hain txiki hormaz bestalde’ (ML-2017-GS-ha),
- e.me.niz.kun.tza.* ‘ain.sen.do ‘hemen hizkuntza hain sendo’ (ML-2017-GS-ha),
- e.rrri.a.* ‘trin.ko.‘e.gi.naiz ‘herria trinko egin nahiz’ (ML-2017-GS-ha),
- gu.e.re.* ‘a.la.bai.ga.ra ‘gu ere hala baikara’ (ML-2017-GS-ha),
- ba.kar.ka.ko.* ‘e.ta.‘tal.de ‘bakarkako eta talde’ (ML-2017-GS-ha),
- no.la.* ‘ez.‘e.san ‘nola ez esan’ (ML-2017-GS-8H-1),
- i.zer.di.e.ta.* ‘ur.tra.go ‘izerdi eta ur trago’ (ML-2017-GS-8H-1),
- re.al.so.θie.dad.* ‘e.se.‘a.ri.ta ‘Real Sociedad SA-ri (e)ta’ (ML-2017-GS-8H-1),

be.de.ra.tzi.a.biz.ka.rre.an.ta. 'o.rain. 'o.pa.ro.za.bil.tza 'bederatzia bizkarrean (e)ta orain oparo zabiltza' (ML-2017-GS-8H-2),
pro.me.sa.e.ta. 'e.rrea.li.ta.te 'promesa eta errealitate' (ML-2017-GS-8H-2),
u.nai. 'es.na.tu 'Unai, esnatu' (ML-2017-GS-8H-2, errepikan),
i.za.ne.re.zu.zau.de. 'ain.mu.ker.ta. 'er.kin 'izan ere, zu zaude hain muker (e)ta erkin' (ML-2017-GS-8tx-2),
gu.re.tx.e.ko. 'e.fek.tu.es.pe.zi.a.le.kin 'gure etxeko efektu espezialekin' (ML-2017-GS-8tx-2),
ba.ño. 'i.rri.ba.rre.ba.te.gi.zu.me.se.dez 'baina irribarre bat egizu mesedez' (ML-2017-GS-8tx-3),
e.tor.ki.zun.txa.rre.na. 'e.tor.ki.zun. 'e.za 'etorkizun txarrena etorkizun eza' (ML-2017-GS-pe-2),
a.di.bi.dez.gau.rre.ta. 'e.men.tx.e.gau.de.na 'adibidez gaur eta hementxe gaudena' (ML-2017-GS-pe-3),
go.za.tu.la.gu.nak.ta. 'az.tu.zu.re.pe.na 'gozatu lagunak (e)ta ahaztu zure pena' (ML-2017-GS-pe-3),
de.gu.ja. 'e.rre.kin 'dugu ja(da) errekin' (ML-2017-GS-10tx-1),
ze. 'e.rra.min.ta.re.kin 'zer erremintarekin' (ML-2017-GS-10tx-1),
forma. 'ain.za.rre.kin 'forma hain zaharrekin' (ML-2017-GS-10tx-1),
ez.kun.tza.kez.dau.ka. 'ez 'hezkuntzak ez dauka ez' (ML-2017-GS-10tx-2),
a.mai.ka.ber.tu.te. 'a.mai.ka.ber.tu.te 'hamaika bertute, hamaika bertute' (ML-2017-GS-10tx-2),
pen.tsa.ze. 'i.tu.te 'pentsa zer itogin' (ML-2017-GS-10tx-2),
gu.ku.me.a.ke.zi.nai. 'e.ta. 'e.zi. 'e.zin 'guk umeak hezi nahi eta hezi ezin' (ML-2017-GS-10tx-3),
ne.re. 'aul.ki.ri.ke.tze.go.nu.tsik 'nire aulkirik ez zegoen hutsik' (ML-2017-GS-ge-1),
ta. 'o.ri.xe.da.txa.rre.na '(e)ta horixe da txarrena' (ML-2017-GS-ge-1),
as.pal.di.ku.si. 'ez.nau.zu.e.na 'aspaldi ikusi ez nauzuena' (ML-2017-GS-ge-1),
ba.nun.ta. 'as.ki.pro.ble.ma 'banuen eta aski problema' (ML-2017-GS-ge-1),
ja.da. 'ez.di.ra 'jada ez dira' (ML-2017-GS-ge-2),
ai. 'i.nor.ke.nau 'ai inork ez nau' (ML-2017-GS-ge-2),
ze. 'auts. 'o.riz.ta 'zer hauts horizta' (ML-2017-GS-ge-2),
ba.ña.ne.ri. 'e.rre.pa.ra 'baina niri errepara' (ML-2017-GS-ge-2),
jo.du.te.tx.e.ko. 'al.da.ba 'jo dut etxeko aldaba' (ML-2017-GS-ge-2),
niz.ki.on.le.ne.ta. 'a.ra 'nizkion lehen eta hara' (ML-2017-GS-ge-2),
gu.re. 'e.rri.ko 'gure herriko' (ML-2017-GS-ge-3),
be.rei.zi. 'e.ziñ 'bereizi ezin' (ML-2017-GS-ge-3),
bar.ka.me.ne.ta. 'a.zal.pen.bea.rrik 'barkamen eta azalpen beharrik' (ML-2017-GS-ge-3), etab.

Nahitaezkoa ez den joera. Bestelako joerak ageri dituzten corpuseko adibideak:

Aurrerago jaso ditut modu jarraituan ahoskatzen diren hitz arteko bokal elkarketa adibideak, aire-etorria eten gabe gauzatutakoak. Etenaz banatutako kasuak gehiago dira agerpenei dagokienean Lujanbioren 2017ko silabatzean.


Era berean, aurrerago jaso ditut testuinguru berean **birsilabatzen diren sinalefa adibideak.**

2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, bertso-neurriaren egitura orokorra adierazten duten egiturazko etenez gain, eten artikulatorio laburragoak egiten ditu Lujanbiok hitz eta sintagma artean. Horietako asko hitz mugan lehen hitza bokalez amaitu eta hurrengo hitza ere bokalez hasten denean gauzatzen ditu, bokal bilkura ekidinez (V#.#V). Sarri bertso-egituratik uler daitezke eten horiek. Esate baterako, molde handiko bertsoetan —puntuia 10+8 silabaz osatzen denean— hemistikioa bitan banatzen duen etena izan daiteke bokal artean gauzatutakoa: *pro.me.sa.e.ta.‘e.rrea.li.ta.te* (ML-2017-GS-8H-2), *as.pal.di.ku.si.‘ez.nau.zu.e.na* ‘aspaldi ikusi ez nauzuena’ (ML-2017-GS-ge-1), etab. Hemistikio mailan ere bai: *be.de.ra.tzi.a.biz.ka.rre.an.ta.‘o.rain.‘o.pa.ro.za.bil.tza* ‘bederatzia bizkarrean (e)ta orain oparo zabiltza’ (ML-2017-GS-8H-2), *i.za.ne.re.zu.zau.de.‘ain.mu.ker.ta.‘er.kin* ‘izan ere, zu zaude hain muker eta erkin’ (ML-2017-GS-8tx-2), *e.tor.ki.zun.tx.a.rre.na.‘e.tor.ki.zun.‘e.za* ‘etorkizun txarrena etorkizun eza’ (ML-2017-GS-pe-2), *a.di.bi.dez.gau.rre.ta.‘e.men.tx.e.gau.de.na* ‘adibidez gaur eta hementxe gaudena’ (ML-2017-GS-pe-3), etab. Oina ere mugatzen du sarri Lujanbiok eten horien bidez: *ain.mu.ker.ta.‘er.kin* ‘hain muker eta erkin’ (ML-2017-GS-8tx-2), *de.gu.ja.‘e.rre.kin* ‘dugu ja(da) errekin’ (ML-2017-GS-10tx-1), *forma.‘ain.za.rre.kin* ‘forma hain zaharrekin’ (ML-2017-GS-10tx-1), *pen.tsa.ze.‘i.tu.te* ‘pentsa zer itogin’ (ML-2017-GS-10tx-2), *e.ta.‘e.zi.‘e.ziñ* ‘eta hezi ezin’ (ML-2017-GS-10tx-3), etab.

Azkenik, badira arrazoi metriko-musikaletatik ulertzen zail diren kasuak. Horietan bestelako arrazoiak bilatu behar dira: bertsolariaren dikzio argia, oharmen ontasuna helburu, hitzen bat nabarmentzea bertsoan duen esanahiगतिक, perpausaren egitura kantuan ere islatzea, etab. (gai horietan §10. kapituluian sakondu dut). Adibidez: *gei.e.gi.‘i.zan.nai.ga.be* ‘gehiegi izan nahi gabe’ (ML-2017-GS-ha), *gu.re.i.dei.a.ta.‘a.ots* ‘gure ideia (e)ta ahots’ (ML-2017-GS-ha), *e.me.niz.kun.tza.‘ain.sen.do* ‘hemen hizkuntza hain sendo’ (ML-2017-GS-ha), *e.rri.a.trin.ko.‘e.gi.naiz* ‘herria trinko egin nahiz’ (ML-2017-GS-ha), *gu.e.re.‘a.la.bai.ga.ra* ‘gu ere hala baikara’ (ML-2017-GS-ha), *no.la.‘ez.‘e.san* (ML-2017-GS-8H-1), *re.al.so.*

[θje].dad.‘e.se.‘a.ri.ta ‘Real Sociedad SA-ri (e)ta’ (ML-2017-GS-8H-1), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke Lujanbioren bokal arteko etenetako bat:

169. irudia: Espektrograma. *e.ta.‘e.zi.‘e.ziñ* ‘eta hezi ezin’ (ML-2017-GS-10tx-3).



Hitz arteko bokal elkarketa banatuz eten laburra gauzatzeko joera nabarmenagoa da 2017ko txapelketan, bokalez osatutako hitz muga modu jarraituan ahoskatzekoa baino. Bestalde, hitz eta sintagmak gehiagotan banatzen ditu Lujanbiok hitz mugan bokal elkarketa badago; C# #V testuinguruan ere gauzatzen ditu etenak baina gutxiago.

(F3) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#.#V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-ik ez egitea, hitzen arteko muga ez urtzea (lehen hitzeko kodako kontsonantea(k) ez silabatzea hurrengo silabako ekin hutsean). **Hitz artean hots katea ez birsilabatzea** CV egiturarantz.

Corpuseko adibide batzuk (goizeko saiokoak):

or.kan.po.an.‘ajn.‘a.al.ge ‘hor kanpoan hain ahalke’ (ML-2017-GS-ha),

ez.‘ar.tal.de ‘ez artalde’ (ML-2017-GS-ha),

ez.‘e.san ‘ez esan’ (ML-2017-GS-8H-1),

re.al.so.cie.dad.‘e.se.‘a.ri.ta ‘Real Sociedad SA-ri (e)ta’ (ML-2017-GS-8H-1),

o.rain.‘o.pa.ro.za.bil.tza ‘orain oparo zabilta’ (ML-2017-GS-8H-2),

kre.me.kin. ‘e.do ‘kremekin edo’ (ML-2017-GS-8H-3),
txan.pu.az. ‘i.lle.a.zain.tzen ‘txanpuaz ilea zaintzen’ (ML-2017-GS-8H-3),
pen.tsa.tze.a.rren. ‘or.dain.tzen ‘pentsatzearren ordaintzen’ (ML-2017-GS-8H-3),
du.zun. ‘in.bi.ri.o.rrek ‘duzun inbidia horrek’ (ML-2017-GS-8tx-1),
zeu.re.ka.buz. ‘al.ze.nu.en. ‘ekin ‘zeure kabuz ahal zenuen ekin’ (ML-2017-GS-8tx-2),
e.gin. ‘i.gua.lein.tzen.dun ‘egin igual egin zenuen’ (ML-2017-GS-8tx-3),
ba.tzu.e.tan. ‘a.rro.sa ‘batzuetan arrosa’ (ML-2017-GS-pe-2),
e.tor.ki.zun. ‘e.za ‘etorkizun eza’ (ML-2017-GS-pe-2),
ta.o.gej.ta.ma.rre.kin. ‘ez.da.kit.ze.rre.gin ‘(e)ta hogeita hamarrekin ez dakit zer egin’ (ML-2017-GS-10tx-1),
e.men. ‘e.zer.be.rri.rik ‘hemen ezer berririk’ (ML-2017-GS-10tx-1, lehen aldiz kantatzean),
e.zi. ‘e.ziñ. ‘e.ta. ‘hezi ezin eta’ (ML-2017-GS-10tx-3),
gaur.bil.du.rik. ‘el.ka.rre.na ‘gaur bildurik elkarrengana’ (ML-2017-GS-ge-1),
ka.su.ba.tzu.tan. ‘i.e.sa.bai.ta ‘kasu batzuetan ihesa baita’ (ML-2017-GS-ge-1, lehen aldiz kantatzean),
auts. ‘o.riz.ta ‘hauts horizta’ (ML-2017-GS-ge-2),
ber.din.tsu.zein. ‘e.ra.ta.ra ‘berdintsu zein eratara’ (ML-2017-GS-ge-2),
ain.bes.te.o.ker. ‘e.gin.du.te.men ‘hainbeste oker egin dut hemen’ (ML-2017-GS-ge-2), etab.

Aurkako joera ageri duten adibideak. Aurrerago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-a duten adibideak. Lujanbioren 2017ko kasuan, *liaison*-a duten kasuak askoz gehiago dira etenez banatutakoak baino (bikoitza baino gehiago). Lujanbioren joera nagusia C# #V testuinguruan *liaisona* egitea dela esan daiteke.

Aurreko puntuan esan bezala, hitz artean lehen hitza kontsonantez amaitu eta bigarrena bokalez hasten denean, noizean behin eten laburra gauzatzen du Lujanbiok, hitzen arteko mugak urtu eta hots katea birsilabatu beharrean (*liaisona* egin beharrean). Aurreko puntuan aurkeztu bezala, mugatutako eremuak bertso-neurriaren egituratik edo hizkuntzarenetik uler daitezke, baita ahoskera argia bilatzetik ere, beharbada (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz). Neurriari lotuta, hemistikioaren eremua banatzen du batzuetan Lujanbiok eten laburraz: *ba.ño.bart.zeu.re.ka.buz.* ‘al.ze.nu.en. ‘ekin ‘baina bart zeure kabuz ahal zenuen ekin’ (ML-2017-GS-8tx-2), *ta.o.gej.ta.ma.rre.kin.* ‘ez.da.kit.ze.rre.gin ‘(e)ta hogeita hamarrekin ez dakit zer egin’ (ML-2017-GS-10tx-1), etab. Beste batzuetan oina da, errima daraman hitza, eten bidez mugatutakoa: *or.kan.po.an.* ‘ajn. ‘a.al.ge ‘hor kanpoan hain ahalke’ (ML-2017-GS-ha), *e.tor.ki.zun.* ‘e.za (ML-

2017-GS-pe-2), *gaur.bil.du.rik*.‘*el.ka.rre.na* ‘gaur bildurik elkarrengana’ (ML-2017-GS-ge-1), *ber.din.tsu.zein*.‘*e.ra.ta.ra* (ML-2017-GS-ge-2), etab. Pentsatzekoa da beste kasu batzuetan ahoskera argia bilatzearen, esandako zerbait nabarmentzearen ondorioz, hots katea desanbiguotzeko, etab. baliatzen dituela Lujanbiok etenak: *du.zun*.‘*in.bi.ri.o.rrek* ‘duzun inbidia horrek’ (ML-2017-GS-8tx-1), *e.gin*.‘*i.gua.lein.tzen.dun* ‘egin igual egin zenuen’ (ML-2017-GS-8tx-3), *ba.tzu.e.tan*.‘*a.rro.sa* ‘batzuetan arrosa’ (ML-2017-GS-pe-2), *e.men*.‘*e.zer.be.rri.rik* ‘hemen ezer berririk’ (ML-2017-GS-10tx-1, lehen aldiz kantatzean), *auts*.‘*o.riz.ta* ‘hauts horizta’ (ML-2017-GS-ge-2), etab.

Goiko taulan aurreratu bezala, hitz arteko C# #V testuinguruan ohikoa da hitzok etenaz banatzea, baina askoz gehiagotan urtzen ditu Lujanbiok hitz arteko mugak, hots katea birsilabatuz eta silabatzea CV oinarritzko egiturarantz hurbilduz.

11.2.2. Silabatze-joera eta bilakabide fonologiko kohesiozile (*lenitio*) nagusiak

(L1) Hitz barneko segmentu kenketa eta desilabagiletze batzuk.

L.1.1. Desilabagiletzea (sineresia)⁶²⁴, besteak beste.

Corpuseko adibideak:

ka.xo.de.n[oj] ‘kaixo, denoi’ (ML-2017-GS-ha),

bo.rro.ka.n[ew]r.tu.bat ‘borroka neurtu bat’ (ML-2017-GS-ha),

e.rrea.li.ta.te (ML-2017-GS-8H-2),

fut.bo.la.ri.[oj] ‘futbolariok’ (ML-2017-GS-8H-3),

s[we]r.te.a ‘suertea’ (ML-2017-GS-8tx-1) —baina *se.ri.o.a* (ez *se.r[jo].a*) (ML-2017-GS-8tx-1) edo *es.pe.zi.a.le.kin* (ML-2017-GS-8tx-2)—,

e.gin.‘*i.g[wa].l[ej]n.tzen.dun* ‘egin igual egin zenuen’ (ML-2017-GS-8tx-3),

naiz.joa.nel.ka.rre.kin ‘nahiz joan elkarrekin’ (ML-2017-GS-10tx-1) —baina *go.a.zen* (ML-2017-BB-8H-3), *ju.an* ‘joan’ (ML-2017-BB-8tx-2)—,

no.ra.joa.nez.tu.te ‘nora joan ez dute’ (ML-2017-GS-10tx-2),

fun.tz[jo].na.ri.e.kin ‘funtzionarioekin’ (ML-2017-GS-10tx-3) —baina *se.ri.o.a* (ez *se.r[jo].a*) (ML-2017-GS-8tx-1) edo *es.pe.zi.a.le.kin* (ML-2017-GS-8tx-2)—,

neuk.n[ew]r.tu.ko.dut ‘neuk neurtuko dut’ (ML-2017-GS-ge-3),

a.zal.pen.bea.rrik ‘azalpen beharrik’ (ML-2017-GS-ge-3),

624 Aurkako norabidean, silabagiletze (dieresi) kasutzat har daitezke beharbada ondoko adibide hau: *ge.ra.a.ra.zi* ‘gerarazi’ (ML-2017-AS-6mtz-2).

in.ko.e.ren.tz[ja]k ‘inkoherentziak’ (ML-2017-AS-6mtz-2),
[ej]n.zai.gu ‘egin zaigu’ (ML-2017-AS-ptk-7),
gu.g[wa].ze.ne.men.dik ‘gu goazen hemendik’ (ML-2017-AS-ptk-8),
be.ar.tu.bea.rden ‘behartu behar den’ (ML-2017-AS-ge-2) —baina *e.san.be.ar.ba.da.de.na* ‘esan behar bada dena’ (ML-2017-AS-ge-1); *ez.be.ar.bes.te* ‘ez behar beste’ (ML-2017-AS-ba)—,
ge.ro.re.bea.rko.de.zu ‘gero (e)re beharko duzu’ (ML-2017-BB-8tx-2),
ner.b[joj].er.tza ‘Nerbioi ertza’ (ML-2017-BB-ge-3),
i.e.sa.ta.[je].sa.ren. ‘e.rro.be.ra’ ‘ihesa eta ihesaren errubera’ (ML-2017-BB-ge-3), etab.

L.1.2. Askotariko silaba kenketak.

Corpuseko adibide batzuk:

in.bi.ri.o.rrek ‘inbidia horrek’ (ML-2017-GS-8tx-1), *al.ze.nu.en* ‘ahal zenuen’ (ML-2017-GS-8tx-2), *az.tu.zu.re.pe.na* ‘ahaztu zure pena’ (ML-2017-GS-pe-3) —baina *a.al.tsu* ‘ahaltsu’ (ML-2017-AS-ge-3)—, *fun.tzio.na.ri.ekin* ‘funtzionarioekin’ (ML-2017-GS-10tx-3), *fa.mi.li.a.fa.ri.on.tan* ‘familia afari honetan’ (ML-2017-GS-ge-1), *el.ka.rre.na* ‘elkarrengana’ (ML-2017-GS-ge-1), *ka.su.ba.tzu.tan* ‘kasu batzuetan’ (ML-2017-GS-ge-1), *e.tze.gon* ‘ez zegoen’ (ML-2017-GS-ge-1), *ba.nun.ta* ‘banuen eta’ (ML-2017-GS-ge-1), *le.ne.ta* ‘lehen eta’ (ML-2017-GS-ge-2), *e.rre.giñ* ‘erregina’ (ML-2017-GS-ge-2), *ba.tzu.tan* ‘batzuetan’ (ML-2017-GS-ge-2) —baina *bes.te.e.tan* (ML-2017-GS-pe-2)—, *len* ‘lehen’ (ML-2017-AS-ha), *on.do.zeun.de.ten.ta* ‘ondo zeundetean eta’ (ML-2017-AS-ha), *gu.re.ri.ma.te.gi.ak* ‘gure errimategiak’ (ML-2017-AS-ha), *o.la.xe* ‘horrelaxe’ (ML-2017-AS-ptk-1), *jai.o.tza.nar.gi.a* ‘jaiotzaren argia’ (ML-2017-AS-ptk-3), *o.ri.len* ‘hori lehen’ (ML-2017-AS-ptk-6) —baina **le.en** ‘lehen’ (ML-2017-AS-ge-1)—, *ne.ke.a.e.ta.* ‘o.sa.su.na.ta.’ *di.ru.tza* ‘nekea eta osasuna eta dirutza’ (ML-2017-AS-ge-1), *o.te.nin.dun* ‘ote ninduen’ (ML-2017-AS-ge-1), *i.zan.zi.te.ke.nik* ‘izan zitekeenik’ (ML-2017-AS-ge-2), *ba.tzu.tan* ‘batzuetan’ (ML-2017-AS-ge-3), *e.gu.nen.ba.ten* ‘egunen batean’ (ML-2017-AS-ge-3), *on.ta.ra.ko* ‘honetarako’ (ML-2017-BB-8H-1), **kos.ta.ko.zai.zu** ‘kostako zaizu’ (ML-2017-BB-8tx-1) —baina **kos.ta.tu.zait** (ML-2017-BB-8tx-1)—, *hel.du.da.ta* ‘heldutu da eta’ (ML-2017-BB-8tx-2), *de.nik.ta.tris.te.na* ‘denik eta tristeena’ (ML-2017-BB-8tx-2), *zu.le.nen.go.a.zi.nen* ‘zu lehenengoa zinen’ (ML-2017-BB-8tx-3), *len.go.an* ‘lehenengoaren’ (ML-2017-BB-8tx-4), *e.ta.no.la.bu.ka* ‘eta nola bukatu’ (ML-2017-BB-8tx-4), *ur.te.tan.ba.rren* ‘urteetan barrena’ (ML-2017-BB-9phtz), *ni.ga.ti.kor.dain.du.du.na* ‘nigatik ordaindu duena’ (ML-2017-BB-ge-1), etab.

Eskakizun metrikoak betetzeko, hitz barnean askotariko kenketa eta desilabagiletzeak gauzatzen ditu Lujanbiok. Horien artean aipagarri dira bokal arteko kontsonanteen kenketak eta

bokal elkarketa heterosilabikoa osatzen duten bokaletako baten desilabagiltzea (lizentzia metrikoetan sineresi deiturikoa), ondoko bokalarekin antolatuz silaba bakarrean: *be.ar.tu.bear.den* ‘behartu behar den’ (ML-2017-AS-ge-2), *i.e.sa.ta.[je].sa.ren.* ‘e.rro.be.ra ‘ihesa eta ihesaren errubera’ (ML-2017-BB-ge-3), *e.gin.* ‘i.g[wa].l[ej]n.tzen.dun ‘egin igual egin zenuen’ (ML-2017-GS-8tx-3), *naiz.joa.nel.ka.rre.kin* ‘nahiz joan elkarrekin’ (ML-2017-GS-10tx-1) —baina *go.a.zen* ‘goazen’ (ML-2017-BB-8H-3), *ju.an* ‘joan’ (ML-2017-BB-8tx-2)—, *fun.tz[jo].na.ri.e.kin* ‘funtzionarioekin’ (ML-2017-GS-10tx-3) —baina *se.ri.o.a* (ez *se.r[jo].a*) ‘serioa’ (ML-2017-GS-8tx-1) edo *es.pe.zi.a.le.kin* ‘espezialekin’ (ML-2017-GS-8tx-2)—, etab. Sinalefarekin batera —hitz arteko bokal bilkuren birsilabatzearekin, alegia— nahiko emankorra den baliabidea da Lujanbiorengan hitz barneko desilabagiltzea.

Aditz jokatueta bokal bilkuretan /e/ bokala kentzen du Lujanbiok ere hainbatetan, beharren arabera txandakaturik forma laburtuak eta laburtu gabeak: *e.tze.gon* ‘ez zegoen’ (ML-2017-GS-ge-1), *ba.nun.ta* ‘banuen eta’ (ML-2017-GS-ge-1), *o.te.nin.dun* ‘ote ninduen’ (ML-2017-AS-ge-1), *ni.ga.ti.kor.dain.du.du.na* ‘nigatik ordaindu duena’ (ML-2017-BB-ge-1), etab.

Bestelako askotariko kenketak ere gauzatzen ditu, goiko taulan ikus daitekeen bezala. Jasotako adibide batzuk bertsolariaren hizkeran edo besteren batean (euskara estandarrean, besteak beste) erabili eta hiztunak ezagutzen dituen formak dira, eta beharren arabera baliatzen du Lujanbiok forma bat edo beste: *al.ze.nu.en* ‘ahal zenuen’ (ML-2017-GS-8tx-2), *az.tu.zu.re.pe.na* ‘ahaztu zure pena’ (ML-2017-GS-pe-3) —baina *a.al.tsu* ‘ahaltsu’ (ML-2017-AS-ge-3)—, *el.ka.rre.na* ‘elkarrengana’ (ML-2017-GS-ge-1), *ka.su.ba.tzu.tan* ‘kasu batzuetan’ (ML-2017-GS-ge-1), *e.rre.giñ* ‘erregina’ (ML-2017-GS-ge-2), *ba.tzu.tan* ‘batzuetan’ (ML-2017-GS-ge-2) —baina *bes.te.e.tan* ‘besteetan’ (ML-2017-GS-pe-2)—, *o.ri.len* ‘hori lehen’ (ML-2017-AS-ptk-6) —baina *le.en* ‘lehen’ (ML-2017-AS-ge-1)—, *ne.ke.a.e.ta.* ‘o.sa.su.na.ta.’ *di.ru.tza* ‘nekea eta osasuna eta dirutza’ (ML-2017-AS-ge-1), *kos.ta.ko.zai.zu* (ML-2017-BB-8tx-1) —baina *kos.ta.tu.zait* (ML-2017-BB-8tx-1)—, etab. Aldakortasun morfonologikoan oinarritutako kenketak dira ziurrenik gehienak, gertakari bakoitza sakonago aztertu beharko litzatekeen arren ondorio sendoak atera ahal izateko.

(L2) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak ez birsilabatzea baina modu jarraituan ahoskatzea [V# #V → V.V] (hiatoa).

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):

gu.re.i.dei.a.ta ‘gure ideia (e)ta’ (ML-2017-GS-ha),

gu.e.re ‘gu ere’ (ML-2017-GS-ha),
bar.ka.tu.a.pus.tu.za.le ‘barkatu, apustuzale’ (ML-2017-GS-ha),
i.zer.di.e.ta ‘izerdi eta’ (ML-2017-GS-8H-1),
ta.o.nez.ke.ro ‘(e)ta honezkero’ (ML-2017-GS-8H-1),
pro.me.sa.e.ta ‘promesa eta’ (ML-2017-GS-8H-2),
ba.ñau.tsiez.ke.ro.be.lau.na.e.do ‘baina hautsiz gero belauna edo’ (ML-2017-GS-8H-2),
u.nai.es.na.tu ‘Unai esnatu’ (ML-2017-GS-8H-2, lehen aldiz kantatzean),
ni.ka.la.e.re ‘nik hala ere’ (ML-2017-GS-8H-3),
fut.bo.la.ri.oi.ez.di.gu.te.ta ‘futbolarioi ez digute (e)ta’ (ML-2017-GS-8H-3),
ni.ka.la.e.re ‘nik hala ere’ (ML-2017-GS-8H-3),
sek.su.a.suer.te.a.da.e.ta.ezta.lu.xu ‘sexua suertea da eta ez da luxu(a)’ (ML-2017-GS-8tx-1),
ta.i.zer.di.pu.tzu ‘(e)ta izerdi putzu’ (ML-2017-GS-8tx-1),
in.bi.ri.o.rrek ‘inbidia horrek’ (ML-2017-GS-8tx-1),
ja.rre.ra.o.rre.kin ‘jarrera horrekin’ (ML-2017-GS-8tx-2),
zu.tris.te.tze.ko.ez.de.tain.bes.te.in.te.res ‘zu tristetzeko ez dut hainbeste interes’ (ML-2017-GS-8tx-3),
ba.ña.go.za.tu.ez ‘baina gozatu ez’ (ML-2017-GS-8tx-3),
ge.ro.e.to.rriko.da ‘gero etorriko da’ (ML-2017-GS-pe-3),
ta.o.gei.ta.ma.rre.kin ‘(e)ta hogeita hamarrekin’ (ML-2017-GS-10tx-1),
da.go.nai.ko.er.kin ‘dago nahiko erkin’ (ML-2017-GS-10tx-3),
zu.ek.fa.mi.li.a.fa.ri.on.tan ‘zuek familia afari honetan’ (ML-2017-GS-ge-1),
ez.da.o.ri ‘ez da hori’ (ML-2017-GS-ge-1),
nai.ko.a.ra.zo.e.man.ni.zu.en ‘nahiko arazo eman nizuen’ (ML-2017-GS-ge-1),
ta.lu.ze.ra.ko.al.de.gi.nu.en ‘(e)ta luzerako alde egin nuen’ (ML-2017-GS-ge-1),
sar.tu.oi.den.za.ñe.ta.ra ‘sartu ohi den zainetara’ (ML-2017-GS-ge-2),
au.ja.ki.ña.e.zal.da.ba ‘hau jakina ez al da ba’ (ML-2017-GS-ge-2),
e.men.da.zu.re.a.la.ba ‘hemen da zure alaba’ (ML-2017-GS-ge-2),
ta.ne.ri.e.re ‘(e)ta niri ere’ (ML-2017-GS-ge-3), etab.

Bestelako joerak ageri dituzten adibideak:

Gorago jaso ditut hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak eten labur bidez banatutako kasuak. Etenaz banatutako kasuak gehiago dira agerpenei dagokienean Lujanbioren 2017ko silabatzean.

Lujanbiok 2017an sarri modu jarraituan ahoskatzen ditu hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak. Aire-etorria eten gabe ahoskatzen ditu, hitz arteko osagaiak kateatuz, bokal bilkurak zein bestelako bilkurak. (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz). Modu jarraian gauzatutako adibideak gutxiago dira, etenaz banatutako kasuekin alderatuz gero. Edonola ere, modu jarraian ahoskatutakoekin batera kontuan hartu behar dira hitz arteko bokal bilkura heterosilabikoak birsilabatu eta, bokaletako bati silabagiletasuna kenduta, silaba bakarrean —diptongo gisa— gauzatutako elkarketak (sinalefak), Lujanbioren silabatzean baliabide emankorra baita azken hori. Hala, hitzen arteko lotura, modu batera edo bestera, oso presente dago bertsolariaren jardunean.

(L3) Hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoak birsilabatzea, silaba bakarrean ahoskatuta [V# #V → .(C)V(V)(C).] (lizentzia metrikoetan **sinalefa** gisa ezagutzen dena).

Corpuseko adibideak (guztiak):

de.na.pa.rra ‘dena aparra’ (ML-2017-GS-8H-2),

ba.ñ[aw].ts[je].z.ke.ro ‘baina hautsiz gero’ (ML-2017-GS-8H-2),

zar.ta.t[uj].z.ta.rre.ko.min.tza ‘zartatu iztarreko mintza’ (ML-2017-GS-8H-2),

tao.rra.zal.tze.naiz ‘(e)ta hor azaltzen naiz’ (ML-2017-GS-8H-3),

bart.gau.ez.de.n[aj].rrin.tzi ‘bart gauetz dena irrintzi’ (ML-2017-GS-8tx-1),

gu.re.tx.e.ko ‘gure etxeko’ (ML-2017-GS-8tx-2),

ba.ñ[aj].kas.le.ak.da.toz ‘baina ikasleak datoz’ (ML-2017-GS-10tx-2),

guk.gre.bae.gin.da.ko.an ‘guk greba egindakoan’ (ML-2017-GS-10tx-2),

ba.ña.gi.zar.teon.ta.ko ‘baina gizarte honetako’ (ML-2017-GS-10tx-2),

be.ti.k[oj].tu.ra ‘betiko ohitura’ (ML-2017-GS-ge-1),

ba.ñae.men.na.tor ‘baina hemen nator’ (ML-2017-GS-ge-1),

a.la.bar.di.beltz ‘alaba ardi beltz’ (ML-2017-GS-ge-1),

as.pal.di.ku.si ‘aspaldi ikusi’ (ML-2017-GS-ge-1),

a.ma.r[aj]n.bes.te ‘amari hainbeste’ (ML-2017-GS-ge-2),

or.mae.rai.ki.tze.na.ri.di.ra.ta ‘horma eraikitzen ari dira (e)ta’ (ML-2017-AS-6mtz-3),

bi.mi.lli[aw]r.te ‘bi mila urte’ (ML-2017-AS-ptk-1),

a.ma.bir.ji.ñ[aj].si.lik ‘Ama Birjina isilik’ (ML-2017-AS-ptk-5),

sek.s[wa].rre.ma.n[aj].zan.ze.nes.pi.ri.tu.a.la ‘sexu harremana izan zen espirituala’ (ML-2017-AS-ptk-6),

on.doez.da.ki.dan ‘ondo ez dakidan’ (ML-2017-AS-ge-2),
pun.tu.ta.rar.te ‘puntutara arte’ (ML-2017-AS-ge-2),
tae.gin.go.di.da.zu.ka.su ‘(e)ta egingo didazu kasu’ (ML-2017-AS-ge-3),
ne.r[eaw]r.pe.gi.a ‘nire aurpegia’ (ML-2017-AS-ge-3),
a.dix.ki.d[ej].zan ‘adiskide izan’ (ML-2017-AS-ge-3),
de.sar.me.aes.ku.ze.gin.ge.nu.en ‘desarmaea eskuz egin genuen’ (ML-2017-BB-8H-1),
e.rri.r[aew].re.ne.txe.ta.ra ‘herrira euren etxeetara’ (ML-2017-BB-8H-3),
us.teal.de.zu.zu.re.a ‘uste al duzu zurea’ (ML-2017-BB-8tx-1),
ai.z[we]l.du.a.ro.a.da ‘aizu helduaroa da’ (ML-2017-BB-8tx-2),
zu.reon.do.an.ber.tan ‘zure ondoan bertan’ (ML-2017-BB-8tx-3),
ge.roe.tza.zu.la.i.zan ‘gero ez ezazula izan’ (ML-2017-BB-8tx-4),
fa.mao.na ‘fama ona’ (ML-2017-BB-9phtz),
la.na.t[aj].zer.di.a ‘lana (e)ta izerdia’ (ML-2017-BB-9phtz),
zail.dae.sa.ten.ze.ren ‘zail da esaten zeren’ (ML-2017-BB-9phtz),
ne.g[wo].tze.an ‘negu hotzean’ (ML-2017-BB-ge-1),
ez.ti.ru.d[jo].so ‘ez dirudi oso’ (ML-2017-BB-ge-3),
i.ra.baz.ten.du.gu.lae.re ‘irabazten dugula ere’ (ML-2017-BB-ge-3),
ze.man.du ‘ze(r) eman du’ (ML-2017-AS-ba),
be.t[je]z.du ‘beti ez du’ (ML-2017-AS-ba),

Sinalefarik gabeko adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean birsilabatzen ez diren hiato adibideak, askoz ere gehiago direnak.

Sinalefa edo hitz arteko bokal elkarketa heterosilabikoa osatzen duten segmentuetako bat desilabagiletu eta silaba bakarrean gauzatzea Lujanbiok maiz darabilen baliabidea da bertsoetan eskakizun metrikoak betetzeko. 39 kasutan egiten du 39 bertsoetan, bertso bakoitzeko behin, batez beste, eta askotariko hitz arteko bokal elkarketak biltzen ditu silaba berean: /a/ + /e/ (*zail.dae.sa.ten.ze.ren* ‘zail da esaten zeren’, ML-2017-BB-9phtz), /a/ + /o/ (*tao.rra.zal.tze.naiz* ‘(e)ta hor azaltzen naiz’, ML-2017-GS-8H-3), /e/ + /o/ (*zu.reon.do.an.ber.tan* ‘zure ondoan bertan’, ML-2017-BB-8tx-3), /o/ + /e/ (*ge.roe.tza.zu.la.i.zan* ‘gero ez ezazula izan’, ML-2017-BB-8tx-4), beheranzko diptongoak (*la.na.t[aj].zer.di.a* ‘lana (e)ta izerdia’, ML-2017-BB-9phtz), goranzkoak (*ai.z[we]l.du.a.ro.a.da* ‘aizu helduaroa da’, ML-2017-BB-8tx-2), baita hiru bokaleko elkarketak ere (*e.rri.r[aew].re.ne.txe.ta.ra* ‘herrira euren etxeetara’, ML-2017-BB-8H-3; *ne.r[eaw]r.pe.gi.a* ‘nire aurpegia’, ML-2017-AS-ge-3; *a.ma.r[jaj]n.bes.te* ‘amari hainbeste’, ML-2017-GS-ge-2). Lujanbiok

bokal berberen bilkurak ere gauzatzen ditu silaba bakarrean, elkarketa bakunduz: *gu.re.tx.e.ko* ‘gure etxeko’ (ML-2017-GS-8tx-2), *a.la.bar.di.beltz* ‘alaba ardi beltz’ (ML-2017-GS-ge-1), *as.pal.di.ku.si* ‘aspaldi ikusi’ (ML-2017-GS-ge-1), *ze.man.du* ‘ze(r) eman du’ (ML-2017-AS-ba), etab. Aztertutako bertsolarien artean sinalefa gehien darabilen sortzailea da Lujanbio, eta bietan antzeko neurrian darabil baliabide hau (gehiagotan gauzatzen dut 2017ko txapelketan proportzioan, baina gutxigatik: 2009an 32 sinalefa adibide jaso ditut 37 bertsotan; 2017an 39 sinalefa 39 bertsotan).

(L4) Hitz artean, hitz batek silaba-koda (kontsonantikoa) duenean eta hurrengo hitza bokalez hasten denean, silaba-ekinik gabe —(C)(C)VC#. #V(C)(C) testuinguruan—, *liaison*-a egitea hitzen arteko muga urtuz; hots katea birsilabatzea CV egiturarantz.

Corpuseko adibideak (goizeko saiokoak):


a.ñaun.di.di.ru.di.e.nau ‘hain handi dirudien hau’ (ML-2017-GS-ha),
e.me.niz.kun.tza ‘hemen hizkuntza’ (ML-2017-GS-ha),
gu.re.mun.du.a.re.nal.de ‘gure munduaren alde’ (ML-2017-GS-ha),
ze.rrin.por.ta.zait ‘zer inporta zait’ (ML-2017-GS-8H-1),
fut.bol.ze.lai.a.ne.gi.ten.de.gu ‘futbol zelaian egiten dugu’ (ML-2017-GS-8H-1),
pen.tsa.tze.a.rre.nor.dain.tzen ‘pentsatzearen ordaintzen’ (ML-2017-GS-8H-3),
or.ta.ne.tze.ra ‘hortan ez zara’ (ML-2017-GS-8H-3),
ni.ka.la.e.re ‘nik hala ere’ (ML-2017-GS-8H-3),
tao.rra.zal.tze.nais ‘ta hor azaltzen naiz’ (ML-2017-GS-8H-3),
i.za.ne.re ‘izan ere’ (ML-2017-GS-8tx-2),
zu.tris.te.tze.ko.ez.te.tain.bes.te.in.te.res ‘zu tristetzeko ez dut hainbeste interes’ (ML-2017-GS-8tx-3),
i.rri.ba.rre.ba.te.gi.zu.me.se.dez ‘irribarre bat egizu mesedez’ (ML-2017-GS-8tx-3),
i.gua.lein.tzen.dun ‘igual egin zenuen’ (ML-2017-GS-8tx-3),
ni.sai.a.tzen.nai.zi.rri.zir.te.ten.pla.za.ra ‘ni saiatzen naiz irriz irteten plazara’ (ML-2017-GS-pe-1),
mi.ñe.ke.ta.tris.tu.re.ka.mai.ka.pa.sa.ra ‘minek eta tristurek hamaika pasada’ (ML-2017-GS-pe-1),
nai.ze.ta.zi.lle.gi.den ‘nahiz eta zilegi den’ (ML-2017-GS-pe-2),
de.non.tza.ta.me.tsa ‘denontzat ametsa’ (ML-2017-GS-pe-2),
a.di.bi.dez.gau.rre.ta ‘adibidez, gaur eta’ (ML-2017-GS-pe-3),
ez.da.kit.ze.rre.gin ‘ez dakit zer egin’ (ML-2017-GS-10tx-1),
no.la.ta.ze.rre.kin ‘nola (e)ta zer ekin’ (ML-2017-GS-10tx-1),

naiz.joa.nel.ka.rre.kin ‘nahiz joan elkarrekin’ (ML-2017-GS-10tx-1),
e.me.ne.zer.be.rri.rik ‘hemen ezer berririk’ (ML-2017-GS-10tx-1, errepikan),
ez.kun.tza.kez.dau.ka ‘hezkuntzak ez dauka’ (ML-2017-GS-10tx-2),
no.ra.joa.nez.tu.te ‘nora joan ez dute’ (ML-2017-GS-10tx-2),
gu.ku.me.a.ke.zi.nai ‘guk umeak hezi nahi’ (ML-2017-GS-10tx-3),
nor.ken.pa.ti.za.tzen.du ‘nork enpatizatzen du’ (ML-2017-GS-10tx-3),
min.go.tso.nek ‘mingots honek’ (ML-2017-GS-ge-1),
aul.ki.ri.ke.tze.go.nu.tsik ‘aulkirik ez zegoen hutsik’ (ML-2017-GS-ge-1),
ka.su.ba.tzu.ta.ni.e.sa.bai.ta ‘kasu batzuetan ihesa baita’ (ML-2017-GS-ge-1, errepikan),
i.nor.ke.nau ‘inork ez nau’ (ML-2017-GS-ge-2),
e.gin.du.te.men ‘egin dut hemen’ (ML-2017-GS-ge-2),
au.ja.ki.ña.e.zal.da.ba ‘hau jakina ez al da ba’ (ML-2017-GS-ge-2),
jo.du.te.txe.ko ‘jo dut etxeko’ (ML-2017-GS-ge-2),
niz.ki.on.le.ne.ta ‘nizkion lehen eta’ (ML-2017-GS-ge-2),
zu.re.pi.txi.ri.kez.da.kart.ba.ña ‘zure bitxirik ez dakart baina’ (ML-2017-GS-ge-2),
fa.mi.li.a.ke.re ‘familiak ere’ (ML-2017-GS-ge-3),
bar.ka.me.ne.ta ‘barkamen eta’ (ML-2017-GS-ge-3),
ta.ne.ri.e.re.me.se.de.zu.tzi ‘(e)ta niri ere mesedez utzi’ (ML-2017-GS-ge-3), etab.

Liaisonik ez duten adibideak. Gorago jaso ditut testuinguru berean *liaison*-ik egiten ez duten adibideak (eta bilakabidearen deskribapena). Lujanbioren 2017ko kasuan, *liaison*-a duten kasuak askoz gehiago dira etenez banatutakoak baino (bikoitza baino gehiago). Lujanbioren joera nagusia C# #V testuinguruan *liaisona* egitea dela esan daiteke.

Hitz artean C# #V testuingurua suertatzen denean hots elkarketa hori birsilabatzea da ohikoena Lujanbioren 2017ko bertsoen silabatzean. *Liaisona* egiteak hots katearen antolakuntza CV egiturarantz lerratzen du: *i.rri.ba.rre.ba.te.gi.zu.me.se.dez* ‘irribarre bat egizu mesedez’ (ML-2017-GS-8tx-3), *ni.sai.a.tzen.nai.zi.rri.zir.te.ten.pla.za.ra* ‘ni saiatzen naiz irriz irteten plazara’ (ML-2017-GS-pe-1), *mi.ñe.ke.ta.tris.tu.re.ka.mai.ka.pa.sa.ra* ‘minek eta tristurek hamaika pasada’ (ML-2017-GS-pe-1), *de.non.tza.ta.me.tsa* ‘denontzat ametsa’ (ML-2017-GS-pe-2), *nai.ze.ta.zi.lle.gi.den* ‘nahiz eta zilegi den’ (ML-2017-GS-pe-2), *ez.da.kit.ze.rre.gin* ‘ez dakit zer egin’ (ML-2017-GS-10tx-1), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke hots katea nola ahoskatzen duen Lujanbiok modu jarraituan:

170. irudia: Espektrograma. *aul.ki.ri.ke.tze.go.nu.tsik* ‘aulkirik ez zegoen hutsik’ (ML-2017-GS-ge-1).



Bertsoak errepika duenean, azken puntua —edo beste punturen bat— bi aldiz kantatzen denean, batzuetan lehen aldian hitzak elkarrengandik banatuta kantatzen ditu Lujanbiok, eta bigarren aldiz errepikatzean, hots katea birsilabatuta. Goizeko saioan gaiari kantatutako lehen bertsoan (ML-2017-GS-ge-1), adibidez, azken puntu hasiera lehen aldiz honela kantatzen du: *ka.su.ba.tzu.tan*. ‘*i.e.sa.bai.ta* ‘kasu batzuetan ihesa baita’. Errepikatzean, berriz, hitzen arteko mugak urtuz, horrela: *ka.su.ba.tzu.ta.ni.e.sa.bai.ta* ‘kasu batzuetan ihesa baita’. Ematen duenez, mezuak argitasuna eskatzen duen kasu batzuetan, hitzak edo sintagmak bereiz ahoskatzen ditu Lujanbiok, eta behin puntua lehen aldiz kantatuta, ahoskatzeko errazagoa den moduan errepikatzen duela puntua: *liaisona* eginda.

Askotariko muga prosodikoak zeharkatzen ditu Lujanbiok *liaisonaren* bitartez: hitz mugetatik hasi eta esaldi edo hemistikioaren eremuetaraino (ikus §10. kapitulua taldekatzeaz).

(L5) Kontsonante bilkura heterosilabikoen asimilazio eta kenketa batzuk, hitz artean⁶²⁵.

L.5.1. Klase bereko kontsonante elkarketa heterosilabikoetan, bi kontsonanteetako bat asimilatu edota kentzea (elkarketa bakunduz).

Corpuseko adibide batzuk:

Sudurkariak: *e.gi.naiz* ‘egin nahiz’ (ML-2017-GS-ha), *tao.rra.zal.tze.naiz* ‘ta hor azaltzen naiz’ (ML-2017-GS-8H-3), *al.de.gi.nu.en* ‘alde egin nuen’ (ML-2017-GS-ge-1), *e.ro.tze.nau.bai* ‘erotzen nau bai’ (ML-2017-AS-ge-3), *e.me.nor.den* ‘hemen nor den’ (ML-2017-BB-ge-1), etab.

Herskariak⁶²⁶: *bo.rra.ka.neur.tu.ba.da* ‘borroka neurtu bat da’ (ML-2017-GS-ha), *i.si.li.ge.ra.tu.na.din* ‘isilik geratu nadin’ (ML-2017-GS-ge-3), *naiz.gu.ge.ra.‘a.ra.zi.nai* ‘nahiz guk gera arazi nahi’ (ML-2017-AS-6mtz-1), *je.su.se[y].bi.mi.llaur.te* ‘Jesussek bi mila urte’ (ML-2017-AS-ptk-1), *ba.ka.rr[i].bai.zen* ‘bakarrik baitzen’ (ML-2017-BB-8H-1), *gi.zon.ba.di.jo.a* ‘gizon bat dihoa’ (ML-2017-BB-ge-1), *ne.re.a.ni.mo.a[y].da.biltz* ‘nire animoak dabilta’ (ML-2017-BB-ge-3), *goi.ti[y].be.ra.e.gi.ten* ‘goitik behera egiten’ (ML-2017-AS-ba), *gu[y].be.ti[y].go.ra.i.ka.si.du.gu* ‘guk behetik gora ikasi dugu’ (ML-2017-AS-ba), etab.

Nahitaezko ez den bilakabidea. Kenketa edo asimilazio (garbirik) gabeko adibide batzuk⁶²⁷:

Sudurkariak: *i.zan.nai.ga.be* ‘izan nahi gabe’ (ML-2017-GS-ha), *e.man.ni.zu.en* ‘eman nizuen’ (ML-2017-GS-ge-1), *i.zan.nai.nu.en* ‘izan nahi nuen’ (ML-2017-AS-ge-1), *u.me.a.re.kin.na.bil.no.la.bait* ‘umearekin nabil nolabait’ (ML-2017-AS-ge-2), etab.

Herskariak: *ze.rrin.por.ta.zait.pix.ka.bat* ‘zer inporta zait pixka bat’ (ML-2017-GS-8H-1), *bart.gau.ez* ‘bart gaeuz’ (ML-2017-GS-8tx-1), *go.za.tu.la.gu.nak.ta* ‘gozatu lagunak (e)ta’ (ML-2017-GS-pe-3), *guk.gre.bae.gin.da.ko.an.no.ra.joa.nez.du.te* (ML-2017-GS-10tx-2), *min.go.tso.nek.da.ka.rre.na* ‘mingots honek dakarrena’ (ML-2017-GS-ge-1), *ba.ña.zor.te.ak.biz.ka.rra.e.man* ‘baina zorteak bizkarra eman’ (ML-2017-GS-ge-3), *u.me.txi.ki.bat.bi.la.ka.tu.dut* ‘ume txiki bat bilakatu dut’ (ML-2017-AS-ge-1), *aur.ki.tu.rik.gil.tza* ‘aurkiturik giltza’ (ML-2017-AS-ge-2), *po.zik.ta.tris.te* ‘pozik (e)ta triste’

625 Aipatutakoez gain, ozen ondoko txistukariaren afrikatzea ere gertatzen da hitz artean, besteak beste, bertsolariaren ahoskeran, batzuetan: *de.na.lo.re.a.be.ar.tzu.e.na* ‘dena lorea behar zuena’ (ML-2017-GS-ge-3), *e.ra.bat.ju.an.tzai.o* ‘erabat joan zaio’ (ML-2017-BB-8tx-2), etab. Lan honetan lehen hurbilpen bat egin da Lujanbioren silabatzerara. Gertakari guztiak xehe eta sakon aztertu beharko lirakeke ulerkerara zabalagorako.

626 Ondokoak dira adibideak, besteak beste: *zuk.be.rriz* (ML-2017-GS-8tx-1), *al.der.di.da.nek.ba.bes.tu* ‘alderdi denek babestu’ (ML-2017-BB-8H-1), *la.bo.ra.ri.ak.gai.i.zan.ga.ra* ‘laborariak gai izan gara’ (ML-2017-BB-8H-2), *ta.guk.di.ru.a* ‘(e)ta guk dirua’ (ML-2017-BB-ge-2),

627 Beste kasu batzuetan, kodako kontsonanteak ahoskatzeko bokal epentetiko txikiak gehitzen ditu Lujanbiok, fonetikoki bada ere hots katea CV egiturarantz gerturatuz: *re.al.so.cie.dad(e).‘e.se.‘a.ri.ta* ‘Real Sociedad SA-ri (e)ta’ (ML-2017-GS-8H-1), *du.zun(i).‘in.bi.ri.o.rrek* ‘duzun inbidia horrek’ (ML-2017-GS-8tx-1).

(ML-2017-AS-ge-3), *de.nik.ta.tris.te.na* ‘denik (e)ta tristeena’ (ML-2017-BB-2), *gu.re.tzat.be.ti.lu.rru.na* ‘guretzat beti lurruna’ (ML-2017-BB-ge-1), *mer.ze.de.tik.ta.so.me.ra* ‘Mercedetik (e)ta Somera’ (ML-2017-BB-ge-3),

L.5.2. ‘Ez’ hitz **kodako txistukari ahoskabearen ondorengo herskari ahostuna ahoskabetzea**⁶²⁸.

Corpuseko adibide batzuk:

ez.ta.lu.xu ‘ez da luxu(a)’ (ML-2017-GS-8tx-1), *ez.tau.ka.zu.e* ‘ez daukazue’ (ML-2017-GS-ge-3), *an.ge.rra.ri.kez.tut.nai.ba.ña* ‘han gerrarik ez dut nahi baina’ (ML-2017-AS-6mtz-2), *ez.te.zu* ‘ez duzu’ (ML-2017-AS-ge-3), *ez.ta.mu.gi.tu.ko* ‘ez da mugituko’ (ML-2017-AS-ptk-2), *bes.te.e.kez.tu.te.ba.li.o* ‘besteek ez dute balio’ (ML-2017-AS-ptk-5), *ez.tu.te.san.go* ‘ez dut esango’ (ML-2017-AS-ge-3), *ba.ña.ez.ta.ki.te.go.al.de.an* ‘baina ez dakit hegoaldean’ (ML-2017-BB-8H-1), *ez.ti.ra* ‘ez dira’ (ML-2017-BB-8H-2), *ez.ta.kit* ‘ez dakit’ (ML-2017-BB-ge-1), *ez.ta.sa.rrri* ‘ez da sarri’ (ML-2017-BB-ge-2), *ez.ti.ru.dio.so* ‘ez dirudi oso’ (ML-2017-BB-ge-3), etab.


Ahoskabetu gabeko adibideak:, etab.

ez.bal.din.ba.nau.zu.nai ‘ez baldin banauzu nahi’ (ML-2017-BB-8tx-3), etab.

Lujanbiok, 2017ko bertsoetan batzuetan hitz arteko kontsonante bilkura heterosilabikoak ahultzen ditu batzuetan, lehen hitzaren kodan dagoen kontsonantearen tasunen bat asimilatuz edo hotsa bera kenduz, sarri. Sudurkarien kasuan, bilkura bakundu egiten du, lehen hitz amaieran (kodan) zegoen hotsa kenduz: *e.gi.naiz* ‘egin nahiz’ (ML-2017-GS-ha), *tao.rra.zal.tze.naiz* ‘ta hor azaltzen naiz’ (ML-2017-GS-8H-3), *al.de.gi.nu.en* ‘alde egin nuen’ (ML-2017-GS-ge-1), etab. Ondoko espektrograman ikus daiteke adibide bat:


628 ‘Ez’ morfemari lotutako erregela gehiago ere badira Lujanbioren 2017ko silabatzean. Nagusiki txistukari bilkuran lehena kendu eta bigarrena afrikatzea (*e.tze.go.nu.tsik* ‘ez zegoen hutsik’, ML-2017-GS-ge-1; *e.tzu.te.na.te.ra* ‘ez zuten atera’, ML-2017-AS-ptk-4).

171. irudia: Espektrograma. *tao.rra.zal.tze.naiz* ‘ta hor azaltzen naiz’ (ML-2017-GS-8H-3)




Sudurkari elkarketen bakuntze-adibideak andana diren arren, badira kontsonanteen asimilazio edo kenketa argirik gabeko hainbat adibide ere, modu jarraituan baina bi sudurkariak ahoskatzeko ahalegina dagoela uzten dutenak agerian: *i.zan.nai.ga.be* ‘izan nahi gabe’ (ML-2017-GS-ha), *e.man.ni.zu.en* ‘eman nizuen’ (ML-2017-GS-ge-1), *i.zan.nai.nu.en* ‘izan nahi nuen’ (ML-2017-AS-ge-1), etab. Ikus ondoko espektrograman, sudurkariaren iraupenean dagoen aldea, 171. irudikoarekin alderatuta, esate baterako:

172. irudia: Espektrograma. *e.man.ni.zu.en* ‘eman nizuen’ (ML-2017-GS-ge-1).




Hitz mugan herskari bilkurak (heterosilabikoak) sortzen direnean, sarri hots guztiak ahoskatzeko ahalegina egiten du Lujanbiok normalean, ahultze nabarmenik gabe: *ze.rrin.por.ta.zait.pix.ka.bat* ‘zer inporta zait pixka bat’(ML-2017-GS-8H-1), *bart.gau.ez* ‘bart gauetz’ (ML-2017-GS-8tx-1), *go.za.tu.la.gu.nak.ta* ‘gozatu lagunak (e)ta’ (ML-2017-GS-pe-3), *guk.gre.bae.gin.da.ko.an.no.ra.joa.nez.du.te* (ML-2017-GS-10tx-2), *min.go.tso.nek.da.ka.rre.na* ‘mingots honek dakarrena’ (ML-2017-GS-ge-1), etab. Ikus ondoko espektrograma horren adibidetzat:

173. irudia: Espektrograma. *min.go.tso.nek.da.ka.rre.na* ‘mingots honek dakarrena’ (ML-2017-GS-ge-1).



Edonola ere, badaude herskari bilkuretan kodan dagoen kontsonante ahoskabea ahostundu edota igurzkaritutako adibideak, baita kenketa gauzatutako adibideak ere, bilkura soilduz (bakunduz): *bo.rro.ka.neur.tu.ba.da* ‘borroka neurtu bat da’ (ML-2017-GS-ha), *i.si.li.ge.ra.tu.na.din* ‘isilik geratu nadin’ (ML-2017-GS-ge-3), *naiz.gu.ge.ra.* ‘a.ra.zi.nai ‘nahiz guk gera arazi nahi’ (ML-2017-AS-6mtz-1), *je.su.se[y].bi.mi.llaur.te* ‘Jesusek bi mila urte’ (ML-2017-AS-ptk-1), *ba.ka.rri[y].bai.zen* ‘bakarrik baitzen’ (ML-2017-BB-8H-1), etab. Ikus ondoko espektrograman herskari bilkura soilduz gauzatutako kenketa adibidea:

174. irudia: Espektrograma. *bo.rro.ka.neur.tu.ba.da* ‘borroka neurtu bat da’ (ML-2017-GS-ha)



Aipagarria da 2009ko txapelketako finaleko bertsoetan baino herskari bilkura ahultze kasu gehiago dagoela 2017ko txapelketan. Kontsonante bilkuren azterketan sakontzeko, beharrezkoa litzateke, bestelako bilkurak sistematikoki aztertzeaz gain, kasu bakoitzean baldintza prosodikoak (*tempoa*, eremu prosodikoak, etab.) kontuan hartu eta lotzen edo banatzen diren osagaien arteko harreman prosodiko eta sintaktiko-semantikoa zer-nolako den begiratzea, xehetasun fonetikoetan sakontzerekein batera, besteak beste.

Bestalde, ezeztapenaren (*ez*) ondoren herskari ahostunez hasitako aditz jokatua dagoenean, hitz hasierako herskaria ahoskabetzen du gehienetan: *ez.ta.lu.xu* ‘ez da luxu(a)’ (ML-2017-GS-8tx-1), *ez.tau.ka.zu.e* ‘ez daukazue’ (ML-2017-GS-ge-3), *an.ge.rra.ri.kez.tut.nai.ba.ña* ‘han gerrarik ez dut nahi baina’ (ML-2017-AS-6mtz-2), *ez.te.zu* ‘ez duzu’ (ML-2017-AS-ge-3), *ez.ta.mu.gi.tu.ko* ‘ez da mugituko’ (ML-2017-AS-ptk-2), *bes.te.e.kez.tu.te.ba.li.o* ‘besteek ez dute balio’ (ML-2017-AS-ptk-5), etab. Erregela horren ondorioz, hots kateko segmentuak elkarren antzekoago egiten dira ahostuntasunari dagokionez (ahoskagarriago) eta, era berean, bigarren silabaren —aditzaren— ekina indartu egiten da herskari ahoskabeaz.

11.3. Neurria betetzeko baliabide foniko nagusiak

Lujanbiok hizketa katea oinarri metrikoarekin uztartzeko hainbat baliabide foniko darabiltza 2009eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean:

- Lujanbiok **hiatoa** egiten du joera nagusi gisa, hitz bakoitzari “dagokion” silaba kopurua eskainiz; ahoskatu ahala behar diren silabak ekoitiziz, nolabait. Sarri hitz arteko mugak eten laburrez bereizten dituen arren —bokal elkarketa banatzeko, gehiagotan—, ohikoa da, era berean, hitz eta sintagmak modu jarraituan ahoskatzea; horrek dakar hots katearen ezaugarrien arabera, hitzen arteko mugak urtu eta birsilabatzea (*laisona* egitea) ere, maiz, horrek bertsolariak ahoskatzen dituen silaba kopuruan eraginik ez duen arren. Neurriaren eskakizunak bete ahal izateko, sarri gauzatzen ditu **sinalefak**, hitz arteko bokal elkarketetan bokaletako bat desilabagiletu eta silaba bakarrean ahoskatuta bitan beharrean. Aztertutako bertsolarien artean sinalefa gehien darabilen bertsolaria da Lujanbio: 39 kasutan darabil 39 bertsotan. Ondokoak dira adibide batzuk: *de.na.pa.rra* ‘dena aparra’ (ML-2017-GS-8H-2), *ba.ñ[aw].ts[je]z.ke.ro* ‘baina hautsiz gero’ (ML-2017-GS-8H-2), *zar.ta.t[uj]z.ta.rre.ko.min.tza* ‘zartatu iztarreko mintza’ (ML-2017-GS-8H-2), *tao.rra.zal.tze.naiz* ‘(e)ta hor azaltzen naiz’ (ML-2017-GS-8H-3), *bart.gau.ez.de.n[aj].rrin.tzi* ‘bart gauetz dena irrintzi’ (ML-2017-GS-8tx-1), *gu.re.txe.ko* ‘gure etxeko’ (ML-2017-GS-8tx-2), *ba.ñ[aj].kas.le.ak.da.toz* ‘baina ikasleak datoz’ (ML-2017-GS-10tx-2), *guk.gre.bae.gin.da.ko.an* ‘guk greba egindakoa’ (ML-2017-GS-10tx-2), etab.
- Hitz artean beharren arabera sinalefa gauzatzen duen bezala, hitz barneko bokal elkarketetan bokaletako bat desilabagiletu eta ondoko bokalarekin silaba berean ahoskatzen ditu Lujanbiok batzuetan, lizentzia metrikoen artean **sineresi** gisa ezaguna dena eginez: *bo.rro.ka.n[ew]r.tu.bat* ‘borroka neurtu bat’ (ML-2017-GS-ha), *e.rrea.li.ta.te* (ML-2017-GS-8H-2), *e.gin.* ‘i.g[wa].l[ej]n.tzen.dun’ ‘egin igual egin zenuen’ (ML-2017-GS-8tx-3), *naiz.joa.nel.ka.rre.kin* ‘nahiz joan elkarrekin’ (ML-2017-GS-10tx-1) —baina *go.a.zen* (ML-2017-BB-8H-3), *ju.an* ‘joan’ (ML-2017-BB-8tx-2)—, *fun.tz[jo].na.ri.e.kin* ‘funtzionarioekin’ (ML-2017-GS-10tx-3) —baina *se.ri.o.a* (ez *se.r[jo].a*) (ML-2017-GS-8tx-1) edo *es.pe.zi.a.le.kin* (ML-2017-GS-8tx-2)—, *be.ar.tu.bea.r.den* ‘behartu behar den’ (ML-2017-AS-ge-2) —baina *e.san.be.ar.ba.da.de.na* ‘esan behar bada dena’ (ML-2017-AS-ge-1); *ez.be.ar.bes.te* ‘ez behar beste’ (ML-2017-AS-ba)—, etab. Sineresia ere baliabide emankorra da Lujanbioren silabatzean eta, gainerako bertsolariekin alderatuta, askotan erabiltzen du.

- **Kenketa** ere aipatu behar da Lujanbioren baliabide metriko gisa, 2009an bezala 2017an ere. Askotariko moduetara laburtzen ditu bertsolariak hitzak silaba bat gutxiago ahoskatuta hots katea neurrira egokituz. Aditz jokatuetakoko bokal bilkuretako /e/, adibidez, kendu egiten du batzuetan behar metrikoen arabera: *e.tze.gon* ‘ez zegoen’ (ML-2017-GS-ge-1), *ba.nun.ta* ‘banuen eta’ (ML-2017-GS-ge-1), *o.te.nin.dun* ‘ote ninduen’ (ML-2017-AS-ge-1), *ni.ga.ti.kor.dain.du.du.na* ‘nigatik ordaindu duena’ (ML-2017-BB-ge-1), etab. Silabak galdutako bestelako forma batzuk ere badarabiltza: *al.ze.nu.en* ‘ahal zenuen’ (ML-2017-GS-8tx-2), *az.tu.zu.re.pe.na* ‘ahaztu zure pena’ (ML-2017-GS-pe-3) —baina *a.al.tsu* ‘ahaltsu’ (ML-2017-AS-ge-3)—, *el.ka.rre.na* ‘elkarrengana’ (ML-2017-GS-ge-1), *ka.su.ba.tzu.tan* ‘kasu batzuetan’ (ML-2017-GS-ge-1), *e.rre.giñ* ‘erregina’ (ML-2017-GS-ge-2), *ba.tzu.tan* ‘batzuetan’ (ML-2017-GS-ge-2) —baina *bes.te.e.tan* (ML-2017-GS-pe-2)—, *o.ri.len* ‘hori lehen’ (ML-2017-AS-ptk-6) —baina *le.en* ‘lehen’ (ML-2017-AS-ge-1)—, *ne.ke.a.e.ta* ‘o.sa.su.na.ta’ ‘di.ru.tza’ ‘nekea eta osasuna eta dirutza’ (ML-2017-AS-ge-1), *kos.ta.ko.zai.zu* (ML-2017-BB-8tx-1) —baina *kos.ta.tu.zait* (ML-2017-BB-8tx-1)—, etab. Adibideak aztertuta ondoriozta daiteke gehienetan aldakortasun morfonologikoa dagoela kenketadun formen atzean. Emaniko azken adibide-multzo heterogeneoan, bertsoetako informazioa soilik hartuta kontuan, zaila da zehazten bilakabide fonologikoen ondorio izan diren silabatze horietako batzuk edo Lujanbioren hizkeran jada horrela jasotako ormak diren (eta beharren arabera darabilen hizkeren zein formen arteko aldakortasuna)⁶²⁹.

11.4. Joera nagusiak laburbilduz

Maialen Lujanbiok 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako bertsoen silabatzean fokua jarriarik, esan daiteke bertsolariak silabak modu kohesionatuan ahoskatzen dituela, eremu prosodikoen arteko kohesioa nagusitzen delarik, batetik, eta kantatzen duenaren argitasuna bilatzen duela, horren ondorioz askotariko etenak gauzatuz eta segmentuen izaera zainduz, bestetik.

Labur esandakoa zabalduz, Lujanbioren 2017ko finaleko bertsoetan nabarmena da sarri hitzen arteko mugak urtzen dituela bokal elkarketa heterosilabikoak modu jarraituan ahoskatuta, sinalefa gauzatuta edo *liaisona* eginda, hotsak birsilabatuta. Maila segmentalean ere, sudurkariz osatutako kontsonante taldeak bakuntzen ditu maiz, eta herskari taldeak ere bai, batzuetan —2009ko finalean

629 Ez dut gehiketa adibide askorik jaso Lujanbioren 2017ko Bertsolari txapelketako finaleko bertsoetan (*mal.ko.ri.kan.xu.ka* ‘malkorik xuka(tu)’, ML-2017-BB-8tx-4); horrek ez du esan nahi, noski, hots katea luzatzen ez duenik hautu lexiko eta morfologikoen bitartez, edo forma laburtu eta laburtugabeak txandakatzen ez dituenik behar metrikoen arabera. Dieresi adibide posible bakarra jaso dut, hitz bakartzat har daitekeena bere bi osagaietan banatuta ahoskatzen duena Lujanbiok: *ge.ra* ‘a.ra.zi’ ‘gerarazi’ (ML-2017-AS-6mtz-2).

baino gehiago—. Hitz arteko kontsonanteen artean askotariko bilakabide eta erregelak gertatzen dira ('ez' hitzari lotutako herskari ahostunen ahoskabetzea edo ozen ondoko txistukari frikariaren afrikatzea, besteak beste), gertakarion eremu prosodikoa hitza baino zabalagoa dela agerian utziz.

Amuriza, Lizaso edo Lopategiren silabatzean aurkitutako *fortitio* batzuk ez daude presente Lujanbioren silabatzean: hasperena, "makulu-silaba" deiturikoa edo bokal aurreko zein bokal arteko /i/-ren kontsonantetza. Eremu prosodiko bakoitzak —silabak, hitzak, esaldiak— ez du silabatzean horrenbesteko pisurik hartzen sistematikoki, joera nagusi gisa, hitz arteko bokal elkarketak etenaz banatzeko joera handiagoa den arren 2009an baino —2017an modu jarraituan ahoskatutako hitz arteko bokal bilkurak ohiko diren arren, maizago gauzatzen du Lujanbiok etena hitz edo sintagma artean, testuinguru horretan (sinalefak kontuan hartu gabe)—.

Horrela, argitasunaren mesedetan (askotariko motiboak tarteko; ikus §10. kapitulua) kasuan kasuan eremu prosodiko jakinak —hitzak, esaldiak— mugatzen ditu Lujanbiok eten bidez eta, maila segmentalean, herskariak bokal artean ohi baino herskariago mantentzen ditu (hala hautematen dira) kasu jakinetan hitz artean, edo kontsonante taldeak maiz ahoskatzen ditu modu nabarmenean ahuldu gabe.

Hala, Lujanbiok 2017ko silabatzean segmentuen izaera ahal den gehien mantenduz eta kantatzen ari denaren argitasuna zainduta, hotsen antolakuntza prosodikoan osagaien kohesioa bilatzen duela esan daiteke.

Aipatutako gertakarietako batzuek ondorio gisa dute hots katearen silabatzea oinarrizko CV egiturarantz hurbiltzea. Deskribatutakoarekin erraz ulertzen dira silaba-egituren maiztasunak aztertzean ateratako datuak; silaba-ekina indartzen duten egiturak %80 izatea, eta silaba irekiak, %70a baino gehiago. Lujanbioren kasuan, Egaña edo Arzallusenean bezala, joera indartzaileek ez dakarte berez CV egituraren aldeko joerarik, baina euskararen beraren fonologiak eta hots kateaz eginiko silabatzeak ondorio gisa dakarte aipatutako silaba-egiturak izatea nagusi.

Aipatutako gertakari eta joerek lizentzia metrikoen erabileran ere badute eragina: Lujanbioren silabatzean ohikoak dira sinalefak (39 sinalefa adibide 39 bertotan) eta sineresiak, hitz arteko zein hitz barneko desilabagiletze bilakabideak. Bestelako silaben hitz barneko kenketa ere (sarri hizkeren arteko aldakortasun morfonologikoari lotuta) baliabide emankorra da bertsolariarengan.

II. Eranskina:

Bertsoetako aldaera erritmikoak. Corpusean jasotako adibideak

II.1. Eremu hasiera edo bukaerako silaba(k) luzatzea

- Amuriza 1980 **Hemistikio hasierako zein motibo erritmiko** (hemistiko barneko 5+5 taldekatzeko bigarren osagaiko) **hasierako silaba anakrustikoa luzatzea, ondoko silabaren balio erritmikorantz hurbilduz: *al.da.ni.re.di.ña*** ‘al da nire (a)dina’, *ta.zuk.ar.tu.mi.ña* ‘eta zuk hartu mina’ (XA-1980-BB-8tx-2), *a.da.rren.‘an.tze.ra* (XA-1980-BB-8tx-4), *zer.sen.ti.tzen.duk* (XA-1980-AS-ba). **Motibo erritmiko amaieran, azken aurreko silaba melisma gisa gauzatzea: *e.zaut.bu.ru.an*** ‘ez haut buruan’, *bi.zi.nai.ze.la* (XA-1980-AS-ba). **Puntu amaieran, azken aurreko silaba** (sari azentugabe/anakrustikoa) **inguruko balio erritmiko paretsura luzatzea: *bu.ka.tu.ga.be.rik***, *e.zu.rrez.be.te.rik* ‘hezurrez beterik’ (XA-1980-BB-8tx-1), *ta.zuk.ar.tu.mi.ña* ‘eta zuk hartu mina’ (XA-1980-BB-8tx-2), *au.rre.ra.‘a.tze.ra* (XA-1980-BB-8tx-4), (lau kasuetan oina da nabarmenago geratzen dena).
- Amuriza 1982 **Hemistikio hasierako silaba** (anakrustikoa maiz) **luzatzea** (ondoko silabaren balio erritmikorantz hurbilduz sari; batzuetan luzeago gauzatuz): *ez.tau.ka.gu.‘ma.kal* ‘ez daukagu makal’ (XA-1982-GS-10tx-2), *jau.nak.‘e.to.rri.ja* ‘jaunak etorria’, *pa.pa.rra.go.rri.ja* ‘paparra gorria’, *a.mets.‘i.tu.rri.a*, *es.ka.ri.gar.bi.ja* ‘eskari garbia’ (XA-1982-GS-ge-1), *ar.tza.jen.‘e.txo.la* ‘artzainen etxola’, *jau.nak.pa.ra.bo.la*, *i.ku.siz.da.go.la* (XA-1982-GS-2), *o.so.‘txo.ri.fi.na*, *ai.zer.‘a.tse.gi.ña* ‘ai, zer atsegina’, *a.lae.re.ber.di.na* ‘hala ere berdina’, *ai.ze.la.ja.ki.na* ‘ai, zela jakina’ (XA-1982-GS-ge-3), *ai.zer.‘a.tse.gi.ña* ‘ai, zer atsegina’ (XA-1982-AS-8tx-2), *sa.rri.ga.ra.jar.dun*, *lo.a.be.ar.zen.dun* ‘loa behar zenuen’ (XA-1982-AS-8tx-3), *zau.de.bu.ka.ar.te* ‘zaude bukatu arte’ (XA-1982-AS-ge-2), *sor.tze.an.‘a.rra.za*, *ta.‘ez.ta.‘e.rra.za* ‘eta ez da erraza’, *au.xe.poz.‘de.ma.sa* ‘hauxe poz demasa’ (XA-1982-AS-ge-3), *nun.‘a.zal.tzen.den* ‘non azaltzen den’, *au.rre.an.‘e.ta* (XA-1982-BB-ge-1), *er.di.jan.na.go* ‘erdian nago’, *e.men.‘u.tzi.ta* ‘hemen utzita’ (XA-1982-BB-ge-2), *gal.du.ko.nu.ke.txa.pe.la* (XA-1982-BB-ge-3), *di.gu.ten.‘nas.te.a* ‘diguten nahastea’, *bai.ta.‘e.maz.te.a*, *la.gu.nen.‘es.ke.a*, (XA-1982-BB-9phtz).

Puntu zein hemistikio amaieran, azken aurreko silaba (sarri azentugabe/anakrustikoa) **inguruko balio erritmiko paretsura luzatzea**: *es.ka.ri.gar.bi.ja* ‘eskari garbia’ (XA-1982-GS-ge-1), *be.re.‘i.tza.la.‘an.du* ‘bere itzala han du’, *jau.nak.pa.ra.bo.la* ‘jaunak parabola’ (XA-1982-GS-ge-2), *txan.txan.go.rri.ja.de.gu* ‘txantxangorria dugu’ (XA-1982-GS-ge-3), *au.xe.da.‘o.rain.‘sor.tu* ‘hauxe da orian sortu’ (XA-1982-BB-9phtz).

Hemistikio amaierako silaba luzatzea, motibo erritmikoak hala ez duenean egiten: *e.ma.ku.me.tan.ba.da* (XA-1982-AS-ge-1).

Lizaso 1986

Hemistikio amaierako silaba luzatzea, motibo erritmikoak hala ez duenean egiten: *a.rra.tsal.de.on.be.rri.ro* ‘arratsaldean berriro’, *la.sai.ga.to.ze.ni.kan* ‘lasai gatozenik’ (SL-1986-AS-ha), *o.rai.ñar.te.an.gai.da.ne.ta.tik* ‘orain artean gai denetatik’, *al.dan.be.ze.la.pa.sa.e.re.bai* ‘ahal den bezala pasa ere bai’ (SL-1986-AS-be).

Lopategi 1989

Hemistikio hasierako silaba (anakrustikoa maiz) **luzatzea** (ondoko silabaren balio erritmikorantz hurbilduz sarri; batzuetan luzeago gauzatuz): *ba.ña.la.gu.nah* ‘baina laguna’ (JL-1989-GS-ge-2), *bu.ru.ba.ka.rra.ren.tzat* ‘buru bakarrarentzat’ (JL-1989-AS-ha), *jo.dut.‘zen.bai.ti.ro* ‘jo dut zenbait tiro’ (JL-1989-AS-4oin).

Puntu zein hemistikio amaieran, azken aurreko silaba (sarri azentugabe/anakrustikoa) **inguruko balio erritmiko paretsura luzatzea** (azpimarratuta luzatutako silabak): *a.ma.kon.tso.la.ga.rri* ‘ama kontsolagarri’ (JL-1989-GS-10tx-1), *ja.ne.da.ri.tan* ‘jan edaritan’ (JL-1989-GS-ge-2), *txa.pe.la.ren.bi.la.gaur* ‘txapelaren bila gaur’, *ba.ñain.gu.ru.ko.e.kin* ‘baina ingurukoekin’ (JL-1989-AS-4oin).

Egaña 1993

-

Egaña 1997

Hemistikio hasierako silaba (anakrustikoa maiz) **luzatzea** (ondoko silabaren balio erritmikorantz hurbilduz sarri, *beat* indartsuan gauzatuz —tetiko— eta batzuetan luzeago): *u.rre.ti.kez.ta.mar.du.la* ‘hurretik ez da mardula’, *e.sa.te.nun.bai* ‘esaten nuen, bai’, *sal.tza.lle.a.rek* ‘saltzaile hark’ (AE-1997-ge-1), *gaur.jo.ka.tu.du* (AE-1997-ge-2), *ni.‘ke.ja.tze.ra* ‘ni kexatzera’, *a.zo.ka.ra.ño* ‘azokaraino’ (AE-1997-GS-ge-3), *baz.kal.du.e.ta* ‘bazkaldu eta’, *des.ko.lo.ka.tu.e.gi.naiz* ‘deskolokatu egin naiz’ (AE-1997-AS-ha), *men.pe.ko.a.jan* ‘menpekoa jan’ (AE-1997-AS-1p-1), *es.ko.pe.ta.ri.kan.ga.be*

‘eskopetarik gabe’ (AE-1997-AS-*Ip*-3).

Puntu zein hemistikio amaieran, azken aurreko silaba (sarri azentugabe/anakrustikoa) **inguruko balio erritmiko paretsura luzatzea** (azpimarratuta luzatutako silabak): *gu.gen.jei.ma.jo.a.te.a* ‘Guggenheim-a joatea’ (AE-1997-AS-*ge*-3).

Egaña 2001

Hemistikio hasierako silaba (anakrustikoa maiz) **luzatzea** (ondoko silabaren balio erritmikorantz hurbilduz sarri, *beat* indartsuan gauzatuz —tetiko— eta batzuetan luzeago): *a.la.re.la.ne.an.zu* ‘hala ere lanean zu’ (AE-2001-GS-8*tx*-3), *e.so.la.mor.do.a* ‘hesola mordoa’ (AE-2001-GS-8*tx*-4), *e.tzai.taz.tu.ko.se.ku.la* ‘ez zait ahaztuko sekula’, *for.ma.la.e.ta.mar.du.la* ‘formala eta mardula’ (AE-2001-BB-*Ip*-2), *ber.di.na.ba.da* ‘berdina bada’ (AE-2001-BB-*Ip*-3), *ta.mai.a.len.ja.da* ‘eta Maialen jada’ (AE-2001-BB-9*phtz*).

Motibo (edo kadentzia) **hasierako silaba** (anakrustikoa) **luzeago eta tetiko gauzatzea**, *beat* indartsuan: *i.ma.lai.a.tik* ‘Himalaiatik’, *bar.ne.an* ‘barnean’, *gor.de.ko.zai.tut* ‘gordeko zaitut’, *er.ni.o.ga.ña* ‘Ernio gaina’ (AE-2001-BB-*ge*-2), *i.a.gal.du.dut.kon.tro.la* ‘ia galdu dut kontrola’, *ge.nu.en.u.ra* ‘genuen hura’ (AE-2001-BB-*ge*-3).

Puntu zein hemistikio amaieran, azken aurreko silaba (sarri azentugabe/anakrustikoa) **inguruko balio erritmiko paretsura luzatzea** (azpimarratuta luzatutako silabak): *bi.o.ko.sa.tzen.de.gu* ‘biok osatzen dugu’ (AE-2001-AS-10*tx*-3, errepikan).

Egaña 2005

Hemistikio hasierako silaba(k) luzatzea (gainerakoak baino luzeago): *e.zal.da.nai.ko.a.zer.tu* ‘ez al da nahiko azertu’, *e.men.dik.nai.du.gu.zer.tu* ‘hemendik nahi dugu zertu’, *kul.tur.fes.ta.o.ne.ta.ra* ‘kultur festa honetara’, *ar.ga.tik.ge.ra.a.ger.tu* ‘hargatik gara agertu’, *e.rre.le.bo.a.dut.ger.tu* ‘erreleboa dut gertu’ (AE-2005-GS-*ha*), *ben.ga.ai.ta.txo* ‘benga, aitaixo’, *or.sen.ti.tu.dut* ‘hor sentitu dut’, *ez.ten.ka.da.bat* ‘eztenkada bat’ (AE-2005-GS-*ge*-1), *sen.ti.tu.det.bai* ‘sentitu dut, bai’, *ai.xa.pa.sa.dut* ‘aise pasa dut’ (AE-2005-GS-*ge*-2), *kas.te.lla.na.tik* ‘Castellanatik’, *kas.ti.lla.pla.za* ‘Castilla plaza’ (AE-2005-AS-*ge*-1), *sar.tu.ez.sar.tu* ‘sartu, ez sartu’ (AE-2005-AS-*ge*-2), *an.ka.bat.sar.tu* ‘hanka bat sartu’, *as.mo.zo.ro.ai* ‘asmo zoroari’ (AE-2005-AS-*ge*-3), *ez.ke.rral.de.a* ‘ezkerraldea’ (AE-2005-BB-*ge*-1), *au.su.ma.tzen.det* ‘hau sumatzen dut’, *nor.no.ri.nork.au* ‘nor-nori-nork hau’ (AE-2005-BB-*ge*-2).

Puntu zein hemistikio amaieran, azken aurreko silaba (sarri azentugabe/anakrustikoa) **inguruko balio erritmiko paretsura luzatzea** (azpimarratuta luzatutako silabak): *ba.ñao.rain.dik.ka.paz.naiz* ‘baina oraindik kapaz naiz’ (AE-2005-BB-8tx-1).

Lujanbio 2009 **Puntu edo hemistikio hasierako silaba** (anakrustikoa maiz) **luzatzea** (ondoko silabaren balio erritmikorantz hurbilduz sarri, *beat* indartsuan gauzatuz —tetiko— eta batzuetan luzeago): *ge.rri.a.gu.ri.gu.ri* ‘gerria guri-guri’, *gua.po.nai.al.tzen.du.ke* ‘guapo, nahi al zenuke’ (ML-2009-GS-8tx-1), *ar.tu.be.so.ta.ne.ta.e.man.ne.ri.mu.xu* ‘hartu besoetan eta eman niri musu’ (ML-2009-GS-8tx-3), *be.rro.gei.ur.te* ‘berrogei urte’, *ai.gu.reiz.kun.tza* ‘ai, gure hizkuntza’, *ne.re.i.dei.ak* ‘nire ideiak’ (ML-2009-GS-ge-2).

Hemistikio amaierako silaba luzatzea, motibo erritmikoak hala ez duenean egiten: *tra.go.ar.tu.bai.ba.ño* ‘tragoa hartu bai baina’ (ML-2009-AS-ptk-7), *e.gan.ba.ño.be.o.ñez* ‘hegan baino hobe oinez’ (ML-2009-AS-ptk-8).

Arzallus 2013 **Puntu edo hemistikio hasierako silaba** (anakrustikoa maiz) **luzatzea** (ondoko silabaren balio erritmikorantz hurbilduz sarri, *beat* indartsuan gauzatuz —tetiko— eta batzuetan luzeago): *ja.ki.zu.o.ke.rre.na* ‘jakizu okerrena’, *e.txe.ra.ko.‘ain.nu.en* ‘etxerako hain nuen’ (AA-2013-GS-8tx-3), *a.ra.or.‘al.ka.te.a* ‘hara hor alkatea’ (AA-2013-AS-ptk-2), *ba.ña.be.sar.ka.da.da* ‘baina besarkada da’ (AA-2013-AS-ptk-4), *bq.ña.‘al.tu.ra.pix.kat* ‘baina altuera pixka bat adostu beharko da’ (AA-2013-AS-ptk-6), *bai.pix.kat.ki.li.ma.tu.zait.bi.o.tzix.ki.ña* ‘bai, pixka bat kilimatu zait bihotz iskina’ (AA-2013-AS-ptk-7), *ez.‘el.ka.rre.non.do.tik* ‘ez elkarren ondotik’, *to.ri.mu.xu.ba.te.ta* ‘tori musu bat eta’ (AA-2013-AS-ptk-8), *e.ta.gu.re.len.go.po.zak* ‘eta gure lehengo pozak’ (AA-2013-AS-ge-3), *a.ren.‘u.sain.go.xo.a* ‘haren usain goxoa’ (AA-2013-BB-9phtz), *len.po.e.me.ta.ko.‘i.tzak* ‘lehen poemetako hitzak’ (AA-2013-BB-ge-2), *au.rra.nin.tze.la.‘eus.ka.raz* ‘haurra nintzela euskaraz’ (AA-2013-AS-ba).

Lujanbio 2017 **Puntu, hemistikio zein motibo hasierako silaba** (anakrustikoa maiz) **luzatzea** (ondoko silabaren balio erritmikorantz hurbilduz sarri, *beat* indartsuan gauzatuz —tetiko— eta batzuetan luzeago): *zer.no.la.tan.za.bil.tzan* ‘zer-nolatan zabiltzan’ (ML-2017-GS-8tx-3), *a.di.bi.dez.gau.rre.ta* ‘adibidez gaur eta’, *go.za.tu.la.gu.nak.ta* ‘gozatu lagunak eta’ (ML-2017-GS-pe-3), *guk.gre.bae.gin.da.ko.an* ‘guk greba egindakoan’ (ML-2017-GS-10tx-2),

as.pal.di.ku.si ‘aspaldi ikusi’, *ez.da.o.ri.zu.en.*‘*pe.na* ‘ez da hori zuen pena’, *nai.ko.a.ra.zo* ‘nahikoa arazo’, *ka.su.ba.tzu.tan* ‘kasu batzuetan’ (ML-2017-GS-ge-1), *ez.*‘*la.ro.gei.ak* ‘ez, laurogeiak’, *ai.*‘*i.nor.ke.nau.*“*an.pa.ra* ‘ai, inork ez nau anpara(tu)’, *ain.bes.te.*“*o.ker* ‘hainbeste oker’ (ML-2017-GS-ge-2), *kon.tro.la.tzen.dut* ‘kontrolatzen dut’, *neuk.neur.tu.ko.dut* ‘neuk neurtuko dut’, *nik.ne.ro.nen.bai.ta.ra.zin* ‘nik neronen baitara zin’, *fa.mi.li.a.ke.re*“*mu.ziñ* ‘familiak ere muzin’, *e.tx.e.ra.buel.tan* ‘etxera bueltan’, *bar.ka.me.ne.ta.a.zal.pen.bea.rrik* ‘barkamen eta azalpen beharrik’, *ta.ne.ri.e.re* ‘eta niri ere’ (ML-2017-GS-ge-3), *ain.poz.ga.rria* ‘hain pozgarria’, *ai.ze.*‘*a.ol.ku.la.ri.tza* ‘ai, zer aholkularitza’ (ML-2017-AS-ge-2), *len.*“*la.na.tai.zer.di.a* ‘lehen lana eta izerdia’, *zail.dae.sa.ten.ze.ren* ‘zail da esaten zeren’, *jai.*“*e.ta.*“*as.te.len* ‘jai eta astelehen’, *bes.te.re.ne.ti.kas.ko* ‘besterenetik asko’ (ML-2017-BB-9phtz), *au.to.an.*‘*es.tu.ta.la.rria* ‘autoan estu eta larri’, *er.tzai.ñau.to.ba.ta.tze.tik* ‘ertzain auto bat atzetik’(ML-2017-BB-ge-2), *gu.*‘*pros.ti.tu.ton.pa.pe.ra* ‘gu prostituton papera’ (ML-2017-BB-ge-3), *len.go.e.kin.ta* ‘lehengoekin eta’, *gaur.ko.en.gan.dik* ‘gaurkoengandik’ (ML-2017-AS-ba).

Puntu zein hemistikio amaieran, azken aurreko silaba (sarri azentugabe/anakrustikoa) **inguruko balio erritmiko paretsura luzatzea** (azpimarratuta luzatutako silabak): *o.rain.*‘*o.pa.ro* ‘orain oparo’ (ML-2017-GS-8H-2), *or.ta.ne.tze.ra* ‘hortan ez zara’, *ban.ku.kon.tu.a* ‘banku kontua’ (ML-2017-GS-8H-3).

Hemistikio amaierako silaba luzatzea, motibo erritmikoak hala ez duenean egiten: *ta.*‘*be.ra.mu.gi.tu.ta* ‘eta bera mugituta’ (ML-2017-AS-ptk-8).

II.2. Egiturazko etenak ez egitea, modu jarraituan kantatzea

Amuriza 1980 **Doinuak hala zehaztuta hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** XA-1980-GS-pe-1, 2; XA-1980-AS-8tx; XA-1980-AS-pe1, 2; XA-1980-BB-9phtz (x3).

Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea: XA-1980-GS-4oin (x2; azken bi puntuak), XA-1980-AS-ES (x6), XA-1980-AS-ge (x6; azken puntuetan beti, 3.

- bertsoan gehien), XA-1980-BB-8tx-4, XA-1980-BB-ge (x3; azken puntuak).
- Amuriza 1982 **Doinuak hala zehaztuta hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** XA-1982-GS-pe-1, 2.
Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea: XA-1982-GS-4oin-1, 2 (x2; azken puntuak⁶³⁰); XA-1982-GS-10tx-1, 2 (x3); XA-1982-GS-ge-1, 2, 3 (X6; hiru bertsoetan azken puntuak eta errepikak); XA-1982-AS-be2 (azken puntuan); XA-1982-BB-8tx-1, 2, 3, 4 (x9; azken puntuak beti); XA-1982-BB-pe1, 2 (x4; azken puntua beti); XA-1982-BB-9phtz (x2; azken puntua eta errepika).
- Lizaso 1986 **Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** SL-1986-GS-pe-1, 2 (x3; azken puntu bat); SL-1986-AS-ha (x2; azken puntua horien artean); SL-1986-AS-8tx-1, 2, 3, 4 (x4; azken puntuak); SL-1986-AS-ptk-4, 6 (x4).
- Lopategi 1989 **Doinuak hala zehaztuta hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** JL-1989-GS-pe-1, 2.
Hemistikio edo puntu labur mailako eten nabarmenik ez egitea: JL-1989-GS-4oin1 (x1), JL-1989-GS-ba (x2); JL-1989-AS-8tx-2, 4 (x2; azken puntuak).
- Egaña 1993 **Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** AE-1993-GS-8H-3 (x1), AE-1993-GS-pe (x1; azken puntua), AE-1993-GS-9phtz (x1; errepika), AE-1993-GS-6mtz-1 (x1), AE-1993-GS-ge-2, 3 (x2).
- Egaña 1997 **Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** AE-1997-GS-pe (x1)⁶³¹.
- Egaña 2001 **Doinuak hala zehaztuta hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** AE-2001-GS-pe-1, 2, 3, 4; AE-2001-AS-ptk.
Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea: AE-2001-GS-ha (azken puntua), AE-2001-GS-8tx-2, AE-2001-BB-8tx-3 (azken puntua), AE-2001-AS-ba (azken puntua).
- Egaña 2005 **Doinuak hala zehaztuta hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** AE-2005-AS-ptk.
Puntu mailako eten nabarmenik ez egitea: AE-2005-BB-9phtz (puntu motzak jarraian)
Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea: AE-2005-GS-8tx-3 (azken puntua), AE-2005-GS-10tx-1, 2, 3 (x3; azken puntuak), AE-2005-GS-pe-1, 2 (x3;

630 Amurizak *Xarmangarria zira* doinuak kantatzen ditu 4 oinak emanda osatu beharreko bi bertsoak eta doinuaren motibo erritmikoak hemistikio mailako etenik ez egitera bultzatzen duen arren, bertsolariak azken puntuetan izan ezik, gainerakoetan etenak gauzatzen ditu unitate metrikua mugatuz.

631 Jasotako kasuaz gain, azpimarratzekoa da beste hainbat eten labur badirela (AE-1993-AS-8tx-an, adibidez, azken puntu batzuetan), baina bertsolariak oso eten luzeak ez dituenegiz egiten, zail egiten da aurretik egindakoen eta azken puntuko eten laburxeagoaren artean muga argia markatzea. Beste bertsolari batzuegan argiagoa da kontrastea.

azken puntu bat), AE-2005-BB-9phtz (azken puntua).

- Lujanbio 2009 **Doinuak hala zehaztuta hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** ML-2009-GS-8tx (salbuespen bat 2. bertsoan; behin gauzatzen du etena); ML-2009-GS-pe-1, 2; ML-2009-AS-ptk (salbuespen bat 7. bertsoan; behin gauzatzen du etena);
- Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** ML-2009-GS-ha (x5); ML-2009-GS-8H-2 (x1); ML-2009-GS-6mtz-1, 2 (x5; azken puntuak eta errepikak); ML-2009-AS-10tx-1, 2, 3 (x4; bi azken puntu); ML-2009-AS-ge-1 (x2; azken puntua eta errepika); ML-2009-BB-6mtz-1, 2, 3 (x6; azken puntuak eta errepikak); ML-2009-BB-8tx-1, 2, 3 (x11; horien artean azken puntu eta errepika guztiak); ML-2009-BB-9phtz (x4; horien artean azken puntua eta errepika),
- Arzallus 2013 **Doinuak hala zehaztuta hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** AA-2013-GS-8tx; AA-2013-GS-pe-1, 2, 3; AA-2013-AS-ha; AA-2013-AS-ptk; AA-2013-BB-8tx; AA-2013-BB-9phtz (salbuespena lehen puntua);
- Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** AA-2013-GS-6mtz-1, 2, 3 (x7; horien artean azken puntuak eta bi errepika); AA-2013-AS-10tx-1, 2, 3 (x10; horien artean azken puntuak); AA-2013-BB-6mtz-1, 2, 3 (x6; horien artean azken puntuak), AA-2013-BB-ge-1, 2, 3 (x5)
- Lujanbio 2017 **Doinuak hala zehaztuta hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** ML-2017-GS-8tx (salbuespen bat 3. bertsoan); ML-2017-GS-pe-1, 2, 3; ML-2017-AS-ptk; ML-2017-BB-8tx
- Puntu mailako eten nabarmenik ez egitea:** ML-2017-BB-8tx-2, 4 (x2); ML-2017-BB-9phtz (x3), ML-2017-BB-ge-2 (x1),
- Hemistikio mailako eten nabarmenik ez egitea:** ML-2017-GS-ha (x2; horietako bat azken puntua); ML-2017-GS-8H-1, 2, 3 (x7; horien artean azken puntuak eta errepikak); ML-2017-GS-10tx-1, 2, 3 (x11; horien artean hiru errepikak); ML-2017-AS-6mtz-1, 3 (x3; horien artean azken puntu bat eta errepika); ML-2017-AS-ge-1, 2, 3 (x3; horien artean azken puntu bat); ML-2017-BB-8H-2, 3 (x2); ML-2017-BB-9phtz (x3; horien artean azken puntua eta errepika); ML-2017-BB-ge-2, 3 (x5; horien artean azken puntu bat eta bi errepika); ML-2017-AS-ba (x1)

II.3. Eremua trinkotzea, lauago gauzatzea edo eremuak elkarrengana hurbiltzea

Amuriza 1980 **Puntuako lehen silaba anakrustikoa laburrago gauzatzea, hurrengo silabekiko gertuago:** *ne.re.ko.txe.ak.e.tzun* ‘nire kotxeak ez zuen’ (XA-1980-GS-10tx-3), *la.pu.rrik.aun.di.je.nak* ‘lapurrik handienak’ (x2) (XA-1980-AS-ES-1).

Hemistikioko azken aurreko silaba laburrago gauzatzea

(eta melismaduna bada, melisma laburrago gauzatzea edo melismarik ez egitea):

nik.kan.ta.tzen.dut ‘nik kantatzen dut’ (XA-1980-GS-8H-3),

ko.txe.ae.ra.man.he.ta ‘kotxea eraman eta’ (XA-1980-GS-10tx-2),

ho.be.zen.dun.o.llo.a ‘hobe zenuen oiloa’ (XA-1980-BB-8tx-2),

ba.koi.tzak.e.men.di.tu ‘bakoitzak hemen ditu’, *zuk.ni.rie.zu.rra.ke.ta* ‘nik zuri hezurak eta’ (XA-1980-BB-8tx-3), *ni.re.kin.kon.pon.tze.ko* ‘nirekin konpontzeko’, *a.gur.ta.zo.az.xa.kur* ‘agur eta zoaz, txakur’ (XA-1980-BB-8tx-4).

Amuriza 1982 **Puntuako lehen silaba anakrustikoa edota motibo erritmiko barreneko beste silaba (anakrustiko) batzuk laburrago gauzatzea, hurrengo silabekiko gertuago**⁶³²: *e.gun.a.re.tan* ‘egun haietan’ (XA-1982-GS-8H-2),

txo.ri.txo.bat.xal.to.ka ‘txoritxo bat xaltoka’, *lu.ma.ka.rro.a.ke.ta* ‘lumak harroak eta’ (XA-1982-GS-ge-1), *e.lur.zu.ri.ga.ñe.an* ‘elur zuri gainean’ (XA-1982-GS-ge-3),

bi.jal.de.ta.ra.do.a ‘bi aldetara doa’ (XA-1982-AS-ha),

la.ne.gi.te.ko.e.man ‘lan egiteko eman’, *zi.zun.an.dre.ak.itz* ‘zizun andreak hitz’ (XA-1982-AS-8tx-1),

e.ma.ku.me.ae.san.da ‘emakumea esanda’,

e.sa.na.da.da.na ‘esana da dena’, *e.ma.ku.me.tan.ba.da* ‘emakumeetan bada’,

bal.da.ti.kan.o.rain.txe ‘Baldatik oraintxe’ (XA-1982-AS-ge-1),

ne.re.an.dre.aor.da.go ‘nire andrea hor dago’, *a.mai.ka.su.fri.tze.ko* ‘hamaika sufritzeko’ (XA-1982-AS-ge-2),

o.jen.ar.te.an.da.bil ‘ho(r)ien artean dabil’,

ba.tek.e.man.bai.tzi.dan ‘batek eman baitzidan’ (XA-1982-AS-ge-3).

Puntuako, hemistikioko edo motiboko azken aurreko silaba laburrago gauzatzea: *al.pe.rri.kan.za.biltz* ‘alferrik zabiltza’ (XA-1982-AS-8tx-1),

lau.e.gun.lo.e.gin.du ‘lau egun lo egin du’ (XA-1982-AS-8tx-1⁶³³),

632 Gertakari honetan zail egiten da modu kategorikoan zehaztea silaba noiz laburtu den: noiz hartu duen silabak kortxearen balio erritmikoa beharrean semikortxearena, eta noiz gauzatu den kortxea laburrago bertsolariak erritmoa kudeatzeko duen modu adierazkorragatik. Adibide nabarmenenak jaso ditut, zalantzez, baina badira antzeko beste kasu batzuk ere jasotako bertsosaldietan.

633 Lehen bertsoan behin bakarrik gauzatzen du aldaera laburtua. Gainerako bi bertsoetan, ordea, aldaera bakar gisa darabil azken aurreko silaba laburtutako eredia. Beraz, arratsaldeko saioko zortziko txikiko bigarren eta hirugarren bertsoa eredu nagusizat hartuta, ez dut taula nagusian jaso. Ondokoak dira adibideak: *zu.lo.zi.nan.bi.tar.te* ‘zu lo

len.‘e.san.dut.geun.de.la ‘lehen esan dut geundela’, *ar.ma.‘e.ta.di.ru* ‘arma eta diru’ (XA-1982-AS-be2), *o.rain.‘o.nek.ja.rri.du* ‘orain honek jarri du’ (XA-1982-BB-8tx-3), *o.rai.na.go.bi.ga.rren* ‘orain nago bigarren’, *e.ta.‘au.‘le.nen.go.tik* ‘eta hau lehenengotik’ (XA-1982-BB-8tx-4), *u.rak.be.te.dit* ‘urak bete dit’, *i.ja.sa.be.la* ‘ia sabela’, *i.to.zo.ri.jan* ‘ito zorian’, *na.go.‘o.ne.la* ‘nago honela’ (XA-1982-BB-ge-3).

Motiboko azken aurreko silaba luzatu eta azkena laburtzea, ondoren datorren kadentziara hurbilduz aurretik kantatua (azpimarratua luzatutako silaba): *nik.mai.te.du.dan.‘e.rri.ja* ‘nik maite dudan herria’ (XA-1982-AS-ba).

Lizaso 1986

-

Lopategi 1989

Motibo erritmiko hasierako zein barreneko silaba(k) —sarri anakrustikoa(k)— **laburrago gauzatzea, hurrengo silabekiko gertuago** (azpimarratuta laburrago gauzatutako silabak): *e.gin.du.o.rain* (JL-1989-GS-8H-1), *le.nen.go.a.nu.en.da* ‘lehenengoa nuen eta’, *ba.te.ki.nen.bi.le.ni* ‘batekin nenbilen ni’, *go.goz.jo.e.ta.su* (JL-1989-GS-10tx-1).

Melisma gabeko aldaera (azpimarratuta melisma gabe gauzatutako silaba): *bi.o.kein.du.gu.ta* ‘biok egin dugu eta’ (JL-1989-AS-8tx-3).

Egaña 1993

Motibo erritmiko hasierako zein barreneko silaba(k) —sarri anakrustikoa(k)— **laburrago gauzatzea, hurrengo silabekiko gertuago** (azpimarratutako silaba da laburrago gauzatutakoa): *tre.nai.bo.ta.ko.ni.o.ke* ‘trenari botako nioke’ (AE-1993-GS-8H-3), *ba.rre.ne.ko.‘a.rra* ‘barreneko harra’ (AE-1993-GS-9phtz), *zu.ri.ke.ri.‘u.tsa.da.la* ‘zurikeria hutsa dela’ (AE-1993-AS-10H-3), *bi.de.ak.mi.la.di.ra* ‘bideak mila dira’ (AE-1993-AS-8tx-2), *ai.a.dix.ki.de.mai.ti.a* ‘ai, adiskide maitea’ (AE-1993-AS-IP-1), *po.li.ta.kex.ka.xak.di.ra* ‘politak eskasak dira’, *so.ñe.ko.a.ri.be.gi.ra* ‘soinekoari begira’ (AE-1993-AS-IP-2), *o.rain.bi.ur.tu.nai.do.ña* ‘orain bihurtu nahi doña’, *i.qual.ne.ro.nek* ‘igual neronek’, *so.ñe.ko.a.e.ta.so.ña* ‘soinekoa eta soina’ (AE-1993-AS-IP-3), *bi.zi.a.ta.e.ri.o.tza* ‘bizia eta heriotza’ (AE-1993-AS-ge-1), *gau.za.ja.ki.ña.da.o.ri* ‘gauza jakina da hori’ (AE-1993-AS-ge-2), *bu.ru.ga.ñe.ko* ‘buru gaineko’, *ur.du.ri.ta.su.na.e.tsai* ‘urduritasuna etsai’, *de.na.ki.rris.ta.da.ren.zai* ‘denak irristadaren zain’ (AE-1993-AS-ba).

zinen bitarte(an)’, *zu.re.lo.a.kar.gu.tzen*, *gaur.ko.gi.zo.nek.du.te*, *se.nar.al.pe.rren.tza.ko* ‘senar alferrentzako’ (XA-1982-AS-8tx-2), *zuk.pas.ti.lla.ba.du.zu* ‘zuk pastila baduzu’, *ba.na.ar.tu.ga.be.re* ‘bana hartu gabe ere’, *su.fri.men.tu.a.ze.do* ‘sufrimentuaz edo’, *es.na.tu.zai.te.ze.ta* ‘esna zaitez eta’ (XA-1982-AS-8tx-3).

Hemistikio edo motibo erritmikoan, azken aurreko silaba(k) laburrago gauzatzea (eta batzuetan azken silaba luzeago): *dau.ka.te.lo.a* ‘daukate loa’ (AE-1993-GS-8H-2), *lo.kar.tuau.rre.tik* ‘lokartu aurretik’, *ta.es.na.tze.an* ‘eta esnatzean’ (AE-1993-GS-8H-3), *o.ri.xe.da.in.por.ta* ‘horixe da inporta’ (AE-1993-GS-9phtz), *e.ne.jaun.goi.ko* ‘ene jaungoiko’ (AE-1993-GS-6mtz-1), *a.la.re.o.rre.kez.tu.es.tal.tzen* ‘hala ere horrek ez du estaltzen’ (AE-1993-GS-6mtz-2), *da.mu.bat.dau.kat* ‘damu bat daukat’, *ga.rai.ba.te.an* ‘garai batean’ (AE-1993-GS-6mtz-3), *ze.‘ez.ta.bai.da.la.ka.rra* ‘zer eztabaida lakarra’, *ba.ten.tza.to.na* ‘batentzat ona’ (AE-1993-GS-ge-1), *on.do.pen.tsa.tzen.ja.rri.ez.ke.ro* ‘ondo pentsatzen jarritz gero’, *e.ze.rre.tzu.ten.me.re.zi* ‘ezer ez zuten merezi’ (AE-1993-GS-ge-2), *os.pi.ta.lon.tan* ‘ospital hontan’, *u.tzi.nai.nu.ke* ‘utzi nahi nuke’, *ai.ta.za.rran.mai.ta.su.na* ‘aita zaharraren maitasuna’ (AE-1993-GS-ge-3), *bi.xa.rrik.ba.du* ‘bizarrik badu’ (AE-1993-AS-ha), *le.ku.guz.ti.ak* ‘leku guztiak’, *e.gi.ñak.dau.de* ‘eginak daude’ (AE-1993-AS-10H-1), *gu.re.‘e.zi.ña* ‘gure ezina’, *zu.re.‘i.lo.ban* ‘zure ilobaren’ (AE-1993-AS-10H-2), *no.la.ko.in.kul.tu.ra* ‘nolako inkultura’, *zer.de.nez.ta.ki.e.ta* ‘zer den ez daki eta’ (AE-1993-AS-8tx-1), *o.rre.la.lor.tu.ko.det* ‘horrela lortuko dut’ (AE-1993-AS-8tx-1), *sa.di.ka.‘an.tze.ko* ‘sadika antzeko’ (AE-1993-AS-8tx-2), *ai.zu.nex.ka.txa.‘o.la* ‘aizu, neskatxa, horrela’ (AE-1993-AS-8tx-3), *gaur.ko.au.ke.ra.‘e.re* ‘gaurko aukera ere’, *ma.so.kis.ta.nai.ze.ta* ‘masokista naiz eta’ (AE-1993-AS-8tx-4), *sar.tu.nai.du.pa.tri.kan* ‘sartu nahi du patrikan’, *ez.tu.di.ru.fal.ti.kan* ‘ez du diru faltarik’ (AE-1993-AS-IP-1), *nes.ka.txa.zi.ñen* ‘neskatxa zinen’ (AE-1993-AS-IP-3), *el.ka.rren.gan.dik* ‘elkarrengandik’, *zein.‘ur.bil.dau.den* ‘zei hurbil dauden’ (AE-1993-AS-ge-1), *ba.dau.kat.mal.ko* ‘badaukat malko’, *bi.zi.tza.de.nok* ‘bizitza denok’, *me.re.zi.de.gu* ‘merezi dugu’ (AE-1993-AS-ge-2), *ne.re.txa.pe.la.e.re.bai* ‘nire txapela ere bai’ (AE-1993-AS-ba).

Egaña 1997

Motibo erritmiko hasierako zein barreneko silaba(k) —sarri anakrustikoa(k)— **laburrago gauzatzea, hurrengo silabekiko gertuago** (azpimarratutako silaba da laburrago gauzatutakoa): *i.rits.li.te.ke* ‘irits liteke’ (AE-1997-GS-8H-2), *i.po.kre.si.tik* ‘hipokresiatik’ (AE-1997-GS-8H-2), *a.paiz.kon.tu.ak.zi.re.na* ‘apaiz kontuak zirena’, *i.raul.tza.rik.sa.ko.ne.na* ‘iraultzarik sakonena’ (AE-1997-GS-8H-3), *a.rra.ñen.ba.tzuk.‘uz.te.a* ‘arrainen batzuk uztea’, *a.rran.tza.ne.ra.kus.te.a* ‘arrantzan erakustea’ (AE-1997-GS-8H-

4), *ne.re.us.tez.a.ra* ‘nire ustez, hara’ (AE-1997-GS-9phtz), *baz.kal.ga.rai.an* ‘bazkal garaian’ (AE-1997-AS-ha), *zin.ta.moz.te.an* ‘zinta moztean’ (AE-1997-AS-10H-1), *zu.es.ku.en* ‘zu eskuen’ (AE-1997-AS-ba).

Puntu, hemistikio edo motibo erritmikoan, azken aurreko silaba(k) laburrago gauzatzea (eta batzuetan azken silaba luzeago): *a.ri.ra* ‘harira’, *la.roi.ta.bi.ko* ‘laurogeita biko’, *gai.di.ra* ‘gai dira’ (AE-1997-GS-ha), *ga.ñe.an.du.gu* ‘gainean dugu’, *on.do.a.jo.ta* ‘hondoa jota’, *o.rra.tza* ‘orratza’ (AE-1997-GS-8H-1), *i.rits.li.te.ke* ‘irits liteke’ (AE-1997-GS-8H-2), *ka.ko.dun.zi.fra* ‘kakodun zifra’, *mes.ti.za.je.a* ‘mestizajea’ (AE-1997-GS-8H-3), *e.ta.o.ri.da.trix.te.a* ‘eta hori da tristea’, *pau.so.a.de.gu* ‘pausoa dugu’, *ta.u.rren.go.a* ‘(e)ta hurrengoa’, *i.zan.li.te.ke* ‘izan liteke’ (AE-1997-GS-8H-4), *de.nok.o.pa.ro.ga.biltz* ‘denok oparo gabiltza’, *e.ta.u.rri.ta.su.na* ‘eta urritasuna’ (AE-1997-GS-pe), *la.sai.tu.ko.ga.ra* ‘lasaituko gara’, *bi.ar.ko.as.te.le.na* ‘biharko astelehena’ (AE-1997-GS-9phtz), *ze.ro.rre.ke.re* ‘zerorrek ere’ (AE-1997-GS-6mtz-1), *zu.re.a.la.ba* ‘zure alaba’ (AE-1997-GS-6mtz-2), *e.tx.e.ra.la.gun* ‘etxera lagun’, *or.i.zan.di.tut* ‘hor izan ditut’ (AE-1997-GS-6mtz-3), *de.xen.te.ja.ten.du.gu.la* ‘dezente jaten dugula’ (AE-1997-GS-ge-1), *u.rre.ti.kez.ta.mar.du.la* ‘hurretik ez da mardula’ (AE-1997-GS-ge-1), *pe.ze.tak.lo.tu.mo.tze.an* ‘pezetak lotu motzean’, *ta.a.zo.ka.ra.jo.tze.an* ‘eta azokara jotzean’, *ne.re.ber.tso.ak.sal.tze.an* ‘nire bertsoak saltzean’ (AE-1997-GS-ge-2), *po.rru.au.e.ni.ze.ne.an* ‘porru hauen izenean’ (AE-1997-GS-ge-3), *po.rru.a.re.kin* ‘porruarekin’ (AE-1997-AS-ha), *e.rri.gu.txi.ba.tzuk.salbu* ‘herri gutxi batzuk salbu’ (AE-1997-AS-10H-1), *gu.re.gus.to.a* ‘gure gustoa’, *u.da.le.tx.e.ko* ‘udaletxeko’ (AE-1997-AS-10H-3), *gor.putz.pro.por.zi.o.an* ‘gorputz proportzioan’ (AE-1997-AS-8tx-1), *no.la.gain.di.tu.ko.dut* ‘nola gaindituko dut’ (AE-1997-AS-8tx-2), *zu.la.sai.la.gu.na* ‘zu lasai, laguna’ (AE-1997-AS-8tx-3), *in.dar.tsu.e.nak* ‘indartsuenak’ (AE-1997-AS-8tx-3), *txa.kur.kon.tu.rik.a.te.ra* ‘txakur konturik atera’ (AE-1997-AS-8tx-2), *e.men.dau.kat.pa.rez.pa.re* ‘hemen daukat parez pare’ (AE-1997-AS-8tx-3), *ne.re.us.te.tan* ‘nire ustetan’ (AE-1997-AS-ge-1), *oi.ta.a.ma.bost.mi.lloi.ko.oi.ek* ‘hogeita hamabost milioiko horiek’ (AE-1997-AS-ge-2), *ba.ña.a.la.re* ‘baina hala ere’, *us.tu.tzen.di.tut* ‘husten ditut’, *o.so.goi.ti.kan* ‘oso goitik’, *za.bal.du.du.te* ‘zabaldu dute’ (AE-1997-AS-ge-3), *e.ta.den.de.noi* ‘eta den-deno’, *ja.rri.nai.nu.ke* ‘jarri nahi nuke’, *zu.es.ku.en* ‘zu

eskuen' (AE-1997-AS-ba).

Egaña 2001

Motibo erritmiko hasierako zein barreneko silaba(k) —sarri anakrustikoa(k)— **laburrago gauzatzea, hurrengo silabekiko gertuago** (azpimarratutako silaba da laburrago gauzatutakoa): *ta.e.rru.ti.na* 'eta errutina', (AE-2001-GS-8H-1), *ai.ai.to.na* 'ai, aitona, aizu' (AE-2001-GS-8tx-2), *be.gi.en.tza.ko.a.ze* 'begientzako a zer' (AE-2001-GS-pe-1), *az.ken.ba.te.an* 'azken batean' (AE-2001-GS-ge-2), *gaz.te.ba.tzun.tzat* 'gazte batzuentzat' (AE-2001-AS-ha), *a.tza.par.bi.zu.ri.ak* 'atzapar bi zuriak' (AE-2001-AS-10tx-2), *ba.ña.ba.so.ko.a.ri* 'baina basokoari', *sa.rri.jo.las.tu.gi.ñan* 'sarri jolastu ginen' (AE-2001-BB-8tx-4), *ne.re.se.me.a.ke.tzu.en* 'izan' 'nire semeak ez zuen izan' (AE-2001-BB-Ip-1),

Puntu, hemistikio edo motibo erritmikoan, azken aurreko silaba(k) laburrago gauzatzea (eta batzuetan azken silaba luzeago): *be.te.tzen.du.dan* 'betetzen dudan', *to.ka.tzen.zai.dan.pa.pe.la* 'tokatzen zaidan papera', *ba.ña.zer.naiz.ni* 'baina zer naiz ni', *ti.po.txi.ki.a* 'tipo txikia', *ne.re.bu.ru.a* 'nire burua', *ta.sus.mo.a.dut* '(e)ta susmoa dut', *bes.te.zaz.pi.ak* 'beste zazpiak', *bi.la.da.to.zen* 'bila datozen', *pi.lo.to.oi.ek* 'piloto horiek' (AE-2001-GS-ha⁶³⁴), *ta.e.rru.ti.na* 'eta errutina', (AE-2001-GS-8H-1), *mi.res.te.ko.a* 'mirestekoa', *naiz.ba.na.tze.a* 'nahiz banatzea', *ger.ta.li.te.ken* 'gerta litekeen', *gu.re.e.rri.ko* 'gure herriko' (AE-2001-GS-8H-2), *ba.rru.an.de.zun* 'barruan duzun' (AE-2001-GS-8H-3), *a.txur* 'e.ta.'i.tai.a 'atxur eta igitaia', *pa.ke.te.a.da.gei.en* 'paketea da gehien' (AE-2001-GS-8tx-1), *ka.ra.ko.lak.pa.rrez.ka* 'karakolak barrezka' (AE-2001-GS-8tx-2), *go.go.rrae.gin.du.la.na* 'gogorra egin du lana', *nik.nai.ko.a.lan.ba.dut* 'nik nahikoa lan badut' (AE-2001-GS-8tx-3), *ka.len.da.ri.o.ra.ko* 'kalendariorako' (AE-2001-GS-8tx-4), *gu.re.be.gi.en.tza.ko* 'gure begientzako' (AE-2001-GS-pe-2), *as.pal.di.pa.se.a.da* 'aspaldi pasea da' (AE-2001-GS-pe-3), *gau.zae.de.rrak.ma.dri.len* 'gauza ederrak Madrilen' (AE-2001-GS-pe-1), *a.pal.ta.su.na* 'apaltasuna', *e.zal.da.e.zin* 'ez al da ezin' (AE-2001-GS-6mtz-2), *be.gi.au.rre.an* 'begi aurrean' (AE-2001-GS-ge-1), *dut.bi.o.tze.an* 'dut bihotzean', *az.ken.ba.te.an* 'azken batean' (AE-2001-GS-ge-

634 Egañak hasierako agurreko motibo erritmikoa gauzatzeko duen moduak pentsaraz lezake azken aurreko silaba laburtuta duen aldaera eredu nagusia dela. Doinu hasieran bestela gauzatzen du motiboa (azken aurreko silaba luzeago) eta aldakortasuna jaso daiteke bertsoan zehar. Horregatik, azken aurreko silaba laburtuta duten adibide guztiak jaso ditut taulan, Egañaren aldaera ohikoa dela jakitun, gainerako txapelketetan oparo jaso baitut.

2), *ta.on.dei.gu.la* '(e)ta on dagigula', *e.san.ba.nu.en* 'esan banuen' (AE-2001-AS-ha), *ler.txun.'os.to.'e.ran* 'lertxun hosto eran' (AE-2001-AS-10tx-1), *ne.re.bu.rru.ka.fe.de* 'nik borroka fede' (AE-2001-AS-10tx-3), *eu.ri.gu.txi.a.ri.du* 'euri gutxi ari du' (AE-2001-AS-ptk-1), *au.ke.ra.ja.rriez.ke.ro* 'aukera jarriz gero' (AE-2001-AS-ptk-3), *le.nen.go.neu.as.te.a* 'lehenengo neu hastea', *ka.ba.lle.ro.ba.tez.ta* 'caballero bat ez da' (AE-2001-AS-ptk-5), *e.gin.go.o.te.de.gu* 'egingo ote dugu' (AE-2001-AS-ptk-6), *pro.ba.tu.ta.e.tze.ra* 'probatuta ez zara' (AE-2001-AS-ptk-7), *ni.e.le.gan.te.a.naiz* 'ni elegantea naiz' (AE-2001-AS-ptk-8), *ga.bil.tza.de.nok* 'gabiltza denok', *e.tor.ki.zu.na* 'etorkizuna', *o.be.a.de.la* 'hobea dela', *gu.re.'el.bu.ru* 'gure helburu', *as.ko.gau.de.la* 'asko gaudela', *o.nar.tzen.di.tut* 'onartzen ditut' (AE-2001-AS-ge-2), *bi.zi.da.di.lla* 'bizi dadila', *os.pa.tu.a.rren* 'ospatu arren', *nik.neuk.be.de.ren* 'nik neuk bederen' (AE-2001-AS-ge-3), *u.ler.tzen.dut.'on.do.tik* 'ulertzen dut ondotik', *bes.te.mo.du.ba.te.ra* 'beste modu batera' (AE-2001-BB-8tx-1), *fla.ko.na.go.la.'e.ta* 'flako nagoela eta', *au.kon.pon.du.li.te.ke* 'hau konpon liteke' (AE-2001-BB-8tx-2), *o.la.ko.rik.'o.tza.ri* 'horrelakorik hotzari' (AE-2001-BB-8tx-3), *ja.rri.be.rri.ak.di.tut* 'jarri berriak ditut' (AE-2001-BB-8tx-3), *sa.rri.jo.las.tu.gi.ñan* 'sarri jolastu ginen' (AE-2001-BB-8tx-4), *ai.ek.go.go.ra.tu.az* 'haiek gogoratuaz' (AE-2001-BB-8tx-4), *ge.ra.nik.'e.re* 'garenik ere', *bi.ok.dau.ka.gu* 'biok daukagu', *ber.di.na.ba.da* 'berdina bada' (AE-2001-BB-1p-3), *gei.en.'es.ti.ma.tzen.dut* 'gehien estimatzen dut', *bos.te.ko.ba.da* 'bosteko bada' (AE-2001-BB-9phtz),

Egaña 2005

Motibo erritmiko hasierako zein barreneko silaba(k) —sarri anakrustikoa(k)— **laburrago gauzatzea, hurrengo silabekiko gertuago** (azpimarratutako silaba da laburrago gauzatutakoa): *ba.ña.bes.ter.di.a.ten.te* 'baina beste erdia tente' (AE-2005-GS-8H-2), *ga.ñe.ra.'el.bu.ru* 'gainera helburu' (AE-2005-GS-10tx-1), *ga.ñe.ra.jo.ta.ke* 'gainera jo eta ke', *txa.rra.ez.li.tza.ke* 'txarra ez litzateke', *e.li.zak.be.te.tze.ko* 'elizak betetzeko' (errepikan) (AE-2005-GS-10tx-2), *e.gi.ten.gen.du.na* 'egiten duguna' (AE-2005-GS-10tx-3), *ga.ñe.ra.ne.ro.nek.nai.ta* 'gainera neronek nahita' (AE-2005-AS-ha), *bes.te.sai.o.bat.'i.tze.la* 'beste saio bat itzela' (AE-2005-AS-6mtz-3), *kon.ta.tu.ko.di.ot.'de.na* 'kontaktuko diot dena' (AE-2005-AS-ge-2), *ai.pa.tu.ak.dau.de.ba.po* 'aipatuak daude bapo', *bai.me.na.re.kin* 'baimenarekin', *a.maz.go.go.ra.be.ar.ko* 'amaz gogora(tu) beharko', *o.men.da.ba.ña* 'omen da

baina' (AE-2005-AS-ba).

Hemistikio edo motibo erritmikoan, azken aurreko silaba(k) laburrago gauzatzea —eta batzuetan azken silaba luzeago— (laburtutako silabak azpimarratuta): *ez.ta.i.zan.go* 'ez da izango', *ta.ka.ba.lli.ton* 'eta *caballito*an', *se.gi.be.ar.ko* 'segi beharko' (AE-2005-GS-8H-1), *jo.an.zaiz.ki.gu* 'joan zaizkigu', *lor.tu.a.de.gu* 'lortua dugu', *ma.kur.tu.de.gu* 'makurtu dugu' (AE-2005-GS-8H-2), *zu.trix.te.zau.de* 'zu triste zaude', *tai.a.len.bai.le.ni.ris.ten.zai.gun* 'eta ea lehenbailehen iristen zaigun' (AE-2005-GS-8H-3), *a.nu.tzi.ni.tun* 'han utzi nituen', *er.tze.an* 'ertzean', *e.re.se.me.an* 'ere semearen', *bi.o.tze.an* 'bihotzean' (AE-2005-GS-ge-1), *sen.ti.tze.naiz.ain.a.rra.ro* 'sentitzen naiz hain arraro', *se.xu.jo.e.ra* 'sexu joera' (AE-2005-AS-6mtz-1), *ba.dut.i.ri.ki.tan.ke.ra* 'badut irrika tankera', *guk.ze.rra.rrai.o* 'guk zer arraio' (errepikan) (AE-2005-AS-6mtz-2), *es.ka.tzen.di.zut.o.rre.la* 'eskatzen dizut horrela' (AE-2005-AS-6mtz-3), *ne.re.ak.maiz.o.e.an* 'nireak maiz ohean' (AE-2005-AS-ptk-2), *tan.ke.ra.ba.dau.ka.te* 'tankera badaukate', *be.la.rii.a.orz.ka.tzen* 'belarria horzkatzen' (AE-2005-AS-ptk-3), *bes.te.ba.tzu.kar.tze.a* 'beste batzuk hartzea', *guk.ze.rre.gi.ten.de.gu* 'guk zer egiten dugu' (AE-2005-AS-ptk-4), *bai.zu.ke.ta.bai.ni.ke* 'bai zuk eta bai nik ere' (AE-2005-AS-ptk-5), *ti.o.bi.bo.a.ku.tziz* 'tío vivo-ak utziz' (AE-2005-AS-ptk-6), *as.ta.kir.te.na.ir.ten* 'astakirtena irten', *ne.re.ak.fuer.te.e.na* 'nireak fuertena' (AE-2005-AS-ptk-7), *o.rain.bi.ur.tu.ge.ra* 'orain bihurtu gara', *bue.no.oi.ra.e.zoi.ra* 'bueno, ohera ez ohera' (AE-2005-AS-ptk-9), *lis.ka.rra* 'liskarra', *o.lla.rra* 'oilarra' (AE-2005-AS-ge-1), *gal.de.tu.a.ri* 'galdetu hari' (AE-2005-BB-10H-3), *a.tse.de.na.ar.tze.a* 'atsedena hartzea', *ain.bat.i.kus.te.ko* 'hainbat ikusteko', *e.do.e.ros.te.ko* 'edo erosteko', *ba.ña.e.zetz.txi.ki.rik* 'baina ezetz txikirik' (errepikan) (AE-2005-BB-9phtz), *se.me.a.la.bak* 'seme-alabak', *mai.te.det.ba.ña* 'maite dut baina', *aur.ten.ai.ta.ren* 'aurten aitaren', *bai.me.na.re.kin* 'baimenarekin', *o.men.da.ba.ña* 'omen da baina' (AE-2005-AS-ba).

Lujanbio 2009

Hemistikio edo motibo erritmikoan, azken aurreko silaba(k) laburrago gauzatzea —eta batzuetan azken silaba luzeago— (laburtutako silabak azpimarratuta): *as.ti.roas.ti.ro.jo.an.gai.te.zen* 'astiro-astiro joan gaitzen' (ML-2009-BB-6mtz-1), *zen.bat.ta.su.nez.pa.ña.tan* 'zenbat tasun ezpainetan' (ML-2009-BB-ge-1), *ba.ña.bi.otz.ba.rru.ko.a* 'baina bihotz barrukoa' (ML-2009-BB-ge-2), *go.go.ra.tze.naiz* 'gogoratzen naiz', *len.go.a.mo.naz* 'lehengo amonaz',

txa.pel.za.ti.bat ‘txapel zati bat’, *se.gi.de.za.gun* ‘segi dezagun’ (ML-2009-AS-ba).

Hemistikioko azken silaba laburrago gauzatzea, puntuko bigarren hemistikiorekin batuz silaba-katea:

min.bi.zi.du.te.bi.u.me.e.ri.be.gi.ra.be.gi.ra.na.go ‘minbizia duten bi umeei begira-begira nago’ (ML-2009-AS-ge-1),

Hemistikio edo motibo erritmikoan, azken aurreko silaba(k) laburrago gauzatzea —eta batzuetan azken silaba luzeago— (laburtutako silabak azpimarratuta)⁶³⁵: *naiz.ta.la.gu.nak* ‘nahiz eta lagunak’ (ML-2009-AS-ge-2).

Arzallus 2013

Motibo erritmiko hasierako zein barreneko silaba(k) —sarri anakrustikoa(k)— **laburrago gauzatzea, hurrengo silabekiko gertuago** (azpimarratutako silaba da laburrago gauzatutakoa): *guk.bi.e.ba.ki* ‘guk bi ebaki’ (AA-2013-GS-8H-2), *e.go.ki.a.go* ‘egokiago’ (AA-2013-GS-8H-3), *do.nos.ti.a.ko* ‘Donostiako’ (AA-2013-GS-ge-1), *o.rre.gon.go.aiz.txin.txi.lik* ‘hor egongo haiz txintxilik’ (AA-2013-GS-ge-2), *zu.lo.ba.te.ko.kar.tze.la* ‘zulo bateko kartzela’ (AA-2013-GS-ge-3), *be.re.be.so.e.ta.ra.ño* ‘bere besoetaraino’ (AA-2013-BB-ge-2), *ba.ña.ni.ez.pai.nai.ze.men* ‘baina ni ez bainaiz hemen’, *ai.ta.re.na.den.txa.pe.lau* ‘aitarena den txapel hau’, *es.kain.tzen.di.ot.a.ma.ri* ‘eskaintzen diot amari’, *au.rra.nin.tze.la.eus.ka.raz* ‘haurra nintzela euskaraz’ (AA-2013-AS-ba).

Hemistikio edo motibo erritmikoan, azken aurreko silaba(k) laburrago gauzatzea —eta batzuetan azken silaba luzeago— (laburtutako silabak azpimarratuta): *ta.az.ke.ne.an* ‘eta azkenean’ (AA-2013-GS-ge-1), *e.ta.il.ba.duk* ‘eta hil baduk’, *ba.ña.be.gi.ak* ‘baina begiak’ (AA-2013-GS-ge-2), *nik.su.fri.tu.dut* ‘nik sufritu dut’, *ba.ña.as.ko.za.ze.de.rra.go.da* ‘baina askozaz ederrago da’ (AA-2013-BB-6mtz-2),

Hemistikioko azken silaba laburrago gauzatzea, puntuko bigarren hemistikiorekin batuz silaba-katea, batzuetan motibo erritmiko barreneko silaben balioa laburtuz (azpimarratuta laburtutako silabak):

de.xen.te.zar.tu.da.ba.ña.a.ma.bi.zi.rik.dau.kat.ño ‘dezente zahartu da baina ama bizirik daukat, ño’ (AA-2013-BB-ge-2), *jen.de.as.ko.ke.ra.ba.ki.zu.en.ni.a.ter.pe.tze.a* ‘jende askok erabaki zuen ni

635 Lujanbiok sarri oinaren eremua mugatzen duenean, etena gauzatzearekin batera eten aurreko azken silaba luzatzen du, eta batzuetan azken aurrekoa laburtu. Hitz eta sintagmen araberako taldekatzean jada jaso ditudanez adibideak, ez ditut taula honetan ere gehitu.

aterpetzea' (AA-2013-BB-ge-3).

Lujanbio 2017 **Motibo erritmiko barreneko silaben balioa laburtzea** —berdindu gabe— (azpimarratuta laburtutako silabak): *pix.ka.bat.sal.du.xe.a.go* 'pixka bat salduxeago' (ML-2017-GS-8H-1), *pa.kis.tan.'ma.ro.ko.tik* 'Pakistan, Marokotik' (ML-2017-GS-10tx-2), *gaur.'i.za.non.do.ko.'u.tsa* 'gaur izan ondoko hutsa' (ML-2017-AS-ge-1), *txa.pe.lau.ge.ro.ko.en.tzat* 'txapel hau gerokoentzat' (ML-2017-AS-ba).

Puntu, hemistikio edo motibo erritmikoan, azken aurreko silaba(k) laburrago gauzatzea (eta batzuetan azken silaba luzeago): *o.rren.bes.te.ko* 'horrenbesteko', *e.ta.ja.so.dut* 'eta jaso dut' (ML-2017-AS-ge-1), *be.ar.tu.bear.den* 'behartu behar den' (ML-2017-AS-ge-2).

II.4. Silaben balio erritmikoa parekatzea

Amuriza 1980 -

Amuriza 1982 **Hitzaren eremuan (oina den hitzeko silabak)**: *ai.zer.'a.tse.gi.ña* 'ai, zer atsegina' (XA-1982-GS-ge-3), *il.tze.ba.te.an.'ja.rri.ja* 'iltze batean jarria' (XA-1982-AS-ba),

Lizaso 1986 **Motiboaren eremuan** (azpimarratuta parekatutako silabak): *biz.ka.jal.de.tik* 'Bizkaia aldetik' (SL-1986-GS-ha), *be.gi.ra.zer.di.zu.tan* 'begira zer dizudan' (SL-1986-GS-ge-3), *txa.lo.ka.a.si* 'txaloka hasi', *nai.ba.de.zu.te* 'nahi baduzue', *ge.zu.rri.kez.dut* 'gezurrik ez dut', *ba.te.re.e.san* 'batere esan', *nai.ba.du.zu.e* 'nahi baduzue' (SL-1986-AS-be),

Lopategi 1989 -

Egaña 1993 **Hemistikioaren eremuan**: *lo.ta.nal.tzen.den.'e.ne.jaun.goi.ko* 'lotan al zeunden, ene jaungoiko' (AE-1993-GS-6mtz-1), *e.ta.ne.re.e.ki.zan.go.du.te* 'eta nireek izango dute' (AE-1993-GS-ge-3), *o.rain.'tom.krui.se.o.ri* 'orain Tom Cruise hori', *ai.zu.nex.ka.txa.* 'o.la 'aizu, neskata, horrela' (AE-1993-AS-8tx-3⁶³⁶), *ni.e.re.'a.la.ja.ña* 'ni ere, alajaina' (AE-1993-AS-1p-3), *zu.en.txa.lo.ak.be.re.tzat.di.ra* 'zuen txaloak beretzat dira' (AE-1993-AS-ba).

Motiboaren eremuan: *gu.ri.es.ke.rrak* 'guri eskerrak' (AE-1993-GS-ha), *sa.rri.as.ko.tan* 'sarri askotan', *tre.na.e.ro.si.ko.nu.ke* 'trena erosiko nuke' (AE-1993-GS-8H-3), *kan.pa.ña.o.ri* 'kanpaina hori' (AE-1993-AS-10H-3),

636 Bertoaldia kantatutako doinuan motibo erritmikoak hemistikioaren neurria du, bi eremuak bat datoz.

e.zi.ñe.ta.nai ‘ezin eta nahi’, *o.rre.ta.ra.ko* ‘horretarako’, *o.ne.na.de.zu* ‘onena duzu’, *ba.te.ga.be.jo.a.ti.a* ‘batere gabe joatea’ (AE-1993-AS-*Ip-1*⁶³⁷), *e.men.di.kos.pa* ‘hemendik ospa’ (AE-1993-AS-ge-3),

Hitzaren eremuan: *ne.re.bu.ru.a* ‘nire burua’ (AE-1993-GS-8H-3), *zai.dan.ba.ka.rra* ‘zaidan bakarra’ (AE-1993-GS-9phtz), *se.ti.tu.a.det* ‘sentitua dut’ (AE-1993-GS-ge-1), *es.ze.len.tzi.rik* ‘eszelenziarik’, *per.so.na.ba.tzuk* ‘pertsonek batzuk’ (AE-1993-AS-10H-2), *e.man.la.ti.ga.zo.bat* ‘eman latigazo bat’ (AE-1993-AS-8tx-1), *e.der.ki.as.ko* ‘ederki asko’ (AE-1993-AS-ge-1), *bes.te.ak.bi.pu.ru.lo.di* ‘besteak bi puru lodi’ (AE-1993-AS-ge-2).

Egaña 1997

Motiboaren eremuan: *txa.pel.ke.ta.ri* ‘txapelketari’, *ja.rri.gai.te.zen* ‘jarri gaitzen’, *ar.tzen.ge.ni.tun* ‘hartzen genituen’ (AE-1997-GS-ha), *ta.‘e.gun.ber.tan* ‘eta egun bertan’, *su.ma.de.za.ket* ‘suma dezaket’ (AE-1997-GS-8H-3), *na.jo.al.tzen.dun* ‘nahiago al zenuen’ (AE-1997-GS-6mtz-2), *ai.zu.me.se.dez* ‘aizu, mesedez’, *dei.tu.zai.da.zu* ‘dei iezadazu’ (AE-1997-GS-6mtz-3), *ni.ke.re.ber.diñ* ‘nik ere berdin’, *ne.re.ber.tso.ak.sal.tze.an* ‘nire bertsoak saltzean’ (AE-1997-GS-ge-2), *joan.be.ar.dut.zu.ze.ne.an* ‘joan behar dut zuzenean’, *po.rru.au.e.ni.ze.ne.an* ‘porru hauen izenean’ (AE-1997-GS-ge-3), *ne.ri.pa.sa.zai.da.na* ‘niri pasa zaidana’ (AE-1997-AS-ha), *bir.ji.ñi.za.te.a* ‘birjina izatea’ (AE-1997-AS-8tx-4), *i.gual.u.rae.re* ‘igual hura ere’, *ja.ne.gin.go.det* ‘jan egingo dut’ (AE-1997-AS-*Ip-2*), *bi.kar.tu.txo.sar.tu.ta* ‘bi kartutxo sartuta’, *i.pin.tzen.ze.ran* ‘ipintzen zaren’ (AE-1997-AS-*Ip-3*), *ex.po.u.tzi.ta* ‘Expo utzita’ (AE-1997-AS-ge-3),

Hitzaren eremuan: *be.gi.ra* ‘begira’ (AE-1997-GS-ha) (oina), *ge.je.gik.gu.txi.e.gi* ‘gehiegik gutxiegi’ (AE-1997-GS-htz), *des.ber.di.na.da* ‘desberdina da’ (AE-1997-GS-9phtz), *gor.pu.tza.‘ez.dau.kat.ba.po* ‘gorputza ez daukat bapo’ (AE-1997-GS-6mtz-3), *be.ne.tan.nor.mal.‘an.tze.an* ‘benetan normal antzean’, *jo.ka.tzen.bai.tut* ‘jokatzen baitut’ (AE-1997-GS-ge-2), *a.zo.ka.ra.ño* ‘azokaraino’ (AE-1997-GS-ge-3), *xe.le.bre.a.da.‘da.na* ‘zelebrea da dena’ (AE-1997-AS-ha), *ba.de.zu.bes.te.a* ‘baduzu bestea’ (AE-1997-AS-8tx-1), *a.nes.te.sia.tze.a* ‘anestesiastea’ (AE-1997-AS-8tx-2), *be.rei.zi.ta.su.na* ‘berezitasuna’ (AE-1997-AS-8tx-3), *ar.ku.me.a.kin.ba.te.ra* ‘arkumearekin batera’ (AE-1997-AS-*Ip-2*), *i.a.‘au.rre.an* ‘ia aurrean’ (AE-1997-AS-*Ip-3*),

637 Bertsoaldi honetan motibo erritmiko nagusiak berak badakar markatutako silabek pareko balio erritmikoa izatea. Taulan jaso ditut adibideak, musika erregularraren pulsu periodikotik aldenduz eta *tempoa* lastertuz, hitz lautik gertuago dagoen moldean ahoskatzen dituelako silabok.

au.ta.tu.nu.en ‘hautatu nuen’ (AE-1997-AS-ge-1), *a.rra.pa.tze.an* ‘harrapatzean’ (AE-1997-AS-ge-2),

Egaña 2001

Hemistikioaren eremuan: *ne.re.au.rre.ti.kai.ta.nu.en.da* ‘nire aurretik aita nuen eta’, *e.rrri.as.ke.ba.tu.tzi.nai.di.et* ‘herri aske bat utzi nahi diet’ (AE-2001-AS-ge-1), *ge.jen.‘es.ti.ma.tzen.dut* ‘gehien estimatzen dut’ (AE-2001-BB-9phtz, errepikan⁶³⁸),

Motiboaren eremuan: *e.me.ne.tzen.‘o.nar.tzen* ‘hemen ez zen onartzen’ (AE-2001-GS-pe-3), *or.du.an.nik.neuk* ‘orduan nik neuk’, *ta.pa.tu.ko.dut* ‘tapatuko dut’ (AE-2001-GS-6mtz-3), *o.ra.ñar.te.an* ‘orain artean’, *nik.ze.rre.gin.be.ar.dut.‘ai* ‘nik zer egin behar dut, ai’, *u.ler.tzen.ba.ña* ‘ulertzen baina’ (AE-2001-GS-ge-1), *nex.ka.o.rre.kin* ‘neska horrekin’, *ze.rre.gin.go.det* ‘zer egingo dut’, *no.la.jo.ka.tu* ‘nola jokatu’, *ai.de.ra.bo.ta* ‘airera bota’, *bi.zi.tza.e.re* ‘bizitza ere’ (AE-2001-GS-ge-2), *e.do.bes.te.la* ‘edo bestela’, *gaz.te.az.jo.an* ‘gazteaz joan’ (AE-2001-GS-ge-3), *pre.so.bat.‘o.so.a* ‘preso bat osoa’ (AE-2001-AS-10tx-3), *tae.rrri.an.‘as.ke* ‘eta herrian aske’, *e.gi.nai.nu.ke* ‘egin nahi nuke’ (AE-2001-AS-ge-1), *or.du.an.po.zik* ‘orduan pozik’ (AE-2001-AS-ge-3), *ta.a.ze.pu.ta.da* ‘eta a zer putada’ (AE-2001-BB-8tx-3), *gau.za.ba.te.an* ‘gauza batean’, *se.gu.ru.na.go* ‘seguru nago’ (AE-2001-BB-Ip-2), *gu.reu.tsu.ne.a* ‘gure hutsunea’, *be.te.de.za.gun.ba.te.ra* ‘bete dezagun batera’ (AE-2001-BB-Ip-3), *aun.di.a.e.do.‘po.xi.a* ‘handia edo poxia’, *zu.re.o.roi.pen.bi.zi.a* ‘zure oroitzapen bizia’ (AE-2001-BB-ge-1), *ar.ga.tik.bor.bor* ‘hargatik bor-bor’ (AE-2001-BB-ge-3)

Hitzaren eremuan: *gri.pe.a.re.kin.dau.de.la* ‘gripearekin daudela’, *ni.bein.be.ti.ko* ‘ni behin betiko’, *gain.di.tze.ko.tan* ‘gainditzekotan’ (AE-2001-GS-ha), *a.rrri.tu.nau.e.na* ‘harritu nauena’ (AE-2001-GS-8tx-1), *a.si.ko.zaiz.ki.zu* ‘hasiko zaizkizu’ (AE-2001-GS-8tx-2), *a.la.re.la.ne.an.zu* ‘hala ere lanean zu’, *pa.rre.ai.eus.te.a* ‘barreari eustea’ (AE-2001-GS-8tx-3), *no.la.ko.koa.dro.a* ‘nolako koadroa’ (AE-2001-GS-8tx-4), *zo.ri.on.sas.ki.a* ‘zorion saskia’ (AE-2001-GS-pe-1), *do.nos.ti.a.ra.tzen* ‘Donostiaratzen’ (AE-2001-GS-pe-4), *ba.nu.en.‘ain.bes.te.‘do.ai* ‘banuen hainbeste dohai’, *ain.bes.te.ra.ño* ‘hainbesteraino’, *txa.txu.tu.‘al.naiz* ‘txatxutu al naiz’, *u.ler.tu.ez.dut* ‘ulertu ez dut’ (AE-2001-GS-ge-1), *ru.le.ta* ‘erruleta’, *mai.te.mi.ña.da* ‘maitemina da’ (AE-2001-GS-ge-2), *a.ben.tu.ra.‘fe.re.ka.tu* ‘abentura ferekatu’, *o.e.a.nai.nu.ke.sar.tu*

638 Doinu honetan motibo erritmikoa hemistikioaren neurrikoa da.

‘ohean nahi nuke sartu’, *tae.ra.ba.ki.a* ‘eta erabakia’, *al.mo.a.da.kin* ‘almoadarekin’, *ta.a.la.re* ‘eta hala ere’ (AE-2001-GS-ge-3), *kar.tze.le.ta.ko* ‘kartzeletako’ (AE-2001-AS-ge-1), *be.ro.tu.gai.te.zen* ‘berotu gaitezen’ (AE-2001-BB-8tx-4), *des.ti.no.a* ‘az.ke.ne.an’ ‘destinua azkenean’ (AE-2001-BB-ge-2), *i.ru.di.tzen.zait* ‘iruditzen zait’, *be.lo.dro.mo.an* ‘Belodromoan’, *gu.re.ar.te.an* ‘gure artean’ (AE-2001-BB-ge-3), *pen.sa.tzen* ‘i.pi.ni’ ‘pentsatzen ipini’, *au.no.ri.es.kei.ni* ‘hau nori eskaini’, *e.ta.ju.le.ni* ‘eta Juleni’ (AE-2001-AS-ba).

Egaña 2005

Puntu laburren edo hemistikioaren eremuan: *tai.a.len.bai.le.ni.ris.ten.zai.gun* ‘eta ea lehenbailehen iristen zaigun’ (AE-2005-GS-8H-3), *e.ta.’or.du.au.e.tan* ‘eta ordu hauetan’, *au.xe.pa.no.ra.ma* ‘hauxe panorama’ (AE-2005-GS-8tx-1⁶³⁹), *ez.pa.ñak.tin.taz.dauz.kat* ‘ezpainak tintaz dauzkat’ (AE-2005-GS-8tx-2), *ni.ko.rain.* ‘i.rens.te.ko’ ‘nik orain irensteko’, *u.tzi.di.zu.te.ta* ‘utzi dizut eta’ (AE-2005-GS-8tx-4), *gi.zar.te.a.re.kin.bat* ‘gizartearekin bat’ (AE-2005-GS-10tx-1), *au.rra.ke.kar.tze.na.si* ‘haurrak ekartzen hasi’, *e.li.zak.be.te.tze.ko* ‘elizak betetzeko’ (AE-2005-GS-10tx-2), *le.na.go.ez.ku.tu.an* ‘lehenago ezkutuan’ (AE-2005-GS-10tx-3), *ni.ga.tik.pron.to.na.go* ‘nigatik pronto nago’ (AE-2005-AS-ptk-5), *ti.o.bi.bo.e.tan* ‘tiobiboetan’ (AE-2005-AS-ptk-6), *des.ber.di.nak.se.ko* ‘desberdinak seko’, *ba.ña.e.zetz.txi.ki.rik* ‘baina ezetz txikirik’, *bei.ak.jez.te.ko* ‘behiak jezteko’ (AE-2005-BB-9phtz),

Motiboaren eremuan: *bu.ru.er.di.a* ‘buru erdia’ (AE-2005-GS-8H-2), *i.ze.naen.tzun.da* ‘izena entzunda’, *i.za.da.ko.au* ‘izandako hau’ (AE-2005-GS-ge-1), *ba.rru.an.mi.ña* ‘barruan mina’ (AE-2005-GS-ge-2), *ne.re.se.me.ak* ‘nire semeak’ (AE-2005-GS-ge-3), *len.’ar.gi.neu.kan* ‘lehen argi neukan’ (AE-2005-AS-6mtz-1), *guk.ze.rra.rrai.o* ‘guk zer arraio’, *e.gin.bear.du.gu* ‘egin behar dugu’ (AE-2005-AS-6mtz-2), *al.ba.da.go.zo* ‘ahal bada gozo’, *e.ta.lu.ze.a* ‘eta luzea’, *ka.fe.au.be.ze.la* ‘kafe hau bezala’ (AE-2005-AS-6mtz-3), *na.zio.na.la.ri* ‘naizionalari’, *ko.ko.lo.txo.a* ‘kokolotxo’, *zer.nai.zeus.kal.dun.bal.da.rra* ‘zer naiz, euskaldun baldarra?’, *zi.ta.tu.ga.be* ‘zitate gabe’ (AE-2005-AS-ge-1), *sa.be.lo.to.do* ‘sabelotodo’ (AE-2005-AS-ge-2), *suer.te.a.’ain.bat* ‘zortea hainbat’, *no.a.ne.men.dik* ‘noan hemendik’ (AE-2005-AS-ge-3), *ko.mer.zio.gu.ne* ‘komertzio-gune’, *i.a.e.gi.ten.dut.dar.dar* ‘ia egiten dut dar-dar’, *o.rrein.bes.te.ko* ‘horrenbesteko’, *on.gi.za.te.ak* ‘ongizateak’, *gaiz.ki.bi.zi.tze.a.da.kar* ‘gaizki bititzea dakar’ (AE-2005-BB-10H-1), *o.ri.on.do.da.go.ti.ra* ‘hori ondo dago,

639 Doinu honetan motibo erritmikoak hemistikioaren neurria du.

tira', ba.ñae.gon.ge.lan 'baina egongelan', sar.tu.au.rre.tik 'sartu aurretik', lo.ge.la.ra.jo.an.di.ra 'logelara joan dira' (AE-2005-BB-10H-2), ge.ro.a.'ez.ten 'geroa ez den', bel.tza.e.do.bel.tza.ra.na 'beltza edo beltzarana' (AE-2005-BB-10H-3), e.zal.da.o.ri 'ez al da hori' (AE-2005-BB-ge-1), gal.du.taor.de.a 'galduta, ordea' (AE-2005-BB-ge-3), a.ma.ba.ka.rra 'ama bakarra' (AE-2005-AS-ba).

Hitzaren eremuan: e.gin.go.zi.dan.da 'egingo zidan eta' (AE-2005-GS-8tx-2), i.ru.ter.di.kar.te 'hiru eta erdiak arte' (AE-2005-GS-8tx-3), e.jem.'e.gi.teko 'ejem egiteko' (AE-2005-BB-8tx-1),

Lujanbio 2009

Puntuaren eremuan: ar.tu.be.so.ta.ne.ta.e.man.ne.ri.mu.xu 'hartu besoetan eta eman niri musu', e.ta.or.du.an.gus.to.zi.to.ko.zai.tut.zu 'eta orduan gustoz itoko zaitut zu' (ML-2009-GS-8tx-3), gu.re.jus.ti.zi.a.zu.en.tza.ko.pres.ta.tu.ta.ko.zel.da.da 'gure justizia zuentzako prestatutako zelda da' (ML-2009-GS-ge-1), u.rren.gour.te.a.ne.gin.bear.de.gu.des.ber.din 'hurrengo urtean egin behar dugu desberdin' (ML-2009-AS-10tx-3),

Hemisitikioaren eremuan (motiboa hemistikioaren neurrikoa da kasu askotan): eus.ka.ran.txin.ga.rrei.puz.ka 'euskararen txingarrei puzka', jo.an.ga.ra.aun.di.tuz.ta 'joan gara handituz eta', du.zu.e.nan.txa.lo.uz.ta 'duzuenaren txalo uzta' (ML-2009-GS-ha), ge.rri.a.gu.ri.gu.ri 'gerria guri-guri', tri.pa.e.re.'on.du 'tripa ere on du', gua.po.nai.al.tzen.du.ke 'guapo, nahi al zenuke' (ML-2009-GS-8tx-1), mai.ta.tue.gin.go.zai.tut 'maitatu egingo zaitut', be.so.ak.lo.ar.tu.dit 'besoak lo hartu dit', zin.tzi.lik.le.po.tik 'zintzilik lepotik', i.a.el.du.ko.di.zut 'ia, helduko dizut' (ML-2009-GS-8tx-2), o.rain.'ez.'a.je.ta.'ez.min 'orain ez aje eta ez min', au.rre.raus.ka.lo.'ez.ja.kin 'aurrera, auskalo, ez jakin' (ML-2009-GS-6mtz-3), ne.rea.fi.zi.o.'ta.'o.fi.zi.o 'nire afizio eta ofizio', de.lol.mok.di.ost.'ai.jus.ti.zi.a 'Del Olmok diost: ai, justizia', be.raz.be.rri.a.nuz.ten.di.zu.et 'beraz berrian uzten dizuet' (ML-2009-GS-ge-1), ba.dau.kat.nai.ko.'es.pe.rien.tzi.a 'badaukat nahikoa esperientzia', e.gon.go.nai.zen 'egongo naizen' (ML-2009-GS-ge-2), gu.re.e.rru.a 'gure errua', nai.an.ga.bil.tza 'nahian gabiltza', i.da.tzi.ai.zan 'idatzia izan', i.tzez.ko.ai.zan 'hitzezkoa izan' (ML-2009-GS-ge-3), ja.so.za.zu.'az.kar.ze 'jaso (e)zazu azkar, ze', zu.re.a.ra.be.ra 'zure arabera', ur.te.be.rri.tan.uain.dik 'urte berritan oraindik', e.me.neon.go.ge.ra 'hemen egongo gara' (ML-2009-AS-10tx-1),

be.ti.ez.jei.ki.tze.ko ‘beti ez jaikitze’, *pla.te.ra.su.kal.de.ra* ‘platera sukaldera’, *ez.ta.o.ñez.joa.ten* ‘ez da oinez joaten’ (ML-2009-AS-10tx-2), *gar.bi.tu.*‘ez.gar.bi.tu ‘garbitu, ez garbitu’, *e.zetz.*‘*ir.te.ten.zai.o* ‘ezetz irteten zai’, *nik.ja.so.ko.det.ba.ña* ‘nik jasoko dut baina’, *a.fai.a.zu.ke.gin* ‘afaria zuk egin’ (ML-2009-AS-10tx-3), *tra.go.ar.tu.bai.ba.ño* ‘tragoa hartu bai baina’, *us.te.al.ze.nu.e.nez* ‘uste al zenuen ez’ (ML-2009-AS-ptk-7), *go.a.ze.ne.txe.ra* ‘goazen etxera’ (ML-2009-AS-ptk-8), *ge.ro.a.rrai.a.*‘*a.la.re* ‘gero arraina hala ere’ (ML-2009-BB-6mtz-1), *la.na.da.e.go.ten.la.sai* ‘lana da egoten lasai’ (ML-2009-BB-6mtz-3), *e.san.di.ot.txi.ki.txo* ‘esan diot: txikitxo’ (ML-2009-BB-8tx-2), *ze.mi.ra.ri.a.den* ‘zer miraria den’ (ML-2009-BB-8tx-3), *zen.bat.ta.su.nez.pa.ñe.tan* ‘zenbat tasun ezpainetan’ (ML-2009-BB-ge-1), *ba.ña.bi.otz.ba.rru.ko.a* ‘baina bihotz barrukoa’ (ML-2009-BB-ge-2),

Arzallus 2013

Puntuaren eremuan: *i.ra.kur.tzeu.tsa.re.ki.ni.ga.xo.tu.nin.tzen* ‘irakurtze hutsarekin ni gaixotu nintzen’ (AA-2013-GS-8tx-2), *ba.te.pos.tre.ri.ga.be.gel.di.tu.gi.ñe.la* ‘batere postrerik gabe gelditu ginela’ (AA-2013-GS-8tx-3), *bes.te.po.li.ti.ko.ba.te.re.*‘*or.txe.ai.zu* ‘beste politiko bat ere hortxe, aizu’ (AA-2013-AS-ptk-3), *bai.pix.kat.ki.li.ma.tu.zait.bi.o.tzix.ki.ña* ‘bai, pixka bat kilimatu zait bihotz iskina’ (AA-2013-AS-ptk-7), *nik.de.na.mai.a.le.ne.nal.de.du.te.man.go* ‘nik dena Maialenen alde dut emango’ (AA-2013-BB-8tx-1), *ni.kaz.ken.txa.pel.ke.tan.gal.du.nu.ne.txe.a* ‘nik azken txapelketan galdu nuen etxea’ (AA-2013-BB-8tx-3),

Hemistikioaren eremuan (motiboa hemistikioaren neurrikoa da kasu askotan): *ze.ni.on.zen.ba.ti.zar* ‘zenion: zenbat izar’, *ba.o.rai.ni.a.ri.nai.zi.za.rra.ki.kus.ten* ‘ba orain ni ari naiz izarrak ikusten’ (AA-2013-GS-8tx-1), *on.ddo.pa.pi.llo.te.ko* ‘onddo papiloteko’, *an.ze.nes.kri.bi.tzen* ‘han zen eskribitzen’, *o.rre.kin.se.gi.tzen* ‘horrekin segitzen’ (AA-2013-GS-8tx-2), *e.txe.ra.ko.*‘*ain.nu.en* ‘etxerako hain nuen’ (AA-2013-GS-8tx-3), *ta.or.du.an.sen.da.tzen* ‘eta orduan sendatzen’ (AA-2013-AS-10tx-2), *ta.e.ror.tzen.ba.za.ra* ‘eta erortzen bazara’ (AA-2013-AS-10tx-3), *nik.gei.a.goe.ma.ten.dut* ‘nik gehiago ematen dut’, *be.so.lu.ze.e.kin* ‘beso luzeekin’ (AA-2013-AS-ptk-1), *ta.zer.ga.ti.ko.te.den* ‘eta zergatik ote den’, *bear.ko.da.pen.tsa.tu* ‘beharko da pentsatu’, *zai.gu.*‘*a.rri.ma.tu* ‘zaigu arrimatu’, *a.ra.or.*‘*al.ka.te.a* ‘hara hor alkatea’ (AA-2013-AS-ptk-2), *zu.ke.man.zai.o.zu* ‘zuk eman (ie)zaiozu’, *ba.ña.be.sar.ka.da.da* ‘baina besarkada da’, *gau.za.sa.kra.tu.a* ‘gauza sakratua’ (AA-2013-AS-ptk-4), *zu.ke.gi.zu.*‘*i.rri.par*

‘zuk egizu irribarre’, ma.da.ri.ka.tu.a ‘madarikatua’ (AA-2013-AS-ptk-4), guk.bi.o.nar.te.an ‘guk bion artean’, bes.te.ei.e.ma.te.ko ‘besteei emateko’, en.tre.na.gai.te.an ‘entrena gaitezen’ (AA-2013-AS-ptk-5), ba.ña.‘al.tu.ra.pix.kat ‘baina altuera pixka bat’, a.dos.tu.bear.ko.da ‘adostu beharko da’, e.ta.zuk.le.po.ra ‘eta zuk lepora’ (AA-2013-AS-ptk-6), ez.‘el.ka.rre.non.do.tik ‘ez, elkarren ondotik’, to.ri.mu.xu.ba.te.ta ‘tori musu bat eta’ (AA-2013-AS-ptk-8), i.tze.gin.be.za.bi.o.tzak ‘hitz egin beza bihotzak’ (AA-2013-AS-ge-3), sei.‘i.la.be.te.ko.ban ‘sei hilabete koban’, ge.ro.zer.ta.ra.ko.ta ‘gero zertarako, eta’ (AA-2013-BB-8tx-2), e.ga.ña.e.rre.xa.ze.la.bai ‘Egaña erraza zela, bai’ (AA-2013-BB-8tx-3),

Motiboaren eremuan: es.ku.bi.de.a ‘eskubidea’ (AA-2013-GS-ha),

Lujanbio 2017

Puntuaren eremuan: ba.ña.gi.zar.teon.ta.ko.pa.no.ra.ma.re.kin ‘baina gizarte honetako panoramarekin’ (ML-2017-GS-10tx-3),

Hemistikioaren eremuan: ai.ñaun.di.di.ru.di.e.nau ‘hain handi dirudien hau’, e.rri.a.‘trin.ko.‘e.gi.naiz ‘herria trinko egin nahiz’, trin.ko.di.ot.‘ez.‘ar.tal.de ‘trinko diot, ez artalde’, gu.e.re.‘a.la.bai.ga.ra ‘gu ere hala baikara’, au.‘bo.rro.ka.neur.tu.bat.da ‘hau borroka neurtu bat da’, bar.ka.tu.a.pus.tu.za.le ‘barkatu, apustuzale’, gu.re.bu.ru.a.ren.kon.tra ‘gure buruaren kontra’ (ML-2017-GS-ha), fut.bol.ze.lai.a.ne.gi.ten.de.gu ‘futbol zelaian egiten dugu’ txi.no.ei.sal.du.ta.na.go ‘txinoei salduta nago’ (ML-2017-GS-8H-1), zar.ta.tuiz.ta.rre.ko.min.tza ‘zartatu izterreko mintza’ (ML-2017-GS-8H-2), tao.rra.zal.tze.naiz.kre.me.ki.ne.do ‘eta hor azaltzen naiz kremekin edo’, txan.pu.az.‘i.le.a.zain.tzen ‘txanpuaz ilea zaintzen’, fut.bo.la.ri.oi.ez.di.gu.te.ta ‘futbolariok ez digute eta’ (ML-2017-GS-8H-3), bart.gau.ez.de.nai.rrin.tzi ‘bart gauetz dena irrintzi’, zuk.be.rriz.‘be.a.ko.a ‘zuk, berriz, behakoa’, se.ri.o.a.du.zu ‘serioa duzu’, du.zun.‘in.bi.ri.o.rrek ‘duzun inbidia horrek’ (ML-2017-GS-8tx-1), ain.mu.ker.ta.‘er.kin ‘hain muker eta erkin’, ba.ño.bart.‘zeu.re.ka.buz ‘baina bart zeure kabuz’, al.ze.nu.en.‘e.kin ‘ahal zenuen ekin’, gu.re.txe.ko.‘e.fek.tu ‘gure etxeko efektu’ (ML-2017-GS-8tx-2), zer.no.la.tan.za.bil.tzan ‘zer-nolatan zabiltzan’, bi.sai.a.da.‘ju.ez ‘bisaia da juez’, e.gin.‘i.gua.lein.tzen.dun ‘egin igual egin zenuen’ (ML-2017-GS-8tx-3), e.men.‘e.zer.be.rririk ‘hemen ezer berririk’ (ML-2017-GS-10tx-1), guk.gre.bae.gin.da.ko.an ‘guk greba egindakoan’ (ML-2017-GS-10tx-2), nor.ken.pa.ti.za.tzen.du ‘nork enpatizatzen du’ (ML-2017-GS-10tx-3), ba.nun.ta.as.ki.pro.ble.ma ‘banuen eta aski problema’, (ML-2017-GS-

ge-1), *au.ja.ki.ña.e.zal.da.ba* ‘hau jakina ez al da ba’, *a.ma.riain.bes.te.gau.za.la.pur.tu* ‘amari hainbeste gauza lapurtu’, *niz.ki.on.le.ne.ta*. “*a.ra* ‘nizkion lehen eta, hara’ (ML-2017-GS-ge-2), *ba.ña.zor.te.ak.biz.ka.rra.e.man* ‘baina zorteak bizkarra eman’, *fa.mi.li.a.ke.re* “*mu.ziñ* ‘famiak ere muzin’, *bar.ka.me.ne.ta*. “*a.zal.pen.bea.rrik* ‘barkamen eta azalpen beharrik’, *ez.tau.ka.zu.e.ne.re.kin* ‘ez daukazue nirekin’ (ML-2017-GS-ge-3), *be.gi.a.kix.te.a* ‘begiak ixtea’ (ML-2017-AS-6mtz-1), *sek.sua.rre.ma.nai.zan.ze.nes.pi.ri.tu.a.la* ‘sexu harremana izan zen espirituala’ (ML-2017-AS-ptk-6), *no.la.li.te.ke*. “*i.zan*. “*ain.txi.ki* ‘nola liteke izan hain txiki’, *ain*. “*aun.di.ta*. “*ain*. “*a.al.tsu* ‘hain handi eta hain ahaltzu’, *e.gu.nen.ba.te.na.zi.ko.za.ra* ‘egunen batean haziko zara’, *ta.lu.ze.ga.be.a.dix.ki.dei.zan* ‘eta luze gabe adiskide izan’ (ML-2017-GS-ge-3), *de.sar.me.aes.ku.ze.gin.ge.nu.en* ‘desarma eskuz egin genuen’ (ML-2017-BB-8H-1), *la.bo.ra.ri.ak.gai.i.zan.ga.ra* ‘laborariak gai izan gara’ (ML-2017-BB-8H-2), *pa.ke.a.ez.da.i.noi.zel.du.ko* ‘bakea ez da inoiz helduko’ (ML-2017-BB-8H-3), *bei.ño.rre.la.ko.gau.za* ‘behin horrelako gauza’ (ML-2017-BB-8tx-4), *er.tzai.ñau.to.ba.ta.tze.tik* ‘ertzain auto bat atzetik’, *bai.etz.be.ra.li.bre.u.tzi* ‘baietz bera libre utzi’ (ML-2017-BB-ge-2), *ez.ba.gai.tu.e.re*. “*ze.ra* ‘ez bagaitu ere, zera’, *gu*. “*pros.ti.tu.ton.pa.pe.ra* ‘gu, prostituton, papera’, *i.ra.baz.ten.du.gu.lae.re* ‘irabazten dugula ere’ (ML-2017-BB-ge-3), *trans.mi.si.o.a.ren.tren.tzak* ‘transmisioaren trentzak’ (ML-2017-AS-ba).

Motiboaren eremuan: *u.nai.es.na.tu* ‘Unai, esnatu’ (ML-2017-GS-8H-2), *as.pal.di.ku.si* ‘aspaldi ikusi’, *nai.ko.a.ra.zo* ‘nahikoa arazo’, *ka.su.ba.tzu.tan* ‘kasu batzuetan’ (ML-2017-GS-ge-1), *ez*. “*la.ro.gei.ak* ‘ez, laurogeiak’ (ML-2017-GS-ge-2), *ba.ña.ba.tzu.tan* ‘baina batzuetan’ (ML-2017-GS-ge-3), *len.go.e.kin.ta* ‘lehengoekin eta’, *gaur.ko.en.gan.dik* ‘gaurkoengandik’ (ML-2017-AS-ba).

II.5. Hizkako edo sintagmakako multzokatzea motibo erritmiko barnean, eredia hitzen neurrira moldatuz edota eten bidez bereiziz

Amuriza 1980 **Melisma bidez hitz hasiera adieraztea:** *ba.da.zer.bai.ten*. “*a.fana* ‘bada zerbaiten afana’ (XA-1980-GS-ha), *ez.ta.ain.gai.z.tu.a* ‘ez da hain gaiztoa’ (XA-1980-AS-8tx-3), *no.ra.a.rra.jo.za.toz* ‘nora arraio zatoz’ (XA-1980-BB-8tx-2).

Erritmo-eredua hitzen arabera antolatzea, (hitzak etenaz banatuz edota) **hitz**

baten hasierako edo amaierako silaba luzatuta: *ta.zer.ga.tik.‘gal.de* ‘(e)ta zergatik galde’ (XA-1980-AS-ES-1) (oina da), *ta.or.sar.tu.gai.tuz.te* ‘eta hor sartu gaituzte’ (XA-1980-AS-ES-1), *nik.da.ki.dan.‘bi.jo.tze.an* ‘nik dakidan bihotzean’ (XA-1980-AS-ba) (oina da).

Hitz amaiera adierazteko silabaren balio erritmikoa luzatzea: *e.tsa.ja.su.e.ta.‘ke.tan* ‘etsaia su eta ketan’ (XA-1980-GS-ge-1), *kri.mi.na.len.pa.re* ‘kriminalen pare’ (XA-1980-AS-ES-1),

Egiturazkoak ez diren etenak gauzatzea, hitz edo sintagmak bereizteko motibo erritmikoaren baitan: *ta.zer.ga.tik.‘gal.de* ‘(e)ta zergatik galde’ (XA-1980-AS-ES-1) (oina da), *e.ri.‘a.za.la* ‘eri azala’ (XA-1980-AS-ES-2) (oina da).

Amuriza 1982

Motibo erritmikoaren arabera pareko liratekeen silabei balio erritmiko desberdinak ematea, hitz mugen hasiera edo amaiera luzatuta, balio erritmiko batzuk laburtuta eta eten bidez (azpimarratuta luzatutako silabak): *i.ja.ja.rri.gai.tuz.te* ‘ia jarri gaituzte’, *an.dik.‘o.nuntz.ba.da.tor* ‘handik honuntz badator’ (XA-1982-AS-be1), *e.sa.na.da.‘da.na* ‘esana da dena’, *i.rra.ti.jan.‘an.da.go* ‘irratian han dago’ (XA-1982-AS-ge-1), *e.ma.ku.me.‘as.ko.da* ‘emakume asko da’, *a.te.ri.kan.‘a.te* ‘aterik ate’ (XA-1982-AS-ge-2), *ne.re.‘an.dre.aor.da.go* ‘nire andrea hor dago’, *be.ren.tza.ko.‘kal.te* ‘beraiezako kalte’ (XA-1982-AS-ge-2), *a.ma.‘ta.e.maz.te.a* ‘ama eta emaztea’, *or.tx.e.di.tut.‘pa.sa* ‘hortxe ditut pasa’, *i.jaez.na.go.‘la.sa* ‘ia ez nago lasa(i)’ (XA-1982-AS-ge-3), *da.go.‘za.ta.rra* ‘dago zatarra’, *ni.re.‘o.ju.a* ‘nire oihua’, *e.ta.‘ne.ga.rra* ‘eta negarra’, *ba.ña.‘au.da.zo.ri.txa.rra* ‘baina hau da zoritxarra’ (XA-1982-BB-ge-1), *u.ne.‘o.ne.tan* ‘une honetan’⁶⁴⁰, *ez.ta.go.‘e.rrez* ‘ez dago erraz’, *e.men.jar.tze.a* ‘hemen jartzea’, *o.so.‘a.se.rrez* ‘oso haserrez’ (XA-1982-BB-ge-2).

Egiturazkoak ez diren etenak gauzatzea, hitz edo sintagmak bereizteko motibo erritmikoaren baitan: *sor.tze.an.‘a.rra.za* ‘sortzean arraza’ (XA-1982-AS-ge-3).

640 1982ko buruz burukoan Amurizak gaiari kantatutako bigarren eta hirugarren bertsoan, eredu erritmiko nagusi gisa txandaka darabiltza lehen hiru silabak paretsu gauzatzen dituen eredu eta bigarren silaba luzeago gauzatzen duena, hirugarrena laburtuz. Motiboaren aldaera bakoitzaren hautua sarri bat dator hitz mugekin, baina ez beti. Taulan adibide bakarra jaso dut, zalantzarik gisa. Etorrizuneko geratzen da auzi zehatz hau, aztergai.

Lizaso 1986 **Motibo erritmikoaren arabera pareko liratekeen silabei balio erritmiko desberdinak ematea, hitz mugen hasiera edo amaiera luzatuta eta beste silaba batzuen balio erritmikoak laburtuta** (azpimarratuta, luzatutako silabak): *ar.tu.a.di.da.ten.ga.ña* ‘hartua didaten gaina’ (XA-1982-GS-ha), *be.gi.jak.go.rri.tu.a* ‘begiak gorritua’, *min.ga.ña.lo.ri.tu.a* ‘mingaina loditua’ (SL-1986-GS-ge-2), *ba.rru.a.dau.kat.su.tan* ‘barrua daukat sutan’ (SL-1986-GS-ge-3), *i.ri.tsi.zait.* ‘o.jar.tzu.na’ ‘iristi zait oihartzuna’ (AE-1993-GS-ge-3).

Ereduko balio erritmikoak aldatzea, hitz amaierak balio luzeagoa muga dezan: *oi.di.ra.ba.tzar.guz.ti.ak* ‘ohi dira batzar guztiak’ (SL-1986-AS-ge-1), *e.rri.jan.dau.de.* ‘ger.tu.ko’ ‘herrian daude gertuko’, *en.tzun.* ‘au.ja.kin.’ ‘or.du.ko’ ‘entzun, hau jakin orduko’ (SL-1986-AS-ge-1).

Lopategi 1989 **Ereduko balio erritmikoak aldatzea, hitz hasiera edota amaiera balio luzeagoak muga dezan, batzuetan etenak ere baliatuta bereizketan** (azpimarratuta luzatutako silabak): *e.gin.di.tu.ta* ‘egin ditu eta’ (JL-1989-GS-8H-2), *gel.di.tu.ko.naiz* ‘geldituko naiz’ (JL-1989-GS-8H-3), *ze.ni.dan.zuk.len* ‘zenidan zuk lehen’ (JL-1989-GS-8H-4), *bai.ta.tor.gaitz.* ‘bi.u.rri.a’ ‘baitator gaitz bihurria’, *mun.du.an.da.gon* ‘munduan dagoen’ (JL-1989-GS-ge-1), *ar.ga.tik.ni.rea.bes.ti.a* ‘hargatik nire abestia’, *u.ra.gen.du.ne.guz.ki.ja* ‘hura genuen eguzkia’ (JL-1989-GS-ge-2), *gu.re.tza.tain.bes.te.lo.rrin* ‘guretzat hainbeste lorrin’, *ja.rri.zai.gu.* “*ar.gi.* “*ur.din* ‘jarri zaigu argi-urdin’, *e.nai.sen.ti.tzen.* “*a.tse.gin* ‘ez naiz sentitzen atsegin’, *sa.ja.tu.ko.naiz.be.ñe.pin* ‘saiatuko naiz behinik behin’ (JL-1989-GS-ge-3).

Egiturazkoak ez diren etenak gauzatzea, hitz edo sintagmak bereizteko motibo erritmikoaren baitan: *en.tzun.du.* “*a.* “*o.tsa* ‘entzun du ahotsa’ (JL-1989-GS-10tx-3) (oina da), *ain.ger.ta.tzen.da.* “*u.rri.ja* ‘hain gertatzen da urria’, *mar.txa.* ‘*aun.di.jan.* “*ja.rri.a* ‘martxa handian jarria’, *i.lu.si.jo.en.* “*ar.gi.a* ‘ilusioen argia’ (oinak dira⁶⁴¹), *az.ken.* “*bo.la.dan* ‘azken boladan’ (JL-1989-GS-ge-1), *ja.ne.da.ri.tan.* “*sas.ki.ja* ‘jan-edaritan saskia’, *a.je.na.tu.zen.* “*ez.ti.a* ‘aihenatu zen ezitia’ (JL-1989-GS-ge-2), *bi.o.tza.ja.rri.zait.* “*ar.min* ‘bihotza jarri zait har-min’ (oina), *gu.re.* ‘*ain.bat.* “*a.mets.* ‘*gor.din* ‘gure hainbat amets gordin’, *gel.di.tu.i.no.* “*la.* “*er.kin* ‘gelditu inola erkin’ (JL-1989-GS-ge-3),

641 Kasu honetan motiboa mugatzen du etenak (motiboa eta kadentzia bereizten ditu, zehazki) eta ulertzekoa litzateke oina izan gabe ere etena gauzatzea, egiturazko arrazoiengatik. Hala ere, bertsolariak bertsoaldian zehar oinak eten laburrago, luzeago edo eredu erritmiko bidez nabarmentzeko joera ageri duenez, eten horiek ere taulan jasotzea erabaki dut.

za.re.te.ni.re. “us.te.tan ‘zarete nire ustetan’, e.ka.rri.be.rriz. “bos.te.tan ‘ekarri berriz bostetan’ (JL-1989-GS-ba) (oinak), en.tzun.dut.man.tso.ta. “i.sil ‘entzun dut mantso eta isil’, aur.ki.tzen.da. “ain.bat.mu.til ‘aurkitzen da hainbat mutil’ (JL-1989-AS-10H-1) (oinak), o.ri.ez.ta. “ai.ta.bro.ma ‘hori ez da, aita, broma’ (JL-1989-AS-10H-2) (oinak), bi.zi.nin.tze.ni. “an.tzi.na ‘bizi nintzen ni antzina’ (JL-1989-AS-10H-3) (oinak), es.kui.ne.ta. “ez.ker ‘eskuin eta ezker’ (oina), za.le.ta.su.nez. “e.zin ‘zaletasunez ezin’ (JL-1989-AS-ge-3),

Egaña 1993

Ereduko balio erritmikoak aldatzea, hitz hasiera edota amaiera balio luzeagoak muga dezan, batzuetan etenak ere baliatuta bereizketan (azpimarratuta luzatutako silabak): tau.rrak.ton.to.a.kez.ti.ra ‘eta haurrak tontoak ez dira’ (AE-1993-GS-8H-2), ne.re.bu.ru.a ‘nire burua’ (AE-1993-GS-8H-2), e.ta.i.gual.zi.ri.ñez ‘eta igual zirinez’ (AE-1993-GS-4oin), tes.ta.men.tu.an. “o.a.rra ‘testamentuan oharra’ (AE-1993-GS-ge-1), on.do.pen.tsa.tzen. ‘ja.rri.ez.ke.ro ‘ondo pentsatzen jarritz gero’ (AE-1993-GS-ge-2), a.rren. ‘e.tzai.da.zu.kon.ta ‘arren, ez zaidazu konta(tu)’, al.de.dauz.ka.gu ‘alde dauzkagu’, ba.ña.gi.zar.te.a.kon.tra ‘baina gizartea kontra’ (AE-1993-AS-10H-2), ba.ña.nik.di.ot ‘baina nik diot’ (AE-1993-AS-10H-3), e.man.la.ti.ga.zo.bat ‘eman latigazo bat’, o.rre.la.lor.tu.ko.det ‘horrela lortuko dut’ (AE-1993-AS-8tx-1), sa.di.ka. ‘an.tze.ko ‘sadika anzteko’ (AE-1993-AS-8tx-2), o.rain. ‘tom.krui.se.o.ri ‘orain Tom Cruise hori’ (AE-1993-AS-8tx-3), ze.zen. ‘o.ro.ren ‘zezen ororen’ (AE-1993-AS-ge-1), i.no.rre.tze.go.en.la.sai ‘inor ez zegoen lasai’, ur.du.ri.ta.su.na.e.tsai ‘urduritasuna etsai’, zu.en.txa.lo.ak.be.re.tzat.di.ra ‘zuen txaloak beretzat dira’ (AE-1993-AS-ba).

Egiturazkoak ez diren etenak gauzatzea, hitz edo sintagmak bereizteko motibo erritmikoaren baitan: guz.ti. ‘o.nen. ‘e.zur.du.ra ‘guzti honen hezurdura’, de.nak.sor.tzen.dit. ‘ar.du.ra⁶⁴² ‘denak sortzen dit ardura’, e.ta.mor.bo.a.ren. ‘mu.ga ‘eta morboaren muga’ (AE-1993-GS-ha), in.gu.ru.ko. ‘la.rre.mo.tza ‘inguruko larre motza’, a.mo.rru.a. ‘e.ta.lo.tsa ‘amorrua eta lotsa’ (AE-1993-AS-ge-1), eus.kal.dun.go.a.ren. ‘do.ai ‘euskaldungoaren dohai’, uz.tai.e.do.ta. ‘ez. ‘uz.tai

642 Kasu honetan motiboa mugatzen du etenak (motiboa eta kadentzia bereizten ditu, zehazki) eta, horregatik, ulertzekoa litzateke isilunea puntu horretan gauzatzea bertsolariak, baina gainerako puntu amaieretan —azken puntuan izan ezik— oin aurretik etena gauzatzen du beste kokapen batzuetan ere, luzeagoa edo laburragoa (lehen puntuko oina bereizten duen etena, esaterako, 0,16 s-koa da eta taulan jaso ez dudatan arren, gertakari beraren partetzat har daiteke, etenei dagokien gertakaria continuumean ulertu beharra agerian utziz, beste behin: i.ñu.la.rre.ko. ‘or.du.ra ‘inularreko ordura’; AE-1993-GS-ha). Horregatik, motiboaren eremua mugatzen duen adibide hori ere jaso dut, kasu horretan etena egitearen arrazoia egitura musikala ez, linguistikoa dela iritzita.

‘uztai edota ez uztai’ (AE-1993-AS-ba) (oinak dira denak),

Ereduko balio erritmikoak aldatzea, hitz hasiera edota amaiera balio luzeagoak muga dezan, batzuetan etenak ere baliatuta bereizketan (azpimarratuta luzatutako silabak): *au.rre.ra.do.a* ‘aurrera doa’, *or.du.an.gai.tzat* ‘orduan gaitzat’, *ta.o.rain.‘eu.rak.‘gai.di.ra* ‘eta orain eurak gai dira’ (AE-1997-GS-ha), *ge.je.gik.gu.txi.e.gi* ‘gehiegik gutxiegi’ (AE-1997-GS-hitz), *bi.mu.ti.ko.‘gua.po* ‘bi mutiko guapo’ (AE-1997-GS-6mtz-3), *joan.be.ar.dut.zu.ze.ne.an* ‘joan behar dut zuzenean’ (AE-1997-GS-ge-3), *ba.dau.kat.ti.tu.lo.a* ‘badaukat tituloa’ (AE-1997-AS-8tx-1), *ez.ta.gau.za.xa.mu.rra* ‘ez da gauza xamurra’, *e.zin.di.tut.be.re.zi* ‘ezin ditut bereizi’ (AE-1997-AS-8tx-2), *e.ba.kun.tza.‘au.rre.tik* ‘ebakuntza aurretik’, *or.tan.me.ri.tu.a* ‘hortan meritua’ (AE-1997-AS-8tx-3), *ai.‘ma.ja.mai.te.a* ‘ai, Maia maitea’ (AE-1997-AS-8tx-4), *ai.‘ar.tzai.a.‘se.ku.la* ‘ai, artzaina, sekula’ (AE-1997-AS-1p-2), *es.ko.pe.ta.‘ar.tu.ta* ‘eskopeta hartuta’ (AE-1997-AS-1p-3), *ka.ko.a.bai.tut* ‘kako baitut’ (AE-1997-AS-ge-1), *ez.du.da.‘nez.‘as.ko.mai.te* ‘ez dudanez asko maite’, *su.fri.tu.dut.‘ain.bat.kal.te* ‘sufritu dut hainbat kalte’, *zo.ri.txa.rrik.‘ez.tut.ba.te* ‘zoritxarrik ez dut batere’ (AE-1997-AS-ge-2), *la.pu.rre.ta.‘e.gi.te.a* ‘lapurreta egitea’, *o.so.la.pur.‘ar.lo.te.a* ‘oso lapur arlotea’, *pa.tri.ka.ta.‘es.ko.te.a* ‘patrika eta eskotea’, *pa.tri.ka.be.te.be.te.a* ‘patrika bete-betea’ (AE-1997-AS-ge-3).

Egiturazkoak ez diren etenak gauzatzea, hitz edo sintagmak bereizteko motibo erritmikoaren baitan: *an.do.ni.‘eu.re.‘e.txe.an* ‘Andoni, heure etxean’, *pe.ze.tak.lo.tu.‘mo.tze.an* ‘pezetak lotu motzean’, *ta.‘a.zo.ka.ra.‘jo.tze.an* ‘eta azokara jotzean’ (AE-1997-GS-ge-2) (oinak), *xe.le.bre.a.da.‘da.na* ‘zelebrea da dena’ (AE-1997-AS-ha) (oina), *u.me.txi.ki.bat.‘er.nal.du,* *e.ri.gu.txi.ba.tzuk.‘salbu* ‘herri gutxi batzuk salbu’, *au.goiz.goi.ze.tik.‘za.bal.du* ‘hau goiz goizetik zabaldu’ (AE-1997-AS-10H-1), *a.la.e.gin.du.‘a.mets* ‘hala egin dut amets’, *lais.ter.‘ar.di.bat.‘bai.etz* ‘laster ardi bat baietz’ (AE-1997-AS-1p-1), *e.ta.pol.tsi.ko.ak.‘be.te* ‘eta poltsikoak bete’, *pe.ka.tu.‘aun.di.a.‘o.te* ‘bekatu handia ote’, *ta.bes.te.ba.tzu.ek.‘tor.pe* ‘eta beste batzuk torpe’, *po.de.re.tik.‘ez.‘a.par.te* ‘boteretik ez aparte’ (AE-1997-AS-ge-2) (oina), *me.se.de.‘e.do.‘kal.te.a* ‘mesede edo kaltea’ (AE-1997-AS-ge-3) (oina).

Ereduko balio erritmikoak aldatzea, hitz hasiera edota amaiera balio luzeagoak muga dezan, batzuetan etenak ere baliatuta bereizketan (azpimarratuta luzatutako silabak): *zer.naiz.ni.ti.po.txe.pe.la* ‘zer naiz ni, tipo txepela’, *bi.rus.bat.ba.nintz.be.ze.la* ‘birus bat banintz bezala’ (AE-2001-GS-ha), *ba.rru.an.de.zun* ‘barruan duzun’ (AE-2001-GS-8H-3), *be.jon.dei.zu.la.zi.nez* ‘bejondeizula zinez’, *ze.i.ru.di.me.na* ‘zer irudimena’ (AE-2001-GS-8tx-1), *ze.ñen.xe.le.bre.zau.den* ‘zeinen zelebren zauden’ (AE-2001-GS-8tx-2), *sai.a.gai.te.zen.sa.rrí* ‘saia gaitezen sarri’ (AE-2001-GS-pe-4), *be.ti.glo.ri.an.on.do.ren* ‘beti gloriaren ondoren’, *bes.te.la.e.san.e.men.gaur.ko.an* ‘bestela esan hemen gaurkoan’ (AE-2001-GS-6mtz-1), *sa.rrí.ze.da.rrí.uix.ki.a* ‘sarri zedarri whiskya’, *ez.tu.me.re.zi.e.men.e.zi.na* ‘ez du merezi hemen ezina’, *ba.da.tor.u.ne.trix.ti.a* ‘badator une tristea’, *ar.bo.la.ti.kan.jeix.ti.a* ‘arbolatik jeistea’ (AE-2001-GS-6mtz-3), *a.ri.be.gi.ra* ‘hari begira’, *o.rain.sor.tu.zait* ‘orain sortu zait’, *e.gi.a.e.san* ‘egia esan’ (AE-2001-GS-ge-2), *le.on.kas.ti.llo* ‘león-castillo’ (x2) (AE-2001-GS-ge-3; AE-2001-AS-ha), *gau.za.o.nik.e.zin.so.ma* ‘gauza onik ezin suma(tu)’, *ez.te.gu.lor.tu* ‘ez dugu lortu’, *de.si.o.dut.zo.ri.o.na* ‘desio dut zoriona’, *jen.de.a.ren.ja.ra.mo.na* ‘jendearen jaramona’ (AE-2001-AS-ge-1), *es.pe.ran.tzan.go.ra.za.rrez* ‘esperantzaren gorazarrez’, *pen.tsa.ke.ra.des.ber.di.nez* ‘pentsaera desberdinez’ (AE-2001-AS-ge-2), *bi.zi.be.di.i.ri.tzi.a* ‘bizi bedi iritzia’, *pa.ke.bi.dez.i.ri.tsi.a* ‘bake bidez iritsia’, *as.ka.ta.sun.i.rrin.tzi.a* ‘askatasun irrintzia’, *bi.de.ak.du.ga.ran.tzi.a* ‘bideak du garrantzia’, *i.nor.txo.kez.i.ren.tsi.a* ‘inortxok ez irentsia’, *nik.nai.du.dan.e.ren.tzi.a* ‘nik nahi dudana herentzia’ (AE-2001-AS-ge-3), *e.gi.ten.dun.o.tza.kin* ‘egiten duen hotzarekin’ (AE-2001-BB-8tx-1), *e.ran.tzun.be.ar.di.zut* ‘erantzun behar dizut’ (AE-2001-BB-8tx-2), *gu.bi.ok.or.tzak.kaz.kaz* ‘gu biok hortzak kaz-kaz’ (AE-2001-BB-8tx-3), *ne.re.e.zur.jun.tu.rak* ‘nire hezur junturak’ (AE-2001-BB-8tx-4), *ne.re.ze.nak.sol.da.ta* ‘nire zenak soldata’, *no.mi.naz.a.te.ra.ta* ‘nominaz aterata’, *bi.zi.be.ar.a.la.fe.de* ‘bizi behar, alafede’, *ne.re.se.me.a.ke.tzu.en* ‘izan nire semeak ez zuen izan’ (AE-2001-BB-Ip-1), *gaz.te.sa.no.a* ‘gazte sanoa’, *za.toz.ne.re.on.do.ra* ‘zatoz nire ondora’, *bi.o.tze.tik.kol.ko.ra* ‘bihotzetik golkora’, *ze.ra.nai.di.zut.xu.xur.la* ‘zera nahi dizut xuxurla’ (AE-2001-BB-Ip-2),

kon.tu.ak ‘e.sa.te.ko ‘kontuak esateko’, *la.gu.nak* ‘i.za.te.ko ‘lagunak izateko’ (AE-2001-BB-Ip-3), *or.do.a.ber.ta.ra* ‘hor doa bertara’ (AE-2001-BB-9phtz), *ne.re.zo.ri.on* ‘do.si.a ‘nire zorion dosia’, *aun.di.a.e.do* ‘po.xi.a ‘handia edo poxia’, *zu.re.o.roi.pen.bi.zi.a* ‘zure oroitzapen bizia’ (AE-2001-BB-ge-1), *ge.zi.gi.san.zu.ze.ne.an* ‘gezi gisa zuzenean’ (AE-2001-BB-ge-2), *es.pe.ro.* ‘e.men. ‘i.no.la ‘espero hemen inola’, *ni.neu.bi.zi.a* ‘na.gu.la ‘ni neu bizia nagoela’, *i.a.gal.du.dut* ‘kon.tro.la ‘ia galdu dut kontrola’ (AE-2001-BB-ge-3), *gu.re.ar.te.an.da.gu.la* ‘gure artean dagoela’ (AE-2001-BB-ge-3), *ba.ña.ik* ‘an.do.ni ‘baina hik, Andoni’, *gaur.ko.a.sai.o.a.ri* ‘gaurkoa Saiolari’ (AE-2001-AS-ba).

Egiturazkoak ez diren etenak gauzatzea, hitz edo sintagmak bereizteko motibo erritmikoaren baitan: *oi.u.e.ta* ‘bul.ka ‘oihu eta bulka’ (AE-2001-GS-pe-2), *sen.ti.men.du.en* ‘ar.da.gai ‘sentimenduen ardagai’, *jai.o.tza.e.ta* ‘il.kan.pai ‘jaiotza eta hil kanpai’, *ba.nu.en* ‘ain.bes.te. ‘do.ai ‘banuen hainbeste dohai’, *nik.ze.rre.gin.be.ar.dut* ‘ai ‘nik zer egin behar dut, ai’ (AE-2001-GS-ge-1) (oinak), *pa.si.bo.ke.riz* ‘be.te.ta ‘pasiokeriaz beteta’, *dut.bi.o.tze.an* ‘gor.de.ta ‘dut bihotzean gordeta’, *nex.ka* ‘o.rre.kin. ‘a.pe.ta ‘neska horrekin apeta’, *ai.de.ra.bo.ta* ‘pe.ze.ta ‘airera bota pezeta’ (AE-2001-GS-ge-2), *e.ra.ba.ki.ak* ‘ne.ka.tu ‘erabakiak nekatu’, *a.ben.tu.ra* ‘fe.re.ka.tu ‘abentura ferekatu’ (AE-2001-GS-ge-3), *e.rre.ten.sa.kon* ‘sa.ko.na ‘erreten sakon-sakona’, *ai.tan* ‘au.rre.tik. ‘ai.to.na ‘aitaren aurretik aitona’, *es.kol.tak* ‘a.ra. ‘ta. ‘o.na ‘eskoltak hara eta hona’, *tae.rri.an* ‘as.ke. ‘gi.zo.na ‘eta herrian aske gizona’ (AE-2001-AS-ge-1), *o.rre.tan.gau.de* ‘in.da.rrez ‘horretan gaude indarrez’, *aur.pe.gi* ‘i.lun. ‘a.se.rrez ‘aurpegi ilun, haserrez’, *e.gin.go.nu.ke* ‘nik.tra.bes ‘egingo nuke nik trabes’, *guz.ti.ak.kun.pli.tu* ‘bai.etz ‘guztia kunplitu baietz’ (AE-2001-AS-ge-2), *ez.tut* ‘o.rain.dik. ‘an.tzi.a ‘ez dut oraindik ahantzia’, *e.ta* ‘a.te.bat. ‘i.txi.a ‘eta ate bat itxia’ (AE-2001-AS-ge-3), *o.la.ko.rik* ‘o.tza.ri ‘horrelakorik hotzari’ (AE-2001-BB-8tx-3), *su.fri.men.duz* ‘e.gar.be.ra ‘sufrimentuz egarbera’ (AE-2001-BB-Ip-3), *a.la.ko.ne.gar* ‘kri.si.a ‘halako negar krisia’ (AE-2001-BB-ge-1), *mi.kel.mi.llan* ‘i.ña.ki ‘Mikel, Millan, Iñaki’, *an.jel* ‘e.ta. ‘jo.ni ‘Angel eta Joni’ (AE-2001-AS-ba).

Ereduko balio erritmikoak aldatzea, hitz hasiera edota amaiera balio luzeagoak muga dezan, batzuetan etenak ere baliatuta bereizketan (azpimarratuta luzatutako silabak): *ba.ra.kal.do.* ‘*la.be.ga.rai*’ ‘Barakaldo, labe garai’, *len.pa.du.ra.ta.de.ser.tu* ‘lehen padura eta desertu’, *e.zal.da.nai.ko.* ‘*a.zer.tu*’ ‘ez al da nahiko azertu’, *bi.ar.ko.eus.ka.le.rria* ‘biharko Euskal Herria’, *e.men.dik.nai.du.gu.zer.tu* ‘hemendik nahi dugu zertu’, *kul.tur.fes.ta.o.ne.ta.ra* ‘kultur festa honetara’, *ar.ga.tik.ge.ra.* ‘*a.ger.tu*’ ‘hargatik gara agertu’, *ba.ña.i.ño.zo.a.* ‘*e.naiz*’ ‘baina inozoa ez naiz’, *e.rre.le.bo.a.dut.* ‘*ger.tu*’ ‘erreleboa dut gertu’, *zo.ri.o.nez.zaz.pi.la.gun* ‘zorionez zazpi lagun’, *min.dauz.kat.ni.gan.dik.* ‘*ger.tu*’ ‘min dauzkat nigandik gertu’ *en.tzu.le.zu.re.* ‘*ba.be.sa*’ ‘entzule, zure babesa’, *la.ne.an.nai.dut.* ‘*es.ker.tu*’ ‘lanean nahi dut eskertu’ (AE-2005-GS-ha), *za.ti.tzen.gai.tu.en.rai.a* ‘zatitzen gaituen raya’ (AE-2005-GS-8H-3), *iu.fa.ka.or.sar.tu.naiz* ‘iufaka hor sartu naiz’, *ai.ta.ba.ka.rrik.da.go* ‘aita bakarrik dago’, *ei.te.ko.a.* ‘*e.gi.ña*’ ‘egitekoa egiña’ (AE-2005-GS-8tx-3), *a.ma.to.ri.mu.xu.bat* ‘ama, tori musu bat’ (AE-2005-GS-8tx-4), *e.ta.nex.kak.pa.sa* ‘eta neskak pasa’ (AE-2005-GS-pe-2), *ga.ñe.ra.* ‘*el.bu.ru*’ ‘gainera helburu’ (AE-2005-GS-10tx-1), *ma.ji.ña.bat.ne.ke* ‘makina bat neke’ (AE-2005-GS-10tx-2), *ba.rrun.pe.ko.* ‘*bi.otz.*’ ‘*zo.la*’ ‘barrunbeko bihotz zola’, *ge.ro.bi.ttan.tta* ‘gero bi tanta’ (AE-2005-GS-ge-3), *u.ler.za.zu.te.* ‘*pos.tu.ra.on.tan*’ ‘uler ezazue postura honetan’ (AE-2005-AS-ha), *zu.re.* ‘*gi.zo.na.*’ ‘*a.ka.bo*’ ‘zu ere gizona, akabo’ (AE-2005-AS-6mtz-1), *me.se.de.* ‘*e.do.*’ ‘*kal.te.ra*’ ‘mesede edo kaltera’, *se.xu.jo.e.rak.* ‘*jo.e.ra*’ ‘sexu joerak joera’ (AE-2005-AS-6mtz-2), *es.ka.tzen.di.zut.* ‘*o.rre.la*’ ‘eskatzen dizut horrela’, *bes.te.sai.o.bat.* ‘*i.tze.la*’ ‘beste saio bat itzela’ (AE-2005-AS-6mtz-3), *kon.ta.tu.ko.di.ot.* ‘*de.na*’ ‘kontatuko diot dena’ (AE-2005-AS-ge-2), *suer.te.a.* ‘*ain.bat.*’ ‘*nork.ten.ta*’ ‘zortea hainbat nork tenta’, *ka.le.an.be.ra* ‘kalean behera’, *e.gin.* ‘*i.ru.lau.*’ ‘*pus.ke.ta*’ ‘egin hiru-lau pusketa’, *ja.rriko.di.ot.* ‘*kris.ke.ta*’ ‘jarriko diot krisketa’, *be.ti.da.txarra* ‘beti da txarra’ (AE-2005-AS-ge-3), *e.jem.* ‘*e.gi.teko*’ ‘ejem egiteko’ (errepikan) (AE-2005-BB-8tx-1), *au.e.sa.te.ra.e.re* ‘hau esatera ere’ (AE-2005-BB-8tx-2), *des.ber.di.nak.se.ko* ‘desberdinak seko’, *ba.ña.e.zetz.txi.ki.rik* ‘baina ezetz txikirik’ (AE-2005-BB-9phtz), *an.dre.a.* ‘*e.jem*’ ‘andrea, ejem’, *a.rek.* ‘*ain.xu.xen*’ ‘hark, hain zuzen’ (AE-2005-AS-ba).

Egiturazkoak ez diren etenak gauzatzea, hitz edo sintagmak bereizteko motibo erritmikoaren baitan: *a.tza.par.‘e.ta.‘a.gi.nez* ‘atzapar eta haginez’ (AE-2005-GS-8H-1), *e.na.go.guz.tiz.‘a.lai.a* ‘eznago guztiz alai’ (AE-2005-GS-8H-3), *na.go.ni.‘se.gu.ru* ‘nago ni seguru’ (AE-2005-GS-10tx-1), *pe.ka.tu.‘bil.du.ma* ‘bekatu bilduma’, *ez.jo.an.‘u.rru.na* ‘ez joan urrun’ (AE-2005-GS-10tx-3), *a.nu.tzi.ni.tun.‘e.tx.e.an* ‘han utzi nituen etxean’, *se.me.ak.‘a.te.‘er.tze.an* ‘semeak ate ertzean’, *e.re.se.me.an.‘a.tze.an* ‘ere semearen atzean’, *ne.re.al.dar.te.‘mo.tze.an* ‘nire aldarte motzean’, *zor.tzi.e.tan.‘a.rra.tse.an* ‘zortzietan, arratsean’ (AE-2005-GS-ge-1), *e.san.di.tuz.te.‘xu.a.be* ‘esan dituzte suabe’, *zor.tzi.la.gun.ta.‘zu.ta.be* ‘zortzi lagun eta zutabe’, *el.bu.ru.e.ta.‘al.da.re* ‘helburu eta aldare’, *e.ta.ni.be.rriz.‘ti.ta.re* ‘eta ni, berriz, titare’ (AE-2005-GS-ge-2), *man.ten.du.dut.bai.‘kon.tro.la* ‘mantendu dut, bai, kontrola’, *e.nu.en.‘us.te.‘i.no.la* ‘ez nuen uste inola’, *er.di.‘e.tsi.ri.kan.‘o.la* ‘erdi etsirik horrela’, *gu.re.a.‘ez.ta.‘ki.ro.la* ‘gurea ez da kirola’ (AE-2005-GS-ge-3), *a.me.tse.ka.la.du.‘ai.pa* ‘Ametsek hala du aipa(tu)’ (AE-2005-AS-ha), *ir.ten.zi.tzai.gun.‘a.te.ra* (AE-2005-AS-6mtz-2), *i.ri.‘aun.di.an* ‘hiri handian’, *kon.tzien.tzi.a.kin.‘lis.ka.rra* ‘kontzientziarekin liskarra’ (AE-2005-AS-ge-1), *ur.te.lu.ze.en.‘kon.de.na* ‘urte luzeen kondena’ (AE-2005-AS-ge-2), *e.gin.lei.ke.‘zen.bait.mar.mar* ‘egin liteke zenbait mar-mar’, *be.rro.gei.me.tro.an.‘a.mar* ‘berrogei metroan hamar’ (AE-2005-BB-10H-1), *e.go.e.ra.ren.‘a.ri.ra* ‘egoeraren harira’ (AE-2005-BB-10H-2), *ta.bi.zi.tze.ko.‘zer.za.ma* ‘eta bizitzeko zer zama’ (AE-2005-BB-10H-3), *au.ta.tu.nu.en.‘lan.gin.tza* ‘hautatu nuen langintza’ (AE-2005-BB-ge-1), *e.zal.tzin.tez.ke.‘or.‘ge.ra* ‘ez al zintezke hor gera’, *e.gin.go.du.dan.‘au.rre.ra* ‘egingo dudan aurrera’, *la.na.dau.ka.gu.‘os.pe.ra* ‘lana daukagu, ospera’ (AE-2005-BB-ge-2), *a.ri.be.ar.dun.‘len.bi.zi* ‘ari behar duen lehenbizi’, *no.la.‘e.ni.zun.‘i.ku.si* ‘nola ez nizun ikusi’, *ge.la.on.tan.‘a.a.rrau.si* ‘gela honetan aharrausi’ (AE-2005-BB-ge-3),

Lujanbio 2009

Ereduko balio erritmikoak aldatzea, hitz hasiera edota amaiera balio luzeagoak muga dezan, batzuetan etenak ere baliatuta bereizketan (azpimarratuta luzatutako silabak): *ber.so.za.le.zu* ‘bertsozale, zu’, *eus.ka.ran.txin.ga.rrei.puz.ka* ‘euskararen txingarrei puzka’, *naiz.ta.guk.ja.so.zue.ke.re.‘e.rein* ‘nahiz eta guk jaso zuek ere erein’,

du.zu.e.nan.txaloz.ta ‘duzuenaren txalo uzta’,
mi.lles.ker.denok.be.te.dugaur ‘milesker, denok bete dugu gaur’ (ML-2009-GS-ha),
ai.taes.ker.tzen.dizut.baiki ‘aita, eskertzen dizut, baiki’ (ML-2009-GS-8H-1),
ain.bes.te.se.kretuz.ia ‘hainbeste sekretuz ia’,
ordu.ko.be.run.ale.ak.dira ‘orduko berun aleak dira’ (ML-2009-GS-8H-2),
e.san.nai.e.ta.e.sa.ne.zi.nak ‘esan nahi eta esan ezinak’ (ML-2009-GS-8H-3),
gra.cias.bear.ga.be.be.ze.la ‘gracias behar gabe bezala’ (ML-2009-GS-6mtz-1),
len.bi.ta.uts.bi.on.kal.te ‘lehen bi eta huts, bion kalte’,
o.rain.bat.ta.bat.en.pa.te ‘orain bat eta bat, enpate’ (ML-2009-GS-6mtz-2),
ez.ti.zu.u.ler.tu.en.fin ‘ez dizut ulertu, en fin’, *o.rain.ez.a.je.ta.ez.min* ‘orain ez aje eta ez min’,
au.rre.raus.ka.lo.ez.ja.kin ‘aurrera, auskalo, ez jakin’ (ML-2009-GS-6mtz-3),
ne.re.i.ri.tziz.o.sa.tu.di.tut ‘nire iritziz osatu ditut’,
ne.rea.fi.zi.o.ta.o.fi.zi.o ‘nire afizio eta ofizio’, *de.lol.mok.di.ost.ai.jus.ti.zi.a* ‘Del Olmok diost: ai, justizia’,
be.raz.be.rri.a.nuz.ten.di.zu.et ‘beraz berrian uzten dizuet’ (ML-2009-GS-ge-1),
ba.dau.kat.nai.ko.es.pe.rien.tzi.a ‘badaukat nahikoa esperientzia’,
eus.ka.le.rri.ko.pren.tsan.zen.tsu.ra ‘Euskal Herriko prentsan zentsura’,
az.ter.tu.nu.en.goi.ta.be ‘aztertu nuen goi eta behe’, *naiz.ta.ni.zel.dan* ‘nahiz eta ni zeldan’ (ML-2009-GS-ge-2),
latz.a.rras.ta.ka.da.kar.gu ‘latz arrastaka dakargu’ (ML-2009-GS-ge-3),
fua.be.ar.zu.na.pa.te.da ‘foie behar zuena pate da’,
jan.go.zen.du.ten ‘jango zenuten’, *e.ar.ki.zau.de.te.ze.ba* ‘ederki zaudete, zeba’ (ML-2009-AS-ha),
ja.so.za.zu.az.kar.ze ‘jaso ezazu azkar ze’ (ML-2009-AS-10tx-1),
pla.te.ra.su.kal.de.ra ‘platera sukaldera’ (ML-2009-AS-10tx-2),
zer.nai.ze.nu.en.bel.tza ‘zer nahi zenuen, beltza’ (ML-2009-AS-ptk-1),
be.ar.gu.txi.e.nez ‘behar gutxienez’ (ML-2009-AS-ptk-2),
tra.go.ar.tu.bai.ba.no ‘tragoa hartu bai baina’ (ML-2009-AS-ptk-7),
e.gan.ba.no.be.o.ñez ‘hegan baino hobe oinez’ (ML-2009-AS-ptk-8),
ne.re.be.gi.ne.re.a.o ‘nire begi, nire aho’,
den.bo.ra.juan.da.lu.za.ro ‘denbora joan da luzaro’, *bi.ur.tu.zai.e.a.za.ro* ‘bihurtu zaie azaro’,
noi.za.gin.du.ko.a.ka.bo ‘noiz aginduko: akabo’,
bu.ru.soil.txo.e.ta.kal.bo.ba.na.bi.zi.tzak.gei.a.go ‘baina bizitzak gehiago’ (ML-2009-AS-ge-1) (oinak),
be.gi.tan.du.te.diz.ti.ra ‘begietan dute dizdira’,
e.ta.es.ko.la.de.si.ra ‘eta eskola desira’, *la.gun.txo.ei.des.pe.di.da* ‘laguntxoei despedida’,
juer.ga.sal.to.buel.ta.bi.ba ‘juerga, salto, buelta, biba’,
o.si.je.no.an.a.ri.ra ‘oxigenoaren harira’, *jo.la soi.e.tan.ar.gi.da* ‘jolas horietan, argi da’ (ML-2009-AS-ge-2),
ta.no.la.ez.kon.pre.ni.tu ‘eta nola ez konprenitu’,

a.rren.‘zer.bait.‘‘zi.rri.ki.tu ‘arren, zerbait, zirrikitu’, ta.ba.rru.ne.zin.ka.bi.tu ‘eta barruan ezin kabitu’, taor.du.an.be.gi.ak.blai.tu ‘eta orduan begiak blaitu’, ja.rrai.tu.go.gor.ja.rrai.tu ‘jarraitu gogor, jarraitu’, e.me.nez.ta.deu.sa.mai.tu ‘hemen ez da deus amaitu’ (ML-2009-AS-ge-3), i.txu.ran.mi.ran ‘itxuraren miran’, le.nik.pu.re.bat ‘lehenik pure bat’ (ML-2009-BB-6mtz-1), is.pi.lu.a.ri.ge.zu.rra.zuk.zeu.ke.sa.ten.di.o.zu ‘ispiluari gezurra zuk zeuk esaten diozu’ (ML-2009-BB-6mtz-2), la.na.da.si.nis.te.a.‘ai ‘lana da sinestea, ai’, la.na.da.e.go.ten.la.sai ‘lana da egoten lasai’, gu.bi.oi.ja.te.ne.man.zi.gu.nak ‘gu bioi jaten eman zigunak’ (ML-2009-BB-6mtz-3), e.san.di.ot.txi.ki.txo ‘esan diot: txikitxo’, a.ra.‘mi.ra.ria ‘hara miraria’, ka.su.or.tan.‘a.ma.txo ‘kasu horretan, amatxo’, ni.nau.zu.‘ar.di.a ‘ni nauzu ardia’ (ML-2009-BB-8tx-2), o.be.e.san.‘a.men ‘hobe esan amen’, e.do.i.gual.gel.di.tu.be.ar.det.‘na.bar.men ‘edo igual gelditu behar dut nabarmen’, txi.ki.txo.‘i.ku.si.da, ze.lai.ba.ten. ‘e.men ‘txikitxo, ikus da zelai batean hemen’ (ML-2009-BB-8tx-3), e.do.ja.ki.de.na ‘edo jaki dena’ (ML-2009-BB-9phtz), jo.xei.ta.zu.ei ‘Joxeri eta zuei’, mi.la.zo.ri.on ‘mila zorion’, be.te.le.gez.jui.zioz.tra.baz ‘bete legez, juizioz, trabaz’, e.ta.e.men.bil.du.dan ‘in.da.rraz ‘eta hemen bildu den indarraz’, gri.ñaz.e.ta.poz.tau.pa.daz ‘grinaz eta poz taupadaz’ (ML-2009-AS-ba).

Egiturazkoak ez diren etenak gauzatzea, hitz edo sintagmak bereizteko motibo erritmikoaren baitan: *kon.tae.zi.ña.ren.‘e.si.a ‘kontaezinaren hesia’ (ML-2009-GS-8H-2), e.tzen.du.nar.tu.‘e.tsi.rik ‘ez zenuen hartu etsirik’ (ML-2009-GS-8H-3), ni.ke.ma.ni.zun.‘o.rre.la ‘nik eman nizun horrela’ (ML-2009-GS-6mtz-1), ga.taz.ka.au.‘a.la.mo.du ‘gatazka hau hala modu’ (ML-2009-GS-ge-3), o.rain.dik.da.‘aur.ten ‘oraindik da aurten’ (ML-2009-AS-10tx-2), ba.zu.en.‘se.na ‘bazuen sena’ (ML-2009-BB-9phtz), a.ka.so.‘a.se.rrez.ne.re ‘akaso haserrez nire’, le.pa.za.ña.zait.‘puz.tu.ko ‘lepazaina zait puztuko’ (ML-2009-BB-ge-2), ta.be.te.ko.‘e.rre.ge.la ‘eta beteko erregela’ (ML-2009-BB-ge-3), len.go.‘a.mo.nen ‘lehengo amonen’ (ML-2009-AS-ba).*

Arzallus 2013

Ereduko balio erritmikoak aldatzea, hitz hasiera edota amaiera balio luzeagoak muga dezan, batzuetan etenak ere baliatuta bereizketan (azpimarratuta luzatutako silabak): *e.ne.bi.o.tzak.zaz.pi.pro.bin.tzi ‘ene bihotzak zazpi probintzia’, lu.rro.ri.du.gu.re.i.tzak ‘lur hori du gure hitzak’ (AA-2013-GS-ha), guk.bi.e.ba.ki ‘guk bi ebaki’ (AA-2013-GS-8H-2), ze.ni.on.zen.ba.ti.zar ‘zenion: zenbat izar’, ba.o.rqi.ni.a.ri.nai.zi.za.rra.ki.kus.ten ‘ba orain ni ari naiz*

izarrak ikusten' (AA-2013-GS-8tx-1), *e.txe.ra.ko. 'ain.nu.en* 'etxerako hain nuen' (AA-2013-GS-8tx-3), *na.go.i.si.lik* 'nago isilik', *i.tzal.lu.ze.a* 'itzal luzea' (AA-2013-GS-ge-3), *a.ra.zuk. 'e.pai.tu* 'hara zuk epaitu' (AA-2013-AS-10tx-1), *bai.pix.kat.ki.li.ma.tu.zait.bi.o.tzix.ki.ña* 'bai, pixka bat kilimatu zait bihotz iskina' (AA-2013-AS-ptk-7), *be.rez.di.re.nez. 'uz.tar.tzen* 'berez direnez uztartzen', *e.tzaiz.ki.da.nik.gus.ta.tzen* 'ez zaizkidanik gustatzen' (AA-2013-AS-ge-1), *e.gin. 'i.rri.par.bat. 'or.dez* 'egin irribarre bat ordez', *ja.kin.nai.dut.bai. 'u.mo.rez* 'jakin nahi dut, bai, umorez' (AA-2013-AS-ge-2), *e.do. 'o.tso.bat. 'a.ri.da* 'edo otso bat ari da', *joa.ten.di.ren.bil.do.tsak* 'joaten diren bildotsak' (AA-2013-AS-ge-3), *e.rre.kan.be.ra. 'i.ba.rra* 'errekan behera ibarra' (AA-2013-BB-6mtz-1), *zu.re.su.dur.txo. 'a.tze.a* 'zure sudurtxo atzea', *a.la.go.za.tze.a* 'hala gozatzea' (AA-2013-BB-6mtz-2), *go.za.me.na. 'e.der.ga.rrri* 'gozamina edergarri', *ni. 'i.noiz. 'ba.na.go.la.rrri* 'ni inoiz banago larri' (AA-2013-BB-6mtz-3), *eun.ba.teu.ro.sa.ke.lan* 'ehun bat euro sakelan' (AA-2013-BB-8tx-1), *e.zin.dut.ba.se.gi* 'ezin dut ba segi' (AA-2013-BB-8tx-2), *nu.ke. 'kan.ta.tze.a* 'nuke kantatzea', *ka.ka. 'le.txe.a* 'kaka letxea' (AA-2013-BB-8tx-3), *len.po.e.me.ta.ko. 'i.tzak* 'lehen poemetako hitzak' (AA-2013-BB-ge-2), *es.kain.tzen.di.ot. 'a.ma.ri* 'ekaintzen diot amari', *au.rra.nin.tze.la. 'eus.ka.raz* 'haurra nintzela euskaraz' (AA-2013-AS-ba).

Egiturazkoak ez diren etenak gauzatzea, hitz edo sintagmak bereizteko motibo erritmikoaren baitan: *ten.tsi.o. 'in.kre.txen.do.a* 'tentsio in crescendo-a' (AA-2013-GS-8H-2), *ro.dri.gez. 'i.ru. 'a.bi.zen* 'Rodríguez hiru abizen' (AA-2013-GS-ge-1), *ni.kez.ti.zut. 'e.zez.ta.tzen* 'nik ez dizut ezeztatzen' (AA-2013-AS-ge-1), *kol.pez. 'ar.tu. 'e.ri.o.tzak* 'kolpez hartu heriotzak' (AA-2013-AS-ge-3), *be.rrri.ro.e.re. 'ar.gi.ra* 'berriro ere argira' (AA-2013-BB-ge-1).

Lujanbio 2017

Ereduko balio erritmikoak aldatzea, hitz hasiera edota amaiera balio luzeagoak muga dezan, batzuetan etenak ere baliatuta bereizketan (azpimarratuta luzatutako silabak): *e.rrri.a. 'trin.ko. 'e.gi.naiz* 'herria trinko egin nahiz', *trin.ko.di.ot. 'ez. 'ar.tal.de* 'trinko diot, ez artalde' (ML-2017-GS-ha), *de.na.pa.rra.de.na.bi.tsa* 'dena aparra, dena bitsa' (ML-2017-GS-8H-2), *zer.no.la.tan.za.bil.tzan* 'zer-nolatan zabiltzan' (ML-2017-GS-8tx-3), *guk.gre.bae.gin.da.ko.an* 'guk greba egindakoan' (ML-2017-GS-10tx-2), *pa.kis.tan. 'ma.ro.ko.tik* 'Pakistan, Marokotik' (ML-2017-GS-10tx-2), *e.ta. 'e.zi. 'e.zin* 'eta hezi ezin' (ML-2017-GS-10tx-3), *ez.da.o.ri.zu.en. 'pe.na* 'ez

da hori zuen pena' (ML-2017-GS-ge-1), *a.za.la.zi.mel.*'ko.lo.re.zu.ri 'azala zimel, kolore zuri', *ain.bes.te.*'o.ker 'hainbeste oker', *niz.ki.on.le.ne.ta.*'a.ra 'nizkion lehen eta, hara' (ML-2017-GS-ge-2), *fa.mi.li.a.ke.re.*'mu.ziñ 'famiak ere muzin' (ML-2017-GS-ge-3), *er.kin.*'e.ta.ja.rrai 'erkin eta jarrai' (ML-2017-AS-ha), *e.ta.pa.ri.sen.*'ger.ta.tzen.ba.da 'eta Parisen gertatzen bada' (ML-2017-AS-6mtz-2), *da.ex.*'ain.bes.te.'ur.te.ko 'Daesh hainbeste urteko', *ta.la.na.ri.*'ez.'uz.te.ko 'eta lana(ri) ez uzteko' (ML-2017-AS-6mtz-3), *er.ne.*'mu.gi.tze.na.ri 'erne, mugitzen ari' (ML-2017-AS-ptk-7), *u.me.a.re.kin.na.bil.no.la.bait* 'umearakin nabil nolabait' (ML-2017-AS-ge-2), *ain.*'aun.di.ta.'ain.'a.al.tsu 'hain handi eta hain ahaltzu', *tris.te.ta.po.zik* 'triste eta pozik' (ML-2017-GS-ge-3), *pa.ke.a.jo.a.te.a.da* 'bakea joatea da' (ML-2017-BB-8H-3), *len.*'la.na.tai.zer.di.a 'lehen lana eta izerdia', *jai.*'e.ta.'as.te.len 'jai eta astelehen' (ML-2017-BB-9phtz), *ez.ta.kit.be.ra.*'a.la.ni 'ez dakit bera ala ni' (ML-2017-BB-ge-1), *nai.be.ze.la.ko.*'be.ze.ro 'nahi bezelako bezero', *bai.etz.be.ra.li.bre.u.tzi* 'baietz bera libre utzi' (ML-2017-BB-ge-2), *trans.mi.si.o.a.ren.tren.tzak* 'transmisioaren trentzak', *txa.pe.lau.ge.ro.ko.en.tzat* 'txapel hau gerokoentzat' (ML-2017-AS-ba).

Egiturazkoak ez diren etenak gauzatzea, hitz edo sintagmak bereizteko motibo erritmikoaren baitan: *ka.xo.de.noi.*'e.men.gau.de 'kaixo denoi, hemen gaude', *ba.kar.ka.ko.*'e.ta.'tal.de 'bakarkako eta talde' (ML-2017-GS-ha), *no.la.*'ez.'e.san.'a.ka.bo 'nola ez esan, akabo', *i.zer.di.e.ta.*'ur.tra.go 'izerdi eta ur trago' (ML-2017-GS-8H-1), *de.gu.ja.*'e.rre.kin 'dugu ja(da) errekin' (ML-2017-GS-10tx-1), *ba.ñae.men.na.tor.*'a.la.bar.di.beltz 'baina hemen nator, alaba ardi beltz', *mes.pre.txa.tu.a.*'e.rre.na 'mespretxatua, herrena' (ML-2017-GS-ge-1), *ai.i.nor.ke.nau.*'an.pa.ra 'ai, inork ez nau anpara(tu)' (oina), *ze.*'auts.'o.riz.ta 'zer hauts horizta', *jo.du.te.txe.ko.*'al.da.ba 'jo dut etxeko aldaba' (ML-2017-GS-ge-2), *gu.re.*'e.rri.ko.'e.rre.giñ 'gure herriko erregiñ(a)', *bi.la.ka.tu.zen.*'e.rre.min 'bilakatu zen erremin', *ba.tzu.tan.be.rei.zi.*'e.ziñ 'batzuetan bereizi ezin', *gaur.*'u.mil.na.tor 'gaur umil nator', *i.rri.fa.rre.tsu.*'a.tse.giñ 'irribarretsu, atsegin' (ML-2017-GS-ge-3), *si.ri.a.*'a.ra.bi.a.'ai 'Siria, Arabia, ai' (ML-2017-AS-6mtz-2), *o.te.nin.dun.*'o.na.bul.tza 'ote ninduen hona bultza', *e.ta.ja.so.dut.*'la.gun.tza 'eta jaso dut laguntza', *le.en.*'e.za.ren.'u.tsa.nu.en.ta 'lehen ezaren hutsa nuen eta', *gaur.*'i.za.non.do.ko.'u.tsa 'gaur izan ondoko hutsa' (ML-2017-AS-ge-1), *e.gi.te.rik.*'en.ba.ra.zu 'egiterik enbarazu', *mi.la.sen.ti.pen.*'jo.ta.su 'mila sentipen jo eta su' (ML-2017-GS-ge-3), *zen.ba.lo.re.*'au.rren 'zen balore aurren'

(ML-2017-BB-9phtz), *la.ne.ra.ko.da*.‘*e.gu.na* ‘lanerako da eguna’ (ML-2017-BB-ge-1), *ta.gu.be.gi.ra*.‘*el.ka.rri* ‘eta gu begira elkarri’ (ML-2017-BB-ge-2), *be.rai.ek*.‘*e.to.rri*.‘*e.san* ‘beraiek etorri esan’, *a.tse.gi.ñik*.‘*ez.ta.sa.rri* ‘atseginik ez da sarri’, *or.do.a.gu.re*.‘*i.e.sa* ‘hor doa gure ihesa’, *ta.ie.sa.ren*.‘*e.rro.be.ra* ‘eta ihesaren errobera’, *ez.ti.ru.dio.so*.‘*on.be.ra* ‘ez dirudi oso onbera’, *ez.ba.gai.tu.e.re*.‘*ze.ra* ‘ez bagaitu ere, zera’ (ML-2017-BB-ge-3), *e.rri.au*.‘*e.rri*.‘*e.gi.ñal.du.gu* ‘herri hau herri egin al dugu’, *e.gu.ras.te.ko*.‘*a.me.tsak* ‘egurasteko ametsak’ (ML-2017-AS-ba).

II.6. Silaba(ren) bat(zuk) nabarmentzea motibo erritmikoaren baitan

- Amuriza 1980 -
- Amuriza 1982 **Motibo erritmikoaren arabera pareko liratekeen silabei balio erritmiko desberdinak ematea, hitz mugen hasiera edo amaiera luzatuta:** *i.ja.ja.rri.gai.tuz.te* ‘ia jarri gaituzte’, *an.dik*.‘*o.nuntz.ba.da.tor* ‘handik honuntz badator’ (XA-1982-AS-be1),
Motibo erritmikoaren arabera pareko liratekeen silaben artean hitz barneko bat nabarmentzea: *e.tx.e.han.ba.da.be.rriz* ‘etxean bada berriz’, *e.gi.ja*.‘*e.sa.ten.da* ‘egia esaten da’ (XA-1982-AS-be1), *a.te.ri.kan*.‘*a.te* ‘aterik ate’ (XA-1982-AS-ge-2), *o.rain.tx.e.sar.tu.zait*.‘*a.rra* ‘oraintxe sartu zait harra’, *la.gu.naon.do.tik* ‘laguna ondotik’, *pa.sa.tu*.‘*e.ta* ‘pasatu eta’ (XA-1982-BB-ge-1),
- Lizaso 1986 -
- Lopategi 1989 **Motibo erritmikoan aldaerak gauzatuta, hitz barreneko silabak nabarmentzea** (sarri sinkopa baliatuz. Azpimarratuta luzatutako silabak): *zu.e.na.gin.du.ba.ti* ‘zuen agindu bati’, *e.ran.tzun.na.jan.be.ti* ‘erantzun nahian beti’ (JL-1989-GS-ha), *ain.ger.ta.tzen.da*.‘*u.rri.ja* ‘hain gertatzen da urria’, *i.lu.si.jo.en*.‘*ar.gi.a* ‘ilusioen argia’(JL-1989-GS-ge-1), *bu.ru.ba.ka.rra.ren.tzat* ‘buru bakarrarentzat’ (JL-1989-AS-ha).
- Egaña 1993 **Motibo erritmikoaren arabera pareko liratekeen silaben artean hitz barneko batzuk nabarmentzea:** *i.no.la.e.re*.‘*ez.nu.nes.pe.ro* ‘inola ere ez nuen espero’ (AE-1993-GS-ge-1), *in.dar.ke.ri.a* ‘indarkeria’ (AE-1993-AS-ge-1).
Motibo erritmikoan aldaerak gauzatuta, hitz barreneko silabak nabarmentzea: *ba.dau.kat.mal.ko* ‘badaukat malko’, *e.zal.da.bis.tan* ‘ez al da

bistan', *bi.zi.tza.de.nok* 'bizitza denok', *me.re.zi.de.gu* 'merezi dugu' (AE-1993-AS-ge-2).

- Egaña 1997 **Motibo erritmikoaren arabera pareko liratekeen silaben artean hitz barneko batzuk nabarmentzea:** *e.ma.ku.me.en* 'emakumeen' (AE-1997-GS-ha), *gu.re.'a.bi.a.da* 'gure abiada' (AE-1997-GS-9phtz), *ni.'ke.ja.tze.ra* 'ni kexatzera'(AE-1997-GS-ge-3).
- Egaña 2001 **Motibo erritmikoan aldaerak gauzatuta, hitz barreneko silabak nabarmentzea:** *ar.bo.la.ti.kan.*'jeix.ti.a 'arbolatik jeistea' (AE-2001-GS-6mtz-3), *pa.si.bo.ke.riz* 'pasibokeriaz', *bes.te.kal.de.tik* 'bestaldetik' (AE-2001-GS-ge-2), *o.roi.tza.pe.nik* 'oroitzapenik' (AE-2001-BB-1p-2), *aun.di.a.e.do.'po.xi.a* 'handia edo poxia', *zu.re.o.roi.pen.bi.zi.a* 'zure oroitzapen bizia' (AE-2001-BB-ge-1), *ni.neu.bi.zi.a.'na.go.la* 'ni neu bizia nagoela' (AE-2001-BB-ge-3), *gu.re.ar.te.an.da.go.la* 'gure artean dagoela' (AE-2001-BB-ge-3).
- Egaña 2005 **Motibo erritmikoan aldaerak gauzatuta, hitz barreneko silabak nabarmentzea:** *bi.ar.ko.eus.ka.le.rria* 'biharko Euskal Herria', *de.na.e.ma.te.ra.na.tor* 'dena ematera nator' (AE-2005-GS-ha), *ni.ko.rain.'i.rens.te.ko* 'nik orain irensteko' (AE-2005-GS-8tx-4), *sen.ti.tze.naiz.'ain.'a.rra.ro* 'sentitzen naiz hain arraro' (AE-2005-AS-6mtz-1), *me.se.de.'e.do.'kal.te.ra* 'mesede edo kaltera' (AE-2005-AS-6mtz-2), *e.men.txe.na.go* 'hementxe nago' (AE-2005-AS-ge-2).
- Lujanbio 2009 **Motibo erritmikoan aldaerak gauzatuta, hitz barreneko silabak nabarmentzea:** *la.na.da.si.nis.te.a.* "ai 'lana da sinestea, ai' (ML-2009-BB-6mtz-3).
- Arzallus 2013 **Motibo erritmikoan aldaerak gauzatuta, hitz barreneko silabak nabarmentzea:** *di.ozu.be.gi.ak.gor.dez* 'diozu begiak gordez' (AA-2013-AS-ge-2), *be.re.be.so.e.ta.ra.ño* 'bere besoetaraino' (AA-2013-BB-ge-2).
- Lujanbio 2017 **Motibo erritmikoan aldaerak gauzatuta, hitz barreneko silabak nabarmentzea:** *ze.o.ze.ren.tru.ke* 'zeozeren truke' (ML-2017-GS-10tx-2).

II.7. Motibo erritmikoan musika nota bat (silaba bat) gehitzea

- Amuriza 1980 **Doinuaren metrikaren baitan musika nota bat gehitzea motibo erritmikoan silaba bat gehiago ahoskatuz:** *ba.ten.bat. 'i.zan.go.da.la* 'baten bat izango dela' (XA-1980-BB-pe-1), *ar.tze.nau.be.ro.ta.su.nak* 'hartzen nau berotasunak' (XA-1980-BB-pe-2) (bi adibideak doinuko puntu berean, aldaera bera).
- Amuriza 1982 **Doinuaren metrikaren baitan musika nota bat gehitzea motibo erritmikoan silaba bat gehiago ahoskatuz:** *au. 'u.tsa.ga.tik.bu.rru.ka* 'hau hutsagatik borroka' (XA-1982-BB-8tx-2), *be.tor. 'eus.kal.te.le.bis.ta* 'betor euskal telebista' (XA-1982-BB-8tx-2), *gu.re.o.llar.be.rri.tsu.a* 'gure oilar berritsua' (XA-1982-BB-pe-2).
- Lizaso 1986 **Doinuaren metrikaren baitan musika nota bat gehitzea motibo erritmikoan silaba bat gehiago ahoskatuz:** *a.rra.tsal.de.on.be.rri.ro* 'arratsalde on, berriro', *gu.txi.ñe.ze.gin.go.al.da* 'gutxienez egingo al da' (SL-1986-AS-ha).
- Lopategi 1989 -
- Egaña 1993 -
- Egaña 1997 -
- Egaña 2001 -
- Egaña 2005 -
- Lujanbio 2009 -
- Arzallus 2013 -
- Lujanbio 2017 -